ZEZENAK EUSKAL HERRIAN

Gure baitan dituzten erro luze-ezkutuak

Iñaki Azkune Mendia

Jose Azurmendiren hitzaurreaz

ZEZENAK EUSKAL HERRIAN

Gure baitan dituzten erro luze-ezkutuak

Iñaki Azkune Mendia
Jose Azurmendiren hitzaurreaz

ZEZENAK EUSKAL HERRIAN

Gure baitan dituzten erro luze-ezkutuak

Egilea: ***Iñaki Azkune Mendia***
Jose Azurmendiren hitzaurreaz

udako euskal unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ETA TURISMO SAILAREN LAGUNTZAZ

© Udako Euskal Unibertsitatea
General Concha, 25, 6. 48010 BILBO
ISBN: 84-86967-09-0
Lege-gordailua: BI-486-89
Azalaren diseinua: Julio Pardo
Inprimatzailea: BOAN S.A.
Particular de Costa 12, 48010 BILBO

Toreatzaile batek "faena"
hasi behar duenean,
zapi–ezpatak esku batean
txapela berriz bestean,
lagun min bati keinu eginda
zutik jartzen zaionean,
eskaintza–hitzak esan ohi ditu
ahal den modu onenean,
zezen aurrean ahalegin denak
jotzeko ondorenean.

Nik ere orain lana hastean
atera behar dut hitza,
luma–paperak hartu baino lehen
esker onez nahi dut mintza,
bihotz barrendik ateratzen zait
oihu ozen ta bortitza:
"Aita eta ama bion ohorez!"
Hara gaur nere brindisa,
Zuengandikan jaso bait ditut
hizkuntza eta bizitza.

HITZAURREA

Ez naizela korridazalea, apenas edukiko dut, nire kasuan, aitortu beharrik. Bereziki kontrarioa ere ez naiz, ordea, agnostikoa edo baino, nolabait esan,– berehala ulertuko da zer esanahi duen.

Orain, aparte bakoitza nola dabilen erlijio kontuan, kulturalki Europa zaharrean kristauak geratu gara. Renan–ek arrazoi bazuen behintzat, berdin berdin egon omen gindezkeen mithrikoak: Konstantino Kaiserrak debekatu egin zuelako eta administrazioaren erlijio ofizialtarako kristautasuna hobetsi zuelako izan ez balitz, Mithra–ren kultua izango omen bait zen Inperioan bere kisa goititu izango zena, eta europarrok mithratarrak bilakatu izango ginen.

Mithra–ren kultua K.o. II. mendean legio erromatarretan arras nagusitu zen eta indarrez hedatu zen legiook iristen ziren kolonia eta hiri bazter guztietara, *limes* germanikoraino Erdiko Europa–n eta Hadriano–ren hormaraino Britainia–n. Mithra–ren erlijio hori gizonentzakoa bakarrik zen, emakumeak ez ziren sartzen, eta legionarien artean errotu zen gehiena. Erlijio honen pisu soziala nolakoa zen —administrazioa eta armada bata bestearen eskutik ibiltzen ziren Inperio batean— aisa pentsa daiteke. Abenduko 25a, eguzki berriaren festa, jai gorena urte guztian, orain Jesukristo–ren jaiotegun bezala ospatzen duguna, Mithra–ren jaioteguna zen, hari kendu zion eguna kalendarioan kristautasunak, hau ofiziala bilakatu zenean agintean. Eukaristia bat edo, ezagutzen zuen orobat bere modura. Eta bataio bat, batez ere, zezen–odolezkoa, *taurobolioa,* Iñaki Azkune–k 37–38 orrialdeetan aipatzen duen eran.

Mithra–ren misteriook leize–zuloetan ospatzen ziren. Eta leize–zulo horietan bizitzen dira, Barandiaran–enetik gogoratuko denez, euskal mitologiako zezen eta behi gorriak: leizezulo–n Lizartza–n, Iturrioz–ko leizean Ataunen, etab. Barandiaran–en interpretazioa zuzena balitz, zezen eta behi gorriok funtsean Mari bera genituzke, irudiokin antzaldatuta bere burua. Testuinguru kosmologiko sakratuan mugitzen gara nolanahi ere. Eta mito horietan, Mirande–k esan ohi zuenez, gure herriaren genioa espresatzen ei da. Mito horietan legoke esanda, euskaldunarentzat mundua zer den, eta nola ikusten duen paratuta munduan bere burua.

Baina zezenak ez dabiltza euskal kosmologian bakarrik. Zezenaren kultua antzina antzinakoa dugu, ekialde zaharrenetik Erroma–ko Inperioraino (J. R. Conrad, *Le culte du taureau,*1961). Artearen historiatik batik–bat, ezagunak egiten zaizkigu Apis jainkozkoaren errepresentazioak Egipto–n. Antzinako Iran–en badakigu, zezenaren hilketa errituala gauezko liturgien erdigune zirrarakorra izaten zela. Mesopotamia–tik Egipto–ra, hortakoz, eguraldien jainkotasunei —landetako bizitzari— sakrifikatzeko animalia txitezkoena izan da zezena. Hághia Triádha–ko sarkofago famatuan ere, Kreta–n, zekor polit askoa ikusten da, lau hankak lotuta, opalmahai gainean, labana sartzeko prantatuta (J.R. Chadwick, *El mundo micenico,* 1985). J. R. Conrad–en eritzian, zezenaren kultu moduren bat, gizonak, Aurignac–aldiaz gero praktikatuko liguke. *Homo sapiens* bera bezain zaharra dela, esan genezake, hortakoz, *homo sapiens* horren zezenarekiko postura ehiztakor–deboziozko berezia. Eta erlazio horrek berezia dirudi gaur ere, besterik ez bada egunotan polemika sastar batek inguratzen duelako.

Bi gauza. Problema ez da, zezen–jokoa (jatorriz) euskalduna den ala espainola den. Lehenengo, izan ere: folklorean, literaturan, erlijioetan, mitologietan, ekonomian, jateko ohituretan, artean eta artisautzan, edonon egiten dugu zezenarekin topo. Giza ekintza mota guztietantsu. Intentsitate horrez gain, hainbat giza ihardunetan agertzea, zezenaren presentzia horrek hedadura geografikoa ere guztiz zabala du, gure ermu kultural guztia estaltzen bait du, Txina eta India–tik Siria eta Palestina–ra, Mediterranio-ko harroa, kelten lurrak eta Iberia–raino.

Gaur kontrajarri egin ohi ditugun ekialde eta mendebaldea baino, edo ebaki eta bata besteagandik berezi ohi ditugun nazioak eta Estatuak, mintzairak eta erlijioak baino sakonago, bada, beraz, gure historia kulturalean, hagitz barnagoko sinbolo bortitz unibertsal bat, bizitzaren sinboloa hain zuzen, indarrrarena eta boterearena. Hor barren–barrenean, zezenaren deritzokegun sustrato batean, guztiok oraindik bat gara.

Horregatik, protestante, katoliko, mahomedano, etab., baino gure guztion lehenago eta barnagoko erlijiotzat hartu ahal izango litzateke, beharbada, zezenaren sinboloa. Euskaldun, espainol, etab., baino barnago eta lehenagoko batasun–elementu kultural eta gizatiar funtsezkotzat halaber. Eta, ametsetan, lehen gizonaren mundu–ikuskera orokor eta oinarrizkotzat agian.

Amets hutsak ere ez genituzke izango kontsiderazio moduok. Europa–ren arraptoak eta, hainbat mitotan dabilkigun zezenak, zer esanhai duen, ez da nire eginkizuna, argitzea, ez nekikeelako nola egin. Baina izan ditu eta baditu bere esanahiak, zalantza gabe, eta ezin interesgarriagoa irudituko litzateke, zehazki jakiterik izango bagenu, zer doi–doi adierazten duten. Zer egiten dute kolorezko zezen horiek Lascaux eta Altamira–ko harrian, Çatgal Hüyü–k eko zezen erraldoiaren freskoak Anatolia Zentralean? Zer kobrezko zezentto sumeriar ttentteak, hirugarren milurtekoa Kristo baino lehen, Museo Britanikoan? Zer dago Minotauro zemaikor hori labirintoko gela ezkutuenean? Berdin, ez dakigu ondo zertan dabiltzan ipuin zaharretako gure zezen eta behi gorriak Euskal Herrietako leize barrenetan. Gure sustrai izpiritual guztietan zezenak ageri dira.

Suposa dezagun libertate pixka batekin, zezenaz mundu–ikuskera oinarrizkoetako bat adierazten dela. Zezen–jokoa "izpiritu kristauaren kontrarioa" dela, esaldiak, zentzu arriskuor berri bat ager liezaguke, orduan. (Jesukristo Mithra–ren aurka, berriz ere). Eta Moise–ren borroka biblikoa "urrezko zekorra"ren aurka su eta gar, litzateke, gero kristautasunean bokalduko den mundu–ikuskera baten borroka intolerante luzea bihurtuko, zezenaren mundu–ikuskera "pagano" eta "barbaro"aren aurka?

Ez da fantasiatzeko gusto hutsagatik, mundu–ikuskera oinarrizkoetako bat suposatzen badugu zezenarekin sinbolizatua. Ezer asmatzera sartu gabe, literatura vedikoan nahikoa argitsu dago hori: *Rig Veda*–ko Rudra zezen amorratu marrulari zerutarra, ahalmen kreatzailea da, haren hazi naharo gizenak lur guztia bait du ernaltzen. Eta *Atharva Veda*–k, Yahweh kreatzailerik ezagutzen ez badu, begira zer ezagutzen duen haren lekuan, behiari gorazarre–kantu honetan:

Behia zerua da, behia lurra da,
behia Vishnú eta Prahapati da:
Sādhayaen eta vasnien egarria kendu du
esne jaitsiak.
(...) Harengan datza jainkozko ordenua
eta santutasuna eta kemena.
Behia da Jainkoak dituena biziarazten,
behia gizonak dituena biziarazten.
Behia da baden guztia,
eguzkiak kontenplatzen duen guztia.

Zer esan nahi du horrek? Munduari hasiera eman diona, ikusten ez duguna, zezenaren irudiarekin sinbolizatzen dela (behia/zezena, sinbolo bera da, kreazio printzipio batberaren alde jasankorra eta ekinkorra). Zezen/behian sinbolizatzen da izate ororen eta sortze ororen printzipioa, bizitza ororen iturburua, ernalkortasuna, aberastasuna ("oparotasunaren adarra", "kornukopia"), potentzia.

Bai, mundu aberatsa, deskubritzen da zezenaren sinbolismo azpian, antzinate–mundu liluragarria. Baina hortxe hasten zaizkigu problemak ere. Haiek posible zuten oraindik zeruak zezenez eta behiz biztantzea, zezen potente baten hodei–marruak entzutea ekaitzean (Sibiria–ko tribu batzuek oraindik ere entzun egiten dituzte, laku hondoetan, zezen horren marruak, ekaitza erasotzera doanean) eta haren hazi–euriz ikustea soro–zelaiak ernaltzen, ilgoraren zezen adarrak identifikatzea oskarbian zorrotz, argi–esne zabalez zurituta ilargi beteko gau barea, "esne–bide" izarrezko bat izartegian, etab. Baina gu ez kanpoan bizitzen gara, ez ilargiaren zikloak larriturik edo harriturik segitzen ditugu, ez udaberriko belaze eta loreen birbizteaz hunkitzen gara, ez zeru izarrari egoten gara beha–beha, kontenplazioan, barne ahots isilari jareginda. Ez gara bizi zezenak eta behiak funtsezko ondasun diren ekonomia batean. Gure errege eta erreginei zezen eta behi deitzea seguruenik zigortu egingo lukete justizia modernuko tribunalek. Hitz batean: gu ez gara haiek, haienak ez dira gure denborak.

Zezenak aipatzen direnean gaur, entzierroan eta korridan pentsatzen da. Edonola baloratzen direla ere, espektakulo hutsak baino "gehiago" direla horiek, gauza nabariegia da, h.d., arras beste zerbait dira, espektakuloaren elementu batzuk badituztela ukatu gabe. (Duintasun zerbaitekin egindako liturgia guztiek izaten dute espektakulo apur bat). Berdin, kirola baino besterik dira, artea baino, balleta baino, sakrifizio errítual soila baino besterik, etab., eta hori dena ere badira nolabait, horixe bakarrik izan gabe. Zer besterik zehatz—mehatz, eta zer gehiago, horixe argitzen asmatzea litzateke hemen kontua. Zein historiaurreko arima bizi da, iratzartzen da pilpilka, zezen–joko zalearen golko–hosinean?

Denetarioak daude interpretazioak: zezenak indar eta grina sexual itsua errepresentatzen badu, zezenaren bizkarrean Shiva zaldun ibiltzeak indar eta grina haien menderapena, izpiritualpen–, adieraziko du. Zezen hau zuria izango da, orduan, eta gizartean zuzenbidea sinbolizatzen du, kosmoan haren guztiaren armonia unibertsala, *dharma*. Hein horretan, C.G. Jung–en sinbolika analitikoaren arabera, zezenaren sakrifizioan, aberezko bere grina itsu primitiboak gainditu eta bizitza izpiritual bakezko batean, konflikto gehiagorik gabekoan, iniziatu nahiko luke gizonak. Korridazaletasuna,

hortakoz, "barneko piztia" akabatu nahi ezkutu eta ezinaitortu bat izango litzateke, ordeztapen erritual bat mediante bideratua: sakrifizioa norbere barruan ordez kanpoan egiten da; jasan ordez, espektakuloan kontenplatu egiten da; norberaren lekuan, toreroak iharduten du (eta garaitu) ikuslearen ordezkari: baina haren garaipena ikuslearena da; norbere barneko grinen lekuan, azkenik, zezen gotor elegante bat da gaizki erabiltzen, penatzen, zigortzen, hildumatzen, zangoperatzen eta finean sakailatzen dena, beti ere zinez nagusi hemen zein den garbi utziz. Bere moduko ostiral santu bat hori ere: justiziamendu batena gabe, borroka baten simulakroa halere.

Ez dakit zenbat fidatu beharko den interpretazio moduotan. Ezin falta zitekeena ere ez bait da faltatzen gainera: Edipo–ren konplexuaren topikoa. Zezenak aita haserretua errepresentatuko luke eta ikusliar guztion aita garratz horretatik askatuko ginduzke toreroak hura plazan apalaraziz eta sarraskituz.

Dena dela, sakrifizio alderdi bat zezen–jokoan onartu nahi bada —onartu beharra legokeela ematen du— hobe izango dugu, ohizkoa baino sakrifizioaren beste kontzeptu bat hartu. Egon, ausaz badago denetik: sakrifizioaren espazio erritual hesitua, ekintzarako bezala prestaturik; oparia, sakrifikatzailea, eta fidelen komunitate debotoa begira; erituala: pase jakinak, posturak ere jakinak, toreroaren pausu sazerdotal estudiatua, argizko jantzi femeninoa, momentu gorenean matadorea sazerdotesa bat bihurtu behar duena zezenaren begiz–begi; odol isurketa, etab. Baina, bestalde, sakrifizio honetan, ostiral santu honetan, dena festa eta bizipozaren gainezkaldia da, eromena, sakrifizioak ez dauka ezer tetrikorik, bihotza ez du erru sentimenduak hestu–larritzen, baina pozkidak eta garaipenak zabal irekitzen du: ezertan ez dirudi, kristautasunetik ezagutzen dugun sakrifizio ilunaren erakoa, erritoan erakusten diren eta sakrifikaldi jokoari lagun eginez komunitateak desarroilatzen dituen sentimenduei bagagozkie. Jaialdi eta askatasun pozezko ospaketa dionisiakoa dirudi gehiago.

Nolatan da posible, ordea, XX. gure mendu zibilizatuan, horrelakorik oraindik? Jendoste haten bistan eta atsegin haundiz, bizi–boterearen irudirik nobleena, dotoreena, maltratatu, umilatu, burlatu, porrokatu egiten da, musika eta sarraskizko alaitasun–uju eta odol–isurketazko, zaleek artea eta liturgia eta kritikoek basapiztikeria izugarria kontsideratu ohi duten bizitzaren eta heriotzaren drama ikaragarrizko batean.

Ordea, gu jadanik eritegietan jaiotzen gara, ez gurasoen etxean eta ez ahaide eta senideek inguraturik, baina mediku eta erizainek: jaiotzaren gure esperientzian ez dago, andre baten bere baitan erne duen haziagatik odoletan haurraz "erditzea" (ezpata batez bezala), euskarak ederdi esaten duenez, etxea bera eta laguntzaile jendeen eskuak odolez betetzea, etab. Jaiotza eta odola bat: hazia eta odola, odola eta bizitza. Azkenean ere botikaz enpatxaturik eritegian hiltzen gara berriro. Bizitzatik aparte bezala daukagun espazio isolatu batean etortzen gara mundura eta joaten gara mundutik. Jaiotza eta heriotza ez direla, esanahi dut, familian eta txikitatik egiten ditugun bizitzako esperientzia oinarrizkoak, bizipen inmediatoak, ez gizonaren jaiotza–heriotzak eta ez animalienak, jeneralean behintzat gure etxeetan animaliarik ere jaiotzen ez delako eta hil gutxiago.

Hori da bestea, hain zuzen: larre–kulturako gizonak —ehiztari, artzain, nekazariak— abereekin batera egiten zuen bere bizimodua munduan, eta bizitza borroka bait zen, animalienganako haren postura, oraingo kaletarren oso bestelakoa zen derrigor.

Horregatik ez derrigor gizagabekoagoa: zukarrari ostiko bat ematen dion baserritarra, basapizti krudel inhumanoa iruditzen zaio, berak bat etxean mimatzen duen kaletar askori. Eta orain ez dit axola, baserritar hura ala kaletar hau den zinez krudelagoa, gizona ere animalia dela kontsideraziotik abiatzen bagara behinik-behin, gizonaren erlazioa ere, zakurraren ala zezenarenganako, animalien artekotasunean ikusi beharko bait da orduan. Berdin da orain. Oro har, nolanahi ere, gure posturak animaliekiko, aldatu egin direla eta ondorengoan are gehiago aldatuko direla, fakto soil bezala, balorazio eztabaidagarrietan eta humanismoaren printzipioetan sartu gabe, begien bistakoa dirudi.

Tartean odol-isurketarik baldin badago batez ere. Gaur oilo bat ere ez da jada etxean hiltzen; zer esanik ez, zekorrik edo azienda haundiagorik. Kultura arruntak eta higiene publikoak adina, psikologia sozialak eta legeriak, hiri-bizitzatik aldendu eta hiltegietako ezkutura eramaten digute abel odolaren isurketa oro. Prozesu hori buelta ezinezkoa da.

Etab., etab. Gisa honetako oharrak egiten —kultura zenbat aldatu zaigun alegia— azkengabeki jarrai eta jarrai bait liteke. Beste bat eta nahikoa, bera: guretzat, haragia jateak ez du ezer berezirik adierazten eta ez du izaten batere zerikusirik animalia gure artean (etxean, edo auzoan, aldeko basoan) guretako bat gehiago bezala bizi izanarekin. Baina pentsa, baserritar pobre batek, gosetean familia mantentzeko, bere behi bat jan behar izaten badu, esaterako, zer gertatzen den. Iraniar mendi gorrietan eta Kreta batean, jende xumeak, egun seinale berezietan bakarrik edukitzen zuen haragia jateko aukera, sakrifizio egunetan adibidez, eta zezen baten sakrifizioa, zentzu honetan, iraultza txiki bat izaten zen herriska haietako ekonomia eta biziera komunalean. Diru truke erosi egiten denean ez bezala, sakrifizioko zezenaren okela, eduki egin den eta egunero ikusi eta hazi eta zaindu egin den, izen propio batekin deitu eta aipatu den geure-geure gizarteko elementu batena da, eta ez nolanahikoarena: herriskako gizonak eta zaharrak harrotzen, umeak eta emakumeak beldurtzen, gazteak erronkarako tentatzen zituen zezenik ederrenarena. Eta gure ondasunik bikainenaren galera den hori, egun batzuk bederen haragia jateko posibilitatea da etab., eta guzti hori sinbolismo sakratuz jantzita.

Ondo urrun bizi gara guzti horretatik, bizitzan — hori ere ukatzerik ez dago. Alferrik samar da honez gero zezenaren eta zezen-jokoaren arte paregabea goraipatzea, haren esanahi zahar barrenkor sakonetan murgiltzea, berdingabeko sinbolismo kultural eta mitikaren metafisika altuak egitea ("intelektualek" horrelakoxe lanak erabiltzen dituzte orain): praktikan, eta kontzienteki behintzat, gutxi-gutxi batzuek bakarrik somatu ahal izango dute hori dena ("zezenketaren teologoak" bezala direnak). Baina horren eta horrelako edozeren guztiz aurka eragiten du denak gaur-egungo gure kultura honetan. Erlijioei ere gertatzen zaiena da, bere sinbolismoen sentidua jendeak ez duela ulertzen eta bizitzen. Baina abereekiko gure posturari gagozkiola bereziki, abel babeserako elkarteen gizartea da gure hau; "galtzeko arriskuan dagoen espeziearen urtea"k ospatzen dituen aroa; "aberearen eskubideen iraultzaren aroa", pixka bat ridikulizatuz esateko: Green Peace, etab. Urtero-urtero gure gainean kanpaina publiko berrien erasoak dauzkagunean, uso ehizearen aurka, ez dakit nongo fokakumeen alde; inguruan ezagutzen ditugun animalia bakarrak adiskide kuttun bezala edo familiako gisa ezagutzen ditugunean (ume ordezko, edo anai-arreba ordezko); animaliatxook ia kulturkide eta solaskide bezala tratatzen ditugunean gure erlazioetan — salbu, beharbada,

sardeskarekin jatera oraindik ez ditugula behartzen: alegia, errealitatean ere (gure barnean) gero eta gehaigo Walt Disney baldin bada mundua zer den diseinatzen diguna bere txoriekin eta animaliekin, oso zaila da orduan, telebistan eta hezkuntzan txiki–txikitatik, biziera publikoan ondoren, prentsa–irratietan, politika ekologikoan, denean, erakutsi eta kultibatu behar izaten den sentsibilitate honekin, pikadore eta matadoreen justifikaziorik aurkitzea gero. Zer falta egiten ote dute, gainera, lan zikin horiek, toreo garbi batean.

Kontatzen da anekdota bezala, zezenei buruzko tertulietan Bartzelona–n artisten artean, iragan mendearen azkenetan, Rusiñol–ek bere jarrera honela agertzen omen zuela, —eta sentsibilitate gaurtarraren espresio egokia izan liteke: "zezenaren eta zaldiaren artean, ni zaldiaren alde nago; zezenaren eta toreroaren artean, zezenaren alde". Zenbaitek sentitzen du gaur horrelaxe?Eta hori toreoaren kontra egotea da azken finean.

Eta sentitzen dut horrelaxe esan beharra, baina gauzak horrela sentitzea, gauzak sentitzea da, sinboloak ez sentitzea; gure aldiaren pobrezimendu partikular baten seinale zalantza gabe. Baina, sentzitzea finitu denean, sinboloa bera finitu da, ez da ezer.

Honekin ez da hemen zezenei buruz ezer erizten, ez on eta ez gaitz. Esaten da bakar–bakarrik, zezen–joko tradizionalaren inguruan problema haundi bat dagoela. Korridak egun hainbat kritiko baldin badu, ez dago pentsatzerik, nano sentimental batzuk direla denak eta kito. Historia historia da, baina historia baino ez da gehiago. Beste aro eta kultur–molde batzuetan normal–normala zenak eta justifikaziorik behar izaten ez zuenak, oraingo sentsibilitatean txokatu egiten du agian eta justifikazioa esaktzen du. Kontzientzia sozialean konflikto bat sortzen da, beraz. Eta konflikto hori ez da gainditzen "sadiko hutsak dira zezenzaleok" esanez, edo "zergatik jaten duzue orduan haragirik?" osteratuz.

(Polemika orain askotan dabilen bezala, zezenzale erraz ager dakiguke, kulturalki bederen, inorentzat interesik batere gabeko seinorito estupido tradizionalista baten edo astapotro kirten baten antzeko. Gorabehera honetan ez bait dira ezer interesatzen inoren zaletasun partikularrak eta haietarako edozeinen eskubideak, partikularrak bezala. Tradizio kultural aberats baten jarraitun eta landuzale kontziente bezala, ordea, baluke zereginik eta interesik gizarte modernuan ere, bere eta besteon atseginerako. Halakoarentzat ezin interesgarriagoa izango da liburu hau. Bestetik berdin, korridak kriminaltzat eta zaleak beste gabe erotzat jotzen dituen kritikoak ere, ez digu funtsean ezer laguntzen fenomeno hori ulertzen, hortik hasi beharra bait dago, arazoak inondik–inora egingo badu. Baina itx dezagun parentesi hau).

Asko da, gizarteen balio sistemak eta sentsibilitateak aldatzen direna denborarekin. Gauzek egiten dutena gure inguruan, ez da, zerbait izan, baina zerbait singnifikatu. Eta aldatu egiten da, zer signifikatzen duten (zer "diren"). Eta hor, antzinari ez, baina orainari begira, denak irekia dirudi berriro: hots, lehenago zer izan zen gabe, orain zezen–jokoa posible litzateke "espainola izatea" (espainolismoa signifikatzea); basakeria eta sadismo hutsa izatea; ohitura makur batzuena beste sentidurik ez izatea (patologia soziala). Posible, bai: baina ezin esan derrigor horixe denik. Izan daiteke oraindik esaten den arte sublimea, sinbolo guztiz sakona... Apenas, ordea, Altxerri–n uroa marraztu zuenaren esperientzien eta bizipenen arte–espersiorik, sinbolorik... Oraingo arimaren

zerena, orduan? Has gaitezen, beraz, berriro zerotik.

Esanahia eta sinbolismoa aldatzen den eran, zezen–jokoaren forma ere historian aldatuz joaten da, eta aldez–beste. Ronda–ko plazan, toreo modernua hantxe jaio zela, esplikatu nahi izaten diote turistari. Oraintxe berton ere, alabaina, zezen–joko desberdinak dira korridak, entzierroak adargain–jauziak eta sokamuturrak esaterako, eta korridak berak diferenteak dira Arles–en eta Lisboa–n. Esku artean duzun liburuaren interesetako bat, ez txikiena —datu bilduma historiko itzela izateaz gain, adibidez—, "zezenak" gaiaren ugaritasuna eta zabaltasuna ebidentzian jartzea izango da. Hortixe abiatu beharra dago, eztabaidatzeko ezezik, apur bat ulertzeko "zezenketen" fenomenoa gizartean eta historian. Zalantza gabe gizona era desberdin anitzetan harremandu da zezenarekin aroz–aro eta lekuz–leku. Odol–korrida ez da korrida bakarra, gutxiago zezen–joko bakarra. Are, "jokoa" zentzu asko lazoan hartzen badugu, esan dezagun gizonak zezena hil ezezen eta jan ezezik, buru gainetik jauzi egin, alaiki toreatu, sakrifikatu eta adoratu ere egin izan duela. Historia gorabeheratsu luzea egin dute elkarrekin gizonak eta zezenak.

Historia misteriozko bat, azken finean: kapitulu interpretagaitza gizonaren barne–historia misteriozkoan. Hasi besterik ez dugu egin gizona barrutik ikasten. Orainak lehena, lehenak oraina laguntzen digu argitzen, biek beharbada geroa. Adibide bat: zer esanahi du, eta zenbat esanahi diferente izan ez ote du, Kreta–ko zezenak? Nolako esperientziak eta zer gertaera historiko modu egon litezke mitoaren azpian (Teseo, Herakle)? (Ik. R. Graves, *Los mitos griegos*, 1985, zenb. 98.1–12, 123.1 eta 129.1: horietan erreferentzia gehiago). Azkenean, ez gaude ziur erritoak berak nola egiten zirenik ere. Mila bider ikusi dugun Kreta–ko jauzi hori bera zezenaren adar eta bizkar gainetik (ik., liburu honetan 35. or., 4.7. irudia): nola egiten zen, zer esanahi zuen? Euskal irakurleari beharbada jakingarria gertatuko zaiona: kultura mikenetarraren ikerle haundi Chadwick–ek, irudi horren interpretazio tradizionalak arbuiatu zituenean, hain zuzen Lapurdiko euskal zezen–jokoan oinarritzen zuen bere proposapena (aip. lib., 25–26 or.: berak "el sur de Francia" dio noski). Joko hori, ez ote da edozein korrida bezain zezen–joko "jatorra" eta jatorragoa? "Debe haber sido un deporte emocionante — komentatzen du ikertzaile hark— con un serio riesgo para los competidores, pero confirma la impresión de los minoicos como pueblo civilizado, controlado, al mismo tiempo que no falto de coraje". Odolaren sinbolismoak ez du kabidarik, halere, ezertarako.

Nahitaez korrida eta orain bezalakoa izan behar ote du zezen–jokoak? Ezinbestekoak al ditu korridak zezenaren zaurketa pikaz, odol isurketa, heriotza ezpataz? Ezinbestekoak behintzat ez: esan dugu, beti aldatuz joan dela zezen–jokoa, denbora zein lekuetan. XIX. mendean debekatu egin zen Espainian "zakurren lantzea" (Cosío), ez dakit zezenaren ala zakurraren kupidaz, eta lantzeak aldatuz eta birrarautuz ez jarraitzeko, arrazoirik ez da inon ikusten. Zergatik hementxe hain kontserbadoreak? Ez ote dira zezenzaleak, ez kritikoak, protestarik zaratatsuenak muntatu beharko lituzketenak?

Egia da, aitortu beharrekoa iruditzen zait, zezenak —subkontzientean bederen— bizitza adierazten duen heinean (sexuaren, indarraren, borrokaren konotazio guztiekin, etab.), gizonok eginda gauden bezala, bizitzaren sentimendua eta emozio larria, heriotzarekin konfrontean iristen dela bere goritasun dramatiko osora. Ez da hain emozio,

odolari larruan dizdizka dariola eguzkitan, eta zezenaren hilketari ezpataz arratsalde beroan, ukatu nahi edo ahal izango litzaiokeena. Baina korridazale batzuek egiten dute askotan inpresioa, ezpata–lantze horretako herio–larri emozioan dagoela zezen–jokoaren muina eta grazia guztia. Eta hori, neuri behintzat, ez dakit espainola esan, ala ilundegiko arima erdiarotiarren paroxismoa iruditzen zait, Aste Santuko prozesio batzuen antzera.

Zezenak auzitan daude. Eta ez da, *spleen* bategatik norbaitek auzitan jartzen dituelako, apropos. Egungo hezkuntza eta kultura eta sentsibilitate guztia da, nolabait zezenjokoaren zentzu kontrarioan desarroilatzen ari dena. Hori problema da (zaletasuna eta ikusleria gutxitzeak ala gehitzeak ez egiten eta ez desegiten duen problema: jite moralekoa bait da hori). Eta ez da zezenzaleen eta etsaien arteko problema bakarrik.

Liburu hau ez dago polemika horretatik idatzita (horregatixe interes hainbat gehiago du polemikari begira ere). Maitale batek idatzita bai. Ni neu eskeptiko nago, gerora nola desarroilatuko diren gauzak. (Zein politiko ausartuko litzateke, San Ferminetako entzierroan aldakuntzak eragitera, esate baterako, hipotesi batean munduko beharrezkoenak liratekeela, ikusita egonda ere?). Eskeptiko, baina ez interes gabe. Problema kultural bat daukagu hemen, herri–kantak edo dantzak baino ez tradizio eta interes eta esanahi gutxiagokoa, guztioi doakiguna da hori. Niretzat, bilaka zitekeen eta ez den, betiko galdua dugun Atlantida izpiritual baten hondarrak dauzkagu zezenaren mitoan eta erritoetan. Beste kontinente bat bezala da, lurralde birjina eta misteriozko signifikari arrotzez beteta. Gure arimako paisaietan altxatzen diren, noizpait izandako denboren arruinak.

Inaki Azkune–ri eskertzekoa, titulutik hasita, fenomenoaren zabaltasun hori erakustea da: izan ere, zezenek "gure baitan dituzten erro luze–ezkutuak", antzinatasunezkoak adina historikoki, sakontasunezkoak dira beharbada psikologikoki, "euskal arima" zaharraren barnean, behingoz Mirande–ren maneran mintzatzeko; eta, edonola ere, Altxerri–n eta Santimamiñe–n hasitako euskal gizonaren jokoak zezenarekin, herri eta herrisketako kaleetan jarraitzen du oraindik. Zezenaren arazoa ez da inola ere korridara mugatzen: eta korrida bera ez da inola ere sakrifiziora mugatzen.

Badirudi, kultura primitiboetako gizonak, ilargiarekin asoziatzen zuela zezena (ik. 38. or. hementxe, 4.10 irudia) eta ilargia ernalmenarekin, bizitzaren erritmoarekin. Ilargi hura jainkosa zen, ordea. Zer orain, gizona ilargira bera joan eta geroko aroan? Jainkosa gabeko jainko geratu da zezena munduan.

Zezen–jokoek irauteko eta jarraitzeko nahikoa arrazoi eta hoberenak, beharbada interes komertzialak izango dira. Horrek ez du batere haien sentiduaren iraupena ziurtatzen. Denborak eta balio–sistemak, aldatu egiten dira. Hori badakite zaleek zein etsaiek, eta aplikatu egin beharko liekete zezenjokoei, sentidurik eta etorkizunik izan dezaten eta, aldez–beste, sentidua edukitzeko modukoak izan daitezen. Joko Olinpikoek ere, ez dute izango Grezia klasikoan zuten bera, baina sentidu osoa dute gaur ere.

Joxe Azurmendi

Irakurlearentzako oharra

Ezer baino lehen interesgarria derizkiogu irakurleari liburu honen egituraz eta irakurtzeko eraz argibideren bat emateari. Liburua oro har, kronologikoki antolatua dago batetik; ondoko aurkibidearen arabera mendez mende eta urtez urtez albisteak emanez kapitulutan egituratua alegia. Bestetik, badu liburuak bukaeran "Aurkibide Toponomastikoa" ere. Hor orrialde desberdinetan agertzen diren izen berezi guztiak alfabetikoki biltzen saiatu gara, izen bakoitzaren ondoan zein edo zeintzuk orrialdetan datorren zehazten delarik. Kontutan hartu behar da gainera izen berezi hori aipatutako orrialde bakoitzean behin baino gehiagotan idatzia egon daitekeela.

Beraz irakurleak herri, toreatzaile, ganaduzale, edo beste edozein edo edozeren izen berezia ezagututa, horren albisteak non dauden zuzenean jakingo du "Aurkibide Toponomastikoa"n begiratuta, liburu osoa irakurri gabe.

AURKIBIDEA

	Orr.
1. SARRERA	1
Bibliografia	5
2. EUSKAL HERRIKO LEHEN ZEZENA: UROA	7
a) Zezenaren arbasoari buruzko teoriak	
b) Uroaren irudiak	
c) Uroaren aztarnategietako hezurrak	
d) Uroa. Morfologia eta bizimodua	
Bibliografia	18
3. ZEZENA PREHISTORIAN ETA AINTZINHISTORIAN	21
Bibliografia	25
4. ZEZENAREN INGURUKO ERLIJIOTASUNA	27
a) Euskal Herriko antzinako harrietan	
b) Greziako zezenetan	
c) Erromatarren inperioan	
d) Beste Herrietan	
e) Euskal mitologian	
f) Biblian eta kristautasunean	
Bibliografia	61
5. ZEZENAK ERDI AROAN	67
a) X. mendearen bukaerarte	
b) XI. mendean	
c) XII. mendean	
d) XIII. mendean	
e) XIV. mendean	
f) XV. mendean	
Bibliografia	86

Orr.

6. ZEZENAK XVI. MENDEAN. 91
Bibliografia 105

7. ZEZENAK XVII. MENDEAN 109
Bibliografia 144

8. ZEZENAK XVIII. MENDEAN 149
Bibliografia 236

9. *MARTINTXO*REN ARAZOA 241
Bibliografia 265

10. ZEZENAK XIX. MENDEAN: LEHEN HERENA (1801–1833) 269
Bibliografia 319

11. ZEZENAK XIX. MENDEAN: BIGARREN HERENA
(1834–1866) 323
Bibliografia 412
Eranskinak 416
1. Jose Bentura Laka
2. Antonio Ituarte
3. Jose Ituarte
4. Martin Felix Ostolaza
5. Inazio Aldalur
6. Manuel Egaña

12. ZEZENAK XIX. MENDEAN: HIRUGARREN HERENA
(1867–1900) 423
Bibliografia 554

13. ZEZENAK XX. MENDEAN: LEHEN HAMARKADA
(1901–1910) 561
Bibliografia 632

Orr.

14. ZEZENAK XX. MENDEAN: BIGARREN HAMARKADA (1911–1920) 635
Bibliografia 701

15. ZEZENAK XX. MENDEAN: HIRUGARREN HAMARKADA (1921–1930) 705
Bibliografia 768

16. ZEZENAK XX. MENDEAN (1931–1936) 771
Bibliografia 805

ESKER ON 807

ERANSKINAK
A. HIZTEGIA 811
B. AURKIBIDE TOPONOMASTIKOA 835

1.- SARRERA

Lan honek duen izenburua ikusita, agian irakurlea ez da ohartuko eman nahi izan diodan luze-zabaleraz. *Zezenak* dio batetik, eta kontzeptu honek alderdi asko du aztergai; ez ludikoa bakarrik. Izan ere erlijio, antropologia, abelazkuntza, folklore, arte, ekonomia, historia eta abar luzea dago *zezenak* aztertzerakoan ikuspegiaren oinarritzat har daitekeena.

Guk ez dugu hala ere geure azterketa alderdi bakarrera mugatzeko asmorik izan, nahiz eta zenbait alorretan horrek lekarkeen sakontasun faltaz jabeturik egon. Erakustoki orokorragoa izatea nahi du saio honek; *zezenak* larratzen direneko mendiaren belar eta lore desberdinez osatutako sorta baten agerbide hain zuzen. Bestek hausnartuko al du pausatu eta astiroago, geure hizkuntzan, belar eta lore bakoitza!

Izenburuak bestetik, ... *Euskal Herrian* dio gainera. Eta horrekin zentzu etimologikoari (Euskara Herria-ri alegia) jarraitu nahi izan diogu. Izan ere guztiz aspalditik bizi izan dira zezena eta euskara elkarren ondoan gure lurretan. Baina 1978. urtean U.E.U.n Iruñean Don Manuel Lekuonak hain egoki adierazi zigunez, Euskal Herria lurralde bat da; beti neurri eta muga berak izan ez dituena.

Lekuonak berak dioenez, prehistorian euskararen mugak oso zabalak ziren. Iparraldean Garona ibairaino, Bordeleraino, eta handik Tolosa-n zehar (Toulouse) Pirinioa, Ueska (antzinako geografoek Oska zioten), Lleida ingururaino[1]. Gainera, **SK** letrak dituzten lekuizenak euskararen lekukotzat jotzen dira. Hor aipatzen ditu besteak beste Auski (Auch), Oska (Hueska), Kaskoi (Gascon), etab., Uasko, Eusko eta antzeko hitzetan ere agertzen den **sk** bikote hori dutela.

Raymond Riquet jaunak ere[2] garai hartako Bordele inguruko *Bituriges Vivisques* izeneko herriez ari denean euskal jatorria eransten die *vivisques*tarrei eta izen horrek *Bizkaia*rekin duen harremana garbi uzten du. Pierre Narbaitz euskal historialari ospetsuak ere[3] prehistoriako Akitania euskaldunaz sinesten du. Lascaux-etik (hemen ere **sk** delakoa ageri zaigu) Altamira-raino zibilizazio berbera zegoela bait dio. Tours-eko San Gregoriok VI. mendean bere *Historia Ecca. Francorum*en idatzitakoan oinarriturik prehistoriako Akitaniaren euskalduntasuna ukatzen dutenei buruz Narbaitz jaunak idatzitakoa ere guztiz interesgarria da: euskalduntasuna ukatze hori *mito* hutsa dela bait dio.

Ez da ahaztu behar bestetik Akitanian erromatarren garaiko inskripzioetan agertu den zenbait euskal hitz[4]. Koldo Mitxelenak eman ditu orain arte arazo honetaz berririk zehatzenak, eta berak dioenez Saint-Girons eta Bagnères de Bigorre bitartean nahiz *auski*tarren lurraldean aurkitu dira euskal hitz gehienak[5].

Jakingarria da bestetik Raymond Lizop-ek erromatarren garaian lurralde haietan euskarak onomastikan eta toponimian zuen eraginaz dioena[6]. Honek dioenez, akitaniarren hizkuntzak, Caesar eta Estrabonek idatzi baino lehen lurralde zabalagoak zituen. Tolosa-n (Toulouse) hitz egiten zen eta bere arrastoak utzi ditu onomastikan. Toponimian berriz, zer esanik ez.

Ez da harritzekoa beraz, Federiko Krutwig euskal idazleak bere lanetan Akitania-ko herrien euskal izenak erabiltzea[7], eta Gazteluberri-Medoka (Castelnau de Medoc), Mendi-Marzana (Mont-de-Marsan), Gabarreta (Gaberret), Hiriberri-Autxoa (Auch), Aturbe (Tarbes) nahiz beste zenbait euskal formaz idaztea.

Erromatarren garaian euskarak zuen lurraldea, beste zenbait ikerketek ere argitu du[8] eta ondoko 1.1. irudian aditzera ematen dugu:



1.1. irudia. Euskararen mugak lehen mendean (gutxi gorabera), Erdi Aroan eta XX. mendean.

Euskararen lurraldea, murrizten joan da geroztik latina eta hizkuntza erromantzeen eraginez. Dena den, Erdi Aroaren hasierako agiri batzuek agertzen dutenez, Akize–n (Dax) euskaraz egiten zen, Narbaitz–en arabera eta *Txillardegi*k iragarri bezala[9].

Bide berari jarraitzen zaio Justo Pérez de Urbel historialaria XI. mendeko Gaskonia eta Nafarroako jendea arraza eta hizkuntza berekotzat jotzen dituenean[10].

Hegoaldera Erdi Aroan euskarak betetzen zituen lurraldeak ere, aztergai izan dira. Hueska–n adibidez, mendialdean XIV. mendean mintzatzen zenaren argibideak eskaini dizkigu A. Irigarai euskaltzainak[11].

Errioxa eta Bureba-ko euskaraz ere azterketa interesgarriak argitaratu dira. Batzuek diotenez, erromatarren garaian lurralde hauek ez ziren euskaldunak; arabiarrak handik bota zituztenean euskaldundu zituzten iparralderagotik etorritako euskaldunek.

Beste batzuek ordea, lehendik euskaldun ziren lurraldeak berreskuratzea besterik ez zutela egin diote.

Badirudi Perez de Urbel lehen tesiaren jarraitzaile dugula[12]. Baina berak dioenez Bureba–ko Briviesca besterik da. Izan ere, erromatarren garaiko lanetan *Urovesca* edo *Virivesca* agertzen bait

da eta izen horien jatorria euskalduna ala iberikoa izango dela dio (Izen hauetan berriro ere sk famatua agertu zaigu).

Don Manuel Lekuonak hala ere, tesi honi bigarrena ipintzen dio parean, eta VIII. mendean Akitania–n (Novempopulania–n) gertatua Errioxan ere gertatzea posibletzat jotzen du[1]; euskaldunek lehen zutena berreskuratzea alegia.

Honetaz gain, ahaztu ezinezkoak dira Merino Urrutiak Errioxako eta Burgoseko euskarari buruz egindako azterketak[13] eta gogoan hartzekoa da lurralde horretako toponimia euskalduna. Mikrotoponimia eta makrotoponimia euskalduna daude han. Gainera, euskaraz paperean idatzitako lehen esaldiak, oraingoz dakigunez behintzat, Errioxan aurkitu dira: San Millan–eko glosak, IX. mendearen erdialdera idatzitakoak[4].

Esanak esan, bigarren tesia bazterezina iruditzen zaigu. Badago gainera aipatu gabe utzi nahi ez nukeen beste arazo bat: Nafarroako erresumak, Erdi Aroan euskal lurrei batasun politikoa emateko izan duen joera eta lehia aspertezina.

X. mendearen hasieraz gero, Santxo Garzes lehenak eta bere emazte Toda Aznarez erreginak, euskal lurrak erresuma batera biltzeko politikari ekin zioten. Politika horri, Santxo Garzes III.ak (Santxo *Haundiak*) gainak eman zizkion. Islamiarrei erasotzeari utzita, hark lortu zuen euskaraz hitz egiten zuten herri guztiak zetro bakarrera biltzea, Perez de Urbel historialariak argi eta garbi dioenez[10]: Gaskonia–ko dukerri osoa, Aragoa, Nafarroa, Errioxa, Bureba, etab. (bestela esan, lehentxeago ipini dugun mapan agertzen diren lurraldeak hain zuzen).

1.035. urtean Santxo III.a hil zenean, bere seme Gartzea–ri utzi zizkion euskal lurraldeak[14]: Nafarroa, Errioxa, Bureba, Bizkaia, etab. G. Bertzeo errioxar elebidunak garbi dio Gartzea eta Fernando bere anaiaren erreinuen muga non zegoen: *Era de los sus reinos Monte Doca mojon*[15].

Batasun hau hautsia izan zen inguruko erreinuen erasoez. Baina berriro batasuna osatzeko joera agertuko da. Alfontso *Burrukalariak* (Nafarroa eta Aragoako erregeak) 1127. urtean Gaztela eta Leoneko Alfontso VII.arekin Támara–n pakeak egin zituenean, Nafarroaren mugak Santxo III.a hildakoan zeuden bezalaxe gelditu ziren. Alfontso *Burrukalariak* Araba, Errioxa, Belorado, Bureba etab. gorde zituen: euskal lurraldeak alegia[16].

Gauza berdintsua gertatu zen gero ere Santxo VI.a *Jakitunaren* garaian; 1162. eta 1163. urteetan Nafarroara bildu bait zituen Araba, Errioxa eta Burgos–eko zenbait lurralde J. M. Lakarra–k bere lanetan zehar aipatzen duenez. Geroztik ere Nafarroak izan ditu Euskal lurrak berreskuratzeko asmoak (Santxo VII.a *Bortitza* eta Thibalt I.aren garaian XIII. mendean esate baterako)[17].

XIV. mendearen erdi aldera, artean bazeuden adibidez Gipuzkoa eta Nafarroaren artean loturak. Karlos II.ari, Nafarroako erregeari, elkartu bait zitzaizkion Gipuzkoako jauntxo batzuk: Lope Garzea Lazkaoko jauna, Martin Lopiz Muruakoa, Martin Gil Oñaztarra, etab.[18].

Gaur egun dena den, muga politikoak desberdinak dira eta euskarak garai hartakoak baino lurralde murritzagoak hartzen dituela begibistakoa da. Euskarak atzera egin du leku askotan eta lehen aipatu dugun garai bateko batasunaren adierazgarri, besteak beste printza batzuk gelditu dira folklorean. Horietako bat da hain zuzen Gaskoniako Landetan, Nafarroako Erriberan eta Errioxan zezenak oinez toreatzeko duten era berezia. Abelazkuntzak historian zehar eragin itzela izan duen Euskal Herri honetan ez bait ziren Piriniotako unaiak beren larrabehi eta zezenekin uda parterako

batzuetan Nafarroako Bardeetara eta besteetan Bordeleko Landetara alferrik joaten[19].

Eta lan honen izenburura itzuliz, *Zezenak Euskal Herrian* diodanean irakurle prestuak uler beza gaur egungo nahiz garai batean izandako *Euskara Herriaz* ari garela.

1. SARRERA. BIBLIOGRAFIA

(1) LEKUONA, MANUEL. *Euskeraren geografia,* in Eusko Lurra, Etor argit. Donostia 1974 (259–272. orr.)

(2) RIQUET, RAYMOND. *Les Bituriges Vivisques eta leurs voisins,* in Munibe 1971. Donostia (597–608. orr.)

(3) NARBAITZ, PIERRE. *Euskadi Norte hasta el siglo XVI,* in Historia del pueblo vasco 2. Erein argit. Donostia 1979 (9,25,26. orr.)

(4) MITXELENA, KOLDO. *Textos arcaicos vascos.* Minotauro argit. Madril 1964 (14–20.,41,42. orr.)

(5) MITXELENA, KOLDO. *Sobre el pasado de la lengua vasca.* Auñamendi bilduma. 36.zenbakia. Donostia 1964 (80,81. orr.)

(6) LIZOP, RAYMOND. *Le Comminges et le Couserans avant la domination Romaine.* Toulouse 1935 (110–125. orr.)

(7) SARRAIL DE IHARTZA, FERNANDO. *Vasconia.* Norbait argit. Buenos Aires 1962 (112. orr.)

(8) ELKAR LANEAN. *Geografia histórica de la lengua vasca.* Siglo I al XVI. 2. alea. Auñamendi bilduma. 14. zenbakia. Donostia 1960.

(9) ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. "TXILLARDEGI". *La originalidad lingüística vasca a la luz de los fenómenos del sustrato.*, in Cultura Vasca II. Erein argit. Donostia 1978 (15. orr.)

(10) PEREZ DE URBEL, JUSTO. *Sancho el Mayor de Navarra.* Príncipe de Viana. Madril 1950 (92,93. orr.)

(11) APAT–ETXEBARNE, A. *Una geografia diacrónica del Euskara en Navarra.* Colección Diario de Navarra 10. Iruñea 1974 (115. orr)

(12) PEREZ DE URBEL, JUSTO. *Los vascos en el nacimiento de Castilla,* in Vizcaya en la Alta Edad Media. Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbo 1976 (85. orr.)

(13) MERINO URRUTIA, J.J. BAUTISTA. *El vascuence en la Rioja y Burgos.* Biblioteca Vascongada de los Amigos del Pais. Donostia 1962.

(14) MENENDEZ PIDAL, RAMON. *La España del Cid.* Madril 1929 (250. orr.)

(15) BERTZEO, G. *Vida de Santo Domingo de Silos.* Austral bilduma. 344. zenbakia. Madril 1943 (25. orr.)

(16) LAKARRA, JOSE MARIA. *Historia del Reino de Navarra.* Nafarroako Aurrezki-Kutxa. Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (320,321. orr.)

(17) LAKARRA, JOSE MARIA. *Historia del Reino de Navarra.* Nafarroako Aurrezki-Kutxa. 2. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (57,58,109,110,134. orr.)

(18) BALEZTENA, INAZIO. "PREMIN DE YRUÑA". *Guipuzcoa y el rey Carlos II de Navarra,* in Boletin de la Real Sociedad de Amigos del Pais. Donostia 1947 (373–382. orr.)

(19) YANGUAS Y MIRANDA. *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra.* Lehen alea. Principe de Viana. Iruñea 1964 (75. orr.)

2.- EUSKAL HERRIKO LEHEN ZEZENA: UROA

Gaiari sustraitik heldu nahi dionak jatorrira jo behar duelakoan, guk ere zezenaren iturburuetara hurbiltzeari ekin diogu, arestian Jose Migel Barandiaran jaunak euskal gizakiaz egindako lana eredu harturik. Bera bait da 1934. urtean argitara eman zuen *Euskaleri'ko leen-gizona* izeneko lan bikainaren egilea[1].

Badakigu euskal zezenaz beste horrenbeste egiteko gauza ez garela, baina bada ez bada ere, kapitulu honi antzeko izenburua ipini diogu, izenak izanean eraginik izan baleza edo.

Luzamenduak alde batera utzita ordea, plazara dezagun behingoz lehen zezena; zezenaren arbasoa, *uroa* alegia. Uroa bait da, diotenez, Euskal Herriko eta beste lekuetako zezenaren iturri eta *agriotipo*.

2.1. TAULA.

Geologi garaia	Geologi aldia	Urteak K.a.	Izozteak	Giza arrazak	Kulturak		
KUATERNARIOA	Holozenoa	800	Izozte ondoko garaiak	*Homo sapiens sapiens*	Metal-garaia		Burdin aroa
		2.000					Eneolitos eta Brontze-aroak
					Neolitos Garaia		
					Mesolitos Garaia		Tardenois aldia
		9.000					Azil aldia
	Pleistozenoa	15.000	Würm		Paleolitos Garaia	Goi-Paleolitos	Magdalen aldia
		20.000					Solutre aldia
		35.000					Aurignac aldia
		100.000	Riss	*Homo sapiens neanderthalensis*		Erdiko Paleolitos	Moustier aldia
		500.000	Mindel	*Homo erectus*		Lehen Paleolitos	Acheul aldia
		1.000.000	Günz	*Australo-pithecus*			Pebble kultura
		2.000.000					

Uroa, Prehistorian nahikoa ugaria bagenuen ere, desagertua da jadanik gure baso eta belardietatik. Prehistoriako arrastoen berri noiznahi eman beharko dugu beraz, eta horregatik, antzinako aro, kultura, izozte eta abarren eskematxoa hemen ipintzeari mesedegarri deritzot. Horregatik ipini ditugu aurreko orriko 2.1. taulan argigarri gerta dakizkigukeen xehetasun batzuk.

a) Zezenaren arbasoari buruzko teoriak

Gaurko behitarren lehen arbasotzat (forma basatitzat), *auroch* edo uroaren bi forma hartu ohi dira: *Bos brachyceros* Mayer eta *Bos primigenius* Bojanus formak. Bi forma hauetan oinarriturik gaur eguneko behitarrerainoko bilakaerari buruz teoria desberdinak aldarrikatu izan dira.

- Has gaitezen adibidez Paños Marti albaitariak[2] argitaratutakoak laburbilduz. Batetik teoria monofiletikoak daude (behitarrak iturri bakar batetik datozela diotenak) eta bestetik polifiletikoak (iturri desberdinak daudela diotenak).

  Teoria monofiletikoen zale, Nerhing, Hittcher eta Hilzheimer ditugu besteak beste. Hauen ustetan, oraingo behitar guztien arbaso bakarra, uroa da. Duerst–ek ordea, Asiako uroa (Falconieri eta Cautleu–ren *Bos nomadicusa*) jotzen du behitarren arbaso bakartzat. Klatt–ek berriz, *Bos primigenius* forma.

  Gaur egun ordea, badirudi teoria polifiletikoek arrakasta handiagoa dutela, eta hauen artean bi talde nabarmen bereiz daitezke: oraingo behitarrei bi arbaso desberdin aitortzen dizkietenak batetik (difiletikoak), eta bi baino arbaso gehiago aitortzen dizkietenak bestetik. Teoria difiletikoen arabera, *Bos primigenius* eta *Bos brachycerosaren* ondorio lirateke oraingo behitarrak.

  Beste teoria polifiletikoen arabera, oraingo behitarrek jatorri desberdinak dituzte, eta jatorrizko arbasoen garezurrek ezaugarri desberdinak zituzten jadanik, oraingo behitarrek dituzten bezalaxe. Horretaz aparte, August, Laurer eta Malsburg–ek, beren teoria bereziak dituzte. Dena den, *Bos taurus primigeniusa* jotzen da formarik zaharrentzat. Pliozenoan (Tertziarioaren azken aldian) Europa osoan eta Afrikan hedatua zegoen eta beregandik sortu ziren Pliozenoan eta Kuaternarioko Pleistozenoaren hasieran ondoko mutazio–formak:

  – *Bos brachyceros* europarra eta afrikarra; tipo zeloideduna
  – *Bos primigenius* edo *Bos desertoruma*; estepatakoa, tipo ortoideduna (zuzena)
  – *Bos primigenius Strepsicerosa* eta *Bos frontosusa*; tipo zirtoidedunak (konkordunak).

  Toreaketa–zezena osatzen, uroaren forma guztiek parte hartu dute, nahiz eta beraien arteko nahasketak zein neurritakoak izan diren zehaztea zaila izan. *Bos frontosus* mutazio–forma zirtoidea (konkorduna), Garona aldean eta Iberiar Penintsulan egon zen. Adarje trokozeroduna zen eta ilajez gorria edo gaztain- kolorekoa; gaurko nafar–zezenen antzekoa.

  Baina toreaketa–zezenean eraginik handiena, *brachyceros* formak izan du. *Primigeniusaren* mutazio–forma da hau, eta Tertziarioan sartu ziren Iberiar Penintsulara. Batetik, *Bos brachyceros* europarra sartu zen iparraldetik (Europako erdi aldetik) lehen izoztean eta batez ere Kantauriko mendiak hartu zituzten bizilekutzat. Bestetik *Bos brachyceros* afrikarra etorri zen Penintsulako hegoaldean kokatuz. *Bos brachyceros* europarrak, joera heredagarri ortoideak zituen, lira–formako adarjea eta larru urdin–nabarra. *Brachyceros* afrikarrak berriz, tipo zeloidea du, adarjea txikiagotzeko joera eta larru ilun edo beltza. Europarrak, Penintsulako iparraldeko behitar koloreargiak eman ditu, eta afrikarrak, Penintsulako hegoaldeko behitar ilunak.

Orain arte esandakoak, Pablo Paños albaitariak argitaratuaren arabera adierazi ditugu. Baina gaurko zezenen arbasoez ari dela, beste zenbaitek ere bere eritzia plazaratu du. Hala nola, Luis del Campo, Jose Maria de Cossio, Cesareo Sanz, Jose Ortega y Gasset, Federiko Garralda eta Jesus Altunak.

- Luis del Campo–rentzat[3], oraingo nafar–zezena Neolitos garaiko *Bos Brachycerosaren* ondorengoa da.

- Jose Maria de Cossio[4] zezenzale ospetsuaren ustetan, uroa da gaur egungo zezenaren jatorrizko forma eta inola ere ez Europako bisontea. Uroaren antzinako forma desberdinen artean, *Bos brachycerosa*, *Bos primigeniusa*, *Bos frontosusa*, etab. aipatzen ditu. Oraingo zezena beraz, uro endekatua da; tamainaz txikiagotua eta erabat hezia toreaketa–zezenaren kasuan ezik (hau erdizka hezia bait da).

- Cesáreo Sanz–en eritziz[5], Rutimeyer–Wilck sistemaren arabera oraingo behitar gehienek iturri bakarra dute: *Bos taurus primigeniusa*; uroa alegia. Neolitos Garaian hezitako uroa litzateke zezenaren arbasoa. Zooteknikoek diotenez, uroaren hezketak berak edo giro–aldaketak mutazioak sorterazi zizkien. Mutazioak heredagarriak zirenez gero, uroaren barietateak agertu ziren, eta barietate hauetatik arraza–taldeak.

  Uroaren lehen barietatetakoa, *Bos primigeniusa* (Halmi–ren barietatea) da. Egypto–n aurkitu dira Halmi–ren barietate honen hondakin fosilak.

  Uroa Iberiar Penintsulara iparraldetik sartu zela dio teoria zaharrak. Europako estepan bizi zena izango zen inola ere, eta Kantauri aldeko behitarren *agriotipoa* ere bai. Behitar andalusiarren arbasoa ordea, Afrikako uro basatia bide zen: Bibliako *reema*.

  Urotik gaurko behitarretaraino mendetan zehar ibili den bidea, azken aldian batzuk batekoz bestera ibiltzea nahi izan dute (Lutz Heck–ek Berlineko Zooan adibidez) eta gaurko zezenetik abiatuz uroak lortzen saiatu dira paleobiogenesia aplikatuz. Oinarritzat oraingo toreaketa–zezena hartu zuen Lutz Heck–ek, bere itxura edo sataia eta oldartasunagatik.

2.1. irudia. Oraingo zezenaren eskeletoa

- Jose Ortega y Gasset–ek dioenez[6], oraingo behitarren arbasoa *Bos primigenius* basatia zen; alemaniarrek *auerochs* (basazezena) deitzen dutena; germaniarrek eta keltarrek animalia hau izendatzeko erabiltzen zuten izena entzunda Julius Caesar–ek *urus* transkribatu zuena.

  Oraingo zezen suharra, uroaren ondorengoa da Ortega y Gasset filosofoaren ustetan ere. Baina agian uroa eta gaur eguneko zezenaren artean kuaternarioko uroaren formak tarteko maila osa dezakeela dio.

- Federiko Garraldaren idazlana[7] ere ezin utziko dugu aipatu gabe zezen–arbasoaren bilaketa honetan. Garraldak hain zuzen, besteren eritziak jaulkitzen ditu abelgorriez eginiko artikuluan. Izan ere, honela dio bukaerako oharrak: *Beste izkuntz batetik, Sarasaitzu'ko euskeraz ipiñia.*

  Dena dela, gai honetaz eskuratu ahal izan dudan euskal idazlan bakarra izateak, badu nirekiko merezimendurik aski bazter ez dezagun.

  Garraldak Rutimeyer-ek esandakoaren arabera, idi guztiak *Bos indicus* eta *Bos taurus*en ondorengotzat jotzen ditu eta Europako behitarren arbasoetan ondoko barietateak aipatzen ditu: *Bos primigenius, Bos trochoceros, Bos longifrons* edo *brachyceros* eta *Bos frontosus*a.

- Jesus Altuna paleontologoaren eritziak[8] utzi ditugu azekenerako. Gure arteko zezen–arbasoaren aztarnak sakonkien berak aztertuak bait ditu, eta zalantzarik gabe aitortzen du gaur eguneko behitarren arbasoa uroa dela. Uroaren antzekoentzat, toreaketa–zezena eta batez ere Camargue–ko (Rhodano ibaia itsasoratzen den Okzitaniako eta Fréderic Mistral *Mireio*ren egileak hain maitea zuen lurraldeko) zezen eta behi erdibasatiak jotzen ditu. Izan ere zezen hauek oinarri harturik eta paleobiogenesiari esker, L. Heck–ek Berlineko zooan eta H. Heck–ek München–ekoan uroaren antz handiko animaliak lortu dituzte. Gaur egun horrela lortutako uroak Madrileko zooan ikus daitezke.
  Altunak garbi uzten duenez[9] uroa da gaurko behiaren arbasoa, eta Neolitos Garaian bazen Euskal Herrian. Baita uroaren ondorengoak hezita aintzinhistorian sortu ziren behiak ere. Besterik da ordea, gaurko arraza piriniarra aintzinhistoriako uro haien ondorengoa dela esatea. Altunaren [illegible]ez, baliteke horrela izatea, baina oraingoz garezur eta adar–giltza gutxiegi aurkitu da [illegible]dakinetan hori erabat ziurtatzeko.

b) Uroaren irudiak

Baina oraingo zezenaren eta bere arbasoaren arteko loturak alde batera utzita, har dezagun behin betirako uroa iturritzat, eta gure inguruan utzi dituen arrastoen berri ematen has gaitezen.

Euskal Herriko lehen gizonak, ehizatzen zuen uroaren irudiak utzi dizkigu kobazuloko hormetan nahiz zenbait hezurretan. Altunak berak aitortzen digunez[10], uroak marrazturik daude Gipuzkoa eta Bizkaiko kobazuloetan, nahiz eta bisontea gehiagotan agertu. Ekain–eko haitzuloan hamar bisonte daude hormatan irudikaturik, eta urorik ez. Altxerri–n, hogeitamarretik gora dira hormatako bisonteak, eta uroak bi. Santimamiñe–n, hogeitaka bisonte eta uro bat.

Hormatako irudi–kopuruan bakarrik oinarriturik ez dago esaterik gure artean bisontea uroa baino ugariagoa zenik. Izan ere Ekain–en bertan oreina, basahuntz piriniarra, bobido handia eta zaldia dira hurrenez hurren hezurrik gehien utzitako animaliak. Hormetako irudi–kopuruari begiratuz ordea, dena batekoz bestera da hain zuzen.

Bizkaiko Galdames herriko Arenaza izeneko kobazuloan ere bada uroaren beste irudi bat[11]. Burua eta bizkarra ditu marrazturik, eta azken aldi honetan kinka larrian egona da ondoko harrobi baten eragin kaltegarria medio[12].

Kantauri aldeko beste haitzulotako hormetan ugariago agertzen da[8]. Berrogeitamarren bat aldiz.

Isturitz–eko Magdalen IV aldiko bobido handiaren hondakinetan ere uroaren irudia agertu da[13]. Baita Oiartzuneko Torre–ko koban aurkitutako zanga baten ulnan ere.



2.2. Irudia. Altxerri. Uroaren irudiak.

2.3. Irudia. Lascaux. Uroen irudiak. Frisoak bederatzi metro pasa ditu luzeran.

Horietaz gain, Bizkaiko Karrantzan dagoen Venta de Laperra haitzuloan ere bada uro baten irudia[14]; Aurignac aldian marraztua hain zuzen. Dordogneko Laugerie Basse–n ere (Lascaux–etik gertu) errodete zulatu batean bi uroren irudiak daude: handi batena aurreko aurpegian eta umearena atzekoan[15]

Baina uroaren irudirik harrigarrienak, Akitanian, Dordogne–ko Montignac ondoko haitzuloan daude; Lascaux–eko haitzuloan. Hamaika ikusle liluratu du (eta horien artean Oteiza eskultorea ez nolanahi gainera) Goi–Paleolitoseko artista euskaldunak, hango uroei begira dagoela. Aurignac alditik Magdalen aldirarte aritu ziren etengabe animalien ziluetak marrazten[16]. Aurkako norantzan korrika ari direla diruditen uro–multzoak, ikaragarriak zaizkigu. Gorputz gorri eta buru beltzezko irudi bikainak dira[17]. Guztien artean nabarmentzen den bost metro t'erdi luzeko uraorena berriz, zer esanik ez. Aurignac aldikotzat jotzen dira marrazki hauek: K.a. 28.000–22.000 bitartekoak[18].

Akitaniako hegoaldean ere bada kobazulotako hormatan uroaren arrastorik. Haute Garonne–ko Montesquieu herri ondoan dagoen Trois Frères izeneko haitzuloan marrazturiko irudiak adibidez, ez dira aipatu gabe uztekoak[16]. Ezta Tarn et Garonne probintzian Moissac ondoko Gargas kobazuloko bi uroenak ere[19].

Lehen ere aipatua dugunez, Kantauri aldera (Puente del Viesgo–n adibidez) badira beste berrogeitamarren bat uroren irudiak. Penintsulako ekialdean ere ugari agertzen da uroa marrazturik; Teruleko Albarracin aldean batez ere (gero Erdi Aroan Azagrako Pedro Ruiz nafarraren jaurerri izango zenean hain zuzen). Hango Navazo eta Cocinilla del Obispo izeneko haitzuloetan daudenak adibidez, ikusgarriak dira. Baita ekialderago Gandia, Alpera edo Castellon–eko kobazulotakoak ere[20]. Castellon–eko Remigia izenekoan gainera, uroaren ehiza irudikatzen da, ehiztariak bere uztai eta gezia dituela.

Beste arazo bat, kobazulotako irudien interpretazioa da. Prehistoriako gizakiak, zein helbururekin marrazten zituen?. Leroi–Gourhan–en arabera, hormako irudi ala ikur bakoitza, artasun ala emetasunaren adierazgarri da[11]. Egia da lehen gizakiak espezie bakoitzeko dimorfismoa (arrarena eta emearena) ondo ezagutzen zuela. Lascaux eta Teyjat–en garbi ikus daiteke hori[8]. Baina Leroi–Gourhan–en eritziz bisontea, uroa, ikur obalatu nahiz triangeluarrak eta zauriak, emetasunaren seinale bide ziren.

c) Uroaren aztarnategietako hezurrak

Lehen gizonak hormetan marraztutako irudien bitartez bisontea eta uroa bereiztea erraza gertatzen da. Aztarnategietako hezurrak bakarrik aztertuta ordea, bereizketa ez da hain erraza[10]. Euskal Herriko aztarnategietan ere, maiz aurkitzen dira batera *Bos primigenius*, Bojanus 1827 eta *Bison priscus*, Bojanus 1827–en hezurrak. Beraz, uroarenak ala bisontearenak diren esatea, zail gertatzen da. Animalia gainera, ehizatu eta jan egin ohi zuten. Muinak jateko berriz, hezurrak hautsi ere bai, eta horrek are eta buruhauste handiagoak sortzen ditu hezurra uroarena ala bisontearena den erabakitzerakoan.

Germanian bestetik, uroaren adarrak preziatuak ziren duela bi mila urte inguru. Adar horiek edalontzitarako erabiltzen bait zituzten[21].

Dena den, Pleistozenoaren azken aldiko bobido handien (*Bos primigenius* eta *Bison priscus*en) bereizketaz argitaratu da lanik. Altunak, idazle horietako batzuen berri ematen du: Bojanus (1827), Rütimeyer (1862), Koken (1885), Hilzheimer (1921) eta abar'dira batzuk.

Baina bi animalien hezurren arteko diferentziez ere, sakon dihardu bere doktorego–tesian[13]. Goiko aginetan, lepa ornotan, ulnan, besahezurrean, erradioan, pelbian, tibian, *os carpale*an, *os malleoare*an, astragaloan, kalkaneoan, zentrotartsalean eta metapodiotan dituzten ezberdintasunak argi uzten ditu.

Hala ere, bereizketa errazen erabakitzen duten hezurrak garezurra, adar–giltzak eta bizkarreko lehen ornoak dira[8]. Baina hezur hauek ezean, gure aztarnategietako hondakin asko uroarena ala bisontearena den zehaztu gabe gelditu da. Bobido handiarena dela esan ohi da horrelakoetan, *Bos primigenius* ala *Bison priscus*ena izan daitekeelarik.

Aitzbitarte IV izeneko Errenteriako kobazuloan adibidez, Solutre aldiko hamaika hezur, Magdalen aldiko hogeitazortzi eta Azil aldiko hamazazpi aurkitu dira bobido handiarenak.

Debako Urtiaga izeneko haitzuloan ere arazo berdintsua dago. Bobido handiaren 20 hezur aurkitu dira duela 17.000 urte ingurukoak, beste hamairu antzinagokoak eta beste hamasei Magdalen aldiko bukaerakoak.

Ekain–eko aztarnategian, bobido handiaren hiru hezur daude Azil aldikoak eta beste hamabi Magdalen aldikoak.

Ermittia–n, Azil aldiko hezur bat bakarrik aurkitu da, baina Isturitz–en nahiz Santimamiñe–n, Solutre, Magdalen eta Azil aldietako hondakin ugari dago bobido handiarena.

2.4. irudia. Uroaren eskeletoa.

Nafarroako Arraiz–en, Abauntz–eko aztarnategian ere aurkitu dituzte bobido handiaren hondakinak[22]; hortzak, saihets–hezurra, etab.

Orain arte aipatutakoaz gain, bobido handiaren hezurrak beste leku askotan ere aurkitu dira. Altunak bere doktorego–tesian[13] zehatz–mehatz aipatzen ditu. Jo beza beraz bertara argibide gehiago nahi duenak.

Horiek horrela, euskal aztarnategietan badira haatik zalantzarik gabe uroarenak diren

hezurrak. San Telmo-ko museoan, Donostian, badira horrelakoak, eta baita adarrak ere Bilboko Arkeologi Museoan[23].

Baina irakurleak zalantzarik izan ez dezan, Euskal Herrian aurkitutako uroa bera koka dezagun lehenbizi eskala zoologikoan. *Artiodactyla* ordenakoa da. Owen 1848. *Ruminantia* subordenakoa. Scopoli 1777. *Bovidae* familiakoa. Gray 1821. *Bos* jenerokoa. Linnaeus 1758. *Bos primigenius* espeziekoa. Bojanus 1827.

Lezetxiki-ko haitzuloan, Arrasateko Garagartzan, uroaren pelbi-pusketa bat aurkitu zuten VIII. mailan. Riss eta Würm izozte artearen bukaerakoa ala Würm izoztearen hasierakoa da[10].

Isturitz-eko kobazuloan ere ugari aurkitu dituzte uroaren hezurrak. Aurignac aldiko bukaerakoak dira[13]. Azken aldian, Jungua-ko eta Cloutet-eko lezeetan (Rébénacq-en, Oloroetik gertu) uroaren hezurrak aurkitu dituzte. Cloutet-ekoan, ar gaztearenak dira[24].

Baina agian aztarnategirik interesgarriena, Arabako Koartango-n, Gibijo mendikatean dagoena da. Han, 1971. urtean, Würm izozte ondoko uro baten eskeletoa ia osorik aurkitu zuten[25]. Hau da izozte ondokotzat jotako lehen uroa, nahiz eta IV. mendeko Servius Grammaticus idazle latindarrak Piriniotan uroa ugari zela aitortu. *Siluestres uri qui in Pyreneo monte nascuntur inter Gallias. Uri autem boues siluestres, quos uulgo bobalos appellant.* (Georg. 2,374).

Gibijo-ko uroaren eskeletoa, duela 7.380±150 urtekoa da; bost urteko arrarena. Bizkar-gurutzerainoko altuera, metro t'erdikoa zuen bizirik zegoenean, Altuna paleontologo ospatsuak hezur guztien azterketa zehatza egin ondoren jakin erazten duenez.

Bizkaiko Galdames-en, Arenaza izeneko kobazuloan ere aurkitu dira uroaren hondakinak. Mesolitos Garaikoak, Tardenois aldikoak dira[8]. Uroaren hezurrak ugari dira Arenazan.

Azken aldera gainera, Neolitos eta Metal-Garaiko hezurrak aurkitu dituzte Arenaza, Los Husos (Bilar-en, Araban) eta La Hoya-n (Biasteri-n, Araban)[9].

Los Husos-en bestetik, bobido handiaren hondakin interesgarriak daude. Prehistoriako uroa eta zezenaren artekoak direla dio Apellaniz arkeologoak[24]. Uroa beraz, aintzinhistoria arte gure artean izan dugunik ez dago inola ere ukatzerik.

d) Uroa. Morfologia eta bizimodua.

Antzinako marrazkiei esker batetik, eta idazle zaharrek adierazitakoen bidez bestetik, uroaren forma eta itxuraz gauza asko dakigu. Animalia handiak ziren: oraingo toreaketa-zezenak baino handiagoak[8].

Arrak ziren handienak. Elefanteak baino zerbait txikiagoak. Emeak berriz, dezentez txikiagoak ziren. Oraingo zezen eta behien arteko diferentzia baino handiagoa zuten uro ar eta emeak. Bestetik, Pleistozenoko uroak izozte ondorengoak baino handiagoak ziren. Pleistozenoko uro arrak, bi metroko altuera zuen bizkar-gurutzera eta mila kilo pisatzen zituen. Izozte ondoko uro arrak berriz, 1,70-1,80 metroko altuera zuen bizkar-gurutzera eta pisua berriz 600-800 kilo ingurukoa. Azken uroak gainera (gogora Gibijo-ko uroaz aurreraxeago esandakoa), txikiagoak ziren; metro t'erdi altu, oraingo toreaketa-zezena baino zertxobait handiagoa.

Uroa, animalia airoso eta bizkorra zen itxuraz. Aurre aldea, bisonteak baino txikiagoa zuen. Bizkar–gurutzea ez zuen oso goian. Lepondoa eta bizkarra zuzen lerrokatuak zituen.

Burua, proportzioz egokia zen eta goi xamarrean kokatua. Kopeta, estua eta launa; profilez sudurrarrekin lerro zuzena osatzen zuena. Adarrak, handiak, luzeak eta puntazorrotzak ziren. Kolorez argiak, baina punta ilun edo beltza zutenak. Buruaren gain–gainean sortzen zitzaizkion adarrak; alboetara lehenbizi eta gora eta aurrera gero. Puntak, gora aldera okertuak zituen; burua makurtzen zuenean aurrera begira gelditzen zitzaizkiola. Dena dela, forma desberdinetako adarrak zituzten uroek. Emeek berriz, are eta desberdinagoak. Jose Maria de Cossio–ren ustetan[4] adar bertikalak zituzten uroak zaharragoak ziren gero Asiatik etorri zirenak baino.

Uroaren belarriak, ez ziren handiak. Adar–hondoa baino beheraxeago eta atzeraxeago zituen. Tentetzen zituenean, lepoaren gainetik ateratzen zitzaizkien puntak.

Kokospetxoa ere bazuen. Muturra biluzia eta lepo indartsua. Buztana, belaunburuak baino zertxobait beheraxeago zintzilikatzen zitzaion. Ile motzek estaltzen zuten ia beheraino, baina muturrean ile luzez osatutako borla zuen. Gorputzeko ileak berriz, luzeagoak ziren negualdian. Sexuaren arabera, ilearen kolorea desberdina zen. Arrek ilun edo beltza zuten, orban nabar handiak tartean zirela. Muturraren muturra argia zen eta zerrenda argi estua zuten kokotetik buztaneraino bizkarrean, oraingo toreaketa–zezen askoren antzera. Sabelaldea eta hankartea ere kolorez argiagoa zuten.

Emeak, gorribeltzak ziren eta bizkar gaineko zerrenda bazuten.



2.5. irudia. Uroa. Augsburg–eko antikuari bati XIX. mendean aurkitua.

Lehen gizona, saiatu zen uroa ehizatzen, janari–iturri bikaina zelako. Baina animalia basati eta erasokorrari aurre eman behar zion[8], eta arriskutsua zen hori. Batzuek diotenez, uroaren hondakinak horregatik daude aztarnategietan bisontearenak baino gutxiago: ehizatzen zaila zelako.

Ekialde Hurbilean daude uroaren ehizari buruzko lehen albiste historikoak. Assiriarren artean ere, bada *rimu* edo uroaren ehizaketaren berririk[2] K.a. 1000. urte inguruan.

Julius Caesar–ek ere, gauza asko dio bere garaiko Germania–ko uroez[21]. Oso abere indartsu eta bizkorrak ziren. Ikusitako edozein pizti edo gizakiri erasotzen zioten. Gazteek ehizatzen zituzten, lurrean aurrez egin eta estalitako zuloetara eror eraziz. Gero, haien adarrak hartu eta harro erakusten zizkioten jendeari, ondoren ertzak zilarreztatu eta edalontzi bihurtu baino lehen.

Ehizatzeko sistema hau (zulora jauzi erazizkoa alegia), gure artean erabilia zen Koartango–ko Gibijo–n bertan otsoak harrapatzeko[1]. Bi horma luze zituzten horretarako V forman, erpinean zuloa zuela. Beraz, animaliak uxatuz horma artera sartzen zituzten Varen alderdi zabalean ,beste muturrean (estuan) gero zulora eror zitezen.

Goi–Paleolitos garaian gure artean erabilitako V formako horma hauek, gaur egun ere toreaketa–zezenak hazten dituzten ganaduzale guztiek dituzte abereak belarditatik probaketa–plazara eramateko. Harrizko hormen ordez, batzuetan hesiz egiten dute V formako *manga*, baina atzetik uxatuz biltzen dituzte abelgorriak Varen erpinera Euskal Herriko lehen gizonek bezalaxe.

Baina oraingo kontuak alde batera utzita, itzul gaitezen ehizatzen zaila zen antzinako arbasora: urora. Altunak dioenez, behia uroaren ondorengoa da eta gizakia saiatu zen bere hezketan, uroa ehizatzea baino erosoagoa gertatuko zitzaiolakoan[9]. Hezketarekin batera tamainaz laburtu egin zen. Agian, behia Euskal Herrian bertan hezia izan zen, dirudienez abere heziak ez eta hezketa–sistemak inportatzen zirelako. Dena dela, Neolitos Garaiaz gero Euskal Herrian etengabe egon dira behi–taldeak eta unaiak.

Caesar–ek dioenez, uroa bera inola ere hezi ezinezkoa zen[21]; ezta umetan hartuta ere. Baina egia esan, uroaren bizimoduaz dakiguna ez da asko.

Pleistozenoko uroa, guztiz lurralde zabaletara hedatua zegoen[8]; Eskozia eta Eskandinaviako hegoaldetik Sahararaino; Atlantiko aldeko gure lurretatik Txina eta Mantxuriako kostalderaino. Ia Europa eta Asia osoan eta Afrikako iparraldean beraz. Bisontea baino hegoalderago hala ere, bisontea hotz handiagoak jasateko gauza zelako.

Gure artean, badirudi uroa Kantauriko mendebaldean Würm izoztean ugariagoa zela ekialdean baino. Izan ere hegoaldera leku epelagotara joateko errazagoa zukeen ekialdetik, mendi oztopagarri gutxi zuelako.

Mendebaldean berriz, Kantauriko Mendikatea zuen, bere elur iraunkorrez estalia hesi egiten ziolarik.

Oso habitat desberdinetan bizi beharra izan zuen. Batzuetan baso irekitan, bestetan arboladun belardi eta estepatan eta inoiz baita arbolarik gabeko estepatan ere. Goimendietan ere ibili zen uro pleistozenikoa: Piriniotan eta Alpetan adibidez.

Uroak, talde txikitan biltzen ziren neguan eta udan sakabanaturik ibiltzeko ohitura zuten. Emeek, susaraldia irailean zuten, eta udaberrian umatzen ziren.

Uroak elikatzeko, gramineoak, beste zenbait belar, arbola nahiz zuhaixken kimuak eta udazkenean ezkurrak maite zituen.

Würm izozte ondoko uroa ere, oso lurralde zabaletara hedatua zegoen. Afrikako iparraldetik, mendebal eta hegoaldera ere iritsi zen herri kamitarren migrazioekin batera[5]. Ekialde Hurbilean,

Egypton, Assirian, Babilonian[2], Akkadian (hemen *remu* deitzen zioten) eta Sirian adibidez[27]. Europan, *Hercyniae* basoan (Oihan Beltzetik Karpato mendietarainoko basoan) Germanian Caesar-en garaian[21].

Gure artean ere bazen Mesolitos Garaiaz gero[25]. Hosto galkorrezko ohianetan, tarteka argiunetan belardiak zituzten basoetan bizi zen Euskal Herrian. Lehen aipatu dugunez gainera, IV. mendean ere baziren uroak Piriniotan Servius Grammaticus idazlearen arabera.

Baina azken uroak, duela gutxi desagertu dira gure Planetatik. Altunak iragartzen duenez, azken uroa XVII. mendean hil zen Varsovia-tik hegoaldera dagoen basoan. Eme zaharra zen espezie honetako azken ordezkaria[8]. Lituania eta Poloniako baso itxi eta putzutsuetan larratu ziren azken uroak. Baina badirudi gizakiaren erasotik ihesi sartu zirela basotako ilunpetara. Atseginagoak bait zituzten tartean belardi zabal eta oparoak zituzten basoak, udan belarrez eta neguan zuhaitzen horbelez elikatzekotan.

Dena dela, Ortega y Gasset filosofoak berri interesgarriak dakartza Europako azken uroaz[6]. Otto Antonius-en arabera, Varsovia-tik 55 kilometro hego-mendebaldera dagoen Jaktorowka izeneko basoan, 38 uro bizi ziren 1564. urtean; 11 ar eta 27 eme. 1599. urtean 24 ziren guztira, eta 1604. urtean lau bakarrik. 1620. urtean eme bakarra zegoen eta 1627. urtean hil zen.

Horiek horrela, H. Smith zoologo britainiarrak Augsburg-eko antikuari bati azpian *Thur* hitza zeraman zezen baten koadroa aurkitu zion. *Thur*ek uro esan nahi du hain zuzen polskeraz. Uroaren irudia da zalantzarik gabe, gero frogatu denez.

Bada ordea koadro horren jatorria argitzen duen eskutitz bat: Leibnitz filosofoak bere adiskide Th. Burnett-i 1712.eko urriaren 18an egina. Han dioenez, Leibnitz-ek Prussia-ko erregeari eskatu zion koadroa egin zezan. Erregeak bere Berlin-eko zooan uroa bizirik bait zuen orduan. Badirudi beraz, azken uroa XVII. mendearen bukaeran edo XVIII. mendearen hasieran galdu zela Europan. Izan ere Prussia-ko erregeak Varsovia-ko basoen ondoan zituen bere ehizalekuak, eta abelgorrien migrazioak kontutan harturik, Jaktorowka-ko uro-taldearen zatiren batek XVII. mendearen bukaerarte irautea ez litzateke harrigarri.

2.- EUSKAL HERRIKO LEHEN ZEZENA: UROA. BIBLIOGRAFIA

(1) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Euskaleŕi'ko leen-gizona.* Egia sorta 1. Itxaropena argit. Zarautz 1934 (47. orr.)

(2) PAÑOS MARTI, PABLO. *El toro de lidia en la escala zoológica,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (18, 21-27. orr.)

(3) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Toros en Pamplona (S. XVII).* Temas de cultura popular. 250. alea. Iruñea 1976 (3. orr.)

(4) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa Calpe argit. Madril 1981 (132, 133, 136, 137. orr.)

(5) SANZ EGAÑA, CESAREO. *Historia y bravura del toro de lidia.* Austral bilduma, 1283. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1958 (70-72. orr.)

(6) ORTEGA Y GASSET, JOSE. *La caza y los toros.* Austral bilduma. 1328. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1962 (128-131. orr.)

(7) GARRALDA, FEDERIKO. *Abelgoŕiak,* in Euskal Esnalea 1925.eko otsaila. 254. alea. (23. orr.)

(8) ALTUNA, JESUS. *Estudio zoológico y paleontológico de las especies representadas en Altxerri* in Munibe 1976. Donostia (172 - 177, 236. orr.)

(9) ALTUNA, JESUS. *Historia de la domesticación animal en el País Vasco desde sus orígenes hasta la romanización,* in Munibe 1980. Donostia (54, 55, 58, 59. orr.)

(10) ALTUNA, JESUS. *Los grandes bóvidos en los yacimientos guipuzcoanos,* in Primera semana internacional de antropología vasca. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1971 (490 - 492. orr.)

(11) ALTUNA, JESUS. *Prehistoria del País Vasco,* in Cultura Vasca. I. Erein argit. Donostia 1977 (63, 68. orr.)

(12) XX. *Arenaza: Pintura eder batzuren arriskuak,* in HABE 1985.eko apirilaren 1ekoa. 62. alea. (26, 27. orr.)

(13) ALTUNA, JESUS. *Fauna de mamíferos de los yacimientos prehistóricos de Guipuzcoa,* in Munibe 1971. Donostia (93, 110, 111, 350-368. orr.)

(14) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Los hombres prehistóricos de vizcaya,* in Obras completas. 15. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (283. orr).

(15) APELLANIZ, JOAN MARIA. *Análisis de la variación formal y la autoría en la iconografía mueble del Magdaleniense Antiguo de Bolinkoba (Vizcaya),* in Munibe 1986. Donostia (50, 51. orr.)

(16) ESTORNES LASA, BERNARDO. *Orígenes de los vascos.*Lehen alea Auñamendi argit. Bigarren argitaraldia. Donostia 1967 (132, 134. orr.)

(17) HIGOUNET, CHARLES. *Histoire de l'Aquitaine.* Privat argit. Toulouse 1971 (20. orr.)

(18) XX. *Stone Age European Peoples,* in Encyclopaedia Britannica. 17. alea. 1983 (705. orr.)

(19) CLOT, ANDRE. *El arte gráfico prehistórico en los Altos Pirineos,* in Munibe 1974. Donostia (59. orr.)

(20) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.*4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (768, 769, 771, 809. orr.)

(21) CAESAR, JULIUS. *Bellum Gallicum.* Gredos argit. Madril d/g (212, 251. orr.)

(22) ALTUNA, JESUS eta MARIEZKURRENA, KORO. *Restos óseos del yacimineto prehistórico de Abauntz (Arraiz, Navarra),* in Trabajos de arqueología navarra 3, Iruñea 1982 (349. orr.)

(23) ABRISKETA, JOAN JOSE. *Más datos sobre el origen vasco del toreo de a pié,* in La Gran Enciclopedia Vasca argit. 9. alea. Bilbo (228. orr.)

(24) CLOT, ANDRE eta EVIN, JACQUES. *Gisements naturels Pléistocenes et Holocènes des cavités des Pyrénées Occidentales Françaises: Inventaire et datages 14C,* in Munibe 1986. Donostia (190, 191. orr.)

(25) ALTUNA, JESUS. *Hallazgo de un uro (Bos primigenius Boj.) en la sierra de Gibijo (Alava), estudio de su esqueleto y de la fauna asociada al mismo*, in Munibe 1974. Donostia (28–41, 49. orr.)

(26) APELLANIZ, JOAN MARIA. *El grupo de los Husos durante la prehistoria con cerámica en el País Vasco*, in Estudios de Arqueología Alavesa. 7. alea. Gasteiz 1974 (168. orr.)

(27) PASCUAL CALVO, ENRIQUE. *Los toros en la Biblia*, in Los toros en España. 3. alea. Orel argit. Madril 1969 (270, 271. orr.)

3.- ZEZENA PREHISTORIAN ETA AINTZINHISTORIAN

Uroaren ondorengoa dugu geure saiakera honen ardatz aukeratu, eta behitarren arbasoaren berri aurreko kapituluan eman dugunez, zezena aztertzea dagokigu orain. Zezena eskala zoologikoan, *Artiodactyla* ordenakoa da, *Ruminantia* subordenakoa, *Bovidae* familiakoa, *Bos* jenerokoa eta *Bos taurus* ezpeziekoa. *Bos taurus* honetan sartzen dira gaur arte iritsi zaizkigun behitar hezi guztiak, toreaketa-zezena ere barne delarik.

Bos taurus Linnaeus 1758 espezie honen ezaugarri morfologiko nagusiak, hauek dira: garezur estu eta luzea, kopeta karratua, burumuinak markatuak, betzulo zabalak, adarren hondoko oinarria launa edo ganbil samarra, aurrera eta gora zuzendutako adar luzeak eta hamahiru bizkar-orno beste horrenbeste saihetsezurrekin izatea[1].

Aipatutako espezie hau, ugaria izan da gure artean prehistoriaz gero gaur arte. Aztarnategi ugaritan aurkitu dituzte bere hondakinak. Santimamiñe-n adibidez, masailezurraren pusketa eta kalkaneo bat aurkitu zuten, Barandiaranek dioenez[2]. Jesus Altunak bestetik, berri ugari damaigu bere doktorego-tesian[3]. Zuberoako Zühara-n, Ozaze ondoan, Gatzarria izeneko aztarnategian aurkitu dituzte *Bos* jeneroko hezurrak. Aurignac aldikoak dira. Zuberoan bertan, Ozaze-ko ibarrean, Rebenacq izeneko harrobian azken izozteko haginak aurkitu zituzten. Uroarenak edo zezenarenak dira G. Astre-ren arabera.

Neolitos Garaian ere garrantzi handia zuen zezenak gure lurretan. Jadanik hezia zegoen behia garai honetan, Arenaza-n (Bizkaiko Galdames-en) eta Los Husos-en (Arabako Bilar-en) aurkitutako arrastoek adierazten dutenez[4,5].

Eneolitos aroan, Euskal Herriko lurretan segitu zuen zezenak. Hori adierazten dute behintzat Abauntz (Nafarroako Arraiz-en) izeneko aztarnategiko hezurrek[6] eta Los Husos-ekoek. Dena dela, Brontze- eta Burdin aroan arrastoak askoz ere ugariagoak dira[3]. Urtiaga-ko kobazuloan (Deban), badira Brontze-aroko eta geroztikakoak. Nafarroako Kortes-en (Cerro de la Cruz izeneko lekuan) Burdin arokoak oso ugari dira. Nabskoze-ko Valdesoto deituriko haitzuloan, Brontze-arokoak bide direnak aurkitu dituzte. Gipuzkoako Aitzorrotz-en (Eskoriatza-n) Burdin aroaz geroztikako hezur asko dago[7]. Aldi berekoa da (Burdin arokoa alegia) Arabako Dulantziko Henayo gazteluko aztarnategia ere, eta gauza bera gertatzen da han[8]. Arabako Barrio-n, Berbeia izeneko lekuan ere bai[9].

Horietaz gainera, beste aztarnategi hauek ere aipa daitezke *Bos taurus*ak arrastoak utzi dituelako; Bizkaiko Aldeacueva (Karrantzan), Kobeaga (Barrika-Goierri, Ipazter) eta Pajucas (Peña Colorada, Lanestosa) eta Arabako Gobaederra (Morillas-eko Subijana-n), Landatxo (Gardelegi) eta Peñas de Oro (Mungia)[3]. Azkenaldi honetan, Mendabia-ko *El Castillar*en 904 hezur aurkitu dituzte: 56 Brontze-aroko azken adlikoak eta 868 Burdin arokoak[10].

Baina zezenaren hezurrak hondakinetan ugari agertu badira ere, hormatako irudiei gagozkielarik ez dago beste horrenbeste esaterik. Uroaren irudiak, aurreko kapituluan aipatuak ditugu, eta ez dira gutxi. Zezena ordea, geroagoko espeziea dugu; gizakia kobazulotik kanpora bizitzera atera ondorengoa eta horregatik ez zaigu hormatan agertzen, noizbehinka ezik. Asturiaseko Aviles inguruko Candamo-ko zezen-irudi bikaina izango da salbuespen hauetako bat[11].

Prehistoriako gizakiak, zezena gosea asetzearren ehizatzen zuen. Baina ez horretarako bakarrik. Zezenaren hezurrekin erremintak eta apaingarriak egiten ere bazekien: arpoi, azagai, gezi,

zintzilikario etab. Jose Antonio Mujikak badu Gipuzkoako hezur–industriaz argitaratutako lan bikain bat[12]. Han ikus daitezke, besteak beste, gaurko toreaketa–zenenen belarrièn antzeko piezak hezurrez eginik (beren garranga eta guzti) eta adarrezko beste zenbait lanabes. Adarrez egiten zituzten *Kutxarro* edo edalontziak eta goilareak ere[13]. Larrua espiralean ebakiz uhalak atera bide zituzten Barandiaranek dioenez[14].

Hala ere, zezenaren haragia zen alderdirik preziatuena, eta gosea asetzearren, ehizatu egin zuen gizakiak. Ehiza zen ekonomiaren oinarri. Horretarako gainera, ehiztari–taldea biltzen zen, animaliak uxatuz harrapatzen zituztelako[15]. Animaliak zulo batzuetara uxatzen zituzten, V formako bi hormen artera sartuta. Gibijo, Lacozmonte eta Gorbeian badaude V formako horma hauek[2]. Gaur egun betizuak harrapatzeko ere sistema hau erabilia da.

Euskal Herrian, aspalditik bertan zegoen zezen basatia, hezi egin zuen bertako gizakiak. Pirinio aldera zezena ez zen kanpotik etorri[16]. Bertakoa zen, eta Barandiaranek Adolf Staffe–ren arabera dioenez, lehendik euskaldunek ehize–lanez eskuratzen zuten aberearen umeak hezi egin zituzten[17]. Hezketa hasieran, ez zen erabatekoa dirudienez. Behiaren umeaz jabetu eta mendira botatzen zituzten larratzera. Gero, elikatzeko haragia behar zutenean, berriro ere ehizatu egin bide zuten sistema zaharrez. Agian animalia bakoitza zein gizatalde edo familiari zegokion aurrez erabakia zegoen[14].

Euskal Herrian hezitako zezena, bizkorra eta indartsua zen[18]. Altunaren eritziz, Neolitos Garaian Euskal Herrian bertako behia hezi zuten. Agian hezketa–teknikak ekarriko zituzten beste nonbaitetik; baina behia bera ez[19]. Dena dela, Brontze– eta Burdin aroko behia eta gaur eguneko Pirinio aldeko betizua, egitura bere–berekoak dira.



3.1. irudia. Piriniotako betizua

Altuna beraren ustez, Neolitos Garia K.a. 3300. urte inguruan hasi zen Euskal Herrian.

Odurarte, zakurra bakarrik zegoen hezia[20]. Neolitos Garaian ordea, hezitako behiaren arrastoak daude, eta geroztik etengabe larratu dira gure mendietan. Hezketarekin batera, behia tamainaz txiagokitu egin zen. Izan ere, hezketarekin batera taila jaitsi egiten dela pentsatu da beti. Staffe-k dioenez, antzinako behitar piriniarrak 1,17 metroko altuera zuen bizkar-gurutzera. Europako beste lurraldetan ,behitarrak Metal Garaian txikiagotu ziren tamainaz; hemen baino geroago. Eneolitos eta Brontze-aroko behiak, Europako erdi aldekoak baino txikiagoak dira. Baina Burdin aroan Euskal Herrian behitarrak ez ziren gehiago txikiagotu, Europako beste lurraldetan gertatu zenaren antzera. Burdin aroan, behien bizkar-gurutzeko altuera 1,03 eta 1,12 metro bitartekoa zen, eta zezenena, 1,12 eta 1,20 metro bitartekoa.

Erromatarren garaiko gure behitarrez, Burdin arokoez baino berri gutxiago dugu. Erdi Arokoaz berriz, zer esanik ez. Dena dela, gaur eguneko behitar piriniarra handiagoa da zootekniari esker. Baina galdera zera da: gaur egun atzerakada handia jasanda dagoen behi piriniarra aintzinhistorian bertan zegoenaren ondorengoa al da? Altunak dioenez, agian bai, nahiz eta ziurtasunik oraingoz izan ez.

Barandiaranen ustetan[17], behitarrak Eneolitos aroa baino lehen izan ziren hemen bertan heziak. *Zezen, behi, idi* eta euskarak dituen beste hitz batzuek hori adierazten dute. Geroago heziak izan balira, jatorriz izen indoeuroparrak izango zituzketen eta ez euskaldunak. Beraz, gutxienez Eneolitos aroaz gero izango ditugu *aberatsak* (abere asko dituztenak) gure artean.

Barandiaranek berak dioenez, Metal Garaian ariar libre bat hiltzeagatik ezartzen zen zigorra ehun behi ordaintzea bide zen[21]. Gure artean ere aurki daiteke heriotza eta aberastasunarekin zerikusia izan dezakeenik ahozko literaturan. *Apez beltza* izeneko erromantzean, Borthegaraik, apaiz baten hiltzaileak, gartzelan dagoela esaten dituen hitzak gogoratzea besterik ez dago[22]:

"Ehun behi nik baditut
oi beren zezenarekin
guziak eman bainitzaizke
bizia ukaitiarekin
guziak eman bainitzazke
bizia ukaitiarekin".

Edo Erdi Aroko XV. mendeko *Bereterretxen Khantoria* deituriko erromantze zuberotarraren beste zati hau[23]:

"ehün behi bazereitzola,
beren zezena ondoti."

Edo Luzaideko beste haur-kanta hura[24]:

"Din, dan! Baleran!
Balerakuak elizan
Zazpi zortzi yantza.
Tita bera nun da?
Hila, Parisen da,
Eper eta hari
Ehun behiak ernari
Ek oro norendako?
Gure haur ttipiarendako!"

Ehun zenbakia behin eta berriz errepikatzeak, agian izango du loturarik Strabon-ek Kantauriko itsasaldera bizi ziren herriez dioen *hekatonbe*ekin; abere-mota bakoitzeko ehun buru hiltzeko zuten ohiturarekin alegia[25]. Strabon-ek K.a. 29 eta 7. urteen bitartean idatzitako Geografiaren hirugarren liburuan bada hekatonbearen aipamen interesgarririk.

Euskal Herrian gainera, behitarrak izan ziren beste animalia asko baino lehen heziak, eta harez gero behi-taldeak ugaltzen hasi ziren. Eneolitos aroan behintzat, goimendietara joateko joera bazuten. Ordukoa izango da udaberrian eta udazkenean larrez aldatzeko ohitura[11].

Apellaniz ere eritzi berekoa da hezketari buruz[5]. Honek dioenez, Los Husos-en (Bilar-en) Neolitos Garaiaren azken aldera hezketa-teknikak menperatzen zituzten.

Lehen esan dugunez, Brontze-aroaz gero zezenaren arrasto gutxi dugu. Erromatarren garaian ordea, zezena gure Herrian txanponak egiterakoan irudikatu zuten.Txanpon askotan agertzen bait da zezena, edo idia. Zezena ala idi den jakitea nahikoa zaila gertatzen da hezurrak aztertuz, Altunak garbi adierazten duenez[20]. Txanponetan berriz, zailtasuna areagotu egiten da. Dena dela Nafarroako Kaskanten txapon ugari egin zen Tiberius-en garaian (14-37 K.o.) zezenaren irudia zuela.

MUNICP hitza dute zezenaren gainean eta CASCANTUM azpian. Gutxienez lau txapon desberdin badira zezendunak[26]. Beste aldean, Tiberius-en aurpegia agertzen da eta hitz hauek edo antzekoak: TI CAESAR DIVI AVG F AVGVSTVS

3.2. irudia. Tiberius-en garaiko txanponak. Kaskanten eginak.

Araban ere txanpon asko aurkitu da erromatarren gariakoa. Guk hemen batzuen berri bakarrik emango dugu. Saenz de Urturi-k dioenez[27], Argote-ko San Andres-en Tiberius-en garaiko txanpon bat aurkitu zuten. Atzekaldean idi-parea agertzen du eta Zaragozan egina da.

Iruña-n, Araban bertan, Kaskanten egindako txapon bat alde batera utzita, bada beste txanpon interesgarri bat ere[28]. Augustus-en burua dakar aurrekaldean eta zezena atzekaldean. Kalagorri-n egina da. Baiasteri-n ere aurkitu zuten aurreko hau bezalako beste ale bat. Sobron-en aurkitua aipatuko dugu azkenik.Hau Tiberius-en garaikoa da. Atzean zezena du. Clunia-n (Coruña del Conde gaur egun) egindakoa da. Garai berekoak dira Graccurris-en (Alfaro-n) egindako beste bi txanpon ere. Zezen-burua du batek aurrez aurre ikusirik. Bestean, zezena profilez osorik ikusten da[29].

Zezena ugari zen hirietan, txanponetan irudikatzeko ohitura zuten beren aberastasunaren ezaugarri[30]. Eta zezendun beste txanpon asko izango badira ere, guk honenbestez utzi beharko dugu arazoa.

3. ZEZENA PREHISTORIAN ETA AINTZINHISTORIAN. BIBLIOGRAFIA

(1) PAÑOS MARTI, PABLO. *El toro de lidia en la escala zoologica*,in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril. 1969 (16. orr.)

(2) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Exploraciones en la caverna de Santimamiñe. 1ª Memoria*, in Obras completas. 9. alea. La Gran Enciclopegia Vasca argit. Bilbo 1972 (165. orr.)

(3) ALTUNA, JESUS. *Fauna de mamíferos de los yacimientos prehistóricos de Guipuzcoa* in Munibe 1971. Donostia (99, 103, 105, 107, 117, 128, 348. orr.)

(4) ALTUNA, JESUS. *Prehistoria del País Vasco*, in Cultura Vasca I. Erein argit. Donostia 1977 (72. orr.)

(5) APELLANIZ, JOAN Mª. *El grupo de los Husos durante la prehistoria con cerámica en el País Vasco*, in Estudios de Arqueologia Alavesa. 7. alea. Gasteiz 1974. (148, 168, 169, 170. orr.)

(6) ALTUNA, JESUS eta MARIEZKURRENA, KORO. *Restos óseos del yacimiento prehistorico de Abauntz (Arraiz, Navarra)*,in Trabajos de Arqueologia Navarra 3. Iruñea 1982 (349. orr.)

(7) MARIEZKURRENA, KORO eta ALTUNA, JESUS. *Alimentación de origen animal del Castillo de Aitzorrotz (Escoriaza, Guipúzcoa)*,in Munibe 1981. Donostia (199, 200, 202, 203, 207. orr.)

(8) ALTUNA, JESUS. *Fauna de mamíferos del Castillo de Henayo, Alava. (Edad del Hierro)*,in Estudios de Arqueologia Alavesa. 8. alea. Gasteiz 1975 (213,219. orr.)

(9) ALTUNA, JESUS. *Restos óseos del castro de Berbeia (Barrio, Alava)*,in Estudios de Arqueología Alavesa. 9. alea. Gasteiz 1978 (242, 243. orr.)

(10) MARIZKURRENA, KORO. *La cabaña ganadera del Castillar de Mendavia (Navarra)*,in Munibe 1986. Donostia (130 orr.)

(11) ESTORNES LASA, BERNARDO. *Origenes de los vascos*. Lehen alea. Auñamendi argit. Donostia 1967 (92, 299. orr.)

(12) MUJIKA, JOSE ANTONIO. *Industria de Hueso en la Prehistoria de Guipúzcoa*,in Munibe 1983. Donostia (451–631. orr.)

(13) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Constantes de la etnia vasca*,in Cultura vasca I. Erein argit. Donostia 1977 (8, 9. orr.)

(14) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *El hombre prehistorico en el País Vasco*,in Obras completas. 13. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (194, 272, 273, 277. orr.)

(15) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Los hombres prehistoricos de Vizcaya*,in Obras completas. 15. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (281, 283. orr.)

(16) LIZOP, RAYMOND. *Le Comminges et le Couserans avant la domination romaine*.Toulouse 1931. (244. orr.)

(17) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Euskaleri'ko leen–gizona*.Egia–sorta 1. Itxaropena argit. Zarautz 1934 (67, 68. orr.)

(18) THALAMAS LABANDIBAR, JOAN. *Aspectos de la vida profesional vasca*.Zabalkundea bilduma. 13. alea. Beñat idaztiak. Donostia 1935 (27. orr.)

(19) ALTUNA, JESUS. *Betizua. Vaca pirenaica*,in Mendiak. Lehen alea. Etor argit. Donostia 1981 (175. orr.)

(20) ALTUNA, JESUS. *Historia de la domesticación animal en el País Vasco desde sus orígenes hasta la romanización*, in Munibe 1980. Donostia (30, 35, 54, 55. orr.)

(21) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Breve historia del hombre primitivo*,in Anuario de Eusko–Folklore 1931. Donostia (75. orr.)

(22) MURIA, ANE, eta beste. *Ahoz aho. Ahozko euskal literaturaren antologia*. Erein argit.

Donostia 1984 (119. orr.)
(23) RIEZU, JORGE. *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak.*Lekaroz (Nafarroa). 1973 (222-227. orr.)
(24) SATRUSTEGI, JOSE MARI. *Luzaide'ko kantiak.*Auspoa bilduma 65. alea. Tolosa (15. orr.)
(25) BARANDIARAN, INAZIO.*Guipuzcoa en la edad antigua.*Donostia 1973. (16. orr.)
(26) ALTADILL, JULIO. *Navarra.* in Geografia del País Vasco Navarro. Lehen alea. F. Carreras Candi argit. Bartzelona (667, 668. orr.)
(27) SAENZ DE URTURI, FRANCISCA. *Nuevos hallazgos romanos en Alava: Marcas de Alfarero y Monedas,*in Estudios de Arqueología Alavesa. 8. alea. Gasteiz 1978 (296, 297. orr.)
(28) ELORTZA, JOAN KARLOS. *Numismatica antigua en la provincia de Alava,*in Estudios de Arqueologia Alavesa. 6. alea. Gasteiz 1974 (186, 187. orr.)
(29) XX. *Graccurris,*in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 16. alea. Auñamendi argit. Donostia (524. orr.)
(30) BLAZQUEZ, JOSE MARIA. *Diccionario de Religiones Prerromanas de Hispania.*Istmo argit. Madril 1975 (66. orr.)

4.- ZEZENAREN INGURUKO ERLIJIOTASUNA

a) Euskal Herriko antzinako harrietan

Lehentxeago adierazi dugunez, zezenaren irudiak txanponetako metalean agertu zitzaizkigun Euskal Herrian erromatarren garaian. Baina zeregin ekonomikoa duten pieza biribil horietan ezik, harrian ere irudikatu zituzten animalia eder hauek beste helburu batekin; erlijio-helburuz hain zuzen.

Durangoko Mikeldi izeneko lekuan (gaur egun herri barruan) aurkitutako idoloa aipatuko dugu lehenbizi. Ordotza ala zezena den Barandiaranek ez du erabakitzen[1]. Harearrian landutako eskultura handia da. Hanken artean, diskoa du eta bere bi aldeek Eguzkia eta Ilargia adieraz dezakete. B. Taracena-k, Burdin arokotzat jotzen du eta gaur egun Bilboko Arkeologi Museoan aurkitzen da.

Piriniotako Aran haraneko Escuñau herrian aurkitutako marmolezko hilarriak ere izan dezake zezenarekin loturarik. ILVRBERRIXO/ANDEREXO dago hilarri horretan idatzirik. Mitxelenak[2] dioenez, batzuen ustez ANDEREXO epitetoa da; ILVRBERRIXO jainkoarena hain zuzen. Tovar-ek berriz, euskara eta keltar hizkuntzaren konparazioaz diharduen lanean[3] gauza jakingarria dakar. Akitanian ANDERE emakumea izendatzeko erabiltzen bazen ere, irlanderaz *emakume gazte* (Ainder), kymbrueraz *biga* (Anner), kymbruera zaharrean *zezenko* (Enderic), kymbruera modernoan *zezena, idia* (Enderiq) eta bretoieraz *biga* (Ounner) esanahiak daude.

Hueska-ko probintzian, Loarre herriko lurretan harearrizko aldare bat aurkitu zuten. Aldarearen lau aurpegietan, beste lau irudi daude baxuerliebean: ontzi bat, oilarra, ordotza eta zezen-burua. Hueska-ko museoan dago gaur egun eta erromatarren garaikoa da[4]. Zaragoza-ko probintzian ere aurkitu dira garai bereko beste aldare batzuk; zezen-irudia dutenak noski. Sadaba, eta Sos-ekoak aipa ditzakegu adibidez[5].

Sos-ekoak, hiru harri dira eta arestian Jose E. Uranga-k aztertu zituen[6]. Lehena, harearrizko blokea da. Bi aurpegi landuak ditu. Aurpegi bat 44x30 cm da neurriz eta gure ikuspegitik interesgarriena. Altuerliebez irudi batzuk ditu. Zezenaren burua bere adar, belarri eta guzti agertzen da. Mutur karratua du eta begiak zertxobait markatuak ditu. Buruaren gainean (adar artean), bi zirkulu ditu erliebez. Zirkulu hauen erdian beste zulo biribila dago, bertatik izpiak ateratzen direla. Muturraren azpian, aldare modukoa irudikatzen du lauki batek. Laukiaren barruan aiztoa dago. Ezkerrean, buru biribildun giza irudia dago. Begiak eta sudurra markatuak ditu. Besotan txarroa du. Eskuinean girten zilindrikoa du. Jose Maria Blazquez-ek[7], Zaragozako Pardina eta Los Bañales-eko zezendun harriak ere aipatzen dituelarik, girten hau zakila dela dio.

Eta Sos-eko lehen harri honen bigarren aurpegi landuak, 43x48 cm ditu. Barruan, bi ferra-arku ditu altuerliebez.

Bigarren harria, Bietre etxean, Mamillas izeneko lekuan, aurkitu zuten Sos-en bertan. Aurpegi bakarra du landua; 38x33 cm-koa. Zezenaren burua altuerliebez dago, bere belarri, begi eta adarrak markaturik dituela. Adarren gainean disko biribil lodia du.

Hirugarren harria, Sofuentes izeneko larrebilean (Sos-eko partean) aurkitu zuten. Labe baten atean sartua zegoen. Harearrizkoa da eta 46x30 cm-ko alde bat du landua. Bertan zezen-burua dago zizelatua. Burua lauki batez osatua du eta adar handi samarrak ditu bi aldetara. Buru gainean lerro

batzuez angeluak ditu ilea irudikatuz. Begiak bi zirkulu txikiz markatuak agertzen zaizkio.



4.1. irudia. Sos–eko zezen–irudizko harriak.

Sos–eko harri hauek, Emiliano Ladrero medikuak aurkitu zituen eta gero bere alargunak Iruñeko Nafarroako Museoari eman zizkion.

Zertxobait mendebaldera, gaurko Nafarroako muga igarota, Sos–etik Xabier herria hurbil dago. Hemengo museoan ere bada zezenaren burua agertzen duen erromatarren garaiko aldare bat. Jose E. Urangak[8] eta Juan Thalamas–ek[9] behintzat, aipatzen dute beren lanetan. Nafarroako Oibarren ere, (Xabier–etik gertu) gauza bera gertatzen da. Han hilarri batean agertu zen zezenaren irudia[10]. Eslaba herrian ere, Nafarroan bertan, aurkitu zuten zezendun beste harri bat[11].

4.2. irudia. Zezen–irudizko harriak. Usua–ko aldarea. Iruñela eta Gastiain–eko hilarriak.

Usua–ko aldarea, berezia da. Nafarroako herri horretan aurkitutako aldareak, zezen–buruaz gain LACVBEGI hitza ere zizelatua du. Hitza, diotenez, bertako jainko baten izena da eta bere esanahia euskararen bitartez argitzen saiatu dira; –BEGIrena batez ere, euskarazko *begi* edo *behi* hitzekin zerikusirik duelakoan[12]. Zezenaren irudia, altuerliebez dago. Bi adarrez gain, belarriak, begiak eta sudur–zuloak nabarmentzen zaizkio.

Usua baino mendebalderago dagoen Artaxona–n, bi hilarri aurkitu zituzten. Batak zezenaren irudi hutsa du eta besteak zezena gainean ilargia duela[7].

Lizarra–tik gertu dagoen Oteiza herria da aipatu beharreko beste bat. Hango hilarri batean idiaren burua eta ilargierdia daude zizelaturik[13].

Nafarroako erdi inguruan, Iruñela (Lizarra ondoan) eta Ibero–ko (Etxauri eta Ororbia artean) hilarriak ezin ditugu baztertu. Iberokoa desagertu bada ere, bi zezen–buru zituen. Iruñelakoan, zezen osoa dago baxuerliebez[5].

Nafarroako lurretan Arabarekin mugan Gastiain herrixka dugu hurrengo. Hango hilarria ikusgarria da. Iruñeko museoan dago gaur egun. Zezen osoa dago zizelaturik baxuerliebez hosto eta mahats–sorta artean. Hogeitamar urteko emakume baten hilobikoa da; ANTBVTVRRA VIRIATI FILIA ANT XXX H.S. bait dio[14].

Arabako partean, Gastiain–etik hurbil, Kontrasta–n bada beste hilarri intesgarri bat. 1,5x0,4 m–koa da, eta zati bat bakarrik kontserbatu bada ere, behitar bat oinez agertzen da. Gorputzaren zati bat eta atzekaldea ikusten zaizkio.



4.3. irudia. Okariz–eko eta La Hoya–ko harriak.

Araban bertan, Agurain eta Kontrasta artean dugu Okariz herrixkako hilarria[15]. Zezen osoa dago grabaturik, aurrean pala edo mazoa duela. San Migel-eko ermitan aurkitu zuten.

Hegoalderago, Biasteri-ko La Hoya-n bada beste harri aipagarri bat. Lorenzo Ugarte-k aurkitu zuen aztarnategi horretan eta Elortza-ren eritziz[16], behitar baten buruaren zatia dago markaturik bertan. Adarren artean gainera, arrosatxo biribil bat du.

Eta zezendun harrien zerrenda luze hau bukatzeko, Arabako Baños (Mainueta) herriko hilarriaz mintzatuko gara. Elortza-ren arabera, herri horretako hilarri batean lauoineko animalia bat grabaturik agertzen da[17]. Agian hau ere zezenaren irudia izan daiteke.

Beste arazo bat, orain arte deskribatu bakarrik egin ditugun zezen-irudi horien erlijio-interpretazioa egitea da, eta ez da, noski, konpontzen erraza. Hala ere, eritzi batzuk aditzera emango ditugu, iturriaren aipamena eginez.

Mikeldi-ko idoloaz, Barandiaranek[1] berak jakin erazten diguna hau da: zezenak edo ordotzak hanken artean duen diskoaren bi aldeak, Eguzkia eta Ilargia izan daitezke. Horrela Ama Lurraren mitoa gogora erazten digu. Lurraren jeinu den zezenak, bere baitan hartzen ditu zeruko bi alabak hauek mendebaldean sartzen direnean. Baina Barandiaranek dioenez, hau interpretazio askotatik bat besterik ez da.

Dena dela, erromatarren garaiko deskribaturiko hilarri eta aldareez, badirudi ikerleen eritzien artean desberdintasun handiegirik ez dagoela. Lakarra-ren ustetan[18] zezen-irudiak dituzten aldare eta hilarri hauek, zezenarenganako kultu eta zezen-odolezko bataioarekin (taurobolio-ekin) lotu behar dira. Bataio-mota hau jatorriz Ekialdekoa bazen ere, Erromako kolonia batzuetara hedatua zegoen.

Urangarentzat hainbat zezen-irudi egoteak, zezenarenganako kultu totemikoa oso sartua zegoela adierazten du[8].

Thalamas-en ustetan[9] kultu honetan Erromako inperioaren eragina egon daiteke, baina aldi berean ikonografia horrek bertakoen berezko sentipenei erantzun ziezaiekeen. Izan ere gure arbasoentzat aker eta ahariarekin batera zezena ugalmen unibertsalaren irudi zen; animalia arraren ordezkaririk bikainena.

Ibarburuk[12] Usua-ko aldarea aztertzen duenean, LACVBEGI bertako behi sakratu baten izentzat jo daitekeela esaten du. Egypto eta Indostan aldekoen antzera, hemen ere izan bide ziren behi sakratuak.

Elortzak,[15] Arabako hilarriez ari denean, zezenaren ehorzketa-zentzua bistakoa dela dio.

Blazquez-ek adierazten duenez, zezena birtute misteriotsuen harrobi zen[7]. Ugalmenaren gordailu zen zezena eta erabilpen magikoa zuen.

Uranga berak ere ez du ukatzen gure artean zezenarenganako kultuak zuen garrantzia[6]. Sos-eko lehen harrian, zezen sakratuari eskainitako sakrifizioa agertzen da bere ustez. Izan ere zezen-buruaren azpian aldarea eta aiztoa daude (sakrifizio-tresnak biak). Baita pertsona bat ere edateko posturan eta guzti horrek jainkoari bakarrik egiten zaion adorazio-ekintza erakusten du.

Adar artean dauden bi diskoak Eguzkia eta Ilargia izango dira agian. Sos-eko beste bi

harriak, zin–oroigarriak izan daitezke eta Urangak dioenez, ipuin eta kondaira asko dago herri horretan zezena animalia sakratutzat hartzen delarik. Gainera, zezenaren okela duela gutxi arte ez zuen bertako jendeak jaten.

Zezenarenganako kultua beraz, nahikoa hedatua ikusten dugu gure artean erromatarren garaian. Izan ere zezena ugalmena eta oparotasuna zen; fruitu, ondasun eta aberastasunaren ikur. Batzuetan, adarra soilik ere halaxe zen. Erromatarren garaiko Euskal Herriko txanpon batzuetan adibidez, kornukopiak agertzen dira; fruitu eta loreak gainezka dituzten adarrak hain zuzen[19]. Oparotasunaren adar hauek, geroztik ere irudikatu izan dira zenbait eraikuntzatan apaingarri bezala. Hala nola Comminges–eko Saint Bertrand elizan[20] edo Iruñeko katedraleko klaustroan[21].



4.4. irudia. Zezendun aldare eta hilarriak aurkitutako lekuak.

Zezenari ahalmen genesikoa zegokion antzinatean; ugalmena, narotasuna eta joritasuna. Horregatik adoratzen zuten jainkotzat harturik. Blazquez–en eritziz, kultu horretan dantzak bazuen

bere lekua[7]. Zezenaren inguruan dantza egiteko ohitura, prehistorian ere bazela Euskal Herrian dio Armstrong folklorelariak. Lascaux eta Altamira–n adibidez, ehizatu nahi zuen aberearen irudi inguruan dantzatu bide zuen[22]. Strabon–ek bere Geografiaren hirugarren liburuan argitzen digunez, erromatarren garaian gure arbasoek, edaten zuten bitartean, bazuten dantza egiteko ohitura. Txirula eta turuten soinua entzunez jauzi egiten zuten gora eta belauniko erori. Bastetania–n gainera emakume eta gizonezkoek elkarri eskua emanda dantza egiten zuten[23]. Geroztik ere, gure dantzetan bada zezenarekin loturarik Armstrong–en ustetan. Hark dioenez[22] gure dantzetan eskuak altxatzen ditugu, aurre aldera zerbait makurturik eta beti kurbaturik, ilargia ala zezen sakratuaren adarrak irudikatzeko asmoz.

Ahalmen genesikoa zezenak transmititzen zuen eta sexuarengan ere botereak bazituen. Mitologian behintzat, adarbakarraren kondairak hori dio. Kondaira horren arabera, neska bat gizon gisa jantzirik ibili zen justizizainek harrapa ez zezaten. Herri batean lanean hasi zen eta bere nagusiaren alaba maitemindu egin zitzaion. Biak ezkondu egin ziren. Emaztea, berehala ohartu zen bere senarraren emetasunaz, baina isiltzea erabaki zuen. Bere aita eta lagunek ordea, zerbaiten susmoa zuten eta egun batez ibaian bainua hartzera eraman zuten berekin emakumezko senarra. Bainua hartu baino lehen, eginkizun bat betetzera erretiratzeko baimena eskatu zuen senarrak, eta bakarrik zegoela, adarbakarra agertu zitzaion. Animaliak, bere adar bakarraz gurutzea egin zion izter artean. Senarra orduan, egiazko gizon bihurtu zen[24].

Blazquez–ek dioenez, Mexiko–n bada aldaketatxoren bat duen kondaira bera. Mexiko–ko bertsioan emakumezko senarrak bere jantziz toreatzen du adarbakarra, gizon bihurtu baino lehen. Horrela bereganatzen ditu senarrak arraren ahalmen genesikoak[7].

Adarbakarrari buruzko mitoak bizirik irauten zuten Erdi Aroan. XIII. mendean adibidez, Nafarroako errege eta koblakari zen Thibalt lehenak maitasun-kantu bat osatu zuen adarbakarraren kondaira batean oinarriturik[25].

Comminges–eko Saint Bertrand–en elizan ere bada XIV. mendeko apezpiku–makulu berezi bat. Kondairak dioenez, adarbakarraren adar luzea da. Erabiltzailea gaitz eta pozoinetatik gordetzeko ahalmena omen zuen[20].

4.5. irudia. Theseo eta Minotauro–ren arteko burruka. Iruñea.

Iruñeko katedralean bestetik, XIV. mendeko klaustroan bada adarbakarra eta neskatxaren eskultura bat.

Iruñean bertan, eta katedraletik gertu, Altadill eta Fita–k diotenez Nafarreria kaleko etxe batean erromatarren garaiko (II. mendeko) mosaiko-zati bat aurkitu zuten[26]. Mosaikoa Iruñeko museoan dago gaur egun eta Theseo–k Minotauro–rekin izandako burruka adierazten du. Mosaiko–zatiaren neurriak 1,06x1,4 m dira.

b) Greziako zezenetan

Aipatutako burruka hau, greziarren mitologiako pasarte bat da. Kondairak dioenez, Pasifae Kretako erregina zen; Helios eta Perseida–ren alaba. Pasifae, Minos–ekin ezkondu zen eta seme–alabak izan zituzten. Egoera hartan, Minos–i Poseidon jainkoari sakrifizio bat egitea bururatu zitzaion. Horregatik, jainkoari berari bere animaliarik onenetakoa eman ziezaiola eskatu zion. Poseidon–ek, itsasoko uretatik hondartzara zezen eder bat bidali zuen sakrifika zezan.Minos–i ordea, opari ederregia iruditu zitzaion, eta beste zezen bat hil zuen haren ordez. Poseidon jainkoak, erabat haserreturik, bere zezen ederra bazter guztiak birrinduz erabili zuen. Pasifae emaztearen maitasuna ere bereganatu zuen zezenak eta biengandik Minotauroa jaio zen: zezen–burua eta giza gorputza zuen munstro beldurgarria[27]. Minos–ek orduan, Dedalo arkitektoari labirinto bat egitea eskatu zion, eta halaxe, Dedalo–ren labirintoaren barruan Minotauroa ipini zuten handik atera ez zedin.

Athenas–eko Egeo erregeak, urtero zazpi mutil gazte eta zazpi neska gazte bidali behar izaten zizkion Minos–i Minotauroaren janaritzat zerga gisa. Baina urte batez, Egeo erregearen semeak, Theseo–k, Kretara bera bidal zezala eskatu zion aitari, Minotauroa hilko zuela aginduz.

Theseo Kreta–ra iritsi zenean, Minos erregearen alabak ezpata eta hari–mataza eman zizkion gupidatuta. Hurrengo goizean Theseo labirintora sartu zen mataza askatuz, eta Minotauroak adarrez erasotzeko burua makurtu zuenean, Theseo–k ezpata bizkarretik sartu omen zion bihotzeraino. Munstro ikaragarri hura hil ondoren, hariari jarraituz atera omen zen Theseo labirintotik.

Bitxia badirudi ere, Oteiza eskultoreak gure Basajauna hartzen du Minotauroaren aitzindaritzat. Euskal artearen ikuspegi estetikoan oinarritzen da horretarako. Guk, bere hitz batzuk euskaratuta aldatuko ditugu hona[28], nahiz eta gai hauen itzulpenean ideiak fiabardura guztiekin ematea zaila izan:

...gure Basajauna ... basoko Jauna, lurreko kobazulo ilunetakoa, Labirintokoa; zergatik ez greziarren prehistoriako Minotauroaren gure aitzindari prehistoriko? Guk prehistorian genuen pentsaeraren sustraien eta greziarren prehistoriako lehen mitoen artean harreman sakonak aurki ditzakegu, mendebaldeko tradizioaren interpretazio monofasikoa (honetan dena higidura fisikoki ikusita argitu nahi da) husketa eta gelditasunaz, denboraren, gure ohizko pentsaera bifasikoaren, husketa metafisikoaz aldatzen saiatzen hasi orduko...

... Tauromakia euskalduna da; estetikoki euskalduna. Hau jakin ondoren, zezenez ardura gaitezke, edo besterentzat utzi. Ezin duguna, zera da: guk geure buruaz dugun ezjakintasunagatik besteak gutaz tontakeriak esan ditzaten jasatea. Minotauroa Basajaunarengandik dator (ilbetetako lehen euskaldunentzat "Troi–Fréres"eko kobazulo/santutegiko Testamentu Zaharrean marraztua dagoenez). Labirintoko gauetik Dedalo eskultoreak zirkunferentzia batekin ihes egiten du (Neolitos garaian euskalduna horrelaxe sartu zen historian)...

4.6. irudia. Troi–Fréres–eko (Haute Garonne) txistulari/dantzaria.

Greziako mitologian ordea, Minotauroaz gain badira zezenak parte hartzen duteneko kondairak. Horietakoa da Herkules–en hamabi lanetako bat. Herkules–ek izan ere, bere eroaldi batean egindako kalteak ordaintzearren, anaiordeko Euristeo–k esandako lanak betetzera behartu zen. Hamabi lan agindu zizkion Euristeo–k, eta zazpigarrena, Kretako zezen beldurgarri bat menperatu eta ekartzea zen. Herkules–ek bizkarrean ekarri zion Euristeo–ri zezena. Hamargarrena, Iberia–ko hegoaldeko Gerion erregearen zezen– eta behi–taldeaz jabetzea zen. Sicilia–ko Diodoro–k bere laugarren liburuan dioenez, Herkulesek Afrikan zehar ibili ondoren, Gibraltar–eko itsastartean bi koloma ezarri zituen; bi kontinenteen muturretan hain zuzen. Gero, Tartessos–era igarota, bertako armaden kontra burrukatu ondoren Gerion–en zezen eta behiak eraman zizkion Euristeo–ri[29]. Herkules–i, Taurofono izena ere eman izan diote.

Greziako beste mito famatu bat, Europarena da. Europa, feniziarra zen: Agenor erregearen alaba. Egun batez, hondartzan zegoela, zezen batek ikusi zuen, eta neskatxaz maitemindurik, gainean hartu eta bahitu egin zuen. Zezena, Zeus zen; Olimpo–ko jauna. Mediterranioan zehar ibili ondoren, Kreta–ra iritsi ziren eta han ezkondu ondoren, hiru seme izan zituzten: Minos, Radamanto eta Sarpedon[27]. Europari, Tauropartenos izena ere ematen zaio.

Mitoa ordea ez da hor bukatzen. Europak bazuen anaia zaharragoa; Kadmo izenekoa. Anaia hau, Europa bahituaren bila atera zen Feniziatik. Delfo–ra heldu zenean, pitonisari orakulua galdetu zion. Orakuluaren arabera, Europaren bila joateari uko egin behar zion eta bideari jarraituz behi bat aurkituko omen zuen. Behia gelditzen zen lekuan hiria eraiki behar zuen. Eta halaxe gertatu ere. Beozia–ra heldu zenean, behi bat ikusi zuen, eta azkenean gelditu zenean, hiria non eraiki behar zuen bazekien Kadmo–k. Gero, behia oparitzat eskainiz, behikia jan zuen[30].

Greziako mitologian, Farnesio zezenarena ere badago. Kondaira honetan, Antiope–ren semeek, amari egindako bidegabekerien ordainez, Dirze izeba zezen baten adarretara lotu zuten

mendekuz[27].

Atlantida-ren kondaira ere aipagarria da. Platon-en idatzien arabera, Atlantidako hamar erregeak bost edo sei urtetik behin biltzen ziren. Lege-arazoak erabaki behar zituztenean, hamar erregeak elkarri leialtasuna erakusteko Poseidon jainkoari eskainitako leku sakratuan biltzen ziren. Han zezenak ateratzen zituzten, eta metalezko armarik gabe, lakio eta makilaz bat harrapatzen zuten. Gero, kolomaren gainean sastakatu egiten zuten, jainkoari opari eginez[31].

Eleusis-eko (Athenas-etik gertu) misterioak ere zezenaren sinbolopean ospatzen ziren.

Grezian ordea, zezenaren inguruan dena ez da mitologia izan. Zezenarekin jokatzeko ohitura zuten. Leku itxitan zezena jokatzea, *tauromakia* alegia, gauza arrunta zen Kretan. Evans ikerlariak lehenbizi eta Persson eta Picard-ek gero, hori frogatu dute. Schliemann-ek ere Tirinto-ko (Peloponesoko ipar-ekialdean) pintura bat aipatzen du. Han neska batek zezenaren gainetik jauzi egiten du adar bati helduta[32]. Kreta-n tauromakiak, indarrean segitu zuen K.a. bi edo hiru mila urtetik Minos-en zibilizazioa amaitu arte. Neska-mutilak aritzen ziren zezen gainetik jauzika. Akrobaziazko toreaketa egiten zuten beraz, gaur egun Lapurdi eta Landetan euskal zezenketan egiten denaren antzera.

4.7. irudia. Minos-en jauregian, Knossos-en aurkitutako irudia.

Kretan, sazerdotesak aritzen ziren tauromakia akrobatikoan festetan. Festak, batez ere udaberrian ospatzen ziren Ama jainkosaren omenetan, Naturaren indarrak berpiztuko zituelakoan[9]. Cossio zezenzalearen ustetan, Kreta-ko iruditan agertzen diren lanak ez legoke egiterik gaur eguneko zezen suharrekin. Suharrak baziren, ergi edo zezenko txikiak bide ziren[33]. Viena eta Gasseines-eko zezenen adarpuntak gainera, bolaztatuak daudela dirudite[34].

Greziako beste festa bat, *taurokathapsia* zen. Lurralde zabaletan, mendian, egiten zuten hau; Thessalia-n eta Kreta-n batez ere. Gizonak zaldiz zezenen atzetik joaten ziren, eta nekatu ondoren,

adarretatik oratuta uzkali egiten zituzten[35], XVIII. mendean *Amilleta* ataundarrak Amezketa–ko plazan egingo zuenaren antzera.



4.8. irudia. Knossos–en aurkitutako zezen–burua.

c) Erromatarren inperioan

Jakina denez, Greziako zibilizazioaren jarraitzaileak, erromatarrak izan ziren. Hauek lurralde zabaletara hedatu zuten beren inperioa eta Euskal Herrira ere iritsi ziren. Iruñea ondoko Arre–n aurkitutako brontzezko inskripzio batean, P. Sempronio Taurino Damanitano izena agertzen da. 185. urtekoa da. Zezen-izena zuen beraz Damaniun–eko (gaurko Domeño–ko) pertsona hark[26]. Beste leku batzuetan, Armenia–n, Mesopotamia–n eta abarretan, mendiek ere badute *taurus* izena. Agian *Tor* assirierako hitzetik eratorria izango da; mendi esan nahi duen hitzetik[36].

Baina erromatarrek gure artean utzitako arrastoetara itzuliz, beraien hizkuntzan sortua dugu

Gendulain izena; *Centulo, Gendulli* eta antzeko formak ordukoak bait dira[37]. Baina Gendulain, Nafarroako Odieta–ko eta Esteribar–eko leku nahiz Zizur–etik hurbil dagoen herrixkaren izena, gero toreaketa–zezenen ganadutegi ospatsu izango zena gogoratzeagatik ekarri dugu hona. Nafarroako Erriberan, XVIII. mendean, Xabier Gendulain–en zezen ospatsuak Tutera ondoko Murelu herrixkan larratzen bait ziren, gero XIX. mendean Nazario Karrikiri jaunak bereganatu zituen arte.

Gatozen ordea erromatarren garaira eta plazara dezagun gure artean erabiltzen den eta beren eragina izan dezakeen beste hitz bat: bizkaierazko *zezeila* hain zuzen. Otsail (otsoen hil) eta zezeil (zezenen hil) euskarazko hitzek, badute dirudienez erromatarren *Lupercalia* eta *Februa* festekin zerikusirik. Zezenak otsailean edo otsail inguruan jaiotzen direla alde batera utzita, Erromako Kapitolioan otsailaren lehen egunean egiten ziren *Februa* izeneko jaiak; garbikunde-jaiak[38]. Festa horietan, Erromako vestaleak zezena hil eta bere odolez zipristintzen zituzten ikuilu edo kortak. Zeremonia honek, *casta februa* zuen izena[39]. Thalamas–ek zezeil hitzean erromatarren eragina ukatzen ez badu ere, Euskal Herrian bertan zezenarenganako zegoen kultuarekin lotura izan zezakeela onartzen du[40].

Dena den, Erroman zezenaren odolez garbikundea egiteak Mitra–renganako kultuaz lotura estua du. Mitra berez, jainko indo–ariar guztiz zaharra zen. Haitz batetik jaio omen zen, esku batean sastakaia eta bestean zuzi piztua zuela ilunpetan argi eginez. Eguzkiaren aurka neurtu zituen lehenbizi indarrak, eta eguzkia menpera etorri zitzaion. Ondoren, zezen sakratuarekin (Jupiter eta Oromades–ek sortutako lehen izaki bizidunarekin) burrukatu zen. Gorabehera askoren ondoren, bere zakurraren laguntzaz zezen sakratuari esku batez sudurmintzetatik helduta, sastakaiz lepoan jota hil egin zuen[33]. Zezenaren gorputzetik Lurreko landare eta belar on guztiak sortu omen ziren orduan; okelatik garauak eta odoletik edari sakratuak egiteko mahastiak. Zezena horrela Silvanus izeneko jainko bihurtu zen.

Mitra–ren mitotik, mitraismo izeneko erlijioa sortu zen eta Erromako inperioan zehar II. eta III. mendean hedatu zen kristautasunarekin batera, Constantinus–ek debekatu zuen arte[41].

4.9. irudia. Mitra zezena hiltzen.

Kultu mitraikoak zuen liturgiaz gauza asko ez dakigu, baina misterioen ezagutzan hasten zenak, zazpi maila igaro behar zituen. Sazerdoteak ziren gizakien eta Mitraren arteko lotura. Haiek mantentzen zuten itzali gabe Mitraren ondoan su sakratua. Zezen, ahari, hegazti eta abar hilda opari eskaintzen zituzten.

Zezenak sakrifizioz eskaintzeko ohitura Erromatik inperiora zabaldu zen II. mendeaz gero. Taurobolio izeneko erritoa, liturgian zegoen jadanik orduan. Zibeles eta Attis jainkoen omenetan egiten zen. Attis jainkoari arkumea eskaintzen zioten eta *Mater Magna deum* zelako Zibeles jainkosari, zezena[42]. Sazerdoteak zezena xafla zulatu baten gainean hiltzen zuen. Xaflaren azpiko zuloan, odolezko bataioa hartu behar zuen fededuna ipintzen zen. Odolaren bitartez, bere bizitzako zikinkeriak garbitzen zituen eta bustita jendaurrean agertzen zenean, denek agurtzen eta zoriontzen zuten.

Zibeles-enganako kultua oso hedatua zegoen garai hartako Akitanian. Comminges-en Labroquère-n (Saint Bertrand-etik oso gertu), Chiragan-en (Haute Garonne-n), Bordele-n Périgeux-en eta batez ere Lectoure-n (Condom-etik ekialdera) tauroboliotarako aldare asko aurkitu da. Lectoure, Bordele eta Perigeux-eko aldareetan gainera, zeremonia nolakoa zen irudiz deskribatua dago[43].

Erromatarrek Euskal Herrian izandako erasana kontutan harturik, gure arteko tauromakiaren iturrietako bat inperioaren eragina izatea posibletzat jotzen du Pelletier zezenzale baionesak. Baiona eta Hazparneko tradizioa hartzen ditu adibidetzat horretarako[44]. Dena den, eta berak aitortzen duenez, lehengaia (zezen basatia) bertan zegoen Erromatik ekarri gabe ere. Gure eritziz ordea, aurreko kapituluan esandakoa ez da ahaztu behar: zezena hemen bertan hezia izan zela Neolitos garaian, eta hezketa horrek berez ezartzen du derrigorrean tauromakiarako oinarria.

4.10. irudia. Apis zezena adar artean ilargia daramala.

d) Beste Herrietan

Europatik kanpo ere zezenarenganako kultua ugaria eta garrantzitsua izan da. Egypto adibidez, ez dago isilpean uzterik. Han Tot eta Osiris zezenak adoratzen ziren. Baita Apis eta Mnevis (Ra–ren arima) zezen biziak ere[24]. Zezena, gizontasun–indarraren ikur zen egyptiarrentzat. Batzuetan gainera, ikurra ezezik baita jainkoa bera ere. Horregatik hautatzen zuten zezen bizia jainkotzat: Apis zezena hain zuzen. (Frantsesaren eraginez Apis *idia* esatearen desegokitasuna garbi salatzen du Garate bergararrak[45]).

Apis zezena, zezen beltz eta kopetazurien artean aukeratzen zuten. Eskuineko saihetsean ilargierdiaren formako orban zuria zuen gainera. Menfis–en bizi zen jendeak adoratzen zuela, sazerdote laguntzaile eta guzti. Zezena hiltzen zenean, ezaugarri berdineko beste bat hartzen zuten haren ordez[27].Apis zezenaren aurrean, neskek beren sabela biluztu egiten zuten, horrela gizonak haurdun utziko zituelakoan[24].

Apis zezena ilargiarekin oso loturik zegoen. Jendeak ilgorari *kapes* (zezen sutsu) esaten zion, eta ilbeherari *sab* (zezen irendu)[6]. Urte berria berriz, bi adarrez irudikatzen zuten[46].

Egyptoz aparte, antzinateko beste herri batzuk ere aipatzea merezi du, zezenarekin harreman estuak izan dituztelako. Kapadozian esate baterako, zezenfesta irudikatzen duen buztinezko zigilu bat aurkitu zuten. Kristo aurreko 2400. urte ingurukoa da. Nisa (Kapadozia–n), Magencia, Tirinto (Peloponeso–n) eta Mikenas (Peloponeso–n) hirietan aurkitutako txanponek frogatzen dutenez, helenismoa baino zaharragoak dira zezenfestak[9].

Indian, Atman–aren edo izaki guztiak sortzen dituen bizi–indarraren irudia, zezena nahiz behia da. Behiarenganako duten kultua ezaguna da, baina hegoaldean (Madras inguruan) zezenarenganakoa ere bizirik dago.

Pertsia, Kaldea eta Assiria–n, zezena giza buruz eta hegaz jantzirik aurkitzen da jauregitako sarreran zaindari gisa[6].

Babilonia–n, Marduk eta Sin zezenak adoratzen zituzten. El zezena berriz, Fenizia–n[24]. Feniziarren alfabetoko lehen letra gainera, *Alef* da: zezena alegia. Sumeriarren artean, antzinateko beste herri guztien antzera, *An–Ki* bikotea zegoen izaki eta ondasun guztien iturri gisa, eta behia (emea) Lurrari lotua bazegoen, zezena (arra) zeruko jainkoarekin batuta zegoen[9].

4.11. irudia. Sumeriarren lirak.

Sumeriarren musikatresna nagusia bestetik, lira zen. Kristo aurreko 3.000. urte inguruko lira ederrak aurkitu dira erregeen hilobitan Ur–en. Erresonantzi kaxa, zezen–formakoa zen hasieran, eta gero kaxari beste forma bat eman bazioten ere, zezen–burua zuen apaingarritzat. Zezena beti ere, ugalmenaren ikur bezala erabiltzen zuten[47].

Akkadiarren arteko Gilgamex–en epika ere ezaguna da. Asurbanipal–en liburutegian aurkitutako oholtxo kuneiformetan aurkitu zuten kondaira hau. Gilgamex, erdi jainko erdi gizaki zen eta besteak beste, Ixtar jainkosak bera desegitera bidali zion hegadun zezen sakratua hil zuen[41]. Chicago–ko unibertsitatean bada zezena eta bizardun heroia burrukan agertzen duen akkadiarren irudi interesgarria[48].

Hittitarrek ere adoratu ohi zuten zezena. Indarraren eta artasunaren iruditzat bait zuten. Zezen–aldareak zituzten eta gero aldareak zezenaren adarrak bakarrik bazituen ere, gainean odoluzten zuten[9].

Eta ekialdeko herrietako zezenak honenbestez utzita, Iberiar Penintsularekiko aipamenak egingo ditugu. Numantia–n esaterako, garai hartako Euskal Herriaren mugetan, behitarren hezurrez gain pintura interesgarriak aurkitu dira. Edalontzitan zezenak eskematikoki marrazturik daude. Inguruan astroen irudiak ikus daitezke, zenbait hilarritan bezalaxe. Beste edalontzi batzuetan zezen–buruak bakarrik marrazturik daude. Lohi errezko zezenak eta brontzezkoak (belarritan) ere badaude Numantian. Soria–ko probintzian dauden hilarri batzuetan eta Burgos–eko Lara de los Infantes–eko (Covarrubias–etik gertu) beste batean, zezenak agertzen dira, baina Blazquez–en ustetan, zezenarenganako kultuak ez du horregatik hileta–zentzurik[7].

4.12. irudia. Clunia–ko hilarri–zatia.

Clunia–ko (Coruña del Conde eta Peñalba de Castro Burgos–eko herrixken ondoan, Aranda eta Silos tartean dago Clunia) lauza–zati famatu batean, zezen osoa agertzen da, aurrean gizona duela. Gizona ezkutuz babestua dago eta ezkututik ezpata edo lantzaren punta ateratzen da. Gainean iberieraz letra batzuk markatuak ditu. 1774. urtean aurkitu zuten lauza biribil hau, eta gero 1804. urtean hondatua izan zen ezjakintasunez. Jose Loperráez jaunak egindako irudi bat gelditu da haren lekuko.

Letren esanahiaz ez dago adostasunik, nahiz eta Juan Bautista Erro–k euskararen bitartez argitasunak eman nahi izan[33]. Irudiari buruz berriz, Blazquez–ek *ludi taurini* edo zezen–jokua izan daitekeela dio[7]. Arabako Iruña–n, gai berbera ager dezakeen *sigillata*–zatia (erliebedun lurrezko pieza) badela dio gainera.

Clunia–n bertan bada behitarra eta gainean zakurra erakusten duen harri bat. Cossio–ren eritziz ehiza irudikatzen du harri horrek[35]. Blazquez–ek bestetik, Clunia–n aurkitutako zakil hirukoitzaren berri ematen du[7].

Eta Burgoseko Sasamon herriko zezenaren burua eta brontzezko zakila[7] alde batera utzita, Soriako probintzian Termes (Montejo de Liceras–en ondoan, Numantia–tik 45 km–ra) da beste aztarnategi interesgarria. Herri zeltiberiar honetan zezen–adarrak aurkitu dira. Cossio–ren eritziz, han anfiteatroan zezena sakrifikatzen zuten jendaurrean erlijio–helburuz[33].

Teruel–eko probintzian zezen–irudiak ugari agertu dira. Hiriburuko harmarrian zezena agertzen dela jakingarria bada ere, probintziako herrietako zezen–irudiak zer esanik ez. Albalate del Arzobispo inguruan hormatan zezena, zaldia eta astroa agertzen dira. Brontze–arokoak dira aurkitu berri dituzten irudi hauek[49]. Azaila–n, brontzezko zezena agertu zen. Buruan arrosetoia zuen[7].

Valentzia–ko probintzian, Liria–n, ontzi batean agertzen diren irudiak ere interesgarriak dira. Zezena jokatzen ari dela dirudi aurrean duen gizon batek.

Alpera–ko (Albacete) zezen–irudiak, Balazote–ko (Albacete) harrizko eskultura (giza burua eta zezen–gorputza duena), Olesa–ko (Bartzelona) aldarea[6], Guisando–ko (Avila) harrizko zezenak (zenbaiten ustez Juluis Caesar–ek Pompeius–en semeei garaitutakoan egindako hekatonbe edo 100 zezenen sakrifizioaren oroigarri dira)[50] etab. ere aipa daitezke.

Costitx–eko (Mallorka) brontzezko zezen–buruak eta beste erreferentzia asko ere eman daiteke zezenarenganako kultuaz zerikusia duenik[7]. Baina Euskal Herritik kanpo zezen–kontuan egin dugun bidaiari amaiera eman beharko diogu. Ez ordea zezenarenganako kultuaren inguruan dauden beste arazoren bat edo besteri irazkintxoak egin baino lehen.

Izan ere zezena Herri eta mendetan zehar bezalaxe, ugalmena, emankortasuna, indarra, gogortasuna, ausardia eta basatitasunaren ordezkari da, tasun hauek kalitate positibotzat harturik[51]. Blazquez–ek ere, zezena ugalmenaren (fekunditatearen) babesletzat joa izan dela dio. Zezenarenganako kultua indoeuroparren garaia baino lehenagokoa dela ere aitortzen du. Kultu hau, zezena ekonomiaren zati garrantzitsu zen gizarte guztietara hedatua zegoen. Kultu honek, astroekin ere bazituen loturak. Aurkitutako aztarnek behintzat hori adierazten dute[7]. Emeterio Sorazu–k[52] Euskal Herrian zezena eguzkiarekin lotuta ikusten du sorkuntz eta ernalkuntz ikur bezala.

Ez da ahaztu behar bestetik, astroez osatutako *taurus*a; konstelazioa alegia. Leireko elizaren sarrera nagusian (XII. mendekoa da), tinpanoaren azpian alde bakoitzean zezena eta lehoiaren buruak daude. Irudi erromaniko hauek, *Taurus* eta *Leo* konstelazioak adierazi nahi dituzte seguruenik. Zeurko astroek pertsonengan duten eraginaren ustea, gaur egun ere indarrean bait dago zenbaitengan, garai batean euskal idazle batzuengan bezalaxe. Oreka dinamikoa adierazten omen duen *Taurus*ak apirilean du bere sasoia: martxoa (aries) eta maiatzaren (geminis) tartean eta adibidez Joannes Leizarraga beskoiztarrak berak ere horrelaxe dakar, 1571. urtean argitaratutako *Kalendreran*[53]. Eusebio Maria Azkue lekeitiarrak ere, bertso politak ditu *Taurus*az bere *Parnasorako bidea*ren *Urrtea* atalean[54]. Hona hemen hango bi bertso:

Erre baino len begiak
an igesten dausku ariak;
bere lekura
datorr zerura
zezen arrmatu ta arina
bigairik barik egina.

Zezenak dakaz beragaz
lorak usain gosoagaz;
gaba laburrtu
ta edurrak urrtu:
dituz zezen biarrginak
lau asteko zereginak

Euskal Herrian gainera, Taurus konstelazioko Aldebaran izar nagusiari *zezen-begi* deitzen zaio[55]. Sabino Aranak, *zezenaga* hitza eman zion Taurus konstelazioari[56].

Lehentxeago esan bezala, zezena ugalmenaren (fekunditatearen) iturritzat hartua izan da. Ez ordea animalia eta landareen ugalmenaren iturritzat bakarrik. Gizakien ugalmen-iturritzat ere hartua izan da, eta oso berandurarte gainera. Ikusi besterik ez dago bestela XVI. mendean Aragoako Fernando *Katolikoak* egin zuena. Fernandok, hilzorian zegoen Isabel erreginari berriro ez zela ezkonduko zin egin zion, Gaztelako gobernua bere eskutatik alabarengana pasa ez zedin. Baina Isabel hil ondoren, Fernando Foix-eko Germanarekin laster ezkondu zen, beste guztitan bezalaxe zinean konfidantza zuten guztiei iruzur eginez. Bigarren ezkontza honen ondorio, semea jaio zitzaien 1509. urtean, baina hil ere bai jaioberritan. Fernandok, bere alaba Joana-z gain (hau Gaztelarako nahi bait zuen) beste oinordekoa Aragoako erreinurako izateko esperantzatan zebilen. Arturo Campion-ek, Olabe Diez-en eritzia jasotzen du[57], eta eritzi horren arabera Fernando-k ez zuen inola ere Gaztela eta Aragoa bera hil ondoren elkarturik jarrai zitezen nahi. Germanarengandik oinordeko berria izateko egin zituen ahaleginek hori adierazten dute behintzat. Nafarroa bestetik, ondorengo berria izateko itxaropen guztiak galdu zituenean erantsi zion Gaztelako koroari.

Fernando erregeak, zezen-barrabilak birrinduz egindako edabea hartu zuen, Germanarengandik zezenaren ahalmenaz beste ume bat sortzea posible izango zitzaiolakoan[24]. Usteak ustel irten zion.

Gizakiengan ondorengoak sortzeko zezenak ahalmena zuenaren sinesmena, beste ekintza batean ere nabarmendu da: ezteietan zezenak korritzeko ohituran.

Erdi Aroan ezteietan zezenak jokatzen zirela garbi dago eta errito honek ugalmenarekin zuen zerikusiaz Blazquez-ek ez du zalantzarik. Gure artean ere ezteietan zezenak korritzeko ohitura bazen Erdi Aroan. Tuteran adibidez, Sobrarbe-ko foruaren 293. artikuluak arautzen zuen ezteietako sokamuturra XII. mendearen hasieran[58]. Nafarroako VI. Gartzea erregea Urraka-rekin 1144. urtean Leon-en ezkondu zenean ere zezenak zakurrak xaxatuta korritu zituzten, eta gero azkonez hil[59].

Euskal ahozko literaturak ere badu ezteiak eta zezenak lotzen dituen zatirik. Ikus bestela zer dioen Altsasuko Maria Anjela Artzarengandik Azkuek jaso eta bere *Cancioneroan* nahiz *Euskaleriaren Yakintzan* dakarren kopla honek[60]:

Or goian dago urrutietan,
goien goiengo leioetan;

zazpi zezenek yoka dezala
Anjelesen eztaietan.

Edo Zuberoko Larrañe–n kantatzen den antzeko hau:

Pinpirineta Pinpirineta
etxe hortako primistetan
zazpi zezen tolera niro
(prima, primia) zure ezteietan.

Edo luzexeagoa den Nafarroa Behereko Behorlegiko beste hau[61]:

Txoria dago pinpirinetan
etxe huntako leihoetan
zazpi zezen hilen tuzte
primu horren ezteietan
(zazpigarrena toleaturen
konpañiaren ohoretan)

J.M. Arratia–k, Santa Ageda–ko koplatan sartzen du bere musika eta guzti kopla honen aldaera hau[62]:

Or goian urrutietan
goien goiengo leioetan;
zazpi zezenek joka dezala
Anjelesen eztaietan.

Ezteietan ezezik, haurra jaiotakoan zezena jokatzeko erritoa (zezena eta ugalmena loturik hemen ere) beste kantu honetan suma daiteke. Alos–eko Usoa–rena da hain zuzen[63]:

Amandria neria nizaz
bi erdi eguin zanian,
milla ollo ill eta
ezcaratzian,
zazpi cecen corritu ere
emparantzian,
ni ere banengüen
lumatho artian,
eta nere Ama–andria
urre gortiña artian.

Ohartzekoa da kantu hauetan zazpi zenbakiak agertzeko duen joera. *Zazpi* hau ere ugaritasunarekin, oparotasunarekin uztartzea agian ez legoke gaizki. Biblian adibidez, *hirurogeitamar bider zazpi* eta antzekoak badaude narotasunaren adierazgarri. Zeanurin diotenez bestetik, errekako laminak hondatzeko zazpina urteko zazpi zezen behar ziren. Baratxuria ere *zazpi* gaitzen kontrakoa omen da.

Ezteietako zezenfestetan, ugalmenaren esparrura kolore zuria ere sartu du zenbaitek. Blazquez–ek dioenez, zezenfestetan toreaketa–muleta harizkoa (lihozkoa, zuria beraz) zen lehenbizi, eta ezkonberrien ohe zuria eta toreaketa–zapi zuri horren artean bada ugalmenarekin zerikusia duen

lokarria[7]. Kapa ere harizkoa zen (zuria) hasiera batean, eta horregatik uler daiteke hobeto korridatako lantze batek *beronika* izena izatea[33]. XVII. mendean agertu omen ziren kapa beltz eta berdeak.

Gaurko zezenfestak, zezenarenganako kultuarekin harremanetan ipini izan ditu idazle askok. Milaka interpretazio eta hipotesi barreiatu da liburutan zehar. Paganismoaren arrastotzat hartu izan dira zezenfesta hauetako batzuk. Sorian San Joanetan egin ohi duten *Pertz-festa* aipatzen du Cossio-k[33]. Han kofradia bakoitzak zezen bat ipini eta, gero plazan toreatu eta hil ondoren, hurrengo egunean kofradikide bakoitzak bere okela-zatia ermita batera eramaten du elizkizunera. Ondoren jan egiten dute zezena. Antzinatean nahikoa zabaldua zegoen animalia janda bere birtuteak jalearengana iragaten zirenaren ustea.

Soriako festakoaren antzera, Bergarako Osintxu-n bazen *karidade artu* izeneko kofradia. Kofradia honek abuztuko azken iganderako behia ekartzen zuen. Eliz ondoan hiltzen zuten, eta harakinak, larrutu ondoren, zatitu egiten zuen jendeari okela banatuz. Jendeak okela jan egiten zuen noski[9]. Aspaldiko ohitura hau, gaur egun ere indarrean dago Osintxu-n. 1986.eko abuztuaren 30ean adibidez, kanalean 225 kilo pisatutako zekorra hil zuten eta haren 40 kilo okelekin hurrengo egunerako (iganderako) salda prestatu zen.

Lan honen egileak ere, parte hartu zuen Zestoa-n duela hogeiren bat urte zezen-jate ospakizun batean. Herri-jaietan uste baino lehen zezenik gabe geldituta, talde batek ordaindurik propio ekarri bait zuen beste zezen bat, plazan jokatu ondoren hil eta okintzategitako labetan erre ondoren herritar guztiek jan zezaten.

Beste idazle askok, zezenetako toreatzailea apaiz paganotzat hartu du: errito sakratu eta magikoaren sazerdotetzat[51]. Zezenaz, toreatzaileaz eta sexualitateaz berriz, hamaika eritzi argitaratu da bazterretan. Toreatzaileak zezenari ezpata sartzen dionean adibidez, emozio sexuala tartean dela onartzea ez zaio zail gertatzen askori[64]. Edo toreatzailetzako ofizioa uzterakoan jendaurrean mototsa moztea irentze-zeremoniatzat hartzea[41].

J.M. Gutierrez euskal zinegileak adibidez, Pedro Almodovar-en *Matador* pelikulaz Habe aldizkariko 84. alean honela zioen: *Zezenaren eta bere hiltzailearen antzera, elkarrekin jolasean, gizonak eta emakumeak ere ezkontz dantza batean elkar maitatzen eta elkar gorrotatzen dute, heriotzaraino heldu arte.*

Baina ezin luzatuko gara gehiegi oraingo zezenfesten interpretazio sexual eta erlijiosoak adierazten eta Garcia Lorca-k behin Giovanni Papini-rekin korridez izandako elkarrizketan esandako zenbait ideia hona aldatuta amaituko dugu atal hau[65]. Honela dio Lorca-k:

... eta gizakia eta zezenaren arteko burrukak duen edertasun heroiko, pagano, herrikoi eta mistikoa ulerteraztea espero du. ...

Korrida, nahiz eta ikuskizun- eta akorbazi alderdia izan, erlijio-misterio, errito sakratu da egiazki. Toreatzailea, bere akolitoekin, kristautasunaren aurreko eta kristautasunak kondenatu ahal izan ez zuen sazerdote modukoa da. Zer adierazten du zezenak gizakien kontzientzian? Jatorrizko energia basatia, eta aldi berean, neurriz gaineko ahalmen ernerazlea. Aberea, bere indar ilun eta guzti, kemen sexualez betetako arra da. ...

Toreatzailea beraz, oinarri izpirituala duen zeremoniako ministrari odoltsu da, eta bere ezpata, antzinako sazerdoteek sakrifiziorako zuten aiztoaren ordezkoa besterik ez. Eta

kristautasunak gizakiei guregan dauden zantzu basatietatik askatzea irakasten dienez gero, ez da harritzekoa gure herri katolikoa ikuskizun sakratu honetara joatea, nahiz eta barruan duen zentzu izpiritual hori oso garbi ulertu ez. Eta Mitra-ren antzinako kultuaren hastapen-erritoa gogora daiteke; garai batean kristautasunaren garaitzapena kolokan utzi zuen erlijio hura alegia. Hastapen-errito hura, zezena sakrifikatzean, taurobolioan zetzan. ...

e) Euskal mitologian

Zezenak gure artean milaka urte dituenez gero, ez da harritzekoa gure mitologian ere txertaturik egotea. Eta ez nolanahi gainera. Barandiaranek dioenez, zaldi, zezen, txahalgorri, ahari, eta abarren itxuraz izaki edo idoloak harpetan bizi direneko sinismenak dira gure mitologiaren zatirik nagusiena. Horietaz gainera, bada emakumezko bat, inoiz abere-itxuran edo abereen soin-atalak dituela agertzen dena; Mari alegia[66].

Guk hemen, Barandiaranen eskutik, behitarrak tartean direneko idolo edo jeinuen berri emango dugu laburki[1].

– *Aatxe, ahatxe* (aretze), *aatxegorri* (aretzegorri). Kobazulotan bizi ohi dira. Askotan, Mari edo Ionagorri-ren forma desberdinak dira.

Sara-ko Lezia izeneko kobazuloan (Atxuri mendiaren barrenean), zezen- edo behi-itxurako jeinua bizi da. Hango zaintzailetzat dauka jendeak eta batzuetan, kalte egin diotenak zigortzekotan, giza itxura hartzen du. *Etsai* izenez ere ezagutzen dute horregatik. Haitzulo honetako behiak, Nafarroako Etxalar herrirainoko bidea omen dauka lurpean. Sarako Ganixon Lartzabalek gainera, kondaira baten berri eman zion Barandiarani[67]. Bere ama eta izeba Leizera joan ziren ongarri bila. Barruan ongarritan ari zirela, zintzarri-hotsa entzun zuten; behi edo zekorren zintzarri-hotsa. Ez omen zuten ezer ikusi. Baina izututa itzuli omen ziren handik eta harez gero ez omen dira berriz hara joan.

Pierre Lafitte-k ere Sarako harpearen aipamenak egin ditu. Han Haxko zenak *zezengorria* ikusi omen zuen, armiarmaren gisa paretean gora lau hatzez igotzen[68].

Erromatarren garaian indar handia omen zuen lurpeko mitologia honek gure artean. Orduko txanpon asko aurkitu bait dute Isturitz, Goikolau, Santimamiñe eta abarretan. Txanponak, lurpeko jeinuen babesa lortzeko asmoz botatzen zituzten.

Aatxe edo animalien forma hartzen duen dibinitate troglodita hau, kobazulotan bizi da: Isturitz-eko Laminazilo-n, Sarako Lezia-n, Zugarramurdi-ko Akelarre-n, Errenteriako Aizpitarte-n, Abadino-ko Bolinkoba-n, Kortezubi-ko Santimamiñen, Dima-ko Baltzola-n, eta abarretan. Kobazulo hauetako aztarnategietan eta hormetan, zezenen arrastoak badaude.

– *Addar* edo *Aiar*. Adar-en diminutiboa da. Euskal Herriko ekialdeko jeinu gaiztoa da; deabrua.

– *Anxo*. Ezterenzubi-ko kondaira batean agertzen da. Herri honetako unaiek, afalondoren ogi-pusketa uzten zuten gauero Anxo-rentzat. Anxo, denek lo hartu ondoren etortzen zen. Gau batez, unairik gazteenak bakarrik utzi zion ogia Anxori. Honek, gainerantzekoen arropak eraman zituen.

Unaiek, lankide gaztea bidali zuten leizera arropa bila Anxorengana. Biga bat agindu zioten lan hori egiteagatik.

Gazteak Anxori arropak eskatu zizkion. Baita honek itzuli ere, baina bigari ehun eta bat makilakada ematea agindu zion. Unaiak agindua bete zuenean, bigarengandik ehun eta bat buru jaio ziren.

– *Askaata.* Atauneko meatze baten izena da. Meatzearen ondoan leizea dago, eta jendeak dioenez txahalgorri gisa agertzen den jeinua da hango zaintzailea.

– *Atxular, Axular.* Euskal idazle handiaren inguruan, gai mitikoak bildu dira. *Etsai* deabrua Zugarramurdiko kobazuloan bizi zen eta Axular preso zeukan han. Halako batean Axular handik ihesi joan zen, baina ateratzerakoan, Etsaik kizkia bota zion eta itzalarekin batera orpo bat ere harrapatu zion.

Deabrua ez zegoen pozik orpo eta itzal hutsarekin eta Axular zigortzea pentsatu zuen. Inguruko baserritar bat bere behien bila zebilen Zugarramurdiko kobazuloaren ondoan, eta itxura oneko gizasemea, eskutan paketea zuela, agertu zitzaion. *Hau Sarako apaizari ematen badiozu nik zure behiak non dauden esango dizut* proposatu zion baserritarrari. Behiak aurkituta, Zugarramurdiko unaiak Axularri paketea eraman zion, gertatu zitzaionaren berri emanez.

Axularrek paketea ireki eta barruko zetazko gerriko gorriak enbor bati ipin ziezazkion eskatu zion unaiari. Unaiak enbor batean bildu zituenean, zuhaitza erauzita erori zen.

– *Beigorri.* Kobazulo eta leizetan bizi den jeinua da. Batzuetan, behi gorriaren itxuran ateratzen da kanpora. Sara, Amezketa, Beizama eta Mutrikuko kondairatan aipatzen da batez ere. Beren etxera eramatearren Beigorri–rengana hurbildu ziren batzuk, desagerterazi egin omen zituen. Sarako Lezia, Amezketako Marizulo, Beizamako Olanoi eta Zegamako Aketegi kobazuloak Beigorri–ren egoitzatzat jotzen dira.

Amezketan, Irabi baserriko alaba Aralarrera igo omen zen, han larratzen zen bere behi baten bila. Gero, bigantxa gorri bat ikusi zuen. Berea zelakoan, buztanetik heldu omen zion. Bigantxa korrika hasi omen zen eta Marizulo–ra (Txindokiko haitzulora) eraman omen zuen gaztea. Toki hartako Mariren jeinua zen.

Gurasoak alferrik ibili ziren denbora luzez neskaren bila. Geroago ordea, Marizulo–barruan ikusi omen zuten. Zakur gorria omen zegoen ondoan, egoitza ilun hartako gelditasunaren zaintzaile.

Sara, Beizama eta Mutrikuko kondairatan ere, gai hau errepikatzen da. Mutrikuko Agerretxe baserriko aitonak 1925.ean Barandiarani esan zioenez, neska bat Aizkorri mendira joan omen zen behi baten bila. Behi gorria ikusi eta berea zelakoan adarretatik heldu zion. Behia sutu egin zen orduan eta neska berekin zeramala leize batera sartu. Geroago, fraile batek leizea bedeinkatu eta neska atera egin omen zuen[69].

– *Betizua.* Duela gutxi arte Euskal Herriko mendietan bizi izan den behitar basatia: txikia, gorri iluna eta beti afrontuan bizitakoa. Ez zen behin ere hezia izan; ezta ikuilutara sartua ere. Gizakiarengandik ihes egiten zuen, baina gogor erasotzen zion umea hazten ari zenean. Duela gutxi arte, batzuetan taldeak osatuz, Larrun, Leitzelarre, Jaizkibel, Aralar, Izaspi eta abarretan larratzen zen. Jabeak betizuren bat harrapatu nahi zuenean, uxatuz eta lakioz ehizatu behar izaten zuen. Bestela, tiroz hil eta narraz garraiatzen zuen, lehen mundu–gerra amaitu eta geroxeago arte Sarakoek Larrunekoekin egiten zutenaren antzera.

Betizuak, zalantzarik gabe aspalditik inspiratu edo eskaini dio euskaldunari bere mitoetako

material sinbolikoaren zati bat.

Orain artekoa Barandiaranek betizuei buruz dioena bada ere, ohartxo bat egitea bidezkoa iruditzen zait. Betizua ez bait da gure mendietan bizi izan den abere basatia; bizi dena baizik. Egia da Larrun mendian lehen baino betizu gutxiago dagoela Lartzabalek 1930.ean iragartzen zuen bezala[70]. Baina badira. Pelletier zezenzaleak ere horixe adierazi du bere liburuxkan[44]. Orobat Seilez jaunak ere betizuez egin den lan interesgarrienetako batean[71]. Duela bizpahiru urte gainera, Larruneko betizuak filmatu ere egin ziren larrean.

Bestetik, oraindik dirauten Lastur ingurukoak (alderdi hartakook *larrabehi* izenez ezagutzen ditugu) edo Gorbeia aldekoak ez ditugu hemen aipatuko. Ezta nafar–zezenak ere. Horietaz luze arituko bait gara beste atal batean.

Eta honenbestez, har dezagun berriro euskal mitologiaren haria Barandiarani jarraiki, bere Mitologi Hiztegiaren eskutik[1].

– *Idiatte.* Erromatarren garaiko dibinitatea da. Comminges–eko Saint–Pé d'Ardet–ekoa. (Hasierako *idi* horrek behitarrekin zerikusia izan dezake).

4.13. irudia. Larruneko betizua.

– *Idinarrua.* Idilarruz egindako zakua, garauarentzako neurri bezala erabiltzen da. Maiz entzuten da ordea zenbait eremu eta kobazulotan urrez betetako idilarruak daudela.

– *Idittu.* Gaueko jeinua da. *Iditxu, irel, irel–suzko* eta beste izen batzuez ere ezaguna da.

– *Ihizia.* Animalia basatiari deitzen zaio. Jeinu batzuek animalia basatiaren forma hartzen dute.

Batez ere kobazulotan bizi dira. Zezen gorri bezala agertzen da ondoko kobazuloetan: Otsibarre–n (Gamere–n, Zuberoan) Lapar mendiko Leizezulo–n eta Otxabio–n (Lizartzan) Usategi–n (Ataunen), Askaata–n (Ataunen), Kapildui mendiko Zezenaren koban (Okina–n, Araban).

Zezensuzkoaren itxuran, Austokieta–n (Lizartzan) eta Ubedi–n (Ataunen) agertzen dira jeinuak. Behi–forman berriz, Lezia–n (Saran), Kamaindegia–n (Beran), Marizulo–n (Amezketan), Aizkorri–n eta Olanoi–n (Beizaman).

– *Iturriotz*. Ataunen etxe bat eta leize bat daude izen hori dutenak. Mende honen hasieran maiz esaten zenez, jeinu bat bizi zen zezenko gorriaren itxuran.

– *Lapurzulo*. Gorbeiako bi kobazuloren izena da. Kobazulo batean (Atxulaur izeneko lekukoan, Orozkon) urre asko bildu zuen lapurra bizi omen zen. Lapurra gartzelaratu egin zuten, baina hark ez zuen ezer aitortu bere urreaz, eta halaxe hil zen. Gero, kanpotar batzuk etorri ziren Atxulaur–era. Urreaz ez ziren jabetu ordea, ahotik eta sudurtzulotatik sua zerion zezen arraro batek gordetzen zuelako. Beste behin, lapur zenaren hezurrekin itzuli ziren. Orduan, lapurraren arima zen zezenik ez zen agertu, eta ondasunak erraz berenganatu zituzten. Geroztik ez omen da han zezenik agertu.

– *Leizea*. Euskal mito asko leizetan kokatzen da. Jeinuak zezenko gorriaren forman askotan agertzen dira. Lehen esandakoetan ezezik, baita Txintxillo–n (Azkoitian), Laioa–n (Ataunen) eta Marizulo–n (Txindokin) ere.

– *Mari*. Gure mitologiako pertsonaia nagusia da. Emakumezkoa, Lur eta Naturaz arduratzen diren beste jeinu guztien erregina. Forma desberdinak hartzen ditu. Oñatin biga–itxuran ikusi omen zuen baserritar batek. Berak honela zioen: *Udazkeneko arratsaldea zen. Seiak aldera ni sukaldean nengoen neure semeekin eta biga bat korrika etorri zen atarira. Handik bidali ezinik aritu ginen. Baina bota orduko, marroaz hasi eta etxe ondoko estalpera sartzen saiatu zen. Hara joan nintzen eta zarata bat entzun zen; jendea zaldiz balebil bezalakoa. Estalpera begiratu eta ondoko etxea (guretik 300nen bat metrora dagoena) sutan zegoen. Itzaltzera joatearren semeei deika hastera nindoanean, suak etxe hura utzi egin zuen eta gurera abiatu zen. Sua, ote–sorta erretzen ari denekoa bezalakoa zen; oso buztan luzea zuen. Horrek lasaitu ninduen. Izan ere nik bestetan Anbotoko Dama ikusia nuen, baina ez hain gertu*[69].

– *Okina*. Arabako herri honetan, bada zenbait kondaira duen kobazuloa. Jeinuak zezen–itxuran agertzen omen dira han. Mamu eta sorginez inguratutako urrezko zekorra ere ba omen da han.

– *Putterri*. Aralar-eko mendi honetan, bada Mari–ren bizileku den kobazuloa. Batzuetan zezenko gorriaren edo zezensuzkoaren forma hartzen du.

– *Txaalgorri*. Ataun inguruan jeinu batzuk txahalgorri gisa agertzen omen dira. Hala nola Askaata–ko leizean eta Usategi–ko koban.

Murumendiko artzai gazteak jaiegunetan Agaozeko zelaian biltzen omen ziren dantzara. Hiru artzaik, hango kobazulora harriak bota zituzten, eta *txahalgorri* atera zitzaien. Hiru artzaiak ihesi hasi ziren. Bat akituta hil zen Agaozeko gailurrean, bestea Aralegi–ko belardian eta hirugarrenak bere baserrira, Urrestarazu–ra, iristea lortu zuen. Handik hiru egunera hil omen zen.

– *Txekorgorri*. Lehen aipatutako *Aatxegorri* eta *Txaalgorri*ren antzekoa da. Leize batzuetan bizi den jeinua da. Arabako Okina herriko leizean berriz, txekorgorri estatua da. Badu gainera bere

kondaira:

Leize honen barruan, urrezko zekor gorria omen zegoen inguruan (gizakiengandik babestearren) deabruak zituela. Inguruko jendea, ez zen gauez inoiz hurbiltzen leizera. Batzuek ziotenez, leizearen sarreran pizti-itxurako mamuak eta zapi zuriz bildutako iratxoak ikusi zituzten. Baita Basajauna ere, bere gorputz iletsua eta azkazal luze-zorrotzak erakutsiz. Altxorraren zaindariek beren lana ondo betetzen ari ziren ala ez ikustera etortzen omen zen Basajauna. Han sortzen omen dira artasoroak hondatzen dituzten harrerauntsiak[67].

Atauneko Ubedi-ko leizean ere ba omen ziren *Txekorgorriak*. Felipe Agirrek zioenez, Imatzene-ko hiru anaia beren ardiekin Ubedi-ra joan ziren. Leizetik irtenda, hiru *txekorgorri* berengana abiatu zitzaizkien. Hiru anaiak ihesi joan ziren Agaotzan gora zekorrak atzetik zituztela. Anaia bat, Aldatsa izeneko harratean hil zen, bestea Erremedio inguruan eta hirugarrena etxera heldu omen zen. Baina egun gutxi bizi hura ere.

– *Zezen*. Zezen-formako jeinu bat, leize eta kobazulotako zaindaritzat hartzen da. Sarako Lezia-n, zezena bizi zen (behia, beste batzuen arabera). Bere marroek, inguratzen ziren guztiak izutzen zituzten.

Beste batzuetan, bere zintzarri-hotsa entzuten zen. Bisitariak leku arriskutsuren batera inguratzen zirenean, zezenak zuloaren barrenetik oharterazten zituen.

Uharte-Hiri-n (Nafarroa Beherean), zezen-formako jeinuak gauez kobazulotatik atera egiten direla diote. Bizkaiko Gatikan, zezen horietako batek Mungiatik gauez zetozen batzuei eraso omen zien. Pipaona-n (Araban), zezen misteriotsu bat agertu bide zitzaien gauez gazte batzuei eta erabat ikaratuta utzi omen zituen. Aurrez herriko amona bati irain egin ziotelako agertu omen zen zezena.

– *Zezengorri*. Lurpeko jeinuak zezen gorrien forman maiz agertzen dira. Zuberoako Gamere-n diotenez, Otsibarre-ko kobazuloan zezenko gorria bizi omen zen. Hara sartzeko asmoa zuen gizaki orori erasotzeko prest omen zegoen. Apaiz besamotz bat bakarrik atera omen da handik bizirik[67].

Onraita-n, Okina-ko leizeaz ari direnean, alderdi hartako bake-giroa ez omen dago hausterik. Harria botatzen bada, zezenko gorria ateratzen omen da atarira. Markiniz-en (Araban), Kapildui mendiko kobazuloaz antzeko zerbait esaten dute. Han urrezko zezena bizi omen da. Arluzea-ko batek, tximista antzeko batzuk ikusi omen zituen han lehenbizi, eta gero urrezko zezen handi bat erasotzera zihoakiola.

Atauneko Iturriotz baserri ondoko leizera harriak botata, bertako jeinua haserretu eta zezenko gorriaren forman agertzen omen zen erasotzera. Ezbeharren bat gertatuko zela iragartzen omen zuen horrek gainera.

Azkoitian ere, Txitxillo izeneko haitzuloan, zezen gorria bizi omen zen.

– Ataunen, Artiñea-ko Jabier gau batez Urrutsua-ra joan omen zen. Garai hartan, inguruko neska gazte guztiak Urrutsua-ra joaten omen ziren ardaztera. Jabierrek sakrilegioak egin omen zituen. Etxera joaten ez zioten utzi nahi gau hartan, Jabier gaiztakeria handiak eginda zegoelako. Baina Jabier, mutil harroa izan, irten egin omen zen. Teiletxe aldera zetorrela, Laioa-ko basotik beregana Elizakoak zetozela ikusi zituen. Beldurtuta, korrika Teiletxera iritsi eta zakurra hartu zuen. Eskuan talo-pusketa zuela zakurrarekin abiatu eta suzko zekor gorria agertu zitzaion

Laioa–tik zetorkiola. Jabier ez omen zen izutu zakurra berekin zuen bitartean. Baina taloa bukatu eta zakurrak alde egin zionean, berriro Elizakoak agertu ziren. Jabier lasterka iritsi zen Artiñeara. Gau hartan Artiñeako behiek ez omen zuten onik izan. Hango marroa, adar–hotsa eta ganbelajotzea![72].

– Bermeoko herria berriz, bertako biztanleen portaera txarragatik erre egin omen zuen, Burgo mendi–tontorretik etorrita, adarrak eta buztana sutan zituen zezen batek. San Joan portaletik sartu omen zen herrira, eta dena erre[69].

Euskal mitologian, badira orraztokian eramaten diren jeinu txiki batzuk ere. Leku batetik bestera izena aldatu egiten zaie; hala nola, *Mamur* Lesakan, *Mamarro* edo *Galtxagorri* Zarautzen, *Prakagorri* Gernikan, *Gaizkinak* Bedian, *Mozorro* Albizturren, etab.[52].

– Mamarro hauen bitartez, gizaki batzuek ekintza harrigarriak burutu omen dituzte. Aizpuru–ko (Orozko) abadeak ere bai, noski. Behin bere senideekin zegoela bere neskameak honela esan omen zion:

Gaur arratsaldean pozik joango nintzateke Madrileko zezenetara.

Apaizak mamarroak hartu eta bazkal ondoren Madrileko zezenetara joan omen ziren. Plazako ekialdean omen zeuden. Baina han ba omen ziren beste mamarrodun batzuk ere, eta haietako batek Aizpuruko abadea han zela adierazi zuen. Ingurukoek ez zioten sinetsi, eta berak, apaizari kendu ondoren, zapata erakutsi zien. Apaizak, zapata eskatu zion, bekokian adarra sortuko zionaren mehatxuz. Zapata zuenari adarra sortu zitzaion, eta lotsatuta ez egotearren zapata itzuli zuen[73].

– Antzeko ekintzak dira Nafarroako Bargota herriko Juanis apaizak burututakoak. Apaiza eta bere neskamea eguerdiko hamabietan jadanik Madrileko zezenplazan zeuden. Neskameari zapata falta zitzaion eta ikusleen arteko bati adarra atera zitzaion bekokian. Juanis–ek ipini zion adarra lapurrari mamarroei esker. Zapata eskuratu ondoren, bero handia zegoenez, kapa astintzen hasi zen, eta honela zioen: *Okamendietan hori da elurra egitea, hori!*. Inguruko guztiak harritzeko moduan ordea, zezenplaza estali zuen elurrak, egiten hasita[74].

– Bargota–ko Juanis apaiza bestetik, pilotazalea zen. Egun batez, pilotarik ez eta, mutiko bat bidali zuen bila Bianara. Mutikoak, Biana urruti zegoenaren aitzakia bota zion, baina Juanis–ek zioenez, berehala bueltatuko zen.

Abiatu orduko, mutikoak zezen bat korrika gainera zetorkiola ikusi omen zuen Bianara iritsi zen arte. Han pilota erosi eta etxeratzerakoan, berriro agertu omen zitzaion zezena ondoren eta berehala itzuli omen zen Bargotara[75].

– Nafarroako Artaxona–n ere bada zezena gai nagusitzat duen beste kondaira bat. Herri horretan badira *zezen–sakana* eta (hantxe bertan) *zezen–iturri* izeneko lekuak. Iturriari izena, unai batek ipinia omen da. Izan ere behizai ari zen egun batez, zezen bat taldetik atera eta bakarrik mendiko leku batera joan zen. Hurrengo egunean, eta hurrengoan, gauza bera egiten zuela eta, unaiak segitu eta zezenak leku hartan ura edaten zuela ikusi zuen. Bertara joan, eta iturria aurkitu omen zuen bertan[76].

– Arabako hegoaldean, Portilla (Zanbrana–tik gertu) herrixkako jendeak dioenez, aspaldi mendi baten gailurrean urrezko zezenkoa adoratzen zuten, israeldarrek basamortuan bezalaxe. Geroago,

zezenko hau lapurtu eta pikondo baten ondoan lurperatu omen zuten. Pikondo honetatik, sei ibai ikusi omen zitezkeen. *Chulato* menditik, Oroncillo, Ebro, Baia, Zadorra, Ibaiuda eta Inglares ibaiak ikus daitezke, eta hori izango da inola ere kondairaren kokalekua[77].

– Bizkaiko Zeberio eta Zeanurin, lamien amaieraz ere bada kondaira jakingarririk. Upan–eko errekan zazpina urteko zazpi zezenez goldea pasatuta, lamiak hondatu egiten omen ziren erreka odolduta utziz. Zezen horien amak, esnea behin ere batu gabekoak izan behar zuten.

Zeanuri–ko Lanbreabe–ko errekei buruz ere antzeko zerbait zioten. Txahalik egin gabe lau urteko bigaz goldaturik omen zeuden erreka haiek.

Zeberio–n berriz, Laminerreka–ko lamia batek esandakoaren arabera, lamien lekuak San Joan egunez jaiotako zezen nabarrez goldatuz gero suntsitzen omen ziren[74].

Antzeko zerbait esaten da Igorre–ko Txilibistro–z. Erreberoa emanez, lamia berritsu baten lagun egin omen zen, eta hark esan zionez, erreketan San Joan egunez jaiotako bi zezenko nabarrez goldea pasatzen bazuen lamiek handik ihes egin beharko omen zuten. Txilibistrok pasatu omen zuen goldea esanda bezala, eta lamia guztiak Arratia–tik Gorbeia–ra joan omen ziren[52].

– Santuen jaiegunetan hildako zezenen okelak ere bazuen zerbait berezirik askorentzat. Sukarra eta beste zenbait gaitzen kontrako erremedio ona omen zen[78].

– Tripaundi–ren ipuina ere interesgarria da. Gizon ikaragarria omen zen Tripaundi. Jaio zenean, gurasoek behia ekarri omen zioten esnea edan zezan, baina Tripaundik mokadu batez behi osoa jan omen zuen. Gurasoek, haur aseezina zela eta, herriko idi guztiak bilduta mendira garraiatu eta han utzi omen zuten.

Tripaundi hazi zenean, erregearen gortera abiatu zen. Bidean, azeleme batek, zezen batek, hamabi mando eta beren mandazainak eskatu zioten berarekin eramatea. Tripaundik, banaka banaka denak jan zituen. Ondoren, egarri zenez, ibaia edan zuen.

Erregearen jauregian, lehenbizi azelemea aterarazi zuen oilategian, eta oilo guztiak hondatu zituen. Jakitegian, mandoak eta mandazaina atera zituen, eta janari guztiak eraman zituzten. Erregeak haserreturik, Tripaundi fusilatzea agindu zuen, eta bere soldadu guztiak bidali zituen lan horretara. Plazan fusilatzera zihoazela, Tripaundik zezena atera erazi zuen eta honek soldadu guztiak birrindu zituen.

Erregeak hori ikusirik, egur–pilo handia bildu eta Tripaundi han erretzea agindu zuen. Egurra sutu zutenean, Tripaundiri ibaia jaulki zitzaion, eta sua itzali. Erregeak, urre–piloa eman zion Tripaundiri handik urruti joan zedin. Tripaundi joan, eta bere moduko emakume erraldoi batekin ezkondu omen zen[79].

– Jakingarraia da bestetik Mirande–k Zuberoan 1951.ean burutu zuen idazlana. Behiak jainkosatzat hartzen bait ditu eta zezena jainkotzat, bera gizaseme gisa haiekin elkarrizketatzen delarik[80].

Dena dela, euskal mitologiako jainko, jeinu, jainkosa eta abarren artean, nabarmena da *gorri*tasunak duen pisua. Hor daude, besteak beste, *Aatxegorri, Beigorri, Txaalgorri, Txekorgorri* eta *Zezengorri* aipatu ditugunen artean. Izan ere Euskal Herriko behitarrak mende askotan zehar gehienbat gorriak izan bait dira, euskarazko *abelgorri* hitz jenerikoak berak horixe baieztatzen duenez.

Baina behitarren eragina duen *gorritasun* hau, beste jainko eta jeinutan ere agertzen da. Hor daude adibidez *Gorri-txiki* (Orio inguruko jeinuak), *Lurgorr* (auskitarren lurraldeko dibinitate piriniarra; erromatarren garaikoa), *Galtxagorri* edo *Prakagorri* (jeinu familiarra) eta *Yona-gorri* (Mari gona gorriz ikusten omen zuten Leskun-en)[1].

Luzaide-ko ihauterietan, *Axeribesta* egiten dute. Baserriz baserri joaten dira dantzatuz. Musikariak, mozorrotutakoak eta guztien buru *Gorri* izenekoa joaten da ezpata eta guzti[81].

4.14. irudia. Txoriz mozorrotutako gizakia et bisontea. Lascaux.

Paleolitos Garaiko gure kobazulotako hormatan ere, irudi gorri asko dago. Irudi hauei erlijio eta magia aldetik esanahi asko erantsi zaie. Oteiza eskultoreak ere badu bere eritzia horretaz. Berak dioenez, Trois-Frères, Altamira eta Lascaux dira Goi-Paleolitoseko energia izpiritualaren ola nagusiak. Lascaux-en barruan zegoenean sentitutako zirrararen berri ere ematen du bere idazlanetan[28]. Baina agian Lascaux-eko txoriz mozorrotutako gizaki eta bisonte gorriaz dioena da hemen interesgarriena. Hona hemen zer dioen *Tauromakia Lascaux-en* izeneko atalean[82]: *Artistak espazioarekin duen borroka (agromakia) eta gizakiak zezenarekin duenaren artean, ageriko erlazio estetikoa dago. Ez da zuzeneko domeinua; ez da ehiza. Tranpazko, engainuzko zortea (estetikoa) da. Gizakia Jaungoikoarengana hurbiltzearen zortearekin (erlijiozko graziarekin) hertsiki loturik dagoen zerbait. ...*

... . Bi eremu: artistarena eta bere hormarena, gizakiarena eta zezenarena. Gizakiarena eta Jaungoikoarena. Bi tankera: eremu batean ala bestean. Teknika bat, berbera: deitu, galgatu eta menperatu (tauromakiako terminologia)... Baina prehistoria amerikarreko estatuaren sorreraz egindako tesian, Lascaux-eko putzuko horman pintaturiko eszena agertzen nuen. Eszena horretan, txori-mozorrozko gizaki bat bisonte batek eraitsia dago... Europan, pintatzaileak bere hormarekin ez du bat egiten; mozorrotu egiten da. Baina bere mozorroa maskara hutsa da, bere zortea landu eta ezkutatzen duen erreminta lagungarria,... Lascaux-eko eszenak ordea, estetika eta erritozko

zortearen antzeko zerbait pentsarazten digu guri; txoriz mozorrotutako gizakiak (hemen bisonteak eraitsia), ezpata/txoria, engainu/muleta, eskutik erortzen uzten dueneko zorteren bat. Zezenaren ehiza, Goia-ren garaian bihurtzen da zorte estetiko. Ez da. Baina hemen orduan, zer gertatzen da ehiztariaren erlijiozko ofizioan erritoz dantza eta heriotza biltzen badira? Dantzatu eta toreatu (bisonteatu) egiten du toreatzaile/aztiak, bisonteatzaile...

f) Biblian eta kristautasunean

Kristautasunaren lehen garaitan, zezenen basatitasuna medio jasan zuen zenbait santuk bere martirioa. Satordirekin adibidez, San Fermin-en maisu izandakoarekin, hori gertatu zen. Satordi, Iruñean kristautasuna predikatzen ibilia zen III. mendean. Toulouse-ko lehen apezpiku izan zen, eta bertako sazerdote paganoek, beren idoloei sakrifizioak eskaintzera behartu nahi izan zuten. Baina Satordi ezezkoan zegoenez, zezen suhar bati lotu eta kaletan arrastaka erabili zuten hil arte[83]. Iruñeko Satordiren eliz atarian, horman erliebez dago bere martirioaren eszena hau.

4.15. irudia. Satordi-ren martirioa. Santxo VII. *Bortitzaren* bibliakoa.

Antzeko martirioa jasan zuen Santa Luziak ere. Jaka-tik hego-mendebaldera dagoen Osia herriko elizan, irudi erromaniko ikusgarriak daude santa honen martirioaz. Bi zezenei lotuta ikusten da martiria hemen ere[84].

Beste batzuetan, zezenaren indar basatia Ama Birjinaren edo beste santuren baten mirariz saihestu ahal izan zuten larrialditan. San Frantzisko otsoarengandik bezalaxe, beste batzuk zezenaren indar basatitik libratu izan dira. San Martzelo-k Parisen horrelako miraria egin omen zuen V. mendean. Santa Teresa-k ere antzeko bi mirari egin omen zituen: Medina del Campo-n bata eta Duruelo-n bestea, zezen suharrak otzanduz. San Pedro Regalado-k (toreatzaileen oraingo patroiak), Valladolid-en zezenplazatik ihes egindako beste zezen bat mirariz otzandu zuen. San Ataulfo, San Frantzisko Solano eta beste santu batzuek ere, antzeko mirariak dituzte[27].

Ama Birjinak ere parte hartu du zezen suharrak otzantzeko mirari hauetan. Ezaguna da Gaztelako Alfontso X.a *Jakitunaren* XIII. mendeko *Cantigas*etan agertzen den mirari bat. 144. kantuan galizieraz dioenez, *Prazença*ko plazan ezteietan zezena korritzen ari zirela, zaldun bat atzetik harrapatzera zihoala, leihoan begira zegoen apaiz batek mesede eskatu zion Mariari eta zezena bertan erori zen lurrera. Aztertzekoa litzateke Erdi Aroko *Prazença* herri hori. Ez bait dago garbi zein herri den: Extremadurako Plasencia, Italiako Piacenza edo Aragoako Placencia adibidez[85]. Gipuzkoako Plazentzia (Soraluze) 1343. urteko hiri-gutunean agertzen da. Bizkaiko Plazentzia (Gaminiz) berriz, 1337. urtekoan. Kanadako Ternua-n ere bada euskal arrantzaleek sortutako Plazentzia herria.

Beste *Cantiga* batean, XXI.ean, Segoviako baserritar batek zezenko bat Ama Birjinari emateko promesa egin ziola esaten da. Promesa betetzen ez zuenez gero, zezena bera joan omen zen elizara. XLVIII. *Cantigan* berriz, zintzoa zen fraide mozkor bati deabrua hirutan atera zitzaiola esaten du. Lehenengo aldiz zezen-forman, bigarrenez gizatzar gisa eta hirugarrenez lehoi-itxuraz. Ama Birjinak salbatu omen zuen[34].

4.16. irudia. Alfontso *Jakitunaren* 144. *cantiga* iruditan.

Ama Birjinaren mirariak bilduz, Bertzeo errioxar elebidunak (euskara ere bai bait zekien) liburu bat osatu zuen. Erdi Aroan, XIII. mendean, Europan zehar liburu asko zebilen Ama Birjinaren mirari berdintsuen berri emanez. Bertzeo-k badirudi bere *Milagros de Nuestra Señora* idazteko Kopenhave-ko bat hartu zuela oinarri. Dena dela, tartean euskarakadak sartuz bertsoz idazten zuen apaiz errioxarraren liburuko XX. miraria interesgarria da. Monje mozkor bati gertatutakoa esaten du. Mozkortu zen batean, deabrua zezen-itxuran agertu omen zitzaion, bere adar zorrotzez bihotza zulatzeko asmotan. Monjeak otoitz eginez ordea, Ama Birjinak zezen ikaragarri hura otzandu egin zuen. Ondoren, zakur eta lehoi ikaragarriak azaldu zitzaizkion *delirium tremens*ean dirudien monje honi. Mariaren zale zen ordea, eta Ama Birjinak arrisku guzti haietatik salbatu egin zuen[86].

XX. mendean ere izan da Ama Birjinaren mirariz salbatua izan dela esan duenik. Jose Gomez Ortega *Joselito* toreatzaile famatua da horietako bat. 1913. urtean, Donostian Saltillo-ko markesaren ganadutegiko zezenak jokatu ziren. *Joselito*k, Esperantzako Ama Birjinaren domina zuen lepotik zintzilik, eta zezen batek, hiltzerakoan, adarrez bularrean jo zuen toreatzailea. Alkandora hondatu eta domina mailatu zion, baina bera onik atera zen. *Joselito*k miraritzat hartu omen zuen gertaera hura[83].

Zezen suharraren indarra eta basatitasuna, deabrukeria edo zerbait negatibotzat askotan izan da hartua; izu-sortzailetzat gutxienez bai. Joannes Etxeberri-k esate baterako, honela idatzi zuen bere *Manval devotionezcoa*n XVII. mendean[87]:

... Cobrezco çaldiac, eta guphela itcez betheac.
Eraguiten daroztela damnatuei hussuac,
çaldi arin eta cecen munduaren marruac.

Beti ez da ordea horrela gertatu. Kristautasuna saiatu izan da paganismoaren zenbait mito eta sineste bereganatzen, erabat desegiteko aukerarik ezean. San Markos egunean zezen bat hartzen zuten zenbait herritan (Caceres-eko Brozas-en, Andalusiako beste herri batzuetan, Torrijos-en San Gil egunez, Zaragozako Pina herrian San Joan bataiatzailearen egunez, etab.) eta prozesioan eramaten zuten santuen irudiekin batera. Elizara ere sartzen zuten zezena, eta elizkizun-garaian zezenak ez omen zuen suhartasunik azaltzen.

Errioxako Arnedo-n, duela gutxi arte, Isasa Haitzaren magalean, bazen San Markos-i eskainitako ermita bat. Han, urtero erromeria berezia egiten zen San Markos egunez apirilaren 25ean. Udaleko bat joaten zen erromesen buru eta zezen bat eramaten zuten ermitaraino. Meza bukatu ondoren, San Markosen lehoia (bertakoek zaldia zela omen zioten) ateratzen zuten inguruko iturriraino han ura edan zezan. Gero, ekarritako zezena toreatzen zuten. Baina ez nolanahi. Lehenbizi meza emandako apaizak, kategoria handieneko pertsona bezala; gero Udaleko arduradunak, eta kargudunen ondoren, beste herritar guztiek toreatzen zuten.

Badirudi XIX. mendearen bukaeran hondatu zela ermita hau, eta harez gero erromeriaren ordez zezena kaleetan korritzen da. Bada Arnedo-ko ohitura hau zezenarenganako kultu paganoaren arrastotzat hartzen duenik[88].

Arabako Oion herrian ere badute festa bitxia. Urtarrilaren 22an eta hurrengo egunetan, San Bizente eta San Atanasio patroien omenez festak ospatzen dituzte. *Katxi* izeneko pailazoa ateratzen da orduan. Baina meza nagusia baino lehen herriko zaindarien irudiekin prozesioa egiten dute kaleetan zehar. Prozesioaren bukaeran, eliz aurreko plazan gelditzen dira. Han, sugurpil horizontala prestaturik egoten da. Gurpilak gainean, zezena eta toreatzailearen irudiak ditu. Prozesioko apaiz, agintari eta gainerako guztiak, gurpilaren ingurura biltzen dira zezen-korrida ikustera bezalaxe, eta su emanda, gurpila biraka hasten da, zezen, toreatzaile eta guzti. Geroxeago, toreatzailearen sabela lehertzen da eta ondoren zezena. Orduan guztiak, prozesioz, elizara sartzen dira mezetara[89]. Pentsatzekoa da oiondarren prozesio hau ere aitzinako zezenarenganako kultuaren arrastoren bat ez ote den. Kristautasuna hain zuzen, munduko lurralde askotan moldatu bait da lekuan lekuko ohitura eta sinesteetara.

Euskal Herrian gainera, idiek askotan parte hartu dute Ama Birjinak, aingeruek eta abarrek gauez gidaturik elizen eraikuntzan. Liebana-ko monastegia Santo Toribiok zezena eta hartza uztartuta eraiki omen zuen, Santander-eko Bareyo herrian dagoen elizako kapitel batek irudikatzen duenaren antzera. Bizkaiko Errigoitin berriz, eliza leku batean egiten hasi omen ziren. Baina gauez,

harri eta materialak norbaitek beste leku batera eramaten omen zituen. Zelatan gelditu omen zen norbait orduan, eta gauez Ama Birjina ikusi omen zuten idiparearen aurrean honela zioela:

Aida idi baltz eta gorrijori,
Jauzi daukojola begijak orreri

Mendatan esaten dutenez, Ama Birjinak Errigoitin zioena hau zen:

Idi baltz ta zurije,
Begira dagonari
Atara begije.

Zeanuri–ko parrokia lekuz aldatzen hasi zirenean ere, antzeko zerbait gertatu zen. Orduan aingeruek gidatzen omen zituzten idiak gauez harriak garraiatuz, eta honela omen zioten:

Aida zuritxo ta gorritxo,
Or begire dagoenari
Begiek urten baliyo

Mendatako eliza eraikitzerakoan, gazte–itxuran San Migel–ek egiten omen zuen itulan, eta honela omen zioen:

Aida txuri ta belio,
Or ako ate–zuloan
Begire dagonari,
Begije atara beio

Antzeko gertakizunak daude Berriatuko Santa Kutz–en, Itziar–en eta beste leku batzuetan. Itziar–ekoan Ama Birjinak zioena, zertxobait desberdina da[90]:

Aida Txuri, aida Polio,
Or zelatan dagon gizon orri
Amairugarren gizaldirarte
Begi bakar jarriko zayo

Kristautasunean, zezenak jainkotzat ez dira hartuak izan, noski. Baina abelazkuntzak garrantzia izan duen gizarteetan, bedeinkatu izan ditu. Gure artean ere bai, zalantzarik gabe. Iparraldeko Landetan, Chalosse eskualdean, abuztuan, San Roke egunez bedeinkatzen zituzten eliz aurrean behi– eta idi–taldeak[91].

Zuberoako Barkoxen, abere bakoitzari jaurtikitzen zaio ur bedeinkatua bortuetara igortzen direnean.

Aezkoa–n, ezezagunen batek zezen bat hil zuela eta, Baionatik eskomikua ekarri zuten gaizkilearentzat. Gaizkileak, isilka, zezenaren balioa apaizaren esku utzi omen zuen[92].

Tutera–ko hirian, bazuten zezenak bedeinkatzeko ohitura XVIII. mendean. Baina ez edozein zezen; festarakoak baizik. Uztailaren 25ean korritu behar ziren zezenkoak bedeinkatzen zituzten. Ez dakigu zertarako bedeinkatzen zituzten: zangartasun handia izan zezaten ala kalterik egin ez zezaten. Dena den, tuterarren zezenzaletasuna ez da nolanahikoa izan. 1793. urtean esate baterako, kaputxino

eta Irakaskuntza–ko ordenetako mojek beren komentuetan bigantxa bat korritu omen zuten[93].

Zezenak bizirik elizara sartzea askotan gertatu ez bada ere, zezenen irudiak nahikoa ugari daude harriz landuak bertako hormetan. Denen berri ematea luzeegia litzateke. Baina duten interesagatik, batzuk bederen ezin ezkutuan utziko ditugu. Zangozako Santa Maria elizako tinpanoan dagoen zezen hegaduna, ikusgarria da. Baita Tuterako San Nikolas eta Lizarrako San Migel elizetako tinpanotan dauden hegadunak ere. Tetramorfoaren zati bezala daude hauek inola ere.

Erromanikoaren barruan, Iratxeko monastegiko hormetako zezen–buruak aipatzekoak dira.

4.17. Irudia. Zezen hegaduna. Zangozako Santa Maria elizako tinpanoa.

Iruñeko katedralean, klaustroan, badira irudi gotiko interesgarriak. Zezenaren ehiza ikus bait daiteke hango kapiteletan. Baina horren aipamen luzeagoak beste atal batean egingo ditugu.

Gasteizeko San Migel parrokiaren sarrerako tinpanoan, ihes egindako zezenko baten ondoren zalduna eta bere ezkutaria daude irudikaturik.

Zezenkoa kobazulora sartzera zihoala, gezia bota zion zaldunak. Baina gezia bueltan jaurtiki zuenarengana itzuli omen zen. Zaldunak gertatua apezpikuari esan omen zion, eta hiru egun barru San Migel agertu omen zitzaien apezpikuari eta zaldunari, kobazulo inguruan beneratua izan nahi zuela jakin eraziz[94]. Garagartzan, San Migel elizako erretaula zaharrean ere badira zezena eta arkularia.

Zezenak bestetik, antzinako paganismoaren hondakin bezala, opari edo oferenda gisa inguratu da Elizara. Testamentu Zaharrean zezena sakrifikatu egiten zuten, XIII. mendeko Bertzeo elebidunak bere *El sacrificio de la misa* liburuan euskarakada artean egoki diöenez[95]:

Qvando por los señores. que el pueblo mandauan querier fer sacrificio. toro *sacrificauan*

las tres cosas significa . del tiempo anciano: el cabron, el carnero, el nouiello *lozano.*

Gure artean, eta berrikiago, idia bizirik eraman ohi zuten eliz atarira hileta–egunean opari gisa. Gipuzkoako Aizarnazabal–en 1787. urtean halaxe eraman omen zuten idia erretorearen hiletetara adarretan lau librako bi ogi sarturik zituela[92], nahiz eta 1771. urteko ordenantza batez debekaturik egon. Hileta–elizkizuna lehen klasekoa zenean, zezenak edo behiak eramaten ziren. Bigarren klasekotan, ahariak[96]. Adar–formako ogia ere eraman ohi izan da oferenda gisa[79].

Pekatuaren ordainez zezena opari eramatea Biblian ere agertzen da. Lebitiko izeneko liburuan bada pasarte interesgarri bat honetaz. Jose Antonio Uriarte fraideak honela itzuli zuen *vulgata*tik Gipuzkoako euskarara[97]:

14. Eta guero ezagutuco balu bere pecatua, esqueñico du bere pecatua gatic chal bat, *eta eramango du tabernaculoaren atera.*

Biblian, zezenak askotan aipatzen dira; hirurehun eta laurogeitabost aldiz[11]. Ez gara hemen denen berri ematen hasiko Pascual Calvoren antzera[98]. Oso ezaguna da Moise Sinai mendian zegoela israeldarrek egin zuten urrezko zekorra. Baina agian abelazkuntzak israeldarren artean zuen garrantziaren berri, Exodo liburuaren beste zati batek hobeto ematen du. Moise–ri Jaungoikoak bere herriarentzat emandako aginduek, gaur eguneko hitzez esanda kode zibila eta penala osatzen bait dute. Hona hemen agindu jakingarri batzuk, Jose Antonio Uriarteren eskutik[97]:

28. Baldin idiren batec adarraz joco balu gizasemea edo emacumea, eta illco balirade, izango da arrica illa: eta ez dirade jango bere araguiac, eta idiaren jabea ez da castigatua izango.

29. Baña baldin idia balitz adarcaria lendican, eta gaztigatua izan balitz bere jabea, eta iduquico ez balu ichian, eta illco balu gizaseme edo emacumeren bat: ez bacarric izango da idia arrica illa, baita bere jabea ere illa izango da.

Bibliako Testamentu Berrian, bada gero gure elizetako zezenen irudigintzan eragin handia izan duen pasarte bat. San Joanen Apokalipsi–koa da. III. kapituluan dioenez, ate bat ikusi zuen zeruan San Joanek eta bertara igota norbait ikusi zuen tronoaren gainean jarririk. Tronoaren inguruan hogeitalau alkitan hogeitalau aitona zeuden zuriz jantzirik buruan urrezko koroak zituztela. Tronotik tximistak ateratzen ziren, aurrean zeuden zazpi lanparetatik. Hauek Jainkoaren zazpi izpirituak ziren. Beskoitze–ko Joannes Leizarragak, XVI. mendeko euskal idazleak, honela osatzen du zeruko deskribapena[99]:

6 Eta cen throno aitzinean beirazco itsasso crystala irudi çuen–bat: eta thronoaren erdian, eta thronoaren inguruän laur animal beguiz betheac aitzinean eta guibelean.

7 Eta lehen animalac lehoina irudi çuen, eta bigarren animalac aretzea *irudi çuen, eta hirurgarren animalac, çuen guiçonac beçalaco beguithartea, eta laurgarren animala hegaldaz dabilan arranoa beçalaco cen.*

Leizarragak deskribatutako lau animalia apokaliptiko hauek osatutako multzoari, *tetramorfo* hitzez deitu ohi zaio. Ezekiel–en profezian ere agertzen dira animalia hauek. Geroztik, hauetako bat

lau ebangelarietako bakoitzari erantsi zaio. San Mateori gizonak bezalako begitartea zuen animalia (aingerua); San Markosi, lehoia; San Joani arranoa eta San Lukasi aretzea edo zezena.

Gure Herriko arkitektura erromanikoan, maiz agertzen da tetramorfoaren zezena harrizko eskulturatan. Aipatuak ditugu eliz sarrerako tinpanotako ikusgarri batzuk. Hala nola Nafarroako Zangozan Santa Marian, Lizarran San Migelen eta Tuteran San Nikolasen. Baina Aralar–eko San Migeleko erretaula esmaltatu eta urreztatukoa (XII. mendekoa) alde batera utzita, agian ikusgarrienak Iratxekoa Nafarroan eta Armentia eta Gazetakoa (Arabako Lautadan) dira; eskola berekoak hirurak. Sabaiko ojiben hasieran ebangelari antropomorfoak daude. Erromanikoaren azken garaiaren arabera banaturik daude; San Mateo, San Joan, San Markos eta San Lukas alegia[100]. Ebangelariek ez dute gizakiaren burua; dagokion animaliarena baizik. Badirudi animali burua ipintzeko joera hau batez ere Ekialdeko eraginagatik (Egypto aldeko eraginagatik batipat) gertatu zela[101]. Egypton izan ere Horus–ek lau seme zituen, gorputzaren zati nagusiak zaindu eta berpizkundea segurtatzeko. Kristauek seme hauen ordez ebangelariak ipini zituzten Egyptoko jainkoen antzera abelburuak zituztela. Gero, gizaburuz egiten hasi ziren tetramorfoa, eta alboan zegokion animalia ipintzen zioten ebangelari bakoitzari[102]. Kodizetako miniaturistek ere gogoz irudikatu zituzten tetramorfoko abereak. Irudi txiki erromaniko politak daude adibidez San Sebero–ko Apokalipsian edo San Millaneko *Beato*etan (X. eta XI. mendekoetan)[103].

Burgoseko katedrale gotikoaren tinpanokoaren antzera, geroztik ere ugari agertzen da San Lukasen zezena gure Herriko elizetan. Arte–tankera askotakoak daude, baina erretaulatan agertzen da gehienetan. Nafarroan bertan, Oliteko San Pedro elizan, XIV. mendeko hormako pinturatan agertzen da. Iruñeko katedralean, XV. mendeko *Lignum Crucis*en erlikiontzi batean eta erregeek zin egiten zuten ebangelioko estalki metalikoan badira tetramorfoak[21]. Baita Orreagako ebangelioko estalkian ere. Elizako erretaulan berriz, Aras–en (Biana inguruan), Meanurin (Lizarrako merinaldean Arabako mugan) eta abarren, Araban, Bastida–n, Bergantzu–n, Ekora–n eta Benasperi–n (Lantziego ondoan) Errioxa aldean; Albainan (Trebiño–n); Berrostegieta, Betoñu eta Elorriagan Gasteiz inguruan; Agurainekо Santa Marian, Aspuru–n eta Heredian Lautadako Ekialdean. Gipuzkoan berriz, Araoz–en, Eibarren (San Andres elizan) Bergaran (San Pedro elizan) eta beste hainbatetan. Santurtziko San Jurgi elizako tinpano erromanikoak (Bizkaiko Museo Historikoan dago) erakusten duena ere, ikusgarria da.

Eta honenbestez utzi beharko dugu tetramorfoaren arazo hau, zerrenda gehiegi luza ez dadin.

Laburbilduz, Eliza katolikoan zezenen inguruko erlijiotasunaz halako aldaketa batzuk izan direla esango genuke. Batzuetan, zezenarenganako kultu paganoak bere liturgian txertatzera moldatu da, erabat zokoratzea ezinezkoa zitzaiolako edo. Beste batzuetan, zenbait ohitura pagano aginduz debekatuta desagerterazi du. Hauetakoa da, gure ustetan, euskal emakumeek XVII. menderarte erabili zituzten *zoronga* edo *tontorren* kasua. Adar– edo zakil–formakoak ziren zoronga hauek, eta oso antzinakoak dirudienez. Strabon–ek, Artemidoro–ren arabera, bere Geografian Iberiako emakumeez honela dio[79]:

Batzuek beren buru gainean, oinbeteko kolomatxoa ipintzen dute, han ileak lotu eta gero gainean zapi beltzez bildu eta estaltzeko.

XVI. mendean Euskal Herrian eta Santander aldean bakarrik zegoen zorongaren sorrera, mitologiatako sorkuntz eta ernalkuntz ideiatan legoke batzuen ustez[104].

Zorongak, emakume ezkonduek bakarrik erabiltzen zituzten; zein baino zein ederragoak. Deban, 1434. urteko Batzarretan, zorongak neurriz txikiagoak izan zitezen arauak ezarri zituzten:

gehienez 31 kana behar zituen mihise mehezkoa zenean, eta 6 kana mihise lodizkoa zenean[105].

Lesakan, 1.600. urtean Iruñeko apezpikutegiko Obregon lizentziatuak debekatu egin zuen emakumeak elizara zorongaz sar zitezen. Eskandalagarriak eta indezenteak zirela zioen[79].

1.587. urtean, Gabriel Minut bidaiaria Euskal Herrira heldu zenean, harriturik gelditu zen bertako emakumeen zorongez. Pirapo amodio fisikoaren jainko greziarraren arrastoak zirela zioen buruko gauza indezente haiek. Baionako apezpikuak debekatu egin zituen zorongak 1.600. urtean. Geroxeago, 1.617.ean, hainbat sorgin hil erazitako Pierre Lancre jueza ere gogor saiatu zen emakumeen tontor hauen kontra[105].

Batzuetan ordea, zezenfestak berak ospa ez zitezen saiatu ziren elizgizonak. Eibarren adibidez, 1.605. urtean elizako irudi eta ornamentuak atera zituzten herriko plazara festetan zezenik joka ez zedin. Frai Bartolome euskal idazleak XIX. mendearen hasieran esango zuenez, jentiltasunaren hondakinak bait ziren haiek. Begira bestela zer dioen[106]:

Ara emen gueure errijeetaco zecenen, ezpata dantzen, desapijozco burruqueen,.... edo etorri eria cristandadera.

Au gaiti esaten deutsee Eleisiaren Gurasuac verbaoro gueure Errijeetaco Cecenai, dantzai, ta comedijai: Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondoquinac, Idolatrijac, Jaungoico–ucazalliac.

Baina Elizak zezenfestei buruz emandako debekuez, beste batean patxada handiagoz mintzatuko gara.

4.- ZEZENAREN INGURUKO ERLIJIOTASUNA. BIBLIOGRAFIA

(1) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Diccionario ilustrado de mitologia vasca* in Obras Completas. Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (15, 16, 17, 27, 41, 44, 45, 62, 63, 96, 101, 102, 122, 145, 146, 148, 149, 158, 159, 172, 181, 182, 201, 228 - 231, 247, 248. orr.)

(2) MITXELENA, KOLDO. *Textos arcáicos vascos.* Minotauro argit. Madril 1964 (15. orr.).

(3) TOVAR, ANTONIO. *Notas sobre el vasco y el celta,* in Boletin de la Real Soc. Basc. de Amigos del Pais. Donostia 1945 (33. orr.)

(4) DONOSO, MARIA ROSA. *Museo provincial de Huesca.* Valentzia 1968 (20. orr.)

(5) MARCO SIMON, FRANCISCO. *Estelas decoradas romanas en Navarra,*in Trabajos de arqueología navarra. Lehen alea. Iruñea 1979 (217, 218. orr.)

(6) URANGA, JOSE E. *Vestigios del culto al toro en Sos* in Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra. Iruñea 1926 (415 – 421. orr.)

(7) BLAZQUEZ, JOSE MARIA. *Diccionario de las Religiones Prerromanas de Hispania.*Istmo argit. Madril 1975 (63, 66, 67, 69-72, 74, 121, 122. orr.)

(8) URANGA, JOSE E. *Escenas escultóricas de toros en la catedral de Pamplona,* in Vida Vasca. 1948 (133. orr.)

(9) THALAMAS LABANDIBAR, JOAN. *El sentido genésico del cosmos en la mitología vasca,* in Boletín de la Real Soc. Basc. de Amigos del Pais. Donostia 1969 (334-337. orr.)

(10) UGARTETXEA, J.M. *Etnología prerromana del Pirineo occidental,*in Estudios de Arqueología Alavesa. 4. alea. Gasteiz 1970 (95. orr.)

(11) CAMPO, LUIS DEL. *La iglesia y los toros.* Navarra. Temas de cultura popular. 234. alea (3, 4. orr.)

(12) IBARBURU, JOSE MARIA. *Notas sobre varias piedras de Navarra,* in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. Iruñea 1975 (83, 84, 85. orr.)

(13) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario del Antigüedades del Reino de Navarra.* 3. alea. Iruñea 1964 (372. orr)

(14) ESTORNES LASA, BERNARDO. *Orígenes de los vascos.* 2. alea. Auñamendi argit. Donostia 1967 (112. orr.)

(15) ELORTZA, JOAN KARLOS. *Estelas romanas en la provincia de Alava,*in Estudios de Arqueología Alavesa. 4. alea. Gasteiz. 1970 (244, 245. orr.)

(16) ELORTZA, JOAN KARLOS. *Dos nuevas estelas alavesas,* in Estudios de Arqueología Alavesa. 5. alea. Gasteiz 1972 (139, 140. orr.)

(17) ELORTZA, JOAN KARLOS. *Ensayo topográfico de epigrafía romana alavesa* in Estudios de Arqueología Alavesa. 2. alea. Gasteiz 1967 (180. orr.)

(18) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella,* in Principe de Viana. Iruñea 1942 (316. orr.)

(19) ELORTZA, JOAN KARLOS. *Numismática antigua en la provincia de Alava,*in Estudios de Arqueología Alavesa. 6. alea. Gasteiz 1974.

(20) JACQ, CHRISTIAN eta BRUNIER, FRANÇOIS. *Le message spirituel de Saint Bertrand de Comminges.* Paris argit. Paris 1972 (41, 42, 80. orr.)

(21) BURGO, MARIA ANTONIA DEL. *La Catedral de Pamplona.* Everest argit. Leon 1977 (61, 63, 83, 84, 86-88. orr.)

(22) ARMSTRONG, LUCILE. *Apuntes sobre folklore vasco,*in RIEV. 1984. Uztaila–abendua. Donostia (215, 218. orr.)

(23) BARANDIARAN, INAZIO. *Guipúzcoa en la edad antigua.* Donostia 1973 (17. orr.)

(24) ANSON, LUIS MARIA. *Religión y sexualidad en los toros,*in Los toros en España. 3. alea. Orel

argit. Madril 1969 (41, 42, 44, 46. orr.)
(25) ZUDAIRE UHARTE, EULOGIO. *Teobaldo I rey trovador*. Navarra. Temas de cultura popular. 155. alea. Iruñea 1973 (24. orr.)
(26) MEZKIRIZ, MARIA ANGELES. *Pamplona romana*. Navarra. Temas de cultura popular. 182. alea. Iruñea 1973 (8, 9, 13, 14. orr.)
(27) BAGÜES, VENTURA. *Toros célebres al margen del ruedo*, in Los toros en España. 3. alea. Orel argit. Madril 1969 (236, 240-243, 245, 246, 248, 250, 251, 333, 338. orr.)
(28) OTEIZA, JORGE. *Ejercicios espirituales en un túnel*. Hordago argit. Donostia 1984 (103, 134. orr.)
(29) SANZ EGAÑA, CESAREO. *Historia y bravura del toro de lidia*. Austral bilduma. 1283. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1958 (11, 12. orr.)
(30) AGIRREBALTZATEGI, PAULO. *Jupiter–en Europa*, in Egin 1985-VI-30.
(31) GARCIA Y BELLIDO, ANTONIO. *Veinticinco estampas de la España antigua*. Austral bilduma. 1375. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1977 (24, 25. orr.)
(32) CABA, PEDRO. *Lo mágico en el toreo*, in Los toros en España. 3. alea. Orel argit. Madril 1969 (26, 32. orr.)
(33) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1971 (779, 788, 803. orr.)
(34) ORTIZ–CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y costumbres de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (388, 395. orr.)
(35) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (438, 788. orr.)
(36) XX. *Taurus ó Tauro*, in Enciclopedia Universal Ilustrada. Espasa–Calpe argit. 59. alea. Madril 1928 (925–932. orr.)
(37) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografía histórica de Navarra*. Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1971 (378. orr.)
(38) LEKUONA, MANUEL. *Iñauteriak*, in Idazlan guztiak. Kardaberaz bilduma. 2. alea. Gasteiz 1978 (94. orr.)
(39) GOROSTIAGA, JOAN. *Los nombres vascos de los meses* in La Gran Enciclopedia Vasca. 9. alea. Bilbo (670. orr.)
(40) THALAMAS LABANDIBAR, JOAN. *Notas sobre cosmología vasca*,in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1977 (73. orr.)
(41) ARIAS DE LA CANAL, FREDO. *Los toros. Estudio psicológico*, in Norte aldizkaria. 312. alea. Martxoa/apirila 1983 Mexiko D.F. (11, 15, 19, 25, 28-31. orr.)
(42) XX. *Taurobolias*, in Enciclopedia Universal Ilustrada. Espasa–Calpe argit. Madril 1928 (911. orr.)
(43) HIGOUNET, CHARLES. *Histoire de l'Aquitaine*. Privat argit. Toulouse 1971 (93. orr.)
(44) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques*. Donostia 1981 (43, 44. orr.)
(45) GARATE, JUSTO. *Séptima contribución al Diccionario Vasco*,in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1957 (49. orr.)
(46) BARANDIARAN, GAIZKA. *El folklore vasco*,in Cultura vasca II. Erein argit. Donostia 1978 (403. orr.)
(47) ULRICH, MICHELS. *Atlas de música, I*. Alianza Editorial argit. Madril 1983 (160. orr.)
(48) XX. *Heraldry*, in Encyclopaedia Britannica. 8. alea. 1983 (783. orr.)
(49) ORTEGA, JAVIER. *Descubiertas en Teruel pinturas rupestres de la edad del bronce*,in El Pais 1985-III-23.
(50) SANCHEZ NEIRA, JOSE. *Diccionario tauromaco*. Lehen alea. Giner argit. Madril 1985 (8. orr.)
(51) ZABALETA, PELLO. *Zezenak*. Euskadi Irratian 85–II–19an emititutako irratsaiorako prestaturiko txostena.
(52) SORAZU, EMETERIO. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*. Gipuzkoako Aurrezki-

-Kutxa argit. Donostia 1980 (243, 276-278. orr.)
(53) LEIZARRAGA, JOANNES. *Kalendrera* in Leizarraga Joannes. Euskal Klasikoak bilduma. 18,3. alea. Hordago argit. Donostia. 1979 (APRILLA)
(54) AZKUE, EUSEBIO M. *Parnasorako bidea*. Euskal Klasikoak bilduma. 20. alea. Hordago argit. Donostia 1979 (286. orr.)
(55) XX. *Mots basques relatifs aux étoiles*,in Gure Herria. 1970. Baiona (98. orr.)
(56) ARANA GOIRI, SABINO. *Egutegi Bizkaiara*,in Obras completas. Sabindiar-Batza argit. Buenos Aires 1965 (985, 1015. orr.)
(57) CAMPION, ARTURO. *Nabarra en su vida histórica*. Ekin argit. Buenos Aires 1971. (523, 524. orr.)
(58) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*,in Principe de Viana. 1942. Iruñea (361. orr.)
(59) LAKARRA, JOSE MARIA. *Historia del Reino de Navarra*. 2. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (25. orr.)
(60) AZKUE, R.M. *Euskaleriaren Yakintza*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1947 (117. orr.)
(61) PEILLEN, D. *Eske pertsuen bilduma*,in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. 1975-1976. Iruñea (84, 85. orr.)
(62) ARRATIA, J.M. *Cancionero popular del Pais Vasco*. Auñamendi bilduma. 89. alea. Donostia (70, 71. orr.)
(63) ARAKISTAIN, JOAN B. *Euskal Herriko kondairak*. Elkar-Debako Kultur elkartea. Donostia 1986 (27. orr.)
(64) JIMENEZ MARTOS, L. *Tientos de los toros y su gente*. Rialp argit. Madril 1981 (240. orr.)
(65) PAPINI, GIOVANNI. *Il libro nero* in Giovanni Papini. Obras. Lehen alea. Aguilar argit. Madril 1964 (742, 743. orr.)
(66) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Euskaleri'ko leen-gizona*. Egia-sortal.Itxaropena argit. Zarautz 1934 (50, 51. orr.)
(67) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Las cavernas prehistóricas en la mitología vasca*,in Obras completas. Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (307-311. orr.)
(68) LAFITTE, PIERRE. *Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak*,in Gure Herria 1965. Baiona (115. orr.)
(69) BARANDIARAN, JOSE MIGEL.*Eusko-Folklore*,in Obras completas.2.alea.La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (55, 370. orr.)
(70) LARTZABAL, P. *Larrungo betizoak*,in Gure Herria 1930. Baiona (83, 84. orr.)
(71) SEILEZ, JEAN PIERRE. *Quelques notes sur les betiso*,in Bulletin du Musée Basque. Baiona 1975 (31-36. orr.)
(72) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios*. Gasteiz 1922. Apirila/maiatza (19, 20. orr.)
(73) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios*. Gasteiz 1922. Abendua (47, 48. orr.)
(74) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios*. Donostia 1962. Urtarrila/ekaina (269, 270. orr.)
(75) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Anuario de Eusko-Folklore*. 1963-1964. Arantzadi. Donostia (73. orr.)
(76) JIMENO JURIO, JOSE MARIA. *Datos para la etnografía de Artajona*,in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. 1970. Iruñea (112. orr.)
(77) ESTAVILLO, DEOGRACIAS. *Contribución a la Prehistoria del Pais Vasco*, in Estudios de Arqueología Alavesa. 8. alea. Gasteiz 1975 (53. orr.)
(78) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Cómo y porqué muere el toro de lidia*. Gomez argit. Iruñea 1962 (15. orr.)
(79) CARO BAROJA, JULIO. *Estudios vascos*. Txertoa argit. Donostia 1973 (133-136, 141, 152, 153, 182. orr.)

(80) MIRANDE, JOANES. *Behiak,*in Igela euskaldun heterodoxoen errebista. Hordago argit. Donostia 1979 (101 - 103. orr.)
(81) XX. *Carnaval* in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 6. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (369. orr.)
(82) OTEIZA, JORGE. *Quousque tandem...!* Txertoa argit. Donostia 1971 (azken eranskineko T eta Ta atalak)
(83) COSSIO, JOSE MARIA DE, *Los toros* 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (217, 230. orr.)
(84) ENRIQUEZ DE SALAMANCA, CAYETANO. *Jaca y el románico.* Everest argit. Leon 1973 (44. orr.)
(85) FILGÜEIRA VALVERDE, JOSE. *Cantigas de Santa Maria. Alfonso el Sabio,*in Monumentos históricos de la música española. (95, 96, 119. orr.)
(86) BERTZEO, G. *Milagros de Nuestra Señora.* Clásicos castellanos bilduma. 44. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1982 (112 - 114. orr.)
(87) ETXEBERRI, JOANNES. *Manval devotionezcoa.* Euskal Klasikoak bilduma. Lehen alea. Hordago argit. Donostia 1978 (103. orr.)
(88) FERNANDEZ DE BOBADILLA, F. *Supervivencia del culto al toro en Arnedo,* in Berceo. Logroño 1960. XV. alea (357–362. orr.)
(89) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Eusko–Folklore. Materiales y Cuestionarios.* 1927. Maiatza. Gasteiz (17, 18. orr.)
(90) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Eusko–Folklore. Materiales y Cuestionarios.* Gasteiz 1925 (2, 3, 9, 10, 19, 20, 26, 27. orr.)
(91) CUZACQ, RENE. *A travers le folklore du Sud–Ouest. Landes, Bayonne, Pays Basque.* Auch 1951 (165, 166. orr.)
(92) AZKUE, R.M. *Euskaleriaren Yakintza.* Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1935. (31, 198, 204. orr.)
(93) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Yanguas y Miranda (su vida y su obra).* Príncipe de Viana 1963. Iruñea (216, 217. orr.)
(94) ENCISO, EMILIO. *Parroquia de San Miguel Arcángel,* in Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. Gasteiz 1968 (194. orr.)
(95) BERTZEO, G. *El sacrificio de la misa.* Antonio G. Solalinde–k prestaturiko argitalpena. Madril 1913 (19 - 21. orr.)
(96) LASA, JOSE INAZIO. *Tejiendo historia.* Soc. Guip. de Edic. y Public. argit. Donostia 1977 (347. orr.)
(97) URIARTE, FRAI JOSE ANTONIO. *Biblia edo testamentu zar eta berria.* Euskal klasikoak bilduma. 7. alea. Hordago argit. Donostia 1978 (100. orr.)
(98) PASCUAL CALVO, ENRIQUE. *Los toros en la Biblia,*in Los toros en España. 3. alea. Orel argit. Madril 1969 (257–273. orr.)
(99) LEIZARRAGA, JOANNES. *Jesvs Christ gvre lavnaren Testamentv Berria.*Euskal Klasikoak. 18.2. alea. Hordago argit. Donostia 1979 (435. orr.)
(100) AZKARATE, JOSE MARIA. *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. Llanada occidental.* 4. alea. Gasteiz 1975 (54, 107, 108, 115, 389. orr. 43, 564. irud.)
(101) URANGA, JOSE ESTEBAN. *Esculturas Románicas del Real Monasterio de Irache,* in Príncipe de Viana 1942. Iruñea (9–11. orr.)
(102) JACQ, CHRISTIAN eta BRUNIER, FRANÇOIS. *Le message spirituel de Saint Just de Valcabrère.* Paris argit. Paris 1972 (10–12. orr.)
(103) URANGA, JOSE ESTEBAN. *Arte medieval navarro.* Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1971 (220, 262, 274. orr. eta 123. irudia)
(104) ARIZMENDI AMIEL, M. ELENA. *Vascos y trajes.* Lehen alea. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1968 (108. orr.)
(105) MANSO DE ZUÑIGA, GONZALO. *Museo de San Telmo.* La Gran Enciclopedia Vasca argit.

Bilbo 1976 (141. orr.)

(106) "SANTA TERESA, FRAI BARTOLOME". *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurriz-co-gatz-ozpinduba*. Euskal Klasikoak. 2. alea. Hordago argit. Donostia 1978 (144, 145. orr.)

5.- ZEZENAK ERDI AROAN

Erdi Aroa, IV. mendetik XVI. menderarteko denboraldia dela esan ohi dute historialariek. Egia esan, Goiz Erdi Aroan gure Herriko zezenez ez dago berri asko. Ezta inguruko Herrietakoez ere. Gero, X. mendeaz gero ordea, albisteak ugalduz doaz, eta XIV nahiz XV. mendekoak ez dira gutxi.

Baina ukaezinezko puntu nabarmen batzuk badaude Aro honetan. Zezenak batetik, Herri honetako ekonomian izandako garrantzia. Abelazkuntzak Erdi Aroko euskal gizartean zuen pisua izan ere, begibistakoa da. Gizarte *aberatsa* izan dugu hemen indartsuena, nahiz eta lurralde batzuetan industriak (ola zaharrek batipat) eta nekazaritzak aurrea hartu. Abelazkuntzan, ardiarekin batera zezena izan da zutabe nagusi. Euskarak berak, hitz asko du zezenaren hazkuntzaz zerikusia duenik (*behi, idi, unai, txahal, ergi, biga, aretze, Beinza* herri-izena[1], etab.) gizarte-mota horren adierazle. Erdi Aroan gainera, zezenak diruaren eginkizuna bete du harreman ekonomikotan, geroago aipatuko dugunez. Zergak eta errentak ordaintzeko bide ere bazen.

Bestetik, zezenaren festa-alderdia ere hor dago. Unaiak mendian zezenarekiko duen ezinbesteko harremanari esker, trebetasun edo teknika baten jabe izango da eta gero, ahalmen horiek helburu ludikoz eta estetikoz plazan zezena jokatuta erakutsiz, tauromakia (euskal tauromakia) osatuz joango da mendetan zehar. Orobat Erdi Aroko zaldunak. Zezena mendian ehizatuz (horretarako zezen-adarra ere erabiliko du turuta gisa) trebatuko da eta gero jendaurrean agertuko ditu bere abileziak plazan guztien gozagarri. Erdi Aroko zezenfestetara izan ere, gizarte-maila guztietako jendea hurbiltzen bait zen; herri xehea nahiz erregea. Gorteetan, noiznahi antolatzen zituzten zezenfestak. Edozein ezkontza, jaiotza, bisita edo garaipen zezena jokatuz ospatzen zuten. Erregearen koroatzea berriz, zer esanik ez.

a) X. mendearen bukaerarte

X. menderarte zezenez oso berri gutxi dugu, eta ditugun batzuk, ez dira guztiz fidagarriak. VII. mendean Sisebuto errege visigotuak Bartzelonako Eusebio apezpikuari egindako gutuna da hauetako bat. Batzuek diotenez, erregeak apezpikuari zezenetarako zuen zaletasuna botatzen dio aurpegira gutun horretan. Baina egia esan, apezpikuak zezenetarako zaletasuna zuenik ez dago frogaturik, Cossio zezenzaleak gutuneko *tourorum* eta *faunorum* hitzei buruz dagoen nahasketa adierazi ondoren garbi uzten duenez[2].

Visigotuek ordea zezenak ezagutzen zituzten. Beren *Juzgo* izeneko foruak, zezen suharrek pertsona edo gauzetan egindako kalteengatik zezen-jabea gogor zigortzen zuen[3].

Garai horretakoa da San Isidorok dioena ere. 630. urte inguruan argitaratutako bere *Etimologiak* izeneko liburukoa irakurriz, zirkuko jokoek artean irauten zutela pentsa daiteke, eta joko horietan zezenak parte hartu bide zuen[2].

Gaztelako Alfontso *Jakitunaren Cronicak* dioenez, 815. urtean Asturiaseko Alfontso II.aren erregetzapean Gorteak ospatu zituzten, eta Batzarrek iraun zuten bitartean, zezenak egunero jokatu zituzten[4]. Baina berri hau ez dago ziurtatzerik. *Cronica* idatzi zenean, XIII. mendean, bazen Gorteak ospatzen zirenean zezenak jokatzeko ohitura, eta dirudienez *Cronicaren* idazleak XIII. mendeko ohitura ezartzen dio Asturiaseko Alfontso II.aren garaiari.

822. urtean, azaroaren 18an, Abitus abadeak Arabako Gaubean, Tobillas-en sortu zuen San Romaneko monastegiari ondasun batzuk eman zizkion: Komunioi (Mirandatik gertu) eta

Villamanca-koak (Koartangon) batez ere. Emate–agirian, behi–taldeen aipamen jakingarriak daude. IX. mendeko abelazkuntzaren garrantzia adierazten bait dute. Honela dio agiriaren zati batek[5]: ... *et prisi bustos de fonte Azebeta usque ad fonte Martini et ad foze de uilla Lumenusi·bustos in ipsa presura ad illa bustella, eta alio in ualle cauato et busto in Bustantigo et media ecclesia Sancti Mames et media de Comunione et in fontes et in montes; et XX et III airas in salinas et suo puteo et ratione in illas fontes et libros XXIIII, iugum* bouum, *C* bakas, *equas LXXX, caballos et mulos XX*...

Asturias–eko ekonomian ere garrantzi handia zuen zezenak IX. mendean. 853. urteko agiri batean, zezen– eta behi–taldeak larratzeko lekuen *sel* eta *branna* hitzak bait daude[6].

Pirinio aldean, *cubile* hitzez izendatzen zuten latinez zezen– eta behi–taldeak larratzen zireneko lekua. 850. urte inguruan, Siresa–ko elizari Dato Aznar–en familiak Arresa–n zuen larretokia eman zion. ... *de illo* cubile *que vocatur Arresa*,...

867. urtean, Galindo Aznar konteak Siresa–ko elizari ondasunak eman zizkion, eta agirian, besteak beste, hau agertzen da: ... *et* boves, *cum tota mea laborancia, ... et unum* cubilare *in Aquatorta, et aliud in Garinza.*[7]

IX. mendeko beste agiri batzuetan *bustar* eta *baccariza* hitzak ere agertzen dira behi–taldeak larratzeko lekuak adierazteko. Oka–ko San Felices–i buruzko agiri batzuk Donemiliagan jaso ziren eta 863. urteko batek honela dio: ... *bustar qui Galafaza est*,.... 869. urteko beste batek berriz, honela: ... *in Larrahederra una baccariza*...[1].

893. urtean, Iruñeko Fortunio erregeak Labasal–eko monastegiak zituen lurren mugak ezarri zituen, eta San Juan de la Peña–ko agirian hau dator: ... *haberet potestatem occidere* baccas, *porcos, carneros*,...[8].

Garbi ikusten denez, Euskal Herrian IX. mendean bazen bertan zezena jokatzeko behar den guztia: larratzeko lekuak, zezenak eta unaiak (toreatzaileak). Baita kapak ere, nahi izanez gero. 919. urtean adibidez, Nafarroako Santxo *Abarka* erregeak eta Basilio apezpikuak hiru kapa eman zizkioten Leire–ko monastegiari[9].

Zerbait geroxeago, 931. edo 932. urtean, Gaztelako Fernan Gonzalez Nafarroako Santxo Garzes erregearen Santxa alabarekin ezkondu zen. XIII. mendean egindako poema batean, Fernan Gonzalez eta Santxaren ezteiak honela deskribatzen dira[10]:

Alançauan los tablados todos los caballeros,
e a tablas e a castanes jugaban los escuderos,
de otra parte mataban los toros los monteros,
auia ay muchas çitulas et muchos vyoleros

Ezteietan zezenak jokatzen zituztela dio beraz XIII. mendean idatzitako *Cronica*ren zati honek. Agian hala izango zen, baina ez dago ziurtatzerik. Alfontso *Jakituna*ren *Cronica* honek Lara–ko infanteez ari dela ere zezenfestak aipatzen ditu. Hala ere, X. mendeko berriak XIII. mendean emanak izateak, fidagarritasuna kentzen die gertakizunei. Bestetik, istorio hauetan agertzen diren pertsonaien euskalduntasuna ez da ahaztu behar. Nafarroako erregeak euskaldunak zirela ez dago ukatzerik. Baina Fernan Gonzalez Gaztelako konteak adibidez, Supulveda herriari *forua* eman zion, eta *foru* hori, euskarakadaz jositako gaztelera zaharrez idatzia dago[11]. Kontea bera, euskalduna bide

zen. *Poema de Fernan Gonzalez* izeneko lanean berriz, Hondarribia eta Getaria aipatzen dira.

b) XI. mendean

Mende honetan zehar Euskal Herrian abelazkuntzak zuen garrantziaren arrastoak, agiri desberdinetan ikus daitezke. 1011. urtean esate baterako, Nafarroako Santxo *Handia* erregeak Donemiliagako monastegiari erreinu osoan bere abel taldeak larratzeko eskubidea eman zion[12]. Donemiliagako monastegiaren abereak *oves et armenta* ziren. *Armenta* hitzak hemen abere larria, azienda, esan nahi du, eta hortik datoz *armentarius* (unaia), Nafarroako Armendaritze etab.[1].

Abel taldeen larrez aldatzea bazela ere esan nahi du erreinu osoan ibiltzeko eskubide izate horrek. Ezagunak dira erronkariarrek Pirinioko goi-mendietatik Bardeetara eta iparraldeko Landetara egiten zituzten bidaiak. Baina XI. mendean Bardeak artean islamiarren menpe zeuden eta badirudi garai hartan erronkariarrak udazkenean ez zirela beren abel taldeez Nafarroako hegoaldera hurbiltzen. Dena dela, XI. mendean Tafalla adibidez, kristauen esku zegoen[12].

Behi- eta zezen-taldeak eta larratokiak izendatzerakoan, *busto* (behi-taldea) *bustaliza, sel* (saroe edo gorta) eta antzeko hitzak agertzen dira agirietan[13]. Abelazkuntzan oinarritutako gizartearen adierazgarriak dira inola ere arrasto hauek. Baita euskaraz dugun *unai* hitza eta hortik eratorritako *Unaileku, Unanue* edo *Unanoa* (Donostia inguruko Añorgan bazen adibidez Unanue izeneko dorre-etxe bat), *Unamuno, Unibaso* etab[14].

Unaia bere zezen- eta behi-taldeak batetik bestera gidatu, eraman eta zaindu beharrean, animalia hauen joera, grina eta arriskuez ezinbestean jabetu zen, noski. Derrigorrezkoa zuen bere ofizioko arauak ongi menperatzea, eta agerikoa denez, horietxek dira edozein tauromaki eskolako oinarriak, Sanz Egaña-k egoki adierazten duenez[15].

Baina, gatozen berriro XI. mendeko 1.011. urtera. Izan ere, urte horretantxe Burebан dagoen Oña-ko monastegiari Gaztelako Santxo konteak eta bere emazteak, ondasunak eman bait zizkioten. Spinosa herrian (Espinosa de los Monteros) zuten azienda eman zioten monastegiari, abereak lurralde zabaletan larratzeko eskubidearekin batera[5]:

> *... potestatem habeant cum suo ganato et omnibus suis pecoribus, erbis pascere, ... cum suos ganatos, baccas, equas, capras, porcos,...*

Urte batzuk geroago, 1025. urtean, Errioxako Donemiliaga-ko kartularian behiekin zerikusia duen Arabako lekuizena agertzen da. *Betolhazaha* dago (Arabako oraingo Betolaza) eta bere erroan *behi* hitza du Mitxelenak dioenez[16].

Dena den, 1025. urte horretantxe, badugu Gipuzkoako behien berri. XI. mendearen hasieran bazen Altzo Azpi-n Olazabal izeneko monastegia (... *monasterium quod dicitur Ollazabal,...*). Monastegi horren jabeek, *Garcia Acenariz* eta *Gayla* bere emazteak, Aragoako San Juan de la Peña-ri (*Sancti Iohannis Babtiste de Pinna*ri) opari eman zioten.

Donazio-agirian, Gipuzkoako lekuizen batzuekin batera *Ipuscua* hitza lehen aldiz agertzen da. Eta Gipuzkoa orduan abelazkuntzan oinarriturik zegoenez, behiak ere aipatzen dira, noski[17]:

> *... et Helcanno et manzanetos, VI bakas compraui suo uita...*

Garai berekoa da (1020-1030 bitartekoa) San Juan de la Peña-ko kartularian egiten den beste

aipamen bat. *Urraka Eximinonis* andereak Bieskas–en (Jaka inguruan, Gallego ibaiaren ertzean) etxe batzuk erosi zitueneko izkribuan hau bait dator[8]: ... *sex bakas cum suos betiellos*...

Euskal Herritik kanpo, Ortiz–Cañavate–k dioenez, XI. mendearen lehen herenean zezenak jokatu ziren Sevilla–n. Ez dakigu baieztapen hori non eta nola oinarritzen duen, baina berak dioenez, orduko noblezia arabiarrak bereganatu egin zuen festa–mota hau[18].

Dena den, Euskal Herrian egia esan, XI. mendean zezenen aipamenak badira, baina oraingoz dakigunez, zezenfestenik ez.

1041. urtean Ximeno abadeak San Juan de la Peña–ko monastegiari Baraguas (Jaka ondoan) herriko ondasunak eman zizkioneko agiriak, honela dio: ... *in villa que vocitatur Baraguasse una terra, in uno bove*,...

Abereak etengabe ageri dira garai hartako izkribuetan, eta batzuetan, lurrari edo ibaiari eman zioten abel izena. *Tauro* izeneko ibaia bazen orduan. San Juan de la Peñako 1053. urteko agiri batean *Castellone a Toro* dago, eta 1059. urteko beste batean, *super flumen Tauro* (Noguera Ribagorzana ibaiaren adarra)[19]. 1054. urtean berriz, *Busto* (behi–taldea) izeneko herri bat bazen Bureban jadanik. Izan ere Oneka andereak herri hau Oña–ko monastegiari eman bait zion urte horretan[5]: *in termino de Buroua in uilla pernominata Busto*,...

Urtebete geroago, Iratxeko agiri batek dioenez, Santxo Fortuniones eta bere emazteak Ikirre–ko monastegiari (Gesalaz ibarreko Iturgoien herrikoari), Zurbano eta Arinzano–n zituzten ondasun batzuk eman zizkioten. Agiriaren zati batek honela dio[20]: ... *et dedit mihi quinque equos, unam mulam, III equas, II thauros, II baccas, X arietes, III canes*...

Erregeak ere baziren abereen jabe. Nafarroako Santxo IV.a ere bai, noski. 1058. urtean, Zanbranan zituen etxeak eman zizkion Fortuño Santxez zaldunari, eta donazioaren sendogarri, baita aukeratutako hamar behi eta bi zezen ere[21]. Nafarroako Santxo errege honen Ramiro osabak ere (Aragoako euskaldunen erregeak) bazituen abereak. 1059. urtean testamentua egin zuen. San Juan de la Peña–ko monastegian jaso zuten agiria, eta pasarte batean honela dio[19]: ... *et de meas equas et bakas et obes, illa medietate*...

Aragoako Ramiro lehen erregea hil zenean, bere seme Santxo–k hartu zuen erreinuko agintaritza. Errege honek, Jaka hiriari (erreinuko hiriburuari) Foru berezia eman zion; abelazkuntzan oinarritutako gizartearen harremanak arautzen dituen eta hain famatua den *Jakako Forua*.

Jakako katedralea bestetik, Ramiro erregearen garaian hasi bazen ere, Santxo–ren erregealdian burutu zen gehienbat. Tankera erromanikoz egindako katedrale ikusgarri honek, badu kapitel interesgarria. David eta musikariak daude tailaturik bertan. Musikari gazte bat, adarra turuta gisa jotzen ari da[22]. Zezenaren edozer gauza aprobetxatzen zuten beraz gizarte hartan: okela, larrua, adarrak, etab.

Nafarroako gizartea ere abelazkuntzari emana zen garai hartan, eta noiznahi aipatzen dira behiak, idiak eta zezenak paperetan. 1067. urte inguruan adibidez, Nafarroako Santxo IV.a erregeak Iratxeko monastegiari Ebro ondoko Araton izeneko txaradia eman zioneko agirian honako hau dago idatzirik[20]: ... *ut faciant ibi caualas peccorum suorum, ouium, bacharum, equarum, porcorum*....

Itxuraz harrigarriagoa dirudiena, zezenak diru gisa erabiltzea da. Baina hori ere gertatu ohi zen. Abereek zuten garrantzia aztertuz gainera, trukerako ganadu–buruak erabiltzeak ez du ezer

berezirik.

Dena den, 1071. urtean Iruñeko Belasko apezpikuak, Leireko abadeak eta Iruñeko Santa Mariako kalonjeek, landetxe batzuk erosi zituzten Iruñean bost zezenko eta hamahiru neurri gariren truke[23].

1073. urtean berriz, Nafarroako Santxo IV.a erregeak Barer Iri–ko monastegia bi idiren truk saldu zuen. Bi idi horiek Ikirre–ko (Gesalaz ibarreko Iturgoienekoa) Eximino abadeak eman zizkion eta 40 txanpon balio zuten[20]: ... *duobus bobes balenti XL^{a} solidos.*

Aurreko urtean bestetik, 1072.ean, Iratxeri Urrizhiriaga–ko (Gesalaz ibarreko Iturgoienekoa) monastegia eman zion Ximeno–k eta agirian honela dio[20]: ... *C metros uini et X bobes,...*

XI. mendean, Nafarroako Aralarren ganaduak larratzen ziren, orduko agirietan adierazten denez. Santxo IV.a erregeak, hamabost saroe eman zizkion San Migel santutegiari. 1074.eko agiri batean berriz, San Migel–ek Arakil ibarreko behien hamarrenak jasotzeko eskubidea zuela agertzen da[23].

Garai hartan, dirudienez, zenbait lekutan zezenak festetan jokatu ere egiten zituzten. Euskal Herrian festen lehen aipamenak XII. mendekoak badira ere, badirudi Avilan 1080. urtean jokatu zirela San Pedro plazan Santxo Estrada eta Urraka Flores ezkondu zirenean[24]. Honen berri Avila–ko Kronikaren kodizeak ematen omen du: *seis toros por gentes de a pie y de a caballo e ovieron gran solaz.*

Luis Ariz beneditarrak dioenez, 1090. urtean Avila–ko apezpikuak apaiz berriak ordenatu zituenean San Bizente eliza ondoko plazan zezenak korritu ziren[25].

Zamoran ere jokatzen omen ziren zezenak XI. mendearen azken aldera[26]. Albiste hauei buruz dena den, aipatzekoa da Cossio zezenzale eta idazle famatuak berririk ez izatea. Ez dakigu zergatik ez zituen argitaratu; ez zekizkielako ala fidagarriak ez zirelako. Gero asmatutako kondairak bai bait dira XI. mendeko zezenfestei buruz.

Kondaira horietako bat, Vivar–eko Rodrigo Diaz *Cid*ari egozten diotena da. Zaldiz toreatu eta lantzaz jotzen omen zituen zezenak.

XIII. mendean idatzitako *Cronica*k, zezenfesten berri ematen du; *Cid*en alabak Carrion–eko konteekin hautsi eta gero 1.089. urte inguruan Aragoa eta Nafarroako infanteekin ezkondutakoan izandakoei buruzkoak[10]. Zaharragoa den *Mio Cid*en poeman ordea, ez dira zezenfesta hauek aipatzen, nahiz eta ezteietan zezenak jokatzeko ohitura bazela pentsatzekoa izan.

*Cid*en erromantzetegian bestetik, ikusgarria da euskarak poemen sintaxian duen eragina: *De las burlas non curé, Mil caracteres le muestra, Desavenencias juzgando, Al buen Rey besar la mano, A entrambos retado habia* eta antzeko esaldiz josia bait dago[27].

Rodrigo Diaz bera, Nafarroako erreinuarekin eta euskal lurrekin mugan zegoen Vivar herrian jaioa zen. Ondoko Ubierna herria adibidez, nafarren menpe zegoen.

Baina zezenetara itzuliz, *Cid*en Valentzian harategiko aipamenak badaude. 1086. urtean, zezentxakur edo alano baten laguntzaz hiltzen omen zituzten idiak. Iruñean ere zezentxakurren

laguntza garbi dago adierazia katedraleko klaustroko XIV. mendeko kapiteletan agertzen diren eskulturatan. Zezenak maneiatzeko txakurraz baliatzea aspaldikoa da; gaur arte iraun duen sistema. Baina *Cid*ek ez zituen zakurrak abereak artezteko bakarrik erabiltzen. Inoiz presoak hiltzeko ere erabili zituen[28].

c) XII. mendean

Mende honetako zezenfestei buruz, ez dago berri asko. Batzuetan, geroztikako historiatan erreferentziak ematen dira XII. mendeko festez. Francisco Cepeda-k adibidez, bere *Resumpta historial de España* liburuan dioenez, Espainian 1.100. urtean festetan zezenak jokatu ziren[29]. Baina egia esan, ziurtatu gabeko albistea da hau gure ustetan.

Zezenak gure artean diru gisa erabili zirela ordea, ziurtatua dago. Jerusalem-eko San Joan-en ordenakoek esaterako, gomendioak zituzten Euskal Herrian (Nafarroan batez ere) eta hainbat aldiz aipatzen dituzten *Andiako idi zuriak* ugari zituzten laborantzarako[30].Gomendiotan lurrak lantzeko txabolak egiten zituzten; latinez *capanna* izenekoak. Gure artean gaur egun esaten den artzaien *kamaiña* (ikus Azkueren hiztegia) eta *Kapanaga* deitura hortik sortuak bide dira[1]. Sanjoandarrek dena den, abereak *pecunia* edo diru gisa inoiz erabili zituzten. XI. edo XII. mendeko agiri batean Semena Gardeliz andereak Santxo konteari Garbala-ko ondasun bat eman zioneko agirian, hau dator: ... *vendemus nostra parte de illo orto de Garbala ad comite domno Sancio per duos vecerros.* (Garbala, garai batean Arriasgoiti-n, Iruñea eta Aurizperri artean, zegoen herria da).

Avilan 1107. urtean Belasko Muñoz eta Santxa Diaz ezkondu zirenean zezenak korritu omen ziren. Mairu eta kristauek parte hartu omen zuten gainera bertan[25].

Garai hartan, XII. mendearen hasieran, eta Nafarroako hegoaldean, bazuten zezenak jokatzeko ohitura. Sokari lotuta korritzen zituzten herriko kaleetan zehar; sokamuturra egiten zuten. Aragoa eta Nafarroako errege Alfontso *Burrukalariak*, 1114. urtean askatu zuen Tutera islamiarren-gandik[21]. Handik hiru urtera, 1117. urtean, Sobrarbeko Foruak eman zizkion Ebro ondoko hiriari[31] eta Foru horren 293. artikuluak, sokamuturraren gorabeherak arautzen ditu. Behi, idi edo zezenak, hiltegira zihoala kalterik egiten bazuen, ganaduzaleak ordaindu behar zuen. Baina kaltea ezteietan edo mezaberrikoan korritzen ari zirela sortzen bazen, ganaduzaleak ez zuen ordaindu beharrik, baldin eta soka nahita kalte egitearren askatu edo lasaitzen ez bazuten[13]: ... *pero si el traimiento fuese por razon de bodas, de esposamiento ó de nuevo misacantano, si daino á alguno fuere seido, non es ailli pena ni periglo alguno, si doncas el tenedor ó tenedores de la cuerda, maliciosament non ficieren flox ó soltura de aqueilla por facer daino ó escarnio.*

Urtebete geroago, 1118. urtean, Alfontso erregeak Zaragoza menperatu zuen. Biarno-ko Gaston izendatu zuen bertako jaun, konkista-lan nagusia berak egin zuelako. Adarrez egindako turuta erabili zuen burrukan aginduak emateko[32].

Zertxobait geroago, 1120. urte inguruan, Santxo Aristan apaizak Iruñeko Santa Mariak Soltxaga (Iruñea eta Tafalla artean) herrian zuen etxea hartu zuen, eta urteko errenta Ama Birjina abuztuko egunez ordaindu behar zuen. Ordaina behi bat, 300 ogi eta hiru koka ardok osatzen zuen[23].

1124. urtean, Gaztelako Alfontso VII.a Bartzelonako kontearen Berengela alabarekin Saldaña-n (Palentzian) ezkondu zenean, zezenfestak izan omen ziren, geroztikako kronikek diotenez[29]. Hau ere, agiri bidez ziurtatu gabeko albistea dugu.

5.1. Irudia. Biarnoko Gastonen adarra.

1125. urtean ordea, Leireko monastegiak akordioa egin zuen Zuberoako Santa–Graziko apaizekin. Santa–Grazi, 1085. urtean Leireri eman zion Santxo Ramirez erregeak. Santa–Graziko apaizak ez zeuden ados ordea donazio horrekin, baina 1125. urtean Leireri urtero bi izokin eta bi idi emateko konpromezua hartu zuten[23].

Baina, zezenfestetara itzulita, dokumentuz egiaztaturiko lehenengoa, Logronio ondoko Varea herrian 1135. urtean egindakoa dela dio Cossio zezenzaleak[4]. Varea, euskalduna zen garai hartan, eta Gaztela eta Leoneko Alfontso VII.aren (enperadorearen) koroatze–festetan zezenak jokatu zituzten, 1148. urtean kopiatu eta Fidel Fita historialariak argitaratutako agiri batek dioenez.

Handik bederatzi urtera, 1144. urtean (ekainaren 19an hain zuzen), Nafarroak Garzia Ramirez erregea ezkondu zen Leon–en Gaztelako Alfontso VII.aren Urraka alabarekin[33]. Jauregi aurrean festa–mota desberdinak ospatu ziren. Zezenak ere azkonez hil zituzten, aurrez zakurrez xaxatuta jokatu ondoren: *alii latratu canum at iram provocatis tauris, protento venabulo occidebant.*

Moret historialariak ere ematen du Leoneko festa hauen berri[21], eta zerbait gehiago gehitzen du. Izan ere errege ezkonberriak Iruñera itzuli zirenean, Nafarroako hiriburuan festek luze segitu zutela bait dio, eta zehazki aipatzen ez badu ere, zezenak jokatu zirela pentsatzeak ez dirudi itxuragabekeria. Nafarroan zezenak ehizatzen zituztela jakinda endemas.

J. Argamasilla–k dioenez[34], Faltzes–eko markesen artxiboan kodize zahar bat aurkitu zuen, eta bertan, latinez eta euskaraz, Piriniotan lantzaz hartza, basurdea eta basazezena nola ehizatzen zuten adierazten omen da. Kodize hau Bertran Subaltza–k 1140. urtean kopiatu omen zuen, Leiren zegoen beste zaharrago batetik.

Kodizeak eta berak diotena, ez dakigu zenbateraino den fidagarri. Dena den, 1144. urtean Aimery Picaud–ek Euskal Herriko jendeaz berak ikusitakoa argitaratu zuen, eta *Codex Calixtinus*ek hau dio Picaud–en arabera: *Ubicumque Nauarrus aus Bascius pergit, cornu ut uenator collo suspendit et duo iacula aut tria, que auconas uocant, ex more manibus tulit.* Nafarrak edo euskaldunak, lepotik adarra zintzilikatu eta bertan bi edo hiru *azkon* zituela ehiza egiten zuela alegia[17].

XII. mendearen erdialdera, bada Portugaleko zezenfesta edo *tourada* bati buruzko albistea ere. 1144. urtean Gonzalo Vieges zaldunak Leso–n parte hartu omen zuen festa batean[26].

Frantziako Luis VII. erregea ere, mende honen erdialdera joan zen erromes Compostela–ra. Gero, XIII. mendean, *Crónica general*ek bidaia honen berri ematen du. Burgos–en festak ospatu omen zituzten Frantziako erregearen ohoretan, eta zezenak jokatu ere bai[2]. Dena den, XIII. mendeko *Cronica* honek dioena beste agiriren batez egiaztatu beharko litzateke, fidagarria izan dadin.

Badirudi Gaztela aldean zezenfestetako lehendakaritza izatea, ohoretzat hartzen zenez gero, kargu desberdinetako jendearentzat istilu–iturri zela, eta XII. mende honen erdialdera Fernando III.ak Peñafiel–en emandako pribilegio batean arautu zuen arazoa[35]. Nafarroan dena dela, hurrengo mendeetan istiluak izan ziren zezenfestetako lehendakaritza medio, geroago ikusiko dugunez.

Urte batzuk geroago dena den, Nafarroako erregea (Santxo *Jakituna*), Gipuzkoara joan zen. Bere senide zen *Celinos* izeneko jauna, Eibarreko Untzuetako alabarekin ezkondu zen, eta erregeak bisita egin zion. Soraluze–ko Irure izeneko lekuan, zezenak jokatu zituzten eta gero hil. Zezenen okela, erregearen zakurrek jan zuten.

Ramiro Larrañaga soraluzetarrak ditu albiste honi buruzko dokumentuak, eta herri bereko Xabier Elortzak argitaratu zuen zati interesgarri hau[36]: *E otrosi dixo que fizo traer de un su busto de bacas un par de toros e que fizo que los corriessen ante el dicho señor Rey e desque corridos e tomado plazer que los mando matar los dichos toros para los dichos canes del dicho señor Rey.*

Xabier Elortzak, Santxo *Jakituna*ren bisita 1160. eta 1170. urte bitartean gertatu zela pentsatzen du. Dena den, gure ustez 1162. urtearen bukaeran ala 1163. urtearen hasieran etorri zen Donostia eta Gasteiz hiriak sortu zituen errege hau Soraluzera. Orduantxe berreskuratu bait zituen Nafarroako erreinurako Errioxako zenbait herrirekin batera Araba eta Durangoaldea[33]. Dirudienez aurrez Zelinos Zaharra Nafarroatik Gipuzkoara joana zen, erregearekin gaizki konpontzen zelako. Bere familia eta abere askorekin Irure–ra etorri eta etxe batzuk egin omen zituen. Gero ordea, erregearekin adiskidetu egin zen Zelinos, eta berarengana etorri zen Iruren ehiza egitera, noble, laguntzaile, zakur–talde eta guzti. Zelinos–ek bazkaltzera gonbidatu zuen erregea eta bazkal ondoren korritu zituzten bi zezenak.

Esaten dutenez, erregearen zezenak hil egin ziren zezenen okela gehiegi jan zutelako eta Zelinos-ek beste zakur batzuk eman zizkion errege nafarrari.

Dena dela, Soraluzeko Irure baserriko armarriak badu bisita horren arrastorik. Arbola, lehoia eta gurutze lisloretuaz gainera, Nafarroako erregearen ezkutua (kateak; Santxo VII.arenak) zakurrak eta zezenak ditu irudikaturik. Armarriaren deskribapen zehatzagoak, Joan Erentxun[37] eta Garcia Garraffatarrek[38] egina dute.

Celinos jauna, esan bezala, Untzuetako alabarekin ezkondu zen. Untzuetako etxea, 1193.

urtean berritu zuten gainera[39], eta *Celinos*ek Ziortzako elizari hogeitalau behi ernari eman zizkion, jauntxoen monastegi hura ohoratu eta goratzekotan[40].

Alfontso Irigoienek, Bizkaiko Ziortza lekuizenaren azterketa egina du[41] eta *Cinaurriza* (1082. urtean Donemiliagako kartularian agertzen da) nahiz *Cenarruça* formak ematen ditu iturritzat. Guk *Cenarruça* formari, gero Zestoan 1394. urtean agertzen den *Çeçenarro*ren antza ikusten diogu.

Hurrengo mendean, 1272. urteko abuztuaren 12an, Gaztelako Alfontso X.a *Jakituna* izan zen Eibarreko Untzuetan, eta aurrez Bermeori Haroko Lope Diaz-ek emandako hiribildu-titulua eta Logronioko forua sendotu zituen[42].

1164. urtean, Lizarrako Forua argitaratu zen, eta bertan, ganaduen gorabehera batzuk arautzen dira. Baita zezenenak ere, mende hartan ugari zirenez[13]. Fidantzaren atalean adibidez, hau irakur daiteke: *Taurus talem forum habet quem bestia granata.*

Abelazkuntzak orduan zuen pisua, beste agiri batzuetan ere garbi ikusten da. 1167. urtean, Santxo erregea, Iruñeko apezpikua eta Bela kontearen arteko akordio batean Aralarreko behi-taldeak, *unamaiçter* eta *buruzagi* hitzak datoz[43]. Iratxeko 1168. urteko beste batean, *unaia* aipatzen da[44].

Naiarako Forua, 1176. urtekoa da eta abelazkuntza ere arautzen du, noski[45]: ... *et deinde quintare de busto bacarum unam bacam*... eta antzeko esaldiak ditu lekuko.

1180. urte ingurukoa berriz, Donostiako Forua da. Hor, behi-larruen kargek portuan ordaintzen zituzten zergak zehazturik daude[17].

1181. urtean bestetik, gero Gipuzkoako hainbat hiribilduri aplikatuko zitzaion Gasteizeko Forua idatzi zen. Zazpigarren artikuluan arautzen dira ganaduen arazoak, eta idienak ere bai, noski[17].

XII. mendearen bukaeran, behiak zergak ordiantzeko ere erabiltzen ziren. Nafarroako Gurbindo, Leranoz eta beste herrietako ehiztariek, *asadura* izeneko zergagatik behi gizendua ordaintzen zuten[45].

Iruñean bestetik, Pedro apezpikuak San Ferminen erlikiak jaso zituen 1186. urtean, eta ordurako santu honi festa-eguna eskaintzen zioten katedralean, nahiz eta Satordi historikoki hobeto zehaztua egon eta Nafarroan Erdi Aroan herrikoiagoa izan[23].

Nafarroako Eliza bestetik, aberatsa zen. Irantzu-ko monastegiak adibidez bere ganaduentzat 1297. urtean zituen larre eta saroeak zeintzuk ziren jakiteko *Libro rubro* izenekoa ikusi besterik ez dago[46].

Nafarroan gainera, elizetako hormetan ere inoiz irudikatu dira zezenak. Tuterako katedraleko atarian berriz, harakina agertzen da zakur eta guzti. XII. mendeko bukaerakoa edo XIII.aren hasierakoa da. J.E. Urangaren arabera, zakur-haragia saldu eta pisuan iruzur egiten zuen harakinaren irudia da[47]. Guri egia esan, oso gauza arrunta iruditzen zaigu harakina eta zakurraren bikotea erakustea. Harakinak zakurrez baliatzen bait ziren zezenak maneiatzeko eta gero hiltzeko. XIX. mendean ere, 1819. urtean, Donostiako harakinak behartuak zueden sokamuturrerako soka beti prest eta bakoitzak zezentxakur bat edukitzera[48], eta ez da ahaztu behar sokamuturreko lehen albisteak XII. mendearean hasieran Tuterak jasotako Sobrarbeko Forukoak direla.

Baina XII. mendera itzulita, orduan ere zezenak jokatzen zituzten, noski. Siloseko monastegiko sabaian, XIV. mendean pintatutako ohol batzuk daude, eta diotenez, XII. mendeko ohiturak erakusten ditu. Bertan, zezena oinez, eta zaldiz toreatzen zutela ikusten da[18]. Luis del Campo zezenzale nafarrak bestetik, zera argitzen du: oinezko toreaketa beti egon dela eta zaldizkoa XII. mendearen inguruan agertu zela[49].

d) XIII. mendean

Euskal Herriko XIII. mendeko zezenfestei buruz, egia esan, ez dugu berri askorik. Baina, egingo ziren, noski, XII. mendearen bukaeraz gero Erroman ere oraingo Piazza Navona-n egiten zituzten bezalaxe[50]. XIII. mendeko agirietan ordea, beste era bateko albisteak aipatzen dira: unaiak, idiak, ganaduentzako larreak, ganadu-lapurrak eta abar.

Mendearen hasieran bertan, 1.202. urtean, Gasteiz ia desagertu egin zen sute baten ondorioz. Hurrengo urteetan, hiria berreraiki ezezik, zabaldu egin zuten. Orduan egina da *Correria* izeneko kalea[51]; zezenak *korritzeko* erabiliko zen kalea alegia.

Garai hartan lurren donazioak eta salmentak egiten zirenean azalera-unitate gisa idia erabiltzen zen. Idia mantentzeko behar zen lurraldea hartzen zuten azalera-unitatetzat. Horregatik aipatzen dira 1.207. urtean Morendian-eko Ximenok Iratxe-ko monastegiari Allo-ko Erripabe-n zituen errotak eman zizkionean hamar idi, Eneko Pardez fidatzaile delarik. Iratxe-n, 1.209.eko beste bi agiritan ere mila eta ehun idi aipatzen dira hurrenez hurren lurren azalera zehazteko: ... *quingentis bobus de coto, dedit etiam Petrus Ortiz de Arginnano de aliis quingentis bobus ut predictus don Gil mittat abbatem Sancium ad forum terre...*[20].

Moret historialariak, XIII. mendean agirietako idien aipuak askotan egiten ditu. Andiako idiak famatuak ziren, orduko izkribuetan maiz agertzen direnez. 1.214. urteko agiri baten aipamena egiten du Moret-ek, eta bertan Zubitza-ko Narbona-ren agirian 3.000 idi aipatzen dira azalera adierazteko. 1.217. urteko beste batean Andiako mila idi eta 1.223. urteko beste batean beste mila idi[52].

1.218. urtean idien aipamenak Iratxeko beste bi agiritan ere badaude. Batean laurehun idirentzako lurrak ematen direla esaten da eta bestean hogeirentzakoak[20].

Jerusalem-eko sanjoandarren ordena dugu XIII. mendeko ganaduen berri izateko beste iturri bat. Garcia Larrageta historialariak Erdi Aroko sanjoandarren ordena aztertzekotan, haiei buruzko agiriak bildu eta argitaratu ditu. 1.227.etik 1.298.erainoko donazio eta tratuetan, fidantzan emandako 28.000 iditik gora (Andia-ko idiak direla esaten da agiri gehienetan, eta zuriak direla ere bai bospasei aldiz) aipatzen dira lurraren neurri gisa. 1.245. urteko martxoaren 16koa da agian agiri guztietan zifrarik altuena darabilena. Izan ere Garcia Gomez eta bere emazteak, Jerusalem-eko Ospitaleari Zubitzako herria eman bait zioten, hamar mila idirentzakoa zela esanez[53]: *Et damos vos fiadores de riedra de diez mil bueyes de Andia con sus cotos...*

Neurriz gainekoa dirudien kopuru honen ondoan, berrehun eta hirurehunekoak maiz agertzen dira beste agiritan.

Dena den, XIII. mendeko erlijiosoen ordenak (Eliza beste era batera esan) oso *aberatsak* ziren, eta beren abereak ondo zaintzeko neurriak hartzen ere bazekiten. Horregatik, 1.216. urtean Iruñeko apezpikuak (Santogne-ko Gilen-ek), erlijiosoen edozein ordenari behiak, ardiak edo beste

edozer lapurtzeagatik eskomikatze–agindua argitaratu zuen[23].

Baina behi– eta idi– eta zezen–taldeak zaintzekotan, *unaiak* behar ziren XIII. mendean. Horregatik agertzen dira *Garcia Unaia* eta *D. Unaia* (1.229) bezalako pertsona–izenak sanjoandarren dokumentutan; lanbidez unaiak zirelako[53].

Eta sanjoandarrek, abere eta unaiez gain, saroe eta larreak (*bustalizas*) ere bazituzten beren ganaduentzat; 1.215, 1.235 eta 1.267. urteetako agirietan badaude aipamenak behintzat[30].

Aralarreko San Migel eliza dugu aldi hartan ganaduak bazka zitezen larreak zituen beste bat. 1.230. urteko dokumentu batek, Gipuzkoan, Hondarribian *Leyurreta* eta *Leizanavar* izenekoak zituztela dio. Iruñeko Santa Mariak berriz, *Urumea, Leuneta* eta *Burdascar* izenekoak zituen Gipuzkoan, 1.241. urteko beste dokumentu baten arabera[54].

Bien bitartean, 1.237. urtean, Nafarroako Thibalt I.a erregeak Abaurrea eta Zaraitzuko jendearen arteko auzi bat konpondu nahi izan zuen. Biek hartzen zuten berekotzat Zazaoz izeneko partea, eta elkarren arteko liskarrei amaiera ematearren, han *Castelnovo* herria eraikitzea erabaki zuen. Alderdi bakoitzari, mila eta berrehun idi ipin erazi zien fidantza gisa. Herri berriaren mugak zehazterakoan gainera, *Unacea* lekuizena agertzen da[13]. Dena dela, mila eta berrehun idi ipintzeak lurra ematea esan nahiko zuen; horrenbeste idi hazteko behar adina lur ematea alegia.

Baina XIII. mendearen erdialdera, eta eskomikuak eskomiku, ganadu–lapurrak ez ziren gutxi. Denen artean ordea, Garzea Xemeneitz zen ezagunena. 1.261. urtean, Migel Duran eta beste lapur batzuekin Atauneko gaztelura erretiratu zen Gipuzkoan behiak, zerriak eta abar lapurtu ondoren[55]. Urte horretantxe, Eznatean bertako jendea bildu egin zen eta Garzea Xemeneitz gaizkileak egindakoak salatu zituzten: abereak lapurtu, unaia hil, errotak nahiz etxeak erre, jauregia erre etab. Garzea Xemeneitz hau, Zuberoako Mauleraino ere iritsi zen bere ohizko lanak burutzearren.[56] Dena den, Urriar–eko Domingo Martineitz eta beste abere–lapur gehiago ere bazen aldi hartan, baina Garzea famatuaren berri (laburki bederen) eman dugunez, XIII. mendearen hondarreko beste bi lapurretaz amaiera emango diogu arazo honi.

Eneko Auzkoako lapurrak Burundan behiak lapurtu zituelako, Iruñeko Pedro Beaufort merioa 1.290. urtean Gipuzkoara sartu zen eta ganadua berreskuratzea lortu zuen. 1.291. urtean berriz, gipuzkoarrek *Ayutoi*ko behi–taldea lapurtu zutelako, Garzia Martinez Oianederra (Iruñeko merioaren laguntzailea) ehun eta hogei pertsonen buru zela berriro ere Gipuzkoara sartu zen ganadu bila[54].

Dena dela, lapurreta hauek egiteko arrazoietako bat, gosea bide zen, eta asetzeko bide nagusietako bat abereak edukitzea, noski. Behi–taldeak eta larratzeko lekuak, babestu egin behar ziren beraz, eta Iruñeko Santa Mariakoek lortu zuten Gaztelako Alfontso X.a *Jakituna*rengandik babes hori 1.270. urtean Gipuzkoan zituzten larre, abel talde eta gainerantzeko ondasunentzat[53]. Gasteizen sinatu zuen azaroaren batean babesa eskaintzen zueneko izkribua.

Gaztelako errege honetxek, 1.262. urtean zezenfestetako lehendakaritza arautuz sinatu zuen agiri bat[4]. Bestetik, oso ezagunak dira 1.265. urtean argitaratu ziren bere *Leyes de Partida* izenekoak. Gaztelarako ziren lege hauetako 57.ean, apezpikuek zezenfestetara ez dutela joan behar dio eta 4.ean *infametzat* hartzen ditu diruaren truk zezenak toreatzen dituztenak[57].

Errege honek eginak direla esaten da bestetik Ama Birjinaren *Cantiga* izenekoak. Galiziako

hizkuntzaz idatziriko lan hauetan ere badira zezenei buruzko albisteak, baina aurreko kapitulu batean horietaz aritu garenez gero, ez ditugu hemen errepikatuko.

Elizaren ondasunetara itzuliz, Orreagako ordenak *Guarasbisquay* eta *Luçayden* zituen larre eta saroeak 1.284.eko dokumentu batean zerrendan datoz. Guztira laurogeiren bat dira, eta *Larrandorenen bi sarohe, Urriz çelay, Guoros larre çaarra* eta antzeko euskal izenak dituzte guztiek[46].

Bost urte geroago, 1.289. urtean, Baionan zezenfestak zirenaren arrastoak badira. Claud Pelletier zezenzaleak argitaratu du hori adierazten duen agiriaren fotografia, eta bere hitzez esanda, Frantziako zezen-dokumenturik zaharrena da[58]. Zezen, idi eta betizuak kaletan korritzen zirela dio dokumentuak[59]. Gipuzkoan berriz, okelaz gain zezenen larru eta adarrek bazuten bere lekua ekonomian. 1.292. urtean Seguran zezen-larruengatik jasotako hamarrenak zehazten direneko agiria bada. Baita Donostian 1.293. urtean adar eta larruengatik jasotakoak zehazten dituena ere[60].

1.295. urteko beste agiri batean, Iruñeko txantre eta Aralarreko abade zen Santxo Martinezek Gonzalo Lopiz-i Zaldibiako *Campayn* izeneko monastegia errentan eman zion, eta baldintzatako bat San Migeleko unaiak hango larretan onartzea zen[61].

Eta XIII. mendearen hondarrean, Iruñeko katedralean klaustroa eraikitzen hasi ziren[23]. Gero, XIV. mendearen hasieran, zezen-irudi bikainak tailatuko zituzten hango kapiteletan.

Honenbestez bukatuko dugu XIII. mendeko zezenez egin dugun ihardunaldia. Ez dugu, egia esan, gure Herriko zezenfestez datu asko biltzerik izan (XIV. mendea oparoagoa da horretan), baina zezen-, idi- eta behi-taldeen ugaritasunaz jabetuko zen irakurlea. Eta aberea ondasun nagusi zen gizarte hartan, ganaduaren gorabeherak arautzeko agindu zorrotzak zeuden. Aurrez indarrean egonik XIII. mendean idatzi zen Jakako foruak, adibide onak damaizkigu horretaz. Ganadu kaltegilearen gorabeherak, fidantzan emandako abereak, lapurretak eta beste hainbat arazo arautzen zituen foru honek. Ganadu-lapurretaz, zigor zorrotzak ezartzen zituen. Taldeko ahari gidariari zintzarria harrapatzeagatik (horrek artalde osoa lapurtuko zuela esan nahi zuen), lapurrari eskuineko eskua ebakitzen zioten; zintzarrira eskua sartu, eta barrura sartzen zen zatia[62].

e) XIV. mendean

Bilboko hiri-gutuna, 1.300. urtekoa da, eta hark dioenez, Diego Lopez Bizkaiko konteak beretzat gorde zituen *Ollargan* eta *Galdiz* (Matxitxako) mendiak. Probestu batek zaintzen zituen mendiak eta abereak zegozkion zerga gisa: *con calona de cinco bacas et de baca prenada et del bue*[63]. Gaminizeko foruak ere zerga berdina ezartzen du *Isoguiza* mendiagatik[64]. Gero ere, 1.342. urtean bizkaitarrek beren Juan Nuñez jaunarekin egindako tratuan, berriro agertzen da bost behiren zerga hau[17]. Arabarrek ere *martxoko idia* izeneko zerga ordaintzen zuten, eta 1.383. urtean Gaztelako Alfontso XI.a erregeak kendu zien Legutio herrikoei[45].

Baina utz ditzagun zergak alde batera, eta gatozen zezenfesten esparrura, atseginagoa gertatuko delakoan. Badirudi Gasteizen XIV. mendearen hasieraz gero Arku-plazan zezena jokatzen zutela[65].Nafarroan ere jokatu bide zuten, Iruñeko katedraleko klaustroan dauden eskulturek adierazten dutenez. XIV. mendearen hasieran egin ziren kapiteletan, zezenfesta herrikoien irudiak daude harritan. Zezenaren *ehiza* agertzen da gehienbat, zakurrek ere horretan maiz laguntzen dutelarik. Klaustrotik aparte ere, badira beste bi Jangelan (gaur egun San Frantziskoren kapera denean). Hauetako batean, mentsula batean dagoenean, gizon batek zezena bi adarretatik helduta dauka, zezentxakur batek belarrian horzka egiten diolarik. Kaperako beste eskultura, kapitel batean

dago eta antzekoa da, nahiz eta hondatuagoa egon.

5.2. irudia. Iruñeko katedralea. Gizona zezena hiltzen.

5.3. irudia. Gasteizko katedrale zaharra. Zezena lantzaz hiltzen.

Barbazan–en aretorako sarreran (1.318.etik 1.355. urtean hil zen arte Iruñeko apezpiku izandako Arnalt Barbazan–ek egin zuen areto hau), bitan agertzen dira kapiteletan zezenak. Batean, gerritik ezpata edo zintzilik duen gizon batek, erasotzen dion zezen bat lantzaz jotzen du. Bestean,

beste gizon bat dago zezenaren adarretatik oratuta (Jangelakoaren antzera), zezentxakurrak aberearen belarriari kosk egiten diolarik.

Klaustroko kapitel batean bestetik, zezena dago albo bakoitzean zezentxakur batek belarrian horzka dagiola. Ondoko kapitel luze batean berriz, beste bi eskultura daude. Batean, zezena bi zakurrez inguraturik dago. Zakur bati gizon batek lepotik eusten dio esku batez, eta besteaz, zezena sastakaiz jota hil nahi du. Beste gizon batek, zezenari buztanetik helduta tiratzen dio. Eszena honek badu, noski, basurdearen ehizarekin antzik.

Kapitel honetantxe, eta jardin alderako partean, zezena dago gizonak ezpata aldenik alden sartu diolarik[66].

Eskultura honen antz handia du garai beretsukoa den Gasteizeko katedrale zaharrean dagoen beste batek. Han, eliza barruko laugarren zutabearen kapitelean zezena ikusten da lantzaz jota. Zezena, aurreko hankak tolestatuta lurrera erortzen ari da, gizonak lantza aldenik alden sartu diolako[67].

Araban bertan, Lopidana–ko elizan (Gasteizetik gertu) garai bereko beste eskultura berdintsua ere bada. Gizon bat eserita eta zezen bat dago, belarri bakoitzetik zezentxakur bat kosk eginez duelarik[68].

Nafarroako Garisoaineko ermitan (Lizarra aldean, Ziraukitik gertu) sarrerako atearen kapitelean bada zezenaren irudi aipagarria. Zezenaren burua agertzen da han eta XIV. mendean egina da[66].

XIV. mendearen hasieran, badugu bestetik zezen–hiltzaile (*matatoros*) nafar baten aipamena. 1.315. urtean, Tuterako merioa Eskirotz izeneko zezen–hiltzailearen ondoren zebilen. Eskirotz–ek Oliteko *Llope* hil zuen, eta horregatik zebilen ihesi Arturo Campionek bere *Gacetilla Histórica de Navarra*n dioenez[69].

Urte batzuk geroago, 1.324. urtean, Nafarroako Karlos I.a erregeak Iruñeri feriak egiteko pribilegioa eman zion. Feriak, urriaren 10ean egiten hasi ziren, San Fermin ere Amiens herrira prediku egitera hain zuzen urriaren 10ean sartu zela kontutan hartu gabe. Feriek zortzi egunez irauten zuten[70].

Nafarroako errege honetxek, Zuberoatik hamar behi ernari eta lau izokin jasotzen zituen bi urtetik behin[13].

Baina Nafarroatik kanpo, beste erreinutan ere bazituzten zezenak eta zezenfestak. Aragoako Alfontso IV.a 1.328. urtean koroatu zutenean adibidez, Zaragozako *Aljaferia*n zezenak jokatu zituzten. Parrokia bakoitzak bere zezena bidali zuen. Musika eta jende asko izan zen han, eta mendizainek lantzaz jotzen zituzten zezenak, aspaldiko usadioa zenez[71].

Erroman ere, 1.332. urtean zezenfestak ospatu zituzten bertako koliseoan. Zaldun asko bildu zen festa haietan parte hartzera; Orsini eta Colonnesiak batipat. Zaldun bakoitzak, oinez, eta lantzaz armaturik, zezen suhar bati aurre egin zion. Hemeretzi zaldun hil ziren eta beste bederatzi zauritu[72].

Baina Nafarroara itzulita, esan dezagun zerbait bertako zakurrez. Esanberria dugu Iruñeko katedralean klaustroko kapiteletan eta Lopidanako elizan eskulturatan agertzen direla zezenak menperatu nahian. XII. mendean ere, Santxo *Jakituna* Soraluzeko Irurera zakur eta guzti etorria zen

zezenfestara. Izan ere orduan, hurrengo mendetan bezalaxe, zezenak txakurrez maneiatzeko ohitura handia zuten. Nafarroako zezentxakurrak gainera, famatuak eta estimatuak ziren XIV. mendean. 1.351. urtean adibidez, Nafarroako Karlos II.ak Frantziako Joan erregeari sei zezentxakur nafar erregalo eman zizkion[73].

Bi urte geroago, 1.353. urtean, bermeotarren ordenantzak idatzi ziren. Bermeoko antzinako ohitura eta usadioak jaso zituzten paperera, eta han, San Pedro egunez zezena jokatzeko zuten ohituraren aipamena egiten da laugarren atalean[74]: *Otro si hemos de costumbre inmemorial ordenanzas que personas algunas del dicho cavildo no sean osados de correr Toros ni nobillos sino el dia de San Pedro y si otro día los hovieren de correr sea con la licencia de los Mayorales é Guardas de la dicha cofradía...*

1.358. urteko beste albiste batek, Piriniotako zezenen berri ematen du. Urte horretan, Erronkari eta Zaraitzuko 37 behi-talde egon bait ziren neguan Bordeleko Landetan[46]. Iparraldeko Goienetxe historialariak dioenez, zenbait urtetan Nafarroatik 10.000 behi joan omen ziren larratzera Gaskoniako Landetara[75].

Aralarreko San Migel elizak zituen behi-taldeak berriz, Hondarribiara joaten ziren. 1.371. urteko agiri batek dioenez, *Jog* izeneko lekura joaten ziren, eta han, *Mugínça, Adialove, Gaiztanos, Leyurieta* eta *Leiçanavar* izeneko saroeak zituzten[46].

Bizkaiko Ziortzako elizak, *Amallo, Gastiburu* eta *Oiz*en ehun eta berrogeitabost saroe edo korta omen zituen, eta horietako berrogeitabi Bolibarreko elizarenak, Gaztelako Joan I.a erregeak 1.386.ean sinatutako agiri bati esker. Saroea edo korta, zirkulu bat zen. Erdian haustarria zuen, unaiek han sua egin zezaten. Ganaduak saroe edo korta horietan pasa ohi zuen gaua. Negukoari, *korta nagusi* deitzen zioten eta udakoari *korta txiki* edo *kortaerdi*. Ganadu-talde bakoitzak, korta batek hartzen zuenak, ehun buru baino gehiago zituen. Korta nagusiaren erradioa, ehun eta hogeitasei *estado*koa zen. Udakoarena berriz, hirurogeitahirukoa.

Lekeitioko parrokiak ere, 1.392. urtean bazituen hamalau korta *Leya* mendian[39].

Bestalde 1.381. urtean, Nafarroako Karlos II.ak beste pribilegio bat eman zion Iruñea hiriari, feriak hogei egunez ekainean egin zitzaten. Ferien hasiera beraz, urriaren hamarretik ekainaren hogeitalauera (San Joan egunera) aldatu zuten, eta hamar egunekoen ordez hogeikoak egiten hasi ziren. Festen iragarpena, San Joan gauez egiten zuten suen argitan. Ohitura honek gaur arte iraun du. Orain ere San Joan gauez ipintzen bait dira hormetan sanferminetarako iragarkiak.

XIV. mendearen bukaeran, Nafarroako Gorteen aginduz feriak eta festak San Pedro egunez hasi ziren egiten, nahiz eta iragarpena San Joan gauez egin. Feriak eta festak, uztailaren hamazortzian bukatzen ziren[70].

Hogei egunez, feriara zetozenek inmunitate pertsonala eta zerga-exentzioa zuten. Feriak amaitutakoan, beste bost egunez luzatzen zen inmunitatea, Iruñetik nor bere herrira iristeko denbora izan zezan. Ondoren, eta 1.591. urterarte Santiago egunez, iruindarrek zezen-korrida doan ikusteko aukera izaten zuten[76].

Ez dakigu garai hartan Urola aldeko unaiak Bidarraiko *Otsalde* mende batzuk geroago bezala *Iruñeko ferietara* joaten ziren ala ez. Baina bazirela badakaigu. 1.385. urteko Zestoako agiri batean, *Unamendi* lekuizena agertzen da behintzat[77].

Urte horretan bertan, 1.385.eko abuztuan, Nafarroako erregeak (Karlos II.ak), zezenfesta antolatu zuen Iruñean. Erregeak 50 libera ordaindu zizkien Aragoako bi zezen-hiltzaileri. Zaragozatik etorri ziren Iruñera erregearen aurrean bi zezen hiltzera. Bata kristaua zen eta bestea mairua[13]. Hau da Yanguas-ek dioenez, agiritan agertu zaigun Nafarroako lehen zezen-korrida. Zezenak berriz, nafarrak izango ziren, noski, Jose Maria Iribarrenek ongi argitzen duenez[78].

Campion-en arabera berriz, zezenak burtziz eta azkonaz hiltzen ziren, eta aurrez, sokamuturra egiten zuten. Ordurako gainera, nafarrak iaioak ziren pilotan nahiz ezpatadantza eta mutildantzan[79].

Urtebete geroago, 1.386.ean, San Ferminen omenez festak ospatzen hasi ziren lehenbizikoz urriaren hamarrean[70].

Hurrengo urtean, 1.387.ean, Nafarroako Karlos III.ak hogeitamar libera hiru zezen-hiltzaileri ordaintzea agindu zuen. Hiru zezen-hiltzaileak, Zaragozatik Olitera etorri ziren erregearen aurrean lan egin zezaten[13].

Urte horretan bertan, apirilaren hasieran Karlos III.aren emaztea (Trastamara-ko Leonor) lehen aldiz etorri zen Nafarroara, eta senarrak, Oliten zezenfesta antolatu zuen bere omenez. Zaragozako lau zezen-hiltzailek lau zezen toreatu eta hil zituzten[80].

Nafarroako erregea ezezik, Aragoako Joan I.a ere zezenzale zen. 1.397. urtean bertan, Aragoako Fraga herrian ahalik eta zezenik suharrenak joka erazi zituen, Gaztelatik bidali zizkioten zezentxakur batzuk probatzeko asmoz. Urte horretantxe, Aragoako errege honek Bartzelonatik bi zezen-hiltzaileren eskea egin zuen Zaragozara[18].

Hurrengo urtean, 1.388. urtean, Arellanoko Remiroren alaba bat ezkontzen zela eta, Nafarroako Karlos III.a erregeak zezen bat ekarri erazi zuen, ezteietan jokatu eta hil zezaten[13].

Urtearen bukaeran, *Lencastre* edo *Alencastre*ko dukesa (Karlos III.aren lehengusina) Gaztelara zihoala, Iruñean gelditu zen, eta erregeak hiru zezen jokatu erazi zituen bere omenez. Gil de Ubeda eta Joan Alcayt zezen-hiltzaileek lan egin zuten[81]. Zezenak azkonez hil zituzten eta Tuterako alkate eta zinegotziei 220 florin ordaindu zizkieten.

Gero dukesa hau, Tuterara joan zen eta han ere bi zezen jokatu zituzten eta gero azkonez hil[78].

Urte horretantxe bestetik, erregeak Agredako Gilen-i agindua eman zion Joan Gris ganaduzaleak abuztuaren 26rako bi zezen on bidal zitzan. Zezen-hiltzaileak ere eskatu zizkion Iruñerako, han sei egun barru Nafarroara zetorren Borbon-eko dukearen omenez zezenfestak ospatzekotan.

Festak ospatu ondoren, Karlos III.ak (errege zezenzaleak), 62 libera ordaindu zizkien Ubedako Gil, Joan Alcayt eta Zaragozako Joan zezen-hiltzaileei, Iruñean bi zezen hil zituztelako. Baita 20 florin zezen bakoitza hiltzeagatik eta 14 libera joan-etorriko gastuetarako ere[13].

1.389. urtean, Aragoako Joan erregeak Monzon herritik bi zezen eskatu zizkion Alagon-eko Artal jaunari. Zezenak, unai, behi eta guzti bidaltzea eskatu zion[18].

1.391. urtean, Aragoako errege honexek lau zezen, zezentxakurrak eta bi zezen-hiltzaile eskatu zituen Zaragozatik[2].

1.392. urtean, Nafarroako Karlos III.aren aurrean Burlatan zezen bat jokatu eta hil zuten[13].

Gaztelan ere zezenak jokatzen zituzten garai hartan, noski. Zezenfesten lehendakaritza arautzen saiatu ziren behintzat hango erregeak. Enrike II.ak Toro-n (1371.ean) eta Enrike III.ak Madrilen (1393. urtean) horretaz pribilegioak sinatu zituzten[4].

1.393. urtean, eta Nafarroako Lizarran, San Joan egunez zezen bat jokatu zuten Karlos III.a erregearen aurrean. Zezena, *Juan de Sant Ander* zezen-hiltzaileak hil zuen eta hamaika libera eta hamahiru txanpon ordaindu zizkioten[82].

Urtebete geroagoko agiri batean, Urola aldeko Zestoako partean, Aizarna aldean, *Zezenarro* lekuaren berri ematen da: *Joan de San Joan de çeçenarro* eta *Joan Fernandez de çeçenarro* izenak bait datoz. Zezenak baziren beraz lurralde horretan XIV. mendean[83]. Gauza bera adierazten dute Oiartzuneko Iturriotz dorreko marrazkiek. Hango dobelatan, besteak beste zezen- eta behi-taldea daude tailaturik batetik eta gizona zezena uzkaltzen bestetik. Heraldikarekin zerikusia duen eta abeltzantzan oinarritutako gizartearen adierazle ederra da Iturriotz dorreko atari hau[84].

1.400. urtearen hasieran, Nafarroako erreginak izandako Luis semea bataiatu egin zuten Oliten. Zezenfesta egin zuten ohizkoa zenez eta otsailaren batean Joan Triper eta Joan Agraz toreatzaileek bi zezen hil zituzten azkonez. Zezenak, Tuterako Joan Gris-ek saldu zituen 26 libera, 13 *sueldo* eta 4 txanponetan. Toreatzaileek 17 florin jaso zituzten[81].

Mende honen atarian, badugu Abrisketaren ustetan Bizkaian albiste bat. Martin de los Heros-ek bere *Historia de Valmasedan* ezer ez badio ere, 1.400. urteko ordainagiriak ba omen dira diotenez Balmasedako udaletxean; toreatzaileei orduan egindako ordainketak ziurtatzen dituztenak, noski. Garai hartako zezenfestek bestetik, benefizentzi helburua bide zuten, izurriteei aurka egiteko laguntzak biltzearren[85].

f) XV. mendean

Balmasedan gainera, herrian bazuten zezenak korritzeko ohitura, *Correria* kalea ere gutxienez 1.484. urtean bazutenez[17], Gasteizekoen antzera.

Baina izurriteak aipatu ditugunez, XIV. mendean Euskal Herrian jende asko hil zela ez da ahaztu behar. Izurriak jota desagertu zen esate baterako Mikel Zalba Iruñeko apezpikua 1406. urteko abuztuan[86].

Aurrez ordea, zezenfesta ugari izan zen Nafarroako Gortearen eraginez. 1401. urtean, Tuterako *John de Gris* ganaduzaleak Milagroko Ximenorengandik 10 florin jaso zituela dio agiri batean. Diru hori, Karlos III.aren aginduz Iruñean jokatutako zezen bategatik hartu zuen Erriberako zezenjabeak. Zezena, *John* Etxauz-en eta *Johana* Diaz-en ezteietan jokatu eta azkonez hil zuten urte horretan martxoan[78].

Hilabete batzuk geroago, San Joan egunez Oliten hiru zezen hil zituzten erregearen aurrean Juan de Maderuelo eta Juan Sant Ander gaztelauek. Maderuelo-k 14 florin kobratu zituen bi zezen hiltzeagatik, eta Sant Ander-ek zazpi, bat hil zuelako. Uztailaren biko ordainagiria ez zuten sinatu

zezen–hiltzaile hauek, ez zekitelako[66].

Datu guzti hauetan oinarriturik ondoriozta daitekeenez, zezenfestak errege eta nobleziak gogoko zituen Nafarroan; ez herri xeheak bakarrik. Zezen–hiltzaileak propio ekartzen zituzten ordainduta gainera, zezenak bezalaxe, festara. Ofizioa zen beraz XIV. eta XV. mendean zezen–hiltzailetza, eta garai hartan oinezko zezenketa zen gogozkoena eta bakarra Euskal Herrian eta Pirinio aldean[2].

1403. urteko ekainaren 3an, igandez, Nafarroako Leonor erregina Iruñeko katedralean koroatu zuten ohi bezala, eta ondoren, beste zenbait festaren artean zezenak ere jokatu zituzten[80].

Urte horretantxe, Juan de Vitoria zezen–hiltzaileak 11 libera eta lau txanpon kobratu zituen Iruñean lan egiteagatik. Zezen bat hil zuen eta Lizarratik ekarritako zezentxakurrak erabili zituzten[66].

Ablitas–eko Joan–ek bestetik 13 florin jaso zituen erregeari saldu zion zezen batengatik. Zezena *Jhoan Trapero* eta *Pedro Conciera* unaiek ekarri zuten Iruñeraino eta sei egun behar izan zituzten horretarako[78]. Luis del Campo iruindar zezenzaleak, garraioan eguneko batezbeste hogei kilometro egiten zituztelako kontuak atera ditu[87].

Garai honetan, asmatzekoa da Gipuzkoan ere zezenfestak izango zirela, baina haien albisteak paperetara jaso zirenaren berririk ez dugu. Behi– eta zezen–taldeak baziren ordea, Zaldibiako *Champayn*eko elizaren alokairuari buruzko 1.404. urteko agiri batetik pentsa daitekeenez[88].

Nafarroan berriz, edozein ospakizun hartzen zuten zezenak jokatzeko aitzakiatzat. 1.412. urtean adibidez, Karlos III.a erregearen Godofre semea (sasikoa zuen seme hau) zaldun armatu zutela eta, bi zezen korritu zituzten Iruñean. Zezen–hiltzaileek ez zuten beren trebetasunik erakutsi orduan. Bertako jendeak kolpaturik hil bait ziren 20 florin kostatutako zezenak. Aragoako Fernando erregea hautatu zutenean ere, zezen bat jokatu zuten urte hartantxe. Hogei florin kostatu zen zezena, eta kolpez hil zuten: ... *de los colpes que y ovo.*[78].

1.415. urtean, Godofre ezkondu egin zen Teresa Ramirez Arellanorekin, eta ohizkoa zenez, Oliten zezenak izan zituzten[89]. Iribarren–ek, zera argitzen du: 1.416. urtean Juan Villagarcia–ri eman ziotela Zaragozatik Iruñera zezenak ekartzeko ardura, Godofreren ezkontza ospa zezaten[78]. Zezenak berriz, Pedro Periz Andosilla–k erosi zituen. 90 florin kostatu ziren, garraio eta guzti[81].

Ez dakigu, egia esan, zezenak Zaragozatik ekartzearen arrazoia. Agian suharragoak izango zirenaren esperantza izango zuten. Baina Nafarroan bertan, bazen aldi hartan zezena ugari. Erregeak berak bazituen zortzi saroe Aralarren 1.423.ean, eta zezen–taldeak ere izango zituen, noski. Behi–taldeak, 150 burukoak (urtebete kunplitutakoak) ziren, 1434. urteko agiri batek argitzen duenez[13]. Garai beretsukoa den *Bereterretxeren khantorian* (1.434–1.449 bitartekoan) ordea, *ehün behi bazereitzola, beren zezena ondoti* dio erromantze zaharrak[90].

XV. mendean Nafarroako Gortera (Olitera) lau bufalo etorri baziren ere (Joan Mur aragoarrak erregalatu zizkion 1.446.ean Bianako Printzeari)[91], behiak eta zezenak ziren jatorrizko ganaduak. Horregatik agertzen zaigu besteak beste 1.448. urtean *zezenaga* lekuizena[92], edo 1452.ean *fagabebeierdi, fagave beicegui* eta abar Aralarreko saroeen izen bezala, beste saroe askoren artean[93]. Ataunen basabehiez gainera, 1.457.eko ordenantza batek dioenez, etxeko ganadua eguzkiak argitu eta ilundu arte herrilurretan eta inoren lurretan larratzen zen[56]. Ganadua zaindu beharra ere bazegoen

garai hartan. Gipuzkoako jauntxoak lapurretarako joera bide zuten, eta 1.457. urtean Gaztelako Enrike IV.ak Gasteizen sendotutako ordenantza batean Gipuzkoako handikiei espreski debekatu zien ganadu-lapurreta[94].

Gaskoniako Landetan berriz, Saint-Sever herriko agiri batek dioenez 1.457. urtean korrida bat eman zen. San Joan egunez kaleetan zezena jokatzeko ohitura zutela ere adierazten da agiri horretan[59].

Biarno-n festetan behiak jokatzeko ohitura zuten. 1.469.ean edo 1.470.ean, lau pertsonak Moumour-en (Oloroe-tik gertu) antolatu zuten behi-korrida bat medio, prokuradore bat izendatu zuten Oloroe-ko eliz auzitegirako. Oloroeko notariak biarneraz idatzitako agirian, han zezen-festak ohizkoak zirela adierazten da[2].

Ez dugu uste ordea, zezenetara nafarrek biarnotarrek baino zaletasun txikiagoa zutenik. Nafarrek ez bait zuten zezenik gabe festarik ospatzen. Ikus bestela adibide gisa Oliteko artxiboko 1.479.eko agiri batek aditzera ematen duena. Bianako printzesa, erregearen ama eta tutorea, Zaragozan zen abuztuan Gaztelako erregearekin bakeak egitearren. Tuteratik Olitera etor zedinerako, bi zezen eta sei zezenko ekartzea agindu zuten ongietorrirako[69].

Garai hartantxe, 1.480. urte inguruan, Iruñeko Udalak San Ferminen bezperetara (elizkizunera) ofizialki joateko erabakia hartu zuen. Oraindik ere irauten duen ohitura hau, urriaren 9an konplitzen zuten orduan; San Fermin eguna urriaren 10ean bait zen[70].

Urte batzuk geroago, 1.489.ean, elizgizon famatu izandako baten idazlana argitaratu zen. *Suma de Ecclesia* zuen izena, eta Juan Torquemada kardinalak bere bizialdian egina zen. Torquemada-k, toreaketa ez zuen zilegitzat jotzen, zezenaren aurrean arriskatzea lehoiaren aurrean bizia arriskatzearekin parekatzen zuelako[10]. Garbi dagoenez, aldi berean zezenzaleak eta zezenen kontrakoak egotea, ez da gaur goizean asmatutako gauza. Elizaren esparrura mugatuta ere, gauza bera esan daiteke. Izan ere Roderiko Borgia kardinalak, gero Alexandro VI.a izenaz ezaguna izango zen aita santuak, Erroman zezenfesta antolatu bait zuen 1.492. urtean Granada erori zelako gertakizuna ospatzekotan. (Ez da ahaztu behar aita santu izandako Roderiko honek Antzuola deitura zuela)[93]. Dirudienez, 1.492. urteko Erromako zezenetan, toreatzaile batzuk hil eta beste batzuk zauritu egin ziren. Cesare Borgiak, Roderikoren semeak (gero Iruñeko apezpiku izan eta Bianan hobiratu zutenak), zezen bati lepoa moztu bide zion, eta Michel-Angelo ospatsua ere ibili omen zen zezen aurrean[29].

Dena den, albiste hauek baino seguruagoak dira garai bereko Olitekoak. Han, 1.493.eko ekainaren 23an Albret-eko jauna eta beste zaldun asko bildu zirenean, zezen suharrik ez zuten aurkitzen ingurutan San Joan festa ospatzeko, eta besterik ezean herriko ikuilutatik zezenkoak eta idiak ekarri zituzten.

Hurrengo urtean, 1.494.eko martxoaren 31n, Nafarroako Katalina erreginaren alaba bataiatu zuten Maialen izenez. Hurrengo igandez, Oliten (nola ez!) zezenak jokatu zituzten. Baita XV. mendearen hondarrean (1.500. urtean) Albret-eko jauna, Nafarroako erregea, Sevillatik ekainean Oliteko gortera itzuli zenean ere[69]. Nafarroako erregeek orduan bestetik, bazituzten beren behiak Aralarreko saroetan, 1.496. urteko agiri batek dioenez[92].

Baina Nafarroan ezezik, Gipuzkoan ere egin bide zituzten zezenfestak XV. mendean. Idiazabalen dirudienez, aurrez entzierro eta guzti Eztenagatorretik Oiarbideraino[96].

5.- ZEZENAK ERDI AROAN: BIBLIOGRAFIA

(1) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografía histórica de Navarra.* Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1971 (272, 275, 330, 331, 383. orr.)

(2) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 4. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1971 (61, 62, 811–814, 816, 817. orr.)

(3) ROMERO DE SOLIS, PEDRO. *El papel de la nobleza en la invención de las ganaderías de reses bravas*, in Arte y tauromaquia. Tuner argit. Madril 1983 (36. orr.)

(4) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (639, 812. orr.)

(5) ALAMO, JUAN DEL. *Colección diplomática de San Salvador de Oña.* Lehen alea. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madril 1950 (2, 3, 35, 69. orr.)

(6) CARO BAROJA, JULIO. *Los Pueblos del Norte.* Txertoa argit. Donostia 1973 (180, 181. orr.)

(7) UBIETO ARTETA, ANTONIO. *Cartulario de Siresa.* Textos Medievales, 2. Valentzia 1960 (13, 18, 19. orr.)

(8) UBIETO ARTETA, ANTONIO. *Cartulario de San Juan de la Peña.* Lehen alea. Textos Medievales 6. Valentzia 1962 (33, 34, 148, 149. orr.)

(9) ESTORNES LASA, BERNARDO. *Indumetnaria baska.* Zabalkundea sorta 9. Beñat idaztiak. Donostia 1935 (96. orr.)

(10) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (86, 247. orr.)

(11) LEKUONA, MANUEL. *Euskerismos en el castellano antiguo (en el Fuero de Sepulveda)*, in Munibe 1980. Donostia (409, 410. orr.)

(12) CARO BAROJA, JULIO. *Los Vascos.* Istmo argit. Madril 1971 (160, 161. orr.)

(13) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra.* Iruñea 1964. Lehen alea (122, 162, 163, 338, 543. orr.) 3. alea (40, 73, 214, 260, 448. orr.)

(14) LEKUONA, MANUEL. *Añorga en la Artiga de San Sebastian*, in Idazlan guztiak. Kardaberaz bilduma. Gasteiz 1978. 2. alea (56, 70. orr.)

(15) SANZ EGAÑA, CESAREO. *Historia y bravura del toro de lidia.* Austral bilduma. 1283. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1958 (20, 21. orr.)

(16) MITXELENA, KOLDO. *Fonética Histórica Vasca.* Gipuzkoako Foru–Aldundia. 2. argitaraldia. Donostia 1977 (237, 238. orr.)

(17) GARCIA KORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; M. OTXOA, R.M. eta RIOS, M.L. *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos.* Txertoa argit. Donostia 1979 (65, 66, 78, 79, 80, 82, 104, 172. orr.)

(18) ORTIZ–CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y Costumbres de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (392, 394, 396, 397. orr.)

(19) UBIETO ARTETA, ANTONIO. *Cartulario de San Juan de la Peña.* 2. alea. Textos Medievales 9. Valentzia 1963 (93, 94, 172, 173, 180. orr.)

(20) LAKARRA, JOSE M. *Colección diplomática de Irache.* Lehen alea. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Zaragoza 1965 (19, 20, 55, 67, 71, 258, 267, 268, 310, 311, 319. orr.)

(21) MORET, J. eta ALESON, F. *Annales del Reino de Navarra.* 2. alea. La Gran Eciclopedia Vasca argit. Bilbo 1969 (15, 248–251, 411–413. orr.)

(22) ENRIQUEZ DE SALAMANCA, CAYETANO. *Jaca y el Romanico.* Everest argit. León 1973 (6, 14. orr.)

(23) GOÑI GAZTANBIDE, JOSE. *Historia de los obispos de Pamplona.* Lehen alea. Universidad de Navarra S.A. argit. Iruñea 1979 (33, 34, 215, 218, 231, 232, 321, 370, 546, 732, 733. orr.)

(24) ANSON, LUIS Mª. *Religión y sexualidad en los toros*, in Los toros en España. 3. alea. Orel argit. Madril 1969 (42. orr.)

(25) SANCHEZ NEIRA, JOSE. *Diccionario taurómaco*. 1. alea. Giner argit. Madril 1985 (9, 317. orr.)
(26) DOMECQ, ALVARO. *El arte del Rejoneo*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (360, 361, 364. orr.)
(27) XX. *Romancero del Cid*. Susaeta S.A. argit. Madril 1969.
(28) MENENDEZ PIDAL, RAMON. *La España del Cid*. Espasa–Calpe argit. Madril 1967 (29, 103 - 105, 256. orr.)
(29) "CONDE DE COLOMBI". *Desarrollo de la Fiesta de Toros*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (215. orr.)
(30) GARCIA LARRAGETA, SANTOS A. *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalen*. Lehen alea. Gomez argit. Iruñea 1957 (191, 192. orr.)
(31) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. 2. alea. Tutera 1914 (85. orr.)
(32) LAKARRA, JOSE M. *Historia del Reino de Navarra*. Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (309, 310. orr.)
(33) LAKARRA, JOSE M. *Historia del Reino de Navarra*. 2. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (25, 57. orr.)
(34) AROZENA, FAUSTO. *¿Texto vasco anterior al Códice Calixtino?*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1952 (505, 506. orr.).
(35) TORRES, PEDRO. *La presidencia en las corridas de toros*,in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (277, 278. orr.)
(36) ELORTZA MAIZTEGI, XABIER. *Tauromaquia placentina*. Soraluzeko 1982. urteko herri–festetako programa.
(37) ERENTXUN, JOAN. *Apellidos blasonados*,in Enciclopedia guipuzcoana, 5–6–7. aleak. 1965.eko martxoa. Donostia (163. orr.)
(38) GARCIA GARRAFFA, A. eta A. *El Solar VascoNavarro*. 4. alea. Libreria Internacional argit. 3. argitaraldia. Donostia 1967 (242. orr.)
(39) ITURRIZA ZABALA, JOAN RAMON. *Historia de Vizcaya*. Bilbo 1885 (110, 111, 257. orr.)
(40) SAN MARTIN, JOAN. *Las primeras noticias de la Villa de Eibar*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1963. Donostia (227. orr.)
(41) IRIGOIEN, ALFONTSO. *Formas de nombres de localidades vizcainas*,in Fontes Linguae Vasconum. Maiatza–abuztua 1972. Iruñea (210, 211. orr.)
(42) "REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA". *Diccionario Geográfico–Histórico de España*. Lehen saila. Lehen alea. Madril 1802 (55. orr.).
(43) MITXELENA, KOLDO. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro argit. Madril 1964 (47. orr.)
(44) SAN MARTIN, JOAN. *Unaia. Testimonios de su uso y su significado* in Fontes Linguae Vasconum. Iruñea 1971 (88. orr.)
(45) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*. 2. alea. Iruñea 1964 (21, 228, 338, 339, 349. orr.)
(46) LAKARRA, JOSE M. *Vasconia medieval. Historia y filología*. Julio de Urquijo mintegia. Donostia 1957 (19, 42 - 45. orr.).
(47) URANGA, JOSE ESTEBAN. *Arte Medieval Navarro*. 3. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1973 (182. orr.)
(48) ALVAREZ OSES, JOSE ANTONIO. *Notas de Etno–Historia guipuzcoana*,in Munibe 1967. Donostia (129. orr.)
(49) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *El traje en la Fiesta Nacional*,in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (255. orr.)
(50) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 6. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (771, 772. orr.)
(51) CARO BAROJA, JULIO. *Vasconiana*. Minotauro argit. Madril 1957 (70. orr.)
(52) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografía histórica de Navarra*. 2. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972

(41, 42. orr.)
(53) GARCIA LARRAGETA, SANTOS A. *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalen.* 2. alea. Gomez argit. Iruñea 1957 (115, 206, 300. orr.)
(54) ELOSEGI, JESUS. *Breves fragmentos de historia guipuzcoana (I). Noticias referentes al siglo XIII,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1976. Donostia (159, 160, 172. orr.)
(55) IMAZ, JOSE ANTONIO eta beste. *Ataun.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (60, 67. orr.)
(56) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Bandidos y salteadores,*in Príncipe de Viana 1942. Iruñea (469. orr.)
(57) RIO, ANGEL DEL. *Jovellanos. Obras escogidas.* Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1955 (113. orr.)
(58) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques (ou le grand malentendu).* Association des Aficionados argit. Donostia 1981 (42, 43. orr.)
(59) LAFORCADE, MICHAEL. *La Tauromachie dans le Soud-Ouest de la France.* Mendi Martzana 1984 (36-38. orr.).
(60) DIEZ DE SALAZAR, LUIS MIGUEL. *El comercio y la fiscalidad de Guipuzcoa a fines del siglo XIII,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1981. Donostia (125, 132, 144, 145. orr.)
(61) AROZENA, FAUSTO. *Santa Fe de Champayn en Guipúzcoa,*in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1966. Donostia (154. orr.)
(62) MOLHO, M. *El fuero de Jaca. Edición crítica.* Fuentes para la historia del Pirineo. Zaragoza 1964 (120, 160, 382 - 384, 499. orr.)
(63) AROZENA, INAZIO. *Bermeo medieval,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1964. Donostia (407. orr.)
(64) BALPARDA, GREGORIO. *Historia crítica de Vizcaya.* Azken alea. Madril 1945 (96. orr.)
(65) PEREZ LABORDA, VICENTE. *Historia de una ganadería de Toros bravos en el siglo XIX de Tudela (Navarra).* Tutera 1980 (56. orr.)
(66) URANGA, JOSE E. *Escenas escultóricas de toros en la catedral de Pamplona,* in Vida Vasca 1948 (133-136. orr.)
(67) AZKARATE, JOSE MARIA. *Catedral de Santa Maria (Catedral vieja),* in Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. 3. alea. Gasteiz 1968 (96. orr.)
(68) XX. *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria.* 4. alea. Gasteiz 1975 (489. orr.)
(69) BALEZTENA, INAZIO. "PREMIN DE IRUÑA". *Los toros en Navarra.* Iruñea 1932 (7, 9, 10. orr.)
(70) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer.* Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (3, 4, 5. orr.)
(71) ZURITA, JERONIMO. *Anales de la corona de Aragón,* in Las Glorias Nacionales. 4. alea. Madril-Bartzelona 1852 (508. orr.)
(72) ARIAS DE LA CANAL, FREDO. *Los toros. Estudio psicológico.* Norte aldizkaria. 1983. Martxoa-apirila. Mexiko D.F. (25, 26. orr.)
(73) URANGA, JOSE XABIER. *El perro navarro y su paso por la historia,*in Vida Vasca 1950 (167. orr.)
(74) LABAIRU, ESTANISLAO. *Historia General del Señorío de Bizcaya.* 2. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1968 (820, 821. orr.)
(75) GOIENETXE, EUKENI. *Historia de Iparralde.* Txertoa argit. Donostia 1985. (49. orr.)
(76) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *La Iglesia y los toros.* Navarra. Temas de cultura popular. 234. alea. Iruñea 1975 (20, 21. orr.)
(77) ERENTXUN ONZALO, JOAN. *Cestona.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (135. orr.)
(78) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra,* in Príncipe de Viana 1942. Iruñea (361, 362, 364. orr.)

(79) CAMPION, ARTURO. *Nabarra en su vida histórica.* Ekin argit. Buenos Aires 1971 (299, 300. orr.)
(80) CASTRO ALAVA, JOSE RAMON. *Carlos III el Noble.* Navarra. Temas de cultura popular. 11. alea. Iruñea 1968 (16, 17. orr.)
(81) CASTRO ALAVA, JOSE RAMON. *Carlos III el Noble, rey de Navarra.* Gomez argit. Iruñea 1967 (132 - 134, 183, 195. orr.)
(82) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella,* in Príncipe de Viana 1942. Iruñea (316. orr.)
(83) AZKUNE, IÑAKI. *Zezenfestak Zestoan eta Euskal Herrian,* in Zestoa 1982. Festetako programa.
(84) LEKUONA, MANUEL. *Oyartzungo Iturriotz–Torreko marrazkiak,* in Zeruko Argia 420. alea. 1971.go martxoaren 21 (12. orr.)
(85) ABRISKETA, JOAN JOSE. *Más datos sobre el origen vasco del toreo de a pie,* in La Gran Enciclopedia Vasca. 9. alea. Bilbo (228. orr.)
(86) GOÑI GAZTANBIDE, JOSE. *Historia de los obispos de Pamplona.* 2. alea. Príncipe de Viana. Iruñea 1979 (394. orr.)
(87) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *El encierro de los toros,* in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (120. orr.)
(88) SUKIA, JOSE MARIA. *Monografía histórica de Zaldibia.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1975 (38. orr.)
(89) JIMENO JURIO, JOSE MARIA. *Sepulcro del rey noble.* Navarra. Temas de cultura popular. 108. alea. Iruñea 1971 (14. orr.)
(90) RIEZU, JORGE. *Nafarroa–ko euskal–kantu zaharrak.* Lekaroz 1973 (222–227. orr.)
(91) LAKARRA, JOSE MARIA. *Historia del reino de Navarra.* 3. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1973 (246. orr.)
(92) MITXELENA, KOLDO. *Apellidos vascos.* Txertoa argit. Donostia 1973 (165. orr.)
(93) MUTILOA POZA, JOSE MARIA. *Roncesvalles en Guipúzcoa.* Lehen alea. Gipuzkoako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1976 (39, 330. orr.)
(94) LOPEZ ZANDATEGUI, CRISTOBAL eta CRUZAT, LUIS. *Recopilación de leyes y ordenanzas de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa.* Donostia 1986 (187. orr.)
(95) KRUTWIG SAGREDO, FEDERIKO, *Roderiko Anzuolako,* in Hoja del lunes. Donostia 1983–I–3.
(96) IPARRAGIRRE, INAZIO. *Cegama, Cerain, Mutiloa, Idiazabal, Ormaiztegui.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1975 (110. orr.)

6.- ZEZENAK XVI. MENDEAN

Urtetan aurrera joan ahala, gure Herriko zezenfesten albisteak gero eta ugariagoak dira; ugariagoak eta zehatzagoak. Lehen isilpean zeuden herri batzuk, orain ekarriko ditugu argitara bertako udaletxeetan zezenen berriak XVI. mendeaz gero jasoak izan direlako. Badakigu, jakin, lerro hauetan merezimendurik franko duten herri askotako gertakizunak aipatzeke geldituko direla. Baina ezinbestekoa deritzogu horri, lanaren eta egilearen mugak kontutan hartzen badira bederen.

XVI. mendeko beste fenomeno bat, Elizak zezenfestak debekatzeko egin zuen lana litzateke. Debekuak debeku ordea, gure artean ez dirudi zaletasunak beherakadarik jasan zuenik. Ikus bestela edozein herritan eta edozein arrazoigatik zezenfestak zein azkar eta erraz antolatzen zituzten.

Dena den, kapituluaren hasieran, sarrera gisa edo, zezenen alderdi ludikoa alde batera utzita ez legoke gaizki abelazkuntzaren gorabehera eta zenbait datu ekonomi ikuspegiaz plazaratzea. Horregatik ekingo diogu kronologiari ahal den neurrian eutsiz, mendietako abel taldeen kontuak aipatuz.

Aralarren esate baterako, 1504. urtean Ordizia eta Amezketako ganaduzaleek behi-taldeak zituzten, eta akordio batera iritsi ziren gauez abereak saroera biltzen ez zituenari zigorrak finkatuz. Orduan, jabe desberdinen ganaduak elkartuz taldea osatzeko ohitura ere bazuten eta unaiek txabolak egiten zituzten saroetan. Aralar aldeko Insausti-n 1507. urtean egin zitzaketen behintzat agiri batek dioenez. Ganadu-jabeek bestetik, larreak alokatu ere egiten zituzten (1526. urte inguruan Lazkaoko etxeak zituenak adibidez) eta urtero ordaindu behar izaten zuten errenta[1].

Atauneko lurretan, XVI. mendean behi-taldeak aipatzen dira agirietan: *busto de fray elit* (1504), *Elate* (Eli=talde-tik) (1530), *Lazkau elia* (1569). Toponimian ere, hor dituzte ataundarrek *Bustizate gañe* eta *Bustizateko kobea* izenak abel taldeen eraginez[2]. Ataun eta Aralar inguruko behiak, txikiak, gorriak eta biziak ziren;*Mendibehiak* ziren; udaberrian mendira larrera bota eta udazkenean ikuilura biltzen zirenak. Batzuek, ez zuten udazkenean etxeratu nahi izaten, eta zakurren laguntzaz garraiatu behar izaten ziren.

Mendibehiez gain, *basabehiak* zeuden. Hauek urte osoa mendian igarotzen zuten; ez ziren baserrietara ekartzen, eta ehizatu egin behar izaten ziren[3].

Baina Aralarren baziren beste ehiztari batzuk ere. Hartzak esate baterako. 1559. urtean bi hartz hil zituzten, 1566.ean bat (Agauntza-n behiak jaten zituena) eta 1598.ean beste bat (Malkorburu-n). XVII. mendean otsoa ezezik tigrea ere harrapatu zuten Aralarren. Otso- edo hartz-hiltzaileari, saria ematen zioten orduan[4].

Aizkorri-ren inguruan berriz, XVI. mendeko bi berri aipa daitezke. Ganaduak larratzeko saroe asko zen han, eta besteak beste *Unamendi* izeneko bat ere bai[5]. Araba eta Gipuzkoaren arteko partzuergoa zen orduan Aizkorrin, baina 1516. urtean Altzania-ko lurrak zatitu egin zituzten. Hala ere, zerriak ezik beste abereak libre larra zitezkeen han[6].

Gipuzkoan ordea, eta lehentxeago idatzitako ataundarren *Elate* eta *Lazkau elia*ren hariari jarraituz, badugu beste *elia* baten (ganadu-talde baten) aipua. XV. mendekoa bada ere Lastur-eko Miliaren eresian, bere ahizpak honela zioen:

... Lastur-era bear doçu, Milia
Ayta jaunac eresten dau elia,...[7]

Berastegi eta Elduaineko jendeak ere bazituen behi-taldeak XVI. mendean, baina zergak ordaintzen zizkioten Berastegiko jaunari. Ez ziren gustora ordea eta 1545. urtean zama horretatik libratzekotan auzitara jo zuten. Orduan galdu zituen Berastegiko jaunak errenta haiek[8].

Gipuzkoako XVI. mendeko behi-taldeez, gorde diren inbentario batzuetatik ere atera daitezke kontuak. Andres Altzola kapitain elgoibartarrari 1562. urtean eginak dioenez esate baterako, 90 buru zituen behi, idi eta zekorretan, besteak beste[9]. Bergarako Albisua baserrikoa, 1566.ean egin zuten eta han baziren bi behi. Beste gauza askoren artean baita bi ezpata eta kapote nabar bat ere[10].

Serapio Mujika-k, 1563-64.ean Asteasun abereek zuten prezioa eta ordaintzen zuten alkabala zehazten digu idazlan batean[11]. Behiak bost edo sei dukat balio zituen. Idiak zortzi eta zekorrak ere berdintsu.

Araban, 1570. urtean Amurrio, Larrinbe, Derendano, Etxegoien eta Olabezahar bildu ziren beren mendi eta abereez ordenantzak egitekotan. XXV. atalean zehaztu zituzten batipat behi-taldeei zegozkien arazoak[12]. Okondo-n berriz, 1590.ean idatzi zituzten ordenantzak. Haien 72. atalak, behi- taldeak mendian noiz arte eduki behar ziren zehazten zuen[13].

Nafarroako Amezkoa-goikoan ere behi-talde asko zituzten XVI. mendean. 1545. urtean, auzia izan zuten Aranaratxe-ko aitonen seme eta nekazariek *Buruzagi*aren obligazioei buruz. Han idi-pare eta idi bakoitzagatik ordaintzen zuten zerga agertzen da[14]. *Buruzagia*, mendietako goarda zen garai hartan, eta *Maizterra*[8], unaien burua (gaztelerazko *mayorala*)[15]. Nafarroako Lesaka-n, bazituzten behi-taldeak, eta XVI. mendearen erdialdeaz gero, ganaduzaleek izendatutako maizter batek zaintzen zituen. Ordenantzak ere bazituzten ganaduen gobernurako[16]. Garai hartan, 1584. urtean, behi batek Lesakan zortzi dukat balio zituen eta zezenko edo idisko batek zortzi t'erdi. Prezio hori ordaindu zuen behintzat Migel Etxeberria izeneko unaiak, San Anton ermitako idiskoagatik[17].

Iruñean, XVI. mendearen bukaeran, zerbait garestiagoak ziren abereak. Uztarrirako idiak 20 dukat egiten zuen, behiak 10 dukat, zezenak 12 dukat eta zezenkoak 8 dukat[18].

Mendearen bukaeran eta debekuen arlora etorrita, bada Nafarroako abelazkuntzan eragina izango zuen agindu bat. Ordurarte, eta Orreagako agirietatik pentsa daitekeenez, Baiona aldera joaten ziren behi-taldeak neguan larratzera, baina Córdoba Lizentziatuaren bisitaren ondorioz (1586-1590) Gaztelako Felipe II.ak hautsi erazi egin zuen ohitura hura[19].

Eta gatozen besterik gabe XVI. mendeko zezenen festa-alderdira; mendearen hasiera-hasieratik bait daude berriak. Nafarroako Gorteko zezenfestarekin ekingo diogu hain zuzen. Oliten izan ere, 1501.eko urriaren 14ean Andres Febo printzea jaio zen, eta bi egun geroago zezenak jokatu zituzten[20]. Urte horretantxe, Tafalla-ko Udalak Pueyo-ko Katalina zezen-jabeari bizitza guztirako zergak barkatu zizkion, zezen suhar bat edukita festetarako herriari eman ziolako[21].

Tafallan bezalaxe, Erroman ere baziren zezenzaleak. Jules II. aita santu bera ere bai. Bere agintealdian (1503-1513) Navona izeneko plazan korritzen zituzten zezenak. Ravenna-ko batailako bezperan Jules II.ak antolatu omen zuen zezenfesta. Baita ihauterietan ere, zezen bakoitza hamabi dukat ordainduta[22].

Eta Erromatik Gipuzkoara jauzi eginez, Ordizian dugu beste albiste bat 1509. urtean. Han

San Joan egunez jokatzen zuten zezena ohituraz[23].

Mugaz bestaldera, Gaskonian ere bazuten San Joan egunez zezenak korritzeko ohitura. Saint-Severe-ko herrian 1510. urteaz gero badaude zezenfestei dagozkien gastuen zerrendak. Plaza zurginek ixtea, zezenak garraiatzea etab. zenbat kostatzen zen agertzen dituzte agiri horiek. Cossio-ren ustetan, zezenik ez bide zuten hiltzen eta Gaskoniako beste zenbait herriko festetan ere zezenak izango zituzten: Mendi Martzana, Montaut, Hagetmau, Grenade, Cazeres eta Castanet-en adibidez[24]. 1513. urteko Saint-Severe-ko agiri batek dioenez, herriko Tornessor-en (edo Tour-du-Sol-en) ipintzen ziren barrerak; gaur eguneko plazaren inguruan hain zuzen[25].

Tuteran, bi korrida egiteko ohitura zuten abuztuaren lehen egunean (San Pedro Ad vincula egunez) zinegotzi berrien aukeraketarekin batera eta 1517. urtean agindu batez debekatu egin zieten tuterarrei Argetas-ekoei zezenak bortxaz kentzea[26].

Urte hartantxe, edo hurrengoan (1518.ean), Espainiako Karlos enperadoreak Santander-eko San Vicente de la Barquera herrian gelditu beharra izan zuen gaixotasunak jota. Han, zezenfesta antolatu omen zuten hondartzan erregearen omenez, eta nekazari gazte batek esku hutsez zezena uzkali omen zuen adarretatik oratuta[27].

1518. urtekoak dira Azpeitiko zezenfestez diharduten lehen agiriak. Erregeen etorrera ospatzekotan, bost dukat ordaindu zizkioten Pedro Ruiz Agirreri zezen bategatik. Badirudi gainera, azpeitiarrek orduan aspaldiko ohitura zutela zezena jokatzea. Geroxeago, 1522. urtean, 4.722 marai ordaindu zituzten zezen, danbolin eta koblakariengatik. Barrera batzuk egitea ere ordaindu zuen urte hartan Udalak[28].

1524. urtean, sanjoanetan zezena korritu zuten Ordizian ohi bezala, eta lau dukat kostatu zitzaien[29]. Baina zezena hil ondoren larrua saldu eta okela herritarrek jan egin zuten[23].

1527. urtean, gero Felipe II. erregea izango zena jaio zela eta, Arrasaten zezenfestak izan ziren [30]. Karlos enperadoreak semearen jaiotza ospatuz zezen bat hil zueneko albistea, ipuin hutsa da[31].

Urte horretantxe, Tuterara Kabanillas-etik zeuden *idirik suharrenak* ekartzea agindu zuten festak ospatzeko asmoz[26]. Iruñean ere bazituzten zezenak aspaldidanik, baina udaletxekoak San Fermin-en prozesiora joaten zirela ziurtatzen duen lehen agiria, 1527. urtekoa da[32].

1528. urtean, Espainiako armadak, aita santuaren erreinuetara sartu eta Erroma konkistatu eta bipildu egin zuen. Hori ospatzeko, Balmasedan prozesioa, dantzak, ttunttuna eta zezenak izan zituzten. Zezenak, herri inguruko mendietatik ekarri ziren merkatu-plazara. Hura ixten 51 marai gastatu zituzten[33].

Hernaniko zezenez dauden lehen albisteak, 1531. urtekoak dira. San Joan egunez Martintxo Iriberri ergobiarraren zezena korritu zuten, eta horregatik Joan Lopez Alzegak, herriko boltsariak, urrezko dukata eman zion jabeari. Baita beste sei txanpon ere zezenaren garraioagatik[34].

Bi urte geroago, 1533. urtean, Azpeitian bi zezen jokatu zituzten enperadorearen etorrera ospatzeko. Zezen bat Joan Odria-rena zen, eta bestea, Errezileko Iarzaola baserrikoa. Erreziletik bi idiren laguntzaz ekarri behar izan zuten zezen hau. Larrutu ondoren, 41 erralde (205 kilo) pisatu zituen zezen honek. Zezenak plazan korritu zituzten, horretarako barrerak ipini ondoren[28].

1535. urtean, Azpeitiko agiri batean (iraileko 27koan), Udalak Pedro Ruiz Agirre eta Leizeaga–ren bi zezen zortzi dukat eta bi errealen truk erosi zituela dio. Espainiako armadak Tunez konkistatu zuelako ospatu zituzten festak. Zezenak bitan korritu zituzten eta ondoren oso zauriturik zeudenez, bi dukat t'erdian saldu zizkioten Joan Egibar–i.

Urte horretan, Espainiako itsasuntzien erasoagatik, Khair Eddin berberiarrak (*Barbarroja* goitizenez ezagutzen zenak) ihes egin behar izan zuen eta Azpeitian egunean lau zezen jokatu ziren, dantzak eta suak ere izan zirelarik. Joan Saez Odriarena zen zezen bat, Herarrizaga–koa (oraingo *Elarritza*?) bestea, Aranaz–ekoa beste bat (oraingo *Aratz–Erreka*?) eta Odriozola–koa azkena[28].

Karlos enperadorea Tunez–etik itzuli zenean, 1537. urtean Valladolid–en ere izan omen ziren zezenfestak bere aurrean[31]. Hiru urte geroago, 1540.ean, Francisco Pizarro konkistatzaileak Marenga–ren zezen bat burtzikadaz hil omen zuen Lima–n[35].

Urte horretantxe, eta Luis del Campo zezenzale nafarraren eritziz, Iruñean lehen korrida plebeiua eman zen. Hango toreatzaileak ez ziren profesionalak, baina urteak igaro ahala, kontratuz lan egingo zuten[36].

1542. urtean, Azpeitian zezenak korritu zituzten Santiago egunez. Zezenak Joan Ondarra–renak ziren, eta barrerak Martin Sagardia eta Pedro Arriaran–ek ipini zituzten[28].

Garai hartan, Elizako agintari batzuk Trento–ko kontzilioaren inguruan (1545–1563) zezenfesten aurka idazten hasi ziren. Lan horretan famatuenetakoa Joan Bernal Diaz de Luko, Kalagorri–ko apezpikua izan zen. 1543. urtean *Practica criminalis canonica* liburua burutu zuen eta hona pasarte batean dioena[37]:

... que ninguno se atrever a negar sea inhumana semejante accion de lidiar toros, ni que toque a la antigua barbarie, siguiendosele muchas muertes, pues se va aumentando el placer a medida del rencor de los toros, irritada con dardos su ferocidad contra los hombres.

Kalagorri–ko giroa ordea, erabat zezenen aldekoa zen. Zezenfestak, katedraleak nahiz Udalak antolatzen zituen, eta elkar gonbidatzen zuten beti. Katedraleko kalonjeek, beren ganadutegia eta hiltegia zuten, eta ganadutegi horretatik hartu ohi zituzten festetarako behar ziren zezenak, katedraleko *Rasillo*an korritzekotan.

Bernal apezpikua Trento–ko kontzilioan teologo gisa izana zen, eta handik itzuli ondoren kalonjeek antolatutako korridak debekatu egin zituen. Kalonjeek kontra egin zioten apezpikuari zezenak Ama Birjinaren ohorez jokatzen zirela eta ohitura guztiz zaharra zela esanez. Dena den, hurrengo urteetan kalonjeek joan ohi ziren berriro ere zezenetara[38]. Hala ere, Joan Bernal apezpikuak 1553. urtean *Constituciones Sinodales* liburua argitaratu zuen elizbarrutiko hilerrietan zezenak jokatzea eta elizgizonek toreatzera irtetea zorrotz debekatuz[37].

Aragoa–n ere zezenzaleak gehiago ziren Kalagorri–ko jendearen antzera. Han ere edozein herritan jokatzen ziren zezenak. Cinca ibaiaren ondoko Monzon herrian adibidez, 1547. urtean antolatu zuten zezenfesta, orduko agirietan agertzen denez[39].

Mendearen erdian, 1550.ean, Iruñean izan ziren zezenak Santiago egunez. 98 dukat gastatu ziren Gaztelu–plazako txukunketa, barrera eta zezenengatik. Zezen bat Untzue–ko abadeari erosi

zioten 9 dukat zaharren truk. Hurrengo urtean, 1551.ean, iruindarrek Migel Ansa sastakaigileari dukat t'erdi eman zioten Santiago eguneko zezenetarako egin zituen ezten–hagengatik[20].



6.1. irudia. Donostiako mapa, 1.552. urtekoa. Plaza zaharrean jokatzen zituzten zezenak.

1552. urtean, Juan Gutierrez Altamirano lizentziatuak, nafar–zezenak eraman zituen Mexikora Luis de Velasco hango erretorde zela. Gutierrez Altamirano hau, Hernán Cortes–en lehengusua zen eta konkistan parte hartu zuen. Horregatik *Calimaya* eta beste herri batzuk beretzat hartu zituen Gutierrez Altamirano lizentziatuak. Herri guzti hauek, *Toluca* izeneko bailaran zeuden. *Toluca* hitzak, bertako *nahuak* hizkuntzan *zezen–lurra* esan nahi du, Zestoan 1394. urteko agiri batean agertzen den *Zezenarrok* bezalatsu. 1582. urtean Errezilen hildako *Juan Largo de Cecenarro* baten berri ere badago[40].

Esan bezala, Gutierrez–ek Nafarroatik zezen eta behi hamabi bikote eraman zituen itsasoz Mexikora. Han, *Atenco* (*ibaiondo* nahuakeraz) izeneko ganadutegia sortu zuen; Mexiko–ko toreaketa–zezenak zerbitzen lehenengo hasi zena eta ohoretsuena dena. Atenco–n ugaldu ziren nafar–zezenak eta gero krioiloekin nahastu baziren ere, beren ezaugarriak mantendu egin zituzten. Nafar–zezen haiek, sorterrian geratutakoak bezalaxe, txikiak ziren altueraz, kizkurrak ilaiaz eta gaztainkara edo gorriak kolorez. Estimazio handia izan zuten Atenco–ko zezenek, eta ospakizun nagusitan jokatu ohi zituzten[21].

Ia lau mende geroago, Cossio zezenzale ospetsuak Antonio Fuentes eta Rafael Gomez *el Gallo* toreatzaileengandik jaso zuenez, Atenco–ko zezenek eta Zalduendo nahiz Karrikiri–renek portaera berdina zuten plazan[41].



6.2. irudia. *Nevado de Toluca* mendia Mexiko hiritik.

Mexiko–ra nafar–zezen gehiago ere joan da geroztik. Vasco de Quiroga abelazkuntzan saiatu zen bere *San Nicolás de Parangueo* izeneko haziendan, Guanajato–ko estatuan. Hango Tarasco izeneko lurretan zeuden basabehiak Nafarroatik eramandako zezenekin nahastu zituen eta Parangueo zezen suharren ganadutegiari hasiera eman zion.

Bestetik, badirudi nafar–zezenak zirela XVI. mendean misiolariek Ecuador–era eraman zituztenak. Misiolari hauek, elizak eta komentuak eraiki zituzten beren baratza eta guzti. Baratzak zakurrez zaintzen ziren, baina indiarrak ez ziren zakurren beldur. Zakurrei erraz iruzur egiten zieten eta barazkiak lapurtzen zituzten. Misiolariek orduan, baratzak bi horma paraleloz hesi zituzten perimetroan lau kale (karratua osatuz) sortzen zirela. Isolatutako kale bakoitzera behi edo zezen suhar bat botatzen zuten baratza indiarrengandik gorde zezaten. Sistema honek arrakasta izan omen zuen; zakurrenak ez bezalakoa[21].

Eta Nafarroara itzuliz, Erreinuko Artxiboan bada zezen eta ikuskizun publikoei buruzko paper–sorta bat; 1553. urtetik 1833.erainokoak biltzen dituena hain zuzen.1591.etik 1803.erartekoa biltzen duen beste eranskin bat ere bada[42].

1554. urtean, Nafarroako Biana hirian Gaztelu–plaza berdindu eta hesi egin zuten zezenak korritzeko asmoz. Erretordea, Alburquerque–ko dukea etortzekoa zen urte hartan eta zezenfesta antolatuz omendu nahi zuten[43].

1555.ean, Iruñean Martin Inza eta Martin Larrainaz–i (harakinei) 42 dukat eta 11 taia ordaindu zitzaizkien Santiago egunerako Erriberako Kortes herrian erositako bi zezenengatik. Beste zezen bat ere ekarri zuten Kortes–etik hiru dukat t'erdi ordainduta[20].

1555. urtean bertan Saint–Severe–n lau zezen erosi zituzten plazan jokatzeko batezbeste Bordeleko 20na libera ordainduta. Tuournessor–eko plaza bi zurginek itxi zuten, eta zezenak garraiatu zituen unaiari zapata–parea eman zioten[44].

Urte hartantxe Gaztelako Gorteek eskabidea egin zioten erregeari Valladolid–en zezenak korri ez zitezen, edo korritzen baziren ere hainbesterainoko kalterik egin ez zezaten aginduren bat eman zezan. Eskabide bera egin zuten 1567.ean Madrileko Gorteetan. Nafarroako Gorteetan ez zen antzekorik gertatu 1817. urterarte. Urte horretan kendu bait zuten Diputazioa bildurik zezenetara

joateko ohitura[45].

Zezenen aurkako eskabide hauen arrazoiak, desberdinak izan zitezkeela pentsa daiteke. Batetik, zezenfestetan izandako heriotzen aurkako erreakzioa izan zitekeen. Bestetik, Trentoko kontzilioaren eragina egon liteke. Kontzilio hau, hiru alditan burutu zen (1545–1547; 1551–1552 eta 1562–1563) eta bigarren saioa bukatu ondoren, heresia eta paganismo–kutsu handiegikoak gerta zitezkeen Inkisizioa sorginen aurka ari zeneko aldi hartan batzuentzat.

Elizgizonak gainera, moralaren ikuspegitik zezenetan parte hartzea pekatu zen ala ez erabakitzen letra asko idatzi zuten. Ikus bestela 1558.ean Fray Francisco de Alcocer–ek bere *Tratado del juego* liburuan zezenez idatzitakoa[22].

1559.ean, Frantziarekin bakeak egin zituzteneko urtean, Balmasedan zezenak jokatuz ospatu zuten gertakizun hura. Zezenari ezten–hagak bota zizkioten eta gero burdin pusketak aterata zauriak sendatu zizkioten. Baina azkenean, zezena hil eta okela pobreei eman zieten. Zezenekin batera, dantzariak izan ziren urte hartan Balmasedan, ohizkoa zenez[33].

1560. urtean, uztailaren 8an Iruñeko Udalean santiagotan zezenak korritzea erabaki zuten, eta horretarako dei egin zieten harakinei[20]. Urte horretan bestetik, Elisabet erreginari (Valois–eko Elisabete–ri) ongietorria egin zioten Iruñean. Zezenak, dantzariak eta beste jolas batzuk izan zituzten orduan[46]. Urtarrilaren zortziko gauean, zezensuzkoak izan zituzten. Baina ez oraingokoen antzekoak. Zezenak eta idiak (egiazkoak) suziri eta burrunbagailuz beteta korritu zituzten. Adarretan gurpilak zituzten suziz eta bolboraz beteta. Asmatzekoa da sututako zezen haiek aterako zuten istilua eta zalaparta. Jendeak toreatu, izterzainak ekabi eta hil egiten zuen azkenean zezensuzkoa[47].

Hurrengo urtean, 1561.ean, Iruñean bigarren euskal liburua argitaratu zen: Anso Elsokoaren dotrina, nahiz eta alerik ere kontserbatu ez den. Hirugarren alea, Leizarraga beskoiztarrak egindako *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu berria*, 1571. urtean argitaratu zen. Baina ez da ahaztu behar Nafarroako erreginak, Joana Albretekoak eman ziola liburua egiteko agindua protestantismoa bere erreinuan (Euskal Herriko iparraldean) hedatzekotan.

Dena dela, 1561. urtean Joana Albretekoa bere semeekin Paris inguruan zen eta zezenak jokatu zituzten han, Saint–Germain–en–Laye–n irailaren bian bere omenez[24].

Lau urte geroago, 1565.eko agiri batean, Tuteran zezenfestak Errementari plazan egiten zirela frogatzen da. Alvar Perez bere etxeko balkoi luzea hiriko udalgizonei uztera behartua zegoen festa–egunetan[26].

Urte horretantxe, Donostian jaio zen otsailaren 14ean Alonso Idiakaitz jauna; San Telmoko komentua sortu zuten Alonso Idiakaitz (Karlos enperadorearen idazkaria) eta Grazia Olazabalen Joan semearen (Felipe II.aren idazkariaren) semea[48]. Alonso Idiakaitz hau, gero Nafarroako erretorde izan zen eta Azoreak Irletako *Terceira* izenekoan zezenen kontra gerra egin behar izan zuen[49]. Felipe II.ak, Pedro Valdes bidali zuen tropekin lau untzitan Azoreak Irletara *Terceira* irletako biztanleak menperatzera. Tropa horietan zihoan Alonso Idiakaitz donostiarra. Baina irla hartan, agustindarren ordenako fraide batek gidaturik, bertakoek zezenak bildu eta ezten–hagaz xaxatu ondoren, Gaztelako tropen aurka bota zituzten. Laurehunetik gora hil ziren armadakoak eta hogeitamar baino gutxiago bertakoak.

Burrukalditan zezen suharrak erabiltzeko sistema hau, beste leku batzuetan ere erabilia izan da. Espainiako independentziako gerran Aragoan adibidez, edo Orisson buruzagiak Amilkar Barka

kartagotarraren aurka Helike-ko batailan Iberiar Penintsulan[24].

Alonso Idiakaitz honen semea zen Joan Alonso Idiakaitz, 1622. urtean Loiolako San Inazio kanonizatutakoan Azkoitian zezenak zaldiz toreatu zituena.

Baina gatozen 1565. urtera ostera, Gaskoniako zezenen aipuak egitera. Herrietako kaleetan, hiltegirako behi eta idiak korritzeko ohitura zuten orduan. Istripuak medio kalteak gertatzen zirelako, zenbait herritan debekatu egin zituzten; 1565.ean Bordelen adibidez. Zezenfesta hauek baino arriskutsuagoak eta basatiagoak ziren, noski, Saint-Sévère, Mendi-Martzana (Mont-de-Marsan) eta Bazas-en herriko festetan antolatzen ziren korridak. Urte horretan gainera, maiatzaren seian zezenfesta berezia ospatu zuten Bazas-en zenbait pertsonaia garrantzitsuren omenetan. Han bait ziren Karlos IV.a, Katalina Medici, Nafarroako Enrike printzea eta beste. Zezenak, eztenkadaz aurka eginez toreatu zituzten[24].

Garai hartan, Donostian ere jokatu bide ziren zezenak plaza zaharrean; harresi ondoan. 1566. urtean, Donostian bizi zirenetako bat, Domingo Lizartza dugu, *Torillo* goitizenekoa, eta donostiar honi ezarri zioten izenak badu zezenekin loturarik[50].

1567. urtean, erreginak semea izan zuelako, Azpeitian sokamuturra izan zuten. Joan Ondarra eta Pedro Altuna harakinek idi edo zezen bana ekarri zuten eta lokarriari lotuta korritu zituzten herrian. Dukat bat ordaindu zuten zezen bakoitzagatik[28].

Zerain-en, urte hartantxe, pintatzailetan famatuenetakoa izandako eta tauromakiarekin zerikusi estua izan zuen Goia-ren berraitonaren aita (Pedro Goia) ezkondu zen Mariana Etxandiarekin[51].

Iruñean berriz, santiagotan zezenak jokatu ziren ohi bezala[20], nahiz eta Pius V.a aita santuak bere *De salutis gregis dominici* bulda famatuaren bitartez eskomikuz debekatu. Egia esan, Espainiako Felipe II.ak aurka egin zion bulda honi, eta ez zen bere erreinuetan publikatu.

Pius aita santuak, Borjako San Frantzisko, Espainiako Castagna nuntzioa eta beste zenbaiten aholkuei jarraituz idatzi zuen bere bulda. Han zioenez, zezenfestak traketsak eta odoltsuak zirenez kristautasuneko karitate eta pietatearen kontrakoak izateagatik debekatu behar ziren[45].

Gaskonian izan zuen eragina Pius aita santuaren bulda debekatzaile hark[44].

Tuterarrek ordea, beste era batera ulertzen zuten kristau-pietatea, eta hurrengo urtean, 1568.ean, bi zezenfesta ospatu zituzten handik ateratako diruarekin Santa Ana hiriko zaindariaren irudiari burua egitekotan[52].

1570. urtean Bazas-eko apezpikuak zezenetarako bere debekua argitaratu zuen, eta harez gero Gaskonian zezenfestak isilpean antolatuko zituzten; harakinek batez ere, beren zakurrez zezenak kaleetan korrituz[44].

1570. urtean, Ana erregina Felipe II.arekin ezkontzera etorri zen Santander-era eta Domingo Iraetak eskutitza idatzi zuen Donostiako udaletxera berri emanez, erregina bertaratzen zenerako festak presta zitzaten. Udalak horretarako, gauez etxetako leihoetan suak ipini eta harakinek idi batzuk sokari lotuta gauez korri zitzaten agindu zuen. Gauezko sokamuturra izan zuten beraz donostiarrek 1570.ean[53]. Babil Arbelaiz eskribauak deskribatu zuen gero gaueko festa hau. Sokamuturreko idiak buztanean farola omen zuen, eta jendeari (gizonezko nahiz emakumezkoei)

erasotzen zion bakoitzean, erreginak farreari ekiten zion. Batzuek, idia suziz zirikatu zuten, erre-usaia zeriola utzi arte. Zauritu bakarra izan omen zen. Zezenaren ondoan su gainera erori eta itsutu egin zen bat. Alkateak, agindua eman zion boltsariari idia hiltzen bazen adarra grabaturik sari gisa itsuari eman ziezaioten. Mourlane Mitxelena-ren eritziz, orduan adarra ematea orain belarria ematearen parekoa zen[54].

1571. urtean, Iruñeko Gazteluak militarki zuen garrantzia galdu egin zuen. Urte horretan, gotorleku berria (ciudadela) eraikitzen hasi ziren Fratin-en ardurapean. Hortik aurrera, Iruñeko gaztelu zaharra apurka-apurka hustu eta erori egin zen[55]. Baina Gaztelu-plazak segi zuen urte askotan festaleku izaten; zezenak korritzeko plaza nagusi izaten alegia.

1571. urtean bertan, Esteban Garibai arrasatearrak Flandeseko Antwerp-en (Amberes-en) bere *Compendio historial* izeneko 40 liburu argitaratu zituen, eta horko ipuinetako batean, zezenfesten kontrako arrazoi bitxia dator pertsonaia baten ahotan. Jaun batek zioenez, zezenak gizonei ihes egiten erakusten dietelako ez lirateke jokatu behar[24]. San Frantzisko nafarraren anaia Joan Xabier-ek ere horrexegatik ez omen zituen zezenak ikusten[37].

Ez dakigu suzko banderilak zein lekutan erabili zituzten lehenbizi, baina Mulas Perez idazlearen arabera, 1572. urtean hasi ziren sistema hau erabiltzen[56]. Banderila hauek, gero XX. mendearen hasierarte iraun zuten zezenfestetan eta ganadu koldarrari sartzen zizkioten. Banderilak bolboraz eginak ziren, eta sututakoan, danbatekoak ateratzen zituen zezen koldarraren bizkarrean, aberea izutu eta bizkortzen zuelarik.

1573. urtean, Portugaleko Evora hirian bertako apezpikuak Pius V.aren 1567.eko *De salutis gregis dominici* izeneko bulda famatua argitaratu zuen bere elizbarrutian. Aurrez, Elizaren eraginez edo, Portugalen zezenak bolaztaturik korritzen hasiak zeuden[24].

Nafarroako Bianan, ez dirudi debeku horiek batere eraginik izan zutenik. 1574. urtean, bi zurgini 24 erreal ordaindu zizkieten Gaztelu-plazan zezenak korritzeko egin zituzten ate, itxitura, udaletxekoentzako oholtza eta abarrengatik[43].

Hurrengo urtean, 1575.ean, Gregorio XIII.a aita santuak berak esku hartu zuen zezenen debekuei buruzko arazoetan. *Expone nobis* izeneko bulda sinatu zuen abuztuaren 23an, eta Pius V.aren zigorrak bere hartan elizgizonentzat bakarrik utzi zituen. Gainerakoek beraz, parte har zezaketen zezenetan eskomikuen beldurrik gabe[43].

1577. urtean Bizkaiko Gutierrez de Prado korrejidoreari zezenak korritzeko aita santuaren baimena iritsi zitzaion. Baina zezenak ezin zitezkeen jaiegunez joka[57]. Jaiegunak elizkizunetarako ohi ziren, eta biharamunak zezenetarako.

Martin Azpilikueta Jauregizar (1492-1586) kanonista ospetsuak (Barasoainen jaioak) aldaketak izan zituen bere zezenetarako jarreran. Hasieran, erabat debekatzearen aldekoa bazen ere, bere azken urteetan zera zioen: beharrezko neurriak eta arreta hartuz gero, zezen-korridatan parte hartzea ez zela pekatu larria[37].

Garai hartan moralistek beren eragina bazuten ere, 1579. urtean Balmasedan beste auzi bat izan zuten. Alkateak, usadioaren eta herritarren nahiaren kontra, zezenak San Pedro egunez herriko plazan jokatzea nahi zuen. Ordurarte, merkatu-plazan jokatu zituzten haragi-hornitzaileak obligazioz zerbitu beharrezko zezenak eta auzitara jo zuten. Korrejidoreak herritarrei arrazoi eman

ondoren, sanpedrotan merkatuan korritu zituzten lehenbizi zezen guztiak eta gero herriko plazan. Hurrengo urtetan, herriko plazan bakarrik[33].

Oraintxe esan dugunez, Balmasedan haragi-hornitzaileak festetarako zezenak ekarri behar zituen. Gipuzkoako Asteasun, errotarien esku zegoen zeregin hori. Asteasun, 1580. urtean bertako herritarrak kexu ziren errotetako zerbitzuak behar bezala antolaturik ez zeudelako. Udalak orduan, errota berriak egin zituen (Urmategi 1582an, Behekoerrota 1583an, Txulo-errota 1593an). Udalak errotak errentan ematen zituen, laka zehaztuz. Baina errotari bakoitzak, zezenko bat ekarri behar zuen herriko festetan (sanpedrotan) jokatzekotan.Baita sei libra bolbora ere Gorpuzti eguneko prozesiorako[58]. Errenta ordaintzeko sistema hau, ez da harrigarria garai hartako giroa kontutan hartuz gero. Herriko festetan zezenak izatea lehen mailako premia bait zen.

1586. urtean, Azpeitian santiagotan zezenak korritu zituztenaren arrastoak badaude. Joan Oñaz-i ordainketa egin zitzaion barrerak ipintzen egindako gastuengatik eta Simon Mandiola-ri ere bai barrerak egiteko hamabost gurdikada egur ekartzeagatik. Felipe Martinez Urangak zuzendu zituen barrera-lanak[28].

Hurrengo urtean, 1587.ean, Donostian korritu zituzten zezenak Santiago egunez. Abuztuaren 3an, 342 erreal ordaintzea erabaki zuten udaletxean barrerak ipintzerakoan izandako gastuengatik[51].

Aurreko urte batzuetan izurriteagatik edo Balmasedan zezenak jokatu ez baziren ere, 1588. urtean izan zituzten. Gorpuzti eta San Joan egunez, zezenak izan ziren. Harez gero, urtero korritu zituzten zezenak eta dantzak Gorpuzti, San Joan eta San Pedro egunez[33].

Lizarran ere sanjoanetan zezenak izan zituzten urte horretantxe. Lau dukat gastatu zituzten zezenak antolatzen. Beste bi berriz, alkabuzetako bolboratan[59].

1589. urtean, Iruñeko Pedro de la Fuente apezpikuak gutun zorrotza bidali zuen Zarautza. San Pelaio egunez zezenak korritzen zituztela eta eskomikuaren mehatxu egin zien udalgizonei eta herritarrei. Zarauzko zaindariaren egunean, eta Elizak jaiegun izendatutako beste edozeinetan, ez zegoen zezena jokatzerik[60]. Biharamunerako utzi behar ziren festa horiek.

1590. urtean, Fray Juan de Victoria-k, Arabako eta Gasteizeko ohituren berri eman zuen idatziz. Hark dioenez, Gasteiz hiriak San Joan egunean festak egiten omen zituen. Lakua-ra prozesioz joaten omen ziren arma eta guzti. Artileriaren danbatekoak eta zezenak ere baziren han, besteak beste[61].

Gipuzkoako Astigarragan, santiagotan zezenak izaten zituzten herriko plazan. Hori dio behintzat bertako Juan Ortega Plaza, Markos Plaza eta beren anaiek Valladolid-en eragin zuten 1590.eko agiri batek[62].

Nafarroako Lizarran berriz, Lakua-n bezalaxe San Joan egunez zituzten zezenak. Urte hartan ordea (1590.ean) bezperan dantzak eta musikak ere izan ziren. Lope Mendiko-ri bi erreal eman bait zizkioten belar batzuengatik (hierbas buenas) eta bezperako danborraldiko ardoagatik[59].

Iruñean, 1590. urtean azken aldiz ospatu zuten urriaren 10ean San Fermin eguna. Udalak eskaturik, Bernardo de Rojas y Sandoval apezpikuak sinodoa egin ondoren uztailaren zazpira aldatu zuen 1591.ean San Ferminen festa-eguna. Ordurarte, zezenak santiagotan korritzen ziren Gaztelu-plazan (korritu bakarrik, zezena hiltzen XVII. mendean hasi zirelako) eta harez gero egin zituzten sanferminetan zezenfestak eta feriak; biharamunean beti ere zezenak, edo larunbatez

(biharamuna ostiral izanik haratuzte-eguna zelako)[45].

Bernardo de Rojas apezpikuak ordea, 1591.ean argitaratutako *Constituciones Synodales del obispado de Pamplona*-n, San Ferminen jaieguna aldatzeaz gain elizgizonei debekatu egin zien dantzara edo zezenetara joan zitezen. Zezenak korritzen ziren tokietan egoteagatik, bi dukat eta hamar eguneko gartzela ezarri zuen zigortzat[22].

Urte horretantxe, azpeitiarrek 39.369 marai ordaindu zituzten zezenfestagatik, beren barrera, danbolin, dantzari eta abarrrengatik. Simon Leete eta Martin Garmendia arduratu ziren barrera-arazoaz, Esteban Mantxola atabalaz eta bergarar bat txistu-soinuaz eta dantzarientzako txintxarriez[28].

Hurrengo urtean, 1592.eko azaroan, Espainiako Felipe II.a Nafarroatik pasa zen Zaragoza aldera. Lizarran gelditzekoa zen, eta bertako hiritarrek 18 zezen erosiak zituzten Mendabian festarako. Baina erregea hilaren 17an arratsaldeko bostetan iritsi zen eta elurra eta euria egin zuen orduan. Hurrengo goizean goiz berriz, Felipe II.ak alde egin zuen hiritik eta lizarratarrak han gelditu ziren beren 18 zezenekin. Orduan, zezenei hiriko marka (izar bat) burdinez ipintzea (xakiatzea) eta ostera Mendabiara bidaltzea erabaki zuten. Joan Fernandez Estenoz eta Joan Lopez Lerin joan ziren ganaduarekin Mendabiara, bertako unaiek Lizarrako hurrengo festaldirarte eduki zitzaten[63].

Erregea, Lizarratik Iruñera joan zen. Han ere, festak prestaturik zituzten eta zezenak ere bai, noski. Iruñean, 24 zezen korritu ziren. Juan Montalbo aditua arduratu zen aurrez zezen horiek erosteaz. Urriaren batean Katalina Agorreta emazteari agur egin ondoren, Nafarroako hegoaldera jo zuen. Gares-en, 22 dukat eta 2 errealetan zezen beltz basatia eta oso ona erosi zuen. Handik Buñuel-era pasatu zen eta han Losada-ko konteari hiru zezen erosi zizkion. Zezenen marka, M eta lislorea zen eta beren izenak, *Candelero*, *el Moyno* eta *el Escuret*. Pedro aragoarrari bost zezen erosi zizkion. Markatzat, itxoroskia zuten (x) eta izentzat *Robin*, *el Cacho* (marrabelztun gorribeltza), *el Cogot*, *el Laminero* eta *el Cabo* hurrenez hurren. Korellan, Joan Bea-ri bi zezen erosi zizkion; beltza, sei urtekoa eta buztanmotza zen bata eta lau urtekoa, *el Sillado* izenekoa (gerrizilaua zelako agian) eta zurihoria bestea.

Kortes-en, bederatzi zezen ikusi eta lau erosi zizkion Mendieta-ri. Bi S gurutzatu zuten xakitzat, eta izentzat *el Ribero*, *el Roio*, *el Brabol* eta *el Cubero*. Eta horrela aritu zen Juan Moltalbo bere hogeitalau zezenak bildu arte[20].

Felipe erregea, azaroaren 23an joan zen Iruñetik eta egun bat Tuteran egin ondoren Tarazonara iritsi zen. Han ere zezenak korritu ziren ibai ondoan[46].

1592. urtean, Lekeition bigantxa bat korritu omen zuten San Joan egunez[64].

1593. urtean, berriz, Azpeitian izan zituzten zezenak urtero bezala, barrerak kentzeko ordainagiriak gaztigatzen duenez[28].

Aldi hartan, Aragoa eta Euskal Herriko zenbait oinezko toreatzaile bazen zezenetan lan egiten zuenik. Euskal deiturakoak beste lurraldetan ere baziren. Toreatzaile hauetako bat, Joan Guardiola andalusa zen; 1594. urtean Sevilla-ko San Frantzisko plazan toreatzen kapa erdibitu zitzaiona. Guardiolak horregatik, laguntza eskatu zion Udalari kapa berria erostearren. Berak zioenez, zezenak arin toreatu eta lantze onak burutu zituen[65]. Iruñean berriz, 1594.ean San Fermin egunez eta hurrengo igandez entzierroa egin zuten Zapatari kalean. Horretarako kalean hesiak ipini

zituzten[66].

Urte horretan Tuteran, bertako haragi-hornitzailea (Felipe Frances) kexu zen berak Santa Ana eta San Martzial jaietarako ekarri zituen zezenei gazteek tratu txarra eman zietelako. Hiru korridatarako, hogeitabi zezen bikain (zeuden onenak) kontratatu bait zituen Ebro ibarrean eta Aragoan[21].

Azpeitian, hurrengo urtean, santiagotan zezenak izan ziren ohiturari jarraituz. Urte horretan gainera (1595.ean) Probintziaren aginduz armen agertaldia izan zen Azpeitian. Lau zezen jokatu ziren. Bata Pagaola baserritik ekarri zuten zortzi dukatetan eta beste hiruengatik hogei dukat ordaindu zituzten. Hiru zezen hauek, gero hamalau dukatetan saldu ziren. Bizente Egibar-ek antolatu zuen korrejidore eta agintarientzako oholtza [28].

1596.ean, Lizarran San Joan biharamunean izan ziren zezenak usadioari jarraiki. Urte hartan, bertako elizak lau dukat eman zituen laguntza gisa Pedro Gebara eta Felipe Tafalla toreatzaileei ordaintzearren [59].

Urte horretakoa da bestetik Julio Urkixo-k argitaratutako euskal atsotitz edo errefrauen bilduma. Atsotitz horietan, behiak eta idiak nahikoa sarri aipatzen dira: *Idi zarrari arran berri, Ardi adarduna ta bei sabelduna* eta antzekoak[67].

Erroman berriz, Klemente VIII.a aita santuak beste bulda interesgarri bat argitaratu zuen 1596. urtearen urtarrilaren hiruan. Aurretik, esana dugunez, 1567.ean Pius V.ak zezenfestak guztientzat debekatu zituen eta gero 1575.ean Gregorio XIII.ak debekuak elizgizonentzat bakarrik utzi zituen. Klemente VIII.aren *Suscepti muneris* buldaren bitartez ordea, elizgizonek ere bazuten harez gero zezenetara joateko baimena. Bulda hau, Felipe II.aren eraginez argitaratu zuen aita santuak dirudienez. Nahiz eta erregea bera zezenzale izan ez, noblezia bazen eta haien adiskidetasuna bereganatu nahiz indar egin bide zuen Erroman[45]. Zerbait geroxeago dena den, (1598-III-10) Klemente aita santu berak Ciudad Rodrigo-ko apezpikuari bidalitako eskutitzez *San Markos zezenaren* festa kondenatu egin zuen, sineskeria, jentilkeria eta idolatriaz beterik zegoelako [68].

Elizaren zezenen kontrako lehia honetarako, Trento-ko kontzilioaren eraginaz gain festa hauen jentiltasuna izan daiteke arrazoi bat. Bestea, zezenetan izaten ziren kalteak agian. Izan ere 1597.ean Kristobal Perez Herrera medikuak Felipe II.ari eskutitz batean adierazten zionez, urtero hirurehun pertsona baino gehiago hiltzen ziren zezenen adarretan, zaurituak aparte. Horregatik eskatzen zion plazan toreatzaile trebeak bakarrik egon zitezen eta nabarmentzearren txapel gorria izan zezaten [69].

Baina txapelarekin ala gabe, gure herrietan zezenak noiznahi antolatzen zituzten. Azpeitiarrek 1597.ean San Agustin egunean izan zituzten, dantzari eta guzti [28]. Iruñean, sanferminetan jokatu ziren zezenak. Horretarako Frantzisko Gil zinegotziak sei zezen erosi eta hiriak Kortes-en bereak zituen beste zortzi ekartzeko ardura hartu zuen [20].

Hurrengo urtean, 1598.ean, Iruñean aspaldiko ohitura bat aldatu egin zuten. Ordurarte, guztiz aspalditik Iruñean urtero enkantean ematen zen hiririko haragi-horniketa. Harakinak ordea, urtero baldintza bat bete behar zuen beste herri askotan egiten zenaren antzera: bere kontura 10 zezen ekarri eta Gaztelu-plazako toriletan ipini behar zituen udalgizonek zerizkiotenean jokatzekotan. Ganadu koldarrik eta iditzarrik ez zuten udalgizonek nahi, festak bere maila izan zezan.

1598.ean ordea, ohitura hau aldatu egin zen Iruñean. Udalak berak erosi zituen zezenak

sanferminetarako, eta harakinak 100 dukat eskaini zituen (hurrengo urtean 140) bere obligazioa ez betetzearren. Diru harekin erositako zezenak gainera, gero hiriarentzat geldituko ziren [70].

1598.ean eta Iruñean, sanferminetan zezenez gain teatro-saioak eta dantzak izan ziren. Joanes Campos-ek *zaldiko-maldiko*ak atera zituen dantzan zaldun-torneoa imitatuz. Martin Ubani iruindarrak bestetik, bere zortzi dantzariekin toreaketa imitatu zuen. Batzuek *zaldiko*en gainean eta beste batzuek oinez, zezen antzeko bat toreatu zuten. Txirulen erritmoari jarraituz, burtzitxoak, banderilak eta hagatxoak sartu zizkioten zezenari [32].

Iruñean bezalaxe Euskal Herriko beste herrietan ere, elkarturik agertzen dira urte askotan zezenak, dantza, musika eta mozorroa. Elkarloturik iraun dute gure baitan mendetan zehar elementu hauek.

Adibide bat ipintzekotan, 1598.eko Balmasedako festak aipatuko ditugu. Hamar zezen ekarri zituzten sanjoanetarako inguruko mendietatik, baina baita *ijitoak* eta danbolindariak ere herriko bakarra gutxi zela eta [33].

Azpeitian ere 1598.ean zezenak eta dantzak izan ziren Frantziarekin egindako bakeak ospatzekotan. Hurrengo urtean (1599.ean) San Agustin egunez hamabi zezen korritu zituzten korrejidorearen aurrean. Barrerak ipintzearen eta txistulariaren gastuak gehienez hamabi dukat kostatu ziren. Urte horretan gainera, Azpeitiko Udalak aspaldiko ohitura bat debekatu egin zuen. Haragi-hornitzaileari 10.000 marairen zigorra izango zuela gaztigatu zitzaion gero okelatan salduko zuen zezen edo idirik kaletan korritzera ausartzen bazen.

6.3. irudia. Abenduaren irudikapena. XVI. mendeko mezaliburu batekoa.

1599.ean bertan, Azpeitiko dantzei buruzko agiri interesgarria egin zuten. Dantzak, batez ere

San Sebastian eta Gorpuzti egunean izaten ziren, eta urte hartan Martin Oñaz-i bi dukat eman zizkioten dantzarientzat kolorezko zinta, paper eta arku-makilak erosteko [28].

Mendearen bukaeran, Tolosan ere jokatzen omen ziren zezen bolaztatuak, eta sokamuturrerako zaletasuna bazegoen[71]. Zarautzen ere zezenak orduan izango zirela pentsa daiteke.*Konseju Zarra* izeneko etxea plazako torilen ondoan bait zegoen [72].

Baina Iruñean, XVI. mende honetan indar handia hartu zuten entzierroek. Zezenak, Erriberatik Eskirotz edo Gatzaga-ko belardietara ekartzen zituzten. Han egoten ziren festa-eguna hurbildu arte. Gero, San Roke-ko belardira eraman, (gero Larraina elkartea egongo zen lekura) eta festa-egun goizean handik Gaztelu-plazara eramaten zituzten, banderaduna aurretik zela. Gaztelu-plazan, barrerak eta oholtza ipintzen zituzten zurginek. Zezenak ihes egiten bazuen, zurginek ordainduko zituzten kalteak, hesiak behar bezala ez ipintzeagatik. Gaztelu-plazako etxeen balkoi eta leihoak, Udalaren esku zeuden. Udalak erabakitzen zuen balkoi eta leiho bakoitzean zein agintari egongo zen, eta ez etxejabeak.

Korridak, urriaren 10eko ordubietan hasten zituzten (1590. urterarte; gero sanferminak uztailean ospatzen hasi bait ziren) eta inoiz 15 zezen plazaratu zituzten. Bukaeran, eta ilunarekin batera, zezensuzkoa ateratzen zuten. Egiazko zezenari manta lotzen zioten bizkarrean bolbora eta lehergailuz beteta. Asmatzekoa da hango danbateko eta txinparten artean zezena nola ibiliko zen. Ordulaurdena baino gehiago irauten zuen suzko festa hark, eta zezena azkenean nekatuta gelditzen zenean, gazte iruindarrek sastakaiz hiltzen zuten. Zezensuzkoaren ondoren, sokamuturrean bizpahiru zezen korritzen zituzten [31].

Eta XVI. mendeko albiste-andana honi bukaera ematekotan, azkenik arazoren bat edo beste gehiago aipa dezagun. Mende hartan, Nafarroako zatirik handiena konkistatua izan zen eta Oliteko Gortea desagertu egin zen. Noblezia, Valladolid eta Madrileko Gorteari begira jarri zen, eta hango jauntxoek burtziketa eta zezena lantzaz jotzea garatu zuten festetan, zaldizko zankarrapazko toreaketan oinarrituz. Zaldizko zezenketak indar hartu zuen nobleziaren artean, eta plazan oinezko toreatzaileak laguntzaile harturik erabiltzen zituzten. Zakurrak ere lagungarri gertatzen zitzaizkien zezenak koldarrak zirenerako. Zezenak ihesi joateko joera zuenean eta toreatzerik ez zegoenean, zezentxakurrak aterata horzka egiten zioten eta geldi erazi. Orduan, atzeko hanketako izterzainak lunerdiz ebakitzen zizkioten eta sastakaiz jota hiltzen zuten [73].

6. ZEZENAK XVI. MENDEAN. BIBLIOGRAFIA

(1) ARIN DORRONSORO, JOAN. *Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun*, in Anuario de Eusko-Folklore 1955 (89,90,98,99.orr.)

(2) ARIN DORRONSORO, JOAN. *Contribución al estudio de la toponimia (Ataun)*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1970 (183, 184. orr.)

(3) ARIN DORRONSORO, JOAN. *Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun II*, in Anuario de Eusko-Folklore 1956 (82, 83. orr.)

(4) IMAZ, JOSE ANTONIO, eta beste. *Ataun*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (54. orr.)

(5) UGARTE, FELIX MARIA. *Los seles en el valle de Oñate*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 975 (470, 471. orr.)

(6) GOÑI, KARMEN. *Algo sobre la parzoneria general de Guipuzcoa y Alava*, in Anuario de Eusko-Folklore. 1955 (146. orr.)

(7) MITXELENA, KOLDO. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro argit. Madrid 1964 (75. orr.)

(8) CARRION JAUREGI, INAZIO MARIA. *Ibarra, Belaunza, Eldua, Elduayen, Berrobi, Berastegi, Gaztelu*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975. (72-75. orr.)

(9) EZENARRO, LUIS MARIA. *Las casas de Carquizano (Garquizano) y Zabala de Elgoibar*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1975 (402, 403. orr.)

(10) ZUMALDE INAZIO. *Nota sobre aperos de labranza en el siglo XVI*, in Munibe 1957. Donostia (145. orr.)

(11) MUJIKA, SERAPIO. *Monografía de Asteasu*, in Euskal-Erria 1.900. Donostia (394. orr.)

(12) MADINABEITIA, JOSE. *El libro de Amurrio*. Gasteiz. 1979. 2. argit. (19, 200. orr.)

(13) LUENGAS OTAOLA, VICENTE FRANCISCO. *Perfiles historicos del noble valle de Oquendo*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1980 (318, 320. orr.)

(14) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*. 3. alea. Principe de Viana argit. Iruñea 1964 (259. orr.)

(15) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografía histórica de Navarra*. Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1971 (274. orr.)

(16) ABERASTURI KORTA, JOAN KARLOS. *Aproximación a la historia de la Comarca del Bidasoa*, in Principe de Viana 1980. Iruñea (312, 391. orr.)

(17) CARO BAROJA, JULIO. *Monumentos religiosos de Lesaka*, in Anuario de Eusko-Folklore 1932 (52, 53. orr.)

(18) IDOATE, F. *Notas para el Estudio de la Economia Navarra*, in Principe de Viana 1960 Iruñea (106. orr.)

(19) LAKARRA, JOSE MARIA. *Vasconia medieval. Historia y Filologia*. Julio Urkixo mintegia. Donostia 1957. (18, 19. orr.)

(20) BALEZTENA, INAZIO. *Los toros en Navarra*. Iruñea 1932. (10 - 12, 19 - 21. orr.)

(21) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (364 - 367. orr.)

(22) "CONDE DE COLOMBI". *Desarrollo de la Fiesta de Toros*, in Los toros en España. Orel argit. Madril 1969. (216 - 219. orr.)

(23) OLAETXEA, JOAN. *Villafranca de Ordizia*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (70. orr.)

(24) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (37, 62 - 64, 783 - 785, 827. orr.)

(25) LAFORCADE, MICHEL. *La Tauromachie dans le Soud-Ouest de la France*. Mendi Martzana 1984 (38, 39, 42. orr.)

(26) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO.*Apuntes tudelanos*.Lehen alea.Tutera1913 (264, 265. orr.)
(27) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (439. orr.)
(28) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia*. Azpeitia 1986. (325–329. orr.)
(29) LASA, JOSE INAZIO. *Tejiendo historia*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones argit. Donostia 1974 (289. orr.)
(30) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipuzcoa*. Donostia 1974 (121. orr.)
(31) ORTIZ–CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y costumbre de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (402, 403. orr.)
(32) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer*. Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (5, 6, 9. orr.)
(33) DE LOS HEROS, MARTIN. Historia de Valmaseda. Bilbo 1926. (403 - 408. orr.)
(34) MURUGARREN, LUIS. *Hernani. Su historia e instituciones*. Donostiako Aurrezki–Kutxa arigt. Donostia 1970 (67. orr.)
(35) GARCIA–RAMOS, ANTONIO. *Los reglamentos taurinos*, in Los toros en España. Orel argit. Madril 1969 (329. orr.)
(36) CORONADO, ANTONIO. *El doctor Del Campo en el Taurino de Pamplona*, in Aplausos. semanario taurino. 319. alea. 1983–XI–7. Valentzia. (28. orr.)
(37) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (92, 96, 605, 606. orr.)
(38) LEKUONA, MANUEL. *El teatro y los Toros en Calahorra*, in Idazlan guztiak. 2. alea. Kardaberaz argit. Gasteiz 1978 (533, 534. orr.)
(39) OLIVEROS, MARIA TERESA. *Historia ilustrada de la ciudad de Monzon*. Zaragoza 1974 (215. orr.)
(40) MURUGARREN, LUIS, *Parroquia de San Martin de Zallurroa (Régil)*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. 1971. Donostia (372. orr.)
(41) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Tauromaquia vasca*, in Munibe 1951. Donostia (237. orr.)
(42) LAKARRA, JOSE MARIA. *Guía del Archivo General de Navarra. Pamplona*. Ministerio de Educación Nacional argit. Madril 1953 (96, 97. orr.)
(43) LABEAGA, JOAN KRUZ. *La Casa Consistorial y los balcones de toros de la ciudad de Viana (Navarra)*, in Principe de Viana 1979. Iruñea (139, 140. orr.)
(44) CASTAGNON, ROBERT. *Derrire la talanquere*. Nogaro 1986. (40. orr.)
(45) CAMPO, LUIS DEL. *La Iglesia y los toros*. Navarra. Temas de cultura popular. 234. alea. Iruñea 1975 (5 - 7, 20 - 24. orr.)
(46) ALENDA Y MIRA, JENARO. *Relaciones de Solemnidades y fiestas públicas en España*. Madril 1903 (58, 105. orr.)
(47) BALEZTENA, INAZIO. *Iruñerias*. Navarra. Temas de cultura popular. 128. alea. Iruñea 1972 (21. orr.)
(48) MANSO DE ZUÑIGA, GONZALO. *San Sebastian en 1552*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País.Donostia 1948 (138, 139. orr.)
(49) ZABALA, FEDERIKO. *Los Idiaquez de Tolosa y San Sebastian*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1947. (392 - 394. orr.)
(50) AROZENA, FAUSTO. *Una nueva versión del padrón donostiarra de 1566 con variantes curiosas*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1953. (358. orr.)
(51) LOPEZ SANZ, CELIA. *Francisco de Goya*, in La Gran Enciclopedia Vasca. 14. alea. Bilbo (116.orr.)
(52) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario histórico–político de Tudela*. Zaragoza 1828 (218. orr.)
(53) MUJIKA, SERAPIO. *Administración municipal antigua de San Sebastian*, in Euskal–Erria. 1898. 38. alea. Donostia (11, 12, 407. orr.)
(54) MOURLANE MITXELENA, PEDRO. *Estampas del sokamuturra en Guipuzcoa*, in La Gran

Enciclopedia Vasca. 8. alea. Bilbo (285, 286. orr.)
(55) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros.* Navarra. Temas de cultura popular. 125. alea. Iruñea 1972 (4. orr.)
(56) MULAS PEREZ, I. *Toros. Introducción a la verdad del toreo.* Avesta argit. Bartzelona 1982 (75. orr.)
(57) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia general del Señorío de Bizcaya.* 4. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1967 (438. orr.)
(58) USABIAGA, HIPOLITO. *Asteasu, Irura, Anoeta, Aduna, Alkiza, Larraul, Zizurkil, Hernialde.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (53. orr.)
(59) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridad de toros en Estella,* in Principe de Viana 1942. Iruñea (316. orr.)
(60) MURUGARREN, LUIS. *Usurbil.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (135. orr.)
(61) VELASCO, LADISLAO. *Memorias de la Vitoria de antaño.* 2. argit. Gasteiz 1889. (131. orr.)
(62) GARCIA GARRAFFA, A eta A. *El Solar Vasco Navarro.* 5. alea. 3. argit. Libreria Internacional argit. Donostia 1967 (331. orr.)
(63) LAKARRA, JOSE MARIA. *Memorias Estellesas. Una visita a Estella de Felipe II. 19-11-1592,* in Principe de Viana 1947. Iruñea (413, 414. orr.)
(64) OKAMIKA GOITISOLO, FRANTZISKO. *La villa de Lequeitio (ensayo histórico).* Bizkaiko Diputazioa argit. Bilbo 1965 (225. orr.)
(65) TORO BUIZA, LUIS. *Posibles orígenes del Arte del Toreo,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969. (201. orr.)
(66) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *El encierrillo.* Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (4, 5. orr.)
(67) URKIXO, JULIO. *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596.* Auñamendi bilduma. 40. eta 55. aleak. Donostia (29, 139, 159) (28, 95, 146, 157. orr.)
(68) FERNANDEZ DE BOBADILLA, F. *Supervivencia del culto al toro en Arnedo,* in Berceo 1960. 15. alea (359. orr.)
(69) CAMPO, LUIS DEL. *El traje en la Fiesta Nacional,* in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madrid 1969 (256. orr.)
(70) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona (2. XVII).* Navarra. Temas de cultura popular 250. alea. Iruñea 1976 (6 - 8. orr.)
(71) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Tauromaquia Vasca.* Herriko festetarako programa. Deba 1977
(72) ERENTXUN, JOAN. *Noticias históricas de la villa de Zarauz.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (57. orr.)
(73) ROMERO DE SOLIS, PEDRO. *El papel de la nobleza en la invención de las ganaderías de reses bravas,* in Arte y tauromaquia. Tuner argit. Madril 1984 (37, 38. orr.)

7.- ZEZENAK XVII. MENDEAN

XVII. mendean, Espainiako nobleziak bultzaturik, gailurrera iritsi zen zaldizko burtziketa. Festa ikusgarriak antolatzen zituzten aristokratek, zaldiz zezena toreatzen zuten abilezia erakustekotan. Zankarrapaz (jineta sistemaz) maneiatzen zuten zaldia; zaldi gainean hankak zerbait tolestaturik zituztela alegia, eta ez luze-luze bridazko sisteman, XVIII. mendean ohi bezala. Horrela, hankak bildurik, zaldi-zaldunak errazago eta azkarrago bira daitezke beren buruen inguruan. Zaldunak gainera, batez ere hanka eta belaunez maneiatzen du zaldia, eta ez uhalez.

XVI. mendearen atarian (eta hurrengo urteetan ere bai), idazlan asko argitaratu zen Espainian burtziketaz. Zezena lantzaz jo edo zezenari burtziak sartzeko bideak arautzen zituzten liburu haietan. 1600. urtean Pedro Aguilar andalusak argitaratu zuen *Tratado de la Cavalleria de la gineta* izango da onenetakoa[1]. Hark zioenez, lantzetarako hagarik egokienak lizarrezkoak ziren.

Urte horretan, Bernardo Vargas Machuca-k bere *Ejercicios de la jineta* argitaratu zuen. Haren arabera, aurrez aurreko burtziketa da zailena eta bikainena; zaldia zezenarengana aurrez aurre hurbilduz egiten dena alegia[2].

Euskal Herrian ere, zerbait hedatu zen zaldiz toreatzeko era, bertako jauntxoen eskutik. Azkoitian, Tuteran, Iruñean eta beste zenbait herritan adibidez, zezenak burtziz jo zituzten zaldunek XVII. mendean. Baina oinezko toreaketa indartsuagoa zen inola ere gure lurretan garai hartan.

Dena den, has gaitezen Euskal Herriko XVII. mendeko zezen-albisteak xehetasun handiagoz ematen. Nafarroako hiriburua aipatuko dugu beste behin. Iruñeako herriak, bere zezenak zituen festetan jokatzeko. XVI. mendearen bukaeran, Kortes-eko herrian(Erriberan) larratzen ziren. XVII. mendearen hasieran ordea, Argetas-en edukitzen zituzten festa-eguna gerturatu arte[3].

Nafarroako Artxibo Orokorrean (Iruñeko Diputazioan) 1601. urteaz geroko komeria eta zezenez agiriak badira. Bi mendetako berriak (1804. urterartekoak) daude[4]. Iruindarrek, mendearen hasieran, zailtasunak zituzten zezenak erosterakoan. Erriberako ganaduzaleek ez zituzten festetarako saldu nahi. Behi-taldeak ugaltzea zen haien helburua, nahiz eta zezenak garesti saltzeko aukera izan, eta horregatik, hazitarako gordetzen zituzten.

Iruñeko udalak orduan, festetarako behar zituzten zezenak Erreinu barruan erosteko eskubidea lortu zuen erretordearengandik. Iruindarrek zezenik eskuratu ezin zutenean, erretordeari eroslehentasun- edo tanteo-zedula eskatzen zioten. Ez zuten urtero eskatzen; zailtasunak zeudenean bakarrik baizik. 1601. urtean eskatu zioten delako zedula 12 errealeko tasak ordainduta.

Zedularen bitartez ganaduzalea zezenak saltzera behartzen zenean, asko ordaintzen zitzaion, eta zezen-jabea erretordeak aginpidea zuen herriren batekoa bazen, salmenta derrigorrean egin behar zuen; baita zezenak aurrez beste bati aginduta bazeuzkan ere.

Zezenen prezioan ados jartzen ez baziren, bi alderdiek beste pertsona batzuk izendatzen zituzten zenbat ordaindu behar zen erabaki zezaten.

Zezenen truk, dirua berehala (hantxe bertan) ematen zitzaion ganaduzaleari, eta honek behiak eta unaiak bideratu behar zituen (Udaleko zinegotziaren kontu) zezenen garraiorako. Iruñerako bidean zeuden herrietan, erraztasun guztiak eman behar zitzaizkien hiriburukoei zedula medio, eta behar izanez gero, kortak ere prestatu egin behar zizkieten ganaduak gaua igaro zezan.

Udaleko zinegotziarekin batera, turutaria joan ohi zen Erriberara zezenak erostera. Honek herrietan jendea biltzen zuen turuta joaz beren erosketa-asmoen berri emateko. Beste batzuetan, turutaz gaztigatzen zion jendeari Iruñera zihoan zezen-taldearen arriskuaz.

Zinegotzi eta turutariarekin batera, unanmaizterra joan ohi zen Erriberara. Unanmaizterra zen zezen-kontutan aditua. Hark joko zituen begiz erosteko onenak iruditzen zitzaizkionak eta berak hartuko zuen zezenak Iruñera garraiatzeko ardura. Gaztelu-plazan ere berak maneiatu behar zuen ganadua, eta festetan jokatu ondoren, berak eramango zituen berriro Erriberara.

Batzuetan, buruhauste latzak sortzen zitzaizkion unanmaizterrari zezenen batek ihes egin zuela eta. Ihes egindako zezena hiltzen bazuen, larrua Iruñera eraman behar izaten zuen eta zin egin bere jokabidea zintzoa izan zela ziurtatzeko. Iruindarrek, maiatzean erosi ohi zituzten zezenak. Batzuek diotenez, koroa eta PP marka egiten zioten ganaduari. Zezen batzuk, *berriak* ziren, eta besteak *zaharrak*; plazatan jokatuak izandakoak. Zezen berriak, urte askotakoak izan zitezkeen, aurrez plazaratu ez bazituzten. Dena dela, iruindarrek laupabost urtekoak nahiago zituzten. Batzuetan ordea, urte askotako zezenak irendu ondoren sokamuturrerako hartzen bazekiten. 1601. urtean esate baterako, San Raimundo egunez zezentzar handi bat (hamar urte baino gehiago zituen), korritu zuten sokari lotuta.

Zezen *zaharrak*, plazatik pasatakoak ziren. Iruñean, normalean ez zuten plazan zezenik hiltzen XVII. mendearen azkenalderarte. Plazan jokatu ondoren, zauriak sendatzera Gatzaga-ko belardietara eramaten zituzten gehienetan. Zezen zauritua sokaz lotu, eraitsi eta zauriak sendatzen ahalegintzen ziren. Tirrimintina, balen olioa eta gantza zuten horretarako. Batzuetan, albaitariaren esku egoten ziren sendaketa-lanak. Ardoa ere izaten zuten orduan sendatzaileen eztarriak bustitzeko.

Sendatutako zezenak, Gatzaga inguruan gelditzen ziren, ala Bardeetaraino (Argetas, edo Balterra aldera) eramaten zituzten hurrengo festaldirarte. Zezen batzuk, Iruñeko haragi-hornitzaileak erosten zizkien, gero *tablatan* okela saltzearren[5].

Tuteran, Santiago eta Santa Anako festetan, zezenak eta zaldunguduak izan zituzten XVII. mendearen hasieran. Han izan omen zen Pedro Escudero apaiz argetastarra; ihauterietan Iruñean mozorrotuta ibiltzeagatik eta bertsopaperak botatzeagatik zigortua izan zena[6]. Elizgizonek, zezenetara joatea ere debekatua zuten orduan. Mila marai ordaindu behar zituzten eta hogei egunez elizatik irteterik ez zuten[7].

Baina Gipuzkoan ere baziren, nola ez, zezenfestak orduan. 1601. urtean, Austriako Margarita erregina erditu zela eta, Soraluzen 140 erreal t'erdi gastatu zituzten. Bi idi erosi zituzten herrian korritzeko eta hamar zintzarri-pare alokatuta ekarri ere bai festarako. Festetan, ohizkoa zenez, zezenen osagarri dantzariek eta txistulariek ere parte hartu zuten[8].

Urte horretan, 1601.ean, Balmasedan San Joan egunerako sei zezen ekartzen saiatu ziren[9].

1602. urtean, eta hurrengoetan, Iruñean ohi bezala ospatu zituzten San Fermin festak. Baina urte hartan hasita hogeitazazpi urtez ikusiko zuten toreatzaile berria aurkeztu zen Gaztelu-plazan. Juan Diez Iñiguez de Baldosera zen; *Candil* goitizenez ezaguna. Errioxako Rincon del Soto herrian jaioa zen aurreko mendean, eta iruindarrek ezagutu zutenetik bost urtera, trikimakoak ipinita toreatzen hasi zen. Trikimako eta guzti dantza egiten zuen. Baita zezenak hil ere. Berrogeitamar erreal kobratu zituen horrela toreatzeagatik. Emankizun bakoitzeko, berak eta taldeko beste lau lagunek, ehun erreal jasotzen zituzten. *Candil*en toreatzeko era, akrobatikoa zen, orduko beste nafar-toreatzaile oinezkoenaren antzera[10].

1604. urtean, Bordele–n zezenak korritu ziren, baina ez Bazas, Mendi Martzana eta Saint Severe–en bezain suharrak, Gaufretau kronikariak dioenez. Saint–Severe–n urtero korritzen ziren zezenak sanjoanetan[11].

1605. urtean, Felipe printzea jaio zen Espainiako Gortean. Hainbat herritan, festak egin zituzten, eta Eibarren ere zezenak jokatzeko asmoa zuten. Baina elizgizonek aldareko tresnak plazara atera eta zezenik gabe gelditu ziren eibartarrak[12].

1606. urtean, Espainiako Gortea Madrilera aldatu zuen Felipe III.ak. Horrekin batera, Madrilek plaza handi baten premia zuela ohartu zen erregea eta hamaika urte geroago hasiko zituzten obrak, geroztik hainbat euskal toreatzailek lan egingo zueneko Plaza Nagusia eraikitzekotan[13].

Baina Arabako Bastidan bazuten, noski, herriko plaza. 1606. urtean, Cardeña–ko San Pedro–ko martirien erlikiak herrira zetozela eta, Udalak zera erabaki zuen: dantzak eta zezenak antolatzea. Gainera Briones–etik danborra ekarri zuten eta prozesioan dozena bat alkabuzarik parte hartu zuen.

Urte batzuk geroago Bastidara dantzariak Abalos herritik ekartzea erabaki zuten eta dozena bat zezen edo ahal zirenak Urizaharratik[14].

1607 eta 1608. urteetan, Iruñeko Udalak Joan Tolosa eta Martin Epila ganaduzaleekin tratua egin zuen. Unai hauek adituak ziren zezen–kontutan eta zinegotzi arduradunari Erriberan laguntzen zioten zezenak erostekotan.

Beren soldataren zati gisa, jokatutako zezenak ere ematen zizkieten. Baina unai ganaduzale hauek Udalari ere saltzen zizkioten zezenak[5].

Iruñetik, hurrengo urteetan ere zinegotzi arduraduna joan zen Erriberara bere taldearekin zezenak erostera. 1610. urtean, Fustiñana, Kortes eta Balterra–ko unai batzuekin elkarrizketatu zen, zezenik onenak non zeuden jakiteko asmoz. Dukata eta hamazortzi erreal gastatu zituen haiek gonbidatuta[5].

Urte horretan, Iruñeko Udalak abuztuaren 2an debekatu egin zuen zezenak hirira zetozenean zaldiz bila joatea. Oinezko entzierroa onartzen zen, baina zaldizkoa ez. Zigorra zegoen zaldunentzat; zaldirik gabe gelditzea hain zuzen[15].

Iruindarrek urte horretantxe eta hurrengoetan, zezensuzkoa izan zuten. Udaletxeko kontuetan Joan Muro ezkogileari 100 erreal ordaindu zizkiotela agertzen bait da zezen gainean ipintzeko suziri eta eztandagailuzko mantagatik[16]. Bolborazko manta hori zezenari ipini, eta sututa, eztanda eta ke artean ibiltzen zen gauean. Horixe bait zen zezensuzkoa.

———————— o ———————— o ————————

Arabako Bastidan, urtero bezala 1610.ean ere zezenak korritu ziren. Udaletxeko gizonei, justizigizonei eta beste batzuei, askaria eman zitzaien zezenetan[14].

1611. urtean, Iruñean ohi bezala udaletxetik zinegotzia Erriberara abiatu zen zezen bila bere laguntzaileekin. Laguntzailetako bat unanmaizterra zuen eta bere lanaren garrantziaz jabetzeko, zera

esan daiteke: toreatzaileak baino gehiago irabazi zuela. Dena den, urte hartan zezen batek ihes egin zuen. Lau gizonek lortu zuten zezena itzultzea, eta hogeitalau erreal ordaindu zitzaien[5].

Urte berean, sanferminetan ezezik abuztuan ere zezenak jokatu nahi izan zituzten Iruñean erretordearen omenez. Abuztuaren 3an, eskutitza bidali zieten Logroniora Diez Iñiguez *Candil* eta Miguel Sanchez bere lagunari, hurrengo astelehenerako beste bi toreatzailerekin trikimako eta guzti Iruñera joan zitezen. Aipatutako biak, Francisco Mogaston eta Diego Latorre logroniotarrekin joan ziren beren trikimakoak hartuta. Festa bukatu zenean, Udalak berrehun erreal eman zizkien egindako lanagatik. Toreatzaileek, beren eskuz sinatu zuten ordainagiria, eta ez besteren bidez, garai hartan idazten ez jakiteagatik ohi zen bezala[10].

Oso desberdinak izan ziren 1611. urtean Beasaineko zezenak. Berebiziko istiluak atera zituzten hiru apaizek: Pedro Murua Beasaineko erretoreak(Egibide baserrikoa bera) eta Frantzisko Plaza Lazkaoko bikarioak batetik eta Pedro Artza elizotsein edo benefiziadoak (hau Zelataberri-ko eskribauaren seme eta Beasain eta Ordiziako otseina zen) bestetik. Beasainera, jende asko bildu zen abuztuaren 15ean Lazkao, Ordizia eta inguruetatik festetara. Felipe Lazkaoko jauntxoa ere han zen, Beasaineko (orduan auzoa zen) Igartetxeko Pedro Iartza eta Martoneako Joan Arana zinegotziekin batera.

Hiru zezen koxkor zituzten festarako; adarretatik helduta erabiltzeko modukoak. Eguerdian, Pedro Murua erretoreak zezenak jokatzea nahi izan zuen, baina Pedro Artzak kontra egin zion, aita santuen aginduz jaiegunetan zezenak debekatuak zeudela esanez.

Lazkaoko bikarioa, Frantzisko Plaza, gaizki-esaka hasi zitzaion Artza apaizari. Baina egun hartan ez zuten zezenik atera plazara.

Hurrengo egunean, San Roke egunez, jendea bildu zen Beasaineko eliz ingurura. Zezenak, elizako *zimitorioan* (atarian) izan ziren. Zezenak elizatik atera omen zituzten eta Jaunaren aurrean akuiluz eta ezten-hagaz pikatu ere bai. Unan lanak egiten elizako erretorea eta Lazkaoko bikarioa ibili omen ziren, beren sotana eta guzti, Lazkaoko jaunarekin batera. Elizan gorotz-arrastoak ere ba omen zeuden.

Pedro Murua eta Frantzisko Plaza apaizek, auzia izan zuten Iruñean horregatik.

Pedro Murua-k dena dela, bere buruaren defentsan arrazoi batzuk eman zituen. Batetik, Udalak ekarri zituen zezenak auzora, eta ez berak. Bestetik, zezenak ez ziren Ama Birjina abuztukoaren egunez korritu, festa-eguna zenez; biharamunean baizik, zinegotzien aginduz. Zezenak gainera, ez ziren elizan gorde. Bata Joan Arana zinegotziaren etxean egon zen, bestea Pedro Iartza zinegotziarenean, eta hirugarrena seroraren etxean. Zezenen bat elizara sartu bazen, Fermin Iztueta sakristauak deskuidoz atea zabalik utzi zuelako izan zen.

Auzia amaitu zenean, sei dukateko zigorra ezarri zieten Lazkaoko bikarioari eta Beasaineko erretoreari[17].

Oraindik orain ere (1986.ean), Errioxako Santo Domingo-n sanisidrotan larrabehiak deskuidoz katedralera sartu ziren eta aldareko loreak jan zituzten.

1612. urtean, iruindarrek hamaika zezen eta idi bat ekarri zituzten festetarako. Bernardo Egiarreta zinegotzia eta Martin Berueta laguntzailea joan ziren Fustiñana, Argetas eta beste herri batzuetara. Argetas-en, zezen bat Antonio Navarro-ri erosi zioten 19 dukat eta 25 errealetan; Garzia

Angoso–ri beste bat berdin ordainduta; Martin Nabaskoze–ri beste bat 18 dukatetan; Pedro Nobaskoze–ri beste bat 17 dukatetan eta Juan Soria–ri beste bat 19 dukatetan. Argetaskoez aparte, Tuteran Antonio Ekai–ren alargunari sei hartu zizkioten 23na dukat ordainduta. Idia, Berbintzanakoa (Tafalla ingurukoa) zen eta 4 dukat eta 25 errealetan erosi zuten[3].

Zezenak, Gaztelu–plazan korritu arte, hiritarren baten ikuiluan edukitzen zituzten Iruñean, baina urte hartan Udalak etxe bat erosi zuen propio horretarako *La Población* izeneko kalean (gaur egun *Pozoblanco* izenekoan). *Pozoblanco*, gatza zegoelako esaten zioten. Etxe horri, atzeko aldea luzatu egin zioten Gaztelu–plazaraino[18].

Urte horretan, Bianan ere gastu batzuk egin zituzten zezenetan. Baina ez Udalak bakarrik; elizgizonek ere bai, debeku batzuk gorabehera. Mendabiatik bi zezen eta Alesbes–etik (*Villafranca*-tik) beste bi ekarri zituen elizak Gorpuzti egunerako. 64 erreal ordaindu zituzten plaza ixteagatik. Bolbora, musika, ezten–haga, udaltzainen askari eta abarretan ere gastatu zuten Bianako elizgizonek 1612.ean[19]. Mendabiako Miguel Cuadrado–k bi zezen saldu zizkien 38 dukat eta bi errealetan. Clemente Munilla bolborazaleari 388 erreal eman zizkioten; Bustamante ijitoari 8 dukat, ijito–dantzagatik; Pablo Palacios bianarrari, 38 dukat Alesbes–en bi zezen erosteagatik, etab.[20].

Urte berean, Arabako Bastida herrikoek ohi bezala ospatu zituzten Cardeña–ko San Pedro-ko martirien omenezko festak. Bi zezen 48 errealetan ekartzea lortu zuten. Dantzatarako zintzarriak berriz, 12an[14].

1613. urtean, Iruñean ohizkoa ez zen gauza bat egin zuten. San Fermin festetarako zezenak bi lekutatik ekarri zituzten: Nafarroako Erriberatik eta Zamoratik. Lehenagotik ere Gaztela aldetik zezenak ekarri zirenik ez dago ziurtatzerik. Baina 1613. urtean bai; batzuk Erriberatik eta beste batzuk Zamora–tik. Nafar–zezenak korritu zituzten lehenbizi, eta gero kanpokoak, herritarrak haserre ez zitezen edo. Zamoratik ekartzearen arrazoiak ez daude garbi (ezta zezenjabea zein zen ere). Agian urte hartan Erriberan oso ganadu gutxi zegoen, edo agian beste zezen batzuk ere probatu nahi zituzten iruindarrek, suharragoak zirelakoaren ustetan.

Festak bukatutakoan, albaitari batek sendatu zituen zauritutako zezenak. Dena den, beste hogeitamazortzi urtean Erriberak zerbitu zituen Iruñeko zezenak eta ez ziren beste inora joan zezen–bila[5].

Gipuzkoako Billabonan ez ziren urrutira joaten zezena festarako ekartzera. Santiagotan egiten zuten festa eta 1613.ean Joanes Etxeberriak ekarri zuen zezenkoa 93,5 errealen truke[21].

Urte hartako beste xehetasun interesgarri bat aipatu gabe ez genuke utzi nahi. Izan ere gure herrietako albisteek diotenez, (Iruñea, Balmaseda, Azpeitia, Biana, eta abarretakoek) garai hartan ikusleek zezenari ezten–hagak eta azkonak botatzen zizkioten kanpotik. Baina 1613. urtean Segovia–n, Fuenciscla–ko Andre Mariaren, bertako zaindariaren, omenez egindako festetan, kanpotik toreatzaileak ekarri zituzten ordainduta, eta haiek banderatxo gorriz hornitutako hagatxoak sartu zizkioten zezenari aurrez aurre zeudela kokotean[22].

Badaiteke hauek banderilen lehen arrastoak edo izatea, nahiz eta idazleren batek *suzko* banderilak 1572. urtean bazirela aitortu[2]. Bestetik, interesgarria litzateke Segovia–ra ordainduta joandako toreatzaileak nongoak ziren jakitea. Festetako narratzaileak txoriak ziruditela zioen, beren bizkortasuna eta trebetasuna ikusi ondoren, eta hori bat dator garai hartako euskal zezenketa akrobatikoarekin. Segovia–n (XVII. mendean Madrilen beste askotan bezalaxe) euskal toreatzaileak ibili zirela pentsatzea, ez da beraz gehiegikeria.

Ez dakigu zein lekuktan egingo zuten, baina 1614. urtean akrobaziazko toreaketaren beste albiste bat bada. Pedro Guzman jesuitak entzun zuenez, zezenak jotzera egiterakoan burua makurtu zain egon, oina buru gainean ipini eta salto eginez zutik gelditzen zen zezenaren beste aldean toreatzailea[23]. Hurrengo mendean horixe eginda fama handia irabazi zuen Bernardo Alcaldek, *Faltzes-eko Lizentziatuak*.

1615. urtean, plazan hildako zezenak mandakoei erantsita arrastaka ateratzen hasi omen ziren Burgos-en[2]. Ordurarteko ohitura, sokaz adarretatik lotu eta gizon batzuek tirata ateratzea zen. Gizon horiek ogi bat irabazten zuten aipatutako lanagatik. Mandakoen sistema, laster hedatu zen beste zenbait lekutara. Iruñean adibidez, mende horretantxe erabiltzen zen. Hamahiru urte geroago bai behintzat.

Baina 1615. urte hartan, Bianan zorrotz debekatu ziren komeriak eta zezenak. Kalagorri-ko apezpikuak hiri hura bisitatu zuen orduan, eta zigor latzak agindu zituen zezenfestetan parte hartzeagatik. Ikuskizun profanoa omen zen, eta gainera pertsonak hiltzen omen ziren. Bestetik Trento-ko kontzilioan aita santuek debekatua zuten[19].

Balmasedan ordea, debekuak debeku urtero bezala komeriak, zezenak eta dantzak izan zituzten San Joan egunez[9]. Baita Billabona-n santiagotan ere, Amasa-ko baserrietatik 99, 93 eta 132 erreal ordainduz hiru zezen ekarrita[21].

1616. urtean, Iruñean, Gaztelu-plazan toril-etxea eraiki zuten. Etxeak, bi ate zituen; bata txikia, zezenak plazara ateratzeko, eta bestea handia, zezen-taldea joaldun eta guzti barrura sartzeko[18].

Festa-egunaren bezperan, zezen-taldea hirira inguratzen zuten. Batzuetan San Roke-ko belardian (oraingo gartzeletan) gaua pasatzen zuen abel taldeak. Zezenak eta behiak batera joaten ziren handik Gaztelu-plazako etxeraino. Hori zen entzierroa. Urte hartan gainera (1616.ean) zezenaren adarkadaz behi bat hil zen[5].

1616. urtean, Bordele-ko parlamentuak Bazas-eko zinegotziak atxilotzeko mehatxuz eman zuen zezenen aurkako debekua. Baina beti bezala korritu zituzten. Zezenetako zaratak elizako hitzaldiak eten egiten omen zituen[24].

Hurrengo urtean, Tuteran buruhausteak izan zituzten zezenak medio. Zezenak Santa Maria-ko plazan, plaza zaharrean, orduko *Barazki-plazan*, jokatzen ziren; katedralea eta orduko udaletxe zaharraren ondoan. Antonio Cuellar deanak, zera jakin erazi zuen 1617.ean: plazaren bi herenak sakratuak zirela han gorputzak ehortzirik zeudelako, eta zezenetan sortutako zalapartekin eta odol-isurketekin, leku hura profanatu egiten zela. Alkateari agiri bat bidali zion uztailaren 19an zezenak debeka zitzan. Bestela eskomikuaz eta 50 dukaten zigorraz mehatxatzen zuen.

Tuterako Udalak auzitara jo zuen, baina zezenik ez zen izan plaza hartan (beste plaza batean bai geroxeago esango denez) bost urte geroago konponbidera iritsi ziren arte. Migel Elizondo kalonje eta txantreak, hiriak 200 dukat ordaindu eta gorputzak katedraleko klaustrora alda zitzala proposatu zuen. Horrela, zezenak korri zitezkeen plazan, katedraleko atari estalian ezik. Udalak ontzat hartu zuen proposamena, eta arazoari horrenbestez bukaera eman zioten[25].

Tuterrarrek ez zuten orduan plaza berririk egin madrildarrek bezala. Han, Madrilen, Felipe III.aren aginduz 1617.ean eraiki zuten Plaza Nagusia; geroztik hainbat euskal toreatzailek lan egingo zueneko plaza dotorea[21].

Baionan ere behar zuten zezenetarako plaza bat. 1618. urtean hiriak Sancin Maubec-i Mousserolles-eko ate inguruko lur batzuk erosi zizkion. Kaputxinoen Saint-Thomas eliza eta kolegioaren eta harresien ondoan zegoen plaza hura. *Collegeko* plaza edo *Courseko* plaza deitzen zioten; zezenplaza alegia[26].

Balmasedan urte hartan plaza bazuten, baina dirurik ez. 150.000 maraiko zorrak zituen herriak. Peñueco-ko burdinolan presa ibaiak hondatu egin zuen, eta hura konpontzeko ere sosik ez zuten. Ez zen kanpoko sermolaririk etorri elizara, baina ohizko festak egin zituzten, hori bai, horretarako behar zutena ekarriz. Dantzarientzako zintzarriak, alokatu egin zituzten[9].

1619. urtean, Madrileko Plaza Nagusia zerbait aldatu egin zuen Felipe III.ak, eta urte hartako abuztuaren 7an, Plaza Nagusian ospatutako bigarren zezenfestan, gauza bitxi bat egin zuten. XVII. mendean, zezenetara lanera ordainduta toreatzaile-koadrilak ekartzen zituzten. Nafar-taldeak ziren famatuenak orduan, andalusekin batera. Madrilen ordea, aipatutako egunean, buruko berezi bat eraman erazi zieten toreatzaile ordainduei, besteengandik nabarmentzearren. Hurrengo urtetan, burukoaren ordez ehun-zerrenda bat ipintzera behartu zituzten[22].

Antzuolan, horrelako handirik gabe korritzen ziren zezenak 1619.ean. Urte hartan, auzia izan zuten Sebastian Lopez Ozaeta eta Maria Ozaetak Udalarekin zezenetarako barrerak Antzuolako dorrea eta Etxeandia bitartean jar ez zitzaten. Auzi horretan, Arizti doktorearen mezaberrikoan zezenak jokatu zirela esaten da[27].

Urte horretan, beste auzi bat ere izan zen Irufiean irailaren 28ko gauean Tolosan bertsopaper batzuk hormatan jarri zituztelako[28]. Bertsotako gaia, sanjoanetako zezenak ezik, bertako handiki bati jarritako adarrak ziren; emazteek ipintzen dituzten horietakoak. Adarren bigarren esanahi honetaz ere, aspaldi jabetu ziren euskaldunak, antza[29].

Zaragozan, adar gainetan bike eta erretxinazko bolak sututa eta zintzarriz hornituta korritu zituzten zortzi zezen sokari lotuta, erregeak konfesore zen Frai Luis Aliaga Inkisitore Orokor izendatu zuelako (Bike eta erretxinazko bola hauei *jubillo* deitzen zieten, eta euskal *subil* hitzarekin badu antzik). 1619.eko otsailean hasi zituzten festa hauek, eta uztailean Magdalena-ko plazan emandako zezen-korrida batez amaitu ziren[30].

---------- o ---------- o ----------

Ebro ibaiaren ertzeko beste hiri batean, Tuteran, Ama Birjina Sortzez Garbiaren omenez festak antolatu zituzten 1620. urtean. Orduko Arma-plaza behar bezala prestatu zuten Errementeri kalea itxita, eta besteak beste, Ebro aldeko zezenak zaldiz korritu zituzten. Francisco del Rio jaunak, lau lekaio eta lau zaldi apain atera zituen plazara. Zezenei, zaldiz burtzi asko sartu zien. Ia zezen guztiak zauritu zituen burtziz, eta guztiak lunerdiz izterzainetan jota hil zituzten[31].

Urte hartan, Gipuzkoako Batzar Orokorrak Hondarribian ospatu ziren, eta zegozkien festetan, sokamuturra ere izan zuten[7].

Balmasedan beren ohizko komedia, danbolin, mozorro eta zezenak izan zituzten 1620.ean[9].

Gaskonia-ko Bazas-en, zailtasunak zituzten zezenfestak antolatzeko. Aurrez 1616.ean, Bordeleko Parlamentuak debekatu egin zizkien zezenak bazastarrei. Herriak, gora jo zuen, eta 1620.eko abenduaren 13an jakin erazi zien Luis XIII.a erregeak epaia. Erregearen aginduz,

zezenfestak debekatuak zeuden Bazas-en, eta 300 liberako zigorraz mehatxatu zituen horretan parte hartzera ausartzen zirenak, nahiz eta errege horrek berak Arles-en sei urte geroago korrida ikusi[32]. Hala eta guztiz ere. Bazas-en zezenak izan ziren geroztik; bai bait dira zortzi urte geroagoko albisteak. Ez ordea XVII. mendeko bigarren zatian[33]. Dena dela, 1620.ekoa izan zen botere zibilak zigor zehatzak ezarriz argitaratutako lehen debekua[11].

1.621. urteko zezen-albiste bat bederen badugu. Donostian, ekainaren 24ean Frantzisko Lasarte zinegotziarengan utzi zuten Santiago eta San Roke eguneko festetarako zezenak ekartzea. Arratsalde bakoitzerako hamabi zezen behar zituzten donostiarrek[34].

1622. urtean Loiolako Inazio kanonizatu zuten, eta kanonizazioa medio zezenak nonnahi izan ziren. Guk hemen, batzuk bakarrik aipatuko ditugu.

Azpeitian, elizkizunak 1622.eko uztailaren 30ean hasi ziren eta zenbait egunez segitu zuten. Aurrez Paulo V.ak beatu izendatua zuen 1609.ean, eta 1622.eko martxoan Gregorio XV.ak kanonizatu zuen. 1609. urtean, zezenak korritu ziren Azpeitian beatu herritarraren omenez. Baita hurrengo urteetan ere 1622. urtean santu egin zuten arte[35]. 1622. urtean, hogeitamar elizgizon baino gehiago ziren Azpeitiko partean. Dena ez zen ordea elizkizuna izan. Abuztuaren bian, *estafermoa* korritu zuten plazan. Gauez suziak eta suak izan zituzten.

Abuztuaren 3an, asteazken goizean komedia eta arratsaldean zezenak, gauerarte. Zezenak baino lehen jendea mozorrotuta ibili zen. Batek zezenarena egin eta pertsona asko harrapatu zuen. Beste zortzi zaldunez jantzita zihoazen eta antzarak jokatu zituzten. Abuztuaren 5ean ere, ostiral arratsaldez, zezenak korritu zituzten berriro Azpeitian[36].

Azkoitian, irailean egin zizkioten Loiolako Santu berriari omenezko festak. Larunbatean eta igandean, elizkizunak, dantzak, suak, mozorroak etab. izan zituzten.

Astelehen arratsaldean, zezenak korritu ziren Azkoitiko plazan. Gero, zaldizko bi koadrilla atera ziren plazara dotore jantzirik. Bata Joan Alonso Idiakaitz-ena zen; XVI. mendeko albistetan agertutako Alonso Idiakaitz, Nafarroako erretorde izandako donostiarraren semea. Bestea, Pedro Zuazola-ren koadrila zen. Lantza, banderila eta guzti sartu ziren zaldunak plazara. Kronistaren eritziz, Madrileko plazarako ez zuten lotsarik zaldun haiek.

Kainabera-jokuan aritu ziren gero koadrilak elkarren kontra. Horretan ari zirela, zezena atera zuten, eta zaldunak inguruan ibili zitzaizkion bueltaka beren kainaberekin.

Astearte arratsaldean, Joan Alonso Idiakaitz-ek zaldiz toreatu zituen zezenak Azkoitiko plazan. Lau zaldi eder erabili zituen. Sei burtzi sartu zizkien hiru zezeni; adarren ondoan zebilela sartu ere denak. Bi izan omen ziren batez ere ikusgarriak.

Asteazkenean beste festa batzuk egin ondoren, ostegunean jaialdiari amaiera ematea pentsatua zuten. Baina euria egin zuen, eta ostiralean bukatu ziren festak. Lehenbizi, lantza eta eraztunen jokoa ikusi ahal izan zuten azkoitiarrek. Gero *estafermo*aren jokoa, eta azkenik zezenak.

Joan Alonso Idiakaitz-ek zezenak zaldiz eta lantzaz toreatzea nahi izan zuen. Oso dotore jantzirik eta armaturik, plazaren erdian plantatu ziren zaldi-zaldunak lantza alboan zutela. Lehen zezena, zuzenean etorri zitzaien gainera. Alonso-k lantzaz jo zuen zezena, baina ez zegoen gustora, zaldi urduriegia zuelako. Beste zaldi bat hartu zuen orduan, eta bigarren zezena atera zezaten agindu.

Bigarren zezena, suharra eta handia zen. Zaldiari ziztu bizian joan zitzaion, eta zalduna lantza aldenik alden sartzen siatu zen. Baina bidean hezurra topatuta, lantza hautsi egin zitzaion. Gero burtzia hartu eta sartu egin zion zezenari. Zaldia ez zen behar adina zezenarengana hurbiltzen, eta horregatik, beste bat hartu zuen Idiakaitz-ek. Zezena, bazterrean zegoen jadanik, eta zaldunak aurrez aurre sartu zion burtzia lepagainean. Gero beste bat ere bai lehengoaren ondoan. Azkenean, zezenari izterzainak ebakitzea agindu zuen Alonso-k. Ikusleak, txunditurik gelditu ziren zaldunaren trebetasunaz.

Gero gauean, suak izan ziren. Zezensuzkoa ere bai; baina egiazko zezensuzkoa: *Entre dos luces soltaron un toro encoetado...* dio kronikak[37].

Bilbon eta Tolosan ere zezenak jokatu ziren urte hartan Loiolako santuaren omenez[38]. Bizkaiko Xemein-en ere bai abuztuaren erdi aldera, baina ez dakigu San Inazioren ohoretan ziren ala ez[39].

Tuteran, katedraleko kalonkjeekin konpondu ondoren, 1622. urtean jarraipena eman zioten Santa Maria-ko plazan zezenak jokatzeari, arestian adierazi dugunez. Baina Udalak, plaza horretako etxejabeekin ere egin zuen tratua zezenak han korritzeko oztoporik egon ez zedin[40].

Hurrengo urtean, Iruñeko arduradunak beti bezala Erriberara abiatu ziren zezen bila. Argetas-en, Frantzisko Ablitas-i lau erosi zizkioten bakoitza 20 dukat ordainduta[5].

Urte horretan, 1623.ean, Madrilen ezezik Filipinak Irletan ere izan ziren zezenfestak[1].

1624. urtean, iruindarrek Argetas-en Frantzisko Ablitas-i (*Lizentziatu* izenez ere ezaguna zen ganaduzale hau) beste zortzi zezen erosi zizkioten, bakoitzagatik 22 dukat emanda. Mendabiako Andres Liñan Bera-ri beste sei hartu zizkioten sanferminetarako[5]. Sanferminak igaro zirenean, beste korrida bat antolatu zuen Iruñeko Udalak Xabierreko San Frantzisko Nafarroako zaindari izendatu zutela eta. Ezten-hagak erosi zituen Udalak bi dukatetan. Argetas-eko Joan Tolosa-ri mila eta bi erreal eman zizkioten hiru zezenengatik. Hori dio abuztuko 24eko agiri batek.

Bigarren korrida honetan, sanferminetan erabili eta Gatzaga-ko belardian sendatutako beste zazpi zezen ere jokatu ziren. Geroztik, Nafarroako jendea zatiturik egon zen. Batzuk San Fermin zaleak ziren eta besteak Xabierreko santuaren aldekoak[41].

Gipuzkoako Legazpin, gutxitan izaten omen zituzten zezenak. Baina 1624.ean bai, Elorregi ondoko kapera estrenatu zutelako. Ezpata-dantza ohizkoa omen zuten legazpiarrek[42].

Zaragoza aldean, denak ez ziren pozik izaten erregea joaten zitzaienean. Festa handiak egiten zituzten bisita hori medio. Baina gastuak ere hein berean handiak ziren eta haiek hiritarrek ordaintzen zituzten. Ez da bada harritzekoa jendea haserre egotea, eta hara batek *la Seo*ko atean 1624.ean ipinitako paperak zer zioen[43]:

> *" ¡Quien te gobierna, reino desdichado!*
> *Viles jurados, diputados viles,*
> *y un virrey de un rey que no ha jurado,*
> *que los manda como a sus alguaciles".*

Ebro ibaian gora etorrita, 1625.ean Argetas-eko Frantzisko Ablitas ganaduzalea saltzaile agertzen zaigu berriro. Hamabi zezen saldu zituen Iruñerako hogeitabina dukatetan[5].

Lizarran, edozein arrazoi hartzen zuten zezenak jokatzeko aitzakiatzat. 1625.ean, San Andres

egunaren ospakizuna abuztuko lehen igandera aldatzea erabaki zuten. Horrela, urtaro eta egokiera hobean egingo zituzten festak. Oraindik ere abuztuko lehen igandean ospatzen dira Lizarrako festaburuak. Baina, nola ez, festa horietan zezenek ere beren lekua zuten[44] eta orain ere bai, noski.

Urte horretantxe, 1625.ean, Lope Martinez Isasti gipuzkoarrak bere *Compendio historial de Guipuzcoa* izeneko liburua idatzi zuen. Armarrietako zezen eta idiez dioena, interesgarria da. Gertakizun eta ekintza gogoangarrien lekuko omen dira; lan eta neke handiz erregeen zerbitzuan lortutako garaitzapenen lekuko[45].

1626. urtearen hasieran, urtarrilaren 13an, Espainiako Felipe IV.a Zaragozara heldu zen. Han festak ospatu zituzten erregearen ohoretan. Zezensuzko bat atera zuten gauean (*toro encohetado*) Aragoako ohiturari jarraituz. Bi egun geroago, ostegunez, zazpi zezen plazaratu zituzten, horietako bi suzkoak zirelarik. Zaldunek parte hartu zuten zezenak lantzaz eta burtziz joaz[30].

Hurrengo urtean, Tuterako Udalak gero Foru–plaza deituko ziotenean lurrak saldu zituen etxeak egiteko. Etxejabeei balkoietako eskubideak eman zizkieten, zezenetarako plazako itxitura eta oholtzak beraiek jartzeko baldintzarekin. Normalean Udalak kobratzen zituen plazako balkoietarako sarrerak zezenak zirenean. Baina, Tuteran oso merke antolatzen zituen herriak zezenfestak. Zezenak hiltegiak zerbitzen zizkien eta toreatzaileek oso gutxi kobratzen zuten orduan. Tuteran beraz, etxejabeek kobratzen zituzten balkoietarako sarrerak. Sarreren prezioa berriz, Udalak finkatzen zuen[46].

1628.eko urteaz baliaturik, sanferminetako zezenfestez argitasun gehiago emango dugu. Aldi hartan Iruñean, ohizko zezen–korridak eta ohizkanpokoa egiten ziren. Ohizkoa urtean behin antolatzen zuten San Fermin egunaren inguruan. Ohizkanpokoa berriz, gertakizun bereziren bat ospatu nahi zutenean. Ohizko zezen–korrida, ez zen igandean izaten; ezta ostiralez ere, haratuzte–eguna zelako edo. San Fermin eguna, uztailaren 7a, elizkizunetarako uzten zuten. Normalean ohizko korrida uztailaren 8a eta 10a bitartean izaten zen, eta 15etik 20 zezenera jokatzen ziren.

San Fermin egunean eta bezperan, pare bat zezen plazaratzen zuten. Baina pikatzailerik ateratzen ez zenez gero, ez ziren korridatzat hartzen.

Korrida egunez, goizean hiruzpalau zezen *probatzen* zituzten plazan, pikatzaile, toreatzaile eta guzti. Hiru edo lau zezen horiek ganadutegi desberdinetakoak ziren (arratsaldean ere abeltzain bat baino gehiagorenak korritzen baziren, noski), eta arratsaldekoek plazan izango zuten portaeraz jabetzeko edo ateratzen zituzten.

1628.ean, Jacinto Aguilar jauna suertatu zen Iruñean sanferminetan. Hark, paperera jaulki zituen festatan ikusitakoak, eta besteak beste, zezenfestetako berriak ere bai.

Uztailaren 7an sokamuturra izan zen. Zezen batzuk kaletan zehar ibili ziren sokari lotuta jendearen gozagarri. Ez zen kalteturik suertatu.

Biharamunean, hilaren 8an, Gaztelu–plazan arratsaldean zezen batzuk *probatu* zituzten.

Uztailaren 10ean, Gaztelu–plaza erabat apaindurik zegoen; zetaz eta zintzilikarioz horniturik. Arratsaldeko ordubatean hasi zen jendea plazan pilatzen. Kotxe asko sartu zen plazara, barruan emakumezkoak ere bazirelarik. Ordubete geroago, agintari guztiak beren lekuetan zeuden: Erretordea (toril–etxeko balkoian), Erret Kontseilua, Erreinuko Gorteak eta udalgizonak.

Bi ordutan, hamabi zezen jokatu zituzten plazan. Oinezko toreatzaile trebeek perfekzio handiz egin zituzten lanak; artez eta arintasunez. Hain trebe ez ziren beste toreatzaile batzuek, ezten-hagaz armaturik taldea osatu zuten. Horrela eusten zioten zezenari oldartzen zitzaienean, multzoa desegin gabe. Lantze suitzarra edo *palenquea* deitzen zioten honi, eta aragoarren eskutik sartu omen zen Nafarroara. XVIII. mendean ere egin ohi zuten Gaztelu-plazan lantze hau iruindarrek.

Baina gatozen 1628.eko uztaileko 10ean egindako korridara. Arratsaldeko lauretan, turuta- eta atabal-hotsez, erretordeari baimena eskatu ondoren zaldun bat sartu zen plazara; Luis de Viamonte (Beaumont gure ustez), Santiagoko ordenakoa. Bere aurretik hamahiru lekaio zihoazen, beren nagusiak gero ipiniko zituen burtziak eramanez. Gero, beste hamahiru lekaio sartu ziren, atzean Juan de Angulo zalduna zutelarik. Juan Angulo jaunak hiru burtzi ipini omen zizkion zezen bati, eta zaldun hauek beren toreaketa-lanak bukatu zituztenean, Pedro Medrano zaldun errioxarrari lagundu zioten plazara. Medrano jaunak, zaldiak begiak estalirik zituela lantzaz jo omen zuen zezena bizkarrean. Zezenak ez omen zuen zaldirik ukitu.

Zaldizkoen lanak amaitutakoan, beste zezen bat atera zuten. Lau zakur bota zizkioten, eta aidean buelta batzuk eman ondoren, zezena geldi erazi zuten azkenean.

Orduan, agintariak toril-etxeko gela batera sartu ziren askaltzera (tripa-festara, hobeto esan). Bitartean, zezen gehiago jokatu zen plazan, ilundu zuen arte. Festari bukaera, zezensuzkoaz eman zioten; suziriz betetako manta zuen zezenaz alegia[18]. Zezena erori zenean, mandakoak sartu ziren plazara. Baina zezensuzkoak, ustekabean altxatuta, batzuk kolpatu egin zituen[3].



7.1. irudia. Korrida Madrileko Plaza Nagusian. XVII. mendea.

1628.ean Bazas–eko Barraut apezpikuak zezenak debekatu nahi izan zituen, baina herria matxinatu egin zitzaion[11] eta zezenak Bazas–en ezezik Aire, Saint–Severe, Mendi Martzana, Hagetmau, Grenade, Le Houga, Nogaro eta abarretan korritu ziren; Gaskonia osoan[24].

1629.ean, iruindarrak eta lizarratarrak konpondu ezinik ibili ziren zezenak zirela eta ez zirela. Iruñeko jendeak, Lizarrarako zeuden hiru zezen bahitu zituen sanferminetarako. Erretordeak ordea, hiru zezenak lizarratarrei ematea agindu zuen, San Andres–eko festetan (abuztuaren 1ean, astelehenez) joka zitzaten. Lizarran, bederatzi zezen omen zituzten Mendabian festetan zaldunek torea zitzaten[44].

---------- 0 ---------- 0 ----------

1630.ean, Gaskonia–ko Saint–Severe–n buruhausteak izan zituzten zezen–korridak medio. Bordeleko Parlamentuak debekatu egin zizkien, eta oso herri zezenzalea zenez gero, irtenbidea aurkitu ezinik zebiltzan. Azkenean, maiatzaren 29an, zera erabaki zuten: aurrerantzean, Udalak ez zituen zezenak erosiko eta zeuzkatenak saldu egingo zituzten edo okela pobreei eman. Horrela, Parlamentuaren agindua beteko zuten[33]. Baina asmatzekoa denez, Udalak ezik beste norbaitek antolatuko zituen zezenak.

Aldi hartan Arrasaten ere bazuten zezenak korritzeko ohitura. 1631.eko agiri batek, plazako oholtza eta barrerak aipatzen ditu. Madalenako ospitalean gordetzen omen zituzten[47].

1632.en urtean, erretorde berria etorri zen Iruñera; Luis Bravo de Acuña jauna. Apirilaren 1ean zezenak izan ziren bere omenez, eta horretarako Joan Murgutio tuterarrari hamar zezen erosi zizkioten. Sanferminetarako, Luis Ballés–i hartu zizkioten hamabi. Ballés hau, Alfaro–koa (Grakuri–koa) zen eta Nafarroako Bardeetan zituen zezen–taldeak. Bere zezenei burdin marka ipintzen zien (ziri bat), eta toreaketarako zezenak hazteari emana zegoen[3]. Bere unanmaizter, unai, joaldun, eta abar zituen horretarako. Hurrengo urtetan ere Iruñera zezenak zerbitu zituen (beti prezio altuan).

Guzti horregatik, Luis Ballés korridatarako egiazko *ganaduzalea* zela esan daiteke, ordurarteko gainerakoentzat *zezenjabe* hitza hobeto egokitzen delarik[5].

Urte horretan, bi anaia errioxar aritu ziren Iruñean toreatzen. Cornago–ko Exea–koak ziren (Igea–koak, Fitero ingurukoak). Bata Bernardo Alvarez zen eta beste hamabost urtez ere etorri zen Iruñera. Beste anaia Juan Alvarez zen. Bere anaiarekin batera ibili zen lanean. 1634.ean eta 1646ean, zauritua suertatu zen[10].

1633.urtean, Korellako Agustin Ximenez–en ganadutegiaren arrastoak daude[3]. Luis Ballés–i ere erosi zizkioten zezenak Iruñerako. Baita hurrengo urtean ere (1634.ean) dirudienez[5].

Gaztelu–plazako toril–etxea (zezen–etxea ere deitzen zioten batzuetan), agintariz betetzen zen festa–egunetan zezenak ikustera. Balkoiak hartzen zituzten horretarako. Etxea bera ordea, alokatu egiten zuen Udalak. Esteban Aoiz zurgina zegoen maizter 1634.ean. Etxe horretan Udal–eskola ere bazegoen[18].

Tomas Berrueta iruindarrak, urte hartan parte hartu zuen Gaztelu–plazan lehen aldiz. Oinezko eta zaldizko toreatzailea zen. 1638.ean ere lan egin zuen Velez–eko markesaren omenetako zezenetan. 1652. urtean ere bai, Bartzelona hartu zutela eta antolatu zen festan. Zaldiz bitan bikain

jo omen zuen zezena lantzaz orduan[10].

Gatozen ordea 1634. urtera. Martin Azpilikueta harakinak, eskaria egin zion Iruñeko Udalari. Erretorde berria etorri zenean, beren aginduz idia kalez kale erabili zuela zioen. Baina, jende asko zela eta, zaurituta hurrengo egunean hil egin omen zen idia. Okelatan saltzerik ez zuen izan horregatik harakinak, eta kalte-ordainak eskatu zizkion Udalari. Udalak 10 dukat eta 44 taia ematea erabaki zuen. Idiak 136 harat libra pisatzen zuenez, lau taia eman zizkioten librako[5].

Arrasaten urte hartan, harresiaren kontra pasabidea egin zuten udalgizonek handik zezenak ikus zitzaten[47].

Aire-ko apezpikuak, Gilles Boutault-ek, bere elizbarrutian zezenak jaiegunetan korritzea eskomikuaz zigortu zuen urte hartan. Izan ere zezenak baziren Aire-ko elizara jende gutxiago joaten zen eta batzuetan elizako atarira ere sartu egiten ziren[11].

1635. urtean Azpeitiko Udalak enkanterako deia egin zuen. Saninaziotan zezenak korritzeko, plaza (oraingo herriko plaza) ixteko barrerak behar zituzten. Zezenak, suak, musika etab. izan ziren urte hartan[35].

Iruñean, beti bezala ospatu zituzten sanferminak. Argetas-en Frantzisko Ablitas-i zezenak erosi zizkioten[5]. Zangozatik Jose Burdeos toreatzailea ekarri zuten. Geroztik ere lan egin zuen zangozar honek Gaztelu-plazan. 1638.ean eta 1645.ean adibidez (azken aldiz 1645.ean). Toreatzaile ona izango zen, noski, asko kobratzen zuenez gero; 50 erreal hain zuzen.

1635.ean, Arnedo-tik Pedro Perez Castro toreatzailea ere ekarri zuten iruindarrek. Honek, 1638.ean ere parte hartu zuen Gaztelu-plazan Velez-eko markesaren ohoretan izandako zezenetan[10].

1636. urtean, badakigu Luis Ballés alfarotarraren ganadua jokatu zela Iruñeko Gaztelu-plazan[5]. Azpeitiko zezenak ez dakigu zeinenak ziren, baina San Inazio biharamunean ingurutako jende asko bildu zen zezenetara[33].

Aire-ko elizbarrutian (Gaskonian), zailtasun handiagoak zeuden zezenak ikusteko. Bertako Gilles de Boutault apezpikuak zezenen kontrako ordenantza bat argitaratu zuen bi urte lehenago aipatu dugunez. Saint-Severe-ko Udalak, onartzen zuela ordenantza aitortu zuen, baina besteren batzuk zezenak antolatzen bazituzten, edo herrilurretatik kanpo korritzen baziren, Udalak ez zuen inolako erantzunkizunik izango.

Mendi Martzana-ko jendeak (Mont-de-Marsan-ekoak), aurka egin zion apezpikuari. Haiek ziotenez, guztiz aspaldidanik jokatzen ziren zezenak Santa Madalen zaindariaren festetan.

Orduan, Luis de la Valette, Epernon-eko duke eta Guiena-ko gobernadorea sartu zen tartera. Gobernadore hau aurrez ibilia zen Bazas-eko zezenak desagerterazi nahian, baina jendearen asmoen kontra joatea alferrik zela edo pentsatuz, martzanatarrei zezenak korritzeko baimena eman zien. Baldintza bat ipini zuen ordea: zezenen adarpuntak moztu egin behar ziren. Boutault apezpikuak, geroztik ere argitaratu zituen beste debeku batzuk zezenen kontra. Baina alferrik[33].

Azpeitian, hurrengo urtean (1637.ean) 100 erreal ordaindu zizkioten Pedro Larreari San Inazio eta San Agustin-en festetarako plazako barrerak ipintzeagatik.

1638. urtean ere Pedro Larreak berak ipini zituen barrerak Probintziako Batzar Orokorrak

apirilean Azpeitian egin zirenean[35].

Iruñean Velez-eko markesaren omenetan zezenak izan ziren. Toreatzaile batzuen izenak emanak ditugu jadanik. Frantzisko Lorente Agredakoa, Joan Labaien Zangoza-koa eta Pedro Arnedo Exea-koa ere aipatu behar dira ordea zerrenda osatzekotan[10].

1639.ean, Trento-ko Kontzilioaren ondorioz Kalagorri-n kalonjeei debekatu egin zitzaien sokarik gabeko zezenetara joatea. Ezin zuten plazara joan; ez zuten leihotik edo zirrikituetatik begira egon behar. Zigorra 20 dukatekoa zen[48].

Urte hartan Balmasedan, plaza zabaldu egin zuten Revilla-ko konteak herriari lur batzuk dohain eman zizkiolako. Zezenak hobeto korritu ahal izan zituzten plaza zabaldu, berdindu eta harriztatu zutelako[9].

1639 edo 1640.ean Bizkaiko Bolibar elizateko zezenetara, arratiar ospatsu bat joan zen: Martin Axpe Zarate zeanuritarra, infante kardinalearen idazkaria. Martin jaunaren morroi bat burrukan hasi zen zezenak bukatu ondoren beste mutil batzuekin. Ezpata-muturra puskatu eta Martin Axpe arratiarra buruan jo eta hil egin zen[49].

Bolibar-eko festetan urtero jokatuko zituzten seguraski zezenak. Ez zen hori kronikatan berri emateko moduko albistea; arruntegia bide bait zen. Martin Axpe-ren heriotza ordea, seinalagarria izan zen, eta zeharka bada ere, Bolibarreko zezenkoen berri ematen da.

---------- o ---------- o ----------

Azpeitian, 1640.ean, saninaziotan eta Ama Birjina Sortzez Garbiaren egunean izan zituzten zezenak. Hurrengo urtean ere (1641.ean) izan ziren zezenak, danbolin, ezpata-dantza, su eta guzti[35].

Urte hartan, Iruñeko Udalak zinegotzia (sanferminetan alferitz edo banderadun izango zena) turutaria eta pregonaria bidali zituen Erribera eta Gaztelara zezen-bila[3]. Garzia Ballés alfarotarrari (Luis Ballés-en semeari), bederatzi erosi zizkioten hogeitalauna dukaten truk. Hurrengo urtean beste bederatzi prezio berdinean.

Korellako Agustin Ximenez izan zen Erriberako beste ganaduzale famatu bat. Lau zezen saldu zituen 1642.ean Gaztelu-plazan joka zitzaten hogeitalauna dukatetan[5].

Urte hartan Kalagorri-n, Udalak katedraleko elizgizonei komedia eta zezenetarako gonbitea pasa zien. Elizgizonek balkoi bat propio alokatu zuten horretarako. Irailean berriz, Osma-ko apezpikua etorri zen moja karmeldarren eliza berrira Jauna ekartzera. Hiriak apezpikua eta katedraleko elizgizonak zezenetara gonbidatu zituen berriro. Kalonjeak eta apezpikua oholez egindako palku berezi batean egon ziren[48]. Garbi dagoenez, 1639.eko debekuek ez zuten asko iraun. Hiru urte geroago kalonje guztiak han joan bait ziren berriro zezenetara.

1643. urtean, Bilbon Santiago apostolua aukeratu zuten herriko zaindaritzat. Festetan, kanpoko jende asko etortzen zen, bai mendiz eta bai ibaiz San Anton elizaren aurreko plazara (azoka-plazara) zezenak ikustera. Zezenak batez ere Gorpuzti eta Santiago egunetan izaten ziren. Zaldizkoen burtziketa izan ohi zen[50].

Iruñean, eta urte hartan, Garzia Ballés-en hamar zezen (24na dukatekoak) korritu ziren sanferminetan Gaztelu-plazan[5]. Besteak beste, Pedro Reta toreatzaile alfarotarrak parte hartu zuen.

Baita hurrengo hamabost urteetan ere[51].

1644. urtean, iruindarrek Garzia Ballés–en eskutitzak jaso zituzten. Ganaduzale alfarotarrak, bere eta bere anaia Luis–en zezenak eskaintzen zizkion Udalari. Bi anaia hauen zezenak Bardeetan larratzen ziren. Baten zezenek, Garziarenek, ezkerreko iztergainean zuten burdin marka. Luis-en zezenek berriz, marka berdina zuten eskuinekoan.

Udalgizonek, zezen suharrak, handiak eta nahikoa adinekoak behar zituztela gaztigatu zioten Garziari. Ganaduzaleak orduan, hamalau zezen aukeratzea (zazpi bereak eta beste zazpi Luis–enak) proposatu zien iruindarrei. Prezioa ere haien esku uzten zuen. Zezenak plazan jokatu ondoren kobratzea onartzen zuen gainera.

Garziak, hamalau zezenak Erriberran eduki zituen jokatu baino sei edo zazpi egun lehenagorarte. Horrela ur– eta belar– aldaketaz suhartasuna gutxiago lermatuko zitzaiela uste bait zuen. Gero Antonio eta Migel Lekunberri iruindarrak Garziaren unai batekin joan ziren zezen–taldearekin[5]. Hamalau zezenen izen eta xehetasunak, ondoan damaizkizuegu:

– *Rabalero*. Lepo osoa beltza
– *Miramonte*. Muturzuria
– *El Jibado*. Muturbeltza
– *El Alcotan*. Gorria . Kopet–marraduna zertxobait
– *Gabilan*. Erabat zuria
– *El Roio*. Mutur zerrendaduna
– *El Bravo*. Adarbeltza
– *El Gamo*. Betinguru zuriduna
– *Sargento*. Adarluzea
– *El Litero*. Gorria, fina
– *Cerbato*. Adarrapala
– *El Gabilan*. Gorria
– *El Barado*.[52].

Zezen hauek toreatzera, Joseph Trasobares eta beste batzuk etorri ziren Gaztelu–plazara. Trasobares, Tuteran bizi zen eta 1663. urterarte segitu zuen Iruñera toreatzera etortzen. Asko kobratzen zuenez gero, lanean ona izango zela pentsa daiteke[51].

1645. urtean, Frantzisko Mihura Kapiza jaunak, kaparetasun– edo hidalgi agiria atera zuen Hondarribian[47]. Geroztik hain famatua izango zen Mihura ganaduzale sevillatarrak gure artean zituen arbasoak inola ere.

Euskal toreatzaileak, joan ohi ziren beste herrietara ere lanera. XVII. mendean koadrila asko ibili zen Madrileko Plaza Nagusian. 1646. urtean sanjoanetako korridan Joan *el Vizcaino* izenekoak adibidez toreatu zuen[53].

Iruñean, Agustin Ximenez korellarraren hamasei zezen ekarri zituzten, hogeitabostna dukat ordainduta. Ballés anaiei hamalau erosi zizkieten[5]. Gaztelu–plazan, Migel Morrosote toreatzaile tuterarrak parte hartu zuen beste batzuekin batera. Bere garaiko onenetakoa zen eta 1664. urterarte lan egin zuen Iruñeko zezenetan[51].

Azpeitian 1646.ean, torilak, barrerak eta gainerako oholak ipini zituzten *plaza berriko*

zezenetarako. Bizente Akotegi-k egin zituen barrerak 228 errealen truk. Erdia Udalak ordaindu zion eta beste erdia Probintziako Batzarrak. Zezenak, inguruko baserrietatik ekarri zituzten[35].

Urte hartantxe, Kalagorriko Udalak komedia eta zezenetara gonbidatu zituen katedraleko elizgizonak. Hauek, plazako etxearen hiru arku eskatu zituzten. Erdikoa apezpikuarentzat zen[48].

Aire-ko apezpikua ordea, Kalagorrikoa ez bezala zebilen. Gilles Boutault-ek, 1647.eko maiatzaren 9an, berriro ere debekatu egin zituen zezenak elizbarruti hartan. Debeku-agirian bi zezenketa-mota bereizten ditu. Bata, Espainiako modakoa zen ; zaldiz eta zakurrez egiten zenekoa. Bestea, elizbarrutiko erakoa zen; plazan arau finkorik gabe oinezkoek egiten zutena; Nafarroa eta Euskal Herriko beste lurraldetan oinezkoek egiten zuten bezalakoa; **euskal zezenketa** esango genuke guk, liburu honen *Sarrera* atalaren bukaeran gaztigatutakoari jarraituz.

Apezpikuak, Espainiako modakoa (zaldizkoa) igande eta jaiegunetan bakarrik debekatu zuen. Bertako zezenketa berriz, erabat.

Gaskoniako beste elizbarrutietan garai hartako antzeko agiririk ez badago ere, horrek ez du esan nahi zezenak korritzen ez zirenik. Izan ere Cousserans-eko Marca apezpikua ere kezkaturik zegoen bere elizbarrutiko zezenak zirela eta. Carlos Montchal apezpikuak zera idatzi zion Marca-ri:... *baina jendeak (handiak eta xeheak) duen zaletasuna ikusita, hobe litzateke debeku soila ematea, eta ez eskomikua, eta Bordeleko Prokuradore Orokorrari lehenbizi eta Gorteari gero berri ematea. Horrela haserrerik gabeko herria izango genuke...*[33].

XVII. mendean zezenak Gaskonia osoan zirela pentsa daiteke beraz; Euskal Herri osoan bezalaxe eta euskal erara.

Urte berean, 1647.ean, Iruñeko arduradunak Erriberara eta *auzoko Gaztelako erreinura* joan ziren zezen-bila. Alfaron behintzat zezenak erosi zituzten[5]. Frantzisko Milagro etorri zen urte hartan eta hurrengo beste hogeitamarrean Gaztelu-plazara. Tuterarra zen toreatzaile hau[51].

Tolosan ere izan zuten urte hartan zezenak korritzeko arrazoi berezia. Santa Maria elizan, Bernabe Cordero-ren erretaula berria ipinia zen, eta abuztuaren 10, 11 eta 12an ospakizunak, zezenak barne, izan zituzten[54].

Soraluzen ere bazuten zezenak jokatzeko eta batzuetan hiltzeko ohitura. Santiago eta Santa Ana egunetan, Ama Birjina abuztukoan eta Gorpuzti bezperan, Bazko egunean eta abarretan korritzen ziren zezenak Soraluzeko kaleetan. Baina 1647.ean, zezenetarako plaza berezia egitea erabaki zuten. Klara Txurruka, bere seme Pedro Irure eta Bizente Arregik lurrak utzi egin zituzten horretarako. Joan Hernizketa eskribauak idatzi zuen agiria oso argigarria da:

"... avian ofrezido a esta dicha villa y sus vecinos suelo y sitio en el termino de Arreguijalzada en sus propias heredades para hazer una plaza para correr toros de las fiestas de Ntra. Sra. de Agosto y otras que durante el año se le ofrezian en todo el tiempo del mundo con que la dicha villa y sus vezinos hubiesen de hazer las paredes y lo demas de la costa para correr los dichos toros con que ellos ni la dicha villa hubiesen de ocupar en otra cosa el dicho sitio sino que solo avia de ser para correr toros..."

Zezenplaza hau Soraluzeko oraingo plaza zaharra da, eta lehen *Kalebarreneko Plaza Berria* esaten zioten[8].

Azpeitian, Gorpuzti bezperan Andres Eizagirre, Joan Iraola eta Felipe Etxeberriaren zezenak jokatu ziren. San Agustin festetan ere bai, komentuko priorearen eskariari Udalak baiezkoa eman ondoren. Bizente Akotegik ipini zituen plazako barrerak.

Hurrengo urtean, Bautista Goenaga arduratu zen plazako barreretaz. Zezenak, herritarrei eskatu zizkien Udalak festetarako. Festa asko ospatu zituzten azpeitiarrek 1648.ean: San Sebastian, San Inazio, Gorpuzti, Ama Birjina iraileko eta Andre Maria Birjina Sortzez Garbiaren egunez[35].

Irufiean berriz, urtero bezala Erriberako zezenez hornitu ziren. Diego Allo argestastarraren hamabi zezen zituzten hogeitabostna dukat ordainduta[5].

Domingo Billabak, Tuteran bizi zen toreatzaileak, lan egin zuen. 1655. urterarte ibili zen Irufieko sanferminetan. 1649.ean zaldizko burtziketan aritu zen[51].

Baina 1648.eko sanferminetan, zezenaz gain dantzak eta erraldoiak ere izan zituzten, Migel Gazolaz-en eskutik. Sei erraldoi atera zituen uztailaren 6ean (festa-bezperan), 7an (San Fermin egunean) eta 10ean (korrida-egunean). Erraldoiekin batera, zaldikoak (*caballicos*) atera ziren. Katedraleak, sei erraldoi zituen festetarako, baina dantzarako erraldoiak ziren. Beste lau, Udalak zituen, baina sutarako. Bolborazko suak bukatutakoan, Johan Fernandez Terrobas zurginak konpondu zituen zortzi dukatetan hurrengo baterako prest utziz. Baina handik bi urtera erre egin ziren[55].

1648.ean, Aire-ko Gilles Boutault apezpikua ez zegoen zezenak onartzeko tenorean. Luis XIV. erregearengandik Aire-ko elizbarrutirako debekua lortu zuen. Erregearen agiriak dioenez, zezenak meza nagusiko eta apezpikuaren hitzaldiaren garaian ateratzen zituzten plazara. Jendeak, ezten-hagak botatzen omen zizkion zezenari, eta ihesi elizako atea jo, bota eta barrura sartzen omen zen aberea leku sakratua profanatuz. Korridatan gainera, zalaparta eta arriskuak (batzuetan heriotzak eta hilketak ere bai) zeuden. Zezenetan, irainak, biraoak, heriotzak eta beste delituak ere izaten omen ziren.

1649.ean, Boutault apezpikua Evreux-eko elizbarrutira aldatu zuten. Bere ustetan, zezenak baztertuak ziren Aire-ko diozesian. Baina oker zegoen. Luze baino lehen berriro itzuliko bait ziren zezenak herritako plazatara[33].

Baina Frantziako Luis XIV.ak ez bezala, Espainiako Felipe IV.ak ez zuen zezenak debekatzeko asmorik. Madrileko Plaza Nagusian noiznahi antolatzen zituzten zezenfestak, eta han izaten ziren euskal toreatzaileak. 1.649.eko abenduaren 22an Pedro Aineta bai behintzat. Hamar dukat jaso zituen bere abileziak erakusteagatik[53].

Nafarroako Biana-n ere zezenetarako debekuak izan ziren, arestian aipatu dugunez, Trento-ko kontzilioaren ondorioz. Baina 1.649.ean berrehun errealetan lau zezen ekarri zituzten Ama Birjina abuztuko egunerako inguruko *Agonçillo* herritik[19].

Balmasedan, beste era bateko arazo batek buruhausteak sortu zizkien urte hartan. Plaza ixteko barrera eta oholak zaharkituak bide ziren, eta herritar batzuek beren kupelak ez zituzten utzi nahi. Beraz, Udalak barrera berriak egitea erabaki zuen eta enkanterako deia zabaldu[9].

———— o ———— o ————

XVII. mendearen erdi-erdian, 1.650.ean, Lizarra-ko alkateak Iratxe-ko abadeari eskabidea

egin zion abuztuaren zortziko festetarako zezenak Legardetako partean larra zitezen; Legardeta izeneko baserri eta lurren jabea Iratxeko monastegia bait zen orduan.

Abuztuko festetan, bi zezen San Martineko plazan jokatzen ziren (abuztuko lehen igandeko bezperan), eta astelehenean Azoka Berriko plazan (oraingo Foru–plazan). Korrida, elizako bezperak bukatu ondoren hasten zen, eta etxejabeek derrigorrean Udalaren esku uzten zituzten plazara jotzen zuten leiho eta balkoiak[44].

Azpeitian 1.650. urteaz gero, zezenetarako ezten–hagak aipatzen dira agirietan. Udalak erosten zituen *garrocha* hauek, beste herrietan bezalaxe[33].

Martzelino Soroa idazle donostiarrak berriz, 1.650. urteko albiste berezia damaigu bere *Azak eta Naste* liburuan zezensuzkoaz; urte hartan Txinatik Donostiara ekarri zutela bait dio[56]. Baina Martzelino Soroa teatrogilea XIX. mendean bizi izan zen, eta hemen esandakoak kontutan harturik, zezensuzkoari jatorri txinarra emateko ez dugu inolako arrazoirik ikusten, egia esan.

Beste oinarri bat dute 1.651. urteko Donostiako zezen–albisteek. Uztailaren batean, Nafarroako Erriberatik zortzi zezen suhar ekartzea erabaki zuen Udalak, Santiago eta San Roke–ko festetarako. Bi egun geroago, Probintziatik zezen gehiago ekartzea erabaki zuten, zortzi nafar–zezenak gutxi zirelakoan.

Hilaren 6an, zilarrezko 3.500 erreal bidali zituzten Iruñera nafar–zezenak ordaintzekotan, eta abuztuaren 19an enkantean nafar–zezenak saltzea erabaki zuten inguruko sailetan kalteak egiten zituztela eta[34].

Azpeitian, zezenetarako plaza behar bezala ipintzen saiatu ziren 1.651.ean. Ekainaren 20an hartutako erabakiz, Santo Domingo–ko komentuko prioreari zera jakin erazi zioten: Ken zezala plazako presa eta garbi utz zezala San Inazio egunerako[35].

Soraluzen berriz, abuzturako bukatu zituzten zezenplazako obrak. Arregi Goiko etxearen horman, Joan Mendiola–k bost txinget ipini zituen. Toreatzaileak larrialditan txinget hauetatik zintzilikatzen ziren zezenarengandik libratzearren[8].

Iruñean, beti bezala antolatu zituzten sanferminak. Diego Allo argetastarrari bi zezen hartu zizkioten hogeitabostna dukatetan. Zezen gehiago ere erosi zituzten Erriberan, baina 1.651. urtean seinalagarria zera izan zen: zortzi zezen eta bi joaldun Zamoratik ekartzea. Bejar–eko dukeari erosi zizkioten Zamorako partean (eta ez Salamanca–n).

Urte hartan, Migel Irurtzun eta bere lagun lepakarientzat bederatzi dukat t'erdi eman zituen Udalak. Langile hauek zortzi upela eraman zituzten ibaira Gaztelu–plaza ureztatzeko. Hildako zezenak ere atera eta zulora sartu zituzten Gaztelu Zaharrean, besteak beste.

Garai hartan, plazan hildako zezenik ez zuten jaten iruindarrek. Ehortzi egiten zituzten. Gero XVIII. mendean ordea, komentu eta errukietxeei doan ematen zizkieten[5].

Baina 1.651.ean beste lan batzuk ere burutu zituzten Gaztelu–plazan. Beste etxe batzuk erosi, dena bota eta toril–etxe berria (lehengoa baino handiagoa eta ederragoa) egin zuten. Balkoiak, Adame Narbarte lesakarrak egin zituen; erretorde eta udalgizonak beren graduari zegokion eran zezenetan egon zitezen. Sanferminetako zezenak bait ziren Udaleko emankizunik ospatsuenak. Toril–etxeko lehen estaian, balkoia aldenik aldenekoa egin zuten eta Migel Leon pintatzaileak

urreztatu zuen.

Sanferminak pasa ondoren, irailaren 14ean Udalak erabaki garrantzitsua hartu zuen. Gaztelu-plazan hamar etxe egiteko lekua zegoen, eta bakoitza 300 dukatetan salduko zion nahi zuenari[18].

1.651. urteak gainera, badu beste albiste bat. Zein lekutan ez badakigu ere, badirudi urte hartan erabili zela lehen aldiz dibisa zezenetan[2].

1.652. urtean, Bizkaiko Gizaburuaga-n dantzak eta zezenak izan ziren irailean Ama Birjinaren festetan. Diputatu Nagusia ere han zen, beste pertsonaia batzuekin batera. Igandean ez zituzten zezenak korritu (... *por quitar este mal abusso que ay en muchos lugares de Bizcaya*...); antzarak korritu ziren. Astelehenean, bi zezen plazaratu zituzten, eta astearte goizean bat edo bi festei amaiera emateko[57].

Iruñean, zailtasunak zeuden urte hartan zezenak erosteko. Ez dakigu zergatik, baina erretordeari zedula eskatu behar izan zioten eta hogeitamarna dukat (aurreko urtean hogeitabostna kostatu ziren) ordaindu zituzten zezenengatik.

Gaztelu-plazan, Esteban Aoiz toreatzaileak, Teruel-en bizi zenak, lan egin zuen. Geroztik leku berean 1.671. urterarte erakutsi zituen bere abileziak. Martin Ibiriku kaparrosoarra ere han zen 1.652.ean toreatzen. Gero 1.657 eta 1.661. urte bitartean aritu zen berriz. Zezen bati zela ipini eta haren gainetik beste zezen bat lantzaz jotzen zuen. Gero, 1.663. urtean, sanferminetarako zezen-tratuan ibili zen[58].

1.653. urtean, iruindarrak Ebro ibai inguruetara eta Gaztelara joan ziren zezen-bila[3]. Sanferminetan, toreatzaileez aparte zerbitzu-lanetan Joan Lekunberri eta zazpi lagunek lan egin zuten. Bi zaldi eta hildako zezenen erraiak zulora sartzen eta beste zenbait lanetan aritu ziren. Ehun eta bi erreal irabazi zituzten[5].

Kalagorrin, Santiago eta San Andres parrokietako elizgizonek etxe bat erosia zuten zezenplazan korridak balkoitik ikusteko. San Andres parrokiatik gainera, damaskoihala (zuten onena) ekartzen zuten balkoian zintzilika ipintzeko. 1.653. urteko zezenetako askaria gainera, ez zen badaezpadakoa izan. Berrogeitaka elizgizonei, berrogei oilasko, ogia, ardoa, fruituak eta bi urdaiazpiko zerbitu zitzaizkien[48].

1.654. urtean, Tuteran Erremenderi plazan (*Las Herrerias*en) izan ziren zezenak uztailaren hogeitamarrean[46].

Urte honetan, emakume laborari batek zezena lantzaz jo omen zuen, Cossio-k dioenez[22]. Madrilen berriz, lau toreatzaile nafarrek parte hartu zuten Plaza Nagusiko zezenetan[53].

Azpeitian, urte hartan Ama Birjina irailekoan ere korritu zituzten zezenak plazan; oraingo herriko plazan hain zuzen. Plazaren zati batek, *Anzezuzelai* izena zuen[35].

Iruñean, oztopoak zituzten berriro ere zezenak eskuratzerakoan. Beraz zedula eskatu zioten erretordeari eta hogeitamar dukat ordaindu zuten zezen bakoitza. Erriberara eta auzoko erreinura joan ziren zezen-bila. Baita 1.655. urtean ere[5].

Toreatzaile nafarrak, Madrilera maiz joaten ziren plazan lan egitera. 1.656. urtean, *Martin de Berrico* izan zen han 600 errealen truk. Juan Alonso sevillatarrak 350 bakarrik kobratu zituen. Toreatzaile kotizatua zen inola ere Martin nafarra[53]. Nerekiko, ez zen *Martin de Berrico* Madrilen trebetasunak erakutsitakoa; Martin Ibiriku kaparrosoarra baizik. Arestian aipatu dugu Iruñeko Gaztelu-plazan zezen baten gainetik bestea lantzaz jotzen zuela.

1.656.ean, Probintziako Batzar Orokorrak bildu ziren Azpeitian. 6 zezen erosteko 360 erreal eman zituzten eta beste 66 Bautista Goenagari barrerak jartzeagatik. Urteko festa guztietako barrerak jartzeagatik, sei dukat jaso zituen. San Inaziotan, sei zezen jokatu ziren Azpeitiko eta inguruetako ikusleen gozagarri[35].

Urte hartantxe, Kalagorri-ko Santiago eta San Andres parrokietako elizgizonentzat, 600 *haga* egin zituzten. *Haga* hauek, apaizek beren balkoitik botatzen zizkioten plazako zezenari banderila gisa. Zezena haserrerazi nahi zuten horrela. Manuel Lekuonak[48], zera dio *haga* hauei buruz: pertsona adituei galdetu ondoren jakin zuenez, ezezaguna zela hagen lantze hori beste lekutan. Gure eritzia, bestelakoa da. Ikusi bait dugu XVII. mendean bertan zezenetarako ezten-hagak (*garrochas*) Azpeitian, Iruñean, Bianan, Balmasedan, Gaskonia-ko Aire-ko elizbarrutian eta abarretan egiten zirela. Zuzenagoa litzateke agian *haga* hauek non ez ziren erabiltzen galdetzea.

XVII. mendea baino lehen, ikusleek azkonak zezenari botaka ikus daiteke Alfontso *Jakitun*aren 144. *cantiga*ren irudietan (aurreragoko kapituluan: *Zezenaren inguruko erlijiotasuna: Biblian eta Kristautasunean* kontsulta bedi). Silos-eko monastegian berriz, emakume bat erakusten da pintura batean zezenari azkon-botaka.

Urrutirago jo nahi duenarentzat, ez legoke gaizki Ariége-ko Niaux-eko kobazuloko bisoina ikustea. Paleolitos garaiko abere hark ere, Kalagorriko plazako zezenen antzera azkonak eta geziak bait ditu.



7.2. irudia. Niaux-eko koba. Ariége.

Dena dela, Kalagorriko Santiagoko parrokiakoek beren gastuak zituzten zezenak zirenean, eta 1.656.ean plazan barra ipintzeagatik (hilerrian) bi erreal ordaindu zituzten[59].

1.657.ean, Oihenartek bere *Atsotitzak eta Neurtitzak* argitaratu zituen urtean, Nafarroako Auzitegiak Tuterako Udalari askatasuna eman zion zezenak nahi zuten plazan joka zitzaten. Horregatik harez gero, batzuetan Santa Mariako plazan eta bestetan Erramenteri plazan egin zituzten festak[40].

Ebro ibai ondoko Bianan berriz, Santa Mariako parrokiak Ama Birjina abuztukorako zezenak ekarri zituen[20]. Baina festarik famatuenak Iruñean egin ziren; Nafarroako hiriburuan. Urte hartan, 1.657.ean, nafarrak zatiturik zeuzkan arazo bat konpondu zen. Erreinuko patroitzak San Fermin nahi zuten batzuek. Beste batzuek aldiz, Xabierreko San Frantzisko.

Alexandro VII.a aita santuak irtenbide zuhurra eman zion istilu honi. Biak izendatu zituen, San Fermin eta San Frantzisko (ordena horretantxe), Nafarroako zaindari.

Iruindarrak pozik zeuden erabakiarekin, eta sanferminetako ohizkoaz gain, uztailaren 23an emango zuten beste korrida bat. Frantzisko Peralta Beaumont-ek hartu zuen Ebroren ibai-ertzetan eta Gaztelako beste lekuetan zezenak erosteko ardura[41].

Aurreko urtean jokatu eta sobratutako zezenak ez zituzten nahi. ... *no son aptos para que la dicha corrida sea cumplida.* Jendearen gustoko lantzeak egiteko ez bide ziren egokiak.

Baina zezenak eskuratzeko zailtasunak zeudenez gero, hamazazpi erreal ordainduta erretordeari zelula eskatu zioten. Zezen batzuk, Garzia Ballés-i erosi zizkioten. Baina batekin izan zuten arazoren bat. Iruindarrak ez zion hartu nahi, Alfaron lehendik jokatua zegoela esanez. Orduan, Agustin Ximenez korellarrak zezen hura erosteko eskaria egin zuen, bere ganadutegian hazitarako erabiltzeko edo[5].

Dena den, sanferminetan hamabost zezen eta uztaileko 23an (San Frantziskoren ohoretan) hamabi plazaratu ziren, bakoitzagatik 30 dukat emanda.

Bi korrida hauetan, txorimaloak (plazan zezenari ipintzen zizkioten giza itxurako txotxongiloak), oinezko eta zaldizko lantzaketa, etab. izan ziren. Zezen batzuetarako, jendeari ezten-hagak eman zizkioten animaliari aurre egitearren.

Baina egia esan, sanferminetako korrida bigarrena baino garrantzitsuagoa izan zen. Batetik, sanferminetan tinako lantzea ere egin zuten. Larruzko tina baten barruan mutila ipinita, zezenak jotakoan lurrean biraka joaten zen. Gero, arriskurik ez zegoenean, mutila tinatik ateratzen zen.

Urte hartako sanfermin-korridan gainera, toreatzaile gehiago eta hobeak ekarri zituzten Gaztelu-plazara. Hona hemen izenak eta kobratu zutena:

– Frantzisko Milagro.	200	erreal
– Martin Ibiriku	200	"
– Joseph Trasobares	100	"
– Esteban Aoiz.	100	"
– Felix Romero	100	"
– Frantzisko Perez Lobiko	80	"

- Simon Sanz . . . . . 50 "
- Migel Morrosote . . . . . 50 "
- Manuel eta Gabriel Adan anaiak . . . . . 64 "
- Frantzisko Olloki. . . . . 24 "
- Joseph Roio . . . . . 16 "
- Anbrosio Espartza . . . . . 16 "
- Juan Cabezas. . . . . 12 "

*Patronato*ko korridan, uztailaren 24ean, hauek parte hartu zuten:

- Frantzisko Milagro eta koadrila. . . . . 640 erreal
- Esteban Aoiz (terueldarra) . . . . . 100 "
- Pedro Azparren (iruindarra). . . . . 100 " 41

Toreatzaile nafarrak, garai hartako onenak ziren. Horregatik kontratatzen zituzten Madrileko Plaza Nagusian lan egin zezaten. 1.658.ean, koadrila joan zen eta hiruna kana tafetan gorri eman zieten soinean banda gisa jantzita plazan besteengandik nabarmen zitezen[22].

Urte hartan, Espainiako Felipe Prospero printzea jaio zela eta, festak nonnahi egin ziren. Hueska–n[30] eta Salamanca–n ere bai, zezen, su eta guzti. Euskaldunak ere baziren ikusleen artean, eta batek poesiak ere idatzi zituen han ikustakoaz. Hona hemen zati bat:

Zugati, aurten, Iauna,
Maoma urcaturiq
zugati ecusidet
Cromuel erreriq

Salamancan izan ere, zezenen ondoren bolborazko irudi batzuk erre zituzten. Horietako bi, Mahomet eta Oliver Cromwell–enak ziren[60].

Cossio–k dioenez, arrazoi berberagatik Granadan egindako zezenfestetan burtzi bereziak sartu zituzten: geroko suzko banderilen antzera fulminante eta bolbora zutenak[22]. Ez dakigu fulminantea nolakoa izan zen. Izan ere merkuriozko fulminatoa 1.800. urtean asmatu bait zen[61].

Tolosan, urte hartan (1.658.ean) herriko plaza (zaharra, orduan zezenak jokatzen zirenekoa) zabaldu egin zuten, etxejabe batzuek bizpahiru orube eman ondoren[62].

Urte bukaeran, Ondarroan, komedia, suak, zezenak, etab. izan zituzten Ama Birjina Sortzez Garbiaren festetan[57].

Printzea jaio zela eta, azpeitiarrek hiru egun eta hiru gauez ospatu zituzten festak. Lau zezen ekartzeagatik 130 erreal gastatu ziren. Beste 12 erreal jaso zituen Bautista Goenagak barrera–lanengatik. San Inazio biharamunean sei zezen plazaratu zituzten 300 erreal ordainduta.

Hurrengo urtean, 1.659.ean, azpeitiarrek barrera berrien premia zuten eta Udalak, berriak eragin zituen hamabi dukatetan. Simon Eizagirre eta Bizente Korta izan ziren barreragile. Baita barrerajartzaile ere, lan horregatik 100 erreal jasota. Sei zezen toreatu zituzten urte hartan festetan[35].

Soraluzen berriz, Joan Agirre hornitzaileak Ama Birjina abuztukorako bi zezen suhar ekartzea proposatu zuen. Batari zakurrak botako zizkioten plazan, eta suzko basta ipiniko zioten

(zezensuzkoa). Bestea, korritzeko izango zen[8].

Urte hartantxe, Agramont-eko dukea Irunetik Madrilera zihoala eta, Burgos-en festak antolatu zituzten bere omenez. 12 zezen plazaratu ziren. Zakurrek ere lan egin zuten plazan. Toreatzaile onek ere bai. Oinezkoek hirutan jo zuten lantzaz, eta zaldiz behin[30].

Urte berean, 1.659.ean, nafar-toreatzaile batzuk Madrilen lan egin zuten. Santa Anako festetan, Antonio Bautista (zezen bat eman zioten sari gisa), Jazinto Gonzalez (honi ere zezen bat eman zioten) eta Mateo (Jose Urrearen taldekoa eta zauriturik gertatua. Bi zezen eman zizkioten horregatik) oinezko toreatzaileak han zeuden adibidez. Baina beste oinezko toreatzaile nafar batzuk ere madrileratu ziren urte hartan: hala nola, Baltasar Pardo (50 erreal kobratu zituen), Antonio Kintana (zezen bat eman zioten) eta Jose Urrea. Jose Urreak Madrilen sanisidrotan zezen bat irabazi zuen eta santanatan beste bat[10].

———— o ———— o ————

1.660. urtean, Kalagorriko kalonjeek etxe bat erosi zuten zezenplazan (el Raso de Santiago izenekoan), elizgizonak graduari zegokion itxuraz handik zezenetan begira egon zitezen. Goiko estaiako balkoietan, kalonjeak egoten ziren, eta behekoetan gainerako beste apaizak (guztira 100 baino gehiago). Emakumeek ez zeukaten apaiz artean egoterik[48].

Oiartzunen ere bazuten zezenak korritzeko ohitura. San Estebaneko festak ziren egun aproposak horretarako; abuztu hasieran hain zuzen. 1.661. urtean, zortzi zezen jokatu zituzten[63].

Iruindarren ordezkariak, urtero bezala zezen-bila atera ziren 1.662.ean. Urte hartako agiriak dioenez, Nafarroako Erriberara eta Gaztelako lurretara. Egun gutxi igaro zituzten ordea, eta Ebro ibai inguruan ibili zirela pentsatzekoa da[5].

Ama Birjina irailekoan, Balmasedan 290 erreal kostatu zitzaien festetarako antolakuntza, zezenetarako barrerak barne[9].

Kalagorriko apaizek, debeku bat jaso zuten 1.662. urtean. Zezenetan beren balkoian zeudela, ez zuten jeiki behar ezten-hagak abereari botatzera. Eserita bota behar zituzten nonbait[48].

Madrilen urte hartan, Kristobal Lopez Gabiria Zubizarreta hil zen; Bergarako Gabiria dorretxeko maiorazgoaren jabea. Madrilen jaioa zen eta zezenak ezten-hagaz toreatzeari buruz liburua idatzita utzi zuen[64].

Hurrengo urtean, 1.663.ean, Sebastian Bentura Bergara Salcedo-k bere *Ideas de Apolo y dignas tareas del ocio cortesano* liburua argitaratu zuen Madrilen. Han dioenez, Miguel Ogirondo zaldun burtzikaria bere lanak egina zen Retiro-ko zezentan[10]. Bai liburugilea eta bai zalduna, euskal jatorrizkoak bide ziren, Bergara eta Oxiriondo Deba ibaiaren ertzean daudenez.

Bergara ondoan, Soraluzen, festetarako zezenak Nafarroatik ekartzen hasi ziren. Batzuetan, Udalak izendatutako arduradunek ekarriko zituzten. Beste batzuetan, ardo nafarrez herria hornitzen zutenek. Herrirako ardo-horniketaren eskubidea enkantean erosten zen urtebeterako, gero ardandegietan saltzeko. Kalebarren-en zegoen ardandegi bat, eta 1.663.ean errebalean (Rabal kalean) ireki zen bigarrena[8].

Soraluzen ezezik Zaldibian ere izan zituzten zezenak urte hartan sanjoanetan. Bi egunetan gainera, barrerak ipintzeagatik eta beste zenbait lanengatik 70 erreal ordaindu ondoren[65].

Azpeitian, herriko zaindarien festetaz aparte, Ama Birjina Sortzez Garbiaren jaietan ere jokatu ziren zezenak. 168 erreal kostatu zen hiru zezen garraiatzea, ezten-hagak egitea eta barrerak ipintzea.

Hurrengo urtean, 1.664.ean, saninaziotan 300 erreal gastatu zituzten azpeitiarrek zezenetan ohi bezala[35].

Ordurako, nafar-toreatzaileak (oinezkoak) oso famatuak ziren Penintsula osoan, eta Madrilen batez ere. Beren toreatzeko era jendeak atsegin zuelako, behin eta berriz kontratatzen zituzten, beste edozein tokitakoak baino gehiago. Bestetik, Ebro inguruko toreatzaileak (nahiz eta Errioxakoak edo Aragoakoak izan) nafartzat hartzen zituzten eite bereko toreaketa egiten zutelako. 1.664.ean, Madrileko Gorteak Iruñean zuen ordezkariak gutuna bidali zien arduradunei zera adieraziz: Tauste-ko Antonio Estoregi gaixo zegoela eta, joaterik ez zuela, baina haren ordez Migel *el Manchego* Agreda-koak egingo zituela toreaketa-lanak[33].

1.665. urtean, Iruñean festetarako zezenak Kalagorritik ekarri zituzten[3]. Kalagorrin, eta urte hartantxe, Santiago parrokiakoek ere dirua jaso zuten zezenen kontura. San Gil egunez korritu zirenean, hogei erreal kobratu zituzten dorrea alokatzeagatik, beste bederatzi koroatzeko leihoaren alokairuagatik eta beste hamazortzi hilerrian oholtzak ipintzeko utzitako lekuengatik[59].

Herri batzuetako elizentzat zezenak diru-iturri ziren bitartean, Landetako Aire-ko elizbarrutian debekaturik zeuden. Hala eta guztiz ere, Saint-Sévère-n eta agian beste herri batzuetan, zezenfestak ez ziren desagertu. Debeku guztien gainetik nola edo hala antolatzen zituzten 1.665.eko urte inguruan[33].

Azpeitian toril berriak egiten eta Santo Domingo komentuko ataria txukuntzen, herritarren artean bildutako 800 dukat gastatzea erabaki zuten 1.665.ean[35].

Azpeiti ondoan, eta urte hartantxe, Zestoan arazo larria zegoen. Udalak herriko plaza zabaldu egin nahi zuen, baina lurren jabe omen zen Ines Irarragarekin, Iraetako anderearekin, ez ziren konpondu.

Hurrengo urtean ordea, 1.666.ean, konpondu ziren. Ines Irarragaren suhia, Frantzisko Idiakaitz zalduna, udaletxera etorri zen tratua egitera. Udalak lurrengatik, Azpeitiak Santo Domingo-ko komentuari torilak egiteagatik ordaindutakoa emango zion Ines Irarragari.

Baina agian askorentzat bitxia gertatuko dena zera da: zestoarrek plaza zabaltzea *zezen-korridetarako* eta beste emankizunetarako nahi izatea[66]. Garai hartako giroa ikusita ordea, ez da harrigarria. Arestian esan dugu Soraluzen ere arrazoi berberagatik egin zutela plaza. Etxetako balkoi luzeak ere, aldenik aldenekoak, plazako zezenak hobeto ikusteko ziren batipat. Zezena izan ere, sokari lotuta kaletan ibiltzetik plazan libre korritzera pasa zen, nahiz eta sokamuturrak gaur arte iraun.

Plazarako zezenak, suharra behar zuen izan; zangarra, bizia. Bestela laster salduko zuten, soraluzetarrek 1.666.eko abuztuaren 24ean egin zutenaren antzera.

Beste arazo bat, plaza zezenetarako egoki ixtea zen. Soraluzen, urtero 30 edo 40 ohol falta

ohi ziren eta bakoitzak erreala balio zuenez gero, garesti zitzaion Udalari. Horregatik, Frantzisko Iraola alkateak barreren arazoa, ordainduta sei urterako norbaiten esku uztea proposatu zuen[8].

Urte hartantxe, 1.666.ean, Balmasedan barrerak urte guztian plazan uztea pentsatu ere egin zuten, beti kendu eta ipini ibili gabe. Hurrengo urtean gainera, 1.667.ean, kanpoko toreatzailea lehen aldiz etorri zen festetara. Pentsatzekoa da ordurarte bertako jendeak toreatuko zuela inguruko Ordunte, Tejera eta Kolisa mendietako ganadua[9].

Lizarrako Udalak, buruhauste handiak zituen urtero zezenfestak antolatzerakoan. San Martineko plazak, txikia izateaz gain etxe eta leiho gutxi zituen ikusleentzat. Beraz, Azoka–plazan eman nahi zituzten korridak hobea zelakoan; baina San Pedro–ko parrokia kontra atera zitzaien, *San Andres–eko bi zezen* zirelakoak han jokatu behar zirela esanez. Udala eta parrokia auzitan hasi ziren 1.667.ean[44].

Iruñean Gaztelu–plazan ez zuten inolako arazorik, eta besteak beste, Agustin Ximenez korellarraren zazpi zezen ekarri zituzten hogeitaseina dukat ordainduta. Juan Perez Carretero toreatzaile tuterar famatuak parte hartu zuen beste batzuekin batera. Hurrengo hogei urteetan ere sarri etorriko zen Juan Perez Iruñera lanera.

1.668. urtean, beste tuterar bat estrenatu zen Iruñean toreatze–lanetan; Domingo Barrera, hain zuzen. Beste hamasei urtean ere maiz etorriko zen hau Gaztelu–plazara[51]. Urte hartan dena den, Agustin Ximenez–en zazpi zezen korritu ziren hogeitaseina dukatetan erosita[5].

Azpeitian, Probintziako korrejidorea eta bere emaztea gonbidatu zituzten saninaziotako festetara[35].

Hurrengo urtean, 1.669.ean, Pedro Sartolo merkatari tuterarrari 4.200 erreal eman zizkioten Erriberako hamalau zezenengatik. Pedro Sartolo hau, Ana Gorraiz Perez Beraiz–en (Gaspar Bizente Montesa madrildarraren alargunaren) prokuradore zen[3].

———— o ———— o ————

1.670. urtean, Iruñeko udalgizonek zezenak Gaztelatik ekarri nahi izan zituzten. Baina Soriako Agreda herrian istiluak eta konpondu ezinak jende armatu eta guzti gertatu zirenez gero, Erriberakoak plazaratu zituzten[5]. Zezen–bila Erribera eta Gaztelara zihoazela diotenean beraz, Ebro ibaiaren ingurutik ez zirela urrundu ulertu behar da, Zamorako zezenak ekarri zituztenean ezik.

1.670.ean, auzi bat izan zen Iruñean Bardeetako goarda zen Martin Borau melidatarraren kontra. Matias Lobera alfarotarraren zezenak Bardeetan Santakaratik Kadreitara gidatu izana salatu zioten. Juan Boyuelo-k, Lobera–ren unanmaizterrak, eskatu omen zion zezen–taldea gida–zezan[67].

Urte hartantxe, Balmasedara kanpoko toreatzaile bat ekarri zuten festetan lanera. Logroniokoa zela besterik ez dakigu[9].

1.670. urtean Guiena–ko Pellot gobernadoreak soldaduak bidali zituen Bernard Daudigeos eta bere gerrilarien kontra. Luis XIV.a erregeak 1.648.ean zezenak debekatuz gero matxinaturik bait zebiltzan Chalosse lurraldean. Dena dela, zezenak Akitania osoan berpiztu ziren berriro[24].

Azpeitian hurrengo urtean, 1.671.ean, zezen bat Gaztelatik ekartzea erabaki zuten saninaziotarako. Lehen aldiz dirudienez orduan hasi ziren azpietiarrak festetarako ganadua kanpotik ekartzen. Urte hartan, toril gainean eserleku batzuk ere ipini zituen Joan Apeztegik[33].

Iruindarrek erretordearen zedularen premia izan zuten urte hartan. Baita zezen bakoitzagatik hogeitamaika dukat ordaintzekoa ere.

1.672. urteaz gero, sanferminetan bandera eramango zuen zinegotzia izango zen zezen-bila Erriberara joateko arduraduna. Ohorezko kargua zen hura, inola ere, iruindarrentzat[5].

Olite-ko hirian, festetarako zezenak jauregi barruan gordetzeko ohitura hartu zuten, baina kalteak sortzen zituztenez, debekuak laster etorri ziren[67].

Donostian, dantzak eta zezenak izan ziren urte hartan Sebastian Baltasar Carlos de Calderón jaio zela eta[68].

Tolosan zezenak Plaza Zaharrean (orain udaletxea eta Idiakaitz etxea daudenekoan) jokatzen ziren, eta 1.672.ean bukatu zuten bertan udaletxea. Bi estaiakoa zen[69].

Lizarran berriz, zezenetarako plaza medio istilutan zebiltzan. San Martineko plazak harri xehea zuen eta zezenak irristatu egiten ziren. Bestetik, han ipinitako ohol eta abarrengatik San Pedro-ko parrokiara jende gutxi joaten zen elizako bezperetara, Udalak 1.673.ean zioenez. Baina parrokiak kontra egiten zuelako, sanandresetako zezenak Azoka-plazan ezin zituzten korritu[44].

Gaskonia-ko Aire-ko apezpiku berriak berriz, ez zuen zezenik bere agintepeko inongo plazatan nahi. Fromentières jaun apezpikua urte hartantxe hasi zen elizbarruti hartako apezpikutzan eta gero biografoek ziotenez, zezenfestak erabat desagerteraztea lortu zuen. Dena den, geroztik ere Aire-ko jendeari debeku gehiago etorri zitzaion; zezenfestak egiten zirelako, noski[33].

Iruñean, zezenak Salamancatik ekartzen hasi ziren 1.673.ean. Manuel Gonzalez Reyero del Mercado zen ganaduzalea; Salamanca hiriburuko zinegotzia. Zezen bakoitzagatik 300 erreal eskatu zituen, eta prezio horretan berak ganadu ona, suharra eta aitzakiarik gabekoa Gaztelu-plazan utziko zuen. Manuel Gonzalezen 10 zezen atera ziren plazara sanfermin haietan, eta baita hurrengo urtekoetan ere, 1.674.ean, bakoitzagatik 300 erreal ordainduta[5].

Usurbilen, 1.674.ean jadanik sanjoanetan zezenak bazituzten. Urte hartan Sebastian Berridi 94 urteko aitona usurbildarrak bere aitorpenean zioenez, Kale Zahar-eko plazan sanjoanetan zezenak korritzen ziren[70].

Azpeitiko plazan berriz, udalgizonek San Agustineko komentuko fraideei, egina zuten tratua errespetatzea agindu zieten; korrida-egunetan komentu-atariko ateak zabalik eduki zitzatela alegia. Izan ere aurreko urtean Fray Alonso de Vargas-ek ateak itxi egin zituen, eta azken korridan emakume batek min hartu ondoren, barbero edo zirujauek plazatik irteterik ez zuten izan. Probintziako Batzar Orokorrak bildu ziren berriro Azpeitian 1.674.ean. Zezen-bila, asko saiatu behar izan zuten. Mendaro, Elgoibar, Eibar, Asteasu eta beste leku batzuk miatu zituzten. Hogeitamasei peso eta zilarrezko zortzi errealen truk, Eibar, Elgoibar eta Mendarotik etorri ziren azkenean zezenak. Frantzisko Eizagirrek zilarrezko zortzi erreal jaso zituen ezten-hagak (garrotxak) prestatzeagatik. Joseph Abarrategi eta Sebastian Arangurenek hamabi, horretarako makilak ekartzeagatik. Batzarretako zezenak bukatu zirenean, herriko festetarako beste sei ekarri zituzten[35].

Iruñean, Manuel Gonzalez Reyero salamancarrari erosi zizkioten 1.675.ean berriro hamar zezen eta bi zezenko. Zezen bakoitzagatik zilar zurizko hirurehun erreal ordaindu zituzten.

Zezenkoak lortzea gehiago kostatu zitzaien, ganaduzaleak ematerik nahi ez zuelako. Baina azkenean, biak 500 errealetan eman zituen. Badirudi zezenko hauek iruindar gazteek plazan joka zitzaten ekartzen zituztela[5].

1.676. urtean, Gonzalez Reyero salamancarraren zezenak etorri ziren berriro Iruñera; hirurehuna erreal ordaindutako hamar zezen. Baina txarrak atera zitzaizkien. Korrida-garaian euria ari zuelako, bost jokatu eta saioa bertan behera utzi zuten. Jendea haserre zen, zezen motelak zirelako; koldarrak, zangartasunik gabeak alegia. Beste bost zezenak, biharamunean jokatu zituzten Gaztelu-plazan; uztailaren 6an hain zuzen. Beste hamar igaro arte ez zioten Manuel Gonzalez ganaduzaleari zezenik erosi[5].

Azpeitian, Udalak Probintziako diputatuak gonbidatu zituen abuztuaren baterako zezenfestara, gaur egun egiten duenaren antzera.

Hurrengo urtean, 1.677.ean, Agustin Eizagirre bidali zuten azpeitiarrek Iruñera. Komedianteak ekarri behar zituen saninaziotarako. Komedianteena ezinezkoa bazen, Nafarroako Erriberatik bi toreatzaile eta lau zezen ekartzeko tratua egingo zuen. Bostehun erreal zituen Eizagirre azpeitiarrak horretarako[35].

Urte hartantxe, Juan de Austria (Felipe IV.aren sasiko semea) lehen ministrari izendatu zutelako, Kaskante hirian zezenfesta antolatu zuten. Lau zezen plazaratu zituzten[30].

Arrazoi berberagatik, Iruñeko elizgizonek beste zezenfesta bat prestatzeari ekin zioten. Migel Larrainzar zurginak ehun erreal kobratu zituen Gaztelu-plaza ixteagatik.

Sanferminetarako, ez zituzten zezenak Erriberatik ekarri. Ezta aurreko urtean Salamanca-koak txarrak atera ondoren ere. Ez dakigu zergatik. Dena dela, Tordesillas ingurutik ekarri zituzten[5]. Nafarroara Logronio aldetik sartu ziren. Mendabian egon ziren, eta baita gero Gatzagan ere festa-egunaren zai.

Iruñean norbaitek, zezenak begizkoa zutela asmatu zuen. Badaezpada ere, Domingo Pesador petrikiloa ekarri zuten begizkoa kentzera. Hamasei erreal kostatu zitzaien bere lana; Joseph Perez eta Juan Carretero toreatzaileena adina. Toreatzaile hauek, urte hartan lan egindako hamalauetan gutxien kobratu zuten. Toreatzaile gehienak, Tutera, Lizarra eta Tauste-koak ziren[39]. Antonio Ostaregi zen taustearretako bat. 1.695.erarte etorri zen Gaztelu-plazara eta 1.679.ean istripuren bat izan zuen zezenetan. Onenetakoa zen[51].

1.677.ean ordea, Frantziako Luis XIV.a erregeak zezenfestak debekatu egin zituen otsailaren 27ko Saint-German-en-Laye-ko bere *Lettres*en bidez[33].

1.678.ean, Azpeitian herriko festetarako (saninaziotarako) ingurutik zortzi zezen ekartzea erabaki zuten[35]. Nafarroako garestarrek berriz, zezenak bazituzten nonbait santiagotako festetarako. Baina taiuzko toreatzailerik ez dirudienez. Horregatik bidali zioten eskaria Tuterako herriari, urte hartan bi toreatzaile bidal zitzaten[71]. Hurrengo urteko santiagotarako ere eskatu bide zituzten toreatzaileak[40].

Iruñean, ohi bezala ospatu ziren sanferminak 1.678.ean. Manuel Leonar taustearra joan zen lehen aldiz Gaztelu-plazara lanera. Toreatzaile honek hurrengo urtean ere parte hartu zuen zezenetan[58].

1.679.ean, Kalagorrin elizgizonak ere joan ziren zezenetara ohiturari jarraituz. Ezten-hagak botatzen zizkioten balkoian eserita zeudela zezenari. Urte hartan 500 ezten-haga (*garrotxa*) egin zituzten Kalagorrin[48].

Urtearen bukaera aldera, azaroan, Maria Luisa Borbon (Frantziako erregearen iloba) Madrilerako bidean zihoan Karlos II.a erregearekin ezkontzera. Gasteiz-era azaroaren hamaikan iritsi zen, arratsaldeko lauretan. Hiriko agintariek ongietorria egin zioten, etxeak zintzilikarioz apainduta zeudelarik. Iruñea eta beste lekutatik turutariak ere ekarri zituzten erreginari harrera hobea egitekotan. Hurrengo egunean, zezenak izan ziren plaza nagusian. Apaizak ere han zeuden oholtzan begira, baina apezpikua ez, zezenetara joateko ohiturarik ez zuela eta. Salamancako hemeretzi zezen zituzten toriletan, eta ordu t'erdiz bederatzi bakarrik korritu ziren. Lantzaz jota, bat bakarrik hil zen. Beste zortziak zakurren laguntzaz (gero lunerdiz izterzainak ebakita seguru asko) hil zituzten. Izan ere plaza erabat lokaztuta zegoen eta gehiegikeria zatekeen baldintza haietan toreatzaileak neurriz gaineko arriskutan aritzea[72].

Dena den, urte hartan Aulnoy-ko kontesak dioenez, ba omen zen zezenari gainera salto egiten zion toreatzaile bizkaitarra (*vizcaíno*). Lepotik helduta ibiltzen zen bizkaitarra, eta inoiz zezenari adarra erditik puskatu omen zion[22].

Iruñean, zezenak Ebro inguruko ganaduzaleei erostea erabaki zuten. Francisco Alvarez Medrano alfarotarrari hamar zezen hartu zizkioten hogeitamarna dukat emanda. Hauetako bat Eskirotz-en hil zen eta zortzi dukat ordainduta beste batez ordezkatu zuten. Beste zortzi zezen Alonso Escudero kalagorritarrarenak ziren. Honi hogeitazortzi dukat ordaindu zizkioten zezen bakoitzagatik.

———— o ———— o ————

1.680.ean, Iruñera Agustin Ximenez korellarraren ganadua etorri zen; hogeitamarna dukateko hamar zezen. Zezen hauek gainera, ezpataz hilko ziren Gaztelu-plazan, orduko agiriek diotenez. Beraz, aurreko urteetan ez bezala, plazan bertan ezpataz hilko zituzten toreatzaileek; hiltzeko zezenak izango ziren[5]. Ohitura honek, gaur arte iraun du, noski.

Plazako emankizunari hasiera nola eman, erret zedula batek arautu zuen 1.680.ean. Hiriak gonbidatuta erretordea Gaztelu-plazako zezenetara joaten zen bakoitzean, Alkateak plaza hustera edo libratzera (jendea handik atera eta eserlekuetara bidaltzera) irten behar zuen. Erret Kontseilukoak zeuden lekutik, zuzenean erretordearengana joango zen (Toril-etxera alegia). Zaldia gelditu eta erreberentzia egingo zion erretordeari. Gero zaldiz plazari buelta emanda jendez libratuko zuen, Kontseiluko gizonei zaldia gelditu gabe agur eginez. Badirudi Iruñeko alkatearen lan honek helburu funtzionala baino gehiago protokolozkoa zuela, gaur eguneko korridetan duenaren antzera.

Korrida hasi eta erdialdera (zezen-kopuru jakin bat korritu ondoren), turutak askal ordua zela gaztigatzen zuen. Orduan zinegotziek toril-etxeko balkoitik otartekoak botatzen zizkieten ikusleei. Hango zalaparta handia zela eta, azkenean 52 otarteko bakarrik botatzea erabaki zuten[18].

Agintariak toril-etxeko gela batera sartzen ziren eta haien askaria ez zen badaezpadakoa. Bapo jaten eta edaten zuten. Askariaren xehetasunak, garai hartako gastu-kontuetan ematen dira[73].

Urte hartan, Babil Leonar toreatzaile taustearra (arestian aipatutako Manuelen anaia) etorri zen sanferminetara lehen aldiz. Hurrengo hamar urteetan ere lan egin zuen Iruñean[58].

Agintari guztiak ordea, ez ziren zezenzale. Elizako goimailakoak ez behintzat. Uda hartan, 1.680.ean, Vatikanokoak Espainian zuen nuntzioari ediktua bidali zion. Erromatik Inozentzio XI.a aita santuak Mellini nuntzioari zioenez, Espainiako erreinuetan zezenfestetan eskandalu handiak eta heriotza asko gertatzen ziren. Festa hauek gainera, jentilitateko odoltsuenetakoak zirenez gero, kondenaturik zeuden[41].

7.3. irudia. Iruñeko agintaria XVII. mendeko trajeaz. Gaur eguneko korridetako plazazaldun edo alguaziltxoarena bezalakoa da.

Debeku hauek, egia esan, ez dirudi eragin handirik izan zutenik. Ezta Italian bertan ere. Napoli–n urte hartantxe zezenak korritu bait zituzten Espainiako errege–erreginen omenetan[30].

Hurrengo urtean, 1.681.ean, Bizkaiko Diputazioak San Inazioren ohorez festak antolatu zituen. Besteak beste, Salamancatik hamabi zezen ekarri eta Bilboko plaza nagusian abuztuaren lauean jokatzea erabaki zuten[74].

Urnietan, San Migelen omenetan ospatu ziren festak. 33 dukat kostatu zitzaien zezenfesta urnietarrei urte hartan, baina 1.681.eko agiriak dioenez, jadanik ohizkoa zen Urnietan zezenak jokatzea[75].

Iruñera, Salamancatik hamabi zezen eta hiru joaldun etorri ziren sanferminetarako. Bakoitza (zezen edo joaldun) 650 erreal kostatu zen. Paperetan, ez da agertzen ganaduzalearen izenik, baina unaienak bai. Unai horiek hurrengo urtetan Antonio Anaya–rentzat lan egiten zutenez, pentsatzekoa da berau izan zela 1.681.ean zezenak zerbitu zituena. Zezenak oinez etorri ziren Gaztelu–plazaraino, eta unaiek 43 egun behar izan zituzten Salamancatik Iruñera etorri eta etxera itzultzen[5].

1.682. urtean, iruindarrek Rioseco–ko Francisco Joseph de Barbadillo–ri erosi zizkioten zezenak; hamar zezen hain zuzen[5].

Azpeitiarrak ordea, ez ziren Gaztelara joan zezen–bila; Nafarroara baizik. Ekainaren 24ean Antonio Larralde apaizari eskubide eman zioten handik hiru zezen ekar zitzan. Zezenak, ez zituzten ordainduko plazan izandako portaera ikusi arte. Onak ateratzen baziren bai, eta bestela ez.

Hurrengo egunean, Larralderi beste zezen bat ere (laugarrena) ekartzeko agindua eman zioten. Baina eguna joan eguna etorri, Larralde ez zen Nafarroara abiatzen eta udalgizonek berriro eman zioten enkargua. Gainera, Garesen upela bat (edo gehiago) ardo erosiko zuen bide batez.

Dirudienez, nafar–zezenak ondo portatu ziren Azpeitiko plazan eta hurrengo urteetan ere Erriberako ganadua jokatu zen saninaziotan[35].

Balmasedan bertako zezenak plazaratu zituzten urte hartan. Baina toreatzaileak ondoko Colindres herritik etorri ziren. Zezen bati, sua ipini omen zioten, eta erreta hil zenez gero, udalgizonen aginduz ibaira bota zuten[9].

Gernikako Batzarretan, Loiolako San Inazio Bizkaiko zaindari izendatu zen urte hartan. Festa handiak egin ziren Bilbon horregatik. Abuztuaren 6an hasi ziren ospakizunak. Bezperak bukatutakoan, bi zezenko korritu zituzten kaleetan sokari lotuta.

Beste zortzi egunez iraun zuten festek, eta denetan ikusgarrienak Plaza Zaharreko (Azoka–plazako) zezenak izan omen ziren. Barrerak eta eserlekuak ipini zituzten han. Lehendakaritzan korrejidorea eta diputatuak zeuden, dorre itxuraz apaindutako leku batean. Han zintzilik, San Inazioren koadroa zegoen.

Eserleku, leiho eta balkoiak leporaino beteta zeudenez gero, jende asko ibaiko untzietako mastetara igo zen zezenak ikustera. Oso toreatzaile onek lan egin zuten orduan. Juan Castañiza kapitainak idatziz eman zuen festa hauen berri[74].

Iruñean, 1.683.ean zezenak izan ziren ohi bezala sanferminetan. Agintariek egindako askaria, ez zen nolanahikoa izan. 296 erreal kostatu ziren hango okela, oilasko, amuarrain, urdaiazpiko, ardo, ogi, elur, limoi eta abarrak[73].

Oiartzunen, Nafarroako Erriberako lau zezen izan zituzten sanestebanetan; Antonio Urdinola herritarrak ekarriak hain zuzen. Kanpoko jende asko etorri zen zezenfesta haietara, eta barrera berriak ipini zituzten plazan oiartzuarrek[63].

Bianan, herriko plazan (*Plaza del Coson*) udaletxe berria egingo zuten, zezenak ikusi ahal izateko eta eskoletarako[19].

Madrilen, Gabriel Bautista oinezko toreatzaileak parte hartu zuen. Zortzi dukat jaso zituen

eta nafarra ote zen susma daiteke. Izan ere hogeitalau urte lehenago Antonio Bautista nafarra aritua zen hantxe bertan[10]. Bestetik, XVII. mendean Madrilera joaten ziren oinezko toreatzaile gehienak, nafarrak ziren; nafarrak, errioxarrak eta aragoarrak zehatzago esan. Baina garai hartan Ebro ibaiaren inguruko jendea nafarren taldekotzat hartu ohi zuten.

Madrileko Udalak, bere ordezkaria zuen Nafarroan toreatzaileak kontratatzeko. 1.684.ean, ordezkariak zera adierazi zuen: toreatzaileetako bat, Antonio Estoregi (Tauste–koa), gaixorik zegoela, eta haren ordez Agreda–ko Migel *el Manchego* joango zela[22]. Cossio–k 1.664.eko urtean gertatutzat ere jotzen du albiste berberau[33]. Tuterako Domingo Barrera zen Madrilera joandako beste toreatzaile bat. Pedro Cabanilla tuterarra eta Babil Leonar taustearra, Frantzisko Milagro tuterarraren koadrilan parte hartuz joan ziren Madrilera. Taldeburuak 600 erreal kobratu zituen Madrilen urte hartan. Juan Perez Carretero ere (tuterarra berau), han zen Madrileko zezenetan oinezko toreatze–lanetan[10].

Tuteran bertan, nahikoa zezen eta toreatzaile izan arren, plazarekin zebiltzan gaizki. Katedraleko dorre zaharra erori egin zen eta 1.684.ean berria egin zuten, baina plazari pusketa kenduta. Katedrale aurreko plaza beraz, txikia eta desegokia gelditu zen zezenetarako. Horregatik, zezenak behar bezala korritzeko, Plaza Berria (gero Foru–plaza izango zena) prestatzea erabaki zuten udalgizonek[25].

Zarauzko zezenetan urte hartan, istripu bat gertatu zen. Joseph Olaskoaga, Laurgain–eko Tolarea baserrikoa, hil egin zen oholtza puskatu eta azpian harrapatuta[76].

Gipuzkoako Lasarten ere izan ziren istiluak 1.684.ean. Sebastian Aranburu tabernariak ordaintzen zuen zezenetako antolakuntza. Aurreko urtean enkantean Lasarte ardoz hornitzeko ardurarekin batera, sanpedrotako festetarako zezena ekartzeko konpromezua hartu zuen Hernaniko Udalarekin.

Hernaniko Udalak barrerak utzi zizkien lasartearrei San Pedro biharamunean zezena korritzeko. Baina Migel Karlos Okendo eta beste auzokide batzuek, barrerak Lasarten bertan Urnietako lurretara pasa zituzten handik kenduta. Okendo jaunak gainera, Aranburu ardozaleari zezena ekartzeko dirua eskatu zion. Baina ardozaleak Hernaniko udalgizonei, eta ez besteri, emango ziela erantzun zion. Istiluak eta zalapartak izan ziren orduan. Auzitara jo zuten eta Okendo jauna nahiz urnietazaleak zigortuak izan ziren[77].

1685.ean, Iruñeko sanferminetarako, Antonio Anaya ganaduzale salamancarrari erosi zizkioten zezenak.

1686.ean ere Salamancara joan ziren zezen–bila. Manuel Gonzalez Reyero del Mercado eta Francisco Hipólito Mirandaren 12 zezen ekarri zituzten. Bakoitzaren prezioa, bostehun errealekoa izan zen[5]. Gaztelu–plazarainoko entzierroan, Iruñeko kaleetan eta plazetan bazterrak ondo ixten saiatzen ziren. Udalak uztailaren hiruan, bandoa zabaldu zuen ihes egindako zezenen kalterik egon ez zedin hiriko etxejabe, zurgin eta abarri ostiralerako itxiturak egitea aginduz. Agindua betetzen ez zuenari, lau dukateko isuna ezarriko zioten[78].

Zezenen entzierroa, festa–egun goizean izaten zen. Hiriko zinegotzia joan ohi zen zezenen aurrean zaldiz bandera eta guzti. Baina 1.686.eko uztailaren batean, udalgizonek aldaketa bat egitea erabaki zuten. Zegoen arriskuagatik eta unai gisa ibil ez zedin, ordurarte iraun zuen aspaldiko ohiturari bertan behera utziko zioten eta zinegotzi banderadunik ez zen aterako goizeko entzierroan. Joan Esteban Amezketa zinegotziak bakarrik eman zion ezezko botua erabaki honi udaletxeko

bileran[79].

Urte hartan, Tauste–tik Joseph Leonar toreatzailea hasi zen Gaztelu–plazara etortzen; arestian aipatu ditugun Manuel eta Babil Leonar toreatzaileen anaia. Beste hamar urtez aritu zen aragoar hau iruindarren zezenfestetan[58].

Urtearen hondarrean, azaroan, Aragoako Hueskan zezenfestak izan ziren Hungariako Buda hiria inperioko indarren esku geratu zelako[30].

1.687.ean, Agustin Ximenez korellarrari zazpi zezen hartu zizkioten sanferminetarako hogeitamarna dukatetan. Ez zioten Iruñeko udalgizonek urte hartan (beste askotan bezala) estatuko debekuei kasorik egin zezenfestak antolatzeko[79].

Urte hartan, Tuteran ospitale aurrean zezenplaza berria (karratua) eraikitzeko urrats berriak eman zituzten. Queiles ibaia han zegoen ordea hiriko harresien eta ospitalearen artean. Arku batzuen bidez estali egingo zuten ibaia eta plaza berriko (gero Foru–plaza izenez ezagutuko zena) etxeak nola egin ere zehatz–mehatz ezarri zuten. Hurrengo urtean ordea, ibai gaineko arkuak eta Jose Ezkerraren etxea uholdeak eraman zituen. Baina ez zuten etsi eta berriro eraiki zituzten[40].

1.687.ean bestetik, Oiartzunen zezenfestak izan ziren urtero bezala[63].

Azpeitian urte hartantxe, Frantzisko Urtzelai–ren esku utzi zuten Salamancatik lau zezen ekartzea. Abuztuaren batean korrituko zituzten saninaziotan. 3.191 erreal kostatu ziren lau zezenak, bi joaldun eta garraiorako bi unaien soldatak. Hogei egun behar izan zituzten zezenak ekartzeko. Zezenak 450na erreal ordaindu ziren eta 800 erreal bi joaldunak.

Hurrengo urtean, 1.688.ean, azpeitiarrek herriko plaza (zezenplaza) zabaltzea pentsatu zuten. Izan ere herriko festetan txikiegia gertatzen zitzaien zeukatena zezenak behar bezala korritzeko, eta torila ere ez zegoen ondo kokatua.

Arazoa konpontzearren, Santo Domingoko komentuak toril atzean zuen baratza eskuratu zuten, eta ordainetan, Andres Altzibar, Klara Arteaga eta Katalina Larrar–en ondorengoen lur batzuk eman zizkioten komentuari[35].

Oiartzunen, Antonio Urdinolak Nafarroako Erriberatik ekarritako lau zezen korritu ziren festetan. Barrera berriak estrenatu zituzten urte hartan, eta kanpoko jende asko joan zen zezenetara[63].

Bianan berriz, barrera berriak ezik balkoi berria nahi zuten zezenetarako elizgizonek. Udalgizonek bazuten berena, eta herriko hogeitamar apaizek ez. Horregatik festetan han–hemenka sakabanaturik egoten ziren zezenei begira, eta dezentziak beste jokabide bat eskatzen zuen. Tenore hartan, San Pedro–ko parrokiak Udalari leku bat eskatu zion Bianako Gaztelu–plazan elizgizonentzat balkoi bat egitearren[19].

Iruñean, urte hartan Antonio Anaya salamancarraren zezenak korritu zituzten festetan. Hurrengo urtean, 1.689.ean, sanferminetan ez zen zezenik jokatu, erregina hil zelako. Baina Batzarretako jendeari 1.528 erreal propina gisa eman zitzaion, ohiturari jarraituz[80].

———— o ———— o ————

Dena dela 1.690.ean ganaduzale korellar famatu baten zezenak ekarri zituzten Iruñera; Joakin Antonio Beaumont Ezkurra Mexia-renak, Santakarako markesarenak. Baliteke ganaduzale honek aurrez ere Iruñera zezenak zerbitua izana, baina urte hartan 13 zezen hogeitamarna dukatetan sanferminetarako saldu zituela egiazta daiteke. Udaleko arduradunek gainera, markesaren esku utzi zuten taldeko zein hamairu zerbitu[5]. Baina sanferminak baino lehen ohizkanpoko beste festa bat antolatu zen Iruñean erregearen ezkontza ospatzekotan. Orduan ere Santakarako markesaren hamaika zezen jokatu ziren[3].

Tuteran, zezenplaza karratuaren (Foru-plazaren) lanak aurrera zihoazen. Antonio Rapun-ek beste bi etxe eraikiko zituen, baina zezenfestak zirenean oholak jarri eta hango eserlekuak beretzat izatekotan.

Batzuetan, Tuterako Udalak abarketak eta ligak erregalo eman zizkien gazte toreatzaileei. Baina urte hartan, 1.690.ean, doan lan egingo zuen toreatzailerik ez zen agertu[40].

Tolosan ere, urte hartan erabaki zuten *Iribaratzeta* izeneko lekuan *Plaza Berria* egitea (orain *Foru-plaza* ere esaten zaio). Han eraikiko zen udaletxe berria (gaur egun Plaza Zaharrean dago). Zezenak ordea, Plaza Zaharrean jokatuko ziren hamahiru urte geroago arte[81].

Tuteran larri zebiltzan 1.691.ean beren zezenplaza karratua bukatzen. Santa Anaren omenezko festetarako, herriko festetarako, ahaleginak jo zituzten. Kanpotik jende asko etorri zen uztailaren 30eko zezenetara. Plaza berria estrenatzeko ordea, jende gehiegi zegoen eta balkoi gutxi. Horregatik, zurezko beste balkoi batzuk ere ipini zituzten egun horretarako propio.

Toreatzaile ospatsuek parte hartu zuten egun hartan Tuteran. Zezenak ere, ez zituen ohi bezala herriko hiltegiak zerbitu. Udalgizonek, inguruan lau legoako distantzi barruan zeuden ganadutegirik onenetatik ekarri zituzten[23].

Ikustera joan zen jendeak, 40 erreal ordaindu zituen balkoi bakoitzagatik eta 18 erreal leihoagatik. Elizgizonek, beren balkoia eraiki zuten Ospitaleko etxean[46].

Iruñean, Agustin Ximenez korellarraren zazpi zezen plazaratu zituzten sanferminetan, bakoitza 30 dukatetan erosita. Pedro Sartolo tuterarrari berriz, sei hartu zizkioten 180 dukatetan.

1.692. urtean Santakarako markesaren ganadua joan zen Iruñera, hogeitamarna dukat ordaindu ondoren[5].

Tuteran, Udalak plazako etxejabeei balkoi eta leihotako eserlekuengatik zezenetan kobratu behar zutena finkatu zien. Baita hurrengo urteko (1693.eko) santanatarako ere[40].

Iruñean, Diputazioak 1.693.ean Agustin Reta-ren etxean bere balkoia eraiki zuen bigarren estaian, zezenak handik ikusteko. Ordurarte, Martin San Martin-en etxetik ikusten zituzten[80].

Urte hartan, Santakarako markesak bere zezenak Iruñera bidali baino lehen kobratu nahi izan zituen. Baina azkenean ez zizkioten erosi. Zezenak Gaztelatik etorri ziren, Logronio eta Mendabian barrena. Francisco Santiago Puente ganaduzalearen hamabi zezenek Avila-tik Iruñerainoko bidea egin zuten.

1.694.ean ere Avila-ko ganduzale berberaren hamabi zezen jokatu ziren Gaztelu-plazan[5].

Francisco Santiagoren unai bat, Domingo Bernoy izenekoa, zezenetan zaldiz aritu zen. Hark pikatu zituen lehen aldiz haga luzez zezenak zaldiz. Ordurarte, zezenak zalditik burtziz eta lantzaz jotzeko ohitura zegoen. Pedro Lizaso iruindarra eta Frantzisko Yanguas tuterarra iaioak ziren lan horretan[52].

Azpeitira 1.694.ean, Nafarroako Erriberako bost zezen etorri ziren saninaziotarako, eta 1.695.ean, ezten-hagak eta toreatzeko banderilak erosi zituzten[35].

1.695.eko sanferminetarako prestakuntzak, aurreko urteko abenduan hasi ziren Iruñean. Udalgizonek, zortzi zezen Erriberatik eta beste sei Gaztelatik erostea proposatzen zuten. Martin Lete zinegotzi banderadunak ordea, hamalauak nafarrak nahi zituen, dena erreinu barruan gera zedin[3]. Sei zezen ordea, Francisco Santiago avilatarrarenak izan ziren. Bere unaiek 49 egun pasa zituzten Iruñerako bidean eta Iruñean bertan zezenekin. Gero hamar egunetan itzuli ziren ganadurik gabe etxera.

Jose Ezkarai Ballés alfarotarrari, lau zezen erosi zizkioten. 120 dukat kostatu zen ganadua. Ganaduzale honek ere bazituen unaiak eta haietaz baliatu behar izan zuen zezenak Iruñera eramateko[5].

1.696. urtean, Iruñean azaroaren bostean zezenak jokatu ziren, Espainiako Karlos II.a errege gaixotiak onaldia zuela eta. Antonio Lekunberri tuterarraren ganadua atera zuten toriletik[52]. Urte hartan Santakarako markesari ere zortzi zezen erosi zizkioten, ohi bezala bakoitzagatik 30 dukat ordainduta. Baita hurrengo urtean ere (1697.ean) prezio berean beste hamabi.

1.698. urtean, Gaztelatik etorri ziren zezenak Iruñera, eta dirudienez Francisco Santiago Puente avilatarra izan zen hornitzailea[5].

Azpeitiko festetarako ordea, lau nafar-zezen ekarri zituzten urte hartan, eta hurrengoan (1.699.ean) Azpeiti inguruko ganaduarekin moldatu ziren[35].

Gipuzkoako Getarian, enkantean hartu zuen Pedro Ainzuberro iparreuskaldunak herria haragiz hornitzeko ardura. Martxoaren 19an egindako enkantean ordea, baldintza batek zera zioen: herriko festetarako zezen bat ekarriko zuen berak ordainduta[82].

Leitzako festetan, San Tiburtzio egunez, herriak gastu handiak egiten zituelako kexu zen Nafarroako erretordea. Gastu horiek jaitsi erazi egin zituen, baina zezenetakoak ez[22].

Iruñean, Gaztelatik ekarri zuten ganadua urte hartan. Baita hurrengoan (1700.ean) ere. Dirudienez Francisco Santiago Puenteren zezenak atera ziren Gaztelu-plazako toriletatik; hobeto esan bere alargun Maria Josefa Atienza-ren zezenak[5]. Hamabi zezen eta hiru joaldun erosi bait zituzten 5.720 erreal ordainduta[83].

Santakarako markesaren zezenak ere 1.700. urterarte jokatu ziren[84].

Baina zorionez, 1.700.eko Iruñeko zezenfesten deskribapena badago, eta interesgarria da iruindarrentzat sanferminetako korridak zuen prestigioaz jabetzea.

Uztailaren zortzian arratsaldean izan zen zezenfesta. Bezperan ekaitza egin zuen eta horri esker aurreko egunetako bero kiskalgarririk ez zegoen. Hiruretarako, mazukari, justizizain eta

turutariak, zaldi gainean prest zeuden udalgizonen kotxeei laguntzeko. Kotxe batera, Esteban Tudela, Migel Billaba eta Inazio Migeltorena igo ziren Pedro Beruete idazkariarekin. Beste batera, Frantzisko Maldonado eta Joseph Velaz Medrano lizentziatua, Azpa-ko bizkontea. Kotxeak eta zaldizkoak Pozoblanco kaleraino iritsi eta Toril-etxera sartzerakoan, erretordearen karrosa urreztatua heldu zen bere kapitain eta zaldunekin.

Erretordeak, bezperan gaixorik zegoelako, ez zuen San Ferminen elizkizunera joaterik izan, baina zezenetarako sendatua zen jadanik.

Agintariak Toril-etxeko balkoietara ateratakoan, plaza leporaino betetzen zuen jendeak txaloka egin zien ongietorria. Zezenak atera aurretik, plaza ureztatu egin zuten, gero hautsik harrotu ez zedin. Alkatea eta erret auzitegiko laguntzaileak, zaldiz atera eta plaza jendez libratzen aritu ziren.

Zezenek, askal ordurarte iraun zuten. Orduan agintariek, ohitura zaharrari jarraituz, bizkotxoak eta gainerako jaki-edariak sakeleratu zituzten. Askaria amaitu ondoren, zezenfestak ilunabarrerarte iraun zuen[18].

Getarian, herriko festetan ez zen Iruñean adina jende eta zezen izango, noski. Baina 1.700.ean (mendearen hondarrean), aurreko urtean bezalaxe Pedro Ainzuberro harakinak zuen festetarako zezen bat ekartzeko obligazioa[82].

Kapitulu honetan orain arte esan ditugunen arabera, Espainiako nobleziaren eskutik zaldizko toreaketak Gortean eta zenbait hiritan goimaila lortu zuela aitortu behar da. Lan hauetan aritutako zaldun bat edo beste ere aipatu dugu, eta horien zerrenda luzatzearren Gaspar Ezpeleta nafarraren berri labur emango dugu. Valladolid-en hil zen Cervantes-en etxearen ondoan. Góngora-k bertso batzuk idatzi zituen XVII. mendeko zaldun nafar honek festetan zezen bat eraitsi zuelako[10].

Bestetik, haga luzez zezenak pikatzen ere (gaurko korridetako pikatzaileek bezalatsu) XVII. mendean hasi ziren Iruñean, arestian esan dugunez. Halaber, gaur eguneko korridatan bada XVII. mendeko beste arrasto bat ere; alguaziltxoaren trajea. Traje beltza da, bere lepoko zuriarekin; Felipe IV.a erregearen garaian jazten zen bezalakoxea.

Euskal Herrian dena den, oinezko toreatzaileek indar handia zuten XVII. mendean. Madrilen ere, gehienbat nafarrak (Ebro ingurukoak) kontratatzen zituzten. Nafar-toreatzaileen artean gainera, Frantzisko Milagro tuterarra taldeburu agertzen zaigu. Koadrila bere menpe zuen eta horrek inola ere profesionaltasun-maila sendoa adierazten du.

Bestetik, zezenak plazan hiltzeko ohitura XVII. mendean ezarri zen berriro; Erdi Aroaz gero, zezena jokatu eta torilera sartzen bait zuten. Hiltzeko zezenak ateratzen hasi ziren beraz plazara. Azpeitian adibidez, hiltzeko zezenak Nafarroatik ekarri ohi zituzten; herri inguruko zezenei ez bait zieten plazan ezpatarik sartzen.

Eta Euskal Herriko zenbait tokitako zezenfestak aipatu baditugu ere, badirudi Gipuzkoako Pasaian (San Joan-en) ere XVII. mendean izaten zirela Santiago eta Santa Anaren omenetako festetan[47].

Dena dela, irakurlea dagoenekoz ohartuko zen Iruñeak zezen-kontutan zuen nagusitasunaz. Munduan leku gutxi egongo da zezenfestetan Iruñeak adinako tradizioa duenik. Luis del Campo zezenzale iruindarrak dioenez, XV. mendetik XVIII.erarte zezenfestak Iruñean bezain jarraian ez dira beste herritan antolatu[85]. Guk behintzat ez daukagu hori ukatzeko arrazoirik.

7.- ZEZENAK XVII. MENDEAN. BIBLIOGRAFIA

(1) "CONDE DE COLOMBI". *Desarrollo de la fiesta de toros*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (219, 220. orr.)

(2) MULAS PEREZ, I. *Toros. Introducción a la verdad del toreo.* Avesta argit. Bartzelona 1971 (33,37,75,114. orr.)

(3) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Príncipe de Viana 1942. Iruñea. (368–370. orr.)

(4) LAKARRA, JOSE MARIA. *Guía del Archivo General de Navarra. Pamplona.* Ministerio de Educación Nacional argit. Madril 1953 (114. orr.)

(5) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Toros en Pamplona (S. XVII).* Navarra. Temas de cultura popular. 250. alea. Iruñea 1976 (8,10–14, 16–18, 21–28. orr.)

(6) JIMENO JURIO, JOSE MARIA. *Martes de carnestolendas en Pamplona (1601)*, in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. 1979. Iruñea (277, 278, 279. orr.)

(7) ARIZMENDI AMIEL, Mª ELENA. *Vascos y trajes.* Lehen alea. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1968 (163, 180. orr.)

(8) ELORTZA MAIZTEGI, XABIER. *Tauromaquia placentina.* Herriko festetako programa. Soraluze 1982.

(9) HEROS, MARTIN DE LOS. *Historia de Valmaseda.* Bilbo 1926 (404, 405, 408, 409, 413–416. orr.)

(10) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1978 (30, 31, 67, 92, 97, 123, 135, 138, 241, 267, 268, 396, 471, 498, 517, 598, 661, 680, 706, 727, 730, 758, 891, 966. orr.)

(11) LAFORCADE, MICHAEL. *La Tauromachie dans le Soud–Ouest de la France.* Mendi Martzana 1984 (39, 44–48. orr.)

(12) AGIRRE FRANCO, RAFAEL. *Juegos y deportes vascos.* Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. Auñamendi argit. Donostia 1971 (474. orr.)

(13) ORTIZ–CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y costumbres de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (410. orr.)

(14) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Calendario alavés*, in Boletin de la Institución Sancho el Sabio 1970. Gasteiz (258, 259. orr.)

(15) MASSE, ONOFRE. *La tauromachie au Pays Basque*, in Pyrénées 1955. 6.alea (227.orr.)

(16) "PREMIN DE IRUÑA". *Iruñerías.* Navarra. Temas de cultura popular. 128. alea. Iruñea 1972 (21. orr.)

(17) MENDIZABAL, MARTIN. *Toros y escándalo en 1611*, in Beasain jaietan 1980.Beasain.

(18) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Iruñea. Zezentoki–etxea.* Iruñeko Udala argit. 1985. Miren Egaña–k euskaratua. (11, 12, 17, 19–24, 38, 40. orr.)

(19) LABEAGA MENDIOLA, JOAN KRUZ. *La Casa Consistorial y los balcones de toros de la ciudad de Viana (Nav.)*, in Príncipe de Viana 1979. Iruñea (112–114, 143, 144. orr.)

(20) LABEAGA MENDIOLA, JOAN KRUZ. *La música en la parroquia de Santa Maria de Viana (Nav.)*, in Príncipe de Viana 1980. Iruñea (234, 235, 237. orr.)

(21) INTSAUSTI, SEBASTIAN. *Villabona–Amasa.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (62, 63. orr.)

(22) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (459, 571, 572, 600, 640, 680, 705, 747, 784, 872, 873. orr.)

(23) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo.* Destino argit. Bartzelona 1954 (41. orr.)

(24) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (40, 42, 44, 46. orr.)

(25) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* 2. alea. Tutera 1914 (195–198. orr.)

(26) XX. *Course, Plaza de la*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 8. alea. Auñamendi argit. Donostia (126. orr.)

(27) MURUGARREN, LUIS. *Anzuola, Uzarraga y Elosua.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (126, 127. orr.)
(28) SATRUSTEGI, JOSE MARIA. *La Celestina en la Literatura Popular Vasca,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1960. Donostia (165. orr.)
(29) MITXELENA, KOLDO. *Adabakiak. Euskal-Literatura eta ...adarrak,* in Egan 1961. Donostia (123-125. orr.)
(30) ALENDA Y MIRA, JENARO. *Relaciones de Solemnidades y fiestas públicas en España.* Madril 1903 (203, 204, 249, 342, 349, 404, 427, 432. orr.)
(31) THEBUSSEM, DR. *Descripción de la Fiesta del Torneo que el año 1620....,* in Euskal-Erria 1892. 27. alea. Donostia (234. orr.)
(32) ABAD, A. eta L. OLIVA, E. *Los toros,* in La Gran Enciclopedia del Espectáculo. Argos argit. Bartzelona 1966 (385. orr.)
(33) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (64-68, 859, 860. orr.)
(34) MUJIKA, SERAPIO. *Administración municipal antigua de San Sebastián,* in Euskal-Erria 1898. 39. alea. Donostia (28,30. orr.)
(35) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia.* Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (41, 42, 331-343. orr.)
(36) GOITIA, JOAN. *Relación de fiestas que hizo la N.V. de Azpeitia...,* in Euskal-Erria 1882. 5. alea. Donostia (133-137. orr.)
(37) XX. *Relación de fiestas que hizo la Villa de Azcoitia...,* in Euskal-Erria 1885. 13. alea. Donostia (67-71)
(38) LINAZASORO, IÑAKI. *La otra Guipúzcoa.* Itxaropena argit. Zarautz 1969 (167. orr.)
(39) GAITAN AIARA, A. *Fiesta antigua en Munibe,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1950. Donostia (369, 370. orr.)
(40) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario histótico-político de Tudela.* Zaragoza 1828 (214-217, 226.orr.)
(41) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *La Iglesia y los toros.* Navarra. Temas de cultura popular. 234. alea. Iruñea 1975 (8, 9, 16, 27, 28. orr.)
(42) LASA, JOSE INAZIO. *Legazpia.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (132. orr.)
(43) LAKARRA, JOSE MARIA. *Aragón en el pasado.* Austral bilduma. 1435. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1972 (197, 198. orr.)
(44) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella,* in Principe de Viana 1942. Iruñea (317. orr.)
(45) MARTINEZ ISASTI, LOPE. *Compendio historial de Guipúzcoa.* La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1972 (122. orr.)
(46) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* Lehen alea. Tutera 1913 (265, 312, 313. orr.)
(47) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipúzcoa.* Donostia 1974 (33, 52, 121, 122. orr.)
(48) LEKUONA, MANUEL. *El Teatro y los Toros en Calahorra,* in Idazlan guztiak. 2. alea. Kardaberaz argit. Gasteiz 1978 (531, 534, 535. orr.)
(49) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia General del Señorío de Bizcaya.* Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1968 (739. orr.)
(50) ETXEGARAI FERNANDO. *Santiago, patrón de Bilbao,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1946. Donostia (314, 316. orr.)
(51) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (102, 147, 222, 269, 329, 527, 528. orr.)
(52) BALEZTENA, INAZIO."PREMIN DE IRUÑA". *Los toros en Navarra.* Iruñea 1932 (21, 22. orr.)
(53) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques.* Donostia 1981 (49. orr.)

(54) INTSAUSTI, SEBASTIAN. *El retablo mayor de Santa Maria de Tolosa*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1956. Donostia (403, 404. orr.)
(55) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer*. Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (11, 12. orr.)
(56) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (9. orr.)
(57) VALLE LERTSUNDI, JOKIN. *Una familia de ferrones, los Beyngolea en el siglo XVII*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1979 (490-492. orr.)
(58) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (625, 1090, 1130. orr.)
(59) LEKUONA, MANUEL. *La parroquia de Santiago, de Calahorra*, in Idazlan guztiak. 5. alea. Gasteiz 1978 (143, 148. orr.)
(60) CLARE, LUCIEN. *Una poesía vasca compuesta con ocasión del nacimiento del príncipe Felipe Próspero (1657) y publicada por la Universidad de Salamanca en 1658*, in Fontes Linguae Vasconum 1974. Iruñea (429-436. orr.)
(61) LARRAÑAGA, RAMIRO. *Síntesis histórica de Armería Vasca*. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1981 (69. orr.)
(62) ELOSEGI IRAZUSTA, JESUS. *Toponimia y denominaciones urbanas de la Villa de Tolosa*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. 1969. Donostia (399. orr.)
(63) LEKUONA, MANUEL. *Del Oyarzun antiguo*. Gipuzkoako Diputazioa argit. Donostia 1959 (154. orr.)
(64) "MARQUES DE TOLA DE GAITAN". *Los Gaviria-Madariaga (Marqueses de las Torres de la Peña)*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1960. Donostia (23, 24. orr.)
(65) SUKIA, JOSE MARIA. *Monografía histórica de Zaldibia*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (102. orr.)
(66) ZUNTZUNEGI GARMENDIA, JOSE MARIA. *Tres noticias históricas de la plaza de toros de Cestona*, in Cestona 1978. Herriko festetarako programa.
(67) IBARRA, JOSE LUIS. *Documentos inéditos*, in Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra 1935. Iruñea (265-268. orr.)
(68) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 2. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1980 (566. orr.)
(69) "ARRIZ". *La gran tradición taurina de nuestra villa*, in Deia 1984-VI-22.
(70) MURUGARREN, LUIS. *Usurbil*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (136. orr.)
(71) URANGA, JOSE XABIER. *Puente la Reina y sus fiestas*, in Vida Vasca 1949 (151. orr.)
(72) XX. *Documentos históricos*, in Revista de las provincias euskaras. 2. alea. 1879. Gasteiz (193, 194, 198, 200. orr.)
(73) IBARRA, JOSE LUIS. *Documentos inéditos*, in Boletín de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra. 1936. Iruñea (90, 91. orr.)
(74) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia General del Señorío de Bizcaya*. 5. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1971 (507, 515, 516. orr.)
(75) MURUGARREN, LUIS.*Urnieta*.Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (151. orr.)
(76) MURUGARREN, LUIS. *Universidad de Aya*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (86. orr.)
(77) MURUGARREN, LUIS. *Lasarte*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (32, 134-137. orr.)
(78) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros*. Navarra. Temas de cultura popular. 125. alea. Iruñea 1972 (5. orr.)
(79) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *El encierrillo de los toros*, in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril. 1969 (126. orr.)
(80) URANGA, JOSE XABIER. *Formulario de la Diputación de Navarra*, in Príncipe de Viana. 29. alea. Iruñea 1947 (517,523,524. orr.)

(81) ZABALA, FEDERIKO eta GARMENDIA LARRAÑAGA, JOAN. *Tolosa.* Donostiako Aurrezki--Kutxa argit. Donostia 1970 (22. orr.)

(82) LEKUONA, MANUEL. *Notas para la Historia de Guipúzcoa,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1975. Donostia (462,475,476. orr.)

(83) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *Pamplona y toros. Siglo XVIII.* La acción social argit. Iruñea 1972 (152,153. orr.)

(84) BALEZTENA, INAZIO."PREMIN DE IRUÑA". *Las ganaderías de Navarra,* in Vida Vasca 1932 (105. orr.)

(85) CAMPO JESUS, LUIS DEL. *El encierrillo.* Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (4. orr.)

8.- ZEZENAK XVIII. MENDEAN

Lehen genionez aristokraziak XVII. mendean burtziketari gainak eman bazizkion, XVIII. mendean sekulako beherakada jasan zuen zaldizko toreaketak Gaztela eta Andalusian. Portugaleko jaunek beren joerari segitu zioten bitartean, XVIII. mendearen hasiera-hasieran Espainiako Gortean dinastia borbondarra estreinatu zen Felipe V.aren eskutik. XVIII. mendeko eta jatorri frantseseko errege hauek, ez ziren zezenzale, eta beren eraginez, (eta debekuak medio) jauntxoek zezenak zaldiz toreatzeari utzi egin zioten, oinezko toreatzaileen mesedetan. Zankarrapaz zaldiz ibiltzeko moda ere (zaldi gainean hankak bilduta erabiltzen zirenekoa), baztertuz joan zen bridazko sistema berriak frantsesen eraginez indar hartu zuen neurrian. Baina bridazko sistema (zaldi gainean hankak luze-luze erabiltzen zirenekoa), ez zen egokia burtziketarako; zaldia leku txikian eta azkar birarazi behar zenerako alegia. Haga luzez zezena pikatzeko ordea, bridazko era baliagarria gertatu zitzaien.

Aristokraziaren ordezkari beraz, pikatzaileak izango dira XVIII. mendeko zezenfestetan (gaur egunekoetan ere bai), eta mendea igaro ahala oinezko toreatzaileak (herri xehearen ordezkariak) nagusituko zaizkie agintez eta garrantziz.

Euskal Herrian oinezko toreatzaileak nabarmendu ziren XVIII. mendean, aurrekoan bezalaxe. Plazaz plaza dabiltzan toreatzaile-koadrilak ikusiko ditugu, batzuk kontratuz eta beste batzuk menturaz, gure Herriko eta erbesteko festetan.

Mendea aurrera doan neurrian ordea, Andalusiako jendea ere euskal toreatzaileekin lehian arituko da, eta azkenean haiek nagusituko dira, zezenfestatan lantze desberdinak gero eta gehiago finkatzen diren aldi berean.

Baina gatozen XVIII. mendeko hastapenera eta eman ditzagun xehetasunak urtez urte.

1.701. urtean, Felipe V.a Espainiara joan zen bertako erregetzaren ardura hartzera. Frantziako Luis XIV.aren biloba honek, bere anaiekin (Bourgogne eta Berry-ko dukeekin) egin zuen bidaia Espainiako mugaraino. Baionan, besteak beste zezenfesta antolatu zuten errege berriaren omenetan. Grammont plaza lau edo bost mila ikuslerentzat propio prestatua zegoen. Baita Nafarroako eta Gaztelako zezenak ere.

Urtarrilaren 17an, Baionako plaza gainezka aurkitzen zen. Errobi ibaiko hamabost edo hogei untzitan, beste bi mila pertsona zeuden han zer gertatuko zain. Hondarrean, zortzi edo hamar toreatzaile ikus zitezkeen orkatz-ehunezko galtza eta jipoi zuri-gorriz jantzita, azkonak eskuan, zezena noiz aterako adi.

Zezen bat plazaratu, eta toreatzailea harrapatzearren burua makurtzen zuenean, eskua adar artera sartuta lepagainean ipintzen zion azkona gizonak. Batzuetan baita bi azkon ere batera.

Azkonak, gehienez bi oin luzekoak ziren; muturrean gezi-puntaren formako burdin pusketa zutenak. Girtena paper zuriz hornitua zutenez, laupabost azkon zituenean, zezenak apaingarri gisa zeramatzan zintzilik. Azkonez ziztaturik, zezena amorru bizian oldartzen zitzaien toreatzaileei, baina hauek batetik geziak botatzen zizkioten albotik eta bestetik beren kapela edo eskuan zeramaten kapa erakutsiz, zezena desbideratu egiten zuten.

Zezena asko ziztatu zenean, toreatzaileek ezpata sartzen zioten bizpahiru aldiz bizkargainean edo lepoan. Animaliak odola isuri eta indarra galtzen zuen horrela, albaka erortzen zen arte. Zezena erori orduko, errematatu eta apaindutako hiru mandakori erantsita ateratzen zuten plazatik bizkor.

Turuta jotzen zen zezena plazaratzeko unean, eta musika animalia erortzen zenetik kanpora atera arte.

Zezen batzuei, zakurrak bota zizkioten. Zezentxakur hauek muturrean, belarrietan eta hanketan kosk egiten ziotenean, zezenak burua eta hankak astintzen zituen. Baina alferrik. Zakurrak itsatsita jarraitzen zitzaizkion.

Zezen batek, zakurrengandik ihesi zihoala, etxe eta ibai arteko atea zaintzen ari zen soldadu suitzar bati eraso zion. Suitzarrak, atea ixteko denborarik ez zuen eduki, eta zezena handik atera zen. Beldurtu ziren bapo inguru haietan zeudenak, baina hangoekin burrukan egiterik ez zeukanez gero, zezena plazara itzuli zen berriro, burua harro, kalterik egin gabe. Zakur batek bakarrik kontra egin zion, eta ondoren, toreatzaileek egin zuten harena.

Beste zezen batek, bi zakur erabili zituen masailetik zintzilik belarritakoak bait liren. Izterzainak ebaki zizkioten gero (lunerdiz, noski), eta hogeitamarren bat urrats egin ondoren erori zen azkenean.

Beste zezen bati bi zakur bota zizkioten. Bietako batek ihes egin zuen, eta bigarrena airean eta hankapean erabili ondoren, kanpora atera behar izan zuten. Azkenean hil zen zezen hura ere ziztada eta ezpatakaden eraginez.



8.1. irudia. Oinezko lantzakada.

Halako batean, plazako zezenari bi zakur eta sei pertsona inguratu zitzaizkion. Toreatzaile batek adarretatik heldu zion, beste batek buztanetik, beste batzuek atzeko hanketatik, eta guztion artean uzkali eta hil egin zuten.

Beste zezen bat, sastakai-kolpe bakarrez erori zen. Baina abilezia eta arrisku handiko beste

lantze bat ere burutu zuen lantzaz toreatzaile haietako batek. Belauna lurrean eta lantza besapean, zezena toriletik atera zain zegoen. Plazaratu orduko, zuzen-zuzen etorri zitzaion zezena gainera, baina lantza jota bapatean erori zen lurrera.

Ikuskizunak hiru orduz iraun zuen bitarte horretan, toreatzaile bat kapaz aurpegia estalita plaza erdian ibili zen. Zezena gainera zetorkionean, emeki-emeki kapa zabaldu eta bazterrera bidaltzen zuen, bera kapa harro bizkarreratuta bere bideari jarraituz.

Haietako zezen batek ordea uste baino gehiago estutu zuen toreatzaile ibiltaria eta ezpata atera beharra izan zuen defendatzearren. Hala ere ezinda, salto egin zuen pretilaz beste aldera, izututa bere ezpata galdurik.

Begira zeudenen arteko istripu bat ere aipagarria da. Eserlekuen gainean babes gisa eraikitako teilatu bat, jendez bete zen. Ustegabean, teilatua hautsi eta azpian harrapatu zituen jaun batzuk. Pio printzea, Alba-ko dukea eta Bejar-eko dukea suertatu ziren kalteturik.

Hamargarren zezena jokatu zenean, Felipe erregeak ikuskizuna bertan behera utz zezaten agindu zuen, nahiz eta toriletan beste lau zain egon. Badirudi errege berriari zezenak ez zitzaizkiola gustatu[1]. Teilatuaren istripuak ere bere eragina izan zuen erabaki hartan eta hurrengo urteetako zezenfesten debekuetan[2].

Cossio-ren arabera, Baionako zezenfesta hartan zezenak Nafarroa eta Gaztelatik ekarriak ziren, eta toreatzaileak Nafarroatik dirudienez. J.M. Iribarrenek ordea, Louis Francois d'Harcourt Sézanne-ko kontearen albistea dakar. Hark dioenez, Baionako hiriak plaza prestatu eta Nafarroara bidali zituen mandatariak zezen eta oinezko toreatzaileen bila[3].

Vanci-ko dukearen deskribapenari jarraitu gatzaizkio Baionako zezenfesta honen berri eman dugunean, eta hortik atera daiteke kontu garai hartako oinezko zezenketak nolakoak ziren.

Baionan batetik, zaldizkorik ez da ageri plazan; ez burtziketan eta ez pikatze-lanetan. Bestetik, oinezko toreatzaile nafarrek burutzen zituzten lantzeak zeintzuk ziren jakitea interesgarria da. Zezena kapelaz eta kapaz toreatzen bazekiten. Baita ezpataz edo sastakaiz jota hiltzen ere. Banderilak banaka eta *binaka* ipintzen zituzten (Banaka ipintzea 1.613.ean ere ezaguna zen, arestian esan dugunez. Astorgan 1.690.ean binaka ere ipini omen ziren[1]). Plazan zezena uzkaltzeko gai ziren, zakurrak botata. Izterzainak lunerdiz ere ebaki ohi zizkioten zenbait zezeni. Oinezko lantzakada, arriskutsua eta ikusgarria zen dudarik gabe. Kapa soinean zuela nafar-toreatzailearen zezen aurreko ibilaldiak berriz, zer esanik ez. Goiak *Faltzes-eko ikasle*ari Tauromakia izeneko sailean egindako grabatua dakarkigu berehala gogora.

Baionan, zezenetarako zaletasun handia zuten garai hartan. Vanci-ko dukeak dioenez, Baionako kaleetan sokamuturrak ohizkoak ziren. Hiltegirako idiei gainera, zakurrak botatzen zizkieten hil aurretik.

Urte hartako urtarrilaren 23an, Felipe V.ak alde egin ondoren Bourgogne eta Berry-ko dukeak Baionara itzuli ziren. Hiriko agintariek, toriletan gelditutako lau zezenak jokatzea proposatu zieten, baina errege berriaren anaiek ez zioten estimaziorik erakutsi festari eta biharamunean hiritik joan egin ziren[1].

Urte hartan ordea (1.701.ean), Euskal Herriko beste zenbait herritan ere ospatu zituzten zezenfestak. Iruñean, adibidez, ikusleak doan zuen zezenetarako sarrera, XVIII. mendea igaro ahala

kobratzen hasi ziren arte[4]. Bestetik, Erribera aldean zezenak lehen baino ugariago zeuden eta erretordearen zedula-beharrik ez zuten izan mende osoan.

Mende hasieran, Madrilen ez zen zezenfestarik ospatu 1.725. urterarte Felipe V.ari atsegin ez zitzaizkiolako. Iruñean ordea, urtero jokatu zituzten zezenak. Sanferminetan ohizko korrida egiten zuten, eta ohizkanpokoa horretarako arrazoi bereziren bat zegoenean[5].

Has gaitezen 1.701. urteko sanferminetako zezenen berri emanez. Hamabi zezen ekarri zituzten Avilatik. Dirudienez, ganaduzalea Francisco Santiago Puente edo, hobeto esan, bere alarguna (Maria Josefa Atienza) izan zen[6]. Hamabi zezen eta hiru joaldun ekarri ziren 5.720 erreal ordainduta; 715 erreal bakoitza. Sanferminetan, 14 zezen jokatu zituzten[8].

Jose Urbistondo eta bere lagun batek, 24 erreal kobratu zituzten prozesioan, korridan eta maskaradan tinbalak zaldi gainean jotzeagatik[7]. Pedro Benedi eta beste hiru toreatzaileri 400 erreal eman zizkieten[8].

Korrida-egunean bestetik, uztailaren 11n, auzia sortu zen torileko giltzagatik. Udalgizon batek eduki ohi zuen giltza, eta hark agintzen zuen zezenfesta noiz hasi, askarirako noiz gelditu, noiz amaitu etab. Udalgizona zen korridako lehendakaria. Alkatea, erretordeak izendatzen zuen orduan Iruñean, baina epaile-lanak egiten zituen eta ez zen zinegotzien buru. Horiek horrela, zinegotziak udaletxean Gaztelu-plazara joateko prest zeudela, Benito Urries alkate jauna etorri zitzaien giltza-eske. Udalgizonek ezezko biribila eman zioten alkateari. Alkateak preso hartu nahi izan zituen, eta erretordearengana joan zen. Baita Udaleko idazkaria ere. Erretordeak giltza alkateari zegokiola zioen, baina idazkariak ezetz. Erretordeak, Erreinuko Kontseiluko idazkaria bidali zuen giltza-bila. Hari, giltza eman zioten, baina Urries jaunaren eskuetara joango ez zenaren baldintza ipini zuten zinegotziek.

Arratsaldeko bostak ziren, eta artean zezenfesta hasi gabe zegoen. Denak urduri zeudela, halako batean erretordea balkoira atera eta plazan zaldi gainean zegoen Blas Ezker justizi teniente jaunari bota zion giltza. Hurregno egunetan Urries jauna alkatetzatik kendu egin zuten. Horrela konpondu zen giltzaren auzia[9].

Urte hartako neguan, ohizkanpoko zezenfesta antolatu zuten Iruñean Felipe V.aren ezkontza ospatzeko asmoz. Gaztelu-plazan, galeria dotorea prestatu eta eraiki zuten agintariak bertatik zezenak ikus zitzaten. Abenduaren bian, Esteban Urrizola eta Martin Etaiu zurginek agiri bidez galeria behar bezala egiteko konpromezua hartu zuten. Agirian, galeriaren neurriak, materialak etab. zehatz-mehatz finkatu ziren[10].

Zezenak Erriberatik ekarri zituzten abenduaren 12an jokatzekotan. Lau, Tuterako Maria Josefa Colmenares-i erosi zizkioten Pedro Sartolo-ren bitartez. 1.200 erreal kostatu ziren. Beste lau Korellako Joan Eskudero jaunari (100 dukatetan) eta beste bi Martin Esain-i. Martin Esain-i 60 dukat ordaindu zitzaizkion[8], baina zezenak jatorriz nongoak ziren ez dakigu. Joan Eskudero korellarra berriz, Inkisizioko komisari eta Santakarako markesaren kaperau zen. Dirudienez, markesak bazituen artean zezenak, nahiz eta bere kaperauaren izenean saldu[3]. Zezen onak aukeratzen saiatzen ziren, baina orain bezala lehen ere, Pedro Sartolok (Maria Josefa Colmenares-en administratzaileak) Tuteran urte hartako abenduaren hiruan zioena egia da: Plazan ikusi arte zezenaren ontasuna aurrez ez dagoela ziurtatzerik alegia[5].



8.2. irudia. 1701. urteko abenduaren 12ko korridarako Iruñeko Gaztelu–plazan eraiki zen galeria.

Erretordeak, Iruñeko elizgizonei zezenetarako gonbitea pasa zien. Baina kuriako jenderik ez zen agertu plazara zezenfesten kontrako joeraren eraginez[4].

Zezenen aurrean abileziak erakusteagatik Pedro Benedi eta hiru lagun toreatzailek laurehun erreal jaso zituzten. Jose Fernauz eta Jose Salaberriak laurogei erreal. Pedro Billaba tuterarrak berriz berrogeitamar erreal. Billabak, toreatzeaz gain zaldiz lantzakada eman zion zezenari[4].

Urte hartantxe, beste toreatzaile batzuek ere lan egin zuten Gaztelu–plazan. Jose Martinez Boticario–k adibidez, 64 erreal kobratu zituen. Agustin Yanguas tuterarra, iaioa zen oinez lantzakadak ematen. 1.700. urteaz gero 1.728.erarte lan egin zuen Iruñean[11]. 1.701. urtean 32 erreal irabazi zituen[8]. Lehentxeago aipatu dugun Pedro Billaba berriz, 1.732.erarte aritu zen Gaztelu–plazan batzuetan kontratuz eta beste batzuetan kontraturik gabe. Jose Salaberria, 1.732.ean ere Iruñera etorri zen lanera. 32 erreal eman zizkioten[11]. Migel Ruiz Logronio–ko toreatzaileak 80 erreal irabazi zituen 1.701.ean Iruñean[8].

Mende–hasieran (1.701. urtean alegia), Lizarran ere badira zezen–albisteak. Urte hartan San Joan festarako sei zezenko ekarri zituzten, eta bezperarako bi[12].

Gipuzkoako Errenterian, elizako aldarean Ama Birjinaren jasokundearen irudia ipini zutelako zezenak jokatu zituzten[13]. Bizkaiko Deustun ere, XVIII. mendearen hasieran korrida bikainak izaten ziren sanpedrotan[14].

1.702. urtean, Gipuzkoako Getarian enkantean herriko haragiaren horniketa Pedro Ainzuberro–ren esku utzi zuten aurreko urteetan bezalaxe. Ainzuberro harakinak, festetarako zezena bere kontu ekartzeko ardura zuen. Baldintza hori ipini bait zioten enkantean[15].

Urte hartantxe, Tolosako Plaza Berrian udaletxea bukatua edo bukatzear zuten[16], eta harez gero zezenfestak Plaza Berrian ez eta Zaharrean korritzen hasi ziren. Gaur egun dena den, udaletxea Plaza Zaharrean dago eta zezenak beste plaza biribil batean jokatzen dira.

Tuteran, Euskal Herriko lekurik gehienetan bezalaxe, festetan zezenak eta dantzak izaten ziren, gainerako ikuskizunak aparte. 1.702. urtean, dantzarien maisu Geronimo Ibanez zen[17].

Iruñean, sanferminetarako zezen-bila Salamancara joan ziren. Hamalau ekarri zituzten festetarako beste hiru joaldunekin. Buru bakoitza 650 errealetan erosi zuten. Guztiak 11.050 errealetan[8]. Toreatzaileetako bat, Tomas Guete tuterarra izan zen[18]. Lau arratsalde eta entzierro-eguneko goizean toreatu zuen. Migel Garrido eta Pedro Billaba alfarotarrak ere han ziren. Hauek 128 erreal jaso zituzten saritzat. Domingo Ruiz alfarotar toreatzaileak, 32 erreal[8].

1.703. urteko sanferminetarako hamabi zezen erosi zizkioten Pedro Sartolo-ri. Tuterar honek, Maria Josefa Colmenares-en aziendaren ardura zuen eta urte hartan bere nagusiaren sei zezen eta Antonio Lekunberriren beste sei bidali zituen Tuteratik Iruñera. Jose Arana toreatzaileak (baimenak erakutsita) 360 dukat jaso zituen ganaduagatik; 30 dukat bakoitzagatik[8].

Urte hartan Nafarroako Leitzan, zezenfestak debekatu egin zituzten, hazitarako zezen-falta zegoela eta. Baina debeku hauek ez zuten eragin handirik izan, beste askotan bezalaxe[19].

Bilbon, Felipe V.a erregeak hogei urte bete zituelako, 1.703.eko abenduaren 18 eta 19an zezenak eta zezenkoak korritu ziren[2].

Urte hartantxe, Tolosako Plaza Berrian torilak egin zituzten eta zezen-korridak bertan ematen hasi ziren, eta ez Plaza Zaharrean[20].

Gipuzkoako Getarian, otsailaren 13an Pedro Ainzuberro harakinak hartu zuen berriro ere herria haragiz hornitzeko ardura eta festetarako zezena ekartzeko konpromezua[15].

1.704. urtean, Bianan madalenatan herriko festak beste urtetan bezalaxe ospatu zituzten. Gastuak zilarrezko 4.690 errealeraino igo ziren. Tuterako Antonio Lekunberriri zortzi zezen erosi zizkioten, bakoitzagatik zilarrezko 28 dukat ordainduta. Tuterara joan zen arduradunak, lau erreal jaso zituen. Toreatzaileak berriz 144 erreal. Beste lau toreatzaileek (kontratuz joan zirenek) 400 erreal. Menturaz etorritako beste toreatzaile batek 16 erreal. Lantzakada jotzeko ekarritako zaldiagatik, 28 erreal ordaindu ziren. Lantza eta banderilagatik 40 erreal. Turutariari, 40 erreal eman zizkioten eta danbor-jotzaileei beste 40. Txistulari gipuzkoarrei 64 erreal. Zezenak plazatik ateratzeko mandakoengatik 68 erreal ordaindu zituzten eta torilak nahiz ateak konpondu, plaza garbitu, joaldunak ekarri eta beste zenbait gastugatik 128. Kalagorritik etorritako musikariei hiriak 400 erreal eman zizkien. Zirauki eta Mañeru-tik etorritako dantzariei 200 erreal. Beste 200 erreal kostatu zen zezenak ikusten balkoitik begira egon ziren agintariei emandako askaria. Gauerako suzko gazteluagatik, zilarrezko 616 erreal ordaindu zituzten[21].

Iruñean, Joan Eskudero Valero korellarraren 14 zezen jokatu ziren 1.704.ean. 30 dukat kostatu zen zezen bakoitza[8]. Lehen aipatu dugunez, Santakarako markesaren kaperau eta Inkisizioko komisari zen elizgizon ganaduzale hau[5]. Urte hartan, besteak beste Martin Soriano toreatzaileak kontraturik gabe lan egin zuen Gaztelu-plazan. Hogeitalau errealeko saria jaso zuen. Hurrengo urtean berriz, berrogeitamarrekoa leku berean[11]. Pedro Billaba alfarotarrari 24 erreal eman zizkioten, bai 1.704.ean eta bai 1.705.ean.

———— o ———— o ————

1.705.ean ere Joan Eskudero–ren zezenak etorri ziren Erriberatik Iruñera; hamabi hain zuzen, hogeitamarna dukatetan erosita[8]. Beste batzuen artean, Jose Uskerola–k lan egin zuen zezenetan laurogei errealen truk[10]. Valentziatik, Vicente Fons ekarri zuten zaldiz torea zezan. 135 peso eman zizkioten[22]. Jerbasio Roman toreatzaileari berriz 32 erreal[8].

Azpeitian, herri inguruko zezenak jokatu ziren 1.705.eko festetan. Suzko manta ere prestatu zuten, zezensuzkorako[22]. Orduko zezensuzkoa izan ere, egiazko zezena sututa egiten bait zen. XVIII. mendea aurrera igaro ahala hasi ziren egiazko zezena sutu ordez zurezko irudia bolboraz beteta erretzen.

1.706. urtean, zezenfesta gutxi izan zen gerragatik. Karlos artzadukea eta Felipe V.aren arteko gatazkak bide, Iruñean bertan ere ez zen zezenik izan urte hartan[5]. Istilu txiki bat bai ordea *Comptos* auzitegiko Jose Anoz jaunak zezenetan balkoian lekua izateko eskubideaz baliatu nahi zuelako. Balkoian egoteko eskubidea, berez Jose Etxauri jaunak zuen. Baina kanpoan egoteagatik edo gaixotasunagatik, Jose Anoz lizentziatua zegoen aldi baterako *Comptos* auzitegiko karguan. Dena den, azkenean Jose Anoz lizentziatuak Jose Etxauri jaunaren eskubideak bereganatu zituen zezenetan Gaztelu–plazan auzitegikoen balkoian egoteko[24].

Dena dela Gipuzkoan, Leintz–eko Gatzagan 1.706. urtean zezenak izan ziren. San Millan plaza edo aurreko zelaia barreraz ixten zuten horretarako. Zezenak, Olarizu, Aramaio eta Elgeta–ko mendietatik ekarri ohi zituzten. Aipatutako urtean (1.706.ean) Bergarako Bartolome Ozaeta eta bere lagun toreatzaileek lan egin zuten Gatzagan[25].

Hurrengo urtean, 1.707.ean, Luis Fernando printzea jaio zen abuztuaren 25ean eta festa asko egin zen jaioberriaren omenetan. Zumaian lau zezen korritu zituzten, Azpeitia eta Oikia–tik txistulari eta musikariak ekarrita[26].

Tolosako Plaza Berrian (gaur egun Foru–plaza ere esaten zaio), torilen gainean etxebizitza bat egiten hasi ziren[16].

Azpeitian, festetarako Nafarroatik edo Gaztelatik zezenak ekartzea erabaki zuten. Hirurogei dobloi erabili zituzten horretarako[23].

Bilbon, Luis printzearen jaiotza zezenak korrituz ospatu nahi izan zuten. Salamanca–ko hamazortzi zezen 690na erreal kostatu ziren. Avila–ko Maria Josefa Atienza–ren (Santiago Puente ganaduzale avilatarraren alargunaren) bitartez ordaindu ziren zezenak[27].

Bilboko arrazoi berberagatik, Tuteran irailaren 11tik 19rarte festak ospatu zituzten. 19ko zezenfesta izan zen guztietan bikainena. Musikariak, dantzariak eta abar plazan desfilatu ondoren, hamabi zezen jokatu ziren. Azkenean suzko gaztelua erreta amaitu zituzten festak[2].

Garai hartan, Tuterako Joan Arana toreatzailea famatua zen[28]. Plazaz plaza ibili zen eta Benito Feijóo monje beneditarraren arabera, zezen suharrak toreatzen aritu ondoren idi mantso batek hil zuen[22].

Iruñean 1.707. urtean, sanferminetako korridaz gain ohizkanpoko beste bi izan ziren. Bata,

Almansa-ko garaitzagatik. Han, Felipe V.aren armadak tropa austriarrei irabazi zien. Maiatzean Korellako Joan Eskuderoren hamar zezen ekarri zituzten plazan jokatzeko[8]. Ohizkanpoko bigarren korrida, Luis Fernando printzearen (gero Luis I.a errege izango zenaren) jaiotza ospatzeko antolatu zen.

Sanferminetan hamabost zezen korritu ziren: 12 Joan Eskudero korellarrarenak, bi Martin Virto korellarrarenak eta bat Frantziska Iruñela (Manuel Berrio-ren alarguna) billabarrarena. Korellako 14 zezenak 4.200 erreal kostatu ziren eta Billabakoa 300 erreal[8].

Udalgizonek, Santakarako markesari idatzi zioten bere kaperauak (Eskudero jaunak) zezenak sal zitzan. Badirudi beraz, markesaren ganadutegi famatua bere kaperauaren eskuetara pasa zela 1.701. urtean[28].

Sanferminetan, Luis Sagardoi balterratarra bere koadrilarekin aritu zen lanean. Aurrez ordea, maiatzean, Almansa-ko garaitzagatik beste korrida bat izan zen. Orduan Joan Arana tuterarrak, bost lagunen buru zela lan egin zuen Gaztelu-plazan. Korrida hartarako, Pedro Armendariz zahagigileak hiru txotxongilo prestatu zituen; oinarrian pisua zuten larruzko giza itxurako txorimaloak. Puztu eta pintatuta uzten zituzten plazan. Zezenak adarkatu egiten zituen, baina txotxongiloa beti zutik gelditzen zitzaion. Armendariz zahagigileak 24 erreal kobratu zituen bere lanagatik. Sanferminetan 40, lau txotxongilo prestatzeagatik. Manuel Corredor zaragozarrak 150 erreal irabazi zituen zezenetan tinako lantzea egiteagatik. Plazaren erdian lurrezko tina handi bat sartzen zuten eta estutasunak jotakoan toreatzailea tinaren barrura sartzen zen.

Azken zezena (bolaztatua), Joan Likidain eta bere bederatzi lagun errotari iruindarrek hil zuten lantzaz hesia edo *palenque*a eginez. 50 erreal jaso zituzten beren lanagatik[8].

Abuztuaren 25ean Luis Francisco printzea jaio zeneko albistea, bi egun geroago heldu zen Iruñera, eta hurrengo egunean (igandean) hasi ziren ospakizunak. Aste osoan elizkizunak izan ondoren, ostiralez zezenfesta bitxia antolatu zuen Santakarako markesak Iruñean. Trinitarien plazan, arranpla bat muntatu zuten Arga ibairaino. Jende asko zegoen ibai-ertzetan ikusminez. Izan ere bost zezen bota zituzten arranplan behera ibaira. Zezen batzuk ibaian eta beste batzuk ibai-ertzean hil zituzten zain zeuden gazteek. Gaztelu-plazan egun hartan gainera (irailaren 2an), beste zazpi jokatu eta hil ziren. (Zezenak ibaira botatzeko festa-mota hau, XVII. mendean Gaztelan egin izan zen. 1.602.ean Zamoran, 1.616.ean Lerma-n, 1.660 eta 1.668.ean Valladolid-en eta gero Madrilen adibidez).

Hurrena, irailaren 4ean (igandez) izan zituzten zezenak iruindarrek. Lau zezen korritu ondoren bat hil egin zuten, eta beste hirurak ere bai gauean ezpataz.

Baina zezenfesta nagusia astelehenean (irailaren 5ean) izan zen. Hamabost zezen zeuden egun hartan toreatzeko eta goizean batzuk probatu zituzten plazan. Arratsaldean, erretordea eta agintari guztiak beren balkoietan zeudela, ohi bezala plaza libratu ondoren lehen zezena atera, hil eta mandakoz tirata kanporatu egin zuten. Orduan, hamahiru toreatzaile emakumez eta beltzez mozorroturik plazaratu ziren. Zezenak torileko atea zeharkatu zuenean, plaza aldenik alden pasa ondoren emakumez mozorroturiko batek bi banderila batera sartu zizkion. Toreaketa-lanak, zezena hilez amaitu zituzten.

Hurrengo zezenari, beste *emakume* batek (oinak geldirik) beste banderila-parea ipini zion. Hura ere ongi toreatuta hil zuten. Beren hirugarrenari ere, lana ederki eginda ezpata sartu zioten. Laugarren zezenari, suzko banderilak (suziridunak) ipini zizkioten eta binaka zenbait aldiz. Zezena

nahiz eta plazako txoko batean babestu (koldarra zelako, noski), ezpata sartuta han bertan hil zuten.

Mozorrotutako toreatzaile-talde honek, txalo ugari jaso zuen lana amaitu zuenean. Jendearen gustoko gertatu ziren oso. Gero, beste toreatzaileak plazaratu eta gainerako zezenenak haiek egin zituzten. Arratsalde hartarako, Joan Aranari dei egin zioten Donostiara. Arana tuterarra, Donostian zegoen orduan hango zezenetan lanean bere taldearekin. Donostiatik Iruñera aldatu zen beraz bere lagunekin[7].

Joan Arana 1.700. urtetik 1.705. urterarte aritua zen Iruñean toreatzen. Geroztik ere 1.710, 1.712 eta 1.713. urteetan lan egin zuen Gaztelu-plazan, 600, 700 eta 700 erreal kobratuz. Harez gero hilko zen, Feijóo beneditarrak dioenez, idi baten adarkadaz[8].

Printzearen jaiotzako festetan, Joan Eskudero korellarraren 16 zezen korritu omen ziren Iruñean 1.707.ean. Eskudero jaunak, Inkisizioko kimisariak, zortzi zezen bakarrik kobratu zituen (1.800 erreal; 300 bakoitza), eta gainerakoena, San Fermin zaindariaren kapera egiteko limosna gisa uztea erabaki omen zuen.

Festa haietan dena dela, dantzariak ere izan ziren. Salbador Iturralde lizarratarrak, Valentziako erara dantzatuz maneiatu zuen taldea. Zirauki-tik etorritako txirularia eta zortzi dantzari berriz, Iruñea arroko erara aritu ziren[7]. Zezenak, dantza eta mozorroa, Euskal Herriko hiri eta herrietako festetan noiznahi agertzen eta nahasten diren hiru elementu nagusi ditugu inola ere.

1.707. urtean Iruñeko zezenfestetan toreatutako beste bi, Manuel Ibarra eta Manuel Llanos izan ziren. Manuel Ibarrak, zaldizko burtziketa egin zuen (50 erreal eman zizkioten) eta Manuel Llanos gaztelauak, oinezko toreaketa. Honek brokel (ezkutu txikia) eta ezpataz hiltzen zituen zezenak[22]. Pedro Billaba alfarotarrak 80 erreal irabazi zituen. Txotxongiloak ere ipini zizkioten zezenari plazan[8].

1.708. urteko sanferminetan, Mª Josefa Colmenaresengana jo zuten zezen-bila. Ganduzale tuterar honi, 12 zezen erosi zizkioten[5]. Bakoitzagatik 300 erreal ordaindu zituzten[8]. Toreatzen aritu zirenak, besteak beste, hauek dira: Jose Tarazona (100 erreal kobratu zituen), Lorenzo Malla[11] (kontratuz joana eta beste bostekin batera 600 erreal jaso zituen)[8], Bernardo Joachin (kontraturik gabe joana) eta Jose Jines (beste toreatzaile andalus batzuekin toreatzaile nafarrekin lehian ibili zena)[22]. Luis del Campo-ren arabera ordea, Joseph Jinés toreatzailea 1.765.ean aritu zen Iruñean 240 errealen truk[29].

Bernardo Joachin eta Jerbasio Roman-ek toreatu zuten 40 errealen truk. Baita Manuel Marcel-ek (100en bat erreal eman zizkioten) eta Jose Milagro-k ere (100 erreal jaso zituen saritzat). Migel Ruiz eta beste bosti 600 erreal eman zizkieten eta Pedro Billaba-ri beste 100 erreal[8].

Gipuzkoako Urnietan, sanmigeletan urtero ematen zen korrida. Urte hartan ere bai. Gastuak ordaintzeko, ardo-hornitzailea otsaileko 31eko enkantean zilarrezko 83 erreal ematera behartu zuten. (*para salario de los ttoros de la Corrida de la festividad de San Miguel...*). Aurreko urteetan ere sistema berari jarraitu zitzaizkien. 1.707.ean otsaileko 10ean egindako enkantean ardo-hornitzaileak zilarrezko 80 erreal eman behar zituen korridarako ala herriak erabakitzen zuenerako. 1.706.ean haragia hornitzen zuenak 80 erreal, apirilaren 20an burututako enkantean, eta beste 80 erreal ardo-hornitzaileak otsaileko 15eko enkantean. 1.703.ean Oriako errota enkantean hartu zuenak ere, besteak beste urtero 40 erreal ordaindu behar zituen sanmigeletako korridarako edo herriak nahi zuenerako[30].

1.709. urtean, Joan Eskudero korellarraren zezenak atera zituzten Iruñeko Gaztelu–plazara. Hamabi erosi zizkioten urte hartan Santakarako markesaren kaperauari[5] eta bakoitzagatik 300 erreal ordaindu ziren[8].

Iruñean 1.709.ean toreatu zuten batzuk, honako hauek dira: Joan Aperen (100 erreal kobratu zituen)[17], Jose Matute (50 erreal eman zizkioten Tarazonan bizi zen honi) eta Migel Sagardoi (honek 1.729. urterarte lan egin zuen Iruñean eta garai hartako onenetakoa zen)[11]. 1.709.ean beste bostekin batera 600 erreal irabazi zituen, 1.716.ean bezalaxe. 1.717.ean ordea, berak eta bere bost lagunek 1.400 erreal jaso zituzten bi korridatan parte hartzeagatik. Gero 1.729.erarte toreatu zuen beti ere onenen pare kobratuz[8].

Baliteke Migel Sagardoi hau bi urte lehenago (Baleztenaren arabera) sanferminetara toreatzera etorritako Luis Sagardoi balterratarraren anaia izatea[7], edo agian Luis eta Migel pertsona bera izatea. Jose Milagro zen toreatzen aritutako beste bat. Migel Ruiz ere bai 50 errealen truk.

Jerbasio Almorezil toreatzailea ere sei ehun–zerrendadunen artean zen. Toreatzaile–talde honi 600 erreal eman zizkioten. Migel Garrido alfarotarrak, 50 erreal jaso zituen bere lanagatik. Migel Ruiz eta Juan Juntero–ri 100 erreal eman zizkieten. Pedro Billaba eta Migel Marin–i ere bai[8].

1.709. urtean bestetik, Nafarroak inoiz eman duen toreatzailerik bikainena jaio zen: Bernardo Alcalde Merino alegia, gero *Faltzes–eko Lizentziatua* izenez famatu izango zena. Faltzes–en munduratu zuen Antonia Merino–k. Aita Manuel Alcalde zen; Arellano–ko alcaldetarren ondorengoa. Amak berriz, Arruiz–eko Meriorena detiurakoak zituen arbasotzat. Abuztuaren hogeitalauean bataiatu zuen Jose Munarriz apaizak. Aitaponteko, Gregorio Tribiño izan zen[22].

———— o ———— o ————

1.710.eko sanferminetarako, Joan Eskudero–ren beste hamabi zezen etorri ziren Iruñera[5]. 300 erreal kostatu zen bakoitza[8]. Lanean Diego Kaparroso (kontraturik gabe joana, handik bi urtera bezalaxe)[18] eta Diego Serrano (50 erreal eman zizkioten handik bi urtera bezalaxe)[11] aritu ziren beste batzuen artean. Dena den, Cossio–k izendatzen dituen Diego Kaparroso eta Diego Serrano pertsona bakar bat izatea ez litzateke harritzekoa. Alfaroko Juan Garrido–k, oinezko lantzakada jo zuen 32 errealen truk[8].

Tuteran, zorte txarra izan zuten 1.710. urtean; zezenetarako zuten Plaza Berria (Foru–plaza), uholde batek hondatu bait zuen. Plazak azpian zuen ibaia, eta uholdeak arku eta gaineko etxeetan kalte handiak egin zituen[31].

Hurrengo urtean, 1.711.ean, azpeitiarrek Felipe V.ak bere tropekin Brihuega eta Villaviciosa–n izandako garaitza ospatzea erabaki zuten. Pedro Etxeberriari 240 erreal eman zizkioten zezenengatik eta herrira ekartzeko behar izan ziren unaien lanagatik. Antonio Larrar–ek 36 erreal kobratu zituen barrerak ipini eta kentzeagatik. Suak, banderilak, hagen garranga, paper eta beste zenbait gauza, 28 erreal kostatu ziren.

Saninaziotan ere, ohizko zezenfesta antolatu zuten azpeitiarrek. Zezenak, Nafarroatik ala Gaztelatik ekarriak izango ziren[23].

Iruñean, ez zen zezenik izan 1.711.ean. Frantziako delfina (Espainiako Felipe V.aren aita) hil zelako[5] zezenkoak izan ziren uztailaren hamaikan. Lau *zaldiko*tik burtziak sartu eta ezten–hagaz

pikatu zituzten zezenkoak[8]. Hurrengo urtean ordea, 1.712.ean, Joan Eskudero korellarraren 14 zezen plazaratu ziren[5]. 300 erreal ordaindu zituzten bakoitzagatik. Jose Adan-i 64 erreal eman zizkioten zezenetan mozorrotuta tina barrura sartzen ibiltzeagatik[8]. Migel Billaba han zen besteen artean lanean. 50 erreal eman zizkioten saritzat[11]. Jose Ibarrolaburu gipuzkoarra ere Iruñean zen zezen bati partxeak (bikeztutako oihal-puskak) jartzen[18]. 32 erreal irabazi zituen. Antonio Bermejo lehen aldiz aurkeztu zen Iruñean. 50 erreal irabazi zituen. Manuel Inocedo burgostarrak, 32 erreal oinezko lantzakadagatik[8].

Azpeitian, ohi bezala jokatu ziren zezenak festetan. 600 erreal gastatu zituzten zezenak erosten. Baita hurrengo urteetan ere (1.723. urterarte) inolako aldaketarik gabe[23].

Zestoan ere, baziren zezenak garai hartan herriko plazan. 1.712.ean, 24 erreal ordaindu zituzten plazan hondarra botatzeagatik[32].

1.713. urtean, udaletxea egiten hasi ziren Eskoriatza-ko Santa Marina plazan; alardeak, zezenfestak etab. egiten ziren plazan hain zuzen[33].

Soraluzen, tabernariek Santiago eta Santa Ana zaindarien festetarako bi zezen ekartzeko baldintza zuten urte hartan. Bat gainera hiltzeko zezena zen, baina kanpotik zetorren jendeak istiluak sortuko zituelakoan, plazan korritu ondoren ez hiltzea erabaki zuten udalgizonek[34].

Iruñean, hiltzeko zezenak atera ohi ziren plazara sanferminetan, eta 1.713.ean Zamorakoak jokatu zituzten, hain zuzen. Ripalda-ko kontearen bitartez (Zamorako gobernadorearen bidez alegia), 12 zezen ekarri zituzten urte hartan Iruñera[5]. Baita bi joaldun ere haiekin batera. 620 erreal kostatu zen bakoitza, garraio eta guzti. Juan Garrido alfarotarrak, lantzakada eman zuen oinez. 32 erreal kobratu zituen[8]. Lau urte geroago ere aritu zen plaza berean. Aurrez gainera, 1.710. urtean, ibilia zen kontraturik gabe lanean Gaztelu-plazan[18]. Jose Adan-ek 64 erreal jaso zituen mozorrotuta zezenetan tinara sartzen ibiltzeagatik. 1.713.eko sanferminetan, erraldoiak, dantzariak, musikariak (hiru hernaniarrak), Baztaneko koblakariak, suak etab. ere izan ziren. Euria egin zuen korrida-egunean, baina 22 erreal eman zizkieten plaza ureztatzeko upelak prest zituztenei. Beste 60 erreal mandakoekin plazatik 12 zezen atera zituztenei. Migel Ruiz eta beste toreatzaile batzuek 100 erreal hartu zituzten saritzat[8].

1.714. urtean, Toloño-n Andre Mariaren ermitan erretaula jarri zutelako inguruko herrietako jende asko bildu zen. Buradon-Gatzaga-tik zezenak ekarri eta gero berriz itzultzea, 30 erreal kostatu zitzaien. Suak, dantzak eta txistularia ere izan zituzten[35].

Iruñean, ez zen zezenik izan Maria Luisa erregina (Felipe V.aren emaztea) hil zelako. Baina gero neguan Isabel Farnesio Parma Iruñera etorri zenean, ohizkanpoko korrida ospatu zuten. Maria Josefa Colmenares tuterarraren hamar zezen erosi zituzten horretarako[5]. Isabel Farnesio erregina abenduaren hamaikan sartu zen Iruñera, eta korrida hamahiruan izan zen[2] .Zortzi zezen korritu zirenean ilundu egin zuen eta beste biak plazan sua eginda toreatu zituzten; suaren argitan alegia[8].

———— o ———— o ————

Hurrengo urtean, 1.715.ean, Joan Eskudero korellarraren ganadua, herri bereko Martin Virto jaunaren eskuetara pasa zen[3]. Iruñera dena den, Zamorako Benavente-tik ekarri ziren hamabi zezen eta bi joaldun[8]. 1.716.ean berriz, Madril inguruko Escorial-etik. Lurralde hartako 16 zezen ekarri

zituzten[5]. Bakoitza 700 erreal kostatu zen[8].

Urte hartantxe (maiatzaren 20an), Diputazioak korridarik ez bazen diputatu, sindiko eta idazkariari ohizko propinarik ez ematea erabaki zuen[36]. Baina sanferminetan zezenak jokatu ziren. Baita Migel Llanos gaztelauak bi zezen toreatu ere brokel eta ezpataz hil aurretik[29]. 32 erreal irabazi zituen[8]. (Agian Cossio-k 1.707. urteko sanferminetan aipatzen duen Manuel Llanos eta hau pertsona bera izango dira). Joan Eskudero izeneko toreatzaileari, 44 erreal eman zizkioten[18]. Pedro Billaba eta Migel Piña alfarotarrak ere han ziren lanean kontraturik gabe[8]. Hurrengo urtean eta 1.723 eta 1.738. urtean ere Migel Piña joan zen lanera Iruñera[11]. Manuel Inocedo-k 32 erreal jaso zituen oinez lantzakada jotzeagatik[8].

1.717. urtean, Isabel Virto Luna-ren (Manuel Virto-ren alabaren) hamabi zezen ekarri zituzten Tuteratik Iruñera. Bakoitza 27 dukat kostatu zen eta plazan ondo portatu ziren. Beste hamabi ere etorri ziren Zamora-ko Benavente-tik: Francisco Melgon ganaduzalearenak. 720 erreal kostatu zen bakoitza garraio eta guzti. 274 erreal kostatu ziren bi joaldun; zezenak Eskirotz-eraino eramateko erabili zirenak hain zuzen[8].

Baina gogoan izan behar da urte hartan ohizkanpoko korrida ere izan zela Nafarroako hiriburuan San Fermin-en irudia kapera berrira aldatu zutelako[5].

Uztailaren zortzian jokatu zen lehen korrida (Melgon-ena). Goizeko seietan, Udaleko banderaduna zezen-taldearen aurrean eta zaldiz zela, San Roke-ko zelaitik Gaztelu-plazaraino entzierroa egin zuten Txapitela kale estutik pasata[37].

Bezperan, ilunabarrean, zezenak Eskirotz-etik Sadar ibaia zeharkatuta San Roke-raino (oraingo gartzelaraino) ekarriak zituzten jadanik. Handik goizeko seietan, Larrotxapea-ko portaletik sartu ziren zaldun zinegotzia aurretik zela (*bandera ta guzi, Xenpelar*ek esango zukeenez)[38]. Txapitela kalean jendea egoten zen entzierro-garaian. Zezenak Santo Domingo-ko aldapa igo eta Merkatal kalean zehar Txapitelara iristen ziren. Batzuek ezten-hagak (garrotxak) zituzten, eta behin baino gehiagotan zezenak ziztatu ordez banderadunaren zaldia akuilatzen zuten. Ezten-haga haiek beraz, debekatzen hasi ziren. Urte hartako uztailaren 10ean ateratako bando batek, bi dukat eta egindako kalteak ordiantzera zigortzen zuen garrotxaduna[5].

Uztailaren zortzian ordea, entzierroa amaitu ondoren lau zezen probatu zituzten goizean. Gainerakoak arratsaldean jokatu ziren[37]. Txotxongiloak atera ziren plazara; Gregorio Garaialde zahagigileak prestatuak hain zuzen. 56 erreal eman zizkioten bere lanagatik, bi berun-puska ipintzea barne. Uztailaren hamaikan, Iruñeko merkatari gazteek Gaztelu-plazan 12 zezenko toreatu zituzten mozorroturik. Maskarada hartan mairuak dantzan, kartoizko *zaldiko*ak burtziketan eta pikatzen, oinezko eta zaldizko lantzakada, etab. ikusi ahal izan ziren.

Uztailaren 15ean, goizean entzierroa izan zen berriz. Baina banderadunik ez zen orduan taldearen gidari. Hamar nafar-zezen sartu zituzten Gaztelu-plazako toriletara arratsaldean ohizkanpoko korrida ospatzekotan. Hamar zezenak arratsaldean hil zituzten. Batzuk lantzaz jota. Beste batzuk ezpataz, toreatzaileak beste ezer gabe zeudelarik. Beste zenbait, zezentxakurrez menperatu zuten eta bertako hiruzpalau gaztek bota zituen ilunabarrean[37]. Pedro Billaba eta Migel Piña toreatzaile alfarotarrek 256 erreal irabazi zituzten bi korridatan. Juan Garrido alfarotarrak oinez bi lantzakada jo zituen urte hartan (korrida bakoitzean bat) eta 64 erreal eman zizkioten horregatik. Tomas Gardeazabal bilbotarrak 80 erreal irabazi zituen bi korridetan parte hartzeagatik[8].

Urte hartako (1.717.eko) sanferminetara, Soraluzetik ere joan zen jendea. Armagintzan zebiltzan langileak beren erremintak salduta zezenetara joan ziren Iruñera. Gero kexu zen Antonio Hidalgo arma-fabrikako zuzendaria 120 tresna behar baino beranduago egiteagatik[34].

1.718. urtean, Isabel Virto Luna-k zortzi zezen bidali zituen sanferminetarako. Martin Ziriza kortestarrak berriz sei. 27 dukat kostatu zen zezen bakoitza[8]. Besteak beste, Domingo Diez Ultzurrun aritu zen kontraturik gabe lanean. 64 erreal eman zizkioten toreatzaile nafar hari[18], Manuel Inocedo burgostarrak bi lantzakada jo zituen korridan; bata oinez eta zaldiz bestea. 64 erreal eman zizkioten saritzat. Tomas Gardeazabal bilbotarrari, 64 erreal eman zizkioten bere lanagatik. Jose Martinez burgostarrari 50 erreal[8].

8.3. irudia. 1.719. urtea. Iruñeko mapa.

Hurrengo urtean, 1.719.ean, Iruñean ez zen zezenik izan Aliantza Laukoitzaren aurkako gerra zela eta[5].

———— o ———— o ————

1.720. urtean bai ordea, Erriberatik hamalau zezen ekarri zituzten: zazpi Isabel Virto Luna tuterarrarenak eta beste zazpi Martin Ziriza Kortes-eko ganaduzalearenak. Zezen bakoitza 27 dukat kostatu zen. Kaetano Barta-k, oinezko lantzakada jo zuen korridan, eta horregatik 50 erreal eman zizkioten[8].

Sanferminak pasatu ondoren, urriaren 30ean, Nafarroako Erret Kontseiluak komeria, zezen eta zezenkoak debekatu egin zituen. Madrilen, 1.701. urteaz gero 1.725. urterarte ez zuten zezenfestarik antolatu Felipe V.a erregeari atsegin ez zitzaizkiolako. Zezenak debekaturik zeuden Espainian mendearen hasieraz gero. Baimena eskatu behar zitzaion horretarako erregeari. Iruindarrek ordea, ez zuten horrelakorik egiten. Nafarroako foruak eta aurreko mendeetako pragmatikak bide, baimenik eskatu gabe ospatzen ziren ohizko eta ohizkanpoko korridak, errege austriatarrak zeudenean bezalaxe.

1.721. urtean, Iruñeko hiriak debekua ken zezan eskabidea bidali zion erregeari. Baina Marseille-n izurritea zegoelako edo erregearen baimena garaiz iritsi ez zelako, Iruñeko sanferminetan ez zen zezenik izan.

Hurrengo urtean bai. 1.722.ean eta hurrengoetan korridak beti bezala eman ziren Gaztelu-plazan baimenik eskatu gabe. 1.722. urtean, Isabel Virto Luna tuterarraren 12 zezen ekarri zituzten Iruñera[5]. 27 dukat kostatu zen bakoitza[8]. Isabel Virto (Martin Virto-ren alaba), Antonio Lekunberri tuterarrarekin ezkondua zegoen. Antoniok, Limas-eko Murelu-n (Tutera eta Argetas artean), Ebro ibaiaren ezker aldean behi- eta zezen-talde ederra osatu zuen XVIII. mendearen hasieran; 80 behi eta 18 zezenekoa. Zenbait historialarik dioenez,[39] Lekunberriren ganadua 1.722.ean jokatu zen Iruñean. 27 dukat (3.574 erreal) kostatu zen zezen bakoitza. Den den, Isabel Virto Lekunberriren emazte zenez gero, ez dago inolako kontraesanik bi albisteen artean.

Beraz, Isabel Virto edo Antonio Lekunberriren ganadua atera zuten Gaztelu-plazara 1.722.ean. Haiek toreatzen, Sanlúcar de Barrameda-ko (Cadiz-eko) Juan Losantos[18] (100 errealen truk)[8] eta Francisco Martinez aritu ziren beste batzuk ere tartean zirelarik. Francisco Martinez, hagaz zezen gainetik salto egiten zen ona, Goiak pintatutako Joanito Apiñani kalagorritarra bezalaxe. Francisco Martinez, hurrengo bi urteetan eta 1.729, 1.730 eta 1.731.ean ere etorri zen Iruñera sanferminetan[11]. 1.722.ean dena den, 200 erreal eman zizkioten bere hagazko lanagatik. Baita hurrengo urtean ere. Gero ordea, 160, 160 eta 100 hurrenez hurren[29]. Agustin Yanguas tuterarrak 32 erreal kobratu zituen 1.722.ean oinezko lantzakada jotzeagatik[8]. Urte hartantxe, Donostian Plaza Berria egin zuten. Plaza Zaharra, harresiaren ondoan zegoen (oraingo Bulebar-ean, Barandiaran kafetegiaren aurrean). Azkoka eta festetako ikuskizunak (zezenak), han egiten ziren. Baina hantxe bertan hiru koartel ere baziren eta istiluak noiznahi izaten zituzten herritarrek militarrekin. Donostiako hiriak beraz, orduko Enbeltran eta Amasorrain kaleetako etxeak erosi eta bota ondoren, Plaza Berria (oraingo ttunttun-plaza edo Konstituzio-plaza) eraiki zuen 1.722.ean, Hercules Torrelli-k egindako planoen arabera. Plazako etxe guztiak Udalak egin zituen. 1.016.619 erreal kostatu ziren. Udaletxea berriz, 40.000 peso. Handik aurrera, Donostiako azoka, zezen eta gainerako ikuskizunak Plaza Berrian egin zituzten[40].

1.723. urtean, Azpeitian zezenetarako erabiltzen zuten dirutzari gutxi zela eritzi zioten. 1.712.az gero, urtero 600 erreal gastatzen zituzten. Baina 1.723.ean beste 300 gehiago ere horretarako erabiliko zituzten. Hurrengo urteetan ere bai. Barrerak ipini eta kentzearen arduraduna, Antonio Larrar zen[23].

Iruñean, Isabel Virto-ren hamabi zezen ekarri zituzten sanferminetarako, hogeitazazpina dukat ordainduta[8]. Urte hartan Bizente Sigurena-k, bi zezen zaldiz toreatu zituen burtziak sartuz. Hogei dobloi eman zizkioten ordainetan[11]. Agustin Morales toreatzaileak 32 erreal irabazi zituen. Agustin Yanguas-ek 40 erreal oinezko lantzakadagatik. Migel Zenborain-ek larruzko lau txotxongilo pintatu zituen zezenetarako. 20 erreal eman zizkioten. Martin Elkano-ri 140, bolborazko manta (zezensuzkoari jartzekoa) prestatzeagatik[8].

Hurrengo urtean ere, 1.724.ean, Isabel Virto-k zerbitu zituen zezenak Iruñera Martin Ziriza kortestarrarekin batera. Isabelek bederatzi bidali zituen eta Martinek beste bederatzi[5]. Zezen bakoitzagatik hogeitabi t'erdi dukat ordaindu zituzten. Auzia izan zuten ganaduzaleek prezio horrekin ados ez zeudelako[8]. Juan Tirant-ek kontraturik gabe lan egin zuen urte hartan eta hurrengoan. Saio bakoitzean 150 erreal eman zizkioten[6]. Agustin Yanguas tuterarrari berriz 50 erreal oinezko lantzakadagatik. Antonio Bermejo alfarotarrak ere lan egin zuen beste bi lagunekin. 300 erreal irabazi zituzten. Francisco Clemente-k 150 erreal jaso zituen eta Alejandro Sirilo Salamancakoak 100. Francisco Yanguas-ek zaldizko lantzakada jo zuen 64 errealetan[8].

Lizarran ere zezenfestak izan ziren 1.724. urtean. Sanandresetako zezenak (abuztuaren lehen igandean korritzen zirenak), San Joan plazan jokatu ziren eta ez San Martinekoan ohitura zenez. Izan ere urte hartan Lizarran Erreinuko Gorteak bildu ziren eta San Martineko plaza txikiegia zen[12].

———— o ———— o ————

1.725.ean, Iruñean sanferminak baino lehen ohizkanpoko korrida eman zuten maiatzaren 19an Maria Ana Victoria Borbon infanta etorri zelako.

Zezenak, Pedro Marta Brun Aragoako Ejea-ko (edo Exea-ko) ganaduzalearenak ziren. Hamabi bidali zituen infantaren omenetan maiatzaren 19an jokatzeko eta beste hamalau geroago sanferminetarako[5]. Bakoitza 21 dukat kostatu zen. Infantak zapia aterata aldatzen ziren zezenketako ekitaldiak maiatzean. Lau zezenetan maskarada izan zen eta beste zortziak kontratataturiko toreatzaileek hil zituzten. Migel Sagardoi eta bere lau lagunek 500 erreal kobratu zituzten. Juan Tirant-ek 150 eta Agustin Yanguas-ek 50 lantzakadagatik. Francisco Yanguas-ek 64 erreal zaldizko lantzakadagatik[8]. Sanferminetan Mateo Arandia gipuzkoar toreatzaileak partxeak ipini zizkien zezeni; bikeztutako oihal-puskak. 32 erreal kobratu zituen[18]. Jose Candao garestarrak bi estafermo (irudi biragarriak) prestatu zituen eta 32 erreal eman zizkioten[8].

Bestetik, Nafarroako erretordeak dekretua argitaratu zuen zezenetarako Gaztelu-plazako balkoien banaketa arautuz. Gorteetako alkateei debekatu egin zien balkoitarako sarrerak inori ematea[36]. Madrileko Gortean, aspaldiko partez uztailaren 31ean zezenak jokatu zituzten. Jeronimo Olaso, Luis de la Peña eta Bernardino de la Canal aritu ziren Plaza Nagusian zaldizko burtziketan. Harez gero, oinezko toreaketa nagusituko zen Madrilen ere eta zaldun aristokraten saioak erabat bazterturik geldituko ziren[41].

Ortega y Gasset filosofoak dioenez, 1.726. urte inguruan hasi zen gaur egun *korrida* hitzez ezagutzen dugun ikuskizuna moldatzen; Euskal Herrian moldatzen hasi ere Ortegaren eritziz. Izan ere lehenbizi koadrila egituratu eta disziplinatuko buru ibili zena Paskual Zarakondegi izan zela bait dio[42].

1.726. urtean dena dela, zezenak Aragoako Ejeatik ekarri zituzten Iruñera. Hango Migel eta Gabriel anaien 12 zezen etorri ziren sanferminetarako[5]. Hogeitabosna dukat balio zuten. Francisco Yanguas-ek oinezko lantzakada jo zuen 40 errealgatik. Zortzi txotxongilo atera ziren zezenetara urte hartan. Hiru pintatzeagatik 12 erreal eman zizkioten Jose Huete-ri. Jose Asutiempo valentziar toreatzailea han zen hiru lagunekin. 200 erreal jaso zituzten. Bost urte geroago Manuel Cortes valentziarrarekin batera zen Iruñean. 150 erreal eman zizkioten orduan bakoitzari. Manuel Fuentes (valentziarra hau ere) 32 errealen truk aritu zen toreatzen Gaztelu-plazan[8].

1.727. urtean ez zuten zezenik ekarri Iruñera, Parma-ko dukea hil zelako[5]. Baina Iruñeko jesuiten ikasleek zezenak eta zezenkoak toreatu zituzten Luis Gonzaga eta Kostka-ko Estanislao-ren kanonizazioa ospatzeko. Diego Rodriguez Cisneros-ek eman zuen festa haien berri bertso batzuetan[3]. Salamancan ere ikasle nafarrek uztailaren zazpian San Luis Gonzaga eta Kostka-ko Estanislao-ren kanonizazioa korrida batez ospatu zuten. Zezenak aurrez aurre eta ezpataz hiltzen zituzten toreatu ondoren, zezentxakur eta beste laguntzarik gabe[7].

Bilbon, otsailaren hamaikan udalgizonak bildu egin ziren albiste on bat jaso ondoren. Andres Orbe Larreategi, Valentziako artzapezpikua eta Ermuako semea, Gaztelako Erret

Kontseiluko buru izendatu zuen erregeak. Bilboko udalgizonek, zorionak ematea eta bere omenez hurrengo egunean zezenak korritzea erabaki zuten. Bizkaiko beste herri askotan ere festak egin ziren arrazoi berberagatik[27].

Baionan urte hartan, Arnaud Bergeret harakinak eskabidea egin zion Udalari zezen-korridak debeka zitzan. Besteak beste, toreatu eta nekatutako zezenaren okela ez omen zen besteena bezain osasungarria harakinak zioenez.

Akize-ko sindikoak ere gauza bera zioen 1.728.ean. Hiriko gaitzak zezen toreatuen okela jateak sortzen omen zituen[1]. Berdintsu segitu zuten ordea zezenfestek iparraldean.

Urte hartantxe, urtarrilaren 30ean, erregeak Madriletik Bizkaiko Diputaziora gutuna bidali zuen bere seme printzea eta alaba Maria Vitoria-ren ezkontzen berri emanez. Ezkontzak Madrilen abenduaren 27an izan ziren. Gernikan, Bizkaiko Batzar Orokorrak apirilaren 6an bildu zirenean ezkontza haiek *Te Deum*, korrida eta suaz ospatzea erabaki zuten[27].

Iruñeko sanferminetarako, Antonio Lekunberriren alargunak (Isabel Virto-k), hamabi zezen bidali zituen 1.728.ean Tuteratik[5]. 27 dukat kostatu zen bakoitza. Agustin Yanguas-en oinezko lantzakada berriz, 40 erreal[8].

1.729. urtean, Aragoako Ejea-ko 12 zezen korritu ziren Gaztelu-plazan. Domingo Solana tuterarraren bitartez ekarri zituzten, bakoitzagatik 25 dukat ordainduta[5]. Jorge Dominguez eta Manuel Cortés kontraturik gabe aritu ziren oinezko lanean. Manuel-i 112 erreal eman zizkioten (handik bi urtera berriz 150)[18]. Jorgeri berriz 64 erreal[8]. Pedro Pindanga ere izan zen 1.729.eko sanferminetan. Honek zaldiz pikatu zituen zezenak. 256 erreal eman zizkioten[22]. Zaldi bat hil zion zezenak[8]. Jose Billaba tuterarrari berriz 40 erreal eman zizkioten oinezko lantzakada jotzeagatik[11]. Francisco Yanguas-ek ere lan berdina egin zuen sari berdinagatik. Manuel Cortés toreatzaileari 112 erreal eman zizkioten eta Pedro Elizondo zahagigileak hiru txotxongilo egin zituen zezenetarako 42 errealetan[8].

Eta Gipuzkoara etorrita, Asteasuko albiste bat emango dugu. Urte hartan, herritarrek udaletxe berria egitea erabaki zuten. *Berueterena* etxean egin ohi zituzten herri-bilerak, baina etxe ura txikiegia zen. Beraz *Etxenagusia*ren baratzan handiagoa egingo zuten, bertan batzar-gela, harategia eta zezenkoentzako torilak egongo zirelarik[43].

1.729.eko urte hartantxe, Manuel Larramendi gipuzkoarrak, *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* izeneko liburua argitaratu zuen. Han, besteak beste erasotzeko zorian zegoen zezen suharrarengandik printzeak printzesa libratu zuela eta, bertso batzuk idatzi zituen euskaraz eta erdaraz; hamalau puntuko bat (sonetoa edo *Amalauduna* bere hitzetan) eta hamar puntuko hiru (*Amardun* Larramendiren arabera)[44].

———— o ———— o ————

1.730. urtean, maiatzaren 19an Soraluzeko herritarrak bilduta, Martin Isasi Isasmendi alkate jaunak proposamena egin zuen. Herriko plazan, torilak zeuden lekuan etxe berria egitea komeni zen. Han, toril berriak, harategi berria, harakinarentzako bizilekua eta balkoi luzea egingo zuten, udalgizonek handik zezenak behar bezala ikus zitzaten. Etxe berria egiten (gero *hiltegi zaharra* izenez ezagutuko zena), urte hartako ekainaren 19an hasi ziren[34].

Urte hartantxe, Iruñeko sanferminetarako hamabi zezen ekarri zituzten Salamancatik[5]. 700 erreal kostatu zen bakoitza[8]. Lanean aritu zirenetako batzuk, hauek ditugu: Jose Gomez Cordero (40 erreal kobratu zituen)[18], Jose Pastor eta Jose Pintanea (50 erreal irabazi zituen)[11]. Frantzisko Yanguas-ek 40 erreal jaso zituen oinezko lantzakadagatik[8]. Antonio Bermejo *Alfaroko ezkerrak* ere, toreatzaile famatu izango zenak, urte hartan Iruñean lan egin zuen bere nafar-toreatzailez osatutako koadrilaren buru zelarik[28]. Cossio-ren arabera, Antonio Bermejo 1.712. urteaz gero 1.755. urterarte aritu zen Iruñean toreatzen[18]. Jose Gomez Cordero toreatzaileak 40 erreal irabazi zituen bere lanagatik 1.730.ean. Salamancatik beste bost zezenko eta idi bat ere ekarri ziren bakoitza 400 erreal ordainduta, Iruñeko gazteek torea zitzaten. Hiltegian hil zituzten gero[8].

1.730.ean gainera, Iruñean beste korrida bat ere antolatu zuten Bideko Ama Birjinaren omenetan. Oinezko eta zaldizko toreatzaileak aritu ziren[45].

Euskal Herritik kanpora, euskal deiturazko ganaduzaleren bat edo beste ari zen korridarako zezenak hazten. Sevillan adibidez, 1.730. urteko azaroaren 6 eta 8an, Felix Ibarburu-ren ganadua plazaratu zuten[46]. Garai hartan Sevillan (eta Madrilen) zezenak goiz eta arratsaldez izaten ziren. Sevillan egun osoan gutxienez 20 zezen jokatzen zituzten. Batzuetan 25 baino gehiago ere bai[18].

1.731. urtean, Bilbora kanpotar asko joan zen zezenak ikustera, baina ez zen zezenik jokatu ibaiak gainezka egin zuelako[47].

Urte hartan, urrian Soraluzen toril-etxe berria (gero Hiltegi Zaharra deitu zitzaiona) bukatua zuten bere balkoi eta guzti. Aurreko plazan zezenak jokatu nahi izan zituztenean ordea, Joakin Larreategi apaiza (*Arregi Garaikoa* etxeko maiorazkoa) kontra atera zitzaien, plazako lurrak bereak zirela esanez. Udalgizonek berriz, laster frogatu zuten lurrak herriari zezenplaza egiteko utzi zitzaizkiola. Beraz, handik aurrera han korritu ziren zezenak soraluzetarren gozagarri[34].

Azpeitian ere, obrak egin zituzten herriko plazako toril-etxean. Zazpi gela itxi zituzten eta bakoitza, zinegotzi baten ardurapean gelditu zen. Zazpi giltzak Udaleko eskribauak gordetzen zituen eta bere garaian udalgizon bakoitzak berea eskuratzen zuen. Urte hartan, Antonio Erkiziaren esku utzi zuten herriko festetarako zezenak ekartzea[23].

Iruñera, Aragoako Ejeatik ekarri zituzten zezenak sanferminetarako. Miguel Salinas ganaduzaleari erosi zizkioten hamalau hogeitabostna dukat ordainduta[8]. Korrida-bezperan, gaua San Roke-ko zelaian igaro zuten zezenek, eta biharamunean egunsentian entzierroa izan zen ohi bezala Gaztelu-plazaraino. Urte hartan, 1.731.ean, bandoa atera zuen Udalak. Dirudienez entzierroan eta zezenetan ezten-hagaz zezenak zirikatzen zituen jendeak premiarik gabe. Bandoan beraz, ezten-haga kendu eta lau dukateko zigorraren mehatxua egiten zitzaion jendeari. Jendeak ezten-hagak, zezena plazan eserlekuetara hurbildutakoan uxatzeko eta izterzainak ebakitzeko dei egiten zutenerako bide zituen[5].

Urte hartan Iruñean toreatzen aritu zirenetako batzuk, ondokoak dira: Jose Napoles (1.735 eta 1.737.ean ere han zen kontraturik gabe)[6], Damian Baizabal (*Ibaizabal* izango zen) eta Juan Francisco Gomez 300 erreal irabazi zituzten hirurek[8]. Jose Estremas ere han zen (64 erreal irabazi zituen)[18]. Francisco Yanguas-i 32 erreal eman zizkioten oinezko lantzakada jotzeagatik. Jose Arregi gipuzkoarrak ere 100 erreal irabazi zituen urte hartan. Manuel Cortes-ek berriz 150. Iruñean bestetik, ohizkanpoko korrida eman zuten abenduaren lauean Jose Armendariz Peru-ko erretorde jaunaren omenez. Sei zezen ekarri zituzten bereziki horretarako Tuteratik hogeitalauna dukat ordainduta. Matias Romerori 50 erreal eman zitzaizkion gainera zezenak erosteagatik[8].

1.732. urtean, Kalagorriko zezenak etorri ziren Iruñera; Sebastian Uharte ganaduzalearen 18 zezen hain zuzen, hogeitalauna dukat ordainduta. Roke Berrio iruindarra joan zen zezen-bila eta bere lanagatik 74 erreal eman zizkioten[8]. Entzierrorako, Udalak bandoa atera zuen beste behin jendeari ezten-hagak erabiltzea debekatuz[37]. Urte hartako korrida, abuztuaren bostean jokatu zen, mairuei Oran-eko hiria kendu ondoren. Pedro Elizondo zahagigileak lau txotxongilo pintatu zituen 16 errealetan zezenetarako, eta Pedro Billaba-ri 24 erreal eman zizkioten oinezko lantzakadagatik[8].

Arabako Errioxa aldean Bastida-n, Toloñoko Ama Birjinaren basilika aurrean festetan (Ama Birjinaren zeruratze eta jaiotza-egunean) zezenkoak korritzeko plaza egitea erabaki zuten. Hurrengo urtean ere plaza egitea gomendatzen zutenez gero, ez dakigu azkenean egin zuten ala ez. Dena den jendeak dioenez, basilikaren aurrean betizuak jokatzen ziren, batek epailea hil zuen arte. Gainera, Urizaharreko ganadua koldarragoa omen zen Montoria-koa baino[35].

Hernani-n, San Joan eguneko festetarako barrerak plazan ipini eta kentzeko kontratua egin zuten udaletxean[48].

Zestoan, Gipuzkoan bertan, urte hartan zezenak izan ziren herriko festetan ohi bezala. Inazio Gezalaga-k zezen bat ekarri zuen 312 errealen truk. Frantzisko Agirre-k, zezenkoa ekarri zuen 218 erreal ordiandu zizkiotenean. Toreatzaile bakoitzak, 30 erreal jaso zituen[32].

Donostian bestetik, zezenfesta asko izan zen 1.732.ean zehar Oran-eko konkista ospatzearren. Hiriko gremio guztiek parte hartu zuten. Uztailaren 23an hasi ziren festak eta 26an, zurginen egunean, sokamuturra izan zen. Abuztuaren 10ean, zilarginen egunean, lau zezenko eta idi bat korritu zituzten plazan. Abuztuaren 16an nekazarien eguna ospatu zuten. Arratsaldean sokari lotuta idi batzuk erabili zituzten kalez kale. Abuztuaren 24ean ere izan zen sokamuturra jostunen egunean. Irailaren 10ean ere zezen-korrida antolatu zuten[49].

Azpeitian, plaza festetarako 100 pesotan akuratzeko edo errentan emateko erabakia hartu ondoren Antonio Korta-ri jakin erazi zioten, plaza bere etxe aurrean behar bezala ixten utz zezan. Tomas Inazio Kortak, Tuteran sei zezen erosi zituen. Toreatzaileak ere kontratatu zituen Nafarroan. Guztira 4.068 erreal gastatu behar izan zuen. Diego Altzaga alkateak, bi zezen eman zizkion erregalo herriari. Horregatik, abuztuaren bateko ohizko korridaz gain biharamunean beste bat ematea erabaki zuten[23].

Udalak, plaza ixterakoan konponduezinak izan zituen ordea Antonio Korta-rekin; Dorrea izeneko etxearen eta atariaren jabearekin. Horregatik 1.733.ean auzia konpondu nahian, udalgizonek etxearen eta atariaren jabetzari buruz azterketa egin zuten. Horren ondorioz, azkenean Korta jaunak, amore eman zuen. Zezenak, Nafarroatik ekarri zituzten Azpeitira. Igarate baserriko Pedro Etxeberria maizterrak zaindu zituen festa-egunerarte[23].

Zestoan ere istiluak izan zituzten 1.733. urtean. Herriko plazara hondarra ekarri ohi zuten ibaitik korridarako, plaza harriztatuan bestela zezenak gaizki ibiltzen zirelako. Urte hartan ordea Teresa Berdugo-k, Lili-ko andereak, bere goardak bidali zituen itzaiengana ibaiko hondarra gurdietara jasotzen ari zirenean. Antonio Zabalia eta Asentsio Madariaga goardek ordea, galerazterik ez zuten izan. Izan ere Jose Zuloaga herriko alkate jaunak preso hartu eta gartzelara sartu zituen zepotan loturik[50]. Auzia Valladolid-eraino iritsi zen, baina zestoarrek Urola ibai-ertzetik, (*Uzabala* izeneko lurretik) hondarra plazara ekarriz segitu zuten zezenetarako handik aurrera ere[51]. 1.733.ean gainera, 24 erreal gastatu zituzten ezten-hagak erosten[32].

Garai hartan herriko festetan zezenekin batera dantzak ere izaten ziren. Larramendik dioenez, Alagai-dantza (Bordon-dantza), Tolosa, Hernani, Urnieta eta beste zenbait herritan goizean zezenak baino lehen dantzatzeko ohitura zuten. 1.733.ean, dantzarien buru Migel Zuaznabar zen. Zezen-egunean dantzatu zuten orduan ere[52].

Iruñean, jesuitetako ikasleek, ekainaren 2an korrida antolatu zuten San Luis Gonzagaren omenetan[45]. Iruñean 1.733.eko sanferminetarako Ejea-ko Miguel Salinas ganaduzaleari hamalau zezen erosi zizkioten hogeitabostna dukatetan. Francisco Domingo aritu zen beste batzuekin toreatzen 168 errealen truk[8]. Gaztelu-plazan, zurginek barrerak eta eserlekuak ipintzen zituzten korridarako. Zezenak bukatutakoan ordea, berehala hasten ziren kentzen, eta 1.733.ean Udalak bandoa atera zuen korrida amaitu ondoren oholak kentzen has ez zitezen. Jendeari traba egiten bait zioten hain azkar kendutako materialek[53]. Plazan lanean, Antonio Bermejo *Alfaroko ezkerra* aritu zen bere lagunekin. 650 erreal irabazi zituzten, eta beste 64 hildako zezenak plazatik ateratzeagatik. Jorge Benedi-ri 32 erreal eman zizkioten oinezko lantzakadagatik. Gauza bera egin zuen hurrengo bi urteetan ere. Jose Maenza eta bere lau lagunei 406 erreal eman zizkieten[8].

1.734. urtean, Ejea-ko Miguel Salinas-ek bidali zituen hamabi zezen Iruñera sanferminetarako hogeitabostna dukat kobratuta[8]. Juan Calvo kontraturik gabe ihardun zen toreatze-lanetan urte hartan[18]. Berak eta beste bost lagunek 350 erreal jaso zituzten. Antonio Bermejo ere beste bost lagunekin han zen. 600 erreal kobratu zituzten toreatzeagatik, eta beste 50 hildako zezenak ateratzeagatik. Gaztelu-plaza, ureztatu egin zuten. 46 erreal kostatu zen dena; upelak, kanilak eta ureztatze-lana[8].

Azpeitian, inguruko zezenak korritu zituzten barrera berriak egin eta ipini ondoren[23].

———— o ———— o ————

1.735.ean, Arrasatera sanjoanetarako Nafarroako Uxanuri-tik (Arabako Kanpezu ondotik) Jose Martinez Cabrero ganaduzalcari 30 dukat eta 15 errealetan erosita bost zezen ekarri zituzten. Ez ziren hiltzeko zezenak; jokatu ondoren bueltatzekoak baizik[54].

Arabako Bastidan ere izan zituzten zezenak urte hartan. Ekainaren 26an Kalagorri-ko hiru zezen jokatu ziren. Toreatzaileei 255 erreal eman zitzaizkien[55].

Tuteran, azaroan ohizkanpoko zezenak izan zituzten bertako eliza Erret Patronatuko izendatu zutelako. Azaroaren 21eko korridarako, gurasorik suharrenak zituzten zezenak aukeratu zituzten. Kasta hobetzeko hautespena jadanik egiten ari ziren beraz Erriberako ganaduzaleak.

Hurrengo egunean, zezenkoak plazaratu zituzten eta azaroaren 23an berriro ere zezenak jokatu ziren Tuteran[3].

Iruñean, Ejea-ko Miguel Salinas-en hamalau zezen erostea erabaki zuten. Aurreko urtean ere ganaduzale berari erosi zizkiotenez gero, onak atera zirela pentsa liteke[5]. Hogeitabost dukat kostatu zen buru bakoitza. Antonio Bermejok beste zazpi lagun toreatzailerekin lan egin zuen. 800 erreal irabazi zituzten denek. Jose Vicente eta bere lagun batek atera zituzten plazatik hildako zezenak 50 errealetan[8].

1.736. urtean, Gaztelu-plaza urtero bezalaxe itxi zuten barrerak eta eserlekuak ipinita. Baina urte hartan oholtzak ondo aztertu zituzten aurreko urtetan segurtasun-faltagatik istripu batzuk izan

zirelako[53]. Plazaratutako zezenak, Antonio Lekunberri tuterarrari (Isabel Virto Luna eta Antonio Lekunberriren semeari) erositakoak ziren. Hamabost erosi bait zizkioten aurrez hogeitaseina dukatetan[8]. Antonio Domingo taldeburu zela toreatzaileek beren lana bete zuten[18]. 536 erreal jaso zituzten. Jose Berdun–ek 32 errealgatik jo zuen oinezko lantzakada. Hiru mandakok atera zituzten hildako zezenak plazatik. Korrida hasi baino lehen, mandakoak plazan buelta ematen zuten[8].

Gipuzkoako Soraluzen, bi zezen sokamuturrean erabiltzeko erabakia hartu zen udaletxean apirilaren 8an, Frantzisko Antonio Orbe Larreategi–ren etxeari Felipe V.ak Gaztelako titulua eman ziolako; Orbe jaunaren amaren aldekoak, soraluzetarrak bait ziren[34].

Hurrengo urtean, 1.737.ean, Lekeition sanpedrotan *kaxarranka* eta beste dantza batzuekin batera idiak eta zezenkoak jokatu zituzten ohi bezala[56].

Bermeon berriz, herriaren mendebaldeko plazan, Erriberako lurretan (gero frantziskotarren komentuko baratza izango zenean), Paskual Zarakondegi eta bere menpeko nafar–toreatzaileen taldeak parte hartu omen zuen zezenetan (1.737.etik 1.742. urte ingururarte etorri omen ziren toreatzera Bermeora)[57].



8.4. irudia. 1.737. urtea. Bilboko zezenplaza edo azoka–plaza.

Azpeitian berriz, maiatzaren 17an plazan inguruko zezenik onenak korritu zituzten, Gipuzkoako probintziak elizgizonekin saninaziotako barauaz zuen auzia konpondu zelako[23].

Iruñean sanferminetarako, Joseph Gely ejeatarraren hamazortzi zezen etorri ziren, baina hamabi ordaindu zituzten (hogeitalauna dukat), batzuk nahi bezain suhar ateratzen ez baziren ere[8]. Gaztelu–plazan urte hartan, oholez eraikitzen zituzten eserlekuez gain 156 balkoi eta 64 arkupe zeuden ikusleentzat[53]. Jose Hernandez–ek, hurrengo urtean bezalaxe, 32 errealgatik eman zuen oinezko lantzakada zezenetan. Manuel de la Fuente beste bederatzi lagunekin aritu zen toreatzen. 564 erreal irabazi zituzten[8].

1.738. urtean, Iruñerako Isabel Virto tuterarraren (Lekunberriren alargunaren) hamalau zezen ekarri zituzten[5]. Hogeitaseina dukat kostatu ziren, eta aurrez udalgizonek sei urteko zezenak nahi zituztela gaztigatu zioten Isabel Virto-ri. Ganaduzaleak ordea, zera zioen: bere zezenak Bilbon korritu zirela eta indartsuak eta suharrak zirela[8].

Gaztelu-plazako toril-etxeko balkoitik, korrida geldi erazi egiten zuen lehendakariak askarirako. Orduan agintariek otartekoak botatzen zizkioten jendeari. Gehiegikeriak alde batera baztertzearren, 52 otarteko bakarrik banatzea erabakia zegoen, eta 1.738.eko uztailaren hamabian, otartekoaren kostua ere finkatu zuten. Libra bat zekor-haragi, erreal t'erdi ordainduko zen otarteko bakoitzerako, eta hiru taia t'erdi ogia eta prestakuntzagatik[53].

Urte hartako iraialean bestetik, Noeburg-eko Mariana (Espainiako Karlos II.aren emazte alarguna) Iruñera etorri zen. Hirian agintariekin zebilela, ume-talde batek zezenfesta antola zezatela eskatu zion erreginari. Mariana andereak baiezkoa eman bazain laster, udalgizonek Antonio Bermejori (*Alfaroko ezkerra*ri) deia bidali zioten beste zazpi toreatzailerekin urriaren birako etor zedin. Bernardo Alcalde-ri, *Faltzeseko Ikasle*ari ere lagunen batek galdetu zion Iruñera etortzeko asmorik zuen ala ez.

Dena den, 1.738.eko urriaren bian dirudienez Tuterako Lekunberriren alargunaren (Isabel Virto-ren) hamar zezen atera ziren toriletik Gaztelu-plazara. Bakoitza 24 dukat edo 2.640 erreal kostatu zen. Aurrez Eskirotz-en egonak ziren, eta urriaren bian, egunsentian, plazaraino eramanak zituzten.

Antonio Bermejo eta bere taldeak, 1.056 erreal kobratu zituen guztira. Hiriak aurrez egin zizkien jantziak (tafetanezko jipoi urdiank, gona motz gorriak eta galtzerdi gorriak), toreatzaileei eman zizkieten.

Alfarotarrak bere taldearekin gutxienez bi zezen toreatu eta hil ondoren, bi ikasle sartu ziren plazara atzetik bi dantzari-talde zituztela. Talde bat komikoa eta bestea serioa zen[53]. Zezentxakurrak bota zizkioten zezen bati[8]. Dantzarien saioa bukatu zenean, bi ikasleak bakarrik gelditu ziren plazan. Bata Bernardo Alcalde faltzestarra zen eta bestea, Babil Locen iruindarra dirudienez. Banderilak oso egoki ipini zituzten eta toreatu ondoren ezpataz lau zezen hil ere bai, jendearen gustora. *Faltzeseko Ikasleak* bere ikasketak bukatu zituen nonbait, eta harez gero *Faltzeseko Lizentziatua* deitzen zioten Bernardo Alcalde-ri. Iruñean, gutxienez 1.738, 1740 eta 1.744. urteetan toreatu zuen. Goiak kapa jantzirik zuela marraztu zuen zezen aurrean bere *Tauromakia* saileko grabatu batean. Hondarrean berak markatutako zirkulu txiki batetik irten gabe errenditzen zuen zezena, soineko kapa askatu ere egin gabe. Zezena oldartzen zitzaionean, eskuineko hanka zezenaren buru gainean ipinita salto egiten zuen bere gainetik. Lurrean etzanda zegoela, bikeztutako partxeak ipintzen zizkion begietan zezenari. Kapa eskuan zuela lantze zail eta dotoreak burutzen zituen bere Herriko zezenketaren arabera (euskal zezenketaren arabera alegia). Korrika eginda zezen gainetik salto egiten ere oso iaioa omen zen faltzestarra. Bere garaiko Sebastian Ponce de Leon Haro-ko toreatzailea baino hobea omen zen, nahiz eta errioxarrak banderilak eta ezpata erabiltzen trebetasun handiagoa izan.

Gomarusa (1.793) eta Tixera-k (1.801) beren historietan hori diote Bernardo Alcaldez. Haiek ez zuten toreatzaile nafarra ikusi. Ezta Goiak ere, gazteagoa zenez gero. Besteri entzundakoaren arabera marraztu zuen faltzestarra plazan[29].

Babil Locen iruindarra ere famatua zen garai hartan. Gero, apaiz egin omen zen Babil

toreatzailea, eta behin zezenak ikusten ari zela toreatzaile bat zezenak harrapatu eta plazara atera omen zen laguntzera. Berehala menperatu omen zuen zezena apaizak. Gero apezpikuak, errietan eman zion apaiz toreatzaileari. Babil-ek ordea, arriskutan zebilen lagunaren arima laguntza--beharrean zegoelako hondarrera joan zela zioen[4].

Agintariak zezenetara, goleta-trajez joan ohi ziren. Hori zen usarioa eta horrela zegoen agindua. Jaka beltza, galtza motzak, zetazko galtzerdi beltzak, zilarrezko belarridun zapatak, buelodun kapa (bere lepoko altxatu eta esklabinarekin), ezpatatxoa, kapela zabala (edergarri bi luma zituela) eta leporako goleta zituen traje hark. Traje astuna eta garestia zen inola ere; gaur egun zezen-korridatan alguaziltxoak duena hain zuzen. Horregatik 1.738.ean, Donostiako Frantzisko Agirre alkatea traje hura erabiltzeko obligazioaz ez zegoen ados; osasunez ere gaizki samar bait zebilen. Baimena eskatu zuen beste traje-mota bat erabiltzeko, baina bere asmorik ez zuen lortu nahiz eta istiluak sortu. 1.841.urtean baztertu zuten Donostian goletadun trajea. Hurrengo mendean beraz[58]. Antzeko zerbait gertatu zen Tuteran ere. 1.755.ean 100 liberako isuna ezarri zuten goleta-trajerik gabe zebilen agintariarentzat. Geroztik ordea hamaika tirabira izan zen eta azkenean 1.867.ean baztertu egin zuten erabat traje hura[59].

1.739.ean, Iruñera berriro ere Isabel Virto Luna-k (Lekunberriren alargunak) bidali zituen hamabi zezen sanferminetarako hogeitaseina dukat kobratuta. Jose Perez Eulate-k, kartoizko *zaldiko* bat egin zuen 73 errealetan. Jorje Benedi-k, 32 erreal jaso zituen oinezko lantzakada jotzeagatik[8].

Baina aurrez, Noeburg-eko Mariana (Karlos II.aren alarguna), Guadalajara aldera joana zen Iruñetik. Tuteran, apirilaren 27an zen, eta korrida eskaini zioten Plaza Berrian (Foru-plazan). Hiriari korrida 4.748 erreal kostatu zitzaion. Isabel Virto-ren hamar zezen bostna dukat kostatu ziren (2.750 erreal). Jose Kaparroso eta beste bost toreatzaile aritu ziren oinezko lanetan (800 erreal) Zaldiz berriz, burtziketan eta haga luzez, Mariano (Martin izango da) Bassun eta beste batzuk (640 erreal). Bernardo Ruis-ek toreatzaileentzako ehun-zerrendak, zintak eta zezen hilak ateratzeko mandakoak hornitu zituen (72 erreal). Agustin Perez eta Jose Barrera-k banderilak eta burtziak prestatu zituzten (80 erreal). Alabardari, unai eta beste zenbaiten lanak, beste 406 erreal kostatu ziren[17].

Sevillan, maiatzaren 25 eta 26an, Frantzisko Eskibel-en zezenak jokatu zituzten[46].

Zestoan berriz, herriko festetarako zezenak izatearren, Udalak bere hiru baserri alokatzen zituen: Idoieta (oraingo *Iruitta*), Sorabil eta Ezkurroa. Idoieta baserria bederatzi urterako eman zen errentan (irailaren 24ean) maizterrak elurra eta herriko festetarako (iraileko amabirjinetarako) zezen suhar bat urtero ekartzeko obligazioa zuelarik. Sorabil eta Ezkurroako kontratuetan, maizterrek elurra eta bi zezen suhar ekarri behar zituztela agertzen da; Aizarnako plazan Ama Birjina abuztukoaren egunean jokatzeko bata eta irailеko amabirjinetan Zestoako plazarako bestea[51].

Garai hartan herriko festetan zezenak premiazkoak ziren edonon; edozein jende-motarentzat lehen mailako ikuskizuna bait zen. 1.740. urte inguruan gainera, urte luzez moldatuz joan zen zezen-korridak (gaurko ikuskizunaren antzekoak) gorputz hartu zuen; artelanetik asko zuen emanaldia finkatzen hasi ziren. Ondo eratutako toreatzaile-taldeak, zezena toriletik atera orduko hartu eta gero eta zehatzagoak ziren errito eta lantzeak burutu ondoren hilda uzten zuten abelgorria[52].

Korridaren antolaketa hartan, euskal toreatzailez osatutako koadrilek izandako eragina eta pisua, nabarmena izan zen; nabarmenena esango genuke, geroztik askori harrigarri gerta badakioke

ere.

———— o ———— o ————

Baina gatzoen 1.740.eko Iruñera, bertako sanferminetako berri ematera. Udalgizonek, *Faltzeseko Ikaslea* (Bernardo Alcalde) bidali zuten Erriberara zezenak aukera zitzan. Faltzeskoak, 31 urte zituen orduan, eta Luis Sesma Escudero korellarraren hamasei zezen iruditu zitzaizkion onenak. Hogeitabost dukat kostatu zen bakoitza[8]. Sei urtekoak eta adarluzeak aukeratzeko ohitura zuten orduan. Bernardok bestetik, lan zaila zeukan. Zezen mardul eta indartsuak, adarje handikoak, hartu behar zituen jendeari gusto emateko. Baina gero faltzestarrak berak lan egin behar zuen plazan berak aukeratutako zezen haiekintxe. Dena dela Gaztelu–plazan Bernardo Alcalde, Babil Lozen iruindarra, Martin Bassun Ejea–koa beste zazpi toreatzaile lagunekin eta Felipe Dionisia kontraturik gabeko beste zazpi lagunekin aritu ziren lanean 352 errealen truk. Bernardo Alcalde–ri 200 erreal ordaindu zizkioten zezenen aukeraketa eta gero plazako toreaketa egiteagatik. Martin Bassun ejeatarrak eta bere zazpi lagunek 832 erreal irabazi zituzten[29]. Frantzisko Fernandez tinan sartuta ibili zen zezen aurrean. 80 erreal jaso zituen bere lanagatik[18]. Jorje Benedi–ri 32 erreal eman zizkioten oinez lantzakada jotzeagatik. Joan Perez–i berriz 24 erreal lan berdinagatik[8].

8.5. irudia. *Faltzeseko Ikaslea* aurpegia estalita toreaketan. Goiaren grabatua.

Bordeleko zezenfestek ere, arrakasta handia zuten, eta horren ondorioz, Mousnier izeneko zezenzale batek katedraleko auzoan zezenplaza biribila egiteko baimena eskatu zion Saint–Seurin–eko Batzarrari[1].

1.741. urteko sanferminetarako, Pedro Ximenez Tejada Eslaba funestarraren hamalau zezen ekarri zituzten[5]. Hogeitasei dukat kostatu zen zezen bakoitza[8]. Manuel Sabroso eta bere taldeak toreatu zuen ganadu hura Gaztelu–plazan kontraturik gabe. 230 erreal jaso zituen taldeak[11]. Joan Perez–ek oinezko lantzakada jo zuen eta 24 erreal eman zizkioten horregatik. Jose Labaien eta Arturo Alduai–ri 46 erreal Gaztelu–plaza ureztatzeagatik[8].

Oiartzunen, Elizaldekoek zezenak izan ohi zituzten urtero festetan, baina urte hartan Altzibar auzokoek ere zezenfesta antolatu zuten[60]. Bilbon, larri zebiltzan ingelesen armada itsasoraturik zebilelako eta gerra gainean zelako. Bilboko portua itxirik zegoen. Burdinarik ez zen ateratzen, baina hala eta guztiz ere maiatzean zezenak izan ziren. 1.742. urteko maiatzean ere bai, eta abuztuan sokamuturra gainera herriko kaleetan[45].

Tolosan, sanjoanetako zezenak baino lehen *pordondantza* egiten zuten. Dantzari-taldean, batzuk *banderiladunak* ziren eta besteak *pordondunak*. Pordoi eta banderilak urte hartan, alkateak ordaindu zizkien dantzariei[52].

Baionan, korridak ospatu ohi ziren. Baina baimena ematea Udalaren esku zegoen, eta 1.742.ean Bergeret-en (arestian aipatutako harakinaren) semeak eskatu zuenean, ukatu egin zioten[1].

Iruñean, erretordeak Gaztelu-plazako balkoien banaketa egin zuen eta erreinukoak gorde egin zituen inori eman gabe[36]. Urte hartan Iruñean korritutako zezenak, Pedro Ximenez Tejada Funes-ekoarenak izan ziren, aurreko urtean bezalaxe. Hamasei erosi zituzten 1.742.ean hogeitabostna dukat ordainduta. Domingo Burrunbe toreatzaileak oinezko lantzakada eman zuen, 16 erreal saritzat hartuta. Baita hurrengo bi urteetan ere hogeitamabina erreal kobratuta. Azkenekoan zauriturik gertatu zen eta horregatik 8 erreal gehiago eman zizkioten[8].

1.743. urteko sanferminetarako, Luis Sesma Eskudero korellarraren hamalau zezen etorri ziren Iruñera. Hogeitabost dukat kostatu zen bakoitza[8]. Manuel Gomez eta kontraturik gabeko toreatzaile-talde batek lan egin zuen. Guztien artean 632 erreal irabazi zituzten[18]. Domingo Barrunbe-k 32 erreal oinezko lantzakada jotzeagatik[8]. Tuteran, Erreinuko Festa Orokorrak medio, zezen-korrida izan zen Foru-plazan[59].

Urte hartan, Toloño-ko basilikak Errioxako Herramelluri-n zuen Antiguako Ama Birjinaren ermita aurrean zezenkoak korritu zituzten. Apezpikuak debekatua zuen zezenak han jokatzea, baina jokatu egin ziren eta baita kalteak egin ere ermitako teilatuan, zezenak ikustera batzuk hara igo zirelako. Bastida-ko herriak 193 erreal ordaindu zituen konponketak egiteagatik eta beste 93 erreal erreteilatzeagatik[35].

Eibarren berriz, zezenetarako barrerak konpontzea erabaki zuten sanjoanetarako. Zein toreatzaile ekarri ere bai, bide batez[61].

Azpeitian, 1.743.eko maiatzaren lauean Probintziako Batzar Orokorrak ospatu ziren. Han ziren Joan Bautsita Egaña eta Jose Antonio Irure jaunak Debako herriaren ordezkari. Debar haiek ziotenez, herriko marinelak antzina udaberrian balearen arrantzara joaten ziren itsasora, eta udazkenean itzultzen zirenean, urriaren 23an Santa Engrazi egunez, Itziarreko elizaren zimitorio edo atarian zezenkoak korritzen zituzten. Ordurako balea harrapatzera joateari utzi zioten, baina urrian marinel-korridak segitzen zuen Itziarren. Dena den korrida horretan istilu, pekatu, burruka eta zauritu ugari izaten zelako, Debako ordezkariek egoki erizten zioten Probintziako Batzar Orokorrek korrida hura debekatzeari. Batzar Orokorrek Debako agintariei Itziarreko festa hura debekatzea agindu zien 100 dukateko zigorraz mehatxatuz.

Madrilen, uztailaren 22an, FelipeV.aren eraginpean Alcala-ko portalaren ondoko zurezko zezenplaza inauguratu zuten. Hango zezenfestetako diruaz, Gorteko ministrariak ordaindu nahi zituen erregeak. Plaza hartan lehen aldiz emandako zezenetan, burtziketa, zezentxakurren saioa, banderilak ipintzea (suzkoak eta hotzak) eta azkenean oinezko lantzakada ikusi ahal izan zen[46].

Oinezko toreatzaileak han zirenez gero, ez litzateke harrigarria euskaldunak ere bertan lanean izatea.

Hurrengo urtean, 1.744.ean, Pedro Ximenez Tejada funestarrari hamalau zezen erosi zizkioten iruindarrek sanferminetarako. Bakoitzagatik 25 dukat ordaindu zituzten[8]. Aurrez duda-mudatan ibiliak ziren zezenfesta antolatu ala ez. Urte hartan izurriteak eta uzta txarrak jasan behar izan zituztenez gero, batzuek ez zuten festarako humorerik. Gehiengoak bai ordea, eta baiezkoa atera zen[62]. *Faltzeseko Ikasleak* afizionatu gisa toreatu zuen Gaztelu-plazan. 240 erreal irabazi zituen orduan[29]. Emeterio Diez toreatzaileak berriz, 32 erreal bakarik[18]. Gregorio Montel ere han ibili zen toreatzen beste lagun batzuekin. 470 erreal jaso zituen taldeak. Jorje Benedi tinan sartuta ibili zen zezenetan 50 errealen truk. Hildako zezenak plazatik ateratzeagatik ere horixe ordaindu zuten urte hartan eta hurrengoetan. Domingo Barrunbe-k lantzakada jo zuen aurreko urtean bezalaxe. Zauriturik gertatu zen. 32 erreal eman zizkioten lanagatik, eta beste 8 zauriturik zegoelako[8].

1.744.ean Frantzisko Xabier Gendulain tuterarrak Antonio Lekunberriri ganadutegia erosi ziola dio Bizente Perez Laborda zezenzaleak. Baita hurrengo urtean Madrilera hogei zezen saldu zituela eta beste hamabi Tuterako korridarako gorderik zeuzkala ere[39]. Gure ustetan ordea, Gendulain-ek geroago erosi zion ganadutegia Lekunberriri. Izan ere Antonio Lekunberri tuterarrak 1.765. urterarte zerbitu zituen zezenak Iruñera[5].

1.744. urtean dena dela, Balmasedako Pandozales-en zezenak izan zituzten[63].

———— o ———— o ————

Hurrengo urtean ere, 1.745.ean, leku askotan izan ziren zezenak. Arrasaten adibidez, sanjoanetan Pedro Cascarrillo toreatzaileak bere lagunekin lan egin zuen. Zezenak Kalagorritik ekarri eta 52 ezkutu kostatu omen ziren[54]. Agian Pedro Lakarra *Cascarilla* izango zen toreatzailea; 1.752. urteaz gero Iruñean toreatzen zuena[8].

Zumaian ere zezenkoak jokatzen zituzten festetan. Batzuetan urtean bi korrida antolatzen ziren, eta urte hartako abenduaren 27ko udaletxeko bileran, korrida bakarra ematea erabaki zuten[26].

Soraluze-n, Udalak diru gutxi zuen Ama Birjina abuztukoaren festetan zezen-korrida antolatzeko. Horregatik, otsaileko 24eko bileran, haragi eta ardo-hornitzaileei sei nafar-zezen suhar eta on ekartzeko baldintza ipini zieten: ardo gorria saltzen zuten bi tabernariek bina zezen, Nafarroako ardoa saltzen zuenari bat eta haragia saltzen zuenari bat. Harakinaren zezen hau behintzat, plazan hiltzekoa zen, agirian esaten denez[34].

Gasteizen, harresietatik kanpo muntatutako plaza batean jokatzen zituzten zezenak. San Migel-eko elizaren ondoan alondegia zegoen eta bertan ipini zuten lehendakaritza-palkua. Plaza zortzi aldekoa zen; oktogono-formakoa.

Lehenbizi, Alguazil eta Mendizain Nagusiak lehendakariari baimena eskatzen zion korridari hasiera emateko. Zapia aterata erantzuten zion lehendakariak. Orduan, Alguazilak bere bi ordezko eta beste laguntzaileekin plazan zegoen jendea atera egiten zuen hondarretik eserlekuetara. Guzti hori egin ondoren, 1.745. urtean *Faltzeseko Ikasleak* toreatu zuen Gasteizen. Gasteiztarrei asko gustatu zitzaien Bernardo Alcalderen lana. Oso txalotua izan zen[64].

Akitaniako Akize-n, zailtasun handiagoak zeuden zezen-korridak ospatzeko. Gaspar Henri Caze de la Bove intendenteak urte hartantxe debekatu bait zituen zezenak. Baina debekuak debeku,

Nogaro–n (Aire ondoan) antolatu zituzten, eta dirudienez zezenak indar hartu zuten orduan Armagnac lurraldeko Plaisance, Riscle, Eauze, Aignan eta Cazaubon–en[1].

Tuteran, ez zegoen zezenetarako debekurik, baina muga bat edo beste bai. Santanatako festetarako gaitariak eta dultzainariak ekartzen zituzten Nafarroako mendialdetik (iparraldetik). Nafarroako Erret Kontseiluak, musikari haiek ordaintzen zortzi peso baino gehiago gastatzea debekatu egin zien 1.745.ean[59].

Iruñean, Pedro Ximenez Tejada funestarrari 14 zezen erosi zizkioten sanferminetarako bakoitzagatik 25 dukat ordainduta. Juan Romero andalusa (Pedro famatuaren aita) beste toreatzaile batzuekin lanean aritu zen. 184 erreal jaso zituzten. Frantzisko Baigorri oinez eta zaldiz toreatzen aritu zen Gaztelu–plazan. Beste zortzi lagunekin lan egin zuen. Guztiei 800 erreal eman zizkieten. Hiru urte geroago ere, Baigorrik oinez eta zaldiz (bi zezen) toreatu zuen Iruñean. Zaldiz banderilak eta burtzitxoak sartu zituen. Guztira 250 erreal eman zizkioten[8].

1.746.eko sanferminetarako, Ana Maria Bikuña tuterarraren hamasei zezen etorri ziren Iruñera. Hogeitabost dukat kostatu zen zezen bakoitza. Jose Kaparroso eta toreatzaile–koadrilak lan egin zuen 358 errealen truk.(Baita hurrengo urtean ere 324 erreal irabazi zituztelarik)[8]. Matias Serrano nafarra zen toreatzaileetako bat. Alesbes–en 1721.ean jaioa zen eta 1746.etik 1776.erarte toreatu zuen Gaztelu–plazan. Kobratzen zuen saria ikusita, toreatzaile ona zela esan daiteke[11]. Bere garaiko onena Del Campo–ren eritziz. Urte hartan beste zazpi lagun toreatzailerekin batera aritu zen eta guztiei 800 erreal eman zizkieten[8].

Tuterako Foru–plazan korrida bat eman zuten Fernando VI.a errege berriaren zina ospatzekotan[59]. Hueska–n ere festak izan ziren arrazoi berberagatik azaroaren 20, 21 eta 22an. Zezen bolaztatuak, dantzak eta korrida antolatu zituzten. Tarazona–n berriz, zezenak, maskaradak, nafar–erako dantzak etab. izan ziren. Sos–en ardo–iturria, suak eta bi zezen–korrida abenduko 6, 7 eta 8an[45].

Urte berean Bizkaiko Balmaseda ondoko Pandozales–en plaza zabaldu zuten, han San Roke egunean saldutako 76 pegar ardo gorriren irabaziekin[63].

Donostian, abuztuko 17 eta 18rako iragarri zituzten korridak. Hirian ez zegoen turutaririk ordea. Ezta Gasteizen ere. Horregatik Bilboko Udalari eskatu zitzaizkion turutariak. Bilbotarrek baiezkoa eman zuten eta abuztuko zezenetan haien turuta–hotsa entzun zen Donostian[27].

Mutrikun berriz, aita Sebastian Mendiburu oiartzuarraren sermoi ozen eta suharrak entzun ziren dantza eta zezenen kontra. Misiolari honen eraginez, udaletxean bilera egin zuten agintariek zezenak herrian debekatzeko asmoz, abuztuaren 1ean. Aurrez bere predikuetan esana zuen Mendiburu jesuitak zezenak medio arimen hondamena, gazterian batez ere, askotan gertatu zela herri hartan eta ingurutan. Udalgizonek (Joan Mendizabal eta Frantzisko Etxea–k ezik), zezenak debekatzea erabaki zuten, baldin eta gertakizun bereziren bat (printzeen jaoitza edo) ospatzeko ez bazen. Dena den, gertakizun berezia handik bi hilabete t´erdira etorri zen, errege berria (Fernando VI.a) koroatu zutenean[65].

1747.ean Ordizian ere Mendiburuk bere hitzaldien eraginez udalgizonak biltzea lortu zuen. Udaletxean erabaki zutenez, danbolina hiru abemarietarako isildu egingo zen. Ezkontzatan ez zen danbolinik joko, eta dantzak herriko plazan izango ziren; ez udaletxeko arkupetan. Dantza bat bukatu eta bestea hasi bitartean, gizonezkoak alde batean eta emakumezkoak bestean bilduko ziren. Ezkongaiek ez zuten zapirik gabe dantzan egingo. *Tapatan, alboka* eta *untzurruntzaketan* izeneko

dantzen doinuruk ez zen joko. Neskek, bakarrik joan beharko zuten etxera otoitzetarako[66].

Mendibururen eragin integrista , Iruñera ere iritsiko zen. Han San Zemin elizan bertako euskaldun jendeari garizumako igandetan bere erretolikak botatzen bait zizkion Oiartzuneko hizlari bikainak[67].

Baina Iruñean ez zeuden zezenik gabe gelditzeko. Han urtero izaten ziren zezenak, eta 1747.ean ere bai; Pedro Aviñano Marta Aragoako Ejea–koaren hamasei hain zuzen. Bakoitzaren prezioa 25 dukatekoa izan zen. Baina zezen batek ihes egin zuen eta zaldia eta behorra hil; Joan Bautista Goldaraz errotariari bata eta Joan Orikain lizarragatarrari bestea. 100 erreal kostatu zen kalteak ordaintzea[8].

Bilboko zezenetan, urte hartan batzuk kexu ziren zezen onak bai eta itxurazko toreatzailerik ez zegoelako[47].

Gipuzkoako Asteasun, sanpedrotan eta Gorpuzti egunean izan ohi ziren zezenak. 1747. urteko Udalaren inbentarioan, korridetarako barrerak eta oholak agertzen dira.

1748. urtean, aita Sebastian Mendiburu Billabona eta Amasa–n zebilela, Asteasura eskabidea bidali zuen zezenak debeka zitzaten. Udalgizonek zezenak ezezik sasi–koipatsu edo ostegun gizen eguneko danbolina ere debekatu zuten. Iraupen handirik gabeak izango ziren ordea debeku haiek, eta laster itzuli ziren asteasuarrak beren zezen eta danbolinetara[68].

Eibarren, San Joan biharamunean eta hurrengo egunean zezenak jokatzeko ohitura zegoen. Udalgizon bakoitzak zezen bat ekartzeko obligazioa zuen, eta herriko ardo–hornitzaileek beste bi ekartzekoa, horrela sei zezen osatzen zirelarik. San Antonio egunez ere zezenkoak jokatzen ziren, baina 1748. urtean Gorpuzti egunez tokatzen zelako, zezenkoak Hirutasun guztiz santuaren egunean arratsaldez korritzea erabaki zuten[61].

Urte hartako ekainaren 15ean, Madrilen korrida eman zen Rafal–eko markes eta korrejidore jaunaren lehendakaritzapean. Zaldiz Melchor Calderón, Juan Fuminaya eta Manuel Daza toreatzaileek lan egin zuten, eta oinez nafar eta andalusiar toreatzaile–koadrilek. Nafarrek, kapaz lantze bereziak burutu zituzten, bai kapa adarren aurrean ipiniz eta baita besoak bizkar aldean zituztela kapari eutsita ere. Abuztuaren zortzirako gainera, beste korrida bat iragarria zegoen. Han Nafarroako, Andalusiako eta Gaztelako toreatzaileak parte hartzekoak ziren[69]. Garai hartan toreatzaile nafartzat hartzen ziren Ebro ibai inguruko beste probintzietakoak eta Euskal Herrikoak.

Iruñean, 1748. urtean larri zebiltzan. Udalak dirurik ez zuelako sanferminetan zezenik ez korritzea erabaki zuten. Bandoen bidez, horretarako hamaika mila eta bostehun erreal beharko zirela adierazten zen. Udalak, Nafarroako Erreinuko Kontseiluari dirua maileguz eskatu zion. Kontseiluak baiezkoa eman zien, sei urtetan bueltatzekotan eta korridetako gastuak zehatz–mehatz aurkeztekotan. Azken baldintza hori udalgizonei ez zitzaien ongi iruditu, baina hirian gorabeherak eta istiluak izan ondoren, Ana Maria Bikuña tuterarrari hamalau zezen eskatu zizkioten. Hogeitabostna dukatetan erosi ziren zezenak; guztira 3.800 erreal, eta uztailaren seian Eskirotz–en zeuden festetarako prest.

Hurrengo urtean, 1749.ean, maiatzaren hasieran korrida antolatzeko baimena eskatu zioten elizgizonek Udalari apirilaren 2an. Elizkizunez gain, dantzak eta korrida (hiltzeko bi zezen eta zezenkoak) eman nahi zituzten Bideko Ama Birjinaren kaperarako dirua biltzearren.

Sanferminetarako, Alesbes-eko Jose Francisco Arevalo-ren hamalau zezen ekarri zituzten hogeitabostna dukat ordainduta; 3.850 erreal guztira. Santiago Casalen toreatzailea, sokatik zintzilik aritu zen zezenari banderilak sartzen. 24 erreal eman zizkioten bere lanagatik. Prudencio Garcia logronioarra beste zazpi lagunekin batera aritu zen toreatzen. 840 erreal irabazi zituzten guztira. Santiago Piñano eta bere lagunek berriz 216 erreal. Francisco Rendon-ek ere toreatu zuen uztailaren bederatzian eta hamabostean. 100 erreal eman zizkioten eta baita beste 400 ere zaldiz burtziak sartzen ibiltzeagatik[8].

Uztailaren 5ean, sokamuturra izan zen Iruñean, eta espartzua zekarren Joan Larreina (Larraina izango zen seguru asko) sesmarrari, zamaria hil zion zezenkoak adarkadaz. Udalgizonek indemnizazioa ematea erabaki zuten uztaileko 13an.

Egun haietantxe, Iruñeko udalgizonen eta erretordearen artean tirabirak zeuden. Erretordea kexu zen urte hartan, aurrekoetan ez bezala soldaduei zezenak ikusteko lekua ukatu zitzaielako. Udalgizonek ziotenez, 1724. urteaz gero uzten zitzaion tropari lekua, beraiek San Ferminen prozesioko artileri salbatarako bolbora ematen zutelako. Baina urte hartan salbak debekatu zirenez gero, ez zegoen soldaduentzako lekua gorde beharrik[5].

Madrilen 1749.ean, Alcalá-ko portalearen ondoan Fernando VI.aren aginduz 12.000 ikuslerentzako zezenplaza egiten hasi ziren. Bertako Ospitale Nagusien esku utzi zuen erregeak plaza hura[39]. Plaza berri hura, 1743.ean eraikitako zurezkoaren leku berean zegoen. Hango zezenetatik ateratako dirua, Ospitaletara joango zen[19]. Jose Leguregi iruindarra han omen zen lanean[29]. Harez gero euskal toreatzaile askok parte hartuko zuen plaza hartan, hemengo zezenketaren edertasunak erakutsiz.

Gipuzkoako Segura-n, uztailean festa handiak zituzten elizako erretaula berria estreinatu zutelako[70]. Idiazabal eta Lazkaoko txistulariak, herritarrentzat ardoa doan eta zezenak izan ziren. Abuztuaren 1ean, Nafarroako Urantzia-ko Anbrosio Estabillo toreatzaileak tratua egin zuen Udalarekin. Hilaren 17an Seguran izango zen beste hiru toreatzaile onekin. Zaldien gastuak Udalak ordainduko zituen eta toreatzaile bakoitzari 15 erreal emango zizkioten, korrida ospatutako biharamunean[71].

Urte hartan, Baionan ere zezenak antolatu zituzten. Hondarribiako Udalari eskabidea egin zioten Ezpeleta toreatzaile errenteriar famatua bidal zezaten. Hondarribiarrek beste toreatzaile bat bidali zuten Baionara Ezpeleta bidaltzea ezinezkoa gertatu zitzaielako[72].

Urte hartan, Frantzia eta Espainiak Britainia Haundia eta Hungariarekin zuten gerra amaitu egin zen. Bilbon portuko salerosketek gorakada nabarmena izan zuten orduan, Europarako merkataritza berriro ere oztoporik gabe zegoelako. Bilbotarrek, bakearen berri izan bezain laster, elizan *Te Deuma* kantatu eta kalean sokamuturra korritu zuten. Gorpuztietarako zezenak antolatu zituzten eta antolakuntza zela eta Plazan (Azoka-plazan) zarata handiak atera zituen jendeak.

---------- o ---------- o ----------

1750. urtean, maiatzeko Gorpuzti eguneko zezenetarako *Indiarra* eta Sesma pikatzailea ekarri zituzten Bilbora[47]. *Indiarra*, Raimundo Franco Torres amerikarra izango zen; bi urte geroago Iruñeko sanferminetan toreatu zuena. Pikatzaile izateaz gain, zezena zalditik sokaz lotu eta zezen gainean ibiltzen zekien.

Bilbon izandako Sesma pikatzailearen beste berririk biltzerik ez dugu izan, baina Prudencio Garcia logronioarra bere koadrilarekin ere izan zen Bilbon toreatzen. Bere anaia Txomo ere berekin izango zela pentsa daiteke. Toreatzaile bakoitzari 50 peso eman zizkioten[8].

Urte hartantxe, *Indiarra* izeneko amerikar batek Bilbon toreatu bazuen ere, Joan Aranburu izeneko pikatzaile bat Buenos Aires–en lanean aritu zen[73].

Madrilen, Joan Apiñani kalagorritarrak (Goia–k hagaz zezen gainetik saltatzen ari dela grabatua egin zionak), Madrilen arrakasta lortu zuen urte hartan. Bere anaiak ere (Manuel, Emeterio etab.) agian berekin izango ziren toreatzen[41].

Akitaniako Nogaro–n, idi eta zezentxakurrez egindako korrida batean, pertsona bat hilik suertatu zen 1750.ean[1] edo hurrengoan. Soules baserrikoa zen[74].

Gipuzkoako Arroa–ko festetara (orain Zestoako auzo denera), Iruñeko musikariak ekarri zituzten santanatan. Auzo horretan zezenak jokatzen ziren eta kanta herrikoi batek bertako zezenak eta festak aipatzen ditu[75].

Nafarroako Kaparroso–n, Joakin Zalduendo 1750.ean edo 1750. urte inguruan hasi zen bere ganadutegia nafar–zezenez osatzen[39]. Duela gutxi ere Kaparroso–n izan da Zalduendo izeneko gandutegia 1983. urteaz geroztik.

Iruñerako zezenak medio, 1750. urtean Benavente inguruko La Bañeza–n Pedro Merino–rekin akordio batera iritsi ziren. Domingo Lizarraga joan zen zezenen tratua egitera. Pedo Merino Ribera–ri Juan de Castro Pajares de los Oteros–ekoaren 14 zezen eta 6 joaldun erosi zizkioten. Seiehun erreal kostatu zen zezen bakoitza. Guztira 10.116 erreal kostatu ziren, eta Domingo Lizarragak 250 erreal jaso zituen bere kontratu–lanak egiteagatik.

Sanferminetarako zezenetan, Jose Agreda izan zen toreatzaileetako bat. Menturaz joan zen beste lau lagun toreatzailerekin batera. 146 erreal irabazi zituzten guztira[8]. Manuel Agreda izan zen menturaz joandako beste toreatzaileetako bat[18].

Prudencio Garcia logroniarrari, aurrez dei egin zion Iruñeko Udalak toreatzera etor zedin. Prudencio–k ekainaren 22an eskutitza bidali zuen aurreko urtekoa baino sari hobea eskatuz. Bere anaia Txomo eta koadrilarekin etorri zen urte hartan Garcia logronioarra. Taldean guztira zortzi ziren eta 1.000 erreal irabazi zituzten.

Bernardo Jarreta , zaldiz banderilak sartuz ibili zen Gaztelu–plazan. 120 erreal eman zizkioten zaldizko toreatzaile aragoar hari. Bernardo Jarreta, Zaragozan jaioa zen eta Borja ondoko Pozuelo de Aragon herrian bizi zen.

Juan Ramon izeneko toreatzaileak, plazako tinan sartuz toreatze–lanak egin zituen. Oinezko lantzakada ere ondo jo zuen eta 40 erreal eman zizkioten horregatik.

Txotxongiloak ere atera zituzten zezenetan plazara; zahagigileek egindako bi txotxongilo, hurrengo urteetan bezalaxe. Urte hartatik aurrera bi baino gehiago ateratzea oso gutxitan gertatuko zen Iruñean[8].

1751. urtean, Iruñeko udalgizonek sanferminetan besteak beste bi korrida ematea pentsatu zuten. Arrazoia jendeari dibertsio luzeagoa ematea zen[5]. Horregatik batetik Korellako Luis Sesma

ganaduzalearen hamalau zezen erosi zituzten eta bestetik Pedro Orobio alfarotarraren beste hamabi. Bigarren korridan ordea, Gaztelu-plazako etxeetako balkoi, arkupe, oholtza éta abarretako eserlekuak Udalaren esku geldituko ziren. Udalak kobratuko zituen eserleku haietarako sarrerak. Luis Sesma eta Pedro Orobio-ren zezen bakoitza, hogeitahiru dukat kostatu zen. Guztira 6.578 erreal ordaindu zituzten[8].

Baina bigarren korrida zela eta, istiluak izan ziren Nafarroako erretordearekin; Juan Buenaventura Dumont, Gages-eko kontearekin. Bi urte lehenago konponduezinak izan zituzten zezenetan soldaduei uzten zitzaizkien eserlekuak medio. Dena den, 1751.ean erretordeak ez zuen ontzat eman bere baimenik gabe sanferminetan bigarren korrida antolatzea. Udalaren eta erretordearen arteko auzia gora joan zen, baina azkenean bigarren korrida ere eman zen Iruñean[5].

Urte hartako sanferminetan, labur esanda, ondoko zezenfesta hauek izan ziren:

- Uztailaren seian zezenen entzierroa.
- Uztailaren zazpian lau zezen korritu zituzten.
- Uztailaren zortzian, korrida. Zazpi zezen jokatu ziren eta azkenean bolborazko gaztelu bat sutu zuten. Erretordea, udalgizonak, kapitain jenerala eta gainerako agintariak joan ziren korridara.

- Uztailaren bederatzian zezenkoak. Bertako gazteek toreatu zituzten. Gazte asko mozorroturik eta farregarri jantzita atera zen.
- Uztailaren hamarrean maskarada; asto, jolas, dantza, mozorrotu eta abar. Azkenean zezenko bat jokatu zen.

- Uztailaren hamaikan, arratsaldean bi zezen plazaratu zituzten. Zezenek plazan suhartasunik ez zuten erakutsi.
- Uztailaren hamabian korrida. Pikatzaileak asto gainean atera ziren, eta azkeneko zezenari bolbora eta suziriak ipini zizkioten. Txinpartak eta danbatekoak zerizkiola ibili zen plazan zezensuzko hura[45].

Uztailaren seian, udalgizonek buruhausteak izan zituzten bezperetara ohi bezala elizara joateko. Entzierroan zezenek ihes egin zuten Taconera aldera, eta gero zezenak kaleetan zebiltzalako, arratsaldeko bostetan abiatu ziren elizara, eta ez hirurętan ohizkoa zenez[76].

Gaztelu-plazan, jendea plazatik eserlekuetara bidali ondoren eta korrida hasi baino lehen, bi pertsonek plazari buelta emanez gartzelako zepoa erakusten zuten. Ikusleei errespetua sartzeko sistema zen hura, gehiegi harrotu eta kalterik sor ez zezaten. XVIII. mende osoan eta XIX.aren urte askotan ere bazen zepoa korrida hasieran erakusteko ohitura.

Uztailaren hamabiko korridan, bostgarren zezena hil zutenean udalgizonak *freskatzera* erretiratu ziren. 25 otarteko eta udareak bota zituzten plazara. Plazan toreatzen, Alesbes-eko Matias Serrano toreatzaileak lan egin zuen beste zazpi lagunekin taldea osatuz. 800 erreal irabazi zituzten. Inazio Olasagasti-ri lantzakada jotzeagatik 40 erreal eman zizkioten. Iruñeko errotari gazteek, beren zezena hagaz errenditu eta hil egin zuten. Asto gainetik ere toreatu zen bolaztatutako zezen bat[8].

Baionan urte hartantxe, 1751.ean, Bourgogne-ko dukea jaio zela eta korrida antolatu zuten. Hondarribiako udalgizonei zezenak eta toreatzaileak bidaltzea eskatu zieten[1].

Eibarren berriz, jubilioagatik prestatua zuten korrida bertan behera utzi zuten[77].

Lizarran, sanjoanetan sei zezen korritu zituzten eta bi hil ere bai[12]. Urte hartantxe, 1751.eko martxoaren 21ean, Jaime Aranburu Iznaga jaio zen Lizarran bertan; gero *Judua* goitizenez famatua izango zen toreatzailea[22].

Hurrengo urtean, 1752.ean, Soraluzen Ama Birjina abuztukoan urtero bezala zezenak zituzten. Baina trabak eta debekuak medio bi egunetan ez, aurreko urteetan bezala; egun bakar batean baizik[34].

Bianan, urte hartan arautu egin zuten zezenak urtean zehar zein egunetan korritu. Sokamuturra hamahiru egunetan antola zitekeen: Bazko bigarrenean, San Felipe, Santiago, San Fermin, Santa Ana, San Bernardo eta beste santu batzuen egunetan. Plaza itxita zezenak Ama Birjina abuztukoaren egunetan hain zuzen[21].

Iruñean sanferminetarako, Ana Maria Bikuña tuterarraren hamasei zezen ekarri zituzten. Hogeitabostna dukat eragin zioten; 4.400 erreal guztira. Lau unaik eraman zuten zezen-taldea Tuteratik Iruñera. 84 errealeko soldata eman zieten eta ehun eta berrogeitamar errealeko propina[8].

Uztailaren 10ean, goizeko seietan, Beltrarena jauna zaldi gainean bandera eta guzti zela entzierroa egin zuten; dotore eta prestutasunez gainera. Lehenbizi turutari bat zihoan, gero justizigizon bat, ondoren beste turutari bat eta azkenean Beltrarena banderaduna zezenen aurretik. Urte hartako irailaren 13an ordea, aurrerantzean entzierroak banderadunik gabe egitea erabaki zuten. Udalgizonak arrisku haietan zer ibilirik ez zuela zioten[9].

Zezenetan diputatu batzuk ez ziren zegokien balkoian egon, eta horregatik, ez zuten ohizko propinarik jaso[36].

Uztaileko 10ean izan zen korrida. Toreatzaileak, erretordeari kortesiak agintzen zuen agurra egin ondoren, lanean hasi ziren. Raimundo Franco Torres *Indiarrak* zalditik zezena sokaz lotu eta zezen gainean ibili zen. Beste bi zezen ere zaldiz pikatu zituen egun hartan. 1.000 erreal eman zizkioten; diru asko inola ere. Pedro Lakarra *Cascarilla* eta beste zazpi toreatzaileri (ehun-zerrendadunak denak) 800 erreal eman zizkieten guztira. Melchor Gutierrez eta menturaz joandako beste toreatzaile batzuei berriz, 564 erreal[8]. Joan Apiñani kalagorritarra ere urte hartan aurkeztu zen lehenengoz Gaztelu-plazara[22].

1753. urtean Manuel Apiñani, Joanen anaia, etorri zen lehen aldiz Iruñera toreatzera. *Tuerto, Tuertillo* edo *Navarrito* goitizenez ere ezaguna zen Kalagorriko toreatzaile hau. Taldeburu agertzen da Manuel Apiñani hau eta beti ere ehun-zerrenda darama. Urte hartan ehun-zerrendadunak zortzi izan ziren Iruñean eta bakoitzak 100 erreal jaso zituen. Menturaz etorritako gainerakoei 368 erreal eman zizkieten. Beste bi toreatzaile andalusei berriz, 200 erreal[29].

Toreatutako zezenak, Jose Francisco Arevalo Alesbes-eko ganaduzalearenak ziren. Hamalau erosi zizkioten urte hartan. Bakoitzagatik 25 dukat ordaindu zituzten; 3.850 erreal guztira. Zaragozako Bernardo Jarretak zaldiz burtziak sartu zizkien zezenei, eta 240 erreal irabazi zituen horregatik.

Gaztelu-plaza ureztatu egin zuten zezenetarako. Upelak, kanilak, eskulana eta abar, 46 erreal kostatu zitzaien. Zezenetan lau asto erabili zituzten. Bolaztatutako zezena toreatu zuten asto gainetik, eta zortzi erreal kostatu zen bakoitza. Ikusleetako bati, zepoa erantsi zioten aztoratuta istilutan ibiltzeagatik. Gero, jendeak eskatuta, askatu egin zuten[8].

Bordelen, Raymond Avon-ek baimena eskatu zuen zezenplaza biribila egiteko. Tourny-ko markesari, Guiena-ko intendenteari, zuzendu zion eskabidea, eta tirabira batzuen ondoren *Course*ko kalean plaza biribila egiten utzi zioten. Bi urte geroago hasi ziren, udaberrian, zezenfestak plaza berri hartan[1].

Madrilen, 1754. urtean Alcala-ko portale ondoan plaza biribil berria estreinatu zen maiatzaren hogeitamarrean. Lehen zurezko plaza zegoen leku berean egin zuten berria. Erregea bere Gorte guztiarekin joan zen inauguratzera. Goizean probako korrida izan zen. Ganadutegi bakoitzeko zezen bat probatu zuten, Iruñean egin ohi zuten bezalaxe. Gero arratsaldean, hamabi zezen korritu zituzten. Juan Esteller eta Jose Leguregi *Iruindarra* (*Pamplonés*) toreatzaileek lan egin zuten beren koadrilen buru zirelarik. Antonio Martinez-ek ere toreatu zuen bere kontura. Jose Leguregi, Paskual Zarakondegi toreatzaile nafarra maisu zuela ibilia omen zen aurrez, eta bere koadrilan *Martintxo* Barkaiztegi gipuzkoarrak parte hartzen zuela diote batzuek, nahiz eta horretarako frogarik eduki ez. Banderilak sartu, partxeak ipini, oinezko lantzakada jo etab. egin zituzten. Zaldun famatuak aritu ziren burtziketan plaza berrian, eta bukaeran, zezenko bolaztatua atera zuten bertako gazteak diberti zitezen[41].

Azpeitian, inguruko zezenak korritu zituzten urtero bezala. Gehienetan sei ekartzen ziren: lau Udalak ordainduta eta beste bi herriko haragi-hornitzaileak ordainduta.

Fernando VI.ak, zekorrik ez hiltzea eta zezenfestarik ez egitea agindu zuen urte hartan, eta azpeitiarrak kezkaturik zeuden hurrengo urteko zezenak antolatzeko[23]. Nekazaritzarako idirik ez zegoelako debekatu zituen zezenfestak erregeak maiatzaren 10ean. Iruñean, nahiz eta debekua egon, korrida emateko baimena lortu zuten ekainaren 26an[5].

Horretaz gain, San Zernin-eko parrokiako gazteekin konponduezinak izan ziren Bideko Ama Birjinaren egunean, apirilaren 27an, beren korrida propioa eduki nahi zutelako. Udalak ezezkoa eman zien[29].

Sanferminetarako, Alesbes-eko Francisco Arevalo-ren hamalau zezen ekarri zituzten, hogeitazazpina dukat ordainduta (4.158 erreal). San Nikolas parrokiako gazteen eskariz (elizako erretaula bukatu zutelako) maskarada, dantzak eta zezenkoa izan zituzten abenduan. Kontseilu-plazan zezenkoak eta sokamuturra izan ziren.

Sanferminetan, zaldizkorik ez zen urte hartan Gaztelu-plazan. Oinezko toreatzaileak izan ziren lan egindako guztiak, zazpigarren zezen bolaztatua asto gainetik toreatu zutela kontutan hartzen ez bada. Manuel Arbizu, Joakin Arbizu eta Fermin Larraiotz arrantzaleak ziren plazarako utzi zituzten lau astoen jabeak. 64 erreal irabazi zituzten astoak uzteagatik.

Zortzigarren zezena ere bolaztaturik atera zuten Iruñeko errotari gazteek hagaz menpera eta hil zezaten. Zezena bere larru eta guzti eman zieten errotariei ondo hiltzeagatik. Gainerantzean, ondoko oinezko toreatzaile hauek parte hartu zuten:

1). Ehun-zerrendadunak:

Pedro Lakarra *Cascarilla* (160 erreal), Manuel Callejas (120 erreal), Santiago Apiñani (100 erreal), Emeterio Apiñani (100 erreal), Estanillo Urantzia-koa (100 erreal; Anbrosio Estabillo izango zela pentsatzen dugu), Manuel Agreda (100 erreal), Jose Biana (100 erreal) eta Jose Belasko (100 erreal)

2). Menturaz joanak:

Jose Salbatierra (40 erreal), Joan Apiñani (40 erreal), Manuel Mendoza (40 erreal), Paskual Apiñani (40 erreal), Francisco Pereda (40 erreal), Pedro San Roman (40 erreal), Sebastian Lopez

(40 erreal), Jose Baztan (50 erreal), Jose Gomez *Mulatoa* (50 erreal) , *Ezkerra*, zaharra (20 erreal).

Zerrendako Jose Baztan, Mirandakoa zen, eta *Ezkerra* berriz, Antonio Bermejo alfarotarra; 1.712. urteaz gero sanferminetan toreatu ohi zuena[8]. Joan Apiñani menturaz joan zen Iruñera, eta kobratu zuenagatik badirudi ez zuela hagaz zezen gainetik saltatu, gero Goiak grabatuan marraztu zuen bezala[29].

Korridaren erdialdera, agintariak *freskatzera* erretiratu ziren. Askariko freskagarriak 459 erreal eta 28 marai kostatu ziren urte hartan[8].

———— o ———— o ————

1755.ean Iruñean, Antonio Lekunberri Virto tuterarraren (lehengo Antonio Lekunberriren semearen) zezenak etorri ziren Iruñera; hamalau guztira[5]. Urte hartan hasita 1.774.erarte bidali zituen aldika zezenak Lekunberri Virto ganaduzale tuterarrak[3]. Dena den 1.755.eko zezenak, 4.004 erreal kostatu ziren; hogeitasei dukat bakoitza.

Fernando VI.aren aginduz zezenfestak debekaturik zeudenez gero, Iruñeko udalgizonek baimena eskatu zuten, eta Manuel Rada Antillon erretorde berriaren laguntzaz, betirako baimena eman zieten iruindarrei sanferminetan ohizko korrida bat eman zezaten[8].

Erretorde berria izan zen 1.755.eko korridako lehendakari. Gaztelu–plazako etxea, erabat apainduta zegoen. Alki dotoreak, kristalezko lanparak, oihal koloretsuak etab. eraman zituzten erretordearen gela luxuz hornitzearren[53].

Zezenak toreatzen, oinezkoak bakarrik aritu ziren. Ez zen zaldunik plazaratu. Oinezko toreatzaileen zerrenda, hauek osatu zuten: Manuel Agreda (ehun–zerrendaduna, 100 erreal), Antonio Bermejo, *Alfaroko ezkerra* (jadanik zahartua; menturaz joana, 16 erreal), Manuel Callejas (ehun–zerrendaduna, 100 erreal), Jose Gil valentziarra (ehun–zerrendaduna, 100 erreal), Pedro Lakarra *Cascarilla* (ehun–zerrendaduna, 120 erreal), Sebastian Lopez, alesbestarra (menturaz joana, 40 erreal), *Miranda–ko buruhandia* (menturaz joana, 40 erreal) Francisco Montero (menturaz joana, 25 erreal), Juan Montes granadarra (menturaz joana, 32 erreal), Francisco Pereda (menturaz joana, 40 erreal), Jose Salvador (menturaz joana, 40 erreal), Pedro San Roman (40 erreal), Gaspar Serrano (menturaz joana, 40 erreal), Matias Serrano alesbestarra (ehun–zerrendaduna, 200 erreal zezena barne), Jose Belasko (menturaz joana, 40 erreal). Juan Jose Gomez *Mulatoa*ri, ez zioten utzi toreatzen eta 20 errealeko propina eman zioten[8].

Urte hartan Buenos Aires–en, hemengo toreatzaile bat banderilari aritu zen. Baltasar Casas *Bizkaitarra* (*el Vizcaino*) hain zuzen[73].

Gipuzkoan berriz, hernaniarrek erregearengandik sanjoanetan zezena korritzeko baimena lortu zuten. Abuztuaren 18koa da baimena, eta hark dioenez, urtero korritzen ziren Hernanin zezenak (hil gabe) San Joan eguneko hurrengo egunetan ekainean[48].

Zestoan, udaletxea zabaldu egin zuten Jose Moreno lizentziatuari lurrak erosita. Toril gainera pasabidea eraikita, oihalez apaintzen zuten festetan, handik herriko agintariek zezenak ikus zitzaten[32].

Azpeitiarrak larri zebiltzan zezen–korriden debekua zela eta. Korrejidoreak ere ezezkoa eman zuenez gero, Madrilera jo zuten. Madriletik, debekua zezen–korridetarako zela abisatu zieten, eta ez

zezenkoak jokatzeko. Azkenean korrejidorea bera ere etorri zen Azpeitira bere emaztearekin saninaziotan zezenetara. 900 errealeko gastuak egin zituzten korrejidore eta emaztea behar bezala hartzen, eta 1.292 dukat eta 21 maraikoak, barrerak ipini, batzuk berritu eta kentzen[23].

Akitanian Etigny intendenteak zezenfestak erdizka onartzen zituelako, 1.755. urteaz gero beste hamar urtez nonnahi antolatuko dituzte zezenak Gaskonia eta Biarno–n: Orthez, Salies, Arzacq, eta abarretan Gave ibaiaren inguruan eta Mendi Martzana (Mont de Marsan), Tartas, Villeneuve, Saint–Sévère, Montaut, Mugron, Grenade eta Cazères–en Atturri ibaiaren inguruan. Batzuetan intendenteak ezarritako baldintzak errespetatuz jokatuko zituzten zezenak, eta bestetan errespetatu gabe[1].

1.756. urtean, Gipuzkoako korrejidorea bere emaztearekin Azpeitian zen abuztuaren batean zezenetan. Alkate eta fielak ekarri zituzten inguruetatik zezenak, eta beraiek egin zuten San Agustin eta Santo Domingo komentuetako eserlekuen banaketa. Handik aurrera ere, normalean bertako zezenak korrituko zituzten Azpeitiko herriko plazan (orain udaletxea dagoenekoan)[23].

Soraluze–ko arma–fabrikan, Florencio Joseph Lamot Gondesoone flandestar enplegatuari Soraluzeko fabrika eta inguruetako xehetasunak erakutsiz grabatu bat egitea bururatu zitzaion[34]. Han marraztu zituen, besteak beste, zezenak herriko plaza zaharrean jokatzen. Lau toreatzaile eta barreratan jende asko ikus daitezke[78].

Bilbon, urte berezia gertatu zen 1.756.a. Bari–ko San Nikolas–en ohoretan egindako eliza berria estreinatu zuten orduan, eta aurrez, zezen–korrida bat emateko baimena eskatu zioten erregeari. Erret idazkaritzak ekainaren seian sinatu zuen baiezkoa, baina Gorpuzti egunean eta San Nikolasen irudia ipintzen zen egunean (elizkizunak zeudelako) korridarik ez ematekotan.

Uribarri eta Mezkorta udalgizonek hartu zuten zezenetarako behar zen guztia prestatzeko ardura. Zezenak abuztuaren 19, 20 eta 21ean korrituko zirela jakin erazi zitzaien herritarrei.

Jendea jakinminez beterik zegoen. Toreatzaile, zezen eta abarren berri jakin nahi zuen. Zezenak San Rokera noiz etorriko begira egoten ziren, gero entzierroan (oso gogozkoa zuten entzierroa bilbotarrek) korritzeko asmoz. Ibaian, Azoka–plazaren parean, untzi apaindu batzuk ipiniko zituzten, eta baita gabarra handi bat ere. Gero han dantza izango zen. Barrerak muntatu eta torilak Dendari–kalearen bukaeran, Azoka–plazarako sarreran, ipini zituzten. Udaletxeko balkoi luzea, torilen aurrez aurre zegoen eta han egoten ziren agintariak korrida ikusten.

Azkenean heldu ziren zezenak Bilbora; hamaika Madrileko ganadutegietatik eta beste hamahiru Salamancatik. Haiek toreatzeko bi pikatzaile eta oinezko zortzi toreatzaile ekarri zituzten Bizkaiko hiriburura.

Abuztuaren 19an, arratsaldeko hiruretan, jendez beteta zegoen plaza. Udalgizonak galaz jantzita agertu ziren plazan antzinako ohiturari jarraituz. Aurretik danbolindariak zihoazen. Pregonariak, zezenetarako arauen berri eman zuen bandoaren bidez. Gero toreatzaileak sartu ziren plazara agintariei eta jendeari agur egitera. *Kanpaña* izeneko bilbotar pertsonaia xelebreak, airean hartu zuen lehendakariak botatako giltza.

Zezenak onak atera ziren; handiak, itxura onekoak eta adakera bikainekoak. Bostgarrena ordea, koldarra zen, eta suzko banderilak sartu zizkioten. Hurrengo bi egunetan ere, zezenetan asko dibertitu zen jendea.



8.6. irudia. Bilboko zezenetara ibaiz joaten zen gondola.

Udalak egindako ordainketei esker, beste zenbait xehetasun ere jakin daiteke. Hogeitahiru zezenak adibidez, 27.348 erreal kostatu ziren guztira. Pikatzaile, Juan Amiras (Amisas izango da) eta Cristobal Ramisco artiu ziren eta 4.800 erreal irabazi zituzten. Oinezkotan, Diego del Alamo izan zen lehen ezpatari. 2400 erreal eman zizkioten. Bigarren ezpatari, Pedro Cruz agertzen da eta hirugarren ezpatari Juan Castel *Castelillo*. Bakoitzari 1.500 erreal eman zizkioten. Vicente Sanchez *Manchego*ri 1.200 erreal eta baita Manuel Apiñani (Albiñanis dio paperak) *Navarrillo*ri ere. *Cascarilla*ri (Pedro Lakarra-ri) 368 erreal eta Apiñaniren bi anaiari 300 erreal.

Zezenetan 40 dotzena banderila gastatu ziren. Dotzena seina erreal ordainduta erosi zizkioten Bizente Mezkorta-ri. Bestetik, hiru egunetako zezenek hogeitabat zaldi hil zituzten. Udalak, zenbait bazkari eta abar kontatu gabe, 65.098 erreal eta 27 marai gastatu zituen festa haietan[79].

Bilbon lan egindako Diego del Alamo malagatarrak, Jose Cándido toreatzaile famatuari alternatiba eman zion bi urte geroago Madrilen, maiatzaren 25ean. Arratsalde hartan zezenak harrapatu egin zuen Jose Candido[46].

Iruñean, Mateo Orobio Garcés alfarotarraren hamalau zezen jokatu ziren sanferminetan. Hogeitasei dukat kostatu zen bakoitza; 4.158 erreal guztira. Ganaduzale honi sei zezenko ere eskatu zizkioten: lau hiruzpalau urtekoak eta bi bi urtekoak. Orobio-k ez zituen zerbitu, horrelako zezenkorik ez zuelako[8].

Urte hartan Gaztelu-plazan bizi ziren batzuei, udalgizonen erabakiz zezenetan balkoiez disponitzeko eskubidea kendu egin zieten, eta protestak izan zituzten[53]. Udaleko Idazkariari, Ospitale etxeko hirugarren bizitzako laugarren balkoia izendatu zioten. Han segitu zuen 1.816. urterarte[80].

Juan Amisas etorri zen Madriletik zaldiz toreatzera. (Gero abuztuan Bilbon arituko zen).

Hirurogeina errealeko hogei dobloitan kontratatu zuen Mendinueta jaunak Madrilen Iruñeko Udalaren izenean. Urte hartan Gaztelu-plazan, asto gainean ez zen inor ibili toreatzen[8].

1.756. urtean Landetako Mendi Martzana-n pertsona bat hil zen zezenak kalean jokatzen ari zirela[74]; Lyon-eko markesaren lorazaina hain zuzen[81].

Hurrengo urtean, 1.757.ean, Iruñean bi korrida (eta ez bat ohi bezala) eman ziren Gaztelu-plazan jendea diberti zedin. Horretarako, Antonio Lekunberri Virto-ri hogeitamaika zezen erosi zizkioten[5]. Aurrez, Gaztelatik 16 zezen ekartzen saiatu ziren, baina ez zuten horretarako baimenik lortu. Udalak orduan, Tuteran hogei zezen erosi zituen, eta Pedro Iriberriren bitartez Salamancako beste hamasei zezen ekartzeko tratua egin zuten. Gaztelatik Nafarroara pasatzea ezienzkoa gertatu zitzaien ordea, eta Salamancako zezenak merkeago saldu behar izan zituzten Madrilerako.

Azkenean, Antonio Lekunberri tuterarraren 31 zezen etorri ziren, bakoitzagatik hogeitamar dukat ordainduta (10.230 erreal guztira). Argetas-en ere, beste zezen bat erosi zuten hogeitamar dukatetan. Prudencio Garcia logronioarrak aukeratu zituen zezenak taldetik.

Uztailaren 6an (asteazkenean), 7an, 8an eta 9an, arratsaldero bi zezen jokatu ziren. Igandean, zezenkoak. Astelehen goizean bi zezen probatu zituzten eta arratsaldean hamar zezen plazaratu ziren korridan. Astearte goizean beste bi zezen probatu zituzten, eta hamar arratsaldean bigarren korridan.

Oso zezen suharrak atera ziren Lekunberriren hauek. Pikatzaileak larri ibili ziren. Pedro de la Cruz, *Mamon* goitizenez, beldurturik ez zen atera plazara bi korridetan. Nahikoa zaldirik gabe gelditu ziren azkenean, zezenek asko hil zituztelako, eta sei zezen zezentxakurrez errendituta hil behar izan ziren.

Asto gainetik ere batzuek toreatu zuten zezen bolaztatu bat. Joakin Arbizu eta bere lagunei 48 erreal ordaindu zizkieten astoak uzteagatik.

Bigarren korridako azken zezenari, bolbora eta suzirizko manta ipini zioten. Joan Antonio Andres bolborazaleak eta bere lagunek prestatu zituzten zezensuzkoaren tresnak[8].

Plazako barrerak ipintzearren, Iruñeko zurgin askok egin zion eskabidea Udalari[53].

Zezenak pikatzen, Pascual Brey (andalusa berau), Miguel Ramirez (Cadiz-eko Tarifa-n jaioa) eta Pedro de la Cruz *el Mamón* ibili ziren, Madriletik etorrita. Miguel Ramirez eta Pascual Brey-ri, 932 erreal eman zizkieten; hirurogeitamarna errealeko hogeitasei dobloi guztira. *Mamón* murciarrari eta bere lagun bati berriz, 800 erreal.

Oinezko toreatzaileen artean, Manuel Apiñani kalagorritarra aritu zen beste hamahirurekin batera. Oinezko lantzakada jotzen saiatu ziren. Zortzi erreal jaso zituen horretan saiatu zenak[8].

Baina uztailaren 21ean, zezenfestak debekatzen zituen agindu berri bat atera zen. Zekor-haragia saltzea ere debekatua zegoen. Iruñeko Udalak, zezenak antolatzeko baimena eskatu zuen berehala, eta abuztuaren bian baiezkoa eman zien (urtean korrida bat egitekotan) erregeak zedula baten bidez[5].

Urte hartako, 1.757.eko abuztuaren 19an, herriko alkateak eta Inazio Larreategi-k (barrerazaleak), zezenetarako plaza ixten erabiltzen zituzten barreren inbentarioa egin zuten. Hari

esker jakin daiteke Soraluzeko herriko plazan jendea begira nondik eta nola egoten zen[34].

Akitanian, Caze de Bove-ren ondoren Auski-ko (Auch) Megret d'Etigny intendenteak agindu zuen. Hau, berehala konturatu zen zezenak debekatzea alferrikakoa zela, eta zezenak segurtasunez eta arriskurik gabe joka zitzezen neurriak hartu zituen. Bere ideien arabera, Luis XV.ak 1.757.eko otsailaren 16an ordenantza bat argitaratu zuen. Zezenak edo idiak, ez ziren herri barruan jokatuko. Herritik kanpora bai, Udalaren baimenaz eta barrera sendo eta egokiak ipini ondoren[1].

Tuteran ere, uztailaren 15ean lortu zuten urtero santanatan korrida bat emateko baimena.

Hurrengo urtean, 1.758.ean, zezenplazako (Foru-plazako) Loreto-ko portalea zeinena zen erabakitzat eman zuten. Udalarena zen, urriko bostean akordioz aitortu zenez[31].

Eibarren urte hartan, Felix Gisasola izendatu zuten plazako barreren arduradun. Hark ipiniko zituen plazan eta gero kendu eta Untzaga-ko dorrean gordeko zituen. Urtero 66 erreal emango zizkioten lan horregatik[61].

Iruñera, Mateo Orobio Garces alfarotarraren hamazortzi zezen ekarri zituzten 1.758.eko sanferminetarako. Hogeitamar dukat kostatu zen bakoitza; 5.940 erreal guztira. Kalagorritik, beste bost zezenko ere (hiru edo lau urtekoak) erosi zituzten laurogeitamazortzi dukat edo 1.078 erreal ordainduta. Zezenko hauen larruak eta okela salduta, 639 erreal eta 24 marai berreskuratu ziren gero. Beraz zezenkoak 438 erreal eta 12 marai kostatu zitzaizkien.

Zezenak toreatzen, Pascual Brey andalusiarra eta Raimundo Franco *Indiarra* aritu ziren zaldi gainetik. Zazpi zezen pikatu zituzten eta 720 erreal eman zizkioten bakoitzari.

Oinez toreatzen ibilitako batzuk, hauek izan ziren: Manuel Callejas (80 erreal), Tomas Campos (zaragozarra, ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Jose Gil (valentziarra, ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Jose Gomez *Mulatoa* (jadanik zahartua, 20 erreal), Pedro Lakarra *Cascarilla* (ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Sebastian Lopez (menturaz joana, 32 erreal), Juan de Dios Mallen (menturaz joana, 80 erreal), Baltasar Mesa Erdio (menturaz joana, 100 erreal), Vicente Ruedas (ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Pedro San Roman (50 erreal), Antonio Undea (20 erreal), Jose Belasko (menturaz joana, 50 erreal), Frantzisko Iaben (32 erreal)[8] eta Joan Apiñani (ehun-zerrendaduna, 160 erreal)[29].

Sei asto ere alokatu ziren aurreko urtean bezala bolaztatutako zezena toreatzeko. Joakin Arbizu eta bere lagun arrantzaleei zortzi erreal eman zizkieten asto bakoitzagatik[8].

1.759. urtean, ez zen zezenik korritu sanferminetan Iruñean. Aurreko urtean Braganza-ko Maria Barbara erregina hila zen eta Fernando VI.a, erregea bera, gaixo zegoen. Ez zen beraz zezenik korritu, hurrengo urterarte. Orduan Karlos III.a zegoen errege[8]. Azpeitian ere ez zen zezenik egon 1.759.ean arrazoi berberagatik[23].

Fernando VI.a abuztuaren 10ean hil eta Karlos III.a errege berriaren omenetan, Tuteran korrida eman zuten oraingo Foru-plazan[59].

Nafarroako Allo-n (Lizarratik hegoaldera), herriko kaleetan eta eliz inguruan sokamuturra egiteko ohitura zegoen. Batzuetan larrabehiak eliz ondoko hilerrian ere erabiltzen zituzten. Horregatik, 1.759.ean Gaspar Miranda Argaiz apezpikuak herrira bisita egin zuenean, eskomikuaz

mehatxatu zituen zezenak eliza eta hilerrira inguratzen zituztenak[82].

1.759. urte hartantxe hilobiratu zuten Pedro Inazio Barrutia Basagoitia euskal idazlea eta Arrasateko eskribaua. *Gabonetako ikuskizuna* izeneko teatro-lana idatzirik utzi zuen. Bertan *Aritxabaltxo* pertsonaia, *zezen-toreadorea* agertzen da. Baita zezenetako pasarte batzuk ere: *...Toreadoreak emen dira lasterka niri brindatzera...* adibidez[83].

———— o ———— o ————

1.760. urtean, zezenfestak herri askotan egin ziren. Zumaian apirilaren 7an marinelek zezenak jokatu zituzten San Telmo-ren omenez[26].

Asteasun, plaza eta udaletxe berria eraikitzea lortu zuten urte hartan. San Pedro egunez zezenak antolatu ziren ospatzeko, eta Domingo Usandizaga errementariari 22 erreal eta 22 marai ordaindu zizkioten 48 banderilagatik. Zezenak toreatzen, Joan Bautista Iraola tolosarra aritu zen beste hiru lagunekin. 150 erreal irabazi zituzten[68].

Tolosan, urte hartan Plaza Berriko Toril-etxea bota eta berria egin zuten atzerago. Horrela plaza luzeagoa gelditu zitzaien; luzetaraka pilotan ibiltzeko modukoa[16].

Soraluzen, Ama Birjina abuztukoaren egunean, zezenak izan ziren. 307 erreal kostatu zitzaizkien banderila eta ezten-hagak[34].

Bilbon, Karlos errege berriaren ohoretan festak antolatu zituzten. Festak urriaren 26an hasi ziren, erregea Bartzelonara iritxi zelako. Azaroaren 3an koroatu zuten eta Bilbon bi korrida eman ziren[45].

Iruñean Mateo Orobio Garces alfarotarraren ganadua ekarri zuten. Hamasei zezen eta lau zezenko. Zezen bakoitza 30 dukat kostatu zitzaien eta zezenko bakoitza 19 dukat (209 erreal bakoitza). Zezenkoen okela eta larruak salduta, 521 erreal eta 11 marai berreskuratu zituzten. Sanferminetan toreatzen ibilitako batzuk, hauek izan ziren: Pedro San Roman (ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Matias Serrano (ehun-zerrendaduna, 160 erreal), Manuel Apiñani (ehun-zerrendaduna, 160 erreal), Alejandro Izquierdo andalusiarra (ehun-zerrendaduna, 160 erreal), Jose Belasko (menturaz joana, 50 erreal), Frantzisko Iaben (menturaz joana, 50 erreal), Tomas Campos (menturaz joana, 50 erreal), Jose Elizondo (menturaz joana, 50 erreal), Manuel Felix (menturaz joana, 50 erreal), Pedro Lakarra *Cascarilla* (ehun-zerrendaduna, 100 erreal), Juan de Dios Mallen (ehun-zerrendaduna, 80 erreal), Francisco Pereda (menturaz joana, 50 erreal), Felix Salinas (menturaz joana, 50 erreal)[8]. Santiago Apiñani (menturaz joana, 50 erreal) eta Joan Apiñani (ehun-zerrendaduna, 100 erreal)[29].

Zaldi gainean Bernardo Jarreta zaragozarra eta Antonio Bassun, Ejea-ko *Martintxo*, aritu ziren. Bakoitzak 560 erreal irabazi zituen.

Urtero bezala bolaztatutako zezena asto gainetik toreatzera ere irten zuten gazte iruindarrek. Sei asto alokatzea 48 erreal kostatu zen. Urte honetaz gero eta 1.776. urterarte, Matias Serrano beti agertuko zen Gaztelu-plazan taldeburu eta toreatzailerik onenen pare kobratuz.

1.761. urtean, sanferminetarako aurreko urtean bezalaxe Mateo Orobio Garcés alfarotarrari erosi zizkioten zezenak. Hamasei guztira: bi San Fermin bezperarako, bi San Fermin egunerako, bi goizeko probarako eta beste hamar arratsaldeko korridarako. Hogei dukat bakarrik ordaindu zituzten

zezen bakoitzagatik (3.520 erreal guztiengatik). Antonio Bassun Ejea–koa hiru zezen zaldiz pikatzekoa zen eta hurrengo hirurei Bernardo Jarreta zaragozarrak burtziak sartuko zizkien zaldi gainetik. Bata 90 peso eta bestea 70 peso kobratzekoak ziren. Baina Antonio Bassun *Martintxok* bi zezen bakarrik pikatu zituenez gero, Jarreta–ri bezalaxe 70 peso eman zizkioten. Beste batzuk, asto gainean ibili ziren urtero bezala zezenetan. Sei astoren alokairua 48 erreal kostatu zen[8].

Soraluzen, Santiago, Santa Ana eta Ama Birjina abuztukoaren omenez zezenak antolatu zituzten. Urtero zezen bat ekartzeko obligazioa zutenek, 45 erreal ordainduko zuten. Diru horrekin beste batzuk erosita, Andres Agirre udalgizonak zuenarekin eta idi erasokor batekin, zezenfestak prestatuko ziren. Toreatzaileak ere ekarri zituzten[34].

Azkoitian, 1.761. urteko ardo nafarraren horniketaren ardura Frantzisko Ijurra–k (Nafarroako Lizarragakoak) hartu zuen enkantean. Ama Birjina abuztukoan korridarik prestatzen bazen, berak bi zezen suhar ekartzera behartu zuen bere burua[84].

1.761.eko urte hartantxe argitaratu omen zen Sevillan zezen–korridak iragartzen zituen lehen kartela[41].

Hurrengo urtean, 1.762.ean, martxoaren hamahiruan haragi–horniketarako kontratua egin zuten Deban. Urtebeterako zen Simon Rementeria eta Bautista Egaña harakinek batetik eta alkateak bestetik sinatu zuten kontratua. Okelaren prezioak eta gorabeherak zehaztu ondoren, udalgizonek eskatzen zutenerako harakinek soka bat prest edukiko zutela agintzen da; sokamuturrerako soka, hain zuzen[85].

Tafallan, urte hartan, Frantzisko Arantegi–k Udalari eskaintza bat egin zion Ama Birjina abuztukoan jokatuko ziren zezenetarako. *Martintxok*, Ejea–koak, zaldiz zezen bat pikatuko zuen eta beste bati burtzitxoak ipiniko zizkion; zaldiz noski[86]. Ez dakigu Antonio Bassun ejeatarrak azkenean Tafallan toreatu zuen ala ez. Iruñean ordea, toreatu zuen zaldiz Bernardo Jarreta–rekin batera. Batak 480 erreal irabazi zituen eta besteak 320, zezen bat haga luzez toreatzeagatik eta besteari burtzitxoak ipintzeagatik[29].

Beste batzuek, asto gainetik toreatu zuten bolaztatutako zezena urtero bezala. Zezenak, Miguel Lopez Salinas ejeatarrarenak ziren. Hamasei erosi zizkioten hogeitazortzina dukaten truk. 4.928 erreal kostatu ziren guztira. Plazan hildako zezenak ateratzeko, Inazio Galdeano zurginak orga bat prestatu zuen. 224 erreal kobratu zituen bere lanagatik, baina badirudi sistema hark ez zuela arrakastarik izan[8].

1.762. urte inguruan, Manuel Apiñani toreatzailea larriki zauritua gertatu zen bere herriko plazan. Kalagorriko toreatzaile hura, *Begibakarra (Tuerto)* eta *Nafartxo (Navarrito)* izenez ere ezaguna zen. Sendatu ondoren bera zauritutako zezena erosi eta plaza berean aspertu arte toreatu omen zuen. Beti burrukan eta istilutan zebilen gizona zenez gero, zezen hura pikatu ziotelako hiru pertsona zauritu omen zituen. Adiskide batzuei esker ez zen zigortua izan orduan, baina hurrengo istilu batengatik Oran–era preso eraman zuten eta han hil omen zen hamar urte geroago zezen batek harrapatuta[29].

1.763. urtean sanferminetarako, Jose Carra alfarotarraren 22 zezen ekarri zituzten Iruñera. Aurrez, zailtasunak egon ziren zezenak Gaztelako erreinutik Nafarroako erreinura pasatzeko. Zezenen izenak eta zenbakiak bidali zituen aurrez ganaduzaleak Iruñera, baina batzuk zauritu egin zirelako, aldaketak egin zituzten azken orduan. Eskirotz–era, uztailaren hirurako iritsi omen ziren.

Zezen bakoitza hogeitazortzi dukat t'erdi kostatu zen; 6.897 erreal guztira.

Felipe Manso toreatzaileak, 32 erreal irabazi zituen oinezko lantzakada jotzeagatik.

Zezenetan, txotxongiloak ere atera zituzten, barruan usakumeak, oilaskoak eta untxiak zituztela. Zezenak txotxongiloak apurtutakoan aterako ziren animalia hauek plazara. Joakin Iraolak egin zituen txotxongiloak 140 errealetan. (Aurreko urtean ere gauza bera egin zuten).

Asto gainetik toreatzen ere ibili ziren aurreko urtetan bezalaxe. Sei asto alokatu zituzten 48 errealetan bolaztatutako zezena toreatzeko. Azkeneko zezena, ez zuten ezten-hagaz errotari iruindarrek hil ohi bezala (ezta 1.760. urtean ere)[8].

Bi zezen haga luzez Antonio Bassun ejeatarrak pikatu zituen eta beste bati burtziak sartu zizkion zaldiz. 480 erreal eman zizkioten[29]. Korridaren erdi aldera, agintariak *freskatzera* erretiratu ziren ohi bezala. 459 erreal eta 28 marai kostatu zitzaizkion Udalari askariko *freskagarriak*[8].

Tuterako santanatako korridarako, Gares-eko hiru toreatzaile kontratatu zituzten. 100 peso (8 erreal *fuerte* balio zuen bakoitzak) ordainduko zituzten tuterarrek, eta garestarrek kapaz baliaturik hilko zituzten zezenak[59].

Bergarara, jende asko bildu zen 1.763. urteko festetan. Baita Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako jauntxoak ere. Zezen-korridak izan ziren besteak beste, eta ikuskizun haietan eman zioten *zalduntxoek* hasiera *Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais* elkarteari[87].

Balmasedako Pandozales auzoan, lehengoa baino gorago harrizko plaza berria egitea erabaki zuten, Kolitza-ko errogatibaren ondoren bertan urtero zezenkoak korritu ahal izateko[63].

Urte hartako, 1.763.eko, zezenen eta toreatzaileen berri emanez, Sevillan kartela atera zuten (lehenengotakoa, noski). Ganaduzaleen artean Frantzisko Eskibel eta Luis Ibarburu agertzen dira. Urdin-gorria zen lehenbizikoaren abelgorrien dibisa, eta gorri-urdin-zuria bigarrengoenena[46].

Urte hartantxe Akitania-ko Morlaas herrian toreatzaile bat (*ecarteur* bat hain zuzen) hil egin zen[74].

1.764. urtean, Bergaran festa handiak antolatu zituzten irailaren 11tik 14ra San Martin Agirre santuaren jaiotzaren urteurrena ospatzearren. Txistulariak, Donostiako turutariak, bolaztatutako idiak, zezen-korridak etab. izan ziren. Hogeitamar zezen plazaratu zituzten Bergaran festa haietan[88]. Bi korrida, Gaztelako zezenekin burutu ziren eta beste bat Nafarroako zezenekin. Xabier Maria Munibe zalduntxoaren *El Borracho Burlado* eta *El Mariscal Ferrant* operak ikusteko aukera ere egon zen. Aurrez Azkoitian emanak zituzten bi opera hauek, eta antzezle berberen esku joan zen Bergarako emanaldia[89].

Iruñean, Alesbes-eko Manuel Arevalo Ibero ganaduzalearen 16 zezen atera ziren sanferminetan Gaztelu-plazara. Bi uztailaren seian, bi zazpian eta hamabi hamaikan, asteazkenean (goizean bi probarako eta arratsaldean hamar). Igandean zezenkoak korritu zituzten. Arevalo-ren zezen bakoitza, 27 dukat kostatu zen; 4.752 erreal guztira.

Matias Añezkar *Pastelero*ak toreatu zuen 80 errealen truk. Esteban Arostegi (ejeatarra dirudienez) ere, han zen. 32 erreal eman zizkioten. 1.766, 1.767 eta 1.769. urteetan ere toreatu zuen Iruñean, beti ere gutxi kobratuz.

Juan Antonio Blanco zen menturaz joandako beste bat. 32 erreal jaso zituen bere lanagatik San Bizente–ko toreatzaile honek. Tomas Campos zaragozarrak berriz 80 erreal. Pedro Lakarra *Cascarillari* 130 erreal eman zizkioten; Juan de Dios Mallen–i adinaxe. Gregorio Navarro Alesbes–eko unaiak 50 erreal jaso zituen. Pedro San Roman logronioarrak 130 erreal eta Jose Belasko kalagorritarrak 120 erreal. Bizente Zuazola *Bizkaitarra*ren toreatze–lana 32 errealetan ordaindu zuten[8]. Santiago Apiñani–ri 80 erreal eman zizkioten.

Zaldiz, Antonio Bassun *Martintxo* ejeatarra aritu zen. Bi zezen haga luzez pikatu zituen eta beste bati burtziak sartu zizkion. Beste bat oinez toreatzen ibili zen. Bi zaldi hil zizkioten zezenek eta 600 erreal kobratu zituen guztira urte hartan[29].

Bolaztatutako zezen bat toreatzeko sei asto prest eduki zituzten, baina badirudi asto gainetik toreatzera ez zela inor ausartu[8].

Urte hartan, 1.764.ean, Zaragozako plaza berria estreinatu zen, eta Kalagorriko Manuel eta Joan Apiñani toreatzaile famatuak han ziren lanean[22]. Perez Laborda–ren eritziz, Zaragozako plaza urtebete geroago estreinatu zen[39].

Akitania–ko Aire herrian dotrina garaian zezenak korritu omen zituzten elizaren aurrean[74].

———— o ———— o ————

1.765. urtean, Antonio Lekunberri Virto ganaduzale tuterarrak bidali zituen zezenak Iruñeko sanferminetara. Hamasei zezen eta lau zezenko ziren. Zezenkoak, handiak eta hiruzpalau urtekoak. Zezen bakoitzaren prezioa, 27 dukatekoa izan zen; 4.752 erreal hamasei zezenena. Zezenkoak, Pedro Santesteban banderadunak ordaindu zituen. Igandez jokatu zituzten Gaztelu–plazan. Gazteak mozorrotuta atera ziren plazara.

Korridako zezenak toreatzen, ez zen zaldizkorik aritu. Astoak ere ez zituzten ekarri urte hartan[8]. Oinezko bi toreatzaile–talde lanean ikusteko aukera izan zuten. Talde bat, andalusiarrez osatua zen, eta bestea nafarrez osatua. Ez da ahaztu behar Errioxa, Aragoa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako toreatzaileak garai hartan nafartzat hartzen zituztenik.

Hona hemen ondoren bi taldeetako partaideak eta bakoitzak irabazi zuena:

1) **Toreatzaile andalusiarrak**

– Sebastian Garcia	400	erreal
– Mariano Ambroy	240	"
– Vicente Buenas	240	"
– Jose Jines	240	"
– Agustin Garcia	40	"

2) **Toreatzaile nafarrak**

– Matias Serrano, Alesbesekoa	240	"
– Manuel Apiñaniz, Kalagorriko *Begibakarra*	240	"
– Juan de Dios, Mallen–ekoa	120	"
– Matias Añezkar, *Pasteleroa*, Kalagorrikoa	120	"
– Emeterio Apiñaniz, Kalagorrikoa	80	"
– Santiago Apiñaniz, Kalagorrikoa	70	"

– Jose Belasko, Kalagorrikoa	80	"	
– Gaspar Apiñaniz, Kalagorrikoa	40	"	
– Hiru probintzianoei (gipuzkoarrei)	240	"	
– Menturaz etorritako bati	80	"	29

Toreatzaile hauetaz gain, Juan Antonio Blanco, San Bizente–koa (Arabakoa) ere aritu zen lanean 32 errealen truk. Jose Gil valentziar dantzaria ere bai 40 errealetan[8].

1.765. urtean dirudienez, Antonio Lekunberri tuterarrak bere behi– eta zezen–taldeak saldu egin zituen. Miguel Miranda kalagorritarrak erosi zizkion eta Nafarroako Murelu eta Granjafria izeneko larretokietan eduki zituen abereak.

Ega–ko Granada–ko dukeak zuen ordea Nafarroako ganadu–talderik handiena eta Traibuenes–eko lurretan larratzen ziren abere haiek[19].

1.765.eko saninaziotan, bi nobillada eman zituzten Azpeitian, Udalak antolaturik; uztailaren 31n bata eta abuztuaren 1ean bestea.

1.766.ean, Gipuzkoako Diputazioak debekatu egin zituen urte hartan korridak eta nobilladak probintziako herri guztietan[23]. Matxinada–urtea izan zen hura Gipuzkoan eta jendea biltzerik ez zuten nahiko agintariek.

Oiartzun–en ere ez zen urte hartan zezenik izango. Baina aurrekoetan bai. Han zezenkoak eta betizuak korritu ohi ziren plaza itxita. Aurreko urteetan gainera, Irun Hondarribiako auzoa zen, eta jotake ari ziren Udalerri propioa lortzeko asmotan. 1.766. urteko otsailaren 27an lortu zuten hain zuzen. Baina aurreko urteren batean, irundar gazte batzuek Oiartzuneko plaza ixten ari zirela honela galdetu omen zuten:

– Zertarako dauzkazue egur hauek hemen? Muskila aterako dutelakoan?

– Bai. Hauek ateratzen duten muskilaz egin behar dute Iruneko alkatearentzat bara– izan omen zen erantzuna[90].

Tafallan 1.766. urtean bi korrida eman ziren eta hamabi nafar–zezen hil zituzten. Haietako bat, zezentxakurrez menperatu behar izan zuten[3].

Florez elizgizon eta historialari famatua, Iruñera etorri zen 1.766. urtean Baionatik. Zezenak korritzeko erdibitzen zen plazaren berri eman zuen. Baita korridetako xehetasun batzuen berri ere: San Fermin egunez elizkizunez gain bi zezen korritu ziren. Laurogei txistulari baino gehiagok jo omen zuten batera jendeak dantza egin zezan. Biharamunean ere zezenak jokatu ziren. Jende asko bildu zen Gaztela eta Aragoatik ere festetara[91]. Urte hartan Iruñean, bi korrida antolatu zituzten. Aurreko irailean, erregeak baimena eman bait zuen ohizkanpoko korrida bat emateko. Korrida horretan ateratako irabaziak, San Zernin parrokiako Bideko Ama Birjinaren kapera egiteko izango ziren.

San Fermin biharamunean, asteartean, ohizko korrida izan zen. Miguel Miranda Kalagorritarrari erositako 16 zezen jokatu ziren. 27 dukat kostatu zitzaien bakoitza. Goizean bi zezen hil zituzten eta arratsaldean hamar.

Asteazkenean, uztailaren 9an, ohizkanpoko korrida ospatu zen. Horretarako San Zernin

elizako arduradunek Miguel Lopez Salinas ganaduzale ejeatarrari hamar zezen erosi zizkioten 3.490 errealetan.

Urte hartan zaldizko toreatzailerik ez zen izan Gaztelu–plazan. Astorik ere ez zuten alokatu. Iruñeko errotari gazteek ordea, azkeneko zezen bolaztatua hil zuten ezten–hagaz. Zezena bere larru eta guzti eman zieten saritzat.

Oinez toreatzen ibilitako batzuk, hauek izan ziren: Matias Añezkar (120 erreal lehen korridan eta 40 bigarrenean), Joakin Berrueta (Berroeta?) (60 erreal lehen korridan eta 32 bigarrenean), Juan Antonio Blanco (32 erreal eta 8 erreal), Jose Etxeberria *Bergararra* (80 erreal eta 16 erreal), Jose Elizondo (120 eta 40 erreal), Jose Gil (40 erreal bi korridengatik), Pedro Lakarra *Cascarilla* (130 erreal eta 50 erreal), Gregorio Navarro (40 eta 8 erreal), Eugenio Padilla zaragozarra, Manuel Urra (Urantziakoa, *Levadura* izenez ere ezaguna), *Bergarar argala* (120 erreal eta 40 erreal).

Gregorio Navarro hurrengo urteetan ere etorri zen Iruñera toreatzera 1.771. urterarte. Menturaz etorri zen beti eta diru gutxi kobratzen zuen.

Eugenio Padilla zaragozarra, 1.775. urterarte aritu zen Gaztelu–plazan toreatzen. Gutxienez 120 erreal kobratu zituen (1.770.ean) eta gehienez 333 erreal eta 12 marai (1.768.ean)[8].

Matias Serrano eta Manuel Apiñaniz–ek, 440na erreal jaso zituzten. Emeterio, Santiago eta Gaspar Apiñaniz anaiak ere han ziren. Baita Esteban Arostegi ere[92].

1.766.ean Guiena–ko gobernadoreak, Richelieu–ko duke mariskalak, bere agintepeko herri guztietan zezenak debekatu egin zituen. Korrida batzuetan istiluak eta istripu larriak izan zirela eta, zezenfestak erabat debekatu zituen. Barrerekin ala gabe, ez zuen korridarik onartu. 1.767. urtean Akize–k baimena eskatu zion behar bezalako neurriak hartuta korrida emango zutela ziurtatuz, baina Richelieu–ko dukeak ezezko biribila eman zien[1].

Eibarren beste arazo batzuk zituzten zezenetan. Ekainaren 25ean alkateak zenbait pertsona gonbidatzen zuen zezenetan plazatik kanpora irten eta *freskatzera*. Ohitura hori medio, Udalak gastu handiak egiten zituen eta bestetik gonbidatu gabeko pertsona batzuk kexu izaten ziren. Horiek horrela, udalgizonek zera erabaki zuten 1.767.eko urtarrilaren hamaikan: *freskagarriak* plazatik irten gabe toriletan zerbituko zirela eta *freskatu* bitarte horretan zezenen emankizunak etenaldia izango zuela[61].

Arrasaten urte hartantxe, 6.613 erreal gastatu zituen Udalak zezenetan. Horietako 4.500 erreal, Kristobal Guridiri eman zizkioten korridak eta nobillada antolatzeagatik. Hamalau zezen hil ziren Arrasaten 1.767.eko zezenetan. Dirudienez, kotxe–bide berria estreinatzeagatik ohizkanpoko korridak prestatu zituzten arrasatearrek[54].

Iruñeko sanferminetan, ohizko korridaz gain ohizkanpokoa antolatu zuten, aurreko urtean bezalaxe irabaziekin San Zernin parrokiako Bideko Ama Birjinari kapera egin ahal izateko. Hamasei zezen erosi zizkioten Miguel Miranda kalagorritarrari bakoitzagatik 27 dukat ordainduta; 4.752 erreal guztira.

Ohizkanpoko korridarako, zortzi zezen ekarri zituzten; Salamancatik dirudienez. Lau zezen eta joaldun bat, Manuel Almeida–renak ziren eta beste lau eta joaldun bat Antonio Valbuena–renak. Buru bakoitza 770 erreal kostatu zen. Erretorderik ez zegoen urte hartan Iruñean, lehengoa Katalunia–ra bidali zutelako. Horregatik 1.767.eko korridetako zeremoniak ez ziren bestetan bezain

ospatsuak izan. Dena den uztailaren zortziko korrida hasi aurretik bi konpainia soldaduk jendea plazatik kanpora atera zuen, beren eserlekuetara bidaliz. Gero korrida bitartean gizon bat zepotan preso eduki zuten istiluak atera zituelako.

Toreatzaile batzuekin hitzarmena egin zuen Udalak, urtero bezalaxe, eta beste toreatzaile batzuk, menturaz joan ohi ziren. Menturaz joandako batzuk bakarrik onartzen zituzten, eta hitzarmenez joandakoei, ehun-zerrenda bat (tafetanezkoa ohi bezala) ematen zieten. Bi edo hiru erreal kostatu zitzaion Udalari 1.768.ean ehun-zerrenda bakoitza.

Gaztelu-plazan oinez toreatzen ihardundako batzuk, hauek dira: Matias Añezkar kalagorritarra (ehun-zerrendaduna; 100 erreal eman zizkioten lehen korridagatik eta 60 bigarrenagatik), Joakin Berrueta (menturaz joana; 40 eta 20 erreal), Juan Bueno (ehun-zerrendaduna; 200 erreal eta 100 erreal), Frantzisko Ibargoitia gipuzkoarra (ehun-zerrendaduna; 250 erreal guztira), Juan de Dios Mallen (ehun-zerrendaduna; 120 erreal eta 80 erreal), Domingo Sanastrosa (50 erreal eta 30 erreal) eta Blas Bilar aragoarra (menturaz joana; 40 erreal eta 20 erreal). Zaldiz toreatzen Bernardo Jarreta aragoarra eta Manuel la Cruz madrildarra aritu ziren. Jarreta-k, 560 erreal kobratu zituen korrida bakoitzean eta madrildarrak 300 erreal lehen korridan eta 100 ohizkanpokoan[8].

Martintxo izeneko menturaz joandako batek ere, 80 erreal kobratu zituen lehen korridan, eta bigarrenean ez zuen lanik egin[29].

1.768. urtean, Iruñean ohizko eta ohizkanpoko korridaz gain nobillada eman zuten sanferminetako igandean. Zezenkoak Udaleko banderadunak ordaindu zituen[5]. Ohizko korridarako hogei zezen, Aragoako Ejeatik ekarri zituzten, Diego Ventura eta Juan Murillo ganaduzaleei buru bakoitzagatik 28 dukat ordainduta (6.160 erreal guztira). Udalgizonek ez zuten ohizkanpoko korrida antolatzeko berotasun handirik (ezta aurreko urtean ere), eta Ama Birjinaren kaperarako dirua biltzeko asmoz egiten zenez gero, San Zernin edo San Saturnino elizako arduradunek zera aditzera eman zieten udaletxekoei: ohizkanpoko korridaren ordez sariren bat eman zezatela elizako obratarako. Frantzisko Agirre zurginak ordea auzitara jo zuen berak ohizkanpoko korridagatik kobratzeko eskubidea zuela esanez.

Dena den, Diego Ventura ejeatarrari beste 10 zezen erosi (28na dukat pagatuz) eta bigarren korrida jokatu egin zen. 2.977 erreal irabazi zituzten kaperarako.

Urte hartan, erretorde berria zuten Iruñean; Montellano-ko dukea. Gaztelu-plazako toril-etxea, sekula baino apainago zegoen zezenetarako. Txinako bandeja, zilarrezko ontzi, oihal garesti eta luxuzko edergarriz bete zuten.

Hitzarmenez joandako toreatzaileentzat zortzi ehun-zerrenda erosi zituzten 22 erreal eta 28 maraitan.

Gaztelu-plazan toreatzen aritutako batzuk, hauek izan ziren: Frantzisko Arribilaga gipuzkoarra (ehun-zerrendaduna; 166 erreal eta 24 marai irabazi zituen lehen korridan eta 83 erreal eta 12 marai ohizkanpoko korridan), Joakin Berrueta (40 erreal eta 20 erreal), Pedro Calleja kalagorritarra (menturaz joana; 26 erreal eta 24 marai korrida batean eta 13 erreal eta 12 marai kaperakoan), Tomas de Campos zaragozarra (53 erreal eta 12 marai eta 26 erreal eta 24 marai), Sebastian Garcia (ehun-zerrendaduna; 426 erreal eta 24 marai batean eta 213 erreal eta 13 marai bestean), Frantzisko Ibargoitia gipuzkoarra (ehun-zerrendaduna; 250 erreal guztira), Julio Palomo *Gaztelaua* (ehun-zerrendaduna; 300 erreal eta 150 erreal), Gaspar Rodriguez *Gaztelaua* (300 erreal eta 150 erreal), Manuel Uruseta gipuzkoarra (menturaz joana; 40 erreal eta 20 erreal), Blas

Villaragon kalagorritarra (menturaz joana; 33 erreal eta 12 marai batean eta 16 erreal eta 24 marai bestean), eta Mariano Jarreta (menturaz joana; 33 erreal eta 16 erreal).

Zaldiz haga luzez toreatzen, hiru aritu ziren: Juan Garcia alacantearra (720 erreal irabazi zituen korrida bakoitzean), Bernardo Jarreta pozuelotarra (400 erreal eman zizkioten lehen zezena zuariturik atera zelako) eta Felipe Lerma madrildarra (1.600 erreal eta 960 erreal; zaldiak bereak zituen)[8].

Sanferminak igaro ondoren, igeltsero, zurgin eta gazteek San Serafinen omenez zezenfesta antolatzeko baimena eskatuz eskutitza egin zioten Udalari abuztuaren 9an. Zezenfesta irailaren 28an ospatu zuten Gaztelu–plazan[5].

Urte hartan bertan, 1.768.ean, Gaztelako Kontseiluak Arandako kontearen eraginez probintziatako intendenteei zezen eta zezenfestei buruz berriak eskatu zizkien.

Erantzunak dioenez, besteak beste hau esan daiteke Nafarroa eta inguruei buruz: Iruñean, 14 edo 16 zezen hil ohi ziren sanferminetako ohizko korridatan eta ohizkanpokoa ere bazen lehentxeago esan dugunez. Tuteran hamar zezen hiltzen zituzten santiago eta santanatan. Lizarran zortzi zezen hil ohi ziren (ez beti) eta Tafalla, Gares eta Faltzes–en seina zezen.

Ganadutegiak berriz, Miguel Sesmarena Korellan (urria zen), Xabier Arevalorena Alesbes–en, Antonio Ivar Navarro–rena Arnedon (120 behi eta 50 zezen zituen) etab. aipa daitezke. Aragoako Ejean, 1.070 buru ba omen ziren beste 504 zezenez gain.

Zezenfestak Arnedo, Frias, Miranda, Santander, Ampuero, Villaverde, Belorado, Bribieska, Zaragoza, Albarracin, Hueska, eta abarretan ere egiten ziren. Bartzelonan, harresiz kanpo eraikitako zurezko plazan, urte hartan 100 nafar–zezen hil omen zituzten hamar korridatan[19].

Akitanian, Richelieu–ko dukea gogor mantentzen zen zezenfesten kontra. Urte hartan Habas–eko (Akize eta Orthez bitarteko herria da) jendeak debekuari jaramonik egin gabe, korrida ospatu zuen, eta arduradunetako bat, preso hartu zuen dukeak. Horren eraginez, hurrengo bi urteetan ez zen korridarik antolatu Akitanian[1].

1.769. urtean, aurrekoan bezalaxe, bi korrida jokatu ziren Iruñean. Ohizkoa, eta elizako kaperaren alde dirua biltzearren ohizkanpokoa. Argetas–eko Gabriel Gomez Fernandez ganaduzaleari, Udalak hamazortzi zezen eta hirutik lau urterako sei zezenko on erosi zizkion lehen korridarako. Zezen bakoitzari 27 erreal eragin zioten (486 dukat edo 5.346 erreal zezenak guztira). Zezenkoak igandean jokatu ziren.

Ohizkanpoko korrida, uztailaren hamaikan, ohizkoaren biharamunean, jokatu zen asteartez. Elizako arduradunek, Miguel Lopez Salinas Cruzat ganaduzale ejeatarrari hamar zezen erosi zizkioten hogeitazortzina dukatetan. Parrokiak, 3.840 errealeko irabaziak lortu zituen korrida hartan Bideko Ama Birjinaren kaperarako.

Korrida hauetan oinez toreatzen, besteak beste, ondoko hauek ibili ziren: Juan Jose Arroyo Zaragozako errotaria (menturaz joana; 32 erreal irabazi zituen), Jose Barrena tolosarra (menturaz joana; guztira 160 erreal), Pedro Bentabarria (menturaz joana; guztira 32 erreal), Joakin Berrueta (menturaz joana; 32 erreal), Francisco Blanco San Bizente–koa (menturaz joana; 32 erreal), Pedro Calleja kalagorritarra (menturaz joana; 26 erreal eta 24 marai korrida batean Udalak ordaindurik eta 13 erreal eta 12 marai parrokiak ordaindurik), Tomas Campos zaragozarra (70 erreal bi korridatan),

Jose Etxeberria *bergararra* (menturaz joana; 160 erreal), Joan Tomas Galparsoro andoaindarra (menturaz joana; 32 erreal), Jose Antonio Garaga (menturaz joana; 32 erreal), Sebastian Garcia alacantearra (ehun-zerrendaduna; 400 erreal guztira), Alejandro Izquierdo yeclatarra (ehun-zerrendaduna; 320 erreal guztira), Mariano Jarreta pozuelotarra (menturaz joana; 50 erreal guztira), Pedro Lakarra *Cascarilla* (ehun-zerrendaduna), Frantzisko Lakarra (Pedro-ren semea eta menturaz joana; 60 erreal), Juan Lozano albarracindarra (ehun-zerrendaduna; 32 erreal), Juan de Dios Mallen (ehun-zerrendaduna; 300 erreal guztira), Fernando Untzueta (menturaz joana; 32 erreal), Manuel Ureta (menturaz joana; 40 erreal).

Zaldiz eta haga luzez toreatzen, lau aritu ziren Gaztelu-plazan: Gil Garcia alacantearra eta Madriletik etorria (960 erreal eman zizkioten), Juan Garcia alacantearra (1.440 erreal irabazi zituen bi korridatan) Felipe Lerma (960 erreal; zaldiak bereak zituen) eta Diego Lozano sevillarra (1.240 erreal guztira).

Bernardo Jarreta pikatzaileak ere aurrez baimena eskatu zion idatziz Udaleko idazkariari sanferminetara etortzearren, baina ez zioten erantzun.

Oinezko toreatzaileetan, Matias Serrano alesbestarra beti izaten zen (1.760.etik 1.776.erarte urtero) Gaztelu-plazan. Bere toreatzaile-taldea ekarri ohi zuen gainera. 1.769.eko ekainean bestetik, Bartzelonan zen oinez eta zaldiz toreatzen. Toreatzailerik onenetakoa edo onena izan zen alesbestar hau bere garaian[8].

Urte hartan Gasteizen, Elurretako Ama Birjinaren omenetan festak egiten hasi ziren, eta harez gero zezenfestak noiznahi izan dira abuztu hasieran Arabako hiriburuan.

———— o ———— o ————

1.770. urtean, Arrasaten obrak egin zituzten zezenetarako. Barrera berriak, zazpi toril, hamar ate etab.. 1.056 erreal kostatu ziren[54].

Soraluzen, herriko biztanleak haragiz hornitzeko enkantea egin zuten urtarrilaren 21ean. Hornitzaileak, 70 dukateko errenta ordaindu behar zuen harategiagatik errentan (hiltegi zaharragatik). Horretaz gain lau idi ekarri behar zituen festetan korritzeko eta etxeko gela eta balkoia libre utzi behar zizkion Udalari Ama Birjina abuztukoan eta santiagotan. Abuztuko festetarako danbolina ere berak ordaindu behar zuen[34].

Iruñean, ohizkanpoko korridan irabazi handirik ateratzen ez zela eta, korrida bakarra eman zuten. Udalak, ohizko korridan sarreren prezioa altxa egingo zuen, eta gorakadari zegokiona parrokiari emango zion kapera berriko obrak egitekotan. Balkoi bakoitzaren prezioa zilarrezko hamaika errealetan igoko zen eta leiho edo arku bakoitzarena sei errealetan.

Hurrengo bi urteetako ohizko korridetan ere, gauza bere egitea erabaki zuten.

1.770. urtean beraz, ostiralean eta larunbatean bina zezen korritu ziren, igandean zezenkoak (banderadunak ordainduak) eta astelehenean, goizean bi zezen (proba-korridan) eta arratsaldean hamar; hamasei zezen guztira.

Manuel Arevalo alesbestarrak zerbitu zituen hogeitazazpina dukat kobratuta.

Gregorio San Millan bianarrak, azken urteetan ez bezala (1763. urteaz gero) oinezko

lantzakada jo zuen korridan, eta Iruñeko azkena izan zela esan daiteke. Geroztik (1.776.ean eta 1.777.ean) oinezko lantzakada jotzeko baimena eskatu zuen zenbaitek, baina Udaleko arduradunek ezezkoa eman zuten.

1.770. urtean Gaztelu-plazan oinezko toreatzaile batzuek beren trebetasunak erakutsi zituzten. Matias Serrano alesbestarraz gain, hona hemen batzuen izenak eta kobratu zutena: Matias Añezkar *Pasteleroa* (menturaz joana; 50 erreal), Frantzisko Arribilaga (ehun-zerrendaduna; 120 erreal), Joan Jose Arroiabe *Urantziako ezkerra* (ezpataria; 200 erreal), Jose Baracha madrildarra (menturaz joana; 80 erreal), Eusebio Blanco San Bizente-koa (ehun-zerrendaduna; 120 erreal), Tomas de Campos zaragozarra (menturaz joana; 40 erreal), Joaquin Casala zaragozarra (menturaz joana; 50 erreal), Joan Txabarri Arabako Bastidakoa (menturaz joana; 40 erreal), Pedro Gomez naiararra (menturaz joana; 32 erreal), Frantzisko Ibargoitia gipuzkoarra (ehun-zerrendaduna; 120 erreal), Mariano Jarreta (menturaz joana; 32 erreal), Frantzisko Lakarra harotarra (menturaz joana; 50 erreal), Juan de Dios Mallen (120 erreal), Manuel Urra *Levadura* urantziarra (ehun-zerrendaduna), Anbrosio Baldibielso burgostarra (ehun-zerrendaduna; 120 erreal) eta Jose Belasko kalagorritarra (50 erreal).

Bi pikatzailek lan egin zuten urte hartan Iruñeko sanferminetan: Manuel la Cruz madrildarrak (360 erreal) eta Diego Lozano sevillarrak (1.240 erreal)[8].

1.770.eko urte hartan, euskal deiturazko beste toreatzaile batek Peru-ko Lima hiriburuan banderilak sartzen lan egin zuen; Toribio Muxika-k hain zuzen[73].

1.770.ean, Akize-n (uztailaren 15ean) eta Martzana-ko Roquefort-en (abuztuaren 15ean) zezenfestak debekatu egin zituzten Richelieu-ko dukearen aginduaren arabera[81].

1.771. urtean, korrida bakarra antolatu zuten Iruñean sanferminetarako. Manuel Arevalo Ibero ganaduzale alesbestarraren hamasei zezen ekarri zituzten horretarako, buru bakoitzagatik 27 dukat ordainduta. Lau urteko lau zezenko ere ordaindu zituen Udaleko banderadunak ohizko nobilladarako.

Zezenak toreatzen Frantzisko Arribilaga gipuzkoarra (120 erreal), Eusebio Blanco (120 erreal), Tomas de Campos (40 erreal), Joaquin Casala (120 erreal), Joan Txabarri (120 erreal), Antonio Fernandez kalagorritarra (40 erreal), Juan Fernandez (120 erreal), Tomas Galparsoro andoaindarra (40 erreal), Sebastian Garcia (50 erreal), Frantzisko Lakarra (80 erreal), Juan de Dios Mallen (120 erreal), Gregorio San Millan (40 erreal), Juan Jose Sorete logronioarra (24 erreal), Manuel Urra *Levadura*, Jose Belasko (50 erreal), Jose Zarola kalagorritarra (40 erreal) etab. ibili ziren.

Pikatzaile-lanetan Gaztelu-plazan aritu zirenak, hauek ditugu: Gil Garcia alacantearra (1000 erreal), Lorenzo Garcia (600 erreal) eta Juan Ortega cadiztarra (700 erreal).

Uztailaren 8an (astelehenez) emandako korrida honetan, azken zezena bolaztaturik atera zuten errotari iruindar gazteek lantzaz hesia eginda hil zezaten. Adarpuntetako bi bola hautsi zituen zezenak, eta berriak egitea 8 erreal eta 18 marai kostatu zen[8].

Akitaniako Landetan, Richelieu-ko dukea 1.771.ean kanpoan zela eta, zezenfestak antolatu zituzten Akize, Mendi Martzana, Villeneuve, Aire, Hagetmau eta Cazères-en. Dukea itzuli zenean, zigor zorrotzak ezarriko zituela esanez mehatxu egin zien. Ez zuen ordea korridak erabat deuseztatzerik lortu, nahiz eta Udaletako arduradunek berri eman eta antolatzaileak zigortu[1]. Urriaren

16an gutun gogorra bidali zuen dukeak herri desberdinetara[81].

Azpeitian urtero ospatu ohi zuten nobillada saninaziotan inguruko zezenkoak jokatuz. 1.771.ean ordea ez zen antolatu herrian *misioak* zeudelako. Baina hurrengo urtean, 1.772.ean, Udalak Nafarroako sei zezen erosi, bi toreatzaile kontratatu eta korrida ematea erabaki zuen. Jose Enparan eta Manuel Maria Altuna udalgizonak arduratu ziren horretaz. Bizkaitik bederatzi idi ere ekarri zituzten, joaldun gisa erabiltzeko edo[23].

Iruñera korridarako Miguel Lopez Salinas ejeatarraren hamasei zezen etorri ziren. Hogeitabederatzi dukat kostatu zen bakoitza; 5.104 erreal guztira. Uztaileko sanferminetan ordea, euri asko egin zuen eta aldaketak egin behar izan zituzten. Azkenean, zezenak egun hauetan jokatu ziren: uztailaren 6an bi zezen, 7an eta 8an euria egin zuen, uztailaren 9an (ostegunean) goizean lau zezen probarako eta arratsaldean hamar. Asteartean, banderadunak ordaindutako bost zezenko plazaratu zituzten[8]. Den dela banderadunak gastu handiegiak egin ez zitzan neurriak hartzen hasiak ziren jadanik udalgizonak. Gorpuzti egunean adibidez, ez zioten gasturik egiten utzi[5]. Sanjoanetan, izen bereko parrokiako gazteek zezenak korritu zituzten zaindariaren omenetan[3].

Dena den, uztaileko korridara toreatzaile ugari bildu zen. Matias Añezkar (100 erreal), Frantzisko Arribilaga (120 erreal), Juan Jose Arroyo (32 erreal), Francisco Brube alfarotarra (32 erreal), Joaquin Casala (80 erreal), Joan Txabarri (32 erreal), Manuel Diez kalagorritarra (menturaz joana; 32 erreal), Antonio Fernandez (32 erreal), Jose Gil (32 erreal), Frantzisko Ibargoitia (120 erreal), Frantzisko Lakarra (80 erreal), Juan de Dios Mallen (100 erreal), Tomas Onsalo bergararra (ehun-zerrendaduna; 80 erreal), Pedro Palomo sevillarra (200 erreal), Matias Serrano (300 erreal), Ignacio Rubio Zaragozako Munegreba-koa (32 erreal), Gregorio San Millan (32 erreal), Manuel Urra (100 erreal baino gehiago), Jose Belasko (32 erreal) eta Jose Zarola (32 erreal) izan ziren oinez lan egindakoak[8]. Santiago Apiñani kalagorritarra azken aldiz izan zen Gaztelu-plazan. 32 erreal jaso zituen[29]. Zaldizkoak berriz, Gil Garcia (600 erreal), Lorenzo Garcia (800 erreal) eta Diego Lozano (1.280 erreal) izan ziren.

Lorenzo Garciak eskea egin zien udalgizonei, hiru zaldi (bi beltz eta gaztainkara bat) plazan zezenek hil zizkiotelako diru gehiago eman ziezaioten. Lehen eskabideari ezezkoa eman ondoren, bigarrena egin zion udalari[8].

Nafarroako Erret Kontseiluak, urte hartako uztailaren seian agindu bat argitaratu zuen Nafarroan sokamuturra debekatuz. Debekuak zioenez, Azkoien-en ezkondu- eta gazte-koadrilek zezenak zituzten sokarako. Sokamuturra urteko egunik seinalatuenetan egiten omen zuten elizkizunei oztopo eginez eta ardoaren eraginez kalte handiak sortuz. Azken lau urtetan bost hildako suertatu omen ziren sokamuturretan[3]. Noizean behin eta alkate eta udalgizonen baimenaz, itxitako plazetan zezenkoak joka zitezkeen, baina gehiegikeriarik gabe. Bestela udalgizon bakoitzari 50 liberako isuna ezarriko zitzaion[5].

1.772.eko urte hartan Joan Bautista Ituarte *Bizkaitarra* (*Vizcaíno*) izeneko arponaria Buenos Aires-en toreatzen aritu zen[22]. Aipatzekoa da XIX. mendeko Antonio Iturarte *Zapataritxoa* izeneko toreatzaile debarrak Joan Bautista izeneko aitona zuela eta Buenos Aires-en ibilitako hauxe izango zela.

Gaskonia aldean, Richelieu-ko dukeak etsi egin zuen zazpi urtez zezenfestak debekatzen ihardun ondoren. Herritarren ohitura eta zezenzaletasuna kontutan harturik, 1.773. urteko martxoaren 30ean ordenantza bat argitaratu zuen, Mendi Martzana, Akize, Tartas eta Saint-Sévère-n zezenplaza biribilak eraikitzeko baimena emanez. Barrera eta eserleku egokiak

izango zituzten plaza haiek. Beste herriren batek plazarik egin nahi bazuen, baimena eska zezakeen[1].

Armagnac-eko jendearen nahiaren kontra joan ezin zuelako zezenfestak inoiz onartzera behartua izan zen Richelieu-ko dukea[74]. Mugron-en berriz, goardiek zezenfestak antolatutakoak ez zituzten atxilotu, jendeak babestu zituelako[81].

1.773. urtean, Hernanin sanjoanetan, nafar-zezenez korrida ematea pentsatu omen zuten. Apezpikuak ordea, debekatu egin nahi zuen zezenfesta, eta Erret Kontseiluko Manuel Ventura Figueroa gobernadoreak debekua bidali zien.

Herriko alkateak orduan, berehala idatzi zien kontseilukoei, sekuladanik zezenkoak urtero korritzen zituztela esanez. Urte hartan ere, beti bezala inguruko zezenkoak jokatuko ziren eta 1.755.ean Fernando VI.ak baimena emanez jaso zuten aginduaren kopia bidali zieten Erret Kontseilukoei[48].

1.773.eko urte hartantxe, Azpeitiko udalgizonek festetarako zezenko eta idiak ekartzea erabaki zuten. Nafarroatik ala lekurik egokienetik ekarriko zituzten festak luzimenduz egitekotan[23].

Iruñeko sanferminetarako, Manuel Arevalo Ibero ganaduzale alesbestarraren hamasei zezen etorri ziren. Bakoitza 26 dukat kostatu zen; 416 dukat edo 4576 erreal guztira.

Korridara, Francisco Bucarelli Ursua erretorde berria joan zen lehen aldiz. Astearte eta asteazkenean, bina zezen jokatu zituzten Gaztelu-plazan, eta ostegunean, goizean bi (probarako) eta arratsaldean hamar. Uztailaren 7an (asteazkenean) gainera, Manuel Beramendi banderadunak ordaindutako sei zezenko korritu ziren.

Oinez toreatzen ihardun zuten batzuk, ondokoak dira: Antonio Allo, Urantzian bizi zena (32 erreal), Pedro Amar beste bost lagunekin (360 erreal denentzat), Matias Añezkar (48 erreal), Eusebio Blanco (180 erreal), Joaquin Casala (100 erreal), Joan Txabarri (32 erreal), Antonio Fernandez (32 erreal), Joan Tomas Galparsoro, andoaindarra (32 erreal), Jose Gil (32 erreal), Pedro Gomez (32 erreal), Frantzisko Ibargoitia (120 erreal), Frantzisko Lakarra (48 erreal), Joan Larraia urantziarra (48 erreal), Juan de Dios Mallen (32 erreal), Juan Molina Ocaña-koa eta zezen gainetik saltatzen zuena (24 erreal), Tomas Onsalo bergararra (48 erreal), Roke Rexer arroniztarra (32 erreal), Juan Rubio (32 erreal), Juan Jose Sorete (32 erreal), Manuel Urra (100 errealetik gora), Anbrosio Baldibielso (ehun-zerrendaduna eta ezpataria; 160 erreal), Eugenio Padilla zaragozarra (160 erreal), Matias Serrano (280 erreal) eta Jose Belasko (32 erreal).

Pikatzaile-lanetan, Julian Martin aritu zen Madriletik etorrita. Arratsaldeko korridan bakarrik lan egin zuen eta 640 erreal irabazi zituen. Hiru zaldiz baliatu zen eta bat hil egin zion zezenak. Juan Martin-ek eskabidea egin zion Udalari diru gehiago eskatuz, miseria gorrian zegoela esanez. Ez zioten ordea beste ezer eman.

Zezenetarako, Joakin Iraolak bi txotxongilo prestatu zituen; barruan hegaztiak edukitzeko moduko txotxongiloak. Zezenak txotxongiloa purrukatutakoan ateratzen ziren hegaz animaliak barrutik. Iraolak 56 erreal irabazi zituen bere lanagatik.

Korridako azken zezena, hamargarrena, Iruñeko errotari gazteek hil zuten lantzaz ohi bezala. Zezen hura, soldadu granadariei eman zieten eta errotariei 30 pezeta.

Kristobal Melero eta bere lagunek, Gaztelu–plaza ureztatu egin zuten eta horregatik 25 erreal t'erdi jaso zituzten.

1.774. urtean, Iruñera bi tokitatik etorri ziren zezenak sanferminetarako. Miguel Lopez Salinas ejeatarrak hamaika bidali zituen hogeitazazpina dukat kobratuta, eta Manuel Orobio alfarotarrak beste hamaika prezio berean. Manuel Fernandez Mihura banderadunak ordainduta, Orobio–k beste lau zezenko ere bidali zituen igandean korritzekotan.

Ejeako zezenak, Eskirotz–en eduki zituzten entzierro–egunerarte, eta Alfarokoak Mutiloa–Beiti–n. Ganaduzale desberdinen zezenak aparte edukitzen ziren (orain ere bai) noski, elkarren arteko zezen–burrukarik egon ez zedin. Miguel Lopez–en zezen bat Eskirotz–en elbarritu egin zelako, tiroz hil eta lurperatzeko premia izan zuten. Beste zezen bat, Gaztelu–plazan bertan ezpataz hil behar izan zen, mugitu ere egiten ez zelako. Larrutu zutenean barruan gaixotasunaren arrastoak aurkitu zizkioten eta lurperatu egin zen hura ere.

Tiroz hildako zezenaren ordez, Fernandez Mihura banderadunaren zezenko bat atera zuten plazara, eta Udalak banderadunari 19 dukat eta 7 erreal (216 erreal) eman zizkion.

Errotarientzako zezena bolaztatu behar zela eta, ez Orobiok eta ez Lopezek, ez zuten beren zezenik horretarako utzi nahi. Azkenean zozketa egin eta Orobioren bat bolaztatu zuten.

Korrida hasi baino lehen erretorde, udalgizon eta gainerako agintariak plazara sartu ziren ohizko solemnitatez. Urte hartan (1774.ean), Valentzia, Nafarrate eta Agoizeko dantzariak agintarien kotxe ingurutan sartu ziren, aurrean musikariak zihoazelarik. Erretordearen emazte eta familiari, lau balkoi eta bi arkupe eskaini zizkieten, handik zezenak ikus zitzaten. Gobernadore, Erret teniente eta Sarjento Nagusiari, balkoi bana.

Korrida eten egin zen erdi aldera ohi bezala askarian freskagarriak hartzeko. 773 erreal eta 7 marai kostatu zen agintarien atsedenaldi hura.

Oinez toreatzen, hauek aritu ziren: Pedro Antonio Alba urantziarra (40 erreal), Antonio Allo (80 erreal adarkatua izan zelako), Matias Añezkar (100 erreal), Frantzisko Arribilaga (160 erreal), Joan Jose Arroiabe (200 erreal), Eusebio Polanco (160 erreal), Tomas Campos (50 erreal), Joaquin Casala (140 erreal), Matias Corres, Zaragozako Cardenas–ekoa (50 erreal), Joan Tomas Galparsoro (32 erreal), Francisco Gomez (200 erreal), Frantzisko Ibargoitia (160 erreal), Antonio Labari, Arabako Bastidakoa (40 erreal), Pedro Lakarra *Cascarilla*, Frantzisko Lakarra (100 erreal), Andres Lopez Alda urantziarra (32 erreal), Juan de Dios Mallen (120 erreal), Tomas *burusigilea* (50 erreal), Tomas Onsalo eta beste bi gipuzkoar (120 erreal), Frantzisko Orube kalagorritarra (30 erreal), Eugenio Padilla, Ignacio Rubio (60 erreal), Gregorio San Millan (50 erreal), Vicente Sanchez Mantxa–koa (120 erreal), Matias Serrano, Juan Jose Sorete (32 erreal), Jose Belasko (32 erreal)[8] eta Emeterio Apiñani (50 erreal).

Hauetako toreatzaile askok, aurreko urtean baino gehiago kobratu zuten. Baliteke hori lana ondo egiteagatik izatea, baina baita zezen gehiago toreatzeagatik izatea ere. Aurreko urtean 16 zezen jokatu bait ziren, eta 1.774.ean 22.

1.774.eko zaldizko toreaketan, hauek aritu ziren haga luzez pikatzen: Manuel Aguilera cadiztarra (100 peso edo 800 erreal) eta Diego Lozano (1.600 erreal). Bi hauek kontrataturik etorri ziren Madriletik, eta goiz eta arratsaldez pikatu zituzten zezenak. Hiru zaldi hil zizkieten.

Gil Garcia eta Julian Martin pikatzaileak menturaz joan ziren Iruñera eta badaezpada ere erreserban egon ondoren, Udalak 20 peso edo 160 erreal eman zizkion Julian Martini. Gil Garciari 25 peso edo 200 erreal.

Baina harrigarriena, zera izan zen: zaldizko toreaketa-lanetarako Francisca Garcia emakumea aurkeztea. Izan ere Motrileko andere honek uztailaren bian eskea egin zion Udalari. Zezenei zaldiz burtzitxoak sartzen hamar urtez aritua omen zen Cadiz, Valentzia, Murcia, Granada eta abarretan.

Bere senarra, Francisco Gomez, oinezko toreatzailea zen eta hari 200 erreal eman zizkioten. Emazteari ez zioten utzi plazaratzen.

Zezenak urte hartan, sei egunetan korritu ziren. Guztira 21 zezen eta zezenko bat hil zituzten plazan, eta haiek mandakoz arrastatuz ateratzeagatik 130 erreal kobratu zituen Jose Escobar mandazainak[8].

Urte hartan, 1.774.ean, Antonio Lekunberri Virto ganaduzaleak bere behi- eta zezen-taldeak Frantzisko Xabier Gendulain tuterarrari saldu zizkion[3]. Beste batzuen eritziz, hurrengo urtean erosi zuen Gendulainek Lekunberriren ganadu-taldea[79].

Zestoako udaletxean urte hartan, 1.774.ean, plazarako barrera berriak egitea erabaki zuten. Azpeitikoak bezalakoak izango ziren gainera[75].

Tolosan, zezen bolaztatuak, dantzak eta beste jolasak antolatzen zituzten gauez, eta 1.774. urtean Probintziako korrejidoreak Erret Kontseiluko Gobernadorearen agindua jakin erazi zion Udalari; behin ilunduz gero dantza, zezen bolaztatu eta abarrik ez zedila egon, gehiegikeriak egiten zirelako[93].

———— o ———— o ————

1.775. urtean, Iruñeko Udalak Pedro Florentzio Sarasa Ebro aldera bidali zuen, hango ganadutegietako zezenak azter zitzan. Nafarroatik kanpo, Alfaro, Arnedo, Kalagorri eta Ejea bisitatu zituen; Ejean hiru ganadutegi hain zuzen[3]. Nafarroako Alesbes-en, Manuel Arevalok 40 zezen baino gehiago zituen; denak bikainak eta haietako 14 Zaragozako korrida baterako salduak. Beste 14 ere eskatu zizkiotela dirudi. Argetas-en Gabriel Gomez-ek hamar zezen eder zituen. Gainerakoak gazteak eta argalak. Tuteran, Frantzisko Xabier Gendulainek Madrilera 20 zezen bidaliak zituen eta beste 12 Tuterako korridarako gorderik zeuzkan. Gainerakoak gazteak ziren.

Alfaron, Manuel Orobio-k oso ganadu gaztea eta argala zuen. Arnedon, Antonio Navarro-ren alargunak ganadurik ez zuen. Bere zezen guztiak Madrilera bidaliak zituen, eta eskeari erantzutearren, besteri erositako bi zezen ere bidali zituen. Kalagorrin, Crisanto Mirandak abere gazteak eta gutxi zituen, eta ez zeuden salgai. Ejean, Diego Venturak 14 zezen Zaragozarako aginduak zeuzkan. Gainerakoak, gazteak eta argalak ziren. Ejeako Juan Murillo Compainiak, 10 zezen zituen itxurazkoak. Gainerakoak gazteak eta argalak.

Miguel Lopez Salinas ejeatarrak, berrogeiren bat zezen zeuzkan. Hamalau sanferminetarako aukeratu ziren, baina Madriletik ere eskea izateko modua zegoenez, Udalak hogei zezen eskatu zizkion Lopez Salinasi. Ganaduzale honek, hogei zezenen ezaugarriak bidali zituen Iruñera. Hauek ziren zezenen izen eta ezaugarriak:

1. *Atrevido*. Beltza, adarmotza, kopeta gorriluna.

2. *Bonete*. Gaztainkara argia, kopetabeltza, muturra marrabelztun gorrilun samarra
3. *Lancetero*. Gorria, muturluzea, itxura onekoa.
4. *Panigua*. Beltza, adarmotza.
5. *Galgo*. Gorria, muturluzea, itxura onekoa.
6. *Perdigon*. Beltza, bizkarrean gerri zuria, itxura onekoa.
7. *Malos Aires*. Beltza, zerrenda zuria bizkarrean, mutur eskasa.
8. *Rebote*. Horiska, lau begi.
9. *Roncalés*. Beltza, adakera onekoa, orban nabarra bizkarrean.
10. *Soldado*, Horiska, begibeltza.
11. *Zedareno*. Beilegia, adarzuria.
12. *Carbonero*. Beltz fina. Satai onekoa.
13. *Libertado*. Gorriluna, muturbeltza, aurrera–adarduna.
14. *Tornillo*. Beltza, ardarluzea, kopeta gorriluna.
15. *Artillero*. Beltza, bizkarnabar samarra.
16. *Valenciano*. Gorriluna, muturbeltza, adarluzea.
17. *Reformado*. Beltza, muturralaia.
18. *Campana*. Gorriluna, muturbletza, adarluzea.
19. *Corchete*. Gorriluna, begibeltza, muturnabarra.
20. *Borneado*. Gorriluna, beltziska, satai onekoa.

Eskainitako hogei zezen hauetatik, lehen hamalauak erosi zituzten iruindarrek hogeitabederatzina dukat ordainduta. Beste sei zezen Juan Murrillo–ri hartu nahi izan zizkioten, baina honek ez zizkien saldu Lopez Salinas–ekin gaizki konpontzen zelako.

Azkenean, Ejeako Pedro Aguero ganaduzaleari erosi zizkioten falta ziren sei zezenak hogeitabederatzina dukat ordainduta (174 dukat edo 1.914 erreal guztira)[8]. Zezenak, sei urte betegabekoak ziren, eta Iruñean sei urtekoak korritzeko ohitura zegoen. Baina urte hartan lehortea izan zuten eta epizootia izeneko izurritea ere bai, eta zailtasunak zeuden gustoko ganadua aukeratzerakoan. Dena den, Lopez Salinas eta Agueroren zezenak honela jokatu zituzten: uztailaren 6an (ostegunean) bi zezen, 7an beste bi, 8an beste bi, 9an beste bi eta 10ean bi goizean (probarako) eta hamar arratsaldean.

Hogei zezen hauek, erregalo partitu zituzten plazan toreatu eta hil ondoren. Bost errukietxeak jaso zituen, bi Dotrinako umeek, bi kaputxinoen komentuak eta bana ondoko hauek: San Frantzisko komentuak, gartzelako presoek, Justizi tenienteek, turutariek, Irlanda errejimentuko tropak (plazatik jendea ateratzeagatik edo *despejo*agatik), Domingo Beunza zurginak, Biurdana–ko errotari gazteek (zezen bolaztatua lantzaz hiltzeagatik) eta abel hiltzaileek (zezen bati zakurrak botatzeagatik)[94].

Urte hartan, toreatzaile asko etorri zen Iruñera lanera. Plaza aurrez, ureztatu egin zuten. Hitzarmena eginda toreatzera, ondoko hauek joan ziren eta ehun–zerrendaz plazaratu ziren (Tafetanezko 8 ehun–zerrenda 16 erreal kostatu zitzaizkien):

– Matias Serrano, Alesbesekoa, ezpataria	240	erreal
– Anbrosio Baldibielso, Burgosekoa, emandako zezena barne	320	"
– Antonio Campos malagatarra, ezpataria (erdi–mailakoa)	200	"
– Joan Jose Arroiabe, Urantziako *ezkerra*, ezpataria	200	"
– Vicente Sanchez, Nagusia, Mantxakoa, ezpataria (gauza handirik ez)	100	"
– Eugenio Padilla, Zaragozakoa, ezpataria	240	"
– Joan Apellaniz, Alesbesekoa	80	"

– Frantzisko Ibargoitia, gipuzkoarra	80	"
– Frantzisko Arribilaga, gipuzkoarra	80	"
– Frantzisko Lakarra, Haro–koa, *Cascarilla txikia*	53	erreal 40 marai
– Joaquin Casala, Zaragozakoa	80	erreal
– Vicente Sanchez, gaztea, malagatarra (erdi–mailakoa)	80	"
– Ignacio Rubio, Munegreba–koa (erdi–mailakoa)	50	"
– Juan de Dios Mallen (ezer gutxi)	40	"

Zerrendako Joan Apellaniz, Kalagorriko Joan Apiñani–ren semea zen; Goiak hagaz zezenaren gainetik saltatzen marraztutakoaren semea. Matias Serrano toreatzaile alesbestar famatuaren Maria Santos alabarekin ezkondua zegoen[8].

Bere osaba Emeterio Apiñaniz *Bicoca* ere han zen toreatzen. 21 erreal eta 9 marai bakarrik kobratu zituen eta Udal–idazkariaren ustetan, baliorik gabeko toreatzailea zen[29].

Emeterio bezala menturaz joanda toreatu zutenak, hauek izan ziren: Pedro Antonio Alba urantziarra (ezgauza, 20 erreal), Matias Añezkar (ezgauza, 32 erreal), Joan Antonio Azkarate logronioarra (erdi–mailakoa, 80 erreal), Julio Antonio Balera palentziarra (ezgauza, 32 erreal), Mariano Ceballos *Indiarra* (*el Yndio*), Bernardo Txabarri Bizkaiko Markinakoa (ezgauza, 32 erreal), Jose Gil valentziarra (ezgauza, 10 erreal eta 32 marai), Francisco Gomez (Francisca Gonzalez pikatzailearen senarra, ezgauza; 21 erreal eta 9 marai), Mateo Gomez (Franciscoren anaia, ez gauza; 21 erreal eta 9 marai), Jose Hualde aragoarra (ezer gutxi; 40 erreal), Vicente Lara *Chispero* madrildarra (Ceballos *Indiarra*ren morroia, ezgauza; 40 erreal) Gabriel Lezca zamorarra (erdi–mailakoa; 50 erreal), Andres Lopez Alda urantziarra (ezgauza; 20 erreal), Tomas Onsalo bergararra (ezgauza; 32 erreal), Baltasar Ortega palentziarra (erdi–mailakoa; 50 erreal), Juan Jose Sorete logronioarra (ezgauza; 32 erreal), Manuel Urra *Levadura* urantziarra (ezgauza; 50 erreal), Jose Belasko *Matatxa* Kalagorrikoa (ezgauza; 21 erreal eta 9 marai) eta Jose Zuazola kalagorritarra (ezgauza; 21 erreal eta 9 marai). Zaldiz pikatzen, Gil Garcia alacantearra (nahikoa ondo pikatu zuen eta 800 erreal irabazi zituen) eta Julian Martin madrildarra (ezgauza; 640 erreal) aritu ziren.

Urte hartan nahikoa harrigarria gertatu zen Mariano Ceballos *Indiarra*k (Goia pintatzaileak marraztu zuenak) Udalari egindako eskea. Gaztelu–plazan lan egiteko baimena eskatzen zuen, zezen–hiltzailea zela esanez. Gainera banderilak oinez eta zaldiz sartzen zekien. Zaldiz bestetik, sokaz zezena lotu eta bere gainera pasatuz kitarra joko zuen. Gero, zezen baten gainetik beste bat pikatuko zuen eta azkenean, bi zezenak hilko zituen.

Ceballos–ek, uztailaren 10eko korridan parte hartu zuen. Zaldiz txuliatzen aritu zen. Gero zalditik sokaz zezen bat lotu eta zela ipinita haren gainetik beste zezen bat pikatu ondoren biak hil zituen. Dena ondo atera zitzaion. Gero oinez toreatu eta ezpataz hil zuen zezena, baina horretarako ez zuen trebetasun handirik erakutsi. Mila erreal eman zizkioten.

Bere morroi zen Vicente Lara–k, gero Madrilen bizkar gainean beste toreatzaile bat hartu eta zezena pikatu zuten. Larak kapa erabili zuen eta gainekoak ezten–haga. Goiak bere akuaforte batean erakusten du lantzea.

Joan Etxegoien toreatzaileak ere eskabide xelebrea bidali zuen udaletxera. Hark zioenez, plazan toriletik zortzi urratsetara bi zutabe ipini, biak sokaz lotu eta han erditik hanka batetik zintzilik banderilak sartuko zizkion zezenari. Udalgizonek ezezkoa eman zioten[8].

Francisca Garcia–k ere baimena eskatu zien zaldiz burtziak eta banderilak sartzeko eta baita

zaldiz txuliatzeko ere. Madril, Lisboa, Tutera eta Lizarran adibidez, arrakasta lortua zuela zioen. Dena dela, ezezkoa eman zioten emakume zaldun honi ere[94].

8.7. irudia. Ceballos *Indiarra* zezen baten gainetik beste bati Madrileko plazan burtziak sartzen. Goiaren akuafortea.

1.776. urtean, Iruñean sanferminetan beti bezala antolatu zituzten zezenak. Baina irailean, ohizkanpokoa ere prestatu zuten San Zernin parrokiako arduradunek, Bideko Ama Birjinaren irudia bere tronoan ipini zutela eta.

Sanferminetarako, Manuel Orobio alfarotarrak 16 zezen bidali zituen Eskirotz-eko zelaietara. Buru bakoitza 30 dukat kostatu zen (5.280 erreal guztira). Ama Birjinaren kaperako obrak estreinatzeko, San Zernin parrokiakoek zortzi zezen Salamancatik eta beste zortzi Aragoako Ejeatik ekarri zituzten. Irailaren 3an bi zezen hil eta hiru zezenko korritu ziren. Irailaren 4ean beste horrenbeste gertatu zen eta 5ean, goizean bi zezen (probarako) eta arratsaldean hamar plazaratu zituzten[8].

Sanferminetarako, Udalak Gaztelu-plazako etxeen balkoi eta arkupeen inbentarioa egin zuen. Etxe bakoitzaren jabea eta zezenak ikusteko erabil zitezkeen balkoi eta arkupeak zerrendatu zituzten. Guztira, 150 balkoi eta 64 arkupe zeuden. Udalak, balkoi eta arkupetako prezioak ezartzen zituen[53].

Korridarako plaza ureztatzeagatik, Jose Fescano eta bere lagun aragoarrei 31 erreal eta 31 marai eman zizkieten.

Uztailaren 6an, Gregorio San Millan Bianako toreatzaileak baimena eskatu zien udalgizonei oinezko lantzakada jotzearren. Ezezkoa eman zioten, eta dirudienez zaharkitutzat hartzen zen jadanik lantze hura.

Oinezko toreatzaileei buruz, udalgizonek aurreko urteko eskarmentua zuten. Toreatzaile

gehiegi ibilia zen plazan, eta gehienak eskasak ziren. 1.776.ean beraz, Matias Serrano alesbestarrari eta Anbrosio Baldibielso burgostarrari bakarrik dei egin zieten, bien artean gehienez bederatzi edo hamar laguntzaile on ekar zitzaten. Matias Serranok gainera, azken urtea izan zuen hura Gaztelu-plazan, bere adina medio.

Baldibielso-ren koadrilan Felipe Muñoz zamorarra etorri zen; toreatzaile ezpataria ofizioz. Antonio Remirez granadarrak ere bere taldearekin lan egin zuen sanferminetan.

Dena den, Matias Serrano, Anbrosio Baldibielso, Antonio Remirez eta beren koadrilek guztira 3.295 erreal kobratu zituzten.

Zezenak pikatzera Diego Lozano sevillarra eta Manuel Rendon etorri ziren Madriletik. Goizean bi zezen eta arratsaldean bost pikatu zituzten uztailaren 8an. Bakoitzak urrezko 40 dobloi edo 1.280 erreal kobratu zituen.

Manuel Rendon, Goiak marraztu zuen, eta akuafortean Madrileko plazan zezena pikatzen ikus daiteke. Del Campo zezenzaleak dioenez, 1.777.ean hil zen Madrilen Rendon, plazan zalditik erorita hartu zuen kolpearen ondorioz.

1.776.ean, Lorenzo Garcia alacantearra ere etorri zen zezenak pikatzeko asmoz, baina ez zioten plazaratzen utzi. Dena den azkenean, 50 erreal eman zizkioten bidai gastutarako[8].

Uztailaren batean, Madrileko plazan Frantzisko Xabier Gendulain-en zezenak korritu zituzten, lepa gainean dibisa larua zeramatela. Kolore bera zeramatela plazaratu ziren uztailaren zortzian leku berean Miguel Miranda kalagorritarraren zezenak[46].

Azaroaren hamazortzirako, Alcala-ko portalearen ondoan zegoen Madrileko plaza famatuan, Gendulain tuterarraren zezenak iragarri zituzten berriro. Uztailean eta azaroan jokatu ziren beraz Frantzisko Xabierren abereak. Dibisa larua atera zuten beste lau nafar-zezenek[95].

Uztailaren 18an, Faltzeseko toreatzaile bat aurkeztu zen Madrileko plazara lanera: Santiago Alargunsoro Soltxaga (*Argosórum* dio Nestor Lujan-ek[41] eta *Argonsorum* Cossio-k[22] adibidez. Zein gaizki transkribatzen dituzten euskal deiturak!).

Alargunsoro, nekazari eta toreatzaile zen. Madrilen jakatxo, gerrontze eta sudur-zapia bi eskuez helduta txuliatuko zuela agintzen zuen. Gero, makulutxo baten laguntzaz ezpataz hilko zituen zezenak ohi bezala. Hiriburu desberdinetan jadanik arrakasta lortua zuela zioen Madrilen aurkeztu zenean[22].

Garai hartan dirudienez, Parisen ere jokatu ziren nafar-zezenak. Parisen, Aranda-ko kontea zegoen Espainiako Karlos III.aren enbaxadore (1.773.etik 1.787.erarte). Dirudienez, eztabaidaren bat izan zuen zezenfestez Frantziako hiriburuan, eta Andalusiatik zezenak eraman zituen. Bidaiaren bukaeran ordea, zezen andalusiarrak erabat jota zeuden eta barregarri gelditu zen kontea.

Orduan, Tutera eta Ejeatik eraman zituen konteak zezenak Parisera bertako belarrarekin batera. Parisen, lehen korridan bezalaxe Laplais izeneko bat ausartu omen zen toreatzera, baina zezenak harrapatu bide zuen.

Orduan Aranda-ko konteak, frantziarrik ausartzen ez zela ikusita, bere lekaioei agindua eman zien zezenak toreatu eta hil zitzaten. Eta horixe egin zuen morroi-jantzian plazaratu zen

toreatzaile–koadrilak[3].

Tolosan 1.776.ean, zezenak izan zituzten sanjoanetan, bi urtez debekua errespetatu ondoren[93].

Baina urte hartantxe soraluzetarrei Gaztelako Erret Kontseiluko gobernadoreak (Manuel Ventura Figueroa–k) Probintziako korrejidorearen bitartez zezenak debekatuz abisua bidali zien. Nafarroako zezen edo zezenkoak ekainean korritzekotan zirela jakin zuen eta bere baimenik gabe ez zegoen ez Soraluzen eta ez Probintziako beste edozein herritan zezenak antolatzerik, kalteak sortzen zirela eta.

Soraluzetarrek dena den, Ama Birjina abuztukorako baimena eskatu zioten. Nafarroako zezenkoak korritu nahi zituzten. Ez dakigu erantzunik jaso zuten ala ez[34].

Iruñean, urtero ipini eta kendu behar izaten zituzten barrerak eta eserlekuak Gaztelu–plazan sanferminetan. Lan horiek garestiak eta neketsuak ziren. Bestetik, Gaztelu–plazako etxejabe eta biztanleekin Udalak noiznahi zituen auziak zezenak zirela eta. Horiek horrela, udalgizonak 1.777. urteko abuztuaren 9an bildurik, zezenplaza finko eta berriaren premiaz mintzatu ziren. Madril eta Zaragozan plaza finkoak eraikiak zituzten jadanik eta iruindarrek ere berena nahi zuten. San Ferminen kaperaren atzeko lurraldeari (ospitale aldera), egokia zerizkioten horretarako; baina Taconera aldeko beste bati, egokiagoa.

Francisco Bucarelli Ursua erretordeari, Antonio Zara koronel–tenienteari, Silbestre Abarka jeneralari eta abarrei beren asmoen berri eman zieten. Eskabidea Madrileko Gortera ere egin zuten azkenean, baina Espainiako Karlos III.a, bere aurreko errege borbonak bezalaxe, zezenfesten aurkakoa zen eta iruindarren proiektuak ez zuen gorputz hartuko hurrengo menderarte[53].

1.777.ean ordea, ohi bezala zezenak izan ziren Gaztelu–plazan. Frantzisko Xabier Gendulain tuterarrak, hamasei zezen eta lau zezenko bidali zituen Iruñera lehen aldiz Nafarroako Erriberatik. Zezen bakoitza hogeitamar dukat kostatu zitzaion Udalari, eta zezenko bakoitza hemeretzi. Ordurarte zezenkoak Iruñeko banderadunak erosi ohi zituen, baina 1.777.ean ez[8]. Urte hartantxe jaio zen Tuteran bestetik (apirilaren 30ean) Bizente Perez Laborda; gero famatu izango zen ganaduzale nafarra[39].

Gaztelu–plazan dena den, gauzak prest zeuden sanferminetan. Felipe Burgi tuterarrak, oinezko lantzakada jotzearren aurrez eskabidea egin zuen, baina udalgizonek ezezkoa eman zioten.

Antonio Oteiza eta bere lagunek, plaza ureztatu egin zuten 30 errealen truk, toreatzaileak bertaratu aurretik. Toreatzaileentzat, tafetanezko zortzi zerrenda berri prestaturik zeuzkaten, 25 errealetan erosita.

Urte hartako toreatzaileetan, Matias Serrano alesbestarra falta zen. Urte askotan taldeburu aritu ondoren, 1.777.ean erretiroa hartu zuen. Horregatik Udaleko idazkariak Anbrosio Baldibielso burgostarrari dei egin zion bospasei banderilarirekin etor zedin. Beste koadrila baten premia ere bazuten Serrano ez zetorrelako. Anbrosio Baldibielso eta gainerako oinezko toreatzaileek 3.113 erreal eta 24 marai irabazi zituzten.

Zaldi gainetik zezenak pikatzera Felipe Lerma eta Diego Lozano sevillarra etorri ziren Madriletik. Lerma–ri 1.280 erreal eman zizkioten eta beste horrenbeste Lozano–ri.

Arratsaldeko korridan, zezen bati zezentxakurrak bota zizkioten, eta haien jabeei (ganadu-hiltzaileei), 10 erreal eta 22 marai eman zizkieten. Korridako azken zezena, errotari gazteek ez zuten ohi bezala lantzaz hil. Batzuek hagak hartu omen zituzten, baina beldurrez edo, zezena hiltzeko gauza ez ziren eta saririk ez zuten jaso[8].

1.777. urtean, Madrilen Pedro Romero, Joaquin Rodriguez *Costillares* eta Jose Delgado *Illo* toreatzekoak ziren. Kartel iragarlean Esteban Perez pikatzaileak *Nafarroako erara Pedro Romero-k bezalaxe txuliatuko zuela* adierazten zen[1].



8.8. irudia. Bilbo 1.777.ean. Azoka-plaza; zezenplaza alegia.

Urte hartan Tolosan, zezenfestak antolatu zituzten, baina Probintziako korrejidoreak gogorarazi zienez, Kontseiluaren debekua zutik zegoen eta kaleburutatik sokamuturrerako ipinitako hesiak kendu beharra izan zuten[93].

1.778. urtean, jadanik debekurik gabe, Azpeitian abuztuaren baterako korrida antolatzeko deia zabaldu zen. Barrerak ipini eta kendu eta beste zernahitarako inor aurreratuko balitz, Udalak antolamenduaren ardura emango ziokeen.

Tomas Inazio Legardak eskaintza bat aurkeztu zuen. Udalak 2.800 erreal, barrerak, torilak, balkoiak, arkupeak eta barreretako iltzeak ematen bazizkion, berak plaza itxi, Nafarroatik lautik bost urterako sei zezen eta bi toreatzaile profesional ekarri, eta bi askari (bata udalgizonentzat eta bestea korrejidorearen emaztearentzat) emango zituen.

Udalgizonek ordea, beste baldintza batzuk eskatu zizkioten Legarda jaunari: danbolindariak (Udalak aukeratuak), oholak, askariak (udalgizonei eta korrejidorearen emazteari), sakristauarentzat hamar dukat, ezpatadantzariak eta alardea Legarda asentistaren kontura izatea. Gainera *bostetik sei urterako sei zezen fresko, eta ez zezenkoak*, ekarri behar zituen. Iruñean ehun-zerrendaz aritutako bi toreatzaile kontratatuko zituen, eta ez menturaz joandakoak. Zezenak arratsaldean bakarrik korrituko ziren,... San Inazio bezeperan hiru zezenko jokatuko ziren arratsaldean,... etab.

Uztailaren hamaikan ordea, Xabier Bizente Jauregi, Inazio Abarruza eta Ramon Arozena-k beste eskaintza bat egin zioten Udalari. Hauek ziotenez, Nafarroatik bostetik sei urterako sei zezen

ekarriko zituzten, eta bertako baserrietatik sei zezenko San Inazio bezperarako. Plazako barrerak ipintzea eta kentzea, ezpatadantzariak eta danbolindariak ekartzea etab. egingo zituzten Udalak emandako 2.800 errealen truk.

Udalgizonek, azken eskaintza hau onartu zuten eta oztoporik gabe izan zituzten azpeitiarrek zezenak 1.778.ean[23].

Soraluzen ere, debekurik ezean zezenak korritu ziren 1.778. urtean[34].

Gasteiz ondoko Olarizu-n bazen urte hartan Gonzalez Etxabarrik dioenez etxe bat. Haragiaren hornitzailearen ganadua gordetzen zuten bertan, baina baita hirian igande eta jaiegunetan sokamuturrean korritzeko zezenkoak ere[96].

Akitanian, Richelieu-ko dukearen ondoren Felipe Noailles Mouchy-ko dukea eta Frantziako mariskala etorri zen agintera urte hartan. Akize-ko Sablar auzoan zezenplaza eraikitzea debekatu zuen, eta baita Airen katedralearen aurrean egiten ziren korridak ere. Baina batean ez bazen bestean korridak noiznahi antolatzen zituzten. Lapurdiko Hazparnen adibidez[1].

Sevillan bestetik, euskal deiturako ganaduzale baten zezenak jokatu ziren 1.778.eko maiatzaren 12an eta 14ean; Joan Eskibel-enak hain zuzen. Dibisa urdin-gorriz plazaratu zituen zezenak[46].

Iruñera 1.778.ean bi lekutatik etorri ziren sanferminetarako zezenak. Manuel Orobio alfarotarrak, zortzi zezen eta bi zezenko bidali zituen, eta Xabiera Martinez Artieda arnedotarrak beste horrenbeste. Orobioren zezenak onak atera ziren eta udalgizonek hogeitamarna dukat ordaindu zituzten (240 dukat edo 2.640 erreal zortziengatik). Zezenko bakoitza hamasei dukat kostatu zen.

Martinez Artiedaren zezenak oso txarrak atera ziren. Zezen bakoitzagatik hogeitasei dukat ordaindu zituzten eta zezenko bakoitzagatik hamasei dukat. Uztailaren 6an bi zezen korritu ziren, 7an beste bi eta 8an (asteazkenean) goizean bi probarako eta arratsaldean hamar. Uztailaren 6an ordea bigarren zezena korritzen ari zirela erauntsia izan zuten eta zezena torilera sartu zuten hurrengo egunerarte[8].

Asteazken goizean, bi entzierro egin ziren, bi ganadutegitako zezenak zeuzkatenez gero, eta logikak hori agintzen duenez gero (bestela bi jatorriko zezenak barrukan berehala hasten bait dira). Lehen entzierroa goizeko zazpiak laurden gutxitan izan zen eta bigarrena zazpiak eta laurdenetan[5].

Zezenak oinez toreatzen, hauek ibili ziren sanferminetan: Joan Antonio Azkarate logronioarra (menturaz joana; 80 erreal), Felipe Burgi tuterarra (asto gainetik bolaztatutako zezenkoa pikatu zuen; 21 erreal), Mariano Ceballos *Indiarra* (menturaz joanda oinez eta zaldiz kapaz txuliatu, banderilak sartu eta zezen bat hil zuen; 600 erreal guztira, zezen baten balioa –40 erreal– barne), Matias Corres cardenastarra (menturaz joana; 60 erreal), Tomas Fernandez logronioarra (menturaz joana; oso banderilari ona; 400 erreal), Frantzisko Lakarra (menturaz joana; 120 erreal, zezen bategatiko bost peso barne), Juan de Dios Mallen (40 erreal), Nicolas Martinez medinacelitarra (100 erreal), Ignacio Rubio munegrebarra (100 erreal) eta Jose Vallejo (dirudienez logronioarra; 100 erreal). Baina guztietan nagusi, Joaquin Rodriguez *Costillares* sevillarra izan zen. Menturaz etorri zen Madriletik Iruñera. Madrilen bi mila erreal eskatu zituen korrida bakoitzeko, erretiratzeko gogoa zuenaren aitzakiaz. Ordurarte Madrilen 1.200 erreal baino gehiago ez zuen inork kobratu. Iruñeko idazkariak nola edo hala erakarrita, Gaztelu-plazan lanean aritu zen.

Oso lan bikaina egin ondoren, bi zezenen balioa eman zioten propina gisa (10 peso) okela errukietxetara banatu zutelako. Guztira, 2.080 erreal kobratu zituen; beste edozein toreatzailek sekula Iruñean jaso zuena baino gehiago.

Anbrosio Baldibielso burgostarra ez zen Iruñera etorri urte hartan.

Zaldi gainetik zezenak pikatzera, Gil Garcia alacantearra (1.120 erreal; menturaz etorria) eta Diego Lozano sevillarra (1.120 erreal) etorri ziren. Korridako azken zezena (bolaztatua), Iruñeko errotari gazteek hil zuten lantzaz jota. 40 erreal irabazi zituzten lan horregatik.

1.779. urtean, Iruñeko Udaleko arduradunek Manuel Orobio alfarotarrari berriro eskatu zizkioten zezenak. Ganaduzale honek, hamasei zezen eta lau zezenko bidali zituen. Zezen bakoitzagatik 29 dukat ordaindu zizkioten eta zezenko bakoitzagatik 15 dukat (5.764 erreal guztira).

Korrida-eguneko goizean, probatzen ari ziren zezen bat, barrera gainetik salto eginda ihesi joan zitzaien Taconera aldera. Mariano Ceballos *Indiarra*, Goiak pintatu zuena, zezenaren ondoren atera zen eta lotzea lortutakoan, Gaztelu-plazara itzuli zuten. Plazan, Ceballos-ek oinez toreatu, zaldiz txuliatu eta banderilak ipini zituen.

Costillares Iruñera ekartzeko saiorik ez zuten egin 1.779.ean. Anbrosio Baldibielso burgostarrari dei egin zioten. Galiziako Santiagotik ere deitu zioten Baldibielso-ri, baina hara sanferminak igaro ondoren joango zen. Sanferminetan, Anbrosio Baldibielso eta zazpi lagun toreatzailek 2.304 erreal irabazi zituzten. Azken zezena errotariek hil zuten eta bere okela saritzat eman zieten.

Diego Lozano eta Gil Garcia aritu ziren zezenak pikatzen. Goizean bi zezen eta arratsaldean bost pikatu zituzten. Bakoitzari 30 dobloi eman zizkioten; bakoitzari 960 erreal alegia[8].

Urte hartan, 1.779.ean, Nafarroako erretordea Lizarran zegoen. San Joan plazako etxe batean zegoenez gero, Udalak plaza horretantxe korrida emateko baimena eskatu zuen, eta baietza lortu gainera[12].

Soraluzen zezenak izan ziren urte hartan[34], eta baita Tolosan sanjoanetan ere. Baimen-emaileek *iskanbila eta zorakeriak baztertzen saia zitezela* gomendatu zuten[93].

———— o ———— o ————

1.780. urtean, Zestoan herria haragiz hornitzen zuenak, festetarako *zezen suhar* bat ekartzeko obligazioa zeukan. Udaletxeko balkoietatik zezenak ikustea bestetik, debekatu egin zieten emakumeei. Gainera, sekuladanik herritarrei ematen zitzaien *freskagarrian* gehiegikeriak egiten zirelako, handik aurrera udalgizonei bakarrik ematea erabaki zuten. Freskagarri haietarako elurra, *Idoieta* (orain *Iruitta*) baserriko Inazio Alberdi maizterrak ekarri ohi zuen Izarraitzeko elurtegitik; 340 libra 38 errealetan. Plazakó barrerak, Aizarna-ra ere erman ohi ziren hango festetan zezenetarako[32].

Iruñean, Nafarroako erreinuko hiru estamentuak Gortetan bildurik zeudenez gero, bestetan baino zezen gehiago erostea pentsatu zuten sanferminetarako. Hasieran ohizkanpoko korrida ematea erabaki zen, eta Ejeako Miguel Lopez Salinas-i hogei zezen eta Salamancara hamabi zezen eskatu zituzten. Erregeak ordea, ohizkanpoko korridarako baimenik ez zuen eman eta Ejeako Miguel Lopez-i azkenean zortzi zezen bakarrik erosi zizkioten, hogeitamarna dukat ordainduta (2.640 erreal

guztira). Salamancatik hamabi zezen eta hiru joaldun etorri ziren. Buru bakoitza 50 dukat kostatu zen (8.765 erreal guztira). Joaldunak, idiak, gero hiltegian (*Rastro*an) larrutu zituzten okela saltzeko. Ejeako eta Salamancako zezenen suhartasuna konparatzeko aukera bikaina zenez gero, zinta urdinak eta gorriak prestatu ziren dibisa gisa bi jatorrizko zezenei bakoitzari bere kolorea ipintzekotan (lau erreal eta 9 marai kostatu zitzaizkien zintak).

Zezenez gainera, hamazortzi zezenko ere ekarri zituzten sanferminetarako: sei zezenko handi Ejeako Lopez Salinas ganaduzalearenak eta hamabi zezenko gazte Manuel Orobio ganaduzale alfarotar zenarenak. Ejeako zezenko bakoitzak hogei dukat balio zuen eta Alfaroko bakoitzak hamabi dukat. Hamazortzi zezenko hauek, plazan korritu ondoren hiltegian hil zituzten eta okela saldu.

1.780. urtean, bost egunetan jokatu ziren zezen eta zezenkoak Iruñean. Zezenkoak korritu ondoren, Antonio Zilbeti eta zortzi lagun artiu ziren sokaz lotuta hiltegira eramaten. Zortzi peso irabazi zituzten lan hori egiteagatik.

Zezen eta zezenkoak, hiru toki desberdinetan egon ziren Iruñea inguruan festa-eguna iritsi arte. Ejeako ganadua Eskirotz-en egon zen, Salamancakoa Mutiloa-Beitian eta Alfarokoa Zizur Gutian.

Entzierrokoan, bi zezen eta joaldunak ihes eginda ibili ziren inguruko soro, baratza eta mahastietan. Zezen itsu batek ere gauza bera egin zuen joaldun batekin hiltegira zeramatela ihes egin zuelako. Udalak, kalte hauek ordaindu egin zituen.

Zezenak toreatzeko oinezkoentzat, tafetanezko sei ehun-zerrenda prestatu zituzten 31 erreal eta 7 marai ordainduta. Joakin Iraolak emakume itxurako bi txotxongilo egin zituen uztai eta paperez. Zurezko orga ere bai. Korrida-arratsaldean atera ziren plazara. 6 peso kostatu zitzaizkien.

Bost egunetarako banderilak, ezten-hagak, burtzitxoak eta aurreko eserlekuetako jendeari zezenek bertara salto egin ez zezaten banatu zitzaizkion akuiluak berriz, 190 erreal.

Oinezko toreaketan, Faltzes-eko Santiago Alargunsoro Soltxaga aritu zen lehen aldiz Iruñean. Menturaz joan zen urte hartan, baina beste edozein menturazalek baino bi aldiz gehiago irabazi zuen: 554 erreal eta 19 marai. Lan bikaina egingo zuen inola ere.

Joan Antonio Azkarate-k adibidez, 170 erreal eta 22 marai jaso zituen, Jose Barrena tolosarrak 127 erreal eta 34 marai, Matias Corres Zaragozako Cardenas-ekoak, 127 erreal eta 34 marai, Tomas Fernandez logronioarrak (Madriletik etorriak), 1.066 erreal eta 14 marai (gainera zezen bat), Pedro Gomez logronioarrak, 127 erreal eta 34 marai, Antonio Remirez Granadako ezpatariak (Madriletik etorriak), 1.109 erreal eta 2 marai (gainera bi zezen), Jose Soto burgostarrak, 85 erreal eta 11 marai, Anbrosio Baldibielso burgostarrak, 1.109 erreal eta 2 marai (gainera bi zezen), Jose Vallejo-k, 213 erreal eta 10 marai, eta Leandro Velilla Santillana-koak, 85 erreal eta 11 marai[8].

Iruñeko Udaleko arduradunek, urte hartan Pedro Romero edo Joaquin Rodriguez *Costillares* ekarri nahi zuten. Baina Madrileko Ospitaletako Batzordeak ez zien baimenik eman. Dena den, Pedro Romero urte hartako uztailean Zaragozara joatekoa zen eta bidean Tuteran gelditzekoa[94].

Zaldiz zezenak pikatzera, Gil Garcia alacantearra eta Juan de Herreros malagarra etorri ziren Madriletik. Gil Garciak, goizean bi eta arratsaldean bost zezen pikatu zituen. Ez zuen zaldirik galdu

eta 1.279 erreal eta 25 marai eman zizkioten. Juan Herreros–ek ere goizean bi eta arratsaldean bost zezen pikatu zituen. Zezenek bi zaldi hondatu zizkioten eta bere saria 1.450 erreal eta 11 maraikoa izan zen.

Diego Lozano eta Antonio Sanchez pikatzaile sevillarrak ere etorri ziren, baina ez zieten plazaratzen utzi. Beste pikatzaileak zauritzen baziren edo, erreserban egotea erabaki zuten. Bakoitzari urrezko hiru dobloi eman zizkioten.

Mariano Ceballos *Indiarra* ere etorri zen Iruñera, nahiz eta Madrilera etor ez zedin abisua pasatu. Azkenean, utzi egin zioten eta Gaztelu–plazan lan egin zuen. Oinez eta zaldiz txuliatzen aritu zen. Gaztelako (Salamancako) zezen bati zela ipini eta gainean ibili zen. Zaldi bat galdu zuen zezenketan eta 660 erreal eman zizkioten.

Igandean zezenkoak jokatu zirenean, lau astoren gainetik lau gaztek ezten–hagaz bolaztatutako zezenko bat pikatu zuten. Manuel Arbizu astojabeari 17 erreal eman zizkioten[8].

1.780. urtean, Felix Maria Samaniego biasteriar alegilariak (Tolosako alkate izanak) Bergarako Erret Mintegian bertso–liburu bat idazi zuen. Bertan besteak beste, nafar–zezenen suhartasunaren adierazgarri honako hau idatzi zuen:

... con un fraile jerónimo extremeño,
más bravío que toro navarreño.[3]

Garai hartan Deban, marinelek eta herriko barber jaunak (zirujauak), kontratua egina zuten bakailao–arrantzatik gaixorik edo zauriturik zetozenak sendatzeko. Baita zezenetako ikusleek jasandako zauriak sendatzeko ere. Hondarrera saltatu eta zezenak harrapatutakoak ez ziren tratu horretan sartzen. Bestetik, herriko eskolako umeek jai izaten zuten korrida zegoen arratsaldeetan[97].

1.781. urtean Azpeitian, Udalak Antonio Urdapilleta udalgizonari utzi zion ardura San Inazio bezperan eta egunean korritzeko zezenko eta larrabehi batzuk ekar zitzan[23].

Lizarran, 1.781. urtean San Pedro parrokiak bere zaindariaren egunean bezpera, meza eta hitzaldira etor zitezen gonbitea egin zion Udalari. Gainera, aurreko egunean zezenkoak korritzeko baimena eskatu zion. Udalak, elizkizunetara joatea onartu zuen, baina zezenkoak jokatzeko lekua zein izango zen galdetu zion parrokiari. Elizgizonek San Martin plaza proposatu zuten horretarako, eta udalgizonek ezezkoa eman zieten segidan[12].

Tuterako Udalak urte hartako abenduaren 13an, ganaduei buruz erabaki bat hartu zuen. Ganadu–taldeek leku batetik bestera larrez aldatu behar zutenean, Udaleko lehendakariari gidari bat eskatuko zioten, horrela belardietan kalterik sor ez zezaten[31].

Iruñeko sanferminetarako, Ejeako Miguel Lopez Salinas ganaduzalearen hamazortzi zezen eta zortzi zezenko etorri ziren. Zezen bakoitza 30 dukat kostatu zen eta zezenko bakoitza 20 dukat. Ejeatarrak guztira 7.700 erreal jaso zituen.

Zezenak oinez toreatzera, Francisco Herrera *Currillo* (dirudienez Francisco Herrera *Curro Guillen*–en aita) eta Anbrosio Baldibielso etorri ziren, beren koadrilekin. Guztiek 6.312 erreal eta 34 marai irabazi zituzten. Anbrosio Baldibielsok bere taldean Tomas Fernandez banderilaria ekarri zuen.

Gil Garcia pikatzailea, menturaz joan zen Iruñera lanera. Bost ontzako urre t'erdi eman zizkioten. Zaldunak baina, zezenek bi zaldi hil eta beste bat elbarritu ziotelako, sari handiagoa eskatu zien udalgizonei. Alferrik ordea.

Lau arratsaldetan erabilitako banderila eta ezten-hagak prestatzen (errotarien *palenque*koak barne) 140 erreal eta 28 marai gastatu zituzten.

Urte hartan, 1.781.ean, asto gainetik zezenkoak pikatzen ez ziren aritu. Baina plazan istripu bat gertatu zen. Lukas Rematxaren etxearen parean, teilatutik harri bat erori, gizon bat buruan jo eta hil egin zuen. Bandoaren bidez aditzera ematen zuten Gaztelu-plazako teilatuetan zezenetan jendeak ez zuela egoterik. Hala eta guztiz ere, urte hartan hildako bat suertatu zen[8].

Egun batzuk geroago, 1.781.eko uztailaren 17an, Jesusen Konpainiak zezen batzuk erosi zituen Salamancan ikasle nafarrek torea zitzaten. Trebetasun eta ausardia handiz toreatu, banderilak sartu eta hil omen zituzten ikasle nafarrek Isla idazleak dioenez[3].

Sevilla-ko zezenplazan, urte hartantxe euskal deiturako ganaduzale baten abelgorriak korritu zituzten. Joan J. Ibarburu-renak hain zuzen (dibisa beltzez) maiatzaren 14ean eta 16an[46].

1.782. urtean, Akizeko zezenak debekatzeko azken saioa jo zuen Mouchy-ko dukeak. Richelieu-ko dukeak argitaratutako ordenantzan ezarritakoak betetzen ez zirelako, zigor gogorrez mehatxatu zituen legea betetzen ez zutenak, baina hilabete geroago, eskabideari baietza eman eta irailaren batean korrida eman zen[1]. Abuztuaren 13an Akizen korrida jokatzeko baimena eman zuen, plaza itxian egitekotan[81].

Madrilen, urte hartako uztailaren 22an, Gabriel Gomez ganaduzale argetastarraren zezenak hil zituzten. Dibisa zuriz plazaratu ziren nafar-zezen haiek[46]. Iruñeko Udaleko idazkariak, sanferminetarako bi ganaduzale tentatu zituen: batetik Xabier Gendulain tuterarrari hamasei zezen eta zortzi zezenko eskatu zizkion, eta Miguel Lopez Salinas ejeatarrari beste horrenbeste. Gendulain-ek baiezkoa eman zuen, eta ejeatarrak zezenkoak zerbitu nahi ez bazituen ere, azkenean baiezkotan gelditu zen. Bi korridatarako ganadua eskatzeak, bazuen bere arrazoia. Artois-eko kontea, Frantziako erregearen anaia, Parisetik Madrilera joatekoa zen, eta Iruñean badaezpada ere ongietorrirako zezenak eduki nahi zituzten. Uztailaren hasieran ordea, kontea Baionatik Irun eta Gasteizen zehar joan zen Madrilera. Iruñeko idazkariak orduan, Gendulainek bere zezenak (bost urtekoak) Tuteran gordetzea lortu zuen, hurrengo urtean erosiko zizkiola hitza emanez.

Miguel Lopez Salinas-en hamasei zezen ekarri zituzten beraz, bakoitza 30 dukat ordainduta. Zortzi zezenko ere etorri ziren, hogeina dukat ordainduta. Ganaduzaleak guztira, 7.040 erreal jaso zituen[8].

Uztailaren seian, larunbatean, kartel bat atera zuten Iruñean. Egun horretako bi zezenetarako eserlekuen prezioak zehazten ziren bertan. Arratsaldeko bostetan hasiko zen emankizuna.

Zurezko balkoitako eserleku bakoitzagatik, erreal bat ordaindu behar zen. Balkoi osoa bi arratsalde (4 zezen) eta korrida-eguneko goizerako (probarako) hartu nahi zuenak, 48 erreal ordaindu behar zituen.

Eserleku estali bakoitzerako sarrera (arratsalderako bakarrik), erreal bat kostatzen zen, eta estali gabeko bakoitza errealerdia.

Hilaren zazpian (igandean), arratsaldeko lauretan maskarada eta dantzarien saioa egin ondoren, bi zezen hilko zituzten plazan eta sei zezenko toreatu ere bai nahi zutenek plazara irtenda. Zurezko balkoitako eserleku bakoitzagatik hiru erreal ordaindu behar ziren. Eserleku estaliagatik ere hiru erreal eta estali gabekoagatik erreal bat.

Astelehenean, goizeko zazpietan hamabi zezen ekarriko zituzten plazara, eta bi probatuko ziren, toreatu, pikatu eta hilez. Zurezko balkoi eta eserleku estalian egoteagatik erreal bat ordaindu behar zen eta estali gabean egoteagatik errealerdia[5].

Gorabehera batzuen ondoren, Jose Delgado *Pepe Illo* toreatzaile sevillarra Madriletik ekartzea lortu zuten. Ondoko zerrendan erakusten da berarekin batera oinez zeinek toreatu zuen eta bakoitzari zenbat diru eman zioten:

	Errealak	Maraiak
– Jose Delgado *Pepe Illo*, lehen ezpataria, Madriletik etorria, saritzat emandako bi zezen barne	2.559	13
– Francisco Herrera *Currillo*, Madriletik etorria, saritzat emandako zezen bat barne, 8½ ontzako	1.450	11
– Francisco Garces *Currillo*, *Pepe Illo*rekin etorria, 4 ontzako	682	18
– Jose Ximenez, *Illo*rekin etorria, 4 ontzako	682	18
– Anbrosio Baldibielso, Burgosekoa, saritzat emandako zezen bat barne, 8½ ontzako	1.450	11
– Felipe Vazquez, Burgosetik Anbrosiorekin etorria, 4 ontzako	682	18
– Tomas Fernandez, Burgosetik Anbrosiorekin etorria, 4 ontzako	682	18
– Manuel Malino, Madriletik Anbrosiorekin etorria, 4 ontzako	682	18
– Santiago Alargunsoro, Faltzes–ekoa, sartitzat emandako zezen bat barne, 2 1/4 ontzako	383	32
– Jose Vallejo, Logroniokoa, 1½ ontzako	255	33
– Nicolas Martinez, Medinacelli–koa, 1 1/4 ontzako	213	9
– Ignacio Rubio, Munegreba–koa, idem	213	9
– Joan Antonio Azkarate, Logroniokoa, 3/4 ontzako	127	34
– Frantzisko Lakarra *Cascarilla*, Harokoa, idem	127	34
– Pedro Gomez, Naiarakoa, idem	127	34

Diego Molina Chamorro (Sevillako Algaba–koa) eta Gil Garcia aritu ziren zezenak pikatzen. Bakoitzak 1.279 erreal eta 25 marai kobratu zituen, baina batari hiru eta besteari lau zaldi zezenek hil zizkieten[94]. Goizean bi zezen eta arratsaldean bost pikatu zituzten.

Urte hartan asto gainetik zezenkoak pikatzera ez zen inor atera. Azken zezena lantzaz jota hil zuten errotariek. Banderilak eta ezten–hagak prestatzeagatik 114 erreal eta 18 marai eman zizkioten sarrailaginari[8].

1.783. urtean, Italiako Venezian ere antolatu zituzten zezenak. Iberiar Penintsulatik toreatzaileak eramanda gainera[98].

Sevillan, euskal deiturako ganaduzale baten zezenak korritu ziren bertako plazan. Ekainaren 2an eta 4ean, dibisa zuri–gorriz hornituta toreatu eta hil bait ziren Joakin Goieneta–ren abelgorriak[46].

Balentin Foronda-k, urte hartan Euskal Herriko deskribapena egin zuenean, jolasik gogozkoenen berri eman zuen. Bola-jokoa, pilota, dantza, sokamuturra eta zezenko bolaztatuak ziren garai hartan dibertsio nagusiak. Sokamuturra jaiegun guztietan izaten omen zen, eta zezenko bolaztatuak festatan gauean, plazaren erdian eta txokoetan suak piztuta. Jendea plazan dantzan ari zela ustegabean ateratzen omen zuten zezenkoa. Hurrengo zezenkoa atera bitartean txistuaren soinuaz dantzari ekiten zioten berriro[99].

1.783.ean, Balentin Foronda (berez Balentin Tadeo Etxeberria Foronda zen arabar hau) Tuteran izan zen, eta besteak beste hango zezenzaletasunaren berri eman zuen. Korridak Plaza Berrian izaten ziren. Entzierroan, zezenak bi giza iladen artean pasatzen ziren. Korrida hasi baino lehen berriz, bi edo hiru pikatzaile zaldiz ateratzen ziren plazara oinezko toreatzaileak (banderilak eskuan) ondoren zihoazkiela.

Halako batean, lantzaz armatutako dotzena bat gizon plazaratu zen. Denak bildurik zezenaren aurrera joan ziren, eta hark erasotzen zienean, taldea desegin egiten zen, batzuk lurrera boteaz. Berriz taldea osatu eta zezenarengana joaten ziren iladan. Azkenean zezena baztertu eta lantzaz jota hiltzen zuten (Iruñeko errotariek bezalaxe). Foronda-k dioenez, ikusleak korridatik ez ziren gustora ateratzen toreatzaileren bat edo dotzenaren bat zaldi zezenak hiltzen ez bazituen[100].

Urte hartantxe gainera, 1.783.ean, Pius VI.a aita santuak bulda baten bidez Tuterako Santa Maria elizari katedrale-maila eman zion. Ospatzearren, Tuteran dantzak (Valentziako erara), maskarada eta (nola ez!) zezenak antolatu ziren. Lehen arratsaldean bertako gazteek lau zezenko toreatu eta hil zituzten. Hurrengo eguneko korridara jende asko bildu zen. Toreatzaileek zaldiz pikatu eta burtziak sartu zituzten. Goizean lau zezen eta arratsaldean hamar toreatu eta hil ziren[17].

Azpeitian, saninaziotako zezenak inork antolatu nahi izanez gero Udalak baldintzak argitaratu zituen. Nafarroatik zezenko *freskoak* (toreatu gabeak alegia) ekarri behar ziren eta eserlekuak ipini eta kendu. Ez zen antolatzaile partikularrik agertu eta azkenean Udalak berak prestatuta korritu ziren inguruko zezenak saninaziotan[23].

Iruñean 1.783.ean, Frantzisko Xabier Gendulain-en hamasei zezen eta sei zezenko erosi zituzten. Plaza ixten lehenago hasi ziren urte hartan, ohol berriak ipini eta berrikuntzak egin nahi zituztelako. San Pedro egunerako dena prest zegoen ordea, eta egun hartantxe jokatu ziren Eskirotz-era jadanik helduta zeuden zezenkoak.

Zezen bakoitzagatik 29 dukat eta zezenko bakoitzagatik 20 dukat eman zizkioten Gendulain tuterarrari, aberlgorriak plazan *faltsuak* suertatu zirelako.

Zezenak oinez toreatzera etorritakoak, hauek izan ziren: Santiago Alargunsoro (uztailaren 7an bigarren zezena saritzat eman zioten), Pedro Beda banderilaria (*Currillo*rekin etorria; 682 erreal eta 18 marai), Tomas Fernandez banderilaria (Baldibielso-rekin etorria; 683 erreal eta 18 marai), Francisco Garces banderilaria (*Costillares*en hiloba; Agredan oso gaixoturik gelditu zen; 170 erreal eta 22 marai), Francisco Mendoza banderilaria (*Currillo*rekin etorria; 170 erreal eta 22 marai), Jose Vallejo, Julio (Joan) Antonio Azkarate, Ignacio Rubio eta Nicolas Martinez (menturaz joandako banderilariak; ontzako t'erdi bakoitzarentzat edo 1.023 erreal eta 27 marai guztira), Tomas Bartolome Villalengua-koa (127 erreal eta 34 marai), Pedro Gomez naiararra (127 erreal eta 34 marai), Francisco Herrera *Currillo* (Madriletik etorria; 1.620 erreal eta 33 marai, korridako saritzat emandako bigarren eta laugarren zezenak barne) eta Anbrosio Baldibielso (9 ontzako eta 1.535 erreal eta 22 marai).

Iruindarrek, Madriletik Pedro Romero, *Costillares* edo *Pepe Illo* ekarri nahi zituzten. *Illo*ri adibidez, urrezko laurogei dobloi eskaini zizkioten, baina alferrik. Azkenean Francisco Herrera *Currillo* etorri zen, lehen esan dugunez.

Zezenak zaldiz pikatzera, Andres Solis cadiztarra eta Gil Garcia etorri ziren. Solis–ek goizean bi zezen eta arratsaldean bost pikatu zituen. Zaldi bakarra galdu zuen eta 1.365 erreal eman zizkioten. Gil Garcia ordea, goizeko lehen zezenean hankean kolpatua suertatu zen eta zaldia galdu zuen. Arratsaldean Francisco Mendoza atera zen Gil Garciaren zaldiekin pikatzera. Zaldi bat hil eta bestea zauritu egin zioten. Gil Garciari, 1.023 erreal eta 27 marai eman zizkioten (6 ontzako).

Korridan hildako zaldiak lurperatzeko Ramon Egues–ek Teileriako Portaletik kanpo zuloa egin zuen. 14 erreal irabazi zituen. Zezenkoak pikatzeko ez zen asto gainean inor atera urte hartan. Banderila eta ezten–hagak prestatzea, 115 erreal eta 21 marai kostatu zitzaien[8].

1.784.eko sanferminetarako, Alonso Lopez Artieda Salinas ganaduzale ejeatarrari hamasei zezen eta sei zezenko erosi zizkioten. Uztailaren 7a (San Fermin eguna), asteazkenean izan zen urte hartan. Ostegun goizean zezenak entzierro bidez plazako toriletara bildu zituzten, baina arratsaldean euri asko egin zuenez gero, ez zen korridarik eman. Hurrengo egunean, ostiralean (nahiz eta haratuzte–eguna izan), atera ziren zezenak plazara.

Zezen bakoitzagatik 30 dukat ordaindu zituzten, eta zezenko bakoitzagatik 20. Guztira 600 dukat edo 6.600 erreal jaso zituen beraz Ejeako ganaduzaleak[8].

Toreatzera *Costillares* edo *Pepe Illo* ekarri nahi izan zituzten Madriletik. *Costillares*i urrezko 80 dobloi eskaini zizkioten, baina dena alferrik izan zen[94].

Oinez toreatzen azkenean, hauek aritu ziren: Santiago Alargunsoro faltzestarra (San Fermin eguneko bigarren zezena saritzat jaso zuen), Joan Antonio Azkarate (255 erreal), Tomas Bartolome Villalengua–koa (127 erreal), Francisco Garcés banderilaria (Madriletik etorria eta *Costillares*en iloba; 850 erreal), Manuel Gonzalez banderilaria (Madriletik etorria; 850 erreal), Francisco Herrera *Currillo* (1.700 erreal), Ignacio Rubio (255 erreal eta 18 marai) eta Anbrosio Baldibielso (1.530 erreal).

Gregorio San Millan bianarrak, eskabidea egin zion Udalari oinezko lantzakada jotzeko baimena eskatuz, baina ezezkoa eman zioten.

Zaldiz zezenak ezten–hagaz pikatzera, Francisco Baca *Curro Baca*, Gil Garcia eta Antonio Parra etorri ziren. Badirudi Gil Garciari ez ziotela plazaratzen utzi. Baca eta Parrak, goizean bi zezen eta arratsaldean bost pikatu zituzten. Baca–k lau zaldi galdu zituen eta 1.870 erreal eman zizkioten. Parrak berriz, zaldi bakarra galdu eta 1.530 erreal irabazi zituen.

Korridarako suzko banderilarik ez zen prestatu, aurreko urtekoak zituztelako.

Garai hartan dirudienez, Mariano Ceballos *Indiarra* Tuterako plazan zezenetan hil egin zen, 1.784. urtea baino lehen Vargas Ponce-k dioenez[95].

1.784. urtean, Ameriketako eta Indietako burrukei amaiera emanez Paris eta Versalles-eko itunak sinatu ziren, eta ospatzeko asmoz Akize-ko herriak Saint-Pierre plazan zezenplaza biribila eraikitzeko baimena eskatu zuen. Mouchy-ko dukeak baiezkoa eman zien. Saint-Severe, Martzana–ko Villeneuve eta Aire-n ere zezenak izan zituzten. Ordurarteko oztopo eta debekuek, jendearen zezenzaletasuna piztu besterik ez zuten egin[1].

8.9. irudia. Zezena airean pikatzen. Isidro Carnicero–ren grabatua. 1.784. urtea.

Madrilen, uztailaren 5etik 19ra bitartean, Severino Perez Muro errioxarraren zezenak jokatu ziren. Autol–ekoa zen ganaduzale hau[46].

———— o ———— o ————

Venezian, zezenaren ehiza azken aldiz 1.785. urtean egin zuten. Harez gero ez da han zezenfestarik izan[98].

Espainiako Karlos III.a erregeak ere 1.785.eko azaroaren 9an hiltzeko zezenekin festak egitea debekatu zuen, horretarako baimen berezia zutenak salbu[101].

Dena den Zestoan, 1.785. urtean ez zen festetan zezenik jokatu ohi bezala. Baina ez urte hartan aditzera emandako debekuagatik; herrian izurritea zegoelako baizik[32].

Azpeitian bai. Azpeitian San Inazio egunean eta bezperan, bertako zezenkoak plazaratu zituzten[23].

Iruñean berriz, Ejeako Alonso Lopez Artieda Salinas ganaduzalearen 18 zezen eta 6 zezenko erosi zituzten. Korrida uztailaren 9an, larunbatez, eman zen. Zezen bakoitza 30 dukat kostatu zitzaien, eta zezenko bakoitza 22 handiak zirelako. Horrez aparte, lau zezenko ekarri zituzten Mendabiatik. Bata hiru urtekoa (20 dukatetan) eta beste hirurak bi urtekoak (16 dukat t'erditan bakoitza).

Entzierrotan zezen, zezenko eta joaldunek kalteak egin zituzten galsorotan, eta Udalak 19 erreal ordaindu zizkien kaltetuei.

Zezenak oinez toreatzen ondoko hauek aritu ziren: Baltasar Barizalupe Briones-ekoa (127 erreal eta 18 marai), Joakin Barrena tolosarra (127 erreal eta 18 marai), Tomas Fernandez banderilaria (izterrean adarra sartu zion zezenak; 680 erreal), Francisco Garcés banderilaria (850 erreal), Pedro Gomez (127 erreal eta 18 marai), Francisco Herrera *Currillo* (1.700 erreal), Manuel Rodriguez banderilaria (Madriletik etorria; 892 erreal eta 18 marai), Anbrosio Baldibielso (1.402 erreal eta 18 marai) eta Jose Vallejo (297 erreal eta 18 marai).

Zezenak pikatu ondoren (goizean bi eta arratsaldean bost), Francisco Baca-k 1.870 erreal irabazi zituen (11 ontza). Lau zaldi hil zizkioten zezenek. Gil Garciari ez zioten etortzen utzi, jendeak gustokoa ez zuelako. Andres Solis pikatzaileak, Francisco Bacaren lan berdina egin zuen. Hiru zaldi galdu zituen zezenetan eta 1.700 erreal eman zizkioten bere lanagatik.

Bartolome Ortega nano granadarrak San Fermin egunean zezenko bolaztatu bat burtzikatu zuen zaldiz. 212 erreal eta 18 marai eman zizkioten 50 urte inguruko gizontto andalusiarrari[8].

1.786. urtean, Iruñeko Udalak Madrileko Gortera eskabidea bidali zuen. Esana dugunez, Karlos III.a erregeak bere *Pragmatica*ren bidez aurreko azaroan debekatuak zituen hiltzeko zezenak. Baina horretarako baimena zutenek eta benefizentzi helburuz korritzen baziren, Kontseilura eskabidea egin zezaketen. Iruindarrek beraz eskea maiatzean egin eta ekainean baiezkoa jaso zuten[5].

Uztailerako, Ejeako Alonso Lopez Artieda Salinas ganaduzaleari 16 zezen eta 6 zezenko kontratatu zizkioten. Baina gero 20 zezen eta 8 zezenko erosi zituzten. Zezenkoak ongi portatu ziren plazan, eta zezenak ez. Zezenak hogeitabederatzina dukat ordaindu zituzten eta zezenkoak hogeitabina.

Korrida-eguneko goizean, *probarako* jokatu ziren zezenak ikusteko, erreal bat ordaindu behar zen balkoi eta eserleku estali bakoitzagatik. Estali gabetan doan egon zitekeen.

Korridaren hasieran, uztailaren 10ean astelehenez, toreatzaileak plazan udalgizonen aurrera aurkeztu ziren, eta hauek aurrez erretordearengana joan zitezen agindu zieten. Toreatzaileentzat, Antonio Gonzalez sastreak tafetanezko bederatzi ehun-zerrenda prestatu zituen 46 erreal eta 26 maraitan.

Oinez toreatzen aritutakoak, hauek izan ziren: Alfonso Alarcon *Pocho*(*Currillo*rekin etorria; 240 erreal), Santiago Alargunsoro (uztailaren 8an bigarren zezena saritzat eman zioten), Joan Antonio Azkarate (255 erreal), Manuel Frances korellarra (42 erreal eta 18 marai), Pedro Gomez logronioarra (170 erreal edo ontzako bat), Francisco Herrera *Currillo* (2.040 erreal), Francisco Seco salamancarra (510 erreal edo hiru ontzako) eta Juan Jose Torres banderilaria (Madriletik etorria; sei ontzako).

Iruindarrak, *Costillares* eta *Pepe Illo* ekartzen saiatu ziren urte hartan, baina alferrik. Madrileko Ospitale-Batzordeak kontratua egina zuen toreatzaile famatu hauekin eta ezinezkoa

gertatu zen.

Francisco Garçés ere, ez zen etorri. Aurreko urteetan banderilari gisa lan egin zuen, eta jadanik ezpatari-maila lortuta zeukan. Ez zuen nahiko beraz, Irufiean banderilari-lanak egiterik.

Hildako zezenak mandoz arrastaturik plazatik ateratzen, Jose Frances *Kalonjea* ibili zen. Bost egunetan plazan hildako zezenak ateratzeagatik 130 erreal irabazi zituen[8].

Urte hartako irailean (1.786.ean) Valentzian Jaime Aranburu Iznaga *Judua* izeneko toreatzaile nafarrak lan egin zuen. Lizarran jaioa zen 1.751.eko martxoaren 21ean. Muletaz ari zela, Frantzisko Xabier Gendulain tuterarraren zezen batek harrapatu eta larriki zauritu zuen. Zaurien ondorioz, urriaren 16an hil zen zezen-hiltzaile hau Irufiean[22].

Azpeitian, saninaziotan plaza itxi eta hiru egunez izan ziren zezenak. Igandean bi zezenko eta idiren bat plazaratu zituzten. Astelehenean eta asteartean berriz, hiru zezenko eta idi edo larrabehi bat[23].

Arabako Kontrasta-n, behi-taldeak zezentxakurrez maneiatzen zituzten beste lekutan bezalaxe. Zezentxakur batez baliatzen ziren horretarako, baina zakurra gaitzetatik gordetzearren, Azuelo izeneko lekura eraman zuten 1.786.ean. Bost erreal kostatu zitzaien zakurraren *rizmar* eragiketarako egindako bidaia[102].

Garai hartan, Tunborg suediarra Bergarako Erret Mintegian ibili zen. 1.747.ean Suediako Dalarma-n jaioa zen mineralogi irakasle hau, eta Bergarako bizimoduaren berri idatzirik utzi zuen. Hark dioenez, igande-arratsaldetan baserritarrak herriko plazan biltzen ziren, eta hiltegiko arduradunek orduan, idia sokari lotuta eman beharra zuten. Plazaren erdian lotzen zen soka luzearen mutur bat, bestean idia zuelarik. Zakurrez eta akuiluz maiseatzen zuten zezena. Idiak zakurren bat hiltzen zuenean (eta hori askotan gertatzen zen), jendeak txalo jotzeari ekiten zion. Gero txistularien saioa izaten zen plazan, eta herritarrek bederatzi edo hamarrak arte dantza egiten zuten[103].

1.787. urtean, iruindarrek Ejeako Lopez Artieda-ri erosi zizkioten zezenak, nahiz eta aurreko urtean txarrak atera. 18 zezen eta 8 zezenko ekarri zituzten bakoitza 28 eta 22 dukat hurrenez hurren ordainduta. Guztira 7.480 erreal jaso zituen ganaduzaleak. Zezenak oso txarrak atera ziren, eta zezenkoak onak.

Toreatzaileen kontratazioan, Francisco Garcés sevillarrak sistema berria ezarri zuen Irufiean 1.787.ean. Odurarte Udalak, toreatzaileak plazan egindako lanaren arabera ordaintzen zion bakoitzari. Baina Francisco Garcés-ek aurrez erabakitako kopuru jakin bat ordaintzera behartu zituen. Garcés gainera, taldeburu joango zen Irufiera eta berak ordainduko zituen bere koadrilako banderilari eta pikatzaileak.

Harez gero, Udalak ezpatari batekin egin zituen tratuak, eta honek hartuko zuen bere koadrila (pikatzaileak barne) aukeratzeko, ekartzeko eta ordaintzeko ardura.

Francisco Herrera *Currillok* idatzi zuen behin eta berriz udaletxera, aurreko urteetan bezala (sistema zaharrean) toreatzera joateko baimena eskatuz, baina iruindarrek ez zioten erantzun. Francisco Garcés-i deitzea (bere sistemara makurtuz) nahiago izan zuten.

Toreatzen aritu zirenen xehetasunak ondokoak dira:

– Bartolomé Carmona. Pikatzailea. Madriletik etorria. Ona
– Andrés Solís. Pikatzailea. Madriletik etorria. Ona
– Francisco Garcés. Ezpataria. Madriletik etorria. Ona
– Jose Jimenez. Banderilaria. Madriletik etorria. Ona
– Juan Jose Torres. Banderilaria. Madriletik etorria. Ona
– Manuel Gonzalez. Banderilaria. Madriletik etorria. Ezgauza
– Nicolas Martinez. Banderilaria. Medinaceli–tik etorria. Ezer gutxi.

Guzti hauen izenean berrogeitamar ontzako kobratu zituen Francisco Garcés taldeburuak, aurrez erabakita bezala. Zaldiak Garcés–en kontura joan ziren.

Horrez gain 500 erreal ere eman zizkioten, plazan eskaintza edo brindisak egitea debekatu zitzaielako. Zezenen bat edo lantzeren bat ikusle jakinei eskainita, haiengandik propinak jasotzen zituzten. Iruñean ordea, hori toreatzaile guztiei debekatu zitzaien.

Toreatzaileek lana ondo egiteagatik, hiru zezen ere eman zizkieten saritzat; zezenen balioa, hobeto esan (120 erreal).

Garces *maisuak* guztira, 8.620 erreal kobratu zituen eta haietatik bere mutil bakoitzari berea eman zion.

Garcés eta bere taldeaz aparte, Santiago Alargunsoro faltzestarra (hiru ontzako edo 480 erreal), Jose Vallejo logronioarra (bi ontzako edo 320 erreal) eta Joan Jose Azkarate (ontzako eta laurden edo 200 erreal) aritu ziren Gaztelu–plazan. Hauei ere debekatu egin zitzaien brindisa egitea. Beste toreatzaile batzuk ere etorri ziren menturaz, baina ez zitzaien plazaratzen utzi. Gehienez ere batzuei zertxobait eman zieten bidai gastutarako; Manuel Frances, Pedro Gomez, Frantzisko Lakarra eta Ignacio Rubio–ri adibidez. 80–85 erreal jaso zituen bakoitzak.

Korridan, istripu bat gertatu zen. Arratsaldeko bostgarren zezenak, bospasei pikaldi jasan ondoren Moja Oinutsen alderako ate gainetik salto eginez arrasterako mandoak zeuden lekura erori zen. Han Martin Leon Irigoien iruindarraren bi mando adarkatu zituen larriki zauriturik utziz. Mandajabeari 640 erreal eman zizkioten kalteak ordaintzearren.

1.788. urteko sanferminetarako, iruindarrek Erriberako zezenak aztertzera Jose Salvador bidali zuten maiatzaren hasieran. Aurreko urtean txarrak atera zitzaizkienez gero, aukera ondo egitekotan zebiltzan. Jose Salvador–ek honela zioen bere txostenean:

– Autol. Severino Perez–ek, *Hormiguero* izeneko lekuan, Alfaroko belardian, Ebro–ertzean, 70 zezen ditu. 40 bost urtekoak eta gainerakoak laukoak. Gehienak txikiak eta argalak.

– Argetas. Gabriel Gomez–ek, *Granjaferia* izeneko lekuan, Alfaroko belardian, Ebro–ertzean, 30 zezen ditu. 8 bost urtekoak eta gainerakoak laukoak; lehenengoak ederrak eta bigarrenak erdi–mailakoak.

– Tutera. Xabier Gendulain–ek, Kastejon–eko angioan, Ebro–ertzean, 80 zezen ditu. 40 bostetik sei urterakoak eta gainerakoak laukoak. Denak ederrak eta mardulak, baina lehenengoak itxura bikainekoak.

Iruñeko idazkariak Gabriel Gomez–i idatzi zion Argetasera, zituen bost urteko zortzi zezenak eta zortzi zezenko sanferminetarako gorde zitzan eskatuz.

Gabriel Gomez-ek ezezkoa eman zuen erantzunean, aurreko urteetan Madrilera eta Probintzietara zerbitu zituelako zezen gutxi zuela esanez.

Iruindarrek orduan, Ejea-ra bidali zuten Salvador jauna zezenak ikustera. Diego Venturaren hamasei zezenen ezaugarrien berri eman zuen. Honelaxe:

- *Segadón*. Gorriluna
- *Rodante*. Beltz argia eta adarbildua
- *Sargento*. Gorrilun-beltza, adakera onekoa
- *Magnate*. Beltza eta bizkarrezurrean zerrenda nabarduna
- *Aceitero*. Beltza eta berdin zerrendatua
- *Calzones*. Beltza, zerrendatua eta aurrera-adarduna
- *Gavilán*. Beltza eta adarzabala
- *Artillero*. Beltza eta adarbildu samarra
- *Valenciano*. Beltza, zerrendatua eta aurrera-adarduna
- *Jabalí*. Beltza. Ezekerreko adarrak bi behatzeko luzera falta du
- *Alpargatero*. Gorriluna eta adargora.
- *Pulsera*. Beltza, satai onekoa
- *Capuchino*. Beltz argia, kopetean lau behatz adinako gorri-unea duelarik
- *Cerrajero*. Beltza, zerrendatua
- *Roncalés*. Erabat beltza
- *Tornillo*. Beltza, zerrendatua.

Iruñeko Udalak 16 zezen eta 8 zezenko erosi zizkion Diego Ventura ganaduzaleari. Plazan denak ondo portatu ziren eta zezen bakoitza 34 dukat eta zezenko bakoitza 24 dukat kostatu zen. Gainera, ganadua Aragoatik ateratzeagatik beste 357 erreal ordaindu behar izan ziren. Guztira 8.453 erreal kostatu zitzaizkien. San Pedro egunean bestetik, Mendigorriako emakume bati erositako (2.757 errealetan) bi zezenko korritu zituzten.

Sanferminetako korridara Martin Alvarez Sotomayor erretorde berria lehen aldiz joan zen. Entzierrokoan, zezenak eta joaldunak Markos Loiola eta Fermin Sarasa-ren soroetara sartu ziren, kalteak sortuz. 109 erreal ordainduz indemnizatu zituen Udalak.

Zezenak toreatzera, Francisco Garcés ekarri zuten berriro. Honek pikatzaile eta banderilariak bere menpe ekarri zituen, aurreko urtean bezalaxe. Garcés maisuak ordaindu zien beraz bere mutilei. Oinezko bost toreatzaile eta bi pikatzaile ekarri zituen. Zaldiak bere kontu ziren, eta brindisak egitea debekatua zuten.

Lau zezenen balioa ere eman zioten Garces-i, ondo hil zituelako, saritzat. 50 ontzako lanagatik eta bat propina gisa (51 guztira) kobratu zituen taldeburuak; 8.670 erreal. Zezenak, Juan Chamorro eta Diego Garcia Colchón (Chiclana-koa) zaldunek pikatu zituzten. Francisco Olesko banderilaria ekarri zuen Garces-ek, Juan Jose Torresekin batera.

Jose Jimenez banderilariak Iruñera idatzi zuen, maisuarekin toreatzen utz ziezaioten. Francisco Herrerak ere idatzi zuen lanera etortzeko baimena eskatuz, baina ez zioten erantzun.

Menturaz joanda, Santiago Alargunsoro (340 erreal; korridako laugarren zezena saritzat eman zioten), Pedro Gomez (127 erreal eta 18 marai), Nicolas Martinez (340 erreal) eta Ignacio Rubiok (170 erreal) lan egin zuten plazan. Frantzisko Lakarra eta Manuel Frances-i ez zieten plazara irteten utzi eta zertxobait kobratu zuten bidai gastuetarako.

Hiltegian hiru egunetako zezenak larrutu zituztenek, 31 erreal eta 31 marai kobratu zituzten[8].

1.789. urtean, Espainiako Karlos IV.a errege berriaren omenez zezen-korrida asko antolatu zen. Irailaren 22an, Madrilen bertan (herriko Plaza Nagusian, eta ez biribilean) korritu zituzten zezenak erregearen aurrean. Pedro Romero, *Costillares* eta *Pepe Illo*k parte hartu zuten, burtziketako zaldunez aparte. Plazaren apainketaz Frantzisko Goia pintatzaile famatua bera arduratu zen.

Besteak beste, Errioxako Ceferino Perez-en zezenak plazaratu zituzten[41]. Baita Ejeako Francisco Venturarenak ere[46]. Ejean bertan ere zezenkoak jokatu ziren errege berriaren omenez abuztu bukaeran eta irail hasieran. Aragoako Tarazonan urriaren bostean eta seian izan ziren zezenkoak. Tauste-n berriz, irailaren bukaeran zezenkoak eta zezen bolaztatua plazaratu zituzten. Bilbon, urriaren bostean ospatu zuten korrida arrazoi beragatik[45].

Iruñeko udalgizonek, Jose Salvador ganadutegietako zezenak ikustera bidali zuten. Argetas, Tutera, Ejea eta abarretara. Hamar egunez aritu zen bere lanean, eta 285 erreal eman zizkioten.

Gero, Gabriel Gomez argetastarraren 16 zezen eta 6 zezenko ekarri zituzten. San Fermin eguna asteartez tokatu zen. Korrida asteazkenean izan zen. Aurreko igandean ordea, Alesbes-etik ekarritako sei zezenko jokatu zituzten.

Korridan Gomez-en zezenak *faltsuak* atera ziren. Zezenkoak berriz, onak. Horren arabera ordaindu zituen hiriak 30 dukat zezen bakoitzagatik eta 24 dukat zezenko bakoitzagatik; 6.864 erreal guztira[8].

Zezenak toreatzera, Pedro Romero, *Costillares, Pepe Illo* edo Garcia Conde ekarri nahi zituzten; garai hartako lau onenetako bat. 1.300 edo 1.400 peso ordaintzeko prest zeuden gainera. Ez zen ordea lau haietako inor etorri. Pedro Romero adibidez, Cadiz, Jerez eta abarretan omen zebilen lanean eta uztailaren bukaerarako Bilborako dei egin omen zioten. Besteek ere ezina adierazi omen zuten[94].

Francisco Garcés etorri zen azkenean bere taldearekin. Oinezko bost eta pikatzaile bi etorri ziren Garcés-en agindupean. 1.300 peso ordaindu zitzaion taldeburuari. Gainera lau zezen ere bai, saritzat, ondo hiltzeagatik; hiru Garcés-i eta bat Alfonso Alarcon *Pochori*. Alarcon-ek banderila-pareak oinez eta zaldiz ondo sartu zituen; laugarren zezenean batez ere. Zaldi bat galdu zuen zezenak adarkatuta.

Juan Jose Torres, Cristobal Diaz *Mancheguito*, Manuel Gonzalez eta Francisco Olesco izan ziren Garcés-en beste banderilariak. Pikatzaileak berriz, Juan Chamorro eta Diego Garcia *Colchoncillo* izan ziren.

Garcés-en taldetik aparte, beste oinezko toreatzaile hauek plazaratzea onartu zuten Iruñeko arduradunek: Santiago Alargunsoro (340 erreal; *proba*ko bigarren zezena saritzat), Joan Antonio Azkarate (170 erreal edo ontzako bat), Joakin Barrena tolosarra (85 erreal), Manuel Bueno Medinaceli-koa (85 erreal), Nicolas Martinez Medinaceli-koa (255 erreal), Alejo Rodrigo Naiara-koa (85 erreal), Ignacio Rubio (170 erreal) eta Jose Vallejo (340 erreal). Frantzisko Lakarrari ez zioten lanerako baimenik eman; bidai gastutarako zertxobait baizik.

Korridako azken zezena hiltzera, errotari gazteak ez ziren atera, beste urtetan ohi bezala.

Frantzisko Zabalza mandazainak 130 erreal irabazi zituen hiru arratsaldetan hildako sei zezen plazatik ateratzeagatik.

———— o ———— o ————

1.790. urtean, apezpikuak debekatu egin zuen Balmasedako Kolitza–ko ermitan San Roke egunean meza ematea. Danbolindaria joaten omen zen hara eta meza ondoren dantzan egiten omen zuen jendeak. Debekuaren ondorioz, Pandozales–en ez zuten festarik eta zezenkorik antolatu[63].

Urte hartantxe, abuztuaren 30ean Madrilen Karlos IV.a erregeak herritako sokamuturra (gauez nahiz egunez), debekatu egin zuen. Sokari lotutako zezenek eta zezenkoek hildako, zauritutako eta kalte asko sortzen zutela zioen erregeak bere debekuan[104].

Madrilen dena dela, abuztuaren hogeitamaikan Joakin Goienetxe ganaduzalearen zezenak jokatu ziren plazan[19]. Buenos Aires–en bestetik, euskal deiturako beste bi toreatzailek lan egin zuten; Jose eta Joan Agiar–ek hain zuzen[73].

Iruñean, ekainaren 29an izan zen lehen nobillada. Teileriako eta San Nikolas–eko portaleen artean 24 tutuko iturria estreinatu zuten ura Zubitzatik ekarrita. Mendigorrian erositako lau zezenko korritu ziren plazan. Beste laurak uztailaren lauean, igandez, jokatu zituzten.

Sanferminetarako zezen–bila Errioxara jo zuten. Autol herriko Severino Perez ganaduzaleari 16 zezen (ahal dela sei urtekoak, handiak eta adakera onekoak) eta 6 zezenko eskatu zizkioten. Errioxarrak itxura oneko abereak bidali zituen, eta plazan suhartasuna erakutsi zuten. Horregatik iruindarrek 35 dukat ordaindu zizkioten zezen bakoitzagatik eta 24 dukat zezenko bakoitzagatik. Abereak Gaztelatik aterata Nafarroara sartzea, 239 erreal eta 9 marai kostatu zitzaien gainera: 8.037 erreal guztira.

Zezenak toreatzera Francisco Garcés ekarri zuten beste behin Iruñera. Hark bere pikatzaileak eta banderilariak ekarri zituen ohi bezala: Diego Amisas andalusiarra eta Juan Lopez (Guadajoz–ekoa, Sevillakoa, oso ausarta). Banderilariak berriz, Antonio Diaz, Manuel Gonzalez, Juan Jose Torres eta Francisco Rios.

Francisco Garcés–ek oso ondo egin zuen lana urte hartan. 18.000 erreal jaso zituen handik bere taldekoak ordaintzekotan. Brindisak debekatu egin zitzaizkien eta zaldiak beren kontu izan ziren. Garcés–ek, urrezko bost dobloi gehiago jaso zituen saritzat, bost zezen trebetasunez hiltzeagatik.

Menturaz toreatzera joandako gehiagok ere lan egin zuen Gaztelu–plazan: Joan Antonio Azkarate (42 erreal eta 18 marai), Joaquin Casala (85 erreal), Bizente Etxauri logronioarra (31 erreal eta 31 marai), Pedro Gomez (85 erreal edo ontzerdia) eta Alejo Rodrigo naiararra (85 erreal) adibidez.

Zezenkoak eta zezen bat bolaztatzeko, Frantzisko Dendariarena tornulariari dei egin zioten. Ezpelezko 8 bola egin zituen hark. Bakoitza pezeta kostatu zen; guztira 17 erreal.

Agintariei korrida erdian ohi bezala emandako askaria, gehiago kostatu zitzaien; 601 erreal

eta marai bat hain zuzen[8].

Akitaniako Houga herrian, istiluak izan ziren korrida batean 1.790. urtean. Monguilhem-eko Verdier anderearen zezena jokatu zen[74].

Orain Zestoako auzo den Arroan 1.791. urtean zezenak jokatzen zirenaren arrastoak badaude. Izan ere urte hartan, elizako organistak umeei ematen zien eskola toriletako gela batean emateko baimena eskatu bait zioten Irufieko apezpikuari. Torilak zimitorio edo eliz atariaren ondoan zuedenez gero, zezenak edo zezenkoak jokatzen zirela pentsa daiteke[105].

1.791. urtean, Antonio Olagibel arkitektoaren gidaritzapean egindako Plaza Berria estreinatu zen Gasteizen, hiriko harresietatik kanpo. Estiloz neoklasikoa eraiki zuten[106].

Plaza karratu horretan, harrizko 34 etxe zeuden, udaletxea handiena zelarik. Arkupeak ditu buelta osoan eta leiho bakoitzak bere balkoia du, zezen-korridak ikusteko. Izan ere zezenplaza biribilik gabeko hirian, azoka-plaza erabiltzen bait zen horretarako, Humboldt-ek egoki dioenez[107].

Balmasedan 1.791.ean, San Roke egunean Kolitzara joateari eta Pandozales-en zezenkoak jokatzeari utzi egin zioten. Harez gero, txistua eta zezenkoak Balmasedako Goiko plazan izan ziren[63].

Zezenfestetan ia oraintxe arte erabili diren suzko banderilak, 1.791.ean asmatu zirela dio Bizente Zabala idazleak. Asmatzailea, Jose Ruiz *Calesero* bide zen eta makilan bolborazko eta lehergarrizko kartutxoak zituen. Aranjuez-en ipini omen ziren lehenbizikoz[108]. Dena den, Irufiean 1.783. urtean erabiltzen ziren. 1.784.ean ez bait zituzten prestatu aurreko urtean sobratu zirelako.

Baina gatozen Irufieko 1.791.eko sanferminetara. Aurretik Jose Salvador bidali zuten Autol, Ejea, Argetas eta Tuterara zeuden zezenak azter zitzan.

Haren txostenaren ondorioz, Ejeako Francisco Ventura ganaduzaleari 18 zezen erosi zizkioten. Zezenen plazako portaera ez zen ona izan, eta Udaleko arduradunek zezen bakoitzagatik 35 dukat ordaindu zituzten. Beste sei peso kostatu zen ganadua Aragoatik atera eta Nafarroara sartzea. 7.218 erreal kostatu ziren zezenak guztira.

Zezenkoak Martzilla-ko Bartolome Billabari erosi zizkioten. 232 dukat edo 2.552 erreal kostatu zitzaizkien guztira.

Eskirotz eta Irufiean, zezen, zezenko eta joaldunek ihes egin zuten bi goizetan, inguruko soroetan kalteak sortuz. 185 erreal eta 25 marai kostatu zen kalteak ordaintzea.

Zezenetarako sarrerak ordaintzea berriz, zilarretan (zilarrezko txanponez) egiten zen Irufiean. Urretan ordaintzerik ez zuten onartzen (*por el perjuicio y detención que se origina*).

Korrida hasi aurretik, gartzelako zepoak erakutsi zituzten plazan, badaezpada ere ikusleak behar bezala egon zitezen[8].

Zezenak toreatzera, Francisco Garcés-ek bere koadrila ekarri zuen aurreko urtetan bezalaxe. Gainera Madriletik aparte, Jose Delgado *Pepe Illo* ere etorri zen.

Hona hemen urte hartako beren lanaren xehetasunak:

- Manuel Ximenez. Pikatzailea. Ona
- Juan Lopez. Pikatzailea. Ona
- Francisco Garcés. Ezpataria. Ona
- Alfonso Alarcón *el Pocho*. Banderilaria. Ona
- Manuel Gonzalez. Banderilaria. Ona
- Tomás Colchón. Banderilaria. Erdi-mailakoa
- Antonio Rodriguez. Banderilaria. Erdi-mailakoa.

Hauei 18.000 erreal ordaindu zitzaizkien aginduta bezala. Zaldiak bere kontu izan ziren eta brindisak egitea debekatu egin zitzaien. Garcés-i beste hiru zezen edo 1.200 erreal eman zizkioten saritzat lana ondo egiteagatik.

Jose Delgado *Pepe Illo* Garcés-ekin batera etorri zen. Oso bikain toreatu eta hil zituen zezenak. 1.700 zilarrezko erreal irabazi zituen, saritzat emandako sei zezen barne[94]. Jose Delgado-k, Antonio Garcia ekarri zuen morroi gisa. 85 erreal bakarrik eman zizkioten plazan egindako lanagatik.

Horietaz gain, beste toreatzaile batzuek lan egitea ere onartu zuten Iruñeko arduradunek. Ondoko hauek ere erakutsi bait zuten beren trebetasuna zezen aurrean: Joaquin Casala (ontzako bat edo 170 erreal), Jose Gorostiza bilbotarra (255 erreal), Vicente Lara (340 erreal) eta Ramon de la Rosa.

Ramon de la Rosa jereztarrak, eskabide berezia egin zuen gainera. Hark mahai baten gainetik oinetan girgiluak zituela zezenaren gainetik salto egingo zuela esaten zien. Gero zingila zezenari ipini eta zezen gainean eserita arrautz esnekia jango zuela ere bai, etab.

Iruindarrek ez zioten horretarako baimenik eman. Goiak marraztutako *Martintxo*ren antzera salto egitea nahi zuen Ramon de la Rosa-ri ordea, zerbait egiten utzi zioten. 170 erreal (ontzako bat) eman bait zizkioten, nahiz eta erabat ezgauza zela adierazi.

Korridako azken zezena, bolaztatu ondoren errotari gazteek lantzaz jota hiltzen zuten Iruñean, baina 1.791.ean ez zuten hil. Plazaratu baino lehentxeago zurezko bola bat puskatu egin bait zuen zezenak eta udalgizonek errotari iruindarrak erretirarazi egin zituzten. Adarretako bolak, ezpelez Frantzisko Dendariarena tornulariak eginak ziren. 21 bola egin zituen urte hartan 44 erreal eta 22 marairen truk.

1.792. urteko sanferminak baino lehen, Jose Salvador bidali zuten berriro ere iruindarrek Erriberako zezenak azter zitzan. Ejean, Alfonso Artiedaren 40 zezen ikusi zituen, baina 14 onenak Madrilerako aginduak zeuden. Ejean bertan, Francisco Venturaren 9 eta Juan Murilloren 24 ikusi zituen. Hauetako 28 Zaragozara eramatekoak ziren. Ejean, Diego Venturaren alargunak lau urteko hamabi zeuzkan. Autol-en Severino Perez-ek 80 zituen. 20 Cadiz-era eramateko aginduak zeuden.

Iruñeko idazkariak Severino Perezi idatzi zion 12 zezen eskatuz, baina ganaduzaleak ezezkoaz erantzun zuen, bi korrida Cadizera eta beste bat Madrilera bidali behar zituela esanez.

Azkenean, Argetaseko Gabriel Gomez-i erosi zizkioten 12 zezen, eta beste 6 zezen eta 2 joaldun Salamancako Jose Velez Cossio-ren bitartez hango lurretatik.

Zezenez gain, Mendabiako Antonio Garcia-ren 10 zezenko ekarri zituzten. Zezenkoak 2.530

erreal kostatu zitzaizkien (hogeitahiruna dukat) eta ez ziren onak atera.

Salamancako zezenen plazako portaera ez zitzaien iruindarrei gustatu. Guztira, zezen eta joaldun, 5.525 erreal kostatu ziren.

Argetaseko zezenak ere ez ziren onak suertatu. Bakoitza 40 duro kostatu zen (prezioa saldutakoan erabaki zuten eta ez jokatu ondoren). Guztira 4.800 zilarrezko erreal edo 5.100 erreal.

Argetaseko nafar–zezen haien ezaugarriak, ondoko hauek ziren:

– *Soberbio*. Bost urtekoa. Gorri–argia. Adarrapala
– *Campanero*. Bost urtekoa. Nabar samarra. Belarrisoila.
– *Peregrino*. Lau urtekoa. Gorri fina. Ezkerreko hanka adarrez arrastatua.
– *Magnate*. Lau urtekoa. Beltz fina. Belaunpeak nabar samarrak
– *Escribano*. Lau urtekoa. Gorribeltza.
– *Capuchino*. Lau urtekoa. Gorriluna.
– *Galgo*. Lau urtekoa. Beltz fina.
– *Trujalero*. Lau urtekoa. Gorriluna.
– *Comisario*. Lau urtekoa. Gorribeltza.
– *Cascabel*. Lau urtekoa. Gorriluna. Adarzabala.
– *Gavilan*. Lau urtekoa. Marrabelztun gorribeltza. Adarzabala.

Zezenak toreatzera Francisco Garcés etorri zen beste behin bere koadrilarekin Andalusia eta Madriletik. Oinezko lauk eta zaldizko bik osatu zuten taldea. 18.000 erreal jaso zituzten, kontratuan aginduta bezalaxe. Horretaz gain, urrutitik etorri zirelako eta plazan sei zaldi galdu zituztelako, beste 2.000 erreal eman zizkien Iruñeko idazkariak. Garcés–i bestetik sei zezen eman zizkioten saritzat eta bere banderilari bati beste bat (640 erreal zezenengatik). Guztira 20.640 erreal jaso zituen taldeburuak; zilarrezko 10.965 erreal.

Pikatzaileak Diego Sesma eta Isidro Sesma izan ziren. Beren lana ez zitzaien gustatu iruindarrei.

Menturaz joanda, Jose Vallejo logronioarrak lan egin zuen Gaztelu–plazan. 340 erreal eman zizkioten. Ramon de la Rosa jereztarrak ere eskabidea egin zuen, aurreko urtean bezalaxe, zezen gainetik salto egin eta zezen gainean ibiltzeko asmoz. Ezezko biribila eman zioten. Plazan ordea, beste zerbait egingo zuen, 170 erreal eman zizkiotenez gero.

Urte hartan (1.792.ean), Lazaro Garriz–ek banderilak (suzkoak eta normalak), eta ezten–hagak (pikatzaileentzakoak eta errotarien *palenque*rakoak) prestatu zituen. Lan horregatik 179 erreal eta 12 marai eman zizkioten.

Monika Larunbe–k (Fermin Urriza zahagigilearen alargunak) bi txotxongilo zerbitu zituen korridarako 28 errealen truk[8].

1.792. urteko abuztuaren 10ean Frantziako Luis XVI.a tronotik bota zuten Iraultzaren ondorioz, eta irailaren 22an jadanik Errepublika ezarria zegon.

1.793. urteko martxoaren 7az gero, Frantzia eta Espainia gerran zeuden, eta Iruñean urte hartan ez zen zezenik egon[5]. Nafarroa eta Gipuzkoara gainera, Frantziako tropak sartu ziren. Baita Bilbo eta Gasteizera ere. Hiri hauetan ere ez zen beraz zezenik egon urte hartan[39].

1.793. urtean ordea, Jose Branet apaiz gaskoia ihesi joan zen Tuterara Frantziako Konstituzioari zin egiterik nahi ez ziolako. Tuterako ohiturak deskribatu zituen, eta baita tuterarren zezenzaletasuna ere. Nobilladatarako berebiziko joera omen zuten. Festetaz aparte, beste zenbait santu-egunetan edo herritarren bat kargu nagusiren baterako izendatzen zutenean ere jokatzen omen zituzten zezenkoak plazan. Zezenkoa oldartu eta gazteak larri zebiltzanean, plazaren alde batera joan eta han zintzilik zeuden sokatan gora igotzen omen ziren.

Batzuetan plaza-erdira zumezko txotxongiloa ateratzen omen zuen gazte batek, zezenak erasotzera egiten zuenean gazteak txotxongiloa utzi eta alde egiten zuelarik. Beste batzuetan, barruan katuak eta azerikumeak zituen estatua bat uzten zioten plazan zezenari; edo ardatz baten inguruan biratzen zuten zurezko andere eta gizonezkoa.

1.793. urteko uztailaren 28an ordea, Jose Branet apaiz gaskoiak korrida ikusi zuen; *Pepe Illo* ezpatari famatuak toreatu zuenekoa hain zuzen. Egun hartantxe, moja kaputxinoen eta Irakaskuntzakoen komentu barruan bigantxa bat korritu zuten, eta hurrengo egunean ez zen komuniorik egon, nahiz eta egotea arauzkoa izan.

Gainera, hilaren 25ean jokatu behar ziren zezenkoak bedeinkatu egin zituzten, baina apaiz gaskoiak galdetu arren, inork ez zion erantzun bedeinkazioa zertarako zen: suharrak atera zitezen ala kalterik egin ez zezaten[100].

Madrilen uztailaren 8an korrida izan zen, eta bertan goizean korritutako hirugarren eta bostgarren zezenak nafarrak ziren. Hirugarren zezena Argetaseko Gabriel Gomez-ena zen. Dibisa urdina erakutsi zuen zortzi banderila eta hamahiru pikaldi jasan zituenean. Laugarren pikaldian zaldia hil zuen eta zortzigarrenean beste bat. Hamargarren pikaldian beste zaldi bat zauriturik utzi zuen eta hamabigarrenean hilda utzi ere bai.

Antonio Romerok lehen txandan ezpata ondo sartu zion. Bigarren eta hirugarrenean behe samarrean sartu zion ezpata eta deskabellatuz errematatu zuen.

Bostgarren zezena ere nafarra zen. Hamaika aldiz pikatu zuten eta sei banderila ipini zizkioten. Bigarren pikaldian zaldia hil eta Miguel Perez pikatzailea erori egin zen. Hirugarrenean zaldi bat zauritu eta bostgarrenean beste bat hil zuen. Seigarrenean ere beste bat hil zuen, Juan Antonio Dominguez ordezko pikatzailea azpian hartuz. Hamaikagarren pikaldian, beste zaldi bati adarra bularrean sartu zion. Jose Romerok bi aldiz ezpata ondo sartuta hil zuen zezena.

Egun hartantxe arratsaldean ere izan ziren zezenak Madrilen. Arratsaldeko bigarrena, laugarrena, zortzigarrena eta hamaikagarrena Nafarroatik eraman zituzten.

Bigarrenak, hamabi pikaldi eta hamar banderila jasan zituen. Hirugarren pikaldian barrera saltatu eta hamaikagarrenean zaldi bat zerbait zauriturik utzi zuen. Ezpata sartzeko ez zion erraztasunik eskaini Jose Romerori. Hirutan sartu zion altzairua behe samarrean eta deskabelloz errematu zuen azkenean.

Laugarren zezena bost aldiz joan zen zalditara. Zazpi banderila ere sartu zizkioten. Bizi samarra zen, baina indar handirik gabekoa. Pedro Romerok ezpata Manuel Lopez *Nonari* utzi zion. Hau hiru aldiz saiatu zen sartzen. Lehenengoan behean sartu zion, bigarrenean zezenak ezpata eta muleta kendu egin zizkion eta hirugarrenean nahikoa ondo sartu zuen.

Arratsaldeko zortzigarren zezena, bost aldiz sartu zen zalditara eta zortzi banderila sartu zizkioten. Lehen pikaldian zaldia ukitu zuen, eta bigarrenean, Juan Lopez pikatzaileari haga hautsi zitzaion. Jose Romerok (Pedro–ren anaiak), ezpata Alfonso Alarcon *el Pochori* utzi zion jendearen eskariz. Alfonso–k ezpatakada bakarraz hil zuen zezena. Oso ondo sartu omen zion zezenari altzairuzko ezpata.

Arratsaldeko hamaikagarren zezenari, zortzi banderila sartu zizkioten. Candido–ren semeak hil zuen hirutan ezpata sartuta. Lehenengoan gaizki sartu zion, bigarrenean hobeto eta hirugarrenean erori zen zezena.

1.793. urteko uztailaren 30ean, Madrileko beste korrida baten berri eman zuten egunkariek. Goizean 6 zezen eta arratsaldean 12 jokatu ziren Madrileko plazan. Goizeko laugarrena eta arratsaldeko laugarrena eta zortzigarrena Gabriel Gomez argetastarrarenak ziren.

Goizeko laugarrenak sei banderila eta hamabi pikaldi jasan zituen. Zaldi bat hil eta beste bat zauritu zuen. Antonio Romerok (Pedroren anaiak) hil zuen laugarren kolpean. Lehen bietan ezpatak hezurra jo zuen. Hirugarrenean nahikoa ondo sartu zion, eta laugarrenean punta.

Arratsaldeko laugarren argetastar zezenari hamahiru pikaldi eman zizkioten, sartutako hamaika banderilaz gain. Zaldi bat hil zuen zezenak eta zezena berriz Antonio Romerok, bi alditan ezpata sartuta.

Arratsaldeko zortzigarren zezena behin bakarrik pikatu zuten, eta koldarra zenez gero suzko sei banderila sartu zizkioten. Antonio Romerok hil zuen. Lehen kolpean hezurra harrapatu zuen eta bigarrenean zintzurrean sartu zion ezpata.

Irailaren 23an ere goiz eta arratsaldez izan ziren zezenak Madrilen. Goizeko hirugarren zezena, Gabriel Gomez argetastar ganaduzaleak bidalia zen. Zalditara zazpitan sartu zen eta 13 banderila ipini zizkioten. Pedro Romerok hil zuen ezpatakada batez.

Arratsaldeko zortzigarren zezena dibisarik gabe plazaratu zen, baina dirudienez Nafarroatik ekarria zuten. Zalditara hirutan sartu ondoren suzko zortzi banderila ipini beharra izan zen. Antonio Romerok hil zuen, ezpata bi aldiz sartuta[109].

Madrilen 1.794. urteko uztailaren 1ean Ejeako Alonso Lopez Artiedaren zezenak jokatu ziren, soinean dibisa berdea zutelarik[46].

Zestoara, Frantziako tropak sartu ziren 1.794. urtean, eta herrian kalte eta lapurreta handiak egin zituzten. Besteak beste, zezenetarako barrerak soldaduen otorduak prestatzeko erre zituzten[32].

Irufiean ere ez zuten zezenik antolatu 1.794.eko sanferminetan gerra zela eta[8].

———— o ———— o ————

1.795. urtean, Sevilla–ko zezenplazan (*Maestranzan*), euskal deiturako ganaduzaleen abereak jokatu zituzten: apirilaren 18tik ekainaren 3rarte Joan Lesaka–renak (dibisa zuri-berdez), maiatzaren 16tik ekainaren 3rarte Bizente Landa–renak (dibisa zuri-urdinez) eta aldi berean Manuel Agirre sevillarrarenak (dibisa zuriz)[46].

Apirilaren 29an, 1.795.ean, Madrileko korridan Frantzisko Xabier Gendulain ganaduzale tuterarraren zezen bat plazaratu zen; bostgarrena hain zuzen, dibisa berdea zuelarik. Hamalau aldiz pikatu zuten zalditan eta 16 banderila sartu zizkioten. Bi zaldi zauritu zituen; bata Sebastian Rueda pikatzailearena. Candido-k hil zuen ezpataz bigarrenean. Lehenengoan hezurra topatu zuen eta bigarrenean behe samarrean sartu zion *volapie* edo oin-hegazka delako eran[109].

Bilbon ere korrida bikaina izan zen 1.795. urtean. Ciudad Real-eko Muñoz ganaduzalearen zezenak Manuel Gimenez eta Sebastian Rueda zaldunek pikatu ondoren, Jose eta Pedro Romero anaiek hil zituzten. Pedro Romerok zazpi ezpatakadaz zazpi zezen hil omen zituen[110].

Basel edo Basileako itunaz uztailaren 22an gerra amaitu zenean, 1.795.eko sanferminak jadanik igaroak zeuden, baina Iruñean urte hartantxe urriaren 3rako eta 5erako bi korrida antolatu zituzten.

Zezen-bila Aragoako Ejeara joan ziren Miguel Perez ganaduzalearengana. 26 zezen erosi zizkioten honi, berrogeitazortzina duro ordainduta. Prezio horretan Aragoatik ganadua ateratzeagatik ordaindu behar zen zerga sartua zegoen.

Jose Salvador-ek bestetik, Alesbes-en 7 zezenko eta Oliten 6 erosi zituen hiriaren enkarguz. Zezenkoak, garraioa, etab. 4.857 erreal eta 9 marai kostatu ziren guztira.

Ejeako zezenak Eskirotz-en eduki zituzten korrida-egunetararte, eta Jose Salvadorrek ekarritako zezenkoak Sadar-eko belardian.

Udalaren eskariz, toreatzaileentzat Antonio Jaunsaras sastreak hamar kapa josi zituen: lau *Duroyzko* urdin-berdezkoak eta sei kotoi gorrizkoak. 500 erreal *fuerte* kobratu zituen kapak josteagatik eta beste konponketa batzuk egiteagatik.

Zezenak toreatzera Francisco Garcés sevillarra etorri zen bere koadrilarekin. Taldean lau banderilari eta bi pikatzaile ekarri zituen Madriletik Gaztelu-plazan lan egin zezaten. Guztira 20.240 erreal *fuerte* irabazi zituzten: 20.000 kontratuari zegozkionak eta 240 sei zezen trebetasunez hiltzeagatik saritzat.

Hamargarren zezena hiltegiko abel hiltzaileei eman zieten saritzat, zezenari zakurrak botatzeagatik.

Fermin Urriza zahagigileak lau txotxongilo egin zituen 56 errealetan zezenetarako. Korrida erdian agintariek egindako otordua, 2.852 erreal eta 7 marai kostatu zen[8].

1.796. urtean, Cadiz-en *Pepe Illoren La Tuaromaquia o arte de torear* izeneko liburua argitaratu zenean alegia[69], Oiartzunen sanestebanetan korridak izan ziren. Joakin Antonio Olaziregi oiartzuarrak berak ordainduta lau zezen ekarri zituen, eta Udalak beste lau. Abuztuaren 4, 5 eta 6an jokatzea erabaki zuten.

Zezenak plazan hiltzea ezezik, pikatzea ere debekaturik zegoen erregearen aginduz. Baina abuztuaren lauean, zezenak hasi aurretik Francisco Garcés toreatzailea (Iruñera urtero taldeburu joan ohi zena) bere koadrilarekin Oiartzunen plantatu zen Curro-Ortiz pikatzailea berekin zuela. Tuteratik etorriak ziren eta Bilbora nahiz Baionara joan behar zuten.

Oiartzuarrak eta han zeuden kanpotarrak berehala hasi ziren toreatzaile haiek lan egin zezatela

eskean. 3.000 erreal eskatzen zituzten toreatzaileek lan egiteagatik eta, egia esan, ez zen gehiegikeria.

Baiezkoa eman ondoren, zezenak toreatu eta banderilak sartu zituzten. Ikusleek zezenak pikatzea eta ezpataz hiltzea eskatu zuten behin eta berriz, baina alferrik. Herriko agintariek ez zieten horrelakorik onartu.

Hurrengo egunean Olaziregi-ren zezenak jokatu zirenez, jendeak zezenjabe honi eskatu zion pikatzeko eta hiltzeko baimena. Olaziregi jaunak baiezkoa eman zuen, eta herriko agintariek ere bai azkenean. Zezen bat pikatu eta bi hil zituzten ezpataz egun hartan.

Hirugarren egunean kanpotar batzuk plazara atera ziren zezenak hil zitzaten eskatuz. Bertako gazteek makilaz horniturik eserlekuetara bidali zituzten, baina eserlekuetako jendea ere eskean hasi zenez gero, Olaziregi-ren beste zezen bat pikatu, banderilak sartu eta ezpataz hiltzea onartu zuten.

Urte hartan asko gastatu zuten oiartzuarrek festetan. Batek (Olaziregi-k dirudienez) 10.000 erreal eman zituen. Migel Mendinueta izeneko jaun ospatsu bat ere gonbidatu zuten oiartzuarrek sanestebanetara[60].

Iruñean 1.796. urtean, Pedro Romero ikusteko gogoa zuten. Rondako toreatzaile famatu hark ordea, uztailaren 11n korrida eman behar zuen Madrilen. Iruindarrek orduan, sanferminetako korrida atzeratzea erabaki zuten. Uztailaren 14 eta 15ean arratsaldean bina zezen jokatuko zituzten, eta 16an (larunbatez) goizean bi probarako eta hamar arratsaldean ohi bezala.

Ejeako Juan Murillo-ren 16 zezen etorri ziren Iruñera. Bakoitza 48 dukat kostatu zitzaien eta Aragoatik ganadua ateratzeagatik ordaindutako zerga kontutan hartuz gero, guztira 8.705 erreal jo zuen kontuak.

Horretaz aparte, San Fermin egunez eta hurrengo igandean 16 zezenko jokatu zituzten. Jose Salvador-ek erosi zituen Alesbes, Azkoien eta Martzillan 6.253 erreal ordainduta.

Beste zazpi zezenko ere erosi zizkioten Mendabiako Ramon Alcalde ganaduzaleari, korrida-egunerako eta bezperarako. 2.718 erreal kostatu zitzaizkien zazpi zezenkoak.

Zezenak toreatzera esana dugunez, Pedro Romero etorri zen bere koadrilarekin 35.000 errealen truk. Aurrez ordea, Iruñeko Udalari baldintza batzuk ipini zizkion Rondako toreatzaile famatuak. Batetik pikalditarako zaldiak Udalak ipiniko zituen, eta ez toreatzaileak, aurreko urtetan bezala. Iruñeko udalgizonek beraz zazpi zaldi erosi zituzten 315 peso *fuerte* ordainduta. Zaldirik merkeena 28 peso kostatu zen eta garestiena 55. Pedro Romerok dena dela, zaldi onak, mardulak eta gogorrak eskatu zituen. Harez gero gainera, Udalak ipiniko zituen sanferminetan pikatzaileen zaldiak.

Beste baldintza bat, *camelotezko* sei kapa eginak edukitzea izan zen. Bost kapak, bernaren erdirainokoak izan behar zuten, txuliatzeko zirenez gero. Seigarren kapak motzagoa izan behar zuen; belaunburu eta izterraren tarterainokoa. Azken hau muleta gisa ezpata sartzeko erabiliko zuen. Ahuntz-ilea eta artilea nahastuta egin ohi zuten *camelote* izeneko ehun gogor eta iragazkaitza.

Ordurarte Iruñeko Udalak ematen zizkien lanerako tresnak, ezpatak ezik, toreatzaileei. Baita zaldientzako zelak ere. Baina Pedro Romerok beste inork ez bezala tresnen neurriak eta gaia inposatu zituen.

Uztailaren 14ean, Antonio Romerori (Pedroren anaia txikiari) zezen baten balioa saritzat eman zioten, eta 16an ere bai seigarren zezena. *Pocho* banderilariari berriz, zortzigarrena eman zioten saritzat[8].

Abel hiltzaileei ere eman zieten zezen bat (bederatzigarrena) zakurrak botatzeagatik, eta errotariei ere bai (hamargarrena) lantzaz jota hiltzeagatik.

Zezenak pikatzera, Cañete izeneko zalduna ekarri zuen, besteak beste, Romerok Iruñera bere koadrilan. Pedro Romero urte hartantxe bakarrik ikusi zuten iruindarrek toreatzen; ez bait zen beste inoiz Nafarroako hiriburura etorri[94].

1.797. urteko sanferminetarako, Ejeako Miguel Perez ganaduzaleari 21 zezen eta 5 zezenko erosi zizkioten. Zezen bakoitza 49 dukat kostatu zen eta zezenko bakoitza 20 duro. Aragoatik ganadua ateratzea bestetik, 394 erreal eta 33 marai kostatu zen. Guztira, 13.838 erreal eta 33 marai.

Horietaz gain, Alesbes–en Tomas Lopez–en 13 zezenko ere hartu zituzten hogeitamalauna dukatetan (4.862 erreal guztira) eta Funes–en Joaquin Tejada–ren beste bi hogeitamabostna dukatetan (770 erreal biak).

Zezenko guztiak plazan jokatu eta hiltegian hil eta larrutu ondoren, okela salduta 4.748 erreal eta 15 marai jaso zituzten.

Zezenak toreatzera Francisco Garcés ekarri nahi zuten Iruñera. Madrilera eskutitzak bidali zizkioten, eta baita toreatzaileak Iruñera ere baldintzak eta prezioak emanez eta Madrilen ere uztailaren hiruan korrida zuela esanez.

Azkenean Francisco Garcés etorri zen sanferminetara, bi pikatzaile eta lau banderilarirekin. Guztira 20.740 erreal *fuerte* irabazi zituzten. 19.000 erreal *fuerte* kontratuak zioenaren arabera, 1.500 erreal *fuerte* Madriletik Iruñera garaiz etortzeko beharrezko mandoak ordaintzeko eta pikatzaileek korridako seigarren zezena pikatzeagatik (probako biak eta arratsaldeko bost bakarrik pikatzera beharturik bait zeuden). Beste 240 erreal *fuerte* banderilari bati eta Garcés–i sei zezen saritzat eman zizkietelako. Guztira 22.036 erreal *ahul* eta 9 marai jaso zituen taldeak. Pikatzeko zaldiak gainera, Udalak ipini zituen.

Garcés–en taldeaz gain Manuel Abalos eta berarekin menturaz joandako beste lau toreatzailek ere lan egin zuten Gaztelu–plazan. 800 erreal eman zizkieten bostei.

Zezenetarako larruzko bi txotxongilo egin zituen urte hartan Felix Ziriza zahagigileak 28 errealetan.

Plazan hildako zezen eta zaldiak ateratzen, Jose Escobar aritu zen bere mandoekin. Hogei zezen atera zituen (zaldiak aparte) bost egunetan, 212 erreal eta 18 marairen truk.

1.997. urteko sanferminetan Gaztelu–plazako eserlekuetarako sarreren prezioa hau izan zen:

– Uztailaren 6an, 5½etan (bi zezen): Estalitako eserlekua pezeta batean, estaligabea zilarrezko erreal batean.

– Uztailaren 7an, 4½etan (bi zezen eta zazpi zezenko): Estalitako eserlekua pezeta batean eta

estaligabea zilarrezko erreal batean.

- Uztailaren 10ean, 3retan (10 zezen): estalitako eserlekua duroerdi batean eta estaligabea bi pezetatan.

Tuteran ere korrida eman zuten urte hartan uztailaren 28an. Jose Branet apaiz gaskoia ikusle suertatu zen eta hango gorabeherak idatzita utzi zituen.

Azken zezenari zezentxakurrak bota omen zizkioten, eta orduan oinezko batek ezpata hondoraino sartu zion. Hirugarren zezena jendeak hil omen zuen makilaz kolpaturik.

Zezenak toreatzen Joakin Antonio Lapuia azkoiendarra aritu zen. Jendeari gustatu zitzaion 1.772. urteko urtarrilaren 16an jaiotako toreatzaile honen lana. Ezkogile-gozogile zen ofizioz eta Nafarroako Erriberan zezenak toreatzen zituen herritako festetan[8].

Urte hartantxe, 1.797.ean alegia, Ataunen usario zaharrari jarraituz maiatzaren azkenean herritar guztien *mendibehiak* mendira eraman zitzaten agindu zuten. Etxean uztarrirako behiak eta familiako esne-behi bat bakarrik eduki zezaketen. Ohitura honek oraingo gure garairarte iraun du Ataunen[111].

1.798. urtean Azpeitian *Xabier de Guerrico* toreatzaileak lan egin omen zuen bere koadrilarekin saninaziotan. 300 erreal eman zizkioten. Frantzisko Aizpuru-ri berriz bi erreal bi ezten-hagagatik eta beste 24 Joan Jose Oñati-ri banderila batzuengatik. Antonio Ertzilla-ri 50 erreal eman zizkioten zauritutako toreatzailea bere etxean zaintzeagatik, botikengatiko bost erreal barne[23].

Ez dakigu zauritutako toreatzailea zein zen; Xabier bera ala taldekoren bat. Dena dela, gure ustez Azpeitira etorritako toreatzailea ez zen *Xabier de Guerrico*; Xabier Gereka zarauztarra baizik. Hau eta bere anaia Joan Martin, Iruñean ere toreatzen aritu ziren; 1.811. urterarte dirudienez[80].

1.798. urtean bestetik, Iruñean ohizkanpoko bigarren korrida antolatzeko baimena lortu zuten. San Lorentzo elizan kapera berria egingo zioten San Fermin-i, ohizkanpoko korridatan ateratako irabaziekin. Gaztelu-plazako etxejabeek ere korrida haietan beren balkoi eta arkupetako eserlekuengatik ateratako hiru laurdenak elizari emango zizkioten. Madriletik gorabehera askoren ondoren 30 korridatarako baimena lortu zen; 30 urtetan ohizkanpoko korrida antolatzeko baimena alegia.

1.798. urtean beraz, uztailaren 9an eta 10ean izan ziren korridak Iruñean; (astelehen eta asteartean); 9an ohizkoa eta 10ean kaperarako dirubiltzekoa. Uztailaren 6, 7 eta 8an ere arratsaldean bina zezen korritu eta hil zituzten.

Udalak 18 zezen eta 12 zezenko erosi zizkion Ejeako Juan Angel Salvatierra ganaduzaleari. Zezenak berrogeitamarna duro kostatu zitzaizkien eta zezenkoak berrogeina duro (15.115 erreal guztira). Aragoatik ganadua ateratzeagatik beste 40 duro t'erdi ere eman zituzten eta kontua guztira 16.059 erreal eta 24 maraitara iritsi zen.

Horietaz aparte ohizkanpoko korridarako Ejeako Bernardo Sanz ganaduzalearen hamabi zezen ekarri zituzten Iruñera. 55 duro kostatu zen bakoitza. Ganadua Aragoatik ateratzeagatik beste 18 duro ordaindu zituzten; guztira 6.780 erreal.

Zezenak toreatzera, Francisco Garcés bi pikatzaile eta lau banderilarirekin etorri zen. Aurrez eskutitzez prezioa erabaki ezinik ibiliak ziren, baina azkenean ados jarri ziren. Pikatzaileen zaldiak

dena dela, Udalak ipiniko zituen.

Toreatu ondoren 35.000 erreal eman zizkioten kontratuan ezarritakoaren arabera. Baita bidaiarako beste 16.000 erreal ere. Gero 3.000 errealeko propina eta zortzi zezen erregalo (hogeina pezeta; 640 erreal guztira) ere eman zizkieten. Guztira beraz, 40.240 erreal edo zilarrezko 20.120 erreal *fuerte*.

Garcés-ek bi pikatzaile ekarri zituen: Juan Luis Amisas eta Cristobal Simon Bautista. Biak ere erdi-mailakoak.

Banderilari berriz, taldean hauek etorri ziren: Francisco de Paula Garcia, Manuel Gonzalez eta Juan Nuñez *Sentimientos* (gero ezpatari eta taldeburu izango zena).

Garcés-en koadrilatik aparte, menturaz joandako beste hauek ere parte hartu zuten Irufieko zezenetan: Nicolas Martinez (Berlanga-koa; 480 erreal), Joan Andres Orio (Kalagorri-koa; 480 erreal), Joakin Lapuia (Azkoien-ekoa; 400 erreal) eta Ramon La Rosa (indiarra; 360 erreal). Lehen korridan La Rosa zaldi gainean ibili zen eta bertatik zezen bat hil zuen. Bigarren korridan, zezen bat sokari lotuta atera zuten, eta plazako bi oholetan loturik zingilatu ondoren, La Rosa gainean ibili zen. Toreatzailea zezen gainean zela, besteek txuliatu eta banderilak sartu zizkioten. Azkenean La Rosa-k zezena, bera gainean zela, burtzitxo bat sartuta hil zuen. Iruindarren idazkariaren eritziz dena den, zaldun berezi honi trebetasun handirik ez zioten ikusi Gaztelu-plazan.

1.798.ean bestetik, Gaztelu-plazako etxejabe eta maizterrei balkoi eta arkupetako eserlekuen prezioak ezarri zizkien Udalak. Bina zezen eta zezenkoak jokatzen ziren egun soltetan, 20 pezeta gehienez balkoiak eta 10 arkupe bakoitzak. 20 pezetatik lau Udalarentzat izango ziren eta 10 pezetatatik bi ere bai.

Lehen korrida eta bigarrenaren probarako, balkoiak 5 dukat balio zuen (2 Udalarentzat eta 3 etxejabearentzat) eta arkupeak 26 erreal t'erdi (16 etxejabearentzat eta 10 t'erdi Udalarentzat)[8].

Urte hartantxe, Logronio eta Donostiatik pikatzaileen zaldietarako zelak eskatu zituzten Irufiera, hiri haietako zezenak igaro ondoren itzultzekotan[39].

Bilbon 1.799. urtean, festak ospatu ziren Mariano Luis Urkixo-ren omenez. Urkixo bilbotarra Estatuko Idazkari izendatu zuten aurreko urteko abuztuan, eta urtebeteko atzerapenaz bazen ere, bere herrian omenaldia eskaini nahi izan zioten. Santiago-ren elizan abuztuaren 14ean elizkizuna eta hitzaldia izan zen eta gero korridak, dantzak, suak, etab.[27].

Korridatarako, 36 zezen erosi zituzten. Bakoitza bost ontzako kostatu zen; 57.600 erreal guztira. Zezenak, hiru egunetan toreatu eta hil zituzten.

Zezenplaza, azoka-plazan bertan antolatzen zen. Plaza eder hura, zazpi kaleak, ibaia, San Anton eliza eta udaletxearen (horma urreztatuzko etxearen) tartean zegoen. Plaza eta eserlekuak antolatzea, 30.000 erreal kostatu zitzaien.

Zezenak toreatzera Pedro Romero famatua (inoiz izan den toreatzailerik onena askoren ustez) ekarri zuten, bere koadrilako beste 8 edo 9rekin. Romero taldeburuak 90.000 erreal kobratu zituen bere lanagatik[112].

Irufiean 1.799. urtean, bi korrida eman zituzten sanferminetan. Ohizkoa eta San Ferminen

kaperarako dirubiltzekoa bigarrena. Uztailaren 6 eta 7an bina zezen jokatu ziren eta 8an goizean bi (probarako) eta arratsaldean hamar. Ohizkanpoko korrida hilaren 9an (asteartez) izan zen.

Lehen korridarako eta aurreko egunetarako, Ejeako Esperanza Murillo ganaduzaleari 14 zezen eta 6 zezenko erosi zizkioten. Zezen bakoitzaren prezioa 55 durokoa izan zen eta zezenko bakoitzarena 40 durokoa. Ganadua Aragoatik ateratzeagatik ordaindua kontutan harturik, guztira 10.731 erreal eta 9 marai kostatu zitzaizkien.

Beste bi zezen, Kaparroso-ko Joakin Zalduendo ganaduzaleari erosi zizkioten. Berrogeitamabostna duro kostatu ziren, eta izandako beste gasturen bat ere erantsita, kontua 1.168 erreal eta 22 marairaino igo zen.

Ohizkanpoko korridarako ekarritako 12 zezen ere, berrogeitabostna duro kostatu ziren, eta nahiz eta gauza garbi egon ez, badirudi Zalduendo kaparrosoarrak zerbitu zituela.

Plazan hildako zezenak, errukietxe eta komentutara erregalo emateko ohitura bazuten Iruñean. Beste batzuetan, zezena (edo bere balioa dirutan) toreatzaileari sari gisa ematen zioten lana ondo egin zuelako.

1.799. urtean Gaztelu-plazan hildako zezenekin zer egin zuten, ondoren adierazten dizuegu adibide gisa:

- Uztailaren 6a
  Lehen zezena. San Frantzisko komentuari
  2. zezena. Kaputxinoei
- Uztailaren 7a
  Lehen zezena. Errukietxeari
  2. zezena. Umezurtzei, eta dirutan Lapuia-ri
- Uztailaren 8a. Proba (goizekoa)
  Lehen zezena. Alkaideari, eta dirutan Garcés-i
  2. zezena. Justizi tenienteei
- Uztailaren 8a. Lehen korrida
  Lehen zezena. Fielei
  2. zezena. Ministrariei (laguntzaileei)
  3. zezena. Kaputxinoei
  4. zezena. San Frantzisko komentuari
  5. zezena. Santo Domingo komentuari
  6. zezena. Trinitariei
  7. zezena. Galerari (gartzelari)
  8. zezena. Turutariei
  9. zezena. Zakurrei (hiltegikoei alegia)
  10. zezena. *Palenque*ko errotariei
- Uztailaren 9a. Proba (goizekoa)
  Lehen zezena. Gartzelako presoei
  2. zezena. Soldaduei
- Uztailaren 9a. Bigarren korrida
  Lehen zezena. Presoei, eta dirutan Garcés-i
  2. zezena. Errukietxeari
  3. zezena. Errukietxeari, eta dirutan Garcés-i
  4. zezena. Kaputxinoei, eta dirutan Lapuia-ri

5. zezena. Errukietxeari, eta diruz erosita Garcés-i
6. zezena. Errukietxeari, eta diruz erosita Garcés-i
7. zezena. Errukietxeari, eta diruz erosita Garcés-i
8. zezena. Errukietxeari, eta dirutan Francisco de Paula-ri
9. zezena. Kaputxinoei, eta diruz erosita Lapuia-ri
10. zezena. *Palenque*ko errotariei.

Zezenak toreatzera, *Pepe Illo* ekarri nahi izan zuten, baina azkenean (eskutitz-trukearen ondoren) Francisco Garcés sevillarrarekin konpondu ziren. Garcés etorri zen beraz beste behin Iruñera bere koadrilarekin. Bi pikatzaile eta lau banderilari zituen menpean bere taldean.

Zilarrezko 20.000 erreal *fuerte* eman zizkioten beren lanagatik eta baita urrezko bost dobloi ere bost zezen ondo hiltzeagatik (4 Garcés-i eta bat Francisco de Paula Garcia-ri).

Menturaz joandako beste lau toreatzailek ere lan egin zuten Gaztelu-plazan urte hartan: Joakin Lapuia azkoiendarrak, Nikolas Hualde Mendia-k, Joan Andres Orio (edo Orrio) kalagorritarrak eta Manuel Abalos-ek. Lau hauei bost ontzako urre eman zizkieten. Lapuia-ri gainera ontzakoaren hiru laurden hiru zezen saritzat eman zizkiotelako (dobloi bat urre bakoitzagatik). Dena den, honek ez du esan nahi Lapuia taldeburu joan zenik. Ezta hiru zezen hil zituenik ere. Bai bait zekiten lantze bat ondo burutzeagatik zezena erregalo ematen[8].

XVIII. mendearen hondarrean, 1.800. urtean, Iruñean zezenak uztailaren 6, 7, 8 eta 9an izan ziren. 6 eta 7an bina zezen arratsaldean (7an zezenkoak ere bai), 8an hamabi zezen (goizean bi probarako eta arratsaldean hamar) eta 9an hamar zezen (goizean probarik ez).

26 zezenak, Arnedo-ko Antonio Ibar-Navarro ganaduzaleari erosi zizkioten.

Udalak 16 zezen ordaindu zituen, eta San Ferminen kaperarako patronatuak gainerako hamarrak. Udalak beraz, bere zezen bakoitza 50 durotan erosi zuen eta haiekin batera etorritako joaldun bat 30 duro. Zezenak Gaztelatik ateratzeagatik 215 erreal *fuerte* eta 26 marai ere bai. Guztira 9.047 erreal eta 32 marai.

Antonio Ibar-Navarro ganaduzalearen hiru ùnai eta unanmaizterra etorri ziren zezenekin. Haien gastuak 340 erreal *fuerte* kostatu zitzaizkien.

Kaparroso-ko Joakin Zalduendori, 6 zezenko erosi zizkioten hogeitamarna durotan; 1.912 erreal eta 18 marai ordaindu zituzten guztira. Zalduendoren bi unaik ekarri zituzten zezenkoak Eskirotz-eko belardietaraino[80].

Joakin Zalduendo-k, bere emazte Joana Pascual eta Tadeo Gendulain-en abere gorriz osatu zuen bere ganadutegia. Dibisa hori-berdea erabili zuen[3].

Zezenak toreatzeko Francisco Garcés-i dei egin zioten. Pedro Romero erretiratua zen toreatze-lanetatik jadanik, eta Iruñean Garcés sevillarrak aldeko asko zuen. 32.000 erreal eskaini zizkioten bi pikatzaile eta lau banderilarirekin etortzeagatik. Baita bidaiarako behar zituen zaldien kostuak ordaintzea ere. Pikatzaileen zaldiak (plazarakoak), Udalak ipiniko zituen.

Joakin Lapuia azkoiendarrak, beste bi banderilariren laguntzaz bi edo hiru zezen hil nahi zituela jakin erazi zien udalgizonei, baina proposamenari ez zioten baiezkorik eman. Garcés-en koadrilaz aparte, Xabier Gereka zarauztarrak bakarrik lan egin zuen Gaztelu-plazan. 255 erreal eman

zizkioten.

Korridatan, Francisco Garcés-i zazpi zezen saritzat eman zizkioten. Bere koadrilako Jose Clan, Agustin Aroca eta Joaquin Diez-i ere bai beste zezen bana.

Zezenetan ateratako bi txotxongilo 28 erreal kostatu zitzaizkien. Banderila, ezten-haga eta beste zenbait tresna berriz, 478 erreal eta 9 marai. Pikatzaileentzako zaldien kontuak garestiago jo zuen: 3.773 erreal eta 36 marai. Hauetako 600 erreal kaperako patronatuaren kontu joan ziren[80].

Hildako zezenak eta zaldiak mandoz tirata plazatik ateratzen, Manuel Martinez aritu zen. 255 erreal kobratu zituen bere lanagatik.

Agintarien askaria, 1.257 erreal eta 7 marai kostatu zitzaien iruindarrei[8]. Nafarroako Erriberan, Tuteran, Joan Antonio Lizaso bere ganadutegia osatzen saiatu zen, baina urte batzuk igaro beharko zuten emaitza onak lortzen hasi arte[39].

Madrilen dena den, nafar-zezenak maiz korritzen zituzten. 1.800.eko otsailaren 2an adibidez, Salamanca eta Colmenar-ekoekin batera Nafarroako zezenkoak jokatu ziren. Apirilaren 16an berriz, Aranjuez-en izandako korridan Frantzisko Xabier Gendulain tuterarraren hiru zezen plazaratu zituzten, soinean dibisa berdea zutela. Jose Delgado *Illo* eta Antonio de los Santos-ek toreatu zituzten, bakoitzak bere koadrilaren laguntza zuelarik[109].

XVIII. mendearen bukaeran, Hazparnen zezenak jokatzeko ohitura zuten[1]. Bizkaiko Karrantzan dagoen Biañez-en ere irailaren 18an zezenkoak korritzen omen ziren Ama Birjinaren festetan[113]. Baita Lekeition ere sanroketan[114].

Gipuzkoako ohiturei gagozkiolarik, Gorosabel tolosarrak zezenfesten berri eman digu. Donostian Ama Birjina abuztukoan, Tolosan sanjoanetan, Azpeitian saninaziotan eta Deban sanroketan izaten zirela dio.

Txistuaren soinuarekin batera sokamuturra egiten zuten. Dibertsio hau herri handitan ez zen festaburutan bakarrik izaten; igande-arratsalde guztitan baizik, garizuma eta abenduan ezik. Guztiek parte hartzen zuten sokamuturrean, eta baita elizgizon batzuek ere, etxetako sarreratan babesten zirelarik. Tolosan gainera, garizuman ezik ostiral-arratsalde guztitan hiruretan hiltegiko idirik suharrenetako bat paseatzen zuten sokari lotuta, txistulariak jotzen zuenarekin batera.

Herri batzuetan, festaburutan zezenkoak, zezenak, idiak edo larrabehiak jokatzen zituzten plazan. Han herriko gazteek txuliatzen zuten eta batzuek banderilak sartu ere bai. Hiltzeko zezenak, XVIII. mendeaz geroztikoak direla zioen Gorosabelek, bere zezenfesten aurkako joera agertzen zuenarekin batera[115].

Joan Inazio Iztueta zaldibitarrak ere, Gipuzkoako jendearen zezenzaletasunaren berri ematen du bere *Guipuzcoaco Danza Gogoangarrien Condaira* izeneko liburuan. Honela dio adibidez zezenetan txistulariek jotzen zituzten doinuez:

Zezenac, zezencoac, idiac eta beiac jendearen jostaldiatzeco plazara ateratzean joco zituzten soñu anziña anziñaco chit particularrac: aurrena zezenan soñua esan oizitzayon chit gogoangarria, eta onen ondoren saltarincho pozcarriac: guziac jostaketa oni egokidatzen zaiozcanac eta mendietan lenago abelgorri oei beren zainac sarritan jo oiziozcatenac.

8.10. Irudia. Gipuzkoako herrietan zezenetan antzinatik txistulariek jotzen zuten doinua.

Hiltzeko zezenak (*zezen illzecoak* dio Iztuetak) prestatzen zituztenean, inon ziren zezen, toreatzaile (*zezendari*) eta zezen-hiltzailerik onenak bilatzeko adinbat arreta hartzen zuten Gipuzkoan ziren hiru dantzaririk onenak bilatzeko. Festa-egun haietako bakoitzean hiru gizon-dantza egiten bait ziren: eguerdiko korridaren aurretik bat, arratsaldekoa hasi aurretik bestea eta zezenak bukatutakoan bestea.

Festa-egunetan mutil gazte txistulariek, etengabe jotzen zituzten beren doinuak kale, plaza eta ardandegitan, beste gazte batzuek dantza egiten zutelarik. Zezenak jokatzen ari ziren bitartean barrera gainetan han-hemenka jartzen ziren eta beren artzai-doinuak jotzen zituzten. Jendea txistu--doinua entzunez eta zezen eta toreatzaileak plazan jokatzen ikusiz alaitzen zen.

Gipuzkoarrak, zezenkoak jokatzen oso zaleak ziren. Herriko zaindari-egunaren biharamunean plazaratzeko ohitura zuten.

Iztueta zaldibitarra, kexu zen bere *Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira* argitaratu zuenean (1.824. urtean) herri handitako zezenetan bertako dantzak dantzatzeaz lotsatzen zirelako. Baita danbolindariek orduan jotzen zituzten doinuak zezenetarako desegokiak zirelako ere.

Iztuetak bere liburua argitaratu zuenean, erromeria, herriko festa eta zezenetan txistulari eta dultzainari gazteek (*chilibitulari* eta *bolingozo-jotzalleek*) ez zuten jotzen. Poliki-poliki, herriko txistulariek (enplegatuek) baztertu zituzten beste txistulari hauek (enplegatu ez zirenak), batez ere hiltzeko zezenetan (*zezen-illtzecoetan*) jo zezaten jasan ezin zutelako. 1.800. urtean Tolosan gertatua jakin erazten du Iztuetak hau argitzeko.

Jeronimo Zinkunegi eskribaua udaletxeko balkoian zegoen zezenetan, eta makilaz balkoia jota beherago barreran eserita dultzaina jotzen (*bolingozo-jotzen*) zeuden gazteei isil zitezen agindu zien. Gazteek ez zioten obeditu eta haserretu egin zen. Alkateak orduan, zera jakin erazi zien:

txistulariek (enplegatuek) ez zutela jo nahi, emeki ezik, berak isiltzen ez baziren. Orduan isildu ziren dultzainari gazteak, eta berriz zezenetara jotzera etortzeko gogorik gabe gelditu[116].

Gipuzkoako hainbat herritan zezenetan jotzen zen, eta jotzen den, beste doinu batez ere, bada albiste xelebrerik. *Iriarena* izeneko doinua aipatu nahi nuke hemen. Rieviert-en eritziz, Luidwig van Beethoven-ek egina omen da. Joan Jose Belaustegi-ren ustetan ordea, F. Joseph Hydn-ena bide da. XVIII. mendeko bi musikagile ospatsu hauen lanak analizatu ondoren, *Iriarena* Hydn-ena dela ia ziurta dezakeela dio. Gero, euskaldunok geureganatu eta zezenetan jotzeko erabili omen genuen[117].

Aita Manuel Larramendi andoaindarra zezenzalea ez bazen ere, Gipuzkoako XVIII. mendeko zezenen berri utzi zigun bere *Corografia* izeneko liburu famatuan. 1.754. urte inguruan idatzi zuen liburu hau.

Gaztelako zezenak Gipuzkoara ekarritakoan, argaldu egiten omen ziren hemengo belarrek Gaztelakoek adina indar ez zutelako.

Gipuzkoako Probintziako Batzarretan, zezenak debekaturik omen zeuden, baina dantzak, pilota eta sokamuturra ez.

Gipuzkoarren zezenzaletasunari buruz, zera dio:

...Zezen-korridarik gabeko festak ez dira festatzat hartzen, nahiz eta munduko girorik alaiena egon. Zezenak badaude ordea, bazterrak hustu egiten dira denak zezenak ikustera joaten direlako. Gainerako espainiarrek ere baduten zezenenganako gustu barbaro eta seta hori ez dakit gipuzkoarrei noiz itsatsi zaien, baina beren zezenzaletasuna hain handia izanik eta salamancarrez txiste gisa esan zenaren arabera zeruan zezenak korrituko balira, gipuzkoar guztiak santu lirateke ikustearren. Kasu berezitan, Gaztela eta Nafarroatik ekartzen dituzte zezenak; basatiak, itxurari begiratuta bakarrik edozein izutzeko modukoak. Hala ere festa arruntetan eta urterokotan, bertako zezenak jokatzen dira. Gaztela eta Nafarroako zezenak beti hiltzekoak dira, baina bertakoak ez. Korrida amaitu ondoren, mendira eta beren baserrietara eramaten dituzte. Nafarroa eta Gaztelako zezenetarako, hango toreatzaileak ekartzen dituzte ordainduta; hain lanbide arriskutsutik bizi diren toreatzaileak. Gipuzkoan, nahiz eta zezenzaletasun handia egon, lanbidez toreatzaile izandako bakar baten aditzera dut; Txanbergo *deitzen zioten. Ikustekoa da zezen basatia nola txuliatzen duten. Baita zezenaren erasoak saihesteko trebetasuna ere, kapa alde batetik nahiz bestetik, goitik nahiz behetik, aterata eta lantzeak errepikatuz zezena errendituta uzten dutenean. Toreatzaile iaioa hori egindakoan ikusgarria gertatzen bada ere, Gipuzkoan ez da onartzen, erraza eta aberea zorabiatzeko besterik ez delakoan.* Kapa kanpora, kapa kanpora, *oihuka hasten dira. Horrela, gorputz hutsez eskutan bi banderila dituztela toreatzera eta babesgarri ezpata bakarrik dutela zezena hiltzera behartzen dituzte. Trebetasuna deitzen diote honi, baina* barbareria *(eta oso gaitzeskarria gainera) deitu beharko litzaioke...*[118].

Eta zertxobait gehiago erantsita bukatu beharko dugu XVIII. mendeari eskaini diogun kapitulu hau. XVIII. mendean, korridatako antolamendua eta lantzeak gero eta gehiago finkatuz joan ziren. Hasieran euskal toreatzaile asko eta onak agertu baziren ere, mendearen azken aldera andalusiarrak gailendu zitzaizkien beren toreatzeko era ezarriz. Bere taldeko buru, maisua agertzen zaigu. Maisuak kobratuko du eta maisuak ordainduko die bere taldean menpeko dituen pikatzaile eta banderilariei. Beraren ardurapean toreatu eta hilko dira toriletik ateratako zezenak. Maisu hauek (gutxi batzuk) lortuko zuten toreatze-lanetik bizitzea. Beste guztiak, ia denak, zezenetatik kobratzen zutena ez zuten bizitzeko lain. Ohizko lanbidetik ateratzen zutenari txanpon batzuk gehitzeko era zen haientzat toreaketan aritzea.

8.- ZEZENAK XVIII. MENDEAN. BIBLIOGRAFIA

(1) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los Toros*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1.971 (69-78, 860, 869. orr.)

(2) ALENDA Y MIRA, JENARO.*Relaciones de Solemnidades y fiestas públicas de España*. Lehen alea. Madril 1903 (462, 478, 494, 508, 509. orr.)

(3) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (369-377, 380, 394, 395, 397. orr.)

(4) CAMPO, LUIS DEL. *La Iglesia y los toros*. Navarra. Temas de cultura popular.234. alea. Iruñea 1975 (12-15. orr.)

(5) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona. Siglo XVIII*. Navarra. Temas de cultura popular. 168. alea. Iruñea 1973 (3-6, 10, 11, 14, 15, 17-29. orr.)

(6) CAMPO, LUIS DEL. Toros en Pamplona (S.XVII). Navarra. Temas de cultura popular. 250. alea. Iruñea 1976 (25. orr.)

(7) BALEZTENA, INAZIO. *Del viejo Pamplona*, in Principe de Viana 1944. Iruñea (430-439. orr.)

(8) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y toros. Siglo XVIII*. La acción social argit. Iruñea 1972 (23-26, 35, 37, 42-45, 47-55, 59-62, 66-68, 72, 75-77, 79, 80, 81, 83-93, 96, 97, 99, 100, 102, 103, 108-113, 115, 120, 123, 125-130, 153-214,223-235, 238-382. orr.)

(9) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Iruñea. Zezentoki-etxea*. Iruñeko Udala argit. Iruñea 1985 (24-29, 38. orr.)

(10) IBARRA, JOSE LUIS. *Documentos inéditos*, in Boletin de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra. 1936. Iruñea (87-90. orr.)

(11) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (17, 55, 59, 77, 114, 170, 248, 283, 284, 420, 423, 424, 483, 485, 488, 499, 508, 518, 536, 578, 587. orr.)

(12) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella*, in Principe de Viana 1942, Iruñea (316-318. orr.)

(13) GOÑI GALARRAGA, JOXEBA M. *Historia de Rentería*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1969 (95. orr.)

(14) ITURRIZA ZABALA, JOAN RAMON. *Historia de Vizcaya*. Bilbo 1885 (330. orr.)

(15) LEKUONA, MANUEL. *Notas para la historia de Guipúzcoa*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1975. Donostia (496, 506. orr.)

(16) ELOSEGI IRAZUSTA, JESUS. *Toponimia y denominaciones urbanas de la Villa de Tolosa*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1969. Donostia (380, 382. orr.)

(17) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. 2. alea. Tutera 1914 (47, 137, 138, 288, 292, 293. orr.)

(18) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (580, 627, 630, 653, 689, 716, 729, 752, 822, 860, 867, 868, 885, 895, 905, 987, 1007, 1009, 1051, 1090, 1157. orr.)

(19) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (245, 316, 514, 656, 657, 680. orr.)

(20) ZABALA, FEDERIKO eta GARMENDIA LARRAÑAGA, JOAN. *Tolosa*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (22. orr.)

(21) LABEAGA MENDIOLA, JOAN KRUZ. *La Casa Consistorial y los balcones de toros de la ciudad de Viana (Nav)*, in Principe de Viana 1979. Iruñea (140. orr.)

(22) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1978 (18, 47, 48, 51, 54, 287, 448, 529, 738, 1108. orr.)

(23) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia*. Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986

(343-355. orr.)
(24) IBARRA, JOSE LUIS. *Documentos inéditos*, in Boletín de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra. 1935. Iruñea (269-277. orr.)
(25) LETONA, JOSE eta LEIBAR, JOAN. *Valle de Leniz. Generalidades y Salinas.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (136. orr.)
(26) OLAETXEA, JOAN B. *Zumaya.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (86, 89, 90. orr.)
(27) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia general de Señorío de Bizcaya.* 6. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1971 (39, 149, 150, 153, 259, 696. orr.)
(28) BALEZTENA, INAZIO."PREMIN DE IRUÑA". *Las ganaderías de Navarra,* in Vida Vasca 1932 (105. orr.)
(29) CAMPO, LUIS DEL. *Toreros goyescos navarros.* Navarra. Temas de cultura popular. 139. alea. Iruñea 1972 (3, 6-13, 16, 18, 19, 24, 26-30. orr.)
(30) ETXEBERRIA, SEBASTIAN. *Urnieta.* Oñatiko artxibo probintziala (2631. paper-sorta 130. folioa; 2632. paper-sorta 78. eta 148. folioak; 2.633. paper-sorta 13. eta 22. folioak)
(31) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario histórico-político de Tudela.* Zaragoza 1828 (137, 216, 218. orr.)
(32) ERENTXUN ONZALO, JOAN. *Cestona.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (93, 111, 112, 115. orr.)
(33) LETONA, JOSE eta LEIBAR, JOAN. *Valle de Leniz. Arechavaleta* y *Escoriaza.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (126. orr.)
(34) ELORTZA MAIZTEGI, XABIER. *Tauromaquia placentina.* Herriko festetarako programa. Soraluze 1982 (z/g)
(35) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Santuario de Nuestra Señora de los Angeles de Toloño,* in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1972 (272-274, 298. orr.)
(36) URANGA , JOSE XABIER. *Formulario de la Diputación de Navarra,* in Principe de Viana 1947. Iruñea (511, 517, 523, 524. orr.)
(37) CAMPO, LUIS DEL. *El encierro de los toros,* in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (126, 127. orr.)
(38) CAMPO, LUIS DEL. *El encierrillo.* Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (6, 7. orr.)
(39) PEREZ LABORDA, BIZENTE. *Historia de una Ganadería Navarra de Toros bravos en el Siglo XIX de Tudela (Navarra).* Tutera 1980 (10, 24, 32, 41, 53, 58, 151, 152, 192. orr.)
(40) MUJIKA, SERAPIO. *Las calles de San Sebastián.* Donostiako Udala argit. Donostia 1965 (183, 184. orr.)
(41) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo.* Destino argit. Bartzelona 1954 (12, 13, 22, 27, 28, 51, 80. orr.)
(42) ORTEGA Y GASSET, JOSE. *La caza y los toros.* Austral bilduma. 1328. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1962 (139, 142. orr.)
(43) USABIAGA, HIPOLITO. *Asteasu, Irura, Anoeta, Aduna, Alkiza...* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (33. orr.)
(44) LARRAMENDI, MANUEL. *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada.* Euskal klasikoak bilduma. 23. alea. Hordago argit. Donostia 1979 (390-395. orr.)
(45) ALENDA Y MIRA, JENARO. *Relaciones de Solemnidades y fiestas públicas en España.* 2. alea. Madril 1903 (12, 15, 40, 41, 45, 46, 61, 81, 82, 136, 137, 139, 147, 151, 152. orr.)
(46) ORTIZ-CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español,* in Folklore y costumbres de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (425, 433, 440-442, 456-460. orr.)

(47) MANSO DE ZUÑIGA, GONZALO. *Cartas de Bilbao*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1949. Donostia (33, 192, 193, 204, 210, 211. orr.)
(48) MURUGARREN, LUIS. *Hernani. Su historia e instituciones*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (68, 69. orr.)
(49) GANDASEGI LARRAURI, JOSE M. *Fiestas Gremiales en San Sebastián el año 1732*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1946. Donostia (290-293, 297, 298. orr.)
(50) ERENTXUN, JOAN. *Arena para las corridas de Cestona*,in La Voz de España1975-IX-6.(37. orr.)
(51) ZUNTZUNEGI, JOSE MARIA. *Tres noticias históricas de la plaza de toros de Cestona*, in Zestoa. Herriko festetarako programa 1978 (z/g)
(52) URBELTZ, JOAN ANTONIO. *Dantzak*. Lankide-Aurrezkia argit. Bilbo 1978 (130, 132, 133, 270. orr.)
(53) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros*. Navarra. Temas de cultura popular. 125. alea. Iruñea 1972 (6, 7, 10, 11, 15-17. orr.)
(54) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipúzcoa*. Donostia 1974 (122. orr.)
(55) LOPEZ DE GEREÑU, JERARDO. *Calendario alavés*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1970 (229. orr.)
(56) ARIZMENDI AMIEL, MARIA ELENA. *Vascos y trajes*. Lehen alea. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1968 (206, 207. orr.)
(57) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande*. Bilbo 1916 (27. orr.)
(58) M,R. *El traje de golilla*, in Diario Vasco 1985-IV-28. Donostia (13. orr.)
(59) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. Lehen alea. Tutera 1913 (265, 266, 311, 497, 507-509. orr.)
(60) LEKUONA, MANUEL. *Del Oyarzun antiguo*. Gipuzkoako Diputazioa argit. Donostia 1959 (154--157. orr.)
(61) AGIRRE FRANCO, RAFAEL.*Juegos y deportes vascos*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Auñamendi argit. Donostia 1971 (474, 475. orr.)
(62) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer*. Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea Iruñea 1974 (15. orr.)
(63) HEROS, MARTIN DE LOS. *Historia de Valmaseda*. Bilbo 1926 (429, 430, 445. orr.)
(64) SAGARNA, INAZIO MARIA. *Episodios vitorianos*, in Vida Vasca 1950 (67, 68. orr.)
(65) AROZENA, FAUSTO. *La taurofobia del padre Mendiburu*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1960. Donostia (96-98. orr.)
(66) OLAETXEA, JOAN. *Villafranca de Ordizia*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (70, 71. orr.)
(67) ONAINDIA, SANTI. *Aita Sebastian Mendiburu (1708-1782)*, in Euskal Literatura. Lehen alea. Etor argit. Bilbo 1972 (217. orr.)
(68) MUJIKA, SERAPIO. *Monografia de Asteasu*, in Euskal-Erria 1900. 43. alea. Donostia (231, 232. orr.)
(69) DELGADO, JOSE. "PEPE ILLO". *La tauromaquia*. Folklore-saila. 5. alea. Biblioteca de cultura andaluza argit. Granada 1984 (25, 223, 224. orr.)
(70) ELEJALDE, FELIX eta ERENTXUN, JOAN. *Segura*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (57. orr.)
(71) LASA, JOSE INAZIO. *Tejiendo historia*. Soc. Guip. de Ediciones y Publicaciones argit. Donostia 1977 (252, 253. orr.)
(72) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques*. Donostia 1981 (48. orr.)
(73) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Los vasco-navarros fueron los creadores del toreo*, in Hoja de Lunes de San Sebastián 1978-VIII-14 (18. orr.)
(74) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere*. Nogaro 1986 (46, 48, 52. orr.)
(75) ERENTXUN, JOAN. *Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona*. Zarautz 1948 (51, 62. orr.)

(76) CAMPO, LUIS DEL. El encierro de los toros. Navarra. Temas de cultura popular. 25. alea. Iruñea 1968 (8. orr.)

(77) X.X. *Indice de los documentos y papeles del archivo general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa, existente en la iglesia parroquial de Santa Maria de la M.N.L. y V. Villa de Tolosa.* Donostia 1887 (516. orr.)

(78) LARRAÑAGA, RAMIRO. *Síntesis histórica de la armería vasca.* Gipuzkoako Aurezki-Kutxa argit. Donostia 1981 (488. orr.)

(79) DELMAS, JUAN E. *Reseña de las fiestas profanas celebradas por la villa de Bilbao los días 19, 20 y 21 de Agosto del año 1756 con motivo de la colocación de San Nicolás de Bari en la nueva Iglesia de su nombre,* in Euskal-Erria. 8. alea. 1883. urtea. Donostia (309-313. orr.)

(80) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona. 1800-1843,* in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. 40. alea. 1982. Iruñea (543, 544, 567, 581-594, 629. orr.)

(81) LAFORCADE, MICHAEL. *La tauromachie dans le Soud-Ouest de la France.* Mendi Martzana 1984 (53-57. orr)

(82) ROS GALBETE, RICARDO. *Apuntes etnográficos y folklóricos de Allo,* in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. Iruñea 1976 (449. orr.)

(83) BARRUTIA, PEDRO. *Teatro zaarra. Gabonetako ikuskizuna.* Auspoa bilduma. 48. alea. Tolosa 1965 (17, 35, 128, 129. orr.)

(84) ZUMALDE, IÑAKI. *Toros en Azkoitia en el siglo XVIII,* in Deia.1985-III-28.

(85) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Empleos municipales durante los siglos XVIII y XIX,* in Festetarako programa. Deba 1982 (z/g)

(86) B,J. *El otro Martintxo,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1947. Donostia (405, 406. orr.)

(87) LARRAÑAGA, LUIS F. *Actitud del clero vasco frente a los empeños de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1969. Donostia (115. orr.)

(88) X.X. *Festejos y regocijos,* in Euskal Erria 1905. LII. alea (285, 286. orr.)

(89) PALACIOS FERNANDEZ, EMILIO. *Actividad literaria del conde de Peñaflorida. El carnaval,* in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1974 (524. orr.)

(90) ERAUSKIN, J. RAMON. *Aien garaia.* Auspoa argit. Tolosa 1975 (232-234. orr.)

(91) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografía histórica de Navarra.* 3. alea. Aranzadi argit. Iruñea 1972 (21. orr.)

(92) MENDEZ, FRANCISCO. *El viaje a Navarra del padre Florez en 1766,* in Principe de Viana 1954. Iruñea (201, 202. orr.)

(93) X.X. *Beltz-beltzak dira zezenak,* in Egin 1986-VI-22 (25. orr.)

(94) CAMPO, LUIS DEL. *Toreros goyescos en Pamplona.* Navarra. Temas de cultura popular. 144. alea. Iruñea 1972 (3-7, 18-21, 23, 24, 27-30. orr.)

(95) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 2. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1980 (707, 802. orr.)

(96) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Mortuorios o despoblados,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1958. Donostia (180. orr)

(97) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Enseñanza primaria en el siglo XVIII,* in Festetarako programa. Deba 1981 (z/g)

(98) CROSTA, CAOLO. *Crónica de una muerte (de una corrida) anunciada,* in Club Taurino. Iruñea 1985 (63. orr)

(99) GARATE, JUSTO. *Descripción de Vasconia por Valentín de Foronda en 1783,* in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1977 (410, 411. orr.)

(100) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Yanguas y Miranda (su vida y su obra),* in Principe de Viana 1963. Iruñea (216, 217. orr.)

(101) ZUFIRIA, J. *Prohibición de las fiestas en las que hubiere toros o novillos de muerte*, in Euskalerriaren alde 1914. Donostia (146. orr.)
(102) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Rogativas en la montaña alavesa*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio 1965. Gasteiz (97. orr.)
(103) URKIXO, JULIO. *Vergara en el último tercio del siglo XVIII según un minerálogo sueco*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1945. Donostia (259. orr.)
(104) ZUFIRIA, J. *Prohibición de correr por las calles novillos y toros embolados, así de día como de noche*, in Euskalerriaren alde 1914. Donostia (144, 145. orr.)
(105) ERENTXUN ONZALO, JOAN. *Arrona, Aizarna, Oiquina, Aizarnazabal, Iraeta, San Miguel de Artadi*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (22. orr.)
(106) ZARATE, MANUEL ANTONIO. *Vitoria: Transformación y cambio de un espacio urbano*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1981 (z/g)
(107) HUMBOLDT, GILERMO. *Bocetos de un viaje a través del País Vasco*, in RIEV 1924. XV. alea (464. orr.)
(108) ZABALA, BIZENTE. *Segundo tercio*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (312. orr.)
(109) COSSIO, FRANCISCO DE. *Los toros*. 8. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1986 (82-85, 89, 98, 100. orr.)
(110) CORTES, JOSE. *Historia de la plaza de toros de Vista-Alegre*. Bilbo 1895 (8, 9. orr.)
(111) ARIN DORRONSORO, JOAN. *El pueblo de Ataun. Barrios y zonas pastoriles*, in Anuario de Eusko-Folklore 1927 (5. orr.)
(112) HUMBOLDT, GILERMO. *Los Vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el pais vasco en primavera de 1801*, in RIEV 1924. XV. alea (394, 395. orr.)
(113) TRUEBA, ANTONIO. *Las Encartaciones*. Geu argit. Bilbo 1978. (116. orr.)
(114) OKAMIKA GOITISOLO, FRANTZISKO. *La villa de Lequeitio (ensayo histórico)*. Bizkaiko Diputazioa argit. Bilbo 1965 (220. orr.)
(115) GOROSBEL, PABLO. *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1967 (347, 348. orr.)
(116) IZTUETA, JOAN INAZIO. *Guipuzcoaco Dantza Gogoangarrien Condaira*. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1968 (48, 56, 78, 80, 84, 98, 114, 146, 150. orr.)
(117) BELAUSTEGI, JOAN JOSE. *Iriyarena*, in Euskal-Erria 1900. XLII. alea. Donostia (154, 155. orr.)
(118) LARRAMENDI, MANUEL. *Corografía de Guipuzcoa*. Sociedad Guip. de Edic. y Publicaciones argit. Donostia 1969 (55, 98, 231, 232. orr.)

9. *MARTINTXO*REN ARAZOA

XVIII. mendea aztertu dugunean, jakinaren gainean utzi dugu bazterrera *Martintxo* toreatzaile famatua. Goiak, pintatzaile aragoar famatuak, *Tauromakia* saileko akuafortetan marrazturik utzi zigun toreatzaile hau plazan lanean ari dela. Gehienbat hortik datorkio ospea *Martintxo*ri, nahiz eta zezenak toreatzen bere garaian maisua izan.

Saia gaitezen bada kapitulu berezi honetan Goiaren *Martintxo* zein zen eta bere gorabeherak argitzen. Jose Maria de Cossio zezenzale eta idazlearen teoria plazaratuz aurkeztuko dugu arazoa. Cossio jauna, beste asko bezala, *Don Clarencio* izenordez erabiltzen zuen Jose Velazquez y Sanchez tratadistak bere *Anales del Toreo*n (Sevillan 1868, 1873 eta 1888.ean argitaratua) idatzitakoan oinarritzen da. Idazkera solemne eta harroa duen ikerlari honek, iturri fidagarritatik lortu zituen albisteak bere liburua idaztekotan, baina Goiak marraztutako *Martintxo*ri buruz dioenaz ez dago beste horrenbeste esaterik. *Martintxo*ren berriak jasotzeko asmoz, Velazquez jaunaren lagun batek nafar bati (ez dakigu nori) eskatu zizkion Goiak marraztutako *Martintxo*z zituen albisteak[1].

9.1. irudia. Goiaren *Tauromakia* saileko akuafortea. 15. lamina. *Martintxo*, iskintxo eginez banderilak sartzen.

Jaun nafar ezezagunak erantzundakoa hau da:

Martintxo euskaraz, Martin izenaren diminutiboa da, eta bere deitura Barkaiztegi zen. Oiartzun–en jaioa eta Tuterako Anbrosio Mendialdua aberatsaren ganadutegian lan egina zen. Han ezagutuko zuen Jose Leguregi Iruindarrak (el Pamplonés). *Zezen–hiltzaile honek, bere maisu Paskual Zarakondegirekin lan egin zuen Espainiako zenbait plazatan eta baita Frantzia eta Italiako hegoaldeko zenbait lekutan ere. Hauek dira hain zuzen Nicolas Fernandez de Moratin–ek bere* El pro y el contra de las corridas de toros *liburuxkan aipatzen dituen euskal toreatzaileak. Martintxok Mendialduaren etxea utzi eta Leguregiren koadrilan hasi zen lanean. Apiñani, Lobera, Graceran eta beste toreatzaile adoretsu batzuekin aritu zen 1778.etik 1785.erarte. Bere maisu eta lagun* Iruindarra (el Pamplonés) *hilez gero, Gaztelako plazatan zehar ibili zen. Bazter guztitan paregabeko ausardia*

erakutsi eta bere burua arrisku bizian ipini ohi zuen. Zorte onik izan ez balu laster hilko zatekeen. Entzun dudanez, Martintxo Goia famatuaren lagunmin izan zen eta toreatzen ere irakatsi omen zion gure pintatzaile ospetsuari. Barkaiztegi Deban hil zen, sukar ustelek jota, 1800. urteko otsailaren 13an.[2]

Egia esan, *El pro y el contra de las corridas de toros* ez dago Moratin-ena dela esaterik[3], baina hori beste upeleko sagardoa da eta alde batera utziko dugu.

*Martintxo*ren berri ematerakoan, Cossio jaunaz aparte, beste historialari asko ere (ia denak, egia esan) albiste hauetan oinarritu da. Ortiz-Cañavate aipatuko dugu adibide gisa[4].

Cossio-k bestetik, zera dio: XVIII. mendean *Martintxo* izeneko hiru toreatzaile izan zirela. Bata Martin Ebassun zen (Aragoako Ejea-koa), bestea Antonio Ebassun (Martin Ebassun-en semea, edo anaia) eta hirugarrena Martin Barkaiztegi oiartzuarra. Hirurei deitzen bait zieten *Martintxo*[2] eta hirurak hartzen ziren garai hartan nafar-toreatzailetzat Euskal Herritik kanpora.

Goiak marraztua hiruretan zein izan zen erabakitzea da arazoa. Denbora luzez *Martintxo* gipuzkoarraren aldeko usteak iraun du, baina "Premin de Iruña" edo Inazio Baleztena ikerlari nafarrak besterik idatzi zuen. Antonio Bassun (Bassun da, nahiz eta Cosssio-k Ebassun aipatu) jotzen du Baleztenak Goiak irudikatutako toreatzailetzat. Ejea-ko Antonio gainera, Martin Basun-en seme zela dio[5].

Cossio-k ere Antonio aragoarraren alde apostu egiten du, nahiz eta Martin edo Antonio zela erabakitzerakoan zalantzaren bat izan. Ondorio horretara iristeko, 1886. urtean Nicolas Fernandez de Moratin-ek Pignatelli printzeari idatzitako *Carta histórica sobre el origen y progresos de las fiestas de toros en España* lanean oinarritzen da. Honela bait dio Moratin-ek:

Entzutetsua izan zen Meltxor famatua, eta Martintxo *ospetsua bere nafar-koadrilarekin. Nafarretan banderilari eta txuliatzaile bikainak izan dira,* Faltzeseko Lizentziatuaren *antzera.*

Moratin-ek 1776 urtean *Martintxo* ospetsua izan zela dio. Iragandako kontu bezala aipatzen du eta Velazquez y Sanchez-i bere berriemaile nafarrak jakin erazi zionez, *Martintxo* Barkaiztegi oiartzuarra 1778 eta 1785.urte bitartean aritu zen lanean. Gainera, Jose de la Tixera idazlea oiartzuarraren garaikidea omen zen eta zera dio: Haro-koa (Errioxakoa) zela.

Cossio-k bestetik, Goiak XIX. mendearen hasieran marraztutako *Tauromakia* saileko akuaforteak, Moratin-en *Carta histórica* famatuak zioena irudiz hornitzearren egin zituela dio.

Guzti hori kontutan hartuz Cossio jaunak Antonio Bassun hartzen du Goiaren *Martintxo*tzat, eta bere xehetasunak eman ditu jarraian. Antonio Bassun (Ebassun idazten du beti Cossio-k), 1747. urtean hasi omen zen Iruñean toreatzen. 1750. urtean Madrilen toreatu zuen Leguregirekin batera. Prudencio Garciak honela informatu bait zuen urte hartan, Logroniotik Iruñera: *Lankideei buruz, zera bakarrik dakit:* Martintxo *eta Baigorri Madrileko korridatan dira eta lehenengoak adarkada du zangoan.*

Zaragozan 1759. urtean toreatu omen zuen Espainiako Karlos III.a hara joan zenean.

1760. urtean, Iruñean sanferminetan zaldiz eta oinez toreatzeko eskea egin zuen eta ordurako zahartzen hasia omen zegoen. 1763. urtean ere Iruñera toreatzera joateko eskea egin zuen berriro eta bere ortografia txarrez honela idatzi zuen: ... *pasaré a la funcion de toros y toriaré de acavallo pues*

estoi siempre erreque erre en que no puedo allar quien me diferenzie en mis cosas ridiqulas del toreo yasi espero abiso....

Zaragozan plaza berria 1764.ean inauguratzerakoan parte hartu omen zuen eta Iruñean 1767. urterarte ere bai.

9.2.irudia. Goiaren *Tauromakia* saileko akuafortea. 16. lamina. *Martintxo* zezena uzkaltzen Madrileko plazan.

Cossio–k ondoren, Jose de la Tixera idazleak *Martintxo*ri buruz dioena dakar. Honela aldatzen du Cossiok Tixera–k idatzia: *Martintxo izenez ezagutzen denari, Haro hiribilduan jaioari, imitaezina deitzen zioten. Izan ere halakoxea zen zezenei gorputzez iskintxo eta errekorteak egiten zizkienean eta banderilak sartzen zituenean. Ezpata maneiatzen ere ongi moldatu zen, eta muleta ordez normalean brokel edo ezkutu txikia erabiltzen zuen. Bere Herriko toreatzailerik bikainena izan zen eta aipatutako Calderon–i lehia egiteko gauza zen bakarra.*

Goiak, bere salto famatua hanketan girgiluak dituela egiten marraztu zuen, eta zezena datorkiola ezpata sartzen ere bai, aulkian eserita, kapela muleta gisa erabiliz eta oinetan girgiluak dituela. Bi grabatu hauen oinean, lantzea Zaragozako plazan burutu zuela dio. Goia pintatzaileak *Martintxo*, 1759. ean eta 1764.ean ikusteko aukera izan zuen. Pintatzailea 1774. urterarte ez bait zen Madrilera bizitzera joan[2].

Honerainokoa, Cossio jaunak bere tesia frogatzeko (Goiaren *Martintxo* Antonio Bassun Ejeakoa dela frogatzeko alegia) dioena da. Martin Bassun–i buruz gainera, Iruñean 1739. urtetik 1744. urterarte toreatu zuela jakin erazten du[2].

Dena den, *Martintxo* gipuzkoarra Goiak marraztua ez dela adierazteko, Cossio–k Velazquez y Sanchez–ek Sevillan 1868 eta 1873. urtean argitaratua hartzen du oinarritzat; XIX. mendeko azkenaldiko adierazpen bat alegia. Egokia dirudi beraz XVIII. mendeko edo XIX. mendearen hasierako idazleek *Martintxo*ri buruz diotena aztertzea; arazoa gertuagotik ezagutu bait zuten.

Jadanik Fernandez de Moratin–ek 1776.ean zioena aldatua dugu hona Cossio–ren eskutik, eta baita bide beretik Jose de la Tixera–k idatzitakoa ere. Jose de la Tixera, Espainiako Karlos IV.aren garaikoa dugu; XVIII. mendeko bukaerakoa alegia.

Moratin–en zatia hau zen: *Entzuntetsua izan zen Meltxor* (Melchor Calderon–i buruz ari da. XVIII. mendearen erdialdeko toreatzaile andalusiarra zen) *famatua, eta* Martintxo *ospetsua bere nafar–koadrilarekin. Nafarretan banderilari eta txuliatzaile bikainak izan dira,* Faltzeseko Lizentziatu*aren antzera.*

Jose de la Tixera–k idatzitakoa, hau da: *Martintxo izenez ezagutzen denari, Haro hiribilduan jaioari, imitaezina* ***deitzen zioten****. Izan ere halakoxea zen zezenei gorputzez iskintxo eta errekorteak egiten zizkienean eta banderilak sartzen zituenean. Ezpata maneiatzen ere ongi moldatu zen, eta muleta ordez normalean brokel edo ezkutu txikia erabiltzen zuen. Bere Herriko toreatzailerik bikainena* ***izan zen*** *eta aipatutako Calderon–i lehia egiteko gauza zen bakarra.*

Dena den, Tixera–ren pasarte hau Luis del Campo ikerlari nafarrak zertxobait desberdin dakar. Ez bait dio *natural de la villa de Haro*; beste hau baizik: *Natural de la villa de Aro*[6], hatxerik gabe alegia.

Jose de la Tixera–k, *Martintxo*ri buruz beste hau ere badio: *Banderilak ipintzen, toreatzaile nafar onenen maila gainditu* ***zuen****; Banderilak erdibitu egiten bait zituen eta gero ukabilka edo muxinkoka sartu*[1].

Bere garaiko toreatzaileen berri eman zuen beste idazle bat, Jose Daza pikatzailea izan zen. Ezten–haga bezain ongi luma erabiltzen zekien hau, Sevilla–ko Manzanilla herrian jaio zen eta 1778. urtean eskuskribu bat burutu zuen. *Precisos manejos...* hitzez hasten den izenburu luzea ipini zion bere idazlanari, eta honela dio pasarte batean:

Nafarroan bertan, behar bezain txalotua izan ez den Martintxo *dugu. Banderilak ipintzeko eran, lehena eta azkena* ***izan zen****; inork ez bait du imitatu. Gainerako lanetan ere beti nabarmendu zen. Prudencio Garcia eta Chomo bere anaia, Juan Sabrozo, Baigorri, Chumi eta beren izenak ezezagunak zaizkidan trebetasun estimagarriko mutiko–andana luzea. Probintzia honetan dagoen klase eta maila guztietako jende– piloa esaterik ez dago...*[6].

Garai hartan Errioxa, Aragoa edo Euskal Herriko toreatzaileak nafartzat hartzeko ohitura zuten, eta ez da harritzekoa beraz Dazak Prudencio Garcia logronioarra adibidez zerrenda horretan sartzea.

XIX. mendearen hasieran, 1801.eko ekainaren 21, 22 eta 23an *Diario de Madrid* egunkarian *un aficionado vizcaino* izenordeko batek eskutitz jakingarria argitaratu zuen zezenketaren historiaz. *Martintxo*ren berri ere ematen du, eta interesgarria delakoan, hona aldatuko dugu euskaratuta XVIII. mendeaz diharduen pasarte bat:

Mendearen erdi aldera, ospe handia lortu zuten zezenak txuliatzen eta banderilak sartzen Meltxor entzutetsuak eta bere nafar–koadrilarekin Martintxo *famatuak, baina* Faltzeseko Lizentziatu*ak denak gainditu zituen.*

Geroxeago, Diego del Alamo, Malagueño, Candido famatua (Joaquin Rodriguez Costillares*en maisua) eta oraindik bizi den Juan Romero zaharra (Pedro Romero–ren aita) nabarmendu ziren..."*

*Martintxo*ri buruz ari direnean, Velazaquez y Sanchez–en garairarte (1868. urterarte) ez da inon Barkaiztegi deiturarik agertzen. Orain arte ikusi ditugun idazleek ez dute behintzat *Martintxo*ren ondoan horrelako deiturarik adierazi. Goiak burututako *Tauromakia* sailean ere bost akuafortetan agertzen da gure toreatzailea, baina oinean ipinitako argibidetan, *Martintxo* soilik dago idatzirik; deiturarik gabe.



9.3. irudia. Goiaren *Tauromakia* saileko akuafortea. 18. lamina. *Martintxo*ren ausartzia Zaragozako plazan.

Aragoako pintatzaile famatuaren deitura bera, Goia alegia, jatorriz Gipuzkoako Zerain-ekoa dugu. Frantzisko Goiaren aita, Jose zen eta Jose–ren aita Pedro; Fuentes de Jiloca herrian (Calatayud–etik gertu) 1632.eko azaroaren 28an jaioa. Pedro Goia–ren aita Domingo zen.

Domingo, Fuentes de Jiloca herriko elizan obrak egitera joana zen Zerain–etik. Han ezkondua zen 1567.eko otsailaren 21ean Mariana Etxeandiarekin. Goia pintatzailearen arbasoak, Zerain–eko Mantxola baserrikoak ziren, nahiz eta deituraren sortetxea Aizpe auzoko Goietxe baserria izan[7].

Frantzisko Goia pintatzailea, Zaragozako Fuendetodos herrian munduratu zuen Gracia Lucientes bere amak 1746.eko martxoaren 30ean. Biharamunean bataiatu zuten[8]. Garai hartan, Gipuzkoan ere baziren Frantzisko Goia izeneko beste pertsona batzuk. Urnietan adibidez, Frantzisko Goia beasaindarra bizi zen Maria Esteban Pikabea urnietarrarekin ezkondurik[9].

Goia pintatzaileak ordea, haurtzaroa Zaragozan igaro zuen bere familiarekin. 1773. urtean, Madrilen ezkondu zen Josefa Bayeu–rekin eta 1774. urtean finkatu zen Madrilen Francisco Bayeu koinatuaren etxean. Madrilen, bi seme izan zituen (1775.ean bata eta 1784.ean bestea). Bere emaztea, 1812. urtean hil zen, eta bera, 1824. urteaz gero Frantzian bizi ondoren, Bordelen hobiratu zuten 1826.eko apirilaren 16an[10].

Goia pintatzailea, zezenzalea zen. Bere lagun Martin Zapater jaunari idatzitako eskutitzetan

Francisco el de los toros dio askotan. Toreatzaile asko ezagutu zuen, eta batzuen lagun ere egin zen. Rondako Francisco eta Juan Romero gaztetan ezagutu omen zituen. Sevillako Palomo anaiak, Zarakondegi nafarra, Jose Candido eta Melchor Calderon andalusiarrak, *Martintxo*, Pedro Romero, *Costillares*, *Pepe Illo* eta abar ere bai geroago[8].

Espainiako Karlos IV.a erregea koroatu zutenean, 1789.eko iraileko 22an Madrileko Plaza Nagusian erret korrida eman zuten, eta plazako apainketaren arduradun Frantzisko Goia izan zen[1]. Goiak gaztetan, toreatzen ikasi omen zuen, eta laurogei urte zituela gorturik zegoela zera zioen: *ezpata eskuan dudala ez naiz ezeren beldur*[7]. 1794. urteko apirilaren 23an bere lagun Zapater-i ere honela idatzi zion:...*Datorren astelehenean, Jauna lagun, zezenetara joango naiz*...

Goiak *Martintxo*, bost akuafortetan marraztu zuen (bi berdintsuak dira). Baina hauetaz gain, Viñaza-ko konteak dioenez *Martintxo*ren beste erretratu bat ere egin zuen. Galvan-ek erretratu honen akuafortea egin zuelako da ezaguna. Izan ere erretratua bera atzerrian leku askotan ibilia izan omen da Mayer-ek dioenez. Norvegia-n ere egon omen zen, eta Mayer-en arabera 1786.ean pintatua da. Cossio-k dioenez, *Tauromakia* saileko *Martintxo* 1727. urte inguruan jaioa zen, Moratin-ek esandakoari jarraituz, eta hirurogei urte geroago Goiak ez zukeen gazte pintatuko erretratuan. Koadro horietan marraztua *Martintxo* ez dela esaten du beraz Cossio-k[3].



9.4. irudia. Goiaren *Tauromakia* saileko akuafortea. 19. lamina. *Martintxo*ren beste erokeria bat plaza berean (Zaragozan)

Goiari bere *Tauromakia* saileko grabatuak egiteko asmoa, Nicolas Fernandez de Moratin-en *Carta histórica*... famatua irakurrita sortu zitzaion. Goia Leandro Fernandez de Moratin-en (Nicolas-en semearen) laguna zen, eta Carderera ikerlariaren arabera XIX. mendeko lehen urteetan bururatu zitzaion *Tauromakia* saila egiteko asmoa, *Carta histórica* ilustratzeko inola ere. Goiak 1816.urtean sail honetako 33 lamina argitaratu zituen eta horietaz gainera sail bereko beste 11 lamina ere argitara eman dira geroztik[2].

*Tauromakia*ko 15. laminak, *Martintxo* banderilak zezenari iskintxo eginez sartzen erakusten du. *Martintxo*k esku bakoitzean banderila bat du eta banderila motzak izan arren, arpoi edo garranga aldetik heldurik ditu ukabilka sartu nahi bait lituen.

16. laminan, *Martintxo* plazan zezena uzkaltzen ari da. Esku batez eskuineko adarretik heldu dio zezenari eta beste eskuaz buztanetik. 18. laminan, *Martintxo* datorkion zezena ezpataz hiltzen ari da Zaragozako plazan. Toreatzailea aulkian eserita dago, hanketan girgiluak eta ezkerreko eskuan kapela dituela. Valentziako zezen-museoan *Martintxo*ren ezpata bat (1789. urtekoa) dagoela dioenik ere bada bestetik gaur egun [11].

19. laminan, zapiz estalitako mahai baten gainean dago *Martintxo* plazan. Oinetan girgiluak ditu eta zezen gainetik salto egiteko zorian ikusten da.

41 (H). lamina 18.aren antzekoa da. Aulkian eserita dago, oinak loturik, Zaragozako plazan. Baina oraingoan ezkerreko eskuan kapela ordez muletatxoa du. Tixerak adierazten duenez, *Martintxo* batzuetan brokelaz ere baliatzen zen zezenak hiltzerakoan.

Historialariek diotenez, *Martintxo*k nafar erara toreatzen zuen kapaz. Goiaren marrazkietan ikusten denez bestetik, banderilak, muleta eta ezpata ere erabiltzen zituen. Oraingo oinezko korridan agertzen diren elementu guztiak erabiltzen lehenengoa edo lehenengotakoa dugu beraz.

Ortiz-Cañavate ikerlariak dioenez, Goiak lagunmina zuen *Martintxo* eta dirudienez inoiz batera ere toreatu zuten [4].

Nahasketa handia dago ordea Goiaren lagun zen *Martintxo* hori zein zen erabakitzerakoan. *Martintxo* Barkaiztegi zenaren ustea egon da urte askotan, baina Baleztena eta Cossio Ejea- ko Martin edo Antonio Bassun-en alde agertzen dira; Antonioren alde batez ere. Eman ditzagun bada, gaingiroki bederen, toreatzaile aragoar hauen xehetasunak.

Lehenik eta behin, Cossio-k Ebassun idazten duela argitu behar da, nahiz eta bere garaiko paperetan ia beti (azkenerarte) Martin eta Antonio Bassun agertu [6].

Gure ustez egokiagoa da *Bassun* erabiltzea, hitzaren jatorriari begiratuta; *Basahon* edo *Basaon* formatik eratorria dela pentsa bait daiteke. Tuterako merinaldean, Ablitas-eko udalerrian bada *Basahon* edo *Basaon* izeneko eremu despopulatu bat [12] . Nafarroa eta Aragoako Alfontso *Borrokalari* erregeak Tuterari 1117. urtean foruak eman zizkionean, inguruko lekuen izenak adierazi zituen, eta han agertzen da *Basaon* landetxearen izena ere [13]. Aragoako Gallego ibaiaren adar baten *Asahon* forma daukagu bestetik XI. mendean. San Juan de la Peña-ko 1014.eko uztaileko 6an egindako agiri batean agertzen da izen hori [14]. Aragoan bertan, *Basabotz* lekuizena ere bada Navardun inguruan. XIII. mendeko beste agiri batean (1269-X-12) idatzirik bait dago [15].

Hitz hauen azpian gainera, euskarazko *baso* hitza suma daiteke. Gipuzkoan bertan ere bai bait dira *Basaun* izeneko lekuizenak. Astigarragako Santiagomendi inguruan bada behintzat. Handik botatzen zizkien karlistek kanoikadak Hernaniko liberalei bigarren karlistadan [16].

Martin Bassun ejeatarra, 1739. urtean hasi zen Iruñean toreatzen. 1740, 1741, 1742, 1743 eta 1744. urtean ere toreatu zuen Nafarroako hiriburuan. Dena den, *Bassun* deitura agertzen da beti paperetan, eta ez *Ebassun*, Cossio- k idatzita bezala [6].

Baina 1739. urtean, Espainiako Karlos II.a erregearen alarguna Tuteran egon zen, eta eskaini zioten korridan Mariano Basun eta beste lagun batzuk zaldiz toreatu zuten:

A Mariano Basun y otros compañeros toreadores de a caballo, por haber toreado con vara larga y rejoneado... 640.[17]



9.5. irudia. Goiaren *Tauromakia* saileko akuafortea. 41 (H). lamina. *Martintxoren* ausartzia Zaragozako plazan.

Hor akatsen bat dagoela pentsatzen dugu, eta *Mariano* ordez *Martin* izango da. Iruñeko agirietan behintzat, Martin Bassun agertzen da beti. Ejeako honek bestetik, zaldiz toreatzen zuen.

Iruñeko 1739. urteko ordainagiri batek honela dio:

Martin Bassun eta beste zazpi lagun toreatzaileri 1600 erreal ordaindu dizkiet Hiriak Bassun-ekin egindako tratuaren arabera. Tratua, lau zezeni burtzi eta haga luzez burtziketa egitea eta korridako gainerakoak toreatzea zen.

Iruñeko 1740. urteko beste ordainagiri batek zera dio:

Martin Bassun eta onartutako zazpi lagun toreatzaileei 832 erreal ordaindu dizkiet, baina kantitate horretan barne daude Bassun-ek hagaz egindako saltoagatik jasotako 32 errealak.

1741.eko ordainagiriak hau dakar:
Martin Bassun eta onartutako zazpi lagun toreatzaileei 800 erreal ordaindu dizkiet.

1742. urteko agiriak gauza bera dio; errealak 800 izan ordez 900 izan ziren. 1743. urteko ordainagirian 800 erreal ipintzen du. Gainerako guztia berdina da.
1744. urtekoan, zera dio:
Martin Bassun eta onartutako zazpi lagun toreatzaileei 900 erreal ordaindu dizkiet, baina

Bassun-i santuaren eguneko arratsaldean burtziketan aritzeagatik emandako 100 errealak ere kopuru horretan barne dira.

Martin Bassun-i *Martintxo* deitu izatea gerta zitekeen, baina Goiak bere *Tauromakian* marraztutakorik ez zuen plazan egiten. Toreatzaile-taldean bera zen nagusiena. Horrek ez du esan nahi ordea lagun toreatzaileak plazan bere menpe zeudenik [8].

1744. urtean, Napoli-ko erregea (Karlos VII.a, gero Espainiako Karlos III.a izango zena koroatu zutenean, Cinca ibai-ertzeko Monzon herrian korridak antolatu zituzten. Zezenak Ejeakoak ziren, eta *Martintxo* omen zen toreatzailerik nabarmenena [18]. *Martintxo* esaten da besterik gabe, eta ez dakigu gipuzkoarra edo Ejeako Martin edo Antonio Bassun zen.

Martin Bassun-en seme edo anaia zen herri bereko Antonio Bassun. Antonio Bassun, 1747. urtean hasi zen Iruñean toreatzen, eta *Martintxo* goitizena zuenik ez dago ukatzerik. Nafarroako hiriburuko paperetan Ejeako Antonio Bassun-i ipintzen zioten behintzat goitizen hori. Bere aita edo anaia Martin izanda ez da harritzekoa [6]. Bi *Martintxo* izatea ordea (gipuzkoarra bata eta aragoarra bestea) ez al zen posible?.

Ejeako Martin eta Antonio Bassun, zaldizko toreatzaileak ziren batez ere. Antonio Bassun-ek adibidez 1747. urteko ekainaren 17an honela idatzi zuen Ejeatik Iruñera:

Hiriari egokien iruditzen zaion eran hiru zezen zaldiz toreatzeko obligazioz. Zaldiak nik ipiniko ditut; ipin daitezkeen onenak.... hirurogei dobloiren truk, eta nik ordainduko ditut oinezkoak....

Iruñeko idazkariak, beste eskutitz batez honela erantzun zion Antonio Bassun *Martintxo*ri:
Zure eskutitza aztertu ondoren, Hiriaren aginduz aurten zaldiz toreatzea ez dela egokitzat jotzen jakin erazten dizut. Beraz, zure ustez aproposenak diren lagunekin oinez toreatzera etor zaitezke...

Sanferminetako korridatan lan egin ondoren, Antonio Bassun-ek berea kobratu zuen. Ordainagiriak honela dio:
Antonio Bassun eta onartutako zazpi lagun toreatzaileei 970 erreal ordaindu dizkiet. Kopuru horretan barne daude Bassun-i aparteko lana egiteagatik eta bere eskariz emandako 170 erreal.

Antonio Bassun-en *aparteko lan* hori zer zen ez dago erabat ziur esaterik. Dena den, Luis del Campo ikerlari nafarraren eritziz Antoniok zaldiz toreatu zuen sanfermin haietan eta Udalak horregatik eman zion ohizkanpoko saria. Iruñeko udaletxeko artxiboan agiri ugari aztertu ondoren plazaratu du del Campo jaunak eritzi hau.

Antonio Bassun-ek Iruñera bidalitako eskutitz guztietan, batez ere zaldiz toreatzeko nahia adierazten du, eta Goiak bere marrazkietan erakutsitako *Martintxo*ren lantzeak eta lanak ez ditu aipatzen [6]. 1750. urtean, ekainaren 22an Prudencio Garcia toreatzaile logronioarrak eskutitza bidali zion Iruñeko udaletxeko idazkariari. Besteak beste, pasarte batean hau dio:
Lagunei buruz, hau bakarrik dakit: Martintxo eta Baigorri Madrileko korridatan daudela, eta lehenengoak hankean adarkada duela... [19]. Ez dakigu Madrilen adarkada eta guzti zegoen *Martintxo* Ejeako Antonio Bassun ala *Martintxo* gipuzkoarra zen.

1758. urtean, Iruñeko sanferminetan *Martintxo* izeneko bat menturaz joan zen oinez toreatzera.220 erreal irabazi zituen;oinezkotan gehiena.Pikatzaileek bakarrik irabazi zuten gehiago [6].

Ez dakigu ordea *Martintxo* hura gipuzkoarra ala ejeatarra zen.

1759. urtean, Antonio Bassun–ek Zaragozan toreatu omen zuen, bertara Karlos III.a erregeak egindako bisitan emandako korridan [3].

1760. urtean, Antonio Bassun–ek Irufiera eskutitza bidali zuen sanferminetarako bere zerbitzuak eskainiz. Azkenean, ekainaren 18an erantzun zioten eta horren ondorioz: Martintxo *Ejea–koa eta Jarreta–rekin tratua egin zen, biek burtziz zezenak pika zitzaten...*[6]. Antonio Bassun–i *Martintxo Ejea–koa* esaten zaio, eta beste nonbaiteko bigarren *Martintxo* ere bazegoela pentsa daiteke. Bestetik, Antonio Bassun–ek zaldiz lan egin zuen, eta Goiak *Martintxo* ez zuen inoiz zaldiz marraztu.

1760. urtean, 560 erreal kobratu zituen Ejea–ko *Martintxo*k Irufiean, eta hurrengo urtean (1761.ean) bere burua eskaini zuen zaldiz toreatuko zuela aginduz eta diru gehiago eskatuz. Urte hartan zaldiz, Antonio Bassun eta Bernardo Jarreta–k lan egin zuten. Ejea–ko *Martintxo*k haga luzez bi zezen toreatu zituen eta 70 peso eman zizkioten.

1762. urtean ere Antonio Bassun (alias *Martintxo*) eta Bernardo Jarreta aritu ziren zaldiz toreatzen sanferminetan. Antoniok haga luzez lan egin zuen eta 480 erreal irabazi zituen [6].

Urte hartantxe, uztailean, Frantzisko Arantegi–k eskea egin zion Tafalla–ko Udalari: Ama Birjina abuztukoaren festetan korridak antolatzeko baimena eskatu zuen. *Martintxo*k zezen bat haga luzez eta bestea burtzitxoz zaldiz toreatuko zuela agintzen zuen[20]. *Martintxo* zaldun hau, Ejea–ko Antonio Bassun izango zen inola ere.

1763.eko maiatzaren 27an, Antonio ejeatarrak Irufiera eskutitza bidali zuen sanferminetarako bere burua eskainiz:

... eta oraindik adorea dudalarik.... zezenetara joan eta zaldiz toreatuko dut....

Eskutitz horretan, Antonio zahartu egin dela ikus daiteke, eta beste pasarte batean hau ere badio:

toreaketako gauza irrigarrietan ez dut aurkitzen aurrea hartuko didanik.

Irufietik bidalitako erantzunean, zera jakin erazi zioten:

... hona etortzen zarenean ikusiko dugu zuk zaldiz toreatzea komeni den ala ez...

Sanferminak igaro ondoren, honako hau idatzi zuen Udaleko idazkariak agiri batean:

Pikatzailerik ez zen izan, Martintxo *Ejeakoa ezik. 60 peso eman zizkioten bi zezen haga luzez eta beste bat burtziz pikatzeagatik; 480 erreal.*

Hurrengo urtean, 1764.ean, berriro etorri zen sanferminetan Antonio Bassun Irufiera. Ordainagiriak zera dakar:

Antonio Bassun, alias Martintxo*ri, bi zezen haga luzez eta beste bat burtziz pikatzeagatik eta beste zezen bati oinezko* ***muestrak*** *egiteagatik, eta bi zaldi hil zitzaizkiola kontutan harturik, 600 erreal* [6].

1764.eko urrian Zaragozan emandako korrida batzuetako agirietan, Sinues jaunak *Martintxo*ren izena aurkitu omen zuen. Goia han egon zitekeen begira, orduan Zaragozan bizi zenez gero [3]. Dena den, ez dakigu *Martintxo* hura Ejeakoa ala gipuzkoarra zen.

1765 eta 1766. urtean, Antonio Bassun–en izenik ez da agertzen Iruñeko agirietan, eta horrek Ejeako zalduna ez zela etorri esan nahi du.

Ortiz–Cañavate idazlearen arabera bestetik, 1765.eko maiatzaren zazpian Martin Barkaiztegi *Martintxo*k Cadiz–eko Puerto de Santa Maria–n toreatu zuen Joaquin Rodriguez *Costillares*ekin batera [4].

1767. urtean, Iruñeko sanferminetan Bernardo Jarreta eta Manuel la Cruz madrildarrak bakarrik pikatu zituzten zezenak[19]. Baina menturaz oinez toreatzera joandakoen artean *Martintxo* izena soilik agertzen da. 80 erreal bakarrik eman zizkioten. Urte hartan Iruñean bi korrida izan ziren sanferminetan, arestian adierazia dugunez, eta *Martintxo* da korrida batean bakarrik parte hartutako toreatzaile bakarra [6]. Kasu honetan ere ez dago erabakita *Martintxo* hori Ejea– koa den ala ez.

Orain arte esandakoak kontutan harturik, Goiak bere akuaforteetan irudikatutako *Martintxo* identifikatzea arazo korapilotsua dirudi. Baleztena Antonio Bassun–en alde agertzen da arestian adierazi dugunez, eta Cossio zezenzale famatua ere bai. Luis del Campo idazle nafarra ordea, Iruñeko udaletxea inork baino sakonkiago aztertu ondoren, ez dago ados identifikazio horrekin eta horretarako dituen arrazoien berri eman du.

XVIII. mendean, orain bezala, Martin izeneko pertsonari *Martintxo* deitzea gauza arrunta zen eta aldi berean ez al ziren orduan bi *Martintxo* egongo?

Del Campo–ren eritziz, bata Antonio Bassun zen, eta bere senidetan Martin izeneko toreatzailea zegoelako deitzen zioten *Martintxo*. Bestea berriz, Martin Barkaiztegi izango zen. Ez dakigu non bizi zen eta agian Leguregi *Iruindarra* (*el Pamplonés*) bezala batetik bestera ibiliko zen.

Dena den Goiak bere *Martintxo* ez zuen behin ere zaldiz marraztu, eta Antonio Bassun batez ere zaldun zen. Cossio–k ordea, ez du xehetasun hori kontutan hartzen. Moratin–ek 1776. urtean *Martintxo* toreatzaile **izan zela** idatzi zuela esaten du. Tixera–k Haro–koa **zela** dioela eta Barkaiztegi–ren fama bere lurraldetik kanpora ez zela zabaldu ere bai.

Del Campo ikerlariak ordea, Cossio–ren hipotesiari kontra egiten dio arrazoi hauek emanez:

1) Jose Leguregi *Iruindarra* (el Pamplonés), Bermeon aritu zen 1750. urtean bere koadrilan Martin Barkaiztegi *Martintxo* zuela. Antonio Arozenak 1964.eko abuztuko *Vizcaya taurina* aldizkarian argitaratu zuen hori, eta hortik jaso du albistea Del Campo jaunak.

2) Jose Leguregi 1785. urte inguruan hil zela, eta Barkaiztegi bost edo hamarren bat urte gazteagoa izanik, 65 edo 70 urterekin hilko zela. Antonio Bassun–ek berriz 1763. urtean bere burua zahartzat jotzen duela. Del Camporen eritziz, ejeatarrak eta oiartzuarra garaikideak ziren eta hirurak (bi Bassun eta Barkaiztegi) 1776. urterako toreatze–lanetatik erretiraturik zeuden.

3) Agirietan batzuetan *Martintxo Ejea–koa* agertzen dela, eta horrek beste *Martintxo*rik ere bazela esan nahi izatea gerta zitekeela.

4) Velazquez y Sanchez-ek Barkaiztegi-k 1778 eta 1785. urte bitartean toreatu zuela dioela, baina albiste-iturria ez dela fidagarria.

5) Tixera-k *Martintxo* Aro hiribildukoa (*natural de la villa de Aro*) zela idatzi zuela eta deskribatzen duen toreatzeko era Goiak marraztutakoarekin bat datorrela. Iruñeko udaletxeko agirietan berriz, bassundarrek horrelako lantzeak burutzen zituztenik ez da inoiz agertzen, eta Iruñeko agirietan ohizkanpoko zerbait egiten zenean idazten zuten, Del Campo-k dioenez.

6) Bassundarrek eta Barkaiztegi-k agian, iraupen txikiko fama izan zutela, eta gaur egun *Martintxo*k sortzen duen jakinmina Goiaren marrazkiei zor zaiela.

7) Bi akuaforteren oinetan *Martintxo*k lan haiek Zaragozan egin zituela esaten dela, eta pintatzaileak hau 1759 edo 1764. urtean han ikusteko aukera izan zuela. Izan ere 1774. urterarte ez zen Goia Madrilera aldatu. Goiak gainera bere *Tauromakia* saila 1815. urte aldera prestatu eta 1816. urtean argitaratu zuen. Goia bestetik, gai zen gaztetan ikusitako irudiak berrogei urte geroago birsortzeko[6].

8) Velazquez y Sanchez-i agian ilea hartu ziotela (*Don Clarencio* izenordez idazten zuenari eta Martin *Barkaiztegi*ren berriak eman zituenari, alegia), fantasiaz betetako historia bidali ziotelako[19].

9) Cossio-k, duen prestigio eta ospearen bitartez irakurleei bere tesia sinesterazten diela, baina *Martintxo*ren ohizko identifikazioa baztertzen duenean oker dagoela[6].

Luis del Campo-ren eritziak kontutan hartuz, zerbait gehiago argitu nahi genuke *Martintxo* gipuzkoarrari eta bere maisuei buruz. Kapitulu honen hasieran Velazquez y Sanchez-ek idatzia ipini dugu, eta hark dioenez *Martintxo*k Jose Leguregi izan zuen maisutzat, eta Leguregi-k Paskual Zarakondegi. Paskual Zarakondegi-z, ezer gutxi diote historialariek. XVIII. mendeko nafar-toreatzailea zela diote[2]. Jose Leguregi berriz, Iruñean jaioa dugu (*Iruindarra* izenez ezagutzen bait zen) 1725. urte inguruan eta batetik bestera ibili omen zen toreatze-lanetan egoitza finkorik gabe[6]. Badirudi ofizioz toreatzaile zela. Baina garai hartan oso toreatzaile gutxi bizi zen zezenetatik bakarrik. Larramendi andoaindarrak 1754. urte inguruan idatzitako bere *Corografian* dioenez, Gipuzkoan ofizioz toreatzaile hasitako *Txanbergo* izeneko bakar baten berri ematen du[21]. Velazquez y Sanchez-ek dioenez berriz, Martin Barkaiztegi oiartzuarra gaztetan Tuteran unai ibilia zen Anbrosio Mendialdua-ren etxean. Mendialdua deitura, berez bizkaitarra da; Arteaga herrikoa. Mendialdua izeneko auzoa bait dago han [22]. Baina gerta zitekeen arbaso bizkaitarrak zituen Anbrosio Mendialdua Tuteran bizitzea. Han ezagutu omen zuen *Martintxo*k Jose Leguregi, Velazquez y Sanchez-ek dioenez.

Leguregik 1754. urtean Alcala-ko portale ondoko plaza zaharra estreinatu omen zuen Madrilen, Juan Esteller eta Anton Martinez-ekin batera. Jose Leguregi eta Juan Esteller-ek toreatzaile-koadrila zuten gainera[1]. Erregea eta Gortea han omen ziren begira. Goizean probako zezenak toreatu zituzten, eta arratsaldeko korridan beste hamabi. Zaldiz eta oinez toreatu ziren[4].

Jose Leguregi *Iruindarra*k 1750. urtean Bermeon toreatu zuela, eta bere koadrilan Martin Barkaiztegik lan egin zuela dio Luis del Campo historialariak, Antonio Arozena-k *Vizcaya Taurina* 1964.eko abuztua (11. orr) aldizkarian agertuaren arabera[6].

Bermeoko XVIII. mendeko zezenen berri zabalagoak ordea, Anasagasti jaunak damaizkigu

Rufino San Bizente (*Begoñako txikia*) toreatzaile bilbotarrari eskaini zion liburuan[23]. Bermeok bere herrian zurezko bost plaza izan omen zituen. Lehenbizikoa Mendebaldean, Erriberako lurretan, XX. mendearen hasieran frantziskotarren komentuko baratza zenean. Han toreatu omen zuen Zarakondegik 1737 eta 1742. urte bitartean bere nafar-koadrilarekin.

Plaza hura suak erre omen zuen, eta herriko iparraldean beste bat eraiki omen zuten 1750.ean. Plaza hura, XX. mendearen hasieran Talai-ko eskoletako atzean omen zegoen. Jose Leguregi *Iruindarrak* estreinatu omen zuen bere koadrilan Martin Barkaiztegi *Martintxo* gipuzkoarra zeramala. *Martintxo* eta Diego del Alamo sevillarrak batera lan egin omen zuten San Pedro egunez 1773. urtean. Diego del Alamo Bilbon toreatua zen 1756. urtean. 1785. urtean eman omen ziren korridak bigarren plaza honetan azkenekoz, oso zaharkitua zegoelako. Harez gero San Frantzisko plaza (*Portale-plaza* izenez ezagunagoa), Konstituzio-plaza (XX. mendearen hasieran izen hori zuen) eta portua erabili dira Bermeon zezenetarako[23].

Gu geure aldetik, Anasagasti eta Arozena jaunek adierazitakoa egiaztatzen saiatu gara Bermeoko udaletxeko artxiboan, eta zoritxarrez ez ditugu Zarakondegi, Leguregi, Del Alamo eta Martin Barkaiztegi *Martintxo*ren izenak aurkitu. Izan ere artxiboan liburu guztiak ez daude batetik (1733. urtetik 1766. urterainoko akta-liburua adibidez) eta askotan toreatzaileei ordaindutakoa izenik aipatu gabe agertzen da bestetik.

Dena den, XVIII. mendeko Bermeoko zezenen aipamenetan behin ere ez da San Pedro egunik adierazten agirietan. Zezenfestak beti San Joan bezperan eta San Joan egunez egiten ziren orduan Bermeon.

XVIII. mendeko Bermeoko zezenfestez albiste jakingarririk bada ordea herri hartako udaletxean, eta bildu ditugunen berri emango dugu ondoren. 1729.eko uztailaren batean udaletxeko bilera egin zen eta plazako zezenetako barrerei buruz erabakiak ere hartu zituzten. Batetik Frantzisko Astoreka-k Domingo Altamira-ri zazpi erreal t'erdi ordainduak zizkion barrerak osatzeko Galdiz menditik ekarritako bost haga eman zizkiolako. Udalak ordea sei erreal bakarrik ordaintzea agindu zion hori nahikoa eta gehiegi zelako. Aldi berean Astoreka-ri barrerak ipintzeagatik 22 erreal ordaintzea erabaki zuen Udalak[24].

1741. urtean, ekainean San Joan bezpera eta egunean korritutako zezenak 133 erreal kostatu zitzaizkien; gauetako suak 10 erreal eta bi egunetako zezenetarako egindako ezten-hagak (garrotxak), hamabi erreal.

1744. urtean ekainean San Joan bezpera eta eguneko zezenetarako barrerak ipini eta kentzeagatik, Inazio Iradi-k 22 erreal kobratu zituen. Plazan korritu ziren hamar zezenak, 150 erreal kostatu ziren. Zezenjabeei emandako otordua berriz, 9 erreal. Diego Ibarra-k prestatu zituen ezten-hagak, 12 errealetan erosi zizkioten. Jendeak zezenak hobeto ikus zitzan txalupa bat plazaraino garraiatu zuten itzaiei, 6 erreal ordaindu zizkieten.

Hurrengo urtean ere, 1745. ean, sanjoanetan izan ziren zezenak. Lan egin zuten toreatzaileei (ez da esaten zeintzuek toreatu zuten) 8 peso edo 1200 erreal ordaindu zizkieten. Zezenjabeei berriz, otordua eman zieten; bi ogi eta bi pitxer ardo (6 erreal eta 4 marai).

1746. urtean, Bermeon zezenak bi alditan izan zituzten. San Joan bezpera eta egunean ohi bezala batetik, eta Fernando VII.a erregearen koroazioa ospatzerakoan bestetik.

Sanjoanetan korritzeko zezenak 120 erreal kostatu ziren, eta ezten-hagak 12. Erregearen

koroazioko gaueko su, zezen etab. guztira 519 erreal kostatu zitzaizkien.

1748. urtean, Diego Urtubei eta Joan Agaiz–ek 15 erreal irabazi zituzten barrera batzuk ekartzeagatik. Barrerak ipini eta kentzea 22 erreal kostatu zen. Ezten–hagak berriz, 12 erreal. San Joan bezpera eta eguneko toreatzaileei, 22 erreal eman zizkieten [25].

Albiste hauetatik, ondorio bat edo beste atera daiteke. Bermeon izan ere, XVIII. mendean zezenak sanjoanetan izaten ziren, eta ez sanpedrotan. Zezenjabeei batzuetan otordua ematen zitzaienez, inguruko zezenak toreatzen zituztela esan daiteke. Batzuetan, toreatzaileei ordaindutakoa agertzen da kontutan, eta bestetan ez. Badirudi beraz, ofizioko toreatzaileak batzuetan bakarrik ekartzen zituztela, eta ez beti. Dena dela, lastima da kontutan toreatzaileen izenik ez agertzea, eta 1746.eko erret koroaziokoan batez ere; bestetan baino gehiago gastatu bait zuten orduan (519 erreal) eta asmatzekoa denez zezenetara toreatzaile hobeak ekarriko zituzten.

Ez dirudi bestetik Bermeoko plazan zezenak hiltzen zituztenik.1764. urteko ordainagirietan ordea, San Joan bezpera eta eguneko korridetako gastuetan toreatzaileen izenak ere badatoz. Bermeoko Udaleko Diego Thorres diruzainak Frantzisko Renteriari 46 erreal ordaindu zizkion; 22 barrerak ipini eta kentzeagatik eta 24 erreal sei karga ezten–haga eta banderilagatik. Pedro Mandoxana gasteiztarrak 200 erreal kobratu zituen; 180 erreal zortzi dotzena eta lau suzirigatik eta beste 20 erreal bere soldatagatik.



9.6. irudia. Fernando Untzueta toreatzaileak sinatutako ordainagiria. 1764. urtekoa.

Toreatzaileak Fernando Untzueta eta Jose Goikoandia izan ziren. 110 erreal irabazi zituzten biek. Jokatu ziren zezenkoen jabeak zeintzuk ziren ere adierazten da. Manuel Txindurtza–k bi zezenko ekarri zituen (30 erreal),Sebastian Zuloeta–k bat (15 erreal), Pako Gibeleko–k bi (30 erreal) eta Pako Anparan–ek hiru (45 erreal).

Zezenetako gastuen barruan, bada ondo ulertzen ez dugun 30 errealeko beste ordainketa bat ere. Jose Jauregizar eta Andres Albondiga–k 30 erreal irabazi zituzten bakoitzak bi egunetan egindako lanagatik:

En el Reconozim^{to} de las Cabas de los montes en los Cajigos.[26]

Urte hartako Jose Goikoandia toreatzailearen berririk ez genuen, baina Fernando Untzueta ezagunagoa da. Fernandok Iruñean toreatu bait zuen bost urte geroago (1769.ean) sanferminetara menturaz joanda. 32 erreal irabazi zituen orduan[19].

1770. urtean ere zezenak izan ziren ekainean San Joan bezperan eta egunean Bermeoko plazan. Barrerak ipintzea eta kentzea guztira 107 erreal eta 12 marai kostatu ziren. Gastu hauen xehetasunak ipiniko ditugu ondoren:

- Domingo Goio–ri barrerak ipini eta kentzeagatik..... 44 erreal
- Barrerak konpontzen egun batez bi ofiziale zurgin aritzegatik.....14 erreal
- Nafarrolasetik herriko plazara ziriak ekartzen bi emakume aritzeagatik..... 3 erreal
- Barrerak josteko eta segurtatzeko erabili ziren iltze desberdinengatik..... 8 erreal
- Ohi bezala Domingo Goio eta Martin Barandika–ri 44 errealaz gain emandako bi pitxer ardogatik..... 4 erreal 8 marai
- Barrerak osatzen erabili zen aitzin–mastagatik (*un maste de Trinquete*)... 8 erreal
- Domingo Goio eta Martin Barandika–ri Gorpuztiko prozesioan barrerak kendu eta ipintzen egindako lanagatik..... 8 erreal
- Domingo Urkidi–ri sindiko gisa barrerak ipini bitartean behatzen egoteagatik..... 18 erreal 4 marai

Guztira ——————————— 107 erreal 12 marai

Hauek dira barrerei buruzko 1770. urteko gastuak. Baina horietaz gain toreatzaileak ordaintzen beste 196 erreal behar izan zituzten. Bermeora sanjoanetako zezenak toreatzera Frantzisko Arribilaga eta Jose Antonio Etxeberria etorri ziren urte hartan. 180 erreal, beren lanagatik eman zizkieten, eta beste 16, urtero bezala toreatzaileak herriari egiten zion brindisagatik [27].

Frantzisko Arribilaga, toreatzaile famatua zen. Iruñean asko estimatzen zuten eta horregatik joaten zen kontratuz Nafarroako hiriburura. 1768. urtetik 1775. urterarte aritu zen sanferminetan toreatzen. Gipuzkoarra zen, arestian aurreko kapituluan esan dugunez. Gure ustez, Tolosako bataiatuen 8. liburuan 1740. urteko apirilaren 27an agertzen den Frantzisko Arribilaga da. Tolosan jaioa beraz; Joan Bautista Arribilaga eta Klara Gastesiren semea eta Maria Antoniaren anaia bikia. Frantzisko toreatzailea, Tolosan bertan hil zen 1814.eko azaroaren 23an. Migel Antonio Barrenetxea eskribauaren aurrean testamentua egin ondoren. Josefa Inazia Irigoienen senar izan zen alargundu zen arte [28].

Jose Antonio Etxebarria, gure ustez Iruñean 1766. eta 1769. urteetan agertzen den Jose Etxeberria da. Batzuetan *Bergararra* izenordez izendatzen dute (*Vergarés* edo *Provinciano de Vergara*). Menturaz joan ohi zen sanferminetara[19].

Bermeon benetan interesatzen zitzaiguna ordea, Zarakondegi, Leguregi edo *Martintxo* Barkaiztegi–ren arrastoak ateratzea zen, eta lan horretan ez dugu zorterik izan.

Velazquez y Sanchez–ek (*Don Clarencio*k), bere *Anales del Toreo* liburuan, 1873. urtean Martin Barkaiztegi Oiartzun–en jaio zela eta Deban 1800. urteko otsailaren 13an sukarrez hil zela dio, eta albiste hauek egiaztatzekotan Gipuzkoako elizbarrutiko artxiboan (Donostiako Seminarioan), zenbait liburu aztertzeko aukera izan dugu.

Lehenik eta behin, zera aitortu behar da: Oiartzuneko bataiatuen 7. 8. eta 9. liburuetan (1702. urtetik 1764. urterarte) ez dela inoiz Barkaiztegi edo antzeko deiturarik agertzen. Ezta inguruko herrietako bataiatuen liburuetan ere. Irun (1697–1756; 3. liburua), Errenteria (1720–1795; 7. 8. eta 9. liburuak), Astigarraga (1744–1781; lehen liburua), Hernani (1705–1776; 4. eta 5. liburuak) eta Altza–n (1739– 1819; 5. liburua)ez da Barkaiztegi edo antzeko deitura behin ere agertzen.



9.7. irudia. Bermeon Arribilaga eta Etxebarria toreatzaileei ordaintzeko agindua. 1770. urtekoa.

Hildakoen liburuak aztertuta ere, beste horrenbeste esan daiteke. Oiartzun (1783–1836; 10. liburua), Deba (1782–1842; 6. liburua) eta Itziarreko (1741–1819; 8. liburua) hildakoen liburuetan ez da Barkaiztegi edo antzeko deiturarik agertzen. Egia da beraz Luis del Campo–k dioena: Velazquez y Sanchez–i *Martintxo* gipuzkoarrari buruzko albisteak bidali zizkiotenean ilea hartu ziotela alegia [19]. Ez dago beraz, 1778.etik 1785.erarte aritu zela, oiartzuarra zela, Anbrosio Mendialduaren etxean Tuteran lan egin zuela, Barkaiztegi deitura zuela eta Deban hil zela sinesterik. Datu horiek Velazquez y Sanchez–ek bakarrik ematen bait ditu.

Tixera–k dioenez, *Martintxo* Aro–koa zen, eta herri–izen horrek Deba ondoko Mendaro–rekin duen antza ikusita, pentsa liteke agian mendarotarra zela. Baina hango liburuetan ere

ez da inoiz Barkaiztegi edo antzeko deiturarik agertzen. Ikus bestela Mendaro Garagartza–ko hildakoen 3. liburua (1783– 1874) edo Mendaro Azpilgoeta–ko hildakoen 6. liburua (1750– 1881). Eta ez da harritzekoa; zeren eta Barkaiztegi (lehen Perkaztegi) deitura eta baserria, Urnietakoak bait dira. Hernani–n XVI. mendean Gonzalo Perkaiztegi eskribau egon zen 1552. urtetik 1571. urterarte[29], eta Larramendi–k dioenez Gonzalo jaunaren bidez hasi ziren Gipuzkoan artoa ereiten[30]. Baina XVIII. mendeko liburuetan , ez da Perkaiztegi edo Barkaiztegirik agertzen. *-tegi* atzizkiaren aurreko *Barkaiz–* edo *Perkaiz-* horren esanahia zein den gainera, ez dago garbi [31].

Barkaiztegi bestetik, Urnietako deitura eta baserria da. Adar bat Donostian zuen eta marinel ospàtsuak izan ziren Donostiako barkaiztegitar batzuk. Hala nola, Pedro Barkaiztegi, Pedro Jose Barkaiztegi etab. [30].

Dena den Urnietan Barkaiztegi deiturako pertsona asko zen XVIII. mendean. Bataiatuen lehen liburuan (1681–1760), hirurogeiemeretziren erregistrotan agertzen da Barkaiztegi lehen deituratzat. Martin Barkaiztegi izenekoa, bakarra dago. Martin Joan Barkaiztegi Mendizabal da; 1755.eko azaroaren hamaikan bataiatua[32]. Martin Joan Barkaiztegi, 1832.eko urtarrilaren 28an hil zen mutilzahar Urnietan. Ez zuen testamenturik egin [33].

Ez derizkiogu zuzena ordea Barkaiztegi–ren arrastoari segitzeari. Esana dugunez, Velazquez y Sanchez–ek bakarrik eransten dio Goiaren *Martintxo*ri deitura hori, eta *Don Clarencio* izenordez idatzi zuena ez da batere fidagarria arazo honetan, lehentxeago frogatuaren arabera.

Zein ote zen bada Goiak marraztutako *Martintxo*, ez Barkaiztegi, ez oiartzuar eta ez urnietar bada?

Guk erabateko segurtasunez ez daukagu erantzuna ematerik, baina interesgarria derizkiogu Joan Inazio Iztueta zaldibitarrak 1847. urtean argitaratutako *Guipuzcoaco Condairan* XVIII. mendeko zezenketei dioena aztertzeari. Iztueta 1767.ean jaio eta 1845.ean hil zen. Bere *Condaira* hil eta laster argitaratu zen beraz. Honela dio ortografia zaharrean 247. orrialdean eta hurrengotan:

Baso–abereaquico indarlei–etan ere, gaiñ gañecoac dira Guipuzcoatarrac. Amezquetaco plazan S. Bartolome arratsalde batean Erri–cecena jocatzen cebillela, esan zuquean Ataungo echejaun Arcelus deitzen citzaionac, ezen, beraren Errian bazala emezortzi urte bete bagueco mutila, plazan cebillen cecen ari adarretatic itsatsiric buruaz lurra joerazoco ciona. Erronca andi au cecen jabearen belarrietara iritsi zanean, eman omen cion arpegui Arcelus jaunari, eta biac guizon prestu guisa eguin omen zuten apustua bostna ontza urre bigaramun arratsaldean plaza berean cecen arequin Arcelus–ec ifintzen ceban mutilac jocatzeco. Orduraco bazuquean Arcelus jaunac entzutera, bazala beraren Errian mutila, Amilleta deitzen zaion eche batean, basa–beiac ancatic eldu ta ardia bezala guelduturic, eznea edan oiciena nai ceban guztian; bai ta ere, bestec ezin atzeman cituen sasi–bei ta idisco izuac, adarretatic oratu eta menderatu oicituela. Uste oso onetan apustua eguin izan ceban bezala, bertatic joan zatequean gabaz Amilletara mutilaren esque, eta beraren gurasoac esan omen cioten, ezic, etzala gabaz echeratzen, neguco elurte andietan baicic; eta nola etzeban chabolaric eta etzanlecu jaquinic ere, alper alperric irtetea zala beraren billa, alic eta eguna arguitu artean. Atera omen ciran, bada, goiz–alderontz mutilaren esque, beraren aita, anaia bat, eta Arcelus jauna. Oen ojuetara aguertu omen zan, noizbaiten ere, baso illun batetic, bañan icusi cebanean Arcelus guizon arrotza, onen ondora ez omen ceban alderatu nai iñolaco moduz ere. Gueroenean ere, aitac eta anaiac ondo esanaren bidez limurtu omen zuten ecartea berentarontz, cer esan naicioten aditzera, eta entzun cebanean Erri–cecen bat bear cebala menderatu Amezquetaco plazan, pozquidaturic, jarri zatequean gogoz joatera; ceñari atseguintasun gueiagoraco Arcelus–ec esquiñi omen cion, mendi artan cebillen beiric oberena erosiric emango ciola beretzaco, baldin

apustua irabazten baceban.

Mutil gazte au guztiz omen zan ederra ta galanta, eta orduraño plaza inguruco lagun–artetara beñere jachi baguecoa. Beragaitic janci modu onecoric ez omen citzaion arquitzen, toqui aguirico batera aurqueztutzeco, eta demporaric nola etzegoen berriac eguiteco, alabearrez Lazcaun omen cegoen egun aetan Vicario guizon lodi andiren bat; eta onen alcandora ta fracaquin abarca mantarrac janci eta beste soñecoric bague joan omen zan Amezquetaco plazara, apustua jocatzera.

Arcelus–ec eta cecen jabeac jocuraco bost onza urreac bertaco Alcate jaunaren escuetan ifiniric, icendatu ere omen cituzten itzal andico guizon eldu biña, despitaric izaten bazan erabaquitzalle. Oiturazco arguibide oec guztiac bear bezala zucendutacoan atera omen cituzten cecena ta mutila plazara, hura oculluan aculluarequin ciritatuaz arras aserra–erazoric, eta au, jaten ondo eta edaten bere moduan emanic alaitu ta pizcorturic chit. Mutil au jaiotzetic omen zan itzeguiten tatalea, eta cecenari otseguiten omencion plazaren goen– aldechotic, Atol, Atol.*Beguira ceudenetaco ascoc esaten omen zuten ¡Ai aun mutilaren guri mardul eder galanta! ¡Negargarria da chit cecen liquits orren adarretan beraren gorputz liraña icusi bearra! Cecena omen cebillen plazan bazter batetic bestera gira ta bira, eta mutila beti ere beragana alderatuaz, deitzen ciolaric bere izquera tatalean guztiz gogoz eta chit sarriro,* Atol onala Atol. *Noizbait bear ta alacoric batean, cecena aserraturic arrabia bician omencijoaquion erasotzera, eta colpea emateco burua macurtzearequin batean, oratu omen cion adar bietatic irmequi. Lenengo abantadan cecenac alchatu omen ceban gora mutila; bañan onec, beera jachitzean oñac lurrean ifini bezin prest, lepoa biurrituric joerazo omen cion buruaz lurra, bein alde batera, eta guero bestera; eta lurrera botaric azpiratua ceucala galdetzen omen ceban bere tatalean.* ¿Ein bealiot gueio? *Esango bazuquean bezala* Eguin bear diot gueiago? *Bereala lau Erabaquitzalleac plaza guztiarequin batean eman omen cioten apustua irabacitzat leguez ta bidez Ataungo Amilletaco mutil emezortzi urte baguecoari.*

Apustu gogoangarri au jocatzen Amezquetaco plazan icusi izan zuten guizon zarretaco ascori, nere gazte demporan entzun izan nioten guertacari au, emen ezarri dedan modu berperean. Icendatu dedan mutil Ataungo au, gueroztic izan omen zan toreatzalleric oberenetacoa; ceña laurogei ta gueiago urterequin illzatequean ni jaio ezqueroztic.[34]

Iztueta zaldibitarrak, apostuaren gorabeherak zehatz–mehatz ematen dizkigu pasarte honetan, eta Amilleta–ko gazteak plazan egindakoa ez dago ukatzerik. Bestetik, Amezketan burututako lanak eta Goiaren *Martintxo*k egindakoek badute antzik. Guztia gainera, XVIII. mendean gertatua da, Iztueta 1767.ean jaio eta 1845.ean hil zela kontutan hartuta asmatzekoa denez.

Iztuetak bestetik gipuzkoarrek maite zituzten jostaketetan ... *saltoca maquillarekin, eta maquilla bague...saltoca, lasterca,* [34] esaten du eta makilarik gabeko saltoka horixe da Goiak 19. laminan marrazten duena: mahai baten gainetik saltoka, zezena datorkionean. Hankak girgiluz lotuta dituelako, orpo–juntuan egiten du salto *Martintxo*k. Iztueta berak dio ondoko hau ere: ... *Urreta izeneko amezketar bat ere ezagutzen dut bestalde, zeinak oin biak batera eta eskutan ezer eman gabe* (makilarik gabe) *13 oin saltatzen bait zuen...* 1899.eko Zumarragako euskal festetan Xabier Aizpuru beizamarrak atera zuen saria geldirik zegoela orpo–juntuan 2 metro eta 62 zentimetroko saltoa eginda; *Martintxo*k bezala saltatzeagatik alegia, baina zezenik gabe, noski. Aralar–en ere (Amilleta–ko gaztea ibiltzen zen zelaietan) ia gaur arte ibili dira artzaiak orpo–juntuan saltoka. 1946. urtean Igaratzan Martin Altuna artzai azkaratearra orpo–juntuan saltoka erakusten duen argazkirik bada[35].

Gatozen ordea Amilleta–ren kontuak aipatzera. Izan ere, Amilleta baserria aspaldikoa zen. XVI. mendean, bazen Ataunen jadanik Amilleta izeneko saroea[36]. Gero, XVII. mendean Joan

Agirre-k (Agerre etxekoak) saroe hartan Amilleta izeneko baserria eraiki zuen; 1660. urte inguruan hain zuzen[34]. 1810. urtean, baserri berria egin zuten, eta *Amilleta zahar* eta *Amilleta berri* izenekoak egon ziren garai hartan [37], nahiz eta gaur egun *Amilleta* izeneko baserri bakarra egon.



9.8. irudia. Atauneko Amilleta baserria gaur egun.

Gaur egun XVIII. mendean Ataunen toreatzaileak izan zirela (eta onak gainera) aitortzea askori harrigarri gertatzen bazio ere, orduko giroa aztertuz gero zer harriturik ez dago. Iztuetak berak dioenez mendian basabehiak zeuden, eta haiekin mendian landutako trebetasunak herriko plazan agertzen zituzten Atauneko gazteek.

Ataunen, plaza ixten zuten barreren bidez. Haritz eta pagozkoak ziren hain zuzen barrera haiek. Toriletan lau ate zeuden eta beste bat bikario eta seroraren etxeen artean, 1730. urtean guztiak ere beren kontza, morroilo eta guzti [38].

1736. urtean, toriletan sei ate zituzten, bikarioaren eta seroraren etxeen artean bat, eta plaza ixteko beste lau [39]. 1749. urtean ere bada herriko barrerak aipatzen direneko beste agiri bat[40].

Herriko plazan zezenak toreatzen, Jose Ibarrolaburu ibiliko zen noski. Toreatzaile ataundar honen aipamena arestian egin dugu 1712. urteko sanferminak aztertu ditugunean. Iruñean zezen bati partxea jartzeagatik 32 erreal irabazi zituen.

Atauneko bataiatuen, ezkonduen eta hildakoen liburuetan maiz agertzen da *Joseph de Ibarrolaburu*. Baita herriko eskribauaren agirietan ere.

Jose Ibarrolaburu, Ataunen 1748.eko ekainaren 22an hil zen[41]. Aurrez, 1709. urtean Katalina Imaz-ekin ezkondu zen abenduaren 22an[42]. Seme-alabak ere Ataunen bertan izan zituen, Frantziska Arratibel eta Katalina Imaz-engandik[43]. Aduanatako goarda izendatu zuten Ibarrolaburu

1708. urtean. Gero errotari ere izan zen, 1711. urtean Elizaldeko errotan [44] eta 1720.ean herriko plazako errotan[45].

Baina utz ditzagun Atauneko zezenplaza nahiz Ibarrolaburu toreatzailearen kontuak, eta gatozen Iztueta zaldibitarrak idatzitakora. Hor izan ere Arzelus etxejabe ataundarra eta Amilleta baserriko mutil gaztea bait dira pertsonaia nagusi.

Ataunen XVIII. mendean Arzelus deiturako familia bakarra agertzen da garai hartako liburuetan. Diego Arzelus adibidez, Josefa Astigarragarekin ezkondua zegoen eta 1720. urtean Atauneko alkate eta juez izan zen [45]. Diego Arzelus honen seme ziren Felipe Arzelus (gero Atauneko elizako bikario izango zena) eta Diego Arzelus semea.

Diego Arzelus aita 1743. urteko maiatzaren 13an hil zen[46]. Diego Arzelus semea berriz (Felipe apaizaren anaia), Maria Bautista Zeberio lazkaotarrarekin ezkondua zegoen eta Frantzisko Antonio Zeberioren koinatu ere bazen. Feliperen anaia zen Diego Arzelus honek, testamentua egin zuen 1766. urteko abenduaren 26an Joan Bazterrika Atauneko eskribauaren aurrean [47]. Testamentu honetan, *Juan Arruenea* edo *Santiagonea* etxearen jabe agertzen da, eta gainera emaztea lazkaotarra zuenez gero (Iztuetak dioenez Amilletarentzako erropak handik hartu zituzten), Diego Arzelus hau zen nerekiko Amezketan apostua egindakoa.

Feliperen anaia Diego, testamentua egin eta hiru egunera hil zen Ataunen; abenduaren 29an hain zuzen[41].

Diego Arzelus 1766.ean hil zenean, Diego Arzelus izeneko semea utzi zuen. Iruñean ari zen filosofia ikasten, aitaren testamentuak dioenez. Diego Arzelus Zeberio semea, 1800. urteko maiatzaren 18ko Oiartzuneko agiri batean agertzen da Askorasti-ko egurren gorabehera medio[48].

Iztuetak aipatzen duen Amilleta baserriko gaztea zein zen jakiteko, baserri hartan XVIII. mendean zeintzuk bizi ziren aztertu beharra dago. Lehenik eta behin, zera argituko dugu: Amilleta baserrian ez zela jabea bizi; maizterra baizik. 1708. urteko abuztuaren 27ko kontratuaren arabera [49], Maria Ana Maiz (Agirre-ren alarguna) zen etxejabea eta Jose Aldasoro maizterra.

Jose Aldasoro maizterra, Maria Otamendi-rekin ezkondua zegoen. Bost seme-alaba izan zituzten: Antonio (1681-IV-26an jaioa), Andres (1683-X-11an jaioa), Josefa (1685-IX-24ean jaioa), Maria Asentzia (1688-V-27an jaioa) eta Anbrosio (1695-IV-29an jaioa)[50].

Antonio semerik zaharrena, gazterik hil zela Oñatin froga daiteke; 1705.eko irailaren 21ean hain zuzen[46]. Horregatik, Amilleta baserria 1713.eko urtarrilaren 25ean beste sei urterako Joan Agirre etxejabeak alokatu zuenean, Jose Aldasoro eta Andres semea (biak) agertzen dira maizter kontratuan [51].

Andres Aldasoro, Katalina Maiz-ekin Amilleta baserrira ezkondua zegoen 1710. urteko urtarrilaren 14az gero[42]. Andres eta Katalinak, bi seme izan zituzten Amilletan: Joan Antonio (1710-IX-12an jaioa) eta Frantzisko (1714-X-4ean jaioa)[43]. Joan Antonio gero, Elena Labaka-rekin ezkondu zen Urnietara 1741.eko uztailaren 17an[52]. Frantzisko berriz, 1749.eko irailaren 10ean hil zen [41].

Aurrez ordea, 1719.eko azaroaren 13an Katalina Maiz ama hil zen Amilleta baserrian[46] eta Andres aita laster ezkondu zen berriro; Maria Kruz Barandiaranekin 1720.eko apirilaren 14ean hain

zuzen[42]. Baina ez Amilletara; kanpora baizik. Horregatik, 1725. urtean Joan Agirre agertzen da Amilletako etxejabe eta Jose Aldasoro bere Anbrosio semearekin maizter[53]. Maria Kruz emaztea hil zenean (1744–V–11n), Andres Aldasoro *Aia Ugaldea* baserrian bizi zen, eta ez Amilleta–n [46].

1731.eko otsailaren 10ean Jose Aldasoro hil egin zen eta Anbrosio semeak ordaindu zizkion hiletak[46]. Harez gero, 1752. urteko kontratuan Joan Agirre agertzen da Amilletako etxejabe, eta Anbrosio Aldasoro maizter [54]. 1761. urteko kontratuan ere, Joan Agirre da etxejabea eta maizter Anbrosio Aldasoro bere suhiarekin (Manuel Eskisabelekin) agertzen da [55].

Anbrosio Aldasoro, Amilletako maizterra, 1769.eko otsailaren 8an hil zen, eta hiletak etxera ezkondua zegoen Manuel Eskisabel–ek ordaindu zizkion[41].

Iztuetak dioena aztertuz, eta zaldibitarra noiz bizi izan zen kontutan hartuta (1767–1845), oker handirik gabe esan daiteke Amezketako apostua jokatu zenean Amilletako maizterra zein zen: Anbrosio Aldasoro inola ere. Anbrosioren semeren bat izango zen Amezketako plazan zezenarekin indarrak neurtu eta geroztik toreatzailerik onenetakoa izandakoa. Egia da Anbrosio bera ere Iztueta jaio ondoren hil zela; bi urte geroago (*illzatequean ni jaio ezqueroztic* dio Iztuetak). Guk ordea badakigu 73 urterekin hil zela eta Iztuetak dioenez Amezketako plazan aritutakoa *laurogei ta gueiago urterequin* hil omen zen. Sinesgarriagoa da beraz Amilleta toreatzailea Anbrosio Aldasororen semeren bat izatea. Azter dezagun bada, Anbrosioren familia.

Anbrosio Aldasoro, 1721. urtean (urtarrilaren 26an) ezkondu zen Ataunen Josefa Arrizabalagarekin[42]. Hamar seme–alaba izan zituzten Amilletan, 1722 eta 1741. urtea bitartean; bost neska eta bost mutil. Zerrendan ipiniko ditugu, zaharrenetik gazteenera, bakoitzaren izena eta jaioteguna:

1) Josefa Antonia: 1722–I–8an jaioa
2) Maria Asentzia: 1723–XII–6an jaioa
3) Katalina: 1726–I–30ean jaioa
4) Martin: 1727–IV–26an jaioa
5) Joan: 1730–IV–5ean jaioa
6) Maria: 1732–III–9an jaioa
7) Joan Frantzisko: 1734–III–7an jaioa
8) Mariana: 1736–V–12an jaioa
9) Pedro Inazio: 1738–XI–29an jaioa
10)Felipe: 1741–VI–18an jaioa [43].

Bigarren alaba, Maria Asentzia, Manuel Eskisabelekin Amilleta baserrira ezkondu zen 1746.eko abuztuaren 20an[42] eta horregatik agertzen da harez gero Anbrosio Aldasororekin batera Amilletako baserriko maizter. Anbrosio hil zenean ere, Manuel Eskisabel suhiak ordaindu zituen hiletak.

Anbrosioren bost semeei buruz esan dezakeguna, hau da: Felipe gazteena, 1792. urteko urriaren 8an hil zela Ataunen[41] eta Joan anaiak 1738.eko ekainaren 10ean sendotzako sakramentua hartu zuela Ataunen[43]. Hortik aurrera deus gutxi. Herriko liburuetan ez da horien berririk agertzen. Ezta non eta noiz hil zirenik ere. Zein ote zen bada Iztueta zaldibitarrak aipatzen duen Amilletako gazte toreatzailea? Martin, Joan, Joan Frantzisko, edo Pedro Inazio izan daitezke. Felipe gaztea ez, 51 urterekin hil zelako eta Iztuetaren arabera toreatzailea *laurogei ta gueiago urterequin*.

Dena den, beste lau anaietan Martin Aldasorok ditu aukerarik gehienak. Iztuetari jarraituz,

Martin 1810. urte inguruan hil bide zen, eta Pedro Inazio 1820. urte inguruan. Joan Inazio Iztueta bera ordea, 1767.ean jaio eta 1845.ean hil zen 78 urterekin eta *Condairan* dioenez Amilletako toreatzailea *ni jaio ezqueroztic* hil zen. Pedro Inazio beraz, Iztuetak 53ren bat urte zituela hilko zen eta Martin Iztuetak 43 urte zituela.

Inor aukeratzekotan bada, Martin Aldasoro hartuko genuke toreatzailetzat; 1727.eko apirilaren 26an jaioa. Bere bataio-agiriak honela dio [43]:

Marttin de Aldasoro

En veinte y seis del dho mes y año (1727.eko apirila) *baptice a Marttin / hijo legitimo de Ambrosio de Aldasoro y Josepha / de Arrizabalaga: fueron sus padrinos Marttin / de Ottamendi y Mariana de Aldasoro a quienes / adverti el parentesco espiritual que Contraxe/ron y obligacion de instruir en la doctrina / christiana al dho Marttin que Parecio el mismo dia*

Andres de Mayza

9.9. irudia. Atauneko Amilleta baserria.

Martin Aldasororen aukera eginez gero, Amezketako plazan apostua 1744. urteko San Bartolome biharamunean jokatu bide zen. Diego Arzelus-ek (Felipe apaizaren anaiak) ipiniko zituen urrezko txanponak eta, plazan zezena errenditu ondoren, Amilletako Martini inguruko behirik onena emango zion.

Baina Iztuetak dioenez, *gueroztic izan omen zan toreatzalleric oberenetacoa*. Eta Martin Aldasoro toreatzailerik onenetakoa izan bazen, zergatik ezin da Goiak marraztutako *Martintxo*

famatutzat hartu?.

Agian oinarri sendorik ez da egongo bi pertsonaia hauek lotzeko, baina zera datorkigu burura: Velazquez y Sanchez-en albisteak alde batera utzita (frogatua dugu zergatik), gainerako idazle garaikideek diotena bete zezakeela Martin Aldasorok. Martin Aldasoro 1744.ean hamazazpi urte zituela hasiko zen Amezketan plazan toreatzen, eta 1767. urte ingururarte arituko zen zezenetan lanean. Moratin-ek 1767.ean idatzitako *Carta histórica*ren garaian Martin Aldasoro erretiratua egongo zen ia 50 urte zituelako. Prudencio Garcia logronioarrak dioenez *Martintxo* 1750.ean adarkadaz Madrilen Baigorrirekin batera zegoenean Martin Aldasorok 23 urte zituen.

Jose de la Tixera-k *Martintxo* Haro-koa zela zioelako, badaezpada ere kontsulta egin nuen bertako parrokiara, baina bertako parroko jaunak jakin erazi zidanez 1755 eta 1829. urteen bitartean Haroko hildakoen liburuetan ez dago Aldasoro anaien arrastorik.

Mereziko luke *Amilleta* toreatzaileaz ikerlan gehiago egitea, eta badaezpada ere Goiaren *Martintxo* izan daitekeela kontutan hartzea ez legoke gaizki.

———— o ———— o ————

Ikerketak puntu honetaraino garatuak nituenean ordea, beste lan baten berri izan dut. Azken aldian, Felipe Garcia Dueñas apaiz jaunak lan sakona egin du Ejea-ko Martin eta Antonio Bassun pertsonaiei buruz. Albiste batzuk Ejea ondoko Farasdues herriko festetako programan argitaratu zituen 1980. urtean[56]. Horietaz gain beste albiste batzuen berri ere eman zidan, berak gai honi buruz liburua ateratzen duen bitartean. Liburu bikaina izango da inola ere.

Dena dela, honako datu hauek ukaezinezkoak dira, Garcia jaunak iturrietatik (erregistrotatik) jasoak dituenez:

– Martin Bassun Nafarroa Beheretik Farasdues-era (Exea-tik 13 kilometrora, iparraldera dago) etorri zen bizitzera. Lehen agirietan *Bason* deitura agertzen da eta zapataria zen. *Bizkaitarra* (el vizcaino) deitzen zioten euskalduna zelako. Martin, Farasdues-en ezkondu zen 1700.eko abenduaren 24ean eta Ejea-n hil zen 1745.eko uztailaren 4ean.

– Antonio Basun *Martintxo*, Farasdues-en jaio zen 1708.eko martxoaren 10ean. Martin-en bigarren semea zen. Bizente izeneko anaia bat izan zuen eta Eulalia Kandida izeneko areba bat ere bai (1710-XII-10ean). Bere gurasoak, Martin eta Maria Martinez, Farasdues-eko parrokian 1700.eko abenduaren 24ean ezkonduak ziren.

– 1735. urtean *Martintxo* eta bere familia Ejea-n bizi ziren jadanik. 1740. urtean *Martintxo* toreatzailea dela dioten agiriak badaude.

– 1746. urteaz gero, Antonio Basun *Martintxo* zapatari eta toreatzaile gisa agertzen da agirietan (XIX. mendeko Ituarte aita-seme zapatari debarrak gogora erazten ditu albiste honek).

1749. urtean Ejean Francisco Samper jaunari etxea erosi zion *Martintxo*k.

–1752. urtean (urriaren 18an) Antonio Basun *Martintxo* Ejeako Santa Maria parrokian ezkondu egin zen bertako Ramona Mena 20 urteko gaztearekin. Tomas nekazariaren alaba zen

Ramona.

– 1753.eko apirilaren 30ean, senar–emazteek lehen semea izan zuten. Aitaren izen bera ipini zioten: Francisco Antonio.

– 1758. urtean *Matintxo*k *Gancho* izeneko lekuan arlo bat erosi zuen, eta *Fazemon* izenekoan mahasti bat.

– 1759. urtean, Tomasa izeneko alaba jaio zen, eta 1762. urtean Gregorio semea. 1769. urtean berriz, Basilia alaba.

– *Martintxo*ren seme–alaba guztiak San Salvador–eko parrokian bataiatu zituzten, eta bere hiletak ere hantxe egin ziren 1772.eko abuztuaren 10ean hil zenean.

Data eta albiste guzti hauek bat datoz Moratin–ek esandakoarekin. Jose de la Tixera idazleak berriz, *Martintxo* Aro–koa zela dio eta ez da ahaztu behar garai bateko *Faro* eta *Farasdues*ek badutela antzik.

Labur eta garbi esanda, orain arte Goia–ren *Martintxo* identifikatzeko datu seguruak, Francisco Antonio Bassun farasduestarrarenak bakarrik dira eta, kontrako albiste sendorik agertzen ez den bitartean, *Martintxo* aragoarra zela ez dago ukatzerik.



9.10. irudia. Farasdues herria.

9. *MARTINTXO*REN ARAZOA. BIBLIOGRAFIA

(1) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo.* Destino argit. Bartzelona 1954 (23, 25, 27, 28, 80.orr.)

(2) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1978 (90, 257, 258, 1006. orr.)

(3) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (138, 738, 739, 747, 748, 766, 767, 789, 791. orr.)

(4) ORTIZ–CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español,* in Folklore y costumbres de España. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931. (429, 431, 433. orr.)

(5) BALEZTENA, INAZIO. "PREMIN DE IRUÑA". *Las ganaderias de Navarra,* in Vida Vasca. 1932 (105. orr.)

(6) CAMPO, LUIS DEL. *Toreros goyescos navarros.* Navarra. Temas de cultura popular. 139. alea. Iruñea 1972 (6, 14-21, 23, 24. orr.)

(7) LOPEZ SANZ, CELIA. *Francisco de Goya,* in La Gran Enciclopedia Vasca. XIV. alea. Bilbo (116,117, 199.orr.)

(8) CASTAN PALOMAR, FERNANDO. *Vida de Francisco de Goya y Lucientes.* Juventud S. A. argit. Bartzelona 1981 (7, 113, 114. orr.)

(9) XX. *Urnieta, Bataiatuen lehen liburua (1681–1870).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1741–VII–1 eta 1751–III–24)

(10) GUIDOL, JOSE. *Goya.* Labor argit. Bartzelona 1974 (9, 42, 44-46. orr.)

(11) SANTAINES CIRES, ANTONIO. *Museos y coleccionismo taurinos,* in Los toros. Cossio. 7. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1984 (997. orr.)

(12) XX. *Diccionario Geográfico–Histórico de España.* Lehen atala. Lehen alea. Real Academia de la Historia. Madril 1802 (153, 154. orr.)

(13) CARO BAROJA, JULIO. *Etnografia histórica de Navarra.* Lehen alea. Aranzadi argit. Iruñea 1971 (142. orr.)

(14) UBIETO ARTETA, ANTONIO. *Cartulario de San Juan de la Peña.* Lehen alea. Valentzia 1962 (101, 194. orr.)

(15) GOÑI, GAZTANBIDE, JOSE. *Historia de los obispos de Pamplona. S. IV–XIII.* Lehen alea. Universidad de Navarra S.A. argit. Iruñea 1979 (651. orr.)

(16) X.X. *Diario de San Sebastian* 1875–XII–16. (2. orr.)

(17) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* 2. alea. Tutera 1914 (293. orr.)

(18) OLIVEROS, MARIA TERESA. *Historia ilustrada de la ciudad de Monzón.* Zaragoza 1974 (215, 217. orr.)

(19) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y toros. siglo XVIII.* La accion social argit. Iruñea 1972 (248, 270, 277, 309, 319, 320, 340, 369. orr.)

(20) B, J. *El otro Martincho,* in Boletin de la Real Soc. Basc. de Amigos del Pais 1947. Donostia (405. orr.)

(21) LARRAMENDI, MANUEL . *Corografia.* Soc. Guip. Edic. y Public. argit. Donostia 1969 (231. orr.)

(22) GARCIA GARRAFFA, A. eta A. *El Solar Vasco Navarro.* 5. alea. 3. argitaraldia. Libreria Internacional argit. Donostia 1967 (94, 95. orr.)

(23) ANASAGASTI, BITORIO."DOCTOR ANAS". *El Chiquito es Grande.* Imprenta alemana argit. 1916 (25, 27, 28. orr.)

(24) XX. *Akta–liburua. 5. espedientea (1727–1732).* Bermeoko udaletxeko artxiboa (76. folioa)

(25) XX. *Udaletxeko kontu–liburua (1694–1750)* .Bermeoko udaletxeko artxiboa. 1560. kutxa (1741, 1744, 1745, 1746 eta 1748. urteak)

(26) XX. *37. zenbakia. Udaletxeko ordainagiri eta kontuak. 1764. urteko ordainagindu eta ordainagiriak.* Bermeoko udaletxeko artxiboa. 968. kutxa.

(27) XX. *Ordain-aginduak eta ordainagiriak. 1770. urtea.* Bermeoko udaletxeko artxiboa. 968. kutxa
(28) X.X. *Tolosa. Hildakoen 7. liburua (1806-1841).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1814-XI-23)
(29) XX. *Los protocolos guipuzcoanos. Reseña e indices.* Gipuzkoako Foru-Aldundia argit. Donostia 1947 (111. orr.)
(30) ERENTXUN, JOAN. *Apellidos blasonados.* Enciclopedia Guipuzcoana argit. 5-6-7. alea. Martxoa 1965. Donostia (81, 229. orr.)
(31) MITXELENA, KOLDO. *Apellidos vascos.* 3. argitaraldia. Txertoa argit. Donostia 1973 (151. orr.)
32) XX. "*Urnieta. Bataiatuen lehen liburua (1681-1760).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1755-XI-11)
(33) XX. *Urnieta. Hildakoen lehen liburua (1819-1862).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1832-I-28)
(34) IZTUETA, JOAN INAZIO. *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo Historia.* Cosas memorables de Guipuzcoa. 7. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1975 (213, 245, 247-250. orr.)
(35) X.X. *Orpo-juntuan saltoka joan den mendean* , in Egin 1987-VIII-24
(36) ARIN DORRONSORO, JOAN. *Ataun. Barrio de Ajaresta o Ajaristi,* in Anuario de Eusko-Folklore 1926 (26, 38.orr.)
(37) ARIN DORRONSORO, JOAN. *El pueblo de Ataun. Barrios y zonas pastoriles.* Anuario de Eusko-Folklore 1927 (4, 23. orr.)
(38) ARRAMENDIA, TOMAS. *Entrega de barreras y puertas de la plaza. Ataun 1730-X-11.* Tolosako artxibo probintziala (1889. paper-sorta)
(39) BAZTERRIKA, JOAN. *Entrega de las Varreras de esta V^{a}. Ataun 1736-X-11.* Tolosako artxibo probintziala (1895. paper- sorta)
(40) BAZTERRIKA, JOAN. *Entrega de las Barreras y puertas de Toriles.... Ataun 1749-VII-21.* Tolosako artxibo probintziala (1908. paper-sorta)
(41) XX. *Ataun. Hildakoen 3. liburua (1746-1818).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1748-VI-22; 1749-IX-10; 1766-XII-29; 1769-II-8;1792-X-8)
(42) XX. *Ataun. Ezkonduen 2. liburua (1641-1756).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1709-XII-22; 1710-I-14; 1720-IV-14; 1721-I-26; 1746-VIII-20)
(43) XX. *Ataun. Bataiatuen 4. liburua (1706-1752).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1708-II-4; 1710-III-7;1710-IX-12; 1710-X-2; 1713-VIII-21;1714-III-21; 1714-X-4; 1716-VII-28; 1722-I-8; 1723-XII-6; 1726-I-30; 1727-IV-26; 1730-IV-5; 1732-III-9; 1734-III-7; 1736-V-12; 1738-VI-10; 1738-XI-29; 1741-VI-18)
(44) ARRAMENDIA, FELIPE. *Nombramiento de Guarda...* eta *Cesion de la mitad del arriendo... Ataun (1693-1720).*Tolosako artxibo probintziala (3.192. paper-sorta, 1708. urtea 107. folioa; 1711. urtea, 229. folioa)
(45) BURINAGA, SILBESTRE. *Almoneda del molino de la Plaza. Ataun (1710-1728).* Tolosako artxibo probintziala (1872. paper-sorta. 1720-I-2; 2. eta 3. folioak)
(46) XX.*Ataun. Hildakoen 2. liburua (1641-1746).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa (1743-V-13; 1705-IX-21; 1719-XI-13; 1731-II-10; 1744-V-11).
(47) BAZTERRIKA, JOAN. *Testamento de Diego de Arcelus Vecino de esta VIlla. Ataun 1766-XII-26.* Tolosako artxibo probintziala (1925. paper-sorta, 162. folioa)
(48) SARASTI, BIZENTE. *Fianza a la ley de Toledo por D^{n}. Diego de Arcelus.... Oiarzun 1800-V-18.* Oñatiko protokolo-artxiboa. (2326. paper-sorta)
(49) ARRAMENDIA, FELIPE. *Carta de pago del importe de los arrendamientos de la casa de Amilleta... Ataun 1708-VIII-27.* Tolosako artxibo probintziala (1880. paper-sorta, 192. folioa)

(50) XX. *Ataun. Bataiatuen 3. liburua (1641–1706).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa.
(51) ARRAMENDIA, FELIPE. *Escritura de arrendamiento de la casa de Amilleta.... Ataun 1713–I–25.* Tolosako artxibo probintziala (1882. paper–sorta)
(52) XX. *Urnieta. Ezkonduen lehen liburua (1681–1834).* Elizabarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa.

(53) ARRAMENDIA, TOMAS. *Carta de pago de todas las rentas vencidas de la casa de Amilleta... Ataun 1725–I–14.* Tolosako artxibo probintziala (1887. paper–sorta)
(54) BAZTERRIKA, JOAN. *Arrendamiento de la Casa de Amilleta... Ataun 1752–II–27.* Tolosako artxibo probintziala (1911. paper–sorta)
(55) BAZTERRIKA, JOAN. *Arrendamiento de la caseria de Amilleta... Ataun 1761–II–22.* Tolosako artxibo probintziala (1920. paper–sorta)
(56) GARCIA DUEÑAS, FELIPE. *Martrincho. Datos para su historia,* in Farasdues 1980. (z/g).

10.- ZEZENAK XIX. MENDEAN : LEHEN HERENA (1801-1833)

XIX. mendean zehar, zezenketaren munduak aldaketa batzuk jasan zituen. Aurreko mendeetan baino bizkorrago jasan ere bere etengabeko bilakabidean. Dena dela, azpimarratzekoa da ganadutegi nafar, aragoar eta errioxarrek mende hartan zezenplazatan izan zuten garrantzia. Lizaso, Diaz, Zalduendo, Gendulain, Bermejo, Perez Laborda, Poyales, Espoz y Mina eta Karrikiri adibidez, nafar-zezenak hazten zituzten ganaduzale bikainak ditugu; mende hartako ganadutegiek osatutako ortzean izar distiratsu inola ere.

Baina Euskal Herriko hegoaldeaz eta nafar-zezenez kanpo, beste arrazako zezenak hazten saiatu ziren euskal deiturazko ganaduzale famatuak ere izan genituen XIX mendean. Hauetako batzuk, Madrileko plazan 1765. urteaz gero (batez ere joan den mendean) aurekeztu zirenak hain zuzen, ondokoak ditugu: Aristizabal, Eizagirre, Etxeberrigarai, Garin, Gabiria, Goizueta, Goienetxe, Ibarra, Lesaka, Martinez Azpilaga, Mihura, Murube, Orobio, Orozko, Otaolaurretxi, Udaeta, Urkola eta Urkixo[1].

Euskal Herriko hirietan, festaburutako zezenetarako ganadua aukeratzen saiatu ohi ziren antolatzaileak. Bost eta sei urte betetako zezenak nahi zituzten plazarako. Hala ere batzuetan ezinbestean lau urtekoak ere onartzeko premia izan zuten. Ez bait da ahaztu behar joan den mendean gerrak izan zirela (Independentziakoa eta bi karlistadak batez ere) eta gosearen eraginez zezen suharrez osatutako taldeak ederki bipiltzen zituztela.

Dena dela zezenak herrietara ganadutegietatik oinez garraiatzen ziren aurreko mendeetan bezalaxe. Festa-eguna baino lehen, plazan korrituko ziren zezenak joaldunez gidaturik herriko atariraino (hiritik kilometro gutxi batzuetaraino) ekartzen zituzten unaiek egun batzuk lehenago. Han egongo ziren jaiegunera arte, eta orduan, askotan egunsentian, zezenplazako kortara eramango zituzten gero hondarrean korritzekotan.

XIX. mendean, aurreko mendeetan bezalaxe, plazatara zezen koldar eta gaitza ugari ateratzen zen[2]. Horregatik, zezenketa higiduraren eta formaren konbinazioz edertasun plastikoa erakusteko baino gehiago, pertsona eta animaliaren arteko burruka zela esan daiteke. Mendea aurrera joan ahala, noizbehinka agertuko da formaren edertasunak lantzen saiatuko den toreatzailea. *Cuchares* eta *Lagartijo*k adibidez bide hori beren mailan landu zutenik izan ere, ez dago ukatzerik.

XIX. mendean leku askotan, herriko plaza karratuak utzi eta propio zezenak jokatzeko biribilak eraiki zituzten; erosoagoak, ikusle gehiagorentzako eserlekuak zituztenak eta zezen koldarren babeserako txokorik gabekoak. Bilbon, Donostian, Iruñean, Gasteizen eta beste zenbait herritan, XIX. mendearen erdialdera egin zituzten *zirku* edo zezenplaza biribilak. Han jokatuko dira harez gero zezenak herriko festetan, agintarien lehendakaritzapean. Iruñean esaterako, XIX. mendean udalgizonak goleta-trajez jantzirik dotore egoten ziren lehendakaritzan. Lehendakariari toriletako giltza urreztatua botatzea zegokion, eta lehendakari erretordea bazegoen, zilarrezko erretiluan eskaintzen zioten giltza [3].

Korrida bakoitzean jokatzen zuten zezen-kopurua ere XIX. mendean zehar jaisten joan zen. Aurreko mendean hamar zezen korritzen zituzten lekuan (Iruñean adibidez) zortzi plazaratzen hasi ziren, eta urteak joan ahala zazpira eta seira murriztu zen kopurua[3].

Zezenketan zeuden ohitura batzuk ere desagertu ziren XIX. mendean; zezenen izterzainak lunerdiz ebakitzea adibidez. XIX. mendean zezenak hiltzeko sistema hau ez zen erabili. Gehienez ere, toreatzaileak zezena ezpataz hil ezin bazuen lehendakariak lunerdia plazara sinbolikoki ateratzea

aginduko zuen, eta ondoren joaldunak plazaratuko ziren zezen bizia ikuilura eramatearren.

Zezen koldarrak zirikatzeko asmoz, zakurrak ere aterarazten zituzten plazara. Ohitura honek segitu zuen XIX. mendean zehar[4], baina azken aldera zezentxakurrak ere desagertu egin ziren plazatatik eta hauen ordez suzko banderilak erabiltzen zituzten.

Toreatzaileei dagokienez, Euskal Herriko plazetan andalusiarrak izango dira estimatuenak. Haiek beren toreatzeko era eta arauak inposatuko dituzte (oinen jokuari baino eskuen eta besoen mugimenduari garrantzi handiagoa emanez), XVIII. mendearen bigarren erdialdean hasitako martxari jarraituz. Joakin Antonio Lapuia toreatzaile azkoiendarra izan zen XIX. mendearen hasieran nafar–erara toreatuz andalusiarrei lehia egin zien bakarra[4].

Korridatarako, toreatzaile famatu bat kontratatu ohi zuten XIX. mendean. Hari ordainduko zitzaion tratuan erabakitakoa, eta hark ekarriko zuen koadrila osoa. Toreatzailea (ezpataria) izango zen zezenketako zuzendari eta arduradun.

Zezenketarako behar ziren erremintak (kapa, zaldi, ezten–haga, banderila eta gainerako tresnak), antolatzaileek ematen zizkieten toreatzaileei. Baina zezena hiltzeko ezpata ez. Hau ezpatariak berak ekarri ohi zuen[3].

XIX. mendean zehar, korridan zezena ondo hiltzeagatik edo beste zenbait lantze ondo burutzeagatik, zezena toreatzaileari erregalatzeko ohitura ere bazegoen. Zezenaren okelak balio zuena ematen zioten toreatzaileari saritzat. Saria irabazi zuenaren frogatzat, zezenaren belarria ematen omen zioten, eta gero toreatzaileak hiltegira joanda harekin eskatzen omen zuen zegokiona[5]. Zezenketaren martxa ere finkatua agertzen zaigu XIX. mendearen hasieratik. Pikatzaileak beren zaldietan plazan zeuden. Lehenbizi zezena pikatu eta kapaz toreatuko (txuliatuko) zuten. Gero banderilak sartu eta muletaz paseren bat edo beste emanez ezpataz hilko zuten.

Has gaitezen ordea gorabehera guzti huek xehetasun handiagoz urtez urte gertatutakoari jarraituz ematen. Mende–hasierako urteari, 1801.ari alegia, ekingo diogu.

Bilboko zezenzaletasunaren berri idazle batek baino gehiagok eman du. XIX. mendearen hasieran, Zamakolak dioenez, Bizkaiko hiriburuan 12.000 pertsona bizi ziren. Alaiak ziren inola ere bilbotar haiek, eta korridaren bat iragartzen zutenean, egun batzuk lehenago aitona zaharrak Gaztelako bidera ateratzen omen ziren bidaiariei zezenez galdezka. Zezenak nolakoak ziren jakin nahi izaten omen zuten; tenteak, adakera onekoak etab. Toreatzaileez ere galdetzen omen zuten; ezten–hagaz zezena gelditzeko gauza ziren, ezpataz lehenbizikoan asmatzen zekiten etab. jakin nahi izaten bait zuten[6].

Mendearen hasiera–hasieran, 1801. urteko udaberrian, Humboldt Euskal Herrian izan zen, eta besteak beste Bilboko berri ere ematen du. Berak dioenez, Bilbon zezenfestak, ibai ondoko *azoka–plazan* ospatzen zituzten. Korridak garestiak zirela eta normalean nobilladak antolatzen omen zituzten eta zezenkorik ez omen zen plazan hiltzen. Durango inguruko baserritar aitona batekin ere mintzatu zen Humboldt jauna, eta harro omen zegoen durangarra zituen idiez. Idiari eskua ipini eta abelgorriak jotzera egiten zuenez gero, hurrengo nobilladan korritzeko egokia izango bait zen[7].

Bilbotarrek ordea, 1801. urtean idiak korritzeko debekua jaso zuten. Probintziako Pereira korrejidoreak debekatu zuen antzina–antzinakoa zen ohitura hura. Bilbotarrak haserretu egin ziren orduan, eta Mariano Jose Urkixo Ibaizabal sindiko jaunak agindu haren agiria eskatu zuen zegokion

lekura jotzearren[8].

Baina Humboldt-ek Hernanin *Azeri-dantza* ikusi ondoren nobillada ere nolakoa zen ezagutu zuen. Gazte batzuek zezenkoari toriletik ateratzeko dei egiten omen zioten, eta beste gazte batzuek ez omen zioten irteten uzten. Toriletik irten ondoren, zezenkoa xaxatu egiten omen zuten. Humboldt-ek, sokamuturra ere ikusi zuen gure artean. Txistularien soinuak alaituta, plazan erabiltzen omen zuten sokako zezena. Jendea kapa, txapela eta zapiz saiatzen omen zen toreatzen. Zezena nekatzen zenean, zakurrak botatzen omen zizkioten. Sokamuturrak arrakasta handia zuen nonbait gure herrietan eta lantegiak utzita zezenetara joateko grina nagusitzen omen zitzaien herritarrei. Humboldt-ek berak ikusi omen zituen 50 edo 100 gizon zezenaren atzetik behin batean.

Gure hizkuntzaz ere arreta handiz arduratu zen hizkuntzalari ezagun hura. Bilbon zegoela iritsi omen zen *Pepe Illo* toreatzaile famatua Madrileko plazan istripuz hil zenaren albistea, eta ezpatari sevillarraren *Tauromakia* liburuari zenbait irazkin egiten dio Humboldt jaunak[7]. Euskal Herrian ere lan egindako *Pepe Illo* toreatzailea, maiatzaren 11n hil zen Madrileko zezenplazan. Jose Romero eta Antonio de los Santos-ekin batera toreatu zuen. Goizeko saioan, zertxobait zauritu zuen toreatzaile sevillarra zezen batek, baina ezer gutxi zenez gero arratsaldeko saiora ere aurkezteari ez zion uko egin. Arratsaldeko zazpigarren zezena, *Barbudo* izenekoa, Peñaranda de Bracamonte-tik Jose Joaquin Rodriguez ganaduzaleak bidalia zen. Urdin eta zilar jantzitako gizarajoa, ezpata sartu zionean harrapatu zuen zezenak. Harrapatu, lurrera bota eta berriro adarkatu eta zintzilikatu. Horrela hila zen Joseph Delgado *Illo* Sevillako toreatzaile ospatsu hura[9].

Josef de la Tixera idazleak ere deskribatu zuen *Illo*ren heriotza hura. Arratsalde hartako zezenak oso gaitzak omen ziren toreatzeko, eta Tixera-k debeku bat gomendatzen du: aurrez toreatua izan den zezena berriz ere plazara ateratzea hain zuzen. Plazan aurrez toreatu gabeko zezenak jokatzearen premia behin eta berriz azpimarratzen du (arrazoi osoz, noski) eta eredu gisa, besteak beste, Gendulain tuterarraren ganadua ipintzen du. Hark izan ere arretaz zaintzen zituen bere abereak, eta beti zezen *garbiak* bidaltzen zizkien toreatzaileei[10].

Euskal Herritik kanpora, XIX. mendeko lehen urtean euskal deiturako toreatzaile batzuk ere ari ziren lanean. Argentinako Buenos Aires-en esaterako, Jose Altolagirrek zezenak pikatzen zituen. Hiruzpalau urtez aritu zen lanbide horretan[1].

Nafar-zezenak ere estimazio handia zuten garai hartan. Zaragozako plazan adibidez, nafar-kastako abereak korritu zituzten 1801. urtean. Horretarako, Ejeako Miguel Murillo ganaduzaleari 28 zezen erosi zizkioten, eta Juan Salvatierrari 4 zezen eta 8 zezenko[11].

Iruñean 1801. urtean, Frantzisko Xabier Gendulain tuterarraren zezenak erosi zituzten sanferminetarako. Baita Milagroko Etxauri jaunaren 6 zezenko ere bakoitzagatik 40 duro ordainduta (240 erreal edo 2.550 erreal *ahul* guztira).

Iruñean bazuten San Fermin patroiaren kapera eraikitzearren dirua biltzeko ohizkanpoko korrida antolatzeko baimena. Baina aurreko urteetakoetan diru gutxi bildu zela eta antolakuntzan zeuden oztopoak medio, 1801.ean ohizkanpoko korridarik ez zen ospatu. Ohizkoa bai ordea, eta Gendulaini bakoitzagatik 67 duro ordaindutako 16 zezenak (1.072 duro edo 11.390 erreal ahul guztira) honela jokatu zituzten:

Uztailaren 6an, astelehenean, bi. Elizako Bezperak bukatu ondoren.

Uztailaren 7an, asteartean, bi. Arratsaldeko lau t'erdietan.

Uztailaren 8an, asteazkenean, bi entzierroaren ondoren eta hamar arratsaldeko korrida

nagusian.
Zezen hauen okela erregalatu egin zuten, ondoko banaketaren arabera:
Uztailaren 6an bat kaputxinoen komentura eta beste bat San Frantzisko komentura
Uztailaren 7an bat Erruki–etxera eta beste bat umezurtz– etxera.
Uztailaren 8an, goizeko *proban* bat gartzelara (eta Garces toreatzaileari dirutan) eta bigarrena kaputxinoei (eta bigarren ezpatariari dirutan)
Uztailaren 8an, arratsaldeko korridan:
Lehenengoa Andres Larrion alkateari
Bigarrena gartzelara
Hirugarrena, Udaleko fielei
Laugarrena, laguntzaileei
Bostgarrena, trinitariei
Seigarrena, Justizi ordezkariei
Zazpigarrena, kaputxinoei
Zortzigarrena, turutariei
Bederatzigarrena, zakurrei
Hamargarrena, *palenque*ko errotariei.

Zezen eta zezenkoen larruak estimatuak ziren garai hartan, eta Iruñeko udalgizonek txanpon batzuk jaso zituzten urte hartakoak salduta. 13 zezen eta 6 zezenkoen larruak hogeina erreal fuertetan saldu ziren eta beste 3 zezenen larrua nahikoa hondatua zegoenez, hamarna erreal fuertetan.

Zezenak toreatzera, Francisco Garces sevillarra ekarri zuten (azken aldiz, gero etxean koleraz hilko zelako) aurreko urteetan bezalaxe. Garces–ek, ordezko ezpataria, lau banderilari eta bi pikatzaile ekarri zituen bere koadrilan. Pikatzaileen zaldiak, Udalak ipini zizkien. Garces–ek eta bere koadrilak, 13.000 erreal fuerte irabazi zituzten, eta horretaz gain beste 80 ere bai: 40 Garces–ek zezen bat saritzat eman ziotelako eta beste 40 ordezko ezpatariak arrazoi berberagatik. Dirudienez ordezko ezpatari hau Agustin Aroca toreatzailea izan zen. Garces–en koadrilakoez gain, Xabier Gereka zarauztarrari eta Joan Andres Orio kalagorritarrari ere utzi zieten toreatzen. Bien artean ontzako urrea (170 erreal) irabazi zuten; erdia bakoitzak. Bi toreatzaile hauek menturaz joan ziren lanera Iruñera.

Uztailaren 8an, goizeko zazpiak eta zortziak bitartean egin zuten iruindarrek entzierroa. Korridan, zezenen batean txotxongiloak atera zituzten. Beste bi zezenek, eserlekuetara salto egin omen zuten, eta han hil behar izan omen zituzten. Ikusle zauriturik ez zen gertatu. Iruindar errotari gazteek bestetik, lantzaz jota hil zuten azken zezena, beste hainbat urtetan bezalaxe.

Zezenfesten antolakuntza, 40.159 erreal eta 23 marai kostatu zitzaien guztira. Sarrera–txartelen bidez 19.004 erreal eta 12 marai bildu zituzten, zezen–larruen bidez 435 erreal eta 22 marai eta zezenkoen okela salduta 1.500 erreal eta 4 marai. Udalak beraz, 19.219 erreal eta 21 maraiko akatsa ordaindu zuen[3].

1801. urteko uztailaren 23an, Landetako Mechin prefektuak zezenak debekatu egin zituen departamentu osoan. Mendi Martzana–n uztailaren 22an militar bat hil egin zen plazara zeramaten zezen batek harrapatuta. Ondorioz, debekuak zera zioen: antolatzaileak hiltzailetzat hartuko zirela, zezenjabeari isuna ipiniko zitzaiola, etab.[12].

1802. urtean, Bilbon zezenak korritu zituzten azoka–plazan. Korritu, ezten–hagaz pikatu eta banderilak ipini bai, baina plazan hil ez[8].

Urte hartan, 1802.ean, argitaratu zen *Diccionario Geografico–Historico de España* idazlana,

eta besteak beste Azpeitiko zezenplazaren (heriko plazaren) xehetasun bat edo beste dakar. Plaza handian, zezenfestak egiten zituztenean, agustindarren eta dominikoen komentuez gain garai bateko San Martin–eko ospitalea zegoen erruki–etxe bihurturik[13]. Arrabalean zegoen plaza hura eta gaur eguneko herriko plaza berbera da.

1802. urtean, Joan Antonio Lizaso Muru ganaduzale tuterarra jadanik ezkondua zegoen Maria Frantziska Irurtia Garaterekin eta bere aitaginarrebaren etxean bizi zen. Geroago, Felipe Perez Laborda ganaduzale tuterarra Lizasoren Barbara Irurtia koinatarekin ezkonduko zen eta biek elkar hartuta (Lizaso eta Perez Laborda) plazarako zezenak haziko zituzten[14].

Baina utz ditzagun geroko kontuak eta gatozen Iruñeko 1802.eko sanfeminetara. Urte hartan, ohizkanpoko korrida ere antolatu zuten San Ferminen kapera eraikitzeko dirua biltzearren.

Xabier Gendulain tutererraren 14 zezen erosi zituzten eta Antonio Perez korellarraren beste hamabi. Horretaz gain, Ramon Lapuia martzillarrari sei zezenko hartu zizkioten. Zezenak hirurogeitamabina duro kostatu zitzaizkien, eta zezenkoak berrogeitaseina duro.

Uztailaren 6an, asteartean, bi zezen plazaratu ziren Elizako Bezperak amaitutakoan.
Uztailaren 7an, asteazkenean, arratsaldeko laurak aldera bi zezen korritu ziren eta gero beste sei zezenko herriko gazteentzat.
Uztailaren 8an, ostegunean, goizeko entzierroaren ondoren bi zezen eta arratsaldeko ohizko korridan beste hamar jokatu ziren.
Uztailaren 9an, ostiralean, arratsaldeko ohizkanpoko korridan hamar zezen hil zituzten.

Zezenak toreatzeko zein kontratatu erabakitzerakoan, buruhausteak izan zituzten iruindarrek. Aurreko urteetan etorri ohi zen Francisco Garces toreatzaile bikaina, hila zen koleraz Sevillan, eta ez zekiten haren ordez zein ekarri. Agustin Aroca ekartzekotan ibili ziren, baina azkenean Juan Nuñez *Sentimientos* kontratatu zuten. Ordezko ezpataria, bi pikatzaile eta lau banderilariz osatutako koadrilarekin etorri zen Madriletik. 13.000 erreal *fuerte* eman zizkioten. Nuñez, ordezko ezpatari eta banderilari baten artean irabazitakoaz gainera, bost zezenen okelaren balioa ere jaso zuten; 200 erreal guztira (40 zezen bakoitzagatik).

Guzti honetaz aparte, ohizkanpoko korridan lan egiteagatik ere kobratu zuen Nuñez ijitoak: 4.000 erreal kontratuaren arabera eta 80 saritzat emandako bi zezenen okelagatik. Urte hartan, suzko banderilak ipini zituen Nuñez–ek jendearen eskariz, nahiz eta zezenak koldarrak izan ez.

Xabier Gereka zarauztarra ere, badirudi Iruñeko Gaztelu–plazan aritu zela lanean urte hartan.

Udalak, errotariek lantzaz jotzeko zezenak bolaztatu egin zituen ohitura zenez. Horretarako Albeniz tornulariak zurezko bolak egin zituen. Hamazortzi zaldi ere ekarri ziren pikatzaileentzat. Toreatzaileei, kapak eta ehun–zerrendak eman zizkieten lanerako[3].

Zaragozan, urriaren 15erako korrida iragarria zuten. Joakin Lapuia azkoiendarra (jadanik Azagran bizi zen), lehen ezpatari gisa joatekoa zen, baina gaixotu egin zen. Pikatzaileak ere ez ziren agertu eta korrida bertan behera utzi beharra egon zen[11].

Garai hartan Akitaniako Landetan, beren toreatzeko era bereziari jarraituz korridak antolatzen zituzten. 1802. urtean ordea, toreatzaileentzat trebetsaun–saria ipini omen zuten[15]. Mechin jaunak aurreko urtean debekatu bazituen ere, 1802. eko ekainaren 3an korridak emateko baldintza eta arauak zehatz–mehatz argitaratu zituen[12].

Hurrengo urtean, 1803.ean, gizon bat nabarmendu omen zen Akizen zezenen toreaketan. Adar artean salto egin omen zuen zezenaren gainetik, eta bere hanka bat zezenaren hanken artera sartuta uzkali[15].

Anasagasti idazleak, 1803. urtean Bilbon Pedro Romero eta Jeronimo Jose Candidok toreatu zutela dio[16], baina gure ustez zerbait ez dago ondo; Pedro Romero 1799.ean erretiratu bait zen. Baliteke urtea gaizki egotea, edo toreatzailea Pedro Romeroren ordez bere anaia Jose Romero izatea.

Eta Nafarroara itzulita, Lizarran urte hartako abuztuaren 27, 28 eta 29an zezenak antolatzea nahi izan zuten Asturiaseko printzearen (gero Fernando VII.a erregea izango zenaren) ezkontza ospatzeko. Udalak San Joaneko plazan korritu nahi izan zituen zezenak, baina San Pedroko parrokia gogor atera zitzaion kontra. Udalak orduan, hilaren 26an arratsaldean bi zezen San Martineko plazan jokatzea proposatu zuen (zein plazatan jokatu bait zen auzia). Parrokiak ezetz zioen berriro. Udalak orduan, hilaren 27an goizeko bederatziak eta hamarrak bitartean korritzea eskaini zuen eta horrela gelditu ziren konforme[17].

Iruñean 1803. urteko sanferminetan ohizkanpoko korridarik ez antolatzea pentsatu zuten. Zezenak, honako egun hauetan jokatuko ziren:

Uztailaren 6an, asteazkenean, bi zezen arratsaldean
Uztailaren 7an, ostegunean, goizean entzierroa egin eta arratsaldean bi zezen eta lau zezenko gazteentzat.
Uztailaren 8an, ostiralean, aurreko egunean bezalaxe.
Uztailaren 9an, larunbatean, goizean bi zezen *probarako* entzierro ondoren eta arratsaldean hamar zezen ohizko korridan.
Uztailaren 10ean, igandean, arratsaldean lau zezenko gaztejendearentzat.

Urte hartan korrida ez zuten San Fermin egunaren biharamunean ospatu ostirala (haratuzte–eguna) zelako.

Behar zituzten 18 zezenak, aurreko urteetan bezalaxe Xabier Gendulain tuterarrak zerbitu zituen, bakoitzagatik 62 duro kobratuta (guztira 11.857 erreal t'erdi).

Zortzi zezenkoak, Ramon Lapuia martzillar ganaduzalearenak izan ziren. Bakoitzagatik 38 duro kobratu zituen (3.230 erreal guztira).

Zezenak toreatzeko Agustin Aroca–rekin tratua eginak zeuden. Baina Asturiaseko printzearen ezkontza zela eta, Madrilen Erret korridak antolatu zituzten, eta Aroca toreatzaileak han derrigor egon beharra zuen. Udalgizonek orduan, botazioz Joakin Lapuia azkoiendarra (Azagran bizi zena) kontratatzea erabaki zuten. Lapuia lehen ezpatari gisa etorriko zen eta bere koadrilan ordezko ezpataria, bi pikatzaile eta lau banderilari ekarriko zituen. Azkoiendarrak, Manuel Alonso *el Castellano* (edo *el Zamorano* deitzen diote bestetan) ekarri zuen ordezko ezpatari. Lapuiak, taldeburu zenez gero, berari eta koadrilari zegokiona kobratu zuen kontratuaren arabera. Pikatzeko zaldiak ezik, koadrilakoei taldeburuak ordaindu zien. Koadrilan Xabier Gereka zarauztarra izatea, gerta zitekeen.

18.000 erreal jaso zituzten kontratuaren aginduz. Gainera Lapuiak lau zezen eta Alonso–k beste lau saritzat irabazi zituzten (340 erreal). Horretaz gain, korrida ona emateagatik beste 340 erreal eman zizkioten Lapuiari.

Igande–arratsaldeko bi zezenko bolaztatu, Frantzisko Orizain eta Migel Iriarte iruindarrek zaldiz pikatu zituzten. 50 erreal *fuerte* eman zizkieten. Larunbateko azken zezena ere bolaztatua atera zen eta lantzaz jota errotariek hil zuten ohi bezala.

Lazaro Garriz sarrailari iruindarrak, banderilak egin zituen (arpoi bakun eta bikoitzekoak) eta pikatzaileen nahiz errotarien ezten–hagak zorroztu zituen. 234 erreal eta 15 marai jaso zituen.

Erretordea ez zen urte hartan sanferminetako korridara joan, bere emaztea gaixotu zelako[3].

Iruindarrek, lehendik ere bazuten zezenplaza biribil berria egiteko asmoa, baina urte hartan, Amarillas–eko markesak (erretordeak), horretarako erregearen baimena zutela adierazi zien. *Taconera*ko lurretan eraiki behar zen ordea, eta lur haiek militarrenak zirenez gero, Gaztelu–plazan jokatu behar izan zituzten beren zezenak beste urte batzuetan[18].

Zaragozako plazan, Antonio Lapuiak toreatu zuen. Gure ustez, nahiz eta liburuetan urte horretan Antonio izen soilez agertu, Joakin Antonio Lapuia azkoiendarra zen toreatzaile hau. Urte hartan Lapuiaren koadrilan, Antonio Herrero Cano eta Pedro Puyana pikatzaileek parte hartu zuten. Izen bereko bi Pedro Puyana (Pujana edo Puxana daudenez gero, ez dakigu Zaragozan azkoiendarrarekin toreatu zuena bietan zein den).

Urte hartan Zaragozara zezenak Petronila Caudevila–k (Ejeako A. Murillo ganaduzalearen alargunak) zerbitu zituen. Baita hurrengo urtean ere[11].

Eta 1804. urteari gagozkiolarik, Bilbon uztailean lau egunez zezenak izan zituzten. Zegozkion baimenak eskuratuta, Pedro Irazagorri jaunak partikular gisa antolatu zituen lau egunetako emanaldiak. Nafarroako ganadutegirik onenetatik 24 zezen ekartzea lortu zuen. Baita Bizkaiko inguruko herrietatik hamar zezenko ere.

Egunero goizean zezen bat eta bi zezenko plazaratu ziren, eta arratsaldean bost zezen eta zezenko bat. Korrida bakoitzean, lau zezen pikatu ziren zaldiz. Zezenak zaldiz pikatu eta banderilaztatu egin zituzten, baina plazan hil ez. Zezenak pikatzeko hamasei zaldi prestatu zituen Irazagorri jaunak. Baita zakurrak ere zezenei botatzearren.

Eserlekuen prezioak, hauek izan ziren: Azoka–plazako arkupetan 12 erreal eserleku bakoitza, toriletan itzalean 10 erreal lehen iladan, 8 bigarrenean eta 7 hirugarrenean, eguzkitan hiribildu aldetik eta zubi–zatian 7 erreal lehen iladan, 6 bigarrenean eta 5 hirugarrenean, etab.

Harez gero hurrengo urteetan gerrak eta gorabeherak medio bilbotarrek ez zuten zezenak ikusteko aukerarik izan[8].

Bizkaian bertan Balmasedan ere 1804.ean ohizko zezenkoak, dantzak eta suak izan zituzten San Roke egunean[19].

Gipuzkoan berriz, Debako auzo zen Arroan (orain Zestoako partekoa da) 1804. urtean egin zituzten zezenentzako torilak 1575 erreal ordainduta[20].

Iruñeko sanferminetan berriz, aldaketak ezarri ziren 1804. urtean. Korridan hamar zezen atera ordez, zortzi bakarrik plazaratuko zituzten. Gainera, entzierro ondoren goizean pikatu, banderilaztatu eta ezpataz hiltzen ziren bi zezenen ordez, zezenkoak aterako zituzten gaztejendearentzat. Aldaketa hauek urte batzuetan iraungo zuten, eta lehen goizean toreatzailerik onenak doan ikusteko aukera

bazegoen, aurrerantzean arratsaldeko korridan sarrera ordainduta ikustea beste erremediorik ez zitzaien gelditu iruindar zezenzaleei.

Honako kartel hau osatu zen 1804. urteko sanferminetarako:
Uztailaren 6an, ostiralean, arratsaldean bi zezen hilko zituzten toreatzaileek.
Uztailaren 7an, larunbatean, arratsaldean lau zezen (bi zaldiz pikatuak) eta bi zezenko.
Uztailaren 8an, igandean, larunbatean bezalaxe.
Uztailaren 9an, astelehenean, goizean *probaren* ordez bi zezenko eta arratsaldean zortzi zezen. Lehen sei zezenak, zaldiz pikatu, banderilaztatu eta ezpataz hilko zituzten toreatzaileek, eta gero, agintariek otordua egin ondoren, beste zezen bati zezentxakurrak botako zitzaizkion eta zortzigarren zezena errotariek hilko zuten lantzaz jota.

Entzierroa, goizetan egingo zen ohi bezala. Ohizkanpoko korridarik ez zen antolatu urte hartan.

Bederatzi zezen, Kaparrosoko Joakin Zalduendo ganaduzaleari erosi zizkioten (dibisa gorriz jokatu ziren) eta beste bederatzi (dibisa berdez plazaratu ziren hauek) eta sei zezenko, Tuterako Xabier Gendulaini aurreko urteetan bezalaxe. Beren taldeko zein zezen bidali, ganaduzaleek erabaki zuten. Zezen bakoitza 62 duro kostatu zen, eta zezenko bakoitza 38.

Zalduendoren zezenak, Mutiloa–Beiti–ko belardian eduki zituzten jaiegunera arte, eta Gendulainenak Eskirotz–eko belardian.

Zezenak toreatzera Joakin Antonio Lapuia azkoiendarra etorri zen taldeburu. Ordezko ezpatari, Mauel Alonso *el Zamorano* ekarri zuen aurreko urtean bezalaxe, eta baita bi pikatzaile eta lau banderilari ere. Agian Xabier Gereka zarauztarra izango zen banderilarietako bat. Hamar mila erreal (mila duro) kobratzeko egin zuen kontratua azkoiendarrak. Baina 280 erreal gehiago ere jaso zituen zazpi zezen sari gisa eman zizkietelako (bi Lapuiari eta bost Alonso–ri, ondo hiltzeagatik). Zezen bakoitzaren okelaren prezioa 20 pezeta zen. Beste zezen bana ere irabazi zituzten Martin Tirapu eta Manuel Erize–k beren ausardiagatik.

Urte hartan Debako Antonio Ituarte menturaz joan zen Iruñera toreatzera. Laurogei erreal *fuerte* eman zizkioten sanfermin haietan.
Zezenetan, hemeretzi zaldi hil ziren, eta horregatik 6.433 erreal ordaindu behar izan zituzten.

Zezen batek, barrera saltatu zuen jendartera plazan, eta soldaduek hantxe bertan hil zuten baionetaz jota. Ez zen zauriturik suertatu[3].

———— o ———— o ————

1805. urtearen hasieran, otsailaren 10ean, Espainiako Karlos IV.a erregeak hiltzeko zezen eta zezenkoez festak egitea erabat debekatu zuen Aranjuez–en sinatutako agiri baten bidez. Zezenfesta horietatik, kalte moral eta politikoak sortzen omen ziren eta nekazaritza nahiz abelazkuntzaren garapenerako oztopo omen ziren[21].

Beste leku askotan bezalaxe Bilbon ez zuten begi onez ikusi debeku hura, baina erregearen zedulak zioena bete egin zen[8]. Gipuzkoako korrejidoreak ere zezenfesta guztiak debekatu nahi izan zituen, baina azpeitiarrek Madrileko Gortean beren kontsultak egin zituzten eta ondorioz Montazgo–ko kontearen baimena lortu zuten zezenkoekin hiru korrida antolatzeko. Zezenkoak ez ziren plazan hilko eta ezta sokari lotuta korrituko ere.

Azpeitiarrek gonbitea pasa zioten korrejidoreari festetara etor zedin eta Probintziako agintari hark ezin etorria adierazi zien. Baina San Inazio eguneko gauean, suak egin eta bi larrabehi plazara ateratzera zihoazenean, korrejidorea soldadu batzuekin agertu zen debekatzera. Istiluak izan ziren jendeak larrabehiak atera zitzaten eskatzen zuelako. Atera zituzten azkenean eta horrenbestez amaitu ziren urte hartako saninaziotako zalapartak[22].

Iruñean ere ez zuten batere gogo onez hartu erregearen debekua. Nafarroan zezenfestak kentzea foruen kontrakoa zela zioten, eta saiatu ziren erretordearengandik nahiz Madrileko Gortetik baimena lortzen; baina alferrik.

Larrotxapea-ko Arraska-plazan zezenkoak korritu zituzten orduan proba gisa, agintariek debekua noraino betetzeko asmotan zeuden ikustearren. Mehatxuak berehala etorri ziren eta hiriko zirujauentzako agindu zorrotzak ere bai, zezenetan zauritutakoen berri justizigizonei eman ziezaieten.

Azkenean, Gaztelako Kontseiluko Gobernadoreak, San Fermin-en irudia kapera berrian jartzea ospatzeko hiru nobillada antolatzeko baimena eman zien. Zezenik ordea, ez zegoen jokatzerik; ezta sokari lotuta ere.

Baimena uztailaren hasieran heldu zenez gero, hiru nobilladak uztailaren 15, 16 eta 17an jokatzea pentsatu zuten. 24 zezenko erosi zizkieten horretarako (8 nobillada bakoitzerako) Joakin Zalduendo kaparrosoarrari eta Antonio Ibar-Navarro arnedoarrari; 12 bakoitzari. Zezenko bakoitza 54 duro kostatu zen.

Aurrez, apirilaren 18an eta 25ean Xabier Gendulain tuterarraren semeak (Xabier zen semea ere) Iruñeko udaletxera idatzi zuen, bere aita hil egin zela esanez eta 135 zezen (gehienak bost urtekoak) zituela adieraziz.

Ez zizkioten ordea Gendulaini zezenak erosi urte hartan. Zezenkoak berriz, plazan korritu ondoren hamabi Martzillako Ramon Lapuia ganaduzaleari saldu zizkioten, eta beste hamabi Larrotxapeako hiltegira eramanda hil zituzten okela eta larrua saltzekotan.

Zezenkoak pikatu eta toreatzeko ardura, Joakin Antonio Lapuia toreatzaileari eman zioten. Hark, berehala pasa zuen Kalagorri, Deba, Zarautz eta beste zenbait lekutara deia banderilariak biltzeko asmoz.

Badirudi pikatzailerik ez zela Iruñera urte hartan etorri. Izan ere ez dago ordainketetan haien arrastorik. Joakin Antonio Lapuia azkoiendarrak, 3160 erreal (*de vellon*) kobratu zituen eta lan egin zuten bost banderilariek 6.000 erreal. Sei banderilariak hauek izan ziren: Joan Andres Orio (Kalagorrikoa), Joan Martin Gereka eta Xabier Gereka anaiak (zarauztarrak, Joan Martinek bakarrik zekien sinatzen),Agustin Arruti eta Manuel Abalos. Suzko banderilak ere sartu zituzten urte hartan Gaztelu-plazan.

1806. urtean, Asturiaseko printzearen Maria Antonioa emaztea hil egin zen maiatzaren 21ean, eta Karlos IV.a erreageak sei hilabeterako lutua ezarri zuen. Lutuak eta aurreko urteko debekuak medio, iruindarrak zezenik gabe gelditu ziren 1806. urteko sanferminetan[3].

Urte hartan bertan Tuteran Lorenzo Perez Laborda hil zen; gero famatu izango zen Felipe Perez Laborda ganaduzalearen aita[14].

Bizkaiko Portugaleten berriz, pozik zeuden erregeak Armadako jeneralordeko Justo Salcedo Arauco jauna izendatu zuelako. Salcedo jauna, Portugaleteko semea zen; bertan bizi zena. Horregatik, udaletxean bildu ziren herriko agintariak irailaren 12an, eta hiru egunetarako zezenfestak antolatu zituzten. Nafarroako eta herri inguruko (*del Payés* dio paperak, baina *del Pays* beharko du izan) zezenkoak jokatu ziren goiz eta arratsalde. Toreatzaileek egin zuten plazako lana, baina xexenak pikatu eta hil gabe, debekatua zegoelako[23].

Hurrengo urtean, 1807.ean, antzeko zezenfestak antolatu ziren Eibarren. Ekainaren 21, 22, 23 eta 24ean arratsaldetan bi idi jokatu zituzten inguruko toreatzaileek; lanbidez toreatzaile zirenek hain zuzen[24].

Ez dakigu Tolosan urte hartan zezenik plazan korritu zuten ala ez. Baina Plaza Berriko toril–etxean Marrazketa–Akademia ipini zutela bai; Real Sociedad Vascongada–ren eraginez hain zuzen[25].

Akitaniako Landetan, zezenfestak ohi bezela ospatu ziren. Akizen, abuztuaren 3an adibidez, bat izan zuten. Zezenak bertako erara toreatu zituzten. Charles Kroumir–ek gainera zezen gainetik salto egin zuen airean buelta emanez[26].

Urte hartan bertan, Vargas Ponce idazleak (zezenfesten aurkakoa bera), Tuterako berri interesgarriak adierazi zituen. Hark dioenez, Tuterako korrida–egunetan goizean fraide kaputxinoa eramaten zuten zezenak konjuratzera, gero arratsaldean *onak* atera zitezen[27].

Iruñean sanferminetan, Gaztelu–plazan uztailaren zortzian zortzi zezenko bolaztatu jokatzea besterik ez zuten egin debekuak medio. Zezenkoak Joakin Zalduendo ganaduzale kaparrosoarrari erosi zizkioten, bakoitzagatik 42 duro ordainduta. Lanbidez toreatzaile zenik ez zuten urte hartan Iruñera ekarri. Sanferminetan Udalak egindako gastuak beraz, oso txikiak izan ziren[3].

1808. urtean, gerra altxa zen eta Napoleonen tropak Espainiara sartu ziren. Tuteran, urte hartan nobillada antolatu zuten Castaños jeneralaren etorrera ospatzekotan[28].

Sasoi txarra izan zen hura inola ere zezenzale eta ganaduzaleentzat. Debekuak batetik eta gerra bestetik, aukera gutxi zuten plazarako zezenak behar bezala hazteko. Agian giro hark izango zuen eraginik Lizaso eta Gendulain Tuterako ganaduzaleek zuten elkartea hausten[14].

Iruñean, ez zen sanferminetan zezenfestarik antolatu 1811. urterarte gerra medio[3].

Napoleonek deituta, erregearen seme zen Karlos Maria Isidro de Borboni Donostiatik pasatzea egokitu zitzaion Baiona bidean. Donostiarrek orduan, zezensuskoa atera zuten kalera festa–giroan[29].

Bonaparteren soldaduak Hego Euskal Herrira sartu zirenean, Gipuzkoako Soraluzen zeuden arma–fabrikak kontrolatzeko helburua zuten. Inbasioak zirela eta, herritarrak zezenfestarik gabe gelditu ziren eta hurrengo urteetan, gehienez ere sokamuturra korrituko zuten kaleetan zehar eta plazan[30].

Frantziako armadara, 1809. urtean jatorri poloniarra zuen Luis Mateo Dembowski baroia sartu zen. Jeneral hark Euskal Herrian ikusi zituen gauzez idatzi zuen eta Gipuzkoako Lezo herriari

buruz zioenez, jendea oso zezenzalea zen. Herriko patroiaren omenez antolatutako zezenfestetara gainera, urrutiko jendea ere etortzen omen zen [31].

———— o ———— o ————

1810. urtean, Donostia tropa frantziarrek hartua zeukaten eta Ama Birjina abuztukoaren egunean betetzen zituen urteak Napoleon Bonapartek hain zuzen. Guzti hori ospatzeko asmoz, goizean zezenkoak jokatu ziren plazan eta gauean suak ikusi ahal izan zituzten harresietan [29].

Dena den, urte hartan gerraren ondorioz Donostiako Udalak Plaza Berrian (oraingo Konstituzio–plazan) zituen etxeak saldu beharra izan zuen. Baina nahiz eta etxeak saldu, eskubide batzuk beretzat gorde zituen: arkupeak eta balkoiak erabiltzeko eskubidea adibidez, plazan korrida eta beste ikuskizunak zirenean[32].

1810. urtean, Napoleon Maria Luisa enperatrizarekin apirilaren 23an ezkondu zenean, Baionan zezenfestak antolatu zituzten, *Espainia*ko toreatzaileak ekarrita[4].

Gerrak ordea, gastu handiak sortzen zituen, eta soldaduek arma eta janariz hornitu behar ziren. Horretarako, behi, zezen, zezenko, etab. zegoen lekutik hartzen zuten. Amurrio–ko Baranbio auzoan dagoen Garraztatxu–ko santutegitik esaterako, zazpi zezenko eta lau behi hartu zituzten 1811. urtean[33].

Tuterako ganaduzaleak ere armadarentzako haragi–tratuan ikusten ditugu urte hartan. Martin Azkarateren adierazpen batek behintzat (Perez Laborda tuterar ganaduzalearen bazkide zen), zera dio: *tropa okelaz hornitzen zuela eta haragia Frantziara bidaltzen zuela*[14].

Iruñean, 1811. urteko martxoaren 20an Napoleon eta Maria Luisaren semea (*Erromako erregea*) jaio zela eta, zezenak antolatu ziren gertakizuna ospatzeko. Aurrez esan beharra dago Jose Bonaparte erregeak (Espainiakoak) 1805.ean Karlos IV.ak Godoy–ren zeharkako eraginez argitaratutako zezenfestei buruzko debekua indarrik gabe utzia zuela. Horretaz gain bere menpekoen leialtasuna bereganatzeko edo, zezenfestak antolatzeko erraztasunak eman ohi zituen Jose Bonaparte erregeak.

Iruñean tropa frantsesak zeudenez gero, apirilaren 15 eta 16rako nobilladak prestatzea erabaki zuten. Horretarako Joakin Antonio Lapuia toreatzaileari nahiz Zarautz eta inguruko banderilariei dei egin zieten.

Urte hartako nobilladengatik, Udalak edo frantziarrek 2.975 erreal eta 23 marai gastatu zituzten. Badirudi, Lapuia taldeburuaren aginduetara Joan Andres Orio, Joan Martin Gereka, Xabier Gereka, Agustin Arruti eta Manuel Abalos banderilariek lan egin zutela.

Zezenkoak, Ejeako Jose Murillo ganaduzaleari erosi zizkioten; 12, berrogeina duro ordainduta (2383 erreal eta 9 marai guztira)[3].

Nobillada haietan bestetik, oso pasadizo xelebrea gertatu zen. Frantziarrek *Turripallas* izeneko nafar gerrillero bat preso zeukaten; preso, bere heriotz zigor eta guzti Espoz y Minaren Nafarroako Dibisioan ibiltzeagatik. Napoleonen semea jaio zelako ordea, tratu bat proposatu zioten: nobilladatan pikatzaile ateratzen bazen, bizia barkatuko zioten. Kinka hartan berehala eman omen zuen baiezkoa *Turripallas*ek. Plazan zaldi gainetik erorita ibili omen zen, zezenak pikatzen ez zekielako, baina estualdi hartatik bizirik ateratzea lortu zuen. Gero etxera zihoala ordea, zaldia izutu

egin omen zitzaion, eta zuhaitz bat jo ondoren lurrera botata, erdi hilik gelditu omen zen *Turripallas* gizajoa[34].

1812. urtean, artean gerra zegoela, zezenak batez ere soldaduak mantentzeko izaten ziren eta ez plazan jokatzeko. Horregatik zuten garrantzia ganaduzaleek orduan; miseria eta gosea nagusi ziren gerratean. Usurbileko mendietan adibidez, larrabehiak ugari omen ziren, eta herrian 240 behi eta 38 idi ba omen zituzten[35].

Badirudi Tuteran Xabier Gendulain eta Joan Antonio Lizaso ganaduzaleek elkarrekin osaturik zuten sozietateari amaiera eman ziotela. Perez Laborda eta konpainiaren sozietateak berriz, 11.106 erreal xehe zituen urte hartan[14].

Frantziarrek beren tropentzako janaria behar zutenean, herrietako behiak eta gainerako ganaduak berentzat hartzen zituzten. Zaragozako probintziako Ejeara ere egin zuten behi-eskea gerrate hartan, baina herritarrek ukatu egin zizkieten. Frantziarrek tropak bidali zituzten orduan Ejeara, eta herrira sartu zirenean, hogeitamabi zezen suhar bota zizkieten kaletan zehar bertakoek soldaduei. Asmatzekoa da han sortu zen zalaparta[9].

Ataunen, frantziarrek 1813.eko ekainean Conpin jeneralaren agindupean sartu zirenean, 315 ardi, 18 abelgorri, etab. eraman zituzten[36].



10.1. irudia. Donostia 1813.ean, erre baino lehen.

1813. urtea, zorigaiztokoa izan zen donostiarrentzat. Hiria ia erabat erre egin bait zitzaien abuztuaren 31n. Sute hartan, Plaza Berriko (zezenplazako) hogeitabost etxeak suntsiturik gelditu ziren. Udaletxearen fatxada bera ere, zimendutaraino eraitsia gelditu zen.

Hondamenaren ondoren, plazako etxejabe askok beren orubeak saldu egin zituzten erretako etxeek Udalarekiko zituzten loturak kontutan hartu gabe (plazako ikuskizunetan Udalak zituen balkoietarako eskubideak etab.)

Etxe berriak egiterakoan ordea, (urte batzuk geroago, 1817. urtean) Udalak bere eskubideak eskatu zizkien etxejabe berriei, eta arazo hura konpontzearren korrejidorearekin bilera egin zuten. Han erabaki zenez, hiltzeko zezenak zeudenean Udalak bere gain izango zituen balkoiak, eta etxejabeak, Udalari gainerako ikusleek bezalaxe sarrera ordainduta, leiho bat edo balkoierdi bat (zinegotzia bazen bi leiho edo balkoi osoa) beretzat gordetzeko aukera izango zuen. Udalak ordea, etxe guztietan, lehen solairuko balkoiei burdinazko baranda berak ipiniko zien[32].

1813. urteko azaroaren hasieran, Frantziako tropak bota egin zituzten Iruñetik. Hura ospatzeko, Iruñean ezezik Tuteran ere antolatu zuten nobillada bat[28]. Azaroaren 15ean berriz, Zalduendo kaparrosoarren eta Perez Laborda tuterarraren zezenkoak jokatu ziren Gaztelu-plazan. 8.000 erreal kostatu zen ganadua. Zezenko batek, nahiz eta baionetakada izan, ihes egin zien.

Perez Laborda tuterarrak, ordurako beste hiru zezenko bidaliak zituen Naiarara, baina Fausto Pujadas-en eraginez, ez ziren hango plazan jokatu; Urantziakoan baizik, irendu ondoren[14].

Iruñean ordea, zezenkoak jokatzeaz gain erraldoi bat dantzan ere ibili zen kalean. Zurgin iruindar bat katedraleko erraldoi bat hartu eta berarekin dantzan atera bait zen kalera. 1780. urteaz gero geldirik zeuden erraldoiak orduan hasi ziren beren hautsak astintzen. Hurrengo urtean ere kaleratu bait zituzten sanferminetan[37].

Bestetik, Landetako Coudures herrian jaio zen 1813.ean Bernard Lalanne; *Jean Chicoy* izenez ezaguna izango zen toreatzailea[38]. Landetako erara toreatzen zuen.

1814. urteko hasieran, donostiarrek herri berria egiteko erabakia hartua zuten Zubietan egindako batzarrean, eta ihauterietarako kale bat garbitua zegoen eta harriztatzen ari ziren[39]. Donostiarrak orduan, udaletxera joan zitzaizkion zezen-eske Jose Joakin Mitxelena alkateari. Alkateak esan zienez, hondamen handia jasan berria zuten eta herria berriz eraikitzeko zina eginak zeuden. Hobe zen ordea alai berreraikitzea, eta horregatik, Oiartzunetik zezen zahar bat ekarriko zien.

Zezen oiartzuar hura sokari lotuta erabili zuten *Iriarena* doinua danbolindariak jotzen zuelarik.

Iturbe zinegotziak orduan, Udalak lutuak gorde behar zirela erabaki zuenez gero, sokamuturra eta danbolindaria erretirarazi egin zituen[40]. Jendea noski, Mitxelenaren alde atera zen, eta lutuek ez zuten luze iraun. Maiatzaren 29an izan ere, erregearen onomastika zelako bi idi korritu zituzten[39].

Azpeitian, garai hartako joerari jarraituz, inguruko zezenkoak jokatu ziren 1814.eko saninaziotan. Jose Antonio Uitzi-ren zezenko batek ordea, abuztuaren batean barrera gainetik salto egin eta zentinela batek baionetaz jo behar izan zuen[22].

1814. urtean Bilbon ere antolatu zituzten zezenfestak. Ekainean, *zortzihurrena* ospatzeko hamaika zezenko jokatu ziren. Dionisio Salces-ek 110 erreal jaso zituen zezenko hauek korritzeagatik ekainaren 21ean. Sakramentu txit Santuaren Elizaren festetan atera ziren zezenko hauek Bilbon.

Gero, abuztuan, korridak antolatu zituzten. Bost egunetan izan ziren korridak eta arratsaldean berandu bukatu ohi ziren Azoka-plazan.

Urte hartako gastuetan, Bilbon toreatu zutenen izenak agertzen dira.

Hilaren 18an Alonso *Gaztelaua* (*el Castellano*) ezpatariari bigarren zezenagatik nahiz brindisagatik 640 erreal eman zizkioten eta beste 15 erreal kostatu zen bota zitzaion poltsatxoa. *El Pocho* izeneko toreatzaileak, 320 erreal jaso zituen abuztuaren 21eko zezen bat pikatu eta hiltzeagatik. Baden ezpatariordeak berriz, arratsalde berean 160 erreal irabazi zituen zezen bategatik. Alonso *Gaztelauari* hiru zezen ere eman zizkioten saritzat (480 erreal); bat abuztuaren 22an eta bi 23an[14].

Manuel Alonso ezpataria, aurrez ere ezaguna zen Iruñean. *El Zamorano* izenez ere ezagutzen zuten han. *El Pocho* berriz, Alonso Alarcon zen izenez eta 1786. urteaz gero Gaztelu–plazan ezagutzen zuten[14]. Baden berriz, Jose Antonio Baden madrildarra izango zen; Lorenzo Baden–en semea[41]. Urte batzuk geroago (1824ean), Jose Antonio Baden hau kontratatu nahian ibili ziren iruindarrak sanferminetarako[3].

Tuteran, 1814. urtean, herriko festetako zezenak antolatzeko sistema berria estreinatu zuten. Partikular batek hartuko zuen zezenfesten ardura Udalarekin tratua eginda. Zezenak, herriko plaza karratuan (gero Foru–plaza deituko ziotenean) korritzen ziren, eta etxejabe, Udal eta arduradunaren artean konpontzen ziren balkoitako eta eserlekuetako prezioak erabakitzerakoan[42].

Tuteran bi egunez izaten ziren korridak festetan. Santa Ana egunean, bi zezen toreatu, banderilaztatu eta hiltzen zituzten. Gero zezenkoak plazaratzen ziren. Biharamunean, goizean bi zezen aurreko egunean bezalaxe korritzen zituzten, eta gero arratsaldean zortzi: sei pikatzaile eta guzti eta azken biak pikatu gabe.

Han toreatutako zezenetan, *pekaduna* famatu bihurtu zen plazako zaldi guztiak hil zituelako. Gehien etortzen ziren pikatzaileak *Carton* eta *Corchado* izanik, lehenengoak behin zezen bat ezpataz zaldi gainetik hil zuen. Zezena bapatean Ospitalearen aurrean erori zen[28].

Iruñean, ez zuten zezenfestarik antolatu 1814.ean. Badirudi Udala diruz ez zebilela batere ondo[3]. Madrilen ordea, 1814. urtean zortzi korrida jokatu ziren erregeak emandako baimenari esker, eta azaroaren 7an, Frantzisko Xabier Gendulain tuterarraren bi zezen plazaratu zituzten dibisa berde eta guzti. Manuel Alonso *Gaztelaua* eta sendatzen bazen Juan Nuñez *Sentimientos* ziren toreatzekoak. Bestela, *Sentimientos*en ordez Francisco Herrero *el Bolero*k hartuko zuen parte[43].

———— o ———— o ————

1.815. urteko urtarrilean, Donostian gerra–eskubideen administrazioari enplegatuek amaiera eman ziotelako, sokamuturra izan zen Plaza Berrian, artean ere etxe berririk bertan egin gabe zegoelarik[39].

Eibarren herria hornitzen zutenek ekartzen zituzten sokamuturrerako idiak ekainaren 23, 24 eta 25ean, San Andres, San Martin eta San Blas egunean eta ihauteri egunetan korritzeko[1].

Lekeition ere izaten zen sokamuturra. Han larrabehia erabiltzen zuten kalez kale sokaren muturrean. Gauez ere bai, 1815. urteko agiri batek dioenez[44].

1815. urtean Lizarran, Udalak eta San Pedro–ko parrokiak beste eztabaida bat izan zuten zezenko bolaztatuak herriko zein plazatan jokatu behar ziren erabakitzerakoan. Udalak San Joaneko

plazan nahi zituen zezenkoak, eta parrokiak San Martineko plazan[17].

Gasteizen, urte hartantxe zezenplaza berria egiten hasi ziren[14]. Tuteran berriz, herriko plazan antolatzen ziren korrida, nobillada, komeria eta beste ikuskizunetara, Udalak katedraleko elizgizonak gonbidatzen zituen. 1815. urtean ordea, teatrotara ez joatea erabaki zuten kalonjeek. Zezenfestetara bai. Zezenetara joaten segituko zuten; ospitaleko balkoitik ikusteko ohiturari eutsiko zioten[42].

Iruñean 1815. urtean, Gaztelu–plaza ixteko deia egin zuten. Lehengo eserlekuetarako zur asko gainera usteldurik zegoen, eta zilarrezko 5.000 erreal eta bi marai eskaintzen ziren horretarako.

Sanferminetarako, nobillada *bi edo gehiago* iragarri zituzten. Horretarako, Jose Argiñaniz bidali zuten 12 zezenkoren bila. Bonaparte–k Waterloo–n jasan zuen jipoia ere ospatu zen Iruñean sanfermin haietan. 10 zezenko, Fausto Joakin Zalduendo kaparrosoarrari hartu zizkioten ehun eta hamarna duro ordainduta (guztira 11.087 erreal eta 18 marai). Beste bi idi ere erosi zizkioten Babil Antonio Berrueta tafallarrari ere 3.348 erreal ordainduta. Uztailaren 8an eta 9an, zezenko bolaztatuak pikatu ere egin zituzten[3].

Kaparrosoko Joakin Zalduendok, 14 zezen saldu zituen 1815.ean Zaragozako plazara[11].

1816. urtean Bermeoko plazan (San Frantzisko edo Portaleko plazan) Debako Antonio Ituarte *Zapataritxoak* (*Zapaterillo*) toreatu zituen zezenak, Anasagasti doktoreak dioenez. Ondo toreatu zuelako, herrian koplak atera omen zizkioten, euskara eta erdara nahastuta zituztelarik. Batek honela omen zioen:

Ituarte
es torero
de mas valor y mas arte
que Romero...[16]

Urte hartantxe, Frai Bartolome Santa Teresa–k bere *Euscal– Errijetaco olgueeta...* izeneko liburua argitaratu zuen Iruñean, eta bertan, besteak beste *gueure Errijeetaco Cecenai, dantzai ta comedijai* buruz Elizako Gurasoek ziotena jakin erazi zigun : *Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondaquinac, Idolatrijac, Jaungoico–ucazalliac* zirela alegia[45]. Hala eta guztiz ere, gure herrietako jendea pozik joan zen zezenfestetara aspaldiko partez. Izan ere gerra eta debekuak medio leku askotan itxurazko zezenketarik ikusi gabe zeuden urte askotan.

1816. urtean, Iruñeko udalgizonek Fernando VII.a erregeari korridak (ohizkoa eta ohiz-kanpokoa) antolatzeko baimena eskatu zioten martxoaren 8an. Bilbo, Zaragoza, eta abarretan hiltzeko zezenak jadanik jokatuak bait zituzten.

Erregeak ekainaren 24ean eman zuen baiezkoa, baina iruindarrek erabaki hori aurrez espero zuten. Izan ere baldintza zehatz batzuen arabera Joan Lorenzo Mutiloa lizarratarraren esku utzi bait zuten aurrez korridak antolatzeko aukera.

Istilu batzuk sortu zitzaizkien *asentista* lizarratarrak sarreren prezioak igo, hildako zezenen okela doan eman ez eta beste zenbait arazogatik.

Mutilva (Mutiloa) jauna eta Udaleko ordezkari bat Ebro ibai ertzetako ganadutegiak ikustera joan ziren. Hona hemen nolako zezen–taldeak aurkitu zituzten:

–Funes-eko markesak bost urteko bat eta lau urteko sei zituen; lau oso itxura onekoak, baina argalak.

–Kaskante–ko Jimenez jaunarenak lau urteko hamabi ziren: lau itxuraz egokiak, baina argalak.
–Zalduendo jaunak, lau urteko sei zituen: satai onekoak eta haragi pixka bat zutenak.
–Ibarnavarro jaunak lau urteko hogeitabi zituen bereak: sei handiak baina denak ere oso melarrak.
–Gendulain jauna lau urteko berrogeitamaseiren jabe zen: hogei itxura onekoak eta haragiz nahikoa ondo zeudenak; gainerakoak oso argalak.
–Ejea–ko Murillo jaunak, lau urteko berrogeitabi zezen zituen: oso satai onekoak eta guriak.

Murillo jaunari 24 zezen aukeratu zizkioten bi korridetarako eta egun soltetako zezenetarako. Lehen hamabiei ehun eta hogeitamarna duro eragin zieten. Beste hamabiei ere prezio berbera ezarri zioten, baina beste zezen hoberik aurkitzen ez bazuten erosiko zituzten.

Zezenen aukeraketan, Zalduendo ganaduzalearen Manuel Rodrigo unanmaizterrak (oso aditua zen) parte hartu zuen. Hona hemen Murillo jaunaren zezenen izen eta xehetasunak:

1. *Cerrajero*, aurrera–adarduna, zerrenda horiska bizkarrean.
2. *Sargento*, beltza, adartentea.
3. *Escribano*, gorriluna, adartentea.
4. *Rodete*, gorrilun argia, adarmotza.
5. *Alpargatero*, beltz fina, adarluzea, satai onekoa.
6. *Trompetero*, satai onekoa.
7. *Molinero*, bastatua, adartentea.
8. *Bandolero*, beltza, satai onekoa.
9. *Comandante*, gorrilun argia, satai onekoa.
10. *Capuchino*, beltz fina, satai onekoa.
11. *Tabernero*, beltza, satai onekoa.
12. *Rompe Galas*, horiska, adarluzea, satai onekoa.

Bigarren zezen–taldea:

1. *Mercader*, beltz fina, adarluzea.
2. *Carbonero*, beltz fina, adartentea.
3. *Valenciano*, beltza, zerrenda horiska bizkarrean, satai onekoa.
4. *Volante*, beltz fina, ongi armatua.
5. *Carretero*,beltz fina, satai onekoa, zerrenda zuria goian.
6. *Gaitero*, gorrilun argia, adarluzea, satai onekoa.
7. *Soliman*, gorriluna, ongi armatua.
8. *Jabali*, gorrilun argia, adartentea.
9. *Jabonero*, gorrilun argia, buztan horiska, adartentea.
10. *Comediante*, beltza, adarluzea, hankapunta beltzak.
11. *Chocolatero*, iluna adartentea.
12. *Moncayo*, beltza, adartentea.

Bigarren zezen–taldea ere azkenean Iruñera joan zen. Zezen txarrak ehun eta hogeina durotan ordaindu ziren.

Zezen hauek toreatzeko, Joakin Antonio Lapuia ez zezatela kontratatu agindu zuen Udalak. Badirudi zahartua zegoela jadanik (44 urte).

Asentista lizarratarrak Madrilen Francisco Hernandez *el Bolero* kontratatu zuen. Toreatzaile

honek, ordezko ezpataria, bi pikatzaile eta lau banderilari ekarriko zituen. Udalak ordea, ordezko ezpatari kaskarra zetorrela eta, *Sentimientos* toreatzaileak haren lekua bete zezan presio egin zuen.

Uztailaren 8an, astelehenean, goizean bi zezen *probatu* ziren eta arratsaldeko korridan zortzi zezen plazaratu zituzten. Goizekoak bezalaxe zaldiz pikatu, banderilak ipini, toreatu eta ezpataz hil ziren. Txotxongilo, zezentxakur eta errotariek lantzaz jotako zezenik ez zen egon. Murilloren zezenak txarrak suertatu ziren[3].

10.2. irudia. Gaztelu–plazako eserlekuak 1816an

Iruñeak, 15.000 biztanle zituen 1816.ean, eta uztailaren 6tik 9rarte ospatu zituzten sanferminak[37].

Urte hartantxe, Bilbora Frantzisko Antonio Gardoki kardinale jauna etorri zen, eta bere omenez zezenkoak jokatu zituzten. Zezenkoak Zeberiotik eta Laudiotik ekarri ziren, baina horretaz gain idiak ere bai Kortezubi, Etxebarri, Orozko, eta Ugaotik. Suzko banderilak ere izan ziren[14].

Madrilen, irailaren 9an, Antonio Ibarnavarro arnedoarraren zezenak korritu zituzten lehen aldiz. Dibisa larua eraman zuten lepagainean[9].

Zaragozan berriz, Ejeako Manuel Murilloren ganaduaz gain Xabier Jimenez Tejada funestarraren 14 zezen ere plazaratu ziren.

1817. urtean berriz, Ejeako Mariano Ventura, Manuel Murillo eta Jose Murillo *Lizentziatua*, eta Frantzisko Uria nahiz Ramon Llera–ren zezen eta zezenkoak[11].

Donostian, Plaza Berria (erre zena) egiten hasiak ziren jadanik 1817. urtean. Etxe berriak egiteko zimendutarako harriak ere urte hartantxe ipini zituzten, Bizente Etxegarai bertso–jartzaileak adierazi zuenez[46]. Zezenplaza (herriko plaza) eraikitzen zihardutenberaz donostiarrak urte hartan.

Iruñean 1817. urteko sanferminak Udalak berak antolatu zituen. Esteban Legaria arduratu zen Gaztelu–plazako itxitura eta eserlekuak ipintzeaz. Ganadutegiak aztertzera berriz, Jose Argiñaniz jauna bidali zuten eta hona hemen bere txostenak (maiatzaren 16koak) zioena:

– Frantzisko Xabier Gendulain tuterarrak, lau urteko 55 zezen ditu. 20 Madrilera salduak ditu ehun eta berrogeina dutotan. Gainerakoengatik ehun eta berrogeitamarna duro eskatzen ditu. Zezen txiki eta argalak ditu negu eta udaberri txarra izan delako.

– Jose Murillo, Ejeakoak, lau urteko 40 zezen ditu. Txikiak eta nahikoa argalak. Bakoitzagatik 130 duro eskatzen ditu.

– Mariano Salvatierrak (Ejeakoa hau ere), adin bereko bederatzi ditu, baina ez dira itxurakoak.

– Fausto Zalduendo Kaparrosokoak, bost urteko 31 zezen ditu, eta gainerakoak lau urtekoak eta guriak. 130 duro eskatzen ditu bakoitzagatik, eta hamabi jadanik Madrilera salduak ditu ehun eta berrogeina durotan.

– Manuel Jimenez–ek, Kaskantekoak, 36 zezen ditu: 12 bost urtekoak eta gainerakoak lau urtekoak, guriak eta besteen zezenak baino handiagoak. 130 duro eskatzen ditu bakoitzagatik. Baina hauek onenak edo handienak izanik ere, bi korrida ganadutegi desberdinetakoak eramatea komeniko da, batekoak txarrak atera eta zalditara joaten ez badira ere.

Argiñaniz jaunak, zezenkoei buruz esan diotena ere adierazten du. Zalduendok onak zituen 100 durotan. Ejeakoak ere onak zituen eta 90 durotan.

Azkenean Zalduendori 12 zezen (130 durotan bakoitza) eta 6 zezenko (90 durotan bakoitza) erosi zizkioten, eta Jimenez Kaskantekoari 16 zezen ordaindu zitzaizkion: 130 duro zezen bakoitza.

Zalduendoren ganadua Mutiloako belardian egon zen Iruñea inguruan, eta Jimenezena Eskirotzen.

Zezenak hil ondoren okela saldu egin nahi izan zuen Udalak, baina erostunik agertu ez zelako erregalo eman behar izan zituen.

Joakin Antonio Lapuia azkoiendarrak, eskutitza bidali zuen udaletxera bere burua toreatze–lanetarako eskainiz. Aurreko urtean Naiaran lan bikaina egin zuela eta koadrilan Andalusiako toreatzailerik onenak ekarriko zituela zioen.

Iruindarrak ordea, Francisco Herrera Guillen ekartzea ezinezkoa zitzaienez gero, Madrilen *el Castellano* eta *Sentimientos* kontratatzekotan zebiltzan. *El Castellano* edo Manuel Alonso–k, bere koadrilan Juanito *el Moreno* (ordezko ezpataria), Julian eta Herrera Cano (pikatzaileak) *Zapaterillo*a (Antonio Ituarte debarra alegia), bi banderilari *bizkaitar* eta beste banderilari bat ekarriko zituen.

Dena den, Manuel Alonso–k ordezko ezpatari bat, bi pikatzaile, ordezko pikatzaile bat eta bost banderilari ekarri zituen. Taldeburu gisa, 21.940 erreal eta 22 marai ordaindu zizkioten. Kopuru horretan Alonsori eta ordezko ezpatariari hamar zezen ondo hiltzeagatik emandako propina ere bazegoen.

Horietaz gain Joan Uriarte gasteiztarrak uztailaren 7an eta 8an lau zezenko bolaztatu zaldiz pikatu zituen. Zezenko batek bere zaldi bat hil zion, eta 500 erreal ordaindu zizkioten; zaldiagatik 26 duro eta gainerakoa bere lanagatik.

Uztailaren 6an eta 7an bina zezen toreatu, banderilaztatu eta hil zituzten. 8ah eta 9an berriz, goizean *probarako* bina zezen pikatu, banderilaztatu eta hil, eta arratsaldean beste zortzina zezen hil zituzten (lehen seiak pikatuta).

Hona hemen Gaztelu–plazan zezen bakoitzaren portaeraren berri:

Uztailak 9. Asteazkena. Zalduendoren zezenak

Izena	Zaldiak Pikaldiak	Hilak	Zaurituak	Ezpatakadak
PROBAKOAK				
1. *Comandante*	14	0	0	1
2. *Soldado*	6	0	0	4
KORRIDAKOAK				
1.*Cuervo*	3	0	0	2
2. *Capuchino*	8	1	0	4
3. *Polvorin*	16	0	4	4
4. *Mesonero*	5	0	0	1
5. *Moncayo*	13	0	0	1
6. *Cantinero*	10	0	0	2
7. *Carabinero*. Hau ez zen pikatu. Banderilak eta txotongiloak.....				1
8. *Cocinero*. Errotariek lantzaz hila				

Zezen guztiak Manuel Alonsok hil zituen, zazpigarrena ezik. Zazpigarrena ordezko ezpatariak hil zuen.

Uztailak 10. Osteguna. Argiñaniz jaunak aukeratutako zezenak

Izena	Zaldiak Pikaldiak	Hilak	Zaurituak	Ezpatakadak
PROBAKOAK				
1. *Chaparro*	14	0	2	1
2. *Carabinero*	12	1	0	1
KORRIDAKOAK				
1. *Tablagero*	4	1	0	1
2. *Coleto*	17	1	2	1
3. *Montero*	4	0	1	3
4. *Golondrino*	1	0	0	5
5. *Caballero*	10	0	2	16
6. *Ribero*	3	0	1	2
7. *Cabrito*. Ez zen pikatu. Txotxongiloak.....				3
8. *Platero*. Lantzaz hila. Gazte bat larriki zauritu zuen.				

Bigarren korrida honetan, lehen zezenak pikatzaile bat zauritu zuen. Probako lehen zezenak eta arratsaldeko 2, 3, 4, 5. eta 6.ak bostna urte zituzten.

5. eta 6. zezenak ordezko ezpatariak hil zituen eta gainerakoak Alonso *Gaztelauak*. Dirudienez bigarren zezenetik seigarrena bitartean suzko banderilak ipintzen saiatu ziren.

Udalari korridetarako zaldiak 5.110 erreal eta 22 marai kostatu zitzaizkion[3].

1817. urtean bestetik, antzina-antzinatik zegoen ohitura bat desagertu egin zen; Erreinuko Diputazioa korporazio gisa zezenetara joatea alegia[26].

Fausto Joakin Zalduendo kaparrosoarraren zezenak urte hartantxe korritu zituzten Madrileko plazan, dibisa hori- berdez[9].

1818. urtean Donostian erretako Plaza Berriko etxeak berreraikitzen ari ziren. Arkupeak eginak zeuden jadanik eta solairuetako balkoiak egiteko ardura Romualdo Zornoza, Jose Maria Uranga eta Manuel Felipe Gebara-ren esku gelditu zen. Lehen biak donostiarrak ziren eta hirugarrena irundarra. Bakoitzak, solairu bateko balkoi guztiak egingo zituen.

Gero, balkoi guztiei zenbakia ipini zitzaien eta handik ikusten zituen jendeak Plaza Berriko (zezenplazako) korridak. Plaza itxi eta zurezko palko eta eserlekuak ipintzen zituzten. Udalaren esku egoten ziren balkoiak, zezenak edo beste ikuskizunak zeudenean [32].

Gasteizen, zapatariek Krispin eta Krispiniano martiriak zituzten patroitzat, eta urtero zaindariaren egunean sokamuturrean bi zezenko ateratzeko ohitura zuten. 1818. urterarte iraun zuen hain zuzen gasteiztarren ohitura hark[47].

Iruñeko 1818.eko sanferminetako korridak Udalak berak antolatzea erabaki zen lehenbizi, eta jarraian, Jose Argiñaniz jauna bidali zuten Erribera aldera hango zezenen berri eman zezan. Bere txostenak honela zioen:

– Tuterako Gendulainek, 76 zezen ditu: 13 lau eta bost urte bitartekoak. Prezioa hiriaren esku uzten du.

– Arnedoko Ibarnavarro-k, 38 zezen ditu: 8 lau eta bost urte bitartekoak. Bakoitzagatik 110 duro eskatzen ditu.

– Kaparrosoko Zalduendo 45 zezenen jabe da: 7 ia bost urtekoak. Ibarnavarrori ordaintzen zaion prezioa eskatzen du beretzat.

– Kaskanteko Jimenezek (edo Ximenezek) 42 zezen ditu lau eta bost urte bitartekoak, eta beste 16 bost eta sei urte bitartekoak. 100 duro eskatzen ditu zezen bakoitzagatik.

– Ejeako Murillorenak, 50 zezen dira: 18 ia bost urtekoak. Bakoitzagatik 100 duro eskatzen ditu, baina sei duro edo gehiago jaitsi eraziko litzaioke.

– Ejeako Salvatierra-k, 26 zezen ditu: 9 ia bost urtekoak.

Azkenean Gendulain tuterarrari 12 zezen erosi zizkioten 90na duro ordainduta, eta beste hamabi Ibarnavarro arnedoarrari prezio berean. Ibarnavarrori beste lau zezenko ere hartu zizkioten hirurogeitamarna durotan.

Zezenak sanferminetako bi korridetan toreatzeko asmoz, Lapuia azkoiendarrak bere burua eskaini zuen, baina ez zuten kontratatu. Kontratua, Francisco Herrera Guillen *Curro*rekin egin zuen Udalak. Herrerak, Juan Leon *Leoncillo* ekarriko zuen ordezko ezpatari gisa, beste bi pikatzaile eta ordezko pikatzailea, eta lau banderilari. 19.677 erreal ahul eman zizkioten

taldeburuari. Kopuru horretan barne 13 zezenen okelaren prezioa zegoen. 11 Herrera berari, bat ordezkoari eta beste bat banderilari bati eman zizkieten lana ondo egiteagatik.

Domingo Iturralde iruindarrak ipini zituen korridatarako zaldiak, eta horren truk, hildako zezenen okela saldu zuen *taula* berezi batean.

Herrera Guillen-ek, *Leoncillo* izenekoa eraman zuen ordezko ezpatari gisa eta zaldiz pikatzera Cristobal Ortiz, Alonso Perez eta Manuel Diaz (azken hau ordezkoa).

Lehen korrida-egunean, uztailaren 8an, goiz eta arratsalde zortzi zezen pikatu eta hil ziren (2 goizean eta 6 arratsaldean). 97 pikaldi izan ziren guztira, Guillen-ek 12 ezpatakadaz hil zituen 8 zezen, eta *Leoncillo*k ezpatakada batez zezen bat; arratsaldeko zazpigarrena, txotxongiloak bota zizkiotena hain zuzen. Errotariek lantzaz hil zuten azkena ohizkoa zenez.

Guztira bi egunetan hogeitabost zaldi hondatu ziren plazan eta Alonso pikatzailea zauritua izan zen. Nonilla *Zapataritxoa* (Debako A. Ituarte izango zen inola ere), uztailaren 8ko (asteazkenean) goizeko bigarren zezenari banderilak bikain sartu ondoren, zezen aurrean erori egin zen eta bolboraren keagatik ez zuen zezenak harrapatu. Larrotxapeako barrerara ezkutatu zen gero, eta zezenak atzetik joan eta kailejoira salto egin zuen, banderilaria mailatuz.

Sanferminetako korrida haietan zegoen berotasunak eraginda, Udalari uztailaren 14erako beste nobillada bat antolatzea bururatu zitzaion. Sanferminetan sobratutako hiru zezenko eta Mañerutik ekarritako beste birekin osatu zen ganadu-taldea. Cristobal Ortiz-ek pikatu zituen zaldiz eta Joakin Antonio Lapuia azkoiendarrak eta Eugenio Orio kalagorritarrak toreatu zituzten. Ortiz-ek 1.000 erreal, Lapuiak 480 eta Oriok 400 erreal kobratu zituzten[3].

Madrilen, 1818.eko irailaren 14ean, Manuel Jimenez kaskantearraren zezenak korritu ziren, eta urte berean urriaren 1ean, Maria Concepcion Jimenez de Tejada funestarraren hiru zezen (dibisa gorri-horiz) eta Xabier Gendulain tuterarraren bi zezen[10].

1818. urtean, Tuteran, Felipe Perez Laborda eta Joan Antonio Lizaso-k sozietatea sortu zuten plazarako zezenak hazteko asmoz. Ibarnavarrori erosi zioten ganadua horretarako[14].

Durangon berriz, maiatzaren 6an, gero toreatzaile izango zen Joan Domingo Diaz de Mendibil Belaportu jaio zen. Domingo Mendibil izenez ezagutuko zuten gero bizkaitar hau, eta txikitan Burgosera joan zen bere familiarekin[46].

Eta has gaitezen orain 1819. urteko Gipuzkoa aldeko berriak emanez. Donostian, Plaza Berriko etxeak berreraikitzen ari ziren bitartean, sokamuturrak maiz izaten zituzten eta ohiturari jarraituz, soka, idiak eta zezentxakurrak prest edukitzea harakinen esku zegoen. 1819. urteko kontratu batean, Udalak Jose Gardilan haragi-hornitzaileari besteak beste sokamuturrari buruzko baldintza bat ezarri zion. Idiak eta soka beti prest edukiko zituen Udalak eskatzen zion bakoitzean, eta harakin bakoitzak hozka egiten zekien zezentxakur bat ere bai. Zezentxakur hauek musuko edo bozala jantzita erabili behar zituzten nagusiek[49].

Ordurako, Antonio Ituarte debarrak toreatze-lanetan fama handia lortua zuen jadanik, eta 1819. urtean irailaren 12ko korridarako dei egin zioten. Aurrez Ituarte *Zapataritxoa* Madrilen zezenak banderilaztatzen aritua zen, eta jendea pozik utzi zuenez gero, urte hartan berriz ikusi nahi izan zuten. Korridarako iragarkiak hori zioen behintzat[41].

Egun batzuk lehenago, irailaren 5ean, Maria Josefa Amalia erregina berria Bergaran zen. Bidasoatik Araba aldera zihoan eta Bergaran ongi-etorria dantza, nobillada eta guzti egin zioten.

Bizkaiko Balmasedan berriz, San Roke zaindariaren omenez zezenfestak izanak zituzten abuztuan ohiturari jarraituz. Urte hartako zezenak, Obarenes-eko monastegi beneditarreko Abadeak zerbitu zizkien[50].

Aurreko urte bukaeran eta 1819.aren hasieran, Fernando VII.aren emaztea aita eta ama hil ziren denbora gutxiren barruan. Horregatik sei hilabeterako lutua ezarrita zegoen, eta iruindarrek baimena eskatu eta lortu egin zuten sanferminetako korridak antolatzeko.

Legaria zurginak Gaztelu-plazako eserlekuak eta entzierrorako itxiturak ipini zituen. Uitzi albaitariak 35 zaldi prest zeuzkan Udalaren aginduz korridetarako.

Zezenak erosteko aukera handia zegoen urte hartan. Zezen asko eta merke zegoen ganadutegietan. Dena den Arnedoko Antonio Ibarnavarrori hamar zezen erosi zizkioten bakoitzagatik 75 duro ordainduta. Hauek uztailaren 8an korritu ziren dibisa urdinez. Uztailaren 9rako, Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Laborda koinatuek osatutako sozietateari hamar erosi zizkioten. Gero beste bat ere bai 75 durotan (796 erreal eta 31 marai).

Kaparrosoko Fausto Joakin Zalduendok, sei zezen zerbitu zituen: dibisa gorriz 2 uztailaren 6an korritzeko eta 4 uztailaren 7an. Aparte bi zezenko ere erosi zizkioten Zalduendori hirurogeina durotan.

Zezenak toreatzeko, Francisco Herrera Guillen Madriletik ekartzea lortu zuten. Ordezko ezpatari, Juan Leon *Leoncillo* etorri zen. Bi pikatzaile, ordezko pikatzaile eta banderilariek osatu zuten koadrila. Juan Nuñez *Sentimientos*ek ere bere burua Udalari eskaini zion, baina eskaintza ez zioten aintzakotzat hartu.

Uztailaren 7an hiru zezen bakarrik hil ziren eguraldi txarra egin zuelako. Uztailaren 8an, Antonio Ibarnavarroren zezenek 85 pikaldi jasan zituzten goiz eta arratsaldean. Manuel Diaz eta Juan Pinto arduratu ziren zaldiz ezten-hagak maneiatzeaz. 20 zaldi hil zituzten zezenek plazan egun hartan. Guztira 19 ezpatakada jota hil ziren berriz zezenak.

Zezen batzuei suzko banderilak ipini zizkieten, baina ez koldarrak zirelako; jendearen eskeari amore emateagatik baizik. Izan ere Udalak Ibarnavarro ganaduzaleari zorionak bidali zizkion beren zezenek erakutsitako itxura ona eta ausardiagatik.

Lizaso eta Perez Laborda-ren zezenak, lehen aldiz korritu ziren Iruñeko Gaztelu-plazan dibisa zuriz, baina beste plaza batzuetan aurrez eta arrakastaz jokatuak zituzten beste batzuk jadanik.

Iruindarrak oso pozik geratu ziren Herrera Guillen eta bere koadrilaren lanaz. 40.000 erreal kobratu zituen taldeburuak, eta hurrengo urtean toreatzera etortzeko kontratua ere egin zioten.

Herrera Guillen-i 13 zezen saritzat eman zizkioten lana ondo egiteagatik (80 erreal bakoitzagatik). Zoritxarrez, Gillen Ronda hiriko plazan hil zen hurrengo urteko maiatzaren 20an eta Iruñera ez zen gehiago etorri[3].

Perez Laborda eta Lizaso koinatuek Zaragozara zezenak bidali nahi izan zituzten, baina toreatzaile faltan ez zen korridarik eman. Izan ere Jeronimo Jose Candido eta bere koadrila urriaren 13, 14 eta 15ean Burgosen toreatzera behartu egin bait zituzten erregina han zegoelako[14].

Lizaso–ren zezenen inguruan bada Tuteran esaera berezi bat. Han izan ere *Jainkoak, Justiziak eta Lizasoren zezenak lagun!* esateko ohitura dute (*Si Dios quiere, la Justicia y los toros de Lizaso*).

Dirudienez bi nekazari tuterar hurrengo egunean Balterrara joatekotan gelditu ziren, eta elkar honela agurtu omen zuten:

– Bihar arte
– Bai, bihar arte, Jainkoa lagun

Biharamunean ordea, nekazari bati algoazila joan zitzaion etxera epaitegira joan zedin aginduz. Balterrarako bidaia beraz, egun batez atzeratu zuten bi nekazariek, eta etxerakoan honela agurtu omen zuten elkar:

– Bihar arte Jainkoa lagun
– Bai, biar arte Jainkoa.... eta Justizia lagun

Abiatu omen ziren hurrengo egunean Balterra aldera, eta *El Ventorrillo* izeneko parajera heldutakoan Lizasoren hamalau edo hamabost zezen omen zebiltzan bide–bazterrean.

Beldurtu omen ziren bi nekazariak eta Tuterara bueltatzea erabaki omen zuten. Hurrengo egunean saiatuko ziren berriz Balterrara joaten.

Etxerakoan, honela hitz egin omen zuten:

– Bihar arte Jainkoa lagun
– Bai, bihar arte, Jainkoa, Justizia.... eta Lizasoren zezenak lagun[51].

1819. urtean Madrilen maiatzaren 24ean Concepcion Jimenez Funes–eko anderearen zezenak plazaratu ziren dibisa gorri–laruz. Irailaren 6an berriz, Mariano Salvatierra ejeatarrarenak dibisa urdin–horiz[9].

Tuterako Lekunberri–ren Mariana Azkue alarguna, 1819. eko agiri batzuetan Orreagako monastegiaren zordun gisa agertzen da[52].

Bilbon, 1819. urtean bost egunetan korridak ospatu zituzten azoka–plazan. Jeronimo Jose Candido–k toreatu zuen bere koadrilaz lagundurik. Brindisagatik 640 erreal eman zizkioten. Poltsak berak (diru–poltsak) 20 erreal balio zituen. Sari gisa zortzi zezen ere eman zizkioten Candido–ri (640 erreal guztira) lana ondo egiteagatik. *El Morenillo*k ere bi zezen saritzat irabazi zituen (160 erreal) eta beste bana (80 erreal) *el Marianillo*, Castaño eta *Maquillas*ek. *Zapataria*ri eta *Marinela*ri 360 erreal eman zizkieten lau egunetan toreatzeagatik. *Zapataria* eta *Marinela* izeneko hauek, dudarik gabe Antonio Ituarte debarra eta Jose Bentura Laka (debarra hau ere. Itziarren jaioa zehatzago esan) ziren hurrenez hurren.

Bilbon urte hartan, plaza berria (zezenplaza biribila) Abando–n edo Arenal–ean egitekotan zebiltzan.

Gasteizen, irailaren 1etik 4era bitartean, Nafarroatik ekarritako 34 zezen korritzea erabaki zuten. Jose Francisco Hernandez *Bolero* etorri zen taldeburu, eta Juan Jimenez *Morenillo* ordezko

ezpatari. Gendulainen 16 zezen, Zalduendoren 9 eta Ejeatik ekarritako beste 9 toreatu eta hil zituzten[14].

———— o ———— o ————

1.820. urtearen hasieran, urtarrilaren 19an La Habana–tik zetorren korbeta bat hurbildu zen Donostiako portura. Bertako marinelak ez ziren ordea lehorreratu. Portutik hurbil itsasoan egongo zirela adierazi zuten, hurrengo egunean (San Sebastian egunean) goizaldera oinutsik San Bizente elizara seietan mezetara joan eta gero sokamuturrean ibiltzea nahiago zutelako. Gauean ordea, ekaitz beldurgarri batek untzia hondatu omen zuen[53].

Urte hartantxe, Donostiako herriko plazari, izena aldatu zioten. Orduan ipini bait zioten *Konstituzio–plaza* izena, *Plaza Berria*ren ordez[32].

Azpeitian, hasieran zalantzak izan zituzten 1820. urteko saninaziotan nobilladak antolatu ala ez. Riego–ren iraultzaren ondoren Udaleko zinegotzi–aldaketa egon bait zen. Baiezkoa erabaki zen ordea, nahiz eta Joan Bautista Altube eta beste bik ezezko botua eman.

Jose Arregi arduratuko zen nobillada haietaz, baina ondoko baldintza hauek ezarri zizkioten:

1. Saninazio bezperan bi larrabehi bolaztatu jokatuko ziren, eta haietako bat guez su eta argiz.
2. Saninazio egunerako inguruko bost zezenko (*freskoak* ahal izanez gero) eta konfidantzazko toreatzaileak ekarriko zituen. Toreatzaileek brindatzerik ez zuten izango.
3. Saninazio biharamunerako, inguruko beste sei zezenko ekarriko zituen eta gero larrabehi bolaztatu bat jokatuko zen argi, su eta guzti.
4. Zestoatik danbolindaria ekarriko zuen festetarako, etab.[22].

Hernanin ere nobilladak izan ziren 1820. urtean herriko plazan. Alkateak, udaletxeko balkoira agertu zenean, ezten–haga batzuk bota zituen plazara, eta plazan zeudenak hartu zituzten. Zezena atera zen ondoren, eta plazan inguruan biraka ibili ondoren, erdian gelditu zitzaien desafioka. Jendeak akuilatzen zuenean, jotzera egiten zuen. Banderilari batzuk ere ibili ziren, eta balkoitako jendeari brindisa ere egiten zioten noizbehinka. Banderilari bati adarkada txikiren bat ere eman zion zezenak.

Eta horrela sei zezen atera omen zituzten batabestearen ondoren Hernaniko plazara behi bat gidari zutela[1].

Bilbon ere jokatu ziren zezenkoak 1820. urtean. Bertako zezenkoak hain zuzen, paperetan agertzen denez[14].

Iruñean ere liberalek irabazi zutelako Gaztelu–plazari izena aldatu zioten : Konstituzio–plaza izena ipini zioten han ere. Gainera Iruñea ordurarte Nafarroako Erreinuko Hiriburu bazen, harez gero Nafarroako Probintziako Hiriburu izango zen.

Dena den, zezenak bost egunetan izango ziren 1820. urteko sanferminetan:

– Uztailaren 6an bi zezen toreatu, banderilaztatu eta hilko zituzten.
– Uztailaren 7an, bi zezen aurreko egunean bezala eta zezenkoak.
– Uztailaren 8an, goizean bi zezen probarako eta arratsaldean zortzi. Denak toreatu, zaldiz

pikatu, banderilaztatu eta ezpataz hilko ziren.

- Uztailaren 9an, bi zezen toreatu, banderilaztatu eta hilko zituzten. Gero zezenkoak jokatuko ziren.
- Uztailaren 10ean, San Ferminen kaperarako dirubiltzeko korrida izango zen. Goiz eta arratsaldez, uztailaren 8an bezalaxe.

Maurizio Ezkurra jauna bidali zuen Udalak Zalduendo, Gendulain, Perez Laborda, Bakedano, Ibarnavarro eta Murillo ganaduzaleek zituzten zezenak ikustera.

Gendulainek bere eskaintza egin zion Udalari 85 zezen (25 bost urtekoak) zituela esanez. Jose Murillo Mayor Ejeakoak 70 zezen zituen bost eta sei urte bitartekoak. Zezenkoak ere eskaini zizkien Murillok.

Ganadu asko eta merke zegoenez gero, Udalak eskutitz berdina bidali zien Ibarnavarro, Lizaso eta Perez Laborda, eta Murillo–ri zortzi zezen eta lau zezenko eskatuz. Zezen bakoitzagatik 54 duro eta zezenko bakoitzagatik 44 duro ordaintzeko prest zeuden.

Ibarnavarro–k ezetz erantzun zuen zezen gutxi eta gainera merke zirela esanez.

Joan Antonio Lizaso tuterarrak baiezkoa eman zuen, baina ohar bat eginez. Prezioa oso baxua zela zioen, eta Zaragozarako 28 salduak zituela (12 banderilatarako bakarrik eta ez pikatzeko) 72 duro t'erdian, unaien gastuak aparte.

Murillo ejeatarrari lehenengo hamar baina azkenean 26 zezen erosi zizkioten (20 zaldiz pikatzeko eta 6 banderilatarako bakarrik) berrogeitamalau durotan. Beste lau zezenko ere bai 44 durotan.

Zezenak Mutiloa eta Tasore–ko belardietan egon ziren festa–egunaren zain, eta kalte batzuk ere sortu zituzten inguruetan. Udalak ordaindu zituen.

Zezenak toreatzera Francisco Herrera Guillen etortzekoa zen bere koadrilarekin, baina arestian adierazi dugunez Rondan maiatzean hila zen zezenak harrapatuta. Horregatik, Antonio Ruiz *el Sombrerero* kontratatu zuten. Bere taldean Luis Ruiz ordezko ezpataria, Francisco Ortiz, Cristobal Ortiz eta Manuel Ribera pikatzaileak eta lau banderilari etorri ziren. 40.000 erreal kobratuko zituzten.

Udalak, zaldiak, ezten–hagak, banderilak eta kapak ipiniko zituen, eta Ruiz–ek ezpatak.

Antonio Ruiz badirudi ez zela oso ondo egon. Hala eta guztiz ere bederatzi zezen saritzat eman zizkioten, eta beste zezen bat pikatzaile bati (Cristobal Ortiz–i). Banderilariek ez zuten ezer onik egin. Horregatik, Antonio Ituarte eta bere lagun gipuzkoarrei dei egin zieten. Hauek lana ondo egin zutelako, 637 erreal eta 18 marai jaso zituzten.

Sanferminetako korridak igaro ondoren, uztailaren 16an zezenkoak jokatu ziren Gaztelu–plazan erregeak Konstituzioari egindako zina ospatzeko. Azkoienetik Frantzisko Elortz–en bi zezenko ekarri zituzten. Bat galdu egin zitzaien ordea Iruñera sartzerakoan[3].

1820. urteko uztailaren 13an, Zaragozako plazan Antonio Ibarnavarroren 12 zezen jokatu zituzten, eskuineko hankan Y marka zutelarik: 6 urteko bat, 5 urteko zortzi eta 4 urteko hiru. Hilaren 14ean berriz, Joan Antonio Lizaso eta Perez Labordaren hamabi zezen plazaratu ziren

eskuineko hankan P marka zutelarik: 5 urteko zazpi eta 4 urteko bost.

Jeronimo Jose Candido eta Juan Jimenez *el Morenillo*k hil zituzten[14].

1821. urtean, politikako urak nahasiak zebiltzan. Espainiako Gortean absolutisten eta liberalen arteko eztabaidek eragina zuten. *Biurteko liberala* deitu zaion aldiari hasiera eman zitzaion eta herri askotan ez zen festarik antolatu. Iruñean esaterako, aurrekontu bat egin zuten 26 zezen eta 6 zezenko ekartzeko. Zezenak berrogeitamarna durotan ekarriko zituzten, eta zezenkoak berrogeinan. Baina udalgizonek giro politikoa kontutan harturik urte hartan festarik ez antolatzea erabaki zuten eta dena bertan behera gelditu zen[14].

Ameriketako zenbait lekutan, independentzi gerrak pil–pilean zeuden, eta Mexikon ere bai. Horregatik espainiarren aurkako garaipena ospatzeko, Agustin Iturbide jeneralak zezenfestak antolatu zituen Mexikon. Iturbide bera izan zen festetako lehendakari eta bere tropako ofizial batzuk berriz, zezenetan parte hartu zuten[5].

Bilbon hala ere, zezenkoak jokatu ziren. Gorpuztietako festetan adibidez, Bizente Garai–ri 80 erreal ordaindu zizkioten zezenkoak toreatu eta banderilaztatzeagatik. Urte bereko azaroaren 6an berriz, Hilarion Salces–i beste 270 erreal, inguruko hiru zezenko korritzeagatik.

Arazoak arazo, Zaragozan urriko festetan urtero bezalaxe bi korrida prestatu zituzten. Urriaren 13an Antonio Ibarnavarro arnedoarraren hamabi zezen plazaratu ziren: bi sei urtekoak eta hamar bost urtekoak. Y marka zuten guztiek eskuineko hankan.



10.3. irudia. Tutera 1822. urtean. 24 zenbakia dagoen lekua da garai hartako zezenplaza edo herriko plaza.

Urriaren 15ean, Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordaren zezenak jokatu zituzten; hamaika bost urtekoak eta bat lau urtekoa. P marka zuten guztiek eskuineko hankan. Hamabi hauetaz gain soberako beste bost urteko zezen bat ere bidali zuten ganaduzale tuterarrek.

Zaragozarrei 1.420 erreal kostatu zitzaizkien urte hartako zezenak; toreatzaileak berriz 32.000 erreal. Zezenak toreatzera, honako hauek joan ziren Zaragozara: Jeronimo Jose Candido (taldeburua), Juan Jimenez *el Morenillo*, Jose Antonio Baden (ordezko ezpatariak), Juan Mateo Castaño, Juan Pinto, Juan Marchena (pikatzaileak), Jose Garcia, Gregorio Jordan, Jose Rodriguez eta Jose Olmedo (banderilariak).

Urriaren 15eko korridan, jendearen eskariari amore emanez (eta ez koldarrak zirelako) zezenei suzko banderila batzuk ipini zizkieten[14].

1.822. urtean, Iruñean ez zen sanferminetan zezenik izan egoera politikoaren eraginez. Udalgizonek festarik ez antolatzea erabaki bait zuten[3].

Bilbon, zezenkoak korritu zituzten urtero bezala, Hilarion Salces jaunaren ardurapean.

Zaragozan berriz, urtero bezala urriko Ama Birjinaren festatan bi korrida izan ziren. Horretarako Xabier Gendulain tuterarraren alargunari 12 zezen eta Lizaso eta Perez Labordari beste 12 zezen erosi zizkieten 1.300 erreal ordainduta. Zezen guztiak lau eta bost urte bitartekoak ziren.

Zezen hauek hiltzera Jeronimo Jose Candido etorri zen bere koadrilarekin aurreko urtetan bezalaxe. *El Morenillo*k ordezko ezpatari gisa lan egin zuen. 30.000 erreal irabazi zituzten kontratuaren arabera. Gainera, lana ondo burutzeagatik sei zezenen okelaren balioa eta beste sari batzuk ere jaso zituzten: 1.400 erreal guztira[14].

1823. urtea latza izan zen. Frantziatik *San Luis-en Ehun Mila Seme* izeneko tropak sartu ziren Penintsulara eta liberalen eta Fernando VII.a erregearen zaleen artean istiluak gori-gori zeuden.

Iruñea, setiatua eta bonbardatua izan zen urte hartan, eta ez zuten noski sanferminetarako festarik antolatu[3].

Zaragozan bai ordea. Han aurreko urtetan bezalaxe, urrian bi korrida ospatu ziren. Urriaren 13rako Antonio Ibarnavarroren 13 zezen ekarri zituzten (bat soberakoa). Sei zezen sei urtekoak ziren eta beste zazpiak bost urtekoak. Urriaren 14erako berriz, Lizaso eta Perez Labordaren 13 zezen erosi zituzten, horietako bat soberakoa zelarik. Zortzi zezen bost urtekoak ziren eta beste bostak sei urtekoak.

Esan beharra dago Zaragozan goizean *probarako* lau zezen plazaratzen zituztela, eta arratsaldeko korridan zortzi.

Nafar-zezen hauek hiltzera, Jose Antonio Baden joan zen bere koadrilarekin. Juan Jimenez zen ordezko ezpataria.

Jose Antonio Baden ezpataria, urte hartan Bilboko korridatan izana zen aurrez. Kontratukoaz aparte 320 errealeko saria eman zioten gainera[14].

1823. urtean Azpeitian nobilladak antolatu nahi izan zituzten saninaziotarako. Jose Arregi-k

horretarako proposamena egin zion Udalari. Plaza berak itxiko zuen eta ikuskizunak hauek izango ziren: uztailaren 31, abuztuaren 1 eta 2an korrida eta bezperan nobillada. Durango eta Zestoatik danbolindariak ekarriko ziren.

Korridetarako Arregik Nafarroatik zortzi zezen *fresko* (plazaratu gabeak) ekarri zituen. Zezen hauek eta herri inguruko beste *fresko* batzuk jokatuko ziren.

Fernando VII.a erregea ordea, Sevilla–ra eraman eta handik Cadiz–era aldatu nahi izan zuten Frantziako tropak zetozelako. Erregeak ezezkoa eman zuen eta orduan eroa zelako salaketa leporatu zioten bere aginpideak kenduz.

Erregezaleek lutua ezarri zuten orduan, eta Azpeitiko antolakuntza guztiak bertan behera gelditu ziren[54].

1823. urte hartan, Joan Bautista Agirre euskal idazle eta Asteasuko erretore izandakoa hil zen. Ezaguna da *Eracusaldiac* izeneko liburuak Gipuzkoako euskaran idatzi zituela, baina agian orduko gipuzkoarrek korridei buruz zituzten ezagumenduak nabarmentzen dituen pasarte hau ez da hain ezaguna. Interesgaria delakoan ipintzen dugu hemen. Hona bada elizako sermoietan jendeak zein arretaz entzuten duen aztertzen ari dela dioena:

... Gustoz entzuten ditue beren chanda datorquien artean; baña au datorrenean, eta Jaunaren itzac guiarra uquitzen dienean, sumintzen dira, ayenatzen due viotzetic Jaunaren itza, eta bear bada aserratzen zate Predicariaren contra. Eguiten due onelacoac cecenac plazan suzco banderillaquin beiñ baño gueyagotan eguiñ izan duana. Egozten diozquee susco banderillac, eta bere miñarequin botatzen ditu ascotan beregandic lepardatzari dardar eraguiñaz. Au bera eguiten due ascoc Jaunaren itzarequin, guiarreraño igarotzen bazate; botatzen due beregandic suzco banderilla baliz bezala...[55].

1824. urtean, absolutismoa nagusitu zen Espainiako politikan, eta Iruñeak berriz ere Erreinuko Hiriburu eta Gaztelu–plaza izenak ofizialki berreskuratu zituen. Iruñeko ekonomia, gerraren ondorioz behea jota zegoen, baina zorrak zor, sanferminetarako zezenfestak antolatzeari ekin zioten.

Otsailaren 4ean, Joan Antonio Lizaso tuterarrak bere zezen eta zezenkoak eskaini zizkion Iruñeko Udalari sanferminetarako. Lizaso gainera, liberalen iraultzaldian ongi portatua zen iruindarrekin. Horregatik, sanferminetarako plazarako ganadua Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordari erostea erabaki zuten: 24 zezen (58na durotan) eta 4 zezenko (40na durotan) 16.480 errealetan. Ganaduak Tuteratik ekartzeagatik Lizasoren unaiei 765 erreal ordaindu zizkieten. Mutiloako udaltzainei berriz 132 erreal, zezenak entzierrorarte han larratu zirelako[3].

Uztailaren 6an eta 7an bi zezen toreatu, banderilaztatu eta hil zituzten. 7an gainera, gero zezenkoak jokatu ziren.

Uztailaren 8an eta 9an, goizean bina eta arratsaldean zortzina zezen atera zituzten plazara. Goizeko bi eta arratsaldeko sei, zaldiz pikatu, banderilaztatu eta hiltzekoak ziren. Arratsaldeko zazpigarenari txotxongiloak botako zizkioten eta zortzigarrena errotariek hilko zuten lantzaz jota[14].

Zezenak toreatzera, Juan Jimenez *el Morenillo* etorri zen taldeburu. Roque Miranda *Rigores* zen ordezko ezpataria. Banderilak sartzen, Jose Garcia *Erbia* (*la Liebre*), Gregorio Jordan eta Jose Antonio Calderon *Capita* aritu ziren. Pikatzaile etorritakoak berriz, Jose Orellana, Manuel Ribera eta Jose Serrano ditugu. Azken hau ordezkoa zen eta 170 errealeko propina jaso zuen. Juan

Jimenez-ek, 18.360 erreal eskuratu zituen talde osoarenzat.

Taldetik aparte ordea, Gipuzkoatik eta Kalagorritik toreatzera joanak baziren. 1.965 erreal eta 22 marai irabazi zituzten hauek.

Bi korridetako azken zezena lantzaz hiltzeagatik, Iruñeko errotariei 170 erreal eman zizkieten; sekula baino gehiago, normala zezenaren okela ematea zelako[3].

Taldetik aparte etorritako banderilariak, Kalagorriko Eugenio Orio, eta Debako Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka izan ziren (1.593 erreal)[14]. Urte hartantxe, 1824.ean, Tuterako festetan (santanatan) Juan Jimenez *el Morenillo* eta Manuel Parra toreatzaileek lan egin zuten[28].

Azaroaren 4ean, Joan Antonio Lizaso tuterarrak gutuna bidali zion Iruñeko Udaleko idazkariari lau eta bost urte bitarteko zezenak eskainiz. Ez zioten jaramonik egin.

Urte berean, ekainaren 28an, Mariano Lizasok Hernanitik Gasteizeko Udalari Lizaso eta Perez Labordaren zezenak eskaini zizkion festetarako, bere helburua plaza hartan ganadu hura estreinatzea zela adieraziz[14].

Mariano Lizaso, Joan Antonioren semea zen, eta Tuteran liberalek gaizki hartu zuten 1822. urtean eta ihes egin behar izan zuen[3]. Ekainaren bukaeran Hernanin egotea ez da harritzekoa. Sanjoanetarako zezenak edo zezenkoak eramatera joango zela hara pentsa daiteke.

———— o ———— o ————

1825. urtean, erregezaleek korridak antolatu zituzten Bilbon. Ez ziren oso onak izan[56]. Zezenak toreatzera Juan Leon *Leoncillo* etorri zen. Ordezko ezpatari Manuel Parra ekarri zuten[41].

Zumaian, nobilladak antolatzeko ohitura bazuten. 1825. urtean hain zuzen, zezenko bakoitza alokatzea 90 erreal kostatu zitzaien. Toreatzaileari berriz, 80 erreal eman zizkioten[57].

Tuteran, 1825.eko santanatan, Gendulainen zezenak plazaratu zituzten, eta Juan Jimenez *el Morenillo* izan zen haiek toreatu eta hiltzeko ardura hartu zuena[28].

Tuteratik 1825.eko martxoaren 28an, Magdalena Gendulainek (Xabier zenaren arrebak), gutun bat bidali zuen Iruñera 70 zezen zituela adieraziz.

Udaletik, Gendulain tuterarrari eta Zalduendo kaparrosoarrari zezenen prezioak eskatu zizkieten. Prezioan barne, zezenen toriletarainoko garraioak ere egon behar zuen. Iruñea inguruko belardiko gastuak ez.

Magdalena Gendulainek berrogeitamazortzina durotan eskaini zituen, eta ahalik eta azkarren erantzutea eskatu zien Madriletik ere zezen-eskea zuelako.

Udalak, berrogeitamaseina durotan erosi zituen Magdalena Gendulainen 12 zezen eta Zalduendoren beste 12.

Gendulainek zerbitutako 12 zezenen xehetasunak hauek dira:

1. *Zapatero.* Beltz fina, ante koloreko zerrenda bizkar gainean, ile kizkurra muturrean, ongi armatua, 5 urte.

2. *Estudiante*. Gorriluna, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 6 urte.
3. *Tigre*. Gorriluna, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
4. *Cantero*. Gorrilun eta horiska, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
5. *Manchego*. Gorrilun argia, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
6. *Mantillino*. Gorriluna, azpizuria, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
7. *Malagueño*. Horiska, betinguru beltzak, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 6 urte.
8. *Pontonero*. Larua, adargakoa, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
9. *Lechuguino*. Horiska, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
10. *Lampreo*. Larua, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
11. *Mancebo*. Gorriluna, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.
12. *Español*. Gorrilun eta horiska, ongi armatua, ile kizkurra muturrean, 5 urte.

Zalduendo kaparrosoarraren hamabi zezenek, ezaugarri hauek zituzten:

1. *Majadero*. Gorriluna, aurrera–adarduna, adarluzea, 5 urte.
2. *Artillero*. Horiska, adakera onekoa, 5 urte.
3. *Gavilan*. Horiska, adar eskuina zerbait motzagoa, 5 urte.
4. *Jabali*. Beltza, zerrenda horiska bizkar gainean, satai onekoa, 5 urte.
5. *Chapitel*. Bizkarnabarra, lepailuna, muturzuria, urkila erako adarrak, 6 urte.
6. *Valenciano*. Beltza, larru goriluna, urkila erako adarrak, 5 urte.
7. *Plumaje*. Beltza, larru gorriluna, adartente samarra, 5 urte.
8. *Tabaquero*. Muturbeltza, tabako–koloreko ilajea, adarzabala, 5 urte.
9. *Brujo*. Gorriluna, adarzabala, 6 urte.
10. *Limon*. Horiska, ile kizkurra muturrean, adakera onekoa, 6 urte.
11. *Coronel*. Hanka–muturrak beltzak, bizkar gorriluna, adarmotza, 5 urte.
12. *Cuartana*. Larua, adartente samarra, 5 urte.

Zezen hauek erosi zituen Iruñeko Udalak, baina baldintza bat ipini zien Gendulain eta Zalduendo ganaduzaleei. Zezenei bakoitzak bere burdin marka ipinita bidaliko zituzten.

Magdalena Gendulainek, beste markarekin bidaltzea ezinezkoa zitzaiola gaztigatu zuen; bere aitak zuela 50 urte baino gehiago ganadutegia sortu zuenetik ez bait zuten kanpotik abererik sartu beren etxera.

Zalduendok ere ez zituela kastak nahasten zioen, eta bere ganaduak beste burdin marka edukitzerik ez zuela onartzen.

Zalduendo eta Gendulainen zezenez gain, Azkoieneko Jose Frantzisko Elortz–en lau zezenko erosi zituzten sanferminetarako, zilarrezko 1.360 erreal ordainduta.

Zezenak toreatzeko, Manuel Montero *Habanero* toreatzaile sevillarrak bere burua eskaini zuen, baina ez zioten erantzun. Eugenio Orio banderilari kalagorritarrraren eskeari baiezkoa eman zioten ordea. 425 erreal irabazi zituen.

Bestetik, Iruñeko Udalak Juan Jimenez *el Morenillo* kontratatu zuen 33.000 errealetan, uztailaren 6, 7, 8 eta 9rako. Baldintza batzuk ipini zizkioten ordea. Ordezko ezpataria eta hiru pikatzaile ekarriko zituen. Gainera, *Liebre*, Jordan, *Capita*, eta *Zapaterillo* eta *Marinero* banderilariak (azken biak gipuzkoarrak) etorriko ziren bere taldean. *Zapaterillo* eta *Marinero* izenekoak, Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka debarrak ziren, noski.

Udalak, pikatzeko zaldiak eta toreatzeko kapa eta muletak ipini zituen. Zaldiak hornitzeko ardura Darbous izeneko frantziar batek hartu zuen. Dirudienez hamabi zaldi hil ziren plazan.

Toreatzaileei 12 zezen sari gisa eman zitzaizkien lana ondo egiteagatik; zilarrezko 18.041 erreal eta 9 marai. Ordezko ezpatari, Manuel Parra izan zen[3].

1825. urteko urrian, Zaragozako festetan Ibarnavarro eta Zalduendoren zezenak plazaratu ziren. Antonio Baden eta bere koadrilak pikatu, toreatu, banderilaztatu eta hil zituzten[14].

Urte hartan Bernard Lalane *Jean Chicoy*, Coudures eta inguruko plazetan toreatzen hasi zen Landetako erara. Dartos albaitariak Coudures herrian sortutako tauromaki eskolan ikasia zen[38].

1826. urtean, Tuteran urtero bezala santanatan korridak ospatu ziren. Gendulainen abereak Manuel Romero *Carreto* toreatzaileak hil zituen[28].

Sanferminetarako, Nafarroako Erriberatik eta Aragoatik zezen- eskaintzak heldu zitzaizkien Iruñeko udalgizonei. Lehenbizi Lizaso eta Perez Laborda tuterarrek idatzi zuten. Gero Magdalena Gendulainek, 40 zezen bikain zituela adieraziz. Zaragozako Ejeatik iritsi zitzaien hurrengo gutuna Alejandro Ventura ganaduzalearen eskutik. Zezenak berrogeitamalauna durotan eskaintzen zituen Gaztelu-plazarainoko garraioa barne eta berrogeitazortzina durotan garraiorik gabe. Bere aita Frantziskoren garaian Iruñea, Madril, Bartzelona, Valentzia eta Zaragozan bere etxeko zezenek arrakasta handia lortu zutela dio.

Zalduendo kaparrosoarrak ere bere eskaintea bidali zuen Iruñeko udaletxera, zezen ederrak eta zangarrak zituela aditzera emanez.

Udalaren erabakia hau izan zen: 26 zezen eta 8 zezenko ekarriko ziren. Zezen bakoitzaren prezioa 48 durotan eta zezenko bakoitzarena 32 durotan ezarri zuten. Fausto Joakin Zalduendori zortzi zezen erosi zizkioten, beste zortzi Lizaso eta Perez Labordari eta beste hamar Alejandro Ventura Ejeakoari. Ejeako zezen hauek oso txarrak atera ziren.

Zezenkoak, lau Zalduendoren ganadutegitik eta beste lau Lizaso eta Perez koinatuenetik ekarri zituzten.

Sanferminak baino lehen, Ejeatik Josef Murillo Mayor ganaduzaleak gutun bat bidali zuen Iruñera, bere zezenei buruz beste ganaduzaleak gaizki-esaka aritu zirela eta arrenkura agertuz. Behi frantsesak zituela eta antzeko gezurrak zabaldu omen ziren. Ondoren proposamen bat egiten du. Beste hiru ganaduzaleek korrida bat osa zezatela eta berak beste bat bidaliko zuela. Gero, korridarik onena bidali zuenak biak kobra zitzala, eta Murillok berak irabazten bazuen, dirua Iruñeko Ospitaleari utziko ziola.

Udaleko idazkariak Murilloren zezenei buruz inork ez zuela gaizki hitz egin erantzun zion eta Udalaren askatasunaren ondorio zela zerizkionei erostea.

Sanferminetan korritu ziren zezenen xehetasunak, ondokoak dira:

Kaparrosoko Fausto Joakin Zalduendorenak:
1. *Mesonero*. Gorriluna, zerrenda horiska bizkarrean, adakera onekoa, 5 urte.
2. *Vigilante*. Horiska, adarbildu samarra, itxura onekoa, 5 urte.
3. *Botigero*. Gaina larua, hanka-puntak beltzak, adargakoa, satai onekoa, 5 urte.

4. *Zamarro*. Horiska, adartente samarra, satai onekoa, 5 urte.
5. *Limon*. Larua, satai onekoa, 5 urte.
6. *Suizo*. Beltza, ile kizkurra muturrean, adartente samarra, 5 urte.
7. *Garboso*. Gaztainkara iluna, buztan horiska, adarluzea, adakera onekoa, 5 urte.
8. *Caballero*. Beltz fina, zerrenda hauskara bizkar gainean, adartentea, satai onekoa, 5 urte.

Tuterako Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordarenak:

1. *Canario*. Horiska, muturgorri orbanduna, satai onekoa, ongi armatua, 6 urte.
2. *Granadero*. Gaztainkara iluna, zerrenda horiska bizkar gainean, satai onekoa, ongi armatua, 6 urte.
3. *Mortero*. Larua, kopetazuria, azpizuria, aurrera–adarduna, adarzabala, 6 urte.
4. *Coleto*. Horiska eta ante koloreduna, satai onekoa, ongi armatua, 6 urte.
5. *Clavelino*. Horiska, adats hauskarak, satai onekoa, ongi armatua, 5 urte.
6. *Zaragozano*. Beltza, zerrenda horiska bizkar gainean, adarluzea, itxura onekoa, 4 urte.
7. *Fuino*. Gaztainkara iluna, larru eta adats nabarrak, adarzabal samarra, 5 urte.
8. *Chocolatero*. Horiska, tabako antzekoa, oso ongi armatua, satai bikainekoa, 5 urte[3].

Korridetarako karteletan Iruñean Joan Antonio Lizasoren izena bakarrik agertu zen, eta bere koinatuak (Felipe Perez Labordak), gutuna bidali zion Udalari bere izena ere ager zedila eskatuz. Udaleko Luis Serafin Lopez idazkariak beste kartel batzuk eginda konpondu zuen arazoa [14].

Ejeako Alejandro Venturarenak:

1. *Lancetero*. Beltz fina, aurrera–adarduna, satai onekoa, 6 urte.
2. *Borniado*. Ile iluna, aurrera–adarduna, satai onekoa, 6 urte.
3. *Jupiter*. Gorriluna, adartentea, satai onekoa, 6 urte.
4. *Carretero*. Beltza, zerrenda zuria bizkarrean, satai onekoa, 5 urte.
5. *Cocinero*. Ile gorriluna, satai onekoa, 5 urte.
6. *Montero*. Ile iluna, zerrenda zuria bizkar gainean, satai onekoa, 5 urte.
7. *Marchante*. Beltz fina, zerrenda zuria bizkar gainean, adarzabala, satai onekoa, 5 urte.
8. *Hereje*. Beltz fina, adarmotza, satai onekoa, 5 urte.
9. *Curioso*. Beltz fina, adarmotza, zerrenda zuria bizkar gainean, satai onekoa, 5 urte.
10. *Galgo*. Gorriluna, adarzabala, satai onekoa, 5 urte.

Zezen guzti hauek toreatzera Juan Jimenez *el Morenillo* etorri zen Iruñera bere koadrilarekin 35.000 errealen truk. Ordezko ezpatari Manuel Parra ekarri zuen taldeburuak. Pikatzaile berriz, Sebastian Miguez, Juan Marchena *Clavellino* eta Anastasio Fernandez *Capon* (azken hau ordezkoa zen). Banderilariak, Jose Garcia *la Liebre*. Gregorio Jordan, Pedro Costillares, Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka izan ziren. Azken bi hauek gipuzkoarrak (*Provincianos*); Debakoak arestian esana dugunez[3].

Urte hartantxe gainera, Debako Kale Zaharrean Manuel Frantzisko Egaña Itziar jaio zen; gero Manuel Egaña *Ehulea (Eulia)* izenez ezagutuko zen toreatzailea. Debako ospitalean 1876. urtean hil omen zen F. Aldabaldetreku–ren arabera[58]. Manuel *Ehulea* ez bait zen Azpeitiko plazan zezenetan hil, nahiz eta zenbaitek hori esan. Deban hil zen 1874.eko urtarrilaren 23an, gero frogatuko dugunez.

Dena den 1826.eko sanferminetan Juan Jimenez eta Manuel Parra toreatzaileek zortzi zezen sari gisa ere irabazi zituzten trebetasunez hiltzeagatik; 640 errealeko propina alegia.

Korrida nagusiak Iruñean, hilaren 8an eta 10ean izan ziren. Hilaren 10ekoa ohizkanpokoa zen San Ferminen kaperarako dirua biltzeko. Hilaren 6, 7 eta 9an zezen eta zezenko batzuk korritu zituzten Gaztelu–plazan.

Korridatan, txotxongiloak atera ziren; Simon Ziganda zahagigileak 85 errealetan egindakoak hain zuzen. Leopoldo Frances jaunak bestetik, bi zezentxakur utzi zituen korridetarako eta bat zezenak hondatu zion.

Uztailaren 8an, arratsaldean euria egin zuen eta bostgarren zezena hil ondoren bertan behera utzi zuten korrida. Geroxeago atertu egin zuen ordea eta korridari amaiera eman zioten. Uztailaren 9an ordea, *muestra*ko zezenak ez zituzten hil euriagatik[3].

1826. urte hartan, Zaragozako plazan urrian nafar–zezenak jokatu ziren beste behin. Arnedoko Ibarnavarro eta Kaparrosoko Zalduendoren ganadua toreatu bait zuen Juan Jimenez *el Morenillo*k bere koadrilarekin.

Hurrengo urtean, 1827.ean, Ibarnavarro, Alejandro Ventura eta Manuel Gabiriaren zezenak toreatu eta hil zituen Juan Jimenezek leku berean[14].

Tuterako santanatan, 1827.ean aurreko urtean bezalaxe Gendulainen zezenekin Manuel Romero *Carreto* toreatzaileak lan egin zuen[28].

Madrilen, 1827.eko irailaren 24ean, Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordaren zezenak korritu ziren lehen aldiz[10]. Dibisa berdez atera zituzten plazara. Hiru zezen ziren tuterarrak: bigarren, hirugarren eta bostgarren jokatu zirenak hain zuzen.

Bigarrenari 15 pikaldi eman zizkioten. Hiru zaldi hil zituen zezenak. Hirugarrenak 6 pikaldi jasan zituen eta zaldi bat hil zuen, beste bat ere zauritu zuelarik. Bostgarren zezenari 13 pikaldi eman zizkioten. Zezenak ordea, Ortiz eta Miguez pikatzaileak zauritu eta bi zaldi hil zituen. Beste zaldi batzuk ere zauritu zituen.

Harrigarria badirudi ere, Cristobal Ortiz pikatzaileak hirurogei urte baino gehiago omen zituen eta lana ondo egin omen zuen.

Zezenak hiltzen, Antonio Ruiz *Sombrerero* eta Manuel Romero *Carreto* toreatzaileak aritu ziren. Lizaso eta Perez Labordaren nafar–zezenak, suharrak eta jendearen gustokoak suertatu ziren[14].

Iruñean, 1827. urteko sanferminak baino lehen Magdalena Gendulainen izenean Joakin Gendulainek bidalitako eskutitza jaso zuten. Aurreko urtean Tuteran eta Murcia–n bere ganaduak arrakasta handia lortu zuela eta klase, hortz eta kasta bereko zezenak pozik zerbituko zizkiela zioen. Zezenkoak ere eskaintzen zituen, eta prezioak Udalaren esku uzteko aitzakiarik ez zuen ipintzen.

Udalgizonek ordea, Zalduendo kaparrosoarrari eta Lizaso eta Perez Laborda tuterarrei bakoitzari 13 zezen eta 4 zezenko eskatzen zizkien. Zezen bakoitza 48 duro ordainduko zuten eta zezenko bakoitza 32 duro. Bakoitzaren hamar zezen zaldiz pikatuta hiltzekoak izango ziren, eta beste hirurak pikatu gabe hiltzekoak.

Lizaso eta Perez Labordak prezioagatik kexu erantzun zuten. Aurreko urtean zezenak oso merke saldu zizkietela zioten, beren helburua Ejeakoak baino hobeak zirela frogatzea zelako. Harez

gero, Bermeora lau urteko zezenak berrogeitazazpina durotan saldu zituztela esaten zuten, eta pikatu gabe hiltzeko zezenak zirela gainera. Bestetik, 28 edo 30 zezen saltzeko zebiltzala zioten eta laupabost urteko zezenak 70 duro egiten zuela, garraioak aparte. Azkenean zezen bakoitza 64 durotan eta zezenko bakoitza 36 durotan saltzea proposatu zuten.

Udalak bereari eutsi zion eta prezioan amorerik ez zuela emango adierazi zien.

Joan Antonio Lizasok orduan, berak eskainita baino merkeago ez zituela emango idatzi zien udalgizonei, baina bere koinatuak (Felipe Perez Labordak) ganadutegiaren erdiaren jabe zenez gero amor emateko asmoa omen zuen.

Perez Labordak (badirudi bazkide zen Lizasorekin arazoak bazituela jadanik) Irufieko Udalari dena onartuz idatzi zion. Beraz Perez Labordaren 13 zezen 48na durotan eta 4 zezenko 32na durotan (garraioa barne) joan ziren sanferminetara. Guztira 7.900 erreal kostatu ziren.

Zalduendo ere kexu zen hasieran prezioagatik, baina Udalak Perez Labordak amor eman zuela adierazi zionean, baiezkoa eman zuen eta 13 zezen eta lau zezenko bidali zituen.

Zezen eta zezenko bakoitzaren xehetasunak ez ditugu hemen ipiniko luzeegi joko lukeelako.

Zezenak hiltzera Juan Jimenez *el Morenillo* bere koadrilarekin ekarri zuten 34.320 errealetan tratua eginda. Behartu egin zuten bere koadrilan bi banderilari *zarauztarrak* ekartzera. (Debarrak behar luke Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka zirelako). Izan ere banderilari haiek oso gogozkoak zituzten iruindarrek lana ondo egiten zekitelako. Juan Jimenez eta gainerako ezpatariek ez zituzten beren koadrilan debarrak sartu eta ordaindu nahi izaten, baina gustuak gustu bi banderilari gipuzkoar trebe haiek *el Morenillo*ren koadrilan etorri ziren Iruñera. Pentsatzekoa da koadrilako gainerakoak, edo gainerako gehienak, aurreko urtean etorritakoak izango zirela.

Juan Jimenez, ordezko ezpatari eta Jimenezen semeponteko gazteari, 9 zezen (720 erreal) eman zizkieten saritzat.

Bi korridetako azken zezena, errotari gazteek lantzaz hil zuten, baina urte hartan, 1827.ean, zezenaren okelaz gain saria dirutan eskatu zioten Udalari[3].

1828. urtean, Espainiako Fernando VII.a bere emazte Josefa Amaliarekin Aragoa, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban zehar ibili zen.

Apirilean Zaragozan ziren errege-erreginak, eta hilaren 28an eta 29an ohizkanpoko bi korrida ikusi ahal izan zituzten. Hiru ganadutegitako zezenak plazaratu ziren. Arnedoko Antonio Ibarnavarrok 10 zezen bidali zituen (bat ordezkoa), Kaparrosoko Fausto Joakin Zalduendok beste 10 (bat ordezkoa) eta Tuterako Lizaso eta Perez Labordak 8 (bat ordezkoa). 930 erreal kostatu zen zezen bakoitza.

Zezenak toreatzera, Manuel Romero *Carreto* eta bere koadrila joan zen. Manuel Parra eraman zuen ordezko ezpatari gisa, beste hiru pikatzaile eta sei banderilarirekin batera.

Errege-erreginak maiatzaren 19an Tuterara heldu ziren. Han bi egun pasa zituzten, eta hirian ez zuten nobilladarik ere antolatu gerren ondorioz sosik gabe eta zorrez beteta zeudelako[14].

Fernando erregea eta bere emaztea Iruñera heldu ziren ondoren, eta han bi korrida prestatuak zituzten maiatzaren 28 eta 29rako. Egun bakoitzean goizean lau zezen plazaratuko ziren probarako

eta arratsaldean beste sei.

Bederatzi zezen Kaparrosoko Fausto Joakin Zalduendori erosiak ziren; beste zazpi Tuterako Magdalena Gendulaini eta beste zortzi herri bereko Perez Labordari. Zezen bakoitza, garraioa barne, 60 duro kostatu zen.

Gero, sanferminetan, korridarik ez zen izan Iruñean, nahiz eta partikularren batek antolatu nahi izan.

Zezenak toreatzeko Udalak Juan Jimenez-i dei egin zion, eta bi baldintza ipini zizkion: batetik ordezko ezpatari Manuel Romero *Carreto* ekartzea eta bestetik Antonio Ituarte *Zapataritxoa* (*Zapaterillo*) eta Jose Bentura Laka *Marinela* (*Marinero*) Debako banderilariak ekarri eta ordaintzea. Zezenak zaldiz pikatzera Cristobal Ortiz, Francisco Ortiz eta Julian Diaz etorri ziren. Debarrekin batera banderilak sartzen Gregorio Jordan, Jose Garcia *la Liebre*, Jose Antonio Calderon eta Antonio Calzadilla ekarri zituen taldeburuak.

*Morenillo*ri 20.000 erreal ordaindu zizkioten kontratuaren arabera. Beste 400 erreal ere bai Jimenez eta ordezko ezpatariak bost zezen ondo hiltzeagatik.

Julian Diaz ordezko pikatzaileak 531 erreal eta 9 maraiko propina ere jaso zuen. Errotari iruindarrek berriz 170 errealekoa, zezena lantzaz hiltzeagatik[3].

Lehen korridan lehen zezena Zalduendorena (dibisa gorriz) atera zen plazara, eta Gendulainek bere protesta jakin erazi zien lehen zezenak bere ganadutegikoa izan behar zuelako. Bere ganadutegia bait zen zaharrena[60].

Errege-erreginak Iruñetik Tolosan barrena Donostiara heldu ziren, eta han hiru korrida antolatu zituzten bisitari ospetsuen omenetan.

Ekainaren 6an, udaletxeko balkoitik erregeak korrida ikusi zuen. Lehenbizi Zalduendoren bost zezen toreatu eta hil zituzten. Seigarren zezena Gendulainena zen. Jendearen eskariz zazpigarren zezena ere toreatu eta hil zuten.

Ekainaren 7an, elizkizuna bukatu ondoren goizeko hamaiketan Gendulainen bi zezen plazaratu eta hil ziren probatzeko. Arratsaldeko lauretan erregea Plaza Berrira etorri zen korridara, ezpatadantzariak eta danbolindariak aurrean zituela. Gendulainen sei zezen toreatu eta hil ziren.

Egunsentian entzierroa eginda, ekainaren 9an Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordaren zezenak jokatu zituzten. Goizean lau probarako eta arratsaldean sei. Zezenak toreatzera, Manuel Romero *Carreto* bere koadrilarekin etorri zen.

Erregea eta bere emaztea Bilbora joan ziren ondoren. Han ekainaren 14a eta 26a bitarteko egunak igaro zituzten. Ekainaren 18an, arratsaldeko lau t'erdietan erregea lehendakari zela korridari hasiera eman zitzaion azoka-plazan. Ibaizabaleko itsasuntzietako mastetan jendea begira zegoen. Baita ibaiaz bestaldeko mendiaren gainean ere. Korridaren amaieran, jendeak eskatuta erregeak beste zezen bat gehiago joka zezatela agindu zuen. Gauza bera egin zuen ekainaren 19an arratsaldeko korridan ere. Biharamunean eta arratsaldeko ordu berean hirugarren korrida ospatu zen, eta ekainaren 21ean azkenekoz jokatu eta hil ziren arratsaldean azoka-plazan.

Lau korridetarako, zezenak leku desberdinetatik ekarri zituzten Bilbora. La Mancha-tik

Manzanilla (dibisa gorria) eta Granatula-ren (dibisa arrosa) zezenak etorri ziren. Salamanca-ko Fuente la Peña-koak (dibisa gorri-urdina) ere etorri ziren eta Erriberatik Ibarnavarro (dibisa horia) arnedoarraren eta Perez Laborda (dibisa zuria) tuterarrarenak.

Arratsaldero zazpi zezen jokatuko zirela zegoen iragarrita. Ganadutegi desberdinetako zezenak gainera nahasian aterako zituzten plazara. Zezenen kostua, ondoko lerroetan adierazten dugu:

La Mancha-ko zezenengatik M. Guardamiro jaunari ordainduak..... 33.000 erreal
Salamanca-ko zezenengatik E. Alonso Valdenegro jaunari ordainduak..... 16.800 "
Nafar-zezenengatik A. Llanos jaunari ordainduak..... 16.320 "
Nafar-zezenak garraiatu zituzten unanmaizter eta unaiei ordainduak..... 612 "
Zortzi joaldunengatik M. Arrubal jaunari ordainduak ..... 4.640 "
Pikatzaileen zaldiengatik ordainduak ..... 23.000 "

Ibarnavarro-ri sei zezen erosi zizkioten, eta Lizaso eta Perez Labordari beste sei.

Zezenak Bilbo ingurura iritsi zirenean, Tomas Muxikak ur- putzuak egin zizkien eta unaiei lagundu zien ganadua biltzen. Hamaika egunetan hamarna erreal irabazi zituen lan horregatik.

Bruno Azkarraga elorriarrak 178 erreal kobratu zituen pikatzaileentzako hagak ekartzeagatik. hagak hamalauna erreal ordaindu zizkioten eta garraioa hamar erreal.

La Mancha-tik ekarritako zortzi joaldunek 3.115 libra pisatu zuten, eta jokatutako 34 zezenak, 13.017 libra.

Udalak, zaldi, kapa, muleta, banderila, mandako (zezen hilak ateratzeko) eta abar ipini zizkien toreatzaileei.

Korrida guztietako zezenak toreatzeko ardura, Antonio Ruiz *el Sombrererok* hartu zuen. Hark 60.000 erreal kobratu zituen koadrila osoaren izenean. Koadrilan, ordezko ezpataria, lau pikatzaile eta sei banderilari ekarri zituen.

Bilbotik erregea bere laguntzaile guztiekin Gasteizera joan zen, eta han ere bere omenez hiru korrida antolatu ziren. Ekainaren 26tik 30erarte egon zen Arabako hiriburuan.

Gasteizera 27 nafar-zezen eta La Mancha-ko beste 4 edo 6 ekarri zituzten. Zezenek, ganadutegietako burdin marka, seinale eta dibisa zuten eta 5 eta 8 urte bitartekoak ziren adinez. Hiru pikaldi jasaten ez zituen zezenari, suzko banderilak ipini edo zezentxakurrak botako zizkioten[14].

Madrilen, 1828.eko irailaren 22an Joan Gendulainen zezenak korritu ziren[10]. Aurrez ordea erregea bere bidaia amaitu eta Madrilera heldu ondoren, abuztuaren 14ean korrida eman zuten. Ganadutegi desberdineko zezenak plazaratu ziren, eta plaza erdibituta (erdian oholez diametro eran hesia ipinita) bi zezen aldi berean ere toreatu ziren.

Lehen zezena Manuel Gabiria jaunarena zen; Gijon kastakoa. Bigarrena berriz Gendulain tuterarrarena. Dibisa berdez plazaratu zen. Zortzi pikaldi jasan zituen eta suhartasuna erakutsiz, bi zaldi hil ere bai. Francisco Gonzalez-ek hil zuen bigarrenean zezena. Lehen saioan ezpata (hezurrarekin topo eginda) hautsi egin zen. Bi saioetan zezena zetorkiola jo zion ezpatakada.

Plaza erdibitu ondoren alderdi batera ateratako hirugarren zezena Antonio Ibarnavarro

arnedoarrarena zen. Dibisa laru-morez plazaratu zuten hiru aldiz zalditara sartu zen zezen hura. Luis Ruiz-ek kapaz toreatu zuen. Nafar-lantzea ere eman zion behin. Luis Ruiz berak hil zuen hiru aldiz ezpataz saiatuta.

Plazako beste alderdira hirugarren ateratako zezena ere Ibarnavarro arnedoarrarena zen. Zalditara bitan bakarrik eraman ahal izan zuten. *Carreto*k bi nafar-lantze eman zizkion kapaz eta ezpataz lehenbizikoan hil zuen.

Urriaren 13an Madrilen bertan Antonio Ruiz *Sombrererok* Roque Miranda-ri alternatiba eman zion. Ganadutegi desberdinetako sei zezen jokatu zituzten, eta bi Gendulain tuterarrarenak hain zuzen (2. eta 6. atera ziren toriletatik). Bigarren ateratakoa, biguna, 12 aldiz eraman zuten zalditara. Laugarrenean hil zuen Roque Miranda-k, alternatiba hartuberriak. Seigarren zezena, Gendulainena, suharra suertatu zen. Hamar aldiz pikatu zuten eta Manuel Parrak nafar-zezena ezpata lehenengoan sartuta hil zuen zetorkiola[43].

Zaragozan 1828.eko urriko festetan ere, nafar-zezenak korritu zituzten; Ibarnavarro arnedoarrak eta Gendulain tuterarrak zerbitutakoak hain zuzen. Juan Jimenez *el Morenillo* arduratu zen bere koadrilarekin plazako lanaz[14].

1829. urteko apirilaren 8an, erregearen gutuna jaso zuten iruindarrek. Izan ere 1798. urteko baimen bat eskuratua zeukaten Iruñean hogeitamar urtez urtero ohizkanpoko korrida bat (San Ferminen kaperarako dirua biltzeko) antolatzeko. Urte horietan 13 besterik ez zituzten ordea jokatu eta gainerakoak prestatzeko eskubideaz galde egina zuten. Erregeak, beste 24 urtean antolatzeko baimena eman zien, helburu bera lortzeko izatearren. Sanferminetarako gauzak prestatzen ari zirela ordea, Maria Josefa Amalia erregina hil egin zen eta bertan behera utzi zituzten antolakuntza guztiak lutoak ezarri zirelako.

Gero ordea Fernando VII.a Kristina Borbon-ekin ezkondu zenean (laugarren ezkontza zuen), urriaren 11 eta 12an nobilladak izan ziren arratsaldetan. Bolaztatutako sei zezenko eta larrabehi batzuk korritu zituzten Gaztelu-plazan. Dirudienez zezenkoak Zalduendok zerbitu zituen Kaparrosotik berrogeitazortzina durotan[3].

Bilbon ere ospatu zuten erregearen ezkontza. Lau egunez Gendulain eta Zalduendoren zezenkoak korritu ziren. Ganaduzale bakoitzari 8.160 erreal ordaindu zizkioten. Toreatzaileei berriz 15.460 erreal[14].

Tuteran ere 1829. urtean santanatan ez zen korridarik jokatu erreginaren heriotzagatik[28], baina urte hartan Erriberatik bidalitako zezenak toreatu ziren beste plaza batzuetan. Zaragozan adibidez, Ama Birjina urrikoaren festetan Ibarnavarro arnedoarraren eta Zalduendo kaparrosoarraren ganadua jokatu zen. Manuel Romero *Carreto* edo *Carreterok* (bietara deitzen bait zuten) zuzendu zituen toreaketa-lanak[14].

Zumaian, 1829an, nobillada ospatu zuten. Izan ere Udalak festa hartarako 83 banderila erosi zituen[57].

Madrilen ere ikusi zituzten nafar-zezenak urte hartan. Han, korrida berean ganadutegi desberdinetako zezenak tartekatuz plazaratzeko ohitura zuten.

Abuztuaren 7an Madrileko korridan, bigarren zezena Lizaso eta Perez Laborda tuterarrena zen. Ortiz pikatzaileak bost aldiz ziztatu zuen zalditan eta halako batean zezenak Ortiz-i hanka

hautsi zion. Euria gogotik ari zuelako, Manuel Parra ezpatariak zezena hiltzerik ez zuen lortu eta korrida bertan behera utzi zuten.

Abuztuaren 18an, Juan Leon *Leoncillo* eta Manuel Parra toreatzailea arduratu ziren Madrileko plazako lanez. Hirugarren eta seigarren zezenak, Lizaso eta Perez Labordarenak ziren. Koldarrak suertatu ziren. Bata Juan Leon–ek hil zuen ezpataz eta Pedro Sanchez–ek bestea hirugarrenean.

Irailaren 14ean, beste korrida bat izan zuten Madrilen. Lehenbizi lau zezen atera zituzten plaza osora, eta gero, turuta jota, plaza bost minutu eta segundo gutxi batzuetan erdibitu egin zuten zurginek hesiak diametro eran ipinita. Orduan, aldi berean bi zezen plazaratzen hasi ziren (bat plazaren alderdi batera eta bestea bestera).

Itzaleko alderdian koadrilarik zaharrena gelditzen zen eta eguzki aldeko alderdian gazteena. Zezenak hesi gainetik saltatzen bazuen, ez zegoen bere alderdira ekartzerik; koadrilak lekuz aldatu eta bertan (beste zezena zegoen alderdian) hil behar zuen. Turutek aginduak bi koadrilentzat ematen zituztenez gero, nahasketak ere sortzen ziren.

Dena den irailaren 14ean besteak beste Gendulain eta Lizaso eta Perez Labordaren nafar–zezenak toreatu zituzten, plaza erdibitu ondoren. Lehendakaritza zegoen alderdian, Manuel Parra ezpataria eta Juan Marchena pikatzailea zeuden. Bestean berriz Manuel Romero ezpataria eta Juan Martin pikatzailea.

Parrak lehenengo Gendulainen zezen gogor bat toreatu zuen. Hamaika pikaldi jasan eta bi zaldi hil zituen. Bigarren saioan hil zuen Parrak.

Parraren bigarren zezena Lizaso eta Perez Labordarena zen; noblea. Hamar aldiz pikatu zuten. Bostgarren kolpean hil zuen Parrak ezpataz.

Parraren hirugarrena ere Lizaso eta Perez Labordarena zen; biguna. Bederatzitan pikatu zuten. Parrak laugarrenean asmatu zuen ezpataz hiltzerakoan.

Manuel Romero *Carreto*ren alderdian, lehen zezena Gendulainena izan zen; biguna. Hamaika bider eraman zuten zalditara. *Carreto*k ezpatakada bakarraz hil zuen.

Romerok toreatutako bigarren zezena, Lizaso eta Perez Labordarena zen; oso biguna. Zortzitan pikatu ondoren, *Carreto*k ezpata–kolpe batez hil zuen.

Hirugarren zezena, Gendulainena, koldarra suertatu zitzaien. Bost bider pikatu ondoren, hirugarrenean hil zuen Romerok.

Urriaren 26an Madrilen beste korrida batean ere, Gendulainen bi zezen eta Lizaso eta Perez Labordaren beste bi korritu zituzten, beste batzuen artean, plaza erdibitu ondoren. Manuel Parra eta Manuel Romero ziren koadrilen buru.

Gendulainen lehen zezenak nahikoa suhartasuna erakutsi zuen. Parrak lehenengo saioan hil zuen ezpataz.

Hirugarrenez Lizaso eta Perez Labordaren zezen bat atera zen; oso koldarra. Parrak kapaz toreatu zuen; baita nafar–eraz ere. Zalditara hiru aldiz eramateko 17 minutu behar izan zituzten.

Parra muletaz lehen pasea ematen hasi zenean, ezkerreko izterrean adarra sartuta lurrera bota zuen. Antonio Calzadilla-k hil behar izan zuen zezena.

Plazaren beste alderdian Gendulainen eta Lizaso eta Perez Labordaren beste zezen bana ere toreatu zuten.

Manuel Parra zauriturik geratu ondoren, hurrengo egunetan sendatzen hasi zen, baina azaroaren 5ean gaizkitu eta 8an heriotz ordua heldu zitzaion[14].

Manuel Parrak zezenplazan izandako istripua Fernando VII.a erregeak berak ere ikusi omen zuen, eta haren ondorioz Sevillan tauromaki eskola bat sortzea erabaki ere bai[10].

Estrella-ko konteak osatutako proiektuaren arabera Sevillan ezarri zen tauromaki eskola hura, Pedro Romero eta Jeronimo Jose Candido toreatzaile famatu izandakoak irakasle zirela. Eskola haren mantenurako ordea, *Maestranza* zuen probintziako hiriburu bakoitzak 200 erreal ordaindu behar zituen korridako eta gainerako herri bakoitzak 160 erreal korridako eta 100 nobilladako.

Bilboko korrejidore zen Eladio Alonso Valdenebro jaunak kontra egin zion erabaki honi. Hark zioenez, Erret Agindu hura Ministrariak Bilboko Udalari zuzenean eman behar zion aditzera batetik, eta bestetik Bizkaiko Jaurerriko Udala izanik Bizkaiko Diputazioari foruak agindutako zergak bakarrik ordaintzera behartua zegoen[61].

Nahiz eta Iruñeko Udala zerga hura ordaintzeko prest egon[3] (erretorde zen Castro-Terreño-ko dukeak hala zioen behintzat), Bilbok ez zuen ordaindu, eta bilbotarren anparoan beste hiri askok ere ez[61].

———— o ———— o ————

Bilbon urte hartan, 1830.ean, alderdi zaharreko *Plaza Berria* (karratua) egiten hasi ziren, eta nahiz eta normalean zezen-festak azoka-plazan (ibai ondoan) egin, inoiz edo behin Plaza Berrian ere ospatu ziren[62].

1830. urtearen hasieran, urtarrilaren 20an, donostiarrek beren San Sebastian patroiaren eguna ospatu zuten ohi bezala, eta nola ez, arratsaldeko bostetan sokamuturra ibili zen jendez inguraturik Konstituzio-plazaren inguruan[53].

Gasteizen berriz, 1830. urteko irailaren 8an (amabirjinetan), *Korreria* kalekoen festa-eguna zen. Kalearen bi muturrak eta kantoiak oholez ixten zituzten eta etxe baten sarreratik arratsaldeko hiru t'erdietan idia edo larrabehia ateratzen zuten kalera txistulariak *zezenkoen* (*de novillos*) doinua jotzen zuenarekin batera. Doinu hura Iztueta zaldibitarrak aipatzen duen zezenarena edo agian *iriarena* izenekoa izan zitekeela pentsatzen dugu.

Dena den zezenkoak batzuetan Gasteizeko Korreria kaleko etxeren batera sartu eta eskaileran [illegible]ra joan omen ziren etxebizitzataraino.

Gasteizeko beste auzoetako festaburuetan, sokamuturra izaten zuten, igande eta festa-egunetan Plaza Berrian bezalaxe. Sokamuturra hauek Gasteizen, gero Plaza Zaharrean eta ondoren Bilbo-ko plaza izenekoan izaten ziren[63].

Tuterako santanatan, 1830.eko uztailean, sortu berria zen Estanislao Sanchez-en ganadutegiko zezenak toreatu eta hil zituen Manuel Romero *Carreto* ezpatariak[28].

Iruñeko sanferminetarako, Udalak Domingo Iturralde jaunari utzi zion zezenfestak antolatzeko ardura. Baldintza zehatzak ipini zizkioten ordea horretarako. Uztailaren 6 eta 7a, zezenetarako egun *solteak* izango ziren (bina zezen jokatzekoak) eta uztailaren 8 eta 9rako korrida bana goizeko proba eta guzti antolatuko zuten.

Txotxongilorik ez ateratzea erabaki zuten, dibertsio handirik sortzen ez zuelako, eta korridan lantzaz hil ohi zuten azken zezenik ere ez zuten aterako, korrida oso berandu eta ilunarekin batera amaitzen zelako. Agintarien balkoitik jendeari bota ohi zitzaizkien otartekoak ere ez botatzea pentsatu zuten urte hartan, lurrean zikindu egiten zirelako eta inoiz jendeak berriro ere balkoira jaurtikitzen zituelako.

Domingo Iturralde eta Udala, ados jarri ziren sanferminetarako 24 zezen nondik ekarri erabakitzerakoan. Zortzi Fausto Joakin Zalduendori erosi zizkioten berrogeitamaseina duro ordainduta. Nahikoa ondo portatu ziren gero plazan. Beste zortzi Ejeako Alejandro Ventura-ren ganadutegitik ekarri zituzten berrogeitamarna durotan. Zalditara gutxi joan ziren gero korridan. Zazpi zezen Lizaso eta Perez Laborda tuterarrenak ekarri zituzten, Zalduendori ordaindutako prezio berean. Txikiak ziren: hiru zezenkoak eta akastunak gainera. Eta azkenik, beste zezen bat Urantzia-ko Bikuña jaunari erosi zioten.

Horietaz gain, beste ganaduzaleren bati hogeitamabina durotan beste lau zezenko erosi zizkioten.

Zezenak toreatzera, dirudienez Manuel Romero *Carreto* etorri zen 31.000 errealen truk. Ordezko ezpatari Antonio Calzadilla ekarri zuen. Pikatzaile berriz, Francisco Ormigo (oso ona), Ribera (oso txarra) eta beste bat. Gainera lau banderilari, eta (Udalak behartuta) banderilari *probintzianoak* (Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka, noski).

Kontratukoaz gain, 960 erreal sari gisa eman zieten zezen batzuk ondo hiltzeagatik (20 pezeta zezen bakoitzagatik). Ormigo-ri beste 320 erreal ere bai ondo pikatzeagatik[3].

1830. urte hartan, apirilaren 21ean Joan Antonio Lizaso eta Felipe Perez Labordaren arteko elkartea apurtu egin zen. Lizasok Perez Labordari ganadutegiaren erdia saldu egin bait zion. Ganadutegian 150 behi urtebetetik gorakoak zituzten, 77 zezenko eta joaldun eta 36 zezen lau urtetik gorakoak. Perez Labordak 1936 duro ordaindu zizkion Lizasori behi, zezenko eta joaldunengatik. 36 zezenak bien izenean segituko zuten eta Perez Labordak zaindu eta gobernatuko zituen unaiak ordainduz. Gero saldutakoan irabaziak erdibana izango ziren.

36 zezen haietatik hiru istripuz hil ziren, eta gainerakoak urte hartan saldu ondoren 39.240 erreal eman zituzten. Lizaso eta Perez koinatuek erdibana egin zuten. Dena den zorren kitapena Maria Frantziska Irurtia Garate-ri egin zion Perez Labordak hurrengo urtean bere senar Joan Antonio Lizaso abuztuaren 8an hil zelako.

Logronion 1830.ean, zezenak izan zituzten irailaren 4, 5 eta 6an; nobillada 5ean eta korridak 4 eta 6an. Korrida-eguneko goizean, hiruna zezen hilko zituzten (bi pikatuta) eta arratsaldean zazpi (denak pikatuta). Zezenak, Gendulain eta Perez Labordarenak izan ziren[11]. Banderilaritako bat, Jose Fernandez izan zen[64].

Bilbora abuztuaren 17an Francisco de Paula infantea bere emazte eta familiarekin heldu zen, eta haien omenez abuztuaren 17 eta 20an korridak izan ziren. Zezenak, Ibarnavarro eta Perez Labordari erosi zizkieten. Zezenak toreatzera berriz, Manuel Romero *Carreto* bere taldearekin etorri zen. Guztira 53.620 erreal kobratu zituen: 47.000 erreal kontratuaren arabera, sei egunez zain egoteagatik 2.100 erreal, kontratuko 32 zezenez gain beste 3 gehiago pikatu, toreatu eta hiltzeagatik 3.000 erreal eta toreatzaile eta pikatzaileei saritzat emandako 19 zezenengatik 1.520 erreal.

Nafar-zezenengatik 30.440 erreal ordaindu ziren, eta Ibarnavarro nahiz Perez Labordaren unaiei 1.308 erreal eman zizkieten garraio-lanengatik. Pikatzaileentzako zaldiak, 18.700 erreal kostatu ziren.

Manuel Romerok bere koadrilan, Antonio Calzadilla (ordezko ezpataria), Jose Fernandez, Juan Pastor, Felipe Orusa, Antonio Gaston, Manuel Ribera eta Antonio Rodriguez ekarri zituen.

Bilboko korrida hauetara, kanpotik jende asko etorri omen zen. Baionatik 50 gazte eta Gasteizetik 46 adibidez.

Zaragozako 1830. urteko urriko korridetara, Ibarnavarro eta Zalduendoren zezenak eraman zituzten. Manuel Romero *Carreto* eta bere koadrila joan ziren toreatzera 28.000 errealen truk.

1830. urtean bestetik, Madrilen nafar-zezen asko korritu zen Alcala-ko portale ondoko plazan. Han ganadutegi desberdinetako zezenak tartekatuz jokatzen zituzten arestian aditzera eman dugunez.

Apirilaren 19an, besteak beste Gendulainen bi zezen eta Lizaso eta Perez Labordaren bi zezen (dibisa hori-gorriz) korritu ziren. Juan Marchena *Clavellino* eta Juan Martinek pikatu zituzten. Juan Leon *Leoncillo* eta Manuel Romero *Carreto* aritu ziren ezpatari gisa. Pedro Sanchez berriz, bien ordezko ezpatari zen.

Lizasoren lehen zezenak 14 pikaldi jasan zituen. Ondo armatua zen eta zaldi bat hil zuen. Juan Leon-ek lehenengoa hil zuen. Lizaso eta Perez Labordaren bigarren zezena adakera onekoa zen, alaia eta garbia. Bederatzitan joan zen zalditara, eta Martinen zaldi bat hil zuen. Sanchez-ek ezpatakada bakarraz hil zuen zezen hau.

Gendulainen lehen zezena, suharra eta gogorra suertatu zitzaien; arriskutsua ere bai. Zortzitan pikatu zuten. Gendulainen bigarren zezena ere suharra zen; adarzabala. Hamaika bider pikatu zuten.

1830. urteko maiatzaren 10ean ere, Madrileko korridan besteak beste Gendulainen bi zezen eta Lizaso eta Perez Labordaren beste bi zezen korritu ziren. Ortiz eta *Clavellino* eta Martin ziren pikatze-lanetan. Toreatze-lanetan berriz, Juan Leon, Roque Miranda eta Jorge Monge *el Negrillo* (azken hau ordezko ezpatari) aritu zen.

Gendulainen lehen zezena oso suharra zen. 10 aldiz joan zen zalditara. Zaldi bat hil eta beste bi zauritu zituen. Roque Mirandak hil zuen bigarrengoan. Gendulainen bigarrena berriz, bigun portatu zen. Zortzitan pikatu ondoren, Juan Leonek laugarren saion hil zuen.

Lizaso eta Perez Labordaren lehen zezena ere suharra eta noblea zen. Bederatzi aldiz joan zen zalditara, bi hilez. Juan Leonek ezpatakada bat eta bigarren deskabello-kolpez eraitsi zuen. Juan Leon maisua eta Jordan banderilaria larri eta arriskutan ibili ziren zezen hau toreatzen.

Tuterarren bigarren zezena, biguna suertatu zen. Lau bider pikatu zuten eta Monge–k patxadaz eta trebetasun handiz toreatu ondoren bigarrenean hil zuen.

Maiatzaren 17an ere Madrilen korrida zuten eta han beste batzuen artean Gendulainen bi zezen eta Lizaso eta Perez Labordaren beste bi plazaratu zituzten.

Lehenbizi Gendulainen zezen suhar bat jokatu zen. Bederatzitan pikatu ondoren Juan Leonek ezpatakada batez hil zuen. Gendulainen bigarren zezena kosta egin zitzaien zalditara eramatea. Bitan bakarrik pikatzea lortu zuten. Suzko lau banderila ipini ondoren, espatakada batez bota zuen *Capon* toreatzaileak.

Lizaso eta Perez Labordaren lehen zezena, adarmotza, hirutan joan zen zalditara eta suzko sei banderila ipini zizkioten. Juan Leonek lehen ezpata–kolpean hezurra harrapatu zion. Bigarren saiorako prestatzen ari zela, zezenak adarkada batez muleta kendu zion. Baina Leon–ek orduan bere sudurzapia atera eta hartaz baliaturik sartu zion ezpata.

Lizasoren bigarren zezena adarmotza eta koldarra zen. Sei bider joan zen ordea zalditara. Monge–k lehen saioan hil zuen.

Maiatzaren 24eko korridan ere Lizaso eta Perez Labordaren bi zezen korritu ziren Madrilen. Juan Leon eta Jorge Monge–k hil zituzten. Hamabi bider pikatu zuten zezen hauetako bakoitza. Ortiz pikatzailea zauriturik gertatu zen. Berez gauza handirik ez, baina Ortiz oso zaharra zenez gero beldur zen jendea bere osasunaz.

Ekainaren 2an beste korrida bat antolatu zen Madrilen eta orduan ere Gendulainen bi zezen eta Lizaso eta Perez Labordaren beste hiru korritu zituzten. Juan Leon *Leoncillo* eta Jorge Monge *el Negrillo*k hil zituzten. Ortiz eta Martin aritu ziren pikatzen. Lizasoren hirugarren zezenari, suzko bost banderila–pare ipini zizkioten. Monge–k ahal zuen bezala hil zuen.

Uztailaren 1eko korridan, azken zezena (zazpigarrena) Lizaso eta Perez Laborda tuterarrena izan zen. Marchena eta Martin–ek pikatu ondoren, Manuel Lucas Blanco–k hil zuen lehen saioan.

Uztailaren 12ko Madrileko korridan, Lizaso eta Perez Labordaren bi zezen jokatu zituzten. Bata suharra eta biguna. Marchena eta Martinek pikatu ondoren, Manuel Lucas Blanco–k ezpatakada batez hil zuen. Beste zezena ere suharra eta biguna suertatu zen. Aipatutako bi pikatzaileek lana egin eta gero, Mongek lehenengoan eraitsi zuen ezpataz.

Abuztuaren 2an ospatu zen Madrilen beste korrida bat. Gendulainen zezen bat eta Lizaso eta Perez Labordaren beste bat jokatu zituzten.

Gendulainenak zangartasuna erakutsi zuen plazan. Manuel Lucas Blancok hil zuen. Perez Labordarena berriz Mongek eta zezen hau ere suharra eta garbia izan zen.

Abuztuaren 6an Gendulain edo Lizaso eta Perez Labordaren beste zezen bat plazaratu zuten (zapigarrena zen) Madrilen. Mongek hil zuen zezen bizi hura[14].

Urriaren 25ean, Funes–eko zezenak korritu ziren Madrileko plazan dibisa zuri–horiz; Funes–eko markesa anderearen ganadutegikoak hain zuzen[9]. Cossio idazleak dioenaren arabera, urriaren 11n izan zen korrida hura[2].

Utz dezagun behingoz 1830. urtea eta gatozen 1831.era. Ikus ditzagun, gaingiroki bederen, zezenfesten nondik norakoak Nafarroako hiriburutik hasiera emanez.

1831. urtean, Udalak partikular baten esku utzi nahi izan zuen sanferminetako korriden antolakuntza. Baita pikatzaileentzat behar ziren zaldiak biltzeko ardura ere. Ez zen ordea deialdira inor agertu eta Udalak berak antolatu behar izan zuen guztia.

Iruñeko errotari gazteek bestetik, eskabidea zuzendu zioten Udalari lantzaz zezena hiltzeagatik dirua nahi zutela adieraziz. Udalak ezezkoa eman zuen, eta mendetan zehar zuten ohitura ez zen burutu urte hartan.

Horren ordainez edo, uztailaren 8ko goizean, probako korridan, bi zezen ordez hiru pikatu, banderilaztatu eta hilko zituzten. Arratsaldean, berriz, sei zezeni gauza bera egingo zioten eta segidan, etenik gabe, zazpigarren zezenari bi edo gehiago zezentxakur botako zitzaizkion, baldin eta aurreko zezenen bat oso koldarra atera eta hari botatzen ez bazizkioten.

Uztailaren 9an, aurreko egunean bezalaxe egingo ziren zezenfestak goiz eta arratsaldez.

Sanferminetarako ganadua biltzen ez zuten buruhauste handirik izan. Gutun berdina bidali zitzaien ganaduzale desberdinei, bakoitzari zortzi zezen berrogeitamarna durotan erosiko zitzaiola proposatuz. Ganaduzale bakoitzak aukeratuko zituen bere zezen–taldetik zein zortzi bidali.

Fausto Joakin Zalduendo, Felipe Perez Laborda eta Magdalena Gendulainek baiezkoa erantzun zuten. Magdalena Gendulain tuterarrak ordea zera jakin erazi zuen: berrogei zezen mardul eta ausart zituela, baina hiru urte t'erdikoak. Zalduendoren zezenek dibisa gorria erakutsi zuten, Gendulainenak urdina eta Perez Labordarenak zuria. Zezenek 19 zaldi hil zituzten korridetan guztira. Uztailaren 9ko goizean bestetik, probako lehen zezenak eserlekuetara salto egin zuen, eta Felizes Elizondo kabuak hil zuen bere ezpataz.

Zezenak toreatzera, Juan Jimenez *el Morenillo* etorri zen bere koadrilarekin. Antonio Calzadilla ekarri zuen ordezko ezpatari. Pikatzaile berriz, Juan Martin eta Manuel Gonzalez. Ordezko pikatzaile Anastasio Capon eta banderilari Jose Antonio Calderon, Gregorio Jordan, Rafael Rodriguez, Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka. Azken biak debarrak ziren, noski; urtero joaten zirenak.

Taldeburuak 34.000 errealetan egin zuen kontratua. Urre edo zilarrezko dirutan kobratuko zuen, eta ez paperezkoan[3].

Tuterako santanatan, 1831. urtean Manuel Romero *Carreterok* lan egin zuen Gendulainen ganadua toreatu eta ezpataz hilez[27].

Zaragozan berriz, 1831. urteko urriko festetan Zalduendo kaparrosoarraren eta Murillo ejeatarraren zezenak korritu ziren eta Manuel Romero *Carreto* joan zen hara ere bere koadrilarekin lanera.

Urte hartan, Antonio Ibarnavarro ganaduzale arnedoarra ez zebilen diruz ondo dirudienez, eta bere ondasun batzuk hipotekatuz, Azkoitian bizi zen Francisco Palacios jaunarengandik dirua jaso zuen[14].

Madrilen 1831.ean, zenbait korridatan nafar–zezenak toreatu zituzten. Apirilaren 25eko

korridan adibidez, Gendulainen bi. Lehenengoa Juan Martin eta Manuel Gonzalezek pikatu ondoren Francisco Montes *Paquiro* famatuak hil zuen bigarren saioan. Gendulainen bigarren zezena koldarra atera zen. Suzko lau banderila-pare sartu zizkioten eta Manuel Romerok hil zuen[43].

Maiatzaren 30ean, Lizaso eta Perez Labordaren izenean (azkeneko aldiz) bi zezen jokatu ziren Madrilen dibisa gorri-horiz. Lehenengoa suharra eta biguna zen. Juan Jimenez-ek hil zuen laugarrenean. Bigarren zezena, adarmotza eta suharra, Pedro Sanchez-ek hil zuen bigarren ezpatakadan.

Korrida berean, Gendulain-en beste bi zezen ere jokatu ziren. Lehenengoa, suharra eta biguna, hamar aldiz pikatu zuten. Bigarrenak zalditatik ihes egiten zuen eta suzko hiru banderila-pare sartu zizkioten. Francisco Montes *Paquiro* toreatzaileak, gero hain famatu izango zenak, abaniko-pase batzuk eta guraize-pase bat eman zizkion, gero ezpatakada batez hil aurretik[13].

Madrilen 1831.eko irailaren 7ko korridan ere, Gendulain tuterarraren bi zezen plazaratu zituzten. Lehenengoa seitan pikatu zuten eta Manuel Romerok lehenengo ezpatakadaz hil zuen. Gendulainen bigarren zezena bost bider pikatu ondoren, Francisco Montes-ek laupabost pase natural eman zizkion. Lehenengoan hil zuen *Paquiro*k.

Madrileko urriaren 17ko korridan, Gendulainen beste bi nafar-zezen jokatu ziren. Plaza erdibitu ondoren korritu zituzten bi zezenak aldi berean. Eskuin aldera ateratakoa suharra eta itsaskorra zen. Hamalau bider pikatu ondoren, Pedro Sanchez-ek ahal zuen bezala hil zuen azkenean.

Plazaren ezker aldera ateratako nafar-zezena ere suharra zen. Ormigok 14 aldiz pikatu zuen. Jose de los Santos-ek kapaz beronika eta nafar-pase batzuk osatu ahal izan zituen. Ezpatakada batez hil zuen gero[43].

Landetako korridetan, 1831.ean Darracq anaiek Laurede-n lehen aldiz *feinte* izeneko pasea osatu zuten[38].

Jose Cortes idazlearen adierazpena hona aladatuz ekingo diogu 1832. urteko berri-emateari. Izan ere hark dioenez Bilbon 1832. urteaz gero etenaldia izan zuten zezenfestek beste bederatzi urtean[56].

Iruñean berriz, 1832. urtean beldur ziren sanferminetako zezenfestak antolatzeko. Frantzian kolera hedatzen ari bait zen eta festetara kanpotik etorriko zen jendetzak kutsatuko zituzten beldur izatea ez da harritzekoa. Azkenean festak antolatzea erabaki zen ordea, eta 26 zezen eta 8 zezenko erosteko gutunak bidaltzen hasi zen Udaleko idazkaria. 47 duro ordainduko zituzten (oso gutxi) zezen bakoitzagatik, eta 30 zezenko bakoitzagatik.

Kaparrosoko Zalduendok erantzun zuen lehenbizi, eta zortzi zezen eta lau zezenko zerbitu zituen. Azkoien-eko Jose Bermejo ganaduzaleak hiru zezen (pikatuta hiltzeko) eta lau zezenko bidali zituen. Luis Lizasok berriz, bere ama alargunaren eta bere izenean beste zazpi zezen[3]. Kontutan hartu behar da Joan Antonio Lizaso jadanik hila zela eta Lizaso-Perez Laborda sozietatea ere hautsia zutela ordurako. Perez Labordak ez zuen urte hartan bere ganadurik inora bidali. Horrela, zituen zezenkoak zezen bilakatu ziren[14].

Magdalena Gendulainek Iruñeko Udalari aditzera eman zionez, bere iloba Xabier Gendulain bere alaba batekin ezkondu zen, eta Magdalenak ganadutegia aldi berean bere suhi eta iloba zen

Xabierren eta alabaren esku utzia zuen.

Laster, Xabier Gendulainek idatzi zien Iruñeko udalgizonei, zortzi zezen zerbituko zituela esanez; bost zaldiz pikatuta hiltzeko eta hiru pikatu gabe hiltzeko. Bost zezen lau urte t'erdikoak bidaliko zizkien eta hiru hiru urte t'erdikoak, aurreko urtean bezalaxe.

Xabier Gendulainek gainera, beste arazo bat ere plazaratzen zien. Sanferminetan izan ere lehenbizi Zalduendoren zezenak jokatzen zituzten, eta bera ez zegon ados Gendulain ganadutegiak antzinatasun handiagoa zuelako.

Sanferminetarako kartelak idatziak zeudenez gero, hurrengo urteetan berak zioena kontutan hartuko zutela erantzun zioten.

1832. urtean beraz, uztailaren 6an Zalduendoren bi zezen jokatuko zituzten. Uztailaren 7an Gendulainen beste bi zezen eta Zalduendoren lau zezenko. Uztailaren 8an arratsaldean, Lizasoren alargunaren eta semearen bi zezen eta Jose Bermejoren lau zezenko. Zezenko bolaztatuak gaztejendearentzat ziren, noski.

Uztailaren 9an, goizeko bederatzietan Zalduendoren hiru zezen eta Bermejo-ren bat plazaratuko zituzten. Arratsaldean Zalduendoren hiru, Lizasoren bat, Bermejoren bi eta Zalduendoren bolaztatutako beste bat errotari gazteentzat.

Uztailaren 10ean, arratsaldean, Gendulain eta Lizasoren zezenak toreatu eta hilko ziren.

Zezenak toreatzeko, Francisco Montes *Paquiro*ri dei egin zioten. 27 urte beteak zituen orduan, eta urtea betea zuen alternatiba hartuz gero. Dena den, fama handia bereganatua zeukan jadanik. Hari aurrea hartuko zion ezpataririk ez zegoen inon.

Montes-ekin kontratua egin zutenean ipinitako baldintzarik interesgarrienak hauek dira:

- Montes-i etorri ezina gertatuko balitzaio, Juan Jimenez edo konfidantzazko beste ezpatari bat bidaliko zuen ordez.

- 40.000 erreal kobratuko zituen eta koadrilako partaideak hauek izango ziren:

Antonio Calzadilla, ordezko ezpataria
Manuel Gonzalez pikatzailea
Francisco Ormigo "
Anastasio Capon ordezko pikatzailea
Jose Antonio Calderon banderilaria
Gregorio Jordan "
Rafael Rodriguez "
Juan Martin "
Antonio Ituarte "
Jose Bentura Laka "

Azken bi hauek Montesen agindupean arituko ziren, baina Udalak zuzenean ordainduko zien beren lana. Luis del Campo-k dioenez, Jose Bentura Laka ez omen zen Iruñera urte hartan joan eta bai Jose Ituarte eta Migel Goñi. Izan ere agiri batek dioenez: *A Jose Ituarte y a Miguel Goñi, toreros aficionados de Deva y San Sebastian que se presentaron voluntariamente a torear y fueron*

admitidos por el Ayuntamiento se les da a onza de oro a cada uno. Eta beste agiri batean: *Por pagados a los dos toreros aficionados Provincianos 640 reales.* Gure ustez Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka, Montes–en koadrilan arituko ziren eta handik kobratuko zuten. Baina aparte, Jose Ituarte (jadanik 23 urte zituen) eta Goñi joango ziren menturaz toreatzera. Beraz, gure eritzian Antonio Ituarte bere seme Jose, Bentura Laka eta Migel Goñi joan ziren toreatzera.

Francisco Montesen lanaz erabat gustora gelditu ziren ikusleak. 880 erreal eman zizkioten zezenak trebetasunez hiltzeagatik eta gainera Udaleko idazkariak honela idatzi zuen:

Montes dagoen onena da. Aspaldian ez da ikusi horrek bezala toreatzen. Lehengo toreatzaile famatu zaharren patxada du. Aurretik hots eginda zezenaren gainetik salto egiten du.

Sanferminak pasa ondoren bestetik, Montesi 1000 errealeko saria bidali zioten Madrilera.

Iruñeko errotariek, eskea egin zioten Udalari korrida bakoitzean lantzaz hiltzeko zezen bat eman ziezaioten. Lantzaz jo aurretik gainera, zezena bi errotarik zaldiz pikatu nahi zuten.

Uztailaren 9an Zaldudendoren zezen bolaztatu bat zaldiz pikatu eta lantzaz jota hil zuten errotariek. Uztailaren 10eko azken zezenari ordea, eskuineko adarra hautsita bola galdu egin zitzaion. Horregatik ez zieten utzi errotariei hiltzen. Errotariei 200 erreal eman zizkieten.

Uztailaren 9ko korridaren bukaeran, azken zezenean, eserlekuetan zegoen jendearen eta soldaduen artean istiluak eta zaurituak izan ziren[3].

Zaragozan, urrian Ibarnavarro eta Zalduendoren nafar–zezenak toreatu eta hil zituen Francisco Montes *Paquiro*k. 31.600 erreal eman zizkioten taldeburu zenez[14].

Nafarroako Korellan, 1832. urtean, zezenplaza berri biribila egin zuten[65]. Gaur egun ere zutik dirauen plaza berbera da eta 5.000 ikuslerentzako lekua du. Zenbaitek dioenez Miguel Poyales korellarrak eraiki zuen[10].

1833.urtean, Hernani–n sanjoanetako nobilladan gastu batzuk egin zituen Udalak. Banderilak prestatzeko adibidez, papera 7 erreal ordaindu zuen eta makilak 14 erreal. Hiru gabarrakada hondar berriz, 48 erreal. Soldaduen askarirako 44 erreal eman zituen. 50 ezten–hagagatik zortzina marai, eta toreatzaileentzako hiru kapotegatik 72 erreal.

Inguruko baserrietatik hiru zezen ekar erazi ziren Hernanira. Ganaduzaleei (bazkaria barne), biri 250na erreal eta besteari 220 erreal ordaindu zitzaizkien. Gainera Astigarragatik ekarritako zezenkoa 150 erreal kostatu zen.

Kanpotik dantzariak ekarri zituen Udalak hiru egunerako festak alaitzearren. Haiek beste 120 erreal kostatu ziren[66].

Egun batzuk geroago, 1833.eko sanferminetan, urtero bezala korridak ospatu ziren Iruñean. Zortzina zezen bidali zituzten horretarako Zalduendo, Perez Laborda eta Gendulainek berrogeitazazpina durotan. Beste lau zezenko ere ekarri ziren (bi Zalduendorenak eta bi Perez Labordarenak) hogeitamabina durotan.

Gehiegi ez luzatzearren, ez ditugu hemen zezen bakoitzaren xehetasun guztiak emango. Dena dela, ondoko koadroan zeinen zezenak noiz jokatu ziren adierazten da.

Eguna	Gendulain (dibisa gorria) Pikatuak	Pikatu gabeak	Zalduendo (dib. urd.) Pikatuak	Pikatu gabeak	Perez Laborda (dib. zuria) Pikatuak	Pikatu gabeak
Uzt. 6a		2				
" 7a				2		
" 8a. Proba	1		1		1	
" 8a Korrida	2		2		2	1
" 9a Proba	1		1		1	
" 9a Korrida	2		2		2	1
Guztira	6	2	6	2	6	2

Zezenak toreatzeko, Francisco Montes famatua kontratatua zegoen. Zer koadrila ekarriko zuen ere erabakia zegoen: Antonio Calzadilla ordezko ezpatari, hiru pikatzaile (bat ordezkoa) eta bost banderilari (hauetako bi Antonio Ituarte eta Jose Bentura Laka debarrak). 40.000 erreal kobratuko zituen Montes–ek.

Paquiro handiari ordea, Madriletik irteten ez zioten utzi, eta Iruñeko Gaztelu–plazan ezin izan zuten sekula izan den toreatzailerik onenetakoa lanean ikusi.

Francisco Montes *Paquiro*ren ordez Juan Jimenez *el Morenillo* etorri zen ordezko bi ezpatari (Antonio Calzadilla eta Juan Pastor) koadrilan zituela. 40.000 erreal (*de vellon*) edo 21.250 erreal fuerte kobratu zituen Jimenez–ek. Gainera, zilarrezko bost erreal ere eman zizkieten taldeburu eta ordezko bi ezpatariei ondo hildako hamar zezenengatik.

Ituarte banderilari debarra menturaz joan zen Iruñera toreatzera, eta udalgizonek baldintza bat ipini zioten horretarako: Montes–en saltoa zezen gainetik ematea; zezenari aurretik deitu eta gainetik saltatzea alegia. Ituarate debarrak bi aldiz saltatu zuen zezen gainetik eta 297 erreal eta 8 marai sari gisa eman zizkioten. Horretaz gain Madriletik etorritako taldeburuak emandakoa jasoko zuen[3].

Ez da ahaztu behar XVIII. mendean B. Alcalde faltzestarrak, *Martintxo*k, Apiñani–k eta abarrek zezen gainetik saltatzen oso iaioak zirela.

Dena den, gure ustetan zezen gainetik salto egindakoa Jose Ituarte debarra zen, eta ez Antonio Ituarte bere aita. Aitak izan ere berrogeitamabi urte zituen orduan, eta semeak hogeitalau, hurrengo kapituluan frogatuko dugunez. Gainera urte hartantxe abuztuan Donostian Jose Ituartek Montes–ek bezala hagaz zezen gainetik salto egin zuen horrela saria irabaziz, geroxeago esango dugunez. Antonio Ituarte aita beraz, adinagatik ez zen salto haiek egiteko sasoian.

Beste arazo bat, zezen gainetik emandako salto–mota da. Montes–ek bere *Tauromaquia*n, hiru mota deskribatzen ditu: hagaz (Joanito Apiñani–k bezala), adar gainetik eta hanka zezenaren buruan ipinita (*Faltzeseko ikasle*ak bezala). Donostian hagaz egin zuela garbi adierazten denez gero, Jose Ituartek Iruñean 1833.eko sanferminetan ere halaxe egingo zuela pentsatzen dugu.

Horretaz aparte, bigarren korridan (uztailaren 9an) errotari gazteek zezen bolaztatu bat oinez pikatu zuten beren ohiturari jarraituz. Zezenaren okelak balio zuena (42 erreal eta 18 marai) eman zieten.

Urte hartan, uztailaren 8ko korridan Antonio Sola mariskal eta erretorde jaunak bota zuen giltza. Uztailaren 9an euria egin zuen, baina hala eta guztiz ere korrida eman egin zuten[3].

Bestetik, garai hartan elkartu omen ziren Jose Bermejo azkoiendarra eta Pedro Matias Elortz biak batera ganadutegi bat osatzekotan[10].

Tuteran berriz, 1833. urteko santanatan Gendulain eta Lizaso hiritarren zezenak jokatu zituzten. Manuel Romero *Carreto* etorri zen toreatzera aurreko urteetan bezalaxe[28]. Badirudi ordea Lizasoren zezenak ez eta Perez Labordarenak (sei) zirela toreatu zituenak; bi zezen uztailaren 26an eta lau 27an.

Logronioko sanmateotan, Lizaso eta Perez Labordaren (artean bien izenean zeudenak) sei zezen toreatu zituzten.

1833. urtean Donostiako Plaza Berrian korridak izan ziren abuztuan. Udaletxeko plazan jokatzen ziren sokamuturra eta zezensuzkoa. Korridak emateko ordea, plaza ez zen egokia. Barrerak ez ziren egokiak batetik, zezenek salto eginda arriskua sortzeko modukoak zirelako. Bestetik, pikatzaileek zaldiz aldatzeko ez zuten aparteko lekurik eta plazan bertan egin behar izaten zituzten aldaketa guztiak.

Dena den abuztuaren 17an, arratsaldean, Perez Labordaren bi zezen eta Zalduendoren beste bi korritu ziren. Lehenengoa tuterarrarena zen eta zortzi bider pikatu zuten. Montes-ek (*Paquirok*) hil zuen ezpatakada bikain batez. Zalduendo kaparrosoarrarena zen bigarrena; oso zangarra. Hogeitan joan zen zalditara eta bi hil ere egin zituen. Martin eta Gonzalez ziren pikatzaile. *Joselillok* hirugarrenean hil zuen zezena.

Hirugarren zezena, Perez Labordarena, seitan joan zen zalditara, Francisco Montes toreatzen ari zela, muleta kendu zion. Toreatzaileak orduan sudurzapia atera eta deitu ondoren zezena zetorkiola ezpataz kordegabetu eta hil zuen. Oso txalotua izan zen.

Laugarren zezena, kaparrosoarrarena, biguna zen eta lau pikaldi jo zizkioten. *Joselillok* hirugarren ezpatakadaz hil zuen.

Abuztuaren 19an, goizean Zalduendoren bi zezen eta Perez Labordaren bat korritu ziren Donostian. Lehenengoa (Zalduendorena), 17 aldiz eraman zuten zalditara eta Mongek hil zuen ezpata lehenengoan behean sartuta.

Bigarrena (Perez Labordarena) txikia eta oso suharra zen. 20 aldiz pikatu zuten eta Gonzalez zalduna lurrera bota zuen zezenak halako batean. Santos-ek (Jose de los Santos-ek) ezpata behe samarrean sartuta hil zuen.

Hirugarren zezena, koldarra suertatu zen. Nola edo hala hamar bider eraman zuten zalditara. Montes-ek ezpatakadaerdiz eta deskabelloz hil zuen. Zezen hau kapaz ondo toreatu zuen, eta gainetik salto egin zion.
Arratsaldean, Zalduendoren sei zezen jokatu zituzten Donostiako plaza berean.

Abuztuaren 20an, goizean Felipe Perez Laborda tuterarraren hiru zezen plazaratu ziren dibisa zuriz, eta arratsaldean beste sei. Plaza jendez erabat betea zegoen. Teilatuak ere bai. Zortzi edo bederatzi mila pertsona egon ziren begira. 107 balkoi zituen plazak inguruan, 10 udaletxeak (gaur

egun ere bai) eta zurezko beste 60 berri egin ziren.

Goizeko lehen zezena, indartsua eta oso zangarra. Montes–ek laugarren ezpata–kolpeaz eraitsi zuen. Zezena saritzat eman zioten. Bigarren zezena are eta zangarragoa suertatu zen. Martin eta Jose Salcedo pikatzaileak (bata bitan eta bestea hirutan) lurrean bueltaka ibili ziren. 18 aldiz pikatu zuten eta Santos–ek hirugarren saioan hil zuen ezpataz. Hirugarrena 11 aldiz joan zen zalditara. Montesek ezpata behean sartuta hil zuen, baina ezpata eskuan zuela gelditu zenez gero askok ez zuen akats hori ikusi eta txalo jo zioten. Zezena sari gisa irabazi zuen.

Arratsaldeko korridaren berri eman dezagun orain. Perez Labordaren lehen zezenak suhartasuna eta indarra erakutsi zuen. Berehala bueltatzen den horietakoa zen; *itsaskorra* esango genuke. Hamaseitan joan zen zalditara. Martin pikatzailea bi bider bota zuen, Salcedo hiru bider, eta Gonzalez beste behin. Montes–ek ezkerreko hanka belaunikatuta pasea eman zion. Bigarrenean hil zuen eta zezena saritzat eman zioten.

Bigarren zezena biguna zen. Hamaika aldiz joan zen zalditara. Santos–ek bi aldiz sartu zion ezpata eta gero hamar deskabello–kolpe jo zizkion. Saritzat eman zioten.

Hirugarren zezena txarra suertatu zen. Bi aldiz eraman zuten zalditara eta suzko sei banderilak ipini zizkioten. Debako zapatariaren semeari (beraz Jose Ituarteri: Antonio Ituarteren semeari) saritzat eman zioten, Montes–ek bezala hagaz zezen gainetik oso garbi saltatzeagatik.

Laugarren zezena, zalditara eraman ahala bizkortu egin zen. Hamabi aldiz pikatu zuten. Santos–ek hil zuen bigarren saioan. Zezena saritzat eman zioten.

Bostgarren zezena, indartsua eta suharra, baina kontuzkoa zen. Martin pikatzailea lurrera gogor bota zuen. Zortzi aldiz sartu zioten ezten–haga. Montes–ek ezpatakada batez hil zuen. Saritzat zezena eman zioten.

Seigarren zezena zangarra eta irrikitsua zen. Bi zaldi hil zituen hamar pikalditan. Santos–ek seigarrenean hil zuen ezpataz.

Abuztuaren 20an, goiz eta arratsalde 18 zaldi hil ziren Donostiako plazan zezenetan. Pikatzaileek nahikoa lana izan zuten, eta banderilariek lan asko eginak ziren; *bizkaitarrak* ziren banderilari langile haiek Madrileko kronistak zioenez. Montes–ek berriz, guztiak txunditurik utzi zituen; belauniko emandako paseez batipat. Bizkar gainean atera zuten plazatik amaieran.

Donostian printze errusiar aberats bat ere ba omen zen korridatan. Argazkia ateratzea eta toreatzeko trajea–eskatu omen zizkion Francisco Montes *Paquiro*ri, ondo ordainduko ziola adieraziz. Montes–ek berriz, ekainaren 22an Madrileko erret korridan erabili zuen trajea eskaini zion, hobea zela eta[14].

Madrilen 1833. urteko ekainaren 22an hain zuzen, gero erregina izango zen Maria Isabel Luisa Borbon printzesaren tronurako oinordekotzaren zina ospatzeko erret korrida bat jokatu zen Plaza Nagusian (ez Alcala–ko portale inguruko plaza biribilean). Antzinako erako erret korrida izan zen; XVII. mendean plaza berean egiten zituztenen modukoa; zaldunen burtziketa eta guzti. Pikatzaile eta ezpataririk onenak ere han ziren. Ezpataritan, Juan Leon, Juan Jimenez, Manuel Lucas Blanco, *Paquiro*, Frantzisko Ezpeleta (cadiztarra) etab.

Zezenak berriz, ganadutegi askotakoak izan ziren. Iragarkiak zioenez, bi zezen Justo

Ibarnavarro tuterarrarenak aterako zituzten dibisa berdez[2]. Geroko kronikan irakur daitekeenez, hirugarren plazaratutako zezena Ibarnavarrorena izan zen. Hamaika burtzitxo ipini zizkioten zaldunek, baina zezenak bi zaldun lurrera bota zituen. Lucas Blanco–k hil zuen ezpatakada batez[43].

Eta guk, Isabel erregetzarako bidean ipintzeagatik ospatu zen korrida honekin emango diogu bukaera kapitulu honi. Izan ere lehen karlistada altxatzear zegoen, eta gerrarekin batera Euskal Herriko zezenfestek atzerakada izango zuten hainbeste urtean iraun zuten Foruekin batera.

10.- ZEZENAK XIX. MENDEAN: LEHEN HERENA (1801-1833). BIBLIOGRAFIA

(1) AGIRRE FRANCO, RAFAEL. *Juegos y deportes vascos.* Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. Auñamendi argit. Donostia 1971 (469, 470, 477. orr.)

(2) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (315, 431, 647, 683, orr)

(3) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona. 1800-1843,* in Cuadernos de Etnologia y Etnografia de Navarra. 40. alea. 1982. Iruñea (512, 514, 518, 520, 521, 523, 524, 526, 528, 530, 531, 533, 534, 539-550, 552-557, 559-568, 570-579, 595-702. orr.)

(4) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y toros. Siglo XVIII.* La Accion Social argit. Iruñea 1972 (114, 137, 138, 323, 325-327. orr.)

(5) POPELIN, CLAUDE. *Los toros desde la barrera.* Rialp argit. Madril 1966 (186, 218. orr.)

(6) XX. *Bilbao,* in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 5. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (131. orr.)

(7) HUMBOLDT, GILERMO. *Los Vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el pais vasco en primavera de 1801,* in RIEV 1924. 15. alea. (299, 300, 394-399. orr.)

(8) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia General del Señorio de Bizcaya.* 7. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1970 (23,59,86,87. orr.)

(9) ORTIZ-CAÑAVATE, LORENZO. El toreo español, in Folklore y costumbres de España. Lehen alea. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931. (452-455, 463, 464, 467, 477. orr.)

(10) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra,* in Principe de Viana 1941. Iruñea (380, 388, 395, 398-401, 403. orr.)

(11) HERRANZ ESTODUTO, ALFONSO. *Origenes de la plaza de toros de Zaragoza (1764-1818).* Zaragoza 1978 (36, 44, 45, 51, 54, 56. orr.)

(12) LAFORCADE, MICHAEL. *La tauromachie dans le Soud-Ouest de la France.* Mendi Martzana 1984 (58-61. orr.)

(13) XX. *Diccionario Geografico-Historico de España.* Lehen taldea, lehen alea. Real Academia de la Historia. Madril 1802 (141. orr.)

(14) PEREZ LABORDA, BIZENTE. *Historia de una Ganaderia Navarra de toros bravos en el Siglo XIX de Tudela (Navarra).* Tutera 1980 (7, 9, 10, 15-19, 21, 28-38, 40, 41, 43, 44, 47, 48, 51-53, 55, 56, 59-101, 107, 123-127, 153, 192. orr.)

(15) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (82. orr.)

(16) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande.* Imprenta alemana argit. 1916. (25, 28. orr.)

(17) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella,* in Principe de Viana 1942 (318. orr.)

(18) CAMPO, LUIS DEL. *El encierro de los toro. Navarra* Temas de cultura popular. 25. alea. Iruñea 1968 (7. orr.)

(19) HEROS, MARTIN DE LOS.*Historia de Valmaseda.* Bilbo 1926. (453. orr.)

(20) ERENTXUN ONZALO,JOAN. *Apuntes historicos de la Villa de Santa Cruz de Cestona.* Zarautz 1948 (63. orr.)

(21) ZUFIRIA, J. *Prohibicion de fiestas en las que hubiere toros o novillos de muerte,* in Euskalerriaren alde 1914. Donostia (146-148. orr.)

(22) ELIAS, IMANOL. *Guia historica y taurina de Azpeitia.* Azpeitia 1986 (355-361. orr.)

(23) ZIRIKIAIN-GAIZTARRO, M. *Monografia historica de la Muy Noble Villa y Puerto de Portugalete.* Bizkaiko Diputazioa. Bilbo 1942 (149, 150. orr.)

(24) XX. *Eibar,* in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 10. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (230. orr.)

(25) ZABALA, FEDERIKO eta GARMENDIA LARRAÑAGA, JOAN. *Tolosa.* Donostiako Aurrezki-

Kutxa. Donostia 1970 (84. orr.)
(26) MULAS PEREZ, I. *Toros. Introduccion a la verdad del toreo.* Avesta S. A. argit. Bartzelona 1982 (147. orr.)
(27) CAMPO, LUIS DEL. *La Iglesia y los toros.* Navarra. Temas de cultura popular. 234. alea. Iruñea 1975 (5, 17. orr.)
(28) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* Lehen alea. Tutera. 1913 (266, 311, 312. orr.)
(29) MURUGARREN, LUIS. *San Sebastian. Donostia.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1978 (87, 91. orr.)
(30) ELORTZA MAIZTEGI, XABIER. *Tauromaquia placentina.* Herriko festetarako programa. Soraluze 1982 (z/g)
(31) SILVAN, LEANDRO. *Lezo.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (75. orr.)
(32) MUJIKA, SERAPIO. *Las Calles de San Sebastian.* Donostiako Udala argit. Donostia 1965 (184-188. orr.)
(33) LUENGAS OTAOLA, VICENTE. *El Santuario de Garrastachu en Barambio,* in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1981 (567, 568. orr.)
(34) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Iruñea. Zezentoki-etxea.* Iruñeko Udala argit. Iruñea 1985 (33, 34. orr.)
(35) MURUGARREN, LUIS. *Usurbil.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1974 (74. orr.)
(36) IMAZ, JOSE ANTONIO. *Ataun.* Donostiako Aurrezki-Kutxa. Donostia 1975 (55. orr.)
(37) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer.* Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (19, 20. orr.)
(38) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (50, 131. orr.)
(39) MUJIKA, SERAPIO. *Administracion municipal antigua de San Sebastian,* in Euskal Erria 1898. 37. alea. Donostia (13, 14. orr.)
(40) MOURLANE MITXELENA, PEDRO. *Estampas del sokamuturra en Guipuzkoa,* in La Gran Enciclopedia Vasca. 8. alea. Bilbo (286. orr.)
(41) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1978 (73, 452, 707, 708. orr.)
(42) YANGUAS Y MIRANDA, JOSE. *Diccionario historico-politico de Tudela.* Zaragoza 1828 (107, 108, 217. orr)
(43) COSSIO, FRANCISCO DE. *Los toros.* 8. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1986 (120, 135, 136, 138-140, 152, 161, 162, 177, 178. orr.)
(44) OKAMIKA GOITISOLO, FRANTZISKO. *La Villa de Lequeitio (ensayo historico).* Bizkaiko Diputazioa argit. Bilbo 1965 (216, 220, 225. orr.)
(45) "SANTA TERESA, FRAI BARTOLOME". *Euscal-Errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba.* Hordago argit. Donostia 1978 (145. orr.)
(46) ETXEGARAI, JOSE BIZENTE. *Festara.* Auspoa bilduma 35-36. alea. Tolosa 1964 (48-51. orr.)
(47) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Calendario alaves,* in Boletin de la Institucion Sancho el Sabio. Gasteiz 1970 (318. orr.)
(48) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Temas vizcainos 102. alea. Bizkaiko Aurrezki-Kutxa argit.. Bilbo 1983 (7. orr.)
(49) ALVAREZ OSES, JOSE ANTONIO. *Notas de Etno-Historia guipuzcoana,* in Munibe 1967. Donostia (129. orr.)
(50) ALENDA Y MIRA, JENARO. *Relaciones de Solemnidades y fiestas publicas en España.* 2. alea. Madril 1903. (209, 212. orr.)
(51) GIL GOMEZ, LUIS. *Anecdotario Ribereño.* Navarra. Temas de cultura popular. 134. alea. Iruñea 1972 (27, 28. orr.)
(52) MUTILOA POZA, JOSE MARIA. *Roncesvalles en Guipuzcoa.* Lehen alea. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1976 (207, 273. orr.)

(53) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (10, 11. orr.)
(54) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipuzcoa*. Donostia 1974 (53-56. orr.)
55) AGIRRE, JOAN BAUTISTA. *Jesu-Cristo, eta Virgiña chit santaren misterioen eta beste cembait gaucen gañean eracusaldiac*. Hirugarren liburua. Hordago argit. Donostia 1978 (423. orr.)
(56 CORTES, JOSE. *Historia de la plaza de toros de Vista-Alegre*. Bilbo 1895 (9. orr.)
(57) OLAETXEA, JOAN B. *Zumaya*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (89, 90. orr.)
(58) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Tauromaquia Vasca*. Deba. Herriko festetarako programa. 1977.eko abuztua (z/g).
(59) X,X. *Comparsas y festejos en San Sebastian*. Euskal-Erria 1885. 12. alea Donostia (113-115. or.)
(60) BALEZTENA, INAZIO. "PREMIN DE IRUÑA". *Las ganaderias de Navarra*, in Vida Vasca 1932 (105. orr.)
(61) AROZENA, ANTONIO. "DON CLARINES". *Cuando Fernando VII gastaba paleto...*, in Vida Vasca 1953 (198, 199. orr.)
(62) ITURRIZA ZABALA, JOAN RAMON eta AZKARRAGA REGIL, MANUEL. *Historia de Vizcaya*. Bilbo 1885 (778. orr.)
(63) VELASCO, LADISLAO. *Memorias de la Vitoria de antaño*. 2. argit. Gasteiz 1889 (343-345. orr.)
(64) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (906, 907. orr.)
(65) PINTO MAESO, LUIS . *Plazas de toros de España*. Pinmas argit. Madril 1981 (76, 77. orr.)
(66) MURUGARREN, LUIS. *Hernani. Su historia e instituciones*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (68. orr.)

11.-ZEZENAK XIX. MENDEAN: BIGARREN HERENA (1834-1866)

XIX. mendearen bigarren herenaren hasierarekin batera, lehen karlistada lehertua zen. 1.833. urteko irailaren 23an Fernando VII.ari heriotz ordua heldu zitzaion eta urrian jadanik gerra altxatua zen.

1.834. urtean, Euskal Herrian karlista eta liberalen arteko gatazka gori-gori zegoen. Ez zen beraz zezenfestetarako garai egokia. Ez da harritzekoa bada urte hartan Iruñean[1], Tuteran[2] eta Euskal Herriko beste hainbat herritan ohizko zezenak ez izatea.

Dena den, Nafarroako Erribera aldean karlista eta liberalen arteko gerran badirudi lasaitasun gehixeago izan zutela. Izan ere hango ganadutegietatik zezenak bidali bait zituzten Zaragoza eta Bartzelonako plazetara festetarako.

Zaragozan urriaren 13 eta 14ean izan ziren korridak. Francisco Montes-en taldean, Juan Pastor (ordezko ezpataria), Juan Martin, Jose Salcedo (pikatzaileak), Anastasio Capon (ordezko ezpataria), Gregorio Jordán, Jose Antonio Calderón, Rafael Rodriguez eta Felipe Usa (banderilariak) joan ziren. 31.147 erreal kobratu zituen Montes-ek taldearen izenean.

Toreatzeko zezen guztiak, Tuteratik eraman zituzten, 24.720 erreal ordainduta. Hiru ganadutegitako zezenak (denak bost urte betetakoak) nahasian jokatu ziren urriko bi egun haietan.

11.1. irudia. Sokamuturra Hernanin. Sidney Croker-en litografia. 1.834.

Hona hemen ganadutegi eta zezenen xehetasunak:

Xabier Gendulainen zezenak. Dibisa gorria, burdin marka Xj:

Cocinero: Bizkarnabarra, hankabarren beltzak, ongi armatua
Presidiario: Beilegia, aurrera-adarduna

Trujalero: Gorriluna, ongi armatua
Ceacero: Larru nabarra bizkarrean, hankabarren beltzak, ongi armatua
Cerragero: Gorriluna, zerbait argia, ongi armatua
Peregrino: Bizkarnabarra, betinguru beltzak, ongi armatua
Espadero: Gorriluna, ongi armatua
Sargento: Horiska iluna, ongi armatua.
Soberakoa, *Macareno*, beltz fina, zerrenda nabarra bizkarrean, adarzabala.

Felipe Perez Labordaren zezenak. Dibisa zuria. Burdin marka P.

Laureano Ibarnavarrok bere aitak egindako hipoteka batzuk ordaindu zituen, baina laster hil zen Laureano jauna[3].

———— o ———— o ————

1.835. urtean ere, gerrak zirauenez gero ez zen zezenfestarik egin sanferminetan Iruñean. Nikolas Laburu eta Naclares bilbotarrek, animalia arraroak erakutsi omen zituzten Estafeta kalean. Hernaniko Zamalburu baserrian jaiotako bi urte t'erdiko zezenkoa zen animalia haietako bat. Bost hanka eta hiru belarri omen zituen[4].

Tuteran 1.835.ean, korridarik ezean nobillada eman zen santanatan. Dantzak suak etab. ere izan ziren[5].

Zaragozan, jendearen kolera medio ez zen nafar–zezenik korritu urriko festetan. Bartzelonan bai ordea. Han maiatz, ekain eta uztailean bost korrida jokatu ziren.

Maiatzaren 28an, Tuterako Xabier Gendulainen 3 zezen, Kastejon–eko Ibarnavarroren alargunaren 3 zezen eta Tuterako Felipe Perez Labordaren beste 3 plazaratu zituzten.

Ekainaren 7an, Ejeako Jose Murilloren bi zezen, Xabier Gendulainen beste bi eta Perez Labordaren beste bi toreatu zituzten.

Ekainaren 14eko korridan toreatu eta hildako zezenak hauek izan ziren:

– Gendulainen hiru, dibisa gorriz.
– Perez Labordaren hiru, dibisa zuriz.
– Murilloren bat, dibisa urdin argiz.

Peluquero. Horiska, begibeltza, satai onekoa, ongi armatua.
Atrebido. Gorriluna, larru eta kopeta horiska, ongi armatua, ile kizkurra muturrean.
Sierpe. Horiska, hankapunta gorrilunak, satai onekoa.
Cadete. Horiska, begibeltza, satai onekoa.
Violento. Horiska, muturbeltza, ongi armatua.
Corsario. Gorriluna, adarlaburra.
Lobo. Horiska, begibeltza, adarluzea eta indartsua.
Estudiante. Beltza, bizkar gorriluna, ongi armatua.
Soberakoa, *Presidiario*, gorriluna, larru nabarra, ongi armatua.

Lizaso–ren alargun eta Luis Lizasoren zezenak. Dibisa berdea. Burdin marka L:

Estreneño. Beltza, zerrenda horiska bizkarrean, ongi armatua.
Botiguero. Horiska, ongi armatua.
Contrabandista. Gorriluna, ongi armatua.
Jabonero. Gorriluna, larru nabarra bizkarrean, ongi armatua.
Confitero. Horiska, ongi armatua.
Zafranero, Beilegia, ongi armatua.
Carabinero. Gorriluna, ongi armatua.
Bastero. Beltza, zerrenda nabarra bizkarrean, ongi armatua.

Zaragozan, egun bakoitzean goizean lau zezen (bi pikatuak) eta arratsaldean zortzi (denak pikatuak) hil zituzten.

Bartzelonan, 1.834. urteko maiatzean zezenplaza berria egiten hasi ziren, eta urte bereko uztailaren 22an lehen korrida eman zen. Gero, uztailaren 25, 26 eta 27rako hiru korrida iragarri zituzten. Horretarako, 21 zezen erosi zizkieten honako ganaduzale hauei: Longinos Ibarnavarro, Felipe Perez Laborda, Xabier Gendulain eta Lizasori (Lizasoren alargunari eta Luis Lizasori).

Uztailaren 25eko korrida uztailaren 28ra aldatu zuten eta Juan Martinez *el Ratón* toreatzaileak hiru zezenetan saltoa egingo zuen ezten-hagaz. Juan Hidalgo eta Manuel Romero ezpatariek parte hartu zuten.

Bide batez, esan dezagun 1.834.ean Antonio Ibarnavarro ganaduzale arnedoarra hil egin zela. Bi seme zituen: Longinos eta Laureano. Horregatik jokatu ziren Bartzelonan zezenak Longinos semearen izenean. Bestetik, zezenak toreatzera eta hiltzera, Manuel Romero *Carretero* eta Rafael Guzman joan ziren. Ordezko ezpatari, Antonio Calzadilla izan zen. Jose Salcedo, Antonio Rodriguez eta Julian Diaz aritu ziren zaldi gainetik pikatzen.

Enpresak iragarri zuenez, zezentxakurren ordez suzko banderilak erabiliko ziren lehendakariak agintzen zuenean.

Uztailaren 5ean, Bartzelonan, urte hartako laugarren korrida eman zen. Gendulainen hiru zezen eta Felipe Perez Labordaren beste hiru plazaratu zituzten. Korrida hartan, hiru pikatzaileak batera egon ziren plazan.

Uztailaren 12an beste korrida bat (bostgarrena) eman zuten Bartzelonan. Lehen zezena, Manuel Romero ezpatariak pikatu zuen zaldi gainetik. Pikatzaile gisa jantzi zen horretarako. Rafael Guzman ezpatariak sartu zizkion gero banderilak eta Romerok hil zuen pikatzaile jantzian. Egun hartan, Gendulainen hiru zezen eta Perez Labordaren beste hiru plazaratu zituzten.

Uztailaren 25ean, beste korrida bat ospatu zuten Bartzelonan. Kaparrosoko Fausto Joakin Zalduendoren sei zezen toreatu eta hil zituzten. Zezenak oso koldarrak suertatu ziren ordea, eta jendea asaldaturik inguru guztiak txikitzen hasi zen. Azken zezena arrastaka atera zuten kalera eta komentuak bipiltzen ere aritu omen ziren. Istilu haien ondorioz, agintariek Bartzelonako zezenplaza itxi egin zuten eta halaxe segitu zuen beste hamabost urtean[3].

Madrilen berriz, uztailaren 6an, dibisa laru eta morez Arnedoko Longinos Ibar Navarroren zezenak toreatu zituzten[6].

1.836. urtean, gerrak irauten zuenez gero Euskal Herriko hiri eta herrietan ez zuten ohizko korridarik antolatu. Iruñean[1] Tuteran[2] eta beste hainbat lekutan ez zen zezenik jokatu. Gehienez ere

sokamuturra ibili zen kalez kale festak ospatu nahian, Donostian urtarrilaren 20an egin zutenaren antzera[7].

Nafarroako Erriberatik Zaragozarako bidea ordea, libre zegoen eta han urtero bezala 1.836. urtean ere Ama Birjina urrikoaren omenez nafar–zezenak korritu zituzten. Tuterako Perez Laborda eta Ejeako Murillo–ren zezenak (900 erreal kostatu zen bakoitza), Francisco Montes *Paquirok* toreatu eta hil zituen Pedro Sanchez ordezko ezpatari eta bere koadrilaren laguntzaz. Toreatzaileen maisu famatu hark, 30.800 erreal kobratu zituen beretzat eta taldearentzat[3].

Francisco Montes–ek gainera, urte hartantxe (1.836.ean) bere *La tauromaquia completa o sea el arte de torear en plaza, tanto a pié como a caballo* izeneko liburua argitaratu zuen Madrilen. Dirudienez, *Paquiro*ren esanei jarraituz Santos Lopez Pelegrin jaunak (*Abenamar* izenordea erabili ohi zuenak) idatzia izan zen. Korridetako lantze, arau eta gorabehera ugariz hornitua da tauromaki tratatu aberats hau[8].

1.837. urtean ere karlistada pil–pilean zegoen Euskal Herrian. Iruñean dena den, Konstituzioaren aldarrikapena ospatzekotan, ekainaren 15ean agindu bat jaso zuten. Plaza itxita nobillada bat izango zuten, eta horretarako Gendulain tuterarrari gutxienez lau urteko zortzi zezen eskatu zizkioten; bakoitza mila errealean. Aldarrikapen–egunean eta sanferminetan korritzeko asmoa zuten.

Giroa ez zegoen ordea festetarako, eta dena bertan behera utzi zuten[1]. Izan ere gerrako su, tiro eta zezenak beste era batera aipatzen zituen orduan jendeak. Liberalek Urnieta erre zutenean, hara norbaitek ipinitako bertsoen arteko batek dioena:

Frantzesa ta inglesa, berriz
zezenak ikusten dabiltz,
barrera gañetik irriz,
garrotxa tira, eskua gorde
egin digute bost aldiz;
eru kontsideratzen balitz
balio luke txit aunitz,
buru gogorrik ez balitz.[9]

Bilbon ere karlista eta liberalen arteko gerran jendea elkar hiltzen ari zen. Alargun eta umezurtzak nonnahi ari ziren sortzen. Baita Bilboko herri barruko liberalen artean ere. Haiei laguntzearren, Madrilen liberalek korrida bat antolatu zuten martxoaren 12an[10].

Madrilen 1.837.ean zezen–korridak normaltasunez ospatu ziren. Martxokoaz gain beste hauek ere aipagarriak dira:

- Uztailaren 17koa. Felipe Perez Labordaren bi zezen jokatu zituzten beste batzuekin batera.
- Irailaren 25ekoa. Felipe Perez Laborda tuterarraren hiru zezen eta Saavedraren beste hiru plazaratu ziren.
- Urriaren 23koa. Felipe Perez Labordaren bi zezen atera ziren toriletatik dibisa gorri–horiz, Jose Cabrera–ren alargunaren eta Jose de Fuentes–en beste binarekin batera. *Paquiro*, Roque Miranda eta Rafael Perez Guzman ezpatariek parte hartu zuten, Francisco Sevilla eta Antonio Sanchez pikatzaileekin batera.
- Azaroaren 20koa. Plaza erdibitu ondoren Perez Labordaren bi zezen jokatu zituzten, besteak beste.

Zaragozan ere ez zuten oztoporik izan 1.837.ean urriko zezenfestetarako. Urriaren 13 eta 14erako, bost eta sei urte bitarteko zezenak erosi zituzten Felipe Perez Laborda (dibisa zuria), Fausto Joakin Zalduendo (dibisa berdea), Ejeako Murillo (dibisa gorria) eta Ramon Lopez-en (dibisa urdina) ganadutegietan. Zezen bakoitza 600 erreal kostatu zen.

Toreatzaileak 29.320 erreal kostatu zitzaizkien. Francisco Montes-ekin batera, Rafael Perez de Guzman eta Francisco de los Santos ezpatariak joan ziren. Pikatze-lanetan berriz, Francisco Sevilla, Antonio Sanchez eta Jose Zapata aritu ziren.

Urriaren 15ean, igandean, Francisco Montes-ek soberazko lau zezenak hil zituen Zaragozan.

Karlista eta liberalen arteko gerra hartan, Tuterako ganaduzaleek ondo hazten zituzten beren abelgorriak; bost eta sei urteko zezenak edukitzeak hori adierazten bait du. Luis Lizaso tuterarra ere bere ganadu-taldea hazten ari zen. Urte hartan hain zuzen, Jose Bermejo eta Pablo Matias Elortz-en taldetik 90 buru erosi zituen[3].

1.838. urtean, gerra-garaian azaroaren 4ean Karlos erregea eta Asturiaseko printzearen eguna zezenkoak jokatuta ospatu zuten karlistek Gipuzkoako zenbait herritan[11]. Nafarroako hiriburuan nobilladarik ere ez zuten antolatu urte hartan[1]; ezta Tuteran ere[2]. Baina Zaragozan bai; han urtero bezala urrian nafar-zezenak korritu zituzten festaburutan. Zezenak Ejeako Jose Murillorenak (dibisa gorria) eta Tuterako Felipe Perez Labordarenak ziren; denak bost eta sei urte bitartekoak. Murillok 12 zezen eta soberako beste bi bidali zituen, eta Perez Labordak beste horrenbeste. Zezen bakoitzagatik 820 erreal eman zizkieten.

Urriaren 13an Murillorenak korritu ziren goiz eta arratsaldez, eta 14ean tuterarrarenak ordu berean (goizean 9etan eta arratsaldean 2½etan).

Toreatzaile-koadrila, Francisco Montes-en agindupean aritu zen. 31.147 erreal kobratu zituen. Ordezko ezpataria Francisco de los Santos zen. Antonio Sanchez, Andres Ormigo eta Jose Zapata pikatzaile gisa joan ziren; azkena ordezko pikatzaile gisa. Banderilariak berriz, Jose Antonio Calderón *Capita*, Gregorio Jordan, Juan Martinez eta Felipe de Usa izan ziren[3].

1.839. urtearen hasieran, otsailaren 10ean, 84 urte zituela Pedro Romero bere herrian, Andalusiako Ronda-n, hil egin zen[12]. Sekula izan den toreatzailerik onenetakoa dugu hau, eta aipamena egitea, laburra bada ere, merezi duela iruditzen zaigu.

Abuztuaren 31n bestetik, Bergarako besarkadaz amaitu zen lehen karlistada ofizialki. Gerra hartan ibilia zen Iparragirre kantari famatua, jakina denez.

Aurrez ordea, Iruñean sanferminak nola edo hala ospatu nahi izan zituzten. Uztailaren 7 eta 8rako bi nobillada antolatzea erabaki zuten. Kaparroso, Larraga eta Gares aldeko bidetik ekarri zituzten zezenkoak. Soldaduen laguntza ere eskatu zuten, bidean karlistek ganadua harrapatuko zutenaren beldur zirelako.

Uztailaren 7 eta 8ko nobilladan zortzi zezenko korritu ondoren, biharamunean ere berriro plazaratu zituzten. 23.559 erreal eta 15 marai ordaindu zituzten abereak[1].

Tuteran santanatan, Gendulainen zezenak jokatu ziren. Haiek hiltzera, Juan Sanchez *No te veas* toreatzailea etorri zen[2].

Iruñean, karlistada amaitu ondoren irailaren 16an udalgizonek bildurik urriaren 18 eta 19rako korridak antolatzea pentsatu zuten, aspaldian gabe egonak zirela eta. Tuterako Xabier Ros jaunaren bidez 20 zezen erosi zituzten, eta pikatzaileentzat behar ziren zaldiak ere eskuratu zizkien albaitariak.

Madrilen Juan Jimenez *el Morenillo* toreatzailearekin tratua egin nahi izan zuten. Hark ordea 38.000 erreal eskatzen zituen bi egunerako eta 50.000 erreal hiru egunerako.

Udalgizonei gehiegi iruditu zitzaien kostu hura, eta dena bertan behera utzi zuten. Erositako zezenak eta zaldiak ahalik eta ondoen saltzen saiatu ziren, baina 1.839.ean ez zen korridarik eman Iruñean[1].

Zaragozan ordea, gerrak ez zuen horrenbesterainoko eraginik izan. Han urtero eman zituzten korridak nafar-zezenak erosita. 1.839. urtean, Kaparrosoko Zalduendori 9 zezen (bat soberakoa), Tuterako Perez Labordari beste bederatzi (bat soberakoa) eta Ejeako Ramon Lopez-i beste hamar (bi soberako) erosi zizkieten. Lopez-en ganadua dibisa urdinez plazaratu zen. Guztira 24.160 erreal kostatu ziren zezenak, eta toreatzaileak 31.000 erreal.

Juan Leon eta Juan Pastor ezpatariek parte hartu zuten. Baita Francisco Sevilla, Andres Ormigo eta Manuel Carreras pikatzaileek ere.

Tuterako Perez Laborda ganaduzaleak, Milagro-ko herrian *el Hormiguero* izeneko belardi bat erosi zion Udalari bere abelgorriak han bazka zitezen.

Luis Lizaso ganaduzale tuterarrak berriz, Madrilen 1.839.eko ekainaren 1ean korritu zituen bere zezenak dibisa gorri-berdez[3].

Bilbon ere festaren bat ospatu zen 1.839. urtean. Bertan parte hartu bait zuten *Txabiri* eta *Kandidito* toreatzaileek. Hurrengo urtean, 1.840.ean, Deustu-n eraikitako plazatxo batean lan egin zuten bi toreatzaile hauek. Han jokatu ziren zezenkoak, Kaskante-ko Mesa ganaduzaleari erosi zizkioten[13].

———— o ———— o ————

Iruñean ere 1.840. urtean gerra amaitu ondoren aspaldiko partez Gaztelu-plazan korridak behar bezala ematea nahi izan zuten. Sanferminetan bi korrida emango zituzten, egun soltetako zezenez aparte.

Lehenbizi, Tuterako Felipe Perez Laborda ganaduzaleari eskatu zizkioten zezenen prezioak, eta honek aurrez Zalduendo kaparrosoarrarekin elkarrizketatzeko premia zuela adierazi zien.

Geroago Perez Laborda tuterarrak zera jakin erazi zion Iruñeko idazkariari: sei urteko gerra pasa ondoren zezen onak zerbitu nahi zituztela, eta nahiz eta zezen bakoitzaren prezioa 3.000 errealekoa izan, 200 erreal merkeago emateko prest zeudela. Garraiorako gainera, unai bakoitzari lau pezeta ordaindu beharko zizkien. Udalaren erantzunean, zezen bakoitzagatik 125 duro baino gehiago ez zituztela ordainduko esaten zuten iruindarrek.

Dena den, tirabira batzuen ondoren Udalak Perez Labordari 10 zezen eta Zalduendori (Fausto Joakin zenaren Maria Eugenia Lapedriza alargunari, hobeto esan) beste 10 zezen erosi zizkien, bakoitzagatik 130 duro ordainduta (guztira 52.000 erreal). Zalduendo eta Perez Labordaren unaiei,

beste 1.056 erreal ordaindu zitzaizkien garraio–lanagatik.

Zezenez gain zortzi zezenko ere erosi zituzten berrogeitazortzina durotan. Gainera Telesforo Goñi–ri 4.080 erreal ere ordaindu zizkioten, Beire–ko Pedro Jaurrieta–ren zezenko bat, Tafallako Antonio Eskirotz–en beste bat eta Tafallako Polikarpo Montoiaren beste bi ekartzeagatik.

Zezenak toreatzeko behar ziren toreatzaileak, Nazario Karrikiri jaunak kontratatu zituen Madrilen. Jose de los Santos ezpatariak eramango zuen koadrila 40.000 errealen truk. Ordezko ezpataria Francisco de los Santos izango zen; pikatzaileak Francisco Sevilla, Anastasio Capón eta Juan Antonio Torres (azkena ordezkoa); banderilariak, Jose de Usa *el Gallego*, Felipe de Usa *Pando*, Jose Fernandez *Fraile*, Blas Melis, Isidoro Beltrán eta Joaquin Rico.

Hauetatik aparte, Antonio Ituarte, Jose Bentura Laka eta Jose Ituarte debarrek zezenak banderilaztatzeko baimena eskatu zuten eta beren lanagatik 2.000 erreal ordaindu zitzaien.

Plazan lana ondo egiteagatik sariak eman zituzten udalgizonek. Jose de los Santos–i 320 erreal (16 duro) lau zezen ondo hiltzeagatik. Blas de Melis toreatzaileari 80 erreal, bigarren korridako zezen baten gainetik Montes–ek bezala salto egiteagatik. Francisco Sevilla pikatzaileari 80 erreal lehen korridako bostgarren zezena eman ziotelako, Jose Ituarte debarri 80 erreal, bigarren korridako zezen bat eman ziotelarik. Banderilak sartzen bakarrik aritu zen, bere laguna (Jose Bentura Laka izango zela pentsatzen dugu) zauriturik gertatu zelako.

Bigarren korridan, zezen bati bi zezentxakur bota zizkioten, eta Urbano Villanueva jabeak 240 erreal kobratu zituen.

Urte hartako sanferminak, uztailaren 6, 7, 8 eta 9an ospatzekoak ziren, baina ekainaren azken aldera Balmaseda karlista bere soldaduekin Nafarroara sartu zen nahiz eta gerra amaituta egon. Horregatik, korridak eta festak atzeratu egin zituzten uztailaren 14, 15, 16 eta 17ra. Atzerapen hark, gastuak sortu zizkion Udalari.

Gero, abuztuaren 30ean, Diputazioaren eraginez zezenko bolaztatuak korritu ziren Bergarako Besarkadaren urtebetetzea ospatzeko[1].

Bergarako besarkada hark ordea, izan zuen eraginik Nafarroan. Lehen adibidez, Iruñea *Nafarroako Erreinuko Hiriburu* zen eta harez gero *Nafarroako Hiriburu*[3].

Dena dela, Iruñeko Udalak Tuterakoari dei egiten zion sanferminetarako, pikatzaileen zaldientzako zelak eskatuz. Iruindarrek, 1.840. urtean eta hurrengoetan egin zieten tuterarrei eske hura[5]. Tuterarrek santanatako korridatan erabiltzen zituzten. 1.840. urtean adibidez, Ospitaleak antolatutako bi korridatan[2].

Garai hartan bestetik, Antonio Ituarte *Zapataritxoa* eta Jose Bentura Laka *Marinela* ezagunak ziren Gasteizen. Askotan egin bait zieten dei abuztuan, Ama Birjina elurretakoaren omenezko festetan, lan egin zezaten[14].

Tuterako Perez Laborda ganaduzaleak, 1.840.ean urriko festetarako lau zezen bidali zituen Zaragozara. Ejeako Murillo eta Ramón Lopez ganaduzaleek ere bai, bakoitzagatik 2.480 erreal kobratuta. Zezen haiek hiltzen Francisco Montes eta Antonio Rios ezpatariek parte hartu zuten. Baita Antonio Sanchez, Antonio Rodriguez eta Francisco Briones pikatzaileek ere[3].

Urte hartantxe, Theophile Gautier idazle frantziarrak bidaia bat egin zuen Espainian zehar, eta bere idazlanetan garai hartako korrida eta toreatzaileez xehetasun asko eman zigun[15].

Akitanian, 1.840. urteaz gero zezenketek aldaketak jasan zituzten. Landetako zezenak alokatzen zituzten ganaduzaleak agertu ziren batetik. Profesional izan gabe herriz herri zebiltzan toreatzaileak (*ecarteur*ak) ere agertuko ziren. *Paré* izeneko lantzea egiten ere hasiko ziren[16].

1.841. urtean, Euskal Herriko leku askotan eman ziren korridak. Baita Bilbon ere, azoka-plazan. Han Francisco Montes bere koadrilarekin aritu zen lanean eta bilbotarrei asko gustatu zitzaien *Paquiro* famatua[17].

Iruñean, 1.841.eko sanferminetako zezenfesten antolaketa partikular baten esku utzi zuten; baldintza zehatzak ezarri ondoren, noski. Santesteban jaun iruindarrak hartu zuen antolaketaren ardura, eta eskubide batzuk Udalari utzi zizkion.

Luis Lizasok lau eta bost urte bitarteko 12 zezen zituen, baina beste plazatara salduak jadanik. Xabier Gendulainek lau urteko 10 zezen eder zituen. Baita hiru urteko zezenkoak ere. Zezenen prezioa finkatzeko, Xabier Gendulainek bere anaia Tadeo Gendulainekin konpontzea proposatzen dio Udalari. Felipe Perez Labordak lau urteko 12 zezen prest zituen bakoitza 150 durotan saltzeko (garraioa aparte). Hiruzpalau zezenko ehun eta hamarna durotan saltzeko ez zeukan inolako aitzakiarik. Fausto Joakin Zalduendoren alargunak, Eugenia Lapedrizak, lau urteko 20 zezen zituen. 140 duro zen bakoitzaren prezioa. Zezenkoak nahi izanez gero, 112na durotan zerbituko zizkien.

Azkenean Perez Labordari 8 zezen, Lapedriza alargunari 7 zezen eta Gendulaini beste 7 zezen erosi zizkieten. Lau zezenkoak, asentistak erosita etorri ziren.

Uztailaren 6an bi zezen hil zituzten. 7an beste bi zezen hil eta lau zezenko korritu ziren. Uztailaren 9an eta 10ean, goizean hiruna eta arratsaldean seina zezen plazaratu zituzten.

Toreatzaileen kontratua, Nazario Karrikiri bankari jaunak egin zuen Madrilen. Francisco Arjona *Cuchares* kontratatu zuen sanferminetarako. Ordezko ezpatari Juan de la Santera etorriko zen. Pikatzaile, Francisco Sevilla, Jose Trigo eta Antonio Guiras (azken hau ordezko). Banderilari berriz, Juan Majarón, Jose de Usa *el Gallego*, Felipe de Usa *Pando*, Luis Rodriguez eta Blas de Melis. 40.000 erreal kobratuko zituzten guztira.

Maiatzaren 26an, Jose Ituarte debarrak gutuna bidali zuen Iruñeko udaletxera, bera, bere aita Antonio eta Jose Bentura Laka, toreatzaileen kontratuan sar zitzatela eskatuz.

Ekainaren 3an erantzun zioten. Madrileko agenteari (Karrikiri jaunari) agindua emana omen zioten koadrilan Jose Ituarte eta Jose Bentura Laka sar zitzaten. Antonio Ituarteri buruz berriz, bere adinagatik (60 urte zituen) edo aurreko urtean etorri ez zelako ez omen zuten hura koadrilan sartzeko agindurik eman. Dena den sanferminetara lanera etorri nahi bazuten, lan egin zezaketen eta gero Udalak zerizkion saria emango zien.

Debako banderilariek horixe egin zuten azkenean, eta Jose Ituarte, Antonio Ituarte eta Jose Bentura Lakak 2.000 erreal irabazi zituzten.

Cuchares eta bere koadrilak ere luzimenduz toreatzea lortu zuten. Francisco Arjonari izan ere zazpi zezen saritzat eman zizkioten eta ordezko ezpatariari bat; lau duro zezen bakoitzagatik eta

640 erreal guztira[1].

Tuteran, Foru-plaza korridatarako oso egokia ez zela eta, bertako Ospitaleak biribil berria egitea pentsatu zuen. 1.841. urteko apirilaren 21ean lortu zuen Diputazioaren baimena horretarako. San Martzialerako bidearen ondoan zimenduak ateratzen hasi ziren, baina obraren ezaugarriak ez ziren jendearen gustokoak gertatu eta esamesa franko zabaldu zen Tuteran. Izan ere Ospitaleko batzordeak jaulkitako hogeitabost duroko akzioak jende askok hartu zituen (Plaza zaharreko etxejabeek ez zuten erosi) eta denek zuten nonbait eritzia emateko eskubidea.

Dena dela, 1.841. urtean santanatan Jose Carpena asentistak antolatu zituen korridak Foru-plazan. Azken aldiz jokatu ziren plaza hartan, laster berria egin zutelako. Gendulain eta Lizaso bertako ganaduzaleen zezenak Francisco Arjona *Cucharesek* toreatu zituen bere koadrilaren laguntzaz. Kanpotik jende asko etorri zen korridak ikustera, eta zezen suharrak atera ziren. Asentistak, zezenek zaldi guztiak hil zituztelako, kanpotik etorritako ikusleen zaldiak hartu zituen pikatzaileentzat. Asmatzekoa da han sortutako istilua[2].

Zaragozan 1.841.ean ere korrida antolatu zuten urriaren 17an. Felipe Perez Laborda tuterarraren bi zezen (dibisa zuriz), Jose Murillo Ejeakoaren zezen bat (dibisa gorriz) eta Ejeako Ramon Lopezen beste bat (dibisa urdinez) toreatu zituen Francisco Montes-ek bere koadrilarekin. Zezen bakoitza 2.560 erreal kostatu zen eta toreatzaileak 34.480 erreal.

Montes-ek bere koadrilan Isidoro Barragán ordezko ezpataria eta Antonio Sanchez, Francisco Briones eta Antonio Lemos pikatzaileak eraman zituen[3].

Eta 1.841. urteko berriak ematen ari garenez, ezin dugu Jose Bentura Laka itziartarraren heriotzaren albistea alde batera utzi. Abuztuaren bian hil bait zen Azpeitian, bezperan zezenak plazan harrapatuta egin zizkion zaurien ondorioz.

Istripu hari buruz zenbait idazlek geroztik berriak eman dituzte, eta guztiak ez dira zuzenak izan. Jose Maria Busca Isusi jaunaren ustetan adibidez, Manuel Egaña *Eulia* (*Ehulea*) debarra izan zen Azpeitian zezenetan hila[18]. Baina Frantzisko Aldabaldetreku-k dioenez, Manuel Frantzisko Egaña Itziar toreatzailea, Deban 1.826. urtean Kale Zaharreko etxe txiki batean jaio zen eta herri bereko ospitalean hil zen 1.876.ean[19]. Guk frogatu ahal izan dugunez, Egaña ez zen Azpeitian hil. Deban hil zen 1.874.eko urtarrilaren 23an arratsaldeko lauretan 47 urte zituela, kapitulu honetako eranskinean ipintzen dugun heriotz agiriaren arabera.

Beste idazle batzuk Azpeitiko zezenplazan (oraingo herriko plazan) hildakoa Jose Bentura Laka zela aitortzen badute ere, urtea finkatzerakoan huts egin dute. Teresa Amuategi-k bere kontakizun politean 1.845. urtea aipatzen du[20]. Imanol Elias azpeitiarrak bere liburu bikainean[21] berriz, Laka itziartarraren istripua 1.846. urtean gertatu zela dio. Jose Bentura Laka ordea, Azpeitian 1.841. urteko abuztuaren bian hil zen, lehentxeago gaztigatu dugunez. Horixe bait dio Azpeitiko parrokiako hildakoen bostgarren liburuak. Hitzez hitz aldatu dugu kapitulu honen amaieran eranskin gisa. Dena den, euskaraz labur emanda zera dio Jose Manuel Abalia parroko jaunak:

Sakramentuak hartuta 1.841.eko abuztuaren bian, goizeko bederatzi t'erdietan, 51 urte zituela, Jose Bentura Laka, Deban bizi zena, Josefa Teresa Ibarraren senarra, hil egin zela; Jose Inazio Agirrezabalaga eskribauaren aurrean testamentua egin zuela eta hurrengo egunean Elizako Hilerrira eraman zutela.

Abalia parrokoak, azpian ohartxo bat idatzi zuen, Laka-ren azken nahia bete zela adieraziz.

Azpeitiko Abalia erretore jaunak ziurtagiri bat bidali zuen Debara, eta han Joan Maria Arakistain erretoreak Debako hildakoen seigarren liburuan zegokion idazkia (ikus kapitulu honen amaierako eranskinean) ipini zuen. Han, Jose Bentura Laka Josefa Teresa Ibarra zumaiarraren senarra zela eta Laka bera Itziarren jaioa zela ere esaten du.

Jose Bentura Laka, Itziarren 1.791.eko urriaren 15ean jaioa zen. Azpeitian hil zenean 49 urte zituen beraz, eta ez 51 urte Abalia parrokoak idatzi bezala. Bere gurasoen berri eta beste xehetasunak, kapituluaren bukaeran dagoen bataio-agirian ikus daitezke.

Jose Bentura Laka-ren albiste gehiago, bere testamentutik atera daiteke. Izan ere abuztuaren 1ean zezenplazan zauritu zenean testamentua egin zion eskribauak eta pasarte batean zera dio: *hallandome en cama / en esta de Azpeitia herido gravemente,...*

Testamentu osoa kapitulu honen amaieran irakur daiteke, hitzez hitz eranskin gisa ipini dugulako. Hor besteak beste, puntu aipagarri batzuk badaude. Gipuzkoako Foruen aurkako erasoa adibidez, (lehen karlistada amaitua bait zegoen) Cadiz-eko gobernuaren eraginez *derrigorrezko agindu* bat ipini zuen eskribauak. Bentura Lakak bestetik, ezkontzatik kanpo alaba bat izana zuen, eta heriotz eguneko bezperan onartu zuen bere testamentuan. Beste arazo interesgarri bat Laka toreatzailearen kapak dira. Toreatzeko (eta janzteko) kapa ederrak zituen Laka itziartarrak, eta testamentuan horien banaketa nola egin ere agintzen du.

Jose Bentura Lakaren heriotzaren inguruan ipuin antzeko bat (ipuina noraino eta egia noraino den erabakitzea zaila izan arren) zabaldu da geroztik, eta hona aldatzea interesgarria da. Teresa Amuategi-k dioenez[20], Itziarreko Erlete baserriko nagusiak sanroketan Deban sobratutako zezen bat erosi zuen. Hurrengo urtean Mutrikuko magdalenatara eraman omen zuen zezena, eta han jendeari asko gustatu zitzaionez gero, azpeitiarrek saninaziotarako kontratatu omen zuten. Zezena Mutrikutik zetorrela Debara heldu zenean, Lakak zezenari keinu eginez zera esan omen zion: *Azpeitian elkar ikusiko diagu, lagun.* Izan ere *Zapataritxoa* (Jose Ituarte izango zen, baina Antonio aita ere bai agian, sanferminetan egun batzuk lehenago hirurak toreatzen izanak zirelako) eta bere koadrila Azpeitian toreatzekoak ziren.

Saninaziotan Azpeitira zihoazela, Lasao-n (Zestoako auzoan) Mari Dolores sorgin-famako baserritarraren etxean gelditu omen ziren beren heriotzei buruz iragarpenak egin zitzan. Sorginak kartak mahai gainera bota eta honela esan omen zion Lakari: *Kontuz, kontuz! Zezen beltz batekin gaizki ibiliko zara. Kontuz ibili; bestela zureak laster egingo du.*

Nobilladan, agian Mari Doloresen esanak gogoan zituelako, Jose Bentura zuhur ibili omen zen; arriskutan sartu gabe alegia. Erlete baserriko zezen beltzari *Zapataritxoa*k banderila-pare bat bikain sartu omen zion eta jendea txaloka ari omen zitzaion. Laka baztertua sentitu zen orduan, eta beste banderila-pare bat sartzera prestatu omen zen. *Zapataritxoa*k ez omen zion utzi nahi Lakaren banderilak sartzeko era zezen hartan arriskutsuegia zelakoan. Lakak behin eta berriz egin zuen aurrera jendea oihuka zuela. *Zapataritxoa*k orduan zera esan omen zion: *Gogora ezazu Mari Dolores-ek esana.* Dena alferrik ordea. Laka, banderilak eskuan, zezenarengana joan omen zen, eta elkartu zirenean, banderilak sartzerakoan, adarkada jaso omen zuen. Plazan bertan hil omen zen Laka banderilaria (hau ez da egia; hurrengo egunean goizeko bederatzi t'erdietan hil bait zen).

Kontakizuna kontakizun, Debako *Markex Zaharra*k (Agustin Arteondoagak) Laka banderilaria luze eta lerdena, oso ausarta, zela entzun omen zuen[20].

Modesta Martinez azpeitiarrak berriz (1.854. urtean jaioa zen), bere amak esana zuen gogoan. Modestaren amak Lakaren plazako istripua ikusi omen zuen, eta toreatzaile itziartarraren sasoi eta edertasunaz hitz egin omen zion[22].

Jose Bentura Laka Azpeitian hil zenez gero, bai Deban eta bai Azpeitiko zezenfestetan, hirugarren zezena hil ondoren beti jotzen dute hileta-zortziko eder bat. Jendea isilik eta zutik egoten da musikariek doinu triste hau jotzen duten bitartean. Egia esan, zezenfestetan munduan beste inon ez da hildako toreatzaile baten omenez antzekorik egiten.

11.2. irudia. Jose Bentura Laka-ren heriotza gogoratuz jotzen den zortziko funebrea.

Zortziko famatu honen egilea zein izan zen erabakitzerakoan ordea, zalantzak daude. Batzuek diotenez[19,20] Martin Felix Ostolaza debarrak egindako musika da hau[23]. Martin Felix Ostolaza, 1.790.eko urtarrilaren 31n Deban jaioa zen eta Maria Josefa Enparan zestoarrarekin ezkondua zegoen. Bere bataio-agiria kapituluaren bukaeran ipini dugu eranskin gisa.

Beste batzuen ustetan ordea[21], Inazio Aldalur azkoitiarrak (Azpeitiko organista izan zenak) egina da hileta-zortziko hau[18].

Dena dela, Laka hil eta hiru urte geroago Antonio Flores bidaiaria Deban izan zen sanroketan. Martin Felix Ostolazarekin hitz ere egin zuen, eta bere xehetasunak adierazten ditu; gerratean frantsesekin egin zituen negozioak, herriko nobilladatako enpresaria zela, etab.[24]. Baina ez du musikaria zenaren berririk ematen.

Inazio Aldalur azkoitiarra ordea, musikaria zen. Xabier Inazio Aldalur Landa, 1.822. urteko urtarrilaren 21ean jaioa zen, eta ez 1.828.ean norbaitek idatzita bezala[25]. (Ikus kapitulu bukaerako eranskinean bere bataio-agiria). Apaiz- eta musika-ikasketak batera egin zituen Iruñeko seminarioan, eta ondoren Azpeitiko elizako organista-plaza irabazi zuen. Hemeretzi urte bakarrik zituen Jose Bentura Laka hil zenean, baina hala eta guztiz ere, hileta-zortzikoaren egiletzat bera aukeratzeko arrazoi gehiago ikusten dugu Martin Felix Ostolaza aukeratzeko baino. Dena den, ikerketa sakonagoek erabakiko ote dute noizpait auzi hau! Ikerketa horretan gainera,

hileta–zortzikoa txistuz ala zein musikatresnaz jotzeko egin zen ikustea ez legoke gaizki.

Eta honenbestez utz ditzagun 1.841. urteko gorabeherak. Ekin diezaiogun bada, 1.842.ari Bilboko berriak emanez. Han izan ere azoka–plazan abuztuan Francisco Montes–ek korrida batean Jose Redondo *Chiclanero*ri alternatiba eman bait zion. Cossio idazleak dioenez, nafar–zezenak jokatzen ari ziren, eta *Chiclanero*k bati (toreatzen ari zela) hurbiletik dei eginda, gainera etorri zitzaion. Adarkada handia jaso omen zuen, baina laster sendatu eta urte hartantxe berehala hasi omen zen adoretsu toreatzen plazatan[26]. Cossio idazle berak ordea[10], Bilboko korrida haien kartela argitaratzen du eta han ez da nafar–zezenik aipatzen. 1.842. urteko korridak, abuztuaren 25, 26, 28, 29 eta 30erako iragarri zituzten. Egun bakoitzean goizeko hamarretan bi zezen eta arratsaldeko hiruretan beste sei jokatuko ziren. Berrogei zezen ziren guztira, baina Madrileko eta Andalusiako ganadutegietakoak: Casa Gabiria–ko markesarenak (Madrilekoa), Juan Castrillon (Andalusiakoa), Cabrera–ren alarguntsarenak (Andalusiakoa), Juan Domingo Ortiz–enak (Barberos–ekoa; Andalusia), Paredes–en alarguntsarenak (Colmenar–ekoak;Madrilekoak) eta Mariano Tellez jaunarenak (Colmenar–ekoak).

Berrogei zezen haiek toreatzera, Francisco Montes *Paquiro* (Chiclanakoa) eta Gaspar Diaz (Cadiz–ekoa) etorriko ziren. Koadrilarako lau pikatzaile kontratatu zituzten: Francisco Briones (Puerto Real–ekoa), Juan Gallardo (Puerto de Santa Maria–koa), Joaquin Coito *Charpa* (Sevilla–koa) eta Juan Antonio Torres (Madrilekoa). Banderilariak, honako sei hauek ziren: Jose Calderón *Capita* (Carmona–koa), Juan Martin *Ratón* (Isla–koa), Jose Redondo *Chiclanero* (Chiclanakoa, noski Montes maisua bezalaxe), Jose Usa *Gallego* (Madrilekoa), Felipe Usa *Pandito* (Madrilekoa) eta Blas Melis *Minuto* (Madrilekoa).

Goizeko *proba*ren ondoren inguruetako zezenko bat aterako zuten bertako gaztejendearentzat eta arratsaldeko korridaren amaieran beste bat. Egunero aterako zituzten zezenez gain bi zezenko. Bi zezenkoak gainera, hil egingo zituzten plazan[10].

Zezen onak itxuraz nolakoa behar zuen izan, 1.842. urtean bertan adierazi zuen Agustin Paskual Iturriaga idazle hernaniarrak. Honela idatzi bait zuen:

Zezenak bear ditu izan bizkarra zabala, lepoa lodia, giltzak laburrak.
Izterrak eta belaunak bear ditu biribillak, oñak aldereginak, illea laburra eta lodia, baña malgua.
Buztana jasoa, luzea eta illez ongi jantzia, adarrak lodiak eta zuriyak.[27]

1.842. urtean, lehenbizi abuztuaren 25, 26, 27 eta 28rako zeuden iragarrita korridak, baina Isabel erreginak Gasteizeri urtero irailaren hasieran feriak egiteko baimena eman zionez gero, emanaldiak irailaren 1, 2, 3 eta 4era aldatu zituzten.

Irailaren 4ean gainera, korrida ordez nobillada izango zen. Martina Garcia andereak lan egingo zuen bere emakumezkoen koadrilaz lagundurik. Gainerako korridetan Francisco Montes ezpatariak aginduko zuen plazan.

Hiru egunetan (1, 2 eta 3an), goizean bina zezen eta arratsaldean seina toreatuko zituzten. Zezenak, Veragua–ko dukearenak (dibisa zuri–gorriz), Juan Fuentes–enak (Moralzalzal–ekoak, dibisa morez), Maria Pilar Silva anderearenak (Villarrubia de los Ojos–ekoak, dibisa gorri–berdez), Manuel Aleas jaunarenak (Colmenar Viejo–koak, dibisa gorri–berdez) eta Luis Lizaso tuterarrarenak (dibisa urdin argiz) izango ziren.

Kuriosoa da emakume toreatzaile haien lanak nobilladan zein izango ziren jakitea. Martina Garcia-k zezenko bat ezpataz hilko zuen. Magdalena Garcia eta Teresa Garcia-k zaldi gainetik pikatuko zituzten zezenkoak eta Rosa Inar eta Genara Gomez-ek, saskitan sartuta banderilaztatuko zituzten. Gero, azkeneko hiru zezenkoak, bertako toreatzaile-koadrila baten esku egongo ziren[28].

1.842. urtean Iruñeko sanferminetarako Udalak partikularren gain utzi nahi izan zuen zezenfesten antolaketarako ardura. Horretarako deia egin zuen eta epea bukatu ondoren Udalaren baldintzetan inor aurkeztu ez zenez gero, partikular batzuek beren eskaintzak egin zituzten. Aurreko urteko asentista, Jose Xabier Santesteban ez zen aurkeztu, baina beste batzuk bai: Domingo Iturralde eta Teodoro Otxoa iruindarrak, Miguel Poyales (Zaragozan bizi zen. Honek nafar-zezenak eta Veragua, Gabiria eta abarrenak ekartzea proposatu zuen), Manuel Latorre Andorrica (Zaragozan bizi zen toreatzailea) eta Nikolas Aztarain iruindarra adibidez.

Baldintzarik onenak eskaintzen zituelakoan, Nikolas Aztarain izendatu zuten urte hartarako enpresari. Ez dakigu zeinen zezenak jokatu ziren sanferminetan. Hogeitabost zezen korritu ziren eta lau zezenko ere bai. Zezenkoak, Urantzian bizi zen Longinos Ibarnavarrori erosi zizkioten 1.700 erreal bakoitzagatik ordainduta.

Zezenak toreatzera, Francisco Montes ekarri nahi izan zuten, eta Chiclana-ra dei egin zioten. Baina *Paquirok* ezezkoa eman zien, jadanik Cadiz eta Jerez-erako kontratatua zegoela adieraziz. Juan Yust toreatzailea kontratatu zuten Madrilen orduan. 40.000 erreal kobratuko zituen eta bere koadrilan ordezko ezpataria, Trigo, Coyto eta *Barillas* pikatzaileak (horietako bat ordezkoa), lau banderilari, eta *Zapataritxoa* bere semearekin (Antonio eta Jose Ituarte beraz). Jose Bentura Laka ez da aipatzen, aurreko urtean hil zelako.

Korrida onak suertatu zitzaizkien eta pozik gelditu ziren iruindarrak. Koadrilari zortzi zezen saritzat (bi ontzako urre) eman zizkioten. *Barillas* pikatzailea ez zitzaien gustatu ikusleei koldar jokatu zuelako. Yust bai, lau zezen saritzat irabazi zituenez gero pentsa daitekeenez.

Jose Ituarte debarrak, eta bere aitak, 80 errealeko saria ere irabazi zuen zezen bati banderilak ondo sartzeagatik[1]. Ituarte aita-semeen bataio-agiriak kapitulu honen bukaerako eranskinean ikus daitezke.

Tuteran 1.842. urtean aldaketa batzuk egin eta diru-arazo batzuk konpondu ondoren, bertako Ospitaleak zezenplaza biribil berria bukatzea lortu zuen. Bi urtetan korridak antolatzeko enpresa batek alokatu zuen zezenplaza berria. Mariano Inda, Gregorio Moreno, Tirso Frauca eta Miguel Forcada jaunek osatutako enpresak, Gendulain, Perez Laborda eta Zalduendoren 18 zezen (bakoitzaren 6) toreatzera Francisco Montes *Paquiro* eta Jose Redondo *Chiclanero* ekarri zituen 40.000 erreal ordainduta. Gaztanbide ostatuko gastuak beste 1.526 erreal kostatu zitzaizkien. Korridak 1.842. urteko irailaren 9 eta 10ean izan ziren[2,5].

Iruñean ere, zezenplaza berria egiteko asmotan zebiltzan. Horregatik 1.842.eko azaroaren 6an Udalak dei egin zien arikitektoei proiektuak egin zitzaten. Gutxienez 12.000 pertsonarentzat izan behar zuen, eta diametroa Gaztelako 270 eta 280 oin bitartekoa izango zen. Lehendik ere, Udalak saio batzuk eginak zituen zezenplaza berria eraikitzeko eta 1.830. urtean Jose Nagusia arkitektoari proiektua enkargatua zion[29].

1.842. urtean, Tuterako Perez Labordak 14 zezen (2 soberako) bidali zituen Zaragozako plazara, bakoitzagatik 2.560 erreal kobratuta. Ejeako Ramon Lopez ganaduzaleak ere beste horrenbeste bidali zituen prezio berean. Francisco Montes eta Jose Redondo ezpatariek hil zituzten.

Pikatzaileak Francisco Briones, Juan Gallardo eta Joaquin Oquitio izan ziren.

Gero, urriaren 16rako beste bi zezen erosi zizkioten Perez Laborda tuterarrari. Felipe Perez Labordak urte hartako abenduaren 5ean, Oliva-ko monastegiarena izandako korta bat erosi zuen bere larre eta guzti Zarrakaztelun 440.000 erreal ordainduta[3].

1.843. urtean, abuztuan Donostiako Konstituzio-plazan korridak izan zirela zioen Jose Manterola idazleak[30]. Guk, egia esan, albiste hori ez dugu beste inon irakurri.

1.843. urteko sanferminetarako, Iruñean baldintza batzuen pean Gaztelu-plaza alokairuz utzi zieten Domingo Iturralde eta Antonio Llompart jaunei zezenak antola zitzaten.

Prestakuntz lanak aurreratuta zeudela, ekainaren 24ean Nafarroako Agintari Politikoak korridak bertan behera uzteko ordena eman zuen. Espartero jeneralaren erregentzia kolokan zegoen eta armadako jeneral batzuk matxinatuta zebiltzan garai hartan.

Iturralde eta Llompart jaunei indemnizazioa eman zien Udalak (34.541 erreal) eta bere gain gelditu ziren zaldi, kapa, etab.

Uztailaren 18an Espartero-ren indarrak deuseztu eta Madrilen gobernu berria ezarri zenean, Iruñean zezenak abuztuaren 18, 20, 21 eta 22rako iragarri zituzten. Asentista berria, Simon Santesteban iruindarra izan zen.

Kaparrosotik, Zalduendoren alargunak 12 zezen bidali zituen bakoitzagatik 126 duro kobratuta (garraiorako unaien kostua aparte). Felipe Perez Laborda tuterarrak beste hamabi zezen bidali zituen prezio berean. Zalduendoren zezenek dibisa urdina atera zuten lepagainean eta Perez Labordarenak zuria.

Lizaso tuterarrarekin ere elkarrizketak izan zituzten, baina ez zioten zezenik erosi urte hartan. Ezta Ejeako Jose Murillo-ri ere, nahiz eta honek lau urtetik gorako 22 zezen zituela eta prezioa Udalaren esku uzten zuela jakin erazi.

Francisco Montes kontratatu nahi izan zuten zezenak toreatzeko, baina Chiclana-ko ezpatariak ezezkoa eman zien. Orduan Francisco Arjona *Cucharesengana* jo zuten eta tirabirak izan zituzten. *Cucharesen* ahaldunduak 54.000 erreal eskatzen zituen, eta Udalak 44.000 eskaini zizkion.

Azkenean 51.000 errealean kontratatu zuten Arjona ezpataria. Koadrilan Antonio Fernandez *Barillas* ez zen etorriko, baina banderilari gipuzkoarrak bai. Koadrila sanferminetarako bidean zela, Madrilera bueltatu behar izan zuten korridak bertan behera utzi zituztelako. Gero, abuztuan etorri ziren berriz.

Toreatzaile-koadrila, hauek osatu zuten:

- Francisco Arjona Guillen *Cúchares*, ezpataria
- Juan Martin *La Santera*, ordezko ezpataria
- Antonio Calzadilla *Colilla*, ordezko ezpataria
- Manuel Camilo, banderilaria
- Manuel Arjona, banderilaria
- Miguel Campo, Sevillakoa, banderilaria
- Julian de las Casas, Salamancakoa, banderilaria. *El Salamanquino* ere deitzen zioten.

Hauetaz gain Jose Ituarte (*Zapataritxoa*ren semea) eta Manuel Peña banderilari gipuzkoarrak ere han ziren. Antonio Ituarte jadanik erretiratu egin zela dirudi (62 urte zituen). Pikatzailetako bat, Andres Ormigo famatua izan zen.

Abuztuaren 20ko arratsaldean sei zezen jokatu ziren, eta ez dirudi korrida oso ona suertatu zenik. Abuztuaren 21 eta 22koak bai ordea; 18 zezenetik 7 saritzat eman bait zituzten: 3 *Cucharesi*, 2 Calzadillari, bat hirugarren ezpatariari eta bat Jose Ituarte–ri. Jose Ituarte–ri gainera azken zezena hiltzen utzi zioten. Sari gisa emandako zezen bakoitzagatik 80 erreal jaso zituzten. Manuel Peña gipuzkoarra, zezen gainetik salto egiterakoan (Montes–en saltoa egiterakoan) zauritu egin zen. 320 erreal eman zizkioten berak Udalari bidalitako eskeari erantzunez.

Andres Ormigo pikatzaile famatuak, istiluak izan zituen publikoarekin eta azkeneko korridara ez zen lanera agertu. 1.000 errealeko isuna ipini zioten, eta gero *Cucharesen* eskea medio, 500 errealera jaitsi zioten.

Irailaren 8rako nobillada antolatu zuen Simon Santesteban asentistak. Giro politiko nahasia zegoelako ordea, agintari politikoek debekatu egin zuten. Horrenbestez bukatu ziren bada Gaztelu–plazako zezen–festak. Urte hartan, 1.843.ean, izan zituzten azkenak. Hurrengo urtean plaza biribil berria estreinatu bait zuten[1].



11.3. Irudia. Iruñeko plaza berriaren proiektua. 1.830. urtean egindako proiektua da.

Urte hartantxe, irailaren 19an hasi ziren obrak *Txaron* izeneko lurraldean (gero Niza taberna egongo zen lekuan)[31]. Jose Nagusia arkitektoaren proiektua eraikitzen hasi ziren. Kontratista Rafael Martinez iruindarra zen eta obrak 36.000 durotan egiteko Udalari txosten bat aurkeztua zion. Obrak egiteko ardura, Lorenzo Mutilva (Mutiloa) jaunari eman zitzaion; 31.500 duro kobratuko zituen. Zezenplazak, hurrengo urtearen uztailaren baterako bukatua egon behar zuen[29]. Plaza berri biribil hartan, 8.000 ikuslerentzako lekua zegoen; 900 oineko zirkunferentzia eta 51 metroko diametroa zituen[32].

Tuteran, aurreko urtean (1.842.ean) plaza berria estreinatua zuten, eta 1.843. urtean santanatan zezenik ez zuten izan giro politiko nahasia zegoelako. Abuztuaren 5 eta 6rako utzi zituzten korridak; atzeratu egin zituzten beraz. Juan Pastor *el Barbero* toreatzailea kontratatu zuten Antonio Ruiz–ekin batera. Zezenak Ejeako Jose Murillo–ri erosi zizkioten (18 zezen, bi proba eta bi korridatan jokatzeko) bakoitzagatik 2.000 erreal ordainduta. Urte hartan ez zen jende asko joan Tuterako korridetara, eta enpresariek galera handiak izan zituzten[2].

Korridatan zezena ondo hiltzeagatik jendeak ezpataria txalotzen zuenean, Udalak zezena saritzat ematen zion; hiru duroko propina alegia. Aurreko urtean sari hori azken aldiz ematea erabaki zuten, baina 1.843.ean gauerdian toreatzaileen ordezkaria udaltzain batengana joan eta kobratu egin zuen.

Azpeitian 1.843. urtean, saninaziotan ez zen zezenik antolatu; elizkizunak bakarrik izan ziren. Hurrengo urtean, 1.844.ean, bai ordea. 1.844. urtean saninaziotarako lau nafar–zezen eta Gipuzkoako beste sei zezenko plazaratu zituzten. Goizean bi zezen edo zezenko txuliatu ziren eta arratsaldean baita banderilak ipini ere[3].

Deban sanroketan zezenkoak korritu ziren 1.844.ean. Goizean goiz larrabehia atera zuten plazara, eta goizeko hamarretan zezenkoak. Eguerdian hamabietatik ordubiak arte bazkaltzeko tartea hartuta, arratsaldeko seiak arte ibili ziren zezenkoak plazan. Bertako gazte asko saiatu zen toreatzen. Bukatzeko, hiltzeko zezenko txiki bat atera zuten, eta gazte batek hil zuen ezpataz. Hurrengo egunetan ere zezenkoak jokatu ziren Deban, nahiz eta arratsalde batean euria egin[24].

Bilbon, korridak izan ziren 1.844. urtean Joanito Altzaga jaunak antolatuta. Jose Redondo *Chiclanero*k toreatu omen zuen[13].

Iruñean, 1.844. urteko uztailaren 4ean, bukatua zegoen jadanik zezenplaza biribil berria, eta harez gero entzierroa beste bide batetik egiten hasi ziren. San Nikolas–eko portaletik sartu ziren zezenak urte hartan. Herri barruan tarte txikia ibili ondoren plaza berriraino (eta ez Gaztelu–plazaraino) heldu ziren[29].

Udalak plaza berria baldintza batzuen pean alokatu egin zion Simon Santesteban iruindarrari korridak antola zitzan. Uztailaren 7an 6 zezen (arratsaldean) eta 8an eta 9an goizean 3 zezen eta arratsaldean 6 jokatu ziren.

Francisco Montes *Paquiro* kontratatzeko saioak alferrikakoak gertatu zitzaizkien. Francisco Arjona Herrera *Cuchares* ekarri zuten. *Cucharesi*, gehiago gustatzen zitzaion Guillen bigarren deituratzat, eta horregatik Francisco Arjona Guillen agertzen da orduko karteletan. Ez dakigu *Cuchares*ek koadrilan zeintzuk ekarri zituen, baina asmatzekoa da aurreko urtean Gaztelu–plazara ekarri zituenak izango zirela. Gutxienez guipuzkoar bat aritu zen banderilak sartzen: Manuel Peña. Lana ondo egiteagatik eta batez ere zezen bati banderilak oso ondo sartzeagatik 80 errealeko saria

aparte eman zioten.

*Cuchares*ek kontratuaren arabera 50.000 erreal jaso zituen. Horietaz gain baita 320 erreal ere (16 duro) lau zezenengatik; bi *Cuchares*ek berak ondo hiltzeagatik, bat ordezko ezpatariarentzat eta beste bat pikatzaile batentzat.

Antonio Orokieta eta bere lagun errotariei ez zieten utzi azken zezena lantzaz jota hiltzen. Simon Santesteban enpresariari ere ez, sobratutako hiru zezenekin beste korridaerdi bat antolatzen[33].

Korritutako bederatzi zezen, Felipe Perez Laborda tuterarraren alargunarenak ziren. 2.260 erreal kostatu zen bakoitza[3].

Sanferminetan plaza berria estreinatu zutenean, sarrerak aurreko urtean baino merkeagoak izan ziren, eta plazara nahi izan zuten guztiak sartzerik ez zen egon.

Santesteban enpresariak, irailaren 8rako nobillada bat iragarri zuen. Gaztejendearentzat hiru zezenko jokatuko ziren, eta gero Lizasoren bat bolaztaturik Manuel de la Torre *Andorrita*rentzat (Gasteizeko zezenetan parte hartuta etorriko zen). Azkenean Gendulainen beste zezenko bolaztatu bat plazaratuko zuten errotariek lantzaz hil zezaten. Txotxongiloak botako zizkioten gainera, lehengo ohiturari jarraituz. Giro politikoa nahasia zen ordea eta irailaren 29ra atzeratu behar izan zuten nobillada[33].

Irailaren 9an, Madrilen korrida jokatu zen. Jose Bermejo eta Pablo Matias Elortz-ek Azkoienetik bidali zituzten zezenak eta dibisa horiz plazaratu ziren[34].

Tuteran, 1.844. urteko otsailaren 2an Felipe Perez Laborda ganaduzalea hil egin zen, eta 446 bururen jabe zela ikusi zuten bere familiakoek. 173 behi, laupabost urteko 37 zezen, hiru urteko 37 zezenko, etab. Aipatutako 37 zezenak honela saldu zituzten gero urtean zehar:

9 Zaragozara ekainean, 2.000na errealetan.
6 Valentziara ekainean, 2.000na errealetan.
9 Iruñera uztailean, 2.260na errealetan.
6 Tuterara uztailean, 1.900na errealetan.
5 Zaragozara urrian, 2.000na errealetan.
1 Zaragozara hurrengo urtean (1.845.ean) 2.140 errealetan.

Beste zezen bat irendu eta joaldun gisa utzi zuten.

Bizente Perez Laborda (Feliperen semea) arduratu zen harez gero ganadutegiaz. Dibisa zuriak eta P markak lehen bezala iraun zuen.

Valentzian korridak abuztuaren 11 eta 12an ere izan ziren. 14 zezen Tuterako Luis Lizasorenak izan ziren (dibisa urdin argiz) eta beste 2 Arnedoko Laureano Ibarnavarro-renak (dibisa gorriz)[3].

Tuteran, santanatan bi korrida antolatu zituzten; uztailaren 26 eta 27an. Gendulain, Zalduendo eta Perez Labordaren hamalau zezen toreatu zituen *Cuchares*ek bere koadrilarekin. Zezen bakoitza 95 duro kostatu zen[2].

Zaragozan ere toreatu zituen *Cucharesek* nafar-zezenak urriaren 15ean; Luis Ferrer-en bi zezen eta Ibarnavarro, Perez Laborda eta Ramon Lopez-en bana. Francisco Arjona-rekin batera Juan Leon *Leoncillo* ezpataria aritu zen[3].

Iruñean, urte bukaeran arazo larriak izan zituzten zezenplaza berriarekin. Plazako bobedatan, eserlekuen azpian, pitzatu kezkagarriak agertu bait ziren. Neguko ur eta izotzekin plazaren egoera txarragoa izango zelakoan puntalatu egin zuten. Geroztik konponketak egin zitzaizkion plaza hari, baina buruhausteak besterik ez zituen eman[29].

Iruñeko Udalak dena dela, azaroaren 12an plaza hurrengo urterako alokatzeko baldintzak argitaratu zituen. Uztailaren 6an hiru zezen (nobilladaren ordez), uztailaren 7an sei zezen, uztailaren 8an bederatzi zezen (3 goizean probarako eta 6 arratsaldean) eta uztailaren 9an beste bederatzi zezen korrituko ziren.

———— o ———— o ————

Baldintza haietan 1.845. urterako zezenplazaren ardura bere gain hartu zuena, Nazario Karrikiri jauna izan zen. Udalari 40.000 erreal eskaini zizkion eta irabaziak izaten bazituen Iruñeko ospitaleei ematea ere bai. Aurreko urtean ordea, 47.000 errealetan hartu zuen Santesteban jaunak plaza, eta Karrikiri jaunak beste 7.000 erreal ere eman zituen opari gisa.



11.4. irudia. Karrikiri deituraren armarria.

Baina zein zen gero ganaduzale famatu bihurtuko zen Nazario Karrikiri jauna?

1.841. urteko berriak ematerakoan aipatua dugu jadanik Karrikiri jauna. Berak kontratatu bait zuen Madrilen *Cuchares* 1.841. urtean Iruñeko sanferminetarako.

Azter dezagun ordea Nazario Karrikiri–ren jatorria. Kanpotik Iruñera etorritako galdaragin baten semea zen. Batzuek diotenez, agian Nafarroa Beheretik etorriak ziren Iruñera[35]. Lapurdi eta Nafarroan aurkitzen da Karrikiri deitura, eta bere armarrian, hondo gorrian urrezko bi mahai ditu batabestearen gainean[36].

Deituraren esanahia etimologi aldetik oso garbi dago; *Karrika* izena (kalea alegia) eta *–iri* atzizkiaz (hurbil esan nahi du) osatua bait dago[37]. Karrikiri izena ordea, Zuberoan ere ezaguna da. Piarres Topet *Etxahun* koblakari zuberotar famatuak (1.786–1.862), bere *Idarroki olha* deituriko bertsoetan *Kharrikiri–borda* artzaia aipatzen bait du:

... *II*
***Kharrikiri–borda** edo Zankhartile*
Ai! zer laguna hura, atzin lo egile!
Bezpera gaiti dua olh'aizulat ere;
Bihamenin jiten, nahasterik gabe,
Ardien berheztera beitü herabe.

IV
***Kharrikiri–borda**'k zer zian egiten,*
Ardik zeitzenin bestek berhezten?
Jun eta salduan zeitzün sartzen,
Berak aldiz olhalat laster egiten:
Haren lagün zena ordian laket zen.

Zuberoako Altzürükü herritik hurbil gainera, bada Kharrikiri izeneko toponimo bat[38].

Dena dela, Nazario Karrikiri–k banketxe famatua zuen Madrilen, eta oso aberatsa zen. Tafallako Carmen Mosso anderearekin ezkondua zegoen, baina seme–alabarik ez zuten izan. Mosso anderea, Espoz y Mina–ko kontearen senide zen. Nazario jauna berriz, Tafallan Madrileko diputatutzarako behin baino gehiagotan aukeratu zuten. Salamanca–ko markesaren eta Riansares–eko dukearen laguna zen, eta negozio handitan sartu ziren hirurak ere. Karrikiri jaunak, Valentziako Grao–ko kaiaren obrak bere gain hartu zituen eta Tafallako langile asko joan zen hara lanera[34].

Negozio askotan sartuta, oso aberats bihurtu zen. Artikutzako lurren jabe izatea lortu zuen[39]. Norteko trenbidearen eragiletakoa izan zelarik, Iruñean Gaztelu–plazan jauregi bat eraiki zuen; gaur egun baleztenatarren jauregi izenez ezagutzen dena[35].

Karrikiri jauna, politikan ere oso sartua zegoen. Beti saiatu zen Isabel II.a erreginaren alde[33]. Baita Baldomero Espartero jeneralaren erregentziaren garaian (1.840–1.843) O'donell jenerala Iruñean altxatu zenean ere.

Gatozen ordea 1.845. urteko sanferminetara; Karrikiri jauna zezenfesten antolatzaile bihurtu

zenekora alegia.

Karrikiri–k sanferminetarako, 27 zezen ekarri zituen lau ganadutegitatik:

- Tuterako Tadeo Gendulain–en 6 zezen. Dibisa gorriz jokatu ziren. 13.560 erreal kostatu zitzaizkion guztira.

- Kaparrosoko Zalduendo–ren alargunaren 7 zezen. Dibisa urdinez plazaratu zituzten. 15.820 erreal kostatu ziren.

- Tuterako Felipe Perez Labordaren alargunaren 6 zezen. Dibisa zuriz korritu ziren eta 13.560 erreal kostatu zitzaizkion.

- Madrileko Osuna eta Veragua–ko dukeen 6 zezen. Dibisa zuri–gorria erakutsi zuten plazan. 28.000 erreal kostatu ziren[33].

Kartelak egiterakoan Veragua–ko dukearen izena Perez Labordarena baino lehenago ipini zuten, eta Barbara Irurtia alargunak protesta bidali zuen udaletxera[3].

Zezen haiek toreatzeko, Karrikirik hiru ezpatari famatu kontratatu zituen: Juan Leon *Leoncillo*, Francisco Arjona *Cuchares* eta Jose Redondo *Chiclanero*. Juan Leon eta Francisco Arjona–k 53.000 erreal kobratuko zituzten eta koadrila osatzeko sei banderilari eta hiru pikatzaile ekarriko zituzten. Pikatzaileek Madrileko plazan exigitzen ziren ezten–hagak erabiliko zituzten Iruñean. Jose Redondo–k 24.000 erreal kobratuko zituen eta berekin hiru banderilari eta pikatzaile bat ekartzera behartu zen. Horietaz gain, banderilari gipuzkoarrek ere parte hartu zuten sanferminetako korridetan. 2.720 erreal irabazi zituzten hauek.

Zezenetan Juan Leon eta Francisco Arjona nabarmendu ziren batipat. *Leoncillo*ri hiru zezen, *Chucharesi* hiru zezen eta *Chiclanero*ri zezen bat eman bait zieten saritzat (zezen bakoitzagatik 80 erreal).

Karrikirik 97 zaldi erosi zituen lau egunetako korridetan erabiltzeko. Guztira 52.702 erreal kostatu zitzaizkion. Lau egun horietan gainera 73 zaldi hil ziren.

Korridetan, errotariek parte hartu zuten beren lantza eta guzti antzinako ohituraren arabera. Zezentxakurrak ere plazaratu ziren zezenei erasotzeko, etab.

Sanferminak amaitu zirenean, Karrikirik kontuak atera zituen. Diru–sarrerak 253.866 errealekoak izan ziren eta gastuak 267.711 errealekoak. Akatsa 13.845 errealekoa zen beraz. Baina horrek ez zuen Nazario jauna kezkatu; akatsa ordaintzeaz gain beste 11.155 erreal eman bait zituen Iruñeko ospitaletarako.

Sanferminak bukatu eta laster, Iruñean Isabel II.a erreginak egingo zuen bidaiaren berri izan zuten. Hamabost urte bakarrik zituen erregina, uztailaren 30ean iritsi zen Iruñera, eta han esan zuenez, gogoko izango zuen Iruñera egindako hurrengo bisitaldian zezenfestak ikustea. Abuztuaren batean Donostiara abiatu zen[33]. Medikuek nonbait Santa Ageda–ko bainuetxera joatea eta itsasoan bainatzea gomendatu zioten, eta Donostiako hondartza aukeratu zuen horretarako. Hamabost egun egin zituen erreginak Gipuzkoako hiriburuan abuztuan. Festa asko antolatu zen bere omenez; baita hiru korrida ere hilaren 13, 14 eta 16an. Goizean hiruna eta arratsaldean seina zezen toreatu eta hilko zirela iragarri zuten. Zezenak Gendulainenak (Tadeorenak), Perez Labordaren alargunarenak eta

Zalduendoren alargunarenak izango ziren. Zezenak hiltzera Francisco Arjona *Cuchares* eta Juan Leon *Leoncillo* (57 urte zituen orduan) etorriko ziren beren koadrilarekin Konstituzio–plazara. Sarrerak goizean lau erreal eta arratsaldean zortzi kostatu ziren[40].



11.5. irudia. 1.845. urteko korrida bat Donostiako Plaza Berri edo Konstituzio–plazan, George Carpenter–en arabera.

Irailaren hasieran Isabel erregina Iruñera itzuli zen, eta han hilaren 5 eta 7an Udalak korridak eman zituen bere omenez. Irailaren 8an baita nobillada bat ere.

Horretarako Tuterako Frantzisko Lizasori bi zezen (dibisa berdez) eta urtebeteko hiru zekor erosi zizkioten; 113 durotan zezen bakoitza eta 45 durotan zekor bakoitza (guztira 7.220 erreal). Azkoieneko Bermejo eta Elortz jaunei hiru zezen erosi zizkieten (6.780 errealetan; dibisa horia zuten), Perez Labordaren alargunari beste hiru (dibisa zuriz, prezio berean), Fausto Joakin Zalduendoren alargunari beste hiru (dibisa urdin–gorriz) eta Tadeo Gendulaini ere beste hiru (dibisa gorriz).

Irailaren bosteko korridan badirudi zezenek ez zutela suhartasun handirik erakutsi.

Zezenak toreatzeko dena den, Udalak aldi berean *Cuchares* edo *Paquiro* kontratatzeko urratsak eman zituen. Donostiatik bueltan, Francisco Arjona Iruñean zen eta tratutan hasia zen Udalarekin korridak toreatzeko. Abuztuaren 21ean ordea Juan de Dios Mosso jaunaren bidez bere koinatu Nazario Karrikiri jaunaren berriak jaso zituzten udaletxean. Francisco Montes *Paquirok* iraileko korridak toreatzeari baiezkoa eman ziola jakin erazi zien. *Cucharesen* tratuak bertan behera utzi zituzten orduan.

Francisco Montesek Cadiz–etik Juan Martin *la Santera* ekarri zuen ordezko ezpatari gisa koadrilako beste hamahirurekin batera. *La Santera* Montesekin batera Sevillako tauromaki eskolan ikasia zen; etxe onekoa eta harroa. Iruñean txistuak jo zizkioten lana gaizki egiteagatik, nahiz eta garai hartako kronistek toreatzaile iaioa zela esan.

Paquirok koadrila osoaren izenean 113.562 erreal jaso zituen; 80.000 plazako lanagatik eta gainerakoa bidai gastuengatik.

Irailaren 5ean eguerdiko hamabi t'erdietan heldu zen erregina plazara. Toreatzaileek beren buruak plazan aurkeztu zituzten eta erreginari belauniko agur egin zioten. Korridako lehendakari erregina bera zenez gero, hark bota zuen toriletako giltza plazara, baina giltzazaina eta zurgina jasotzera atera baino lehen bota zuen, eta jendeari hori ez zitzaion ondo iruditu. Beste hankasartze batzuk ere egin zituen erregina gazteak lehendakaritzan. Zezen on bati zezentxakurrak botatzea eta beste zezen suhar bati suzko banderilak ipin eraztea adibidez.

Korridetako gorabeherak Laurent izeneko frantziar batek idatzirik utzi zituen. Lehen zezenean plazaren erdian irudi handi bat ipini zuten eta zezenak jo zuenean, barrutik uso eta txori txikiak atera ziren. Banderila berezi batzuk ere prestatu zituzten. Kaiola txiki bat zuten eta barruan txoriak zeuden. Banderilak ipintzerakoan kaiola ireki eta txoriak barrutik irten egiten ziren.

Montes–ek lehen zezena ezpatakada batez bota zuen. Bigarrena koldarra zen eta jendeak zakurrak eskatu zituen. *Paquirok* ordea kapaz bereganatzea lortu zuen eta *la Santerak* laugarrenean hil zuen. Hirugarren zezenean bikain egon zen Montes. Laugarrenean ere bai, eta ezpatakada batez bota zuen. Bostgarren zezenari banderilak jarritakoan, usoak eta txoriak atera ziren, eta erreginaren ondora joan; Nemours–eko duke eta dukesaren parera, hain zuzen. Han bait zeuden erreginaren aldamenean korrida ikusten. Seigarren zezena *la Santerak* hil zuen jendearen txistu artean. Zazpigarren zezenean errotari gazteak atera ziren alkandora eta galtza zuritan beren ezten–hagaz. Zauritu bat edo beste izan zen, baina ezer kezkagarririk ez. Joan Kruz Beloki–k 320 erreal kobratu zituen guztien izenean.

Bigarren korridarako, 7.193 sarrera saldu ziren (lehenengorako 6.890) eta irailaren 7aren ordubiak aldera hasi zen. Erreginak giltza Nemours–eko dukesari utzi zion eta hark bota zuen plazara.

Lehen zezena hiltzea kostatu egin zitzaion Montesi. Hurrengo zezenak suharragoak suertatu ziren eta hiru pikatzaile zauritu zituzten. Bostgarren zezena ez zen zalditara eta kapatara joan. Horregatik, bost zezentxakur bota zizkioten Zaltzain Nagusiak eskuineko belarriari tira ondoren; hori bait zen zakurrak ateratzeko seinalea. Sastakariak orduan, zezenari ezpata ijaretatik sartu zion ohiturari jarraituz. Lunerdia zakurrek zezena geldi erazi ezin zutenean erabiltzen zen.

Iruñeko korrida hartako lau zezentxakur, Jose Joakin Arrese tolosarrarenak ziren. 2.800 erreal kobratu zituen.

Korrida amaitu zenean, printze frantsesak (Nemours–eko dukeak) Montesi harribitxizko eraztun bat erregalatu omen zion; 500 duro balio zituen eraztun bat. Joaquin Coyto *Charpa* pikatzaileari berriz, orratz bat.

Korrida haietarako Udalak 50 zaldi erosi zituen. Zezenek plazan 33 hil zituzten eta beren gisa gaixorik beste bi hil ziren.

Irailaren 8an, arratsaldeko lauretan nobillada eman zen zezenplazan. Gazte iruindarrek parte hartu zuten zekor haiek toreatzen eta hiltzen: Joan Errazu, Telesforo Moli (ezpatariak), Arellano, Villarreal, Asiain, Lasa, Diez, Arteaga, Erize, Urrizola, Martinez, Arruazu, Azpilikueta, Baraibar eta beste gazteek hain zuzen. Udalak biharamunean bederatzi duroko saria eman zien, guztien artean bana zezaten.

Urte hartan, 1.845.ean, urriaren batean beste nobillada bat antolatu zuen Udalak Iruñeko gazteek torea zezaten[33].

Iruñeko iraileko korriden berri emanez, *Iruñeko bestac* izenpean idazlan bat agertu zen Baionako *Ariel, courrier des pyrenees* aldizkarian urriaren 5ean eta hurrengoetan. Bertsotan ematen da hango festen berri, eta egileak *un Phileuskarien* izenordea erabili zuen. J. Martin Hiribarren azkaindarra izan zitekeen bere egilea.

Dena dela bertsotan garbi esaten denez, Jose Agustin Xaho zuberotarra Iruñean zen 1.845.eko irailean. Honela hasten bait dira bertsoak:

*Izan haiz, **Chaho**, Iruñian*
Iraila zenian lauian.
Bada zer dukan han kaustu
Zertako ezduc condatu?

Urrian eta azaroan zehar *Ariel* aldizkariak Iruñeko iraileko festen berri eman zuen[41]. Bertsotan deskribatzen dira Iruñeko plaza berria, bertako jendea, zezenak eta zezen-lasterketen segida.

Hiribarren azkaindarrak (eta Xaho-ren lagunak), Iruñeko korrida haiek deskribatu zituen zortzi urte geroago (1.853. urteko abenduan) bere *Eskaldunac* izeneko liburuan. Puntu motzeko bertsoen bidez eman zuen Iruñeko korriden berri, *Nahiz ezden cecena Eskaldun yosteta*, esanez hasten delarik. Garbi dago Hiribarrenek zezenketen jatorriari buruz deus gutxi zekiela. Guk behintzat liburu honetan idatzitakoarekin besterik frogatu dugula uste bait dugu.

Hona hemen berak ipinitako bertsoak[42]:

CECENAC

Nahiz ezden cecena Eskaldun yosteta,
Donestia, Iruñan menta handiz baita,
Erranen dugu nola guizon hain floch dena,
Cecenekin dabilan, eramanez gaina.

Hamar guizon tieso badohaz lerroan;
Cenbeitec kapa dute agueri besoan;
Ezdian daramate bestaco lilia:
Montes edo Cuchares, pare berecia,
Ezpataco bezala, lehenac agurca,
Gorthetan dituztenac achkide milaca.
Bira-bira yendea alkhitan dagola,
Batzuc bertzen gainetic ikusten dutela,
Aphez eta miricu athean yarriac,
Ichtripu ditezkenen consolagarriac,
Montes eta lagunac dohaz balcoinperat,
Belhaunico cecenen gakho eskatzerat.
Plaza erdian bada guizon cartoinezko,

Ilkhitzoan cecenac duena hecico;
Hari bere adarrez sabel cilhatzean,
Aire gucia handic choriz estaltzean,
Batzuc dohacilaric erreguina ganat,
Bertzec ihes eguiten bide idekirat,
Yende gucia hirriz yartzen da inguru,
Ezduela deusentzat guehiago buru.

Saltoca dabil bera chahalaren aita,
Sudur ciztu berratuz yende ikus eta,
Lasterren boliada hartuz ingurutan,
Adarrez yoz airea, muthur arrapotan:
Aldiz dio lurrari behatzez ematen,
Cintzurrean marruma duela ehorzten.

Nor zaio bada buruz orai aguerturen,
Ilaren errabiari norc ihardukiren?
Badire haren beldur ezdiren guizonac,
Ikharan direlaric beira dagocenac:
Bortzec ikusi dute Montes aitzinatzen,
Hasia zuelaric ilea urdintzen,
Galtza labur ferdekin, galtzardi churitan,
Maïpolis cilharra iduri beguitan,
Cortesiaz bethea, beltcharan itchura,
Desafiatuz gora zahar ithaitzura,
Ciricuzco sarean burua emana,
Chingolaz aphaindua ungui cattagona.

Bertzela dire bezti **toreadoreac***;*
Kapetan badituzte zazpi coloreac,
Cecen tirriatzeko etchatuz hetaric,
Nihor denean hurbil adar puntetaric
***Picadoreac** dire yaunac zaldietan,*
Lantza luce batzuec eskainiz morguetan.
Kameluzco larruaz galtza horitua.
Burdin chabal bereciz barnez horratua.
Chapel zuri zabalac dituzte buruan;
Mocanesac zaldiec begui inguruan,
Egon diten gueldiric cecen hurbiltzean,
Ez beldur gatic segur dohacen airean:
Doidoia daude chutic, bizcar koncorrekin,
Erdi itsuac eta belhaun gorriekin.

Ez dire tonto behar **chulo** *hautatuac*
Botatzeko cecenei min dariten suac.
Aguertzean cecena, ideki atheac

Hurbil ditu aldean yaun picadoreac;
Chahalaren aita da athera farrastan,
Ezdaki nori yazar, ahurin zurrutan,
Errotua, ikusiz mocanes pesia,
Bira–bira inguru eskuz ibilia;
Zango, buru, buztanez urrunduz bakea,
Ikharac duelaric bihotzen bethea,
Bulharretik hartzen du zamari gachoa;
Ezartzen erroz gora, banazca, lerroa.
Ileac chutic dire buru gucietan;
Hatsa nekhez ilkhitzen, bulhar hestuetan.

Zaldizcoac lurrerat eme yoan dire,
Dohatsu kolpatuac gueldi ez badire;
Zaldia guelditzen da, bulharrak agueri,
Odola sahetsetic zurrutetan yari;
Cenbeit aldiz nahi du altchatu lurretic,
Hertzea dariola sahets idekitic,
Urruntchago hiltzeco, oroz ikusia,
Gauza begui hainitzec ecin onhetsia.

Gainean cen guizona, cecena erroac
Chirchicaturen luke, ez balu chuloac,
Bere kapa arthikiz, hartaric urruntzen,
Eta berari buruz oldartuz bihurtzen.
Gueroztic ophil batec arintzen bihotza,
Ezbaita haren hurbil herio garratza;
Hirriscu guehiena ezdu eroriac,
Bainan chulo cecenac lasterca seguiac;
Harc behar seinalatu hegalac zangotan,
Atheca saltatzeco arin eta frichtan,
Ondotic duenean, hurbildic adarra,
Cecena muthiria, berenaz hazcarra,
Eta. bere asaldan, nihon ezduena,
Indarca ez bertzela, buru diokena,
Kapa dio botatzen, heldu den biderat,
Harekin yosta dela, heltzeco porturat;
Batzuetan badoha aitzinat hargatic;
Beira orduan chulo behaztapatzetic.
Askotan ezdu nahi utzi picadore;
Zaldipean, adarraz, ferecatzen ere,
Fereca ezdirenac amaren besarcac,
Bainan sorraraztaile bethico marrascac:
Zaldiz eguin ondoan itzuliphurdia,
Erroz gora badago ahuspez yarria,
Maiz aski guelditzen da dena ubeldua,
Atheca, zaldi eta lurraz umatua.

Ethortzean cecena zaldi aitzinerat,

Adarrac bulharretan hari miratzerat,
Zaldizco balentria, lantza puntarekin,
Ihesi egortzea, buruco minekin:
Hartaco behar sarthu buru guibelean
Haltzairu zorrotzena, toki minberean;
Zaldi beiratzaileac bibac ardiesten,
Cecena ihesari denean ematen;
Nola biba cecena aditzen oihua,
Erortzean guizona, azpico zaurthua.

Zalditan guehienac hilic guelditzean,
Picadoreac ere cenbeit kolpatzean,
Chirola bastart eta trunpeta airosac
Bolatzen dituztela bici hargamasac,
Chuloec hartzen dute, suciz gaindi dela,
Metra bat naski eskas diteken makhila;
Puntan dire amuac lephotic sartzeco,
Lastercan, egon gabe adarren meneco;
Chingola dariote makhila multzuei,
Cecenaren lephoan artechki lothuei;
Suciac zarraizcoten barnean gordeac,
Khar–yoa hurbiltzean, ciztuca erreac.

Ezda folsua behar batere makhurra,
Lancichken sakhatzeco, ihestuz aderra;
Aski artech ezbada, badu bere contu:
Hirriscuac odolaz pagaturen ditu.

Sucia dutenean, dire ikusteco;
Cecenen errabia, ecin sinhetsizco:
Yrakia darite, orroaz, saltoca,
Erreac, eta nori ez yakin bendeca,
Lephoco zain guciac odolez hantuac,
Adarrac espalderi minez oldartuac:
Halere buztanetic cenbeitec ibiltzen,
Bira–bira adarrei direla itzultzen.

***Ezpadac** harturen du **muleta** orduan;*
Hura da oihal gorri makhila buruan;
Eskuineco eskuan duela ezpata,
Montesec khoroatzen cecenen yosteta:
Guizon eta cecenac beiratzen elkharri,
Bekhoz–bekho yarriac, bortzen harrigarri;
Lehenac ezdu indar nahi baliatu;
Gogoeta guciac adrecian ditu;
Yakin behar du adar nola den hedatzen,

Eta hekin kolperi nola den itzultzen.
Cecenac, nahiz ase bere errabia,
Ecin gorde dezake khartsu guticia,
Ichurtzeco odola adar ezpatekin;
Errotzen da muleta ikustearekin.
Ezditeke guizona descansu galtzetan;
Bazter guciac ere dire pirpiretan;
Biltzen ditu buruac gudu lazgarriac,
Deus guisaz bertzetarat ecin itzuliac.
Cecena badohaco saltoz guizonari,
Beldur guti ekharriz haren bultuari;
Bainan ustez hura yo, muleta du yotzen,
Frichtacoan guizona zaiola itzultzen,
Sarthuric itzultzean, buru guibeletic,
Ezpata, utzi gabe galtzerat eskutic.
Cecenaren gorphutza dardaran ematen,
Doiean chutic ditu bi urrats eguiten.
Kolpe ederrena da hola eguin dena,
Eta cecena bera saritzat duena;
Bainan lephoan nonbait cecena ukia,
Sarraskitan badabil, oraino bicia,
Ezpadaren paga da izaten chiztua,
Denbora lucenean ecin ichildua.

Nausitu den ezpada, bozcariorekin,
Yoaiten andretarat cenbeit chingolekin,
Erakusten dutenac cecen ethorkia:
Non zagon lo maltzurra andre cortesia!

El Heraldo de Madrid aldizkariak ere eman zuen Iruñeko iraileko korrida haien berri eta zezen bati botatako zezentxakurrez ari zela, zera zioen:

Lehen hiru zakurrek ez zuten horzka egiterik lortu. Gero zezenari bota zizkioten beste biak, hain txikiak zirenez gero, ez ziren zaunka egitera ere ausartu. Joaldunak atera eta orduerdia baino gehiago behar izan zuten zezena plazatik eramateko. Errotariek zezen hura eskatu zieten orduan agintariei biharamunean lantzaz hiltzeko. 24 errotarik beren haga puntazorrotzak lerrokaturik ipintzen zizkioten zezenari, eta zezenak hirutan hautsi zien lerroa, mutilgazteak lurrera bota eta zapalduz[3].

Tuteran 1.845.eko santanatako korridatarako plaza biribil berria Carlos Morales jaunak alokatu zion Ospitaleari 21.000 erreal ordainduta. Juan Jimenez *el Morenillo* (62 urte zituen orduan) eta Isidoro Santiago *Barragan* ezpatariak etorri ziren, besteak beste, toreatzera.

Zezenak Zalduendoren alargunarenak eta Perez Labordarenak izan ziren; sei bakoitzarenak. Zezenak 98na duro kostatu ziren. Enpresariak urte hartan, 101 ontzako urre galdu zituen santanatako korridetan[2].

Santanatako korrida hauetaz aparte, Tuteran urtean zehar laupabost nobillada antolatzen zituzten. 1.845.ean Bazko aldean egin zen bigarrena adibidez, zezenkoak Abastu–Batzordeak

emanda. Hirugarren nobilladarako Perez Labordaren alargunak doan eman zizkion zezenkoak Ospitaleari, eta Tuterako beste ganaduzaleek ere bazuten ohitura hori.

Lizarran, zezenplaza biribila egitekotan zebiltzan. Baina Udalaren proiektuari parrokiak ezezkoa ematen zion. Konpondu ezinik zebiltzala, Esteban Larrion jaunak partikularki bere proiektua aurrera eramatea lortu zuen, eta hiriko sarreran, San Agustineko portalearen ondoan, zezenplaza biribil berria eraikia zegoen jadanik 1.845. urteko abuztuan[3].

Zezenplaza, abuztuaren 29, 30 eta 31ko korrida eta irailaren 1eko nobilladaz estreinatu zen. Zezenak honako ganadutegi hauetakoak izan ziren: Ejeako Ramon Lopez (dibisa urdina), Tuterako Frantzisko Lizaso (dibisa urdin argia) eta Azkoieneko Pablo Matias Elortz eta Jose Bermejo–renekoak (dibisa horiz azken hauek). Zezenkoak, Alesbes eta Tuteratik ekarri zituzten.

Toreatzera Francisco Arjona *Cuchares* eta Juan Leon *Leoncillo* etorri ziren beren koadrilan lau pikatzaile, sei banderilari eta Debako *Zapataritxoa* (Jose Ituarte) zirelarik.

Korrida guztiak ikusteko palkoa 240 erreal kostatu zen. Eserleku arrunta berriz, lau erreal goizean eta sei arratsaldean[43].

Bilbon, 1.845. urtean artean ez zuten zezenplaza biribilik, eta korridak Ibaizabalen ondoko azoka–plazan izaten ziren. 1.845. urtean ere bai. Orduan Veragua–ko dukearen abereak jokatu zituzten eta Jose Trigo pikatzaile famatua larri ibili zen zezen haiekin; lurrera behin baino gehiagotan bota bait zuten[13].

Azpeitian, urteroko ohiturari jarraituz saninaziotan beren nobilladak jokatzen zituzten, baina 1.845.ean Frantzisko Arregik proposamen bat egin zion Udalari, uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean bi nobillada bertako sei zezenko eta Nafarroako lau zezenekin osatu ahal izateko. Goizean bi zezen edo zezenko probatuko ziren, sarrera lau erreal kobratuz. Arratsaldean bost toreatu eta banderilaztatuko ziren, sarrera hiru erreal kobratuz. Arregik eserleku eta balkoiei buruz baldintza batzuk ipini zituen, baina Udalak uztailaren 13ko bilkuran baldintza horiek zerbait aldatu eta osatu egin zituen. Aldaketa horiekin proposamena onartu egin zioten Arregi jaunari[20].

Azpeitian bezalaxe Gipuzkoa, Bizkaia eta abarreko herri askotan ingurutako zezenkoak jokatzen zituzten herriko plazan festetan. Urte hartan (1.845. urtean alegia) hil zen Joan Inazio Iztueta zaldibitarrak adibidez, ederki asko deskribatzen du Lastur–en Tolosako plazan jokatzeko zezenak mendian nola harrapatzen zituzten. Honela bait dio berak garai hartan idatzitako *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* izeneko liburuan:

... Provincia onetaco plazaetan jocatu oidiran bertaco baso–idiscoac arrapatzen ere, guztiz portizac eta chit azcarrac dira Guipuzcoaco mendi mutilac, beste gauza guztietan bezalaishen. Ez da oraindic urte asko, Devaco mugapean guertatu izan dala lance bat adigarria chit, eta gogoan ondo euquitzecoa. Tolosaco plazan jocatzeko lau cecen arrapatzera joan ciatezquean mendira Lasturco bost mutil gazte bei eciac arturic, oequin batean echera ecarteco asmoan, beste ascotan bezala. Beguiztatuac ceuzcaten lau cecenetatic irurac atzemanic, ifini omen cituzten bei eciaquin batean echeraco bidean; bañan laugarrena izanic besteac baino indartsuagoa, pizcorragoa, eta ibiltari gueiagocoa, sartu omen citzaien chara andi batean. Orduraco arras necatuac arquitzen omen ciran cecen arrapatzalleac. Guztiaz ere bost mutiletaco batec artu omen ceban asmo sendo betea, ezic, cecen izu iguestuari etziola laga bear, alic eta atzeman cezan arteraño. Jarraitu omen cion berac bacarric, chara zabal andia igaroric mendi zulo guztiac barrena achi achica; eta noizpaitean ere, cecena beragana giraric jarri omen citzaion aurquez aurque erasotzeco moduan. Bereala alcarganatu

omen ciran biac bat batean, colpea nai erara emateco lecuric cecenac etzeban unean, eta oratu omen cion mutilac adar bietatic portizqui; bai ta eutsi ere irme, cecena arras aunatu zan arterañoco guztian. Ordu bian bezalatsu iraun omen ceban jazarra andi onec. Mutilac ez omen ceban besteric eguiten, ezpada, adarretatic irme eustea; bañan cecena necatu zatequean arras, aiñ carga pisua beregandic ezin quenduaz. Gueroeneraco, cecena quemen bagueturic erori zaquean lurrera, eta berari eutsiaz cegoela, asi omen zan mutila lagunai ojuca, eta nequez biribillatu omen cituen beretaco bi bei eci batequin, ceñari loturic eraman omen zuten ardi malsoa becin humill echera laugarren cecen indartsu ibiltari andi hura. Jazarra gogoangarri au cecenarequin eguin izan ceban guizona, oraindic biciric arquitzen omen da Lastur-en...[44].

Zaragozan 1.845. urtean, maiatzean hasi ziren korridak ematen. Hilaren 24 eta 25ean, Gendulain, Perez Labordaren alarguna eta Ramon Lopez ejeatarraren seina zezen plazaratu zituzten, Andalusiako Luis Ferrer-en lau eta Antonio Suarez-en birekin batera. *Cuchares*, *Leoncillo* eta Pedro Pareja ezpatariek hil zituzten.

Urrian ere korridak eman ziren Zaragozan. Hilaren 15ean Nafarroako hiru zezen eta Aragoako bat hil zituen Jose Redondo *Chiclanerok*[3].

Uztailaren 14ean, 1.845. urtean, Jose Pikabea Lesaka-ren zezenak korritu ziren Madrilen. Vistahermosa-ko kontea hil zenean, bere ganadutegiaren zati bat Pedro Jose Pikabea Lesaka-ren (lesakarraren) eskutara pasea zen Andalusian, eta hura hil zenean, lehenbizi beren alargunak eta gero Jose Pikabea semeak zuzendu zituzten zezenen kontuak[10].

Eta honenbestez, utz dezagun zezen-kontutan hain oparoa izan den 1.845. urte hau.

Gatozen, bada, 1.846. urteko Iruñeko zezenetara. Han otsailaren 22an, zaldun-ihaute egunean zezenko bat eta idi suhar bi korritu ziren. Bazko bigarrenean ere antzeko nobillada ospatu zen.

Sanferminetarako Nikolas Aztarain iruindarrak hartu zuen plaza, 56.100 erreal eskaini zituelako. Tratua Jose Redondo *Chiclanero*rekin egin zuten. 53.000 erreal kobratuko zituen guztira, eta bere gain egongo zen koadrila guztiari ordaintzea; baita banderilari gipuzkoarrei ere.

Ordezko ezpatari Manuel Diaz *el Lavi* hitzegina bazegoen ere, Gonzalo Mora toreatzaileak bete zuen haren hutsunea. Pikatzaile-lanetara Juan Gallardo, Pedro Romero, Francisco Atalaya eta ordezko beste bat etorri ziren. Banderilari berriz, gipuzkoarrez gain Jose Antonio Calderon *Capita*, Gregorio Jordan, Nicolas Baco, Matias Muñiz, Manuel Ortega eta Enrique Ortega. Sastakari gisa Jose Diaz *Mosca* ekarri zuten.

Zezenak uztailaren 6an (3 zezen), 7an (6 zezen), 8an (goizean 3 eta arratsaldean 6) eta 9an plazaratu zituzten. Tadeo Gendulain tuterarrak (dibisa gorriz), Zalduendo kaparrosoarrak (dibisa urdin-gorriz) eta Tuterako Perez-Labordaren alargunak (dibisa zuriz) bidali zituzten.

Korrida onak ikusi ziren urte hartako sanferminetan. Izan ere bederatzi zezen saritzat irabazi zituen toreatzaile-koadrilak (720 erreal guztira). Pikatzaile bat dena den, zauritua izan zen.

Urte hartan irailaren 8an eta urriaren 18 eta 19an nobilladak antolatu zituzten. Azken biak Isabel erregina eta bere arreba Luisa Fernandaren ezkontzak ospatzeko. Azaroaren 28an ere beste nobillada bat izan zen San Saturninoren omenez[33]. Iruñeko nobilladak, Domingo Iturralde jaunak antolatu zituen[3].

Madrilen ere Isabel erregina eta bere arreba Luisa Fernandaren ezkontza zela eta, urriaren 16, 17 eta 18an erret korridak izan ziren Plaza Nagusian (eta ez plaza biribilean). Azken aldiz orduan erabili zen plaza hura korridetarako[6]. Lehengo era zaharreko zezenketa izan zen; zaldun aristokrata, burtziketa, oinezko toreatzaile eta guzti. Ganadutegi askotako zezenak jokatu zituzten; baita Luis Lizaso tuterarrarenak ere. Juan Leon, Juan Jimenez, Francisco Montes, Francisco Arjona, Juan Martin, Jose Redondo eta abarrek parte hartu zuten ezpatari gisa[45].

1.846. urteko santanatan Tuteran bi korrida antolatu zituzten plazako akziodunek. Santa Ana egunean hiru zezen (Ejeako Murillo-renak, 65na duro ordainduta) eta biharamunean Tadeo Gendulainen bederatzi zezen (hiru goizean probarako eta sei arratsaldean, 77na duro t'erdi ordainduta). Juan Jimenez *el Morenillo*, Juan Vazquez Parra eta koadrilak lan egin zuten[2]. Tadeo Gendulainek urte hartan, Ebro ertzeko *Sotoqueda* izeneko belardia erosi zion Teodoro Remirez jaunari. Tadeok gainera, ganadutegian bazkide zen Juan de Dios Mosso jaunari utzi zion[3]. Juan de Dios Mosso hau Nazario Karrikiriren koinatua zen, eta, gero esango dugunez, azkenean Karrikiri bankariaren eskuetara etorri zen Gendulainen ganadutegia.

Azpeitian, Frantzisko Arregik Udalari saninaziotako zezenetarako bere proposamena egin zion. Uztailaren 31n inguruko lau zezenko (onenak) eta larrabehi bat toreatuko zituen Ituartek bere koadrilarekin (Jose Ituarte eta bere aita Antonio Ituarte toreatzaileen berri gehiago kapituluaren bukaerako eranskinean ipini dugu, jaioteguna, heriotz eguna eta abar zehatz-mehatz jakin nahi duenarentzat).

Abuztuaren batean kartel berdina eskaintzen zuen, eta gauean gainera plaza ondo argituta larrabehi bat.

Jose Inazio Agirrezabalaga alkatea ordea, beste tratu batera iritsi zen Arregirekin eta festak honela izango ziren: Uztailaren 31n, goizean nafar-zezen bat eta bertako zezenko bat probarako eta arratsaldean hiru nafar-zezen eta Lastur-eko bi zezenko. Abuztuaren 1ean beste horrenbeste. Abuztuaren 2an, arratsaldean lau nafar-zezen (aurreko egunetan ateratako seien arteko onenak). Nobilladatan Jose Ituarte debarrak eta bere koadrilak zezenak toreatu eta banderilaztatu egingo zituzten. Udalak nafar-zezen bat edo bestea hiltzea agintzen bazuen, Arregiri 700 erreal emango zizkioten zezen bakoitzeko.

Goizeko probarako sarrerak erreal bat balio zuen, eta arratsaldeko nobilladarakoak lau[21].

Bilbon, 1.846. urtean azoka-plazan izan ziren korridak. Francisco Montes *Paquiro* famatuak hartu zuen parte bere koadrilarekin[17].

Urte hartan bertan, 1.846.eko abuztuaren 15ean, Sevillako plazan Joan Mihura ganaduzalearen zezenak lehen aldiz korritu ziren dibisa gorri-berdez[10]. Mihuratarrak Euskal Herritik Andalusiara joan eta han ganaduzale famatu bihurtutakoak ditugu.

1.847. urtean, maiatzaren 27an Iruñeko zezenplazan lau zezenko eta bi larrabehi jokatu zituzten. Apirilaren 5ean berriz, Udalak zezenplaza alokatzeko baldintzak argitaratu zituen. Baldintzetako batek zioenez, zezenek nafarrak izan behar zuten.

Miguel Poyales jaunak, Korellan bizi zenak, hartu zuen plaza 52.000 erreal eskainita. Miguel Poyales, enpresari famatua zen. Korellako plaza eraiki zuen esana dugunez, eta dilijentzi linea zuen Madriletik Baionaraino, besteak beste.

Miguel Poyales–ek, bere ganadutegi propioa sortua zuen jadanik, batez ere Tadeo Gendulainen abereekin. Bere zezenak Irufiean lehen aldiz 1.847. urte hartantxe korritu ziren dibisa berdez, eta ez lau urte geroago askok dioen bezala.

Uztailaren 6an (hiru), 7an (sei), 8an (3 goizean eta 6 arratsaldean) eta 9an (3 eta 6) korritu ziren zezenak plaza berrian. Miguel Poyales–en laguntzaile zen Domingo Iturraldek eman zion Udalari zezenen jatorrien berri. Hiru zezen Gendulainenak ziren, hiru Zalduendorenak eta beste hiru Perez Labordarenak. Guzti hauek Balterra inguruan zeuden. Beste zezen–talde bat Bermejo eta Elortz–enak ziren eta haiek Imaz–eko belardietan zeuden. Azkenik, Poyales beraren zezenak Alfaroko lurretan ari ziren larratzen.

Zezenak toreatzera Francisco Arjona *Cuchares* ekarri zuten. Bere koadrilan ordezko ezpatari bere anaia Manuel Arjona etorri zen.

Korridatan *Cuchares* eta bere anaiari sari gisa bost zezen eman zizkieten (400 erreal) eta lana ondo egin zuten hiru pikatzaileei 120 erreal. Manuel de la Torre *Andorrica* Zaragozako toreatzaileari ere 520 erreal eman zizkioten.

Domingo Iturraldek urte hartan gutxienez beste bi nobillada eman zituen. Irailaren 8an bata eta 26an bestea. Azken honetan bi urteko hiru zezenko hil zituzten iruindar gazte batzuek[33].

Tuteran santanatan, Manuel Mancho, Jacinto Sierra eta Melchor Conde–k osatutako elkarteak korridak eman zituen 1.847. urtean.

Ejeako Jose Murillo–ren 9 zezen eta Lizasoren beste hiru hil zituen Tuterako (edo Tarazonako) Manuel Perez *el Relojero* ezpatariak. Zezenak berrogeitamarna duro kostatu ziren, eta toreatzaile eskasak zirenez, jende gutxi joan zen zezenetara[2].

Zaragozan korridak urriaren 13 eta 14ean izan ziren. Urtero bezala, nafar–zezenak korritu ziren; 8 Perez Labordaren alargunarenak, 8 Ejeako Jose Murillo–renak eta 8 herri bereko Ramon Lopezenak.

Zezen haiek toreatu eta hiltzera *Cuchares* eta Julian Casas *Salamanquino*a joan ziren Zaragozara, koadrilan hiru pikatzaile eta sei banderilari zituztela[3].

Urte hartan, 1.847.ean, Madrilen zirku batean *tximu jakintsu* batzuk atera omen zituzten traje gorriz. Korridatan ere zaldimutilek antzeko jantzia erabiltzen zutelako, *monosabio* izena ezarri omen zieten, eta harez gero entzuten da zezenplazatan hitz hori[46].

Urtearen hondarrean, abenduaren 27an, Arabako Biasteri–n Antonio Perez Peciña jaio zen; gero *el Ostión* izenordez famatu izango zen banderilaria[26].

Irufiean 1.848. urtean, gauzak ez zebiltzan ondo. Udaberrian, zezenplaza biribil berriaren egoera penagarria zen. Pitzadurak nonnahi agertzen ziren eta batzuek ziotenez eraikitzerakoan oso mortairu txarra erabili zuten batetik eta bobedak ez zeuden ondo eginak bestetik[29].

Politikoki ere egoera mugitu samarra zegoen, karlistak zerbait antolatzen ari zirelako. Dena den, Udalak zezenplaza 1.848. urterako alokatzeko bere baldintzak argitaratu zituen. Sanferminetan 27 zezen hilko ziren: uztailaren 7an hiru, 8an bederatzi (3+6), 9an (igandean), sei eta 10ean

bideratzi (3 goizean eta 6 arratsaldean). Zezenek nafarrak izan behar zuten eta sanferminetatik aparte hiru nobillada emango ziren.

Domingo Iturraldek hartu zuen plaza ekainaren 5ean 16.000 erreal aurreratuta. Beste 46.000 erreal, korridak amaitutakoan ordainduko zituen.

Iturralde jaunak sanferminetarako kartelean, xehetasun hauek eman zituen:

- Zezenak Gendulain (dibisa gorria), Zalduendo (dibisa urdin–gorria), Perez Laborda (dibisa zuria) eta Korella–ko Poyales–enak (dibisa berdea) izango ziren.

- Toreatzera Francisco Arjona *Cuchares* etorriko zen. Manuel Arjona bere anaia izango zen ordezko ezpatari eta koadrila lau pikatzaile, sei banderilari eta banderilari gipuzkoarrek osatuko zuten.

Jenaro Otxoa errotariak, bere lagunen izenean eskea egin zion Udalari sanferminetan lehen bezala azken zezena sari baten truk lantzaz hil zezaten. Udalak ordea, ezezkoa adierazi zion Santa Engraziko Otxoa errotariari[33].

Ekainaren 29an ordea, Don Karlos–en (karlisten erregearen) semerik zaharrenak, Montemolin–eko konteak, altxamendurako prestaketak hasi zituen Nafarroan. Iruñeak orduan, 20.000 biztanle zituen, eta sanferminetako jende–pilaketan altxamendua zabalduko zelakoan, korridak eta gainerako festak bertan behera utzi zituzten[3]. Urte hartan izan ere Ramon Maria Narvaez–en gobernuak Katalunia, Gipuzkoa, Madril, Sevilla eta abarretako mugimenduak zigortu behar izan zituen.

Badirudi Iruñean irailean egoera politikoa bareagoa zela. Horregatik, hilaren 25ean (San Fermin txiki egunez) nobillada eman zuen Domingo Iturraldek Udalaren baimenaz. Jose Ituarte debarra bere koadrilarekin etorri zen lanera. Bi zezen pikatu, banderilaztatu eta ezpataz hil egin zituzten, eta beste bi zezen banderilaztatu eta toreatu bakarrik. Gero, gaztejendearentzat zezenkoak plazaratu zituzten[33]. Zezen bat eta joaldun bat Tuteratik Perez Labordak bidali zituen[3].

Lizarrako zezenplazan, 1.848. urteko ekainaren 14ean eman zen azkeneko nobillada. Geroztik Foru–plazan larrabehiak korritzen zituzten, mende honen hasieran beste zezenplaza biribila (gaur egunekoa) egin zuten arte[43]. Dena dela Larrion *el Majo* jaunari (plaza egin zuenari)[47] Zumalakarregi–ren alargunak bidali zion gutun bat Zerain–etik hurrengo urteko irailaren 6an eta urte hartako (1.849.eko) korriden kartela aipatzen dio. Beraz agian hurrengo urtean izango ziren azken korridak plaza hartan[48].

Tuterako plaza, 1.848. urtean bertako gazte batzuek hartu zuten 3.000 erreal ordainduta. Abuztuaren 26an bi zezen eta zezenkoak banderilaztatu eta toreatu zituzten. 27an berriz, goizean hiru zezen eta arratsaldean sei plazaratu ziren. Zezenak Lizaso tuterarrarenak ziren, eta Cayetano Sanz zezenko–hiltzaileak lan egin zuen[2].

Abuztuaren 24ean, Tuteratik Gasteiz–era Perez Labordaren unaiak joan ziren nafar–zezenak eramatera. Tarazonara ere bai abuztuaren 27an etxeko bi zezen zeramatzatela[3].

Bilbon, 1.848. urtean, zurezko zezenplaza berria estreinatu zuten. Abandon eraiki zuen zezenzalez osatutako elkarte batek, gero Tuteratik Bilborako trenbidearen geltoki izango zen lekuan[17].

Donostiako ihauteritan, 1.848. urtean *zalduniote* eta *azken iñautez* hiltzeko zezenak jokatu ziren Plaza Berrian *La Tertulia* elkarteak antolatuta. Jose Bizente Etxegarai donostiarrak bertsoak jarri zituen orduan, eta Manuel Delgado–k berriz bertso haien musika egin zuen[30]. Hona hemen Etxegarairen bertsoak.

Iltzeko zezenak Donostiako Plaza Berrian zalduniote eta azken iñaute 1.848garren urtean.

1) Adiskide anaitu Tertuliakoak,
gal ez ditezen festa Iñauterikoak,
berri bat egiteko dituzte asmoak,
gizon eta galayak Donostiakoak.

2) Lasturdik ekarriak aukeran sei zezen,
bi iru urtekoak jokatzeko emen:
oraiñ arte Plazara ez diranak irten,
Iñauteri festetan illko dira aurten.
3) Igande, astearte bi arratsaldetan,
dira zezenak aurten Iñauterietan:
bola zurezkoakin adar zorrotzetan,
toliatzalle iñork miñik ar ez dezan.
4) Aurten beti bezela aundizkirakoak
dira Iñaute festa Donostiakoak:
jendez guztiz beteak bazter plazakoak,
doairik ikusteko zezen illtzekoak.
5) Lendanaz apaindurik erara jarria,
dago Plaza ederki barreraz itxia:
eser–leku luzea algaindu josia,
aukerakoa eta guztiz egokia.
6) Festagille guztiak dira errikoak,
pikadore, ezpata, banderilleroak:
egokiak dituzte jantzi soñekoak,
ala zaldi gañeko nola oñezkoak.
7) Plaza zaldunak ere dira bertakoak,
aguazil nagusiak, baita mazeroak:
Plazaren alaigarri zaldi antzekoak,
ate–zai, soñulari eta zortzikoak.
8) Beti nai izan oi det laburtxo gelditu,
ez kanta luzeakin jendea negartu:
aitormen hau egiñik ez iñor gogaitu,
aditzalle maiteak, guztiok barkatu.[49]

Azpeitian 1.848. urteko saninaziotako korridak Udalak berak antolatu zituen. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean zortzi zezen plazaratu zituzten; batzuk nafarrak eta besteak ingurukoak[21].

1.848. urteko uztailaren 27an Tuteratik Madril aldera Perez Labordaren unaiak nafar–zezenekin oinez abiatu ziren. Abuztuaren 21ean Madrileko plazan toreatu eta hil zituzten Gendulain, Zalduendo eta Perez Labordaren zezen haiek Julian Casas *Salamanquino* eta Antonio Luque *Camarak*. Pikatzaileak Jose Muñoz Dominguez eta Pablo Molina *Habanero* izan ziren. Korrida guztiz txarra atera zen. Zezen guztiak koldarrak suertatu zitzaizkien. Bat gainera, lausoa zen,

eta atzera toriletara sartu zuten. Korridako seigarren zezena hil zutenean, jendeak zazpigarrena eskatu zuen, eta hura ere txarra zelako zezentxakurrak bota zizkioten. Beste zezen bat eskatu zuen orduan jendeak, eta besterik ezean lehen erttiratutako lausoa atera zuten berriro. Hura ere hil zuten jendea haserre zelarik.

Korrida txar hura zerbait arindu asmoz, enpresaria hurrengo korridan bi zezen gehiago ipintzera behartu zuten[3].

1.849. urtean, Iruñeko zezenplaza biribil berriaren egoera tamalgarria zen. Rafael Martinez kontratistaren maula zela eta, plazan pitzatua eta matxura nonnahi agertzen zen. Horregatik, Udalak urte hartako sanferminetan korridak ez antolatzea erabaki eta kontratistaren alargunaren (Juliana Arizkuren-en) kontra auzitara jo zuen[33].

Tuteran, 1.849. urteko santanatan korridak *Pantxo* Lizaso ganaduzaleak antolatu zituen, Ospitaleari 6.000 erreal ordainduta. Bere etxeko zezenak plazaratu ziren, eta Perez Labordari 50 durotan erositako beste bi zezen ere bai. Juan Pastor *el Barbero* eta Antonio Ruiz toreatzaileak joan ziren lanera, zuela sei urte lehenago bezalaxe[2].

Tuterako ganadutegietako zezenak dena den, leku askotako plazatara joan ziren 1.849.ean. Perez Labordaren alargunarenak adibidez, abuztuaren bian sei behi abiatu ziren Hueskara unaiek artezturik[3] (Hueskan urte hartan estreinatu zen plaza biribil berria)[10]. Irailaren 17an, hiru unai, lau zezen eta hamar zezenko Logroniorantz atera ziren eta urriaren zortzian ere bai zortzi zezenekin. Tuteran bertan, nobillada batean Perez Labordaren abelgorriak jokatu zituzten[3].

Madrilen berriz, Kaparrosoko Zalduendoren alargunaren zezenak dibisa urdin-gorriz 1.849.eko urriaren 7an jokatu zituzten, Tadeo Gendulainen zezenekin batera[34]. Aurrez, Joan Mihura jaunaren zezenak lehen aldiz toreatu ziren apirilaren 30ean[10].

Bilbon, 1.849. urtean, trenbidearen geltoki ondoko zurezko plaza berrian (Abandoko partean egin zuten, gero La Concordia deitu zioten lekuan, Isabel II.aren zubiaz beste aldera), korrida ospetsuak izan ziren. *Vista Alegre* izenez bataiatu zuten plaza hartan, Cayetano Sanz, *Cuchares*, Jualian Casas *Salamanquino* eta Manuel Diaz *Lavi* toreatzaileek parte hartu bait zuten[13]. Julian Casas-ek gainera arrakasta handia izan zuen urte hartan Gasteizen[26].

Cossio idazleak dioenez[10], Bilbon 1.849. urtean Angel Lopez *Regatero* toreatzaileak *Caramelo* izeneko zezen famatua azkar eta ondo hil zuen. *Caramelo* izeneko zezena, Sevillako Coria del Rio-ko Manuel Suarez Jimenez ganaduzalearena zen. Aurreko urtean abuztuaren 15ean Madrileko zezenplazan lehenbizi lehoi baten kontra eta gero tigre baten kontra burrukatua zen. Biei irabazi zien. Irailaren 9an plaza berean korrida batean atera zuten berriro, baina 12 zaldi hil ondoren jendearen eskariz bizia barkatu zioten. Azaroaren 11ko korridan atera zuten berriro, eta berriz ere bizirik itzuli zuten toriletara. Gero 1.849.ean Bilboko plazan hil zuen Angel Lopezek, esan bezala.

Zaragozan 1.849.eko urriaren 13 eta 14ean, Ejeako Jose Murillo eta Ramon Lopez eta Zalduendoren nahiz Perez Labordaren alargunen zezenak jokatu ziren. *Chuchares* eta bere anaia Manuel Arjonak hil zituzten, lau pikatzaile eta sei banderilariren laguntzaz[3].

1.849. urtean Azpeitian nobilladak izan zituzten ohiturari jarraituz, baina urte hartaz gero sarreren bidez lortutako diruaren %5 Gobernu Zibilari eman behar izan zioten[21].

Tolosan ere izan ziren 1.849. urtean nobilladak Plaza Berrian. Handik gainera zezen batek jendartean ihes egin omen zuen eta Untzain (Orbegozo) okindegiko portalera sartuta bigarren etxebizitzaraino joan omen zen eskaileran gora[22].

———— o ———— o ————

1.850. urtea iritsi zenean, Iruñean zezenplazarik gabe zeuden. Plaza biribil berria erabat hondatua zegoen eta aurreko urteko sanferminetan korridarik ez zen izan arrazoi horregatik. 1.850. urtean ordea korridak nahi zituztelako, Udaleko batzordeak behin-behineko plaza bat Gaztelu-plazan eraikitzea proposatu zuen. Legaria, Arteaga eta Korta zurgin iruindarrek berriz, San Nikolaseko portaletik kanpora zurezko plaza bat 80.000 errealetan eraikitzea proposatu zuten.

Santos Espoz udaltzainak ere bere proposamena egin zuen. Hondatua zegoen plazan behar ziren konponketak berak egingo zituela zioen. Plaza hori medio auzitan zebilen Udala kontratistaren alargunarekin eta Espoz udaltzainaren irtenbideak auzia galtzeko aukera ematen zuen. Dena den, tartean istilu batzuk izan ondoren, udalgizonek gehiengoz Espoz-en proposamena onartu zuten. Baina ez zen burutu. Izan ere martxoaren 8an Zalduneri koartelaren ondoan (oraingo Argentinako plazan) sanferminetarako zurezko plaza eraikitzeko baimena eskatu zieten agintari militarrei.

Baimena apirilaren 13an lortu zuten. Udalak orduan, berehala zabaldu zuen korriden antolaketa kontratuz emateko deia, bere baldintzak ipiniz. Baldintza haietan Nikolas Aztarain iruindarrak hartu zuen korridatarako ardura, eta uztailaren 4ean zurezko plaza prest zegoen koartelaren aurrean.

Uztailaren 7an Gendulainen sei zezen dibisa gorriz, 8an Ejeako Jose Murilloren eta Ramon Lopez-en bederatzi zezen (Murillok sei bidali zituen dibisa gorri-horiz eta Lopezek lau dibisa urdinez, bat soberakoa zelarik), 9an Zalduendoren sei zezen dibisa urdin-gorriz (soberako bat ere bidali zuen Zalduendok) eta 10ean Perez Labordaren sei zezen dibisa zuriz (soberako bat ere bidali zuen) korritu ziren Iruñeko 1.850.eko sanferminetan.

Ospatuko ziren korridetako xehetasun guztiak emanez, orri batzuk zabaldu zituzten aurrez Iruñean. Orri horietan, zezen bakoitzaren izenaren ondoan hutsuneak zeuden, ikusleak bertan pikaldiak, ezpatakadak eta hildako zaldiak zenbat izan ziren idatz zitzan.

Zezenak guztira 32.000 erreal kostatu ziren, nahiz eta hil ondoren beren okela salduta 12.000 erreal berreskuratzea izan.

Zezenak toreatzera, Francisco Arjona *Cuchares* etorri zen bere koadrilarekin kontratua 54.000 errealetan eginda. 1.850. urteko sanferminetarako gainera, Iruñeko korridatarako arautegia argitaratu zuten. Hona hemen laburturik bertako 21 arauak:

1) Barrera artean beharrezko diren langileak bakarrik egongo dira. Zezenak ukitzea, beraiei dibisa kentzea, ezpata barrurago sartzea eta beren eginkizuna ez den beste edozer egitea debekatua dute.

2) Agintariek jakin dezaten, enpresariak Lehendakariari aurrez langileen zerrenda eman behar dio.

3) Enpresariak korridak baino lehen behar diren zaldiak edukiko ditu. Pikatzaileek eta agintariek izendatzen duten pertsonak aztertu eta markatuko ditu. Emankizunaren aurretik zela ipinia izango dute eta erabili egingo dira.

4) Aurrez azterketan onartutako zaldirik ez du baztertzerik izango pikatzaileak. Zingilak askatzea eta antzeko gauzak egitea eragotziko dute agintarien ordezkariek.

5) Pikatzaileentzako zaldiak, barrerara aterako dira erabili behar dituztenean.

6) Plazara irten behar duten zaldiak bildurik dauden lekuan algoazil bat egongo da aurreko arauak bete daitezen.

7) Pikatzaileen zaldiak zigor edo makilaz jotzera ez da inolako langilerik aterako. Pikatzaileek beren ezproin normalak izango bait dituzte.

8) Lehen ezpatariak, taldeburuak alegia, emankizun bakoitzean hiru banderilari izendatuko ditu bera ere tartean dela pikatzaileei laguntzearren.

9) Zezenen atzetik korrika ibiltzen eta korridaren ordenuari kalte egingo dion beste edozer egiten ez zaie utziko toreatzaileei. Ezpatariak izendatuko du pikatzailearen alde banatan egongo den toreatzailea. Pikatzailea arrisku handian dagoenean sartuko dituzte hauek beren kapak.

10) Ezpatariaren ardura izango da banderilariek zezenei errekorterik ez egitea eta inola ere buztanetik ez heltzea.

11) Beren ezten–haga hondatzen ez bada, pikatzaileek ez dute ezten–hagaz aldatzerik izango.

12) Eztenak legearen araberakoak izango dira eta topea kendu nahiz askatzea, hustea, karraskatzea, etab. debekatua dago.

13) Plazara botatzen dituzten kapela edo beste gauzak toreatzaileek ez dituzte eserlekuetara itzuliko. Agintariek horretarako ipinitako langileak arduratuko dira horretaz, gauzak bota dituztenei isuna jartzearren.

14) Enpresariak bere esku ez dauden hutsegiteen berri emango die agintariei.

15) Enpresariak plazako ateak korrida hasi baino gutxienez ordubete lehenago irekiko ditu.

16) Korridaren batean plaza bete eta jendea lekurik gabe balego, sarreren balioa itzuliko zaie plaza utzi eraziz.

17) Korrida bukatu baino orduerdi bat lehenago, plazako eserlekuetara sartzeko ateak ireki egingo dira, jendeak erraz irten dezan, eta azken zezena hildakoan, baita zezentoki edo hondarrera sartzeko ateak ere.

18) Plazara hondarra bota eta zaldien hondakinak jasotzeko dauden langileek, beren egitekoa ahalik eta azkarren beteko dute, eta zaldien hondakinak jasotzeko burdinazko palak eta ohizko eskorgak erabiliko dituzte, eskuez ezer ukitu gabe.

19) Langile hauek, eta plazan leudekeen gainerakoek ahal bada brusa jantzita ibiliko dira. Mahukutsik inola ere ez dira ibiliko.

20) Hildako zaldiak ahalik eta lasterren hiriko ateetatik kanpora ateratzearren, enpresariak behar diren lerak prest edukiko ditu. Zauritutako zaldiak eramateko arduradun bat ere egongo da. Zaldiak ez

bait dira mutilgazteen esku utziko.

21) Agintariek esango dute zaldiak non lurperatu behar diren eta osasun publikoa zaintzeko zer egin behar den.

Arau hauetan dena den, zezentxakurrak ez dira aipatzen, eta badirudi 1.850. urtean ez zirela erabiltzen. Bost urte lehenago ordea Isabel erregina etorri zenean erabili zituzten. Baita suzko banderilak ere, nahiz eta arau hauetan aipatu ez.

1.850. urteko sanferminetara Francisco Arjona *Cuchares* etorri zen bere koadrilarekin toreatzera. 32 urte zituen orduan, eta bere belaun eskuinetik herrenka hasi berria zen. Montes jadanik erretiratua zen eta 1.850. urtean berriz Madrilen aurkeztu bazen ere, zezenak harrapatu egin zuen eta harez gero ez zuen plazatan lanik egin. *Chiclanero* ere gainbeheraka hasia zen jadanik, eta gainerako ezpatariak (*la Santera*, Gaspar Diaz *Lavi*, Juan Lucas Blanco, Cayetano Sanz, Francisco Ezpeleta, etab.) ez ziren *Cuchares*en mailara iristen.

Cuchares Iruñera 54.000 errealetan kontratua eginda etorri zen. Bere taldean Manuel Arjona anaia ezpataria, ordezko beste ezpatari bat, lau pikatzaile eta sei banderilari (gipuzkoarrak barne) etorri ziren.

Korrida onak izango zituzten iruindarrek 1.850. urtean. Izan ere 27tik 7 saritzat eman zituzten: uztailaren 7an bi eta 8an hiru *Cucharesi*, uztailaren 9an bat Manuel Arjonarentzat eta uztailaren 10ean bat *Cucharesi*. Saritzat emandako zezen bakoitzagatik 80 erreal jasotzen zituzten ezpatariek. Uztailaren 7 eta 8an gainera, arratsaldeko korridan sei zezen ordez zazpi plazaratu zituzten, eta *Cucharesi* 2.000 erreal gehiago ordaindu zizkioten koadrilarentzat, bi zezen gehiago toreatzeagatik.

Badirudi enpresariak sanferminetako korridetan ez zuela irabazi handirik lortu. Horregatik Udalari nobillada bat emateko baimena eskatu zion, eta halaxe eman zuen uztailaren 16an[50].

Korridatako entzierrotan, 1.850. urtean (eta hurrengoan) Iruñean zezenak San Nikolaseko portaletik sartu ziren, eta hiri barruan ezkerretara joan ziren gaur eguneko Lizarra kalean zehar zurezko plazaraino[32]. Zurezko plaza eraikitzea eta desmuntatzea 40.000 erreal kostatu zen[28].

1.850. urteko santanatan, Tuteran nobillada eta korrida bat eman zuten. Nobillada Santa Ana egunean (uztailaren 26an) eta korrida 28an. Korridan, Gendulainen bi zezen eta Lizasoren beste bi hil zituen *el Relojero* toreatzaileak, bere koadrilaz lagundurik.

Dirudienez urte hartan Tadeo Gendulain tuterarrak Nazario Karrikiri jaunari saldu zion bere ganadutegia. Karrikiri jaunak, Gendulainen nafar-zezenak Lesaka-ren andalusiarrekin gurutzatu omen zituen, baina dirudienez ez zuen emaitza onik lortu[2]. Lesaka-ko Jose Pikabearen ganadutegia (Vistahermosa jatorrikoa) Saltillo-ko markesaren eskuetara pasa zen osorik 1.850. urtean, hain zuzen. Baina bi zezen Karrikirik hartuak omen zituen. Hark, Tutera ondoko Murelu-n zuen ganadutegiko nafar-behi batzuei bota omen zizkien. Ondorioz, handik zezen handiak atera omen ziren, baina suhartasunik gabeak. Horregatik kendu egin omen zituen Karrikirik ganadu haiek[51]. *Guerrita*k zioenez, Karrikirik egindako gurutzaketa hartatik zezen handi eta onak atera ziren. Iribarren idazle nafarrak ordea Galo Maria Mangado-ren eskutik berri interesgarriak argitaratu zituen arazo honetaz. Gurutzaketa hura, 1.883. urtean Espoz y Mina-ko konteak egin zuen, eta emaitza txarrak atera ziren. Valentziara hiru zezen gurutzatuak eta beste hiru gurutzatu gabeak bidali zituzten. Gurutzatuei suzko banderilak ipini zizkieten, eta gurutzatu gabeak txalotuak izan ziren

arrasterakoan. Konteak orduan gurutzaketa haiek bertan behera utzi zituen[34].

Gendulainek 1.850.ean, ganadutegiaz gain lurrak ere saldu zituen. Juan de Dios Mosso–rekin batera zuen *Sotoqueda* izeneko belardia adibidez, Francisco de Sales Belauntza–ri saldu zioten.

Karrikiri–ren izenean, Mallorka–ko Palman 1.850. urtean korritu ziren zezenak. Dibisa gorri–berdea erabili zuen Nazario jaunak bere nafar–zezenetan. Bizente Perez Laborda idazleak, nafar–zezenak deskribatzerakoan txikiak, arinak, suharrak, oso itsaskorrak zirela dio, eta ikusleek Gaztelako eta Andalusiakoak nahiago zituztela errazago maneia zitezkeelako. Karrikirik orduan bere ganadutegia emeki–emeki aldatu egin omen zuen. Zezen handiagoa lortu omen zuen, eta kolorez ere desberdina. Nafar-zezen gorri, gaztainkara, gorribeltz eta marrabeltz haiek, urdin, beltz, marragorridun azpizuri eta kopetazuri bihurtu omen zituen[3].

Karrikirik, dena dela, lau urteko zezen bat saldu zion Fernando Gutierrez jaunari, Zamorako bere ganadutegian nafar–kasta izatearren. Hori gomendatu bait zion *Cucharesek*[10].

Bartzelonan, 1.850. urteko maiatzean, urteetan itxita egondako zezenplazan korrida bat eman zuten. Montes eta Cayetano Sanz–ek toreatu zuten. Gero ekainaren 29an beste bat eman zuten Karrikiriren zezenak tartean zirela.

Plazaratutako lehen zezena, Karrikirirena zen eta dibisa gorri–berdea zeraman lepoan. Lautan pikatu zuten. Zezenak ihes egiteko joera zuen, baina Jose Redondo *Chiclanerok* beronika bat kapaz osatu zion. Hiru ezpatakada, ziztada bat eta deskabelloz hil zuen.

Bigarren zezena Ejeako Ramon Lopez–ena zen. Hamahirutan pikatu ondoren Julian Casas *el Salamanquinok* ezpatakada batez eraitsi zuen.

Hirugarren zezena Ejeako Murillok bidalia zen. Hau ere hamahirutan joan zen zalditara eta *Chiclanerok* ezpatakada bikain batez bota zuen. Jendearen txaloak entzun zituen.

Laugarren zezena ere Karrikiriren gandutegikoa zen. Zalditan pikatu ezinik ibili zirelako, suzko banderilak (zortzi pare) ipini zizkioten. *Salamanquinok* ezpatakada bikain batez eraitsi zuen.

Bostgarren zezenak (Ramon Lopez–enak) bost pikaldi jasan zituen. *Chiclanerok* ezpata goian sartu zion lehenengoan.

Seigarren zezena Murillo ejeatarrak bidalia zen. Zalditara erraz joan zen; 35 aldiz hain zuzen. Pikatzaileak hamabost aldiz bota zituen zaldi gainetik. *Chiclanero* eta *Salamanquinok* kapaz zezenarekin beronika eta nafar–pase dotoreak osatu zituzten. Banderilak jartzerakoan *Chiclanero* irristatu, lurrera erori eta larri ibili zen. Ez zitzaion ordea ezer gertatu. *Salamanquinok* bigarren saioan hil zuen ezpataz zezen hura.

Jendeak ordea lehendakariari zazpigarren zezena eskatu zion; soberakoa. Atera zuten azkenean. Ramon Lopez–ena zen hura ere. Koldarra suertatu zitzaien. Bost aldiz eraman zuten zalditara. *Chiclanerok* kapa bizkarrean zuela txuliatu zuen eta laugarrenean hil zuen ezpataz.

Nafar–zezen haiek, lau urte zituzten, baina libra gutxi kazetariek esan zutenez. Toreatzaileek ordea lana ondo egin zuten eta jendea gustora gelditu zen.

Ekainaren 30ean, igandez, bigarren *korridaerdia* ospatu zen. Horrela deitzen zioten orduan

sei zezeneko korridari. Murilloren hiru zezen, Karrikiriren bi eta Ramon Lopez-en bat toreatu eta hil zituen aurreko eguneko koadrila berak.

Karrikiriren lehen zezena, laugarren atera zena, hamar aldiz pikatu zuten, baina jendeak eskatuta suzko banderilak ipini zizkioten. Hurrengo zezena ere Karrikirirena zen, eta koldarra zelako suzko lau banderila-pare ipini zizkioten.

Murilloren zezenak, dibisa urdinez korrituak, suertatu ziren onenak aurreko eguneko korridaerdian bezalaxe. *Salamanquino*ri bigarren zezena saritzat eman zioten ondo hiltzeagatik, eta ezpatariak belarria moztu zion.

Uztailaren 1ean, astelehenean izan zen hirugarren korridaerdia Bartzelonako plazan. *Salamanquino* ezpatariak ez zuen parte hartu korrida honetan. Jose Redondo eta Nicolas Raró ordezko ezpatariak hil zituzten beraz Murillo (bi zezen), Karrikiri (beste bi) eta Ramon Lopez-en (beste bi) zezenak.

Karrikiriren zezen bati suzko bost banderila-pare ipini zizkioten eta bestea justu-justu libratu zen bolbora erretik[52].

Nazario Karrikiri jaunaren zezenak lehen urte hartan Bartzelonan arrakasta handirik izan zutenik ez dago esaterik, baina 1.850. urteaz gero leku askotan frogatu zuen bere nafar-zezenen balioa. XX. mendean 1.925. urterarte iraun zuten. Gaur egun Joaquin Barral Rodriguez sevillarrak darabil Karrikiriren burdin marka eta dibisa gorri-berde famatua[53].

1.850. urtean Fernando Garcia de Bedoya idazleak bere *Historia del toreo y de las principales ganaderías de España* izeneko liburuan, Perez Labordaren alargunaren zezenak deskribatzen ditu. Nafarroako suharrenak zirela dio; gogorrenak eta azkarrenak. Ezpata sartutakoan heriotza hurbil zutela igerrita, negar egiten omen zuten zezen haiek toreatzailea harrapatzerik ez zutelako. Azken arnasa ere zutik hartzen omen zuten.

Dena den, Perez Labordaren alargunaren ganadutegitik unaiek bidaia asko egin zituzten 1.850. urtean zezenak eramatera. Hona hemen bidaiok:

- Ekainaren 3an Jose eta bere seme Manuel Iruñera zazpi zezenekin. Gendulain eta Zalduendoren hiru zezenentzat beste peoi bat ere joan zen.
- Tolosara (sanjoanetara joango zirela pentsatzen dugu)
- Uztailaren 25ean Azpeitira. Pedro unaia peoiren batekin joan zen. Abuztuaren 7an itzuli ziren Tuterara.
- Uztailaren 30ean Bartzelonara, handik Mallorka-ko Palmara joateko.
- Abuztuaren 10ean Murciara, Karrikiri eta Zalduendoren zezenak ere bazeramatzatelarik (guztira 13 zezen).
- Abuztuaren 20an Bartzelonara, zazpi zezen berenak eta beste zazpi Zalduendorenak zeramatzatelarik.
- Abuztuaren 25ean Teruelera, beren lau zezen, Karrikiriren lau eta Zalduendoren beste lau eramatera.
- Irailaren 10ean Briones-era, zazpi behi, bi zekor eta lau zezenko eramatera.
- Irailaren 29an Bartzelonara, zazpi zezen eramatera.

Mallorka-ko Palma-n 1.850. urtean abuzturako korridak iragarri zituzten. Kaparrosoko Zalduendoren alarguna, Tuterako Perez Labordaren alarguna, Mureluko (Murillo de Limas) Karrikiri, Korellako Poyales, Azkoieneko Bermejo eta Ejeako Severo Murillo jaun-andreak ziren

zezenak bidali zituztenak.

Abuztuaren 20an izan zen lehen korrida Palman. Zalduendoren bi zezen Severo Murillo–ren beste bi eta Perez Labordaren bi plazaratu zituzten. Hirugarren zezena ezik, besteak ongi portatu ziren. Bostgarrenak (Perez Labordarena zen) hamalau pikaldi jasan eta bost zaldi hil zituen. Seigarren zezena aurrekoaren ganadutegi berekoa zen, baina oso arriskutsua. Berehala hiru pikatzaileak zauriturik utzi zituen eta hiru zaldi hilik ere bai. Toreatzaileek ez zuten *Peluquero* izeneko zezen hura toreatzerik nahi, eta Loja beren zuzendariak zioenez defentsarako pikatzailerik ez zuten batetik eta iluntzen hasia zen bestetik. Plaza jendez hustu, eta ez joaldun eta ez torilik zutenez gero, soldaduek bertan tiroz hil zuten.

Zezen hura plazara hirugarren ateratzekoa zen, baina bere kaiola hautsi zuelako azkenean atera behar izan zuten.

Hurrengo igandean Palman bigarren korrida eman zuten Loja jauna (Gregorio Loja granadarra izango zen) toreatzaileen buru zelarik. Perez Labordaren zezen bat hamaika aldiz pikatu ondoren, Reyelo–k hil zuen ezpatakada batez.

Palmako hirugarren korridan, Zalduendoren hiru zezen eta Perez Labordaren beste hiru toreatu zituzten. Loja, Reyelo eta Casanova toreatzaileen ezpatakadez hil ziren. Seigarren zezena ez. Zalduendoren zezen hura izan ere gaixorik edo zorabiaturik atera zen. Suzko banderilak ipini zizkioten arrazoirik gabe eta gero lunerdiz jota eraitsi zuten.

Palmako 1.850. urteko laugarren korridan, Perez Labordaren zezen bat, Zalduendoren hiru, Poyalesen bat eta Bermejoren bat jokatu ziren. Reyelok hil zuen Perez Labordaren zezena 23. saioan.

Abuztuaren 26an, Perez Labordaren unanmaizterra eta unai batzuk Teruel aldera abiatu ziren 12 zezenekin. Lau Zalduendorenak ziren, lau Karrikiririenak eta beste lau Perez Laborda berarenak. Irailaren 16an itzuli ziren Tuterara unaiak. Zezenen balioen erdia (4.620 erreal), abenduaren 28an kobratu zuen Bizente Perez Labordak (alargunaren semeak). Zalduendori 1.980 erreal ordaindu zizkion orduan Perez Labordak. Fernando Garcia de Bedoya idazleak hain zuzen, 1.850. urtean argitaratutako bere *Historia del toreo*... iiburuan zera dio Zalduendoren zezenei buruz:

abelgorri hauek Nafarroako txikienak dira, baina zangarrak, hango guztiak bezalaxe[3].

Gasteizen ere izan ziren zezenak Arku–plazan (udaletxea dagoen plazan) 1.850. urteko udan. Aurreko urtetan zurezko plaza muntatzen zen Gasteizen Santa Klarako komentuaren lurretan (gero Institutua egongo zen lekuan)[54].

Donostian ere izan ziren korridak 1.850. urteko udan. Sei nafar–zezen, Azkoieneko Jose Bermejoren behiak eta Lastur–eko beste zezen batzuk eraman zituzten horretarako. Arratsaldero nafar–zezen bat hilko zuen Jose Ituarte debarrak bere koadrila lagun zuela. Zozobarro baserriko hiru anaia ausartek ere toreatu zuten[3]. Zozobarro baserria, Itziar–eko Mardari bailaran dago.

Badirudi 1.850. urtean Bilbon oraindik ere bizi den zezenzaleen elkarterik zaharrena sortu zela, Joan Jose Abrisketa zenaren arabera. Hark zioenez, *Lagunak* izena zuen elkarte hark, eta gero 1.910. urtean *Kotxerito* izenaz bataiatu zuten berriro[55].

Deustun berriz, herriko plazan nobilladak antolatzen zituzten garai hartan; sanpedrotan batez

ere. Festaburua, San Pedro igandez izaten zen. Arratsaldeko hiruretan hasten zen nobillada[56].

Garai hartantxe Akitaniako Landetan ere baziren nobilladak, baina bertako erara. Kaparik ez zuten erabiltzen toreatzeko. Banderilak sartzen zituzten, akuiluz zirikatzen zuten zezenkoa eta iskintxoka gorputz hutsez toreatzeko sistema zuten. *Paré* izenekoa ere egiten zuten; toreatzaileari korrika zetorkion zezenari eskuz burua desbideratu eta bidetik beren burua kentzea alegia[57]. Euskal Herriko aspaldiko zezenketa erari eusten zioten beraz.

Toreatzaile-koadrilak osatuak zeuden jadanik. Bacquerisse ganaduzaleak erabiltzen zuen bat[16]. Lantze berriak ere asmatu zituzten. Cizos-ek *ecart* lantzea 1.850.ean egin zuen lehen aldiz, eta geroztik Nogaro-ko Laplante toreatzaileak jauziak egingo zituen zezen gainetik. Joachim izenekoak berriz, bi oinak lotuta egingo zuen jauzia Saint-Severe-n. Joachim oso saltatzaile ona izan zen[16].

Eta 1.850. urteko albisteei amaiera eman asmoz, Lesakako Jose Pikabea jaunak bere zezenak Andalusiako ganadutegitik Madrilera bidali zituela esango dugu. Ekainaren 17ko korridan estreinatu bait ziren[10].

Iruñean 1.851. urtean zezenplazaren arazoa konpontzeko bidean hasi ziren. Gipuzkoako Diputazioko arkitekto zen Mariano Jose Laskuraini eritzia eskatu zioten hondatua zegoen plaza biribilari buruz. Laskurain jaunak plaza erabat bota eta zimenduak aztertzea gomendatu zuen, gero hantxe (orain Gaiarre antzokia dagoen lekuan) plaza berria egiteko.

Plaza biribil hura botatzen 1.851.eko maiatzaren 21ean hasi ziren eta uztaila bukatzerako zimenduak bakarrik zeuden. Zimendu batzuk berritu beharra zegoen, baina hala eta guztiz ere gogor lan egin zuten eta hurrengo urtean bigarren plaza biribil berria prest zeukaten[29].

1.851. urteko sanferminetarako ordea, aurreko urtean bezalaxe Zalduneri Koartelaren aurrean zurezko plaza muntatu zuten. Plaza hartzeko Iruñeko Udalak lehenago egin zuen deialdian, hiru aurkeztu ziren: Leonardo Lopez San Roman eta Nikolas Aztarain iruindarrak eta Jose Asua durangarra.

Azkenean Jose Azua durangarrari eman zioten plaza muntatu eta sanferminetako korridak emateko ardura.

Uztailaren 7an arratsaldean sei zezen, 8an arratsaldean beste sei, 9an beste bederatzi zezen (3 goizean eta 6 arratsaldean) eta 10ean beste sei korritu zituzten.

Kaparrosoko Zalduendoren alargunak bost urteko zortzi zezen bidali zituen (bat soberakoa), Perez Labordaren alargunak bost urteko beste zortzi (bat soberakoa), Korellako Poyales-ek lau urteko zortzi zezen (bat soberakoa) eta Ejeako Murillok lau urteko beste zortzi zezen (bi soberakoak). Lepagainean dibisa urdin, zuri, berde eta gorri-horiak plazaratu zituzten. Zezen hauen izen eta gainerako xehetasunak ez ditugu hemen aipatuko gehiegi ez luzatzearren.

Egun bateko korridan badirudi zezenak txarrak atera zirela, eta lehendakariak zazpigarren zezena ateratzea agindu zuen.

Zezenak toreatzera *Cuchares* bere koadrilarekin etorri zen, eta jendea pozik geratu zen toreatzaileen lanaz. Bederatzi zezen eman bait zituzten saritzat. Koadrilatik kanpokoa zen Antonio Garrido-ri ere sari bat eman zioten zezen bati banderilak ondo sartzeagatik. Baliteke Garrido

banderilari hura hamaika urte geroago Madrilen burruka batean hil zuten aragoarra izatea.

Ez dakigu Francisco Arjona–ren koadrila zeintzuek osatu zuten, baina hurrengo urteko koadrila osatu zutenek izan zirela pentsa daiteke.

Iruñean zurezko behin–behineko plaza hura ez zuten berehala kendu koartel aurretik sanferminak amaitutakoan. Izan ere abuztuaren 24ean, igandean, goizean hiru zezeneko *proba* eta arratsaldean sei zezeneko *korridaerdia* eman bait zuten. *Cuchares* etorri zen bere koadrilarekin toreatzera. Zezenen adarpuntak bolaztatuta, indiarrak eta portugaldarrak ere aritu ziren toreatzen[50].

Portugaldarrek *forcado*en antzera lan egingo zutela pentsa daiteke. Portugaldarrek toreatutako zezenak, Antonio Sanchez *el Tato*k (*Cuchares*en suhiak) hil zituen[58].

Garai hartan Francisco Rodriguez Alegria enpresari ijitoak bi koadrila omen zituen: bata Brasileko indiarrez osatua (*farpa* edo burtzitxoak ipintzen zituzten hauek) eta bestea portugaldarrez osatua. Bost banderilari ere ibili omen ziren koadrila haiekin, tartean Antonio Carmona *Gordito* zelarik. Baionako plazan ere lan egin omen zuten. Euskal Herrian, pilotan ikasi omen zuen *Gordito*k eta asko gustatu omen zitzaion. Palankariak ere gustatu zitzaizkion[26].

Tuteran santanatan bi nobillada bakarrik eman zituzten. Baina gero, abuztuaren 26 eta 27an *Cuchares* eta Miguel Poyales ganaduzaleak bi korrida eman zituzten. Hiru zezen *Cuchares*ek toreatu eta hil zituen egun bakoitzean, eta beste hiru indiarrek eta portugaldarrek (Iruñean 24ean izandakoek noski).

Zezenak, ganaduzale desberdinei erosi zizkieten hirurogeitabostna durotan. *Cuchares*ek Colmenar–en bi zituen erosiak, eta Gendulain (bi), Zalduendo (hiru), Ejeako Lopez (bi) eta Azkoieneko Bermejok (hiru) zerbitu zituzten gainerakoak.

Indiarrak, buruan lumak zituztela plazaratu ziren, eta portugaldarrak txanbergoa zutela. Lehen arratsaldean 4.445 ikusle bildu ziren plazara, eta bigarrenean 3.125[2].

Tuteratik 1.851. urtean, Perez Labordaren unaiak leku askotara joan ziren zezenak eramatera. Ekainaren 17an Haro–ra abiatu ziren etxeko sei behi eta bi zezenko eta Zalduendoren ganaduarekin. Hiru egun geroago, ekainaren 20an, Biasteri–ko bidea hartu zuen Manuel unaiak Zalduendoren beste unai batekin eta peoi batekin. Bi ganadutegietako sei behi eraman zituzten. Gero Balmasedara bi ganadutegietako hamabi behirekin abiatu ziren. Abuztuaren 6an, beren zazpi zezen eta Zalduendoren beste zazpirekin Donostiarako bidea hartu zuten. Zaragozara ere egin zuten bidaia bat eta Iruñera ere bai sanferminetarako, lehen esan dugunez.

Ebro ibaiaren ertzeko ganaduzaleak, akordio batera iritsi ziren martxoaren 20an Balterran bilduta. Beren abelgorrien salmentak sortzen zituzten arazoetan batera joateko akordioa lortu zuten.

Akordioaren lehen puntua, ganaduaren garraioan sortutako kalte eta gorabeherei buruzkoa zen. Bigarren puntuan, ganaduaren prezio minimoak ezarri zituzten: 1.500 erreal pikatuko zen zezen bakoitzagatik, 65 duro pikatzeko zen hiru urteko zezenko bakoitzagatik edo akastun zezen bakoitzagatik, eta 55 duro gainerako zezenko bakoitzagatik.

Hirugarren puntuan, toreatzaile batzuek zuten ohitura kaltegarri bati kontra egiteko bidea ipini zen. Ganaduzaleak ez zion inola ere toreatzaileari dirurik emango, gero bere zezenak korri zitzaten eska ez zezan. Gehienez ere, toreatzaileak plazan arrakasta izan bazuen, plazara zezenak

bidalitako ganaduzale guztien artean zigarro batzuk edo freskagarri bat bakarrik emango zioten. Laugarren puntuan, Karrikiri jauna aipatzen da. Izan ere bilera hartara joaterik ez omen zuen izan. Beraz, bilerara joan ez zen edozein ganaduzalerekin batera zezenak ez bidaltzea erabaki zuten. Akordio hura Pablo Matias Elortz, Severo Murillo, Jose Bermejo, Jose Ramon Zalduendo, Claudio Diaz, Ramon Lopez eta Bizente Perez Labordak sinatu zuten[3].

Severo Murillok, Bartzelonara bidali zituen bere zezenak aurreko urtean bezala, eta *Estornino* izeneko batek 30 pikaldi jasateko adorea izan zuen[51]. Irailaren 18an berriz, Bartzelonan bertan Zalduendoren *Sillero* zezenak ikuilutan zazpigarren zezena adarkatu eta hilda, plazan zalditara 28 aldiz joan zen. Irailaren 12an berriz, Perez Labordaren *Saltador* izeneko zezenak zazpi zaldi hil omen zituen Bartzelonako plazan[34].

Gasteizen, 1.851. urteko otsailaren zazpian elkarte bat osatu zen plaza biribil berria eraikitzeko. Martin Sarazibar arkitekto gasteiztarrak egin zuen proiektua. Plaza, erregearen portalearen ondoan egin zuten. Eserlekuak zurezkoak ziren eta goian beste estaia bat ere bazuen harmaila eta palkoz osaturik. 8.500 ikuslerentzako lekua zuen plaza biribil hark. Torileko atea Korreria kaleko *Tobaron* jaunak irekitzen zuen.

Zezenplaza berri hura, 1.851.eko abuztuaren 5, 6, 7 eta 8ko korriden bitartez estreinatu zen. *Cuchares*, bere anaia Manuel eta *el Lavi* ezpatariek parte hartu zuten orduan. Ama Birjina elurretakoaren egunean goizean *probako* korridan *Redondo* izeneko Manuel Aleas–en (hobeto esan Manuel Garcia Puente-ren) zezenak (bigarren atera zenak) zazpi zaldi hil zituen plazan eta *el Lavi* larriki zauritu zuen ipurtzulotik adarra sartuta. Lau hilabete behar izan zituen sendatzeko[59]. Gabiriako markesak zortzi zezen bidali zituen korrida haietara; Aleas eta Juan Jose Fuentes–ek beste zortzina. Ramon Bañuelos eta Justo Garciak ere beste bostna zezen bidali zituzten[54].

Bilbon 1.851. urtean, plaza biribila egiten ari ziren Mena auzoan, Abandoko lurretan. Agustin Goitia jaunaren lurretan eraiki zen plaza biribil hura. Zezentokia lehengoa baino txikiagoa zen, baina eserleku gehiago zituen, Perez Labordaren unaiek Balmasedatik bueltan Tuteran adierazi zutenez[3].

Dena den 1.851. urtean abuztuaren 22, 23, 24 eta 25erako korrida bikainak iragarri zituzten. Zezenak, Gabiria-ko markesari (Madrilekoari), Veragua-ko dukeari, Salvatierra-ko kontesari, Colmenar Viejo–ko Elias Gomez–i eta Gaspar Muñoz *Alvareñosi* erosi zizkieten. Julian Casas, *el Lavi*, Manuel Trigo eta Jose Muñoz *Pucheta* ezpatarien izenak iragarri zituzten kartelean. Baina *el Lavi* larriki zauritua izan zen Gasteizen eta ez zen etorri.

Kartelean ondoko pikatzaile hauen izenak agertu ziren: Francisco Briones, Manuel Cevallos, Bruno Azaña, Juan Alvarez *Chola*, Antonio Calderón eta Ceferino Arce. Iragarritako banderilariak berriz, Felipe Usa *Pandito*, Quintin Salido, Francisco Ezpeleta, Mateo Lopez, Enrique Ortega eta Manuel Perez. Sastakaria Juan Jorge izango zen.

El Lavi toreatzailearen hutsunea, Julian Casas *el Salamanquino* eta Manuel Trigo ezpatariek bete zuten. *Chola* pikatzaileak ere etortzerik ez zuen izan, eta bere ordez *Barillas* etorri zen.

Abuztuaren 21eko goizeko hamarretan *Firitar* ezizeneko torilariak atea ireki zuenean hasi zen lehen korrida. Casas eta Trigo–k parte hartu zuten, baina jendeak ez zuen asko gozatu. Arratsaldeko korridan ordea, Julian Casas–i *Bolero* izeneko hirugarren zezena saritzat eman zioten ezpataz ondo hiltzeagatik. Gabiriaren zezenek, hamaika zaldi hil zituzten plazan.

Hurrengo egunean, 1.851.eko abuztuaren 22an, Veragua-ko dukearen zezenek 32 zaldi hil zituzten; *Coleto* izeneko bostgarrenak hamabi berak bakarrik. Casas–ek lehen eta bostgarren zezen hau irabazi zituen saritzat eta jendea pozik etxeratu zen ikusitako korrida ona izan zelako.

Abuztuaren 24ean, Elias Gomez–en zezenak plazaratu ziren. Zezen indartsu haiek 27 zaldirenak egin zituzten. Trigo ezpatariak goizeko *proban* zezen bat irabazi zuen saritzat, gainera zetorkiola ondo hil zuelako. Arratsaldeko korridan, *Brujo* izeneko zezena gustatu zitzaion jendeari. Bederatzi zaldi hil zituen. Arce pikatzaileari eta *Pucheta* ezpatariari erdibana eman zieten sari gisa. Julian Casas–en traje distiratsua asko gustatu zitzaion jendeari. Bere lana ere bai ordea. Bigarren zezena eman zioten eta laugarrenean txalo asko jaso zuen Ezpeleta banderilariaren laguntzaz gurpil–pasea emateagatik.

Abuztuaren 25ean, arratsaldean Julian Casas–ek zauriturik lan egin zuen, bezperan kolpatua gertatu zelako. *Azafranero* izeneko zezenak Ezpeleta harrapatu egin zuen, baina Casas–en laguntzari esker ez zen zauritu.

Zezenik suharrenarentzat zegoen saria, Veragua-ko dukearen *Coletok* irabazi zuen.

Julian Casas *Salamanquino* toreatzaileak, 1.000 erreal eman zizkion Errukietxeari, eta beste horrenbeste Atxuriko Ospitale zibilari.

Korrida haietarako atera zen programan, ikusleei gauza batzuk debekatzen zitzaizkien: plazara fruta, azal, makila, kapela, etab. botatzea adibidez. Baita zerbatanaz geziak plazara jaurtikitzea ere[60].

11.6. irudia. Donostiako Miramon–etik San Martineko plazara entzierroa, 1.851. urtean.

1.851. urtean Donostian, zezenplaza berria estreinatu zuten San Martineko auzoan; orain azoka dagoen lekuan hain zuzen. Zurezko plaza zen; 6.000 ikuslerentzat lekua zuena.

1.851. urteko abuztuaren 16an inauguratu zuten. Plaza hura, frontoi bihurtzen zen alderdi bateko eserlekuak kenduta. Zezenplaza eta frontoi zen eraikuntza hura egiteko, elkarte bat osatu zen. Bertako bazkidetako batek, Jose Antonio Diaz Loinaz jaunak, 20.000 erreal ipini omen zituen[22]. San Martineko zurezko zezenplaza hura, elipse-formakoa omen zen[10].

Plaza hartan korridak ematen zirenean, zazpi edo zortzi egun lehenago Oriamendiko Bentara (Miramon ingurura) zezenak ekartzen zituzten, eta han egoten ziren korrida-egunerarte. Donostiarrentzat ibilaldi polita izaten zen orduan Morlans aldetik zezenak ikustera joatea. Amarako Osasun-iturriaren ingurutan jendea berriketan aritzen zen zezenen eta korriden xehetasunak aipatuz.

Korrida-egunean, goizean goiz, jendea zezenak zeuden lekura joaten zen. Emakumeak, hormen gainean ipintzen ziren zezenak pasatzen ikusteko. Oraingo Alderdi Eder-en zegoen ariel-etxetik ere jende asko egoten zen plazako sarrerara begira.

Zezenak goizeko bostetan abiatzen ziren Miramonetik, eta hiru minutu inguru irauten zuen entzierroak. Miramonetik abiatuta, Aldapetan barrena iristen ziren plazara zezenak, baina Morlans-etik abiatutakoan Errondo-n zehar eramaten zituzten[61].

Garai hartan, Donostiako plaza haren arduradun Korellako Poyales ganaduzalea izan zen urte batean. Bere zezenak jokatu ziren egun batean eta zaldi asko hil omen zituzten.

Biharamunerako kartel berdina iragarri omen zen, eta norbaitek Poyales dirurik gabe eta zaldirik gabe zegoela zabaldu omen zuen. Poyales-ek ez omen zuen ezer esan, eta korrida ikustera sekula baino jende gehiago joan omen zen, saltsa sortuko zelakoan. Korrida hasterakoan ordea, toreatzaileen aurkezpenean pikadoreentzako hamabi zaldik eta zalduneri eskoadroi batek osatu omen zuten desfilea. Migel Poyales izan ere, ez zen badaezpadako enpresaria.

Beste behin, bere ganadutegiko sei zezen, toreatzaileak eta zaldiak Belgikara eraman omen zituen, han korrida antolatzeko asmotan. Ez omen zioten ordea baimenik eman. Egunak igaro ziren eta Poyales-ek gero eta zor handiagoak egin omen zituen han. Poyales ez omen zen kezkatu ordea. Azkenean zor guztiak ordaindu, etxera itzuli eta artean gelditu zitzaion diruaz urrezko erlojua erosi omen zuen[34].

Badirudi Brusselara zezenak 1.852. urtean eraman zituela Poyales-ek, eta haietako bost Perez Labordarenak zirela. Hurrengo urtean Perez Labordak 8.000 erreal apuntatu bait zituen Poyales-en kargura bere liburu batean[3].

Irufiean, 1.852. urtean bukatu zuten plaza biribil berria. Lehengoa zimendutaraino bota eta bertan (*Txaron* izeneko lurretan) eraiki zuten. Abuztuan erabat bukatutzat jo zuten obra, nahiz eta aurrez sanferminetan bertan korridak eman. Bigarren plaza biribil hau, 535.953 erreal kostatu zitzaion udalari. Plaza biribil hura, kanpotik ez zen zirkularra: alde askotako poligonoa baizik. Oraingo Gaiarre teatroa eta Karlos III.aren ibiltokian zegoen plaza hura.

Uztailaren 7, 8, 10 eta 11n eman ziren lehen korridak eta honako zezen hauek ekarri zituzten inauguraziokoan:

Alvaro Muñoz Ciudad Real-ekoarenak.....	2
Jose Benjumea sevillarrarenak (Vazquez jatorrikoak).....	2
Manuel Suarez, Coria del Rio-koarena.....	1

Diego Barquero sevillarrarena	1
Luis Ferrer, Aragoako Pina–koarenak	6
Nazario Karrikirirenak	15

Guztira 27 zezen plazaratu ziren Iruñean. Karrikirirenak gainera, lehenengo aldiz Nafarroako hiriburuan.

Zezen haiek toreatzera eta hiltzera Francisco Arjona *Cuchares* etorri zen taldeburu. Ordezko ezpatari, badirudi bere anaia Manuel izan zela. Pikatzaile gisa etorritakoak berriz, hauek izan ziren: Jose Trigo, Joaquin Coyto *Charpa*, Manuel Martin (Madrilekoa) eta Joaquin Trigo (Sevillakoa). Banderilariak hauek izan ziren: Blas Melis *Minuto*, Matias Muñiz, Manuel Bustamante, Juan Jose Jimenez, Jose Ituarte *Zapataritxoa* eta Jose Osa (azken biak gipuzkoarrak)[29].

Urte hartan zezenplazako enpresari Nikolas Aztarain izan zen. Mutilgazteekin arazoak zituen, uraren tutuetan gora plazara sartzen zitzaizkiolako. Aztarain jauna ordea, gazte haiek erori eta zauritzeko zuten arriskuak kezkatzen zuen[3]. Iruñeko mutilgazteek, 1.852. urtean hain zuzen bazuten jadanik elkartea osaturik. *El Trueno* izena zuen eta 25.000 biztanleko hiri hura alaitzea zen beren helburua[4].

Bilbon ere izan ziren korridak 1.852. urteko abuztuan. Abuztuko 25ekoan hain zuzen, Joaquin Coyto *Charpa* pikatzailea zauriturik suertatu zen[13].

Frantziako enperadore Luis Napoleon zela, 1.852. urtean Baiona ondoan Atturri ibaiaz beste aldera Saint Esprit–en zezenplaza biribila zuten. Han urtero korridak Lapurdi edo Landetako erara ematen ziren, baina urte hartan zerbait desberdina egitea pentsatu zuten. Abuztuko 22, 23 eta 24erako Jose Ituarte eta Manuel Egaña debarrak kontratatu zituzten (batak 43 urte zituen eta besteak 25) nafar–zezenak toreatzeko. Tarteka korrida haietan Landetako edo Lapurdiko erara toreatuko zuten bertakoek. Korrida bakoitzaren amaieran, Jose Ituartek zezen bat hil zuen. Baina korrida haiek ez zitzaizkion jendeari gustatu; zezen txarrak atera zirelako batez ere.

Berehala iragarri zituzten korrida berriak ordea. Poyales, Bermejo eta Murillo–ren 18 nafar–zezen ekarrita, Tarazonako Manuel Perez *el Relojero* eta Manuel Egaña debarrak irailaren 12, 13 eta 14ean toreatu zuten 6.000 ikusleren aurrean. Zezenak zangarrak ziren, eta toreatzaileek arrakasta handia lortu zuten. Egaña debarrak ederki txuliatu zituen zezenak. Banderilak sartzen eta hagaz zezen gainetik saltatzen ere luzitu zen. Manuel Perez ezpatariak ere jendea pozik utzi zuen. Hirugarren egunean sei zezenetik bost lehenengo ezpatakadaz bota zituen.

Dena den, iraileko korrida haietan pikatzaile eta zaldirik ez zen plazara atera. Banderilaztatu, txuliatu eta ezpataz hil zituzten zezenak.

Lapurdi eta Landetako ganadutegietara, Poyales, Karrikiri, Elortz eta abarren nafar–zezenak ekartzen hasi ziren Baionako korriden arrakasta ikusita. Landetako zezen–arraza atzeraka hasi zen orduan, eta baita Landetako toreatzeko erako lantze batzuk ere; *paré* izenekoa eta zezenak akuiluz zirikatzea adibidez. Bestetik, bazterrean geldirik egoteko joera txikiagoa zutelako, Landetako toreaketarako behiak nahiago izan zituzten zezenak baino. Toreaketa horretan abererik hiltzen ez denez, behi berberak behin eta berriz plazaratzen zituzten. Behiek *ikasi* egiten zuten ordea, eta berriz itxuraz toreatu ahal izateko, adarretan soka lotzen hasi ziren. Behia eramateko eta toreatzailearen paretik burua momentu jakinean kentzeko erabiltzeko zen soka hura[57].

1.852. urtean, Tuterako Perez Labordaren unaiak leku desberdinetara abiatu ziren zezenak

eramatera. Otsailaren 2an Bartzelonara zortzi zezen eramatera, uztailaren 21ean Mallorka–ra zortzi zezen eramatera, abuztuaren 3an Hueskara sei zezenekin, abuztuaren 18an Bartzelonara hamalau zezenekin, irailaren 8an Naiarara zazpi zezenko eta sei behi eramatera eta urriaren 7an Zaragozara zazpi zezenekin.

Mallorka–ko zezenplazak, 6.000 ikuslerentzako lekua zuen, eta 1.852. urtean Perez Laborda eta Zalduendoren zezenak eraman zituzten, besteak beste, abuztuaren 15 eta 29an eta irailaren 5ean toreatzeko asmoz.

Abuztuaren 15ean, Zalduendoren bi, Perez Labordaren hiru eta Ubeda–ko Manuel Perezen bat plazaratu zituzten. Antonio del Rio, Mariano Anton eta Joaquin Gil *el Huevatero* ezpatariek parte hartu zuten, lehenengoa taldeburu zelarik. Antonio del Rioren lana gustatu zitzaion jendeari. Banderilariek saltoak egin zituzten adar gainetik. Behin hagaz ere bai. Manuel Perez–en zezena oso txarra suertatu zitzaien eta suzko banderilak sartu zizkioten.

Abuztuaren 29ko korridan ere nafar–zezenek erakutsi zuten indar eta suhartasunik gehiena. Iraileko 5ean berriz, zezenik txarrenak atera zituzten eta ez zen ezer aipagarririk gertatu.

Bartzelonan ere otsailekoez aparte abuztuaren 29 eta irailaren 5 eta 8rako iragarri zituzten korridak. Azkenean, irailaren 8, 12 eta 13an izan ziren ordea.

Irailaren 8an, Zalduendoren bi zezen, Perez Labordaren bi eta Azkoieneko Jose Bermejoren beste bi toreatu ziren. Bigarren atera zen *Coleto* izeneko zezena (Perez Labordarena) nabarmendu zen. Bi pikatzaile zauritu eta zortzi zaldi hil zituen. Jose Rodriguez *Pepete* ezpatariak hil zuen. Juan Pastor *Barbero* zen bigarren ezpataria.

Irailaren 12an Zalduendoren alargunaren hiru zezen eta Perez Labordaren alargunaren beste hiru toreatu zituzten. Sei urtekoak ziren sei zezenak.

Hirugarren zezena (Perez Labordaren *Andarin* izenekoa) lau aldiz ziztatu zuten zalditan eta gero zakurrak bota zizkioten, nahiz eta merezi ez. Irailaren 13ko korridan, Perez Labordaren zezen bat plazaratu zen. 1.852. urteko urriaren 26an berriz bi. Juan de Dios ezpatariak hil zuen bat eta bera saritzat eman zioten. Korrida hartara Jose Redondo *Chiclanero* joatekoa zen, baina huts egin zuen bere gaixotasuna medio.

Aurrez ordea Zaragozan, urrian bertan, korridak izan ziren. Hona hemen bertara bidalitako zezenen xehetasunak:

– Perez Labordaren zazpi zezen.
– Zalduendoren zazpi zezen.
– Jose Bermejoren sei zezen (dibisa horia).
– Utrerako Jose Rafael Cabrera–ren bost zezen (dibisa zuri–berdea).
– Coria del Rio–ko Manuel Suarez–en zezen bat (dibisa zuri–arrosa).
– Sevillako Jose Pikabea Lesakakoaren bi zezen (dibisa zuri–urdin argia).
– Ciudad Real–eko Gaspar Muñoz–en bi zezen (dibisa berdea).
– Almodovar del Campo–ko Juan Julian Gutierrez–en zortzi zezen (dibisa berde–horia).

Jose Redondo *Chiclanero*k zuzendu zuen plazako lana, baina berak ez zuen zezenik hil gaixo zegoelako. *Cuchares*, Manuel Arjona (*Cuchares*en anaia) eta Jose Rodriguez *Pepete* ezpatariek hil zituzten zezen haiek[3].

1.852. urte hartan, Joan Mihura ganaduzale andalusiarrak (euskal jatorrikoak ziren mihuratarrak) Jose Rafael Cabrera–ren alargunaren (Geronima Nuñez de Prado–ren) ganadurik gehienak erosi zituen. Aurrez Pedro Etxeberrigarai–ren ganadutegiaz jabetu zen (Antonio Gil Herrera eta Jose Luis Alvareda–ren esku zeuden eta haiei erosi zizkien beren ganaduak)[51]. Joan Mihura jauna, berez Sevillako dendari aberatsa zen. Encarnación izeneko plazan kapeladenda zuen eta bere txanpon batzuk ganadutegia osatzen gastatzea bururatu zitzaion[62].

Iruñean 1.853. urterako, Francisco Arjona *Cuchares* ekarri zuten sanferminetarako toreatzaileen buru. Bigarren ezpataria Manuel Arjona izan zen, eta hirugarrena Antonio Belo zen. Banderilaritako bat berriz, Manuel Sanchez sevillarra[58].

Iruñean bestetik, 1.853. urtean *Toros y Gaitas* aldizkaria argitaratzen hasi ziren zezenzaleentzat[63].

Urte hartan, 1.853. urteko abenduan Domingo Mendibil Madrilen nobillada batean lehen aldiz aurkeztu zen. Francisco Martin *el Cornetarekin* batera hil zituen Villalba eta Castrillon–en zezenkoak. Mendibil Durangon jaio eta Burgosen bizi zen[64].

Toreatzaile bizkaitarrak gaur egun oso ugariak ez badira ere, garai hartan ez zen harrigarria Bizkaiak toreatzaileak ematea. 1.853. urtean hain zuzen, Verdi–ren musikaz *La traviata* izeneko opera estreinatu zen. Libretoa Francisco Maria Piave–k moldatu zuen, Alexander Dumas semearen *Kameli dama* izeneko nobela famatuan oinarriturik. Dena den, *La traviata* operaren bigarren ekitaldian, toreatzaile eta emakume ijitoek balet–dantza egiten dute. Toreatzaile bat bizkaitarra da eta neska andalusiar batez maitemindurik dago.

Toreatzaile–giroko beste orepa bat, oso ezaguna da: Bizet–en *Carmen* opera famatua elegia. Prospero Merimé idazle frantsesak idatzitako historian oinarritua dago 22 urte geroago estreinatu zen opera hau, baina Merimé–k dioenez, *Carmen* emakumea nafarra, euskalduna, zen[62]; etxalartarra, eta beste protagonista (Jose Navarro) Jose Lizarrabengoa elizondoarra. Opera honetako habanera egiteko, Sebastian Iradier arabarraren *El arreglito* abestian oinarritu omen zen Bizet[65].

1.853. urtean Donostian ihauteriak humore onez igaro zituzten, eta hara Jose Bizente Etxegarai–k orduan jarritako sei bertsoetako bik zer dioten:

Elkarren gain bultzaka
Erri barrenian
Baserritarrak ziran
Soka–muturrian:
Bañan arrantzaliak
Bildu ziranian
Atzeratu zituzten
Umore onian.

Noiz bait arkiturikan
***Baka** iskiñian*
Makiña bat atzapar
Zuten bizkarrian:
Guztiyak lagun onak
Anaitasunian

Bazkariya sartzeko
Tripa zimurrian[66].

Ihauterietako sokamuturrak alde batera utzita, ekainaren 15ean Perez Labordaren Jose unaia eta Zalduendoren beste bat beren zezenekin abiatu ziren Tuteratik Donostiarantz. Perez-en hiru zezenak txiki eta merkeak ziren eta Zalduendorenak ere halamoduzkoak zirela pentsa daiteke. Beherapenetan erositako zezenak zirela dirudi. Zezen haiek toreatzen, *Lillo* banderilaria kolpatua suertatu zen[3]. *Lillo* banderilaria, Manuel Ortega Diez cadiztarra izango zela pentsatzen dugu; garai hartan *Cucharesen* koadrilan zebilena[26] eta abuztuan Baionako plazan lan egingo zuena.

Azpeitiko saninaziotarako, Bizente Arregi jaunak proposamen bat egin zion Udalari. Berak uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean nobilladak antolatzeko baimena eskatu zuen. Nobillada bakoitzean hiru nafar-zezen toreatu eta hilko ziren. Horretaz gain, inguruetatik Udalak ekarritako zezenkoak ere korrituko ziren. Hildako zezenen okela, Arregi jaunak herriko harategitik kanpo salduko zuen, libra lau sosetan. Nobilladarako sarrera lau erreal kobratuko zuen.

Udalak baiezkoa eman zion Bizente Arregiren proposamenari baldintza batzuk ipinita[21].

Perez Labordaren nafar-zezenak, 1.853. urtean Donostiaz aparte beste hiru lekutara joan ziren: ekainaren 6an Logroniora (bere sei behi eta Zalduendoren lau), ekainaren 27an Tarazonara (sei zezen) eta abuztuaren 25ean Gasteizera (sei zezen). Gasteizera, Perez Laborda, Poyales eta Zalduendoren zezenak joan ziren orduan eta badirudi Lizaso anaien bidez eraman zituztela zezenak hara. 160 errealeko saria eman bait zieten Perez Laborda eta Zalduendok[3].

1.853.ean, Masguescq herrian Bernard Lalanne *Jean Chicoy* toreatzaileak Landetako erara toreatu zituen zezen puntazorrotzak sokarik gabe[16].

1.853. urtea, Baionan korridak *Espainiako erara* antolatzea nahi zuten, aurreko urteko irraileko arrakasta kontutan harturik. Orudan ordea pikatzailerik ez zen izan korridatan, eta 1.853. urtekoetan bai. Udalak Saint-Esprit-eko plazan korridak antolatzeko baimena Aguado Lozar jaun nafarrari eman zion, urteko 2.000 frankoren truk. Ministrariak debekatu egin zituen ordea korridak, eta Udaletik orduan, mandatariak bidali zituen Parisera baimen bila. Badirudi han Montijo-ko Eugenia enperatrizak bere laguntza eskaini ziela. Dena den, mandatariak hamar urtean korridak antolatzeko baimenarekin itzuli ziren.

Ekainaren 11n, plaza berria egiten hasi ziren, baina zailtasunak medio, urte hartakoagatik Saint-Esprit-eko plaza zaharra sendotzea eta handitzea hobea zela pentsatu zuten. Dena den, plaza berria egiten bi urte behar izango zituzten[56].

Korridak, abuztuaren 21, 22 eta 23rako iragarri ziren. Zezenak, M. Zapata (Arcos de la Frontera-koa), Duran (Sevillakoa), Osuna (Brenes-ekoa), Poyales (Korellakoa) eta Bermejo-renak (Azkoienekoa) izango ziren[67]. Toreatzaileak berriz, Francisco Arjona *Cucharesen* agindupean lan egingo zuten. Antonio Sanchez *el Tato* eta Antonio Belo izango ziren ordezko ezpatari. Pikatzaile gisa Joaquin Coyto *Charpa*, Jose Trigo, Manuel Martin *Castañitas* eta Antonio Calderon joango ziren. Koadrila azkenik, honako banderilari hauek osatu zuten: Blas Meliz *Minuto* (txikia zelako zuen goitizen hori), Manuel Ortega *Lillo*, Manuel Bustamante *Pulga*, Matias Muñiz eta Jose Jimenez *El Ponchok*. Lehen korrida, abuztuaren 21ekoa, ez zen ona atera; abuztuaren 22koa bai, eta hirugarrena (abuztuaren 23koa) oso ona izan zen. Dirudienez zezenik zaharrenak eta indartsuenak azkenerako utzi zituzten.


GRANDES COURSES ESPAGNOLES
DE
TAUREAUX,
A SAINT-ESPRIT (LANDES), PRÈS BAYONNE,
Qui auront lieu
Les 21, 22 et 23 Août 1853.

11.7. irudia. 1.853. urteko abuztuan Baionan ospatu ziren korriden iragarpena.

*Cuchares*ek lana ondo egin zuen. Batez ere bi ezpatakada on ematen ikusi zuten. *Minuto* eta *Pulga* banderilariek zezenaren adar gainetik salto egin zuten; batzuetan hagaz. Azken egunean Trigo eta *Charpa* pikatzaileek kapaz txuliatu zuten zezen bat. *Cuchares* lehen korridan, berde eta urre jantzia atera zen, bigarrenean gorri eta zilar eta hirugarrenean urdin eta zilar.

Guztira, 19 zezen hil ziren. Zezenek berriz, 39 zaldi utzi zituzten plazan hilik. Osuna–ren zezenak (bakarra bidali zuen), koldar jokatu zuen eta zezentxakurrak bota zizkioten[57].

L'Ilustration aldizkariak eman zuen korrida hauen berri eta azkenean, 39 zaldi eta 19 zezen (eta toreatzailerik ez) hil zirelako korrida haien kontra agertu zen.

Théophile Gautier famatuak ere Pariseko *Press*en idatzi zuen Baionako korrida haietaz. Jende asko bildu omen zen Baionara leku askotatik. Bainuetxe eta abarreko turista jendeak Baiona gainezka omen zeukan, eta askok ikuiluetan lo egin behar omen zuen beste lekurik ezean.

*Cuchares*ek bere kapote arrosaz zezena maneiatzen zuenean oihuka hasten omen zen jendea

frantsesez, gazteleraz eta *patois*–eraz[3]. (*Patois* hura euskara ala gaskoniera zen inola ere, nahiz eta idazle frantsesek beren mezprezu–kutsuz hitz hori erabili).

Cossio idazleak ez bezala, bigarren korrida ez zela izan dio zenbaitek. Baina *Cucharesek* deskabello–kolpea jo eta asmatu egin omen zuen korrida hartan, zezena tximistak jota bezala bapatean erori zelarik.

Théophile Gautier idazlea *Cucharesekin* egon omen zen korrida amaitu ondoren. Dumas idazlearen antza omen zuen, halako adarpunten ondo–ondoan ibili eta irrifartsu zegoen toreatzaile ausart hark[3].

Dena den, Baionan 1.854. urtean berriz ere Aguado Lozar nafarrari eman zioten korridak antolatzeko ardura. Saint–Esprit–eko zezenplazan emango ziren korridak, ibaiaz honantz aldeko zezenplaza egin arte. Luis Napoleon Bonaparte enperadorea eta Eugenia enperatriza Miarritzera uztailaren 21ean etortzekoak zirenez gero, korridak abuztuaren 6, 7 eta 8rako iragarri zituzten.

Korrida haietarako, *Cuchares* ekarri nahi izan zuten, baina beste nonbaiterako kontratatua zegoenez gero, Cayetano Sanz etorri zen bere koadrilarekin. J. Gonzalo Mora zen ordezko ezpataria. Pikatzaileak, Juan Martin Garcia *el Pelón*, Juan Alvarez *Chola*, Jose Sevilla eta Juan Gil Gallego ziren. Banderilariak berriz, Jose Antonio Learte Calderon *Capita*, Angel Lopez *el Regatero*, Domingo Vazquez, Juan Rico, Pablo Ramos eta Placido Valero, eta sastakari Gabriel Caballero.

Koadrila honek torea zitzan, 18 zezen ekarri zituzten: sei Zalduendoren alargunarenak, sei Perez Labordaren alargunarenak, hiru Ejeako Severo Murillorenak eta beste hiru herri bereko Juan Lopezenak[57].

Perez Labordaren zezenak, (zazpi bidali zituen; bat soberakoa) uztailaren 28an abiatu ziren Baionarantz Tuteratik, Mateo eta beste bi unairekin batera. Zezen–taldea maneiatzeko, joaldunak eta asto bat zeramatzaten. Astoa zihoan hain zuzen taldearen buruan.

Abuztuaren 8an, hirugarren korrida–egunean, goizeko lauretan zezenak entzierroan plazara zeramatzatela zezen batek taldetik irten eta gizon bat adarkatu zuen.

Abuztuaren 6ko (igandeko) korridak baino hobeak izan ziren astelehen eta asteartekoak. Igandean Zalduendoren lau zezen eta Juan Lopez–en bi korritu zituzten.

Astelehenean eta asteartean, enperadoreak plazan ziren lehendakaritzan eta korrida hobeak ikusteko aukera izan zuten. Pikatzaile batek (*Cholasek*) zezenaren dibisa eman zion enperatrizari, eta honek pikatzaileari erloju eder bat eta urrezko kate bat.

Sobratu ziren bost zezenekin, abuztuaren 13an beste korrida bat izan zen. Cayetano Sanz–ek Juan Lopez–en bi zezen eta Zalduendo nahiz Perez Labordaren bana toreatu eta hil zituen. Azkenean bi joaldun plazaratu zituzten bertako gazteentzat.

Madrileko *El Enano* aldizkariak Baionako korriden berri eman zuen, eta hark zioenez Cayetano–k zezenen adar gainetik saltoak egin zituen eta Domingok hagaz ere bai. Lehen eguneko korridan bi zezeni suzko banderilak ipini omen zizkieten. Bigarren korridan, lehen zezena izan omen zen onena. Ezpatakada banaz erori omen ziren sei zezenak, eta seiak saritzat jaso omen zituzten ezpatariek. Hirugarren korrida ere interesgarria izan omen zen.

Enperadoreek, lehen eta hirugarren korridak ikusi omen zituzten eta toreatzaileei opariak eman omen zizkieten: Cayetanori eraztun eder bat, *Cholas*i diamante eta errubidun bi botoi–pare, *Regatero*ri erlojua eta urrezko katea, Domingori beste zerbait eta koadrila guztiari 4.000 erreal[3].

1.854. urtean bertan, Paris eta Baionan batera argitaratu zen *Les courses de taureaux expliquées* izeneko liburua. Aguado Lozar nafarrak idatzia zen, nahiz eta Oduaga–Zolarde izenordea erabili[57].

1.854. urteko abuztuaren 13an, B. Borda apaizak zezenei buruzko olerki batzuk egin zituen. Bere hexametroak, Urruña–ko Euskal Jaietarako iragarri zen Olerki–lehiaketa baterako egin zituen. D'Abbadie–ren laguntzaz antolatutako lehiaketara aurkeztu zuen Borda–k bere lana. Lan horren zati bat, zezenei dagokiena, aldatzen dugu hona[68]:

... Da laster hedatzen
Berria, nola zezen bat orai gudukatua izanen
Zelhaian dela, gaitza hainitz, hameka pikerok
Eramana urrundik gogorki uztartua, nekez
Harroka handi bat lerran duela herrestatzen:
Nolakoa orhoituz nehon ez baitzuten ikusi.
Berriki ditu sei zamari, toreadore biga
Urratu, fama handikoak Espainia orotan.
Ia toreadoreer konkorra gudura tuhuntak
Oihuegin diote. Harrobots ezagutua adituz,
Marrumaz athean urratua dago zezena.
Hala duzu gabaz itsasoko orroa aditzen,
Noiz–ta element beltzak zolaraino nahasia baitu,
Pisuki altxatuz ponpoila zerura, zerutik
Harroka hauntsuaren bizkar zabalera botatu.

Azkenean, guziak beha daudezila, zezen bat,
Beltza buruz, laster da inobrea iauzten arera.
Ilea beldurrez guzier zaiote xutitu.
Predo bera ixilik, hanbat toreador abila,
Predo zoina nehork arean garraitua ikusi
Ez baitu, Predo bazter beha, izitua dago,
Ez bakharra. Abreak du bere indarra frogatuz,
Haizea sudur hixtukan xiztatzen adarrez,
Eta behegoiler, lurra haztaparkan irauliz
Barna, hixtuka legor uri bat idorra botatzen.
Alferretan hari dakote bilhatzen orotan
Nor arean nahi laiteken harekin izartu.

Orduan eztiki bere adixkide zaharra
Du gaizkiz Ahado, hurbilduz, xiztatzen Azantzak:
"Josia zerk, errak Ahado, heure alimua duaka
Alkhi hortan, dako erraten, gogoetan alferrik?
Zauka arras hiri ohorearen guzia agortu?"
Dakote hitz horiek erakitarazten odola:
"Ez nauk ez ni beldurrak lotsatua egoiten,
Dako aldiz ihardesten kopeta goraki
Altxatuz Ahadok, xoilki naike urte zaharrek

Aspaldi hormatuz zainetan odola, gogortu.
Bainan oraino diat nahi zer lehen izatu
Garen erakutsi...

Ia, guziak esku ioka daudezila, torero
Da, gora sorbaldak, tainki lerdena xutitu.
Bainan orai noren bada bilha dabila nigarrez
Nexka hau? Den kuriosa! Nehork hamaseitan oraino
Ez du haren ile horian primadera lilitzen ikusi.
Zoin damuk begiak daizkote nigarrean urtzen?
Nexka torerori marraskan gaztea iauziz
Lephora: "Aita, dio, zoin da zure xedea? Beraz
Haur bakharra behar zuk amagabetua nauzu
Aitagabetu? Aski beraz ez naizen oraino
Ni dohakabe? Hurbil nik ere dut azken orena."

Haurtxoari onki aitak irri bat gozoa eginez,
Soinean ere hartuz, du besarkatzen alaba,
Eta dio, duela eztiki tinkatzen, harentxe
Mathel amultsuari musu bat amultsua ixuri:
"Nork bada zer, dio, egin dautxu, ene uso eztia? Soin bat
Gerrian inguru, nitaz erosia, ederra,
Goiko ozadarra bezain, nik hauta derautxut emanen."
Halaxe lausenguz dautzu enganatzen alaba.
Du biziki eztituz Toribia bozten ederra
Eta haren ere bihotz mina laster agortzen agintzak.

Azkenean bakharra Ahado da aphaindua agertu,
Eta aintzina arean landatu zangoa tainki,
Nardatzen duela, baizatuz bandera, zezena.
Abrea da hain sarri saiheska bihurria iarri,
Eta legorra behatz zabalaz du barna zilhatu.
Lurra arradatuz makur baratxe muthurraz
Da behin hurbiltzen, duela aintzinatzen adar bat
Luzea: gero xuxen, biziago arranoa baino,
Bere etsai guti izituaren gainera zezena
Ozpinaren pare funditu. Bai bainan abilki
Ia bandera buruz enganatzailea ezarriz
Du toreadoreak baztertzen abere samurra.
Da gero errabian lauhazka zezena bihurtzen
Itzulia. Alferrik etsaia ez berea berriz
Herrausten duela aitzinduz eskuna torerok
Gordea lepho hegian dio dardoa barna sakatu.
Dako abreak orro bat ikharagarria egiten,
Nola eheurziriak duela arrailatzen hodoia...

Olerkitan ezezik pinturan ere gai nagusi izan dira zezenak zenbait artistaren baitan. Gustave Colin–ek adibidez, 1.854. urtean egin zuen koadro batean betizua agertzen da hondoan Jaizkibel mendia duela[67].

Bestetik, Akitaniako Laurede herrixkan Paul Daverat jaio zen 1.854.ean; gero toreatzaile

landetar famatu izango zena[16].

Bilbon, 1.854. urteko irailaren hasierarako korridak antolatu zituzten. Jendea urrutitik ere joaten zen korridak ikustera. Baionatik adibidez, *Comercio* izeneko pakebotea Atturri ibaitik abuztuaren 31n goizeko zortzietan abiatu zen Bilbo aldera eta irailaren 5ean itzuli goiz aldera[3].

Urte hartantxe, Antonio Sanchez *el Tato* izeneko toreatzaileak, *Cuchares* bere maisua utzi eta bere koadrila propioa sortu zuen[57]. Gasteizen toreatu zuen urte hartan.

Perez Laborda, Zalduendo eta Poyales–ek zezenak bidali zituzten 1.854. urtean Gasteizera hiru korridatan irailean jokatu ahal izateko. Perez Labordaren Jose unaia irailaren 9an abiatu zen Tuteratik bost zezen zeramatzala.

Lehen korridan euria egin omen zuen, eta plazan luzimendurik ez zen egon. Beste bi korridak onak izan ziren; azkena batez ere. Mariano Cortés eta Antonio Sanchez *el Tato* ezpatariek parte hartu zuten. Bigarrena, oso txalotua izan zen.

Perez Labordaren zezenak, Logronion eta Tuteran ere jokatu zituzten urte hartan. Tuteran, Zalduendo, Perez Laborda, Poyales eta Miguel Santos jaunak elkarte bat osatu zuten hiri hartako plazan korridak antolatzeko. Ospitalearekin tratua egin zuten, urtero 5.000 erreal ordainduta plaza hartzeko. Eserleku gehiago ipintzeko obrak ere elkarteak egin zituen. Guztira 11.000 erreal kostatu ziren obrak, eta Ospitaleak 4.000 ordaindu zituen.

Santa Ana egunez, hiru zezen eta zezenkoak plazaratu zituzten. Uztailaren 27an berriz, goizean 3 zezen *probarako* eta arratsaldean sei. Antonio Sanchez *el Tato*, Gonzalo Mora eta Francisco Martin *el Calero* ezpatariek parte hartu zuten.

Enpresariek, nahiz eta korridetara jende asko joan, 11.000 erreal galdu zituzten, eta Poyales eta Santos jaunek elkartea utzi egin zuten, Perez Laborda eta Zalduendo senideak bakarrik geldituz.

Perez Laborda tuterarrak, saninaziotarako bost urteko lau zezen txiki bidali zituen. Uztailaren 23an abiatu ziren unaiak ganaduekin Azpeiti aldera. Hamalau egun geroago amaitu zuten atzera–aurrera hura[3].

Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean, goizean inguruko bina zezenko korritu zituzten. Arratsaldean berriz, bina nafar–zezen eta bertako hiruna zezenko. Jose Ituarte debarrak eta beste lau toreatzailek egin zuten lan.

———— o ———— o ————

Hurrengo urtean, 1.855.ean, Andres Cabredo jaunak egin zion Udalari saninaziotan nobilladak antolatzeko proposamena. Bi egunetan izan ziren nobilladak, eta bakoitzean bi nafar–zezen eta Lasturreko bi zezenko jokatu zituzten. Lasturreko abelgorriak Udalak ekarri zituen[21]. Nafar–zezenak, Perez Labordarenak izan ziren. Handik atera bait ziren uztailaren 24ean bost urteko lau zezen txiki.

Iruñean, 1.855. urtean plaza biribil berrian korridak izan ziren uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean. Guztira 27 zezen plazaratu zituzten: 7an sei, 8an bederatzi (hiru goizean), 9an sei eta 10ean sei. Zalduendo, Perez Laborda, Poyales eta Karrikiri eta konpainiak (Murelu–tik) bidali zituzten zezenak.

Zezenak hiltzera Cayetano Sanz eta bere koadrila etorri ziren. Bigarren ezpataria, Domingo Mendibil durangarra izan zen. Pikatzaileak, Juan Martin (Jerez-ekoa), Lorenzo Sanchez (Chiclana-koa), Jose Sevilla (Sevillakoa) eta Cayetano Ruiz (hau ordezkoa). Banderilariak, Angel Lopez (ordezko ezpataria), Domingo Vazquez, Juan Rico, Pablo Erraiz, Juan Gutierrez eta Pablo Ramos. Sastakari Gabriel Caballero.

Uztailaren 8an arratsaldean, Perez Labordaren sei zezen (dibisa zuria) toreatu zituzten. Cayetanok lehen, hirugarren eta bostgarren zezenak hil zituen, eta Mendibilek bigarren, laugarren eta seigarrena. Zezen onak atera ziren. Uztailaren 7an arratsaldean atera ziren Zalduendoren sei zezenak ere bai. Plazara ez zen jende asko joan ordea, kolera-izurritea zegoelako.

Uztailaren 8an goizean Zalduendo, Poyales eta Karrikiriren zezen bana toreatu zituzten *probarako*. Zezenak onak ziren eta toreatzaileek lana ondo egin zuten. Bigarren zezenean Cayetano lurrera erori zen eta Mendibilek zezenari buztanetik heldu zionean ezkerreko hankan adarkada jaso zuen.

Arratsaldeko korridan, esan bezala, Perez Labordaren zezenak korritu ziren. 17 zaldi hil zituzten eta hirian koleraz jotako hiru pertsona omen zeuden.

Uztailaren 9an, Miguel Poyales korellarraren zezenak dibisa berdez plazaratu ziren. Bost zaldi hil ziren plazan zezenek adarkatuta. Toreatzaileek ondo lan egin zuten, eta zezenak ez ziren hain onak.

Uztailaren 10ean Karrikiri eta konpainiaren sei zezen atera zituzten plazara lepagainean dibisa gorri-berdea ipinita. Zezenak batezbeste nahikoa onak. Bostgarrena, *Medianoche* izenekoa, handia eta oso ona. Bigarren zezenean euria egin zuen, eta seigarrenean, zezenak zalditara joan nahi ez zuela eta, jendeak plazara salto egin zuen. Agintariek beren neurriak hartu ondoren jendea erretiratu eta koadrilak lan egin zuen. Ez zen zauriturik izan[3].

Tuteran, Perez Laborda eta Zalduendo ziren zezenplazako enpresari, baina 1.855. urteko santanatan ez zuten korridarik eman hiria kolera-izurriteak hartua zuelako[2].

Dena dela, maiatzaren 1ean Udalak sokamuturra debekatu egin zuen Tuteran zaurituak izan zirelako eta soka hautsita ere izan zitezkeelako[5].

Maiatzaren 27an ordea, Perez Labordak behi bat eraman zuen Tuterara. Apirilaren 23an berriz, Mendabiara zortzi behi eta bi idisko bidali zituen. Ekainaren 6an, Logroniora sei zezen eta soberako bat abiatu ziren. Baita ekainaren 26an ere urteko bi abelgorri, bi zezen eta bi zezenkorekin ere. Haro-ra ekainaren 18an bi zezenko eta bi idisko bidali zituen ganaduzale tuterarrak, eta Briones-era ere ganadua eraman zuten abuztuaren 17an.

Logronion korridak ekainaren 10 eta 11n eman ziren. Perez Labordaren eta Zalduendoren zezenak jokatu zituzten. Lehen eguneko bostgarren zezenak barrera saltatu eta ikusle bat hil zuen. Ordezko ezpatariak hirutan sartu zion ezpata zezen hari muletaz ondo maneiatu ondoren eta Manuel Perez *el Relojero* ezpatariak hil zituen beste bost zezenak. Baita biharamuneko beste seiak ere. Guztira 13 ezpatakadaz bota zituen zezen haiek. Manuel Perez hura, Tarazonan jaioa zen eta erloju-denda zeukan Zaragozan. Logronion 1.855. urteko ekaineko korridetan zezen batzuk saritzat eman zizkioten. Lana ondo egin zuelako, iraileko korridetarako berriro kontratatu zuten[3].

Zaragozan, 1.855. urteko urriaren 21eko korridan Karrikiriren zezen bat nabarmendu zen. 32 aldiz pikatu zuten eta berak 7 zaldi hilda utzi zituen[34].

Bartzelonan, 1.855. urteko uztailaren 1eko korridan berriz, Pedro Galo Elortz–en ganadutegiko *Peinero* zezena *Peroy* toreatzaileak hil zuen. Manuel Arjona–k utzi zion bere lehen zezen hura hiltzen Pedro Aixelá *Peroy* toreatzaile tarragonatar hari[10].

Abuztuaren haiseran, Gasteizeko korridetan Antonio Sanchez *el Tato* toreatzaileak parte hartu zuen eta abuztuaren bukaera aldera berriz Baionan[26].

Baionan, 1.855. urteko apirilean Saint–Esprit–eko plaza bota egin zuten eta hantxe bertan, Atturri ibaiaz beste aldera, plaza berria eraikitzen berehala hasi ziren. Han handiagoa egin zuten, eta Baionan bertan zezenplaza egiteko proiektua bazterturik gelditu zen[57].

Aurrez bolaztatutako zezenekin festa bat antolatu bazuten ere, abuztuaren 23 eta 26ko korridak izan ziren garrantzitsuenak. Julian Casas *Salamanquino* eta Antonio Sanchez *el Tato* (*Cucharesen* ikasle izandakoa) ezpatariek parte hartu zuten Mateo, *Cabo*, Mota, Nicolas eta Mariano *el Moreno* banderilari eta Muñoz, Bruno, Pinto eta Ceferino pikatzaileekin batera. Zezenak, Colmenar Viejo–ko ganadutegi batekoak eta Poyales nafarrarenak izan ziren.

Abuztuaren 27an beste zezenfesta bat antolatu zuten. Hiru zezen Ceferino eta Pinto–k pikatu zituzten gero Mateo eta Mariano banderilariek hil zitzaten. Mateok lehenengoa nola edo hala hil zuen, baina bigarrenean *Salamanquino*ak irten behar izan zuen kaleko jantzian. Ondo hil zuelako zezena berari sari gisa eman zioten. Hirugarren zezenean berriz, Mariano–k hil ezinda *el Tato* jaitsi zen hondarrera eta bigarren saioan bota zuen ezpataz. Zezena irabazi zuen *el Tato*k ere. Gero beste hiru zezen bolaztatu atera ziren plazara Martina Garcia toreatzailea eta bere emakumezko koadrilarentzat. Nahiz eta zezenak koldarrak izan, emakumeek lana uste baino hobeto egin zuten eta zezen bat saritzat ere eman zieten[3].

Urte hartantxe, 1.855.ean, Armagnac–eko Labastide herrian ekainaren 24 eta 25ean zezenfestak izan ziren Landetako erara[16].

1.856. urtean, eta zaldi zuarituak plazan ikustea zenbaiti gustatzen ez zitzaionez gero, pikatzailerik gabeko korridak eman ziren Baiona ondoko Saint–Esprit–eko plazan. Manuel Egaña *Ehulea* edo *Eulia* debarrak lan egin zuen beste toreatzaile landetar batzuekin batera abuztuaren 15 eta 17an eta irailaren 14ean.

Baina enperadoreak Miarritzera etorri zirenean, irailaren 21 eta 22an korrida osoak (pikatzaile eta guzti) eman zituzten Baionan. Karrikiri jaunaren seina zezen plazaratu ziren bi egun horietan. Haiek toreatzera berriz, Manuel Dominguez *Desperdicios* eta Jose Carmona *el Panadero* ezpatariak ekarri zituzten, beren koadrilan pikatzaile ondokoak zirelarik: Jose Muñoz, Pedro Romero, Juan Martin, Antonio Calderón eta Jose Barrera Trigo.

Jende asko etorri zen Baionara korrida haiek ikustera. Enperadoreak arratsaldeko hiruretan heldu ziren plazara, eta berehala hasi zen korrida. Théophile Gautier–ek *Le Moniteur* aldizkarian eman zuen bi korrida haien berri.

Lehen korridako zezenak (igandekoak), bigun samarrak izan ziren, azken biak ezik; *Malos Aires* eta *Almirante* ezik alegia. Bigarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. Dominguez eta Carmona ezpatariek lana ondo egin zuten.

Asteleheneko korridan Karrikiriren zezenek zangartasun handia erakutsi zuten. *Borracho* eta *Gavilan* izeneko zezenak hil ondoren, *Capitán* izenekoa plazaratu zen. Ikusmenean akatsa zuenez gero, oso arriskutsua zen. Hamar aldiz pikatu zuten, eta Manuel Dominguez–ek oin–hegazka ezpata sartu zion. Zezenak orduan, adarra izterretik sartuta zintzilik eduki zuen segundo batzuetan *Desperdicios*. Laguntzaileek libratu zuten ezpataria halako batean zezenaren adarretatik, eta Manuel Dominguez–ek trasteak hartu eta pase batzuk eman ondoren beste ezpatakada batez bota zuen *Capitan* txalo artean. Gero atera ziren *Tambor*, *Trabuco* eta *Alevoso* zezenak Jose Carmonak hil zituen.

Biharamunean Frantziako enperadoreek harribitxizko orratz bat eman zieten Dominguez–en koadrilakoei, ohean zegoen beren maisuari eman ziezaioten, eta Carmonari ere antzeko beste orratz bat eman zioten. Koadrilako bakoitzari berriz, 1.000 erreal[57].

1.856. urtean, Iruñeko sanferminetarako korridak Udalak berak antolatu beharko zituela pentsatzen zen. Aurreko urteetan Nikolas Aztarain enpresaria arduratu zen lan horretaz, baina kontratua hautsia zuten.

Udalaren ordezkaria, Cayetano Sanz ezpatariarekin hizketan hasi zen Iruñera ekartzeko. 54.000 erreal eskatzen zituen. Bere koadrilan Domingo Mendibil durangarra eta pikatzaile eta banderilari onak eramango zituen. Antonio Sanchez *el Tato* ez zuen eraman nahi, gaizki konpontzen zirelako.

Azkenean ordea, Ildefonso Goñi iruindarra aurkeztu zen plaza hartu nahian. 30.000 erreal ordainduko zizkion Udalari eta berak antolatuko zituen korridak uztailaren 7an (sei zezen), 8an (beste sei zezen) 9an (hiru zezen goizean eta sei arratsaldean) eta 10ean (sei zezen). Zezenak Colmenar Viejo–ko Mariano Garcia Tellez (sei) eta Ildefonso Rosalen–enak (sei), Korellako Poyales–enak (sei), Nazario Karrikiri jaun txit garaiarenak (hiru), Francisco–renak (bi), Jose Migel Gendulain tuterarrarenak (bi) eta Ejeako Candido Lopez–enak (bi) izango ziren.

Koadrila, Antonio Sanchez *el Tato*, Manuel Diaz *Lavi* eta Mariano Anton ezpatariek, Antonio Arce, Antonio Pinto, Joan Uzeta, Mariano Cortes eta Francisco Oliver pikatzaileek eta Matias Muñiz, Manuel Sanchez, Juan Rico eta gipuzkoar banderilariek osatu zuten[58].

Uztailaren 9an goizean, *el Tato*k zezen bat deskabello hutsez hil zuen ezpatarik sartu gabe. Saritzat eman zioten. Bigarren zezena Mina–ko kontesari brindatu zion.

Tuteran, 1.856. urtean Perez Laborda eta Zalduendok zuten plaza hartua. Perez Labordak zezenkoak zerbitu zituen urte hartan, eta santanatarako berebiziko kartela prestatua zegoen[3]. Manuel Dominguez *Desperdicios* kontratatua zuten 25.000 errealetan[2], eta Gonzalo Mora ezpataria ere etortzekoa zen koadrilako pikatzaile eta banderilariekin.

Bi korrida izango ziren: uztailaren 26 eta 27an. 26an Zalduendoren alargunaren sei zezen jokatuko zituzten eta 27an Perez Labordaren alargunaren beste sei.

Giroa nahasia zegoen ordea, 1.845. urteko Konstituzioa ezarri nahi zutelako, eta agintariek debekatu egin zituzten korrida haiek. Korridarik gabe geratu ziren beraz tuterarrak.

Urte hartan dena den, 1.856.ean alegia, Perez Laborda ganaduzalearen unaiak leku askotara joan ziren abelgorriak eramatera: Bi zezenkorekin Hueska–ra martxoaren 26an, Santo Domingo de

la Calzada–ra maiatzaren 6an, Korellara maiatzaren 18an, Bartzelonara maiatzaren 26an sei zezenekin, Haro–ra ekainaren 16an hamar behirekin, Hueska–ra abuztuaren 5ean sei zezenekin, Haro–ra abuztuaren 9an zortzi zezenekin eta Soriara bi zezenekin[3].

Madrilen, 1.856. urteko ekainaren 22an, Durangon jaiotako Domingo Mendibil toreatzaileak alternatiba hartu zuen Manuel Dominguez *Desperdicios*en eskutik, Manuel Diaz *Lavi* lekuko zelarik. Justo Hernandez ganaduzalearen *Atrevido* zezena hil zuen lehenbizi. Ez zen oso ondo egon. Gero *Librero* izeneko zezena tokatu zitzaion, eta gaizki egon zen[64].

Bi egun geroago, 1.856.eko ekainaren 24ean, Bermeon zezenplaza berria estreinatu zuten. *Portaleko* plaza izenekoa zuten lehen, eta haren ondoan berria eraikia zegoen jadanik. 6.000 ikuslerentzako lekua zuen eta lehen korridara Francisco Arjona *Cuchares* etorri zen estreinatzera[69].

Hilabete batzuk geroago, 1.856.eko urriaren 10ean, Elgoibarreko Feri kaleko 15ean, urteak igaro ondoren famatu izango zen Jose Luis Mazzantini jaio zen goizeko bostetan. Aita Jose Mazzantini zen; Toscana–ko Pistoia hirikoa. Kontratista zen eta trenbidetako obrak egiten zituen. Ama berriz, Bonifazia Egia zen; elgoibartarra.

Jose Luis Mazzantini–ren aitonak, Antonio Mazzantini (Milano–koa) eta Teresa *Benguchi* (Pistoia–koa) ziren. Amaren aldeko aitonak berriz, Sebastian Egia elgoibartarra eta Xabiera Egino azkoitiarra (biak Elgoibarren bizi ziren).

Jaioberria, Sebastian Egia eta Manuela Antonia Arrilaga elgoibartarrek eduki zuten pontean, Frantzisko Lizarriturri apaizak bataiatu zuen bitartean.

Mazzantini–ren gurasoak, garai hartan Santander–eko Matamorosa herrian bizi ziren, eta Elgoibarrera etorri ziren haurra izatera. Luis Mazzantini–k, Elgoibarren pasatu zituen bere lehen urteak[22]. Izan ere bere ama herri horretako Juaristi baserrian jaioa bait zen. Dena den, Luis Mazzantini gero Errosario kalea izango zeneko 15 zenbakidun etxean jaio zen[70].

Elgoibarretik gertu, Azpeitian, 1.856.eko saninaziotako nobilladak Grazian Zelaia jaunak antolatu zituen Udalaren baimenaz. Uztailaren 31n Lasturreko lau zezenko txuliatu eta banderilaztatu ziren, eta biharamunean beste ganadutegi bateko lau zezenko. Toreatzaileak inguruko herrietakoak izan ziren. Sarrerak bina errealetan saldu zituzten[21].

Donostian 1.856. urtean, San Martineko plazan izan ziren korridak abuztuaren 15, 16 eta 17an. Lehenengoan Perez Labordaren hiru zezen eta Poyales–en beste hiru korritu zituzten. Abuztuaren 16an goizean Poyales–en bat eta Perez Labordaren bi. Arratsaldean Colmenar Viejo–ko Rosalen–en hiru zezen eta herri bereko Paredes–en beste hiru. Abuztuaren 17an goizean, aurreko egunean bezalaxe hiru nafar–zezen eta arratsaldean beste lau (bi Perez Labordarenak eta bi Poyales–enak).

Zezenak toreatzera Julian Casas *Salamanquino* eta Antonio Sanchez *el Tato* ezpatariak etorri ziren, beren koadrilan Fuentes, Mariano Cortes, Gonzalez eta Pinto pikatzaileak eta Muñiz, *el Cuco*, Mateo, Mariano Antón, Rodriguez eta Mota banderilariak zituztela.

Lehenengo korridako zezenak, txikiak baina biziak izan ziren. Lau urte doi–doi izango zituzten. Koadrilak lana nahikoa ondo egin zuen, baina ezpatariek gaizki.

Abuztuaren 16an, goizeko *proba* ona izan zen, nahiz eta ikustera jende gutxi joan.

Arratsaldean zezenen portaera txarra izan zen. Hiruri suzko banderilak ipini zizkieten.

Abuztuaren 17an, goizeko *proba* on samarra izan zen, baina arratsaldeko korrida ez. Plaza bete zuen jendea ez bait zen gustora atera.

Hueskan abuztuan jokatu ziren Perez Labordaren zezenak. 22 zaldi hil zituzten. Manuel Perez *el Relojero* eta *Paquilillo* ezpatariek lana ondo egin zuten koadrilako gainerakoek bezalaxe.

Ganadutegi bereko zezenak toreatu zituen koadrila horrexek abuztuaren 15 eta 16an, baina korrida haiek ez ziren hain onak izan.

Bartzelonan, uztailaren 29an Perez Labordaren bi zezen plazaratu ziren. Julian Casas *Salamanquino* eta *Pepetek* hil zituzten.

Irailaren 7ko korridan, Perez Labordaren beste bi zezen toreatu eta hil zituzten. Jose Carmona *el Panadero* zen ezpataria.

Urriaren 9ko korridan Perez Labordaren zezen bat atera zuten plazara. *El Panadero* ezpatariak hil zuen hura ere. Urriaren 12an berriz, lehenbizi lau zezen plazaratu ziren, eta gero, plaza erdibituta beste sei. Severo Murillo, Perez Laborda, Karrikiri, Zalduendo eta Mazpule ganaduzaleek bidaliak ziren[3].

1.857. urtean, Donostian irailaren 20an emandako korridan, *Gitano* izeneko zezen bat nabarmendu zen. Colmenar Viejo–ko Manuel Garcia Puente ganaduzaleak bidali zuen Donostiara eta plazan 27 aldiz pikatu zuten zalditan. Urte hartako beste edozein zezenen markak hautsi zituen[22].

Azpeitian 1.857. urteko saninaziotarako, bertan bizi zen Basilio Fernandez jaunak proposamen bat egin zion Udalari. Hiru korrida emateko asmoa zuen. San Inazio egunez lau eta bost urte bitarteko lau nafar–zezen jokatuko ziren, eta bi ezpataz hil. Abuztuaren batean, bezperako bi zezen eta beste bi nafar-zezen *fresko*. Bi hilko ziren orduan ere. Eta azkenik, abuztuaren bian bezperako bi nafar–zezen eta bertako beste bi zezen. Zezen bat bolaztatu egingo zuten eta bi toreatzailek belauniko sartuko zizkioten banderilak. Fernandez jaunak baldintza ekonomiko batzuk jarri zituen, eta Udalak onartu egin zituen beste batzuk ipiniz; arratsaldero gazteentzat larrabehi bat korritzea adibidez.

Korridetarako sarreren prezioa erabakitzerakoan, Fernandez jaunak eskatutako igoerari baiezkoa ala ezezkoa emateko ezin ziren ados ipini udalgizonak. Alkateak probintziako gobernadorearengana jo zuen istilu hura konpondu nahian, baina laster zuzendu zituzten gauzak, balkoietako prezioari erdibideko igoera bat ezarriz[20].

Basilio Fernandez jaunak, Tuterako Perez Labordaren alargunari erosi zizkion sei zezenak. Uztailaren 26an abiatu ziren handik unaiak beren ganaduekin eta handik aste–pare batera ekarri zituzten joaldunak ostera etxera[3].

Baina hilabete lehenago, 1.857. urteko ekainaren 29an, Tuteran arazo berezi bat izan zuten. Berrotzako San Gregorioren burua heldu zen Tuterara. Santuaren erlikia hura, zilar, mitra dotore eta ehun ederraz egina zegoen.

Elizkizunaren ondoren, Plaza Berrian sokamuturrean zezenko begibakarra atera zuten.

Eskuineko begitik ikusten ez zuen abelgorri hura suharra suertatu omen zen.

Biharamunean, santuaren erlikiari prozesio baten bidez egin zioten agur. Han omen zeramaten kaleetan zehar Berrotzako San Gregorioren garezur preziatua herriko agintari eta guzti, eta zubia pasatzen ari zirela, *zezenkoa, zezenkoa dator* hots egin omen zuen norbaitek. Baita zezenkoa etorri ere. Hanka egin behar izan omen zuten denek. Erlikia ere lurrean gelditu omen zen, zeraman kaperauaren boneta eta *solideo*arekin batera.

Santanatako zezenplazako arduradun Perez Laborda eta Zalduendo ganaduzaleak zeuden. Uztailaren 26an Zalduendoren 7 zezen korritu nahi zituzten, eta biharamunean Perez Labordaren beste hainbeste zezen. Baina aurreko egunetan zezenak elkarri joka hasi omen ziren, eta plazarako moduan ez omen zen bat ere gelditu. Karrikiriren zazpi zezen ekarrita eman ahal izan zituzten korridak Tuteran. Karrikiri, lehen aldiz aurkeztu zen 1.857.ean hiri hartako plazan.

Zezenak toreatzera Julian Casas *Salamanquino* eta Domingo Mendibil durangarra etorri ziren beren koadrilarekin 24.000 errealean kontratua eginda. Zezenak pikatzen Mariano Cortes *el Naranjero* aritu zen beste batzuekin, eta banderilak sartzen Francisco Ortega *el Cuco* besteak beste.

Bi korridatan, 25 zaldi hil zituzten zezenek, eta jendea pozik gelditu zen. Baita bi ganaduzale enpresariak ere, irabaziak izan zituztelako[2]. Korrida haietako batean Julian Casas Karrikiriren zezen batengandik doi-doi libratu omen zen. Ezpataz hanka baten zuaria egin zuen gainera[26].

Tuterako toreatzaile berberak ibili ziren Irufiean 1.857.eko sanferminetan lanak egiten. Zezenak uztailaren 7, 8, 9 eta 10erako iragarriak zeuden. Arratsaldero sei zezen korrituko ziren, eta uztailaren 9an goizean beste hiru ere bai; 27 zezen guztira. Madrileko Mazpule-ren alargunarenak, Tuterako Perez Labordaren alargunarenak, Nazario Karrikiri jaun Txit Garaiarenak eta Korellako Miguel Poyales jaunarenak ziren zezenak.

Perez Labordaren unaiek, uztailaren 3an hartu zuten zazpi zezenekin Irufierako bidea. Urte hartan gainera, nafar-zezenik onenarentzat eta pikatzailerik onenarentzat sari bana iragarri zuen Udalak. Lehenengo saria, Perez Labordaren alargunari eman zioten: zilarrezko domina bat.

Zezen haiek toreatu eta hiltzera Julian Casas, Domingo Mendibil eta Francisco Martinez ezpatariak joan ziren. Pikatzaile gisa Mariano Cortes, Jose Muñoz, Joan Uzeta, Lorenzo Garcia eta Manuel Gonzalezek parte hartu zuten. Banderilak sartzen berriz, Mateo Lopez, Francisco Ortega *el Cuco*, Juan Rico, Juan Mota, Francisco Muñoz eta gipuzkoar bi.

Korellan, 1.857. urteko irailean korrida bat izan zen. Poyales-en hiru zezen eta Perez Labordaren beste hiru plazaratu zituzten. Tuteratik irailaren 4ean abiatu ziren Korellarantz Perez Labordaren zazpi zezen eta zezenkoak. Gonzalo Mora eta Pedro Parraga ezpatariek parte hartu zuten.

Hirugarren zezena, Perez Labordaren *Cohetero* izenekoa zen; gorria, suharra eta oso itsaskorra. Zazpi zaldi hil eta hamazazpi pikaldi jasan zituen. Bi ezpatariei lanak eman zizkien, baina azkenean Gonzalo Morak hil egin zuen[3].

Gasteizen, 1.857. urteko ekainaren 24ean, Karrikiriren zezen bat plazaratu zen lehenbizi, eta Antonio Verdes Rodriguez *Chilailas* banderilaria hil egin zuen[34].

Arabako Lagran herrian, 1.857. urtean beren zaindari-egunean (San Bartolome egunez)

abuztuan larrabehiak toreatu zituzten bertakoek herriko plaza itxita[71].

Perez Labordak Errioxako Haro–ra ere bidaliak zituen 1.857.eko ekainaren 20an zortzi larrabehi plazarako. Horietaz gain Kaskante eta Tarazona–ra Perez Labordaren beste zezenko batzuk ere joan ziren, eta Calatayud–era sei zezen eraman zituzten irailaren 3an abiatuta. Calatayud–en, bi korrida eman ziren; aipatutako Perez Labordaren sei zezenekin eta Ejeako Severo Murillo–ren beste seirekin.

Lehen korridan Labordaren lau eta Murilloren bi plazaratu zituzten, eta irailaren 10eko korridan, alderantziz.

Lehenengo korridan 20 zaldi hil ziren plazan, eta iragarrita bezala zezenak bost urtekoak izan balira, gehiago hilko omen zitezkeen. Domingo Mendibil durangarra eta Gregorio Calderon ezpatariak (*Capita*ren ilobak) parte hartu zuten. *Pelon* eta Cayetano Ruiz pikatzaileak eta besteak beste Torres banderilariak ere bai. Mendibilek zezen bat sari gisa irabazi zuen, baina hortik aurrera ez zuten gauza handirik egin[3].

Bartzelonan, Poyales–en[32] eta Karrikiriren[10] zezenak jokatu omen ziren 1.857. urtean.

Baionan, urtero bezala, udan antolatu zituzten korridak; enperadoreak Miarritzen zeuden egunetan. 1.857. urte hartan, Iruñea eta Donostiako enpresariek (Pablo Rodriguez eta Antonio Garcia jaunek) antolatu zituzten korridak abuztuaren 23 eta 24erako. Julian Casas *el Salamanquino* eta Gonzalo Mora ezpatariak etorri ziren beren koadrilarekin. Zezenak, Tuterako Gendulain eta Korellako Poyales–i erosi zizkieten.

Lehen korridako hirugarren zezena toreatzen ari zirela, sekulako euri–jasari ekin zion. Jendea plataforma estali batean pilatu zen, eta kargaren eraginez erori eta zauritu egin ziren batzuk. Korrida bertan behera utzi zuten. Baita biharamunerako prestatua zegoena ere. Abuztuaren 30 eta 31n eman zituzten bi korrida haiek, plazako kalteak konponduta. Toreatzaileak ondo portatu omen ziren, eta zezenak ere bai; denek erakutsi bait zuten kasta eta suhartasuna[57].

1.857. urtean, Joseph Duffau toreatzaile landetarra (Armagnac–eko Bastida–n jaioa zen; Roquefort–etik gertu) Mendi Martzanako (Mont de Marsan) plazan aurkeztu zen toreatzera[26]. Landetako erara toreatzen zuen, kapa eta muletarik gabe, antzinako euskal toreatzaileek bezala zezen gainetik saltatuz eta oinetako arintasunaz jokatuz. Akitaniako toreatzailerik onenetakoa izan zen Joseph Duffau dudarik gabe.

1.857. urtean bestetik, Napoleon III.aren aginduz Landetan pinuak aldatzen hasi ziren, eta horren ondorioz bertan bizi zen zezen–arraza atzeraka hasi zen, bigarren mundu–gerran desagertu zen arte[72].

1.858. urtearen hasieran, Baionako zezenplaza bota egin zuten eta berria egiteari ekin zioten berehala. Abuzturako plaza berria bukatua zegoen eta abuztuaren 29an estreinatu zen. Gero irailaren 5 eta 6an ere zezenfestak egin ziren bertan. Zezenfesta haietara, ez zituzten ezpatari famatuak eraman. Pedro Fernandez *el Moreno* (agian Pedro Fernandez Perez *Valdemoro* izango zen); Manuel Egaña debarra eta *oratzaile indiarrak* aritu ziren lanean. Jendeari ordea, ez zitzaion festa–mota hura gustatu[57]. *Indiar* haiek dirudienez, portugaldarrak ziren[3]. .

Arestian aipatu dugunez, Antonio Carmona *Gordito* antzeko koadrila batean ibilia zen Euskal Herrian zehar eta hemen pilota, palanka–jokoa, etab. ikasiak zituen. *Gordito*k orduan,

1.858. urteko apirilaren 19an Sevillako plazan lehen aldiz banderilak zezenari iskintxo eginez sartu zituen[26]. Zezena zetorkion bitartean, bera geldik egoten zen oinak kapera batean sartuta edo girgiluz lotuta (*Martintxo*ren antzera). Zezena parera etorritakoan gorputzez iskintxo egiten zion zezenari. Alkian eserita ere sartzen zituen banderilak *Gorditok*[73]. Lantze honek, badu euskal zezenketaren akrobaziarekin antzik, eta *Gorditok* Euskal Herrira egindako ibilaldiak zerikusirik izango zuela pentsa daiteke. Sevillako jendeak *Gordito*ren lantze berri hura ez omen zuen ontzat eman; zezenplazan egiteko baino zirkuan egiteko egokiagoa zela biat zioten[18].

1.858. urtean, Azpeitian saninaziotan Basilio Fernandezek antolatu zituen korridak aurreko urtean bezalaxe. Uztailaren 31n, bi nafar–zezen hil zituzten eta Lasturreko beste bi toreatu eta banderilaztatu. Abuztuaren 1ean korrida berdina eman zen. Korrida bakoitzaren amaieran larrabehi bat plazaratu zuten bertako toreatzaileentzat[21].

Idazle batzuek diotenez, Pasaiako plazan 1.858. urteko abuztuaren 15ean *Almirante* izeneko nafar–zezen bat plazatik ihes eginda udaletxeko balkoian agertu zen[74]; laugarren oineko balkoira igo ere. Handik ateratzerik ez omen zegoen eta tiroz hil omen zuten[34].

Beste idazle batzuek ordea, *Almirante*ren gertakizun xelebre hura lau urte lehenago izan zela diote (1.854.eko uztailaren 26an, Santiago biharamunean)[22]. Herriko festak santiagotan egiten direnez gero, berez fidagarriagoa dirudi bigarren data honek. Beste arrazoi bat ere badago ordea *Almirante* 1.854. urteko Santa Ana egunez korritu zela esateko. Norbaitek bertsoak jarri bait zituen; agian Xenpelar berak Antonio Zabala–k dioenez[75] (Xenpelar–ek 19 urte zituen orduan) eta bertso batean *Santiyagoz Pasaia'n zezena nagusi* aipatzen da. Bestetik, bertsoak irakurrita ez dirudi zezena udaletxean tiroz hil zutenik, eta gure ustez ezta Xenpelar-enak direnik ere.

11.8. irudia. Zezenak Pasaian XIX. mendearen erdi aldera.

Hona hemen *Almirante*ri norbaitek jarri zizkion bertsoak:

1) *Bertso berri batzubek,*
konsola gaitezen,
oraiñ jarri ditugu
oker edo zuzen;
pasatako kontuba
errez da aztutzen,
paperian ez bada
ongi apuntatzen.

2) *Pasaia'ko jendia*
ez da biarrian,
funtziyo onak eginez
dago indarrian;
ekusi degunian
festak nola dian,
orra bertso berriyak
zortziko zarrian.

3) *Ez degu bada esan nai*
pasatu ez danik,
sekulan ez det ikusi
orlako zezenik:
konzejubaren onduan
balkoian jarririk,
aiuntamentukua
zala uste nuben nik.

4) *Nai dubena egiten*
obe zaio utzi,
iñork ere nai badu
erri (y) ontan bizi;
elkar botiaz dijua
jendia igesi,
Santiyagoz Pasaia'n
zezena nagusi.

5) *Eskelleretan aisa*
jasotzen du anka,
dirurik izan ez da ere
zezenak arrunka;
jendia eziñ eskapatuz
itzulirik kaka,
iñori barkatzeko
mutur ona dauka.

6) *Salberarik egin bage*
salara isillik,
bat beintzat lagatzian
jarri zan zintzilik,
geldi al bazitekian

sikiera bizirik,
orla saiatu ezkero
zerbait merezirik.

7) *Bestia an zeguan*
oiaren azpiyan,
eztul asko egin bage
nere iritziyan;
orlako konturikan
juan dan aspaldiyan
ez dala pasa nago
gure probintziyan.

8) *Orlako konturikan*
ez da iñon pasatzen,
laugarren bizitzara
zezena igo zen;
zergatikan beñere
ez dan konfesatzen,
arrapatzen dubenari
ez diyo barkatzen.

9) *Esplikatu bear det*
ekusi dedana,
isillik eziñ egon,
au da gure lana;
Pasaia'rako beti
bada zer esana:
irugarren balkoyian
daukate zezena.

10) *Etxi artan ziranak*
arriturik daude,
bastante sustatubak
dudarikan gabe;
konfianzarik iñon
etzuten batere,
eziñ fiyaturikan
tellatuban ere.

11) *Batek oju egin zuben*
denak sangratzeko,
bazala motibua
sustotik iltzeko;
zezena etzeguan
berriz barkatzeko,
lanzeta zorroztubak
tripatik sartzeko.

12) *Aiuntamentubari*

eman diye parte,
balkoyian jarrita
daguela Almirante;
sententziya bereala
atera diyote:
jetxi dedilla andik
inmediatamente.

13) Aterikan geiago
ez dute irikiko,
eskarmentatu dira
orainguan pijo;
maindiria ostuta
juan da nerekiko,
jakiña zan utsikan
etzala etorriko.

14) Balkoyian ziranak
ez dira errez gorde,
franko arrapatu ditu
aberats ta pobre;
maindiria ostuta
juan da gero ere,
asaltuan sartuta
sakiua libre.

Urte batzuk geroago antzeko zerbait gertatu zen Itziarreko zezenko batekin Pasaiako plaza hartantxe, eta Xenpelarrek bere bertso famatuak jarri zituen han gertatua ikusita.

Pasaia Donibaneko zezenen historioa Xenpelarren ilobarekin bizi zen Florentina Perez Salaberriak egoki kontatzen du:

Pasaia San Juan'go plazak aieka batetik itxasoa du, bañan bestetik etxeak. Ta mendi-aiekatik dute sarrera ango etxerik geienak.

Santiago-egun batez, zezenak iges egin zuen barrera-tartetatikan, eta mendi aldera jo zuan.

Jendea, ura libre ikusi zuanean, etxe-barrenetara sartu zan; baita zezena ere atzetikan. Orduan danak, nun izkutaturik etzutela-ta, oi-azpietan ta al zuten tokietan sartu ziran. Tellatura igoak ere izan bear zuten.

Bañan zezenak usaia-edo aditzen zuan, da sobrekama ta maindireai tira ta tira asi zan. Traba billatzen zuan ta orduan ta larriago zezena.

Gero, ixpillu baten aurrera joanda, ura txikitu bearrean asi zan adarrakin kolpeka, an beste zezen bat zualakoan.

Urrena, balkoira atera omen zan, bere maindire ta sobrekamarekin, ta jende dana kaletik karraxika.

Andik beera nozibait ere jetxi ta jendeari segika asi zan. Batzuk beren burua putzura bota zuten, ta bai zezenak ere berea atzetikan.

Andik atera egingo zuten nola edo ala arakiñak edo norbaitek, bañan eztakit ori.

Gu ere, neska koxkorretan, Pasai'ra joaten giñan Santiagotan ango zezenak ikustera, ta Joxepa Antonik, Xenpelarren illobak, onela esaten zigun:

—Gaur ere San Juan'a al zoazte? Joan, joan! Len ere an festa pollita pasia da ta zoazte! Or ibilli bearko dezute itxasora zeuen burua bota ta larri! Joan bestela mendira; ikusiko dezute zer daukazuten atzetik: zezena!

Pasai'ko gertaera ori bein baño geiagotan kontatu zigun.

Agian kontaera honetan *Almiranteren* eta urte batzuk geroagoko (1.869. urtea baino lehen inola ere) Andutz menditik Pasaiara eramandako zezenaren gertaerak nahasten dira.

Xenpelarrek berak Andutz menditik ekarritako zezenari ipinitako bertsoak berriz, hauek dira:

1) Pasaia'ko plazatik
dator notiziya:
zezen bat atera da
jeniyoz biziya;
kantatutzera nua
bistan ikusiya,
konsolatzeko triste
daguen guziya.

2) Santiago–eguna
Pasaia'n siñale,
allegatu eztanak
egin beza galde;
asiyeran jendia
zezenaren alde,
azkenian etziran
arrimatu–zale.

3) Lendabizi plazari
eman diyo jira,
ate baten ondora
joan da ensegida;
al duenak igesi,
bestiak erida,
obia dalakuan
engañatu dira.

4) Torilletik atera
zuten lendabizi,
bei zar bat gidariya
bandera ta guzi;
arrapatzen zuena
purrakatzen asi,
azkenian plazatik
kanpora igesi.

5) Gure Pasaia beti
sonatua dago,
errepiñ gabe ezta
urte bat igaro;

urrenguan jarriko
dituztela nago
barrerak estu edo
zezena aundiyago.

6) *Torillo–bazterreko*
barrera tartian
zezena pasatu da
kolera batian;
plazatikan kanpuan
zeudenak pakian,
erdiyak purrakatu
ditu anka–pian.

7) *Batek txapela falta,*
bestiak txaketa,
lurrian zilipurdi
negar eta buelta;
biria libratzeko
non zeguen beta?
zezena sartu zaie
kala baioneta.

8) *Iru komerziante*
plazatik kanpuan,
fosforo ta barkillo
labaña tratuan;
pareta egon arren
amar oñ altuan,
panparroi juanak dira
putzura saltuan.

9) *Oriek orrela ta*
geiago ere bai,
lurrian zilipurdi
egin dute lasai;
ezkon–berriyak eta
zenbat dama–galai,
zezenaren mendean
etzuten jarri nai.

10) *Zezenak laja ditu*
lau lagun elbarri,
gañerako erdia
jendiak elkarri;
batzuek anka–pian,
al zuenak korri,
urrenguan obe da
segurutik jarri.

11) Deskuidokua zuten
aurtengo okerra,
etzaie suertatu
ganadu alferra;
orra Pasaia'rentzat
onra bat ederra:
zezenak jokatu du
puñalean gerra.

12) Bi adar badaukazki
bere konturako,
puñal oberik ezta
orren bururako;
jolas–bidia jarri
digu kanturako,
gañera jendiaren
eskarmenturako.

13) Plazatik atera ta
gaztelura arte
bide zakarra dago
bastante aparte;
begiyak erne zeuzkan,
belarriyak tente,
esan nuen ote zan
lengo Almirante.

14) Saiatu naiagatik
ori umiltzera,
igual sartuko zan
legoia iltzera;
egiyak esan gabe
ez nua ixiltzera:
arrokara joan zaie
lanpernak biltzera.

15) Arrokatik putzura
sartu da igeri,
burua besterikan
etzuen ageri;
bakerua begira
bere zezenari,
eserita jan ditu
libra ta erdi ogi.

16) Beiarekin kalera,
ark zeukan damua,
Lartur'koa zezena,
fiña ta sanua;
geiegi esan gabe

ixiltzera nua,
graziak, Pasaia'ko
jende umanua!

Bertso hauek zenbait aldaketatxorekin bertso–paper askotan barreiatuak izan dira Euskal Herrian zehar. Tolosako Jesus Elosegi–ren bertso–bilduman ordea, beste bertso hau ere badator:

Zezen ori pasa da
Ulia mendira,
arraldian barrena
egiña du jira;
ezin erretiratu
bear zan tokira,
azkenian tiroka
ibilliak dira.

Dirudienez zezena Ulia mendira pasa zen eta han tiroka ibiliak ziren[75].

Bertso hauen oso antzekoak (aldaketa gutxi batzuk dituztenak), Luis Jauregi *Jautarkol* apaizak ere argitaratu zituen[76].

Xenpelarrek bertsoak jarritako zezen hura, berez Andutz mendian hazia zen Itziarren. Jabeak, Ermu baserriko bi anaia ziren; zapatariak eta mutilzaharrak biak. Ermu baserria, Arroa Errekan dago; 1.852. urtean Zestoa eta Debaren artean ezarritako herri–mugan (Ermuga → Ermu). Zestoako partean hain zuzen, nahiz eta aipatutako urte hori baino lehen Arroa osoa Iraetako ibairaino Debako parte izan.

Dena den Andutz mendiko Saletxe baserriaren parean ba omen zen txabola bat zezen eta larrabehientzat.

Anaietan zaharrena joan omen zen Pasaiara bere zezenarekin, eta hara heldu zenean hiru libra ogi eta litro t'erdi ardo eman omen zizkioten. Mutilzahar zapataria tableroan eserita haiek jaten ari zela ihes egin omen zuen zezenak, baina arroarra bere anaia bezalaxe oso lasaia izaki eta denak jan arte ez omen zen mugitu. Horregatik dio Xenpelarrek

... bakerua begira
bere zezenari,
exerita jan ditu
hiru libra ogi.[77]

1.858. urteko uztailaren 11, 12 eta 13an, Gernika hiribilduaren ondoko Lumo elizatean Perez Labordaren alargunaren hamabost zezen jokatu ziren Jaurerriko Batzar Orokorrak bertan ospatu zirelako. Kartelak zioenez, arratsaldero lau zezen toreatu eta hilko zituen Domingo Mendibil ezpatariak bere koadrilaren laguntzaz, eta bostgarren zezena bolaztaturik aterako zen bertako gazteek torea zezaten.

Domingo Mendibil durangarrak bere koadrilan Ramon Fernandez madrildarra eta Juan Antonio Mondejar cadiztarra ekarriko zituen pikatzaile gisa. Banderilariak berriz Jose Perez madrildarra, Gabriel Ortega durangarra, Jose Izagirre *Sosoarro* lasturtarra, Santiago Tubet *Txabiri*, Antonio Uranga *Montes* eta Joan Osinaga *Retxina* bizkaitarrak izango ziren.

Lehen eta bigarren egunean, zezen bati partxeak ipiniko zizkioten. Hirugarren korridako azken zezena txinparta elektrikoz hilko zuten.

PLAZA DE TOROS DE LUNO.

EN LA ANTEIGLESIA DE LUNO, CON PERMISO DEL SR. GOBERNADOR DE LA PROVINCIA Y BAJO SU PRESIDENCIA Y EN CELEBRIDAD DE LAS

JUNTAS GENERALES DE GUERNICA

(SI EL TIEMPO LO PERMITE)

se correrán en los dias 11, 12 y 13 del mes de Julio

QUINCE TOROS

de la acreditada ganadería de la SEÑORA VIUDA DE PEREZ de Labordo, de Tudela, en Navarra, con divisa blanca. —Cada tarde se lidiarán

CUATRO TOROS

que serán picados y banderillados por la famosa cuadrilla siguiente: ESPADA... ...DO MENDIVIL, de Durango. —PICADORES... ...vuno Manuzar, de Ondi. —BANDERILLEROS... ...tena, de Durango. —... ...vuno en Ulibarri, (Montes) José Gutierrez, (Cuchares) de Sevilla.

El primero y segundo dia usará PANTORRILLERA con dos toros, terminado los primeros de los tres dias, ...

...motivó con la CUADRILLA ELECTRICA, y siguiendo siguiendo ...

...dará banderillas de fuego.

Todos los dias después del cuarto toro, saldrá otro de la misma ganadería, ...

...en los alrededores que gustan bajar á la plaza.

Una buena banda de música ejecutará piezas ...

En la noche del dia 13 se quemarán

VISTOSOS FUEGOS ARTIFICIALES.

La empresa no responde de reemplazar á ningun diestro que se lastimare.

PRECIOS DE LAS LOCALIDADES.

Barrera general de tendido de sol.	8 rs.	Asiento de palco con antepalco.	8 rs.
Idem id. de tendido de sombra	7	Palcos principales con 6 asientos y antepalco	
Barrera y antepalco	6	Idem bajos con 6 asientos y antepalco	
Asientos de sala y antepalco	6		

El dia 13 por la mañana se jugará un magnífico

PARTIDO DE PELOTA A MANO

entre José Agudino (Labordeta) y Antonio Busseto, contra el Marinero de Motrico d'Ignacio Agundo, de Bermeo.

11.9. irudia. Gernika–Lumo–ko korridetarako kartela. 1.858. urtea.

Dena dela, Lumo–ko korrida haietarako Perez Labordaren unaiak (Manuel eta beste bi) uztailaren 2an abiatu ziren Tuteratik hamar zezenekin. Beste bost zezenak ez dakigu zeinenak izango ziren. Manuel unaia Tuterara itzuli zenean partxeak zezenei nola jarri zizkieten kontatu zuen, eta baita bati suzko banderilaren antzekoak buruan ipini zizkiotela ere. Bonbak bezalakoak omen ziren, eta zezena deseginda uzten omen zuten; pikatzaileak nahita zezena utz dezakeen baino okerrago[3].

Suzko banderilen antzeko haiek, txinparta elektrikoz hiltzeko elektrodoak izango zirela pentsatzen dugu.

Domingo Mendibil durangarrak ez dakigu lana nola egin zuen, baina Valentzian urte hartan gaizki egon omen zen[26].

Dena dela Jose Izagirre *Sosoarro* Lasturreko banderilariaren berri gehaigo badugu. Toreatzaile hau, Zozobarro baserrikoa zen eta ez Lasturrekoa; Itziar ondoan dagoen Mardari bailarakoa baizik. Zozobarro baserri hau, ez da nahastu behar Iparragirre famatua hil zeneko

Zozobarro baserriarekin; hura Ezkio–Itsaso eta Gabiriako mugan bait dago. Gu berriz, Deba parteko Zozobarro baserriaz ari gara.

Jose Manuel Arrizabalok bere aitonari entzun zionez, Zozobarro baserrian hiru anaia omen ziren; hirurak torero abilak. Espainiako plaza askotan lan egin zuten. Bati Zozobarro gaztea esaten zioten, besteari Zozobarro zaharra eta hirugarrenari Zozobarro erdikoa. Hirurak omen ziren torero onak, baina zaharra eta gaztea onenak. Handiak eta biziak omen ziren.

Gazteak denak harrituta uzten omen zituen, zezena beregana zetorrenean gainetik atzera airoso saltatuz. Ba omen zekien hanka bat lurrean eta bestea airean zuela zezena azpitik pasarazten.

Zozobarro gaztea, argala eta luzea omen zen; bi metro baino gehiago. Behin batez Ama Birjina abuztukoaren egunean Bilbon korrida ematen ari zela zezenak kapa puskatu omen zion, eta Bilbon orduan kapa berririk ez. Biharamunean San Roke egunez korrida bota behar eta Bilbotik gauean etxera iritsita, Donostiara joan zen goizean goiz kapa–bila.

Deban zezena bere orduan atera omen zuten, eta Zozobarro gaztea berandu heldu omen zen. Hartu omen zituen bi pare banderila eta plazaren erdira joan ere bai. Lerro bat egin zuen lurrean eta hanka biak hantxe zituela, bi pare banderila sartu zizkion zezenari.

Zozobarro baserritik Arroa aldera Olaungaina izeneko parajean, Zestoarako bidearen ondoan, hartiz bat omen zegoen adar motzekin. Handik pasatzen zirenean gainetik salto egiten omen zioten Zozobarroko toreroek.

Udan korridatan lan egiten omen zuten, eta neguan etxean egoten ziren. Han ere ordea, zezenak edukitzen omen zituzten eta haiekin entrenatzen ziren ikuiluan.

Neguan etxean goizean eta gauean artoa eta esnea jaten zuten. Bazkaltzen, baba beltza zezina eta artoarekin eta meriendakoan txokolatea (zartagina handia batean eginda) eta arta zopak[77].

Esana dugunez, zortzi urte lehenago (1.850.ean) hiru anaia hauek Donostian lan eginak ziren bertako korridatan Jose Ituarte debarrarekin batera.

Gure ustez, Zozobarro anaiak Jose Eizagirre (eta ez Izagirre) itziartarra eta Frantziska Amilibia arroarraren semeak ziren. Gutxienez bost seme–alaba izan zituzten: Joan (1.821–VIII–17an hila), Frantziska Antonia (1.822–I–18an jaioa), Frantzisko Antonio (1.825–VII–4ean jaioa), Pedro Xabier (1.827–II–19an jaioa), Jose Xabier (1.828–X–25ean: hau da Lumon lan egindakoa) eta Frantzisko Agustin (1.830–X–19an jaioa)[78].

Bilbon, 1.858. urtean bota egin zuten Abandon, tren–geltokiaren ondoan (La Concordia–n), zegoen zezenplaza eta laster zurezko beste bat eraiki zuten Zabalburu–ren etxearen atzean Agustin Goitiaren lurretan[13]. Azkarraga–k dioenez, plaza bi urte geroago bota zuten trenbideko geltokia han egitearren[79]. Urte hartako korridatan *Cucharesek* toreatu zuen Bilbon. Zezen bat zapataz muturrean jo omen zuen[26].

Tuteran 1.858. urtean, Perez Labordaren alargunak Udalari Ebro ibai ertzean *Ramaleta* izeneko belardi bat erosi zion bere ganadua han bazka zedin. Tuterako plazara bidali zituen urte hartan abelgorriak ganaduzale hark. Baita Santo Domingora (maiatzaren 6an), Irufiera (uztailaren 3an, sei zezen), Rodernora (uztailaren 4ean, lau zezen) eta Briones–era ere[3].

Tuteran santanatan, 1.858. urteko uztailaren 26an bi zezen eta zezenkoak korritu ziren. Uztailaren 27an berriz, goizean hiru zezen eta arratsaldean zazpi. Zalduendo eta Perez Labordak erdibana bidali zuten ganadua, plazako enpresari ere biak zirenez gero. Oso zezen onak suertatu zitzaizkien; 26 zaldi hil bait zituzten.

Manuel Diaz *Lavi* eta Gonzalo Mora ezpatariak etorri ziren beren koadrilarekin 17.000 errealetan.

Zezen bakoitza 1.800 erreal kostatu zen, eta zaldiak guztira 12.000. Enpresariek urte hartan, 8.728 errealeko irabaziak izan zituzten Tuterako plazan[2].

Iruñean 1.858. urtean sanferminetarako Mazpule-ren alargunaren eta Gabiriako markesaren zezenak ekarri nahi izan zituzten Madriletik. Ganadu hura hankaminak jota zegoen ordea, eta nafar-zezenak (Perez Laborda eta Zalduendorenak bai gutxienez) korritu ziren. Hogeitazazpi guztira lau egunetan. Lau egun hauetan, 68 zaldi hil zituzten zezenek[34].

Uztailaren 8an, badirudi Zalduendoren *Ligero* izeneko zezenari suhartasun handia erakusteagatik bizia barkatu ziotela. Zortzi zaldi hil omen zituen. Bezperan berriz, Zalduendoren *Chocolatero* izenekoari barkatu omen zioten bizia 22 pikalditan 10 zaldi hil ondoren[10]. Dena dela *Ligero* izenekoa gero zazpi urte zituela berriz Bartzelonako plazan jokatu zen. Noble eta suhar portatu zen, nahiz eta ahul samarra izan[80].

Nafarroan dena den, plazarako oso zezen onak hazi ziren 1.858. urtean. Florencio Sanz Baeza jaunak irailean egin zuen azterketa batean dioenez, korridatarako 250 zezen omen zeuden Nafarroan eta beren batezbesteko prezioa 1.500 erreal omen zen. Nafarroan eta Nafarroatik kanpo plazatan 150 zezen hil omen ziren[3].

1.859. urtean, Nafarroako Perez Labordaren ganadutegian aldaketa bat izan zen. Felipe Perez Laborda hamabost urte lehenago hil zenez gero, bere alargun zen Barbara Irurtia-k zeukan ganadutegia usufruktuan. 1.859. urteko abuztuan ordea usufruktuari uko egin zion bere seme-alaben mesedetan. Ekainaren 27an zeuzkan abelgorrien zerrenda egin zuten: plazarako moduan lau urteko 18 zezen (95na duro balio zuten), beste bi zezen, 17 zezenko, 37 ergi (bi urtekoak), 19 behi zahar, 59 behi, eta abar zeuden Barbara anderearen izenean.

Abuztuan, esan bezala, ganadutegia sei seme-alaben artean banatu zen; bost alaba eta seme bat (Bizente) bait ziren. Bizente semea jadanik ari zen ganadutegia maneiatzen, baina urte hartan bere arreben zatia erosi egin zuen bakoitzari 22.284 erreal ordainduta. Bizente Perez Laborda jauna, Nikolasa Ezkerra Tejadarekin ezkondua zegoen, eta bere arreba Ziriaka, Jose Ramon Zalduendo Lapedriza ganaduzale kaparrosoarrarekin.

Urte hartan Perez Labordaren zezenak honako herri hauetara abiatu ziren Tuteratik: Tolosara (sanjoanetarako pentsatzen dugu), Iruñera (sanferminetarako), Balmasedara (abuztuaren 5ean sanroketarako), Tarazonara (abuztuaren 25ean), Bianara (irailaren 5ean) eta Zaragozara (urriaren 7an, zortzi zezenekin)[3].

Tolosako sanjoanen ondoren Azpeitian saninaziotako nobilladak antolatzeko Basilio Fernandez-ek proposamena egin zion Udalari. Nafar-zezenak ekarriko zituen, baldintza batzuk betetzekotan. Ez ziren ordea konpondu eta azkenean uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean inguruko launa zezenko toreatu ziren. Sarrerak bina erreal balio zuen[21].

Donostian, urte hartako korridatan Francisco Arjona *Cucharesek* parte hartu zuen bere koadrilarekin. Berrogeitabat urte zituenez gero, bere sasoirik onena pasatua zen eta toreatzerakoan ez zen jadanik asko arriskatzen[26].

Balmasedan sanroketan Perez Labordaren lau behi plazaratu zituzten festetan, eta bat Joan Osinaga *Retxina* banderilari bilbotarrak hil zuen lehen ezpatakadaz. Beste hiru behiak, Benito Abasolo *Vinagre* balmasedarrak eta Santiago Tubet *Txabiri* bilbotarrak toreatu zituzten. Urte hartan Bilbon, Manuel Perez *el Relojero*rekin batera *Txabiri, Retxina, Vinagre* eta Alvarez banderilari bizkaitarrek lan egin zuten[3].

Baionan 1.859. urtean ez ziren korrida onak antolatu. Enperadoreak izan ere ez ziren Miarritzera etorri. Domingo Mendibil durangarra eta Victoriano Alcon *el Cabo* ezpatariek hil zituzten uztailaren 24 eta 31n Baionan korritutako nafar-zezenak. Lehen korridan Mendibil ondo egon zen eta euriagatik bostgarren zezenean emankizuna bertan behera utzi zuten. Bigarren korridara jende gutxiago joan zen, eta Mendibil-i laguntzearren abuztuaren 7an ematea pentsatua zegoen korrida ez zen jokatu[57].

Afrikako gerran ari zirenei laguntzeko, Mendibilek azaroaren 15ean korrida batean parte hartu zuen[26].

1.859. urteko Iruñeko sanferminak ere ezin dira aipatu gabe utzi. Uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean, Severo Murillo, Zalduendoren alarguna, Miguel Poyales, Karrikiri eta Perez Labordaren zezenak korritu zituzten. Francisco Arjona *Cuchares* eta Julian Casas *Salamanquino* ezpatariak etorri ziren beren koadrilarekin.

Uztailaren 8an, Perez Labordaren alargunaren sei zezen eta Zalduendoren bat plazaratzekoak ziren gobernadorea korridako lehendakari zela. *Cuchares* granate eta zilarrez jantzita aritu zen, Julian Casas-ek bere trajean kolore zuria eta urrea erakusten zituelarik.

Lehen zezenari suzko banderilak ipini zizkioten eta *Cucharesek* hil zuen. Hirugarren zezena, *Cucharesek* irabazi zuen ondo hil zuelako. Bostgarrena ere berak hil zuen. Bigarrena, laugarrena eta seigarrena berriz Julian Casas-ek. Laugarren zezena Zalduendorena zen; Perez Labordarena beste zezen baten adarkadaz aurrez hil egin bait zen.

Cuchares eta *Salamanquino*ren koadrilan, besteak beste Calderon eta Lorenzo pikatzaileak eta *el Cabito, Villaviciosa* eta bi gipuzkoar banderilari aritu ziren lanean.

1.859. urtean Iruñean irailaren 20tik 30erarte bigarren feria egiteko baimena lortu zuten. Horregatik korridak antolatu ziren Iruñean irailean. Gabiriako markesaren, Toribio Valdes Raso del Portillo-ren eta Bañuelos-en alargunaren zezenak ekarri zituzten Madril, Valladolid eta Colmenar Viejo-tik hurrenez hurren. Julian Casas *Salamanquino* eta Manuel Dominguez *Desperdicios* etorri ziren toreatzera[3].

Tuteran santanatako korridak amerikano batek antolatu zituen. Uztailaren 26an nobillada eta bi zezen korritu ziren. Biharamunean berriz, goizean *proba* eta arratsaldean korrida. Karrikirik eta Ejeako ganaduzale batek bidali zituzten zezenak. Gonzalo Mora eta Mendibilek hil zituzten[2].

Karrikirik eta Zalduendok, Valentziako ekaineko 20, 21 eta 22ko korridetarako zezenak bidaliak zituzten urte hartan. Valentziako plaza orduan estreinatu zen. *Cucharesek* hil zituen zezen haiek[52].

Zalduendoren beste zezen batek, *Portagüelo* izenekoak, Pedro Parraga ezpataria harrapatu zuen urriaren 12an Zamorako Toro herriko plazan. Hiru egun geroago hil egin zen Parraga toreatzailea zaurien ondorioz[34].

1.859. urteko urriaren 13an, goiz eta arratsaldez zezenak izan ziren Zaragozan. Goizean Zalduendoren bi zezen eta Perez Labordaren beste bi hil zituzten *Cuchares* eta *el Tato*k. Arratsaldean berriz, Zalduendoren lau zezen eta Perez Labordaren beste lau zezenkin lan egin zuten aipatutako bi ezpatariek.

1.859. urteko urriaren 16an, Zaragozan zortzi zezen toreatu eta hil zituzten arratsaldean. Perez Labordarenak bi zezen ziren, Karrikirirenak hiru, Zalduendorena bat eta Ejeako Coscolluela–renak bi. *Cuchares, Velo, Anton* eta Joaquin Gil–ek hil zituzten ezpataz.

Zaragozako korrida haietan zezenik onenak Karrikirik bidali zituenak izan omen ziren; nafar–kasta beste batekin nahasturik sortutako zezenak hain zuzen[3].

———— o ———— o ————

1.860. urtean, Tuterako zezenplaza Perez Laborda eta Zalduendo ganaduzaleek utzi egin behar izan zuten. Beren epea amaitua zen jadanik eta Teodoro Castellano jaunak beste batzuekin hartu zuen plaza, Ospitaleari urtero 10.000 erreal ordaintzekotan. Santanatan bi korrida antolatu zituzten: zortzi eta sei zezenekoak. Jose Rodriguez *Pepete* cordobarra eta Jose Antonio Suarez asturiarra etorri ziren toreatzera. Perez Labordak zazpi zezen bidali zituen, Zalduendok lau eta Ejeako Lopezek hiru. Bakoitza 120 duro kostatu zen.

1.860. urteko uda hartan, *Cuchares* Santander–etik Hueskara joatekoa zen zezenak hiltzera, eta bitartean Tuteran ere pozik lan egingo zukeela adierazi zuen. Tuteran berehala sortu zen abuztuaren 19an korrida antolatzeko elkartea. Sei zezen erosi zizkioten Karrikiriri, eta *Cuchares*ek gustora utzi zituen ikusle guztiak. Baita koadrilako Calderon pikatzaileak eta *Lillo* banderilariak ere[2].

Karrikiri ganaduzaleak, zezen bikainak bidali zituen 1.860. urtean plaza desberdinetara. Badirudi nafar–kastako zezenak beste batzuekin gurutzatuz azkenean asmatu egin zuela. Bartzelonara hiru zezen guztiz onak bidali zituen: *Sereno* (abuztuaren 19an korritua eta 25 pikaldi jasan zituena), *Martillo* (korrida berean 20 pikaldi jasandakoa) eta *Manta al hombro* (korrida hartantxe 24 bider ziztatua).

Zaragozara berriz, 1.860. urteko urriaren 14eko korridara *Llavero* izeneko zezena bidali zuen. Berrogeitamahiru aldiz pikatu zuten, eta azkenean bizia barkatu zioten bere suhartasuna nolabait saritu nahiz[10]. *Llavero* zezenaren burua geroztik Iruñean eduki dute. Oraindik orain, Olite kaleko automobil–lantegi batean zegoen[81].

Tafallan ere izan zen zezen berzirik 1.860. urtean. Bazen han *Arrula* izeneko joaldun bat. Bere irentzaile zen Arrula jauna larriki zauritu zuelako ipini zioten izen hori. Dena den 1.860. urteko festetan etxe batera sukalderaino sartu zen. Han tina bat puskatu zuen eta etxekoandrea ohepean babestu beharrean aurkitu zen[82].

Iruñean, 1.860. urtean Udalak irailaren 23 eta 25erako korridak iragarri zituen. San Ferminen heriotza ospatuko zuten. Baita Iruñetik Tuterarako trenbidearen zati baten inaugurazioa ere. Baina

gero korrida haiek ez ziren jokatu zerbaitegatik[3].

1.860. urteko saninaziotan, Pantaleon Elortza jauna arduratu zen Azpeitian nobilladen antolaketaz. Bertako lau zezen jokatu ziren bi egunetan (uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean) eta bukaeran larrabehi bat bertako jendearentzat[21].

11.10. irudia. Nafar-erako txuliaketa 1.860. urte inguruko korridan. Aragoar lantzea burutzear dago toreatzailea.

Ez dakigu 1.860. urtean Bilbon zer korrida edo zezenfesta ospatu ziren. Dena dela, gero toreatzaile famatu izango zen Luis Mazzantini elgoibartarra Bilbora joan zen bizitzera bere familiarekin. Han bere haurtzaroko zazpi urte igaroko zituen[83].

1.860. urtearen hasieran, Aguado Lozar nafarrak Baionako plazarako zuen kontratua hautsi eta plaza behera bota nahi izan zuen. Zezenzale batzuek orduan, elkartea osatu zuten korridak antolatzeko asmoz.

Irailaren 16 eta 23an izan ziren korridak. Zezenak Balterra eta Ejeatik ekarri zituzten. Ezpatariak berriz Manuel Perez *el Relojero* eta Francisco Martin izan ziren. Lehen korrida, oso ona izan zen; Baionan emandakoetan onenetakoa. Manuel Perez-ek izan ere, lana bikain egin zuen. Bigarren korrida berriz, laugarren zezenean bertan behera gelditu zen euria hasi zuelako[57]. Korrida haietan, Manuel Egaña debarra banderilari gisa aritu zen, eta bere lana oso ondo bete omen zuen[3]. Urte hartan gainera, Manuel Egaña *Ehulea* Mendi Martzana (Mont-de-Marsan), Akize (Dax) eta Saint-Sévère-ko plazetan lanean aritu zen[57]. Coudures-eko plazan berriz, Bernard Lalanne *Jean Chicoy*k besotan bere hiru urteko alaba zuela betizu puntazorrotz eta sokarik gabea toreatu zuen. Akize-n berriz, Lamothe izeneko toreatzailea (*ecarteura*) hil egin zen plazan[16].

1.860. urte hartan, Perez Labordak Bartzelonako Vich herrira sei behi bidali zituen ekainean, Balterrako sei eta Zalduendoren beste seirekin batera.

Zalduendoren alargunaren ganadutegia bere bi semeen artean banatu egin zen. Fausto Joakin Zalduendo zenak, Maria Eugenia la Pedrizarekin bi seme izan zituen: Fausto Segundo eta Jose Ramon. Fausto Segundo Maria Montoya Ortigosarekin ezkondua zegoen, eta Jose Ramon Ziriaka Perez Labordarekin (Bizente ganaduzale tuterarraren arrebarekin). 1.860. urtean, lau urtetik gorako 59 zezen, hiru urteko 49 zezenko, 148 behi, etab. zituzten.

Fausto Segundo alargundu egin zen eta Cecilia Montoya Ortigosarekin ezkondu zen berriro, eta hil zenean, bere partea bere eta Maria lehen emaztearen seme zen Jazinto Zalduendok jaso zuen. Gero baita osaba Jose Ramonen partea ere[3].

1.860. urtean, Donostiako korridatan Julian Casas *Salamanquino*k parte hartu omen zuen, eta zauriturik suertatu omen zen[26].



11.11. irudia. Donostia 1.860. urtean. Zezenplaza nabarmen ageri da San Martin auzoan.

Madrilen, 1.860.eko irailaren lehen igandean *Pepete, el Tato* eta Domingo Mendibil ezpatariek parte hartu zuten. Mendibil durangarra gaizki egon zen, eta txistuak entzun behar izan zituen[52].

1.860. urteko uztailaren 23an, Cadiz–eko Puerto de Santa Marian *Alaves* izeneko pikatzaile bat aritu zen lanean[10]. Izenordearen arabera, badirudi Calderon eta Trigo zaldun famatuekin batera egun hartan pikatzen lan egin zuena arabarra zela.

1.861. urtean, Iruñetik Tuterarainoko trenbidearen inaugurazioa ospatu nahi izan zuten Nafarroako hiruburuan. Maiatzaren 19 eta 20rako iragarri ziren korridak, eta kartelak zioenez, aurreko urtean irailean agindutako korridak ematerik ez zuten izan.

Dena den maiatzeko korridetarako Francisco Arjona *Cuchares* etorri zen toreatzera. Zezenak, Poyales, Gendulain eta Colmenar Viejo–ko Bañuelos–enak izan ziren.

Iruñean 1.861. urtean, zezenen entzierroan aldaketa bat egin zuten. San Nikolaseko portaletik zezenplazara zuzenean sartu zituzten zezenak. Korrikariak kexu ziren ordea, eta zezenak lehen bezala Larrotxapeako portaletik sar zitezen eskatu zuten. Hurrengo urtean bete omen zuten korrikarien nahia[3].

Iruñeko udalak 1.861. urtean, Miguel Poyales korellarrari utzi zion zezenplaza hiru urterako, eta sanferminetarako (uztailaren 7, 8, 9 eta 10erako), Francisco Arjona *Cuchares* eta Jose Carmona *el Panadero* ezpatariak kontratatu zituen. Bakoitzak bere koadrila ekarriko zuen. Jose Carmonak, bere anaia Antonio Carmona *Gordito* ere ekarriko zuen, banderilak aulkian eserita zegoela edo oinak uztai batean zituela sar zitzan[84].

Sanferminetarako zezenak, Ejeako Severo Murillo, Zalduendo, Perez Laborda eta Poyalesenak izan ziren[3].

Irailaren 25 eta 26an ere korridak antolatu zituzten. Zezenak Manuel Lizaso tuterarrarenak (dibisa zuri-berdez) eta Poyalesenak izan ziren. Toreatzera, Antonio Sanchez *el Tato* eta Jose Ponce ezpatariak ekarri zituzten. Koadrilan, Francisco Calderon, Jose Barrera Trigo, Antonio Pinto eta Francisco Roda pikatzaileek parte hartu zuten. Banderilariak, Matias Muñiz, Francisco Ortega *el Cuco*, Manuel Ortega *el Lillo* eta Mariano Anton ziren. Azken hau ordezko ezpatari ere bazen. Hauetaz gainera, Gabriel Caballero eta Manuel Egañak ere banderilak sartuko zituzten[57]. Manuel Egañak 1.861. urtean berekin Iruñera Mouisot Mamouse toreatzailea (Armagnac-eko Bastidan jaioa) ekarri omen zuen, eta txalo asko jo omen zioten[26].

Tuteran 1.861. urteko santanatan, inoiz baino korrida gehiago izan zuten. Uztailaren 26an Perez Labordaren zortzi zezen plazaratu ziren, uztailaren 27an Manuel Lizasoren beste zortzi, eta uztailaren 28an Lizasoren beste lau. Julian Casas *Salamanquino* eta Jose Antonio Suarez asturiarrak toreatu eta hil zituzten.

Irailaren 22an gainera, beste korrida bat antolatu zuten. Lizasoren lau zezen eta Pina-ko Ferrer-en beste lau toreatu eta hil zituzten Francisco Arjona *Cuchares* eta Joaquin Gil *el Huevaterok*. Lizasoren zezenek portaera txarra izan zuten plazan eta Ferrer-enak ona[2].

1.861. urtean, zezenen prezioa gora egiten hasi zen. Perez Labordak adibidez, bakoitza 2.394 errealetan saldu zuen (behiak berriz 37na durotan). Zalduendok berriz Baionara bakoitza 2.400 errealetan saldu zuen.

Dena dela Perez Labordari ganadu asko erosi zioten urte hartan leku desberdinetatik. Izan ere apirilaren 10az gero leku hauetara joan ziren Perez Labordaren unaiak: Angucianara (Haro ondora) apirilaren 20an zazpi behirekin, Akize eta Mendi Martzanara (Landetara) apirilaren 10ean sei zezen eta hamalau behirekin (Zalduendoren beste sei ere eraman zituzten), Iruñera uztailaren 2an sei zezenekin, Cervera-ra bi behirekin eta Baionara abuztuaren 22an.

1.861. urtean, Jose Ramon Zalduendo kaparrosoarrak 40.000 erreal ordainduta *Sotoqueda* izeneko belardia erosi zuen, eta han bere koinatu zen Bizente Perez Labordaren zezenak bazkatu ziren geroztik[3].

Urte hartantxe, ekaineko 29an zezenak izan zituzten Gasteizen, eta Jeronimo Martin banderilaria larriki zauriturik gertatu zen. Horren ondorioz toreatze-lanak utzi egin behar izan zituen.

Abuztuaren 4, 5 eta 6an Gasteizen Jose, Antonio eta Manuel Carmona anaiek lan egin zuten (Antonio *Gordito* famatua zen), Manuel Perez *el Relojero*rekin batera. Murillo, Bermejo eta Poyales–en zezenak toreatu zituzten[54].

Bilboko plazan, 1861. urteko irailaren 2an Veragua-ren *Brujito* zezena korritu zen; plaza hartan jokatutakoen artean onenetakoa[10]. Garai hartan bestetik, Benito Abasolo *Vinagre* zezenko–hiltzaile bizkaitarra (Balmasedan jaioa), Madrileko plazan aurkeztu zen. Ausardia trebetasuna baino handiagoa omen zuen[26].

1.861. urtean beste toreatzaile bizkaitar batek ere parte hartu zuen Madrileko korridetan. Izan ere irailaren 29an Domingo Mendibil Jose Carmonaren ordez ipini zuten Cayetano Sanz eta Manuel Carmona *el Panadero*rekin batera kartelean. Vicente Martinez–en zezenak hil zituen more eta urrez jantzita durangarrak.

Urriaren 12an, Cayetano Sanz–ek Madrilen hiru zezen toreatu zituen, eta gero plaza erdibituta Gonzalo Mora eta Domingo Mendibilek aldi berean lan egin zuten Juan Castrillon–en beste sei zezen toreatu eta hilez[65].

Aurrez ordea, Domingo Mendibil saninaziotan Azpeitian izana zen. Antonio Etxeberria enpresariak uztailaren 31 eta abuztuaren 1ean arratsaldean bina nafar–zezen eta bertako beste bina plazaratu zituen. Mendibilen egitekoa nafar–zezenak txuliatu, banderilaztatu eta hiltzea izan zen besteak beste[21].

1.861. urtean, Aguado Lozar enpresari nafarrak porrot eginda Baionako plaza utzi egin zuen. Udalak 1.000 liberaz indemnizatu zuen. Montfort–eko M. Pemartin jaunak hartu zuen plaza orduan. Hamar urterako hartu ere, urtero 2.000 libera ordaintzeko baldintzaz.

Abuztuaren 25 eta 26an, *Cuchares*ek nafar–zezenak toreatu eta hil zituen. Jendea ez zen pozik atera. Dirudienez pikatzaileen ezten–hagak muturrean lau zentimetroko punta hutsik zeukaten; kordelez babestu gabea. Horregatik ez zuten zezenek portaera ona izan. Punta babestua izan balute korridak hobeak izango omen zitezkeen, adituek ziotenez.

Cuchares kontratatzea 6.000 libera kostatu zitzaion Pemartin enpresariari, eta Nafarroatik zezenak ekartzea 3.600 libera.

Irailaren 8 eta 9an ere izan ziren korridak Baionan. Napoleon III.a enperadorea eta bere emaztea Miarritzen zeuden. Antonio Sanchez *el Tato* eta Mariano Anton ezpatariak egun batzuk lehenago heldu ziren Baionara eta enperadoreei bisita egin zieten. Enperatriza ez zen plazara bi korridatan joan, bere ahizpa zenaren urtebetetzea orduan bete zelako, baina enperadorea (Napoleon III.a) han egon zen lehendakaritzan.

Irailaren 8an Zalduendoren zezenekin korrida ederra ikusi zuten. Antonio Sanchez–i zezen bat eman zioten saritzat, eta berak zezenari belarri bat moztu, enperadoreari agur egin eta airera bota zuen. Mariano Anton ez zen ondo egon lehen zezenean, baina hurrengoetan bai. Antonio Calderon pikatzaileak eta Francisco Ortega *el Cuco* banderilariak ere txalo asko jaso zituzten.

Biharamuneko korridan, Perez Labordaren zezenak jokatu ziren. Korrida ona izan zen, baina bostgarren zezena hil ondoren euriagatik festa bukatutzat eman zuten.

1.861. urteko irailaren 22an eta 23an ere korridak izan ziren Baionan. Enperadoreak eta emazteak biek ikusi zituzten Antonio Sanchez *el Tato* eta bere koadrilaren lanak Nafarroako zezenak toreatzen. Korrida haiek amaitutakoan, enperadoreek opari ederrak eman zizkieten ezpatari, pikatzaile eta banderilariei[57].

1.861. urteko abuztuaren 16an, Donostian ere korrida eman omen zuten. Manuel Egaña debarra ordezko ezpatari omen zen eta lana benetan bikain egin omen zuen[26].

1.862. urtean, Iruñeko sanferminetarako Poyales enpresariak Carmona anaiak kontratatu zituen 27 zezen toreatu eta hiltzeko.

Jose, Manuel eta Antonio Carmona anaiak, ezpatari gisa lan egingo zuten eta koadrilan lau pikatzaile eta bost banderilari etorriko ziren. Guztira 56.000 erreal ordainduko zizkien Poyalesek urrezko edo zilarrezko txanponetan.

Pikatzaile-taldea, Jose Sevilla, Antonio Calderon, Onofre Alvarez eta Miguel Alaniz-ek osatuko zuten eta banderilariena, Mateo Lopez, Juan Rico, Jose Mora, Juan Yust eta Francisco Rodriguez *Caniquik*. Azken orduan Antonio Calderon eta Mateo Lopez-ek etortzerik ezin izan zutelako, Jose Ortega eta Francisco Muñoz-ek ordezkatu zituzten hurrenez hurren. Esan beharra dago bestetik, 1.862. urte hartantxe eman ziola Jose Carmonak alternatiba bere anaia Antonio *Gorditori*[84].

Sanfermin haietan, Carmona anaiek Perez Labordaren lau, Lizasoren lau, Poyales-en hamaika, Bermejoren lau eta Murilloren sei zezen toreatu eta hil zituzten[3].

1.862.eko irailaren 25 eta 26rako Poyales enpresariak beste bi korrida eman nahi izan zituen Juan Martin *la Santera* eta Manuel Perez tuterarrarekin. (Manuel Perez *el Relojero* hau, batzuek diotenez Tarazonan jaioa zen, baina beste batzuek tuterartzat jotzen dute. Zaragozan bizi zen eta erlojudenda bat zuen han). Zezenak Ejeako Ramon Lopez eta Poyales berarenak izango ziren.

Udalak ez zituen ontzat eman Lopezen ganadutegia eta ezpatariak. Poyalesek orduan, *el Tato* kontratatu zuen eta hark Iruñera etortzerik izan zezan, korridak irailaren 26 eta 27ra atzeratu egin ziren.

Badirudi Antonio Sanchez *el Tatok* jendea pozik utzi zuela, baina Poyales-ek korrida haietan milaka erreal batzuk galdu zituen[58].

1.862. urteko santanatarako Teodoro Castellano jaunak beste bazkide zaragozar batzuekin batera Tuterako plaza 10.000 erreal ordainduta hartu zuen. Uztailaren 26, 27 eta 28an korridak izan ziren, Tuterako Lizaso, Pina-ko Ferrer eta Karrikiriren zezenak hurrenez hurren jokatuz. Jose, Manuel eta Antonio Carmona anaia sevillarrak kontratatu zituzten lanerako.

Korrida haietan Karrikiriren zezen bakoitza 3.000 erreal kostatu zen, eta besteenak 2.400na erreal. Hogeitamazazpi zaldi hil ziren plazan eta enpresariek 30.000 errealetik gora galdu zituzten batezbeste[2].

Perez Labordak 1.862. urtean bere ganadua leku askotara saldu zuen. Bere zezen bakoitzaren prezioa 2.400 erreal zen orduan eta behi bakoitzarena 800 erreal. Dena den Iruñeko sanferminetara bost zezen bidali zituen, Mendi Martzanara bost behi eta Gongoraren beste bost uztailaren 31n,

Hueskara sei zezen abuztuaren 3an, Balmasedara sei bei eta urteko bat, eta Baionara sei zezen.

Hueskako plazan, abuztuaren 10ean korrida eman zen. Perez Labordaren zezenak jokatuz, Manuel Perez *el Relojero* eta Joaquin Gil *el Huevatero* zaragozarrak parte hartu zuten.

Korrida hartan Perez Labordaren *Caiman* izeneko zezen gorriak Juan Martin *el Pelon* pikatzailea hil egin zuen. Zezenak zaldi-zaldunak lurrera bota zituen eta *el Pelon* adarkaturik zintzilikatuta eduki zuen. Ezpatariek ezer egiterik ez zuten izan. Handik orduerdira hil zen Jerez de la Fronterako pikatzaile hura. Bere aita ere, semea bezalaxe pikatzaile izana, izen eta izenorde berekoa zen.

Korrida hartantxe, Perez Labordaren *Nevao* izeneko zezenak sei zaldi hil eta hogei pikaldi jasan zituen[3].

Tuteran 1.862. urteko irailaren 8rako korrida bat antolatu zen *el Pelon*en alargunari laguntzearren. Lizaso ganaduzaleak 7.200 errealetan lau zezen eman zituen eta Karrikirik 3.000 errealetan adakeran akatsa zuten bi. Manuel Perez *el Relojero* eta Joaquin Gil *el Huevatero* ezpatariek doan lan egiteko prest zeuden.

Dena dela korrida hartan 16 zaldi hil ziren, eta dirua ateratzeko antolatu zen emankizun hartan 5.000 erreal galdu zituzten[2].

Perez Laborda bere ganadua Akitaniako Landetara eramaten hasia zen jadanik, eta interesgarria da Tuteratik Mendi Martzanara beren ganadu eta guzti unaiek ibilaldia 1.862. urtean nola egin zuten jakitea. 326 kilometro ziren guztira, eta hamaika egun behar izan zituzten helmugara iristeko. Hona hemen egun bakoitzean noraino heldu ziren: Traibuenas, Artaxona, Iruñea, Belateko portua, Amaiur-eko portua, Ainhoa, Baiona, Akize, Pontonx, Tartas, Mendi Martzana.

Perez Labordaren sei zezen abiatuak ziren gero abuztuaren 30ean Baionara. Han, Saint-Esprit-eko plazan irailaren zazpirako korrida iragarria zegoen. Euritea medio ordea, bi egun geroago eman zen korrida enperadoreak han zirelarik. Antonio Sanchez *el Tato*k toreatu zuen, baina hondarra bustia zegoenez gero, asko luzitzerik ez zuen izan. Bere koadrilako *Cuco* banderilariari txaloak jo zizkioten. Irailaren 21ean, igandez, Saint-Esprit-eko zezenplaza hartan azken korrida eman zen. Jendea ez zen pozik atera.

Zalduendoren zezenak 1.862. urtean, Valentziara eta Bartzelonara joan ziren: Valentziara hamasei (bat akastuna) eta Bartzelonara hamalau (bost akastunak). Bartzelonara sei joaldun ere saldu zituzten bakoitzagatik mila erreal kobratuta. Valentziarako zezenek 2.400na erreal balio zuten eta Bartzelonarakoek 2.500na. Akastun zezenak, merkeago saldu zituzten; 1.800 eta 1.600 errealetan.

Zaragozan, 1.862. urteko urriaren 26an Ejeako Ramon Lopezen bi zezen eta Portugaleko Cruxi-ko Juan Piñeiro-ren sei plazaratu ziren. Manuel Perez *el Relojero* eta Joaquin Gil Peire *el Huevatero* ezpatariek parte hartu zuten orduan; biek ere azken aldiz. Izan ere Manuel Perezek bere ezpataz hanka bat zauritu egin zuen eta ondorioz erretiratu egin zen. *El Huevatero* berriz, Piñeiro-ren zezen bat hiltzera zihoala, adarkatua izan zen eta ipurtaldeko zauriaren ondorioz biharamunean hil egin zen[3].

Urte hartan Madrilen, apirilaren 20an, Antonio Mihura-ren *Jocinero* zezen zuriak hila zuen Jose Rodriguez *Pepete* toreatzailea ere[6].

1.862. urte hartan, beste albiste azpimarragarri batzuk ere izan ziren. Joakin Gaztanbide musikari tuterarraren *En las astas del toro* izeneko zartzuela estreinatu zen adibidez[65]. Abenduaren 21ean berriz, Tomas Mazzantini Egia jaio zen (Luis Mazzantini-ren anaia) Laudion[26]. Batzuek diotenez[22] Laudion ez eta Amurrion jaio zen. Dena dela, Laudio-ko *Tomas Mazzantini* zezenzaleen elkartekoek jakin erazi didatenez, bataio-agiriak Tomas Laudion jaio zela dio.

Urte hartan bertan, Arabako Biasterin Zezilio Isasi Verdet, gero *el Alaves* izenordez ezaguna izango zen zezenko-hiltzailea jaio zen.

Domingo Mendibil durangarrak Puerto de Santa Maria-ko plazan lan egin zuen 1.862. urteko uztailaren 25 eta 27an Julian Casas *Salamanquino*rekin batera[26].

1.863. urteko sanferminetan, enpresariak ondoko ganaduzale hauei erosi zizkien zezenak: Poyales berari (ganaduzale ere bazelako) hamabi uztailaren 7 eta 8rako, Karrikiri-ri bederatzi uztailaren 9ko proba eta korridarako eta Ejeako Severo Murillori sei uztailaren 10erako. Karrikiriren zezen bakoitza 2.900 erreal kostatu zen, eta gainerakoen bakoitza 2.600 erreal.

Zezenak toreatzera Antonio Sanchez *el Tato* eta Angel Lopez *el Regatero* etorriko zirela zioen kartelak. Gero ordainagiri batean *Tato* eta *Cucharesi* 72.900 erreal eman zizkiotela dio. Azken orduan Angel Lopez *el Regatero*ren ordez zerbaitegatik *Cuchares* etorri zen. *Cuchares* eta bere suhi zen *el Tato*k lan egin zuten beraz, beren koadrilarekin, sanfermin haietan[58].

Tuteran santanatarako emankizunak Teodoro Castellano jaunak antolatu zituen 1.863. urtean. Uztailaren 26an Zalduendoren sei zezen jokatu ziren. Uztailaren 27an berriz, Lizasoren hiru probarako goizean eta arratsaldean Lizasoren bi eta Zalduendoren lau. Zezen bakoitzagatik 2.000 erreal ordaindu zituen.

Zezenak toreatzera, Cayetano Sanz, Gonzalo Mora eta Pablo Erraiz ezpatariak etorri ziren.

Teodoro Castellano zaragozarrak, Ospitaleari ordaindu behar ziona zorretan utzita hanka egin zuen Tuteratik[2].

Tuteratik 1.863. urtean Perez Labordaren zezenak Hueskara eta Lekeitiora joan ziren. Hueskarako bidea abuztuaren 6an hartu zuten unaiek sei zezenekin. Bakoitza 2.700 erreal kostatu zen eta Gonzalo Mora eta Vicente Garcia ezpatariek hil zituzten abuztuaren 10ean.

Lekeitiora berriz, uztailaren 30ean abiatu ziren sei zezenekin Tuteratik Perez Labordaren unaiak. Zezen bakoitzaren prezioa 2.400 erreal zen. Unaiek hamazortzi egunetan egin zuten atzera-aurrera.

Lekeition nobilladak abuztuaren 9 eta 10ean izan ziren. Mendibil durangarra zen han toreatzen. Arratsalde bakoitzean hiru nafar-zezen hil zituen eta ondoren Lasturreko beste bi zezenko ere atera zituzten[3].

Bilboko korridetan, Francisco Arjona *Cuchares*ek hartu zuen parte 1.863.ean. Eskuineko eskua zauritu zion zezen batek gainera[26]. *Cuchares* 1.863. urterarte ganaduzale ere izan zen. Besteak beste, Lesakaren zezenak erabili zituen[51]. Agian urte hartan (ala hurrengoan) Manuel Dominguez *Desperdicios* ere izango zen Bilbon toreatzen. Garai hartan lortu bait zuen arrakasta Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako hiriburuetan[6]. Gipuzkoako hiriburuan ez dakigu 1.863. urtean

San Martineko plazan zer korrida izan ziren. Dena dela maiatzaren 4az gero harresiak botatzen bazuten nahikoa lana.

Azpeitian badakigu 1.863.eko saninaziotan hiru nobillada ospatu zirela; uztailaren 31n, uztailaren 1ean eta 2an. Egunero Lasturreko lau zezenko toreatu zituen Manuel Egaña *Ehulea* (*Eulia* esaten zioten) debarrak. Bukaeran larrabehi bat atera zuten plazara bertako gazteek torea zezaten[21].

Arrasaten, 1.863. urteko urriaren 15ean, Bernardino Melgar jauna jaio zen; gero San Juan de Piedras Albas–eko markes eta Avilan tauromaki museoaren jabe izango zen aristokrata hain zuzen[65].

1.863. urtean, beste bi gauza aipagarri ere gertatu ziren: urriaren 5ean Logronioko zezenplazaren inaugurazioa batetik (*Cuchares* eta Cayetano Sanz–ek Veragua-ren zezenekin)[10] eta zezenen garraiorako zurezko kaiolen agerpena[85]. Madrileko zezenplazako Pascual Mirete giltzazainari bururatu zitzaion zezenak trenez garraiatzeko sistema hura[3]. Sistema berri hark aldekoak eta kontrakoak izan zituen, baina poliki–poliki oinezko garraioa baztertzen joan zen. Gaur egun zezenen oinezko garraioa debekaturik dago, entzierrotan edo ez bada.

1.864. urtean, Iruñeko sanferminetarako Zalduendo, Poyales, eta Karrikiriren zezenak eskatu zituen enpresak. Plazako Andres Agustino albaitari jaunak ordea, Zalduendoren ganaduak baldintza minimotara ez zirela iristen zioen. Karrikiri–ri beste hiru eskatu zizkioten orduan, baina hark zezen gehiago ez zuenez gero, Perez Labordaren sei ekarri zituzten: *Moncayo, Alegre, Granado, Rondador, Jardinero* eta *Jaque* izenekoak, horiska edo gaztain–kolorekoak denak[3]. Ez dakigu sanfermin haietan Iruñeko zezenplazan zein toreatzailek parte hartu zuten.

1.864. urtean dena dela, Tuteratik Perez Labordak bere ganadua leku desberdinetara saldu zuen. Apirilaren 13an adibidez unaiak sei behi eta bigantxa batekin abiatu ziren Mendi Martzanatik 25 kilometrora dagoen Saint Justin herrira. Uztailean, Iruñera ezezik Azpeitira ere abiatu ziren hilaren 24ean saninaziotarako. Abuztuan berriz, Hueskara zortzi zezen eraman zituzten. Han korridak hilaren 10ean eta 11n izan ziren. Egun bakoitzean zortzi zezen toreatu eta hiltzeko ardura Antonio Sanchez *el Tato* eta Angel Lopez *el Regaterok* izan zuten. Perez Labordaren zezenez gain, Karrikiririenak eraman zituzten. Zezen guztiak bost urtekoak ziren. Korrida haietarako argitaratu zen kartelak, trena inauguratu berria zela zioen, eta horretaz gain, ezpatari, koadrila, zezen bakoitzaren xehetasun, eserlekuen prezio eta abarren berri ematen zuen[3].

Tuteran 1.864. urteko santanatan, uztailaren 26an zortzi zezen korritu zituzten plazan: lau Lizasorenak (erdipurdikoak) eta lau Karrikiririenak (zerbait hobeak). Antonio Suarez eta Antonio Luke ezpatariek lan egin zuten haiekin.

Uztailaren 27rako zezenfesta irrigarria antolatu zen. Karrikiriren zortzi zezenko adarmotz bolaztatu zituzten. Haiek toreatzen berriz, indiarrez mozorrotutakoak, portugaldarrak, zaldun bat eta txingotez mozorrotutako amazona bat aritu ziren. Burtziketa, partxe–ipintzea eta zirkuan ikusteko modukoak ziren gauzak egin zituzten[2].

Dena dela Karrikirik urte hartan akastun zezenkoak bakarrik ez zituen. Madrileko plazan izan ere, 1.864. urteko uztailaren 10ean aurkeztu bait zen. Dibisa berde–gorriz, zezen andalusiarrekin nahastutako nafar–kasta zuten Karrikiriren zezenak plazaratu bait zituzten[6].



11.12. irudia. Donostia 1.864. urtean. Hiria harresirik gabe dago eta San Martineko plaza hortxe dago Kontxa eta Urumea ibaiaren artean.



11.13. irudia. Gasteiz 1.864. urtean. Zezenplaza biribila nabarmen ageri da Plaza Berriaren ondoan.

Nafar–kastako zezenak zituen beste ganaduzale bat, Ejeako Severo Murillo jauna zen, baina 1.864. urtean, Gregorio Ripamillan jaunari saldu egin zion bere ganadutegia[51].

Gasteizen, 1.864. urteko abuztuaren 15ean Raimundo Diaz Bermejo ganaduzale azkoiendarraren zezen batek, Manuel Garcia Garcia pikatzailea hil egin zuen. Zezena *Manchego* izenekoa zen; handia, eta adarluzea[34]. Gasteizeko zezenplazara bi korridatan Martinez-en zezenak eta beste batean Raimundo Diaz-enak hiltzera Domingo Mendibil eta Antonio Carmona *Gordito* ezpatariak etorriak ziren beren koadrila eta guzti.

Manchego izeneko zezenak, 12 zenbakia markatua omen zuen kolore gorriko larruan. 15 aldiz pikatu omen zuten. Zazpi zaldi hil eta beste bederatzitan lurrera bota omen zituen. Haietako batean gainera, *Gordito*ren koadrilako Manuel Garcia pikatzailea zauritu egin zuen. Handik hamar egunera hil zen gizajoa Gasteizeko Ospitalean[54].

Korrida haietara Francisco de Asis erregea joan omen zen. *Gordito*k banderila-pare bat bere oinen artean lurrean etzanda Mendibil zuela eta iskintxo eginez sartu omen zizkion zezenari[59].

Azpeitian 1.864. urteko saninazioak aurreko urtekoen antzekoak izan ziren. Akitaniako Tartas herrian berriz, Manciet toreatzailea plazako istripuz hil egin zen[16].

———— o ———— o ————

Azpeitian, 1.865. urteko saninaziotarako Antonio Etxeberriak proposamena egin zuen. Manuel Egaña debarrak bi nafar-zezen eta bertako bi toreatuko zituen arratsaldero, edo bestela, bertako lau zezenko arratsaldero; bi *garbiak* eta bi bolaztatuak.

Geroxeago ordea, Joan Antonio Arregi, Antonio Etxeberria, Grazian Zelaia eta Nikolas Uzin-ek elkar hartuta, beste proposamen batekin aurkeztu ziren udaletxera. Arratsaldero bertako lau zezenko eta gazteentzat larrabehi bat plazaratuko zituzten, sarrera bina erreal kobratuta. Arratsaldero bi nafar-zezen eta bi bertako korritzeko ere prest zeuden sarrera launa erreal kobratuta, Udalak hala nahiago bazuen[21].

1.865. urtean Gasteizeko korrida batean, badirudi Carlos Albarran *el Buñolero* zegoela torilari. Julian Mujika jostun gasteiztarrari dibisa bat bota omen zion toril gainera eta eskuan min hartu omen zuen garranga sartuta[54].

Bilbon, 1.865. urtean Elkano eta Fernandez del Campo kaleen artean zurezko zezenplaza berria eraiki zuten. Behin-behineko plaza zen hura, eta azkar eraiki zenez gero, urte hartan bertan estreinatu zuten. Lau korridatan parte hartzera Cayetano Sanz eta Antonio Carmona *Gordito* etorri ziren. Zezenak, Bañuelos, Mihura, Martinez eta Lesaka ganaduzaleek bidali zituzten[17].

Luis Uruñuela idazleak dioenez, plaza honetan Moral ganaduzalearen zezen famatu bat korritu omen zen. Hamazazpi zaldi hil eta barrera artean zegoen ikusle bat harrapatu omen zuen[13].

Iruñean 1.865. urteko sanferminetarako, kartel iragarlean xehetasun guztiak eman zituzten. Uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean izango ziren korridak. Uztailaren 10ean bederatzi zezen jokatuko ziren (hiru goizean eta sei arratsaldean) eta gainerako egunetan sei. Honako ganaduzale hauen zezenak toreatu eta hilko ziren: Bizente Perez Laborda (dibisa zuriz), Miguel Poyales (dibisa berdez), Ejeako Candido Lopez (dibisa urdinez) eta Nazario Karrikirirenak (dibisa gorri-berdez). Azken honek bederatzi zezen bidali zituen eta gainerakoek seina.

Zezenak hiltzera Francisco Arjona *Cuchares* eta Jose Antonio Suarez ezpatariak etorriko ziren. Pikatzaile gisa berriz, Manuel Lerma *el Coriano*, Ceferino Lozano, Francisco Oliver,

Ramon Fernandez eta Patricio Briones. Banderilariak, Pablo Erraiz (ordezko ezpatari ere bai), Juan Sanchez, Antonio Nunave, Benito Abasolo *Vinagre* (balmasedarra), Salvador Sanchez *Frascuelo* eta Francisco Arjona Reyes *Currito* (*Cuchares*en semea) izango ziren.

*Cuchares*ek bere semeari (*Currito*ri) utziko zion zezen bat edo beste hil zezan. Salvador Sanchez *Frascuelo*k berriz, zezen bati aulkian eserita iskintxo eginez banderila-parea sartuko zion.

Uztailaren 7ko korridan Perez Labordaren zezenak oso portaera ona izan zuten batezbeste. *Cuchares* eta Suarez ezpatariek lehen lau zezenak hil zituzten. Bostgarrena *Cuchares*en semeak hil zuen lehenengoan eta seigarrena *Frascuelo*k bigarrenean. Pablo Erraiz-ek hirugarren zezenari adar gainetik salto egin zion.

Uztailaren 8an, Karrikiriren sei zezen jokatu zituzten. Zezenak satai onekoak ziren, baina zalditan bigun jokatu zuten. Korrida honetan ere, bostgarren zezena *Currito*k eta seigarrena *Frascuelo*k hil zituzten.

Uztailaren 9an Candido Lopezen abelgorriak atera ziren plazara. Intentzioa ba omen zuten, baina oso argalak zirenez, indarrik ez. Jendea haserre atera zen plazatik.

Uztailaren 10ean goizeko proban Karrikiriren hiru zezen handi bezain bigun eta iheslari toreatu eta hil zituzten. Jendea berriz ere haserre zen. Iskanbilak izan ziren.

Arratsaldeko korridan Poyales-en sei zezenen txanda izan zen. Batezbeste nahikoa onak suertatu zitzaizkien ezpatariei. Bigarren zezenak barrerak saltatu zituen.

*Cuchares*ek lehen zezena bakarrik hil zuen. Bigarrena eta laugarrena Suarez oviedotarrak hil zituen. Hirugarrena *Frascuelo*k, bostgarrena *Cuchares*en semeak eta seigarrena Pablo Erraizek.

Ezpatari-lanetan hasiberriak ziren *Currito* eta *Frascuelo* oso ondo egon ziren. *Frascuelo* dena den, muletaz paseak ematerakoan gehiegi makurtzen omen zen[3].

Tuteran, 1.865. urteko santanatan bi nobillada bakarrik antolatu zituzten, plazaren jabeak (Ospitaleak) alokatzeko proposamenak onartu ez zituelako[2].

Nafar-zezenak dena den, leku askotara iritsi ziren 1.865. urtean. Madrilen esate baterako, Ejeako Severo Murillo-k martxoaren 29an korritu zituen bere abelgorriak dibisa gorriz. Irailaren 3an, beste horrenbeste egin zuen Funeseko Raimundo Diaz Bermejok. Dibisa hori-gorriz plazaratu ziren haren zezenak. Irailaren 24ean berriz, Poyales korellarraren txanda izan zen. Dibisa berdez atera zituzten haren zezenak, ohi bezala[6].

Madrilen, 1.865. urteko maiatzaren 23 eta 25ean zezenplazan *Pizarro* elefanteak bost zezenen kontra burruka egingo zuela iragarri zuten. Elefante hura aurrez Valladolid, Logronio, Zaragoza, Iruñea eta abarren jendeari erakutsi zioten. Manuel Bañuelos-en *Liebro*, Gala Ortiz-en *Bolero*, Andres Fontecilla-ren *Garabato*, Karrikiriren *Mainete* eta beste zezen bat bota zizkioten banan-banan. *Bolero* izeneko zezenak egin omen zuen borrokarik gehien Cossiok dioenez, elefantea tronpan zaurituz. Cossio idazle berberak ordea, burrukaldia martxoaren 25ean izan zela eta Karrikiriren *Maineteк* elefantea zenbait aldiz adarkatu zuela ere badio[10]. Iribarren idazle nafarrak berriz, zezenaren izena *Mainete* ez eta *Mainate* ez ote zen izango galdetzen du[34].

Karrikiriren zezenak, Mallorkako Palma–n ere ekainaren 24ean jokatu ziren. Francisco Arjona *Cuchares*, bere anaia Manuel Arjona eta Francisco Arjona Reyes *Currito*k hil zituzten[10].

Perez Laborda ganaduzale tuterarrak ere leku askotara bidali zituen 1.865. urtean bere abelgorriak. Orain arte aipatutako herrietaz gain, Hueska, Mendi Martzana eta Balmasedara[3]. Mendi Martzana–n 1.865.ean hain zuzen Joseph Malfait jaio zen; gero toreatzaile famatu izango zena[16].

Hueskan, abuztuaren 10ean Perez Labordaren eta Poyalesen launa zezen toreatu eta hil zituzten Manuel Carmona eta Antonio Carmona *Gordito*k.

*Gordito*k aulkian eserita banderilak sartu zituen. Hiru nafar–pase osatu ere bai. *Lagartijo*, gero famatu izango zen Rafael Molina, Carmona anaien koadrilan zen banderilak sartzen. Zazpigarren zezena ere berak hil zuen; ondo hil gainera, saritzat eman ziotenez gero.

Uztailaren 2an, Iruñea eta Mendi Martzanara (Landetara) Perez Labordaren ganadutegiko Hipolito Uztarroz eta Babil Aragon unaiak abiatu ziren Tuteratik. Uztailaren 28an itzuli omen ziren. Karrikiri eta Lizasoren zezenak ere joan ziren Mendi Martzanara; hamahiru guztira, bi korridatan jokatzeko. Karrikiri eta Perez Labordaren zezenak izan omen ziren suharrenak. Domingo Mendibil durangarrak toreatu eta hil zituen bere koadrilaren laguntzaz[3].

Tolosan 1.865. urteko korridatan, Perez Labordaren sei zezen toreatu ziren. Ekainaren 16an abiatu bait ziren Tuteratik sanjoanetan jokatzekotan[3].



11.14. irudia. Zezenak Tolosako Plaza Berrian 1.865. urtean.

Tolosan, 1.865. urteko ekainaren 25ean, Plaza Berrian gauza xelebrea gertatu omen zen bertako Isaka Amunarriz–ek zioenez. Raimundo Diaz–en lau nafar–zezenko toreatzera Salvador Sanchez *Frascuelo* etorri omen zen. Hirugarren zezenkoa hil ezinik omen zebilen. Hildako zaldi baten eta barreren ondoan omen zegoen zezenkoa. *Frascuelo* hirugarren zezenkoa handik atera ezinik ari zela, bapatean torileko atea hautsita laugarren zezenkoa plantatu omen zen plazan. Salvadorrek zezenko irtenberriari dei egin omen zion, eta zezena etorri zitzaionean ezpata sartu eta

atera berehala egin omen zion.

Laugarren zezenkoa hil ondoren, hirugarrena hil omen zuen txalo artean. Herriko Kasinoan, gau hartan dantza bere omenez egin zuten tolosarrek, baina *Frascuelo* berak gau txarra pasa omen zuen. 3.500 erreal irabazi omen zituen, eta lapurtuko zizkioten beldurrez, arropekin batera kutxara diruak sartu eta berak gainean eserita igaro omen zuen gaua. Geroztik *Frascuelo*ri *Tolosako ausarta* ere inoiz esaten omen zioten[22].

Tolosan korridak ekaineko 24, 25 eta 26an omen ziren. Juan Antonio Suarez ezpataria omen zen koadrilaren arduradun izatekoa, baina arazo politikoengatik *Frantziara* joan beharra izan omen zuen[26]. Baina Tolosako gertakizun hura, ez zen 1.865. urteko sanjoanetan gertatu; hurrengo urtean (1.866.ean) baizik. Hori diote Luis del Campok[58] eta Peña y Goñi donostiarrak[26]. Egia esan, Suarez-ek Iruñean egun batzuk geroago toreatu zuen 1.865.eko sanferminetan, koadrilan *Frascuelo* zela[3]. Martzelino Soroa euskal idazle donostiarrak ere, Tolosako zezenketa famatu hura 1.866. urtean gertatu zela dio, eta zezen-hiltzailea (Suarez), Baionara ihes egin beharrean gertatu zela ere bai, Madrileko nahaspila politiko baten ondorioz. *Frascuelo*ri gainera, ustegabean seigarren zezena atera zitzaion plazara bostgarrengoa toreatzen ari zela[86]. Peña y Goñi donostiarrak ere horixe bera dio; seigarren zezena izan zela. *Cordoba-ko Cuchares* omen zuen lagun korrida hartan *Frascuelok*[26].

Dena dela, interesgarria da *Frascuelo*ri korrida famatu hartan Tolosan gertatu zitzaiona Martzelino Soroaren eskutik jasotzea[86]. Honela idatzi bait zuen *Baratzan* izeneko liburu humoretsuan elkarrizketa moduan:

—Tolosan zezen ederrak omen ziran atzo.
—Ez det ezer aitu, jauna. ¿Ta beorri ara jun gabe?
—Milla ta zortzireun ta irurogei ta seiyan; au da, orain dala ogei urte, izandu nitzan azkeneko angofestetan.
—Denboratxua da.
—Bai; ta orduban zezen bat zorretan utzi ziguten, eta ordaña artzeko zai nago ara juteko.
—¿Zer egin zuten bada?
—Seigarren zezena jokatu gabe, ill zutela bostgarrena baño len.
—¿Ta nola gerta leike ori?
—Orduko gora-berak esango dizkitzut: Urte artan San Juan bezpera bezperan, illaren ogei ta biyan, izan zan Madrillen naspilla aundi bat, eta eztakigu zer, bañan kontuba da, Tolosako zezenetarako azaltzen zan aurreneko zezen-iltzalliak, alde egin zubela Bayonara. Arrek berekiñ zuben jendian, agertzen zan besteren ordez zezenak illtzeko, Praskubelo, zubek deitzen diozuten bezela. Egundañoko jendiak giñan Donostiatik, eta plazaren lau erdiyak eta geiago artzen genituen guk.
—¡Ezta gutxi ere!
—Asi ziran zezenak jokatzen, eta bostgarrena zan aundiyenetakua. Iltzeko garayan, eman zizkan Praskubelok bost edo sei kolpe...
—¿Ezpatarekin?
—Lana frankorekiñ; bañan zezena beti zutik, eta bera baño lenago besteren bat mundu ontatik bialtzeko asmuarekiñ. Praskubelo estutuena arkitzen zanian, botatzen du seigarrenak atia, azaldu ta beriala ekiteyo Praskubelori bostgarren zezenaren aurrian zegoala, eta kontu artzeko denborik gabe, ematen diyo ezpatazo bat zezen preskoari, eta nun botatzen duben ankaz gora, esan bezela, dar-dar, lau ankak gora aldera zitubela. Beriala etorri zan muñ-jotzalle edo katxeterua, eta

arren kontu eman zuten.

—¡Gezurra diruri!

—Ala diruri bai, baña alaxen gertatu zan. Zañen bat ikutu ziyon ta, orla elbarritu zuben. Seigarrena ill ta gero, ordu erdi bat pasa zuben bostgarrena etzan-azitzeko. Guk sei zezenen kontuben dirua eman genduan, eta nola seigarrena etzan jokatu ez kapa, pika ta banderill edo makill paper kizkurrezkuekiñ, eskatu genduan beste zezena, ojuka ta indarrian; ¿badakizu? bero xamarrak geunden gu ere, gure kafiak, kopak, zerbezak eta gañerako zerakiñ ta...

—Izango zan zerbait, bai.

—Gure abotik atera ziran kaso oyetan esaten diran gauza zuzen ta garbi guztiyak.

—Bai, bai; ¡an aitzen diranak! Beiñ bakarrik izandu naiz, eta etzait gogorik egiñ berriz juteko. Jendia geiegi arrotzen da orduban.

—Ala da. Kartzelan sartu nai ginduzten, bañan asko giñan, eta guztiyentzat lekurik etzan; utzi ginduzten gure ojubekiñ, ia lertzen ote giñan. Beste zezenik ez omen zan.

—Orduban zalla izango zan ateratzia.

—Orrengatik ezan dizut zezen bat zor digutela Tolosarrak.

—Barkatzia izango da bada onena.

—Arrazoya dezu. Ordutik asi zan Praskubeloren soñuba.

Azpeitiko saninaziotarako, 1.866. urtean Nikolas Uzin jaunak bi egunetan korridak ematea proposatu zion Udalari. Arratsalde bakoitzean bi nafar-zezen eta bertako beste bi toreatuko zituzten Madrileko eta bertako toreatzaileek. Nafar-zezenak, gutxienez 32 erraldekoak izango ziren.

Udalak Nikolas Uzin-en proposamena onartu egin zuen, baina ez dakigu zeinen zezenak eta zein toreatzaile izan ziren[21].

1.866. urteko agiri batean, Arrasaten nobilladak Santo Tomas eguneko feriatan bakarrik izaten zirela dio[87].

Bilbon, 1.866. urtean Francisco Arjona *Cuchares* eta Rafael Molina *Lagartijo*k parte hartu zuten korridatan. Mihura, Felix Gomez eta Martinez-en zezenak toreatu eta hil zituzten[17]. Bilbon urte hartan hasi zen toreatzen Antonio Perez Peciña *el Ostion* izeneko banderilari biasteriarra. Zezen bolaztatu batek lurrera bota zuen[26].

Bermeon 1.866. urteko abuztuaren 15, 16, 29 eta 30erako lau korrida iragarri zituzten. Lehen biak, abuztuaren 15ean eliza berria estreinatuko zelako, eta azken biak Gazteluatxe-ko San Joanerako erromeria ospatzeko. Korridak Bermeoko zezenplazan izango ziren. Benavente-ko Fernando Gutierrez-en zezenak jokatuko zituzten; lau eta bost urte bitartekoak. Arratsaldero hiltzeko hiru zezen plazaratuko ziren, eta azkenean bertako beste zezen bat gazteentzat.

Eusebio Iturbe enpresariak, seina erreal kobratuko zuen sarrera. Gernikako musikak eta herriko txistulariek ere alaituko zituzten festa haiek. Mundaka-ko bandak ere bai[88].

Iruñeko sanferminetarako, 1.866. urtean Leokadio Iturriaga eta Lazaro Perutxena enpresariek Julian Casas *Salamanquino* eta Antonio Sanchez *el Tato* kontratatu zituzten. Toreatzaileek 52.000 erreal irabaziko zuten eta ezpatari bakoitzaren kontu zegoen koadrilaren erdia ekartzea. Salamancako Jose Bello, Tuterako Lizaso eta Korellako Poyalesen zezenak hilko zituzten uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean.

Uztailaren 7an, bostgarren zezena ordezko ezpatariari (Mariano Anton–i) eman zioten saritzat. Uztailaren 8an berriz, Mariano Anton–i 80 errealeko isuna ezarri zioten, bere txanda izan gabe lehen zezenari ezpata sartu ziolako. Isidro Buendia sastakariari berriz, gobernadoreak 100 errealeko isuna ezarri zion. Uztailaren 9an, berriz ere bostgarren zezena sari gisa eman zioten ordezko ezpatari zen Mariano Anton–i. Uztailaren 10eko korridan berriz, Antonio Pinto pikatzaileak seigarren zezena ziztatzerik ez zuen nahi izan[58].

1.866. urteko maiatzean, Zaragozako *El Asta de Oro* zezenzaleen elkarteak eta Tuterako beste batzuek bertako zezenplazan inguru haietako toreatzaile gazteentzako jaialdi bat antolatu zuten. Zaragozatik Tuterara trenez jende asko etorri zen zezenkoak nola toreatzen zituzten ikustera. Festa polita atera omen zitzaien.

Santanatan berriz, *Cuchares* ekarri zuten 28.000 erreal ordainduta uztailaren 26 eta 27ko korridetara. Bere seme Francisco Arjona Reyes *Currito* zekarren koadrilan. Sevillan aurreko igandean (15ean) besoan zauritua izan zen ordea eta Tuteran *Cuchares*en semeak zezenak hiltzerik ez zuen izan.

Tuterako lehen korridarako, Manuel Lizaso enpresariak bere ganadutegiko lau zezen eta Elortz–en beste bi ekarri zituen. Bigarren korridan, Karrikiriren sei zezen plazaratu ziren. Bi egunetan guztira, zezenek 35 zaldi hil zituzten[2].

1.866. urtean Bizente Perez Laborda ganaduzale tuterarrak ez zuen zezenik inora bidali. Aurreko urtean, azaroan 3an, bere emazte Nikolasa Ezkerra hil bait zitzaion eta erabaki hura hartu zuen: urte hartan zezenik ez bidaltzea. Geroztik, Bizente Perez Labordak bere seme–alabak ondo hazi eta hezi nahi izan zituen, eta aldi berean ganadutegiko arazoak poliki–poliki alde batera utziz joan zen[3]. Harez gero Perez Labordaren ganadutegia gainbeheraka joan zela esan dezakegu beraz.

Karrikiriren ganadutegia berriz, indartsu zebilen Tutera ondoko Murelu herrixkan. 1.866. urtean Bartzelonara ere bidali zituen zezenak. Ekainaren 17an plazaratu zuten *Molinero* izeneko zezena eta Juan Sanchez *Noteveas* banderilaria zauritu egin zuen eskuineko zangoan[10].

Zaragozan bestetik, 1.866. urteko abuztuaren 15ean Ejeako Candido Lopez–en sei zezen hil zituzten *Cuchares, Currito* eta Pablo Erraiz–ek[26].

11.- ZEZENAK XIX. MENDEAN: BIGARREN HERENA (1834-1866). BIBLIOGRAFIA

(1) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona. 1800-1843*, in Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. 40. alea. Iruñea 1.982 (526, 527, 531-533, 543, 548, 549, 551, 557, 561, 563-566, 569-571, 573, 576, 577-579, 580, 703-722. orr)

(2) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. Lehen alea. Tutera 1913 (267-289, 312-318, 498. orr.)

(3) PEREZ LABORDA, BIZENTE. *Historia de una Ganaderia Navarra de Toros bravos en el siglo XIX de Tudela (Navarra)*. Tutera 1980 (10, 11, 13, 15, 19-21, 102-104, 106, 108-112, 115, 120-122, 125, 127-131, 133-214, 216, 220, 240-257. orr.)

(4) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de ayer*. Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (21, 23. orr.)

(5) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. 2. alea. Tutera 1914 (198, 199, 423, 452, 518. orr.)

(6) ORTIZ CAÑAVATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y costumbres de España. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (490, 502, 511, 517, 525, 547. orr.)

(7) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (19. orr.)

(8) MONTES, FRANCISCO. "PAQUIRO". *La tauromaquia completa o sea el arte de torear en plaza*. Tuner argit. Madril 1983 (osoa).

(9) H, G. *Horra nun den Urnieta*, in Gure Herria 1973. Baiona (337-341. orr.)

(10) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (284, 285, 289, 318, 319, 337, 342, 349, 354, 372, 374-377, 379, 380, 385, 446, 507, 511, 532, 544, 590, 697, 701, 702, 792, 815, 849. orr.)

(11) ZUMALDE, IÑAKI. *Notas sobre la Primera Guerra Carlista*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1961 (309. orr.)

(12) DIAZ-CAÑAVATE, ANTONIO. *Paseillo por el planeta de los toros*. Salvat argit. Madril 1970 (172. orr.)

(13) URUÑUELA, LUIS. *Las plazas de toros de Bilbao*, in Vida Vasca 1954 (209. orr.)

(14) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Calendario alavés*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1970 (257, 258. orr.)

(15) GAUTIER, TEOPHILE. *Viaje por España*. Enrique Mesa-ren itzulpena. Calpe argit. Madril 1920 (107-129. orr.)

(16) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere*. Nogaro 1986 (39, 48, 50-52, 131, 134. orr.)

(17) CORTES, JOSE. *Historia de la plaza de toros de Vista-Alegre*. Bilbo 1895 (9, 10, 51. orr.)

(18) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Tauromaquia vasca*, in Munibe 1951. Arantzadi argit. Donostia (235-242. orr.)

(19) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Tauromaquia vasca*, in Herriko festetarako programa 1977. Deba (z/g)

(20) AMUATEGI, TERESA. *Deva y mis recuerdos*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (22-24. orr.)

(21) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia*. Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (364-371. orr.)

(22) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipuzcoa*. Donostia 1974 (34, 35, 60, 72-74, 92. orr.)

(23) X,X. *Ostolazaren testamentua*. Ostolaza fundazioa argit. Deba 1976 (10. orr.)

(24) FLORES, ANTONIO. *Viajes a las provincias vascongadas. Articulo IV. Deva y Geografia española*, in El Laberinto. Periodico universal. Madril 1845-I-1 (67, 68. orr.)

(25) BERISTAIN EGIGUREN, JESUS MARIA. *Azcoitia*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia

1970 (76. orr.)
(26) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1978 (5, 60, 61, 162, 163, 178, 179, 256, 259, 436, 452, 493, 535, 580, 592, 695, 722, 723, 767, 867, 895. orr.)
(27) ITURRIAGA, AGUSTIN PASKUAL. *Ganaduen gañean jolasa*, in Euskal-Erria. 18. alea. Donostia 1888 (103. orr.)
(28) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 2. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1980 (695. orr.)
(29) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros*. Navarra. Temas de cultura popular. 125. alea. Iruñea 1972 (17-20, 22-24. orr.)
(30) MANTEROLA, JOSE. *Breve historia de algunas comparsas y fiestas de carnaval habidas en San Sebastian en el presente siglo*, in Euskal-Erria 1883. 8. alea. Donostia (105, 106. orr.)
(31) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *El último brindis de Sarasate en la vieja plaza de toros de Pamplona*, in Vida Vasca 1956 (169. orr.)
(32) SARASA GONZALEZ, JORGE. *Pamplona y su historia en la vieja Plaza de Toros*, in Vida Vasca 1954 (150, 151. orr.)
(33) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y su primera plaza de toros fija*. Navarra. Temas de cultura popular. 164. alea. Iruñea 1973 (3-30. orr.)
(34) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (381, 382, 384,385, 387-389, 391, 395, 398, 401, 403. orr.)
(35) B, A. *Carriquiri, Nazario*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 6. alea. Auñamendi argit. Donostia (407, 408. orr.)
(36) A, J.M eta B. *Carriquiri.(KARRIKIRI)*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 6. alea. Auñamendi argit. Donostia (407. orr.)
(37) MITXELENA, KOLDO. *Apellidos Vascos*. Txertoa argit. Donostia 1973 (107, 114. orr.)
(38) ETXAIDE, JON. *Etxahun'en bertsoak gipuzkeraz*. Itxaropena argit. Zarautz 1969 (16, 17, 125, 126. orr.)
(39) MUTILOA POZA, JOSE MARIA. *Roncesvalles en Guipuzcoa*. Lehen alea. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1976 (23. orr.)
(40) PIRALA, ANGEL. *San Sebastian en el siglo XIX*. Madril 1900 (54, 55. orr.)
(41) "UN PHILEUSKARIEN". *Poesie cantabre. Iruneco bestac*, in Ariel, Courrier des Pyrenees. Urriak 5, 53. alea; urriak 12, 54. alea; urriak 19, 55. alea; urriak 26, 56. alea; azaroak 2, 57. alea. Baiona 1845 eta in Ariel, Courrier de Cantabrie et de Navarre. Azaroak 16, 59. alea; azaroak 23, 60. alea; azaroak 30, 61. alea.
(42) HIRIBARREN, J.M. *Eskaldunac*. Auñamendi argit. Baiona 1853. Facsimil argitarapena. Donostia 1968 (578-580. orr.)
(43) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella*, in Principe de Viana. Iruñea 1942 (318, 319. orr.)
(44) IZTUETA, JOAN INAZIO. *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1975 (250, 251. orr.)
(45) LOPEZ IZQUIERDO, FRANCISCO. *Plazas de toros de Madrid*. Avapiés argit. Madril 1985 (53, 54. orr.)
(46) CAMPO, LUIS DEL. *El traje en la Fiesta Nacional*, in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (284. orr.)
(47) B, I. *Notas para el anecdotario de la primera guerra carlista*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Donostia 1948 (255. orr.)
(48) BARRIOLA, I.M^{a}. *Unas cartas de la familia de Zumalacarregui*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais. Donostia 1948 (367, 368. orr.)
(49) ETXEGARAI, JOSE BIZENTE. *Festara*. Auspoa argit. 35-36. alea. Tolosa 1964 (230-232. orr.)
(50) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona 1850-1851*. Navarra. Temas de cultura popular. 205.

alea. Iruñea 1974 (3-30. orr.)
(51) CAL SEGURA, JOSE DE LA. *Genealogia de las cuatro castas fundacionales: Jijona, Cabrera, Vistahermosa, Vazqueña y La Casta Navarra,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (82, 84, 87, 92, 96, 98. orr.)
(52) COSSIO, FRANCISCO DE. *Los toros.* 8. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1986 (248-260, 324, 326, 639. orr.)
(53) X,X. *Unión de criadores de toros de lidia. Temporada taurina de 1985.* Madril 1985 (71. orr.)
(54) X,X. *La plaza vieja de Vitoria,* in Vida Vasca 1946 (65, 66. orr.)
(55) ABRISKETA, JOAN JOSE. *Mas datos sobre el origen vasco del toreo de a pié,* in La Gran Enciclopedia Vasca. 9. alea. Bilbo (227. orr)
(56) ARIZMENDI AMIEL, Mª ELENA. *Vascos y trajes.* 2. alea. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1968 (345. orr.)
(57) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (82, 84, 87, 88, 90-98. orr.)
(58) CAMPO, LUIS DEL. *Tato y Currito, hijos de Cúchares en Pamplona.* Navarra. Temas de cultura popular. 364. alea. Iruñea 1980 (6-14, 17, 18. orr.)
(59) ARANEGI COLL, MANUEL. *D. Luis de Ajuria y su tiempo,* in Boletin de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1972 (206, 207. orr.)
(60) URUÑUELA, LUIS. *Cuando la plaza de toros estaba en La Concordia,* in Vida Vasca 1948 (186-188. orr.)
(61) SADA, XABIER MARIA. *Encierros,* in la Voz de Euskadi 1983-VII-7. Donostia.
(62) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Los toros de Miura,* in El Diario Vasco 1986-II-25
(63) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (1033. orr.)
(64) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Bizkaiko Aurrezki-Kutxa argit. Bilbo 1983 (7, 8. orr.)
(65) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 7. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1984 (630, 670, 952. orr.)
(66) ETXEGARAI, JOSE BIZENTE. *Donostian, 1853-garren urteko Iñauteriyetan,* in Euskal-Erria. Donostia 1904 (118. orr.)
(67) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques.* Donostia 1981 (14, 47. orr.)
(68) LAFITTE, PIERRE. *Les hexamètres de B. Borda (1854),* in Fontes Linguae Vasconum 1978. Iruñea (493, 502-504. orr.)
(69) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande.* Imprenta alemana argit. 1916 (28. orr.)
(70) REPARAZ OLAGUE, BALENTIN. *Guipuzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia.* Donostia 1943 (313. orr.)
(71) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Rogativas en la montaña alavesa,* in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1965 (94. orr.)
(72) LAFORCADE, MICHAEL. *La tauromachie dans le Soud-Ouest de la France.* Mendi Martzana 1984 (41. orr.)
(73) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo.* Destino argit. Bartzelona 1954 (166, 168, 169. orr.)
(74) MASSE, ONOFRE. *La tauromachie au Pays Basque,* in Pyrenees 1955. 6. alea (255. orr.)
(75) ZABALA, ANTONIO. *Xenpelar bertsolaria.* Auspoa bilduma. 88-89-90. alea. Tolosa (193-210. orr.)
(76) JAUREGI, LUIS. "JAUTARKOL". *Xenpelar bertsolaria.* Kuliska sorta. 55-56. alea. Itxaropena argit. Zarautz 1958 (39-43. orr.)
(77) ARRIZABALO, JOSE MANUEL. *Baso mutilak.* Auspoa bilduma. 134. alea. Tolosa 1979 (32-37. orr.)
(78) X,X. *Itziar. Bataiatuen 8. liburua (1817-1832).* Elizbarrutiko artxiboa. Donostiako Seminarioa.
(79) ITURRIZA ZABALA, J. RAMON eta AZKARRAGA REGIL, MANUEL. *Historia de Vizcaya.* Bilbo 1885 (778. orr.)
(80) SANCHEZ NEIRA, JOSE. *Diccionario taurómaco.* Lehen alea. Giner argit. Madril 1985 (467,

495. orr.)
(81) "FILARE". *El toro Llavero*, in Navarra hoy. Iruñea 1985-VII-4. Eranskina.
(82) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Mansos célebres*, in Club taurino. Iruñea 1985 (12, 13. orr.)
(83) ORENDAIN SARRIEGI, RAMON. *Un torero bascongado*, in Euskal-Erria 1884. Donostia (152. orr.)
(84) CAMPO, LUIS DEL. *Los Carmona en Pamplona*. Navarra. Temas de cultura popular. 338. alea. Iruñea 1979 (5-7, 9, 11, 12. orr.)
(85) FERNANDEZ SALCEDO, LUIS. *El toro en el campo*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (159. orr.)
(86) SOROA LASA, MARTZELINO. *Baratzan*. Auspoa bilduma. 31. alea. Tolosa 1963 (72-75. orr.)
(87) LASA, JOSE INAZIO. *Tejiendo historia*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones argit. Donostia 1977 (214. orr.)
(88) X,X. *Toros en Bermeo*. Bermeoko udaletxeko artxiboa. 968. kutxa.

11.- ZEZENAK XIX. MENDEAN: BIGARREN HERENA (1834-1866). ERANSKINAK

1. Jose Bentura Laka. Bataio-agiria. Testamentua. Heriotz agiria.

A) Bataio-agiria. Itziar. Bataiatuen 6. liburua (1741-1792)

Jph Buenaventura de Laca

En quince de Octubre de mil setecientos/ noventa y uno a las tres y media de la/ tarde bautizé el infra escrito Vicario/ de la Parroquial de Iziar a Jph. Bue/naventura que nació a las nueve y me/dia de la noche del dia catorze de este/mes y año con licencia de D^{n} Agustin/ de Egaña, Vicario propio de Deva. Hijo/ legitimo de Estevan de Laca, natural/ de esta tierra de Iziar y Parroquiano/ de Deba, y de Fran^{ca}. Antonia de Manci/sidor, natural y Parroquiana de Deba/ Abuelos Paternos, Miguel y Agustina de Murua, naturales, y Parroquianos/ de Iziar: Maternos, Antonio Domingo/ de Mancisidor, natural, y Parroquiano/ de Deba y Maria Theresa de Aramendia,/ natural de Elgoibar y Parroquiana/ de Deba: Fueron Padrinos, Jph. Pedro/ de Cigaran, natural y Parroquiano/ de Deba, y Jpha Antonia de Muguerza/, natural de Zumaia, y Parroquiana de/ San Miguel de Artadi. Les adverti el/ Parentesco Espiritual y demas requi/sitos, y firmé

D^{n}. Ignacio de Emasabel

B) Testamentua. Oñati. Unibertsitateko artxiboa. Jose Inazio Agirrezabalaga eskribaua. Azpeitia. 1.841. urtea. 761. paper-sorta. 402, 403 eta 404. orriak.

1º de Agosto de 1.841

Testamento de Jose Ventura Laca vecino de la Villa de Deba.

En el nombre de Dios Todopoderoso Amen. Yo Jose Ventu/ra de Laca, vecino de la Villa de Deba, hallandome en cama/ en esta de Azpeitia herido gravemente, pero en mi certero juicio/ memoria y entendimiento natural, creyendo y confesando como/ firmemente creo y confieso el misterio de la santísima trini/dad, padre, hijo y espíritu santo, tres personas que aunque/ realmente distintas son un solo Dios verdadero y una esen/cia y substancia y todos los demas misterios y sacramentos/ que cree y confiesa nuestra Santa Madre la Iglesia Cato/lica Apostolica Romana, en cuya verdadera fé y creencia/ he vivido y vivo y protesto vivir y morir como Catolica/ fiel cristiano tomando por mi intercesora, y protectora a la/ siempre Virgen Inmaculada Reyna de los Angeles Ma/ria Santisima madre de Dios y Señora nuestra, al Santo/ Angel de mi guarda los de mi nombre y devoción y demás/ de la Corte Celestial para que impetren de nuestro Señor/ y Redemptor Jesucristo que por los infinitos meritos/ de su preciosisima vida pasion y muerte, me perdone todas/ mis culpas y lleve mi alma a gozar de su presencia./ Temeroso de la muerte que es natural y precisa a toda/ criatura humana como incierta su hora para estar/ prevenido con disposición testamentaria cuando llegue/ resolver con maduro acuerdo y reflexion todo lo concerni/ente al descargo de mi conciencia, evitar con la claridad/ las dudas y pleytos que por su defecto pudieran sus/citarse despues de mi fallecim^{to}. y no tener a la hora/ de este cuidado temporal que me obste pedir a Dios de/ todas veras la remisión que espero de mis pecados: otor/go hago y ordeno mi testamento en la forma siguiente/ Encomiendo mi alma a Dios Nuestro Senor que la crio/ de la nada y manda el cuerpo a la tierra de que fué/ formado, el cual hecho cadaber quiero se sepultado/ en el Campo Santo de la Iglesia Parroquial de esta Villa: que en la misma Iglesia se me haga el entierro/ correspondiente o acostumbrado entre personas de mi clase/ y que se manden decir en sufragio de mi alma las mi/sas de ochenta reales con estipendio de cinco cada una/ encargando la

celebración a mi sobrino Dⁿ Escolastico/ Badiola que vive en esta dicha villa.---------- /
Lego por una vez para la conservación de los Santos/ Lugares de Jerusalen y tierra santa redencion de/ cautivos cristianos y demas mandas forzosas tres reales/ de vellon con cuya limosna aparto a todos del Derecho/ que pudieran pretender a mis bienes. ---------- /
Lego tambien los doce reales de la manda pia/ forzosa establecida por el govierno refugiado en Ca/diz en el año de mil ochocientos y ocho aprobada/ por la Real Orden de ocho de Agosto de mil/ ochocientos veinte y cinco y mandada exigir y ponerlas/ en clausula separada en todos los testamentos por la/ de treinta de Mayo de mil ochocientos treinta y uno/ bajo penas severas a los Escribanos que la omitan sin embar/go de no estar admitida en esta Provincia de Guipuzcoa.------ /
Declaro que la hija que dió a luz Josefa Antonia Burgoa/ soltera natural de la referida Villa de Deba ahora cosa/ de cuatro años, llamada Josefa es mía y por tal la reconoz/co y por via de legado ó como mejor lugar haya en dere/cho mando y quiero que sea para esta mi hija el Casta/ñal que poseo en jurisdición de la propia Villa de Deba/ en el parage llamado Goicoechecozabala: que sean igualmᵗᵉ./ para esta dos onzas de oro que tengo que haber en Simon/ Lizaola mi primo de la misma vecindad y que se dé tam/bien a la misma un armario que está en la Sala de mi/ casa habitación y una cama completa.---------- /
Mando a mi esposa Josefa Teresa Ibarra el usufruto de/ otro terreno castañal y robledal del parage de Oxion Juris/dicion de la misma Villa para mientras viva, sin que/ de consiguiente pueda vender ni gravar dicho terreno sino/ tan solamente aprovecharse de su producto.---------- /
Quiero que una de las mejores capas que tengo, sea para/ mi hermano Juan Nicolas y que la demas ropa mia se/ reparta entre los demas mis hermanos.---------- /
Despues de cumplido y pagado lo que llevo ordenado en/ este mi testamento, del remanente de mis bienes presen/tes y futuros, instituyo por mi unico y universal he/redero a mi hermano Juan Nicolas Laca para que/ los haya y llebe con la vendición de Dios y la/ mia, por cuanto no tengo herederos forzosos, y asi/ a este como a los demas mis hermanos, muger e hija/ pido y suplico me encomienden a Dios en su horacᵉ./
Y por el presente revoco y anulo todos los testamᵗᵒˢ./ y demas disposiciones testamentarias que antes de/ ahora hubiese formalizado por escrito, de palabra/ ó en otra forma para que ninguno valga ni/ haga fé judicial ni extrajudicialmente, excepto/ este presente testamento que quiero y mando/ se estime por mi ultima y deliverada voluntad ó en la via y formas que mejor lugar haya/ en derecho. Asi lo otorga ante el presente Escbno./ Real y de número de esta dicha Villa de Azpeitia a primero de Agosto de mil/ ochocientos cuarenta y uno, segun testigos Ra/mon de Iparraguirre, Juan Antonio Olano/ Javier de Azcune, Francisco Aranaga y Jose/ Agustin Echeverria vecinos de esta misma/ Villa y no firmó asegurando ignoraba escribir á su ruego por él firma uno de/ los testigos instrumentales y en fé de ello/ y de que conozco al otorgante que se/ hallaba en su sano juicio, memoria y/ entendimiento natural firmo yo el Escribano.

Ramon Yparraguirre

Ante mi
Jose Ignacio de
Aguirrezabalaga

C) Heriotz agiria. Azpeitia. Hildakoen 5. liburua.

Nº 55
Laca
Jose Ventura

El dia dos de Agosto de mil Ocho cⁿ. cuarenta y uno: habiendo recibido los Sᵗᵒˢ. Sacramᵗᵒˢ murio en es–/ta Villa A las nueve y media de la mañana, y a los cinquenta, y un años de su edad Jose Ventura de/ Laca, vecino de Deba, y marido de Josefa Theresa de Ibarra. Testó ante Dⁿ Jose Ignº de Aguirreza–/balaga Esño. Rˡ. y Numˡ. Y su cadaver el dia siguiente fué conducido a el/ Campo Sᵗᵒ. de esta Iglª. Matriz: y firmé.

D. Jose Manuel de Abalia

Se cumplio su ultima voluntad

Abalia

D) Heriotz agiria. Deba. Hildakoen 6. liburua (1782–1842)

Nº 17
Jose Ventura de Laca
Testo
Cumplido
Araquistain

Copia del certificado del Rector de Azpeitia.
Yo el infrascrito Pbro. Rector de la Iglª. Parroquial Ma/triz de Sⁿ. Sebastian de Soreasu de la Villa de Azpeitia &l=/ Certifico que el dia de ayer despues de ausiliado bien/ con todos los Sacramᵗᵒˢ., y gracias de la Iglª. y testado/ ante Dⁿ. Jose Ignº. de Aguirrezabalaga Esño. numˡ./ y Rˡ. de esta villa a cosa de las nueve y media de la ma/nana, y ciencuenta y un años de su edad murió en/ esta Villa Jose Ventura de Laca, vecino de Deva/ marido de Josefa Theresa de Ybarra, y su cadaver en/ el dia de hoy con todos los oficios sepulcrales ha sido/ conducido al campo Sᵗᵒ. de la misma.=. Azpeitia a tres/ de Agosto de mil ochocientos cuarenta y uno = Jose/ Manuel de Abalia. Es copia fielmᵗᵉ. sacada y por ser verdad certifico y firmo/ en Deva con la advertencia que dicho Laca es natural/ de Iciar y la Ibarra de Zumaya, parroquianos de esta/ Dia cinco de Agosto de mil ochocientos cuarenta y uno

Juan Mª de Araquistain

Oharra: Jose Bentura Laka Itziarren jaioa izan arren, bere gurasoak gero Debara jaitsi ziren bizitzera eta han izan zituzten beste seme–alaba batzuk; Pedro Mari (1797–I–31n) eta Frantziska (1800–X–4ean) adibidez. Bestetik, Jose Bentura Laka–ren emaztea, Josefa Teresa Ibarra, Deban hil zen 1846.eko ekainaren 9an.

2. **Antonio Ituarte.** Bataio–agiria. Heriotz agiria.

A) Bataio–agiria. Deba. Bataiatuen 5. liburua (1766–1782).

Antonio thomas de Ytuarrte

En Veinte y uno de Diciembre de mil/ setecientos y ochenta yo el infra escripto/ Vicario de esta Real Bauticé a Antonio/ Thomas nacido a las ocho de la mañana del/ dho dia Veinte y uno, hijo lexitimo de/ Miguel de ~~Ituarrte~~ natural de Iciar y Maria/ Catalina de Ariztondo natural de Deva, mis/ Parroquianos: Abuelos Paternos: Juan Bau/tista de Ituarrte y Maria Angela de Ciga/ran naturales de Iciar: Maternos: Igna/cio de Ariztondo natural de Iciar y Ma/dalena de Larreche natural de Deva: fu/eron sus Padrinos: Antonio de Galdos y/ Maria Antonia de Ituarrte, a quienes adver/ti el Parentesco Espiritual y obligación/ de Enseñar la Doctrina Christiana, y por la/ Verdad firme io el infra escripto Vica/rio Propio de esta Real Matriz de/ esta Villa Mont Real de Deva y/ sus filiales Anexas Iciar, Menda/ro y Arrona=Valga=Ituarrte=

Dⁿ. Agustin de Egaña

B) Heriotz agiria. Deba. Hildakoen 7. liburua (1835–1901)

Nº 26 D.Antonio Tomas de Ituarte

Como Vicario propio de esta Iglesia parroquial Matriz de Deva, Provincia de Gui/puzcoa Obispado de Vitoria mande dar sepultura Eclesiastica en el dia de la fecha al/ cadaver de Dⁿ. Antonio Tomas de Ituarte natural y parroquiano de Deva y viudo de Dª/ Franᶜᵃ. de Vrain natural que fue de Deva. Fallecio a las tres de la tarde del dia pre/cedente de la enfermedad de Vegez, en la edad de nobenta y dos años cumplidos, despues/ de haber recibido tan solamente la Estremaucion por no tener disposicion para los/ demas sacramentos. Siendo testigos Dⁿ. Jose Nicolas Vrain organista y Dⁿ Juan Jose de/ Vrain Sacristan naturales y parroquianos de Deva. Y para que conste firmo la presente/ partida en Deva a veinte y ocho de Diciembre de mil ochocientos setenta y dos.

Dⁿ. Franᶜᵒ. de Albizu

3. Jose Ituarte. Bataio agiriak.

A) Bataio–agiria. Deba. Bataiatuen 6. liburua (1782–1837).

Jph Xavier de N. Ituarte ~~Aristondo~~ Ituarte Vease la partida en devida forma libro 7º fol 52

En trece de Diciembre de mil ochocientos y ocho Bap/tizé yo el infraescrito Vicario a Joseph Xavier na/cido a las diez de su mañana hixo de N. y de Ana/ Jpha de Aristondo ñral de Deva: Abuelos Maternos/ Pedro Manuel y Michaela de Oa naturales de Deva/ siendo sus Padrinos Jph de Aristondo y Isabela Age/da de Usobiaga en representación de Francisco de Iziar y Xaviera de Iraundegui a quienes adver/ti el parentesco espiritual y los demas requisitos ne/cesarios y por la verdad firmé yo el vicario

Dn. Faustino de Echave

B) Bataio–agiria. Deba. Bataiatuen 7. liburua (1839–1876). 52. orria.

Jose Javier de Ituarte Vease la partida en el libro anterior fol 146 vuelto

Dia trece de Diciembre de mil ochocientos y ocho, Dn Faustino de/ Echave vicario propio de esta Iglesia parroquial Matriz de Deva y/ de sus filiales anejas bautizo solemnemente a Jose Javier nacido a/ las diez de su mañana, hijo de Antonio Tomas de Ituarte, (casado) y de Ana Josefa de Aristondo, (soltera) naturales y parroquianos de Deva. Abuelos paternos Miguel, naturales de Iciar, y Maria/ Catalina de Aristondo natural de Deva, parroquianos que fueron/ de esta. Abuelos maternos Pedro Manuel y Micaela de Oa, natu/rales y parroquianos que fueron de Deva. Siendo sus padrinos/ Jose de Aristondo, y Isavela Agueda de/ Usobiaga naturales y parroquianos de Deva, a quienes advirtio/ el parentesco espiritual y obligaciones. Esta partida se ha estendido/ aqui por declaración que ha hecho Antonio Tomas de Ituarte ante/ el Escribano Real y Numeral de Deva Dⁿ Jose Maria de Oa en ocho de/ Mayo de mil ochocientos cuarenta y seis, como aparecera en su registro, y por la verdad firmo yo el vicario

Juan Mª de Araquistain

Oharra: Erregistro hau bataiatuen 7. liburuan 1846–V–8 eta 1846–V–14 bitartean egina dago.

Bestetik, 1803.eko urriaren 23an Jose Ituartek anaia bat izan zuen. Antonio Tomas Ituartek seme bat izan bait zuen Maria Frantziska Urain–engandik.

Bataio–agiriaren zati batek honela dio: ... a Geronimo nacido a las dos/ de su tarde, Hixo de Ant^{o}. y de Maria Fran^{ca}. de Urayn am/bos solteros y naturales de Deva:...

Bestetik, Antonio Tomas Ituartek Debako Jose Maria Oa eskribauaren aurrean 1.846.eko maiatzaren 8an egindako aitorpenari dagokion 2215. paper–sorta Oñatiko Artxibo Probintzialean ez dugu aurkitu.

4. Martin Felix Ostolaza. Bataio–agiria.

a) Bataio–agiria. Deba. Bataiatuen 6. liburua (1782–1837)

Martin Feliz Ostolaza — En treinta y uno de Henero de Mil se/tecientos y noventa, yo el infraescrip/to vicario Bapticé a Martin Feliz/ nacido a las ocho de la mañana del/ dho dia treinta y uno hijo lexitimo/ de Manuel de Ostolaza natural de Arrona filial de esta Matriz de De/va y Jpha Ignacia de Areizaga na/tural de Iciar filial de esta dha Matriz/ ambos Parroquianos de Deva: Abuelos Paternos: Sebastian de Ostolaza y Maria Cruz de Irure, naturales de/ Arrona: Maternos: Miguel de Areizaga y Maria Antonia de Iciar na/turales de Iciar: fueron Padrinos Mar/tin Feliz de Areizaga y Ana Maria de Ostolaza, a quienes adverti el parentesco espiritual y la obligación de enseñar la doctrina Christiana, y por la verdad firmé io el Vicario Propio/ perpetuo de Deva y sus filiales Anexas/ Iciar, Arrona y Mendaro=

D^{n}. Agustin de Egaña

Oharra: Martin Felix Ostolaza Deban hil zen 1859. urteko uztailaren 27an.

5. Inazio Aldalur. Bataio–agiria.

A) Bataio–agiria. Azkoitia. Bataiatuen 12. liburua (1810–1826).

1

Xabier Ignacio de Aldalur — El dia veinte y uno de Enero de mil ochocientos veinte y dos yo d^{n}. Fran^{co}. Xabier de/ Uzin, Presbiterio Beneficiado de la Iglesia Parroquial de esta Villa de Azcoitia por/ ocupacion, y con permiso del S^{or}. Rector de esta Iglesia bautizé a Xabier Ignacio,/ que nacio a las dos de la mañana de oy, hijo legítimo de Jose de Aldalur y Maria/ Fausta de Landa, el natural de Arrona y ella de esta Villa de Azcoitia, abue/los Paternos Pedro de Aldalur y Maria Fran^{ca}. de Alzazu, Maternos Jose de Landa y Josefa Antonia de Gurruchaga, estos naturales de Azcoitia y Azpeitia y aquel/los de Arrona; fueron Padrinos Pedro de Aldalur y Xabiera de Echaniz, a quienes/ advertí el parentesco espiritual y demas obligaciones=

D^{n}. Jose Manuel de Aizpurua — S^{n}. Fran^{co}. Xavier de Uzin

6. Manuel Egaña. Bataio–agiria. Heriotz agiria.

A) Bataio–agiria. Deba. Bataiatuen 6. liburua (1782–1837)

Man^{l} Fran^{co}. Nicolas de Egaña — En nueve de Septiembre de mil ochocientos veinte/ y seis Baptizé yo el infraescrito Vicario a Mn^{l}./ Francisco Nicolas de Egaña que nació ala una/ de su tarde, hixo lexmo. de Domingo y Maria Jpha/ de Iziar, naturales aquel de Deva y

ella de Iziar:/ Abuelos Paternos: Jph. Antonio ñral de Deva, y Jpha/ Antonia de Iriondo ñral de Mendaro: Maternos:/ Miguel ñral de Iziar y Maria Theresa de Salegui/ ñral de Deva: siendo sus Padrinos: Man^{l}. de Uria y Fran^{ca}./ de Iziar, a quienes advertí el parentesco espiritual/ y los demas requisitos necesarios, y por la verdad firmé yo/ el vicario.

D^{n}. Faustino de Echave

B) Heriotz agiria. Deba. Hildakoen 7. liburua (1835–1901)

Nº 3º
D^{n}. Manuel de Egaña

Como Vicario propio de la Iglesia parroquial Matriz Santa Maria de la Asuncion de la Villa de/ Deva, Provincia de Guipuzcoa, Obispado de Vitoria mande dar sepultura Eclesiastica en el dia de la/ fecha al cadaver de D^{n}. Manuel de Egaña, torero, natural y parroquiano de Deva y esposo de/ D^{a} Martina de Muguerza natural y parroquiana de Eybar. Fallecio a las cuatro de la tarde del/ dia precedente de la enfermedad de una irritacion interna en la edad de cuarenta y siete años cum/plidos sin dar lugar para recibir sacramento alguno. Siendo testigos D^{n}. Jose Nicolas Vrain or/ganista y D^{n}. Agapito Vrain sacristan naturales y parroquianos de Deva. Y para que conste firme/ la partida presente en Deva a veinte y cuatro de Enero de mil ochocientos setenta y cuatro.

D^{n}. Fran^{co}. Albizu

12.- ZEZENAK XIX. MENDEAN: HIRUGARREN HERENA (1867-1900)

Hemeretzigarren mendearen azken zati honetan, Euskal Herriko plazetan ospatutako festarik nagusienen berri emango dugu. Zezenak, Nafarroako ganadutegietakoak izan ziren askotan, baina baita Gaztela eta Andalusiakoak ere. Toreatzailetan berriz, *Lagartijo* eta *Frascuelo* nabarmenduko zaizkigu indartsu guztien artean. Mendearen hondarrean ordea, gainbeheraka hasiko direnean, Luis Mazzantini elgoibartarrak sendo eutsiko dio lortutako goimailari.

Aztertuko dugun garaian bestetik, korridak jadanik ia gaur egun bezalaxe burutzen ziren. Pikatzaileak eta zaldiak (babesik gabe) zezena atera aurretik plazan egoten ziren eta maisuaren faenak ere pase gutxi batuzk besterik ez zituen. Gainerakoan ordea, plazan zezena toreatzeko eta hiltzeko lanak alegia, gaur bezalaxe egituratuak zeuden. Luzamendurik gabe has gaitezen bada 1867. urteko berriak emanez.

Iruñean urte hartan sanferminetako korridak Udalak berak antolatu behar izan zituen deialdietara behar bezalako eskaintza egitera inor agertu ez zelako.

Horregatik Udaleko idazkariak Pedro Jose Arraiza jaunari Madrilera idatzi zion toreatzaileak kontrata zitzan. Antonio Sanchez *el Tato*rekin laster iritsi zen akordiora. 33.000 erreal kobratuko zituen, bere koadrilaren gastuak barne. Antonio Carmona *Gordito* kontratatzerik ez zuen izan eta Rafael Molina *Lagartijo*k 32.000 erreal eskatzen zituen. Gehiegi zen hori Arraizaren eritziz. Izan ere *el Tato*k bere koadrilan ezpatarien ordezkoa, pikatzaileen ordezkoa eta sastakaria ere eraman behar zituen eta *Lagartijo*k ez. *El Tato*ren koadrila gainera, hobea zen. Azkenean ordea, *el Tato* 33.000 errealetan eta *Lagartijo* 32.000 errealetan kontratatu zituzten. Hona hemen ezpatari bakoitzaren koadrila zeintzuk osatzen zuten:

Antonio Sanchez *el Tato*renean: Pikatzaileak Francisco Calderon, Antonio Pinto eta Francisco Rodas (azken hau ordezkoa). Banderilariak: Matias Muñiz, Francisco Ortega *Cuco* eta Mariano Anton (azken hau ezpatarien ordezko). Sastakaria Gabriel Caballero.

Rafael Molina *Lagartijo*renean: Pikatzaileak Antonio Arce eta Miguel Alami. Banderilariak Juan Yust, Jose Segovia *Gallito* eta Benito Garrido *Villaviciosa*. Sastakaria Rafael Bejarano *Cano*.

Lagartijo azkenean, Iruñera etorri baino lehen adarkadaz zauritu egin zen eta bere ordez Angel Lopez *Regatero* ekarri zuten.

Uztailaren 10eko korridan, zazpi zezen jokatu ziren; azken laurak, plaza erdibituta hain zuzen.

Zezenen egoera aztertzera, Andres Agustino albaitaria bidali zuten udalgizonek, eta haren txostenaren ondorioz Karrikiri, Poyales eta Perez Labordaren zezenak erosi zituzten. Karrikirik bost urteko hamasei zezen bidali zituen 32.900 errealen truk. Miguel Poyales-ek bederatzi zezen (lau bost urtekoak eta bost laukoak) 20.800 errealetan eta Perez Labordak 15.600 errealetan zazpi (bost urteko lau eta lau urteko hiru) bidali zituzten.

Uztailaren 9an, ganaduzaleen lehiaketa eran antolatu zen korrida. Ganaduzale bakoitzak antolatutako bina zezen korrituko ziren, eta portaerarik onena erakusten zuten zezenen jabeari zilarrezko erretilua opari gisa emango zioten. Erretiluak 860 erreal balio zituen, eta bere kaobazko

kutxak 56[1].

Korrida honetan lehen zezena Perez Labordarena izan zen. Zaldi bat hil eta hiru zauritu zituen, banderilak sartu eta *el Tato*k hil aurretik. Noble eta suharra atera zen zezen hura.

Bigarren zezena Poyales–ena zen; suharra, baina biguna. *El Regatero*k hil zuen hamasei pase eman ondoren.

Hirugarren zezena, Karrikirirena, indartsua eta suharra izan zen. Hamabitan pikatu zuten.

Laugarren zezena Perez Labordarena zen. Suharra eta indartsua. Zortzitan eraman zuten zalditara, baina gaizki pikatua izan zen. *Regatero*k bota zuen ezpatakada batez. Bostgarren, Karrikiriren bigarren zezena atera zuten. Sasisuharra eta biguna suertatu zen. Gaizki pikatu zuten eta *el Tato*k hil zuen ezpata zintzurretik sartuta.

Poyales–en bigarren zezena plazaratu zen azkena. Batere suhartasunik erakutsi ez zuelako, aipatzerik ere ez du merezi[2].

Lehiaketa hartako epaimahaian, Cayo Escudero, Sebero Larraga, Jose Moreau, Barrot–eko kontea, Klaudio Arbizu eta Hormaz–eko markesa zeuden. Zezenik onena, Karrikiriren *Comerciante* izan omen zen (hirugarren plazaratua), baina bi zezenak gogoan izanik saria Perez Labordari ematea erabaki zuten[1].

1867. urte hartan, zezenen entzierroa gaur egungo bidetik egin zen Iruñean, eta harez gero halaxe egingo zuten gaur arte, gerrarik ezean etenik gabe[3].

1867. urtean Tuteran Heredia Spinola–ko kontesak Santa Anaren irudiarentzat mantu baliotsu bat eman zuen. Hura zela medio, gobernadorea santanatan Tuteran izan zen, eta korridetako lehendakaritzan ere bera ipini zuten.

Plazako enpresari, Manuel Lizaso zegoen urte hartan ere, eta korridetarako hamabi zezen ekarri zituen; sei bereak eta beste sei Karrikirirenak, bakoitzagatik 2.700 erreal ordainduta.

Zezenak toreatzera, Cayetano Sanz etorri zen, bere koadrilan Salvador Sanchez *Frascuelo* zuela.

Sari bat ere ipini zuten ganadutegirik onenari emateko. Epaimahaian Klaudio Arbizu, Frantzisko Urtasun eta Felix Benito jaunak zeuden. Karrikiri–ri eman zioten saria. Bere zezenek 16 zaldi hil zituzten.

Uztailaren 28an nobilada batez eman zieten amaiera festei. Enpresariak hamalau milaren bat erreal irabazi omen zituen[4].

Kaparrosoko Fausto Segundo Zalduendo 1867. urtean Cecilia Montoya Ortigosarekin ezkondu zen. Aurrez Maria Montoya Ortigosarekin ezkondua egona zen eta harengandik Jazinto semea zuen. Alargundua zegoen ordea, eta esan bezala 1867.ean Cecilia–rekin berriz ezkondu zenean, Fausto Segundo eta Jose Ramon Zalduendo anaiek zituzten 79 zezenak Bartzelonako plazajabeei saldu zizkieten. Handik aurrera, Fausto Segundo Zalduendo gelditu zen ganadutegiaren jabe[5].

1867. urtean Azpeitiko saninaziotarako zezenfestak antolatzeko hiru pertsona aurkeztu ziren. Bi egunetan emateko Basilio Fernandez jaunak Nafarroako sei zezen (lau hiltzeko) eta Lasturreko bi zezen plazaratzea proposatu zuen. Manuel Egaña debarra buru zela bost toreatzaile arituko ziren.

Antonio Etxeberriak bi egunetarako hiruna nafar–zezen eta bertako bana ekartzea eskaini zuen. Baita idiak ere bertako gaztejendearentzat. Frantzisko Juaristik sei nafar–zezen (seiak hiltzekoak) eta Lasturreko bi ekarriko zituen Manuel Egaña eta bere koadrilak torea eta hil zitzan.

Antonio Etxeberriak ordea, Domingo Mendibil–ekin egindako kontratua erakutsi zuen, eta ondorioz, bere proposamena onartu zen[6].

Donostian, 1867. urtean San Martineko zezenplaza bota egin zuten[7].

Gasteizen 1867. urteko abuztuan korridak izan ziren. Hilaren 4ean Cayetano Sanz eta Salvador Sanchez *Frascuelo* ezpatari zirela, Karrikiriren *Cuartelero* izeneko zezena plazaratu zen bostgarren: gorria, eper–begiduna, adarmakurra ezkerretik. Mateo Lopez banderilaria harrapatu eta larriki zaurituta utzi zuen; adarkada lepoan bait zuen. Ospitalean sendatzen eduki zuten, baina jaten gehiegikeriak egin zituelako odoljarioa berritu eta abuztuaren 23an hil egin zen[8].

Karrikiri–ren beste zezen bat,*Sargento* izenekoa, Bartzelonan nabarmendu zen ekainaren 16an. 24 pikaldi jasan zituen, zezenak berak 10 zaldi hilik utziz[9].

Bilbon ere korridak izan ziren 1867. urtean. Felix Gomez–en ilobaren, Martinez–en eta Aleas–en zezenak plazaratu zituzten Cayetano Sanz eta *Frascuelo* ezpatariak taldeburu zirela[10].

Balmasedan ere izan ziren zezenfestak. Izan ere uztailaren 9an Perez Labordaren Pedro eta Manuel unaiak abiatu ziren hara, Tuteratik ganadua zeramatela[2].

1868. urtean, Bilboko zezenplazan Cayetano Sanz eta *Frascuelo*k lan egin zuten. Martinez eta Pedro Varelaren zezenak korritu zituzten urte hartan[10].

Ekainaren 7an nobillada izan zen, eta bertan guztiz gauza bitxia ikusteko aukera izan zuten bilbotarrek; zezenkoa bizikleta gainetik pikatzea hain zuzen[11].

Bermeon, 1868. urtean Antonio Perez *Ostion* adarkatua izan zen bertako plazan zezenkoak toreatzen ari zela. Aurreko urtean gainera, Domingo Mendibilen koadrilan banderilak sartzen aritua zen[12]. Mendibil toreatzaileak 1868. urteko matxinadan parte hartu zuen, eta ondorioz, Burgoseko polizi inspektore izendatu zuten[13].

Gasteiz–en, 1868. urteko otsailaren 5ean gero zezenko–hiltzaile famatu izango zen Rikardo Lopez Calle jaio zen Kale Berrian[14].

Gasteizen 1868. urteko korridetan, zezen batek suhartasun handia erakutsi zuen. Bederatzi zaldi hil zituen berak bakarrik plazan. Zezen haren burua Frantzisko Berrueta apaiz jaunak naturalizatu egin zuen[15].

Urte hartantxe, Pablo Gorosabel historialari tolosarra hil egin zen. Baina aurrez, idatzirik utzi zuen Gipuzkoako zezenfestetako hainbat berri. Hark zioenez, korridak Donostian abuztuko andramarietan, Tolosan sanjoanetan, Azpeitian saninaziotan eta Deban sanroketan egiten ziren.

Lehen sokamuturra edozein herritan izaten omen zen, eta herri handietan jai-arratsaldero gainera, garizuma edo abenduan ezik. Elizgizonek ere parte hartzen omen zuten etxeko sarrera inguruan beren kapak astinduz. Tolosan ostiralero arratsaldeko hiruretan izaten omen zen sokamuturra. Txistularia aurrean zela, hiltegirako idirik suharrenetako bat ateratzen omen zuten[16].



12.1. irudia. Zezenkoa bizikleta gainetik pikatzen Bilbon.

Donostian, urtea hasita berehala izaten zen sokamuturra. Han txistulariak *Iriarena* doinua jotzen zuen noiznahi sokamuturra zenean. Sansebastian festetan danborradan *xexenarena* izeneko doinua era jotzen zuen *La Euterpe* elkarteak, upelatxo eta guzti[17].

Sokari lotutako zezena alderdi zaharrean erabiltzen zuten; Konstituzio–plazan eta inguruetan. Dena den, harresiak bota eta alderdi berrian etxeak eta kaleak egiten hasiak ziren. Simon *Makarrak* behintzat han zuen bere errementeria eta bertan egiten zituen banderiletarako garrangak[18].

Azpeitian 1868.eko saninaziotarako arauak argitaratu zituen Udalak. Abuztuaren 2an igande zenez gero, hiru nobilada izango ziren. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean Nafarroako bina zezenko (hiltzekoak) eta bertako bi plazaratuko ziren. Sarrera lau erreal kobratuko zen. Nafarroatik ekarritako ganaduak, gutxienez 32 erralde izango zituen.

Abuztuaren 2an bertako lau zezenko toreatuko zituzten eta bat hil ere bai. Gutxienez lau toreatzailek parte hartuko zuten, bat ezpatari eta beste bat ordezko zirela.

Antonio Etxeberria jaunak onartu zituen baldintza haiek eta bere gain izan ziren urte hartako azpeitiar nobilladen antolaketak[6].

Iruñeko sanferminetarako, 1868. urtean Antonio Carmona *Gordito* kontratatzea lortu zuten. 36.000 erreal emango zizkioten lana egiteagatik. *Gordito*k plaza erdibituta toreatzerik ez zuen onartu. Beste ezpataria, Rafael Molina *Lagartijo* izan zen. Hark 32.000 erreal edo 3.200 ezkutu kobratu zituen. Soberako zezena hiltzeagatik, ez *Gordito*k eta ez *Lagartijo*k ez zuten diru gehiago

eskatzeko eskubiderik.

Bi ezpatarien koadrila osatuz, pikatzaile hauek etorri ziren Iruñera: Onofre Alvarez, Juan Trigo, Antonio Calderon, Jose Marqueti eta Antonio Morales (azken hau ordezkoa). Banderilak sartzen honako hauek parte hartu zuten: Jose Lara *Chicorro* (ordezko ezpatari ere bazen), Francisco Tores *Chesin*, Juan Cirineo, Juan Yust, Jose Delgado *Gallito* eta Benito Garrido *Villaviciosa*. Sastakari-lanak egiten Jose Diaz *Mosca* aritu zen.

Zezenak, Zalduendo, Perez Laborda, Raimundo Diaz (Funesekoa) eta Karrikirirenak izan ziren. Ganaduzale bakoitzak zazpi zezen bidali zituen, Karrikirik ezik; honek hamar bidali bait zituen.

Ganadutegi-lehiaketa eratu zen sanferminetako korrida haietan. Julio Diaz, Cayo Escudero eta Barrot-eko konteak osatutako epaimahaiak, saria (zilarrezko zigarrontzia eta diploma) Raimundo Diaz funestarrari ematea erabaki zuen, batezbeste zezenik onenak berak bidali zituelako[19]. *Zamarro* izeneko zezenak 9 zaldi hil eta hiru pikatzaile zauritu zituen[5].

Perez Labordaren zezenak, uztailaren 8an korritu ziren. Hirugarren zezenaren gainetik salto egin zuen hagaz banderilari batek, eta gero banderilari berberak, aulkian eserita banderilak sartu zizkion iskintxo eginez. Ondoren, jendeak eskatuta, *Gorditok* zapi-ezpatak utzi zizkion eta banderilariak bigarren kolpean hil zuen zezen gaztainkara hura.

Urte hartan Iruñean, hogeitazazpi zezen hil zituzten korridetan. 4.430 kilo okela saldu ziren 1.416 ezkuturen truk[2].

1868. urteko santanatarako, Tuteran Ospitaleak obrak egin zituen bere zezenplazan. Torileko atea lekuz aldatu zuten batetik, zezenek irteeran aurrez aurre zutelako, eta lehendakariaren palkoa ere bai bestetik. Palko dotore eta eder bezain eguzkitsua egin zuten ordea, eta agintariak izerditan egonak ziren 35ºko tenperaturan (itzalean), egun haietan bero egin zuelako. Obra 40.000 erreal kostatu zitzaien[4].

Tuterako plaza, Manuel Lizaso ganduzale tuterarraren esku zegoen orduan, baina Manuel jauna hil egin zen. Ganadutegiak bere bi anaien esku (Anizeto eta Jose-ren esku) segitu zuen[2].

Ospitaleak berak antolatu zituen santanatako festak 1868. urtean. Korridez gain estropadak ere izan ziren. Ebro ibaian arraunean aritzeko, Antselmo Gurrutxaga eta hamabi marinel donostiar kontratatu zituzten.

Korridak uztailaren 26 eta 27an izan ziren. Rafael Molina *Lagartijo* 31.000 errealetan kontratatuta etorri zen, Domingo Mendibil ezpatariarekin batera[4]. Antonio eta Manuel Calderon, Jose Marqueti eta Luis Torrijos pikatzaileekin batera Juan Yust, Jose Gomez, Benito Garrido, Rafael Bejarano, Benito Abasolo *Vinagre* eta Rafael Luqui banderilariak aritu ziren[2].

Uztailaren 26an Perez Labordaren sei zezen hil zituzten. Zezenak 2.600na erreal kostatu ziren eta portaera onik ez zuten erakutsi.

Uztailaren 27an Karrikiriren sei zezen plazaratu ziren. 2.800 erreal kostatu zen bakoitza. Oso onak suertatu ziren; bigarrena eta seigarrena batez ere. Seigarrenak bederatzi zaldi hil zituen plazan, eta ikuiluan gero beste lau ere hil ziren. Jendeak zezena ez hiltzea eskatu zuen, eta halaxe gertatu zen.

Antonio Calderon pikatzailearen ustetan, bere bizialdian pikatutako korridarik onenetakoa izan zela zioen, baina bere eritziz bigarren zezena izan zen suharrena[4].

Jende asko joan zen Tuterako korridetara, baina administrazio txarragatik edo, dirua galdu egin zuten.

1868. urtean, Nazario Karrikiri bere koinatu Juan de Dios Mosso Irure jaunarekin elkartu egin zen (Espoz y Mina–ko kontearekin)[20].

Manuel Lizaso zenaren anaiek, 1868. urtean beren zezenak saltzerik ez zuten lortu eta horregatik irailaren 6rako Tuteran beste korrida bat prestatzea bururatu zitzaien. Agustin Perera eta Gerardo Caballero ezpatariak ekarri zituzten[4].

1868. urtean, Perez Laborda tuterarrak Saint Justin herrira (Landetako Mendi Martzana ondora) sei behi bidali zituen. Pedro unaia bi peoirekin joan zen ganadua eramatera[2]. Nafarroako behi haiek, Lapurdiko edo Landetako zezenketarako eramango zituzten, noski.

1868. urtean Madrilen bertako plazako korridetarako arautegi bat argitaratu zuen gobernadoreak. Arautegiak, lehen mailako ganadutegiak aipatzen ditu. Nafarroan, Karrikiri, Sobonda (Laborda izango da) eta Zalduendo jotzen dira lehen mailakotzat[21].

1869. urtean Iruñeko sanferminetarako, Antonio Carmona *Gordito* eta Rafael Molina *Lagartijo* kontratatu zituzten. Batak 36.000 erreal (3.600 ezkutu) eta besteak 32.000 erreal (3.200 ezkutu) kobratu zituen. Udalak dena den, 4.129 ezkutu irabazi zituen korrida haietan[19].

Gordito eta *Lagartijo*ren koadrilan, honako pikatzaile hauek etorri ziren: Onofre Alvarez, Juan Antonio Mondejar *Juaneca*, Antonio Calderon, Jose Marqueti eta Antonio Morales (azken hau ordezko). Banderilariak hauek izan ziren: Jose Gimenez, Rafael Piñero, Vicente Mendez *Pescadero*, Juan Yust, Jose Delgado *el Gallito* eta Benito Garrido *Villaviciosa*. Sastakari gisa Juan Diaz *Mosca* aritu zen.

Zezenak, uztailaren 7, 8, 9 eta 11n jokatuko ziren. 9an, goizean *proba* izan zen. Zalduendok bost urteko zazpi zezen bidali zituen (dibisa urdin–gorria zuten) eta bat soberakoa zen, Perez Labordak lau urteko hiru eta bost urteko bat (azken hau soberakoa), Nazario Karrikirik bost urteko hamaika eta lau urteko hiru (hauetako bi soberakoak) eta Funeseko Raimundo Diazek lau urteko zazpi (bat soberakoa).

Uztailaren 9ko proban (goizean), Perez Labordaren hiru zezen toreatu ziren. Lehenengoak Onofre eta Calderon pikatzaileak lurrera bota zituen eta zaldi bat ere hil zuen. *Gordito*k, kanela eta zilar, bigarrenean hil zuen pase natural bat eta zortzi aldatu eman ondoren.

Bigarren zezena koldarra zelako, suzko banderilak ipini zizkioten Yust eta *el Gallito*k. *Lagartijo*k hil zuen bigarrenean.

Hirugarren zezenak barrerak bitan saltatu zituen hasieran, baina pikatu ahala ausart bihurtu zen. Carmonak utzita, Vicente Mendez banderilariak tresnak hartu eta bigarren ezpatakadaz bota zuen *Chamuro* izeneko zezen hura.

*Lagartijo*k lana *Gordito*k baino hobeto egin zuen. Zezenek berriz, portaera kaskarra izan

zuten plazan goiz hartan[2]. Gainerako korridetako berriak biltzerik ez dugu izan.

Aurreko urtean, Isabel II.a erregina bere tronotik bota egin zuten irailean Prim, Serrano eta Topetek tropak altxatuta. Orduan sortu zen egoera berriaren ondoren, Tuteran giro onik ez zegoen eta ez zuten 1869.eko santanatarako ez korridarik eta ez nobilladarik antolatu[4]. Urrian sokamuturra izan zen, Isabel erreginaren destronatzea ospatzeko. Perez Labordaren zezen bat erabili zuten Plaza Berrian eta kalez kale, azkenean Castel Ruiz plazan hil zuten arte[22]. Nahiz eta Mariano Sanz tuterarrak sokamuturra 1869. urtean izan zela esan, aurreko urteko urrian gertatua izatea posible dela uste dugu. Orduan bidali bait zuten erregina erbestera.

Azpeitian 1869. urteko saninaziotan, Antonio Etxeberriak antolatu zituen nobilladak. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean Lasturreko launa zezenko fresko txuliatu eta banderilaztatu zituzten toreatzaile gipuzkoar eta bizkaitarrek. Larrabehia ere atera zuten bertako gaztejendearentzat. Sarrerak, bi erreal balio zuen[6].

Donostian, 1869.eko ekainaren 23an, Luis Ramirez Martxariena jaio zen; gero toreatzaile famatuekin banderilari gisa lan egingo zuena[8].

Gasteizen, 1869.eko abuztuaren 8,9 eta 10ean, Vicente Martinez, Zalduendo eta Veragua-ren zezenak jokatu zituzten. Rafael Molina *Lagartijo* eta Arjona *Currito*k parte hartu zuten. Jendea oso pozik atera zen korrida haietatik[15].

Bilbon 1869.eko abuztuan ospatutako korridetan, *Currito* eta *Frascuelo*k Veragua, Vicente Martinez eta Justo Hernandez–en zezenak hil zituzten[10]. Vicente Martinez–en *Cartujo* zezena (abuztuaren 22an jokatua) hamazazpi pikaldi jasan eta bost zaldi hil zituelako nabarmendu zen. Abuztuaren 21ean berriz, Veragua-ko dukearen *Perrero*k sei zaldi hil zituen hemeretzi pikalditan[9].

1869. urteko urtarrilaren 10ean, Madrileko plazan Joana Berikoetxea (Berakoetxea izango zen) emakume arabarra aurkeztu zen zaldi gainetik burtziak sartzera. Batzuek diotenez, Nikolasa zuen izena burtzikari eta pikatzaile gisa lanean aritu zen emakume hark.Lehiaketetan beti izan omen zen saritua [21].Europako zenbait gobernuren dominak ere jaso omen zituen zaldiketan nabarmendu zelako.

XIX. mendearen azken aldera Maria Agirre *Charrita mejicana* ere famatu egin zen burtziketan lana ondo egiteagatik[9]. Garai hartan izan ere emakumeengan toreatzaile edo burtzikari izateko joerak indar hartu bait zuen.

Zezenei dagokionez, 1869. urteko beste bi albiste aipagarri dira. Bata, martxoan Madrileko kartel iragarleak zioena da. Izan ere korridetarako zezenak trenez abiadura handiz joango ziren. Bestea, Akitaniako Joseph Yonnet ganaduzale landetarrak egindako saioa da. Karrikiriren zezenak Camarga–ko behiekin nahastu zituen. Handik ez zen emaitza onik atera. Korridetarako ez ziren egokiak; latzegiak bait ziren[23].

———— o ———— o ————

1870. urtean, Bilboko zezenplaza berritu egin zuten. Zurezko plaza biribil hartan obrak egin zituzten, palkotaraino harrizko hormak eraikiz. Abuztuko korridetan, *Lagartijo* eta *Frascuelo*k Veragua, Concha y Sierra, Martinez eta Felix Gomez–en zezenak toreatu eta hil zituzten[10].

Abuztuaren 22ko korridan, *Amapolo* izeneko zezenak 27 pikaldi jasan eta zortzi zaldi hil

zituen. Cossio–k dioenez, Perez de la Concha–rena zen zezena[9], baina Jose Cortes–en arabera Concha y Sierraren zezenak jokatu ziren Bilbon urte hartan.

Elkano eta Fernandez del Campo kaleetan zegoen plaza hartara, zezenak egunsentian sartzen zituzten. Korridetarako kartelak Bilbon Jose Bringas litografoak egiten zituen eta hamabost egun lehenago enpresak plaza ireki egiten zuen, eserlekuak, palkoak, torilak, kortak, hiltegia, erizaindegia etab. jendeak ikus zitzan.

Zezenak Berberana–ra (Urduñara) heltzen zirenean, batzuk bertara joaten ziren ikustera. Beste batzuk geroago, zezenak Amurrion ikusten zituzten, eta azkenik San Roken ere bai. Lehen korridaren egunsentian, jendea Iturrigorrira joaten zen eta handik joaldun– eta zezen–taldearen aurrean korrika eginez plazaraino heltzen ziren entzierrozaleak.

Zezenplaza hark 9.000 ikuslerentzat lekua zuen. Zezenak ikustera, normalean familia osoa joan ohi zen; etxeko jauna bere emazte, ume, askari eta guzti.

Bilboko zezenplazako enpresak, unanmaizter aditu bat zuen zezenak aukeratzeko eta ganadutegitik plazaraino oinez garraiatzeko. Gero garraiorako kaxa handi batzuk egin zituen, baina sistema hura kaltegarria zelakoan, zezenak oinez garraiatzen hasi ziren berriro. Andalusiako zezenak Colmenar–eko belardietan edukitzen zituzten indarberritzen, eta gero handik Gaztelako zezenekin batera Burgoseraino etortzen ziren. Han ere enpresak bere belardiak zituen ganaduak indarrak berreskura zitzan[10].

1870. urtean donostiarrek urtarrilean sansebastianetako tanborradan txistulariek *Iriarena* jota sokamuturra izan zuten. Gero ihauterietan nafar–zezenkoak jokatu ziren, jaialdiko buru Tabuyo jauna zelarik[17].

Ihauterietakoak, hiltzeko zezenak izan ziren alderdi zaharreko Plaza Berrian (Konstituzio–plazan); zalduniote eta astelehen ihaute egunez hain zuzen. Hara zer bertso jarri zituen martxoan Donostian bizi zen Ramon Artola tolosarrak:

1/ *Igande astelen*
artsalde bietan,
plazan arkitu gera
festa aundietan,
obiagorik asko
gure begietan,
eztala jarri nago
iñauterietan.

2/ *Aukeran ekarriyak*
zituzten zezenak,
Nafarruatik, biña
urte zituztenak,
len plazarik ikusi
izan etzutenak,
txarrik bat etzan irten,
fiñak ziran denak.

3/ Lanzaz zulatu arren
izutzen etziran,
aberien triparen
azpiyan maiz ziran,
adarretan bolakin
izan ezpaziran,
plazan zaldiyak illtzen
ikusiko ziran.

4/ Zinta zabal kolore
guztiyetakoak,
biatz delikadubak
apaindutakoak,
zezenen lepoetan
denak alakoak,
ziran erregaliyak
Donostiyakoak.

5/ Nola toliatzalle
ala lantzadunak,
duan ziran plazara
prestatuak danak,
festagille egoki
alkarren lagunak,
guziyak errikoak
gure ezagunak.

6/ Muestrak eman zituzten
zirala abillak,
nola lantzakin ala
sartzen banderillak,
golpian zezen asko
izan ziran illak,
ezeren aitzakirik
etzuten kuadrillak.

7/ Oyez gañera ziran
zaldunen konpartsak,
iri jokari eder,
subak eta dantzak,
musikak danboliñak,
gaztien jolasak,
zeru berri bat zala
zirudiyen plazak.

8/ Azken iñote gabaz
entierro bat zan,
sardin zarrari egin
ziyotena plazan,
bazan zenbait diabru

kantatzen da dantzan,
festaren bukaera
arrekin eman zan.

Kaietano Prol nabarmendu omen zen korrida haietan ijito jantzian[24].

1870. urtean, Donostian zezenplaza berria egin zuten San Martineko zaharra zegoen lekuan. Zurezkoa omen zen eta 9.000 eserleku omen zituen[9]. Serapio Mujikak dioenez eta arestian adierazi dugunez, San Martinen zegoen zezeplaza hiru urte lehenago bota egin zuten[7].

1870. urte hartan, Madrilen Antonio Peña y Goñi donostiarra zezen-korridatako gorabeherak ikasten hasi zen[25]. Gero kritikalari famatu izan zen. Madrileko aldizkari desberdinetan argitaratu zituen bere kronika eta kritika-lanak *el tio Jilena, seña Pascuala Liendres, Toribia* etab. izenordeak erabiliz[26].

Azpeitian 1870. urteko saninaziotan zezenfesta handirik ez zuten izan. Larrabehi edo zezenkoren bat edo beste bakarrik korritu zen matxinada-giroa zegoelako[6].

Urte hartan, Savoie-ko Amadeo erregearekin batera Marchino jauna etorri zen Madrilera; zaltegien burua. Marchino jaunaren idazkari gisa Luis Mazzantini elgoibartarra etorri zen Erromatik[27]. Izan ere hiru urte lehenago Mazzantini familia Bilbotik irten eta leku desberdinetan bizia zen: Marseille, Livorno, Civitavecchia, Napoli, Foligno, Velletri, Frascati eta Erroman hain zuzen. Erroman eskolapioen ikastetxe batean egin zituen Luis Mazzantinik ikasketak[8].

1870. urtean bidaia luzea egin zuen beste bat, Manuel Miranda enpresari perutarra izan zen. Nafarroatik behiak eta zezenak eraman zituen Perura. Colmenar, Veragua, Mihura eta Mazpule-ren ganadua ere eraman zuen[28].

Nafarroako herri askotan, festetan herriko plaza itxi eta larrabehiak korritzen ziren. 1870. urtean Allo-n (Lizarratik hegoaldera) jokatu zituzten, eta hurrengo ia urte guztietan ere bai[29].

Tuteran, 1870. urtean Udalak 5.000 erreal eman zituen santanatan korridak antolatzeko. Jose eta Anizeto Lizaso anaiak animatu ziren beste batzuen laguntzaz urte hartako zezenfestak antolatzera. *Currito* eta Uztailaren 19an alternatiba hartuberria zen Jose Machio toreatzaileak ekarri zituzten. Uztailaren 26an Perez Labordaren hiru zezen eta Lizaso anaien beste hiru jokatu ziren. Txarrak suertatu zitzaizkien ordea, eta jendea ez zen pozik atera. Biharamunean, Zalduendoren sei zezenek portaera hobea izan zuten. Zezen bakoitza 3.200 erreal kostatu zen, eta korrida bakoitzerako sarrera, zortzi erreal. Enpresariek 14.000 erreal galdu zituzten[4].

Iruñean 1870. urteko sanferminetarako *Lagartijo* eta *Frascuelo* kontratatu zituzten. *Lagartijo* egun batzuk lehenago zauritu egin zen ordea eta haren ordez bi korridetarako Francisco Arjona Reyes *Currito* eta beste bietarako Antonio Luque *Cordoba-ko Cuchares* kontratatu zituzten.

Uztailaren 10ean dena den beste ohar bat argitaratu zuten, Antonio Luque bezperan zauritu zelako sei zezenak *Frascuelo*k hilko zituela esanez. Ordezko ezpatari, Juan Yust izango zen.

*Lagartijo*k dena den, 3.200 ezkutu kobratu zituen eta haiekin *Currito* eta Luque-ren lanak ordainduko zituen. Udalak korrida haietan, 1.056,5 ezkutu irabazteko modua izan zuen[1].

*Frascuelo*k 2.800 ezkutu jaso zituen bere eta bere koadrilaren lanagatik. Lau korrida eta proban parte hartu zuen.

Udalak zezenak eta zaldiak ere ekarri zituen korridetarako. Zaldiak 31.400 erreal kostatu zitzaizkien.

Zezenak berriz, honako ganaduzale hauenak izan ziren: Zalduendoren alargunarenak sei, Bizente Perez Labordarenak sei (15.600 errealetan), Nazario Karrikirirenak sei, Funeseko Raimundo Diazenak sei eta Ejeako Gregorio Ripamillanenak hiru.

Uztailaren 8an, bigarren korridan, Perez Labordaren ganadua jokatu zen, eta labur esanda, honela burutu zen korrida: Lehen zezenak bi zaldi hil zituen eta *Currito*k bigarren ezpatakadaz bota zuen *Lorito* izeneko zezen hura. Bigarren zezena *Frascuelo*k ezpatakada batez hil zuen eta belarria eman zioten. Hirugarren zezenak hiru zaldi hil zituen *Currito*k hil baino lehen. *Cucharesen* semeari zezena eman zioten saritzat. Laugarren zezenak ere hiru zaldi hil zituen eta *Frascuelo*ri, hil zuenean, belarria eman zioten. Bostgarren zezenak ere hiru zaldi hil zituen *Currito*k hiru ezpata-kolpez harenak egin baino lehen. Seigarren zezenak beste hiru zaldi hil zituen eta *Frascuelo*k lehenengoan sartu zion ezpata hondoraino.

Guztira 14 zaldi hil ziren plazan arratsalde hartan. *Frascuelo*, *Currito* baino hobeto egon zen eta lehendakaria (Luis Iñarra alkatea) gaizki, belarri gehiegi eman zuelako. Pikatzaileak, Francisco Calderon, Jose Marqueti (hau izan zen onena) eta Luis Torrijos izan ziren. Banderilak sartzen, Juan Yust, Jose Gomez, Benito Garrido *Villaviciosa*, Rafael Bejarano *Cano*, Juan Mota, Pablo Erraiz, etab. aritu ziren.

1871. urtearen hasiera, ez zen batere ona izan Nafarroako Erriberan. Urtarrilaren 10, 11 eta 12an Ebro ibaiak gainezka egin zuen eta bere ertzetan bazkatzen zen behi eta zezen asko uholdeak eraman zuen. Milagro ondoko *el Hormiguero* belardian bakarrik 33 buru galdu ziren[2].

Iruñean 1871. urtean Esteban Legarda zurginak hartu zuen sanferminetako korridak antolatzeko ardura. *Frascuelo* eta bere koadrila 33.000 errealetan etorri ziren. *Currito* berearekin berriz 27.000 errealetan[1].

Lau korridatan, 27 zezen toreatu eta hil zituzten. Karrikiri, Perez Laborda, Raimundo Diaz, eta abarren zezenak ziren. Karrikiriri 24.000 erreal eman zizkioten eta gainerako ganaduzaleei hogeitabina mila erreal.

Uztailaren 7an Perez Laborda eta Raimundo Diaz-en zezenak jokatu ziren. Uztailaren 8an berriz, Raimundo Diaz-enak bakarrik.

Zezenak pikatzen, Juan Trigo, Jose Calderon etab. ibili ziren. Banderilak sartzen berriz, Julian Sanchez, Mariano Anton, Pablo Erraiz, Francisco Sanchez, Esteban Arguelles *Armilla*, Victoriano Alcon *el Cabo* etab. Isidro Buendia zen sastakaria.

Uztailaren 7ko korridan, hirugarren zezenari (*Asesino* izeneko tuterarrari) suzko banderilak ipini zizkioten. Laugarren zezenak hirutan saltatu zuen barrera. Gizon bat harrapatu zuen, baina zauritu gabe. Zortzi zaldi hil ziren guztira.

Esteban Legarda enpresari jaunak dena dela, urte hartan oztopoak ipini zituen zezenen entzierroak egiteko, baina Udalak ohi bezala egin zitezen agindu zuen[2].

Urriaren 14ean, gero zezenko-hiltzaile izango zen Kalisto Gaston Nonviela jaio zen Iruñean[8].

Tuteran 1871. urteko maiatzaren 29an kalte handiak izan ziren uholdeak medio. Anizeto Lizaso eta Raimundo Diaz-ek uztailaren 26 eta 27an bi korrida antolatzeko proposamena egin zioten Ospitaleari, neurri batetik gora biltzen zutena kaltetuentzat emango zutela esanez. Ez ziren akordiora iritsi.

Domingo Burgaleta zinegotziak orduan, korridak Udalak berak antolatzea egokiagoa zela zioen. Beraz, hiru zinegotzi hasi ziren bi korrida haiek emateko bideak urratzen.

Uztailaren 11n ordea, berebiziko istiluak izan zituzten udaletxean, zinegotzi batzuek dolu egunetan korridak antolatzea desegokia zela ziotelako. Botuetara jota ezezkoak irten zuen, baina gero herriko jendearen eta abarren eraginez baiezkoa atera zen.

Karrikiri, Zalduendo, Raimundo Diaz eta Elortz-en hiruna zezen toreatu ziren uztailaren 27 eta 28an. Korridak egun bat atzeratu ziren *Frascuelo*k Donostian 23, 24 eta 25ean korridak zituelako. Zezen bakoitza 1.300 erreal kostatu zen eta *Frascuelo*k 23.500 erreal kobratu zituen taldeburu zelako. Bigarren ezpataria, Vicente Garcia Villaverde izan zen.

Lehen korridako seigarren zezenak (Diez-enak) zazpi zezen hil zituen, eta bigarren korridako bostgarrenak (Karrikiri-renak) beste sei[4].

Donostian 1871.ean uztaileko korridak baino lehen, urtearen hasieran sansebastianetan sokamuturra izan zuten. Han ikusi ahal izan zituzten herriko pertsonaiarik xelebreenak: *Pello Txinel, Brokolo, Anton, Pedro Txiki, Gipuzkoano, Tanga, Pañiku, Ixkiña, Pello Espain*, Anjel Minondo, *Axaxorte* etab.[17].

1871. urtean saninaziotan Agustin Jauregi parrokoa gartzelan zegoelako, Azpeitiko elizgizonek ez zuten parte hartu elizkizunetan. Antonio Etxeberria jaunak ordea bi nobillada antolatu zituen. Bi nobillada izan ziren, bakoitzean inguruko lau zezenko eta toreatzaileek parte hartu zutelarik[6].

Gasteizen 1871. urteko abuztuaren 4 eta 5ean korridak izan ziren. Nafar-zezenak jokatu ziren, Manuel Arjona eta Jose Lara *Chicorro*k parte hartu zutelarik[15].

Bilbon, 1871. urtean Veragua, Mihura eta Concha y Sierraren zezenak korritu zituzten. *Lagartijo* eta *Currito* joan ziren beren koadrilekin haiek hiltzera[10]. Abuztuaren 22an Bilbon, Antonio Mihuraren *Sonajero* zezena nabarmendu zen. Bederatzi zaldi hil zituen 16 pikalditan. *Lagartijo*k hil zuen[9].

1872. urtean, Mihura eta Laffite-ren zezenak etorri ziren Bilbora. *Lagartijo* eta *Frascuelo*k hil zituzten[10]. Abuztuaren 18an, Mihuraren *Huron* zezenari hiru banderila-pare bikain sartu zizkion Antonio Perez *el Ostion* arabarrak. Antonio Perez orduantxe aurkeztu zen Bilbon. Urdufian, Orozkon eta Bermeon aurrez toreatzen ibilia zen.

Huron zezena ondo banderilaztatzeagatik, Antonio Perez-entzat eskatu zuen Bilbon jendeak sari gisa, baina gero *Lagartijo*k oso ondo hil zuelako, cordobarrarentzat eskatu zuen berriz[8].

Dena den, 1872. urtean Gasteizen bi arratsaldetan Antonio Perez *el Ostione*k zortzi nafar–zezen toreatu zituen, Gregorio Olalde lehendakari zela[15].

1872. urtean Donostian sokamuturra Gipuzkoako plazan egitea nahi izan zuten agintariek. Jendeak ordea, zezena eta soka hartuta Konstituzio–plazara eraman nahi izan zituen. Sokamuturraren lekua hura omen zen, ziotenez. Istiluak medio, urte hartan sokamuturrak debekatu egin ziren[17].

1872. urte hartan Theophile Gautier idazle frantziarra hil egin zen. Korridetako giroa eta gertakizunak bere liburuetara jasotzen saiatutako idazlea dugu. Bere nobela batean, Lizaso–ren zezena aipatzen du eta Juantxo toreatzailearen bizimodua deskribatu ere bai[30].

Urte hartantxe, Miguel Poyales korellarrak bere ganadutegia Alfaroko Ebarisko Etxague jaunari saldu zion[5].

1872. urtean Iruñeko Udalak berak antolatu zituen sanferminetako korridak. *Frascuelo* 8.250 pezetatan ekartzeko kontratatu zuten, eta Antonio Carmona *Gordito* 9.000 pezetatan.

Gerraren usaina ordea edonork suma zezakeen eta sanferminetan korridarik ez zen eman. San Fermin egunez arratsaldean, behiak korritu ziren.

Dena dela geroxeago giroa baketsuago zegoenez gero, abuztuaren 11 eta 12rako bi korrida eta goizeko proba bat iragarri zituzten Iruñean. Francisco Arjona Reyes *Currito* etorri zen toreatzera bere koadrilarekin.

Honako ganduzale hauek, hiruna zezen bidali zituzten Iruñera: Zalduendoren alargunak (dibisa urdin–gorria), Bizente Perez Labordak (dibisa zuria), Nazario Karrikirik (dibisa gorri–berdea), Funes–eko Raimundo Diaz–ek (dibisa gorri–horia) eta Azkoieneko Pedro Galo Elortz–ek (dibisa horia).

*Currito*k korrida haietan 8.250 pezeta kobratu zituen, eta Udalari 4.241,5 pezetako galerak sortu zitzaizkion[1].

Abuztuaren 12an goizean izan zen probako korrida. Perez Labordaren bi zezen eta Elortzen bat jokatu ziren. *Currito*k lehenengoa eta hirugarrena hil zituen eta Angel Fernandez *Valdemoro*k bigarrena. Mariano Anton, Julian Sanchez, Pedro Fernandez *Valdemoro*, Victoriano Alcón *el Cabo*, Jose Torrijos eta abar aritu ziren banderilak sartzen[2].

Armagnac–eko Labastide herrian bestetik, Maragnon toreatzailea hil egin zen plazako istripuz[31].

1873. urtean bigarren Karlistada altxatu zen, eta gerra–giro hartan Iruñean sanferminetan ez zen korridarik izen. Ergiak korritzeko proposamena egon zen ordea. Pablo Deseus iruindarrak, Vicente Ortega–k zuzendutako ume toreatzailez osatutako koadrilak bi t'erdi eta hiru urte bitarteko xexenak hiru egunetan torea zitzaten plaza eskatu zuen. Uztailaren 9an goizean gainera, sei zezenko jokatuko ziren bertako jendeak doan goza zezan[19].

Tuteran ere ez zen 1873. urtean korridarik izan gerra medio. Bizente Perez Laborda tuterarrak ordea, abenduaren 31n bere ganadutegia saldu egin zuen. Tomas Moreno notariaren aurrera Bizente agertu zen; abokatua eta ganaduzalea, 48 urtekoa. Baita Joaquin del Val zaragozarraren izenean

Ignacio Aparicio Navarro ere.

Joaquin del Val-ek honako ganadu-talde hau erosi zion tuterarrari: 23 behi (850na errealetan), hiru urteko 3 behi (630na errealetan), bi urteko 12 behi (500na errealetan), lau eta bost urte bitarteko 5 zezen (1875na errealetan), lau urteko zezen bat (1450 errealetan), hiru urteko 3 zezenko (3.450na errealetan), bi urteko 15 ergi (1030na errealetan), urteko 20 (625na errealetan) eta abar.

Ordainketa epeka egingo zuen Joaquin del Val-ek; erdia hurrengo urtean eta gainerakoa hurrengoan.

Bizente Perez Labordak urtebetean prezio hartantxe behi eta zezen batzuk erosteko eskubidea beretzat gorde zuen. Horregatik abereek ezkerreko hankan P marka izango zuten eta haiek toreatzerik, korritzerik edo saltzerik ez zen egongo[2].

Joaquin del Val harakinak, gero Zaragozako plazan emandako nobilladatan desegin zuen Perez Labordarengandik jasotako ganadua[4]. Karrikiriren behiekin ere nahastu omen zuen del Val-ek Perez Labordaren kasta[5].

1873. urtearen hasieran, sansebastianetan Donostian soldaduak gerrara zihoazenarekin batera sokamuturra izan zuten[17].

Donostian eta Bilbon, korridarik ez zen ospatu gerrak iraun zuen bitartean[10].

Dena dela Xabiera Bidaurre izeneko emakume pikatzaile bat, Martina Garcia toreatzailearen koadrilan lanean aritu zen 1873. urtean eta hurrengoan[9]. 1874. urtean, abuztuaren 16an, Madrilen Alcala-ko portalearen ondoko plazan eman zen azkeneko nobilladan Xabierak banderilak sartu omen zizkion bolaztatutako zezenko bati[21].

Euskal Herriko hiriburutan dena den, bigarren karlistadaren ondorioz ez zen korridarik eman 1874. urtean. Bartzelonan izan zuten ordea ekainaren 28an. Han Karrikiri-ren *Artillero* izeneko zezenak Pedro Aixelá Torner *Peroy* adarkatu zuen, larriki zaurituta utzirik. *Gorditok* hil zuen zezen hura[9].

Madrilen berriz, Antonio Peña y Goñi kazetaria *El Imparcial* aldizkarian zezenez idazten hasi zen; maiatzaren 28ko korridaren berriak emanez hasi ere.

Kazetari donostiarrak, korridetako istripuei buruz datu interesgarririk eman zuen. Madrileko plaza zaharrean (Alcala-ko portalearen ondokoan), 127 urtean 38.100 zezen hil omen ziren eta zortzi toreatzaile (zortzi bakarrik). 4.750 zezeneko toreatzaile bat. *Pepe Illo, el Cano* eta *Pepete* zezen-hiltzaileak, Parraga eta *Barragan* zezenko-hiltzaileak, *Bocanegra* banderilaria, Luna pikatzailea eta Oliva zezenzalea[25].

1874. urteko urrian, Bizente Perez Laborda tuterarrak behi batzuk hiltzeko saldu zizkion Kalagorriko Agustin Beriain jaunari[2].

———— o ———— o ————

Bilbon 1875. urtean ere ez zen korridarik izan karlistada zela eta. Gerrate hartan, Antonio Perez Peciña *el Ostion* Bilbon zegoen liberalekin. Toreatzaile baino lehen igeltsero izan omen zen

biasteriar hura, eta apostuzalea ere bai.

Bilbo karlistek setiatua zuten garai hartan eta barruko liberalak janariz gaizki zebiltzan; oso gaizki azkenerako.

Bilbo inguruko mendi batean, dotzena bat soldadu liberal (tartean *el Ostion* zelarik) zeuden frenteko txabola batean. Han ere gosea nagusi zen eta belarra jateraino iritsi omen ziren. Perez Peciñak janari bila karlisten lurraldera joatea proposatu zuen, baina plan hura ez zioten onartu.

Horiek horrela, biasteriarra bakarrik abiatu zen ezkutuka, eta hura ikusita beste soldadu liberal batek segitu egin zion senar–emazte karlisten etxe bateraino. Etxe hartan soldadu karlistak zeuden, baina Antonio Perez atea ireki eta ikuiluraino sartu zen, bere laguna labana eskuan zuela zain zegoelarik. Ikuiluan bi zerri zeuden, eta *Ostion*ek bat hanketik heldurik, kanpora atera zuen. Zerria kurrinka hasi zen, noski. Etxe barrutik tiroka hasi ziren, baina Antonio Perez eta lagunak zerri eta guzti ihes egitea lortu zuten[32].

Gerrate hartan, badirudi karlistak ere gauez Bilboko zezenplazaren atzean zegoen txakolindegi batera ere joaten zirela. Egunsentirako alde egiten zuten berriz[33].

1875. urtean dena den, Balmasedan karlistek zezenkoak jokatu zituzten abuztuaren 15ean[34].

Santander–en, uztailaren 25 eta 26rako (igande eta astelehenerako) korridak iragarri zituzten[35]. Toreatzaile–koadrila, Bartzelonatik Perpignan barrena Sokoan sartu zen *San Nicolas* izeneko baporean, eta horrela heldu ziren Santander–era[36].

Bigarren korrida ez zen ona izan. Toreatzaileek zorterik ez zuten izan eta ganadua txarra atera zitzaien[37].

Santanderren, 1875. urteko abuztuan zezenko bolaztatuak jokatu ziren hilaren 1ean eta 8an[38]. Abuztuaren 22 eta 29an berriz, bi korrida ospatu zituzten[39].

Donostian 1875. urteko sansebastianetan, sokamuturra goiz, eguerdi eta arratsaldez korritu zen; Konstituzio–plazan eta Lasala plazan. Gauean berriz, Lasala plazan zezensuzkoa jokatu zuten[40]. Geroxeago, otsailaren hasierako ihauterietan, sokamuturra atera zen berriro[41]. Baita zezensuzkoa ere Konstituzio–plazan[42]. Gero uztailaren 9an ere gauza bera egin zuten frentetik liberalentzat berri onak zetozelako[43] eta abuztuaren 15ean Ama Birjinaren eguna ospatzeko[44].

Hernanin ekainaren 2an plazan goiz eta arratsaldez zezenkoak jokatu zituzten herriaren setio eta bonbardaketaren urteurrena betetzen zelako[45]. Tolosan berriz karlistek jokatu zituzten zezenkoak sanjoanetan ekainean[46].

Gerra hartan Nazario Karrikiri ganaduzaleak zeregin politikoak izan zituen. Izan ere 1875. urteko urtarrilean, Nafarroara etorri eta gero Madrilera itzulita Canovas eta Romero Robledo jaunekin elkarrizketatu zen[47].

Tuteran, 1875. urtean Zaragozako jaun batzuek zezenplaza eskatu zioten Ospitaleari korridak antolatzeko. Gerra bete–betean zegoela, Tuterako karlistak erbesteratzen ari zirenean eta ehuneko 48ko zergak ordaindu behar zituztenean, erokeria zirudien zezenak antolatzea.

Festetan ordea, ikuskizun asko egon zen urte hartan; Gareseko dultzainariak, Logronioko Intsausti-k prestatutako suak, dantzak etab. Korridak ere bai.

Santa Ana egunez, Lizaso ganaduzaleen sei zezen korritu ziren. Beren suhartasuna erakutsi zutelako, jendea pozik atera zen. Angel Fernandez *Valdemoro* eta Jose Ruiz *Joseito* ezpatariek beren koadrilarekin lan egin zuten.

Uztailaren 27an bi behi puntazorrotz jokatu zituzten tuterarrek torea zitzaten. Perez Labordaren bi zezenko ere korritu ziren Juan Ruiz *Lagartijak* (*Valdemoro*ren banderilariak) hil zituelarik. Eta azkenean, beltzez mozorrotutako ume batzuk atera ziren, bigantxa bati burtziak sartu, partxeak ipini eta portugaldarrek bezala oratzera. Haietako ume batek hil zuen bigantxa ezpataz.

Enpresariek 3.000ren bat pezeta irabazi omen zituzten[4].

1875. urtean, gero famatu izango zen Luis Mazzantini elgoibartarrak batxiler ikasketak amaitu zituen. Mazzantini orduan telegrafista egin eta *Compañia de Ferrocariles del Mediodia*n lanean hasi zen[48].

Beste toreatzaile bizkaitar bat, Benito Abasolo *Vinagre* balmasedarra, Bilboko setioan liberalekin zebilen gerrilaren kontrako talde baten buru[8].

Akitaniako Montaut herrian bestetik, 1875.ean korrida landetar gogoangarrian parte hartu ondoren erretiratu egin zen Bernard Lalane *Jean Chicoy* toreatzailea[31].

Bartzelonan badirudi 1875. urtean korridak izan zituztela. Izan ere maiatzaren 2koan *Cortito* izeneko zezenak Felipe Garcia ezpataria izterrean adarkatu egin bait zuen. Maiatzaren 9ko korridan berriz, *Coloso* izenekoak Bernardo Ojeda eta Manuel Zuñiga banderilariak harrapatu zituen eta *Tirabeque* izenekoak Antonio Valero *Papelero* banderilaria. Hiru zezen hauek, Jose Maria de Cossio idazleak dioenez, Roke Alaiza ganaduzale tuterarrarenak ziren[9]. Baina benetan Ebaristo Etxague jaun alfaroarrak bidali zituen Bartzelonara zezenko gisa[26].

Ebaristo Etxague jaunak, hiru urte lehenago Poyales korellarrari erosi zion ganadutegia arestian esan dugunez. Gero, Etxague-k Roke Alaiza tuterarrari saldu zion ganadutegi huraxe; 1880. urtean gehienen ustez eta 1878.ean Sainz-en arabera[5].

Baina gatozen 1876. urtera; bigarren karlistada amaitu zenekora hain zuzen. Izan ere gerra amaituarekin batera zezenfestak ugaldu egin bait ziren.

Tuteran 1876. urtean, zaragozarrek antolatu zituzten zezenfestak santanatan. Uztailaren 26an Felipe Garcia eta Jaun Ruiz ezpatariek Zalduendoren sei zezen akastun toreatzen aritu ziren. Bost bakarrik hil zituzten, seigarrena oso itxura txarrekoa zelako jendeak txistuka barrura sartu erazi zuelako. Sarrera sei erreal ordaindutako ikusleak, haserre atera ziren plazatik oso korrida txarra izan zelako.

Uztailaren 27an, Garziaren taldeak bi akastun zezen hil zituen. Gero, behi bolaztatu bat atera zuten eta bi emakumek saskitan sartuta banderilak ipini zizkioten, eta azkenean haietako batek txinparta elektrikoz hil zuen. Biharamunean ere festa berdina ospatu zen Tuterako zezenplazan.

Enpresariek dena dela, 20.000 errealetik gora irabazi zituzten[4]. Lizaso tuterarren

ganadutegiak hain zuzen, 1876. urteko abuztuaren 6an Cartagena–n izan zuen arrakasta. Izan ere *Generoso* izeneko zezenak (laugarren atera eta *Frascuelo*k hil zuenak) hogeitabost pikaldi jasan zituen.

Urte hartantxe, idazle ezezagun batek *Datos para escribir la historia de las ganaderias bravas de España* argitaratu zuen, eta hark dioenez, 1876.ean Nafarroa, Salamanca eta Portugaleko zezenak jadanik ez ziren korritzen plaza nagusitan. Nafar–zezenak suharrak eta itsaskorrak izan arren, oso txikiak omen ziren, eta ikusleek zekortzat hartzen omen zituzten, nahiz eta izan ez[5]. Bartzelonan ordea ekainaren 4ean Gregorio Ripamillan ejeatarraren zezenkoak (lau urtekoak eta puntazorrotzak) korritu ziren. Jose Ruiz *Joseito* eta Remigio Frutos *Ojitos*ek hil zituzten. Abuztuaren 20an berriz, ganaduzale berberaren zezenak jokatu ziren eta ikusleek pozik txalotu zituzten. Baita *Frascuelo* eta Manuel Hermosilla ere[26].

Iruñean 1876. urtean, Udalak zezenplaza ez alokatzea erabaki zuen. Berak antolatuko zituen beraz sanferminetako korridak. Sistema berari jarraituko zitzaion hurrengo urteetan ere aldaketa handirik gabe, 1922. urtean bertako Errukietxeari eskubide eta ardura guztiak utzi zizkion arte.

Baina gatozen 1876. urtera. Izan ere Nafarroako gobernadoreak (Trinidad Sicilia jaunak) hiri–barruko entzierroak debekatzea nahi zuen. Udaletxean Jose Xabier Colmenares alkateak eta hiru zinegotzik entzierroak kentzearen alde eman zuten botua, baina beste hamalau zinegotzik kontra. Kaleetan zehar lasterka pasatu ziren beraz zezen eta gazteak. Zezenak, Zalduendo, Karrikiri eta Raimundo Diaz–enak izan ziren, hain zuzen. Ganaduzale bakoitzak hamar bidali zituen, eta hogeitazazpi hil zituzten plazan[1].

Entzierroak debekatzeko zurrumurruek sortutako istilu eta giroa *El Eco de Navarra* aldizkariaren bitartez ezagutu daiteke[49].

Toreatzera, Antonio Carmona *Gordito* eta Francisco Arjona Reyes *Currito* ezpatariak etorri ziren. Kartelean iragarritako pikatzaileak, Juan Trigo, Jose Canales, Jose Calderon, Manuel Gutierrez *Melones* eta Francisco Fuentes ziren (denak andalusiarrak). Banderilarien zerrenda berriz, hauek osatzen zuten: Victoriano Regatero *Regaterin*, Vicente Mendez *Pescadero*, Valentin Martin *Presumido*, Julian Sanchez, Jose Martinez *la Santera* eta Francisco Sanchez–ek. Jose Torrijos–ek sastakari–lanak egingo zituen.

*Gordito*k koadrilarako bi pikatzaile eta ordezko bat, hiru banderilari eta sastakaria ekarri behar zituen, kontratuaren arabera, eta 40.000 erreal (10.000 pezeta) kobratuko zituen azken korrida hasi baino lehen.

*Currito*ren kontratua ere antzekoa zen, baina 38.500 erreal (9.625 pta) kobratuko zituen.

Korrida haietan, Udalak ia 13.000 pezeta irabazi zituen. Korrida haietan gertatuaren berri *El Eco de Navarra* izeneko aldizkarian eman zuten, baina bertan dioena ez da oso fidagarria, idazleak korriden kontrakoak zirelako.

Lehen korridan Zalduendoren alargunaren abelgorriak jokatu ziren. Seigarren zezena hil baino lehen, gazte bat hondarrera jaitsi zen hilda zegoelakoan, eta bularrean adarkada hartu zuen. Hasieran gaztearenak egingo zuela pentsatu bazuten ere, gerora bere onera etorriko zenaren itxaropena zuten.

Korrida haietan zezenak gogoz baina indar gutxi erakutsiz aritu ziren. Toreatzaileek ez zuten gauza berezirik egin. Bigarren korridan pikatzaileek lana gaizki egin zutelako jendea haserretu egin

zen eta ogi-pusketak, botilak etab. bota zituen hondarrera[1].

Sanferminetako korridak ikustera Iruñera joatea asko atsegin omen zitzaion Pablo Sarasate musikari famatuari; 1844. urtean San Nikolas kalean jaiotako iruindarrari. Behin hala ere, asko kosta omen zitzaion bere jaioterrira heltzea. Tolosatik Iruñera mendiz mendi oinez joan behar izan bait zuen karlistak agertuko zitzaizkion beldurrez[50].

1876. urtean dena den, uztailaren hasierako igandean zezenkoak jokatu ziren Deustuko plazan, bertan egindako erromerian. Bilboko abuztuko korridak ere orduan iragarri zituzten[51]. Abuztuaren 20, 21, 22 eta 24ean izango ziren[52] eta Veragua, Felix Gomez eta Vicente Martinez-en zezenak ekarri zituzten lau korridetarako. Toreatzaileak berriz, Francisco Arjona Reyes *Currito* eta Jose Sanchez del Campo *Cara ancha*ren aginduetara egon ziren[10]. Abuztuaren 20an eta 21ean eguraldi txarra egin zuen ordea, eta ez dakigu korridak atzeratu beharra izan zuten ala ez[53]. Dena den, Antonio Perez *el Ostione*k Bilbon lan egin zuen urte hartan[8] eta abuztuaren 23ko korridan banderilari bat zauriturik suertatu zen[54].

1876. urtean bertan, Bringas pintatzaile bilbotarrak zezenei buruzko koadro batzuk egin zituen, eta gaur egun bertako zezenplazan dagoen museoan ikus daitezke[55].

Urtearen hondarrean, 1876.eko abenduaren 20an, goizeko bost t'erdietan Kastor Jauregibeitia Ibarra *Bilboko kotxeritoa* jaio zen. Biharamunean bataiatu zuten Begoñako Ama Birjinaren parrokian. Kastor, baserri batean jaio zen; Burdin Gurutze izenekoan, Kristoaren kaleko 21ean[13].

Gipuzkoan ere 1876. urtean gerra amaitu ahala zezenfestak nonnahi egin ziren. Martxoaren 8an adibidez, zezenko bat korritu zuten liberalek Eibarren. Biharamunean, ostegunean, Moriones jenerala Bergaran zen, eta herriko plazan hiru idi jokatu ziren sokari lotuta[56]. Egun batzuk geroago, martxoaren 20 eta 21ean, Oñati-n arratsaldeko hiruretan zezenkoak korritu ziren pakea ospatzearren[57].

1876. urtean bigarren Karlistada amaitu zenean, Euskal Herriko Foruak kendu egin zituzten, eta ondorioz baita probintzietako *Batzarrak* ere. Gipuzkoako Batzar Nagusietan egiten ziren festei buruz dena den, Resurrekzion Maria Azkue ospatsuak hara zer dioen:

Batzar aiek zirautenartean erriak yostaketa batzuk artzea zilegi izaten zuen, etzion eragozpenik legeak erakusten; pelota-yokuak, dantzak, idia sokaz lotuta kalerik kale erabiltea ta besteren bat. Zerbait etzion legeak erriari, legelariak ageri etzirala, egiten utzi. Ementxe esan liteke neroni, orain urte askotxo dalarik, Leaburuko baserritar batek (eztakit zerengatik) entzunarazi zidana "Jauna: sinesteak ere lanak ditu. Zezenketak egiteko batzarkideak berak udaletxeko (Ayuntamentuko) balkoi ta leioetan agerian egon bear izaten zuten"[58].

Dena dela Gipuzkoako Batzar Nagusiak desagertuak ziren jadanik 1876. urtean. Baina zezenfestak ez. Deban adibidez, abuztuan sanroketarako nobilladak iragarri zituzten. Abuztuaren 16 eta 17an Lasturreko bostna zezenko jokatuko ziren; bat hiltzekoa zelarik. Toreatzaileek, Jose Elkorobarrutia ezpatariaren aginduetara lan egingo zuten. Gainera larrabehiak ere izango ziren gaztejendearentzat[59]. Jende asko izan zen korrida haietan eta gauzak ondo atera ziren *Durangarra* (*el Durangués*) esaten omen zioten ezpatariari; Elkorobarrutiari gure ustetan.

Abuztuaren 18an, arratsaldeko lauretan *marinelen korrida* izan zen. Marinelek asto txiki batzuen gainean zirela pikatu zituzten lau zezenko bolaztatu. Txuliatu eta banderilaztatu ere egin

zituzten plazatik atera baino lehen[53].

Deban garai hartan sanroketan nobilladak urtero izaten ziren eta Antonio Zugasti *Ixkiña* izeneko zapatari eta bertsolari xelebrea ere izaten zen toreatzen, Hondarribia, Azpeitia, Arrasate eta beste herri batzuetan bezalaxe. Banderilari gisa bere koadrilan ibiltzen zen *Pello Espain* ere halamoduzkoa omen zen. Dena dela toreatzeko trebetasuna baino gehiago beldurra omen zuten haiek, baina ba omen zekiten ateraldi barregarriren batekin jendearen haserrea baretzen.

Behin Deban zegoela Lertsundi jeneralak bere etxera joan zedin eskatu zion, bertso eta kontakizun xelebreekin alaitzeko asmoz. Solasaldia amaitu zenean, jeneralak 25 pezetako urrezko txanpona eman zion, baina *Ixkiñak* ez omen zekien garbi pezeta arrunta ala urrezko txanpona zen.

Ixkiña, ustez bere burua bakarrik ikusi zuenean, eskua zabaldu eta txanponari begira gelditu zen: urrezkoa zen!; han bait zegoen Isabel II.aren irudia!

Jenerala ordea, artean begira zeukan eta bere aurpegia ikusita zera galdetu omen zion:

– Zer. Faltsua den ala ez begiratzen?

Eta *Ixkiñak* bapatean:

– Ez jauna. Patrikan honelako asko dauzkat eta zuk emandakoa ez nuke besteekin nahastu nahi[60].

Tolosan karlisten gerratean bi batailoi soldadu egon omen ziren, eta bertako neskekin ba omen zuten arrakastarik. Baina soldaduak Iruñera joan zirenean neskak triste geratu zirela eta, norbaitek bertsoak atera zituen, eta begira zer dioen haietako batek:

Korridan zezena iltzera
juaten da espada,
muleta gorriakin
tentatzen asten da,
zezena bere jeniyoz
oso zoratzen da;
zuen intentziyua
ere iguala da,
kapote, galtzagorri,
txaketilletara[61]

1876. urtean, uztailaren 22an, Euskal Foruak kendu zituzten egunaren biharamunean, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* bertsolaria hil zen Donostian. San Sebastian egunean karlistek botatako bonba bat bere gelan lehertu bait zen, eta bi hanakak moztu egin behar izan zizkioten[62].

*Bilintx*ek gaztetan zezenekin zerikusia izan zuen. Zezen batek izterrean adarkatu zuelako aste batzuetan ohean egon bait zen[63]. Gero, korridak gaitzat harturik hara zer bertso utzi zituen:

¡BEGIROZUTE PIKADORIAK!

Jaunak, seguru nago
gaur arratsaldian
pikadoriak ondo
portatu baziran,
festa ederra izango zan,
zezen onak ziran;
bañan ¿pikadoriak?
¡beti pikardian!
zezen bat on xamarra
irtetzen danian,
etzayozka jarritzen
aurreko aldian
itzul egiña
dakaten artian.
Eta suertatzen bada
txiripa batian
zezen bat txit brabua
bere errabian,
pikara sartzen dana
furia aundian
¿zer egiten diyote?
urrengo sartzian
pika jartzen diyote
besoen gañian
eta sartu ezkero
pika bein andikan,
zezen gizarajuak
ez du indarrikan,
kojo geldítutzen da
beso artatikan
eta berriz pikara
egotzigatikan
ez diyo zaldiyari
sartzen adarrikan,
beso-buruan dakan
eridagatikan;
bañan Presidentiak
ala pikatzian
deituko baliyoke
instante batian,
eta bere aurrera
etortzen danian,
esango baliyoke:
"Atienda V., perillan,
por haber espaldillado
de ese modo al animal,
300 reales de multa
y paguelos sin replicar,
y tenga V. mucho ciudado

en no volver a espaldillar,
porque entonces, selo advierto,
multa doble recibira".
Gaur egin baldin bazan
ori Donostiyan,
orduan seguru naiz,
txit seguru, biyar
ez pagatziagatik
iru eun errial,
pikatuko zutela
biar dan legian.
Bañan gaur orren ondo
nola irten diran,
pikatuko dituzte
gaur bezala biyar.
Au aditu niyon nik
atzo arratsian
gizon sudur motz bati
taberna batian.[64]

12.2. Irudia. Donostiako Atotxa-ko zezenplaza. 1876.ean eraikia.

1876. urteko urtarrilaren 20an *Bilintx*ek bere ezbeharra izan ondoren, Donostiako ihauteriak ospatu ziren. Otsailaren 23an, zezensuzkoa erre zuten Konstituzio–plazan[65]. Zezenfestak otsailaren bukaeraraino luzatu zituzten Donostian, pakea ospatzeko asmoz[66]. Egia esan, donostiarrek noiznahi izaten zuten sokamuturra eta zezensuzkoa. Martxoaren 1ean[67] eta 20an[68] bai behintzat.

Atotxa–n zezenplaza berria egiteko ordea, enpresa eratua zegoen eta Vicente Martinez–en zezenak erosiak zituen jadanik maiatzaren 25ean lehen bi korridetarako, nahiz eta obrak egiten artean hasi gabe egon[69]. Ekainaren hasieran, plaza berriko obrak aurrera zihoazen eta urte hartako (1876.eko) uztailaren 16an estreinatzeko asmotan ziren[70]. Ekainaren bukaeran, zezenplazaren zimenduak aterata zeuden; zimendu sendoak hain zuzen. Egun gutxi barrurako zurezko habe eta piezak espero zituzten eta uztailaren 16an plaza inauguratzea ere bai[71]. Inauguraziorako gainera, probintziako txistulari guztiak gonbidatu zituen enpresak[72]. Uztailaren 5ean iragarri ziren hilaren 16 eta 17ko korriden xehetasunak. Uztailaren 16an Saltillo–ko markesaren bi zezen (Sevillakoak), San Lorenzo–ko dukearen beste bi (Laffitte–ren izenean korritzen ziren; Sevillakoa) eta Colmenar–eko Vicente Martinez–en beste bi. Uztailaren 17an Nazario Karrikiri–ren sei zezen toreatuko ziren. Plazako lanak *Frascuelo* eta Vicente Garcia *Villaverde* ezpatariek egingo zituzten, beren koadrilaren laguntzaz[73]. Koadrilan pikatzaile gisa Francisco Calderon, Francisco Gutierrez, *el Chuchi*, Francisco Oliver, Jose Calderon eta Manuel Martinez etorri ziren. Banderilari gisa berriz, Pablo Erraiz, Esteban Arguelles *Armilla*, Angel Pastor, Felipe Garcia, Manuel Fernandez eta Bernardo Ojeda. Sastakari–lanetan Isidro Buendia arituko zen[74].

Korridetako sarreren prezioak, 10 erreal (merkeena) eta 28 erreal (garestiena) bitartekoak izan ziren[75].

Uztailaren 15aren egunsentian, biharamuneko korridako zezenen entzierroa egin zen[76].

Lehen korridan, Saltillo–ko markesaren bi zezenak (lehenengoa eta seigarrena) ez ziren ondo portatu; beste laurak bai. Pikatzaileetan Manuel Martinez *Agujetas* nabarmendu zen. Banderilariak ere ondo egon ziren, baina ezpatariak ez hain ongi. Plazan zazpi zaldi hil ziren eta gero beste lau.

*Frascuelo*k laugarren zezenari hiru banderila–pare sartu zizkion. Aulkian eserita ere sartu nahi izan zizkion, baina lehendakariak ez zion horretarako baimenik eman.

Bigarren korridan, Karrikiri–ren zezen guztiek erakutsi zuten suhartasuna. *Frascuelo*k lana oso ondo egin zuen arrataslde hartan. Banderila–pare asko eta ongi sartu zituen, eta seigarrenari baita aulkian eserita ere. Garcia *Villaverde* ere ongi aritu zen bigarren eta laugarren zezenean. Angel Pastor banderilariak zezen bat hil zuen; zazpigarrena. Sari gisa *Frascuelo*ri bostgarren zezena eman zioten, Garcia *Villaverde*ri seigarrena eta Angel Pastor–i zazpigarrena. Pikatzaileetan, Manuel Martinez *Agujetas* nabarmendu zen berriro ere.

Jendea pozik atera zen korrida hietatik, eta Udalak nahiz zezenplazako Jose Arana enpresariak egindako lana txalogarria zela zioten[77].

Bi korrida hauek bukatu bezain laster, Jose Arana enpresaria Madrilera joan zen abuztuan beste bi korrida antolatzeko tratuak egitearren. Raimundo Diaz funestarraren sei zezen eta Colmenar Viejo–tik ekarritako beste sei korritzea pentsatzen zuten. Toreatzaileak berriz, *Cara ancha* eta Fernando Gomez *Gallito* izango zirela pentsatzen zen[78].

Egun batzuek geroago, 1876.eko abuztuaren 8an, hilaren 13 eta 15eko korridetarako kartelak atera ziren. Zezenak Raimundo Diaz eta Vicente Martinez–enak izango ziren eta toreatzaileak berriz, honako hauek:

– Ezpatariak: Jose Campos *Cara ancha* (Algeciras–ekoa) eta Fernando Gomez *Gallito chico* (Sevillakoa) *Gallo* izenez ere ezaguna zen. Ordezko ezpataria; Jose Fernandez *Barbi*.
– Pikatzaileak : Antonio Pinto, Jose Antonio Suarez, Manuel Baston eta Emilio Bartolosi.
– Banderilariak: Antonio Herrera *Anilla*, Manuel Mejias *Bienvenida*, Manuel Campos, Pedro Campos eta Antonio Fuentes.
– Sastakaria: Antonio Fuentes.

Abuztuko korrida hauetako sarreren prezioak, uztailekoen berdinak izan ziren[79].

Raimundo Diaz–en zezenak Funes–etik oinez etortzekoak ziren Donostiako Oriamendi–ko Bentetara abuztuaren 10ean, eta Martinez–enak trenez[80]. Eduardo Etxeberria alkate jaunak, bandoa atera zuen korrida haietarako arauak emanez[81].

Abuztuaren 13an, goizeko seietan, Raimundo Diaz–en sei zezenekin entzierroa egin zen, eta Donostiako egunkariak sei zezenen izen eta xehetasunekin batera taula bat argitaratu zuen ikusleek bertan zezen bakoitzaren pikaldiak, hildako eta zauritutako zaldi–kopurua, banderila–pareak, ezpatakadak etab. apunta zitzan. Zezenak lau eta bost urte betetakoak ziren[82].

Lehen korrida gobernadorearen lehendakaritzapean arratsaldeko lauretan hasi zen. Raimundo Diaz–en zezenak dibisa gorri–horiz plazaratu ziren. Lehen zezenak *Cara ancha* harrapatu egin zuen, baina zauri handirik ez zion egin. Musikariek *Hiru damatxo* zortzikoa jo zuten. Bigarrena *Gallito*k hil zuen ondo toreatu ondoren. Hirugarrenean larri ibili zen *Cara ancha* eta azkenean nola edo hala hil zuen. Laugarrena txikia eta iheslaria zen. Suzko banderilak sartzea eskatu zuen jendeak. *Gallito*k lehen saioan hil zuen ezpataz, *Gernikako arbola* jotzen zuten bitartean. Bostgarren zezena gaizki pikatu zuten et txistu–hotsa ozen entzun zen. Suzko banderilak sartu zizkioten eta *Cara anchak* hil zuen azkenean. Seigarren zezena ere luzimendu handirik gabe toreatu eta hil zuen *Gallito*k[83].

Abuztuaren 15eko korridan, Vicente Martinez–en sei zezenak plazaratu ziren dibisa morez. Bost urte beteak zituzten zezen guztiek[84]. Zezenak oso ondo portatu ziren, eta toreatzaileak ere lehen korridan baino askoz ere lan hobea egin zuten. Korrida ederra ikusi zuten bada Donostian abuztuaren 15ean[85].

Lehen zezenak, zaldi bat hil zuen. *Cara ancha*, oso larri ibili zen zezen hura hil ezinik. Bigarren zezena ondo portatu zen zalditan eta pikadoreak maiz ibili ziren lurrean. Laugarren kolpean hil zuen *Gallito chico*k. Hirugarren zezena ondo pikatu zuten eta *Cara anchak* ezpataz bigarrenean asmatu zuen. Laugarren zezenak bi zaldi utzi zituen hilik plazan. *Cara anchak* berak sartu zizkion banderilak; bat aulkian eserita gainera. *Gallito*k lehenengoan bota zuen ezpataz. Bostgarrena ere ongi portatu zen zalditan, eta *Cara anchak* lehenengoan asmatu zuen ezpataz. Seigarren zezenean, plaza bete jende harrapatu zuen euriak. Hala ere zezena suhar portatu zen pikatzaileekin eta bi zaldi utzi zituen hilik. *Gallito chico*k hirugarrenean bota zuen ezpataz. Jendea, zazpigarren zezena eskatzen hasi zen, baina euria gero eta gehiago ari zuenez, besterik gabe amaitu zen abuztuko bigarren korrida hura[86].

Abuztuaren 16an, 1876.ean, nobillada ospatu zen Donostiako zezenplazan. Lasturreko bi zezenko (hiru urtekoak) toreatu eta hil zituzten. Hauek osatu zuten koadrila:

– Ezpatariak: Jose Ramon Agirretxe eta Joan Kruz Ibazeta
– Banderilariak: Jose Migel Uranga, Jose Maria Lopetedi eta Jose Antonio Zugasti *Ixkiña*.
– Toreatzaileak: Prudentzio Etxabe eta Pedro Intzagarai *Espaiñ*
– Sastakaria: Joakin Txapartegi[84].

Lehen lasturtar zezena oso polita zen eta jendea dibertitzea lortu zuen. Bigarrenean ordea, ikusleak aspertu egin ziren; toreatzaileen trebezi faltagatik batez ere[86].

Abuztuaren 13rako Donostiara Funesetik oinez zetozen zezenetako batek, ihes egin zien taldetik Raimundo Diaz–en unaiei, eta hiruzpalau egunez Irurtzun, San Migeltxo eta inguruko mendietan ibilia zen. Kalteak sortu ere egin zituen, eta baita pertsona bat hil ere; Fermin Elizondo, 70 urteko itzai erasundarra[87].

Donostian 1876. urtean, beste bi korrida ere izan ziren; irailaren 8 eta 10ean hain zuzen. Kartel iragarleak zioenez, irailaren 8an, ostiralean, arratsaldeko hiru t'erdietan, Mazpuleren sei zezen toreatuko ziren dibisa zuriz, eta irailaren 10ean Lopez Navarro–ren beste sei zezen dibisa gorri–horiz. Bi ganadutegi hauek Colmenar Viejo–koak ziren.

Toreatzaile–koadrila honako hauek osatuko zuten:

– Ezpatariak: Salvador Sanchez *Frascuelo* eta Manuel Hermosilla.
– Pikatzaileak: Francisco Calderon, Francisco Gutierrez, Jose Marqueti, Ramon Fernandez eta Manuel Martinez.
– Banderilariak: Pablo Erraiz, Esteban Arguelles, Angel Pastor, Manuel Fernandez, Bernardo Ojeda eta Valentin Martinez
– Sastakaria: Isidro Buendia[88].

Ramon Fernandez pikatzaileak ordea, abuztuaren 25ean Almagro–ko korridan besoa hautsi zuelako, etortzerik ez zuen izan[89].

Nahiz eta arratsalde euritsua izan, plazaren erdia edo beteta ostiralean hiru t'erdietan korrida hasi zen. Lehen zezenak zaldi bat utzi zuen hilik. *Frascuelo*k, (urdin eta beltz), muletaz lan ederra egin ondoren lehen ezpatakada hondoraino sartu zion. Bigarren zezenak ere zaldi bat hil zuen eta Hermosilla–k (more eta urre) ezpatakada osoa sartu zion. Hirugarren zezena argala zen. Zaldi zuri bat zauriturik utzi zuen; kazetari donostiarrari Bilintx–en *Zaldi zuriari* izeneko bederatzi puntuko bertsoetan deskribatzen dena gogorarazi ziona hain zuzen. *Frascuelo*k lehenengoan bota zuen *Pardalo* izeneko zezen hura. Laugarren zezena guriagoa zen, baina ahula. Bi zaldi hil zituen, banderilak sartu eta Hermosilla–k bigarrenean zezena bera hil baino lehen. Bostgarren zezena koldarra zen . *Frascuelo*k ezpatakada batez eta deskabello–kolpe batez hil zuen. Seigarrenean, Calderon, Marqueti eta Francisco Gutierrez *el Chuchi* pikatzaileak luzimenduz erabili zituzten ezten–hagak. Hermosilla–k hirugarrenean bota zuen zezen hura.

Mazpuleren zezenak, batezbeste bigunak suertatu ziren. Toreatzaileek lana ongi egin zuten; *Frascuelo*k batez ere. Arratsalde guztian euria atertu gabe egin zuen[90].

1876. urteko irailaren 10ean, eguraldi ona egin zuen eta Donostiako zezenplaza erabat bete zen. Colmenar Viejo–ko Lopez Navarro–ren zezenak plazaratu zituzten.

Lehen zezenari *Frascuelo*k (more eta urre) faena dotorea egin zion. Lehen saioan bota zuen,

txalo asko jo erazi zituelarik. Bigarrena hamahiru aldiz pikatu zuten. Hermosilla–k (gorrimin eta zilar) lehenengoan asmatu zuen ezpataz. Hirugarenak bi zaldi hil zituen. *Frascuelo*k faena ederra burutu ondoren ezpatakada batez eta deskabello–kolpe batez egin zituen zezenarenak. Laugarren zezenak, Marqueti pikatzailea lurrera botata ibili zuen. *Frascuelo*k, berak sartu zizkion banderilak zezen hari eta gero Hermosilla–k hil zuen ezpata lepoan sartuta. Bostgarren zezena koldarra zen. Horregatik, jendeak suzko banderilak eskatu zituen. *Frascuelo*k bigarrenean hil zuen. Seigarren zezenean Hermosilla–k faena polita egin ondoren ezpataz lehenengoan asmatu zuen.

Lehendakariak zazpigarren zezena plazaratzeko eskeari baiezkoa eman zion eta Mazpule–ren bat atera zen; koldarra, iheslaria eta maltzurra. Angel Pastor–ek egin zituen harenak, ezpataz gehiegi luzatu bazen ere.

Korrida hartan lehen bi zezenak eta ezpatarien lana izan ziren gauzarik onenak[91].

Donostiarrek 1876. urtean, sei korrida izan zituzten Atotxa–ko plaza berri hartan, eta horietaz gain nobilladak, zezensuzkoak eta sokamuturra noiznahi. Ez ziren ordea zezenez aspertzen eta artean beste bi nobillada izango zituzten Atotxa–ko plazan. Bata irailaren 24ean eta bestea urriaren 15ean; arratsaldeko hiru t'erdietan biak.

Irailekoaren kartelak honela zioen:

– Zezenkoak: Nafarroako mugako mendietatik ekarritako bi zezenko (hiruna urtekoak, dibisa zuri–urdinaz), Mazpuleren zezen bat (bolaztatua, bost urtekoa) eta gazteentzako beste bi zezenko bolaztatu.
– Ezpataria: Jose Elkorobarrutia *Durangarra* (*el Durangués*)
– Banderilariak: Manuel Esnaola (Debakoa), Joan Mentxaka (Gasteizekoa), Nemesio Ilarregi (Durangokoa) eta Jose Esnaola (Debakoa).
– Pikatzaileak: Jose Ramon Agirretxe *Baztanga* eta Santiago Elormendi.

– Sastakaria: Remijio Agote (Donostiakoa)
– Plazako alguazila: Jose Antonio Zugasti *Ixkiña*[92].

Jende asko joan zen nobillada hartara. Lehen bi zezenkoekin ikusleak dibertitu ziren, baina Mazpule–ren zezena hiltzen Elkorobarrutiak orduerdia behar izan zuen[93].

1876.eko urriaren 15erako berriz, hiltzeko bi zezenko (hiruna urtekoak eta Nafarroako mugako mendietakoak) eta bolaztatutako beste bi zezenko (gaztejendearentzat) plazaratuko zirela iragarri zuten. Hiltzeko zezenkoetan lana honako hauek egingo zuten:

– Ezpatariak: Juan Arjona eta Juan de Dios (biak sevillarrak)
– Banderilariak: Nemesio Heras (granadarra), Agustin Clemente (granadarra), Antonio Moreno (cordobarra) eta Jose Calderon (Alcala de Guadaira–koa)[94].

Zezenfesta harekin amaitu ziren plaza berri hartako lehen urteko ikuskizunak. Jose Arana enpresari zela 1876.ean hogeitazazpi egunetan bakarrik eraiki zen plaza hura[95], Jose Goikoa arkitektoaren gidaritzapean[9].

Jose Arana Elortza, Eskoriatzan jaioa zen 1840. urte inguruan. Bere zezenplaza eraiki baino lehen, *La Harmonia* izeneko elkarte donostiarrak Atotxa–n zegoen zurezko plazan bi korrida antolatu nahi izan zituen. Jose Arana eskoriatzarra arduratu zen dena prestatzeaz, eta gauzak ongi

atera zitzaizkiola ikusirik, korridatako enpresari izatea bururatu zitzaion. Atotxa–ko zurezko plaza hura erre zenean, berehala eraiki zuen berea, Jose Goikoa arkitektoari (oso laguna zen) enkargoa emanda.

Jose Arana ongi portatzen zen behartsuekin. Eskoriatzan jaiotako mutilzahar hark, plazako ateak ireki egiten zituen hutsik zeuden eserlekuak jende pobreak bete zitzan[96].

Jose Aranak bestetik, lehen aldiz korridatarako kartel dotoreak (irudi eta pintura ederrez eginak) argitaratu zituen. Bulebar–eko etxean bizi zen Donostian; bere janaridenda zegoeneko etxean bertan.

Lehentxeago esan dugunez, Donostian 1876. urteko irailaren 24ean Nafarroako mugako mendietatik ekarritako zezenkoak korritu zituzten. Agian Aralarrekoak izango ziren. Izan ere garai hartan Gipuzkoako baserritarrek beren mendi–ganadua maiatzetik negua heldu arte han edukitzen zuten. Baserritar haietako bat Joan Jose Alkain Iruretagoiena *Udarregi* bertsolaria zen (1829.ean Aiako Uztaeta–buru baserrian jaioa). Behin *Udarregi* negu–sarreran ohi bezala bere larrabehien bila joan omen zen eta Zaldibiara behera bere ganadu–taldearekin zetorrela, Gaintza–ko kontearekin topo egin omen zuen. Kontea zaldi gainean zetorren eta kapa aterata bidea libratzen hasi omen zen. Ganadu guztia ikaratu eta ihesi joan zitzaion *Udarregi*ri. Gero lanak izan zituen haiek berriro biltzen. Irakur bestela bertsolariak berak ipinitako hamarreko txiki hauek:

1) *Udarregi juan da*
aurten Aralarra,
betizu arrapatzeko
nago gizon zarra,
zenbaitek adituta
egingo du farra,
pena det mingañian
ibilli biarra,
aurreneko jornada
ez genduen txarra.

2/ *Aurten gelditu zaizku*
Aralarren beyak,
etzituzten aditzen
etxerako deyak,
eraman gaitu aiek
errenditu nayak,
ezin billaturikan
gure ibilliyak,
onekin alderdirik
ez du familiyak.

3/ *Bi gizon da zakurrak*
erritikan artu,
Jose Maria Azurza,
D. Bizente Portu,
beste lagun batzuek
an zaizkigu sortu,
Aralarko mendiyak

bapo dira neurtu,
orra arro banitzan
juiziyuan sartu.

4/ *Zaldibiyan dauzkagu*
bi sozionista,
mendira egiten zuten
iñoiz errebista,
larre–ganaduakin
disgustua maiz–ta,
azienda gaiztua
gelditutzen gaitz–ta,
neonek dakit ondo,
probatuba naiz ta.

5/ *Zaldibira juanda*
biyaramonian,
mendiz–mendi asi giñan
koraje onian,
sustantziyan biar da
alako lanian,
zerbaiten aitzekiya
an geienian,
ez ditugu ikusi
iru egunian.

6/ *Urte zar eguna zan*
señaladamente,
banuen inguruban
makiña bat jente,
napar artzaitxo batek
eman zigun parte,
puntu artatik beiak
etzirala aparte,
ankak dantzatu ziran
aiek ikusi arte.

7/ *Salida egin degu*
urte berri goizian,
zazpi gizon juan giñan
guztiko pozian,
beiak jarri ditugu
nai degun klasian,
balazua bezain zuzen
txit bide luzian,
baña kontrariyuak
guretzat bazian.

8/ *Beiak bota ditugu*
nai degun mendia,
ustez egin genduen

aziyo grandia,
an fortunatu zaigu
Gaintzako kondia,
bi aldetara beiak
saltaka juan dia,
bapo izorratu du
orretxek jendia.

9/ *Beiak salto, guk segi,*
zer dibersiyua!
ez nintzan nai orduko
araño iyua,
Ataungo aldera
urrengo sayua,
ni ez naiz fortunoso
mundura jayua,
zori gaiztoz sortu zan
konde arrayua.

10/ *Mateo Garmendia*
etzan apartian,
alegiña egin du
bere suertian,
ganadu agurua
guretzat kaltian,
segitzen ziyen
onradamentian,
ark batu ditu oiek
aitz–zulo batian.

11/ *Aitz–zulo orretara*
laister giñan bildu,
zakurrak irrintziyaz,
guk ezin ixildu,
bati ezpañetatik
an ziyoten eldu,
ankaz gora botata
genduen uzkaldu,
alegiña egin gabez
ezta ezer galdu.

12/ *Bat bota genduen da*
bestia aurrera,
zakurrak arengana
urrengo sarrera,
eldu ziyotenian
egin zuen kera,
ni ta Bizente Portu
abiyatu gera,
amildu egin zaizku

arkaitzetik bera.

13/ Amilduta osin–zulo
batera sartu zian,
luzaro egon gabe
laister irten zian,
txala igesi zijuan,
gu berriz atzian,
ikusitzen genduen
noizik bakoitzian,
ura sentimentuba
nere biyotzian!

14/ Eguna pasa degu
txit neke aundiyan,
tabernaz aukerarik
eztago mendiyan,
laiste giñaden zerbait
pentsatzeko gayan,
aulduta jarri gera
alimentu nayan,
gauba pasa genduen
Ataungo Ayan.

15/ Gau ura pasa nuen
oso penatuba,
txala bere salletik
abandonatuba,
betiko gelditu naiz
eskarmentatuba,
sopa eta ura zan
gure alimentuba,
amalauna errial
genduben kontuba.

16/ Ango ostalariyak
baloriak ditu,
gauza gutxitxorekin
dirua du bitu,
paraje garestira
degu akuditu,
gure kuarto apurrak
laiste ziran aitu,
Ataungo atsu orrek
zikiatu gaitu.

17/ Beia agertu da baña
txal gaxua galdu,
esanda ere zenbaitek
sinistuko al du?

datozen kastiguai
biar zaie eldu,
leku aldatzera
genduen bialdu,
Naparruako Etxarrin
gero da azaldu.

18/ Mateo Garmendia
juan zan Etxarrira,
pozez zoraturikan
txalari begira,
berak ekarri zuen
andik Zaldibira,
Artikulara zuten
gero urrengo jira,
ezurrak berarikan
etorriyak dira.

19/ Noizbait osatu zaizku
ganadu guziyak,
makiña bat funtziyo
gaude ikusiyak,
San Migeletan giñan
aldrebes asiyak,
geroztik izan dira
modu itxusiyak,
orain kontentu gera
Jaunari graziyak.

20/ Orra bertsuak jarri
Udarregi gaztiak,
euskeraz eman ditu
bere albistiak,
ni konfesatu naiz ta
aditu bestiak,
erotu ote naizen
diyo emaztiak,
arrazoya daukala
deritzat tristiak.

Beste behin, karlisten gerratea bukatu eta laster (1876. urte inguruan beraz), Usurbileko larrabehi baten gorabeherak kontatuz ipini zituen bertsoak *Udarregi*k. Hona hemen bertso-paper haiek ziotena:

1/ Tristurak nago, asi biar det
libersiyua berritzen,
gu oraindikan aprendiz gaude,
eztegu asko korritzen;
Galardi-azpiko Eujeniyo orri
nua bertsuak jarritzen,
or gertatu dan kaso batekin

guziyok gaude arritzen.

2/ *Larre–beien bat Aranburu'tik*
aspaldi zuan erosi,
gezurrik ez nun publikatuko,
nik ala ditut ikasi;
zenbaitek eztu ganadubakin
suerte onik merezi,
aurten ez ditu umiak ein da
ixtillu txarrak ikusi.

3/ *Artzaien batek eman omen du*
larre–bei orren berriya,
inposiblia egongo dala
umia eiteko larriya;
buelo aundiya daukala eta
errape izugariya,
obe lukela balerukake
etxe aldera ekarriya.

4/ *Mendira juanda, beia billatu,*
lazua erasten dira asi,
kolpia tira bañan utsegin,
beia saltoka igesi;
amerikano askok bezela
oraindik eztu ikasi,
begira zanak oiekin eztu
pesta gaiztua ikusi.

5/ *Aita–semiak izan biaute*
beia etxian sartuba,
pesalunbriak ikusitzeko
mundu ontara sortuba;
oriyen kejak kontatutzeko
etzan egongo gortuba,
izan biar du derrigorrian
Gilisagasti'n sartuba.

6/ *Andik etxera ekarri dute*
orgullo aundi batian,
gobernatzeko jarri omen du
amarraturik katian.
"Esnia pranko emango digu
onek umia egitian,
denboraz bota lezake eta
ernai ibilli gaitian."

7/ *Txal gaztetxo bat nola dabillen*
abisua da etorri,
zer esan ere etzekiten

begiratubaz alkarri;
gizon abillak izanagatik
beiari ezin igarri...
zer egin dute? Agiñaga'tik
albaiterua ekarri.

8/ Albaiteruak esan omen du
ikutu baño lenago:
"Orren barrenen umerik danik
nere artian enago;
eginda ondo sendatu ere
egiña dala ni nago,
rekonozitu egin biarko
deskuidatuba banago."

9/ Errejistatzen asi omen da
tokatzen zaion graziyan,
albaiterua ondo zijuan
zebillen irabaziyan;
Eujeniyo're ondo izana
bere denbora guziyan,
oriyek baño estubago zan
txekorra Irisasiya'n.

10/ Albaiteruak esan omen du:
"Dago umia egiña.
esnia dauka turbiyatuba
tiratzeko alegiña;
errapia're gogortutxua,
ori da gauza jakiña."
Eujeniyoren zilimoniyak:
"Len akordatu bagiña!"

11/ Arrautzak artu pardelian ta
Irisasi'ra jun zian,
enteratubak egongo ziran
txekor-orrubak nun zian;
umill askua billatu dute
agoniyako trantzian,
alimenturik izan ezpalitz
lan diabrubak an zian.

12/ Arrautza oiek eman dizkate
batitu edo nastuta,
eskusa gabe gaxuak artu,
gosiak txantxik eztuta;
txit azkeneko arnasetan zan
illoki odol ustuta,
sasi-zuloko kolaziyuak
eztitu izango aztuta.

13/ Lepo-otarrian sartuta dute
txala etxera ekarri,
berialaxe bota dizkate
ama-umiak alkarri;
bei koitadubak ikusi orduko
arena dala igarri,
etzan plakiyak aplakatzeko
leku txarrera etorri.

14/ Mapill-erreka'n beste beien bat
omen zeguen saltzeko,
Eujeniyo orri gogua egin
ura dirutan artzeko;
Joxe Agustiñ e konporme zala
milla errialian saltzeko,
esku onetan allegatu da
zer duben ezagutzeko.

15/ Gizon oriyek pensatu dute
depositubanjartzia,
edo bestela lengo jabiak
atzera eramatia;
ezpaita ondo beiari fama
kulparik gabe galtzia,
obe litzake pentzu onakin
etxian gobernatzia.[97].

1877. urtean, L.Louis-Lande Azpeitian izan zen. Bertako festaburutan ikusitakoaren berri, *Revue des Deux Mondes*en eman zuen. Alguazilak plazatik jendea atera ondoren, lehen zezenkoa ateratzen zuten. Plazan bi txuliatzaile, bi banderilari eta taldeburua (eskuan zapi gorria zuela) zeuden. Traje andalusiar higatuak zituzten toreatzaileek. Zezenak txuliatu eta banderilaztatu egin zituzten, baina ezpataz hil ez. Azkenean, larrabehi bolaztatu bat plazaratu zuten gaztejendearen gozagarri[6].

1877. urtean Bilbon abuztuko korridetarako Mihura, Arribas anaiak, Rafael Laffitte eta Benjumea-ren zezenak ekarri zituzten. Rafael Molina *Lagartijo* eta Jose Lara *Chicorro* ezpatariak lan egin zuten beren koadrilaren laguntzaz[10]. Abuztuaren 22ko korridan Rafael Laffitte-ren *Arriero* izeneko zezenak hamazortzi pikaldi jasan eta zortzi zaldi hil zituen. *Lagartijo*k berebiziko faena egin zion, eta ezpatakada bikain batez bota zuen. Zezenak *Lagartijo* kolpatu bai, baina zauririk ez zion egin[9].

Bestetik, Bordele-n 1877.ean Paul Daverat toreatzaile landetarra Degos ganaduzalearen *Maravilla* behiak larriki zauritu zuen plazan[31].

1877. urtean, Iruñeko sanferminetarako *Lagartijo* eta *Frascuelo* kontratatzea intentatu zuen Udalak. Batek 76.000 erreal eskatu zituen koadrila osoa bere kontu izatekotan eta 50.000 erreal koadrila-erdia ekartzeko baldintzaz. Besteak, 77.000 eta 48.000 erreal eskatu zituen hurrenez hurren. *Lagartijo*k ordea A Cruña-n toreatu behar zuen eta ez zen garaiz iritsiko sanferminetara. *Frascuelo* berriz, hiru adarkada hartuta zegoen eta beldur ziren ez ote zen sendatuko.

*Lagartijo*ren ordez Antonio Carmona *Gordito* kontratatu zuten, baina uztaila baino lehen

bistatik gaixo zegoela jakin erazi zien. Orduan Francisco Arjona Reyes *Currito*rengana jo zuten. *Currito*k 9.000 pezeta kobratu zituen, eta *Frascuelo*k 11.000 pezeta.

Uztailaren 7an Zalduendoren alargunaren sei zezen korritu ziren; kasta onekoak eta indar gutxikoak hain zuzen. Uztailaren 8an Raimundo Diaz funestarraren ganadua plazaratu zen. Haiek zangarrak eta indartsuak suertatu ziren. Uztailaren 9an goizean, Mazpule–ren alargunaren bi zezen eta Raimundo Diaz–en bat *probatu* zituzten. Arratsaldean Vicente Martinez–en sei zezen bikain eta indartsu toreatu ziren, baina jendeak zioenez Colmenar Viejo–tik zurezko kaiolatan trenez etorri zirelako edo, ez ziren plazan espero bezain ondo portatu. Laugarren korridan, Raimundo Diaz–en zezenak korritu zituzten. *Frascuelo* nabarmendu zen toreatzailetan. Seigarren zezenak akatsa zuen bistan, eta lehendakariak torilera sartu erazi zuen. Soberakoa Francisco Sanchez ordezko ezpatariak toreatu eta hil zuen, baina ezpata sartzerakoan izterrondoan sartu zion adarra zezenak.

Korrida haiek onak izan ziren eta ezpatari bakoitzak ekarritako koadrila–erdiek lana ederki egin zuten. *Currito*k ekarritako koadrila–erdia osatuz, honako hauek etorri ziren: Juan Trigo, Manuel Gutierrez eta Manuel Luque pikatzaileak (Sevillakoak), Juan Sanchez, Jose Martin (Sevillakoak), Victoriano Recatero *Regaterin* (Madrilekoa) eta Francisco Sanchez banderilariak (azken hau sastakari ere bazen)[1].

Tuteran, bertako dendari batzuek (Eduvigis Mensat, Luis Fernandez, Cecilio Jimenez etab.ek) antolatu zituzten 1877. urteko korridak santanatan. Uztailaren 26an nobillada bat, 27an bertako zezenzaleekin zekorketa bat eta 28an nobillada bat izan ziren.

Lehen egunerako Francisco Gradis *Gangrena* (Madrilekoa) eta Jose Perez *Califa* (Sevillakoa) etorri ziren Lizaso–ren zezenkoak (hiru urtekoak) hiltzera. Bigarren egunean Tuterako Babil Periañez–en agindupean Cipriano Castellano *Chapiro* eta beste herrikoseme askok toreatu zituzten sei zezenko[4].

1877. urtean, Bartzelonako plazan uztailaren 29an Tutera ondoko Murelu–tik joandako zezen bat jokatu zen. Nazario Karrikirik bidali zuen eta *Borracho* deitzen zioten. Zortzi zaldi hil eta hogeitabi pikaldi jasan zituen.

1877. urteko maiatzaren 30ean, Bartzelonan bertan Karrikiriren *Famoso* zezena hogeitamaika aldiz pikatu zuten. Zezenak berak hamar zaldi hil zituen[5]. Urte hartantxe eta irailaren 22an berriz korritu ziren Karrikiriren zezenak Bartzelonan. Angel Pastor eta *Lagartijo*k hil zituzten[8].

1878. urtean, Luis Lizaso ganaduzale tuterarra hil egin zen, baina urteak zeramatzan ganadutegiak bere iloben eskuetan; bere anaia zahar Joan Frantziskoren seme–alaba ziren Manuel, Anizeto, Jose eta Manuelaren eskuetan hain zuzen[2].

Dena dela 1878. urtean Tuteran santanatarako enpresaririk ez zen aurkeztu. Horregatik uztailaren 26an nobillada bat bakarrik eman zuten zezenplazan.

Baina Tuterako ganadutegiei dagokionez, badirudi 1878.ean Roke Alaiza jaunak berea osatu zuela Alfaroko Ebaristo Etxague jaunari abelgorriak erosita. Dibisa zuri–gorri–berdea aukeratu zuen. Etxague jaunaren behiak Balterra eta Argetas–eko udalerrikoak ziren sortzez, nahiz eta haietako asko jatorriz Tadeo Gendulainenak izan[4]. Beste batzuek diotenez, Roke Alaiza jaunak bi urte geroago osatu zuen bere ganadutegia[5].

1878. urtean, Gasteizeko korridetan Rafael Molina *Lagartijo* eta bere anaia Manuel-ek (artean alternatiba hartu gabea) parte hartu zuten. Felix Gomez-en sei zezen eta Zalduendoren beste sei korritu ziren[15].

Bilbon ere urtero gisa eman zituzten abuztuan korridak 1878.ean. *Lagartijo* eta Angel Pastor ezpatariak izan ziren han, Mihura, Saltillo-ko markesa, Murube eta Laffitte ganaduzaleen zezenak toreatzen[10].

Donostian, 1878. urteko maiatzaren 12an Martzelino Soroa donostiarraren *Iriyarena* teatrolana estreinatu zen antzoki zaharrean. Gaztelaniaz eta euskaraz (elebiduna bait da) idatzia dago eta Donostiako sokamuturraren gorabeherak aipatzen dira bertan. Txistulariek zezena atera baino lehen *Iriyarena* doinua jotzen zutela ere bai, noski. Teatrolan hau bi urte lehenago Ziburu-n estreinatu zen.



12.3. irudia. Donostiako zezensuzkoa

Martzelino Soroak Donostiako zezensuzkoaz ere idatzi zuen. Hasieran saski batean adar batzuk, kartutxo batzuk eta zapi bat ipinita osatzen omen zen. San Pedro egunez arrantzaleek hirutan ere korritzen omen zuten; kofradiako Batzordea mezetara joan aurretik, meza bukatutakoan eta gauean. Gero ordea, egunez korritzen ziren zezensuzkoak kendu egin omen zituzten, txinpartak

ikusten ez zirelako erropa asko erretzen zelako. Gauekoak bakarrik gelditu ziren beraz.

Zezensuzkoa zazpi marinelek eramaten zuten. Bat azpian erdian egoten zen eta beste hiruna alde bakoitzean, gehiegi hurbiltzen zen jendea kolpatzeko. Azkenean zazpiak zezenaren azpira bilduta berebiziko eztandaz zezensuzkoa lehertu egiten zen.

Migel *Xeruk* egiten omen zituen zezensuzkoak Donostian. Haren ondoren berriz, Antonio Esnaola *Hermoxok*. Bere emaztea ederra zelako *Hermoxa* izenez ezagutzen zutelako deitzen zioten horrela.

Antonio Esnaolaren semeak (Justok) eman zion jarraipena zezensuzkoak egiteko lanari. Zezensuzkoa osatu egin zuen, gurpila, kandela erromatarrak, zorrotada eta zorrotada bikoitza ipiniz.

Justo Esnaolak hiru ganadutegiko zezensuzkoak zituen. Txikiena eta merkeena Karrikirirena zen; handixeagoa Mihurarena eta handiena (ospakizun nagusietarakoa) Veragua-rena[98].

1878. urtean Donostian, abuztuan korridak izan ziren Atotxa–ko zezenplazan. Korrida bat, abuztuaren 16an eman zuten, bezperan eguraldi txarra egin zuelako. Plaza ia beteta zegoelarik, *Frascuelok* (more eta urre) eta Felipe Garcia Benavente (arakatz eta beltz) ezpatari madrildarrak parte hartu zuten. Juan Manuel Martin ganaduzale colmenartarraren zezenak jokatu ziren dibisa gorri–horiz.

Laugarren zezena (*Trigueron* izenekoa) plazaratu zenean ordea, Paul Daverat landetarrak baimena eskatuta hondarrera irten zuen. Sudurzapi zuri batez dei egin zion zezenari. Zezena abiatu zitzaion halako batean, eta bera geldirik egon zen bertara heldu zen arte. Orduan, salto bat egin zuen eta zezenaren adar artetik buztaneraino gainetik pasatu zen. Zezena hil zutenean, Jose Arana enpresariak Paul Daverat toreatzaile landetarra plazaren erdira atera zuen eta lehendakariak zezena saritzat eman zion. Paul–ek zezenari belarria moztu, airera bota eta erretiratu egin zen.

Irailaren 9an ere beste korrida batean parte hartu zuen Paul Daverat–ek. Ezkontzekoa zen egun haietan, baina atzeratu egin zuen eginkizun hura Donostiako zezenplazako enpresarekin zuen konpromezua ondo beteta utzi arte. Hirugarren zezenean ikusi ahal izan zuten toreatzaile landetarraren lana. Pozik gelditu ziren denak.

Arratsalde hartako zezenak, Colmenar Viejo–tik Antonio Carrasco Miraflores–ek bidaliak ziren. *Lagartijo* eta Fernando Gomez *Gallito* (*Gallo* izenez ere ezaguna zen) ezpatariek parte hartu zuten korrida hartan[99].

Madrilen 1878. urtean, Antonio Perez Peciña *el Ostion* toreatzaile arabarrak nobillada batean zezenkoak hil zituen[8].

Madrilen bestetik, urte hartan Alfonso XII.a erregea bere lehengusina Maria Mercedes Orleans–ekin ezkondu zela eta erret korridak ospatu ziren urtarrilaren 25 eta 26an eguerdian. Usadio zaharren arabera emandako azken erret korridak izan zituzten madrildarrek haiek[100].

Bigarren eguneko korridan, Domingo Mendibil durangarrak parte hartu zuen. Mendibil erretiratua zegoen jadanik, baina egin zioten deiari baiezkoa eman zion[13].

Urtearen bukaeran, 1878.eko abenduaren 14ean Madrileko plazan emakume batzuk aritu ziren toreatzaile gisa nobillada batean. Martina Garcia–ren koadrilan Xabiera Bidaurre–k parte hartu

zuen asto gainetik zezenkoak pikatuz[9].

Gero toreatzaile famatu izango zen Luis Mazzantini trenbidetan ari zen lanean. 1878. urtean Malpartida–ko geltokiko buru egin zuten hain zuzen[27]. Campos Eliseos–en 1879. urteko urrian zekorketa batean toreatu zuen lehen aldiz Mazzantini–k Madrilen[8] hogeitahiru urte zituela[99].

1879. urteko irailaren 2an eta 3an, *Lagartijo* eta *Frascuelo* ezpatariek Karrikiri eta Rafael Laffitte–ren zezenak hil zituzten. Gasteizeko plazaren jabe, Ventura Pelaez jauna zen; bere aita Gregorio–k 35.000 pezetatan erosi bait zuen hiru urte lehenago. 1879. urtean ordea, jende asko gelditu zen Gasteizen zezenak ikusi gabe plaza txikia zelako. Enpresariak ia 13.000 pezetako irabaziak izan zituen eta plaza berria egitea pentsatu zuen. Plaza zaharra bota eta berria egiten hasi zen beraz[15].

Bilbon 1879.ean abuztuko korridetan Mihura, Murube, Anton Martin eta Varela–ren alargunaren zezenak korritu ziren. Haiek toreatu eta hiltzeko berriz, *Lagartijo* eta Francisco Arjona Reyes *Currito* kontratatu zituzten[10].

Nafarroako hiriburuan, 1879. urtean Kalisto Gaston jaio zen; gero *Gastoncillo* izenez ezaguna izango zen toreatzailea[101]. Cossio-k ordea, zortzi urte lehenago jaio zela dio. Tuteran berriz, uztailean bi korrida eman ziren Zaragozako Cerezo jaunak beste batzuekin batera plaza hartu zuelako. Uztailaren 26an Mazpule, Lizaso eta Karrikiriren bina zezen korritu ziren. Karrikirik 6.000 erreal kobratu zituen bere zezen bakoitzagatik eta 4.000 erreal besteek.

Uztailaren 27an Colmenar Viejo–tik ekarritako lau akastun zezen plazaratu zituzten. Guzti haiek toreatu eta hiltzera Angel Fernandez *Valdemoro* eta Juan Ruiz *Lagartija* etorri ziren. Jendea pozik atera zen korrida haietatik.

Ezpatariek 19.000 erreal kobratu zituzten eta zaldiak 15.000 erreal kostatu ziren[4].

Urte hartan Bartzelonan abuztuaren 29an Karrikiriren zezenak korritu zituzten. Pedro Aixelá *Peroy* toreatzaile katalanak parte hartu zuen[8].

Arestian esana dugunez, Perez Laborda tuterarrak Zaragozako Joaquin del Val–i saldua zion bere ganadutegia, eta honek 1879. urteko urriaren 5erako Cordobara bost urteko sei zezen bidaliak zituen. Perez Laborda eta del Val, bien izenean iragarri ziren zezenak. Dibisa zuri–urdina zuten. Rafael Molina *Lagartijo* eta bere anaia Manuel Molina (biak cordobarrak) ezpatariekin batera Jose Calderon, Manuel Calderon, Rafael Caballero *Matacan* eta Juan Moreno *Juanerito* pikatzaileak ere aritu ziren Cordobako plazan urriaren bostean.

Del Val–en bigarren zezenari suzko banderilak ipini zikioten. Hirugarren zezena atera zenean ordea, zalditan suhartasun handia erakutsi zuen eta talde batek bizia barka ziezaiola eskatu zion lehendakariari. Lehendakariak jendearen nahia beteko zuela adierazi zuen, eta nahiz eta turutak banderilak sartzeko deia aldarrikatua izan, *Lagartijo* plazako alderdi desberdinetara joanda jendeari galdezka hasi zen. Jendeak, agian galdera ulertu gabe, baiezkoa eman omen zion *Lagartijo*ri eta hark lehendakariari esanda Del Val–en zezena plazatik erretiratu egin omen zuten. Jendea orduan protestaka haserre hasi omen zen istilutan. *El Gallo* toreatzailea adibidez norbaitek botilaz bizkarrean jo omen zuen[2].

Zezen haren izena *Murcielago* zen eta *Lagartijo*ri erregalatu zioten. Honek berriz, Antonio

Mihura ganaduzaleari[102]. Antonio Mihura ganaduzaleak orduan behiak bi taldetan banatu zituen. Talde bati Veragua-ren zezen bat bota zion eta besteari *Murcielago* izenekoa; Perez Labordaren jatorria zuena eta Joaquin del Val–ek Cordoba–ra bidalia. *Murcielago* zezena, gorria eta ondo armatua omen zen eta 24 pikaldi jasan ondoren barkatu omen zioten bizia[9]. Geroztik Mihuraren ganadutegian sortzen diren zezen gorriak, *Murcielago* haren ondorengoak dira. Hori baieztatu zidan behintzat Bilbon 1985.eko abuztuaren 22an Eduardo Mihura jaunak. Egun hartan hain zuzen Bilboko plazan Mihuraren zezenak jokatu ziren. Bostgarren atera zena, ikusgarria zen; gorria, oso ondo armatua, adakeraz ikaragarria, 598 kilokoa, lau urtekoa eta 52 zenbakiduna. *Carnicero* zuen izena eta hura pikatzaileengandik ateratzea asko kostatu zen. Hain zen setatsua zaldiei bultzaka!. Jose Antonio Campuzano–k hil zuen. Mihura deiturak bestetik Hondarribia eta Baztaneko Oronoz–en[100] omen du jatorria.

Mihuraren ganadutegiak dena dela, nafar–kastatik askok uste baino gehiago du. Izan ere Joan Mihura jaunak 1852. urtean Jose Rafael Cabrera–ren ia ganadutegi osoa alargunari erosi bazion ere, beste baten jabe bazen aurretik. Antonio Gil Herrera–ri batetik 1842.ean erosi bait zion berea eta 1849.ean Jose Luis Alvaredari berea ia osoa (zati bat aurrez Antonio Sanchez Bazo–k erosi zuelako). Baina bai Gil eta bai Alvareda–k Pedro Etxeberrigarai jaunari erosita zeukaten, eta honek era berean Gallardo anaiei (Puerto de Santa Mariakoei) 1788.ean erosita. Azken hauek berriz, Rota–ko Marcelino Bernaldo de Quiros–ek 1758. urtean sortua zeukaten. Bernaldo de Quiros apaiz nafarrak ordea behi andalusiar eta zezen nafarrez eratu zuen ganadutegia.

Aipa dezagun bestetik Antonio Sanchez Bazo–k Alvaredari erositako zatia, nahaste batzuk jasan ondoren Felipe de Pablo Romero–ren eskuetara etorri zela 1885.ean.

Bukatzeko, zera aipatuko dugu: Mihurak 1918. urtean Tamaron–en alargunaren *Banderillo* izeneko zezena gehitu zuela ganadutegira[20] eta 1854. urtean Jose Arias de Saavedra–ren beste batzuk.

Baina gatozen 1879. urtera berriro. Izan ere Zaragozan uztailaren 25ean Santiago egunez Joaquin del Val–en sei zezen jokatu ziren. Kartel iragarlean Perez Laborda eta Joaquin del Val bi izenak atera zituzten. Ordurarte Del Val–ek zezenkoak jokatu zituen plazan eta hura zen zezenak bidaltzen zituen lehen korrida. Oso portaera ona izan zuten zezenek lehen korrida hartan; bigarrenak batez ere. Guztira 26 zaldi hil zituzten.

1879.eko urriaren 13, 14, 15 eta 19rako korridak iragarri ziren Zaragozan. *Lagartijo* eta *Frascuelo* ezpatariek lan egingo zuten eta azken egunean Juan Ruiz *Lagartijak* ere bai.

Nafar–zezenak korrituko ziren; 28 guztira, Karrikiri, Ferrer, Perez Laborda edo Del Val eta Ripamillan–enak[9].

Plazara lehenbizi zein ganadutegitako zezenak atera behar ziren erabakitzeko, antzinatasunari begiratzen zioten, eta Joaquin del Val–ek Bizente Perez Laborda–ri idatzi egin zion berearen xehetasunak eskatuz.

Bizente Perez Labordak zera erantzun zion: zezenak bere izenean iragartzerik ez zuela nahi eta izena, burdin marka eta antzinatasuna ez zirela saltzen eta ez zizkiola saldu. Haiek herentziaz bakarrik eskuz aldatzen ziren.

Dena dela urriko korridetan Del Val–en sei zezenen portaera ez zen ona izan. Txikiak eta adakeraz pobre samarrak ziren. Ez zuten suhar jokatu[2].

Bestetik, Akitaniako Estang herrian Jean Dause hil egin zen bertako korrida batean[31].

———— o ———— o ————

1880. urtean beste nafar–zezen batzuen zangartasuna ikusi ahal izan zen plazan. Karrikirik Bartzelonara bidalitako bi aipatuko ditugu hasteko; ekainaren 24ean korrituak biak. Batak *Lobito* zuen izena. Hogeitabat aldiz pikatu zuten, eta berak pikatzaileak hamahirutan bota zituen lurrera bederatzi zaldi hilez. Besteari *Provinciano* deitzen zioten. Gorribeltza zen; zangarra, gogorra eta noblea; Bartzelonan ikusitako onenetakoa. Bartolesi, Francisco Fuentes, Baston eta *Sabaté* pikatzaileek hogei bider ziztatu zuten. Pikatzaileak ordea hamabitan lurreratu ziren, bederatzi zaldi galdu zituztelarik. Antonio Herrera *Añillo* banderilaria behaztopa eginda erori egin zen eta *Provincianok* hamarren bat metrotara aidean bota zuen[9]. Manuel Fuentes *Bocanegra* eta Fernando Gomez *Gallok* hil zituzten zezen haiek[8].

Pedro Lizaso tuterarrak ere 1880.ean Iruñeko sanferminetara ohizkanpoko zezen bat bidali zuen, besteak beste. Uztailaren 8an jokatu zen eta *Zafranero* izena zuen. Zortzitan pikatu zuten eta bi zaldi hil zituen. *Frascuelok*, ezpataz hiltzerakoan, adarkada jaso zuen besagainean[5].

Raimundo Diaz funestarrak, *Centinela* izeneko zezena bidali zuen Tarazonara urriaren 12ko korridarako. Han Rafael Ordura (eta ez Ardura) *Quico* banderilariari zauri handiak egin zizkion eta egun batzuetara hil egin zen toreatzaile gizajoa[9].

Urte hartantxe, otsailaren 24ean Francisco Garcia Ardura jaio zen Bilbon; gero *Fresquito* izenez ezagutuko zen banderilaria[8]. Uztailaren 10ean berriz, Begoña–n Rufino San Bizente jaio zen; gero *Begoñako txikia* edo *Chiquito de Begoña* izenez zezen–hiltzaile gisa toreatuko zuena[103]. Valentin Cubillas *Trueno de Bilbao* ere 1880.ean (edo hurrengoan) jaio zen. Zezenko–hiltzaile gisa zerbait ibili zen, baina ezer nabarmenik egin gabe[8].



12.4. irudia. Gasteizeko mapa, bere zezenplaza berri eta guzti

Luis Mazzantini 1880. urtean, Ciudad Real eta Badajoz-en arteko trenbidean lanean ari zen. Santa Olalla-ko geltokiko buru zen, baina ez zegoen pozik; diru gehiago irabazi nahi zuen[8]. Toreatzaile izateko erabakia hartu zuenean, bere emaztea asaldatu egin omen zen (hiru hilabete lehenago ezkondu omen ziren), eta Luis Mazzantinik zera esan omen zion lasaitzearren: *Hemen bi gauza izan daiteke: Erret teatroko tenore edo zezen-hiltzaile*[31].

1880. urtean, zezenfesta komiko batzuetan parte hartu zuen eta abenduaren 5ean nobillada serioan saiatu zen *Mateito, Pulguita* eta *Valladolid*ekin batera. Toledo-ko Isidoro Recio-ren zezenkoak hil zituzten[8], Madrileko Fuente del Berro-ko plazan[104].

Gasteizen irailaren hasieran gari hartan larrabehiak korritzen zituzten Korreria kalean eta Kale Berrian[105]. Zezenplaza biribil berria ere 1880. urtean estreinatu zuten Gasteizen. *Txakiritxo* izeneko lekuan izan zen eraikia. Otsailaren 13an hasi ziren lanak eta irailaren 3an ospatu zen lehen korrida[106]. Felix Gomez Colmenar Viejo-koaren *Soberbio* izeneko zezena toreatu zen lehenbizi. *Lagartijo*k hil zuen[9].

1880. urtean, Akitaniako Ossages herrian (Tilh-eko errotan) Henri Laulhe jaio zen; gero *Meunier I.a* izenez ezaguna izango zen toreatzailea[31].

Bilbon 1880. urteko abuztuko korridetan, Murube, Adalid, Anton Martin eta Varela-ren alargunaren zezenak plazaratu ziren. *Lagartijo* eta *Cara ancha* ezpatariek egin zituzten haienak[10].

Donostian, 1880. urteko sansebastianetan ohizko sokamuturrak eta zezensuzkoak korritu ziren[17], eta abuztuan berriz, korridak. Abuztuaren 22koan, Vicente Martinez-en zezen batek eskuineko besoan zauritu zuen *Frascuelo*[107].

1881. urteko sansebastianetan, urtarrilaren 20an goizeko 8etan txistulariek *Iriarena* jo zutenarekin batera Donostian sokamuturra atera zen *baka*tik. Bukaeran zezena Konstituzio-plazaren erdiko zirgiluan lotuta jokatu zuten. Zezenak ez zuen erakutsi behar bezalako suhartasunik[17].

Konstituzio-plazaren erdian zegoen zirgilua, gaur egun Donostiako San Telmo museoan ikus daiteke.

Gauean donostiarrek, ohi bezala zezensuzkoa korritu zuten. Baina urte hartan, 1881.ean, Serafin Baroja-k (Julio Caro Baroja-ren aitonak) ipinitako bertso batzuk argitaratu ziren. *Iriarena* doinuaz kantatzekoak ziren; honako hauexek hain zuzen ere:

ZEZEN-SUZKOA
(Idiyarena-ren soñuan)
Danboliñaren jirac kalean
daramatzi jendeac airean
chistuaren
ta atabalen
soñu alayean.
Erriko biztanle guziac
plazara dirade etorriac,
arratzeco
zezeneko
suac ekarriac.

¡O Donostiko zezen–suzkoa
izan zaitez zorionekoa!

Irtena da zezena arkupetic,
chingarra dariola atzealdetic,
danbadaka,
ta jiraka
jendeen tartetic.
Zalapart artan zenbat nazpill,
zenbat karrasi, zer iskanbill,
itzumuka,
trunbulluka,
jende dena dabill.
¡O zu, zezen onen autorea,
izan zaitez gloriz betea!

Damacho gazte ta galai fiñac
elkarri adi bat ezin egiñac,
arkupetan,
kiriketan,
¡ay, zer alegiñac.
Zezen–suzkoa bada aurrean,
iges egiñ nairic asmoan,
zeren larri
diran jarri
elkarren ondoan.
¡O zezen pizkor chingar jariyo,
Zenbat kontu zure mediyo!

Su–kurpillac dijoaz astera,
zezen–suzkoa igo dute oltzera,
argi pillac,
su bombillac
dijoaz airera.
Zeñen argi politak dira
maite degunari begira,
bat batetan
begietan
ikusten badira,
¡O, bai, dira, bai, chit chingartiac
biotz–suzko baten argiac!

Bejondaizula, zezen suzkoa,
Donostiaren inbenzioa,
gazteentzat
ta zarrentzat
fest gaiñ–gañekoa.
Ez, bada, jendeac, nagitu,
plazara joan gabe ez gelditu,
far asko egiñ,

dantzatu ariñ
ta asko dibertitu.
¡Zezen–suzko eder on degizula,
gaur ta beti bejondaizula!

Serafin Baroja [108]

Gehienetan letra honen eranskin gisa beste zatitxo bat ere kantatu ohi da. Honako zatitxo hau hain zuzen:

Zezenak dira
beltz–beltzak dira,
harrapatzen bazaitu (bis)
bertan, bertan hilko zaitu (bis)

Edo antzekoa den beste hau:

Dira, dira,
zezenak dira,
buztana motza,
adar zorrotza,
harrapatzen bazaitu (bis)
bertan, bertan hilko zaitu (bis)[109].

Udan, korridak izan ziren urtero bezala. Baina orduan Donostian Salamanca–ko markesak Urumea ibaia bideratzeko obra bere gain hartua zuen, eta langileei (bi mila baino gehiago ari ziren lanean) zezenetarako sarrerak ematen zizkien[110].

1881. urtean Gasteizen santiagotan bi korrida jokatu ziren; bostna zezenekoak. Guztira 104 pikaldi jasan eta sei zaldi hil zituzten. Zezen bat hamabost aldiz ziztatu zuten eta beste batek barrera zazpitan saltatu zuen.

Gero irailean ohizko erromeria egin zen Olarizu–n. Gasteizeko udalgizonek hiriko mugarriak aztertu zituzten urtero bezala eta larrabehiak ere korritu ziren usadioari jarraituz. Barbastroko musikari batek izterrean adarkada jaso zuen gainera[105].

Bilbon 1881. urtean, *Lagartijo* eta *Frascuelo* kontratatu zituzten abuztuko korridetarako. Zezenak, Mihura, Saltillo, Nuñez de Prado eta Laffitte–renak izan ziren.

Lehen korridan Nuñez de Prado–ren zezenak txarrak atera ziren, eta aitzakia hartaz baliaturik, enpresarien etsaiek bigarren korridan (Saltillo–ko markesaren zezenak korritzen ari zirela) pankartak atera zituzten. Hirugarren zezena hildakoan *¡7500 reales! ¡Buen camelo!* zioen bat, hurrengo zezenean *Cada dia mayor* zioen beste bat, hurrengoan *¡Escandalo numero dos! Toros en Gatica* etab.

Elkano eta Fernandez del Campo kaleen artean zegoen zezenplaza hartako enpresak biharamunean diru–kontuak argitaratu zituen egunkaritan, haiek iruzur inori ez ziotela egin frogatuz.

Dena dela Bilboko *La Union Vasco–Navarra* egunkariak beste idazlan bat argitaratu zuen

zezenplaza berria egiteko proposamena aditzera emanez. Plaza berria egiteko akzio-jaulkipena egitea gomendatzen zuen, eta gero akzioak amortizatzen zirenean plazaren jabegoa Bilboko Errukietxearen esku uztea ere bai.

Egun batzuk geroago aldizkari berean *¡En nombre de la caridad!* izeneko idazlanaren bidez akzioen harpidetzeari hasiera eman zitzaion eta irailaren 2an 81.500 pezeta bildurik zituzten jadanik. Hilaren 6an 94.000 pezeta bildurik zeuden, eta 19 langile eré prest zeuden egun jakin batzuetan lana doan egiteko[10].

Enpresa berriak, Uriza mendiaren magalean 240.000 oin lur erosi zituen zezenplaza egiteko; oraingo Vista Alegre izeneko plaza dagoen lekua hain zuzen. Lurrak Camiña jaunaren alargunarenak ziren eta 37.500 pezeta kostatu zitzaizkien. Antonio Iturralde eta konpainia izeneko elkarteak egin zituen obrak Sabino Goikoetxea arkitekto bilbotarraren gidaritzapean. Obratako maisua Jose Cortes jauna izan zen. Obrak eta lurrak 416.759,56 pta. kostatu ziren guztira.

Zezenplaza berriak 12.114 eserleku zituen, eta zezentoki hondarreztatuak 49,97 metroko diametroa zuen.

Obrak azaroaren 15ean hasi ziren. Akzio bidez 250.000 pta. bilduak zituzten jadanik eta gainerakoa ordaintzeko Bilboko Bankutik mailegua lortu zuten %4eko interes-tasan.

Lehen urteetan akzioak eta mailegua amortizatu zituzten eta gerora irabaziak Errukietxera eta Ospitale Zibilera joan ziren (oraindik ere ohitura hori indarrean dago).

Ramon Guardamino, Aureliano Schmidt eta beste jaun batzuek osatu zuten gestio-batzordea[111].

Bilbon 1881.eko apirilaren 29an, gero zezen-hiltzaile izandako Jose Muñagorri jaio zen[102]. Burgosen berriz, abuztuaren 9an Domingo Mendibil toreatzaile durangarra hil egin zen[13].

Getxo-ko Algorta-n, 1881. urtean abuztuaren 12an (goizeko hamarretan) korritu omen zuten lehen aldiz sokamuturra. Abuztuaren 16an berriz, portuan lehen aldiz nobillada eman omen zen (85 pezeta kostatu omen zen) eta geroztik ere izan omen dira nobilladak han[112].

Nafar-zezenek 1881. urtean lanak eman zituzten zenbait plazatan beren suhartasuna medio. Haietako bat Jorge Diaz funestarrak Soriara bidalitako *Cabrero* izenekoa izan zen. Urriaren 3ko korridan, 22 aldiz pikatu zuten eta zezenak berak zazpi zaldi hil zituen, Roman de la Rosa pikatzailea zaurituta utziz. Karrikiri-ren *Lancero* izenekoa Tuteran jokatu zen irailaren 3an. Hogeitazazpi pikaldi jasan zituen, zortzi zaldi hilik eta hiru larriki zauriturik utziz[5]. Pina-ko Ferrer-ek Zaragozako plazara bidalitako *Alpargatero*, urriaren 16an hamazazpi aldiz pikatu zuten eta berak zortzi zaldi hil zituen[9].

Garai hartan toreatzaile andalusiarrak ziren famatuenak, eta Euskal Herriko plazetara asko etortzen ziren. Iruñeko sanferminetara adibidez, *Lagartijo* etorri zen 1881.ean. Baina bertako toreatzaileren bat edo bestek fama hartzen zihardu en zezenko-hiltzaile gisa. Luis Mazzantini elgoibartarra adibidez, 1881. urteko udaberriko nobilladatan saiatu zen eta abenduaren 18ko nobilladan Madrilen arrakasta izan zuen. Lanak eman zituen zezenko koldar bati (suzko banderilak jarri zizkioten) bikain sartu zion ezpata. Mazzantini ezpata astintzen zuen maisutasuna erakusten hasia bait zen[8].

Antonio Perez Peciña *el Ostion* biasteriarra, banderilari gisa lanean hasia zen korridatan. 1881.eko irailaren 23an Valladolid-eko korrida batean hartu zuen parte, arrakasta lortuz. *Frascuelo*, Fernando Gomez *Gallo* eta Felipe Garcia ezpatariek lan egin zuten egun hartan[26].

1881. urte inguruan Julian Aranguren jaio zen Bilbon. Toreatzen gazterik hasi zen gero, baina gazterik utzi behar izan zion langintza hari burruka baten ondorioz medikuak hanka mozteko premian aurkitu zirelako[8].

1882. urtean, Iruñeko sanferminetara *Lagartijo* eta *Cara ancha* ekarri zituzten toreatzera. Karrikiri, Tuterako Lizaso eta Funeseko Jorge Diaz-en zezenak plazaratu ziren sanfermin haietan. Uztailaren 8ko goizeko proban, *Lagartijo*k bakarrik toreatu behar izan zuen, bere laguna zauriturik suertatu zelako. Uztailaren 10ean ere *Lagartijo*k berak bakarrik hil zituen zezenak. Arratsalde hartan, Karrikiriren zezen batek kolpatuta hiru pikatzaile joan ziren erizaindegira. Azken eguneko korridan, seigarren zezena (Diaz-ena) plazatik toriletara bidali zuen Jose Xabier Colmenares lehendakariak (Iruñeko alkateak) euria hasi zuelako. Jendedak orduan, eguzki aldekoak batez ere, musika eta larrabehiak eskatu zituen. Lehendakariak ordea, ez zuen amor eman, eta han sortutako istiluen ondorioz, gero alkatearen etxe aurrean (Gaztelu-plazan) harrika kristal, argi eta zuhaiska asko hondatu zuten asaldatuek[113].

Tuteran 1882.ean Vicente Garcia *Villaverde*k parte hartu zuen santanatako korridetan, bere laguntzailetako bat Luis Recatero *Regaterillo* zelarik[8].

1882. urtean Nafarroako ganaduzaleek beren zezenak plaza desberdinetara bidali zituzten. Roke Alaiza tuterarrarenak adibidez, Utiel-en jokatu ziren lehen aldiz urte hartako irailaren 15ean. Angel Pastor eta Fernando Gomez *el Gallo* ezpatariek toreatu eta hil zituzten[4].

Nafarroako hegoaldean dena den, aurreko urteko irailaz gero lehorte gogorra pairatzen ari ziren. Horregatik Karrikirik 1882.eko maiatzean bi korrida Gasteiz inguruko belardi hezeetara bidali zituen bazkatzera. Zezen haiek gero udan Gasteiz edo Logronion korritu ziren. Gasteizeko korriden ondoren, Jorge Diaz ganaduzale funestarrak trenean topo egin zuen *Lagartijo*ren koadrilakoekin eta Jose Calderon *el Dientes* pikatzaileak adierazi zionez, oso suhar portatu ziren; hamalau zaldi hil eta pikatzaileak noiznahi lurrean erabili bait zituzten.

Karrikiriren beste zezen bat, *Asesino* izenekoa, garraiorako zurezko kaiolan hil zen Madrilera bidaltzerakoan. Bere burua han barruan ikusirik, adarrak eta besoak hautsi egin zituen bazterren kontra jota[5].

1882. urtean,Ejeako Gregorio Ripamillan-en ganadutegia bere seme Victorianoren eskuetara pasa zen[20].

Arabako Amurrio-n, 1882.ean San Roke bezperan inguruko Orozko herriko hiru zezenko jokatu zituzten. Hirugarrena Bilboko ezpatari batek hil behar zuen, baina ordubete pasa eta ezin zuelako, alanbrez lotuta sastakatu behar izan zuten.

Laudion ere sanroketan festak ospatzen dira. San Rokeren irudia ermitara igotzen zen eta han meza, bazkaria, aurreskua, zezenak eta erromeria izaten zen garai hartan[105].

Donibane-Lohizunen ere bazuten garai hartan zurezko zezenplaza Errepira-n (geltoki atzean), baina bertan korridarik ez zen ematen[114]. Akitaniako Aire-n bestetik, Dubecq ganaduzalearen

Voluntaria behiak Nenot aita hil egin zuen plazan harrapatuta[31].

1882. urtean Tolosako sanjoanetan Lizaso tuterarraren *Marismeño* izeneko zezenak, Luis Recatero *Regaterillo* banderilariari izterrean sartu zion adarra. Oso larriki zaurituta utzi zuen, baina hilabete batzuen buruan sendatu egin zen toreatzailea[8].

Donostian 1882.ko sansebastianetan sokamuturra urtero bezala korritu zuten[17] eta udako korridetarako, Atotxa-ko zezenplazan obrak egin zituzten. Eserlekuak aldatu eta azpian hondar eta hormaz indartuta utzi ondoren[9] abuztuaren 13, 14 eta 15ean korridak eman ziren. *Lagartijo* eta *Frascuelo*k hartu zuten parte igande, astelehen eta asteartez jokatutako korrida haietan. Lehen korridan, ezpatakada onak ikusi ahal izan ziren; *Lagartijo*k lehen zezenari eta *Frascuelo*k laugarrenari emandakoak batez ere. Laugarren zezen hura, Vicente Martinez-ek bidalia zen; adarzorrotza eta noblea. *Frascuelo*k ezpata hondoraino sartu zion, eta eskuan hartutako kolpeaz atzeraka erori zen.

12.5. irudia. Donostiako Santa Katalina zubia eta Atotxako zezenplaza 1882.ean

Bigarren korridan, astelehenekoan, Manuel Garcia Puente-ren (lehen Aleas-enak izandakoen) zezenak plazaratu zituzten. Bigarren zezena *Gitano* izenekoa zen eta Jose Calderon-ek bost aldiz pikatu zuen. Victoriano Recatero *Regaterin* eta Valentin-ek ipini zizkioten banderilak. *Frascuelo*k (urdin eta urre) faena ederra egin ondoren ezpata hondoraino sartu zion, eta une hartantxe zezenak kolpatuta bota egin zuen lurrera ezpataria. Gero, lurretik adarrez jaso eta aurrera eraman zuen, toreatzaileak bere buruari bi eskuez adarrari helduta eusten ziolarik. *Frascuelo* oso larri ibili zen eta kolpeak ere ez ziren nolanahikoak izan. Dena den, zezenak *Frascuelo* ezpata sartzen hurbilegitik hasi zelako harrapatu zuen; horrela ezin bait zuen ezkerreko muletaz zezenaren burua desbideratu.

Hirugarren korridan Mazpule-ren zezenek ez zuten suhartasun handirik erakutsi, baina toreatzaileen abileziari eta jakinduriari esker azkar hil zituzten.

Victoriano Recatero *Regaterin* eta Jose Gomez *Gallo* banderilariak ere nabarmendu ziren lana ondo egiteagatik. Jose Arana enpresariak berriz, bere ekonomia indartzeko modua izan zuen, korrida haietara jende asko joan zelako[26].

Bilbon, 1882. urtean bi zezenplaza zituzten; bata zaharra eta berria (Vista Alegre–koa) bestea. Plaza berriak, 24 aldeko poligonoaren forma zuen eta batez ere hormaz eta adreiluz egina zen. Urte hartako abuztuan estreinatu zuten, hilaren 13, 14,15 eta 16ko korriden bidez. Korrida haietara Manuel Fuentes *Bocanegra*, Jose Lara *Chicorro* eta Fernando Gomez *Gallo* ezpatariak etorri ziren beren koadrilarekin. Zezenak berriz, Joaquin Perez de la Concha, Rafael Laffitte, Vicente Martinez eta Murube–renak izan ziren hurrenez hurren.

Lehen korridan, abuztuaren 13koan, Antonio Pirala gobernadore zibila egon zen lehendakari plaza berrian. *Casaillo* izeneko zezena (Perez de la Concha–rena) atera zen lehenbizi hondarrera eta Manuel Mejias Lujan *Bienvenida*k hartu zuen kapotez. Emilio Bartolesi sevillarrak pikatu zuen lehen aldiz eta Rafael Guerra Bejarano *Llaveritok* (gero *Guerrita* izenordez ezagunagoa izango zenak) sartu zion lehen banderila–parea. Hamar aldiz pikatu zuten *Casaillo* zezena, baina berak zaldi bat hil zuen. *Bocanegra* ezpatariak egin zituen harenak, ezpataz zenbait bider saiatu ondoren. Bigarren zezena *Carasucia* izenekoa zen eta *Chicorro*k bitan ezpata sartuta hil zuen. Hirugarrenari, *Cumbreror*i, Fernando Gomez *el Gallo*k ederki sartu zion ezpata lehenengoan. Laugarren zezena, *Saltador* izenekoa, *Bocanegra*k hil zuen ezpatakada batez. *Terciopelo* izeneko bostgarrena plazaratu zenean *Chicorro*k hagaz gainetik salto egin zion. Ezpata sartzen zenbait aldiz saiatuta bota zuen. Seigarren zezena, *Confitero*, zangarra suertatu zitzaien. Hamalautan pikatu zuten, lau zaldi galdu zituztelarik. Fernando Gomez *el Gallo*k nola edo hala lortu zuen azkenean hura hiltzea.

Abuztuaren 14ean, bigarren korrida eman zuten, gobernadorea lehendakari zela, Rafael Laffitte–ren zezenak jokatuz. Lehen zezenak, *Portugues*ek, Manuel Lopez *Nelu* banderilaria zauritu zuen ezkerreko izterrean. *Bocanegra*ri asko kostatu zitzaion zezen hura ezpataz hiltzea. Bigarren zezena berriz, *Chicorro*k bi ezpatakadaz bota zuen. Hirugarrenak, *Montoso* izenekoak, bost pikaldi jasan eta lau zaldi hil zituen. Fernando Gomez *Gallo*k bigarrenean hil zuen. Laugarren zezenak, *Escribano*k, sei pikaldi jasan eta bi zaldi hil zituen *Bocanegra*k ezpataz lehen kolpean bota baino lehen. Bostgarren ateratako *Botinero* hamabi aldiz eraman zuten zalditara eta berak zaldi bat hil zuen. Seigarren ateratako *Guano* berriz hamar aldiz eraman zuten, berak lau zaldi hilik utzi zituelarik.

Abuztuaren 15eko korridan, hirugarrenean, Vicente Martinez–en zezenak plazaratu ziren. Lehen zezena (*Ballestero*) hiltzen ari zela, *Bocanegra*k bere eskua zauritu egin zuen ezpataz eta erretiratu egin zen. *Chicorro*k bete zuen harez gero Manuel Fuentes–en hutsunea. Hirugarren zezenaren belarria irabazi zuen Fernando *Gallo*k, bigarrenean ezpatakada bikainaz *Arbolario* bota zuelako.

Korrida hartan *Chicorro* eta koadrila ez ziren ondo egon, baina *el Gallo* ezpataria bai.

Laugarren korridan, abuztuaren 16an, *Chicorro* eta *el Gallo* ezpatariak bakarrik aurkeztu ziren koadrilarekin batera. Murube–ren sei zezen eta Vicente Martinez–en bat (zazpigarrena) jokatu zituzten.

Zezenetan bostgarren ateratako *Currito* izenekoa nabarmendu zen. Lau zaldi hil eta bat zauritu zuen. *Chicorro* gaizki egon zen arratsalde hartan[10], eta Fernando Gomez Garcia *el Gallo* ongi. Seigarren zezenaren belarria irabazi zuen. Zazpigarren zezena berriz, Diego Prieto

Cuatrodedos ordezko ezpatariak hil zuen bigarren kolpean[110].

Korrida haietan Rafael Guerra *Llaverito* (gero *Guerrita* izango zena) banderilariaren lana asko gustatu zitzaion Fernando Gomez *el Gallo*ri, eta bere koadrilan eraman zuen[12].

Bilbon 1882. urteko abuztuaren 20, 21, 24 eta 25ean ere korridak eman ziren. Zezenplaza zaharrean hain zuzen. Laffitte, Veragua, Mihura eta Felix Gomez-en zezenak korritu zituzten. *Lagartijo* eta *Frascuelo* ezpatariak etorri ziren lanera beren koadrilarekin.

Lehen korridan Rafael Laffite jaunaren zezenak bigunak eta koldarrak suertatu zitzaizkien. Bost zaldi hil zituzten, eta ikuslegoa (oso ugaria) ez zen pozik atera.

Bigarren korridara ere jende ugari joan zen, nahiz eta euria egin. Veragua-ko dukearen zezenak bikain portatu ziren plazan eta ezpatariak ere bai. Plazan hamar zaldi hil zituzten zezenek eta gero ikuiluan beste zazpi hil ziren.

Hirugarren korridan, eguraldi onez plaza bete egin zen. *Lagartijo* eta *Frascuelo*k lana ondo egin zuten, baina Mihuraren zezenak ez ziren bigarren korridakoak bezain bikainak izan. Dena den, sei zaldi hil zituzten plazan.

Laugarren eta plaza zaharreko azken korridan, Felix Gomez-en zezenek zortzi zaldi hil zituzten plazan eta ikuilutan beste lau hil ziren. *Lagartijo* eta *Frascuelo*k oso ongi egin zuten lan. Azkeneko zezena (zazpigarrena eta Felix Gomez-ena), Antonio Perez *el Ostion* arabarrak hil zuen, ordezko ezpatari zegoelako[10]. Antonio Perez 1882.eko ekainaren 4ean Madrilen ere banderilak sartzen aritu zen[100].

Bilboko zezenplaza zaharra, Vista Alegre-koaren eskuetara pasa zen, eta ez zen harez gero zezenik jokatu. Dena dela 1882. urteko abuztuan, hamahiru egunen buruan 50 zezen ikusteko aukera izan zuten bilbotarrek[10].

1882. urteko neguan, Luis Mazzantini Montevideo-n (Ameriketan) aritu zen toreatzen, arrakasta handia lortuz.

1883. urteko maiatzaren 3an Madrilen Salas-eko markesaren eta Patilla-ko kontearen zezenak hil zituen. Errege-erreginak ere joan ziren Mazzantini ikustera, nahiz eta eguraldi txarra egin. Geroxeago, maiatzaren 31n, Madrilen bertan Bartolome Muñoz-ek burtzikatutako bi zezen hil zituen. Lehen zezenean hanka okertu bazitzaion ere, bigarren zezena hil arte ez zen erizaindegira erretiratu elgoibartarra. Korrida hartan Benjumearen beste sei zezen ere toreatu zituzten *Gordito*, *Lagartijo*, *Currito*, Fernando Gomez *Gallo*, Manuel Molina eta Diego Prieto *Cuatrodedos*ek.

1883.urteko abuztuaren 19an, Toledon Antonio Carmona *Gordito*rekin toreatu zuen Luis Mazzantinik.

Puerto de Santa Marian, toreatzaile handitzat zuten Mazzantini eta nahiz eta artean alternatiba hartu gabe egon, *Bocanegra* eta Manuel Hermosilla-rekin batera toreatu zuen. Gero, Montevideora abiatu zen *Cuatrededos* eta Santos Lopez *Pulguita* ezpatariak, Manuel Martinez *Agujetas*, Jose Bayard *Badila*, Francisco Zafra eta Pedro Ortega pikatzaileekin eta Ricardo Verdute *Primito*, *el Panadero*, Felipe Arago, Jose Perez *Califa* eta bere anaia Tomas Mazzantini banderilariekin.

Luis Mazzantinik, zezenak hiltzerakoan ezpata ongi astintzen ikasi zuen. Kapote eta muletaz zituen akatsak zuzentzen ere saiatu zen, baina lan hietan ez zuen hainbesterainoko arrakastarik lortu[8].

1883. urtean, Antonio Txabarria *Aragonese*kin batera Madrilen Bernardo Hierro toreatzaile arabarra (Legutio–n jaioa) aurkeztu zen, Jose Gomez–en ganadua toreatuz. Gero ezpatari desberdinekin banderilari gisa lan egin zuen. Baita Luis Mazzantini–rekin ere[21].



12.6. irudia. Luis Mazzantini

Iruñean 1883. urteko sanferminetarako, *Lagartijo* eta *Frascuelo* kontratatu zituzten. uztailaren 7, 8, 10 eta 11rako iragarri zituzten korridak eta 9aren goizerako *proba*. Karrikiri, Zalduendo, Lizaso, Jorge Diaz eta Elortz–en nafar–zezenak korritu ziren[115]. Uztailaren 11n, Karrikiriren *Estudiante* izeneko zezenak eskuan zauritu zuen *Frascuelo*[107].

1883. urtearen hasieran, otsailaren 25ean, Karrikiriren *Buscavidas* izeneko zezenkoa jokatu zuten Madrilen. Hamaika aldiz pikatu zuten eta berak sei zaldi utzi zituen hilik. *Lavativa* izeneko zaldimutilak txapela bota zion, eta zezenkoak, usain ondoren, jan egin zuen[5].

Tuteran irailaren 8an berriz, Karrikiriren *Elefante* izeneko zezenak bost zaldi hil zituen. Hogeitamaika bider pikatu beharra egon zen, eta hamabi aldiz bota zituen zaldunak zaldi gainetik[9].

Nazario Karrikiri jaunak, bere ganadutegian zuen partea 1883. urtean saldu egin zion 200.000 pezetatan Juan de Dios Mosso Irure koinatuari; Espoz y Mina–ko konteari hain zuzen[5].

1883. urteko saninaziotarako, azpeitiarrek Funeseko Diaz–en zezenkoak ekarri zituzten. Nobilladak uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean izan ziren, Gabriel Lopez *Mateito* madrildarrak eta bere koadrilak lan egin zuten. Azkenean bertako zezen bolaztatu bat ere jokatu zen gaztejendea diberti zedin. Abuztuaren 2an beste nobillada bat izan zuten, baina bertako toreatzaileak aritu ziren lanean[116].

Zestoan ere herriko plaza itxita nobilladak emateko ohitura bazen. 1883. urtean hain zuzen, barrera berriak egin zituzten. 505,18 pezeta kostatu zitzaizkien[117].

1883. urtean Donostian alai ospatu ziren sansebastianak. Ohizko sokamuturra eta zezensuzkoaz gain Atotxa–ko zezenplazan akrobata batzuen emanaldia ikusi ahal izan zuten. Azkenean zezenko bat atera eta akrobata haietako batek lau katuz tiratako kotxetxo mexikar batetik pikatuko zuela iragarri zuten[17].

Donostiarrek sokamuturrerako zuten zaletasuna, garbi ikusten da urte hartan argitaratutako bertso batzuk irakurrita. Bitoriano Iraolaren hauek adibidez:

ERRIKO SEME DONOSTIARRA.

(DONKITUAK JOSE SALABERRIA JAUNARI)

AMALAUDUNA.

Urruti bizi arren, urtetik urtera
Errira azaltzen da, iñauteriyetan,
Desiaturik bere lagunen artera
Farrez, burlaka edo chorakeriyetan.
Eta ateratzian iriya kalera
Laister ikusitzen da kale kantoyetan
Jé, Jé, oju egiñaz, chuliatzen bera
Naiz jo ta zilipurdi egiñ anche bertan.
Pachandiyaz zapata koskordunez otsa
Egiñaz or dijoa, panparroi chamarra...
¡Baña ongillia da beraren biyotza!
Guazen... itz baterako, ez da mutill charra:
¿Zein dan galdetzen dezu? ¡ez altzera lotsa!!
¡Zeiñ naizu izatia! ¡JOSE–MARITARRA!

AMALAUDUNA

Iñoiz errira sortzen badira
Doakabeak malkoz beterik,
Lagundu naian bere errira
Ez du orduban ezer bererik.

Goiz goiz azaldu nai det argira,
Danboliñaren otsak pozturik
Iri adar–motz bati begira
Gizontasunak oso azturik.
¡Emendek!! ¡teink!¡teink! farrez korrika
Kalerik–kale, aur bat bezala,
Sokak naiz bota zilipurdika;
Baña ibilli arren an ala
Farrez, jostatzen edo amilka
¿Zeñek ez daki prestuba dala? [118]

Donostiako Lore–jokoetan 1883.ean, Sarriegi musikariak egindako Donostiako martxaren doinuari letra ipintzeko lehiaketa bat egin zen. Aurkeztutako letretan sokamuturra eta zezensuzkoaren aipamenak egin ziren. Pepe Artola donostiarrak eginikoa adibidez, honela amaitzen zen:

....
Kantari (dabiltza)
aur denak (Denak) usteko oso alde
Batera penak
Soñuba (soñuba)
ta sokadun zezenak[17]

Baina Pepe Artola–k ezezik, bere aita Ramon Artola–k ere argitaratu zuen 1883.ean bertso ederrik Donostiako sokamuturrak tartean direla. Hona hemen batzuk:

ERRIKO SEME IRUCHULOTARRA

AMALAUDUNA.

Oso dibertituba
Erriyan izanik,
Ez du erriko seme
Beste izenik:
Bada ez da gaurikan
Ez ere egunik,
Zerbait jolasbidetan
Ikusten ezdanik;
Onlakorik zanik,
Ez nuben uste nik,
Ez deizkiyo danik,
Beretzako lanik,
Baldin dibertitzeko
Badu lagunik.

Jolaserako griña
beste gaitzik ez du,
alderdi guziyetan
portatzen da prestu.
Ala ditu erdaldun
nola euskaldunak,

denak nai diotenak
guztiyak lagunak.
Buruz argiya da ta,
ongi itzegiña,
alderdi guziyetan
oso atsegiña.
Guziz egoki daki
gezurrak kontatzen,
egokiyago berriz
dantzan ta kantatzen;
Eta egiten beste
norbaiten papera,
iruri arazten du
"beste" dala bera.
Ura dagüen tokiyan
tristurikan ez da,
denbora pasatutzen
biziro errez da.
.....

Allegatzen danean
iñautegi pesta,
echean asko aldiz
ikusiko ez da
Austerre pasa arte
zaldun iñauteitik
ez du izaten geldi
egoteko betik.
Erdilotan enzuten
badu danboliña,
seguru du berekin
lo ezin egiña;
Idiya bañan len da
irteten kalera,
noiz egingo duben ark
beiteitik karrera;
Gero bere arrekin
kalerikan kale,
ibillirik zapatak
urratzen debalde,
eramaten danean
ura beitokira,
joango da lagunakin
emanikan jira,
zumorikan onena
dagüen parrokira;
(klarogo esateko
sagardotegira).

.....

Sarri azaltzen zaio
berriz beste pesta,
zer jolaz izango dan
asmatzen errez da.
Lenago ditu meza
bezperak galduko,
idiyetara duben
bañan paltatuko.
Berekin izango du
bere kapa zarra,
zenbait aldiz idiyak
sartuba adarra;
eta tarrataríkan
ezpada bestetan,
siñale dala ongi
atera pestetan;
bada bere sastrea
izanik idiya,
arrek artutzen diyo
maiz galtzen neurriya.
Ez dakit nola miñik
artzen ezduben nik,
egundañon ikusi
ez det artzen miñik.
Ala non idiyakin
nola zezenetan,
inpernuko Pachi-ren
antza du denetan.
Beste jolasik ere
bear bada egin
lendabizi kontatu
oi da berarekin.

Denetan egiten du
nor baiten papera,
jantzi mudatu asko
oi ditu atera.
Ain laster ikusten da
oso pormal plazan,
nola chimukeritan
saltoka ta dantzan.
Ez diruri dubenik
hezurrik berekiñ.
izatekoz, artuko
lukela nago miñ.
Eguna igarota
zer esanik ezda,
illuntzean asten du
berriroko pesta.
Plakiyaren beldurrak

kendurik lenengo,
jolasean asiko
ez da aizkenengo.
Komediyarik bada
irtengo da bera,
graziyaz egitera
nor baiten papera,,
Andik gero joanikan
danzako tokira,
emango ditu danzan
makiña bat jira;
bada ura bañan len
ni nekaturikan,
lotarako echera
joaten naiz andikan.
Eta geroz nola ark
segitzen duben an,
aurrerako berririk
ez nezake eman.

RAMON ARTOLA

JOSE–MARITARRA

AMALAUDUNA.

Onen jolas bideak ikusi ditzagun
jar gaitzen begira zer molde dan bera;
Adarrik bear bada plazara atera
Berak egingo diyo idiyari lagun.
Erriko seme ona da beti ezagun:
¿Molde jostallugorik bestetan ote da?
Nola nai egiten du nor nairen papera;
Nekatzen ez dana da, ez gau ta ez egun.
Bere pentsamentuba ez dago bestetan
Ezpada nondik duben jolas bat sortuko,
Nondik parako duben Donostiya pestan;
Bada izanik lagun onak gasturako,
Nola umore onik bertan palta ez dan
nekez da Donostiyan pestik paltatuko.

RAMON ARTOLA.

ERRIKO–SEME DONOSTIARRA

AMALAUDUNA.
¿Zertan argitaratu bear det nik
Nor dan erriko–seme Donostiyan
Ez dan denboran bat erri guztiyan
Ongi ezagututzen ez dubenik?

Iñoiz etzaio palta beste lanik
jolas denetan da beti erdiyan
Aspertu eziñik erokeriyan,
Bein beren artzen ez dubela miñik.
Askotan arrapatzen du idiyak
Eta utzitzen oso parragarri
Ageri ditubela alderdiyak;
Bañan pestan dezan erriya jarri
Naiz oso puskatu galtza berriyak
Ez diyo ajolik batere arri.

RAMON ARTOLA[119]

Donostian 1883.eko abuztuaren 12, 15, 16, 19 eta 26an izan ziren korridak, Jose Aranak antolaturik. *Lagartijo* eta *Chicorro*k hartu zuten parte.

Abuztuaren 15eko korridan Karrikiriren zezenak plazaratu ziren; indartsuak eta gogorrak. *Chicorro* (berde eta urre), oso larri ibili zen, eta bere azkeneko zezena jendeak eskaturik, ordezko ezpatariak hil behar izan zuèn. Biharamunean ere *Lagartijo*rekin batera aurkeztu zen, eta berriro ere gaizki egon zen, baina laugarren zezenari (*Calcezuelo* izenekoari) hagaz gainetik salto egin ziolako txaloak entzun zituen. Korrida hartan burtzikariak ere aritu ziren[99].

Arabako Biasterin ekainaren 24 eta 25ean larrabehiak jokatu zituzten 1883 urtean ohi bezala, baina haietan suerte txarra izan zuten. Izan ere Ekorako gazte bat hil egin bait zen larrabehi batek adarra birikan sartuta[105].

Bizkaiko Igorre–n, 1883. urtean otsailaren 8an Luziano Bilbao Bilbao jaio zen; gero *Lunares* izenordez ezpatari famatuekin banderilari arituko zena[8].

Bilbon berriz, bi zezenplaza zeuden: Vista Alegrekoa eta zaharra. *Lagartijo* eta *Frascuelo*, plaza zaharrari loturik zeuden, eta jendeak haiek ikusi nahi zituen. Vista Alegre–ko plazak jai zeukan toreatzaile haiek ekarri ezean. Horregatik, nahiz eta diruz oso larri ibili, Vista Alegre–ko batzordeak plaza zaharra erosi egin zuen 100.000 pezeta ordainduta. Gainera plaza zaharrak ordurarte zituen konpromezuak bere gain hartu zituen Vista Alegre–koak. Plaza zaharra bereganatu zuenean ordea, kontratu batzuk hautsi nahi izan zituen. Jose Sanchez del Campo *Cara ancha*rena zen haietako bat. *Cara ancha*k ordea, auzitara jo zuen, eta abuztuko korridetan parte hartu zuen *Lagartijo* eta *Curritoro*kin batera. *Frascuelo*k toreatuko zuela ere iragarri zuen plazako batzordeak, nahiz eta zauriturik zegoela jakin[10].

Vista Alegreko plazan ordea korridak maiatzaren 2an hasi ziren. Colmenar–eko Pedro la Morena–ren zezenak onak atera zitzaizkien, baina Fernando Gomez *Gallo* eta *Cuatrodedos*ek ez zuten asmatzen. Seigarren zezena Antonio Perez *el Ostion*ek hil zezan eskatu zuen jendeak, baina lehendakariak ez zuen amor eman eta berebiziko istilua sortu zen. Antonio Perez arabarrak zezena toriletara eraman zuen eta han hil zuten fusilez goardia bizkaitarrek. Sei zaldi hil ziren plazan korrida hartan.

Maiatzaren 3an Jorge Diaz funestarraren zazpi zezen plazaratu ziren; oso txikiak egia esan. *Cuatrodedos*ek seigarrenari ezpatakada ona eman zion. Zazpigarrenari suzko banderilak ipini zizkioten eta *el Ostion*ek (ordezko ezpatari zegoen) oso ondo hil zuen. *Badila* eta Fuentes pikatzaileek lana ongi egin zuten. Baita *Guerrita* eta *el Ostion* banderilariek ere. Bost zaldi hil

ziren plazan.

Ekainaren 10ean *Frascuelo* ekarri zuten Bilbora Ripamillan–en sei zezen toreatzera. Hurrengo korridarako *Lagartijo* ekartzea pentsatua zegoen, eta jendeak ikusmin handia zuen bien arteko lehian garaile zein aterako zen jakitearren. *Frascuelo*k dena den, ekainaren 10ean lehen, bigarren eta seigarren zezenak oso ondo hil zituen. Besteak hiltzea gehiago kostatu zitzaion eta bostgarrenean zezenaren aurrean erori zen, baina zorionez ez zen zauritu. Hiru zaldi hil ziren plazan arratsalde hartan.

1883. urteko ekainaren 24ean, *Lagartijo*k Lizaso tuterarraren zezenak toreatu zituen. Zezen gogorrak eta suharrak atera ziren. Lehenengo atera zen *Cantinero* izenekoa 12 aldiz eraman zuten zalditara. *Lagartijo*k lan bikaina egin zuen. Lehen, bigarren, laugarren eta seigarren zezenak oso ongi hil zituen. Laugarren zezenaren belarria eman zioten. *Lagartijo*k bostgarren zezenean estutasunak izan zituen asmatu ezinik. 17 aldiz saiatu bait zen ezpata sartzen.

Seigarren zezenean, Juan Molina banderilariak zezenari buztanetik helduta Manuel Calderon pikatzailea salbatu zuen. Zezenaren lepagainera eroria bait zegoen. Zezena Juan Molina banderilariari sari gisa eman zioten. Hirugarren zezenak berriz, hirutan harrapatu zuen Mariano Torneo banderilaria, baina zauririk gabe suertatu zen. Hamar zaldi hil ziren arratsalde hartan[111].

1883.eko abuztuan, hilaren 19, 20, 21 eta 22an izan ziren korridak Bilboko Vista Alegren. Lehen korridan Antonio Pirala gobernadorearen lehendakaritzapean Vicente Martinez–en zezenak toreatu zituzten *Lagartijo*, *Currito* eta *Cara anchak*. Lehen zezenak hamar pikaldi jasan zituen, bigarrenak zazpi, hirugarrenak hamabi, etab.

Hirugarren zezenean, norbaitek eserlekutik *Cara anchari* botila bat bota zion, eta kalte handia sortzeko arriskua izan zuen. Gaizkilea preso eraman zuten[10]. Ezpatariak dena den, ez ziren luzitu arratsalde hartan[111].

Bigarren korridan, abuztuaren 20an, Abandoko alkatea lehendakari zela Veragua–ko dukearen zezenak korritu ziren[10]. *Currito*ri bigarren zezena eman zioten ondo hil zuelako. *Lagartijo* ere ondo egon zen bere bi zezenetan. Laugarrenari hiru banderila–pare berak sartu zizkion; bata pare motza eta beste biak luzeak. *Cara anchari* hirugarren zezena eman zioten sari gisa. Seigarren zezena, pikatzaile bat plazara sartzen ari zenean, bapatean zaldien ikuilura atera zen. Kalera ere irtengo zen Baldomero Huerta izeneko mutilak arrisku bizian atea itxi ez bazuen. Zezenak bost zaldi zauritu ondoren plazarako bidea hartu zuen eta han *Regaterinek* hil zuen sastakaia barreratik tripatan sartuta, *Cara anchak* ezpataz bi ziztaldi eman ondoren.

1883.eko abuztuaren 21ean izan zen hirugarren korrida. Vista Alegre–ko hondarrera Antonio Mihura–ren zezenak atera zituzten; txiki samarrak (bigarrena eta seigarrena oso txikiak).

Lagartijo bikain egon zen. Bere bi zezenak ezpatakada eder banaz bota zituen. Bi zezenak eman zizkioten Rafael Molina–ri. Francisco Arjona Reyes *Currito*k ere beste hainbeste egin zuen bere bi zezenekin, baina Jose Sanchez del Campo *Cara anchari* ez zitzaizkion gauzak hain ongi atera. Ezpataz asmatu ezinik luze aritu bait zen bere bi zezenetan.

Abuztuko 22an izan zuten bilbotarrek laugarren korrida. Rafael Laffitte–ren zezenak jokatu zituzten. Bostgarrena izan zen onena. Bi zaldi hil zituen 15 pikaldi jasanez. *Currito*k nola edo hala hil zuen.

Hirugrren zezenak *Cara ancha* harrapatu egin zuen hiltzerakoan, baina zauririk gabe suertatu zen.

Seigarrena, Rodriguez–ena zen eta toriletara erretiratu zuten, zezenarena ez eta idiaren portaera zuelako. Bota zioten sagarra ere jan zuen zezen hark. Haren ordez ateratakoak (Felix Gomez–ena zen), behiaren tankera zuen. Jendearen zalapartak ez ziren edonolakoak izan. Antonio Perez *el Ostione*k hil zezan eskatu zuen jendeak, baina lehendakaria ezetzean mantendu zen. *Cara anchak* hil ezinik bere saio luzea egin zuen eta azkenean *el Ostione*k bota zuen zezena barreratik ezpata nola edo hala sartuta. Hiru ezpatariek lana gaizki egin zuten arratsalde hartan.

Bilbon dena dela, 1883.eko irailaren 2an beste nobillada bat izan zen. Bi nafar–zezenko eta larrabehi bat hil zituen Jose Sanchez Laborda toreatzaile sevillarrak.

1884. urtean, urtarrilaren 6an nobillada bat emanez estreinatu zuten Bilboko Vista Alegre. Quintana eta Varona–ren hiru zezenko toreatu zituen Bernardo Hierro toreatzaileak. Koadrila zezenzalez osatua zegoen.

1884.eko maiatzaren 2an, korrida eman zuten Bilbon Guadalix de la Sierra–ko sei zezen jokatuz. Felipe Garcia (getafetarra) eta Valentin Martin (Torrelaguna–koa) ezpatariak etorri ziren haiek hiltzera. Korrida hartan Jose Ruiz Garcia *Joseito* banderilariak hagaz zezen gainetik salto egin zuen. Felipe Garcia–k zezen berari iskintxo eginez sartu zion banderila–parea. Valentin Martin–ek ere bai, baina hautsian, aulkian eserita ezin izan zuelako.

Felipe Garcia ondo egon zen bere bi lehen zezenetan eta hirugarrenean gaizki. Valentin Martinez–ek ez zuen gauza onik egin. Azken zezena hil ezinik zebilela, jendeak hil zuen hondarrera joanda. Pikatzaileak ere ez ziren ongi egon arratsalde hartan. Hamar zaldi hil zizkieten.

1884.eko maiatzaren 4ean izan zen bigarren korrida Vista Alegren lehengo ezpatari berberek parte hartu zutelarik. Cadiz–eko Berger–en sei zezen jokatu zituzten; ahulak eta argalak. Ezpatariak oso gaizki egon ziren. Bostgarren zezena Manuel Martinez *Agujetas* pikatzaileari eman zioten oso ongi ziztatu zuelako.

Ekainaren 22an, Bilboko plaza leporaino bete zen. Luis Mazzantini elgoibartarra alternatiba hartua zegoen jadanik eta Juan Ruiz *Lagartija* murciarrarekin batera Colmenar–eko Martin–en alargunaren sei zezen toratzekoak ziren. Korrida hau ekainaren 15ean ematekoa zen, baina Mazzantinik eskuan zauria zuenez gero, atzeratu egin zuten. Hirugarren eta seigarren zezenak izan ziren onenak. *Lagartijak* lana bikain egin zuen. Ondo hil zituen bere zezenak; bostgarrena batez ere.

Luis Mazzantinik ederki burutu zuen zegokion toreatze–lana, baina ezpataz asmatu ezinik ibili zen.

1884.eko ekainaren 24ean, bi egun geroago beraz, bi ezpatari haiexek lan egin zuten Vista Alegren Colmenar–eko Atanasio Rodriguez–en zezenak toreatuz. Zezenak ondo portatu ziren plazan. *Lagartija* ordea, bostgarrena ezik, zezenak hil ezinik ibili zen. Mazzantiniri bi egun lehenago baino zerbait hobeto atera zitzaizkion gauzak. Laugarren zezena oin–hegazka guztiz ederki hil zuen. Belarria eman zioten. *Torerito* banderilariak Manuel Perez *el Sastre* pikatzailea larrialdi batetik atera zuen. Hamar zaldi hil ziren arratsalde hartan[111].

Bilbon 1884. urteko abuztuan, hilaren 17, 18, 19 eta 20an eman ziren korridak. *Frascuelo*, Fernando Gomez *Gallo* eta Luis Mazzantini kontratatu zituzten. Zezenak berriz, Benjumea, Vicente Martinez, Ibarra eta Aleas–enak izan ziren[10]. Enpresarekin konpondu ez zelako, *Lagartijo*

ez zen urte hartan (eta hurrengoetan) Bilbora etorri.

Lehen korridan Benjumearen zezenak korritu ziren. Bi onak, beste bat nahikoa ona eta gainerako hirurak oso txarrak. *Frascuelo* eta *Gallo*k bakarrik toreatu zuten arratsalde hartan. Gaizki egon ziren. *Agujetas*ek bikain bete zuen bere pikatze-lana eta Bartolesi zalduna berriz erizaindegira joan zen bostgarren zezenak kolpatuta. Rafael Guerra *Guerrita*k laugarren zezenari maisuki sartu zizkion banderilak.

Abuztuaren 18an eman zen bigarren korrida. Vicente Martinez-en ganadua hil zuten *Frascuelo*, Fernando Gomez *Gallo* eta Luis Mazzantinik. *Frascuelo* garaile atera zen bere bi zezenetan lan ederra eginez. *Gallo* eta Mazzantini berriz, gaizki egon ziren. Zezenak zangarrak eta gogorrak suertatu zitzaizkien. Bistan akatsa zuten bi zezen plazaratu ziren eta seigarrenak eskuineko adarra motza zuen. Ganadutegi bereko beste bat atera zuten haren ordez.

1884. urteko abuztuaren 19an hil hartako hirugarren korrida eman zen Bilbon. Ibarraren zezenak gazteak eta indar gutxikoak izan ziren. Mazzantinik bere zezenak ezpatakada banaz bota zituen. *Frascuelo* muletaz nabarmendu zen batez ere. *Gallo* berriz bostgarren zezenean txalotu zuten. Rafael Guerra *Guerrita*k bikain ipini zizkion banderilak hirugarren zezenari.

Abuztuaren 20ko laugarren korridan, Aleas-ek zezen suharrak eta adakera ederrekoak bidali zituela ikusi ahal izan zuten. Arratsaldeko gauzarik onena, *Gallo*k bigarren zezenari egindako faena izan zen. Gainerakoan *Guerrita*k bostgarren zezenari iskintxo eginez sartutako banderila-parea bakarrik da azpimarragarria. Zazpigarren zezena ere plazaratu zuten; bi egun lehenago toriletara bueltatutako Vicente Martinez-en adarmotza hain zuzen. Antonio Perez *el Ostione*k hil zuen ezpatakadaerdiz[111].

Donostian 1884. urtearen hasieran sansebastianak ohizko tanborrada, sokamuturra eta zezensuzkoez ospatu ziren[17]. Urte hartan gainera zezenei buruzko *El Tendido* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi ziren Donostian[120]. Udako korridatan, Carmen Garcia eta ahizpen *Corredor* izeneko zezena nabarmendu zen. Hamalau pikaldi jasan, bederatzitan zaldi-zaldunak bota eta bost zaldi hil zituen[9].

Irufiean 1884. urtean *Lagartijo* eta *Frascuelo* kontratatu nahi izan zituzten, baina diru asko eskatzen zutelako eta kobratu gabe uztailaren 9aren goizeko proba toreatu nahi ez zutelako, beste toreatzaile batzuk etorri ziren: Fernando Gomez *Gallo*, *Currito* eta Valentin Martin. *Currito*k 13.500 pezeta kobratu zituen, *Gallo*k 11.000 pezeta eta Valentin Martin-ek 2.500 pezeta. Azken honek koadrilara ez zuen jenderik ekarri.

Uztailaren 7an, Tuterako Lizaso-ren zezenak jokatu ziren; satai eta adakera onekoak. Lehen zezena izan zen txarrena eta *Currito*k hil zuen itxura batean.

Uztailaren 8an Zalduendoren zezenak plazaratu ziren; onak inola ere. Bi pikatzaile zauritu zituzten. *Currito* gaizki ibili zen zezenak hiltzen.

Uztailaren 9an Espoz y Mina-ko kontearen zezenak (lehen Karrikiri-renak) atera zituzten plazara; handiak, indartsuak, nobleak, ezinhobeak[1]. Aipa dezagun Nazario Karrikiriren heriotza; 1884. urteko urtarrilaren 12an hil bait zen[121]. Guztira 68 aldiz joan ziren zalditara. *Currito* laugarren zezenean egon zen ongi.

Uztailaren 10ean Irufiean Veragua-ko dukearen ganadua plazaratu zuten. *Currito*k laugarren

zezenarekin faena ederra burutu zuen, eta erreматerako sartutako ezpatakada ere ez zen txarragoa izan.

1884.eko sanferminetan, 50 zaldi hil zituzten zezenek.

Gero Iruñean, beste korridaerdi bat antolatu zuten burtzikari bat eta *Currito*ren koadrilaz baliaturik[1].

Sanfermin haietan (1884. urtean) koadrilan Rafael Guerra *Guerrita*k banderilari gisa lan egin zuen. Jendea pozik gelditu zen eta bere alde pankarta bat ere zabaldu zuen[8].

Gasteizen ere izan ziren korridak 1884.eko udan. Abuztuaren 6koan Patilla–ko kontearen *Zapatero* izeneko zezenaren portaera azpimarratzekoa da. Sei zaldi hil zituen[9].

1884. urteko otsailaren 6an, Antolin Arenzana jaio zen Bilbon; gero *Recajo* izenordez zezenko–hiltzaile izango zena. Abuztuaren 2an berriz Fabian Bilbao–k ikusi zuen argia lehen aldiz Bizkaiko hiriburuan. Fabian gero pikatzaile ibiliko zen toreatzaile bizkaitarren koadriletan. Urte hartan bestetik, Jose Arteagabeitia *el Bilbaino* banderilari bizkaitarra La Habana–ko La Regla izeneko plazan lanean aritu zen.

1884. urtean nabarmentzen hasitako beste banderilari bat, Tomas Mazzantini izan zen. Aurreko urtean Tomelloso–ko korrida batean zauriturik utzi zuen zezen batek; eskumuturra hautsita, belarri bat ere bai eta burua kolpaturik utzi zion. Gero Montevideora joan zen bere anaia Luisen koadrilan eta 1884.eko ekainaren 24ean Madrilen lan egin zuen lehen aldiz banderilari gisa. Rafael Surga eta Juan Segura–ren zezenak hil zituzten orduan *Currito* eta *Cuatrodedos*ek. Zigarro asko bota zioten Tomas Mazzantiniri lana ongi egiteagatik. Bere anaia Luisekin ere lan asko egin zuen 1884.ean. Izan ere Luis Mazzantini–ri Montevideotik etorrita 1884.eko apirilaren 13an Sevillan Salvador Sanchez *Frascuelo*k alternatiba eman zion. Adalid–en zezenak toreatu zituzten euritan. Mazzantiniren lehen zezenari, *Costurero* izeneko urdinskari, ezpata girteneraino sartu zion oin-hegazka. *Zapatero* izeneko zezen beltzari goi–goian sartu eta atera zion ezpata, eskutik utzi gabe. *Azuzeno* berriz, pikart urdina zen eta *Frascuelo*rekin batera banderilaztatu zuen. Hari ere ezpatakada bikaina eman zion Luisek oin–hegazka.

1884.eko maiatzaren 29an bere alternatiba sendotu egin zuen Luis Mazzantinik *Lagartijo*ren eskutik. Murube–ren ganadua toreatu zuten. Dolores Monge, Murube–ren alargunaren *Morito* zezena toreatu zuen Luisek lehenik[8]. Bidenabar aipa dezagun murubetarrak jatorriz Aretxabaletakoak direla. Han Muru mendiaren magalean, Galartza elizatean, Murube baserrian (orain Etxezuri da), zezen–ganadutegia zeukaten, eta handik joan ziren Andalusiara[122].

Dena dela Madrilen Luis Mazzantinik bere hiru zezenak ezpatakada bikain banaz bota zituen eta kotxeraino bizkarrean atera zuten txalo artean. Ekainaren 5ean Madrilen beste korrida bat toreatu zuen *Lagartijo* eta Fernando *Gallo*rekin batera. Orduan ere txalo asko jo zizkioten[8]. Korrida haren berri F. Bleu idazleak ematen du bere liburuan[100]. Luis Mazzantini, oso ezagun eta famatu egin zen. Elkarrizketan eta portaeran nortasun handikoa zenez gero, bere biografiak idazten hasi ziren. Gorbata, sudurzapi eta abar Mazzantiniren izena zutela egiten zituzten.

1884. urteko denboraldia amaitzerakoan *Lagartijo* eta *Frascuelo*ren mailara iritsia zen elgoibartarra. Kontratuak zuriz eskaintzen zizkioten orduan[8] eta bera izan zen korrida bategatik 6.000 pezeta kobratu zituen lehen ezpataria[47]. Etsaiak ere bazituen ordea, eta masonerian parte

hartutakoa zela hasi ziren zabaltzen bere kontra. Irailaren 7an Madrileko plazan *Lagartijo* eta *Frascuelo*rekin batera lan egin zuen.

Irailaren 15ean ere bai *Currito* eta Valentin Martin-ekin batera. Manuel Perez *el Sastre* eta Pedro Ortega *el Ronco* pikatzaileek ere lan egin zuten orduan.

Luis Mazzantini-ren koadrilan bere anaiaz gain 1884.ean Justo Sanchez *Zurini* eta Hermenegildo Ruiz *el Chaval* banderilariek ere lan egin zuten[8].

1884. urtean, Isidoro Hernandez-ek musika eta Tomas Infante Palacios-ek letra ipinita *Mazzantini* izeneko pasodoblea estreinatu zen elgoibartarren omenetan[55].

1884. urtean hirurogeiren bat korrida toreatu zituen, bakoitzagatik mila duro inguru kobratuz[100].

———— o ———— o ————

1885. urtean ere Luis Mazzantinik asko toreatu zuen. Bere koadrilara Manuel Martinez *Agujetas* pikatzaile famatua batu zen urte hartan. Baita Isidro Rico *Culebra* banderilaria ere.

Mazzantinik ordea adarkadak ere jaso zituen 1885.ean. Maiatzaren 31n Madrilen adibidez Benefizentzi korridan[8]. Albaceten gero, urriaren 7an, Antonio Fernandez de Heredia-ren *Finito* zezenak harrapatu zuen eskuineko izterrean adarpunta bost zentimetro sartuz. Santos Lopez *Pulguita* banderilaria ere harrapatu zuen zezen hark[9]. Dena dela istripu hauek (nahikoa txikiak egia esan) alde batera utzita, txalo asko jo zioten elgoibartarrari.

Bere anaia Tomas Mazzantini koadrilan izan ohi zuen laguntzaile. 1885.eko otsailaren 8an Madrileko korridan eta gainerakoetan.Zenbait hiritan zezenak ere hil zituen Tomas-ek, eta abenduaren 8an Madrilen zezenkoak hiltzera aurkeztu zen Jose Ruiz *Joseito*rekin batera. Tomas ez zen gaizki egon egun hartan, eta abenduaren 20an beste aukera bat eman zioten leku berean, baina ez zuen ezer nabarmenik egin[8].

Saint-Severe-n bestetik, Pabot toreatzailea hil egin zuen *Mazzantini* izeneko behiak[31].

Gatozen ordea Luis Mazzantini-ren kontuetara. Izan ere anaia elgoibartarra bait zen famatua. Ospe horren adierazgarri, T.J. Bartolik 1885.ean egindako *Don Luis Mazzantini* izeneko polka izan daiteke[54]. Gipuzkoan ere oso famatua zen ezpatari elgoibartarra. Ahal zuen guztietan etortzen zen Donostiara toreatzera. 1885. urteko abuztuaren 2an esate baterako, Colmenar Viejo-ko Vicente Martinez-en sei zezen berak bakarrik hil zituen Atotxa-ko plazan. Elgoibarreko udalgizonak aurrean zirela, herritar asko joan zen Donostiara bera lanean ikustera.

Curro izeneko zezenari, kapaz toreatu ondoren, oin-hegazka ezpata goi-goian sartu zion lehenengoan. Oso txalotua izan zen. *Bolero* zen bigarrena, eta hura ezpatakada bat eta bi deskabello-kolpez bota zuen. Hirugarren zezena Bertolez ganaduzalearena zen, Martinez-ena ikuiluetan zauritu zelako. Zezen adarluze hark, hiru zaldi hil zituen eta Mazzantinik bigarrenean bota zuen ezpataz. Laugarren zezenak, *Costurero* izenekoak, Jose Galea banderilariari estutasun latza pasarazi zion. Larri erabili zuen adar artean, baina trajea urratu besterik ez zion egin. Mazzantinik brindisa egin zuen, zezen hura Elgoibarreko udalgizonei eskainiz. Ezpatakada eta deskabello-kolpe batez egin zituen *Costurero*renak, azkenean txaloak jasoz. Elgoibarreko Udalak orduan damaskindutako ezpata urreztatu eta zilarreztatu bat erregalatu zion.

Bellotero izenekoa zen bostgarren zezena. *Agujetas*, Jose Bayard *Badila* eta Enrique Sanchez–ek pikatu zuten. Mazzantinik berak banderilak sartu ondoren, bigarrenean asmatu zuen ezpataz. Belarria eman zioten.

Solitario zen seigarren zezena; gorribeltza eta adarsardia. Luisek kapaz sei beronika eta nafar–lantze bat osatu zituen. Zezenak zaldunak bost aldiz bota eta hiru zaldi hiltzea lortu zuen zazpi pikalditan. Tomas Parrondo *Manchao* eta Tomas Mazzantinik sartu zizkioten banderilak. Luisek gero hirugarrenean asmatu zuen ezpataz.

Korrida amaitu zenean jendeak txalo asko jo zion elgoibartarrari, eta bera ere pozik zen herritarrak ikusteaz. Luis Mazzantinik beti estimatu zuen jaioterria eta parrokiako organoa estreinatu zenean adibidez, toreatzailea han zen elizan[99].

Penintsulan 1885. urteko denboraldia amaitu zenean, La Habana–rako bidea hartu zuen Diego Prieto *Cuatrodedos* ezpataria eta bere koadrilarekin, anaia Tomas bertan zelarik. Nahiz eta *Cuatrodedos* zezen–hiltzaile zaharragoa izan, bere antzinatasuna alde batera utzita Luisi eskaini zion karteletako eta plazako lehen lekua. Cuba–n hamasei korridatan parte hartu zuen, berealdiko arrakasta lortuz. Cuba–n Jose Fernandez *el Barbi* banderilaria hil egin zen koliko baten ondorioz. Handik Mexikora pasatu zen Luis Mazzantini bere koadrilarekin, eta Ameriketatik itzuli zenean bere etsaiek ziotenez Ameriketako eta Espainiako logia masonikoen arteko harremanak sendotzen ibili omen zen[8].

Donostiarrek 1885. urteko sansebastianetan, beren zezensuzkoak eta sokamuturrak izan zituzten ohi bezala[17]. Baita ihauteritan ere, noski[123]. Martzelino Soroa idazle donostiarrak honako bertso hauek ipini zituen 1885.ean festa herrikoi haiek gaitzat harturik:

¿NUN DA DONOSTIYA?

Ama bekar aguro
neri gosariya.
–Bostak dituk oraindik
etziok argiya.
Oyian ago.
–¿Nola
banago jaikiya?
lau ordubontan daukat
chit ernai begiya.
Dan, dan.–Ama banua
Chomiñ atian da.
–Mutill, otz egitendik
jantzizak bufanda.–
Beltzillak ogei ditu
gaur egun aundiya,
kantatuzagun bada
¡biba Donostiya!
Korriditzagun orain
plaza ta kaliak
¿nun dira barrik' ayek
ta frasuletiak?

Ez dek ezer azaltzen
¡au da miseriya!
Chomin esantzak ¿nun da
gure Donostiya?
Zortziyak dituk eta
guazemak lenena
baka-ren ingurura
Brechatik barrena.
¿Zer da, zer da mutillak?
¡diabrukeriya!
¿iriyik ez degula?
¡jundek Donostiya!
Amarrak ta ¿nun dira
danbolin-tronpetak?
chandatu ditu gauzak
denboren kasketak.
¿Nun lengo modubetan
Batzarre berriya
jaietan apaindurik
Elizan alkiya?
Pasaturik urteak
zarrak dijuazte
gu berriz eziñ naita
izan beti gazte.
San Anton, San Anton ta
¡zer zoragarriya!
eziñ mugiturikan
kalian zerriya.
Kontsejupian gero
larriyaz betia,
zerriyaren rifa zay
naspillan jendia.
Arratsaldian berriz
progatzen ibilli
aukeratzeko plazan
dozena bat idi.
.....
Ama bekar aguro
neri gosariya,
¿bedorrek bai aldaki
nun dan Donostiya?[124].

Bitoriano Iraolak ere argitaratu zituen bertsoak 1885.ean Donostiako ihauteriak deskribatuz. Aurreko urteko Lore-jokoetan saria jasotakoak ziren. Guk zezenak aipatzen direneko zatiak bakarrik aldatu ditugu hona:

IÑAUTERIYAK DONOSTIYAN

LENAGO ETA ORAIÑ

.....
Ezta emen festik
izandu eztanik.
Iltzeko zezenak
ta sokakoak,
erabilltzea
aztu gabetanik

kalerikan kale
azkenekoak.
Ordukoak dira
"Kriskitin kraskitin",
"Chulo chulito" ta
"Iriyarenak",
"Danchariche" eta
gañera "Pispilin"
Donostiyakoak
dirade denak.
.....

Aguro diraden
ikusten nastuak
gazte eta zarrak
plaza aldera,
garrochdunak baña
geiago poztuak,
goizero iriya
chuliatzera.
.....

Iltzeko zezenak
zaldun galayakiñ,
onak izan ziran
zezenen plazan,[125].
.....

Ramon Artolak ere argitaratu zituen 1885. urtean Donostiako ihauteriei buruzko bertsoak. Iraolarenak bezalaxe aurreko urteko Lore–jokoetara aurkeztuak izan ziren, akzesita lortuz. Hemen zezenen aipamenak dituzten zatiak soilik ipini ditugu:

DONOSTIA–KO IÑOITERIAREN OROITZA

.....

atzera utzi gabe bolakin
jokatzen ziran zezenak,
gazteakgandik toliatubak
ikus zitezken onenak.

.....

Ikusten dira bei eta idi
ezur–uts plazan jokatzen,
nola zaldunak beren ollar ta
atso zarrakin jostatzen;
.....

ikusten dira plazan zurezko
bolakin zezen naparrak,
zeñak dituzten toliatutzen
bertako gazte azkarrak.
.....[126]

Klaudio Otaegi bertso–jartzaileak berriz, kontu andalusiar bat euskaratuta argitaratu zuen 1885.ean. Zezena ere tartean denez gero, hona aldatu dugu interesgarria delakoan:

KONTU ANDALUZA

Beldur gabe negoen
San Juan besperan,
Donostiako murru
Ondoan zelatan:
Zezen bat atzetikan
Zitzaidan etorri,
Ez da elefanterik
Aiñ aundirik noski.

Aurkitu nintzanean
Aiñ perill aundian,
Goarlaukaren barren
Sar nintzan abian;
Eta ni sartu nintzan
Toki beretikan
Ura ere sartu zan
nere atzetikan.

Andikan irten eta
¡Zas! sartu batean
Sartutzen naiz alboan
Zegoen echean
Irekirik arkitu
Nuen leiotikan;
Baita zezena ere
Nere ondotikan.

Aditutzen daudenak
Sinistu ez arren,
Desonra gabetanik
Echetikan nuen,

Jainkoak daki nola,
Irten chiminitik;
Eta zezena ere
Bai nere ondotik.

¿Zer nuela orduan
Egin dezute uste?
Pusillaren kañoian
Sartu –¡Mingainluze!–
Nere buru gaisoa
Oso kuiskurturik;
Eta orduan ere
Zezena ondotik.

Ez pensatu ordea,
Siñis nazazute,
Garaitu ninduela,
Iñondikan ere,
Zeren arkitutzean
Ain gertoi estuan
Pusillen chiminitik
Iges egin nuan.

–¡Milla aingerua! ura,
Ura zan naspilla!–
–¿Nola, bada, ¡Jainkoak
Berekin gaitzala!
Etzan zezena ere
Andik ateratu?–
–Zuloa niolako
Beatzaz tapatu.–[127]

Donostian 1885. urteko udan Mazzantinik parte hartutako korridaren eta beste baten ondoren abuztuaren 15ean izan zen azkenekoa. Aleas–en zezenak hil zituen *Lagartijo*k. *Frascuelo* ere etortzekoa zen, baina aurreko igandean Nimes–eko plazan zauritua izan zenez gero, Rafael Molinak bakarrik egin zituen ezpatari–lanak.

*Lagartijo*k bostgarren zezena Elena Theodorini kantariari eskaini zion. Faena bikaina osatu ondoren ezpata hondoraino sartu zuen Aleasen zezenaren bizkar gainetik. Belarria eman zioten.

Seigarren zezena Gutierrez ganaduzaleak Zamorako Benavente–tik bidalia zen. Suhartasun–izpirik ere erakutsi ez zuenez gero, jendea txistuka hasi zitzaion eta erretiratzeko agindua eman zuten. Joaldun bakarra atera zen plazara, besterik ez zegoenez, eta komeriak izan ziren gero joalduna sartzen; Gutierrez–ena errazago sartu bait zuten. Beste zezen bat atera zuten ondoren, baina aurrekoa bezain koldarra. Jose Torrijos *Pepin* eta *el Ostione*k suzko banderilak ipini zikioten[99]. (Antonio Perez *el Ostione*k asko toreatu zuen urte hartan ezpatari famatuen aginduetara. *Frascuelo*rekin Madrilen maiatzaren 28an adibidez)[100]. Laffitte lehendakari jaunaren baimenaz, *Torerito* banderilariak hil zuen.

1885. urte hartan Cadiz–en Antonio Gallego Martin jaio zen; gero *Cadenas* izenordez

banderilari gisa lan egin eta Donostian urte askotan bizi izan zena.

Urte hartantxe, Arrasaten zezenzaleen elkarte bat osatu zen, eta Rikardo Añibarro lehendakariak berehala eskatu zion Udalari zezenplaza egiteko baimena. Plaza polita egin zuten, bere eserleku, balkoidun palko eta abarrekin. Kailejoirik ez zuen plaza hartan, 2.360 ikuslerentzako tokia zegoen.

Azpeitian 1885. urteko saninaziotarako barrera berriak egin zituzten. Zur mundruneztatutako piezak torlojoz lotuta herriko plaza oktogonoaren itxuraz gelditu zen. 2.100 ikuslerentzako lekua zuten Ezeiza jaunaren gidaritzapean eraiki eta 19.000 pezeta kostatu ziren barrera haiek.

Uztailaren 31n estreinatu zitutzen barrera berriak Tuterako Lizaso–ren zezenkoak jokatuz. *Valladolid* izeneko toreatzaileak parte hartu zuen bere koadrilarekin. Guaqui–ko kontesari eta Valdespina–ko markesari brindisak egin zizkien[99].

Abuztuaren 1ean ere antzeko nobillada izan zen Azpeitian, bezperan bezalaxe Lizasoren lau zezenko jokatuz. Abuztuaren 2an bi zezenko hiltzekoak ziren eta gero azpeitiarrek Lasturreko beste bi zekor toreatu eta hiltzeko asmoa zuten[6].

Azpeitian 1885. urtean, Loiolako obrak egiteko baimena eman zietenez gero, sokamuturra eta abarrez ospatu zuten[128].

Bilbon 1885. urtean otsailaren 1ean zekorketa bat ospatu zen Andalusiako lurrikaretan kaltetuak suertatu zirenentzat dirua biltzearren. Celis eta Agirre–k Pancorbo–ko Quintanaren lau zekor hil zituzten.

Apirilaren 5ean zekorketa izan zen Vista Alegre–ko plazan. Errukietxerako txanponak atera nahi zituzten, eta horretarako Joan Tolosana *Juanillo* eta Hipolito Diartze *Mengue* bilbotarrek lan egin zuten, herritarrez osatutako koadrilaren laguntzaz. Orozko ganaduzalearen lau zezenko hil zituzten.

Maiatzaren 2an eman zen lehen korrida. Bañuelos–en sei zezen toreatu zituzten Felipe Garcia eta Juan Ruiz *Lagartijak*. Bostgarrena ezik, zezen guztiak koldarrak suertatu ziren. Zortzi zaldi hil zituzten. Ezpatariek lana oso gaizki egin zuten.

Maiatzaren 3ko korrida bezperakoa bezain txarra izan zen. Gauadalix–en sei zezen jokatu ziren. Euria egin zuen arratsalde hartan eta oso jende gutxi hurbildu zen plazara.

Ekainaren 14ean beste korrida bat eman zen Errukietxeari eta Ospitale Zibilari laguntzearren. Ibarraren zezenek legea bete zuten, zazpi zaldi hilez. *Currito* eta Luis Mazzantini ezpatariek lanean ongi aritu ziren. *Curito*k ederki hil zuen lehen zezena. Mazzantinik berriz, bigarrena eta seigarrena. Elgoibartarrak korrida hartan beste inork ez bezala galtzerdi beltzak luzitu zituen. *Agujetas* nabarmendu zen pikatze–lanetan[111].

Bilbotar guztiak ez zeuden konforme ordea Vista Alegreko batzorde zuzentzailearekin. Batzuk diru–biltzen ere hasi ziren zezenplaza berria egiteko asmoz. *El Resumen* izeneko zezen–aldizkaria argitaratzeari ere ekin zioten, baina ez zuen luze iraun. Abuztuan gainera, korridarik ez zuten eman Bilbon kolera–izurritea zegoelako. Erosiak zituzten zezenak ganadutegietan utzi behar izan zituzten hurrengo urterarte. Jendea beldur zen hurrengo urtean ere korridarik ez bazegoen plazako batzordeak porrot egingo ote zuen[10].

Bermeon ere nobilladak ematen ziren bertako zezenplazan. *Joseito* toreatzailea adibidez, larriki zauriturik suertatu zen 1885.ean. Plaza hartan *el Templao* zaragozarra, el *Alavés*, *el Manchao* eta beste hainbat toreatzailek lan egin zuen[12].

Diman ere garai hartan nobilladak eman ohi ziren ekainaren 29an. Han San Pedro egunez toreatzaile-koadrila etortzen zen plazara. Plaza bestetik, korridak emateko moduan prestatua zegoen[129]. Gaur egun ere plaza ikus daitezke herrian, baina baita bertako Oba eta Bikarregi auzoetan ere. Oraindik ere ikus daitezke bi auzo horietan zezenplazen arrastoak.Oban zezenak San Antolin egunean eta San Joan egunean korritzen ziren eta Bikarregi-n Santa Ageda egunean (otsailaren 5ean) eta abuztuaren 15ean.

Karrantzan ere, Bianez-eko parrokian nobillada izaten omen zen irailaren 18an[130].

Iruñean 1885. urteko sanferminetarako korrida onak antolatu zituzten. Patilla-ko kontearen (Benaventekoaren), Zalduendoren, Espoz y Mina-ko kontearen, Pedro Galo Elortz azkoiendarraren eta Funes-eko Diaz-en zezenak iragarri zituzten uztailaren 7, 8, 9 eta 10erako. Ganaduzale bakoitzaren sei zezen jokatuko ziren funestarrarenak ezik; harenak hiru izango bait ziren.

Zezenak hiltzeko ardura, *Lagartijo* eta Luis Mazzantinik hartu zuten beren gain[115].

Espoz y Mina-ko kontearen izenean korritzen ziren 1885. urtean lehen Karrikirirenak izandako zezenak. Madrilen ekainaren 14ean hiru jokatu zituzten; itzulkorrak eta zailak[100]. Badirudi ekainaren 18an ere korritu zirela plaza hartantxe Espoz y Mina-ko kontearen abereak.

1885. urtean Joaquin del Val zaragozarrak (Perez Laborda-ri ganadutegia erosi zionak), Ramona Saez-i (Gota jaunaren alargunari) saldu zizkion bere zezenak[5].

Colmenar Viejo-ko Carlos Lopez Navarro-ren *Arbolario* ere famatua izan zen. Gasteizen abuztuaren 2an jokatu zuten eta eserlekuetara salto egin zuen. Gero plazatik kanpora atera zen eta han tiroka hil zuten [131].

1886. urtean, Lodosa-ko Meliton Catalan jaunak ganadutegia osatu zuen, Zaragozako Pina-ko Cipriano Ferrer-en abereekin. Concha y Sierra-ren zezen bat gehitu zion bere taldeari eta Lodosan bazkatzen ziren. Dibisa gorri-horia zeramaten plazan.

Funes-eko Jorge Diaz-ek ere, bere zezenak plazan azken ekitaldian zailegiak suertatzen zirelako, Mihuraren zezen bat eta Concha y Sierra-ren beste bat ekarri zituen hazitarako[5].

Clemente Zapata alfaroarrak berriz, Lizaso-ren abereez bere ganadutegia osatua zuen. Haren zezenak Bartzelona, Zaragoza, Madril eta beste leku batzuetan jokatuak ziren, baina suhartasun handirik erakutsi gabe. *Cariñoso* izenekoa bakarrik nabarmendu zen, 1886. urtean Bartzelonan *Frascuelo* zauritu zuelako[20].

Bartzelonan bertan, 1886. urtean Manuel Garcia *Espartero* aurkeztu zen. Espoz y Mina-ko kontearen hiru zezen toreatu zituen, eta hirurei moztu zien belarria[8].

Tuteran, bertako Ospitaleak berea zuen zezenplaza saltzea pentsatu zuen eta 1886.eko abuztuan enkantean Lino Frauka Belauntza jaunari saldu zioten. Konponketa handiak egin zituen gero Lino jaunak hormak sendotu eta barrua apainduz[4]. Plaza erostea, 50.375 pezeta kostatu

zitzaion[2].

Irufiean 1886. urteko sanferminak baino lehen, ohi bezala korridetako kartel iragarlea argitaratu zen. Uztailaren 7, 8, 10 eta 11n seina zezeneko korridak emango ziren Rafael Molina *Lagartijo* eta Jose Sanchez del Campo *Cara ancha* ezpatariak koadrilaren buru zirela. Uztailaren 9an, arratsaldean, lau zezeneko korridaerdia emango zen. Rafael Guerra *Guerrita* eta Pedro Campos ordezko ezpatariek hilko zituzten zezen haiek. Haietako bi gainera, Jose Rodriguez *Tabardillo* zaldunak burtzikatuko zituen.

Zezenak honako ganaduzale hauenak izango ziren: Zalduendo-ren alargunarenak (lau zezen), Espoz y Mina-ko kontearenak (sei), Lizaso anaienak (lau), Pedro Galo Elortz azkoiendarrarenak (lau), Raimundo Diaz funestarraren alargunarenak (lau) eta Colmenar-eko Juan Antonio Mazpule-renak (sei)[115].

Uztailaren 9ko korridaerdian, besoan eta izterrean zauritu zen Rafael Guerra *Guerrita* toreatzailea[107].

1886. urtean Gasteiz-en udako ferietan Espoz y Mina-ren zezenak jokatu omen ziren. Zezen haiek 16 zaldi hil zituzten (13 plazan eta 3 zaurien ondorioz). Toreatzaile bati zezenetako bat eman zioten saritzat. Jendeak orduan hondarrera hamabi zentimoko zigarroak botatzen omen zituen.

Arabako Afiana-Gesaltza-n ere 1886-eko uztailaren 10 eta 11n zezenak korritu ziren. Legutio-n berriz, irailaren 12, 13 eta 14ean launa larrabehi jokatu zituzten[105].

Arrasaten ere, aurreko urtean hasitako zezenplazan izan ziren korridak. Sanjoanetan ekainaren 25ean estreinatu zen kailejoirik gabeko plaza polit hura. Eserleku eta palkotan 2.360 ikusle hartzen zituen[99].

Donostian 1886. urte hasieran ihauteriak ohi bezala ospatu ziren ; besteak este Alderdi Zaharreko kaleetan sokamuturra korrituz eta Lasala plazan zezensuzkoa errez[132].

Gero udan, korridak izan zituzten urtero legez Atotxa-ko plazan, Jose Arana enpresariak antolaturik. Garai hartan abuztuko korridetara probintziako jendea ere ugari joaten zen Donostiara. Ez da bada harritzekoa Pedro Migel Urruzuno, Mendaro Garagartza-ko apaiz elgoibartarrak, 1886.ean bere *Ganbelu-anayak* izeneko ipuin humoretsuan honako hau dioen pasartea idaztea: *Donostian zuten diru puska bat jaso bearra, eta badijoaz ara zezenak ikusiyaz*[133].

1886. urteko abuztuan andramarietan Rafael Molina *Lagartijo*k berak bakarrik hil zituen Aleas-en sei zezen. Laugarren zezenean oso lan bikaina egin zuen. Hiltzerakoan batez ere, nahiz eta zezenak harrapatu. Azken zezena, *Polvorillo* izenekoa, Manuel Martinez *Manene* ordezko ezpatariak toreatu zuen. Zezenak eskuineko izterrean adarkatu zuen[8].

Garai hartan Donostian zera galdetu omen zioten *Lagartijo*ri: ea bere eritziz ezpataririk onenak zeintzuk ziren. *Primero Sarvaor y aluego er Frascuelo* erantzun omen zien cordobarrak[100]. Bide batez esan dezagun urte hartan, 1886.eko ekainaren bian *Lagartijo*k Haro-ko zezenplaza berria estreinatu zuela[107].

Jose Arana enpresariak, urte hartan azken korrida abuztuaren 30ean era bereziz ematea pentsatu zuen; beste inoiz ez bezala; gauez alegia. Estatuan gauez ospatutako lehen korrida izan zen

hura. Dinamo, kable, arkuzko lanpara etab. instalatuta, argiztapen–probak egin zituzten abuztuaren 28ko gauean. *Cara ancha* toreatzaileak zioenez, plaza hartan gauez lan egiteko ez zen oztoporik egongo. Baina pertsonek hondarrean egindako itzalak kezka–apur bat sortzen zien[99].

Dena dela abuztuaren 30ean gaueko zortzi t'erdietan, plaza jendez beterik zegoela eta hogei lanpara piztuta zeudela, korrida hasi egin zen.

Lehenbizi, Colmenar–etik ekarritako bi zezenko txiki plazaratu ziren. Bengalazko banderilak sartu zizkieten, Galindo ordezko ezpatariak hil baino lehen[134]. Gero Veragua–ko dukearen lau zezen hil zituzten *Cara ancha* eta Luis Mazzantinik.

Lehen zezena hasieran noraezean bezala ibili zen plazan eta Francisco Fuentes–ek lehen pikaldian ederki ziztatu zuen hagaz. Gero *Badila*k ezten–haga ia erdiraino sartu zion zezenari, bere zaldia hilik gertatu zelarik. *Agujetas*ek orduan berriz pikatu zuen eta zezenak zaldia lurera bota ere bai. Manuel Martinez *Agujetas*ek orduan oholtza ondotik eztena gehiago sartu zion, eta ondorioz, zezena etzan egin zen betirako. Jendeak bere haserrea adierazi zion txistuka[100]. Pikatzaileek hildako zezen hura *Aborrecido* izenekoa omen zen[135].

Bigarren zezenean Mazzantinik kapaz toreatu ondoren Fuentes eta *Agujetas*ek beren egitekoa bete zuten zaldi gainetik. *Agujetas* larri ibili zen lurrean. Luis Mazzantinik eta hondarrera saltatu zuen maletila batek salbatu zuten. Tomas Mazzantini eta Jose Galea–k banderilak ipini ondoren, Luisek hirugarrenean hil zuen ezpataz.

Hirugarren zezenean *Cara ancha* kapotez luzitu zen lehenbizi. *Badila* eta Fuentes–ek pikatu eta Rafael Rodriguez *el Mojino* eta Manuel Antolin–ek banderilaztatu ondoren ere dotore aritu zen *Cara ancha*. Laugarrenean asmatu zuen ezpataz.

Azken zezena, handia eta indartsua zen; bospasei urtekoa. Pikatu ondoren Galea eta *Barbik* banderilak ipini zizkioten. Elgoibartarrak bere faenaren amaieran bi ezpatakadaz bota zuen.

Gaueko hamaikak ziren korrida bukatu eta jendea beste zezen bat eskatzen ari zenean. Jendeak ordea, korridak egun argiz hobeak zirela zioen. Antonio Peña y Goñi kazetari donostiarraren eritziz, gaueko korridetan toreatzaileen traje distiratsuak oso politak ziren, baina zezenak edozein gauzak izutzen zituen eta egoera hartan toreatzea oso tristea zen[99].

Jose Arana enpresariak bestetik, txartelak aprobetxatzearren itzal ala eguzkialdea markaturik zuten sarrerak saldu zituen, nahiz eta gaua zelako denak itzalekoak izan. Huskeria hura medio, Jose Muro ministrari ohia eta Jose Arana enpresaria pistolaz duelua izateraino haserretu ziren. Dueluak dena dela, ez zuen ondorio txarrik sortu.

Jose Arana oso enpresari langilea zen. Bere Atotxa–ko plazan ikuskizun asko eskaintzen zuen. Zezenaz gain han zirkua, ihauterietako desfileak, orfeoien nazioarteko lehiaketak etab. izaten ziren[95]. Jose Aranak udan Donostian kontzertuak ere antolatzen zituen. 1886. urtean, Jose Matxinbarrena alkate zelarik, Musika–lehiaketa bat prestatu zuen Jose Arana mutilzaharrak.

1886. urtean Donostian *Revista de Toros* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi ziren. Aurreko urtean argitaratutako *El tio Alimaña* bezalaxe, zezen–kontuez zihardueN[120].

1886. urteko azaroaren 28an, Madrilen Karlos Izagirre donostiarraren zezenkoak korritu ziren dibisa zuri–laranjatuz[107].

Bilbon 1886. urtean ekainaren 2an eman zen lehenengo korrida. Veragua-ko sei zezen hiltzera Juan Ruiz *Lagartija* eta Fernando Gomez *el Gallo* ezpatariak etorri ziren. Seigarrena ezik beste bostak oso zezen onak suertatu zitzaizkien. *El Gallo*k lana ondo egin zuen, nahiz eta ezpataz suerterik izan ez. *Lagartija*k ere ez zuen suerterik izan. Manuel Perez *el Sastre* nabarmendu zen pikatzen. *Miguelito* pikatzailea berriz zauriturik erizaindegira eraman zuten hirugarren zezenean.

Maiatzaren 9an, Vista Alegreko plazara Espoz y Mina-ren zezenak ekarri zituzten; txikiak eta suharrak (seigarrena batez ere). *Lagartija*, Fernando Gomez *el Gallo* eta Manuel Garcia *Esparterok* toreatu zuten. Fernandoren ezpatakadaerdi bat izan zen arratsaldeko gauzarik onena; lehen zezenari sartutakoa hain zuzen. *Esparterok* hogei urte zituen, Bilbon lehen aldiz ikusi zuten arratsalde hartan. Ausarta zen, baina bere toreatze-lanetan hutsuneak ikusten zizkioten.

Ekainaren 13an, Lizasoren zezenak korritu ziren Bilbon. Manuel Hermosilla eta *Cara ancha* ezpatariek egin zuten lan. Zezenek guztira 40 pikaldi jasan zituzten; laugarrenak hamaika. Hermosilla-k ez zuen ezer berezirik egin. *Cara anchak* lehen zezenari ondo sartu zion ezpata oin-hegazka. Laugarrenari berriz, banderila-pare bat iskintxo eginez oso bikain sartzea lortu zuen.

Ekainaren 20an Pancorbo-ko Quintana-ren lau zezenko jokatu ziren Bilboko plazan. *Mala-Sangre* eta Jose Martinez *el Tremendo* zezenko-hiltzaileek parte hartu zuten. Hermenegildo Gaye ere aritu zen banderilak sartzen.

Abuztuan Bilboko Vista Alegren lau korrida izan ziren; hilaren 22, 24, 25 eta 26an hain zuzen. *Frascuelo*, Jose Sanchez del Campo *Cara ancha* eta Luis Mazzantini ekarri zituzten Veragua, Perez de la Concha, Saltillo eta Aleas-en zezenak hiltzera.

Abuzturen 22ko korridan Saltillo-ren zezenak nahikoa ongi portatu ziren. Salvador Sanchez *Frascuelo* ondo egon zen; laugarrena hiltzerakoan batez ere. *Cara anchak* bostgarren zezenaren belarria irabazi zuen, eta Mazzantini seigarren zezenean egon zen ondo. Seigarren zezenari ezpatariek sartu zizkioten banderilak. *Agujetas* pikatzailea, oso bikain aritu zen, plaza bete jendek jotako txalo artean[111].

Zezen haiek kaiolatan garraiatu zituzten ganadutegitik zezenplazaraino, eta abuztuaren 20an jendeari erakutsi zitzaizkion plazan bertan[10].

Bigarren korrida, abuztuaren 23an jokatzekoa zen, baina euriagatik biharamunera atzeratu zuten. Abuztuaren 24ean beraz, Veragua-ko dukearen sei zezen korritu ziren. Hirugarren zezena, *Agujetas* pikatzaileari sari gisa eman zioten oso ongi ziztatu zuelako. *Frascuelok* laugarren zezenaren belarria irabazi zuen. Ezpata guztiz ederki sartu bait zion. *Cara anchak* ez zituen ongi burutu bere lanak. Mazzantinik bai; seigarrenean (bestean ez).Belarria eman zioten.

Abuztuaren 25ean, Aleas-en bi zezen eta Perez de la Concha-ren beste lau korritu ziren Bilbon; suharrak eta onak (laugarren ateratako Aleas-ena batez ere). Jose Bayard *Badila* pikatzailea oso ongi aritu zen. Ezpatariek ez zuten ezer nabarmenik egin.

Abuztuaren 26an eman zen Bilboko 1886.eko azken korrida. Aleas-en bost zezen eta Perez de la Concha-ren bi plazaratu zituzten. Zezenak ongi portatu ziren. *Frascuelo* ere bai bere bigarren zezena hiltzerakoan. Baina gainerakoan ezer azpimarragarririk ez zen gertatu, Fuentes pikatzailea lurrean zegoela *Frascuelok* zezenari buztanetik helduta estutasunetik libratu zuela ez bada[111]. Zazpigarren zezena ere jokatu zen. Antonio Perez *el Ostionek* hil zuen[10].

1886.eko urriaren 10ean, Bilbon zezenplazan ikuskizun berezia izan zuten. Lehenbizi *Platas*ek zezenko bat hil zuen. Gero zakur baten eta hiena baten arteko burruka ikusteko aukera egon zen eta azkenik Colmenar–eko zezen bati pantera bat bota zioten. Zezenak bi adarkadaz hil egin omen zuen pantera.

Urriaren 24ean, zezenfesta irrigarri bat izan zen Vista Alegren. Nafarroako Urantziatik ekarritako lau zezenko jokatu ziren. Hiru *Platas*ek hil zituen eta laugarrena, zekortxo bat, toriletara bueltatu zuten *la Temeraria* izeneko emakume toreatzaileak hil ezin zuelako[111].

1886. urtean, Mazzantini elgoibartarrak korrida askotan hartu zuen parte. Aipatu ditugun Donostia eta Bilbokoez gain, *Frascuelo* eta *Cara ancha*rekin toreatzekoa zen Madrilen maiatzaren 23an (denboraldirako hiru ezpatari haiek kontratatu zituztelako), baina Valentin Martin–ek bete zuen Luisen hutsunea[8].

12.7. irudia. Luis Mazzantini 1886.ean

Dena dela, urtearen hasieran (1886.eko urtarrilaren 3an) Luis Mazzantinik Sevillan korrida toreatua zuen. Joaquin Sanz *Puntereti* eman zion alternatiba *Espartero* lekuko zelarik. Saltillo–ren

zezenak hil zituzten orduan.

Sevillan 1886.eko irailaren 30ean ere toreatu zuen elgoibartarrak Diego Prieto *Cuatrodedos* eta *Frascuelo*rekin batera[8].

Madrileko denboraldian, 1886.eko lehen korridetan asmatu ezinik aritu zen Mazzantini, baina Benefizentzi korridan bere onera etorri zenez gero bereak eta bi jo zituen. Aipagarriak dira uztailaren 18ko eta irailaren 19ko korridak. Lehenengoan *Frascuelo*k ere parte hartu zuen Felix Gomez-en zezen handiak hiltzen. *Salteador* izeneko seigarrena oin-hegazka berebiziko ezpatakadaz bota zuen, brindisa Salvador lankideari egin ondoren. Irailaren 19koan Antonio Hernandez-en zezen zail eta handi bat hil zuen. Galea eta Tomas Mazzantini oso larri ibiliak ziren banderilak sartu ezinik. Gero Mazpuleren beste zezen zail bat hil zuen Luisek Madrileko plazan[100].

Irailaren 26an Juan Sanchez Carreros-en (Salamancakoa) *Bandolero* izeneko zezenak Madrilen Jose Bayard *Badila* pikatzailea zauritu zuen. Luis Mazzantinik sartu zion ezpata.

1886. urteko urriaren 11n berriz, Murcia-ko zezenplaza berria estreinatu zuen elgoibartarrak, Rafael Molina *Lagartijo* eta Juan Ruiz *Lagartija*rekin batera Murube-ren zezenak hilez[9].

1886.eko urriaren 30ean La Habana-ra abiatu zen bere koadrilarekin eta Diego Prieto *Cuatrodedos* ezpatariarekin. Bere anaia Tomas ere eraman zuen. Tomas-en ordez urte hartan korrida batzuetan Luis Recatero *Regaterillo* ibili zen banderilak sartzen.

La Habanara dena dela, bere anaiaz gain Jose Bayard *Badila* pikatzailea, Ricardo Verdute *Primito* banderilaria eta beste zenbait eraman zuen[8]. Luis Mazzantini La Habana-ra hamalau korrida toreatzera joan zen 30.000 durotan kontratua eginda. Beste bi korrida gehiagotan ere parte hartu zuen Mazzantinik. Oso famatu bihurtu zen han; Cuban modak ezarri eta zigarrotan bere izena ipintzeraino[136].

1886. urtean, Bizkaian gero zezenko-hiltzaile izango ziren bi jaio ziren. Bata Jeronimo Loizaga zen; otsailaren 22an jaioa eta *Chatillo de Barakaldo* izenordez ezagutuko zutena[21]. Bestea Zakarias Lekunberri Sagastume; Murueta-n (Busturian) azaroaren 5ean munduratua[8].

Akitaniako Peyrehorade-ko plazan berriz, Charles Dunouau *Kroumier I.a* toreatzaileak lehen aldiz Landetako toreaketan birako jauzia egin zuen plazan. Behiaren gainean eskuak ipinita ematen zuen bira, Kreta-ko sazerdotesen antzera[31].

1887. urtean Bilbon apirilaren 10ean hasi zen zezenetako denboraldia. Ibarraren eta Cerezo-ren bina zezenko hil zituzten Jose Gorostiza eta Hipolito Diartze-k.

Maiatzaren 1ean korrida izan zuten. Antonio Hernandez-en sei zezen hiltzera *Lagartijo* eta Rafael Guerra *Guerrita* ekarri zituzten Bilboko Vista Alegrera. Satai oneko zezenak plazaratu ziren, baina indar gutxikoak. Seigarren ateratako *Romero* izeneko zezen beltzak, eskuineko adarpunta printzatua zeukan. Juan Rodriguez *el de los Gallos* pikatzaileak ziztatu ondoren jendea protestaka hasi zen zezenaren akatsagatik. Hondarrera ogi, botila etab. bota zituen jendeak. Istilu hartan Adrian Medrano zaldimutila botilak jasotzen hasi zen. Zezena gainera etorri zitzaion eta nahiz eta mutilak botilaz buruan jo, adarkadak jaso zituen. Larriki zauriturik eraman zuten. Zezena toriletara itzul erazi zuen lehendakariak.

*Guerrita*ri arratsalde ona suertatu zitzaion hura, baina, *Lagartijo*ri hobea. Bere zezenak ezpatakada banaz bota zituen.

Biharamunean, 1887.eko maiatzaren 2an, Veragua-ko dukearen zezenak korritu ziren. Denak onak atera ziren arren, bostgarrena eta seigarrena jo zituzten onentzat. Laugarrena barrura itzuli zuten Joaquin Bizkaia pikatzaileak hutsegite batean besaburua zauritu ziolako.

Zein baino zein aritu ziren *Lagartijo* eta *Guerrita* arratsalde guztian. *Lagartijo* lehenengoan bikain egon zen, eta hirugarrenean ez hain ongi. *Guerrita* berriz, gaizki bigarrenean eta oso ongi bostgarrenean. Seigarren zezena bi ezpatariek (Rafael izenekoak biak) batera kapaz toreatu eta banderilaztatu zuten. *Lagartijo*k faena ederra burutu ondoren ezpata girteneraino sartu zion. Gero deskabelloz lehen kolpean bota zuen. Zezena saritzat eman zioten.

1887.eko abuztuko korridak, 21, 22, 23 eta 24ean izan ziren Bilbon. Vicente Martinez, Veragua, Mihura eta Concha y Sierra-ren zezenak ekarri zituzten, eta haiek toreatzera, *Frascuelo* eta Luis Mazzantini[111].

Salvador Sanchez *Frascuelo*, Bilbora zihoala, abuztuaren 19an Eibarren egon omen zen. Azpiri txiki-n egin omen zuen otordua eta zezenzaleek musika, danbolin, suziri eta abarrez egin omen zioten harrera. *Frascuelo*k musikariei ehun pezeta eman eta Errukietxeko behartsuei bazkari berezi bat ordaindu omen zien. *Eibarreko txikia* (*Chiquito de Eibar*) pelotari famatuari ere dirua utzi zion herriko behartsuen artean bana zezan. Behartsuen alde bi zezen hiltzeko ere eskaini omen zuen bere burua eta ganaduzale batek ere bi zezen doan agindu omen zituen. Hortik aurrera Eibarren korridarik eman zen ala ez ez dakigu[99].

Gatozen ordea 1887.eko abuztuan Bilbon izandako korridetara. Zezenak trenez Amurrioraino ekarri zituzten. Joaldunak berriz, Bilboko Norte-ko geltokiraino. Handik ateratzerakoan arazoak izan ziren. Garcia Salazar kalean emakume bat harrapatu bait zuten joaldunek[10].

Abuztuaren 21ean, Vicente Martinez-en zezenak jokatu ziren. Plaza jendez bete zen, baina ez zuten asko disfrutatu, *Frascuelo* eta Mazzantinik gauza handirik egin ez zutelako. Zezenak, dena dela, ongi portatu ziren.

Abuztuaren 22ko korridan Veragua-ko dukearen zezenak plazaratu zituzten; oso onak. *Frascuelo*k bere bigarren zezenean brindisa *Eibarreko txikia*ri egin zion. Bost pase eman ondoren dei egin zion zezenari, eta zetorkiola ezpata osorik sartu zuen. *Eibarreko txikia*k eskopeta bat eman zion *Frascuelo*ri.

Mazzantini elgoibartarra bere bigarren zezenean luzitu zen batez ere. Besteetan ez.

Hirugaren korridan, 1887.eko abuztuaren 23koan, Antonio Mihuraren zezenek suhartasuna erakutsi zuten. Lehen zezenak adibidez, bost zaldi hil zituen. *Frascuelo* oso ongi aritu zen arratsalde guztian, txalo asko entzunez. Luis Mazzantinik ordea, txistuak besterik ez zituen entzun.

Abuztuaren 24ean ere bi ezpatarien emaitzak berdintsuak izan ziren: *Frascuelo* oso ongi eta Mazzantini gaizki. Concha y Sierra-ren zezenek gustora utzi zuten jendea. Zazpigarren zezena (Vicente Martinez-ena) Rafael Sanchez *Bebe*k hil zuen ezpatakada bikain batez. Bizkarrean atera zuten plazatik. Bostgarren zezenean, Mazzantinik liskar bat izan zuen Valladolid-eko gazte batzuekin. Tomas anaiak gazte bati bastoia hautsi omen zion.

Bilbon 1887.eko irailaren 9an nobillada izan zen, teatro berria eraikitzerakoan izandako istripuko kaltetuei laguntzearren. Ibarra-ren lau zezenko toreatu eta hil zituzten Martzelino Zuazo *Txorone* eta Joan Tolosana *Juanillo*k[111].

Donostian 1887. urte hasieran sansebastian egunean sokamuturra atera zuten. Ohi bezala, goizeko zortzietan, eguerdian eta arratsaldeko lauretan Konstituzio-plazan. Gero arratsaldeko bostetan berriz Lasala plazan, *Union Artesana*k ordainduta[17].

Otsailaren 20an, ihauterietako lehen igandean, zezenfesta irrigarria izan zen Atotxa-ko zezenplazan, *Union Artesana*k antolaturik. Festa ez zuten nahi bezala bukatu, euria hasi zuelako[137].

1887. urteko abuztuaren 8an beste nobillada berezi bat ikusi ahal izan zuten Donostiako zezenplazan. Emilio Gordon *el Marques*ek hiru zezenko eta Lorenza Callejas *la Mazzantini*k zekor bat hilko zituztela iragarri zuten.

Lorenza Calleja bere zekorra hil ezinik ibili zen eta azkenean beste batek nola edo hala bota zuen[99].

Abuztuaren 15ean, pilota-partidu berezia ikusi ahal izan zuten Donostian; Julian Gaiarre kantariak Rafael Molina *Lagartijo*ri jokatu bait zion. Gaiarre atera zen garaile[95]. Gero abuztuaren 24ean Atotxa-ko zezenplazan Veragua-ko dukearen sei zezen hil zituen *Lagartijo*k. Zezenak guztira 56 aldiz joan ziren pikatzera, eta 18 zaldi hil zituzten.

Rafael Molina haiek hil ezinik aritu zen. 32 aldiz huts egin zuen ezpataz. Horren ondorioz azken zezena ilargi betearen argitan jokatu zen[100].

Donostiatik aparte Gipuzkoako beste herri askotan ere bazeuden zezenzaleak. Hernanin adibidez, sokamuturra ateratzeko ohitura bazegoen, eta Irunen bertan 1887.ean umeak zezenetara jolastu ohi zuten[99]. *Luis el de Irun* izenordeko banderilari bat bazen gainera. San Fernando-n lan egin zuen urte hartan[8]. Azpeitian berriz, Udalak dei egin zuen 1887. urtean saninaziotan inork korridak eman nahi bazituen proposamenak aurkez zitzan.

Fidel Muguruza eta Lukas Antonio Etxeberria jaunek egin zituzten eskaintzak. Etxeberriak aurkeztutako bigarren proposamena onartu zen: uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean nobillada bana emango zen, bakoitzean Nafarroako edo Gaztelako hiru zezen (hiltzekoak) eta Lasturreko bat. Abuztuaren 2an herriko gazteek bertako bi zezenko toreatu eta hilko zituzten[6]. Garai hartan izan ere zezenak edozein herritan hasten ziren menditan. Urbasan adibidez udaberritik udazkenerarte egoten ziren erdibasati, behi eta zezenak. Bertako arrazakoak ziren; piriniotarrak, horiskak. Haiek zaintzeko, unai bat kontratatzen zuten eta San Martineko herriak 60 erregu gari ematen zizkion 1887. urtean[138]. Arabako Apellaniz herriko behi eta zezenak ere kontratatutako unai batek zaintzen zituen 1887.ean[105].

Arabak 1887. urtean, bazituen banderilari eta zezenko-hiltzaile famatuak. Haietako bat, Bernardo Hierro legutiarra zen. Udazken hartan gainera, Montevideo-n lan egin zuen Joaquin Sanz *Puntereten* laguntzaile gisa[21].

Iruñean berriz, 1887. urteko sanferminetarako Salvador Sanchez *Frascuelo* eta Luis Mazzantini kontratatu zituzten. Uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean emango ziren lau korrida (seina zezenekoak) eta proba baterako (hiru zezenekoa). Zalduendoren alargunari, Espoz y Mina-ko

konteari, Raimundo Diaz-en alargunari, M.G. Puente Lopez-en alabei (lehen Aleas) eta Vicente Martinez-i erosi zizkieten ganaduak: Diaz funestarrari hiru eta gainerakoei seina[115].

Urte hartan gainera, zezenen entzierroak aldaketa txiki bat izan zuen. Festa aurretik zezenak Sadar-eko belardian egoten ziren, eta handik gauez Ospitale Militarreko karrikara ekartzen. 1887.ean ordea, karrika hura erabiltzerik ez eta Esteban Galdeano alkate jaunak Kapitain jeneralari Larrotxapea-ko bastioia erabiltzeko baimena eskatu zion[3]. Han egin zuten bada gauez hurrengo egunsentirarte zezenak edukitzeko korta. Zezenak Sadar-etik, Burdin iturriko aldapatxoa igo, Gazteluko bueltako bidetik pasa eta Larrain-aldapa jaitsita iristen ziren Larrotxapea-ko kortara[139].

Tuterako Roke Alaiza ganaduzalearen zezenak 1887. urteko maiatzaren 19an Bartzelonan jokatu ziren dibisa zuri-gorri-berdez[5]. Tuteran berriz, Manuel Calleja *Colorin*ek zuzendutako mutiko toreatzaile sevillarren taldea aurkeztu zen, bertan Joaquin Navarro *Quinito*k zekorrak hiltzen zituelarik[8].

Luis Mazzantini, *Lagartijo* eta Francisco Arjona Reyes *Currito*rekin batera 1887.eko Madrileko korridetarako kontratatu zuten. Denboraldia 1887.eko apirilaren 10eko korridaz hasi zen, eta txalo asko jaso zituen elgoibartarrak. Apirilaren 17an Mihuraren *Mochuelo* eta *Estornino* zezenak tokatu zitzaizkion. Bere banderilari Victoriano Recatero *Regaterin*i txalo asko jo zioten egun hartan.

Sevilla-ko publikoa, urte hartan kontra hasi zitzaion Mazzantini-ri. Apirilaren 8ko korridan, motiborik gabe botilak eta laranjak bota zizkioten. Botila batek ia jo egin zuen, eta ezpataria, Jose Bayard *Badila*rekin batera, botila-botatzailearengana joan zen. Jendeari ez zitzaion nonbait hura gustatu, eta maiatzaren 15 eta 19ko korridetan ere ikusleek ez zuten ondo hartu. Maiatzaren 19ko korridan gainera, ikusle batek esandako irainaren ondorioz burua bueltatu zuelako zezenak harrapatu egin zuen[8]. Perez de la Concha-ren *Zapatero* zezenak sabelpean sartu zion adarpunta.

Gero, ekainaren 22an, Madrilen berak bakarrik Perez de la Concharen sei zezen hil zituen. Korridan, zezenak azkar hiltzeaz aparte ez zuen gauza handirik egin. Dena dela, Madrilen 1887. urtean korrida batzuk galdu zituen elgoibartarrak, eta fama berriz, batez ere *Frascuelo*k irabazi zuen han.

Mazzantini-k, Madrileko laugarren korridan, inork eskatu gabe banderilariari makila-parea eskutatik kendu eta berak sartu zion zezenari. Garai hartan ikusleei ez zitzaien gustatu hura[100].

Dena dela Mazzantini sanmigeletan Sevillara joan zen berriro *Frascuelo* eta Hermosilla-rekin batera toreatzera. Sevillarrek ez zuten hain gaizki hartu orduan elgoibartarra; agian Fernando Gomez *el Gallo* sevillarra bere ordez Madrilera ekainaren 5eko korridara bidali zuelako.

Luis Mazzantiniri 1887. urtean bere anaia Tomasek asko lagundu zion. Ofizioa ongi ikasia zuenez gero, anaiari gauzak behar bezala prestatuta uzten zizkion. Luis arriskutatik ateratzen ere iaioa zen Tomas[8]. Hala ere Luis Mazzantini ez zen beti onik atera korridatan. Aipatua dugu Sevillako istripua. 1887.eko abuztuaren 31n ere izan zuen beste bat Malagan; Mihuraren *Gorrete* izeneko zezenak, Antonio Fuentes *Manene* eta *Lagartijo* ezpatariak, *Badila* eta *Agujetas* pikatzaileak eta Juan Molina eta *Torerito* banderilariaz gain Mazzantini ere kolpatu bait zuen[140]. Ez zen badaezpadako zezena izango *Gorrete* hura.

Luis Mazzantinik, Alejandro Arroyo-ren (lehen Mazpule-ren) *Tarugo* izeneko zezena hil

zuen Madrilen 1.887.eko urriaren 14ean. *Badila, Cantares* eta *Agujetas* zaldunek pikatu ondoren Luis Mazzantini berak eta Rafael Guerra *Guerrita*k banderilaztatu zuten[9].

Lagartijo eta *Frascuelo*rekin batera Luis Mazzantinik uztailaren 17an toreatu zuen Madrilen. Irailaren 4ean berriz, Manuel Fuentes *Bocanegra* eta *Frascuelo*rekin batera[8] Cadiz-en, 1887.eko ekainaren 29rako korrida iragarri zuten. Luis Mazzantinik Arribas anaien zezenak hilko zituen, Tomas Mazzantini ordezko ezpatari zela[120]. Mazzantini aurreko urtearen udazkenean, La Habana-ra joan zen esan dugunez. Handik Mexikora pasa zen eta 1887. urteko martxoaren 13an Puebla-n korrida emanda itzuli zen udaberrian Europara[55].

1887. urteko udazkenean dena den, azaroaren 10ean, Luis Mazzantinik berriro ere Mexikorako bidea hartu zuen. Berekin eraman zituen Jose Bayard *Badila* eta Manuel Perez *el Sastre* pikatzaileak, Victoriano Recatero *Regaterin*, Luis Recatero *Regaterillo*, Tomas Mazzantini banderilariak etab.. Ordezko ezpatari gisa, Valentin Martin eraman zuen elgoibartarrak. Mexikon lanean ari zirela, Fernando Lobo *Lobito* banderilaria gehitu zitzaien koadrilara.

12.8. irudia. Antonio Perez Peciña *el Ostion* banderilari biasteriarra.

Valentin Martin–ek maiatzaren 29an Mallorka–ko Palma–n Tuterako Lizaso anaien zezenak toreatuak zituen.

1887. urtean, Antonio Perez Peciña *el Ostion* banderilaria *Frascuelo*ren koadrilan beste inor baino hobea zen banderilak sartzen[8]. Maiatzaren 26an txalo asko jo zioten Madrilen *Frascuelo*k Veragua–ko dukearen sei zezen hil zituenean[104]. Batez ere lehen eta laugarren zezenak banderilaztatu zituen ondo arabarrak[100].

Donostian 1888. urtean sansebastianetan sokamuturrak eta zezensuzkoak izan ziren[17]. Urtarrilaren 27an Joan Hidalgo Alberdi jaio zen Donostian; gero *Puli* izenordez pikatzaile gisa ibiliko zena[8]. Urte hartan gainera, Frantziako Arkeologi Batzarra Akize eta Baionan ari zen bere saioak egiten, eta Donostiarainoko txangoa egin zuten. Donostian zezensuzkoa korritu zen haien omenez[141].

Aldi berean, Jose Arana enpresaria Atotxa–ko zezenplazan obrak egiten hasi zen. Burdinurtuko zutabeak ipini, palko gainetan eserleku gehiago prestatu, kanpo–horma adreiluz berritu, etab. egin zituen. 10.000 ikusle hartzeko moduan utzi zuen Aranak bere plaza[99].

Azpeitian, Joan Klemente Odriozola jaunak antolatu zituen 1888. urteko saninaziotako zezenfestak[6].

Bilbon, Victor Gomez jaio zen ekainaren 14ean. *Cerrajas* izenordez arituko zen gero pikatzaile–lanak nobilladatan egiten[8]. Barakaldon berriz, uztailaren 29an Desierto kalean Serafin Bigiola del Torco, *Torkito I.a* zezen–hiltzaile izango zena, munduratu zen[13].

Bilboko Vista Alegre plazan maiatzaren 5ean estreinatu zen 1888. urteko denboraldia. Nobillada bat eman zuten, Colmenar–eko Carlos Navarroren 6 zezenko korrituz. Francisco Gonzalez *Faico* eta Enrique Vargas *Minuto* mutilgazte sevillarrak etorri ziren ganadu hura hiltzera. Nahiz eta laugarren eta bostgarren zezena saritzat eman, toreatzaile gazte haiek ez ziren ongi egon zezenkoak hiltzerakoan. Bostgarren zezena biek batera banderilaztatu zuten.

Abuztuko korridetarako toreatzaileak kontratatzerakoan, zailtasunak izan zituzten bilbotarrek. *Frascuelo* eta *Cara ancha* iragarriak zeuden, baina *Frascuelo*k beso bat gaiztotua zuelako etorri ezina jakin erazi zien. Orduan Angel Pastor kontratatu zuten lau korridetarako (19,20,21 eta 22rako) eta Mazzantini ere bai azken bietarako.

1888.eko abuztuaren 19an Aleas–en zezenak korritu ziren. Bigarren plazaratua, *Panadero* izenekoa, izan zen onena. Angel Pastor–ek ederki hil zuen ezpataz. Hura bakarrik hil zuten ondo arratsalde hartan. *Cara ancha* kapotez luzitu zen.

Abuztuaren 20ko korridan Veragua–ko dukearen sei zezen plazaratu zituzten. Hirugarrena eta bostgarrena izan ziren onenak. Angel Pastor–ek laugarrenari berebiziko faena burutu zion. Ezpata sartu eta atera egin zion eskutik utzi gabe. Belarria eman zioten.

Abuztuaren 21ean, Mihuraren zezenak korritu ziren. Ordurako Mihuraren abereek errespetu handia sartzen zuten, eta ondorioz pikatzaileek beren haga–muturretan punta luzeagoak eskatu zituzten. *Badila* eta *Agujetas*ek bikain pikatu ondoren txalo asko entzun zuten. *Cara ancha*, Angel Pastor eta Mazzantini ondo egon ziren. Mazzantinik bere lehenengoari belarria moztu zion eta bandak *Gernikako arbola* jo zuen bere omenez. *Cara ancha*ri, laugarren zezenaren belarria eman

zioten. Angel Pastor ere ederki aritu zen bere bi zezenetan.

Abuztuaren 22an, Murube-ren sei zezen eta Aleas-en bat korritu ziren. Ganadu suharra gertatu zitzaien; Aleas-en soberakoa batez ere. Francisco Parente *Artillero* pikatzailea larrialdi batetik atera zuen Mazzantinik. Aleas-en zezena *el Ostione*k hil zuen.

1888.eko azken korrida irailaren 2an izan zen Bilboko Vista Alegren. Bizkaiko Diputazioak antolatu zuen korrida hura, Portugaleteko trenbidea, kanpoko portua eta beste obra batzuen inaugurazioa zela eta.

Korrida hartan La Patilla-ko kontearen zazpi zezen hil zituzten *Lagartijo* eta Rafael Guerra *Guerrita*k. *Lagartijo*k hirugarrena ederki hil zuen eta *Guerrita* kapotez luzitu zen. Rafael Bejarano *Torerito*k ere azkar hil zuen zazpigarrena[111].

1888. urtean, *Los toros* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi ziren[120].

Uztailaren 14ean bestetik, Landetako Aire herrian *Caracola* izeneko behiak Pascal toreatzailea hil egin zuen, eta egun berean Labastide-ko plazan Zenobia toreatzailea ere hil zen. Joseph Malfait berriz, Saint-Severe-n prestatu ondoren urte hartan Mendi Martzana-n toreatzen aritu zen *Mazzantini* izeneko zezena[31].

Irufiean 1888. urteko sanferminetarako *Frascuelo* eta *Cara ancha* kontratatu zituzten. Uztailaren 7, 8, 9, 10 eta 11n hogeitazortzi zezen korrituko zirela iragarri zuten; Zalduendo, Espoz y Mina, Diaz-en alarguna, Lizaso anaiak, Pedro Galo Elortz eta Aleas-enak hain zuzen. Nafar-zezenen arteko lehiaketa izan zen[115].

Nafar-zezenak izan ziren Bartzelonan maiatzaren 17an *Frascuelo* eta Valentin Martin-ek toreatu zituztenak ere. Clemente Zapata ganaduzale alfaroarrak bidali zituen. *Galeote* izeneko zezen gorriak, *Frascuelo* zauritu egin zuen.

1888. urtean Madrileko plazan *Frascuelo* eta Luis Mazzantinik ez zuten kontraturik sinatu. Rafael Menendez de la Vega jaunak, plazako enpresariak, porrot egin zuen eta Romero Florez elkarteak hartu zuen plaza. Elkarte haren atzean ordea, Luis Mazzantini zegoen kapitalista gisa. Negozio hark buruhaustea eta galera besterik ez zion sortu ordea elgoibartarrari. Madrilen denboraldiko azken bi korridak bertan behera utzi behar izan zituzten jenderik joaten ez zelako eta enpresak 225.000 pezeta galdu zituen urte hartan.

Dena dela Mazzantinik plaza desberdinetan toreatu zuen 1888. urtean. Cadiz-eko Jerez-en *Esparteroe*kin batera Mihuraren zezenak hil zituen San Joan egunez. Luisek bere lehen bi zezenak ondo hil zituen. Bostgarren zezena berriz, guztiz arriskutsua suertatu zen, baina Mazzantinik muletaz bost aldiz pasatu ondoren ezpatakada batez bota zuen[100].

Luis Mazzantinik, bi zezenplaza berri ere estreinatu zituen 1888.eko abuztuan. Almeriakoa hilaren 26an, *Lagartijo*rekin batera Veragua-ko dukearen zezenak toreatuz, eta Gijon-ekoa *Guerrita*rekin lan eginez[9].

Tomas Mazzantini 1888. urtearen hasiera aldera Mexikon zauriturik gertatu zen kalean, zaldiz Manuel Perez *el Sastre* pikatzailearekin paseatzen ari zela kotxe batek harrapatu zuelako. Istripuan, hanka hausteagatik, urte hartako korrida asko galdu zuen. Urte hartan, 1888.ean, Jose Fernandez *el Largo* pikatzailea Luis Mazzantiniren koadrilara etorri zen[8].

1888. urteko urtarrilaren 22an, Leon de los Aldamas–en (Mexikon) Rodolfo Gaona jaio zen[140]. Zenbaiten ustez, Gaona Arabako Gauna herriaren izen zaharra da eta lau mende lehenago Arabako Dulantzitik Ameriketara joandako gaonatarren ondorengoa[142].

1889. urtean Arabako Biasterin jaioa zen Zezilio Isasi *el Alaves* izeneko toreatzaileak, berak bakarrik bost zezenko hil zituen *el Barberillo* izeneko laguna zauritu egin zelako[8].

1889. urtean, Durangoko festetan (ekainaren 13an, San Antonio egunez), zezensuzko berezia izan zuten. Frantzisko Berrueta kalonje gasteiztarrak naturalizatutako zezen baten burua utzi zien; Gasteizeko plazan hogeitabat urte lehenago bederatzi zaldi hildako zezen baten burua hain zuzen. Durangarrek kristalezko begiak kendu zizkioten, betzulotatik gero suziriak irten zitezen. Lepoko larrua erre egin zitzaion. Zezenburu hura bide–bazterrean aurkitu eta Berrueta jaunaren eskuetara itzuli zen berriro. Hark konpondu zuen azkenean[15].

Bilbon 1889. urtean, maiatzaren 2an izan zen lehen korrida Vista Alegren. Salamancako Juan Sanchez Carreros–en sei zezen (txikiak) Valentin Martin eta *Esparterok* hil zituzten. Valentin Martin gaizki egon zen arratsalde hartan, eta Manuel Garcia *Espartero* ondo. Bere lehen bi zezenak ederki hil zituen. Antonio Perez *el Ostion* izan zen ordezko ezpataria.

Maiatzaren 5ean ezpatari berberek Funeseko Raimundo Diaz–en alargunaren sei zezen hil zituzten. Lehen eta seigarren zezenak nabarmendu ziren. Lehenak, *Pandereto* izenekoak, Valentin Martin ezpataria hankaz gora bota zuen hiltzerakoan. *Esparterok* hil zituen beste bost zezenak. Seigarrena hil zuen ondoen.

1889.eko ekainaren 23an nobillada eman zuten. *Faico* eta *Minuto* zezenko–hiltzaile gazteak etorri ziren Juan Sanchez Carreros–en abelgorriak toreatzera.

Abuztuan lau korrida ospatu zituzten Bilbon; hilaren 18, 19, 20 eta 21ean hain zuzen. Mazzantini eta *Guerrita* etorri ziren taldeburu. *Frascuelo* ere etortzekoa zen, baina hanka bat gaizki zuelako bilbotarrek ikusteko aukerarik ez zuten izan.

Abuztuaren 18ko korridan, Dolores Monje–ren (Muruberen alargunaren) sei zezen plazaratu ziren; seiak onak eta *Romito* izeneko laugarrena ezinhobea. *Guerrita* kapaz asko luzitu zen, eta laugarren zezenari egindako faenan eta emandako ezpatakadan zer esanik ez.

Bostgarren zezenari bi ezpatariek ipini zizkioten banderilak. Mazzantini, bere lehen parea ipintzerakoan erori egin zen eta zezenak zapaldu egin zuen.

Abuztuaren 19ko korridan, Ibarraren sei zezen korritu zituzten. Manuel Martinez *Agujetas*ek zazpi pikaldi (zein baino zein hobea) eman zizkion bigarren zezenari. Mazzantini lurrean ibili zen. *Guerritak* bigarren zezenaren belarria lortu zuen zezena zetorkiola ezpatakadaerdia ederki sartu ondoren. Bostgarren zezenean ere ongi egon zen *Guerrita*. Mazzantinik banderila–pare bat bikain sartu zion zezen hari aurrez aurre joanda. *Guerritak* ere bai beste bat.

Abuztuaren 20an, Veragua-ko dukearen sei zezen atera zituzten hondarrera. Hirugarrena bakarrik nabarmendu zen. Francisco Fuentes pikatzailea bota egin zuen hirugarrenak. *Guerritak* laugarren zezenaren belarria lortu zuen.

1889.eko abuztuaren 21ean Mihuraren sei zezen eta Muruberen bat korritu ziren. Oso zezen

suharrak suertatu zitzaizkien pikatzerakoan. Gero ordea zailtasunak izan zituzten faena burutzerakoan. Laugarrenari Mazzantinik sartutako ezpatakada da aipagarriena. Belarria eman zioten. Soberako zezena, *el Ostione*k hil zuen. Banderilak sartzen bikain aritu zen, eta azkenean bizkar gainean atera zuten plazatik[110].*Ventanero* izeneko zezenak, *Agujetas* eta *Badila* pikatzaileak bota zituen arratsalde hartan[9].

Bilbon, 1889. urteko otsailaren 24ean Jesus Santamaria Jauregi jaio zen. Gero pikatzaile izango zen eta *Penetre* izenordez ezagutuko zuten. Egun batzuk lehenago, otsailaren 9an, Begoñan Jose Zamarreño Mujika munduratu zen. Nobilladatan banderilari gisa lan egin zuen gero *Gordito* izenordez[8].

1889. urtean, irailaren 2an Lekeition nobillada izan zen. Santos Ruiz trokoniztarra eta Fernando Lopez Calle gasteiztarrak lan egin zuten. Baita azken honen anaia Rikardo Lopez de Callek ere, traje distiratsua lehen aldiz jantzi zuelarik. Geroztik nobillada dezentetan parte hartu zuen Rikardo gasteiztarrak Raimundo Rodriguez *Valladolid*, Francisco Bernal *Bernalillo*, Nicanor Villa *Villita* eta abarrekin[14].

1889. urteko sansebastianetan kezka bat zuten donostiarrek sokamuturrari buruz. Festetarako dirua bukatu egin omen zen. Baina diruaren arazoa nola edo hala konpondu zuten. Beste arazo bat, sokamuturra non korritzea zen. Ohituraz Konstituzio–plazan jokatzen zuten, baina han bizi zen Diaz–en alarguna oso gaizki zegoelako Lasala plazan korritzea ere pentsatu zen. Azkenean, alarguna hobetu zela eta, betiko lekuan erabili zuten idia. Sokamuturrean ez zen zauriturik suertatu. Aurreko urtean bai; orduan donostiar gazte bat harrapatu bait zuen idiak.

Donostiako Antigua auzoan ere bi idi korritu ziren 1889. urteko sansebastianetan. Udalak horretarako baimena eta soka eman zizkien[17].

Udako korridetan, Donostian Felix Gomez–en zezenetako bi suertatu ziren onak beren portaera kontutan harturik; *Estrellaito* eta *Estrello* izenekoak[9].

Martzelino Soroa idazle donostiar humoretsuak bestetik, hara zer argitaratu zuen urte hartan:

ZEZENETATIK

– ¿Nolakua korrida?
– Mutill, ederra uken;
lenbiziko zaldiyak
ill dizkik sei zezen[143].

1889. urteko irailean, Donostiako Antigua auzoan, eliza berria estreinatu zen. Maria Cristina erreginaren jauregi berrian zegoen lehen, eta orain dagoen lekura aldatu zuten. Irailaren 8an arratsaldean, lau idi korritu zituzten sokamuturrean[18].

Hondarribian, 1889.eko abuztuaren 15ean hain zuzen, Florencio Gonzalez *Perita* zezenko–hiltzailea zauriturik suertatu zen. Hurrengo egunean hil zen zezenkoak sortutako zaurien ondorioz[99]. Hondarribian artean ez zuten zezenplaza biribilik.

1889. urteko saninaziotan Azpeitian Joan Mari Martinez Karton eta Antonio Etxeberria izan ziren zezenfestak antolatu zituztenak. Baldintzatan esaten zenez, Udalak itxiko zuen plaza eta antolatzaileek ekarriko zuten lurrerako hondarra. Gaztejendearentzako zezenkoak ere antolatzaileek

ordainduko zituzten[6].

Iruñean 1889.eko sanferminetarako lau korrida eta proba bat antolatu zituzten. Lizaso, Zalduendo, Galo Elortz, Espoz y Mina eta Diaz-en hogeitazazpi zezen jokatuko ziren. Haiek hiltzeko, Fernando Gomez *el Gallo* eta Mazzantini elgoibartarra kontratatu zituzten[115].

Urte hartantxe, 1889. urteko abuztuan agertu ziren Iruñean lehen autobusak. Dilijentzien ordez autobusak hasi zirenean, zenbait iruindar gazte autobusaren aurretik aritzen zen korrika entzierroan bezalaxe. Agintariek neurri zorrotzak hartu zituzten korrika-saio haiek gerta ez zitezen, baina hasieran korrikalari gehiago aritzea besterik ez zuten lortu[144].

Iruñean bertan 1889. urteko urtarrilaren 4ean, Gregorio Yanguas jaio zen. Oso txikia zela Bilbora joan zen bere familiarekin eta *Zapata* izenordez banderilari gisa lan egingo zuen gero.

Madrilen berriz, irailaren 1ean Casto Diaz tuterarra aurkeztu zen Manuel Nieto *Goretere*kin batera zezenkoak hiltzera. Ez zuen arrakastarik lortu. Irailaren 8an gainera, Espoz y Minaren zezenkoak (lehen Karrikirirenak) jokatu ziren Madrileko plazan[8].

Paris-en 1889. urtean hiru zezenplaza egin ziren Erakusketa Unibertsala zela eta. Bata Quai de Billy-n zegoen; *Arenes Parisiennes* izenekoa eta Landetako korridak emateko egina. Oraingo Quai de New York-en zegoen. Beste bat Federation izeneko kalean eraiki zuten, baina sei aste baino gehiago ez zuen iraun. Beste zezenplaza bat Pergolese kalean egin zen; Bois de Boulogne-n. Veragua-ko dukea, Antonio Hernandez, Patilla-ko kontea eta beste batzuen eraginez eraiki zuten plaza hura 1880.ean Parisen. Zezenplaza handia eta estalia zen; 15.000 ikusle inguru hartzeko modukoa. Irailaren 15ean, *Lagartijo, Frascuelo* eta Luis Mazzantinik parte hartu zuten. Urriaren 6an berriz, *Cara ancha*, Mazzantini eta Pastor-ek, Espainiako Isabel erreginaren aurrean. Luis Mazzantinik plaza hartan, bederatzi korrida toreatu zituen[28].

Parisen zegoela, Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarra rue Pergolese-ko plaza hartara joan zen kapotez jostatzera. Norbaitek adierazi zionez, han zaldimutil euskaldun bat zuten; Pablo Uranga hain zuzen, eibartarra bezalaxe pintatzaile famatu izango zena. Uranga pikatzaile ere aritu zen Pariseko zezenplaza hartan. Egunean bost franko irabazten omen zituen. Angel Pastor toreatzailearekin burrukan egin omen zuen ordea, eta lanik gabe gelditu zen Uranga[145].

Pablo Urangak 28 urte zituen; 1861. urtean Gasteizen jaioa bait zen. Pariseko bidea aurreko urtean hartu zuen Durrio-k deituta. Esan bezala, Bois de Boulogne-ko zezenplazan ezagutu eta lagun egin zuen Zuloaga eibartarra[146]. Norbaitek idatzi du Uranga plaza hartan lanean Mazzantiniren bitartez hasi zela ere[147].

Luis Mazzantinik 1889. urtean maiatzaren 30ean Madrilen Mihuraren zezenak hil zituen *Frascuelo* eta Julio Aparici *Fabrilo*rekin batera. *Fabrilo*k Madrilen orduantxe sendotu zuen bere alternatiba.

Luis Mazzantinik Madrilen beste lau korrida ere eman zituen, *Lagartijo* eta *Guerrita* ere lagun zituela. Madriletik kanpo 39 korridatan parte hartu zuen. Maiatzaren 12an Tarragona-n, *Guerrita*rekin toreatzen ari zela botila, harri etab. bota zizkioten elgoibartarrari[8]. Mazzantinik urtero hirurogeiren bat korridatan parte hartzen zuen, baina 1889.ean gutxiago izan zituen[100]. Madrileko enpresari izateari utzi egin zion gainera urte hartan, 350.000 pezeta galduta[104].

1889. urteko udazkenean Luis Mazzantini Montevideo–ra joan zen bere koadrilarekin. Enrique Santos *Tortero* ordezko ezpataria, Jose Bayard *Badila* pikatzailea, Victoriano Recatero *Regaterin* banderilaria, etab–ekin[8].

———— o ———— o ————

Bilbon 1890. urtean Abandoko elizatea hiribilduak anexionatu zuen, hango zorrak bere gain hartuz. Abandok zituen zorretako bat, Vista Alegreko korridengatiko 200 pezetako ariel bat zen[148].

Dena dela Vista Alegren korridak normal eman ziren 1890. urtean. Maiatzaren 2an izan zen lehen nobillada. Carreros–en sei zezenko hil zituzten *Faico* eta *Minutok*. Toreatzaile landetarrek ere lan egin zuten beste bi zezenkorekin. *Minutok* saltatu zuen lehenbizi bi aldiz adar gainetik, eta gero hasi ziren landetarrak. Toreaketa normalean *Faico* hankaz gora erabili zuen zezenkoak, eta Jose Vargas *Noteveas* banderilaria (Enrique Vargas *Minutoren* anaia) ere bai laguntzera joan zitzaionean. Zauririk gabe atera ziren handik.

Antonio Romero *Salerik* hagaz seigarren zezenaren gainetik saltatu zuen. *Minutok* ongi hil zituen bigarren eta seigarren zezenkoa.

Maiatzaren 25ean eman zen Bilbon bigarren nobillada. Carreros–en sei zezenko hil zituzten Raimundo Rodriguez *Valladolid* eta Santiago Sanchez *Cerrajerok*. Azkenean beste bi zezenko plazaratu ziren, haiekin Mariano Ledesma eta Mariano Cortes zaldunek burtziketa–lanak egin zituztelarik.

1890.eko abuztuan, hilaren 17, 18, 19 eta 20an lau korrida batabestearen ondoren eman ziren Bilboko Vista Alegren. *Lagartijo* eta *Guerritak* lan egin zuten. Abuztuaren 17ko korridara Sagasta politikoa joan zen eta musikariek Riego–ren himnoa jo zioten.

Ibarraren sei zezen plazaratu ziren; suharrak eta onak. Rafael Moreno *Beao*, Antonio Bejarano *Pegote* eta Francisco Fuentes pikatzaileek lana ederki egin zuten. *Ostion* arabarrak ere banderila–pare batzuk ederki sartu zituen. *Lagartijoren* koadrilan zebilen biasteriarra, *Frascuelo* erretiratu egin zelako.

Abuztuaren 18ko korridan, Veragua–ko dukearen zezenak plazaratu ziren; oso onak. Laugarrenak bost zaldi hil zituen. *Pegote* eta *Agujetas* nabarmendu ziren pikatzen. Banderilak sartzen berriz, Manuel Antolin. *Lagartijok* bostgarren zezenean osatutako faena izan zen gauzarik onena. Ezpatakada batez bota zuen gero zezena. Belarria eman zioten.

Abuztuaren 19an Muruberen zezenak korritu zituzten Bilbon. *Lagartijo* ez zen ongi egon lehen zezenean, baina beste bietan bai. *Guerrita* asko txalotu zuten bere bi lehen zezenetan.

Abuztuaren 20ko korrida izan zen Bilboko txarrena urte hartan. Mihuraren sei zezen eta Muruberen bat ez bait ziren ondo portatu. *Lagartijo* eta *Guerritak* lehen zezena bakarrik hil zuten ongi. Lehenbizikoak 21.450 pezeta kobratu zituen lau korridengatik eta *Guerritak* 17.750 pezeta. Zezenen kostua berriz, honako hau izan zen: Veraguarenak 12.500 pezeta, Mihurarenak 12.000, Muruberenak (zazpi) 13.417 eta Ibarrarenak (zazpi) 14.000.

1890.eko abuztuaren 31n, ohiz kanpoko korrida bat eman zuten Bilbon *Infanta Maria Teresa* gurutzuntziaren inaugurazioa zela eta. Angel Pastor eta *Guerritak* Veraguaren zezen bat, Ibarraren bi, Mihuraren bi eta Udaeta–ren bi toreatu zituzten.

Korrida arratsaldeko hiruretan hastekoa zen, baina atzeratu egin zuten *Guerritaren* koadrilakoen ekipaia Mirandan galdu zelako. Atzerapenaren ondorioz, zazpi zezen toreatu ahal izan zituzten, eta ez zortzi pentsatuta bezala.

Mihuraren zezen bat izan zen onena. *Guerritak* ezpata ondo dantzatu zuen, eta Angel Pastor-ek faena bikainak burutu zituen. Azken zezena, Faustino Udaeta-rena, erdi ilunpetan toreatu zuten.

1890.eko urrian, Bilbon Ruiz kapitain aeronautak bere saioa egin zuen astero, eta azkenean Orozko-ren zezenko bat hiltzen zuten. Nicomedes Ruiz gimnastak toreatze-lana polito egiten omen zuen[111].

Bilbon 1890. urteko martxoaren 26an Castulo Martin banderilaria jaio zen[8]. Urte berean baita *El Tio Chironi* izeneko zezen-aldizkaria ere[120].

Donostian 1890. urtearen hasieran, otsailaren 2an, kandelariatan *inude eta artzaien* dantzak, sokamuturra etab. izan zituzten[149].

Tolosako ihauterietan ere izaten ziren dantzak eta zezenak. Garai hartan Ramos Azkarate-k *Galtzaundi* izeneko bertso famatuak jarri zituen. Bigarren bertsoan aipatzen den Galtzaundi-ren *alaba ipurtandia*, Madrileko pikatzaile batekin ezkondu omen zen[150].

Ramon Artola tolosarra berriz, Donostiara ezkondua zegoen, eta 1890. urtean *Zezena eta subea* izeneko bertsoak ipini zituen[151].

Azpeitian 1890. urtean Antonio Agirre barrerak ipini eta ken zitzan lau urterako kontratatu zuten, urteko 262,5 pezetaren truk. Saninaziotarako proposamenak Luis Lizurume, Joan Maria Martinez, Antonio Etxeberria eta Joan Inazio Arregi jaunek egin zituzten. Istiluak izan zituzten nobilladen antolatzailea zein izango zen erabakitzerakoan[6].

Irufiean, 1890. urteko sanferminetara Luis Mazzantini eta Rafael Guerra *Guerrita* ekarri zituzten toreatzera. Uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean izan ziren korridak. Uztailaren 9ko goizean proba ere bai.

Uztailaren 13rako, *Faico* eta *Minuto* toreatzaileen nobillada iragarri zuten[115].

1890. urtean Luis Mazzantinik bere anaia Tomas-en laguntza estimagarria izan zuen zezenplazatan. Peoirik onena zen adituek ziotenez, Juan Molina-ren (*Lagartijo*ren anaiaren) ondoren. Tomas-ek gainera zezenkoak hil zituen Madrileko plazan Bernardo Hierro eta Candido Martinez *Mancheguito*rekin batera.

1890. urtean, Jose Bayard *Badila* pikatzaileak Luis Mazzantini-ren koadrila utzi egin zuen. Luis-ek Oran-en (oraingo Algeriako, Wahran-en) 1890. urteko maiatzaren 26ko korridan zezenak hil zituen. Haietako batek, kailejoira Victoriano Recatero-ren ondoren saltatuta zauritu egin zuen banderilaria. Haren ordez Luis Recatero *Regaterillo* (Victorianoren anaia) etorri zen elgoibartarraren koadrilara[8]. Oran-eko plaza auzo arabiarrean zegoen, zurezkoa zen eta zezenak ezpataz hiltzea debekatua zegoen[136].

Manuel Martinez *Agujetas* pikatzailea izan zen 1890.ean Mazzantiniren koadrila utzitako

beste bat. Manuel Rodriguez *Cantares*ek bete zuen haren lekua.

Luis Mazzantinik 1890.eko urriaren 2an Madrilen parte hartu zuen Fernando Gomez *el Gallo* eta *Guerrita*rekin batera[8]. Saltillo–ko markesaren zezenak korritu ziren orduan, eta *Dudoso* izenekoak hamar pikaldi jasan zituen. Hiru ezpatariek banderilaztatu ondoren, elgoibartarrak hil zuen.

1890. urteko uztailaren 25ean, Luis Mazzantini eta Jose Sanchez del Campo *Cara ancha*k Santander–eko zezenplaza berria estrenatu zuten La Patilla–ko kontearen zezenak hilez[9].

Luis Mazzantinik 1890. urtean Pariseko plazan (Pergolese kalekoan) zortzitan parte hartu zuen. Plaza hartan pikatzaileek lan egitea debekatu egin zuten, eta ekainaren 19an, jendea pikatzaile–eske ari zela, *Badila*k banderilak hartu zituen. Bere buru zen Mazzantinik ez zion utzi eta plazan istilu ikaragarria hasi zen. Moreno lehendakariak, elgoibartarrarekin elkarrizketatu ondoren, baimena eman zion *Badila*ri eta hurrengo zezenari sartu zizkion banderilak, zezenak harrapatu bazuen ere[120].

Luis Mazzantinik 1890. urtean ez zituen korrida askotako kontratuak sinatu, baina urte hartan ganaduzale ere izan zen. Bere zezenak Madrilen urriaren 26an jokatu bait zituen. Faustino Udaeta ganaduzaleak ere bai urte bereko martxoaren 6an.

1890. urte inguruan bestetik, Funes–eko Jorge Diaz–ek nafar–zezenez osatutako bere ganadutegiari Mihura eta Concha y Sierra–ren abereak gehitu zizkion[9].

Banderilariei gagozkiolarik, *Mellao* izenordea eta Zamudio deitura zuen euskaldun bat Venezuelako eta Ameriketako beste plaza batzuetan 1890. urtean (eta hurrengoetan) lanean ziharduela aipatu beharra dugu. Antonio Perez *el Ostion* ere bere onenak ematen ari zen orduan, Rafael Martinez *Menene chico* banderilariarekin bikotea osatuz[8].

1890. urte inguruan, Akitania–ko Landetan bertako toreaketak irauten zuen eta gaur eguneko zezenketa landetarra edo euskal zezenketen antz handia zuten. Diferentzia txiki batzuek bazituen ordea. Toreatzaileak koadrilatan antolatzen ziren. Larrabehien jabeak, beren ganaduari fama eman ziezaioten toreatzailerik onenak plazara ekartzeaz arduratzen ziren.

Larrabehiak orduan, ia inoiz ez ziren bolaztatzen; bi edo hiru korridatan erabili ondoren zurezko bolak ipintzeko ohitura XX. mendearen hasieran ezarriko bait zuten[28]. Bestetik, 1890. urteko urtarrilaren 16an Irunen Paul Daverat toreatzaile landetarra hil zen; lurralde hartako toreaketa hain ederki menperatzen zuena hain zuzen[8]. Pneumoniaz hil zen 36 urte zituelarik[31].

Bilbon Joakin Mazas Orbegozo kronista ere hil zen urte hartan. *El Alguacil* izenordez Madrileko *El Globo* egunkarian idazten zituen Bizkaiko kronikak[120].

1891. urtean Bilboko Vista Alegren denboraldia martxoaren 29an hasi zen. Mena ibarreko Ordunte–ren lau zekor toreatu zituzten lau langilek.

Apirilaren 19ean Ibarraren lau zezenko jokatu ziren. Jose *Platas* eta *Escabecher*ok hil zituzten. *Platas*ek hagaz zezen gainetik salto egin zuen.

Apirilaren 26an, inguruko lau zezenko toreatu zituzten bi zezenko–hiltzaile berberek. Langabezian zeudenei laguntzeko antolatu zen nobillada hura. Hirugarren zezenkoak berebiziko

lanak eman zizkion *Platas*i eta azkenean toriletara itzuli zuten; hura ez bait zegoen hiltzerik.

Ekainaren 14ean eman zen 1891. urteko lehen korrida Vista Alegren. Maiatzean ez zen Bilbon korridarik eman, langileen protestak medio setio-egoera zegoelako. Dena den, ekainaren 14ean Bañuelos-en sei zezen plazaratu zituzten. *Lagartijo* eta Juan Jimenez *Ecijano* ziren haiek hiltzeko etorriak. Korrida txarra ikusi zuten bilbotarrek egun hartan.

Laugarrena hiltzerakoan, zezenak (*Airoso* izenekoak) harrapatu eta arinki zauritu zuen *Ecijano*. *Lagartijo*k nola edo hala hil zituen beste bi zezenak.

Ekainaren 21ean komediak izan ziren Vista Alegren, azkenean zekor bat hil zutelarik. Uztailaren 5ean, hartz eta zezen baten arteko burruka ikusi nahi izan zuten Bilboko plazan, baina bi animaliek ez zioten elkarri eraso. Uztailaren 12an ordea, nafar-zezenko bat bota zioten hartzari. Zezenkoak hankapean erabili zuen hartza. *Platas*ek hil zuen azkenean zezenkoa.

1891. urteko abuztuan lau korrida eman zituzten; hilaren 23, 24, 25 eta 26an hain zuzen. Lehen korrida, abuztuaren 23an jokatu zen, beraz, Murube-ren ganadua plazaratuz. *Lagartijo* eta *Guerrita*k hil zituzten, beste hiru korridetako zezenak bezalaxe.

Lehen korridan, lehen eta bostgarren zezenak izan ziren onenak. *Lagartijo*ren lehen zezenari jotako ezpatakada eta *Guerrita*k seigarrenari jotakoa izan ziren gauzarik aipagarrienak. Seigarrenaren belarria eman zioten *Guerrita*ri.

Abuztuaren 24ean Veragua-ko dukearen zezenak toreatu zituzten. Bakoitzak gutxienez zazpi pikaldi jasan zituen. Hirugarrenak, Rafael Moreno *Beao* pikatzen ari zitzaiola, zaldi-zaldunak eta bi zaldimutil batera lurrera bota zituen. Juan Molina-k buztanetik heldu zion, bere anaia Rafael *Lagartijo*k etorri eta kapaz zezena handik atera zuen arte.

Bostgarren zezenari bi ezpatariek sartu zizkioten banderilak; oso ederki sartu ere. *Lagartijo*k lehen ezpata-kolpez bota zituen bere hiru zezenak, eta jendea pozik atera zen korrida hartatik.

1891. urteko abuztuaren 25eko korridan, Mihuraren sei zezen plazaratu ziren. *Mochuelo* izeneko bostgarrenak bederatzi pikalditan hiru zezen hil zituen. Arriskutsua zen zezen hura eta *Lagartijo* ozta-ozta salbatu zen bere burua lurrera oholtza ondora bota zuelako; zezenak orduan kailejoira salto egin bait zuen. *Lagartijo*ri lanak ongi atera zitzaizkion, baina *Guerrita* hiltzerakoan asmatu ezinik ibili zen.

Abuztuaren 26an eman zuten laugarren korrida; onena. Ibarraren zazpi zezenetan, laugarrena izan zen txarrena. Lehen zezenak Juan Molina banderilaria harrapatu zuen. Ordezko bi pikatzaile ere erizaindegira joan beharrean aurkitu ziren. *Lagartijo*ri hirugarren eta bostgarren zezenaren belarria eman zioten. *Guerrita*ri berriz, seigarrenarena[111].

Pikatzaileek ez zuten suerte onik izan Bilboko korrida haietan. Lehen korridan Juan Rodriguez *el de los Gallos*, *Agujetas* eta *Badila* zauritu ziren. Enpresak berehala eskatu zituen telegrafoz Madrilera beste bi pikatzaile. Francisco Fernandez *el Calesero* eta Soriano etorri ziren biharamunean. Bigarren korridan *el Calesero*, Francisco Fuentes eta Antonio Bejarano *Pegote* zauritu ziren. Laugarren korridan *Pegote* pikatzailea eta Juan Molina banderilariak (*Jabato* izeneko zezenean) izan zituzten zauriak[10].

Abuztuko korriden ondoren, 1891. urtean irailaren 20 eta 27an komedien ondoren Orozkoren zezenko bana hil zen. Nicomedes Ruiz-ek erabili zuen ezpata.

Urriaren 4ean Espoz y Minaren 6 zezen hil zituzten Francisco Bonar *Bonarillo* eta Jose Rodriguez Davie *Pepetek*. Zezenak oso onak ziren. *Valenciano* izeneko laugarrenak hamalau pikaldi jasan zituen. Pikatzailerik ez zen ateratzen hamabostgarrenerako eta jendea txistuka hasi zen. Lau batera atera ziren gero eta *Valencianok* bi zaldi bota zituen. *Bonarillo* eta *Pepeteri* belarri bana eman zieten. Rovira banderilaria (bere aita valentziarra zen) eta Frantzisko Sarasua *Txarol* pikatzailea lehen aldiz aurkeztu ziren Bilbon korridan parte hartuz[111]. Frantzisko Sarasua, Barcena de Cicero-n (Santander-en) jaioa zen[152].

1891. urtean azkenik, urriaren 11n zekorketa bat eman zuten, toreatzaile bilbotarrek parte hartuz. Urriaren 18an ere Nicomedes Ruiz-ek Orozko-ren zezenko bat hil zuen[111].

Bilbon bestetik, *El toreo Bilbaino* aldizkaria argitaratu zen 1891. urtean[120].

Donostian berriz, urtearen hasieran zaindariaren omenezko festak bertan behera utzi zituzten oso eguraldi hotza egin zuelako. Sokamuturrerako zezenak ekarri zituenari, bakoitzeko hogeitamar pezeta eman ohi zizkioten, eta urte hartan zezenjabeak Bilbora eraman zituen hurrengo igandean han joka zitezen[17].

Gero udan, 1891.eko abuztuan korridak izan ziren Atotxa-ko plazan. Abuztuaren 16koan bronka galanta entzun zuten toreatzaileek. *Lagartijo* eta Angel Pastor Aleas-en zezenak hiltzen ari ziren. Bezperan Perez Tabernero-renak toreatuak zituzten.

Dena dela, abuztuaren 16ko korridan bigarren zezenean Angel Pastor-ek zezenari sartutako ezpata sastakariak sakondu egin zuen barreratik eta jendea txistuka hasi zen. Hirugarren zezenak, *Cigarron* izenekoak, oso zangar jokatu eta zaldirik gabe utzi zuen plaza, bost hilez. Zaldi gehiago ekarri eta beste laurenak ere egin zituen. *Lagartijo* faenarik egin gabe hiltzen saiatu zen bitan, baina ezin. Zezenak kailejoira saltatu zuen gero, eta han *el Ostion* aritu zen zezenari ezpata nola edo hala sartzen. Jendeak ateratako zalaparta asmatzekoa da. Laugarren zezena Angel Pastor-ek ongi toreatu zuen, baina ezpata zintzurrean sartu zion. Bostgarren zezena, *Ranchero* izenekoa, guztiz noble eta suharra suertatu zen. Hamaika pikaldi jasan eta bost zaldi hil ondoren, banderilak sartu zizkioten. Jendea asaldatua zegoen jadanik, eta zezena gehiago pikatu behar zelakoan, botila eta gauza-pilo bat botatzen hasi zen. Korrida hamar minutuz eten ondoren, berriz ere hirutan pikatu zuten. *Lagartijok* hamalau paseko faena burututa hil zuen. Seigarren zezena, *Comerciante* izenekoa, plazaratu zenean, jendeak ganaduzaleari txaloak jo zizkion ganadu ona bidali zuelako. Bost pikalditan azken bi zaldiak hil zituen zezenak, eta gehiago ekarrita beste bost aldiz pikatu zuten *Comerciante* gorria. Angel Pastor-ek bere faena laburra egin ondoren sastakariak barreratik bere sastakaia sartu zion zezenari. Jendea oihuka eta garraisika hasi zitzaien berriz. Arana enpresariari, Angel Pastor Donostiara gehiago ez ekartzea gomendatu zioten kazetariek[99].

Abuztuaren 18ko korridan, *Lagartijo* oso gaizki egon zen Donostiako plazan, eta jende askok guraizeak atera zituen mototsa behin betirako ebaki zezan[100].

Hondarribian, 1891. urteko irailaren 10ean pikatzailerik gabeko nobillada izan zen. Raimundo Rodriguez *Valladolid* izeneko toreatzaileak parte hartu zuen. Geroxeago, abenduaren 5ean, zezenplaza berriaren obrak hasi ziren Hondarribian, Marina auzoan. 6.912 ikusle hartzen zituen eta 15.000 duro kostatu zen[99].

Azpeitian, Anastasio Beloki eta Jose Mari Amundarainek antolatu zituzten 1891.eko saninaziotako zezenfestak[6].

Iruñean sanferminetarako Luis Mazzantini eta Rafael Guerra *Guerrita* kontratatu zituzten. Lau korrida (uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean) eta proba bat (uztaileko 9aren goizean) eman zituzten, Kaparrosoko Zalduendo, Funeseko Diaz (Mihuraren ganaduarekin nahastutako zezenak ziren), Colmenar-eko Felix Gomez eta Sevillako Saltillo-ko markesaren zezenak ekarrita[115].

Uztailaren 9ko korridan *Sandino* izeneko zezena plazaratu zen; Diaz-ena, eta oso suharra. Hamar pikalditan zortzitan zaldia bota eta bost hil zituen[5]. Hildako zaldiak, plaza ondoan zegoen polea baten bidez ipintzen zituzten lera gainean, handik zulora eramateko[153].

Tuteran, uztailaren 17ko korridan Jorge Diaz-en *Lazarillo* zezena nabarmendu zen. Hamaika pikalditan sei zaldi hil zituen[5].

Luis Mazzantini-rentzat 1891. urtea ez zen oso ona izan. Madrilen Manuel Garcia *Espartero* eta *Guerrita*rekin batera kontratatu zuten denboraldi osorako.

Apirilaren 19an Fernando *el Gallo* eta Enrique Vargas *Minuto*rekin batera Aleas-en zezenak toreatzen parte hartu zuen[8].

Maiatzaren 31n Faustino Udaeta-ren zezenak toreatu zituen Antonio Fuentes eta *Guerrita*rekin batera[103] .Madrileko ikusleentzat jadanik ez zen gogokoa elgoibartarra, eta uztailaren 16 eta 21eko korridetan txistua jo zion bertara joandako jendeak. Jende gutxi joan zen plazara, egia esan[100]. Aurrez ekainarẽn 14ean Benefizentzi korrida toreatua zuen *Lagartijo, Cara ancha, Espartero* eta *Guerrita*rekin batera[55].Gero irailean, urrian eta azaroan bost korridatan arrakasta handia lortu zuen[100].

Mazzantinik 1891. urtean Puerto de Santa Maria-n alternatiba eman zion Jose Rodriguez Davie *Pepete II.*ari[140]. Abuztuaren 30ean izan zen. Antonio Arana *Jarana* lekuko zela, Benjumea-ren zezenak toreatu zituzten[8].

Hiru egun lehenago (abuztuaren 27an) Francisco Bonar *Bonarillo*ri eman zion alternatiba elgoibartarrak Madrilen. Benjumea-ren *Baratero* izeneko zezena hiltzeko tresnak utzi bait zizkion.

1891.eko abuztuaren 28an, Linares-en toreatu zuen Luis Mazzantini-k. *Jaqueton* izeneko zezena izan zen hil zuenetako bat. Hamaika pikaldi jasan eta zaldi bat hil zuen[9].

1891.ean, Joseph Coran Villenave-d'Ornon-en (Gironde-n) jaio zen. Gurasoak Houga eta Saint-Germe-koak zituen. Gero toreatzaile ona izan zen[31]. Garai hartan Landetako zezenfestetan, Jean Marie toreatzailea arrakasta handia lortzen ari zen zezen gainetik airoso salto eginez[8].

1892. urteko albisteak ematen, Bilboko Vista Alegre-ko lehen nobillada aipatuz hasiko gara. Ramon Rovira eta *Escabecher*ok Sanchez del Alama salamancarraren lau zezenko hil zituzten martxoaren 20an. Rovira-k lehen zezenkoaren belarria lortu zuen. Ondoren, bi zezenko bolaztatu atera zituzten gaztejendearentzat eta batek, plazatik ihes eginda, Pasaiakoak bezala estutasuna ugari sortu zuen kalean.

Martxoaren 25ean beste nobillada bat antolatu zen. Salamanca-ko Sanchon-en lau zezenko

toreatu zituzten Nicanor Villa *Villita* eta Ramon Rovira–k. Rovira ez zen ondo egon eta *Villitak* lehen zezena ederki hil zuen. Gustatu zitzaion jendeari bere toreatzeko era.

Bi egun geroago, martxoaren 27an, kartel berberaz eman zuten nobillada Vista Alegren. *Villita* kapotez oso dotore aritu zen. Pikatzaile batek zaldi gainetik banderilak sartu nahi izan zituen, baina lehendakariak ez zion utzi. Azkenean *Villita* bizkar gainean atera zuten.

1892.eko apirilaren 18an, Salamanca–ko Tabernerorен sei zezenko jokatu ziren. *Ecijano* eta *Villita* kontratatu zituzten haiek hiltzeko. Ganadua ongi portatu zen; bostgarren eta seigarren zezenkoak batez ere. Hirugarrenak Manuel Castro *Mane* pikatzailea bota eta zauriturik utzi zuen. Seigarrena hamalautan pikatu zuten[111].

1892.eko apirilaren 24ean, Bilbon beste zezenplaza bat inauguratu zen. San Mames–eko zumardian zegoen; udal–alondegiko lurretan. *Recreo*ko plaza deitzen zioten eta Jose Ruiz *Joseito* eta Juan Gomez de Lesaka–k lan egin zuten inaugauraziokoan[154]. Aleas–en lau zezenko hil zituzten (Plaza hark urtebete iraun zuen).

Egun hartantxe, Vista Alegren nobillada eman zen Tabernero salamancarraren sei zezen jokatuz. Fancisco Bernal *Bernalillo* eta Nicanor Villa *Villitak* parte hartu zuten. Lehen zezenkoak hamar pikaldi jasan zituen, eta gainerakoan ez zen ezer nabarmenik gertatu[111].

1892.eko maiatzaren 2an Tabernero–ren sei zezenko hiltzera *Villita* eta Rovira etorri ziren Bilboko Vista Alegrera. *Villitak* lehen lau zezenkoak nola edo hala hil zituen. Joaquin Alcañiz banderilaria lehen zezenak zauritu egin zuen. Rovira ongi egon zen.

Maiatzaren 15ean, Orozko–ren bi zezenko Nicomedes Ruiz eta Hipolito Diartze–k hil zituzten. Maiatzaren 26an, Murrietako trenbide eta dartsenako langabetuen alde dirua biltzeko zekorketa izan zen Vista Alegren. *Union Artesana*ko bazkideek Salamanca–ko Sanchon–en hiru zekor toreatu zituzten.

Ekainaren 16an, Vista Alegren Carlota Sanchez–en sei zezenko plazaratu ziren *Torerito* eta Miguel Baez *Litri* beren koadrilekin aurkeztu ondoren. Ganadu ona ikusi ahal izan zen. Lehen eta bigarren zezenkoak izan ziren onenak. *Toreritok* bostgarrenaren belarria lortu zuen. *Litrik* berriz, bere hiru zezenkoenak.

Uztailaren 31n Salamanca–ko Sanchon–en sei zezenko eta Logronioko Cipriano Sanz–en beste bi toreatu zituzten Nicanor Villa *Villita* eta Ramon Laborda *el Chatok*, azken hau ordezko ezpatari zela. *Villitak* bigarren zezenkoan belarria lortu zuen. Hirugarrenean, ikusle gisa zegoen Francisco Bernal zaragozarrak bi banderila–pare sartu zituen lehendakariaren baimenaz. *El Chatok* laugarren zezenkoa gaizki hil zuen.

Bilbora abuztuko korridetarako (21, 22, 23 eta 24ean eman ziren) *Lagartijo* eta *Guerrita* etorri ziren kontratatuta. Lehen egunean Mihuraren bost zezen eta Muruberen bat hil zituzten. Bostgarren zezena, *Italiano* izenekoa, adarmotza eta betokerra zen. Jendearen txistuen ondorioz, toriletara sartzea agindu zuen lehendakariak, baina torilariaren hutsegite bat medio, kailejoira pasa zen eta han udaltzain, albaitari eta garbitzaile bat zauritu zituen. Muruberen zezen bat atera zuten orduan; oso suharra, hamabi pikalditan sei zaldi hil zituena. *Lagartijok* zezen honen eta lehenbizikoaren belarria lortu zituen. *Guerritak* berriz, bigarren eta seigarren zezenarena. Seigarren zezena bi ezpatariek ederki banderilaztatu zuten. Frantzisko Sarasua *Txarol* (edo *Charol*) pikatzailea eta Juan Molina banderilaria (*Lagartijo*ren anaia) ere nabarmendu ziren. Antonio

Bejarano *Pegote* pikatzailea hirugarren zezenean zauritu egin zen[111]. *Rabituerto* izeneko zezenak begian zauritu zuen[8].

1892.eko abuztuaren 22an, Veragua–ren sei zezen plazaratu zituzten. Bilbon dukeari txalo asko jo zioten (plazan bait zen) ganadu ezinhobea bidali zuelako. *Lagartijo*k lehen zezena oin–hegazka bikain hil zuen, belarria lortuz. Plazan txaloak jasotzen ari zela, belarria eserlekuetara bota eta *Lagartijo* izeneko pilotariaren eskuetara etorri zen, hain zuzen. Bostgarren zezenaren belarria ere lortu zuen *Lagartijo*k. *Guerrita*k, seigarren zezenari moztu zion belarria.

Abuztuaren 23an, Muruberen zezenak ongi portatu ziren; azken hirurak batipat. Txalo eta belarri ugari izan zen arratsalde hartan bi ezpatarientzat. *Txarol*ek bostgarren zezena oso ederki pikatu zuen hiru bider. Laugarren zezenaren eraginez lurrean ere ibili zen.

Abuztuaren 24ean, Bilboko laugarren korridan, Ibarraren sei zezen eta Muruberen bat korritu zituzten. *Lagartijo* lehen zezena (*Leon* izenekoa) hil ezinik ibili zen. Gainerakoan korrida normal atera zitzaien. Bostgarren zezenean euria hasi zuen. Zazpigarren zezena *el Ostion* ordezko ezpatariari utzi zioten hil zezan. Halaxe egin ere biasteriarrak eurijasa ari zuela.

Urte hartan, 1892.ean, zezenfesta gehiago ere izan zen Bilboko Vista Alegren. Irailaren 11n *el Che* eta *Anguilero*k lau nafar–behi hil ondoren, 18an korrida antolatu zuten. Zaragozako Ejea–ko Celestino Miguel–ek bost zezen bidali zituen eta Mihurak bat. Julio Aparici *Fabrilo* eta Miguel Baez *Litri*k parte hartu zuten. Ganadua oso txarra suertatu zitzaien. *Litri*k laugarren zezena ondo hiltzeagatik belarria lortu zuen. Mihuraren seigarren zezena, *Estudiante* izenekoa, barrura sartu behar izan zuten erabat koldarra zelako.

Irailaren 25ean nobillada bat izan zen Vista Alegren Sarasua pikatzailearentzat (*Txarol*entzat) dirua biltzearren; alternatiba hartzera Madrilera joatekoa bait zen. Celestino Miguel ejearraren hiru zezenko plazaratu zituzten Nicanor Villa *Villita* ezpatari zela. Bigarrengoari suzko banderilak ipini zizkioten, baina sutu ondoren zangartasunez bete zelako, berriro bitan pikatu zuten.

Bilboko denboraldia, azaroaren 1ean bukatu zen Bilbon zeuden pilotariek antolatutako zekorketa baten bidez. *Quisquilla* eta Iriondo aritu ziren ezpatari–lanetan[111].

Lehentxeago esan dugunez, *Recreo*ko zezenplaza estreinatu zen Bilbon 1892.eko apirilaren 18an. Plaza zurezkoa zen; 6.500 eserleku zituena. Pedro Martinez jauna zen haren jabea. Geroxeago, maiatzaren 29an Veragua–ko dukearen zezenak hil zituen Juan Gomez de Lesaka ezpatariak. Nicanor Villa *Villita* eta Angel Villar *Villarillo*k Beriain–en gandua toreatu zuten urte hartako abuztuaren 21 eta 23an. Gero Jose Cortes–ek plaza hartan tauromaki eskola sortu zuen[10].

Eta Vista Alegrera itzulita, *Cabrero* izenenko zezena aipatuko dugu; Tabernero–rena eta Gorpuzti egunean jokatua. Urdin argia eta oso polita zen. Jendeak txalo asko jo zion plazaratu zenean[9].

Toreatzaile bilbotarrei dagokionez, 1892.eko azaroaren 9an San Frantzisko kalean Alejandro Saez *Ale* jaio zen[103]. Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxerito*ak berriz, lanean ari zeneko zurgindegia utzi egin zuen urte hartan. Zezenetako zaletasuna[13] bazuen jadanik. Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* ere urte hartan jaio zen Deustun abuztuaren 28an. Alejandro Irala zezenko–hiltzailea berriz Bilbon uztailaren 10ean[8].

1892. urtean, Jose Etxebarria Bengoa bilbotarrak, Villagodio–ko markesak, ganadutegia

sortu zuen Zamorako Coreses herrian. Veragua-ko dukearen ehun zezen[155] eta Trespalacios-en zezenak erabili zituen horretarako[20].

Bizkaian gainera, Mundakako herrian 1892. urtean (eta hurrengoan) nobilladak izan ziren sanpedrotan. Nikanor Villa *Villita*, Joanito Boman, Lopez Calle anaiak,(Fernando eta Rikardo), Guillen errioxarra, Ramon Rovira eta abarrek lan egin zuten han[12]. Lekeition ere urtero ospatzen ziren nobilladak herriko plazan barrerak ipinita. Baina 1892. urtean Udalak onartu egin zuen Arrinda jaunaren proposamen bat. Arrinda-k 3.500 pertsonarentzako zezenplaza estalia eraikiko zuen eta udalak urtero hamar urtean 6.000 errealeko subentzioa emango zion. Arrinda-k urtero hiruna zezen hiltzen zireneko bi korrida eman behar zituen, eta azkenean zezenko bolaztatu bat ere bai gaztejendearentzat[156].

Donostian 1892. urtearen hasieran festetan ohizko idiak korritu zituzten sokamuturrean[17]. Ramon Artolak bertso batzuk jarri zituen *Zezena eta astoa* delako ipuina argitaratuz[157]. Gero abuztuan Atotxa-ko plazan korridak izan ziren Jose Arana enpresariak antolatuta. Hilaren 7koan, Raimundo Diaz-en alargunaren zezenak hil zituzten Manuel Garcia *Espartero* eta Francisco Bonar *Bonarillo*k. Bostgarren zezenak, *Cedacero* izenekoak, Antonio Cabezas *el Pajarero* pikatzailea lurrera bota eta besoan zauritu egin zuen. *Espartero* ere arriskutan ibili zen zezen haren aurrean lurrean. Seigarren zezenak sei aldiz saltatu zuen kailejoira. Jose Arana berbera ere korrika egin beharrean aurkitu zen. Fernando Lobo *Lobito* banderilaria harrapatu zuen zezenak, eta baita *Bonarillo* ere ezpata sartzera bigarren aldiz joan zitzaionean. *Bonarillo* oso ongi egon zen arratsalde hartan. Bizkar gainean erabili zuten. *Esparterok* berriz ez zuen ezer berezirik egin.

Abuztuaren 15eko korridan, Vicente Martinez-en laugarren zezena *Guerrita* toreatzen ari zela, lehendakariak zapi gorria atera zuen suzko banderilak erabil zitezen. Jendeari ez zitzaion ordea zezen hark banderila haiek merezi zituenik, eta berebiziko bronka armatu zen. Banderilariak erre egin ziren banderilak lehertuta eta *Guerrita* ere jendeak botatako botila batek bizkarrean jo zuen. *Guerritak* ezpatakada on batez eraitsi zuen zezena, baina bronka orduerdiz luzatu omen zen.

Hondarribian, zezenplaza biribila estreinatu zuten 1892.eko uztailaren 24ean. Marina auzoan zegoen. Angel Pastor eta Francisco Bonar *Bonarillo*k Jorge Diaz nafarraren zezenak hil zituzten. Lehen zezena *Barbero* izenekoa zen. Bi zaldi hil zituen zazpi pikalditan. Angel Pastor-ek ez zion ezer azpimarragarririk egin. *Artillero* izeneko bigarren zezenak, *Bonarillo*k ezpataz huts egin ondoren kailejoira saltatu zuen. Seigarren zezenean jendeak suzko banderilak eskatu zituen. Lehendakariak ordea ez zuen horrelakorik agindu eta istiluak sortu ziren. Angel Pastor beldurti ibili zen. *Bonarillo* txalotua izan zen korrida hartan.

Biharamunean, uztailaren 25ean, Veragua-ren zezenak plazaratu zituzten Hondarribian; suharrak eta nobleak. Angel Pastor bezperan bezalaxe oso gaizki egon zen eta *Bonarillo* oso ongi, nahiz eta ezpataz zorterik izan ez. Salustiano Fernandez *Chano* pikatzailea larrialditik ederki atera zuen *Bonarillo*k zezena kapotez eramanda. Jose Martinez *Pito* banderilaria berriz, jendeari gaizki-esaka hasi zitzaion eta txistuak jo zizkioten[100].

1892. urtean, Joan Arregi tolosarra (*Gipuzkoarra* edo *el Guipuzcoano* izenordez ezagutzen zuten) Madrilen aurkeztu zen martxoaren 20an zezenkoak hiltzera. Ez zuen zorterik izan eta harez gero ez zen nabarmendu[8].

Iruñean 1892.eko sanferminetan Manuel Garcia *Espartero* eta Rafael Guerra *Guerrita* toreatzaileek Zalduendo, Lizaso, Espoz y Mina eta Diaz-en zezenak hil zituzten. Funes-eko Diaz-en zazpi zezenak Mihuraren ganadua eta nafar-behiekin lortutakoak ziren. Lizaso tuterarrek sei

zezen bidali zituzten eta gainerakoek zazpina[115]. Espoz y Mina–ko kontearen zezenaren antzekoak, Valentzian baziren orduan. Izan ere Fuente El Sol–eko markesak han ganadutegia osatua zuen Nazario Karrikiri jaunaren behi eta zezenekin. Markesa 1892. urtean hil zen hain zuzen eta gero bere ondorengoek Castellon–eko Manuel Lozano–ri saldu zioten ganadutegia[20].

Gatozen ordea 1892.eko Iruñeko sanferminetara. Hirugarren korridan Kaparrosoko Zalduendoren zezenak plazaratu ziren. Seigarrena, oso suharra zen. Zaldira urrutitik behin eta berriz zetorren, eta haietako pikaldi batean lehendakariak banderilariei txanda eman zien. Jendea erabat haserretu zen eta gauza–pilo bat bota zuen hondarrera. Korrida ordubetez eten behar izan zuten. Azkenean *Guerrita*k, iluntzen hasia zegoelarik, zezena hiltzea lortu zuen. Korrida amaitu ondoren ere istiluek iraun zuten eta biharamunean toreatzaileak goardia zibilez inguraturik azaldu ziren plazara[113].

Luis Mazzantini–k 1892. urtean galdu samarra zuen fama berreskuratzen saiatu zen. Madrilen *Lagartijo*, *Currito* eta *Espartero* zeuden kontrataturik, baina hauek denboraldi txarra izan zutenez gero, udazkenean Mazzantiniri bost korridetarako dei egin zioten. Portugal–eko erregeen omenez azaroaren 10ean emandako korridan, arrakasta handia lortu zuen[100]. Irailaren 11n berriz, Salamanca–ko zezenplaza berria estreinatu zuen elgoibartarrak, *Guerrita*rekin batera Eloy Clairac–en zezenak toreatu eta hilez. Malagan ere iragarri zuten Luis Mazzantini, Antonio Reverte–rekin batera, fotograbatuz egindako kartel batean. Joakin Murube–ren zezenak hil zituzten.

Urte hartantxe, 1892.ean, Luis Mazzantini–ren ahaldundu izan zen Federico Minguez jaunak *Curiosidades taurinas* izeneko liburua argitaratu zuen Madrilen[120]. Luis Mazzantini 1892.eko apirilean Sevillara joan zen toreatzera. Cadiz–en maiatzaren 8an toreatu zuen Enrique Vargas *Minuto*rekin batera. Txalo asko jo zioten[8].

Abuztuaren 14eko korridan, Donostian zen elgoibartarra *Guerrita*rekin batera Aleas–en zezenak hilez. Bigarrenean *Guerrita*k zezena ziztatu eta sastakariak ezpata sakondu egin zuen. Jendea txistuka hasi zitzaion. *Sosito* izeneko zezenak Mazzantini lurrean erabili zuen. Baina lurretik altxata jendea gogoz berotu zitzaion pase–sail ederra burutu ondoren. Gero makilak *Guerrita*ri ere eskainita, bi banderila–pare ederki sartu zituen. *Guerrita*k zezenari ipinitako hiru banderila–pareak berriz, izugarri onak izan ziren; Donostian sekula sartutako onenetakoak. Mazzantinik hil zuen zezen hura, faena Mendi Martzana–ko lagun batzuei eskaini ondoren[99].

Landetako Grenade herrian bestetik, *Cournet* izeneko zezenak Lapalogue toreatzailea hil egin zuen 1892.ean[31].

1893. urtean Bilboko Vista Alegren martxoaren 12an hasi ziren zezenak. Salamanca–ko Sanchon–en lau zezenko toreatu bait zituzten *Gavira* eta *el Cubano*k. *Gavira* arratsalde hartan aurkeztu zen Bilbon . *El Cubano*k azken zezenkoa hil zuen. *Gavira*k hirugarrenari banderila–parea hanketan *Artillero chico* etzanda zuela sartu zion. Laugarren zezenkoak bi ezpatariak lurrera bota zituen, trajeak urratuz.

Apirilaren 3an izan zen Vista Alegren bigarren nobillada. Salamanca–ko Sanchiricon–en (edo Sanchezrincon–en) bost zezenko hiltzera *Gavira* eta *Villita* ekarri zituzten. Hirugarren zezena izan zen onena. *Txarol*ek oso ongi pikatu zuen arratsalde guztian, eta hirugarrenaren belarria eman zioten. *Gavira*ri berriz, lehenengoarena.

Apirilaren 9an ezpatari berberek ganaduzale beraren beste bost zezenko toreatu zituzten.

Roman ezpatariorde gisa aurkeztu zen. Zezenkoak ongi portatu ziren. Bostgarrena ordea, zekortxo txiki bat besterik ez zenez gero, Roman–ek berak barrura sar zezaten eskatu zuen. Hirugarrenean, banderiletarako deia azkarregi jo erazi zuen lehendakariak eta bronka sortu ere bai. Ordulaurdenez nobillada etenda egon zen.

1893.eko apirilaren 30ean eman zuten Bilboko Vista Alegren laugarren nobillada. Vicente Martinez–en bost zezenko toreatu zituzten Julio Aparici *Fabrilo* eta Francisco Bernal *Bernalillok*. Laugarren zezenean, lehendakariak aurreko nobilladako hankasartze berbera egin zuen. Jendeak botilak eta beste hainbat gauza bota zituen hondarrera. *Fabrilo*ri lehen zezenkoaren belarria eman zioten. *Bernalillok* azken zezenkoa hil zuen, baina gaizki. *Txarol* ederki aritu zen pikatzen, eta baita Joanito Boman ere banderilak sartzen.

Maiatzaren 2an, ezpatari berberek lan egin zuten Hernan–en bost zezenko toreatzen. Laugarrenari suzko banderilak ipini zizkioten, baina gainerakoak ondo portatu ziren. *Fabrilok* bigarrena bikain hil zuen ezpataz, belarria lortuz. *Bernalillo*ri ere belarria eman zioten bostgarrenean. Nobilladaren amaieran bi zezenko bolaztatu atera zituzten. Gazte bat konorterik gabe utzi zuen haietako batek.

1893.eko maiatzaren 11n, *Lagartijok* bakarrik Veragua–ko dukearen sei zezen hil zituen[111]. *Lagartijok* hain zuzen ere, bere despedidarako bost korrida antolatu bait zituen Madril, Bartzelona, Valentzia, Zaragoza eta Bilbon, noski. Berak bakarrik parte hartu zuen ezpatari gisa bost korrida berezi haietan. Berrrogeitamabi urte zituen erretirako urte hartan[158]. Zaragozan maiatzaren 7an Espoz y Mina–ren sei zezen hilda despeditu zen[8].

Jende asko bildu zen Bilbora cordobarraren azken saioa ikusi nahian. Plaza leporaino beteta zegoela, Veraguaren zezenak, txikiak eta txarrak, atera zituzten hondarrera. *Lagartijok* ez zuen ezer berezirik egin bostgarren zezenari bikain sartutako banderila–parea kenduz gero. *Gernikako arbola* jo zioten orduan. Seigarren zezenean ordea, *Rosquero* izenekoan, arazo latzagoak gertatu ziren. Manuel Rodriguez *Cantares*, *Txarol* eta Francisco Zafra pikatzaileek sei ziztada txikiz zezena ukitu ondoren, lehendakariak banderilaldiari hasiera ematea agindu zuen. Jendeak pikaldi gehiago behar zirela erizten zion eta hango txistu, zalaparta eta botilak! Bi orduz iraun zuen eskandaluak. Azkenean goardiek jendea plazatik aterata amaitu zen Rafael Molina *Lagartijo*ren despedida.

Ekainaren 1ean, nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren. Garcia Gomez–en hiru zezenko eta Oñoro–ren bat toreatzera Miguel Baez *Litri* eta Francisco Bernal *Bernalillo* ekarri zituzten. Oñoro–ren zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten, eta *Bernalillo* gaizki egon zen. *Litri* berriz ondo, hiru lehen zezenkoetan. Lehen eta hirugarrenaren belarria eman zioten.

1893.ean abuztuko korridak hilaren 20an hasi ziren. Camara–ren zezenak, satai onekoak eta indar nahiz suhartasunik gabeak, *Guerrita*ri luzitzeko bide eman zioten. Kapotea eta ezpata maisuki maneiatu bait zituen. Bigarren zezenaren belarria lortu zuen. Ezpatakada izan ere, ez zen nolanahikoa izan. *Cara ancha*, beste ezpataria, kapotez ongi aritu zen, baina ezpataz gaizki. *Txarol*i musika jo zioten lehen zezenean ongi pikatu zuelako. Zezen hark, Juan Rodriguez *el de los Gallos* pikatzailea zauritu egin zuen. Antonio Fuentes eta Jose Moyano banderilariek jendea pozik utzi zuten.

Abuztuaren 21ean, *Cara ancha* eta *Guerritaz* gain Antonio Reverte ezpataria lehen aldiz aurkeztu zen Bilbon Veragua–ren zezenak hiltzera. Zezenik onenak egun hartan plazaratu ziren. Lehenengoak hamabi pikalditan hiru zaldi hil zituen. Jose Moyano eta Antonio Fuentes–ek ederki sartu zizkioten banderilak. *Guerrita* eta Reverte–k bina belarri irabazi zituzten zezen bakoitza ezpatakada bakarraz bota ondoren. Biak bizkar gainean atera zituzten. Reverte–k hogeitahiru urte

zituen. Veragua–ko dukeari ere txalo asko jo zioten.

1893.eko abuztuaren 22an, *Cara ancha*, *Guerrita* eta Reverte–ri Murube–ren sei zezen bota zizkieten. Lehen hirurak koldarrak; idiak ziruditenak. Beste hirurak onak. Jose Hernandez *Parrao*, Rafael Moreno *Beao* eta Felipe Molina *Telillas* pikatzaileak erizaindegira joan ziren bezperako kolpeen ondorioz. *Txarol* ere bide berari jarraitu zitzaion Murube–ren bostgarrenean. *Guerrita* oso ongi aritu zen bere bi zezenetan. Reverte gaizki bere lehenengoan eta oso ongi azkenekoan. Baina arratsaldeko gauzarik onena *Cara anchak* laugarren zezenari zetorkiola sartutako ezpatakada izan zen. Belarria eman zioten. Seigarren zezena *Cara ancha* eta *Guerritak* kapotez batera toreatu zuten. Reverte bi korridetara bakarrik etorria zen, baina biharamunean ere toreatzeko tratua egin zuen.

Abuztuaren 23an, Orozko–ren sei zezen eta Camara–ren bat plazaratu zituzten. Jose Moyano banderilariak eta *Txarolek* ez zuten lanik egin zauriturik zeudelako. Zezenak bigunak eta iheslariak suertatu ziren. *Guerrita* eta Reverte–k kapotez luzitzeko aukera izan zuten. Ezpatariek bostgarren zezenari banderilak sartu zizkioten. Reverte–k seigarrenean belarria lortu zuen. Zazpigarren zezena, Camara–rena, Antonio Fuentes–en esku gelditu zen eta luzimendurik gabe hil zuen.

1893. abenduaren 8an eman zen Bilbon urteko azken nobillada. *Cabo Matxitxako* baporearen ezbeharrean kaltetutakoei laguntzearren antolatu zuten. *Villita* eta *Platasek* Pancorbo–ko Galo Quintana–ren lau zezenko toreatu zituzten; zezenko txikiak hain zuzen[111]. *Villitaren* koadrilan, Rikardo Lopez Calle banderilari gasteiztarra aurkeztu zen Bilboko plazan[14].

Bilbon, 1893.eko urtarrilren 10ean, Begoña–n Tuñon Miyar jaio zen; gero zezenko–hiltzaile izan zena[8].

Donostian 1893. urteko sansebastianetan danborradaz gain ohi bezala sokamuturra izan zen. Urtarrilaren 20an Konstituzio–plazara aterako ziren idien xehetasunak aurrez eman zituzten. Bata *Belarrimotz* zen, zuria, bi urte t'erdikoa eta Astigarragakoa. Bestea *Muturbeltz*, gorria, azpizuria eta Ataunen hazia, eta hirugarrena *Zankaluze*, urdin argia. Lastur–eko *Bildurti* eta Ibaetako *Sarpazar* eta *Txotito* izenekoak ere ateratzekoak ziren[17].

1893.eko uda partean ere korridak antolatu zituen Jose Aranak Atotxako zezenplazan. Abuztuaren 27koan, Saltillo–ko markesaren zezenak toreatu zituzten *Guerrita* eta *Lagartijok*. *Lagartijo*, *Esparteroren* ordez etorria zen, azken hau zauritua zegoelako. Gauean Bulebar–ean kontzertua eman zuten, eta jendea Sagasta lehendakariaren aurka altxa zen, azkenean *Gernikako arbola* jo ez zutelako[95].

Azpeitian 1893.eko saninaziotarako Joan Jose Ezeiza jaunak egin zion Udalari proposamena. Beriain–en nafar–zezenak edo Gaztelako Francisco Mallen–enak ekartzea eskaini zuen[6].

Tolosan, 1893. urteko sanjoanetan herriko festez gain ur eta korronte elektrikoaren horniketaren inaugurazioa ospatu zuten. Ekainaren 24erako goizeko zazpietan arratsaldeko zezenen entzierroa iragarri zen; meza nagusiaren ondoren gaztejendearentzat bi zezenko eta arratsaldean Justizi plazan lehen korrida[157].

1893. urtean, Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarra Sevillan pintatzen ari zen. Han, San Bernardo auzoan hiltegiaren ondoan, Manuel Carmona Luque *el Panaderok* (*Gorditoren* anaiak eta jadanik erretiratua zegoenak) tauromaki eskola sortu zuen. Eskola hartan Inazio Zuloaga ikasle izan zen. Baita Enrique Salazar pintatzaile bilbotarra, Felix Robert, Angel Carmona *Camisero*, Jose

Machio Trigo etab. ere. Zuloaga eibartarrak *el Pintor* izenordea erabiltzen zuen orduan[147]. Bestetik, urte hartako azaroaren 30ean Eibarren Pedro Basauri Pagoaga jaio zen[8]. Antonio Solera jaunak dioenez ordea, egun horretantxe hiru urte geroago jaio zen Eibarren, Arragoeta kalean. Bere aita Emeterio eta ama Romanak Bartzelonara eraman zuten jaio eta laster; han bere aita osaba baten arma-fabrika batean lanean hasi bait zen. Pedro Basauri-k, *Eibarreko Pedrutxo* izenordea erabili zuen toreatzaile egin zenean[99].

Iruñeko sanferminetarako, Kaparrosoko Zalduendo, Tuterako Lizaso eta Espoz y Mina eta Funes-eko Diaz-en zezenak iragarri zituzten; Lizaso anaien sei zezen eta gainerakoen zazpina. Diaz-en zezenak nafar-kasta Mihuraren ganaduarekin nahastutakoak ziren. Uztailaren 7, 8, 9 eta 19ean izango ziren korridak, eta 9an goizean proba. Lehen bi korridetan Rafael Guerra *Guerrita* eta Antonio Reverte-k hartuko zuten parte. Beste bi korrida eta proban berriz, Jose Sanchez del Campo *Cara ancha* eta *Guerrita*k[115].

Luis Mazzantini elgoibartarra 1893. urtean Madrileko plazan kontratatu zuten. Lehen korridak *Guerrita*rekin batera toreatu zituen, baina segurtasunik eta luzimendurik gabe[100]. Pablo Romero-ren *Soberbio* zezenarekin adibidez, oso gaizki ibili zen[8]. Ekainaren 12ko korridan ordea, Antonio Arana *Jarana* ezpatari sevillarra zezenak harrapatu zuelako Felix Gomez-en lau zezen gorri hil behar izan zituen; bikain hil ere, urterik onenetan bezalaxe. Ekainaren 22an Mihura-ren zezenak toreatuz arrakasta lortu zuen berriro eta Madrileko denboraldian zehar bere mailari eutsi zion. Dena dela, Antonio Reverte-ren faenak izan ziren urte hartako gogoangarrienak Madrilen[100].

1893. urtean Madrilen Benefizentzi korrida maiatzaren 21ean izan zen. Concha y Sierra, Barrionuevo eta Faustino Udaeta-ren bederatzi zezen toreatu eta hil zituzten *Espartero*, *Guerrita* eta Luis Mazzantinik[8].

Mazzantinik 1893.eko apirilaren 30ean, Canarias-en, Tenerife-ko Santa Cruz-en zezenplaza berria estreinatu zuen Antonio Moreno *Lagartijillo*rekin batera Benjumea-ren zezenak toreatuz[9].

Bestetik, 1893. urtean Rafael Molina *Lagartijo* erretiratu zenean, bere anaia Juan Molina banderilaria Luis Mazzantiniren koadrilara sartu zen. Han Juan Molina eta Tomas Mazzantinik banderilari-bikote ederra osatu zuten hiru urtean zehar. Antonio Perez Peciña *el Ostion* biasteriarrak berriz, 1893. urteko ekainaren 1ean Madrileko plazan egin zuen lan azken aldiz banderilari gisa; harez gero ez bait zuen traje distiratsurik jantzi[8].

1894. urtean apirilaren 1ean Bilboko Vista Alegren zekorketa izan zen. Salamanca-ko Tabernero-ren lau zekor toreatu zituzten Jose Etxebarria (Villagodio-ko markesa), Roberto Etxebarria eta Julian Zelaia bilbotarrek. Jose Etxebarriak hiru zezenko hil zituen eta Julian Zelaiak bat. Pablo Altzola pikatzaile-lanetan ari zela, zauritu egin zen.

Maiatzaren 2an Sanchon-en lau zezenko korritu ziren Vista Alegreko nobilladan. Antonio de Dios *Conejito* eta Nicanor Villa *Villita*k parte hartu zuten.*Conejito* ezpata astintzen nabarmendu zen eta lehen zezenkoak zaldimutil bat zauritu zuen.

Maiatzaren 3an Tabernero-ren bost zezenko hil zituzten bezperako ezpatari berberek.

Maiatzaren 13an, akrobazi-saio baten ondoren Orozko-ren zekor bat toreatu eta hil zuen Nicomedes Ruiz-ek.

Ekainaren 10ean izan zen 1894.eko lehen korrida Vista Alegren. Tabernerorен bost zezen

toreatu zituen Julio Aparici *Fabrilo*k, Antonio Fuentes Gonzalez *Manene* ordezko ezpatari zelarik. Ganadua handia eta indartsua zen. Bigarrena onena. *Txarol* pikatzailea adarkatu eta zauritu egin zuen zezen honek. Zezena sari gisa Manuel Leon *Cirilo*ri eman zioten ondo pikatzeagatik. Gero pikatzaile hau bostgarren zezenean hagaren eztenaz zauritu egin zen. *Fabrilo*k gaizki bete zuen bere eginkizuna, eta azkena hil zuen *Manene* ere ez zen ongi egon. Manuel Rodas eta Jose Moyano banderilariei hirugarren zezenean musika jo zieten makila-pareak ongi sartzeagatik.

Ekainaren 17an zekorketa bat antolatu zen Vista Alegren. Orozko-ren bi zekor plazaratu zituzten. Lehenbizikoa, burtzikatu ondoren toriletara sartu zuten koldarra zelako. Bigarrena Enrique Diaz-ek hil zuen ezpatakada batez.

1894. urteko abuztuan Bilboko Vista Alegre-n korridak hilaren 19, 20, 21 eta 22an izan ziren. Mazzantini eta *Guerrita*k parte hartu zuten lehenengoan Murube-ren sei zezen toreatuz. Zezen koldarrak suertatu ziren, eta pikatzaileek gehiegi zigortu zituzten ezten-hagaz. Mazzantini saiatu zen bere hiru zezenetan luzitzen. *Guerrita*k bere lehenengoan lortu zuen arrakasta, baina beste bietan ez. Bostgarrena hiltzerakoan Mazzantini lurrera bota zuen zezenak, baina nahiz eta gorputz handiko pertsona izan, ez zuen adarpuntaz zulatu.

Abuztuaren 20an, Veragua-ko dukearen sei zezen toreatzera Mazzantini, *Guerrita* eta Reverte aurkeztu ziren. *Guerrita*k denak hautsi zituen. Kapaz berebizikoak egin ondoren ezpatakada banaz bota zituen bere bi zezenak. Bakoitzean belarria eman zioten. Reverte hanka bendaturik eta herrenka atera zen ongi sendatu gabe zeukalako. Hala ere, nahikoa ondo egin zuen lana. Mazzantinik ere bai.

Abuztuaren 21ean, Saltillo-ko markesaren sei zezen hil zituzten bezperako hiru ezpatariek. Indarrez justu ibili zen ganadua. Mazzantini-ri bostgarren zezenak adarpunta zertxobait sartu zion hankan. *Guerrita* eta Reverte-k sartu zizkioten banderilak zezen hari. Reverte erori egin zen gainera orduan, eta arriskutan ibili. Rafael Guerra *Guerrita* gustatu zitzaion gehiena jendeari. Bere lehen eta bigarren zezenaren belarria eman zioten, faena ederra egin ondoren bikain hil zituelako. Reverte-k zezen bat ongi hil zuen, baina bestea ez. Mazzantinik berriz, ongi bete zuen bere eginkizuna. Juan Molina banderilaria ere nabarmendu zen kapotez[111].

Nahiz eta 1894. urtean edo ondorengoren batean izan zen ziur jakin ez, elkarrizketa berezia izan omen zuten Bilboko plazan Mazzantini eta *Guerrita*k Saltillo-ko markesaren zezenak toreatzen ari zirela. Zezen suhar bati faena egitera zihoala, elgoibartarrak zera esan omen zion cordobarrari:

– *Aizu Rafael; utziko al didazu zure muleta bat? Ea horrela zuk bezain ondo toreatzen dudan.*

*Guerrita*ren erantzuna honako hau izan omen zen:

– *Zuk nik bezala "Lagartijo"rekin oheratuta ere ez duzu toreatuko*[99].

1894.eko abuztuaren 22an Anastasio Martinen zazpi zezen toreatu eta hil zituzten Mazzantini eta *Guerrita*k, Miguel Almendro ordezko ezpatari zela. Martinez-en zezenak sobera pikatu ziren. Anastasio Martinen zezenak adarkatu zuelako Reverte-k ez zuen lanik egin. Mazzantini ere bezperatik zauritua zegoen eta bere herren eta guzti bere bi faenak bakarrik egitera atera zen hondarrera. *Guerrita* nabarmendu zen berriro, bi belarri eta txalo ugari jasoz. Zazpigarren zezena Almendro-k hil zuen, eta hura ere txalotua izan zen.

Irailaren 2an, Vista Alegren zekorketa eman zuten Bermeon itotako marinelen familiei laguntzearren. Tabemeroren lau zekor eta Villagodio-ko markesaren bat toreatu zituzten. Ezpatari

eta beren koadrilak, bilbotarrak ziren denak. Villagodio–ko markesak hil zuen lehenengoa, Enrike Kareagak beste bi eta Mario Losada nahiz Pedro Igartuak beste bana.

Bilbon, 1894.ean irailaren 23an korrida eman zuten Pablo Valdes–en sei zezen plazaratuta. Francisco Gonzalez *Faico* eta Antonio Escobar Mellado *Boto* ezpatariak kontratatu zituzten haiek hiltzeko. *Boto* txalotua izan zen eta *Faico*ri hirugarren eta bostgarrenaren belarria eman zioten. *Faico*k banderilak belauniko iskintxo eginez sartu zizkion bostgarrenari. Pikatzaileak oso gaizki egon ziren eta *Gonzalito* banderilaria berriz, ondo.

Irailaren 30ean Vista Alegren beste korrida bat eman zuten; 1894. urteko azkena. Benavente–ko Fernando Gutierrez–en sei zezen toreatzera Francisco Gonzalez *Faico* eta Antonio Moreno *Lagartijillo* ekarri zituzten. Zezenak guztiz koldarrak suertatu ziren; laugarrena batez ere. *Lagartijillo*k lehen zezenaren belarria lortu zuen, eta *Faico*k seigarrenarena. Azken zezenari gainera, banderilak bi ezpatariek ederki sartu zizkioten[111].

1894. urtean Micaela Alegria–ren zirkua egon zen Bilbon. Bertan Francisco Alonso *Paquiro*k zekor bat toreatu zuen eta toreatzaile izateko grina sartu zitzaion. Geroztik Bizkaiko zekorketetan ibili zen[8].

Sestaon 1894.eko abuztuaren 4ean Rebonza auzoan Domingo Uriarte Arteagabeitia jaio zen; gero *Rebonzanito* izena hartuko zuen zezen–hiltzailea[13]. Beste batzuek diotenez, hurrengo urtean jaio zen[8].

Bermeon 1894. urtean Gregorio Arriola jaunaren ardurapean zezenplaza berria eraiki zuten Alondegiko bidean. Ekainaren 29an Julio Aparici *Fabrilo*k estreinatu zuen Clairac–en eta Tabernero–ren zezenak hilez. Jendea pozik gelditu zen bere lanaz. Harez gero Bermeon ekaineko zezenetan toreatzaile askok parte hartu zuen. Haietako batzuk, honako hauek izan ziren: Antonio Fuentes , *Bonarillo*, Mariano Ponce *Cocherito de Murcia*, Ramon Rovira, *Naranjito*, etab.

Portuan ere korritzen zituzten zezenkoak Bermeon. Bertako jendeak parte hartzen zuen orduan: Joan *Arro*, *Damelamano*, Jose Hormaza *Saltalamar* (zezenkoak segita bere burua uretara bota behar izan zuelako), *Desondrabizkaia* eta abarrek.

Behin batean gainera zezenko bat portuko arrantzale–etxe batera eskaileratan gora igo omen zen mutil bati segika. Lehen solairuko bizitzara sartu eta barruko guztiak izututa balkoira irten omen zuen. Bere burua ikusita ispilu bat ere hautsi omen zuen.

Gernikan, bi zezenplaza zeuden garai hartan. Batean Candido Martinez *Mancheguito*, Miguel Baez *Litri*, Cayetano Leak *Pepe Hillo* eta abarrek toreatu zuten eta bestean Enrique Vargas *Minuto*k bakarrik. Bi korrida hil zituen *Minuto*k: Teodoro Valle–rena bata eta Saltillo–rena bestea, azkenean besoan zauritu zelarik[12].

1894. urteko abuztuan Sabino Arana Goiri–k aurreko urtean Gernikan izandako *sanrocada* oroituz gernikarrei buruz bere eritziak *Bizkaitarra* aldizkarian idatzi zituen. Gernikarrek buruan zezenplazatxoak eta beste festa *maketofiloak* besterik ez omen zituzten Abando–ko arranoak zioenez. Abando–ko frontoia ere 1894.ean berritu zen, eta eserlekuen artean palko bat ere egin zuten. Hura ikusita Sabino Aranak agian pilota–partiduetan lehendakari gisa gobernadorea edo udalgizonak egongo zirela pentsatu zuen *festa espainiar ziren zezenkorridetan bezala.*

Sabino Aranak 1894.eko udan Lekeition emandako nobillada bat ere aipatzen du *Bizkaitarra*

aldizkarian. *Maketo* batzuk zezenak ikusten ari zirela *petenera* eske hasi omen ziren. Bandako zuzendariak orduan *Gernikako arbola* jo omen zuen, jendea txaloka hasi zelarik. Bilboko zezenplazan bandera espainiar asko zegoela ere aipatzen du.

Urte hartan, 1894.ean, Sabino Aranak eztabaida izan zuen De Cavia jaunarekin, *El Liberal* egunkari madrildarrean argitaratu zuen idazlan bat medio. Toreatzaileen eta zezenzaleen kontuak aipatzen dituenez gero, interesgarri deritzogu abandotarrak idatzitako zati bat hona ekartzeari:

Su gorra predilecta (y sirva de advertencia a los sombrereros) suponemos sea la peculiar de los chulos y toreros; porque, en efecto, se distingue De Cavia por una marcada aficion a la clase. Tal vez sea esta honesta pasion la que le moviera a sostener aquella brillante y tenaz campaña taurofila contra la invasion anti-maketa de los pelotaris en Madrid, cuando el pelotarismo tomo tan altos vuelos, que estuvo a punto de aniquilar al toreo y de concluir con chulos, toreros y revisteros de toros. Calmose, al fin, la fiebre pelotari, como no podia menos de suceder; porque, sobre ser combatida con argumentos tan incontrastables como son los taurofilos, venia en apoyo de estos ultimos la misma conveniencia de los pelotaris,...[160].

Dena dela, zezen-korridak gustokoak ez bazituen ere, Sabino Aranari atsegin omen zitzaion mendian zezenketan aritzea[161]. Beste zenbaitek esaten duenez, abandotarrak Bilboko zezenplazan banderila-parea ere sartu omen zuen.

Korridak atsegin ez zitzaizkion eta gai horretaz 1894. urtean idatzi zuen beste bat, Jean Hiriart Urruti apaiz hazpandarra izan zen. Izan ere Baionako *Euskalduna* astekarian urriaren 5ean *zezen-kurtsak* izeneko artikuluan zera idatzi bait zuen:

españoltzen ari garela Frantzian... frantses guztiak españoltzen ari gare.
....balinbada Espainian aztura zoro makurrik, hori da, zezen-kurtsetako hori. ... hori da errokeria handienetarik bat. ... nahi nintuzke ikusi zezen kurtsak hemendik urrun, mendi horietaz bertze aldean. Dagozila han, zezen-hiltzaile guztiak, hunat etorri gabe. Gutartean odol eta orro gose direnak doazila Donostiara, edo nahi badute Madrilerat. Guk ez dugu Frantzian holako beharrik.[162].

Garai hartan (1894. urterarte) Telesforo Arantzadi antropologo jauna joan ohi zen korridak ikustera, eta urte batzuk geroago korridetako odolari buruz eta korridak Estatu desberdinetako jendearekin zituen harremanei buruz gauzak bere lekuan uzten saiatu zen idazlan baten bidez[163].

Dena den Hiriart Urruti-k *zezen-kurtsen* kontra 1894.ean idaztea ez da harritzekoa. Baionan izan ere aurreko urtean estreinatua zen oraingo zezenplaza[28]. 1894.ean ere eman ziren korridak Baionako zezenplaza berrian. Abuztuaren 16an adibidez, besteak beste Antonio Reverte-k hartu zuen parte[8]. Paris-eko agintariek trabak ipintzen zituzten korridak antolatzeko, baina hala eta guztiz ere ematen zituzten. Urte hartan Mendi Martzana-n eta Nimes-en ere izan ziren. Nimes-en gainera, bertako alkatearen eta Frederic Mistral idazle proventzal ospatsuaren lehendakaritzapean[28]. Akize-n urte hartan, *Dax-Toro* izeneko aldizkari bat argitaratzen hasi ziren bestetik[136]. Enrike Arrue *el Frances* toreatzailea ere orduantxe hasi zen Espainiako plazetan lanean, baina ez zuen arrakastarik lortu[8].

1894. urte hasieran Donostian, sansebastianetan sukamuturra izan zuten noiznahi ohiturari jarraituz. *Iriarena*ren doinuarekin batera sokari lotutako zezena alderdi zaharreko Iñigo, Puiuelo, Kale Nagusi eta abarretan zehar erabiltzen zen. Konstituzio-plazan hamabost minutuz ibiltzen zen eta Lasala plazan ere bai[17]. Gero udan urtero bezala eman zituzten korridak Atotxako plazan Jose

Aranak antolaturik. Korrida batean Saltillo-ko markesaren zezenak (txikiak) toreatu zituen Rafael Guerrra *Guerritak*, eta donostiarrek adore-falta somatu zioten orduan[100]. Abuztuaren 15eko korridan ordea, sekula egindako faenarik onena burutu zion Lopez Navarro-ren alargunaren *Liston* zezenari. Zezena hamahiru aldiz pikatu zuten eta berak zazpi zaldi hil zituen[9].

Donostiako plazan, Jose Arana eskoriatzarra zen enpresaria urte hartan, baina gero zezenplazatako enpresari famatu izango ziren pertsonak ere bizi ziren orduan. Gipuzkoan, garai hartan Seberino Martinez aguraindarra gazterik etorria zen Donostiara. Azpeitiko Joan Antonio Arregi eta semeen garraio-enpresan lanean aritu zen zaldizko kotxeen lineatan[164]. 1894.eko ekainaren 30ean Tolosan bere seme Pablo Martinez Elizondo jaio zen; gero bere anaia Manuel eta Antonio bezalaxe zezenplazatako enpresari izango zena.

Seberino Martinez-ek ordea, *Txopera* izenordea zuen, eta izen horren jatorriaz bada eritzi desberdinik. Batzuek diotenez Seberino Donostiako Antigua auzora Benito Kutz-en garagardo-fabrikako atarira joan ohi zen egarri zenean. Han garagardoa estalkidun txarrotan (*txoperatan*) ateratzen omen zuten, euliak kanpoan geldi zitezen. Txarro haiei nederlanderaz *schopen* deitzen omen zitzaien, eta hortik *txopera*. Seberino jaunak bere bidaiatan geldiuneak egiten zitueneko tabernetan *txopera* bana utzi omen zuen eta beti *txopera* eskatzen omen zuenez gero, goitizen horixe erantsi zioten[99]. Beste batzuek diotenez Martinez Elizondo Tolosan kotxero ibiltzen zela estazioko kantinan *Juanillo* izeneko beste kotxero batek ipini opmen zion *Txopera* goitizena, *atera bost txopera* esan zuen batean[165].

Azkue-ren hiztegiak ordea, *txopera* basoerdia dela dio eta Irunen jasotako hitza dela ere bai[166]. Guk entzuna dugu garai hartan Alemania aldeko ardo berezi bat Euskal Herrira inportatzen zela; *schonber* edo antzeko izena zuen ardoa hain zuzen. Irunen gainera nonbaiten ba omen da haietako upelaren bat.

Azpeitian 1894. urtean, bertako Bartolome Uzin jaunak antolatu zituen saninaziotako zezenfestak. Lau urterako plazako barrerak ipini eta kendu egiteko ardura Jose Otaegi-k hartu zuen urtero 242 pezeta kobratuz[8].

Irufieko sanferminetarako, lau korrida eta proba bat iragarri zuten. Luis Mazzantini eta Antonio Reverte ezpatariek beren koadrilatan honako hauek ekarriko zituzten: Enrique Sanchez *Albañil*, Manuel Perez *Sastre*, Rafael Alonso *el Chato*, Jose Hernandez *Parrao*, Manuel Martinez *Agujetas*, Jose Coyto *Charpa*, Luis Recatero *Regaterillo*, Francisco Sanchez *Currinche*, Jose Creu *el Cuco*, Santos Lopez *Pulguita*, Antonio Perez Brabo *Barquero* eta Manuel Garcia *Jaro*[114].

Luis Mazzantini 1894.ean ez zuten Madrilen toreatzeko kontratatu[100]. (*Espartero* gizajoa urte hartan hil zuen Mihuraren *Perdigon* zezenak maiatzaren 27an plaza hartan)[140]. Mazzantinik ordea, Bartzelonan toreatu zuen martxoan, Emilio Torres Reina *Bombita*rekin batera[8]. Gero uztailaren 15ean, Bartzelonan Luis Mazzantini-k bidalitako *Madrileño* izeneko zezena toreatu zuten. Mihura eta Benjumearen zezenekin batera ganadutegi-lehiaketan parte hartu bait zuen Mazzantini-ren (ganaduzale ere bai bait zen) abelgorri hark[9]. Fernando Gomez *Gallo*, Luis Mazzantini eta Rafael Guerra-k banderilak sartu zizkioten. Luis eta Rafael-ek batera toreatu zuten eta Fernandok faena egin ondoren bigarrenean sartu zion ezpata osorik[131].

Luis Mazzantini-ri korridatan, bere anaia Tomasek asko laguntzen zion. Sasoi onean zebilen Tomas, bai kapotez eta bai banderilak sartzen, eta bere anaiari lanak askó errazten omen zizkion.

Beste banderilari euskaldun bat, 1894. urteko urtarrilaren 14ean Madrilen hil zen; Antonio Perez *el Ostion* hain zuzen. Gaixotasunez hil zen, bere bizialdiko hainbat korridatan garrantzizko zauririk izan gabe. Banderilak sartzen arrakasta handia lortu zuen[8].

———— o ———— o ————

Bilbon 1895. urtean zezenen denboraldiari apirilaren 14ean zekorketa baten bidez eman zitzaion hasiera. Errukietxe eta Ospitalearen alde dirua biltzearren, Bilboko aristokrata gazte batzuek antolatu zuten festa hura. Faustino Udaeta–ren lau zekor toreatu eta hil zituzten Villagodio–ko markesak eta Julian Zelaiak. Salvador Sanchez *Frascuelo*k zuzendu zituen toreaketa–lanak.

Bilboko Vista Alegren 1895. urtean lehen korrida maiatzaren 2an izan zen. Nandin–en lau zezen hil zituen Francisco Gonzalez *Faico*k. Zezen suhar eta indartsuak izan ziren. *Faico*k ezpataz ez zuen zorte onik izan. Laugarren zezenari, *Sanguijuelo* izenekoari, ihesi zihoan zaldi bat gainera etorri zitzaion. Zezenak orduan kanpora salto egin zuen, eta barrerako sokan errebote eginda hondarrera itzuli zen. Bertan sastakatu behar izan zuten.

Maiatzaren 5ean, *Faico* berberak Arribas–en lau zezen toreatu zituen Vista Alegren berriro. Laugarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. Besteak ongi portatu ziren. *Gargantillo* izeneko hirugarrenari, Antonio Gonzalez *Coriano* eta Joaquin eta Jose Trigo anaiek zazpi aldiz pikatu zuten. Zezenak berak bost zaldi utzi zituen hilik. *Faico* kapotez dotore aritu zen. Laugarren zezenak harrapatu eta bota egin zuen. Espataz asmatu ezinik ibili zen. Banderilak sartzen Jose Moyano eta Santos Lopez *Pulgita* nabarmendu ziren.

1895. urteko ekainaren 13an nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren, Tabernero–ren sei zezenko korrituz. Cayetano Leal Casado *Pepe–Hillo* eta Antonio de Dios *Conejito* ekarri zituzten haiek toreatzera. Nicanor Villa–k ehizean istripua izanda behatz bat galdu zuen eta hari laguntzeko antolatu zen nobillada. Lehen zezenari kapaz pase batzuk eman zizkion *Villita*k. Gainerakoan, bigarren eta laugarren zezenak izan ziren onenak. Laugarren zezenak hamar pikalditan bost zaldi hil zituen. Gero *Esparterito* banderilaria harrapatu zuen. Cayetano *Pepe–Hillo*k ez zuen ezer berezirik egin. *Conejito* ordea ongi aritu zen kapotez eta muletaz; lehen zezenean batez ere.

1895. urteko abuztuko lau korridak, hilaren 18an hasi ziren Bilboko Vista Alegren, Mihuraren sei zezen korrituz. Mazzantini, *Guerrita* eta Reverte ekarri zituzten lau egun haietarako[111].

Lehen korridan Mihuraren zezenen portaera oso txarra izan zen. Lau zezenek behintzat ez zuten ezer balio. Hala ere, Mihuraren zezenek guztira 41 pikaldi jasan eta 10 zaldi hil zituzten. *Finito* izeneko laugarren zezenak *Chano* pikatzailea (Salustiano Fernandez gure ustez) zauriturik utzi zuen[10].

Bigarren korridan, abuztuaren 19koan, Veragua–ren sei zezenak onak atera zitzaizkien. Ezpatariek hiru lehen zezenetan ez zuten ezer berezirik egin, baina hiru azkenetan belarri bana eman zieten. Seigarren zezena hiru ezpatariek luzimenduz banderilaztatu zuten.Rafael Alonso *el Chato* eta Jose Teruel *Murciano* zauriturik suertatu ziren. Antonio Bejarano *Pegote*k bere pikatze–lanak ongi bete zituen. Banderilak sartzen berriz, Jose Galea eta Tomas Recatero *Regaterin* izan ziren onenak.

1895.eko abuztuaren 20an, Saltillo–ko markesaren sei zezen plazaratu zituzten Bilbon.

Mazzantinik bostgarrenari banderilak ederki sartu zizkion. Muletaz patxadaz eta ederki osatu zituen faenak. Bere lehenengoa bikain hil zuen, eta bestea ongi. *Guerrita*ren bi faenak ezinobeak izan ziren eta ondo maneiatu zuen ezpata. Reverte–ri hirugarren zezenaren belarria eman zioten. Seigarrenean ez zuen zorterik izan.

Abuztuaren 21ean Anastasio Martin–en zazpi zezen atera ziren toriletatik. Seigarrena izan zen suhar eta nobleena; denboraldiko onena. Gainerako zezenek ez zuten gauza handirik egin. Seigarrenak bost zaldi hil zituen hamar pikalditan. Santos Lopez *Pulguita* eta *Barquito*k banderilak ederki sartu zizkioten. Reverte–k bere lana ongi burutu zuelako belarria eman zioten. Mazzantiniri ere bai laugarren zezenarena, oin–hegazka ezpatakada onaz hil ondoren. Mazzantini eta *Guerrita*k laugarren zezenari banderilak sartu zizkioten.

Bilbon 1895. urteko irailaren 1ean, bandako musikariek Orozko–ren lau zekor toreatu zituzten Vista Alegren. Mendez–ek hil zituen[111]. Bilboko musika–banda urte hartantxe eratu zen. 56 musikariz osatua zegoen eta Jose Sainz Basabe jaunaren zuzendaritzapean aritzen ziren[155].

Irailaren 20an ere izan zen beste zekorketa bat Gurutze Gorria–ren alde dirua biltzearren. Villagodio–ko markesak eta Julian Zelaiak hil zituzten Carreros–en bost zekor. Pikatzaile gisa ari zen Stephen jauna zauritu egin zen, zekorrak (zezenko ere baziren haiek jendeak zioenez) lurrera botata[111].

1895. urtean Bizkaian gero zezen–hiltzaile izango ziren bi jaio ziren. Diego Markiaran Torrontegi *Fortuna* bata (Sestao–n otsailaren 20an Iberia kalean) eta Faustino Gregorio Bigiola del Torco *Torkito II.a* bestea (Balmaseda–n azaroaren 28an). Markiaran da *Fortuna*ren deitura (eta ez Mazkiaran), bataio–agiriak dioenez[13].

Urte hartan ere Sabino Arana Goiri–k bere *Bizkaitarra* aldizkarian zezen–kontuak aipatu zituen. Korridak espainoltzat zituela esan daiteke. Ikus bestela zer zioen:

Interrogad al bizkaino que es lo que quiere, y os dira trabajo el dia laborable e iglesia y tamboril el dia festivo; haced lo mismo con los españoles y os contestaran pan y toros un dia y otro tambien, cubierto por el manto azul de su puro cielo y calentado al ardiente sol de Marruecos y España.

Eta beste pasarte batean:

La Patria ¿ de quienes puede esperar?
De nuestros jovenes taurofilos. Gente brava ¿es verdad?
De estos jovenes, que no saben en que pasar el rato, y se dedican a exibir su aristocratica gentileza al publico y a lididar cabritos.
Lo primero parece mas propio de damas que de hombres; lo segundo sera muy corriente alla en la tierra de la naranja y la batata, entre la gente chula....
A este paso, será posible que en breve se instale en Bilbao un centro aristocratico de cante y baile flamencos, y haya enlaces de bellas y distinguidas señoritas de la villa con chicos del arte naturales de Getafe, Ciempozuelos o Jerez de la Frontera.
Y veremos a las ninfas de Bilbao bailar seguidillas con Reverte, Faico y Agujetas y a los pollos de la aristocracia bilbaina con no menos distinguidas manolas.
¡Que cultura!
Eminentemente Española.

1895. urte hasieran berriz, aberriari buruz ari dela sokamuturra beste maila batean aipatu zuen; txistuarekin parekatuz hain zuzen:

.... Tambien el perro y el gato conocen esta patria. Es la patria de muchos bilbainos: Bilbao. Es el patriotismo de los que solo se acuerdan del txistu, el toro de cuerda, los gigantones, etc., echando en saco roto los asuntos de mas importancia y dejando el Euskaldun Batzoki para los locos[160].

Bilboko eta Bizkaiko sokamuturretarako, bertan hazten zituzten zezenko eta larrabehiak[167].

Donostian 1895. urteko sansebastianetan urtero bezala danborrada, sokamuturra eta zezensuzkoak izan ziren. Baita nobillada bat ere Atotxa-ko plazan[17]. Gero abuztuan ere ateratzen zuten zezensuzkoa gauez, arratsaldean korrida bukatu ondoren; 1895. urteko abuztuaren 15ean adibidez, Jose Aranak *Semana Grande* izendatutako astearen barruan[18].

Abuztuko korrida haietan, besteak beste Emilio Torres *Bombita* eta Pierre Cacenabe *Felix Robertek* parte hartu zuten[8].

Interesgarria da ordea urte hartako abuztuaren 4ean Donostian Atotxa-ko plazan emandako nobillada aipatzea; neskak aritu bait ziren toreatzen. Lolilla Pretel (15 urtekoa) eta Adelaida Angela Pagés (17 urtekoa) emakumeak ziren zezenko-hiltzaileak eta Julia Carrasco (17 urtekoa) ordezko ezpatari. Koadrilan Justa Simó, Encarnacion Simó, Maria Munaber eta Francisca Pagés-ek hartu zuten parte; 16 edo 17 urteko neskak guztiak ere. Bartzelona, Logronio, Gasteiz eta Valentzian ere lan egin zuen neska-talde hark nobiladatan.

Donostian, Tuterako Gregorio Martinez-en lau zezenko hil zituzten. *Lolillak* faena ongi burutu zuen bere lehenengoan, baina ezpataz hil ezinik ibili zen. Bere bigarrengoan bitan harrapatu zuen zezenak. Azkenean zezenkoa ezpataz botatzea lortu zuen. Pagés ezpataria kapotez luzitu zen, baina ezpataz asmatu ezinik gehiegi luzatu zuen faena; bigarrenean batez ere. Bukaeran, Lasturreko lau zezenko jokatu ziren gaztejendearen gozagarri[168].

1895. urtean, Luis Ramirez Martxariena *el Guipuzcoano* izeneko banderilariak Madrilen maiatzaren 26ko korridan parte hartu zuen Fernando Gomez *el Gallo*ren agindupean. Luis donostiarra zen; gaztetan pilotari izan eta gero toreatzaile hasia.

Aipatutako korridan, Ibarra-ren *Grillito* izeneko zezenari banderilak sartzerakoan Luis Mazzantinik libratu zuen adarkadatik. Nobillada askotan parte hartu zuen urte hartan eta Madrilen ere bai uztailaren 21ean. Juan Vazquez-en *Cimbareto* izeneko zezenari banderilak sartu zizkionean oso txalotua izan zen.

Irailaren 8an ere Veragua-ko zezenkoak korritu zirenean han zen Ramirez gipuzkoarra. Cayetano Leal *Pepe-Hillo* eta Nicanor Villa *Villita* ziren ezpatari. Sigarren ateratako *Ciervo* izeneko zezenkoak ipurdian adarkatuta larriki zauriturik utzi zuen. Ospitalera joaterik ez zuen nahi izan eta bere etxean zoldura baten ondorioz 1895.eko azaroaren 1ean hil zen[8].

Azpeitian 1895.eko saninaziotarako Bartolome Uzin jaunak launa nafar-zezeneko bi nobillada prestatu zituen, baina gero zezenfesta haiek bertan behera utzi zituzten[6].

Abuztu hartantxe, hilaren 8an Arrasateko Santa Ageda bainuetxean Angiolillo anarkistak Canovas del Castillo hil zuen. Angiolillo suitzarra, Enrique Alvarez gazte tolosarrak harrapatu

zuen. Gero nobillada batzuetan Azpeitian aritu omen zen zezenzale eta atxilotzaile hura[95].

Iruñean 1895.eko sanferminetan lau korrida eta proba bat eman ziren. Zalduendo, Lizaso, Espoz y Mina eta Diaz-en nafar-zezenak batetik eta Colmenar-eko Carlos Navarro-ren alargunaren zezenak bestetik iragarri ziren. Haiek toreatzeko Luis Mazzantini eta Rafael Guerra *Guerrita* kontratatu zituzten, koadrilan honako pikatzaile hauek parte hartzen zutelarik: Manuel Perez *Sastre*, Rafael Alonso *Chato*, Jose Fernandez *Largo*, Antonio Bejarano *Pegote*, Rafael Moreno *Beao* eta Jose Arana Molina *Agustin Molina*[115]. Garai hartan korridako azken zezena etzaten zezenan jendeak hondarrera saltatzen zuen, eta arriskuak egon ohi ziren zezena artean hil gabe zegoelako. Halako batean Mazzantinik burrukan egin omen zuen jendearekin, zezenetik urruti egon zitezen[169].

12.9. irudia. Pikaldia Iruñeko plazan. XIX. mendearen bukaerako argazkia.

1895. urtean, Lumiere anaiek zinematografoa asmatu zuten, eta laster Iruñeko sanferminetan Louis Lumiere-k filmelabur bat filmatu zuen bertako festak jasoz[170].

Nafarroako Funes-en Raimundo Diaz-en alargunaren izenean hazten ziren nafar-zezenak Mihuraren ganaduarekin nahasturik. Dena den, Jorge Diaz Solano (Raimundoren semea) zen ganadutegia zeramana, eta 1895. urtean gainera Jorge Diaz-en izenera pasa zen[20]. Harez gero Diaz-en semeen izenean korritu ziren Iruñean[115].

Frantziako Barne-ministrari zen Georges Leygues jaunak 1895. urtean zezen-korriden kontrako neurri bereziak hartu zituen. Grammont-en legean oinarrituz, zezen-hiltzaileei isuna ipiniz Estatutik kanpora hamabi bota zituen. Mendi Martzana-n uztailaren 14ean korridan parte hartu ondoren Reverte bertako alkateak ezkutatu egin zuen hilaren 16ko korridan ere torea zezan. Landetako prefektuak ordea mugaraino eraman zuen toreatzailea.

Geroxeago, abuztuaren 31n, Leygues jaunak debekatu egin zuen biharamunean Baionan eman behar zuten korrida. Horregatik Luis Mazzantini irailaren 1ean Baionara heldu zenean

Komisari Orokorrak atxilotu egin zuen eta Frantziatik irten egin behar zuela jakin erazi zion. Besterik ezean, 1849. urteko dekretu batean oinarritu ziren Mazzantini mugaraino eramateko. Luis Mazzantinik bere arrenkuraren berri Pariseko enbaxadore espainiarrari eman zion telegrafoz. Baionan berriz, jende asko zegoen korrida ikusteko asmotan eta kalean istiluak izan ziren zaldizko gendarme eta zezenetara joan nahi zutenen artean[28].

Dena dela Baionan 1895. urtean L. Milhaud idazleak *Les courses de taureaux devant le jugue de paix de Limoges* izeneko liburua argitaratu zuen[120]. Akize-n berriz, Udalak zezensuzkoa antolatu zien *l'Association Francaise pour l'Avancement de Sciences* erakundeko partaideei urte hartantxe[171]. Marseille-n bestetik, Joseph Malfait toreatzailea larriki zauriturik suertatu zen zezen espainol bati birako jauzia gainetik eman nahian. Amou herrian berriz, Boniface toreatzailea hil egin zen plazako istripuz[31].

Luis Mazzantinik 1895. urtean plaza desberdinetan toreatu zuen. Madrilen, maiatzaren 6an Veragua-ko zezenak Fernando Gomez *Gallo* eta Emilio Torres *Bombita*rekin batera toreatu zituen. Maiatzaren 26an berriz, Ibarraren zezenak, ezpatari berberak lagun zituela. Andres Castaño *Cigarron* eta Manuel Viñó *el Ingles* pikatzaileak larrialditik atera zituen. Maiatzaren 19ko korridan ordea, zezen bat toriletara itzuli zioten hil ezin zuelako. Jendeak txistu ugari jo zion[8]. Luis Mazzantini urte hartan konfidantza galtzen hasi zen eta bere toreaketan urratsa atzera ematen eta zezenak muletaren muturraz maneiatzen hasi zen. San Isidroko ohizkanpoko korridan eta *Reina Regente* itsasuntziaren hondamenean kaltetuei laguntzearren ekainean emandako korridan gogoz txalotua izan zen[100]. Korrida hartarako, 1895.eko ekainaren 11rako, hamar ganaduzalek zezen bana doan eman zuten eta Mazzantini, Reverte, Emilio Torres *Bombita*, Antonio Arana *Jarana* eta Juan Gomez Lesaka toreatzaileek hil zituzten[104].

Madrilen 1895.eko ekainaren 2ko korridan Veragua-ren lau zezen eta Felix Gomez-en beste lau toreatu zituzten Fernando Gomez *el Gallo*, Luis Mazzantini, Emilio Torres *Bombita* eta Juan Gomez Lesaka-k. Mazzantini eta *Bombita*k Jose Bayard *Badila* pikatzailea larrialditik atera zuten.

Madrilen bertan, 1895.eko irailaren 29an, Luis Mazzantinik Nicanor Villa *Villita* zaragozarrari alternatiba eman zion, Emilio Torres *Bombita* lekuko zelarik. Euria hasi zuelako korrida amaitzerik ez zuten izan[8].

1896. urteko denboraldiari Bilbon miatzaren 2an eman zitzaion hasiera Tabernero-ren 6 zezen jokatuz. Jose Garcia Rodriguez *Algabeño* eta Nicanor Villa *Villita*k hil zituzten. Korridaren hasieran, pikatzaileek ez zuten irten nahi izan. Ezten handiagoko hagak eskatu zituzten; udan erabiltzen ziren bezalakoak. Arazo hura konpondu ondoren, zezenak plazaratu eta bostgarrena nabarmendu zen. Bederatzi pikalditan bost zaldi hil zituen. Jose Garcia Rodriguez *Algabeño*ri bere hiru zezenen belarriak eman zizkioten. *Villita* gaizki egon zen. *Txarol* pikatzaileari eta Bernardo Hierro banderilariari txaloak jo zizkieten.

Biharamunean, 1896.eko maiatzaren 3an, ezpatari berberek Vicente Martinez-en sei zezen toreatu eta hil zituzten Bilboko Vista Alegren. Zezenei zerbait kostatu zitzaien zalditara joatea. *Algabeño* ongi egon zen, baina bezperako mailarik ez zuen iritsi. *Villita* ordea, askoz ere hobeto egon zen eta bi belarri eman zizkioten. Laugarrena hiltzerakoan lurrera erori eta zezena gainetik pasa zitzaion. Banderilak sartzen *Melones* izan zen onena.

Ekainaren 4ean, beste korrida bat eman zen Vista Alegren. Espoz y Mina-ren sei zezen korritu zituzten, ezpatari Fernando Gomez *el Gallo* eta Julio Aparici *Fabrilo* zirelarik. Zezenek ihes egiteko joera erakutsi zuten, seigarrenak ezik. Laugarrenari suzko banderilak sartu zizkioten.

Gallito sasoi eta gogorik gabe aritu zen. *Fabrilok* gauza onak egin zituen; laugarrenean batez ere. Bi belarri lortu zituen. Manuel Aguilar *Vaqueritok* lehen zezenari banderilak sartu zizkionean, jendea txaloka hasi zitzaion.

Ekainaren 21ean, Bilboko txirrindulari-elkarteak zekorketa bat antolatu zuen belodromoa egiteko dirua biltzearren. Amador Garcia-ren lau zekor eta Tabernero-ren beste bat toreatu eta hil zituzten Villagodio-ko markesak, Julian Zelaiak eta Serafin Mentxakak.

Abuztuko 23an hasi ziren hil horretan Vista Alegren ematen zituzten lau korridak. Muruberen sei zezen jokatu ziren lehen korrida hartan. Mazzantini, *Guerrita* eta Reverte-k beren koadrilak ondoren zituztela zaldizko bi algoazilen atzetik joanda egin zuten aurkezpena. Bi alguazilen trajeak Luis Mazzantinik erregalatu zituen. Ordurarte alguazil bakarra aritzen zen korrida hasieran, baina 1896. abuztuaz gero bi zaldun dabiltza aurkezpenean.

Dena dela Mazzantinik ezpata ederki astindu zuen, *Guerritari* seigarren zezenaren belarria eman zioten eta Reverte-k ez zuen ezer berezirik egin. Laugarren zezena, Tomas Mazzantini banderilariari segika ari zela, elbarritu egin zen. Hura sastakatu eta haren ordez beste bat (zazpigarrena) plazaratu zuten. *Guerritak* zezen hari gainetik salto egin zion. Bigarren zezenean, Antonio Bejarano *Pegote* zalditik erorita zegoela, Mazzantinik kapotez zezena ederki atera zuen handik.

Abuztuaren 24ean eman zen bigarren korrida Veragua-ko dukearen sei zezen jokatuz. Guztiz zezen suharrak suertatu ziren; bigarrena eta seigarrena batez ere. Lehen zezena uste baino lehen plazaratu zuten, eta Luis Mazzantini ustegabean harrapatu zuen, adarra izterrean sartuz. Gero Rafael Alonso *Chato* pikatzailea ipurtaldean adarkatu zuen. Horren ondorioz, *Guerritak* lau zezen hil behar izan zituen. *Guerritak* arrakasta handia lortu zuen arratsalde hartan. Bostgarrenari, Reverte-rekin batera kapotez toreatu ondoren, bikain sartu zion ezpata oin-hegazka. Belarria eman zioten, noski. Reverte ere ongi aritu zen. Bere lehen zezenaren belarria lortu zuen.

1896.eko abuztuaren 25eko korrida, sekulakoa izan zen. Saltillo-ko markesaren zezenak oso suharrak eta nobleak suertatu ziren. *Guerrita* eta Reverte zein baino zein ibili ziren arratsalde guztian kiteak txandaka eginez. *Guerrita* banderilak sartuz ere luzitu zen, baina ezpataz konfidantza handirik ez zuen erakutsi. Reverte-k ordea ez zuen hutsik egin ezpataz eta bere bi lehen zezenetan belarri bana eman zioten. Lehen zezenak gainera, arratsaldeko bigarrenak, hamaika pikalditan hamaika aldiz bota zituen zaldi-zaldunak lurrera.

Abuztuaren 26an euria egin zuelako, laugarren korrida biharamunean ospatu zen. Abuztuaren 27an ere euria egin zuen, baina hala eta guztiz ere Anastasio Martin-en sei zezen plazaratu zituzten *Guerrita* eta Reverte-k torea zitzaten. Belarri bana lortu zuten. Reverte-k desplante batzuk egin zituen, zezenari bizkar emanda belauniko ipinita.

Bilboko 1896. urteko denboraldia, nobillada batez amaitu zen Vista Alegren irailaren 20an. Tuterako Gregorio Martinez-en lau zezenko toreatu eta hil zituzten Dolores Pretel *Lolita* eta Angeles Pagés *Angelita* neska toreatzaileek[111].

Bilbon 1896. urtean zezenei buruzko aldizkari eta liburu berriak argitaratu ziren. *La Revista* izeneko aldizkaria[136] eta Jose Cortes-ek Luis Mazzantini-ri eskainitako *Tratado de tauromaquia* adibidez[120].

Uztailaren 14ean bestetik, Bilboko Cortes kalean Jose Martin Gutiez jaio zen; gero *Joselito*

Martin zezen-hiltzaile izango zena[13].

Bizkaian 1896. urtean herri desberdinetan zezenplazak eraiki zituzten. Gernikan zurezko bat; bi solairutan 3.100 ikusle hartzen zituena hain zuzen. Lekeition ere 3.500 eserleku zituen plaza urte hartan estreinatu zuten. Muskiz-ekoa da urte hartan eraikitako beste bat. 3.300 pertsonentzako lekua zuen. Kanpotik karratua eta barrutik oktogonala zen[9].

Donostian 1896.ean beti bezala pil-pilean zegoen sokamuturrerako zaletasuna. Begira bestela Kaietano Sanchez Irure-k zer bertso jarri zituen urte hartan:

SOKA MUTURRA

Nola uda berriyan
ta egun sentiyan,
chori chikiyak inoiz
daudenak kabiyan
bere amari deika
pipika agiyan,
gu ere ala gaude
oraiñ Donostiyan.

Gure barrenak daude
choriyen moduan,
edo esan nai nuke
iya alatsuan;
idi jolasa beti
arturik buruan,
guziyari galdezka
galbitzan lekuan.[172].

Udako korridetan, besteak beste Mazzantini eta *Guerritak* parte hartu zuten. *Guerritak* ez zuen arrakastarik lortu. Kapotez eta banderilaz adorno batzuen bidez jendea liluratu nahian ibili arren, muletaz eta ezpataz beste urtetako trebetasunik ez zuen erakutsi[100]. Abuztuaren 16ko korridan, Veragua-ko dukearen zezenetan *Calcetero* izenekoa nabarmendu zen. Bost zaldi hil zituen zezen suhar hark eta Mazzantini-ri luzitzeko bide eman zion[9].

1896. urtean, Madrilen urte askoan bizi ondoren Antonio Peña y Goñi donostiarra hil egin zen azaroaren 13an. Musika, teatro eta zezenetako kritikalari zen eta pilotazale handia ere bai. Pilotari buruz bi aleko lan bat idatzi zuen[18]. Peña y Goñi donostiarrak, 1896. urtean (hil zen urtean) Jose Arana enpresari eskoriatzarra deskribatu zuen idazlan bat argitaratuz. Jose Arana hitz-totelka hasten zenean ez omen zen giro izaten haren inguruan; bere humore txarra ere erakusten bait zuen noizbehinka. Bestetik, hizketan ari zela *ya le digo a usted* askotan errepikatzen omen zuen[96].

Bergaran 1896.eko uztailaren 25 eta 26an bi nobillada eman zituzten. Pedro Galo Elortz azkoiendarraren nafar-zezenkoak toreatzera Ramon Laborda *Chato* ekarri zuten. Bere koadrilan Florencio Vicente *Frascuelito* banderilari zaragozarra zetorren. Uztailaren 25ean *Perdigon* izeneko lehen zezenkoan *Frascuelito* irristatu eta erori egin zen. Zezenak kolpatu egin zuen eta zaragozarra oinez erizaindegira joan zen. Biharamunean hil zen peritonitisaren ondorioz, bigarren nobillada hastera zihoan ordu berean[8].

Pedro Galo Elortz-en zezenak gorriak edo gaztain-kolorekoak izan ohi ziren eta badirudi ganadutegi hura desegiteko zorian zegoela[5].

1896. urteko saninaziotan Bartolome Uzin jaunak antolatu zituen zezenfestak, baina Jose Alberdi jaunak salatu egin zuen zezenkoak behar baino txikiagoak zirela eta. Salaketa haren ondorioz udalgizonek baldintza bat ezarri zuten hurrengo urteetarako. Gutxienez 32 erraldeko zezenkoak izango ziren eta 30 erraldetik beherako erralde bakoitzagatik 125 pezetako isuna ezarri zen[6].

1896. urtean Xabier de Cardillac idazleak Hondarribiara egindako bidaian zezensuzkoaren berriak jaso eta argitaratu zituen[173].

Gasteizen 1896.eko abuztuaren 6ko korridan, Concha y Sierra-ren zezenak jokatu ziren. *Esmeraldo* izenekoak, bederatzi pikalditan bost zaldi hil zituen[9]. Urte hartantxe bestetik, Gasteizen ekainaren 19an Julian Fernandez Ortiz jaio zen; gero *Finito de Vitoria* izenordez zezenkoak hiltzen ibiliko zena[9].

Iruñean 1896. urteko sanferminetarako, lau korrida eta proba bat iragarri zituzten. Uztailaren 7 eta 8an Rafael Guerra *Guerrita* eta Antonio Reverte ezpatariek lan egingo zuten eta 9 nahiz 10ean *Guerrita* eta Antonio Fuentes-ek. Uztailaren 9ko proban berriz, hiru ezpatariak arituko ziren. Bi gauetan zezensuzkoa ere izango zuten, iragarkiak zioenez[115].

Rafael Guerra *Guerrita*k, 1896.ean bere *Tauromaquia* argitaratu zuen eta interesgarria da nafar-zezenei buruz dioena:

Nafar-zezenak gorri-beilegiak dira eta toreaketarako onak. Zalditan gogor jokatzen dute. Oldar bakoitzean adarkada bat baino gehiago botatzen dute eta azkenean zangar eta noble bilakatzen dira. Nahiz eta ezaugarri hauek izan, plaza askotan ez dituzte gogozkoak txikiak direlako. Zekorrak direla iruditzen zaie, sasoiko zezenak izan arren.[5]

1896. urtean Madrileko plazan Rafael Guerra *Guerrita* ez zuten kontratatu, eta batez ere Mazzantini, Reverte, Emilio Torres *Bombita* eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeño* aritu ziren lanean[104]. *Guerrita*ren zaleak Mazzantiniri ez zioten ezer barkatzen Madrilen, baina laugarren korridaz gero lana ondo egin zuenez jendeak txalo asko jo zion[100].

Mazzantinik, ekainaren 30ean Burgos-en toreatu zuen Ibarra-ren zezenak hilez. Laugarren zezenak bere koadrilako Nicasio Soria pikatzaileari adarra sartu zion[8].

Landetan, Roquefort herrian Nenot toreatzailea hil egin zen plazako istripuz. Bernard Lalanne *Jean Chicoy* ere urte hartan hil zen erretiratuta zegoelarik[31].

1897. urtean Bilboko Vista Alegren denboraldia otsailaren 14ean hasi zen, Pancorbo-ko Quintana-ren lau zezenko jokatuz. *Esparterito*, Boman eta *Munillita*k toreatu zituzten. *Esparterito*k lehenengoa eta laugarrena hil zituen. Boman-ek bigarrena ongi hil zuen. *Munillita* gaizki egon zen. Zezena toriletara itzuli zioten.

Martxoaren 14ean ganaduzale beraren lau zezenko Cayetano Panero *Peterete* eta Arturo Carral *Carralito*k hil zituzten. Euri asko egin zuelako uretan blai eginda aritu ziren Vista Alegren.

Astebete geroago, martxoaren 21ean, Pancorbo–ko Quintana–ren beste lau zezenko *Peterete, Carralito* eta Boman–ek hil zituzten. Hirugarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. Cayetano Panero *Peterete*, lehen zezena hiltzerakoan bitan kolpatua suertatu zen. *Carralito*k zezenko bat kordegabetuta hil zuen eta Boman ez zen ongi egon.

Martxoaren 28ko nobilladan, ganaduzale beraren lau zezenko plazaratu zituzten Francisco Perez *Naverito* eta *la Guerrita*rentzat. Zezenko txikiak izan ziren. *Naverito* kapotez eta muletaz ongi aritu zen, baina ezpataz ez. *La Guerrita* izeneko neskak lana oso txarto egin zuen. Jose Martinez *el Aventurero* pikatzailea lehen aldiz aurkeztu zen plazan eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* ere bai. Honek banderilak sartzeko baimena eskatu zuen bigarren zezenkoan. Bi pare sartu zizkion iskintxo eginez. Orduan ikusi zuten bilbotarrek lehen aldiz gero zezen–hiltzaile famatu izango zena.

Apirilaren 4eko nobilladan Pancorbo–ko Quintanaren bi zezenko eta bi behi atera zituzten Vista Alegreko hondarrera. Francisco Perez *Naverito* zen festa hura zuzentzeko arduraduna, baina gauzarik onenak Kastor Jauregibeitiak egin zituen. Zezenko eta behiei banderilak iskintxo eginez sartu zizkien; behi bati belauniko gainera.

Maiatzaren 2ko nobilladan Arroyo–ren sei zezenko hil zituzten Domingo del Campo *Dominguin*, Ricardo Torres *Bombita II.a* eta Juan Dominguez *Pulguita Chico*k. Lehen zezenkoa izan zen onena. *Dominguin*ek ezpataz izan zituen hutsegiteak; bestela ez. *Bombita II.*ak ausardia erakutsi zuen. *Pulguita Chico* berriz, oso gaizki aritu zen.

Astebete geroago, 1897.eko maiatzaren 9an, Aleas–en sei zezenko hil zituzten aipatutako hiru ezpatariek. Dena gaizki atera zen. Zezenak txarrak eta toreatzaileetan Ricardo Torres–ek bere lehen zezenkoaren belarria lortu zuen. Gainerakoan denak txarto aritu ziren. Hirugarren zezenkoak *Pulguita Chico*ri trajea urratu zion. Laugarrenak barrerak saltatu eta Joaquin Perez *Torerito de Madrid* banderilaria zauritu zuen; baita Calaya pikatzailea ere.

Ekainaren 6an, Meliton Catalan–en lau zekor toreatu zituzten Dolores Pretel *Lolita* eta Angeles Pagés *Angelita*k Bilboko Vista Alegren. Bi nesken emanakizuna oso txarra izan zen.

1897.eko ekainaren 17an, Jorge Diaz funestarraren lau zezenko plazaratu ziren Bilboko zezenplazan. Sevillako Manuel Garcia Reverte *Revertito* eta Rafael Gomez Ortega *Gallito* mutil gazteek (16–15 urtekoak) hil zituzten. Biek ausart jokatu zuten, nahiz eta ofizioa artean ongi menperatu ez. Jorge Bijuesca *Mirandito* banderilari bilbotarra zauriturik suertatu zen.

Ekainaren 20an beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Carlota Sanchez–en lau zezenko toreatu zituzten Manuel Nieto *Gorete* eta Antonio Boto *Regaterin*ek. Lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten. *Gorete* kapote eta muletaz artean ezjakin samarra zen, baina ezpatakada onaz bota zuelako lehen zezenkoaren belarria eman zioten. Antonio Boto *Regaterini* batekoz bestera gertatu zitzaion. Oso ongi toreatu zuen. Ezpataz ordea, asmatu ezinik ibili zen.

Ekainaren 27ko nobilladan, Domingo del Campo *Domingiuin*ek Tabernero–ren lau zezenko toreatu zituen Vista Alegren. *Dominguin*ek ausardia besterik ez zuen erakuktsi, eta ikusleak aspertu egin ziren.

1897.eko uztailaren 11n, Carlota Sanchez–en lau zezenko plazaratu zizkioten Bilbon Angel Garcia de la Flor *Padillari*. *Padilla*k lau zezenkoak lehen saioan bota zituen ezpataz. Hirugarrenaren belarria eman zioten eta bizkar gainean atera zuten. Lopez Calle banderilaria eta

Txarol pikatzailea ere txalotuak izan ziren[111].

Abuztuko festetan Bilbon korridak garrantzitsuak ziren. Sabino Arana Goirik 1897.eko abuztuaren 22an argitaratutako lan batean zioenez, *...ocupa el lugar preeminente la fiesta nacional de Maketania...*[160].

Dena dela, Bilbon eman ohi zituzten lau korridak, hilaren 23an hasi ziren Murube–ren sei zezen plazaratuz. Lau korrida haietan ezpatari–lanak Luis Mazzantini, Rafael Guerra *Guerrita* eta Antonio Reverte–k egin zituzten. Lehen korrida hura gogoangarria izan zen. Sei zezenak paregabeak atera ziren eta ezpatariek ere ezin hobeto hil zituzten. Sei belarri eman zizkieten. Seigarrena Mazzantini eta *Guerritak* banderilaztatu zuten. Pikatzailetan Jose Infantes *Charpa* izan zen onena. Korrida hasieran pikatzaileek berek zerizkioten ezten–hagak exigitu zituzten. Lehendakariak maisuekin hitzegin ondoren eman zien baiezkoa.

Abuztuaren 24ean, bigarren korridan, Veraguaren sei zezen jokatu ziren; txiki samarrak. Francisco Gonzalez de Dios *Pataterillok* bigarrenari ederki sartu zizkion banderilak. *Guerritak* ere ondo hil zuen zezen huraxe, eta horregatik belarria eman zioten. Manuel Martinez *Agujetas*, Salustiano Fernandez *Chano* eta Jose Fernandez *el Largo* goizean zaldiak probatzerakoan haserretu eta burrukan elkar zauritu egin zuten. Horregatik enpresak Reverte–ri *Agujetas* Bilbora gehiago ez ekartzea eskatu zion.

1897.eko abuztuaren 25ean eman zen hirugarren korrida. Saltillo–ko markesaren sei zezen eta Murube–ren beste bat jokatu ziren; oso indartsu eta zangarrak. Laugarrenak adakera ikaragarria zuen eta zalditan pikatzerakoan Jose Fernandez *el Largo* eta Jose Infantes *Charpa* zauritu zituen. Seigarrenak oholen kontra jota adar bat hautsi zuen, eta haren ordez Murube–ren bat atera zuten. Mazzantini oso ongi aritu zen toreatzen eta hiltzen. *Guerritak* bere lehen zezenean belarria lortu zuen eta bigarrenean ere txalotua izan zen. Reverte–k kapote eta muletaz gauzak ederki burutu ondoren, ezpataz ez zuen zorterik izan. Pikatzaileen artean *Varillas* nabarmendu zen.

Abuztuaren 26ko korridan, Anastasio Martin–en zazpi zezen atera zituzten Vista Alegreko hondarrera. Zezenak zalditan ez ziren ongi portatu, baina muletan bai. Mazzantini, *Guerrita* eta Reverte asko txalotu zituzten. Zazpigarren zezena Jose Rodriguez *Bebe Chicok* hil zuen[111].

1897.ean Bilbon *Bilbao Taurino; Vista Alegre* izeneko aldizkaria argitaratu zen[120].

Bilbon 1897.eko irailaren 5ean, bertako aristokrata batzuek zekorketa bat eman zuten Gurutze Gorriarentzat dirua biltzearren. Villagodio–ko markesaren bost zekor toreatu zituzten. Mentxaka, Zuloaga eta Orue ziren ezpatariak. Bostgarrena hiltzerakoan ordea Orue zauritu egin zen eta Pedro Igartua–k hil zuen. Laugarren zekorrean *Bilboko kotxeritoak* hondarrera saltatu eta gorputz hutsez toreatu zuen.

Irailaren 12an beste zekorketa bat izan zen dendetako enplegatuek Errukietxearen alde laguntza biltzeko antolaturik. Gabai–ren lau zekor hil zituzten Vista Alegren Saratxo, Beltran eta Aranguren–ek. Francisco Bernal *Bernalillo* arduratu zen plazako zuzendaritzaz.

1897.eko urriaren 10ean, nobillada eman zuten Bilbon. Pancorbo–ko Galo Quintana–ren lau zezenko hiltzeko Francisco Bernal *Bernalillo*, Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa* eta Julian Aranguren *Julianillo* kontratatu zituzten. *Bernalillok* lehen bi zezenkoak erraz eta ederki hil zituen. Julian Aranguren–ek ere ongi toreatu eta hil zuen laugarrena. Jose Martinez *el Aventurerok* bere pikatzaile–lanak ederto burutu zituen. Hirugarren zezenkoa berriz, Kastor Jauregibeitia Ibarrak

toreatu eta hil zuen. *Bernalillok* utzi zizkion tresnak, Bilbon zezenko-hiltzaile gisa lehenengoz aratsalde hartan aurkeztu zelako. Kastor *Kotxeritoak* faena bikaina burutu zuen; musika-bandak bere omenez *Gernikako arbola* jotzerainokoa[111]. Ezpataz ez zuen lehenengoan asmatu, baina jendeak belarria eskatu zion lehendakariari[8].

Kastor Jauregibeitia Ibarra *Bilboko kotxeritoak*, gorabehera asko izan zuen Bilbon toreatzaile gisa aurkeztu arte. Bere gurasoek txakolindegia zuten, Begoña-ko baserri batean. Aita ordea hamabi urte zituela hil egin zitzaion, eta orduan Kastor eskola utzi eta lanean hasi zen. Lantegi desberdinetan ibili ondoren gazte zezenzale batzuekin ibili zen ez hara eta ez hona. Bere amaren koinatu batek jaso zuen gero etxean eta bere zurgindegi-ikaztegian lanean ipini ere bai. Osaben etxetik alde egin zuen Kastor-ek ordea eta zalgurdiak gidatzen hasi zen. Jesus Bilbao lagun harturik Bilbotik trenean ihes egin zuten Bartzelona aldera. Ez ziren iritsi ordea eta berriro ere Bilbora itzuli zituzten. Bilbon, Joan Boman, Ramon Rovira, *Talento* harakina eta beste batzuekin elkartu zen. Ramon Rovira-rekin banderilari gisa Bizkaiko eta Gipuzkoako plazatan lan egin zuen, ofizioa ikasiz[156]. Kastor Jauregibeitiak traje distiratsuz lehen aldiz Zestoako plazara (herriko plazara) etorri zen iraileko festetan[174].

Donostian 1897. urteko uztailaren 30ean, Artzai Onaren eliza konsagratu zuten. Elizkizunak bukatu ondoren, gauean zezensuzkoa korritu zen atariko plazan. Biharamun gauean ere zezensuzkoa ateratzeko asmoa bazuten, baina euria medio gabe gelditu ziren.



12.10. irudia. Donostiako Atotxako zezenplaza XIX. mendearen hondarrean.

Hurrengo igandean, Atotxako zezenplazan Jose Arana enpresariak nobillada eman zuen. *Gavira* eta Domingo del Campo *Dominguinek* Vicente Cortes-en zezenkoak toreatu zituzten[175].

Donostian 1897. urteko apirilaren 13an beste zezenplazei (Alderdi Zaharrekoei hain zuzen)

izena aldatzea erabaki zen udaletxean. Lehen harresi ondoan zegoenari (Bulebar ondokoari) *Plaza-Zarra* eman zioten, eta Konstituzio-plazari *Plaza-Berria* lehengoa berreskuratuz[176].

Tolosan 1897. urtean aurreko urteetan bezalaxe sanjoanetan zezenen entzierroa egin zuten Izaskun-eko Urkieta-tik abereak jaitsita[177]. Zezenak Nafarroako zubia pasata eta Solana, Portale eta Errementari-kaleetan zehar Foru-plaza edo Plaza Berrira iristen ziren. 1897. urtekoa izan zen Tolosan ibilbide hartatik egindako azken entzierroa; geroztik plazarako zezenak San Blas hilerriaren inguruan edukitzen bait zituzten[178].

1897. urtean bestetik, Debako partean Lastur aldeko Sakabi baserrian Antonio Artetxe jaio zen; gero Arriola baserrian inguruko herrietarako festetarako bertako zezenak haziko zituena[179]. *Saka-ko markesa* deitu ohi zioten, eta hamaika aldiz ikusi genuen geure gaztaroan Lasturreko zezenko gorrien inguruan festaz festa.

1897. urtean Azkoitiko herrian Ordenantza berriak argitaratu ziren, eta jakingarria da ikuskizunez diharduen 4. kapituluak dioena. Zezenfestei buruzko aginduak bakarrik ditu. Plazara edozer gauza botatzea debekatzen du; baita azken zezen edo zezenkoa bukatu arte hondarrera jaistea ere. Makila eta armaz horniturik ez zegoen plazara sartzerik, militarrak ezik[180].

Azpeitiko saninaziotarako 1897. urtean Lodosa-ko Meliton Catalan-ek Bartolome Uzin jaunaren bitartez proposamena egin zion Udalari. Bi ezpatari, hiru banderilari eta bi pikatzailek osatuko zuten koadrila sarreren prezioa bost errealetik zazpira eta seitik zortzira igotzen uzten bazioten.Lodosako ganaduzaleak zioenez, hiru urteko zortzi zezen (ahalik eta handienak) aukeratzera norbait bidal zezakeen Udalak, horrela pisua gutxi gorabehera kalkulatuta isunik egon ez zedin.

12.11. irudia. Untzaga plaza. Eibar. Zuloaga-ren koadroa.

Dena dela azkenean zezen bat ez zen pisu minimora iritsi eta Bartolome Uzin-ek protestatu egin zuen hango pisuak gaizki zeudela esanez. Meliton Catalan-ek ere eskutitza bidali zion Udalari

isunagatik bere arrenkuraren berri emanez. Tolosara ere adin bereko zezenkoak bidali zituela zioen, eta bertako Estanis harakinari pisuaz galde ziezaiotela gomendatzen zien. Eibarreko *Periko* harakinari pisuaz galdetzea ere eskatzen du Catalan ganaduzale nafarrak[6].

Meliton Catalan–en zezenak, dibisa gorri–horiz plazaratzen ziren. Bere ganadutegia hamaika urte lehenago sortua zuen, Pina de Ebro–ko Cipriano Ferrer–en abereak Concha y Sierra–ren zezen batez nahasturik[5].

Zuloaga eibartarra 1897. urtean Sevillan zen pintatzen eta tauromaki eskolan toreatzaile izateko ikasten. Hiltegi ondoan, Puerta de la Carne–ko zezenplazan Manuel Carmona *el Panadero* maisuak (*Gorditoren* anaiak) irakasten zuen. Urte hartako apirilaren 17an gainera, nobillada bat eman zuten. Lau urteko lau zezenko andalusiar plazaratu ziren; bi toreatzekoak eta beste bi hiltzekoak. Manuel Dominguez eta Ignacio Zuloaga *el Pintor* iragarri zituzten ezpatari gisa. Santiago Lopez *Melilla* pikatzailea, Jose Trigo, Isidro Suarez eta Nicolas S. Miret *el Catalán* banderilariak eta Isidoro Suarez sastakaria ere bai. Arratsaldeko laurak laurden gutxitan hasiko zen nobillada eta sarrera 75 zentimotan eros zitekeen.

El Nene izenordea zuen kazetari batek nobilladaren berri eman zuenean zera zioen: *Zuloaga, el Pintor, según mi opinión, no pintará por ahora nada en la tauromaquia.* Eibartarra oso gaizki egon zen, berak ere aitortu zuenez[147]. Zapi–ezpatak utzi egin zituen, eta pintzelez baliatu zen handik aurrera. Toreatzaile, korrida, zezen etab. askotan pintatu zituen gero. Manuel Carmona maisua adibidez, koadro batean pintatu zuen[145]. Eibarreko Untzaga plazan nobillada erakusten duen koadroa ere guztiz aipagarria da gure ustez[99].

1897. urteko sanferminetan korridek egun bat gehiago iraun zuten; uztailaren 7tik 11rarte. Rafael Guerra *Guerrita*, Antonio Reverte eta Emilio Torres *Bombita* ezpatariak etorri ziren lanera. *Guerritak* hamabi zezen hil zituen, Reverte–k sei eta *Bombitak* bederatzi. Uztailaren 7an , Guerrita eta Reverte–k bakarrik hil zituzten Veragua–ko dukearen sei zezen[115]. Uztailaren 9an, goizean, probarako korrida eman zen. Korrida hartan Espoz y Mina–ren zezena Reverte sastakaiz hiltzera doaneko argazki bat ere bada; Galo Maria Mangado jaunak ateratakoa hain zuzen[5].

Dena dela, Espoz y Mina–ko kontearen zezen bati Sevillan suzko banderilak ipini zizkiotelako nafarrak haserre zeuden. Sanferminetan gainera, Celsa Fontfrede–ren (Concha y Sierra–ren alargunaren) sei zezen sevillar korritzekoak ziren Iruñean uztailaren 11n, eta sei zezen haiei suzko banderilak ipiniko ote zizkien zurrumurrua zabaldu zen. Celsa andereak hura jakin zuenean ordea, bere sei zezenik onenak bidali zituen Nafarroara, nahiz eta haietako bat edo beste plaza garrantzitsuagotarako agindua izan. Hona hemen plazaratutako sei zezenen xehetasunak:

1. *Jardinero*. Beltza, 44 zenbakiduna.
2. *Peregrino*. Margula, 10 zenbakiduna
3. *Conde*. Beltza, 11 zenbakiduna
4. *Montañés*. Beltz bizkarnabarra, 40 zenbakiduna
5. *Lunario*. Beltza, 5 zenbakiduna
6. *Capachito*. Margul marratua. 12 zenbakiduna.

Lepagainean dibisa zuri–gris–beltza zutela plazaratu ziren, eta jendeak asko txalotu zituen guztiz ongi portatu zirelako. Suzko banderilak ipintzeko aukerarik ez zuten izan beraz. Rafael Bejarano *Torerito*, Antonio Moreno *Lagartijo* eta Miguel Baez *Litrik* hil zituzten[3].

1897. urtean hil zen Joanes Otxalde bertsolari bidarraitarra ere joaten zen Nafarroako hiriburura sanferminetan. Horretarako bere *Iruñeko ferietan, iragan sanferminetan* izeneko bertso

famatuek diotena gogoratu besterik ez bait dago[62].

1897. urtean Jose Martinez *Pepillo* toreatzaile zaragozarra Nafarroan toreatzen aritu zen. Zangotzan adibidez. Baita Iruñean ere beste ezpatari batzuen banderilari gisa. Eskolastiko Mendotza-k berriz, Fitero-n toreatu zuen 1897.eko nobillada batean ordezko ezpatari gisa[8].

Pariseko agintariek, 1897. urtean korridak antolatzeko baimena eman zuten. Lekuan lekuko auzapezek arautuko zituzten zezenfesta haiek prefektuen kontrolpean. Horregatik eman ziren korridak Bordele-n (Cauderan-eko plazan), Touluose-n (Busca-ko plazan) eta abarren[28]. Bestetik Bazas-en Barrere ganaduzalearen *Maravilla* behiak Baillet toreatzailea larriki zauritu zuen eta ondorioz hil egin zen. Facture herrian berriz, *Caracola* behiak Nikolas izeneko toreatzailea hil egin zuen[31].

1897. urtean maiatzaren 23an euskal deiturako ganaduzale baten zezenak lehen aldiz jokatu ziren; Sanlucar de Barrameda-ko Karlos Otaolaurretxi-renak hain zuzen. Otaolaurretxi-k , lehen Malaga-ko Jose Orozko-rena izandako ganadutegia zuen[107].

12.12. irudia. Tomas Mazzantini laudiarra; Luis elgoibartarraren anaia.

1897. urterako Madrileko plazan toreatzeko Rafael Guerra *Guerrita*, Luis Mazzantini, Antonio Reverte eta Emilio Torres *Bombita* kontratatu zituzten[104]. Mazzantinik gainera eztabaidak eta konponduezinak izan zituen *Guerrita*rekin zezenen zozketa zela eta. Izan ere ordurarte ganaduzaleak erabakitzen zuen bere zein zezen zenbatgarren plazaratu; zein ezpatarik toreatu alegia. Mazzantini kexu zen *Guerrita*ri zezen txikiagoak eta errazagoak ateratzen zizkiotelako. Horregatik elgoibartarrak bere kontratuetan korridako zezenak ezpatarien artean zozketatzea inposatu egiten zuen. Gero beste ezpatari batzuk ere sistema berberari jarraitu zitzaizkion, eta gaur egun ere elgoibartarrak ezarritako bidea dago indarrean.

Rafael Guerra *Guerrita*k orduan, bere kontratuetan lehen ezpatari bera izatea exigitu omen zuen, horrela Mazzantini alde batera utziz. Dena dela, elgoibartarrak 1897. urtean hirurogeitahiru korridatan parte hartu zuen; *Guerrita*k baino hiru gehiagotan.

1897.eko ekainaren 27an dena den, Mazzantini eta *Guerrita* Madrileko plazara Veragua–ko dukearen sei zezen toreatzera bildu ziren. Arratsalde hartako bigarren zezena, beltza, urduria eta zaila zen. *Guerrita*k hiltzen bi saio egin zituen ezpataz, eta eskuan urraturen bat zuela gorabehara, erizaindegira joan eta ez zen berriz plazaratu. Luis Mazzantinik hil behar izan zituen zezen guztiak. Ederki toreatu eta hil ere, orduko kazetariek diotenez.

Gero urriaren 17an toreatu zuen berriz Mazzantinik *Guerrita*rekin batera. Veragua–ko dukearen sei zezen (edo idi, koldarrak zirelako) toreatu zituzten. Geroztik urte batzuetan ez zen itzuli Mazzantini Madrileko plazara[100].

Luis Mazzantinik Nicanor Villa *Villita*rekin batera Girona–ko zezenplaza berria inauguratu zuen 1897. urteko abuztuan. Urte hartako ekainaren 29an berriz, Reverte–rekin batera, Zamorako zezenplaza berritua[9].

1897.eko irailaren 19an, Luis Mazzantinik Angel Garcia de la Flor *Padilla*ri alternatiba eman zion, Mihuraren *Rabituerto* zezena hiltzeko tresnak utziz. Cayetano Leal Casado *Pepe–Hillo*ri ere eman zion alternatiba Madrilen urriaren 25ean Luis Mazzantinik, Moreno Santamaria–ren zezenak toreatu eta hilez.

Luis Mazzantini bere koadrilarekin udazken hartan Ameriketara joan zen. Mexikon abenduaren 26an Tepeyahualco–ren zezenak toreatu zituen Nicanor Villa *Villita*rekin batera. Lehen zezenari bigarren banderila–parea sartzen ari zitzaiola, Tomas Mazzantiniri eskuineko eskua hautsita eta birrinduta geratu zitzaion[8].

1898. urteko zezenen albisteak emateko, Bilbo hartuko dugu abiapuntutzat. Martxoaren 19an eman zen lehen nobillada Vista Alegren. Torres–en lau zezenko hiltzera Felix Velasco eta Cesareo Hernandez *el Españolito* etorri ziren. Aurkezpenean toreatzaileek lutua eraman zuten martxoaren 8an Salvador Sanchez *Frascuelo* hil zelako. Lehen hiru zezenek legea bete zuten eta laugarrena oso ona izan zen. Lehen zezenak Emilio Rodriguez *Guitarra* peoia harrapatu zuen. Bigarrenak berriz Velasco–ri galtzak urratu zizkion eta *Cerrajillas* banderilariari jakatxoa.Laugarrenak airera bota zuen *Mazzantinito* banderilaria eta Cesareo Hernandez *el Españolito*ri berriz ezkerreko eskumuturra zauritu zitzaion ezpataz hiltzerakoan. Velasco–k hil behar izan zuen zezen hura. Jose Martinez *el Aventurero* nabarmendu zen pikatzen.

Martxoaren 19an, Vista Alegren nobillada zen egun berean, Bilboko Campos Eliseos–en zegoen plazatxoan tauromaki eskola inauguratu zen Jose Cortés jaunaren gidaritzapean. Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Jesus Bilbao eta Luziano Bilbao *Lunares* igorretarra nabarmendu ziren.

1898.eko martxoaren 20an, biharamunean, eman zen bigarren nobillada Vista Alegren. Torres–en hiru zezenko eta Carlos Navarro–ren alargunaren beste bi plazaratu zituzten Bartolomé Jimenez *Murcia*, Felix Velasco eta Maximiliano Jimenez *Jumillanito*rentzat. Torres–en bigarren zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten, eta besteak ere koldar portatu ziren. *Murcia* gaizki egon zen, eta Felix Velasco ongi; hiltzen batez ere. Belarri bat eman zioten. *Jumillanitok* bere zezenkoa bizikletaz burtzikatuko zuela adierazi zion jendeari, baina ezer onik egin ez zuelako, jendeak asperturik hondarrera jaitsi eta zezenkoa adarretatik helduta toriletara sartu zuen.

1898.eko hirugarren nobillada apirilaren 10ean izan zen Vista Alegren. Guadalix de la Sierra–ko Cortés–en sei zezenko hil zituzten Felix Velasco eta Antonio Olmedo *Valentin*ek. Zezenko zailak zirelako, Velasco–k ez zuen luzitzerik lortu. *Valentini* ausardia bakarrik ikusi zioten. Hankaz gora askotan ibili zen.

Apirilaren 17ko nobilladan *Quinito*, Antolin eta Julian Aranguren–ek Carlos Navarro–ren alargunaren sei zezenko hil zituzten. *Quinitok* bere lau zezenkoetan zorte ona izan zuen. Laugarrenaren belarria eman zioten. Antolin eta Julian Aranguren *Julianillok* nola edo hala hil zituzten beren zezenkoak.

Maiatzaren 2an korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Carlos Navarro–ren alargunak sei zezen bidali zituen Enrique Vargas *Minuto* eta Angel Garcia de la Flor *Padilla*rentzat. Korrida hasieran umeak atera ziren plazara eskuetan bandera espainiarrak eta arrastaka yanquee–ak zituztela; Cuba–ko gerra bete–betean bait zegoen. Zezenek zailtasunak erakutsi zituzten eta toreatzaileek luzitzerik ez zuten izan. *Minutok* kapotez zertxobait egin zuen.

Biharamunean, maiatzaren 3an alegia, Carlota Sanchez–en sei zezenekin ezpatari berberek arrakasta lortu zuten. Bakoitzari belarri bat eman zioten. Hirugarren zezena hil eta ateratakoan, zerri bat bota zuten hondarrera, buztanean sututako bandera yanquee–a zuela.

1898.eko maiatzaren 22an, Mateos–en lau zezenko plazaratu zituzten. Carlos Guasch *Finito* eta Francisco Perez *el Naverito* oso larri ibili ziren, lau zezenkoak zirudienez aurrez toreaturik zeudelako. *Anguilero* banderilaria zauriturik suertatu zen.

Ekainaren 9an Colmenar–eko Puente Lopez–en sei zezen toreatzera Nicanor Villa *Villita* etorri zen Bilbora. Bederatzi zaldi hil ziren korrida hartan.

1898.eko ekainaren 19an Labiada–ren lau zezenko ekarriak zeuden Felix Velasco eta Antonio Olmedo *Valentin*entzat. Lehen zezenkoa bakarrik jokatu zuten. Gorria, handia eta adakera onekoa zen. Aguilar–ek pikatu eta berehala *Valentin* larri ibili zen. Bigarren pikaldian, Aguilar zalditik bota egin zuen, eta Velasco eta *Valentin* kitea egitera joan arren, Labiada–ren zezenko maltzurrak Aguilar zauritu egin zuen. Baita Velasco ere berehala. Gero zezenkoak hirutan salto egin zuen kailejoira. Antonio Olmedo *Valentin* hiltzera joan zitzaion, baina lehen ezpatakadan toreatzailea izterrondoan adarkatuta airera bidali zuen. Ezpatariak erizaindegian zirela, marrazo hura toriletara bueltatuta bertan behara geratu zen arratsalde hartako nobillada.

Abuztuko korridetarako, Mazzantini, Rafael Guerra *Guerrita* eta Antonio Reverte kontratatu zituzten. Hilaren 21ean izan zen lehen korrida Concha y Sierra–ren sei zezen medio. Bostgarren eta seigarrena ezik, gainerakoak erdipurdikoak suertatu ziren. Bostgarrenak pikatzaile guztiak ikaratu zituen. Rafael Moreno *Beaok* pikaldi batean desegina utzi zuen zezena eta hango zalaparta ez zen makala izan. Korrida etenda egon zen. Gero *Guerritak* bere lehenengoan belarria lortu zuen.

Reverte eta *Guerrita* alai eta dotore aritu ziren kapotez.

1898. urteko abuztuaren 22an Murube–ren sei zezen atera zituzten; ederrak eta suharrak. Mazzantinik ezpata ederki maneiatu zuen eta bostgarrenari banderilak maisuki sartu zizkion. *Guerrita* eta Reverte–k belarri bana lortu zuten.

Abuztuaren 23ko korridan Saltillo–ko markesaren zezenei burrukarako gogoa ikusi zitzaien. Oso ongi pikatu zituzten. Bostgarrenari banderilak Mazzantini eta *Guerritak* sartu zizkioten. Hiru ezpatariei belarri bana eman zieten.

Abuztuaren 24eko korridan Anastasio Martin–en sei zezen eta Murube–ren bat jokatu zituzten. Zezenek eta toreatzaileek legea bete eta txalo batzuk jaso zituzten. Jose Rodriguez *Bebé chico* izan zen ordezko ezpataria[111].

Bilbon 1898.ean *La Revista Taurina* izeneko aldizkaria argitaratu zen, eta Donostian *San Sebastian Taurino* izenekoa. Aurreko urtean *Bilbao Taurino; Vista Alegre* ere bai[120].

San Fausto–ko festetako bezperan, Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa* eta bere lagunak plazarako zezenkoak zeuden lekura hurbildu ziren bat edo beste tentatzeko asmotan. Zaintzaileek harrapatu eta makilatu egin zituzten. Julian Aranguren ordea, hamazazpi urteko toreatzailea, begira egon zen, eta egurtutako lagunengana zihoanean, norbaitek tiroa bota zion eskopetaz. Hanka moztu egin behar izan zioten Julian Aranguren *Julianillori*[155].

Kastor Jauregibeitia Ibarra *Bilboko kotxeritoa* bera gaizki ibili zen 1898.eko abuztuaren 1ean. Azpeitian Lorentzo Idiazabal–ek urteko 210 pezetatan lau urterako barrerak ipini eta kendu egiteko kontratua lortu ondoren, dena prest zegoen saninaziotako nobilladatarako. Bartolome Uzin jaunak hiltzeko hiruna zezenko (28 eta 32 erralde bitartekoak) eta Lasturreko zezenko bat ekarriak zituen uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean jokatzeko. Abuztuaren 2rako 20na erraldeko beste bi zezenko zeuden. Kastor Jauregibeitiak, bi arratsaldetan Zalduendoren alargunaren sei zezenko hilko zituen. Abuztuaren 1ean dena den, banderilak sartzera zihoala izterrondoan zezenkoak adarra sartu zion larriki zaurituz. Oso gaizki egon zen *Bilboko kotxeritoa* Azpeitiko Errukietxean. Azpeitiarrek oso ondo zaindu zuten hilabete luzez sendatu zen arte[6].

1898. urteko irailaren 26an, Arrasaten Zipriano Loidi jaio zen. Gero *Mondragón* goitizenez nobilladatan parte hartu zuen[99]. Inazio Zuloaga eibartarra berriz, toreatzaile–lanak utzia zen jadanik. Pintzelak maneiatzen trebetasuna erakutsi zuen urte hartan, *Víspera de la corrida* izendatutako koadroa burututa[147].

Donostian 1898. urtean sokamuturra ez zeukaten saltzeko. San Sebastian egunean goizeko zortzietan Lasturreko zezenko bat jokatu zen, salamankino eta andalusiar bat hamabietan, Colmenar–eko bat arratsaldeko lauretan eta beste bana lau t´erdietan nahiz bostetan[17].

Donostiako Alderdi Zaharreko sokamuturra atsegin zitzaien bertakoei. Ugartemendia–ren sagardotegi atarian Patrizio Bus egon ohi zen, Iñigo kalean. Aristizabal–en lehengo kafetegia, Antton *Ixkiña, Xemeritoren* etxeko portalea, *Baka*, San Joan kalea, Joan Azpiazu etab. famatuak ziren sokamutur haietan[179]. Kaietano Sanchez Irure donostiarrak 1898.ean ipinitako bertsoak ere interesgarriak dira. Hara zer dioten:

EMENDEK SOKA-MUTURRA

1/ Plazara daramate
idi bat sokatik,
iges egiñ ez dezan
lotuta lepotik:
ez pentsa dijuala
idiya bakarrik,
makiñachobat gizon
baguaz ondotik.

2/ Plazan chunchuna dala
senti da "Bakatik",
danok chit pozaz gaude
soñu au entzunik;
zarrak eta gaztiak
iya zoraturik,
bullan ta ixkamillan
ixildu eziñik.

3/ Gure Donostiyako
ez baita festarik,
iñauteriz jokatzen
ezbada idirik;
aurten chit pozaz gaude
danok iñauteriz,
iñorchok ezdaukagu
ustez zer esanik.

4/ Aurten izango dira
esaten dutenez,
oso jolas politak
gabaz ta egunez;
ikusiko ditugu
azbagaude miñez,
egunak iristeko
zaleturik gaudez.

5/ Idi ta zezen-suzko
musika, chunchuna,
luminari politak,
aurten naideguna;
jan ta ondo jantziya
jende ezaguna,
triste daudenak farrez
jarriko dituna.

6/ Danai desiatutzen
dizuet bai aurten,
iñauteriko festaz

elkarrekin gauden;
bitartian okerrik
ezbada izaten,
danok pozez beterik
ikusi gaitezen[182].

Donostiako udako korridetan, Aleas, Veragua eta Saltillo–ren zezenekin *Guerrita*k txalo asko eta belarri batzuk lortu zituen[100].

Iruñean 1898.eko sanferminetara Rafael Guerra *Guerrita*, Antonio Fuentes eta Emilio Torres *Bombita* ziren etortzekoak lau korrida eta proba batean 27 zezen hiltzera[115].

Sei zezen Concha y Sierra–ren alargunari, Celsa Fontfrede andereari, eskatu zizkioten Sevillara gutuna idatzita. Jadanik aipatua dugu aurreko urtean Espoz y Mina–ren zezen bati Sevillan suzko banderilak ipini zizkiotela eta Iruñean Sevillako zezenen kontrako giroa zegoela. Aurreko sanferminetan ordea, Celsa Fontfrede–ren zezenak oso txalotuak izan ziren suhar jokatu zutelako.

Dena dela, 1898. urtean Celsa andereak sei zezen bidali zituen 10.000 pezetaren truk. Iruindar batzuek ordea, erabakia zuten zezen haiek plazara ez zirela sartuko. Sadar ibai ondoko belarditik Iruñera Larrotxapea–ra Celsa Fontfrede–ren zezenak uztailaren 10ean egunsentian zekartzatela, latorri eta harriz berebiziko zarata atera zuten ezezagun batzuek, eta sei zezenak sakabanatu egin ziren inguruko soro eta belardietara. Zezenak biltzen hasi ziren berehala, baina Iruñeko jendeak goizeko seietan entzierroa ikustera joan zenean jakin zuen gertatutakoa. Oltza–ko Jose Otxoa jauna, Aldaba–ko ibarrera iritsi zenean zezen artean igaro zen ezjakinean. Bost zezen bildu ahal izan zituzten eta seigarrena, *Borrego* izenekoa, Oskia aldera joan zen. Zurigorribeltza zen; adakera onekoa[3]. Sakana aldean ibili zen behiak estaliz eta bat baino gehiago estutasunean jarriz, azaroan goarda zibilek hil zuten arte[139]. Gorabehera franko izan zen hura medio, Jose Joakin Arazuri idazleak ederki adierazten duenez[153].

Iruñeko sanferminetan dena den, uztailaren 11ko korrida bertan behera gelditu zen, baina *Guerrita*, Fuentes eta Emilio Torres *Bombita*ri ordaindu egin behar izan zieten. Celsa Fontfrede–k ere zezenak Sevillara itzultzea exigitu zuen. Oztopo haiek ikusita, Iruñeko Udalak gas–fabrikaren lurrak erosi zituen. Konpainia holandar baten gas–fabrika 1898. urtean itxita zegoen, eta korronte elektrikoa Iruñera sartua zegoenez gero, Udalak urte hartako abenduan erosi egin zuen lur eta guzti. Harez gero zezenak gas–fabrikara etorriko ziren eta ez Sadar ibaiaren ondoko belardietara. Gas–fabrika gainera, trenbidearen ondoan zegoenez gero, egokia zen zezenak zurezko kaiola handitan garraiatzen zirenerako[3].

Baina sanferminetara itzulita, aipa dezagun korridak ezik gainerako festak suspenditu egin zirela Cuba–ko gerrako hondamena medio. Korridetan Espoz y Mina–ren zezenak (hamahiru zaldi hil zituzten), Lizaso anaienak eta Funes–eko Diaz–en seme–alabenak (berrogeitabi pikalditan hamahiru zaldi hil zituzten) jokatu ziren. Baita Atanasio Martin–en sei zezen andalusiar ere. Seigarrenak lau zaldi hil zituen[153].

1898. urte hartan, Saturio Toron jaio zen Lizarran; gero zezen–hiltzaile izango zena.

1898. urte hasieran Mazzantini Mexikon zen Nicanor Villa *Villita*rekin batera. Urtarrilaren 20an San Luis de Potosí–n toreatu zuten[8]. Otsailaren 13an Luis Mazzantinik La Habana–ko Regla–ko plazan Jose Centeno–rekin batera Anastasio Martin–en zezenak toreatu zituen bere koadrilakoei laguntzearren antolatutako korridan. Otsailaren 27an plaza hartan bertan Benjumea–ren

zezenak toreatu zituen. Bostgarrenari banderilak sartu zizkion[136].

Luis Mazzantini 1898. urte hasieran Mexiko-tik itzulita martxoaren 19ko korridan Madrilen parte hartu zuen *Guerrita* eta Reverte-rekin batera Adalid-en zezenak hilez. Maiatzaren 12an ere bai, Cuba-ko gerra zela eta antolatu zen korrida patriotikoan Madrilen bertan. Valentin Martin, *Guerrita*, Rafael Bejarano *Torerito*, *Lagartijillo*, Enrique Vargas *Minuto*, Reverte, Fuentes, Emilio Torres *Bombita* eta Nicanor Villa *Villita*k ere toreatu zuten korrida hartan[100].

Mazzantinik ez zuen 1898.ean Madrilen gehiago toreatu. Sevilla, Bilbo eta zenbait lekutan bai ordea. Dena dela Luis Mazzantini gehiegi gizentzen ari zen, eta aldi berean indarra eta sasoia galtzen ere bai. Irailaren 8an *Villita*rekin batera Badajoz-en toreatu zuen[8]. Dirudienez Benjumea-ren zezenak korritu ziren. Laugarrenaren faena, makulu eta guzti zegoen ikusle herren bati eskaini omen zion. Gero zezenak izterrean adarra sartu eta zauriturik suertatu zen elgoibartarra. Herrenak zioenez, Luis Mazzantinik *malapata* izan zuen[32].

Mazzantinik 1898.ean Sevillan ere toreatu zuen beste korrida "patriotiko" batean. Hango alkatea lehendakari zegoenez gero, berari egin zion brindisa. Brindis luze, patrioteroa eta ponpoxoa hain zuzen. Honela bait zioen:

Brindo por el señor alcalde, que representa a esta noble ciudad; por el triunfo del ejército y la armada en la guerra con los Estados Unidos y hago votos por que los corazones de todos los españoles vibren al unísono en el sacrosanto nombre de la patria.

*Guerrita*k korrida berean brindis laburragoa egin zuen, noski. *Brindo por er arcarde... que es mi paisano, y ¡viva España!* esanez hasi bait zen lanean.

1898. urtean Mazzantini korridatan zezenak zozketatzearen sistema gero eta gehiago ari zen ezartzen. Bere ahaldundu Federico Minguez-ek Madrileko *Heraldo* egunkarian ere idatzi zuen zozketaren premia aldarrikatuz[9].

1899. urteko nobilladak apirilaren 30ean hasi ziren Bilboko Vista Alegren. Biencinto-ren sei zezenko Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Rafael Molina Martinez *Lagartijo chico* Cordobako toreatzaile gazteek hil zituzten. Hirugarren zezenkoak bost zaldi hil zituen. Bi toreatzaileek arrakasta handia lortu zuten. *Machaquito*ri bere lehenengoaren belarria eman zioten. Hirugarren zezenkoarena ere bai, nahiz eta bigarren ezpatakadan hil eta harrapatua izan. Bostgarrenari banderilak sartzerakoan ordea, adarkatua izan zen eta plazatik erretiratu egin zuten. *Lagartijo chico*k ere belarri bana lortu zuen bigarren eta laugarrenean. Bostgarren eta seigarren zezenkoan ere ausart egon zen Rafael cordobarra.

Maiatzaren 2an izan zen Bilboko bigarren nobillada. Otaolaurretxi-ren sei zezenko plazaratu zituzten. *Machaquito* zauriturik zegoenez gero, bere ordez Antonio Moreno *Lagartijillo* ipini zuten, baina *Lagartijillo*k alternatiba hartua zuenez gero, lehen lau zezenkoak hil zituen. *Lagartijillo*k bigarren zezenean belarria lortu zuen. Rafael Molina Martinez *Lagartijo chico* are eta hobeto egon zen. Bere bi zezenkoen belarriak irabazi ondoren, bizkar gainean atera zuten plazatik.

1899. urteko ekainaren 1ean Vicente Martinez-en sei zezen plazaratu zituzten Miguel Baez *Litri* eta Felix Velasco-rentzat. *Litri* txalotua izan zen bere zezenetan, baina Velasco-k zorte txarragoa izan zuen. Laugarren zezena hiltzerakoan zauritua gertatu zen. Baita Julio Vicente *Cerrajas* pikatzailea ere.

Ekainaren 18ko korridan, Bilboko Vista Alegren Herran-en sei zezen toreatu zituzten

Antonio de Dios *Conejito* eta Antonio Guerrero *Guerreritok*. *Conejito* lehen zezena nola hil asmatu ezinik ibili zen. Hirugarrenean ordea faena eta ezpatakada bikainaren ondoren belarria eman zioten. Bostgarrenari banderilak ederki sartu zizkion. *Guerreritok* ez zuen ezer berezirik egin, bostgarrenari sartutako banderila-pare eder bat ezik. Bilbon sekula sartu den onenetakoa zela zioten batzuek. Antonio de Dios *Comearroz* eta Miguel Sanchez *Botero* pikatzaileak ere nabarmendu ziren[111].

Cossio-k dioenez, urte hartako ekainaren 24ean Bilbon Luis Alcarraz pikatzaile biasteriarra aurkeztu zen[8].

1899. urteko abuztuan lau korrida eman zituzten Bilboko Vista Alegren ohi bezala. Hilaren 20an izan zen lehenengoa. Anastasio Martin-en zezenak atera ziren hondarrera Rafael Guerra *Guerrita*, Antonio Reverte eta Joaquin Hernandez *Parrao*k hil zitzaten. Bostgarren zezena bakarrik portatu zen ondo. *Guerritak* bere bigarren zezenari egindako faena eta ezpatakada izan ziren gauzarik onenak. Belarria eman zioten. *Parrao*ri ere eman zioten seigarrenaren belarria, faena ongi burutu ondoren zezena ederki hiltzeagatik. Mazzantini zauritua zegoelako ez zen Bilbora 1899.eko abuztuan etorri.

Abuztuaren 21ean Murube-ren sei zezen jokatu ziren; zezen suharrak eta nobleak. *Guerrita* bere bi zezenetan luzitu zen, bai kapote-muleta eta bai ezpataz. Reverte-k ez zuen zorte onik izan, nahiz eta ausart jokatu. Joaquin Hernandez *Parrao* ere oso txalotua izan zen. Seigarren zezenak Manuel Macipe pikatzailea zauritu egin zuen.

1899.eko abuztuaren 22an Saltillo-ko markesaren sei zezen toreatu zituzten *Guerrita*, Antonio Moreno *Lagartijillo* eta Reverte-k. *Guerrita* bere lehen zezenean guztiz ongi aritu zen. Zezena zetorkiola hil zuen bigarren saioan, belarria lortuz. *Lagartijillo* ez zen ondo egon bere bi zezenetan. Reverte berriz, batean gaizki eta bestean ongi. Bere bigarrenari ezpata goi-goian sartu zion. Tomas Mazzantinik ere banderilak sartu zituen (ederki gainera), bere anaia Luisen koadrilakoa zelako.

Abuztuaren 23an eman zen Bilbon laugarren eta azken korrida. Benjumea-ren sei zezen eta Anastasio Martin-en bat korritu ziren. Bezperako ezpatariek hil zituzten. Zazpigarrena berriz, Jose Rodriguez *Bebé chico* ordezko ezpatariak. Benjumea-ren zezenak denetan onenak izan ziren. *Guerrita* bere lehenengoan asko luzitu zen. Bigarren zezenaren gainetik salto egin zuen *Guerritak*. Faena guztiz bikaina izan zen, eta ezpata girteneraino goi-goian sartu zionez gero, belarria eman zioten amaitu ezinezko txalo artean. Antonio Moreno *Lagartijillo* ere asko luzitu zen, bere bi zezenen belarria lortuz. Reverte-k lehen zezenean ez zuen gauza handirik egin, baina seigarrenean belarria eman zioten. Jose Rodriguez *Bebé chico*k bukaeran Anastasio Martin-en zezena hil zuenean txaloak entzun zituen.

Dena dela abuztuaren 23a izan zen Rafael Guerra *Guerritak* Bilbon toreatutako azken korrida; ustegabean urrian erretiratu egin bait zen 37 urte zituela (sasoi onean) 882 korridatan 2.339 zezen hil ondoren. Inoiz ere ez zizkioten plazan hiru abisuak bidali[111].

Reverte-rentzat ere urte txarra izan zen 1899.a. Baionan guztiz larriki zauriturik suertatu bait zen, geroxeago esango dugunez[183].

Bilbon Sabino Aranak ordea, 1899.ean ere zezenak aipatu zituen bere idaztietan. Honela bait zioen bere pasarte batean:

...los que hoy viven en continuo roce con el extraño, los que usan navaja, los que

blasfeman, los que cantan flamenco, estos están civilizados...

Civilizados con la espléndida civilización que los horteras, polizontes, mineros y demás sabios del pais de pan y toros nos han regalado.

Bizkaiko Diputazioko bileretan berriz, urte hartako maiatzean Fika–ko parrokiari diru–laguntza ematea eta Teatro Berriari nahiz zezenplazari ez ematea defendatu zuen, batean gehienetan saio likits eta nazkagarriak ematen zirelako eta bestean lurralde arrotzetik ekarritako ikuskizun arlote eta lotsagarria ematen zelako. Leon jaunarekin eztabaida izan zuen Sabino Aranak puntu hau zela eta[160].

Lekeition 1899.eko irailaren 2an nobillada eman zen. Bertan Mariano Ponce *Cocherito de Murcia* eskuineko izterrean adarkatu egin zuen zezenkoak. Mariano Ponce–k Kastor Jauregibeitia eta Rufino San Bizente eraman ohi zituen bere koadrilan.

Bestetik 1899.eko urtarrilaren 1ean Manuel Sagasti jaio zen Bilbon. Gero zezenko–hiltzaile gisa lan egin zuen[8].

Donostian beti bezala 1899.eko urte hasieran sansebastianak eta ihauteriak sokamuturra korrituz ospatu zituzten. Joan Inazio Uranga–k gainera honako bertso hauek jarri zituen *La Unión Vascongada* aldizkarian:

1/ Goizian goizetikan
damborraren otsak,
jarri gaitu guztiyok
biyotzez chit pozak;
ez gaitu ikaratzen
elur ta ez otzak
naiz eduki otzaren
bidez, kas, kas, ortzak.

2/ Gaur festarako gaude
guztiro pixtuak
diralako idiyak
edo idixkuak
plazan ez du ikarik
daben arrixkuak
ala diyote behintzat
damboliñ chistuak.

3/ Eguna asten danez
bezela argitzen
iriyarena degu
pozgiroz aditzen;
len diranak oyean
egonez nagitzen,
ditu soñu zar orrek
biziro arintzen.

4/ Batzuek geldi eta
bestiak igeska

festaz gu pozgirotzen
chit gauza errez da
sokamuturrarekin
idi jostaketa
da donostiar denak
maite duten festa[17].

Donostian 1899.eko udan *Guerrita* etorri zen Murube eta Saltillo–ko markesaren zezenak toreatzera. Ongi atera zitzaizkion gauzak eta txalotua izan zen[100]. Abuztuaren 15eko korridan Murube–ren zezen batek Antonio de Dios *Conejito* ezpataria lepoan zauritu zuen. Juan Sal Lopez *Salerik* ere toreatu zuen Donostiako plazan nobillada batean uda hartan[8].

Gipuzkoako herri askotan ere sokamuturra korritzen zen festetan. Soraluze–n adibidez, abuztuan jokatu zuten 1899.ean, Ramon Gorosta hil zenean. Honela bait dio Gorrotxategi bertsolariak jarritako bertso batek:

.....
Plazentziara festak
abuztuan urbil
jende dana jaietan
dago trankil trankil
gora bera zezena
kalietan dabil
gaxo txar batek jota
gure Gorosta il.[184].

Azpeitian 1899. urtean Udalak saninaziotako zezenfestetarako baldintzak ipini zituen. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean arratsaldero hiltzeko hiru nafar–zezen eta Lasturreko beste bat korritu behar ziren. Nafar–zezenek gutxienez 32 erralde izango zituzten eta Espoz y Mina, Zalduendo–ren alarguna eta Lizaso anaiak edo Elortz–en ganadutegikoak izango ziren.

Baldintza haiek onartuko zituenik ez zen udaletxera aurkeztu, eta ondorioz, bi arratsaldeetan bost nafar–zezen ekartzea onartu zuten. Julian Arregi eta Inazio Bereziartua izan ziren urte hartako enpresariak.

Herrian zegoen musika–bandak, herriko plazan lekuz aldatzea eskatu zuen. Bestetik, Azpeitian zezenplaza berria egiteko lehen urratsak ematearren batzorde bat antolatu zen. Inazio Orbegozo, Joan Jose Iriarte, Joan Mari Azilona eta Frantzisko Mari Alberdi izendatu zituzten batzorderako[6].

Gipuzkoako herrietan agintari eta herritarrek herriko festetan edo hiletetan 1899. urte inguruan zeramatzaten erropei buruz gauza jakingarriak esaten ditu Jose Migel Barandiaran–ek. Ataunen adibidez, hiletetara gizonezkoak kapa jantzita joaten ziren. Ez zeukanak auzokoari eskatzen zion, bestela nabarmen gelditzen zelako. Gero hasi ziren kanpotar batzuk traje beltzez kaparik gabe joaten, eta baita herriko handikiak ere gero. Kapa baztertu zuten lehen nekazari eta langileei handinahikeria egozten zioten besteek[185].

Mende honen hasieran Aizarna–n ere baserritarrek hiletarako edo jaiegun nagusietan kapa janzten zuten. Beizama–n ere bai, eta hiletara abarka–mantar eta guzti joaten ziren. Elosua–n ere kapa zeramaten baserritarrek XX. mendearen erdialderarte. Zumarraga–ko alkate zen Joan Mendia–k

adibidez, kapa eta txistera janzten zituen festaburutan.

Bestetik ez da ahaztu behar toreatzaileen kapak hasieran janztekoak zirela. Goia pintatzaileak adibidez, Bernardo Alcalde *Faltzeseko lizentziatua* kapa eta guzti marraztu zuen, nafarra toreatzen ari delarik.

1899. urtean, Irufieko sanferminetarako zezenak gas-fabrika zaharraren lurretan edukitzen hasi ziren. Korridetarako zezenak kaiolatan zetozenean, Udalak bi pezeta kobratzen zuen zezenak kaxa handi haietatik ateratzen ikustea[139]. Handik zezenak gauez Larrotxapea-ko gotorlekura eramaten zituzten eta gero festa-eguneko egunsentian gaur eguneko bide berberari jarraituz zezenplazara[3]. Zezenen ibilbidearen azken metroak zerbait aldatu ziren gero, oraingo zezenplaza eraiki zenean.

Sanferminetako korridetan besteak beste, *Guerrita* etorri zen (azken aldiz) toreatzera. Espoz y Mina-ren zezenak hil zituen[100]. Festetako egun batean Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Rafael Molina *Lagartijo chico*k parte hartu zuten nobillada batean. Hirugarren zezenean eurijasa egin zuen, eta nobillada bertan behara gelditu zen. Pablo Sarasate musikaria han zegoen palko batean atertu zain. Hondarrean berriz, mutiko batzuk zeuden zezenetara jolasten. Batek zezena brindatu zion musikari ospatsuari, eta faena amaitu zuenean palkora joanda propina eman zion Sarasate iruindarrak[153].

1899. urteko irailaren 12an Fitero-n Zalduendoren lau zezen toreatu zituen Jose Rodriguez Davie *Pepetek*, Joaquin Calero *Calerito* ordezko ezpatari zela. Lehen bi zezenetan txalotua izan zen. *Cantinero* izeneko zezena atera zuten ondoren; gorribeltza. *Cerrajas*ek pikatu ondoren *Pepetek* kapotez toreatu zuen. Zezenak segi egin zion barrerara, eta kailejoira saltatuz, adarkadaz toreatzailea hondarrera bota zuen. Ezkerreko izterrean larriki zaurituta, biharamunean goizeko seietan hil egin zen Jose Rodriguez Davie *Pepete*[8].

Fitero-n Jose Rodriguez Davie *Pepete* hil zen urte hartantxe, 1899.ean alegia, Tafalla-n apirilaren 14ean Candido Tiebas jaio zen. Bere aitonari bezalaxe *el Obispo* goitizenez deitzen zioten eta zezenko-hiltzaile gisa nabarmendu zen gero[186].

Nafar-zezenak leku askotan toreatu ziren1899. urtean. Maiatzaren 11n Bordele-n inauguratu zen plaza berria Benatte kalean. Antonio Fuentes eta Antonio Reverte-k parte hartu zuten hain zuzen lehen korridan[28]. Geroago Zalduendoren zezenak ere korritu ziren han. *Guerrita*k parte hartu zuen haiek hiltzen[100]. Luchón-en ere zezenplaza berria inauguratu zen uztailaren 23ko korridaren bitartez. Tuterako Lizaso anaien zezenak jokatu ziren. Lehenengoa, *Artillero* izenekoa, Enrique Vargas *Minuto*k hil zuen[9]. Lizaso anaien zezenak Mendi Martzana-n ere korritu zituzten 1899.ean. *Guerrita*k hil zituen. Akize-n ere izan zen *Guerrita* 1899.ean Esteban Hernandez-en zezenak toreatzen.

Rafael Guerra *Guerrita*ren azken korrida, Zaragozan ospatu zen urriaren 15ean. Funes-eko Jorge Diaz-en sei zezen toreatu eta hil zituzten Jose Garcia *Algabeño*, Nicanor Villa *Villita* eta aipatutako *Guerrita*k. Hirugarren zezena toriletara itzuli zuten koldarra zelako. *Villita*k ez zuen ezer berezirik egin. *Algabeño*k berriz bostgarren zezena oso ongi hil zuen. *Guerrita*k laugarren zezena bere lagun Jose Noval jaunari eskaini zion, eta zezena hil zuenean, aberearen burua eta azkazalak gorde ziezazkioten eskatu zuen. Hurrengo egunean erretiratu egin zenaren berria zabaldu zen[100]. *Guerrita*k azkena hildako zezen hark, *Limon* izena zuen[5]. *Guerrita*k sasoiko zegoela erretiratzeko izandako arrazoi bat, 1899.eko irailaren 3an Baionan ospatutako korrida izango zen.

Beste arrazoi bat bere emazteak zuen bihotzeko gaitza omen zen. Gainera jendeak zenbait plazatan ez zuen onartzen bere izakeragatik, nahiz eta ongi lan egin. Madrileko ikusleek gainera zezen handiak exigitzen zituzten, eta ez Saltillo, Murube, Veragua edo Cámara-reṇ zezen txikiak[100]. Mazzantinirekin ere gaizki konpontzen zen. Madrileko publikoa elgoibartarraren alde atera zitzaion gainera.

Gatozen ordea 1899.eko irailaren 3an Baionan gertatu zenera. *Guerrita* eta Antonio Reverte Sevillako Eduardo Ibarra jaunaren zezenak toreatzen ari ziren. *Grillito* izeneko zezenari, bigarrenari, Reverte ezpata ederki sartu ondoren belauniko jarri zitzaion aurrean. *Grillito*k sekulako adarkada sartu zion ezkerreko izterrean; inoiz eman den handienetakoa. Ia hilean egon zen eta denbora asko behar izan zuen sendatzeko. Harez gero gainera, plazan lehengo mailara ez zen iritsi[8].

Antonio Reverte toreatzaile famatua zen. Baita emakumeentzat ere. Oso ezaguna zen *No te tires Reverte...* zioen kopla. Bermeotik Bilbora arraina saltzera zihoazen emakumeek ere kantatzen zuten beren kopla euskal fonetikaren kutsuz eta bertso-doinuan. Honela zioen letrak:

¿Donde vas, Erreberte,
con tanta grasia?
¿Donde vas, Erreberte,
con tanto ardor?
¿Donde vas, Erreberte,
con tu elegansia?
– Voy a matar el toro, ¡Maitia!
con mucho valor[111].

Baionan 1899. urteko irailerako beste bi korrida ere iragarri zituzten. Irailaren 10ean Antonio Escobar *el Boto*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Rafael Molina *Lagartijo chico*k Antonio Guerra-ren lau urteko zortzi zezen toreatu eta hilko zituzten. Irailaren 17an berriz, Enrique Vargas *Minuto* eta Antonio Fuentes-en txanda izango zen. Jose de la Cámara-ren sei zezen korrituko ziren[11].

Akize-n berriz, Cheri toreatzaile landetarra plazako istripuz hil egin zen[31].

Eta 1899.eko albiste-zerrenda bukatzeko, esan dezagun Tomas Mazzantini (Luisen anaia) udazkenean zezenko-hiltzaile gisa lan egitera Mexikora joan zela[8].

1900. urteko berriei ekingo diogu XIX. mendeari amaiera emateko. Bilboko Vista Alegren denboraldia martxoaren 18an hasi zen. Carreros-en sei zezen jokatuko zituzten; hirugarrena ezik oso koldar eta iheslariak. Fernando Herrero *Cantaritos* eta Antonio Ortiz *Morito* aritu ziren. *Cantaritos*ek ez zuen jendea pozik utzi, eta *Morito* eskumuturrean min hartuta erizaindegira erretiratu egin zen. Kapotez eta banderilak sartzen *Bilboko kotxeritoa* izan zen onena.

Martxoaren 25ean eman zuten bigarren nobillada Vista Alegren. Valle-ren sei zezenko hil zituzten Manuel Molina *Algabeño chico* eta Rafael Gomez Ortega *Gallito*k. Zezenkoak ongi portatu ziren, nahiz eta txiki samarrak izan. *Algabeño chico*k bigarrenean belarria lortu zuen. Bostgarren eta seigarrena ederki banderilaztatu zituen.

1900.eko apirilaren 1ean, ezpatari berberentzat Carreros-en sei zezenko plazaratu zituzten. Ganadua txarra suertatu zitzaien, baina ezpatarien lana gustatu zitzaien ikusleei. *Algabeño chico*k, aurreko nobilladan baino hobeto maneiatu zuen ezpata. Hirugarrena hiltzerakoan zezenak

eskumuturrean zauria utzi zion, baina hala eta guztiz ere bostgarrenean belarria lortu zuen.

Apirilaren 15ean eman zen Vista Alegren urteko laugarren nobillada. Sanchez Caballero–ren sei zezenko plazaratu zituzten, Manuel Garcia Reverte *Revertito*, Antonio Suarez *Suarito* eta Juan Sal *Saleri*rentzat. Hirugarren, laugarren eta bostgarren zezenkoak suhar portatu ziren, baina beste hirurak arriskutsuak suertatu zitzaizkien. *Revertito*k bere bigarren zezenkoari sartutako ezpatakada eta banderilak, *Saleri*k laugarrenaren gainetik egindako saltoa eta *Suarito*k oinak txapel batean sartuta iskintxo eginez banderilak sartzen egindako saioa dira aipagarriak.

1900. urteko apirilaren 29an korrida eman zen Vista Alegren. Antonio de Dios *Conejito* eta Antonio Montes Vico izan ziren ezpatariak. Villamarta–ren zezenek, ederrak eta onak, txaloak jaso zituzten. 48 aldiz pikatu ziren. *Conejito*k ederki hil zituen bere lehen eta bigarren zezena. Bere hirugarrenean asmatu ezinik ibili zen ordea. Antonio Montes azken zezenean bakarrik egon zen ongi. Jose Martinez *el Aventurero* eta Manuel de la Haba *Zurito* pikatzaileak zauriturik suertatu ziren.

Maiatzaren 2an beste korrida bat eman zen Bilbon. Carreros–en sei zezen hiltzera Antonio de Dios *Conejito*, Antonio Montes eta Ricardo Torres *Bombita II.a* aurkeztu ziren. Ricardo Torres–ek lurrean zegoen Manuel de la Haba *Zurito* pikatzailea zezenari buztanetik helduta salbatu zuen. *Bombita* bigarrenari seigarren zezena oso ongi hiltzeagatik belarria eman zioten[111].

Maiatzaren 13an Colmenar Viejo–ko Martin Colmenarejo–ren sei zezenko toreatu zituzten Germán de León *Facultades*, Francisco Alonso *Paquiro* eta Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa*k. Bi zezenkori suzko banderilak sartu zizkieten. *Facultades* toreatzaile beltza ezpataz asmatu ezinik ibili zen. *Paquiro* ere gaizki aritu zen eta *Bilboko kotxeritoa* izan zen hiruretan onena[8].

Maiatzaren 20ko nobilladan Clairac–en sei zezenko toreatu zituzten Diego Rodas *Morenito de Algeciras*, Juan Sal *Saleri* eta Anastasio Castilla–k. Zezenkoak ederki portatu zirelako toreatzaileak luzitu egin ziren. Diego Rodas–i bigarren zezenaren belarria eman zioten. *Saleri* apain ibili zen bere bi zezenkoetan, nahiz eta hirugarrena kapotea besoan zuela toreatzerakoan galtzak urratuta suertatu. Seigarrenak ere izterrean zauritu zuen. Bostgarren zezenkoari gainetik hagaz salto egin zion. Bere lehen zezenkoari belarria moztea lortu zuen. Castilla toreatzailea ere ongi egon zen arratsalde hartan.

Maiatzaren 24eko nobilladan euria eta haizea egin zuen. Clairac–en sei zezenko Manuel Garcia Reverte *Revertito* eta Juan Sal *Saleri*k hil zituzten. Ordezko ezpatari Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* izan zen. *Revertito*k belarri bat lortu zuen. *Saleri*k ezpata astintzen ez zuen asmatu. Azken zezenkoa, jendeak eskatuta, *Bilboko kotxeritoa*ri utzi zioten toreatu eta hil zezan. Bilbotarrak belarria lortu eta bizkar gainean irten zuen plazatik.

1900.eko maiatzaren 27an Rioseco–ko Chico–ren sei zezenko hiltzera Diego Rodas *Morenito de Algeciras*, Manuel Garcia Reverte *Revertito* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* atera ziren plazara. Zezenko batzuk koldarrak eta beste batzuk itxurazkoak atera zitzaikien. Lehenengo zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten. *Morenito*k belarria lortu zuen laugarrenean, eta *Revertito*k ere bai, bere bi zezenkoetan. Kastor Jauregibeitiak bi faena eder osatu ondoren, ezpatakada banaz hil zituen bere bi zezenkoak. Azkena Bilboko Constantino tenore famatuari eskaini zion. Bi belarri lortu zituen *Bilboko kotxeritoa*k. Eduardo Albasanz *Bonifa* banderilaria ere nabarmendu zen.

Ekainaren 14ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren. Ripamillan–en zortzi zezenko (nafar–kastakoak) plazaratu ziren. Cristobal Fernandez *Pella*, Vicente Pastor,

Francisco Alonso *Paquiro* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*k aurre egin zieten. *Pella*k hiru hil zituen. Bere bi lehenengoetan legea bete zuen, baina zazpigarrenean hil ezinik aritu zen. Vicente Pastor–ek lana oso ongi egin arren, ezpataz ez zuen asmatu. *Paquiro*k bere lehenengoan ez zuen ezer egin eta bestean zauriturik suertatu zen. *Bilboko kotxeritoa*ri kapote bat eman zioten, arratsalde hartan onena izateagatik.

Luziano Bilbao *Lunares* igorretarra arratsalde hartan estreinatu zen banderilari gisa[111]. Aurrez meatzean jo eta ke lan egin zuen toreatzaile–trajea erostearren. Belauniko sartu zituen banderilak txalo artean[8]. Dena dela, Ripamillan–en zezenko haiek jende asko bidali zuten erizaindegira: *Pella, Paquiro*, Eduardo Alegre pikatzailea eta Rikardo Lopez Calle banderilaria.

1900.eko uztailaren 1ean Pancorbo–ko bost zekor jokatu ziren Vista Alegren Errukietxearen eta Ospitale Zibilaren alde dirua biltzearren. Dendatako enplegatuek antolatua zen jaialdi hura eta Jose Maria Omar, Jose S. Nardiz eta Juan Sastre–k toreatu zuten.

Abuztuaren 19an izan zen korridan, Benjumea–ren sei zezen toreatzera Luis Mazzantini, Antonio Fuentes eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeño* aurkeztu ziren. Nahikoa ongi portatu zitzaizkien zezenak. Luis Mazzantini kapote, muleta eta ezpataz luzitu zen. Fuentes–ek ere lana ongi egin zuen bere debutean Bilbon. *Algabeño*k berriz ia ezer ez zuen ondo egin.

1900.eko abuztuaren 20an, biharamunean, Mihura–ren sei zezen toreatu zituzten Antonio Fuentes, Antonio de Dios *Conejito* eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeño*k. Seigarren zezena bakarrik izan zen suharra eta noblea. Hiru ezpatariek ez zuten lehenengoan hiltzerik asmatu, baina lehendakari biguna suertatu zelako, *Conejito* eta *Algabeño*ri belarri bana eman zioten. Fuentes nabarmendu zen ordea kapote eta banderilaz. Laugarren zezenak Juan de Dios pikatzailea adar artean erabili zuen plazan zehar zauritu gabe.

Abuztuaren 21eko korridan Anastasio Martin–en sei zezen plazaratu zituzten Bilbon Luis Mazzantini, Antonio de Dios *Conejito* eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeño*rentzat. Lehen zezena ezik, gainerakoak erdipurdikoak izan ziren. Mazzantini eta *Algabeño*k arratsalde txarra izan zuten. *Conejito*k ordea, bi belarri lortu zituen.

Abuztuaren 22an zazpi zezen korritu ziren Bilboko Vista Alegren: Murube–ren sei eta Benjumea–ren bat. Mazzantini, Antonio Fuentes eta Antonio de Dios *Conejito* ezpatariek parte hartu zuten. Kastor Jauregibeitia berriz, ordezko ezpatari gisa atera zen. Hau izan zen inola ere, lau korridetan onena. Ezpatariek bostgarren eta seigarrenari banderilak sartu zizkieten. Fuentes–ek bostgarren zezenaren belarria lortu zuen. Luis Mazzantini eta *Conejito*k ezpataz ez zuten asmatu. *Bilboko kotxeritoa*k zazpigarrena toreatu, banderilak sartu eta ezpataz jota lehenengoan hil zuen. Belarria eman zioten.

Abuztuaren 27an Aleas–en lau zezen eta Vicente Martinez–en beste bost jokatuz korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Luis Mazzantini, Antonio Fuentes, Jose Garcia Rodriguez *Algabeño* eta Antonio de Dios *Conejito* ezpatariek hil zituzten. Azkena berriz, Tomas Mazzantinik (Luis–en anaiak). Martinez–en seigarrena eta Aleas–en zazpigarrena ezik, gainerakoak koldarrak atera ziren. Martinez–en lehenengoari banderila beltzak sartu zizkioten. Fuentes–en kite batzuk eta seigarrenari egindako faena kenduz gero, *Conejito*k zazpigarrenari egindako faena da gauza azpimarragarri bakarra. Tomas Mazzantinik bederatzigarrena ahal bezala bota zuen. Jendea ilundu ondoren atera zen plazatik.

1900. urteko irailaren 16an beste korrida bat eman zuten Bilboko Vista Alegren.

Biencinto–ren sei zezen jokatu zituzten, Miguel Baez *Litri* eta Antonio Guerrero *Guerrerito* ezpatari zirela. Oso zezen txarrak izan arren, *Litri* bere ausardia medio luzitu egin zen bere bi lehen zezenetan. Bostgarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. *Guerrerito*k zezen batean ez zuen ezer egin, baina bestean belarria eman zioten.

Irailaren 23an nobillada ospatu zen Vista Alegren. Tuterako Lizaso anaien sei zezenko hil zituzten Antonio Olmedo *Valentin* eta Kastor Jauregibeitiak. Zezenko bigunak eta txarrak suertatu ziren. *Valentine*k lehen hirurak hil zituen eta kapotez bakarrik luzitu zen. *Bilboko kotxeritoa*k ezpataz ezik, lana ongi egin zuen; bai kapotez eta bai banderilaz. Luziano Bilbao *Lunares* belauniko banderilak sartzen ari zela zezenak harrapatu egin zuen. *Bilboko kotxeritoa*ren kapoteari esker salbatu zen.

Irailaren 30ean eman zen Bilbon XIX. mendeko azken nobillada. Torres–en hiru zezenko eta Pozo Casado–ren beste hiru plazaratu ziren *Gordito*, Kastor Jauregibeitia eta Francisco Palomar *Palomar chico* ezpatarientzat. Oso zezen koldarrak izan ziren seiak. *Gordito*k ez zuen ezer egin, eta *Bilboko kotxeritoa*ri baten belarria eman zioten. *Palomar chico* oso ausart (ausartegi) egon zen bere bi zezenkoetan. Antonio Soriano *Maera chico* banderilariak, pare bat guztiz bikain sartu zuen.

1900.eko denboraldia amaitu zenean, Bilboko Vista Alegreko gobernu–batzordeak deituta akziodunen Batzar Orokorrean urriaren 14ean zezenplaza Errukietxe eta Ospitalearen esku uztea erabaki zuten. Dohaintza guztira 597.136 pezetakoa izan zen. Abenduaren 4ean gobernu–batzorde berria osatu zen[111]. Harez gero Bilboko plaza bertako Errukietxe eta Basurto–ko Ospitale zibilaren eskuetan dago.

1900. urtean, irailaren 6an, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* Madrilen aurkeztu zen. Hango sei nobilladatako bostetan parte hartu zuen, eta seigarrenean ez, egun berean Bartzelonan toreatu behar zuelako. Arrakasta nonnahi lortzen zuen garai hartan bilbotarrak[156]. Perez de la Concha–ren zezenkoak toreatu zituen Alejandro Alvarado *Alvaradito* eta *Morenito de Algeciras*ekin Madrileko lehen nobilladan. Hurrengoetan zorte hobea izan zuen[8].

Beste bilbotar bat ere zezenkoak hilez bere ofizioa ikasten ari zen 1900. urtean. Rufino San Bizente *Begoñako txikia* zen. Hasieran ausart bezain baldarra zela zioten. Miranda–n zerbait toreatu ondoren, merkantzi trenean Sevillarako bidea hartu zuen toreatzen ikasi nahian. Sevillan *el Bilbaino* deitzen zioten. Lau hilabete pasatu zituen han lanean (Dos Hermanas–en laranja biltzen) eta ahal zuenean toreatzen. Goiz batean goserik Begoñara heldu zenean, kalean amarekin topo egin zuen. Amari zeraman pegar esnea eskutatik kendu eta edan egin zion.

Rufino–ren gurasoak saiatu ziren semeak beste bideren bat har zezan, baina alferrik. Lekeitioko nobilladatan Francisco Alonso *Paquiro* eta Mariano Ponce *Cocherito de Murcia*ren koadrilara sartu zen, lehenbizikoz traje distiratsua jantziz. Murcia–ko toreatzailea, beste askotan bezala zauritu egin zenaren aitzakiaz erizaindegira erretiratu zen, lan guztia *Paquiro*ri utziz. Rufino han zegoen ordea ahaleginak jotzen. Bi banderila–pare nola edo hala sartu zituenean, jendeak Rufino gazteak torea zezan eskatu zuen. *Paquiro*k ezetz zioen, baina *Begoñako txikia*k banderila batean kapotea ipinita bere faenari hasiera eman zion.

Egun batzuk geroago, Guillen izeneko toreatzaile zahar errioxarrak (Bilbon bizi zen orduan) Artzentales–era eraman zuen herriko festetara zezen bat hiltzera. Bi duro kobratuko zituen errioxarrak herriko zezen bat plazan hiltzeagatik. Gurdi bati lotuta menditik ekarria zen zezena. Guillen–ek zezena ikusita 30 pezeta eskatu zituen berehala. Errioxarra eta Rufino elizako sakristian

jantzi ziren apaiza meza ematen ari zen bitartean. Zezena hil zuten, dena dela, eta Begoñako toreatzaile berriaren fama zabaltzen hasia zen. *Murcia-ko kotxeritoak* orduan berekin hartu zuen Rufino San Bizente ordezko ezpatari gisa.

Behin Zestoan toreatzen ari zirela, Murcia-koak aitzakia medio lanak Begoñakoari utzi zizkion, baina bukaeran lehendakariak deitu eta bere euskarakada eta guzti honela esan zion murciarrari:

¡Tú ser un farsante! ¿Te oyes bien? ¡Un farsante! ¿Tu torero?...¡Quitate d'ahi! Y como engañar nos has hecho, pues, este chiquito, de Begoña que dicen que es, y morrosko valiente, tiene que cobrar todo; tú nada; nada has hecho y...¿Qué te has creido tú, pues...? ¿Engañar? ¿Asi se engaña u que? ¿Valiente que te eras? ¡Valiente valiente estas tú! ¡Ni pulgas matar harias![12].

1900. urte inguruan Felix Leziñena *Morenito* bilbotarrak banderilari gisa lan egin zuen Euskal Herriko plazetan. Maila apalekoa izan zen[8].

Donostian 1900. urteko sansebastianetan festak ez zituzten nolanahi antolatu.Urtarrilaren 18an, handik bi egunera jokatzeko Tabernero-ren hamabi abere heldu ziren Salamancatik. Bakoitza 300 pezeta kostatu zitzaien. Konstituzio-plazan goizeko zortzietan idi bat eta behi bat korritu zituzten. Gero eguerdian hiru idi eta arratsaldeko lauretan beste bost. Azkenekoa San Jeronimo eta Abuztuaren 31ko kalean zehar San Bizente elizako atariraino eraman zuten. Lasala plazan berriz, goizeko zazpi t'erdietan eta bazkal ondoan idi bana jokatu zen[17]. Salamancako behi eta idiak bolaztaturik erabili zituzten sokari lotuta *Iriarena* doinua txistuaz joaz. Zezensuzkoa ere izan zen gauean[187]. *Iriarena* doinuan kantatzeko Serafin Baroja donostiarrak bertso batzuk argitaratu zituen,

12.13. irudia. Sokamuturra Donostiako Konstituzio-plazan.XIX. mendearen bukaera.

lehenago esan dugunez. *Iriyarena* izeneko bertso batzuk ere famatuak dira. Donostiar bat zeruan San Pedroren deskuidoz sartu zela diote eta donostiar hura aurkitzeko egindakoa ondoko bertsoetan argitzen da:

.....

4/ Jaunak Pedrori modu onetan
eman ziyon errespuesta:
–Donostiarra izan ezkero
billatzen txit gaitza ezta,
Iriyarena danboliñakiñ
jotzen astia da basta,
pozik saltoka egingo diyo
zeruan dalako festa.

5/ Iriyarena danboliñakin
jotzen ziranian asi,
donostiarra danen artian
saltoka zuten ikusi;
San Pedro berriz arren ondoren
egin baño len igesi
arrapatuta zeruetatik
infernura zuten jatxi[188].

Donostian udako korriden berri emanez *La Revista; Los Toros* aldizkaria argitaratu zen[120]. Josę Arana–k berriz, bere *Semana Grande*ko korridak antolatzen zituen, eta Bulebar eta Elkano kalearen izkinan zuen dendan *pim pam pum* izeneko tertulia ere bai. Han bildu izan ziren Angel Maria Castell kazetaria, Jose Otamendi geografoa, Jose Goikoa arkitektoa, Ramon Matxinbarrena politikoa, Moniko Otxoa geltoki–burua (eta *Guerrita*ren zalea), Antonio Peña y Goñi kazetaria, Enrique Sepulveda (*Frascuelo*ren zalea), etab.[189].

Donostiatik kanpo, Gipuzkoan nobilladak beste herri batzuetan ere ematen ziren. Tolosan adibidez, Plaza Berrian barrerak ipinita sanjoanetan. Plaza biribil berria ere urte gutxi barru egingo zuten tolosarrek. Dena dela, sanjoanetako zezenak aipatzen dituzten bertso hauek garai hartakoak dira; *ezkontza galdutako bertsoak* izenekoak:

.....

2/ Tolosara juan giñan
biyok elkarrekin
zure borondatia
al baneza jakin;
itzik ere egin nai
etzuen nerekin,
arek nayago zuen
beste edozeñekin.

3/ Ondo konpondu giñan
joan dan San Juanetan,
nere patrikaratik
barrera danetan;
erroskil da sagardoz
aurretik aseta,
barrera pagatzeko
gañera peseta[190].
.....

Oiartzun–en ere bazuten Elizaldeko plazan zezenak korritzeko ohitura.Inoiz Altzibar auzoan ere bai[191]. Larrabehi edo betizuak jokatzen ziren. Maleziaz ongi osatutakoak, plazaz plaza ibilitakoak, ateratzen zituzten[192].

Arrasaten ere santiagotan ematen ziren nobilladak bertako zezenplazan[193].

Azpeitian, 1900.eko saninaziotako zezenfestak Inazio Bereziartua jaunak antolatu zituen. Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*ri alkateak hogei pezetako saria eman zion uztailaren 31ko nobilladan. Bi arratsaldetan sei nafar–zezen toreatu ziren. Haietako bi bakarrik iritsi ziren pisu minimora. Horregatik Bereziartua jaunari 1.700 pezetako isuna ipini zioten, nahiz eta gero bidean zezenko bat gaixotu eta kaiola berezian ekarri beharra izan zuelako isuna txikiagotu. Isuna ordaindu nahi ez zuelako, tirabira batzuk izan ziren Udala eta Bereziartua jaunaren artean[6].

Garai hartakoak dira inola ere *Txirrita*k kantatuta bere iloba Jose Ramon Erauskin–ek ikasi zuen ondoko bertso hau. Bertsoa ez da dirudienez *Txirrita* berarena:

Azpeitian dirade
jokatzekoak aurten,
zazpi torero eta
bost napar zezen;
danbolin, esku–dantza,
musika ta jolasa,
adoratzeko plaza
denbora pasa,
neska mutillak berriz
aruntz jun, onuntz jira,
an ibilliko dira
ta gu begira[194].

Azpeitian jaio eta Orion bizi zen Jose Antonio Izagirre *Itxaspe* bertsolariak jarritako bertso hau ere garai hartakoa izango da. Erosi zuen mendi–zekor bati botea da:

Arrotzari jotzeko
jeniyua're badu,
ustet pagatu deula
bear alako lau;
adarrekin elduta
egiten digu rau!,
trapuz mantendu bearko
onen pasiyo au![195].

Azpeitian dena dela, San Sebastian egunean eta ihauterietan sokamuturra eta zezensuzkoa jokatzen zen. Azpeitiko ihauterietako kantak ere interesgarriak dira. Sokamuturrak sortzen zuen giroa ederki adierazten dute:

DIANA
Eguna argitzen ari da,
zezena laister da;
goazen denok azkar kalera.

Musika alaiakin
esnatutzen gera
lo gauden Azpeitiko gazteak.

Soka-mutillak zuriz jantzita zai daude,
poz haundia degu ibiltzeko parean.
Hementxe dala! Hementxe dala!
Kale barrenetik gora zezena!!

SOKA-MUTILLAK

Aurten beti bezela
allegatu dira,
Azpeitiko karnabalak
beti alaiak dira.

Gu denok lau mutil gera
sokan ibiltzen geranak,
saltoka ta brinkoka
zezena eramanaz.

Tiruarekin irtetzen digu
ikuillutikan zezenak....
korrika eginda, soka-mutillak
plaza Nagusian aurrenak.

Hori da berriz, gure poz dena
egun hauetan deguna;
zezena sartu, sokia bildu
eta ardoa nahikoa.

DONATO KITTERRA TAKONERO

Donato Kitterra takonero,
edaten duelako barrua bero.
Orain dauka izena "zurrutero",
etxera joanda ganbaran lo.

Errebaleko Kitterra
oso da gizon ederra.
Jango lukela, ba
goizetik gabera,
txerri baten gibela.

Zezena dator arkupetik
sua dariola adarretik...
Zinbulu ta zanbulu
jendearen gainetik.

SAGARDOTEGIAN

Ipurtzulua itxita
hamar egunian
zezenak izan ziran
iriki zenian[6].

Iruñean 1900. urteko sanferminetan, bost korrida eta proba bat izan ziren uztailaren 7, 8, 9, 10 eta 11n. Zezenak Sevillako Eduardo Mihura, Madrileko Veragua–ko duke, Tuterako Espoz y Mina–ko konte, Funes–eko Diaz–en seme eta Tuterako Lizaso anaiak eta Kaparroso–ko Zalduendo–ren alargunarenak izan ziren. Haiek hiltzeko Luis Mazzantini, Antonio Fuentes, Jose Garcia Rodriguez *Algabeño*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Rafael Molina Martinez *Lagartijo chico* kontratatu zituzten[115]. Azken biak artean alternatiba hartu gabe zeuden, urte hartantxe irailaren 16an Emilio Torres eta Luis Mazzantiniren eskutik hurrenez hurren Madrilen hartu bazuten ere[8].

Dena dela, uztailaren 7an sanferminetan Espoz y Mina–ren *Llavero* izeneko zezena nabarmendu zen plazan. Zazpi pikalditan zazpi aldiz pikatzailea bota eta zazpi zaldi hil zituen. Antonio Fuentes–ek hil zuen.

Espoz y Mina–ren *Espantavivos* izeneko zezenkoa berriz, 1900.eko irailaren 26an Errioxa–ko Arnedo–n jokatu zen. Joaquin Calero *Calerito* toreatzailea larriki zauritu zuen[9]. Garai hartan, Espoz y Mina–ren beste zezenko batek Nicanor Manjón *Aransaito* zezenko–hiltzailea adarkatu zuen Berlanga de Duero–n. Ondorioz hiru hilabetez oheraturik egon zen[8].

Luis Mazzantini elgoibartarra hiru urtean Madrilen toreatu gabe egon ondoren, 1900. urtean itzuli zen berriro ere[100]. Irailaren 16ko korridaz gain urriaren 1eko korridan ere parte hartu zuen. Han Mihuraren *Berberino* zezenak (marratua, eper–begiduna eta puntazorrotza zen) larrialdi bat pasarazi zion, baina ez zen zauriturik suertatu[9]. Ekainaren 17ko korridan luzitu zen gehien, Pablo Romero–ren *Moruno* izeneko zezenari emandako ezpatakadari esker.

Mazzantini urte hartan abuztuaren 12an Alacante–n toreatzen aritu zen. Han eman bait zion alternatiba Bartolomé Jimenez *Murciari*. Anastasio Martin–en *Cornigordo* izeneko zezena utzi zion zezen–hiltzaile berriari.

Luis Mazzantinik Murcia–n beste alternatiba bat ere eman zuen: Antonio Olmedo *Valentini* hain zuzen. Irailaren 8an Esteban Hernandez–en *Sardinero* izeneko zezena hiltzeko tresnak utzi bait zizkion[8].

Gasteizen 1900. urtearen hasieran (urtarrilaren 27an) abuztuko korridak antolatzeko baldintzak argitaratu ziren. Martxoaren 14eko bi proposamen baztertu egin zituzten baldintzak ez betetzeagatik. Martxoaren 20an Azkoien–eko Jorge Diaz–ek bere proposamena egin zuen. Abuztuaren 5 eta 6an korridak antolatuko zituen 7.000 pezeta ordainduta. Musika–banda eta zergak ez ordaintzea eskatu zion Udalari. Zezenak Espoz y Mina–renak eta Gaztelakoak izango ziren; lau eta sei urte bitartekoak. Mazzantini eta Emilio Torres *Bombitak* hilko zituzten. Maiatzaren 25ean Udalari zera jakin erazi zion: hirugarren korrida ere antolatuko zuela, bere etxeko sei zezen *Machaquito* eta Rafael Molina *Lagartijo chico* toreatzaileek hilko zituztelarik. Horren truk 1.000 pezeta eta zergarik ez ordaintzea eskatu zion Udalari. Udalak baiezkoa eman zuen[196].

1900.eko abuztuaren 5ean, Gasteizeko korridan Mazzantinik lan egin zuen iragarrita bezala. Bere anaia Tomas eta Bernardo Hierro legutiarrak (banderilari ziren bi hauek) istiluak izan zituzten ikusle batzuekin[21]. Simon Leal zen Luis Mazzantinik urte hartan banderilari gisa zeraman beste laguntzaile bat. Tomas Mazzantinik ordea, 1.900. urtean denboraldia amaitu zenean berak zezenko batzuk hil zituen Madrileko plazan. Ez zuen arrakastarik lortu[8].

Luis Mazzantini dena dela, bere sasoirik onena joanda zegoen XIX. mendearen hondarrean. Gorputzez lodiegi eta adorez zuhurregi agertzen zen plazatan[100]. Bere anaia Tomasek toreaketan asko lagundu arren, elgoibartarraren gainbeherakada nabarmen ikus zitekeen zezenplazan. Aurrez oso ongi bete zituen eginkizun batzuk. Plazako zuzendari gisa, banderilak sartzen, kapotez kite-garaian eta batez ere ezpata astintzen, paregabea izana zen. Zezena hiltzera zihoanean zera esaten omen zuen: *Atera ditzatela mandakoak!*. Muletaz baldarra eta itsusia zela zioten, baina pase gutxitan lortzen omen zuen nahi zuena[12].

Plazatik kanpora oso berezia zen Luis Mazzantini; beste toreatzaileak ez bezalakoa. Operara joatea gustatzen zitzaion, frakez janzten zen eta bere inguruko jende xumea txunditurik uzten zuen bere janzkera eta ohiturez[140]. Eskrima egitea ere gustatzen zitzaion[8].

Behin batean Angel Montalvo pikatzailea Luis Mazzantiniren bulego ederrera joan omen zen elgoibartarrak deituta. Luis bata zuri dotore bat jantzita agertu zitzaion pikatzaileari, baina zaldunak patar-usain handiegia zuelako errietan eman zion Mazzantinik. Montalvo-k azkenean ordea, zera erantzun zion:

Zuk ni honela ez nauzu inoiz ikusi, baina nik ere ez inoiz zezen-hiltzailerik piano-estalki batean sarturik[9].

Beste behin korrida-egunean goizean hotelean zegoela, zetazko bata beltz loreztatua omen zeraman soinean. Juan Villanueva *el Ruso* izeneko pikatzailea joan zitzaion bisitatzera, eta gero pikatzaileari bere lagunek elgoibartarrak egin zion harreraz galdetu ziotenean, zera erantzun zien: *Bai. Oso ongi hartu nau; japoniar jantzian*[136].

Peña y Goñi donostiarrak Luis Mazzantini Ameriketan zela artikulu bat idatzi zuen elgoibartarraren janzkera eta portaera haiek kritikatuz. Toreatzailetan lehenengoa izatea baino *señoritotan* azkena izatea nahiago zuela zioen. Ameriketatik itzulitakoan, Luis-ek padrinoak bidali zizkion idazleari duelorako[9].

Txomin Agirre apaiz eta euskal idazle ondarrutarrak (1864-1820) ere bazuen Luis Mazzantiniren aditzera. *Kresala* liburu famatuan pasarte batean aipatzen bait du; *Indiano* eta *Mañasi*ren elkarrizketa batean hain zuzen. Bilboko korridak medio honela hasten da *Indianoa*:

-Zagoz pizka bat. "Dos de Mayo'ko korridak" ikustera etorri naz ni, ta alkarregaz joan bear dogu biarkora. Neuk artuko deutsut "billetea"; Mazantini da "primer espada", guztizko "toriadore abilla".

- Jesus, Mari ta Jose! Ezta...Eskerrik asko. Ez naz zezenzalea, Agur...[197]

Eta besterik gabe utz ditzagun bere horretan Euskal Herriko XIX. mendeko zezenen gorabeherak.

12.- ZEZENAK XIX. MENDEAN: HIRUGARREN HERENA (1867-1900): BIBLIOGRAFIA

(1) CAMPO, LUIS DEL. *Tato y Currito, hijos de Cúchares en Pamplona.* Navarra. Temas de cultura popular. 364. alea. Iruñea 1980 (14-16, 18-27. orr.)

(2) PEREZ LABORDA, BIZENTE. *Historia de una Ganadería Navarra de Toros bravos en el Siglo XIX de Tudela (Navarra).* Tutera 1980. (12, 19, 136, 188, 189, 201, 215, 219-239, 257-263. orr.)

(3) CAMPO, LUIS DEL. *El encierrillo.* Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (9-15. orr.)

(4) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* Lehen alea. Tutera 1913 (268, 290-310, 497, 498. orr.)

(5) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra,* in Principe de Viana 1942. Iruñea (383-386, 390, 392, 396-398, 400-403. orr.)

(6) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia.* Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (308, 309, 371-382. orr.)

(7) MUJIKA, SERAPIO. *El veraneo en San Sebastián,* in Euskalerriaren alde 1917. Donostia (378. orr.)

(8) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1978 (5, 6, 12, 18, 20, 26, 27, 37, 45, 50, 51, 53, 65, 67, 68, 96, 98, 99, 102, 123, 130, 138, 139, 199, 211, 218, 233, 243, 274, 276, 278, 279,299, 325, 339-341, 352, 390, 393, 416, 420, 421, 442, 451, 452, 454, 456, 490-494, 501, 514, 517, 535, 538, 539, 548, 552, 558, 559, 561, 562, 565, 567, 569, 573, 576-580, 592, 608, 616, 621, 661, 667, 682, 696, 701, 709, 711, 719, 723, 724, 729, 744, 751, 761, 762, 764-766, 773, 805, 807, 811, 813, 837, 841, 848, 854, 856, 857, 874, 888, 893, 900, 902, 905, 910, 912, 921, 929, 941, 943, 945, 946, 959, 965, 972, 987, 988, 989, 993, 1005, 1007. orr.)

(9) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (269, 283, 284, 314, 318, 319, 321, 327-332, 334, 336, 338, 339, 345, 348, 350, 355-359, 363, 368, 371-375, 381, 386, 388, 393-395, 398-401, 427, 479, 502, 503, 506, 510, 529, 543-546, 548, 549, 554, 567, 575, 578, 607, 608, 618, 621, 626, 627, 669, 671, 706, 754, 755, 757, 844, 845, 868, 996. orr.)

(10) CORTES, JOSE. *Historia de la plaza de toros de Vista-Alegre.* Bilbo 1895 (10-17, 30, 31, 36, 43-91. orr.)

(11) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques.* Lorea argit. Donostia 1981 (15, 56, 60. orr.)

(12) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande.* Imprenta alemana argit. 1916 (26, 28-31, 52, 53, 85, 95-99. orr.)

(13) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Bizkaiko Aurrezki-Kutxa argit. Bilbo 1983 (8, 9, 20, 25, 33, 36, 45. orr.)

(14) URUÑUELA, LUIS.*Evocaciones vascongadas y recuerdos bilbainos,* in Vida Vasca 1946 (209. orr.)

(15) X, X. *La plaza vieja de Vitoria,* in Vida Vasca 1946 (65, 66. orr.)

(16) GOROSABEL, PABLO. *Noticia de las cosas memorables de Guipuzcoa.* Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1967 (347, 348. orr.)

(17) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (19, 20, 22, 23, 31-35, 38-40, 43, 44, 46, 48, 50-52, 55-57, 60, 61, 63, 64, 69, 70, 72, 73. orr.)

(18) MURUGARREN, LUIS. *San Sebastián. Donostia.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1978 (293, 361, 406, 501. orr.)

(19) CAMPO, LUIS DEL. *Los Carmona en Pamplona. Navarra.* Temas de cultura popular. 338. alea. Iruñea 1979 (13–22. orr.)
(20) CAL SEGURA, JOSE DE LA. *Genealogía de las cuatro castas fundacionales: Jijona, Cabrera, Vistahermosa, Vazqueña y la casta navarra,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (82, 84, 91, 96–98. orr.)
(21) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 5. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (503, 689, 693, 1081, 1137. orr.)
(22) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos.* 2. alea. Tutera 1913 (518. orr.)
(23) ABAD, A. eta L. OLIVA, E. *Los toros.* La Gran Enciclopedia del espectáculo. Agros argit. Bartzelona 1966 (388. orr.)
(24) MANTEROLA, JOSE. *Breve historia de algunas comparsas y fiestas de carnaval habidas en San Sebastian en el presente siglo,* in Euskal–Erria 1883. 8. alea. Donostia (108. orr.)
(25) PEÑA Y GOÑI, ANTONIO. *Cuernos.* Madril 1883 (VIII, IX, X, 367, 389, 390. orr.)
(26) COSSIO, FRANCISCO DE. *Los toros.* 8. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1986 (432, 434, 436, 512, 516, 598, 600, 604, 605, 812, 814, 868–870, 872, 874. orr.)
(27) ORENDAIN SARRIEGI, RAMON. *Un torero bascongado,* in Euskal–Erria 1884. Donostia (152, 153. orr.)
(28) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 4. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1971 (84, 98–105, 108–110, 201. orr.)
(29) ROS GALBETE, RIKARDO. *Apuntes etnográficos y folklóricos de Allo,* in Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra 1976. Iruñea (449. orr.)
(30) GAUTIER, THEOPHILE. *La Maja y el Torero* (Juan de Málaga–ren itzulpena) Madril 1921 (38–41, 47–53. orr.)
(31) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (37, 39, 50, 52, 131, 134. orr.)
(32) VAZQUEZ RODRIGUEZ, LEOPOLDO. *Cuentos y anécdotas de toros y toreros.* Madril 1912 (18–20, 65, 66, 74–81. orr.)
(33) X, X. Diario de San Sebastián. 1875–II–6 (2. orr.)
(34) X, X. Diario de San Sebastián. 1875–VIII–20 (3. orr.)
(35) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VII–18 (3. orr.)
(36) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VII–23 (3. orr.)
(37) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VII–28 (3. orr.)
(38) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VIII–1 (2. orr.)
(39) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VIII–21 (2. orr.)
(40) X, X. Diario de San Sebastián 1875–I–19 (1, 2, 4. orr.)
(41) X, X. Diario de San Sebastián 1875–II–10 (Lehen orr.)
(42) X, X. Diario de San Sebastián 1875–II–9 (2. orr.)
(43) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VII–10 (3. orr.)
(44) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VIII–16 (Lehen orr.)
(45) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VI–4 (2. orr.)
(46) X, X. Diario de San Sebastián 1875–VII–1 (2. orr.)
(47) X, X. Diario de San Sebastián 1875–I–27 (3. orr.)
(48) REPARAZ OLAGUE, BALENTIN. *Guipuzcoa en la mano. Anuario general de toda la provincia.* Donostia 1943 (313. orr.)
(49) BALEZTENA, INAZIO. "PREMIN DE IRUÑA". *Iruñerías (IX). Navarra. Temas de cultura popular.* 372. alea. Iruñea 1981 (7–9. orr.)
(50) BARANDIARAN, EMILIANO. *Euskal musikalari bikainak. Kuliska sorta.* 65. alea. Itxaropena argit. Zarautz 1967 (142, 143. orr.)
(51) X, X. *Diario de san Sebastián* 1876–VII–4 (2, 3. orr.)
(52) X, X. *Diario de san Sebastián* 1876–VII–23 (Lehen orr.)

(53) X, X. Diario de San Sebastián 1876–X–21 (1, 2, 3. orr.)
(54) X, X. Diario de San Sebastián 1876–X–24 (Lehen orr.)
(55) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 7. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1984 (671, 673, 962, 996, 1.003, 1.004. orr.)
(56) X, X. Diario de san Sebastián 1876–III–12 (2. orr.)
(57) X, X. Diario de San Sebastián 1876–III–23 (Lehen orr.)
(58) AZKUE, R. MARIA. *Aita Manuel Larramendi'ren Corografía de Guipuzcoa,* in Yakintza. 1934. 7. zenbakia. Donostia (6, 7. orr.)
(59) X, X. Diario de San Sebastián 1876–X–9 (Lehen orr.)
(60) GOROSTIDI, JOAN . *Un tipo popular guipuzcoano. Ishkiña,* in Vida Vasca 1943 (115. orr.)
(61) ZABALA, ANTONIO. *Soldaduzkako bertsoak.* 139. alea. Auspoa argit. Tolosa (140. orr.)
(62) DORRONTSORO, JOANITO. *Bertsotan.* GIE argit. Donostia 1981 (54, 55, 133. orr.)
(63) MANTEROLA, JOSE. *Cancionero vasco.* Bigarren saila, 1878.eko apirila–uztaila. Donostia (2. orr.)
(64) BIZKARRONDO, INDALEZIO. "BILINTX". *Bertso ta lan guztiak.* 12. alea. Auspoa argit. Tolosa (144, 145. orr.)
(65) X, X. Diario de San Sebastián 1876–II–24 (2. orr.)
(66) X, X. Diario de San Sebastián 1876–III–1 (2. orr.)
(67) X, X. Diario de San Sebastián 1876–III–2 (3. orr.)
(68) X, X. Diario de San Sebastián 1876–III–21 (3. orr.)
(69) X, X. Diario de San Sebastián 1876–V–25 (3. orr.)
(70) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VI–3 (2. orr.)
(71) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VI–29 (2. orr.)
(72) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VI–30 (2. orr.)
(73) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–5 (3. orr.)
(74) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–12 (2. orr.)
(75) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–10 (2. orr.)
(76) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–15 (2. orr.)
(77) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–18 (2, 3. orr.)
(78) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VII–23 (3. orr.)
(79) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–8 (2. orr.)
(80) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–10 (Lehen orr.)
(81) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–12 (2. orr.)
(82) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–13 (2, 3. orr.)
(83) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–14 (2. orr.)
(84) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–15 (2. orr.)
(85) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–16 (2. orr.)
(86) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–17 (2. orr.)
(87) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–18 (2, 3. orr.)
(88) X, X. Diario de San Sebastián 1876–IX–7 (1, 3. orr.)
(89) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–31 (2. orr.)
(90) X, X. Diario de San Sebastián 1876–VIII–31 (2, 3. orr.)
(91) X, X. Diario de San Sebastián 1876–IX–11 (2. orr.)
(92) X, X. Diario de San Sebastián 1876–IX–22 (3. orr.)
(93) X, X. Diario de San Sebastián 1876–IX–25 (2. orr.)
(94) X, X. Diario de San Sebastián 1876–X–13 (3. orr.)
(95) ZELAIA ZENDOIA, MANUEL. *Fragmentos de la autobiografía de un nonagenario dedicados a una nonagenaria.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (64, 67, 124, 125, 128, 129, 221, 222. orr.)
(96) X, X. *Jose Arana,* in Euskal–Erria 1908. Donostia (531–536. orr.)
(97) ZABALA, ANTONIO. *Udarregi bertsolaria.* 56. alea. Auspoa argit. Tolosa (11, 65–70, 96–105.

orr.)
(98) SOROA, MARTZELINO. *Iriyarena*, in Euskal-Erria 1905. Donostia (232-239. orr.)
(99) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipúzcoa*. Donostia 1974 (44, 45, 52, 61, 62, 93, 97, 98, 104-106, 111-113, 122, 123, 127-130, 133-135, 143, 145, 183-186, 221-227, 300, 333. orr.)
(100) BLEU, F. *Antes y después del Guerra*. 117. alea. Austral bilduma. Espasa-Calpe argit. Madril 1983 (92-94, 99, 100, 116, 132, 134, 139, 140, 143-146, 152, 153, 165, 172-174, 227-237, 254, 276, 277, 283, 284, 287, 288, 295-298. orr.)
(101) X, X. *Gaston, Calixto*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 15. alea. Auñamendi argit. Donostia (406, 407. orr.)
(102) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Tauromaquia vasca*, in Munibe 1951. Arantzadi argit. Donostia 1951 (237. orr.)
(103) GARCIA NAVAS, LUIS.*Once matadores de toros vascos ha habido en lo que va de siglo*, in Vida Vasca 1945 (211, 212. orr.)
(104) LOPEZ IZQUIERDO, FRANCISCO. *Plazas de toros de Madrid*. Avapiés argit. Madril 1985 (136, 138-140. orr.)
(105) LOPEZ GEREÑU, JERARDO. *Calendario alavés*, in Boletín de la Institución Sancho el Sabio. Gasteiz 1970 (221, 241, 248, 249, 264-266, 288, 290, 291, 295. orr.)
(106) CARRERAS CANDI, F. *Geografía del País Vasco-Navarro*. Arabako alea. Bartzelona 1917 (293. orr.)
(107) ORTIZ-CAÑABATE, LORENZO. *El toreo español*, in Folklore y costumbres de España. Alberto Martin argit. Bartzelona 1931 (534, 537, 538, 550, 551, 560, 566. orr.)
(108) BAROJA, SERAFIN. *Zezen-suzkoa*, in Euskal-Erria 1881. 2. alea. Donostia (144. orr.)
(109) AROZAMENA, JESUS MARIA eta GARBIZU, TOMAS. *Viejas canciones donostiarras*. Donostia 1971 (74, 190-194. orr.)
(110) ENTZIO KORTAZAR, JOAN M. *El Paseo de Salamanca, un desafío*. Hoja del lunes 1983-III-7. Donostia (8. orr.)
(111) URUÑUELA ETXEBARRIA, EMILIANO. "LITRI". *La dama taurina de Abando*. Bilbo 1973 (23, 25-125. orr.)
(112) ZABALA ALTUBE, KARLOS MARIA. *Guecho, anteiglesia del Señorío*. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1968 (211. orr.)
(113) ARAZURI, J.J. *Broncas en la plaza de toros vieja*, in Club Taurino Pamplona 1985 (24. orr.)
(114) PIALLOUX, G. *Portua*. Toulouse 1968 (147, 148. orr.)
(115) OLLAKINDIA, RIKARDO. *100 años de carteles de las fiestas y ferias de San Fermin (1882-1981)*. Nafarroako Aurrezki-Kutxa argit. Iruñea 1982 (1882-1900. urteak)
(116) X, X. *Festejos*, in Euskal-Erria 1883. 9. alea. Donostia (96. orr.)
(117) ERENTXUN ONZALO, JOAN. *Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona*. Itxaropena argit. Zarautz 1948 (62. orr.)
(118) IRAOLA, BITORIANO. *Erriko seme donostiarra*, in Euskal-Erria 1883. 8. alea. Donostia (148. orr.)
(119) ARTOLA, RAMON. *Erriko seme iruchulotarra* eta *Jose-maritarra*, in Euskal-Erria 1883. 8. alea. Donostia (163, 164, 292. orr.)
(120) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 2. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1980 (69, 581-583, 615, 646, 647, 656, 700, 702, 729. orr.)
(121) B, A. *Carriquiri, Nazario*, in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 6. alea. Auñamendi argit. Donostia (407, 408. orr.)
(122) LETONA, JOSE eta LEIBAR, JOAN. *Valle de Leniz. Arechavaleta y Escoriaza*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (169. orr.)

(123) X, X. *El carnaval de 1885 en San Sebastian,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (120. orr.)
(124) SOROA, MARTZELINO. *¿Nun da Donostiya?,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (64. orr.)
(125) IRAOLA, BITORIANO. *Iñauteriyak Donostiyan,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (151-155. orr.)
(126) ARTOLA, RAMON. *Donostia-ko iñoiteriaren oroitza,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (156-158. orr.)
(127) OTAEGI, KLAUDIO. *Kontu andaluza,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (576. orr.)
(128) X, X. *Miscelanea,* in Euskal-Erria 1885. 12. alea. Donostia (126. orr.)
(129) ITURRIZA ZABALA, J. RAMON eta AZKARRAGA REGIL, MANUEL. *Historia de Vizcaya.* Bilbo 1885 (450. orr.)
(130) TRUEBA, ANTONIO. *Las Encartaciones.* Geu argit. Bilbo 1978 (116. orr.)
(131) SANCHEZ NEIRA, JOSE. *Diccionario taurómaco.* Lehen alea. Giner argit. Madril 1985 (101, 487. orr.)
(132) X, X. *El carnaval de 1886 en San Sebastian,* in Euskal-Erria 1886. 14. alea. Donostia (87. orr.)
(133) URRUZUNO, PEDRO MIGEL. *Ur-zale baten ipuiak.* 51. alea. Auspoa argit. Tolosa (11, 12. orr.)
(134) M, R. *Corrida nocturna,* in Diario Vasco 1986-VII-30. Donostia (11. orr.)
(135) ABARQUERO DURANGO, R. *El toro invalido.* Madril (28. orr.)
(136) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (726, 799, 817, 818, 821, 822, 1.034. orr.)
(137) ARTZAK, ANTONIO. *El carnaval de 1887 en San Sebastian,* in Euskal-Erria 1887. 16. alea. Donostia (179. orr.)
(138) LAPUENTE, LUCIANO. *Estudio etnográfico de Améscoa,* in Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra 1976. Iruñea (417. orr.)
(139) CAMPO, LUIS DEL. *El encierro de los toros,* in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (129-131. orr.)
(140) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo.* Destino argit. Batzelona 1954 (182, 202, 203, 220. orr.)
(141) U, J. *Dr. A. Aparisi-Serres.- Origines lointaines du Taureau de Feu...,* in RIEV 1929. 20. alea. (131, 132. orr)
(142) X, X. *Gaona,* in Vida Vasca 1949 (59. orr.)
(143) SOROA, MARTZELINO. *Zezenetatik,* in Euskal-Erria 1889. 21. alea. Donostia (288. orr.)
(144) X, X. *Belle epoque Iruñean,* in Euskal egutegia 1985. Apirila 29. AEK.
(145) AROZAMENA, JESUS MARI. *Ignacio Zuloaga, el pintor, el hombre.* Sociedad Guip. de Edic. y Public. argit. Donostia 1970 (56-58, 94-99. orr.)
(146) LETONA ARRIETA, JOSE. *Mondragon. Sus calles.* Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (71. orr.)
(147) LAFUENTE FERRARI, ENRIQUE. *La vida y el arte de Ignacio Zuloaga.* Revista Occidente 1972 (49, 57, 70, 72-77. orr.)
(148) Y, F. *Algunos aspectos de la anexión de Abando a Bilbao en 1890,* in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais 1945. Donostia (209. orr.)
(149) X, X. *Fiesta,* in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 13. alea. Auñamendi argit. Donostia 1980 (383. orr.)
(150) AZKARATE, RAMOS. *Galtzaundi, ta beste bertso asko.* 7. alea. Auspoa argit. Tolosa 1962 (24, 25. orr.)
(151) ARTOLA, RAMON. *Zezena eta subea,* in Euskal-Erria 1890. 13. alea. Donostia (44. orr.)
(152) ERGOIEN, ANTONIO. *Charol, el picador bilbaino,* in Vida Vasca 1950 (215. orr.)
(153) ARAZURI, JOSE JOAKIN. *Pamplona estrena siglo.* 2. alea. Diario de Navarra bilduma. 3.

argitalpena. Iruñea 1980 (57, 76, 83–89. orr.)
(154) URUÑUELA, LUIS. *Las plazas de toros de Bilbao*, in Vida Vasca 1954 (209. orr.)
(155) AZUMENDI, JERMAN. *Bilbao, Cocherito y su Club*. Bilbo 1986 (19, 20, 22. 24, 119, 142. orr.)
(156) OKAMIKA GOITISOLO, FRANTZISKO. *La villa de Lequeitio (ensayo histórico)*. Bizkaiko Diputazioa argit. Bilbo 1965 (216. orr.)
(157) ARTOLA, RAMON. *Zezena eta astoa*, in Euskal-Erria 1892. 27. alea. Donostia (110, 111. orr.)
(158) DIAZ-CAÑABATE, ANTONIO. *El mundo de los toros*. Everest argit. Leon 1979 (74. orr.)
(159) ZABALA, FEDERIKO eta GARMENDIA LARRAÑAGA, JOAN. *Tolosa*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (99. orr.)
(160) ARANA GOIRI, SABINO. *Obras completas*. Sabindiar-batza argit. Buenos Aires 1965 (297–299, 325, 344, 347, 349, 379, 445, 446, 572, 627, 1.389, 1.679, 2.381–2.383. orr.)
(161) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *El toreo vasco*. Mahai ingurua. Ateneo guipuzcoano. Donostia 1982-VIII-12.
(162) HIRIART URRUTI, JEAN. *Zezenak errepublikan*. Jakin argit. Arantzazu 1972 (75–78. orr.)
(163) ARANTZADI, TELESFORO. *De espectáculos brutales*, in Euskalerriaren alde 1913. Donostia (358–361. orr.)
(164) M, R. *Los Chopera*, in Diario Vasco 1984-VIII-19 (9. orr.)
(165) E. ALDASORO, ANTON. *Ehun urteko tolosar xexenzalea*, in Egin 1983-I-30
(166) AZKUE, R. MARIA. *Diccionario vasco-español-francés*. 2. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1969 (333. orr.)
(167) LABAIRU GOIKOETXEA, ESTANISLAO. *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Lehen alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo 1968 (556. orr.)
(168) M, R. *Corrida femenina*, in Diario Vasco 1985-VIII-4
(169) KORELLA, JOSE MARIA. *Sanfermines de Ayer*. Navarra. Temas de cultura popular. 212. alea. Iruñea 1974 (29. orr.)
(170) L, L. *Encierro de toros*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 10. alea. Auñamendi argit. Donostia (518. orr.)
(171) U, J. *Bibliografia*, in RIEV. 20. alea 1929. (132. orr.)
(172) SANCHEZ IRURE, KAIETANO. *Soka muturra*, in Euskal-Erria 1896. 34. alea. Donostia (49. orr.)
(173) CARO BAROJA, JULIO. *Los vascos*. Istmo argit. Madril 1971 (319. orr.)
(174) ZUNTZUNEGI GARMENDIA, JOSE MARIA. *Tres noticias históricas de la plaza de toros de Cestona*, in Cestona 1978. Festetarako programa.
(175) MURUGARREN, LUIS. *Catedral de El Buen Pastor. San Sebastian*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1975 (21, 23, 29, 31, 32, 35, 37, 38. orr.)
(176) MUJIKA, SERAPIO. *Las Calles de San Sebastian*. Donostiako Udala argit. Donostia 1965 (175, 188. orr.)
(177) ARRIZ. *La gran tradición taurina de nuestra villa*, in Deia 1984-VI-22 (16. orr.)
(178) X,X. *Beltz-Beltzak dira zezenak*, in Egin 1986-VI-22 (25. orr.)
(179) ALDABALDETREKU, FRANTZISKO. *Tauromaquia vasca*. Deba 1977. Herriko festetarako programa.
(180) URIA URIA, TRINO. *Repasando nuestras últimas ordenanzas*, in Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del Pais 1968. Donostia (458–461. orr.)
(181) "KALEI-KALE". *Los bueyes*, in Euskal-Erria 1898. 38. alea. Donostia (61–63. orr.)
(182) SANCHEZ IRURE, KAIETANO. *Emendek soka-muturra*, in Euskal-Erria 1898. 38. alea. Donostia (63, 64. orr.)
(183) AROZENA, ANTONIO. "DON CLARINES". *Treinta y cinco años de taurino*, in Vida Vasca

1945 (213, 214. orr.)
(184) LARRAÑAGA, RAMIRO. *Ramon de Gorosta. Un guipuzcoano desconocido.* Soc. Guip. de Edic. y Publicaciones argit. Donostia 1972 (99, 252. orr.)
(185) BARANDIARAN, JOSE MIGEL. *Expansión de la cultura,* in Anuario de Eusko–Folklore 1924 (193, 194. orr.)
(186) VIERGE, GALO. *Toreros y torerillos de Navarra,* in Vida Vasca 1955 (164. orr.)
(187) X, X. *El Carnaval de San Sebastián,* in Euskal–Erria 1900. Donostia (93, 95. orr.)
(188) X, X. *Iriyarena,* in Bertsolariya. 2. argitalpena. Sendoa argit. Donostia 1981 (72. orr.)
(189) M, R. *La tertulia de Arana,* in Diario Vasco 1985–VIII–18
(190) BERTSOLARIAK. *Ezkontza galdutako bertsoak.* 15. alea. Auspoa argit. Tolosa (87, 88. orr.)
(191) SILVAN, LEANDRO. *Oyarzun.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (61. orr.)
(192) ERAUSKIN, J. RAMON. *Aien garaia.* Auspoa argit. Tolosa 1975 (235. orr.)
(193) URANGA, JOSE MARIA. *Mondragón.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (84. orr.)
(194) ZABALA, ANTONIO. *Txirrita.(Bizitza ta bat–bateko bertsoak)* 18–19. alea. Auspoa argit. Tolosa (195. orr.)
(195) ZABALA, ANTONIO. *Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.* 60. alea. Auspoa argit. Tolosa (134, 135. orr.)
(196) VAL DE SOSA, VENANCIO DEL. *Vitoria en 1.900.* Boletín de la Institución Sancho el Sabio 1963. Gasteiz 9193. orr)
(197) AGIRRE, TXOMIN. *Kresala.* 3. argitalpena. Itxaropena argit. Zarautz 1954 (105. orr.)

13.- ZEZENAK XX. MENDEAN: LEHEN HAMARKADA

Mende honen hasierako albisteer berri ematerakoan, Euskal Herriko zezenfestak nahikoa finkaturik zeudela adieraz daiteke; aldaketa handirik gabe gaur egunekoen oso antzekoak bait ziren. Dena dela bi fenomeno azpimarragarri direla iruditzen zait: zenbait herritan zezenplaza biribil berrien eraikuntza batetik, eta gure artean Bilbo ardatz nagusi zelarik sortutako toreatzaile–andana luzea bestetik. Horiek kontutan hartuta izan ere, ez da harritzekoa mende honetan alternatibadun hamazortzi zezen–hiltzaile Bizkaiak emana izatea.

Baina has gaitezen bertatik 1.901. urtean Bilbon gertatutakoak aditzera ematen. Vista Alegren mendea hasi eta berehala, otsailaren 10ean, Clairac–en lau zezenko plazaratu zituzten Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoak* hil zitzan. Arratsalde hartan Tancredo Lopez jaunak bere numeroa egin zuen (Bilboko zezenplazan lehen aldiz). Plazaren erdian idulki baten gainean bera bakarrik geldi–geldik egon zen zezenkoa inguruan zebilkiolarik. Zezenko indartsu eta suharrak izan ziren Clairac-enak. *Kotxeritoak* kapote eta muletaz ederki maneiatu zituen. Banderilak sartzen ere luzitu zen, baina ezpata–lanetan ez.

Martxoaren 3an izan zen Bilboi bigarren nobillada. Carreros–en lau zezenko hiltzera, Francisco Palomar *Palomar chico* eta Antonio Fernandez *Bocanegra* ekarri zituzten Bilbora. *Palomar chicok* ez zuen ezer zuzen egin. *Bocanegra* berriz ausart eta ezjakin agertu zen. Bere bigarren zezenkoak bitan harrapatu zuen. Laugarren zezenkoak Emilio Rodriguez *Guitarra* banderilariari ipurtaldean adarra sartu zion, hogei zentimetro sakonduz.

Martxoaren 17ko nobilladan leku berean Tancredo Lopez–ek berriro ere bere saioa arrakastaz burutu zuen. Colmenar–eko Felix Gomez–en lau zezenko hiltzera *Salamanquino* eta Joaquin Calero *Calerito* etorri ziren Bilbora. *Salamanquinoak* ofizioa ikasi gabe zegoela erakutsi zuen eta *Caleritok* ez; hark ausardia eta jakinduria zituen. Lehen zezenkoaren belarria eman zioten.

Bi egun geroago, 1.901. urteko martxoaren 19an, Carreros–en lau zezenko Joaquin Calero *Calerito* eta Gregorio Taravillo *Plateritok* hilko zituztela iragarri zuten. Nobillada hartan, Antonio Alvarez–ek idulki gainean Tancredo jaunarena egin zuen. Dena dela, bi zezenko bakarrik plazaratu ziren, *Calerito* eta *Plateritok* zezenkoek harrapatuta erizaindegira joan beharra izan zutelako. Bai bata eta bai bestea gustatu zitzaien ikusleei.

1.901. urteko martxoaren 24ean Felix Gomez–en bi zezenko eta Carreros–en beste bi jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Alvarez–ek Tancredorena egin zuen berriro, eta Joaquin Calero *Calerito* eta Anastasio Castilla toreatzaileek luzitzeko modua eduki zuten, nahiz eta bigarrenak ezpataz asmatu ez. *Caleritori* lehen zezenkoaren belarria eman zioten. Bigarren zezenkoa Rafael Moreno *Granito de Oro* pikatzaileak eztenkada batez hil zuen. Gomez–en zezenkoak suhar portatu ziren, eta Carreros–enak ez.

Martxoaren 25eko nobilladan, Bilboko Vista Alegren German Sanchez Garcia *Serenito*, Francisco Alonso *Paquiro* eta Luziano Bilbao *Lunaresek* parte hartu zuten. Alvarez–ek ere bai idulkira igota ohi bezala. Carreros–en bost zezenko, txikiak eta kaxkarrak, plazaratu ziren. *Serenitok* jendea pozik utzi zuen, *Paquiro* ez zen ezertan nabarmendu eta *Lunaresi* bostgarrenaren belarria eman zioten.

1.901.eko martxoaren 31n, Julian Zelaia jaunak Orozko–ren zezenko toreatu bat atera zien Bilboko kazetariei. Zelaia berak Tancredo–rena egin ondoren ezpataz hil zuen. Banderilak sartzen *Bilboko kotxeritoa* eta Buesa, Etxataberri eta Emiliano Uruñuela *Litri* jaunak aritu ziren.

Apirilaren 7an Salamancako Cobaledaren sei zezenko jokatu zituzten Vista Alegren. Diego Rodas *Morenito de Algeciras*, Francisco Palomar *Palomar chico* eta Anastasio Castilla aurkeztu ziren haiek hiltzera. *Morenito de Algeciras*ek arrakasta lortu zuen, lehenengoan belarria irabaziz. Palomar–ek bi irabazi zituen arratsalde hartan eta Castilla–k bat. Alvarez eta Sestaoko *Renoncito* izeneko langile batek Tancredo jaunaren numeroa egin zuten. Jose Martinez *Aventurero* pikatzailea ere txalotua izan zen.

Biharamunean, 1.901.eko apirilaren 8an, Angoso–ren sei zezenko handi toreatu zituzten Diego Rodas algecirastarrak, Eduardo Albasanz *Bonifa* eta Castilla–k. Rodas–ek lehenengoaren belarria lortu zuen, *Bonifa* ezpataz asmatu ezinik ibili zen eta Castilla–ri gauzak ez zitzaizkion ongi atera. Alvarez eta *Renoncito* Tancredo–rena egiten saiatu ziren.

1.901. urteko lehen korrida apirilaren 28an eman zen Bilboko Vista Alegren. Otaolaurretxi–ren sei zezen toreatzera Emilio Torres eta Ricardo Torres *Bombita* anaiak ekarri zituzten. Zezen ahulak suertatu zitzaizkien arren, *Bombita* anaiek dotore lan egin zuten kapotez. Baita banderilak sartzen ere. Emilio anaia zaharrak lehen zezenaren belarria irabazi zuen eta Ricardo gazteak laugarrenarena. Jose Reyes *Ratonera* pikatzaileari bigarren zezenaren belarria eman zioten lana bikain egiteagatik.

Maiatzaren 2an ere Valle–ren sei zezen *Bombita* anaiek hil zituzten leku berean. Zezenak ederki portatu zirenez gero, bi anaiek berenak eta bi erakutsi zizkioten jendeari. Elkarlanean aritu ziren kapotez eta banderilaz alai eta adoretsu. Emilio Torres–ek bi belarri lortu zituen eta Ricardo Torres–ek bat.

1.901.eko maiatzaren 12an Vista Alegren Otaolaurretxi–ren sei zezenko jokatu ziren. Diego Rodas *Morenito de Algeciras*, Francisco Palomar *Palomar chico* eta Manuel Garcia *Revertito*k aurre egin zieten. *Revertito*k bostgarrenaren belarria lortu zuen. Zezenkoak ongi portatu ziren zalditan, gero laster itzali baziren ere.

Maiatzaren 16ko nobilladan Biencinto–ren sei zezenko hil zituzten Bilboko Vista Alegren Diego Rodas algecirastarrak, *Revertito*k eta *Bilboko kotxeritoak*. *Morenito* laugarren zezenkoak adarkatu egin zuen. *Revertito*ri belarri bat eman zioten eta Kastor Jauregibeitia ez zen luzitu. Seigarren zezenkoak kolpatu egin zuen gainera. *El Chato* eta Frantzisko Sarasua *Txarol* pikatzaileak txalotuak izan ziren[1]. Garai hartan *Txarol* pikatzailea Kastor Jauregibeitiaren koadrilako partaide zen jadanik[2].

Maiatzaren 26an beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren. Valle–ren sei zezenkoak txikiak eta koldarrak suertatu ziren. Kastor Jauregibeitiak lana ederki burutu zuen kapote eta muletaz, baina ezpataz asmatu ezinik ibili zen. Anastasio Castilla toreatzaileari ere bilbotarrari bezalaxe atera zitzaizkion gauzak arratsalde hartan. *Lunares* igorretarrak belauniko sartu zituen banderilak eta *Txarol* pikatzailea txalotua izan zen.

1.901.eko ekainaren 6an beste nobillada bat eman zuten Bilboko zezenplazan. Ripamillan–en sei zezen zahar eta koldar jokatu zituzten. Nicanor Villa *Villita* eta Antonio Guerrero *Guerrerito* etorri ziren haiek hiltzera. *Sanjuanero* izeneko lehen zezenak (gaztainkara argia eta 20 zenbakiduna zen) Domingo Manso *Isleño* banderilaria adarkatu egin zuen banderilak ipini zizkionean. Biharamunean peritonitisaren ondorioz hil egin zen Bilbon.

Ekainaren 16rako beste nobillada bat iragarri zuten. Ripamillan–en sei zezenko Manuel

Jimenez *Chicuelo* eta Angel Carmona *Camiserok* hilko zituzten.

1.901.eko ekainaren 23an Domingo Manso *Isleño* banderilari zenaren familiari laguntzeko nobillada bat antolatu zen Bilboko Vista Alegren. Carreros–en sei zezenkoak oso koldarrak atera ziren. Bi toriletara bueltatu zituzten eta bigarren eta laugarrenari suzko banderilak ipini zizkieten. *Esparterito*, Antonio Moreno *Machaca*, Antonio Rivas *Moreno de San Bernardo*, Jose Morales *Ostioncito*, Francisco Alonso *Paquiro* eta Jose Rodero *Valdepeñas*ek parte hartu zuten. Eduardo Jauregibeita ere (*Bilboko kotxeritoa*ren anaia) orduantxe aurkeztu zen jendaurrean.

Hilaren 18an hasi ziren Bilbon 1.901. urtearen abuztuko korridak. Luis Mazzantini, Antonio Fuentes eta Antonio de Dios *Conejito* kontratatu zituzten lanerako eta lehenengo korridan Adalid–en sei zezen hil behar izan zituzten. Fuentes–ek bostgarrenaren belarria lortu zuen, eta *Conejito*k hirugarrenarena. Mazzantini berriz ez zen luzitu arratsalde hartan.

1.901.eko abuztuaren 19an bigarren korrida ematen hasi ziren. Villamarta–ren bi zezen bakarrik toreatu zituzten tximista eta trumoi artean. Hirugarren zezenean eurijasa hasi zuen eta jaialdia bertan behera gelditu zen. Toreatzaileak erretiratu eta zezena toriletara bueltatu ezinik ibili ziren. Rufino Fernandez izeneko ikusle bat orduan hondarrera jaitsi eta zezenari iskintxo eginez hasi zen. Zezenak adarra sartu zion izterrean.

Abuztuaren 20an jokatu zen hirugarren korrida. Muruberen sei zezen eta Villamarta-ren bi plazaratu ziren. Muruberenek suhartasuna erakutsi zuten, eta Villamarta-ren batek ere bai. Luis Mazzantinik itxuraz lan egin zuen. Fuentes dotore aritu zen, baina ezpataz ez zuen asmatu. *Conejito* berriz, oso txalotua izan zen seigarrena hil zuenean eta hirugarrenaren belarria eman zioten. Zortzi zezen jokatu ziren abuztuaren 20an eta biharamunean, bezperakoa esan bezala motza izan zelako.

1.901.eko abuztuaren 21ean Ripamillan–en sei zezen eta Villamarta nahiz Muruberen bana plazaratu zituzten aipatutako hiru ezpatarientzat. Azkeneko zezena Jose Hernandez *Americano* ordezko ezpatariak hil zuen. Lehen zezenean Luis Mazzantinik gorabeherak izan zituen lehendakariarekin. Manuel Fernandez *Chanito* pikatzaileak bitan utzi zuen ezten–haga zezenaren lepagainean iltzatua eta lehendakariak erretira zedila agindu zion. Mazzantinik kontra egin zion. Faena hasterakoan brindisik ez zuen egin eta bukatutakoan lehendakaria ez zuen agurtu. Lehendakariak dei egin zion orduan, eta elkarri argibideak eman ondoren arazoa konpondurik gelditu zen. Laugarren zezena lehendakariari eskaini zion elgoibartarrak. Faena ederra burutu ondoren ondo hil zuelako, belarria eman zioten. Antonio Fuentes–ek arratsalde ona izan zuen hura. Bere bigarren zezenaren belarria eman zioten. *Conejito*k berriz, zazpigarren zezenarena lortu zuen.

Bilboko Vista Alegren irailaren batean korrida eman zuten Campos–en sei zezen jokatuz. Ganaduzale berria zen hura Bilbon, baina jendea pozik utzi zuen. Joaquin Navarro *Quinito* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k parte hartu zuten.

1.901.eko irailaren 8an beste korrida bat ospatu zen Vista Alegren. Joaquin Hernandez *Parrao*, Manuel Lara Reyes *Jerezano* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*ri Lopez Navarro–ren sei zezen bota zizkieten. *Parrao* gaizki egon zen. *Jerezano* berriz adorerik gabe ikusi zuen jendeak, baina hiltzerakoan ezpata bi zezenetan ederki sartu zuelako, bi belarri eman zizkioten. *Machaquito* dotore eta ausart aritu zen kapote nahiz muletaz, baina hiltzerakoan zorterik ez zuen izan.

Irailaren 15eko nobilladan, Campos–en sei zezenko jokatu ziren Vista Alegren; zezenko txikiak eta onak. Antonio Segura Campos *Segurita*, Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa* eta Anastasio Castilla izan ziren haiek hiltzeko kontratauak. *Segurita* bere bigarrenean luzitu zen.

Bilboko kotxeritoa ere bai kapote eta muletaz, baina ezpataz ez. *Txarol* pikatzailea eta *Lunares* banderilaria txalotuak izan ziren. Antonio Medina-k Tancredo jaunaren numeroa egin zuen.

1.901.eko irailaren 22an, Salas-eko markes alargunaren zortzi zezenko korritu zituzten Bilboko Vista Alegren. Antonio Rivas *Moreno de San Bernardo*, Kastor Jauregibeitia, Anastasio Castilla eta Angel Carmona *Camiserok* parte hartu zuten. Lau zezenko ohi bezala toreatu eta hil ziren, eta beste lau plaza erdibituta (Bilbon lehen aldiz). Lehen lau zezenkoetan *Kotxeritoa* eta Castilla nabarmendu ziren kapotez, eta *Camisero* banderilak sartzen. Lehen zezenkoak Luziano Bilbao *Lunaresi* hortz bat hautsi zion. Plaza erdibituta bi zezenko aldiberean jokatzea ez zitzaion jendeari gustatu. Alderdi batean *Moreno de San Bernardo* eta *Camisero* aritu ziren eta bestean Kastor eta Castilla. Lehen alderdiko lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten, eta gero plaza erdibitzeko hesia hautsi zuen. Bi zezenkoak banatzea asko kostatu zitzaien gero. *Kotxeritoa* ongi aritu zen. Castilla ere bai, biek belarri bana lortu zutelarik. *Camisero*, hiltzerakoan, zezenkoak harrapatu egin zuen, eta gero ere bai. Antonio Rivas gaizki egon zen.

Irailaren 29an beste nobillada bat eman zuten Vista Alegren, Nafarroako Bianatik lau zezenko ekarrita. Manuel Calderón toreatzaile burgostarrak hil zituen.

Urriaren 6an berriz, Clairac-en lau zezenko hiltzera Francisco Cayela *el Rolo* eta Manuel Gonzalez *Rerre* ekarri zituzten. Astebete geroago berriz, urriaren 13an, Eloy Lamamié de Clairac-en beste lau zezenko jokatu zituzten. Kastor Jauregibeitia eta Rufino San Bizente *Begoñako txikia* (ordezko ezpataria) etorri ziren Vista Alegrera haiek hiltzera. *Kotxeritoak* hiru hil zituen; hirurak ederki, faena dotoreak burutu ondoren. Lehenengoaren belarria eman zioten. Laugarren zezenkoak, Rufino harrapatu egin zuen kapaz ari zela, eta gero ezpata sartzerakoan ere bai. Ausardia ikaragarria ikusi zitzaion Begoñako toreatzaileari. Jose Muñagorri eta Luziano Bilbao txalotuak izan ziren banderilak sartu zituztenean. Baita Federico Corto bandako turutajolea ere bere musikatresna ongi jotzeagatik. Musikari honek gero *Club Cocherito* izeneko pasodoblea konposatu zuen.

1.901. urteko azaroaren 1ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren. Clairac-en bi zezenko eta Reina-ren beste bi jokatu ziren orduan. Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa*, Manuel Calderón eta Luziano Bilbao *Lunaresek* hil zituzten. Kastor ongi artiu zen bere lehenengoan eta hirugarrenean hagaz zezen gainetik saltatu zuen. Aulkian eserita banderilak sartzea ere nahi izan zuen. *Lunares* igorretarrari utzi zion hiltzen. Bigarren saioan ederki hil zuelako belarria eman zioten Luzianori. Calderon-ek ere bere bi zezenkoak bi ezpatakadaz bota zituen.

Azaroaren 24ean izan zen Bilboko Vista Alegren 1.901. urteko azken emankizuna. Diaz-en lau zezenko atera ziren toriletatik Rufino San Bizente, Jose Martinez *Aventurero*, *Bilbainito* eta *Maleño*rentzat. Jose Martinez-ek pikadore, toreatzaile eta hiltzaile gisa egin zuen lan. Tancredorena ere egin zuen[1]. Jaialdi hura Jose Martinez pikatzaileak antolatua zen. Lau zezenkoak hiltzeko Rufino San Bizente *Begoñako txikia* kontratatu zuen 175 pezetatan. Rufino gaixo atera zen plazara, baina zezenko haienak egin zituen. *Aventurero* pikatzaileak berriz, ez omen zion ordaindu agindutakoa Rufino gazteari. Rufino gainera 1.901.ean Gasteizen Manuel Calderon-ekin zezenkoak toreatzen eta hiltzen aritua zen; Manuel Calderon-ek antolatutako nobilladan, hain zuzen[3].

Begoñan jaiotako beste zezenko-hiltzailea, Kastor Jauregibeitia, 1.901. urtean famatua zen. Madrilen martxoaren 24ean Mihuraren sei zezenko eta Bañuelos-en bi jokatu zirenean parte hartu zuen Juan Sal *Saleri*, Angel Carmona *Camisero* eta Manuel Jimenez *Chicuelo*rekin batera. Plaza berean urtarrilaren 27an ere lan egin zuen nobillada batean Juan Sal *Saleri* eta Florencio Martinez

*Gallito de Valencia*rekin batera.

Antolin Arenzana *Recajo* toreatzaile bilbotarrak, 1.901. urteko otsailaren 6an jantzi zuen lehen aldiz traje distiratsua; Gallarta–ko plazan irailaren 8an toreatzeko hain zuzen[4]. Eta Gallartan bertan urte hartako maiatzaren 20an Putxeta auzoan Jaime Noain Gonzalez jaioa zen jadanik; gero zezen–hiltzaile izango zena. Bilbon berriz, 1.901.eko otsailaren 3an San Frantzisko kalean Martin Aguero Ereño jaio zen. Bataio-agirian lehenbizi Joan izena agertzen da, baina gero Martin izenaz aldatua dago[5].

1.901. urtean maiatzaren 8an Urduñan Manuel Orbe *Serenito* edo *Cocherito chico*k parte hartu zuen nobillada batean[4]. Aipa dezagun bestetik Barakaldon urte hartan musika–banda osatu zela. Pedro Alberdi tolosarra izan zen lehen zuzendaria; gero Bizkaiko toreatzaileen omenez *Torquito, Fortuna*[6] eta *Cocherito* pasodobleak egin zituena[7].

Luis Mazzantini elgoibartarra, sasoirik onena joana zegoen 1.901. urtean. Berrogeitabost urte zituen gainean eta anaia Tomas–ek asko laguntzen zion plazan lanak erraztuz. Dena dela urte hartan Madrilen ere toreatu zuen Benefizentzi korridan. Saltillo–ren *Chulito* zezena Alfonso XIII.ari, erregeari, brindatu zion. Denboraldia amaitu zenean Mexikora joan zen Luis Mazzantini bere koadrilarekin toreatzera[4].

13.1. irudia. Donostiako sokamuturra. 1.901. urtean Rita eta Kiteria santen egunean jokatua.

1.901. urteko sansebastianak Donostian ohizko danborrada eta sokamuturrez ospatu zituzten. Abenduaren 20an korritutako sokamuturrean Lasala plazan eta alderdi zaharrean kolpatuak suertatu ziren batzuk. Joan Aizpurua jauna gainera larriki zauritua izan zen eta San Antonio ospitalera eraman zuten. Bi egun geroago Pagola jaunak udaletxean egun hartatik bertatik sokamuturrak suspenditzea proposatu zuen. Esnal ganaduzalearekin kontratua egina zegoen ordea, eta urte hartan sokamuturrei jarraipena ematea erabaki zen. Elosegi jaunak dena den, hurrengo urtean sokamuturrik ez emateko neurriak hartzearen eritzia plazaratu zuen[8]. Esan beharra dago Madrileko *Gaceta*n aurreko urteko azaroan sokamuturrak eta bikeztatutako zezenak debekatuz erret agindua jadanik argitaratua zegoela[13].

Udan berriz, Jose Aranak urtero bezala 1.901.ean korridak antolatu zituen Atotxa–ko plazan. Korrida–egunetan, iparraldetik jende asko etortzen zen Donostiara; bai trenez eta bai errepidez. Errpidez lau zaldiz tiratako kotxe landotan iristen ziren. Bilbotik berriz atoiuntzi bat etorri ohi zen eguerdian Donostiako portura[9].

1.901.eko abuztuaren 15eko korridan Saltillo–ko markesaren zezenak jokatu zituzten, eta *Naranjito* izenekoak Andres Castaño *Cigarrón* pikatzaile jereztarra (Emilio Torres–en koadrilakoa) bere zaldi eta guzti lurrera bota zuen larriki zaurituz. Handik bi egunera hil zen Donostian[4]. Zelaren muturrak gibela apurtu zion, zezenak barreraren kontra zaldi–zaldunak bota zituenean[10]. Luis Alcarraz pikatzaile biasteriarra ere uda hartan Donostian sudurra hautsita suertatu zen[4].

Abuztuaren 25eko korridan Antonio Fuentes eta Antonio de Dios *Conejito*k parte hartu zuten Veragua–ko dukearen zezenak ongi toreatuz. Korridaren amaieran Salzedo jaunak plazaren erditik oihuka beste zezen bat aterako zela adierazi nahi izan zuen, baina batzuek harriak bota zizkioten eta bere mezua eman gabe ezkutalekura sartu zen. Gero Saltillo–ren zezen bat atera zuten eta *Conejito*k faena motza burutu ondoren ezpata osorik sartu zion.

Tolosan 1.901. urtean zezenzale–talde bat bildu zen plaza biribila egiteko asmoz. Lehenengo bilera Letxu–kaleko latorritegian egin zuten; *Txotxa*ren dendan. *Botton* jauna zen aurrean zebilena eta *Jai Egillea* izeneko elkartea eratu zen, Gregorio Irastortza lehendakari zela. Ugarte, *Zebaderua* eta Larramendi medikua ere han ziren. Udalak ez zuen lagundu, baina elkarteak 250 pezetako akzioak atera zituen. Akzio gehien hartutakoa, Santiago Agirre traperoa izan zen; gero plazaren jabe egin zena. Ariztimuño jaunak ere (*Aitzol*en aitak) akzio asko hartu zuen; zinegotziz gain oso zezenzalea bait zen. Guztira 120.000 pezeta kostatu omen zitzaien plaza[12]. Lurrak erosten 35 zentimo gastatu zituzten metro karratu bakoitzeko. Harria, Txarama-ko eta *La Tolosana* paperola ondoko harrobietatik ekarri zuten.

Zezenplaza biribil berriaren proiektua Alejandro Mujika arkitektoak burutu ondoren, 1.901. urteko ekainaren 1ean elizkizuna amaitutakoan lehen harria ezarri zuten.

Irailaren 9an berriz, Tolosako Plaza Berrian nobillada izan zen. Francisco Palomar *Palomar chico* toreatzaileak zezenkoak nola edo hala hil zituen. Baina plazara jendea gehien eraman zuena Tancredo Lopez jauna izan zen. Istiluak ere izan ziren, eserleku baino dexentez sarrera gehiago saldu zirelako. Tancredo jauna dena dela, idulkiaren gainean geldi–geldik egon omen zen eta zezenkoa hiru minutuz usainduz egon omen zitzaion[11].

1.901. urtean Azpeitian ere zezenplaza biribil berria egiteko asmoak bazituzten, baina urte hartan saninaziotan herriko plazan ospatu ziren nobilladak aurrekoetan bezalaxe. Enpresa pribatuek antolatutako emankizunekin jendea pozik gelditzen ez zelako, Udala bera arduratu zen guztiaz. Joan Jose Ezeiza alkatea, Joan Clemente, Jose Uranga eta Frantzisko Maria Alberdi jaunek osatu zuten batzorde zuzentzailea. Kastor Jauregibeita *Bilboko kotxeritoa*k 5.000 erreal kobratu zituen bi nobilladatan. 662,50 pezetako irabazia izan zuen Udalak. Hirugarren eguneko zekorketan ordea, Udalarenak ziren toreatzaile– eta pikatzaile–trajeak faltatu zitzaizkien, eta aurreko urteko enpresariari (Inazio Bereziartua jaunari) erreklamatu zizkioten[14].

XX. mendearen hasieran zezenplaza berria egiteko asmoa Nafarroako Lodosan ere izan zuten. Asmoa bakarrik ez ordea; asmoa gorpuzteko bitartekoak ipini bait zituzten, 1.800 ikuslerentzako plaza berria estreinatuz[15].

Iruñean 1.901. urteko sanferminetarako Antonio Fuentes, Antonio de Dios *Conejito*, Jose Garcia Rodriguez *Algabeño*, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Molina Martinez *Lagartijo chico* kontratatu zituzten. Korridak uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean izango ziren. 9aren goizean proba ere emango zuten, Lizaso anaien zezenak korrituz. Gero uztailaren 11n ohizkanpoko benefizentzi korrida izango zen Colmenar herriko zezenak jokatuz[16]. Egun bakoitzean honako ganaduzale hauen zezenak korritu zituzten: Diaz-en semeenak (hilaren 7an), Espoz y Mina-ko kontearenak (8an), Lizaso anaienak (9an goizeko proban), Veragua-ko dukearenak (9an arratsaldean; Espoz y Mina-ko kontearen zezen bat ere bai), Mihurarenak (hilaren 10ean) eta Felix Gomez-enak (hilaren 11n)[17].

Sanfermin haietan bi gauza azpimarragarri gertatu ziren. Batetik, azken eguneko entzierroan Espoz y Mina eta Estafeta kalean jendea korrika ari zela, gazte batzuk kontrako norantzan korrika hasi ziren zintzarriak joaz eta bromaren ondorioz zauritu batzuk izan ziren. Bestetik, Sarasate musikari iruindar famatua urte hartan ere bere herriko korridak ikustera etorri zen[18].

Sanferminetara urte hartan, Kaparrosoko Zalduendoren zezenak ez ziren joan, baina mendearen hasieran Logronio-ko Fidel Rubio jaunak behi eta zezen batzuk erosi zizkion bere gandutegia osatzearren[19].

Nafar-zezenak zituen beste ganaduzale bat, Celestino Miguel tuterarra zen. 1.901. urteko apirilaren 7ko nobilladarako Zaragozara bere zezenkoak bidali zituen. *Ventero* izeneko hirugarren zezenkoak, Vicente Gandia *el Chufero* toreatzailea adarkatu egin zuen lantze batean. Handik zazpi egunera hil egin zen Onteniente-n jaiotako gazte hura[4].

Eta azkenik aipa dezagun 1.901. urteko udan Bordelen ere korrida eman zutela. Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarra Arrate-n egon ondoren Merignac-era joana zen eta Bordeleko korrida ikustera ere bai[20]. Boucau herrian berriz, Mathieu toreatzailea hilik suertatu zen korrida landetarrean izandako istripuaren ondorioz[21].

———— o ———— o ————

1.902. urtean Bilboko Vista Alegren zezenen denboraldia martxoaren 9an hasi zen nobillada baten bitartez. Kastor Jauregibeitia eta Anastasio Castilla-k Salas-en bi zezenko eta Gomez-en beste bi toreatu zituzten. Zezenko koldarrak eta arriskutsuak izan ziren. Seigarrenari suzko banderilak ipini zizkioten. Gainerakoan ez zen ezer azpimarragarririk gertatu.

Martxoaren 16ko nobilladan, Tabernero-ren sei zezenko jokatu ziren Vista Alegren. Manuel Calderón, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* eta *Bilbainito* kontratatu zituzten haiek hiltzeko. Zezenkoek legea bete zuten batezbeste, eta laugarrena oso suharra izan zen. Calderon-ek laugarrenaren belarria irabazi zuen. Rufino San Bizente-k (*Begoñita* ere esaten zioten) ezpataz ez zuen asmatu eta *Bilbainito* ere ez zen luzitu. Airean maiz erabili zuten zezenkoek. *Aventurero* pikatzailea bigarren zezenkoaren gainean jarri zen, baina abelgorriak lurrera bota eta hanka zauritu zion.

1.902. urteko martxoaren 30ean izan zen Bilbon urte hartako hirugarren nobillada. Ripamillan-en sei zezenko toreatzera Gregorio Taravillo *Platerito*, Kastor Jauregibeitia eta Tomas Alarcón *Mazzantinito* aurkeztu ziren. Zezenkoek nahikoa portaera ona erakutsi zuten. *Plateritok* bere bigarrena oso ederki hil zuen. *Bilboko kotxeritoa* arratsalde osoan ongi egon zen; bostgarrena hiltzerakoan batez ere. *Mazzatninitok* lehen saioa zuen Bilbon eta jendeari asko gustatu zitzaion. Bere lehen zezenkoaren belarria eman zioten.

Laugarren zezenkoa hondarrera atera eta laster, Jose Castellanos *Gallegito* banderilaria lurrera erori zen bihotzekoak emanda. Erizaindegira eraman zutenerako hila zen.

1.902. urtean Bilboko laugarren nobillada apirilaren 13an eman zuten Vista Alegren. Castellanos–en sei zezenko Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete*k hil zituzten. Zezenkoek zalditarako joera erakutsi zuten, eta seigarrenak bost pikalditan hiru zaldi eraitsi eta bi hil zituen. Hala eta guztiz ere lehendakariak suzko banderilak ipintzea agindu zuen. Vicente Pastor batez ere bere lehenengoan izan zen txalotua. Jauregibeitiari bere lehenengoaren belarria eman zioten eta *Manolete* bere bigarrenak lantze batean harrapatu egin zuen, erropa urratuz.

Apirilaren 20ko nobilladan Salas–en sei zezenko eta Machio, Antonio Boto *Regaterin* eta Tomas Alarcon *Mazzantinito* ikusteko aukera izan zuten bilbotarrek. Machio–ri txistu asko jo zioten, gauzak gaizki atera zitzaizkiolako. *Regaterin*ek berriz bostgarrenari bikain sartu zion ezpata, belarria lortuz. *Mazzantinito*k ere lana ongi egin zuen; kapotez batez ere.

1.902.eko maiatzaren 2an Bilbon Valle–ren sei zezen eta Cobaleda–ren bat jokatu zituzten. Korrida hartan Luis Mazzantini eta Juan Sal *Saleri*k parte hartu zuten, Tomás Alarcón *Mazzantinito* ordezko ezpatari zelarik. Mazzantini elgoibartarra ezinhobeto aritu zen arratsalde osoan. Ezpatakada banaz bota zituen bere bi etsaiak, beren belarria lortuz. Juan Sal *Saleri*ri lehen zezena hiltzen Luis Mazzantinik utzi zion, horrela alternatiba sendotu zuelarik. Zezen hark erropa urratu zion. *Mazzantinito*k ongi hil zuen zazpigarrena. Tomas Mazzantini ere nabarmendu zen banderila eta kapotez.

Handik bi egunera, Conradi–ren sei zezen eta Cobaledaren beste bat jokatuz beste korrida bat eman zen Vista Alegren. Luis Mazzantini eta Rafael Molina Martinez *Lagartijo chico*k hil zituzten. Ordezko ezpatari Tomas Alarcon *Mazzantinito* izan zen. Conradi–ren zezenak txikitxoak izan ziren, eta Cobaleda–rena koldar hutsa. Ezer berezirik ez zen gertatu korrida hartan, bi ezpatariek egindako kite batzuk ezik.

1.902.eko maiatzaren 19an, Cobaleda–ren lau zezenko plazaratuta nobillada ospatu zen Vista Alegren. Manuel Calderón eta Rufino San Bizente–k lan egin zuten. *Begoñako txikia* oso ausart aritu zen arratsalde haizetsu hartan. Zezenkoek behin baino gehiagotan harrapatu zuten Rufino. Calderon–ek berriz, bere bigarren zezenkoari belarria moztea lortu zuen.

Ekainaren 1eko korridan Bilbon Zalduendo kaparrosoarraren sei zezen jokatu ziren. Antonio Reverte eta Antonio Guerrero *Guerrerito*k hil zituzten. Reverte bi zezenetan ongi egon zen eta beste batean oso ongi. Belarri bat eman zioten. *Guerrerito*k berriz bere bigarrenari moztu zion belarria.

Ekainaren 8an nobillada bat eman zen Argentina–ko *Sarmiento* fragatan etorri ziren marinelen omenetan. Peñalver–en bost zezenko eta Cobaleda–ren bat plazaratu zituzten Madrileko Antonio Segura *Segurita*, Kastor Jauregibeitia eta Tomas Alarcón *Mazzantinito*rentzat. *Seguritak* bere lehenengoaren belarria lortu zuen. *Bilboko kotxeritoa*ri bostgarrenarena eman zioten eta *Mazzantinito*ri ere bai bere lehenengoarena.

1.902. urteko ekainaren 15ean beste nobillada bat ospatu zen. Castellones–en sei zezenko korritu zituzten Diego Rodas *Morenito de Algeciras*, Manuel Garcia Reverte *Revertito* eta Manuel Calderon–ek hil zitzaten. Lehen bi zezenkoak Isidro Crané eta Jose Bayard *Badila*k zaldiz burtzikatu zituzten. Bigarrena Manuel Calderon–ek hil zuen ezpataz. Beste lau zezenkoak

oinezkoentzat izan ziren. Algecirastarra asko saiatu zen arratsalde osoan. Bi faena eder burutu zituen, bere bigarrenaren belarria lortuz. *Revertito* bere bigarrenean aritu zen ongi. Belarria eman zioten.

1.902. urteko ekainaren 22an, Bilbon korrida eman zuten bertako Errukietxe eta Ospitalearen alde dirua biltzearren. Valle-ren sei zezen plazaratu zituzten Angel Garcia *Padilla*, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Juan Sal *Saleri*rentzat. *Padilla*k bere arteaz guztiak txundituta utzi zituen. Bi belarri eman zizkioten etengabeko txalo artean. *Chicuelo*k bere bigarrenean ausart jokatu zuen eta *Saleri*k bere lehenengoan lortu zuen belarria.

Abuztuko korridak, hilaren 17an hasi ziren Bilbon 1.902. urtean. Antonio Reverte, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita* kontratatu zituzten; lehenengoa hiru korridatarako eta besteak laurako. Lehen korridan Villamarta-ren sei zezen ederki portatu ziren plazan. Reverte-k lehen zezenari belarria moztu zion faena ona burutu ondoren. Fuentes-ek ez zuen ezpataz asmatu eta *Bombita*ri hirugarren zezenaren belarria eman zioten.

Abuztuaren 18an izan zen bigarren korrida. Muruberen sei zezen zangar plazaratu ziren. Hiru ezpatariek lana bikain egin zutelako txalo asko jo zieten. Reverte-k hiltzerakoan ez zuen zorterik izan. Fuentes-ek ezpatakada ezinhobeaz bota zuen bere lehenengoa eta belarria eman zioten. *Bombita*k berriz bi belarri lortu zituen eta bizkar gainean atera zuten.

Abuztuko 19an emandako korridan izan zen Bilbon Reverte ikusteko azken aukera. Saltillo-ko markesaren sei zezenak suhartasuna erakutsi zuten. Bostgarrenak esate baterako, zortzi pikalditan bost zaldi hil zituen. Antonio Fuentes-ek zezen honi banderilak ederki ipini ondoren faena bikaina burutu zion. Belarria eman zioten. Reverte-k zorterik ez zuen izan arratsalde hartan. Hogeitamabi urte zituen jadanik, eta Baionan jasandako zauri larrien ondorioz sasoirik onenak joanda zebilen. Antonio de Dios *Conejito* Iruñeko sanferminetan zauritu zelako ekarri zuten Reverte Bilbora. Ricardo Torres *Bombita*ri bere lehen zezenaren belarria eman zioten.

1.902. urtearen abuztuko azken korrida (laugarrena) hilaren 20an izan zen. Benjumea-ren sei zezen eta Murube-ren bat plazaratu zituzten. Zazpigarrena Kastor Jauregibeitiak hil zuen eta beste seiak Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita*k. Benjumea-ren zezenak bigunak izan ziren. Fuentes bostgarren zezenean bakarrik nabarmendu zen, belarria lortuz. *Bombita*k berriz bere lehen zezenean bakarrik egin zituen gauzak ondo. Reverte-k ez zuen parterik hartu bezperan barreraren kontra esku bat zauritu zitzaiolako.

Irailaren 8an nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren Otaolaurretxi-ren sei zezenko plazaratuz. Vicente Pastor, Francisco Palomar *Palomar chico* eta Tomas Alarcón *Mazzantinito* arduratu ziren haiek hiltzeaz. Zezenkoek legea bete zuten eta toreatzaileei ez zitzaien ezer nabarmenik ikusi. Bostgarrenak *Mazzantinito*ri adarpunta sartu zion banderilak sartzen ari zitzaionean. Seigarren zezenkoak Nicolas Garcia *el Polo* banderilaria zauritu zuen.

1.902. urteko irailaren 14ean, beste nobillada bat ikusteko aukera izan zuten bilbotarrek. Ripamillan-en bost zezenko eta Muruberen zezen bat (abuztuan sobratutakoa) toreatu eta hil zituzten Kastor Jauregibeitia eta Jose Moreno *Lagartijillo chico*k. Ripamillan-enak koldarrak suertatu ziren eta Muruberena suharra. *Bilboko kotxeritoa*ri lehen zezenkoaren belarria eman zioten. *Lagartijillo chico*k jendea pozik utzi zuen bere aurkezpenean; bere bi zezenkoak ederki toreatu eta hil bait zituen.

Irailaren 21eko nobilladan Antonio Boto *Regaterin* eta Jose Moreno *Lagartijillo chico*k

parte hartu zuten Clairac–en sei zezenko toreatuz. Zezenkoak erabat koldarrak zirelako bi ezpatariek ezer egiterik ez zuten izan, nahiz eta asko saiatu.

Irailaren 28ko nobilladan Bizarra–ren bi zezenko eta Catalán–en beste bi plazaratu ziren; txikiak eta zangartasunik gabeak. Lehenbizikoari bolbora erre zioten. Rufino San Bizenteri ausardia handia ikusi zioten. Laugarrenak aireratu egin zuen. Alacante–ko Julio Martinez *Templaito* izan zen beste toreatzailea. Azkenean bi zezenko bolaztatu plazaratu zituzten.

1.902. urteko urrian ere eman ziren nobilladak Bilboko Vista Alegren. Hilaren 5ean Antonio Segura *Segurita* madrildarrak eta Francisco Crespo *Currito*k Collantes–en sei zezenko hil zituzten. *Segurita*k ezpataz ez zuen asmatu. *Currito* berriz adorerik gabe aritu zen.

Urriaren 12an Bilboko dendetako enplegatuek Quintana–ren hiru zekor korritu zituzten Vista Alegren, Deustuko Itsu eta Gormutuen Elkarteari laguntzearren. Zekor handiegiak zirenez gero, toreatzaileak maiz ibili ziren aireraturik. Ezpatariek ez zituzten hil nahi arriskua ikusten zutelako, baina azkenean Luziano Bilbao *Lunares*ek lehen biak hil zituen. Hirugarrena toriletara bueltatu zuten jendea hondarrera jaitsi eta handik erretiratzerik egon ez zelako.

Urriaren 19ko nobilladan *Bilboko kotxeritoa* aurkeztu zen Valle–ren lau zezenko hiltzera. Zezen suharrak eta indar gutxikoak izan ziren haiek. Kastor Jauregibeitia oso ongi aritu zen eta bigarrenari belarria moztea lortu zuen. Manuel Calderon eta biak banderilak ederki sartu zituzten.

Urriaren 26ko nobilladara *Confitero*, *Martinito* eta *Mayorito* goitizena zuten toreatzaileak etorri ziren. Diaz eta Valle–ren zezenko elbarri batzuk atera zituzten plazara. Laugarrena sutu egin zuten, eta ikuilutara eraman ere bai ilundu egin zuelako.

1.902. urtean azaroan ere zezenfestak izan ziren Bilboko Vista Alegren. Hilaren 1ean lehenengoa, Diaz–en hiru zezenko koldar eta Pedro Gonzalez–en beste bat korrituz. Antonio Rivas *Moreno de San Bernardo* eta Manuel Calderon–ek lan egin zuten. Bi zezenkori suzko banderilak ipini zizkieten.

Urriaren 10ean Bilboko ganadu–hiltzaileek zekorketa bat antolatu zuten. Meliton Ruiz–en lau zekor jokatu ziren, Manuel Calderon–ek toreaketa–lanak zuzendu zituelarik[1]. Garai hartan Manuel Calderon–en aginduetara Tauste–ko Felix Leziñena *Valladolid* izeneko banderilariak lan egiten zuen.

1.902. urtean Bizkaian, Barakaldon otsailaren 9an hain zuzen, zezenko–hiltzaile gisa lan egingo zuen Kastor Etxebarria Txakaltegi jaio zen[4]. 1902. urtean zezenkoak hiltzen gogor zebilen beste bizkaitar bat, Kastor Jauregibeitia zen. Abuztuaren 17an Madrilen toreatu zuen, Tomas Alarcon *Mazzantinito* eta Ricardo Martinez *Yeclano*rekin batera Mihuraren ganadua hilez[22].

Urte hartantxe, beste bilbotar bat plazarako zezenak hazten hasi zen. Felix Urkola ganaduzaleak, Jose Antonio Adalid–en burdina erosi zuen horretarako[23]. *El Hule* izeneko aldizkaria ere orduan hasi ziren argitaratzen[24].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Bizkaitik kanpora ere ibili zen 1902.ean nobilladatan parte hartuz. Ekainaren 15ean Gasteizen Kalagorriko Beriain–en semeen lau zezenko toreatu zituen Manuel Orbe *Serenito* ordezko ezpatari zela. Rikardo Lopez Calle banderilari gasteiztarra lehenengo zezenkoak bularrean adarkatu egin zuen, larriki zaurituz[25]. Rufino–k urte hartan Hondarribian ere toreatu zuen. Mihuraren lau zezenkok zazpitan erabili zuten airean[3].

Tolosan 1902. urtean zezenplaza berria eraikitzen ari ziren jadanik, eta gauza batez ohartu ziren: arkitektoari goiko palkoetara iristeko eskailerak markatzea ahaztu egin zitzaiola. Kanpotik egin behar izan zituzten bi eskailera. Bakoitza 5.000 pezeta kostatu zitzaien. Plazako torilak ere oso txikiak ziren eta inoiz gertatu zen bi korrida antolatu eta ia hasi arte zezen batzuk plaza-erdian eduki beharra. Gerora ordea, ikuilu handiagoak egin zituzten[12].

Eibar-en ere Tolosan bezalaxe sanjoanetan izaten ziren zezenfestak herriko plazan, baina 1.902. urtean eman zituzten azken aldiz Untzaga plazan, eibartar partikular batzuk ere zezenplaza biribil berria egiten hasi zirelako[26].



13.2. irudia. Tolosako zezenplaza berriaren obrak 1.902. urtean.

Azpeitian ere 1.902.eko saninazioak pasata berehala zezenplaza biribil berria egiteko urratsak ematen hasi ziren. Abuztuaren 4ean batzorde bat arduratu zen lurrak erosteaz eta irailaren 15ean Domingo Ezeiza jaunari plaza berriko planoak eta aurrekontuak presta zitzala agindu zioten. Lurrak aparte, plazak gehienez 35.000 pezeta kostatu behar zuen. Urriaren 6an hiru proiektu aztertu zituzten udaletxean, baina garestiak ziren. Udalak kostuaren muga 50.000 pezetatan ipini zuen eztabaida batzuen ondoren. Abenduaren 15ean hartu zuen Udalak azken erabakia proiektu eta kostuari buruz eta Nikolas Azpiazu Olaizola kontratistari eman zitzaion obrak egiteko agindua. Hurrengo saninaziotarako bukatua egon behar zuen.

1.902. urteko zezenak ordea, herriko plazan korritu ziren Azpeitian aurreko urtetan bezalaxe. Baltasar Barrenak Udalaren aginduz Alfaroko Amelia Diez-en ganadutegian aukeratutako zezenkoak jokatu zituzten; lau udaberritako belarrak jandako zezenko plazaratu gabeak. Udalak Tomas Alarcon *Mazzantinito* kontratatu zuen haiek toreatzera uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean etor zedin[14].

Zezenak Alfaron ezezik Gipuzkoako mendietan ere hazten ziren 1.902. urtean. Oñatiko Arantzazu auzoan ere bai. Han hamahiru etxez osatutako ermandade edo elkarte batek mendian txandaka hazteko zezen bat ekarri omen zuen, eta hari gertatutakoak ederki kontatzen ditu Graziano

Anduaga–k urte hartantxe argitaratu ziren bertso hauetan:

1) *Milla pasata bederatzireun*
ta bigarrengo urtian
komeria bat gertatua da
Gipuzkoako partian
Oñati aldeko iri mugetan
auzo txikitxo batian
ermandadia formatu dute
emezortziren tartian
zerbiziuan paratutzeko
zezen bat danen artian.

2) *Apirillaren erdi aldian*
gauza ori disponitua
txekor bikain bat billatutzeko
arturik pentsamentua
alde guzira begiratuaz
berak zeukala kontua
edozein moduz ezda egiten
ermandadian gustua
etxe batian billatu zuten
bastante txekor prestua.

3) *Gorputz guzia gorria zuan*
matralletara zan beltza
etzan argia gau illunian
bere kopetaren ertza
mokadu onak eman ezkero
apetitua zorrotza
ongi esanaz dominatzeko
etzan animali gaitza
muturra guziz polita zuan
trikua izan balitza.

4) *Pozez beterik eraman zuten*
zezen gaztia mendira
biaramona pasa baiño len
etxeratu zan segida
tentazioak alderdi oietan
beti agertu oi dira;
iñok etzuan berriz eraman
ordena zeukan tokira,
uda guzia or pasatu du
ontzen ojuari begira.

5) *San Migeletan destiñatua*
zezena erretiratzeko
iñok etzuan gogo aundirik
aren ondoren joateko

arrisku aundian arkitzen zala
bere burua galtzeko
orretarako disponitua
ermandadia biltzeko
zezen gaxua galdu baiño len
probidentziak artzeko.

6) *Junta orretan erabakia*
zeukaten diferentzia
abere ura ekarritzeko
egiñik dilijentzia
modu berrian isildu zedin
inguruko ausentzia
zezen gaixuak sobra geiegi
artu du pazientzia
aspalditikan egiña zuan
naikua penitentzia.

7) *Begiak zeuzkan ezkutatuak*
tormenta eta gosiak
zorriz ta sarnaz apestatuak
beren alderdi guziak
negargarriak pasa zituan
ango gau egun luziak
patu onikan jotzen ezbadu
jabe askoren gauziak
erdel errietan galdetzen zuten
nun ziran aren nagusiak.

8) *Sokaz lotua ekarri zuten*
gizon batzuen erdian
lotsaz beterik presentatu zan
ermandadien aurrian
koltxoi batentzat naikua ille
bazan aren bizkarrian
gizarajua nola zeguan
ala tankera txarrian
bizirik ozta allegatu zan
gobiernu biarrian.

9) *Denborak junda akordatuak*
utsegite bat egiña
esaten zuten: Auxe da gauza
erremeditu eziña
San Migeletan txekor onekin
premiora juan bagiña
dudarik gabe artuko zien
beste guziairi gaiña
bere illezko adornuakin
markatzen zuan ezpaiña.

10) Berialatik pentsatu zuten
zezen berria ekartzeko
Mondragoera eraman eta
lengo zar ori saltzeko,
kapaz zala ura ermandadien
onore dana galtzeko
komenentzia onik izaten bazan
urrutira bialtzeko
erostunikan bazetorkien
begietatik kentzeko.

11) Orretarako lendabiziko
erosi dute berria
berrogeita bi duroren truke
prenda konsolagarria
jende guzia txoraturikan
ari begira jarria
gaztea eta polita zala
kolorez ere gorria
esaten zuten: Irtengo al dau
lengua baiño obia?

12) Zezen berria ekarri zuten
jai arratsalde batian
umilla eta begitangua
gizon oien iritzian
kontu aundian entregatua
bere destiñoko etxian
pozez beterik persona batzuk
ikustera juan ziran
makurkeri au egiten zien
bere talentu guzian.

13) Aurretik junda, adarka, eta
atzetikan ostikada,
jende guzia paratu zuan
bertan bildurrez ikara
nagusiari abisatua
etorritzeko bertara;
esan zioten: Txekor politau
aparaju onen bat bada,
galduak gera zu ikusita
oneratutzen ezbada.

14) Nagusi ori presentatua
gizon formalen peskizan
ongi esanda bizkarretikan
igortzi naian asi zan
baina jotera egiten zion
pizti gaiztuaren gisan.

Orduan zion arek etzuala
jenio txarrikan izan,
nunbait parajez mudatutzian
izuturikan jarri zan.

15) *Jabea gauza orren bistan*
asi zitzaien esaten
ura etzala sekula oitu
bakardadian egoten,
berialatik biai gazte bat
albora eraman zioten,
batak bestiai usai egiñaz
asia zan sosegatzen
bere gustua egin ezkero
gaiztorik ezda izaten.

16) *Pozez beterik zezen berria*
bere onera zanian
bestearekin Mondraguera
lendabiziko perian
animalia ibillia zan
estimazio onian
bere tratua egiña zuten
allegatu ziranian
iru itzetan konformatua
erostunen esanian.

17) *Ogeita amalau duro kostata*
mantendu uda guztian,
azaro illian saldua zuten
gero ogeita bostian,
tratu bikaiña egin zutela
gizonak eren ustian,
oso konforme gelditu ziran
egindako ajustian;
esaten zuten: Baten galdua
irabazten da bestian.

18) *Jende askori gusto emana*
zezenaren presenziak,
an saldutzeko eraman zuten
auzoaren lizenzia
erostunakin izandu zuten
naikua komerentzia
etxeko edo bideko gastuak
konturatuaz guzia
amar duron zorra bazan
egin zuten ganantzia.

19) *Junta berria disponitua*
oitura zuten puntuan

alde aurretik ipiñi zuten
jende guzia kontuan
giza artian segurantzirik
ez dago gaurko munduan
amazortzitik bi uts emanak
arrazoi zuten moduan
beste gauza bat disponitutzen
asi ziraden orduan.

20) *Junta orretan ikusitzian*
persona biren faltia
arrazoiarekin sentitu zuten
burla ura egitia
merezi zuten gauzia zala
eskarmentu bat sartzia
pentsatu zuten zezen berria
bertan erematatzia.

21) *Kandelatutzen asi ziraden*
jende guzien aurretik
ogeita emezortzi duro zioten
eskeiñi lendabizitik
duro-erdi bat geiago dio
pujante batek atzetik,
kantara-erdi ardotan dio
besteak aldamenetik,
laugarrenguak azunbretxo bat
beste guztien ganetik.

22) *Ermandadia konformatua*
emateko agindutan,
ogeita emerzortzi duro justuak
ziraden dirutan,
gero aurretik esan bezela
bost azunbre ardotan,
alako pasadizorikan
etzeukala iñork gogotan
bere esana kunplitu arte
etziran egondu lotan.

23) *Modu berri au akabatzeko*
demanda ta zer esanak
erremateko zezenarekin
kontentu ziraden danak
portamonedak bete ziraden
aurretik ustu ziranak
gero buruan azkura zuten
presentatu etziranak.

24) *Oien zezenak aisa jun dira*

preziuetan beraka
eskotia eta pagakizuna
boltsia beti tiraka
saltzen danian ezin antxitu
len pagatutako marka
batak ostikada egin badio
besteak berriz adarka
oien atzian txikitu dute
makiñatxo bat abarka.

25) *Auzuetako desuniuak*
gauza astunak izanik
ezgenduan uste zezenarekin
ori gertatuko zanik
beti demandan jardunda ere
etzeukatela gauza onik
kontu guziak likidatzian
gelditu dira esanik
apenas berriz jarriko dala
ermandadeko zezenik.

26) *Gauzak garbiro esplikatuta*
orain nua bukatzera
emen gezurrik bialtzen badet
etorri kastigatzera
kopeta illunak ikusiarren
ezdet egingo atzera
merezi duten asunto danak
eman ditut aditzera
orain banua paperen truke
diru piska bat biltzera. [27]

1.902. urtean zezenak gaitzat harturik bertsoak jarri zituen beste bat, Ramon Artola izan zen. Bereak bait dira hemen ondora aldatu ditugun hauek:

NAPAR ZEZEN BATEN PLAZAKO AZKEN JOLASAK
(Euskal-erriko moldaera baten irurintzan)

ZEZENAK.– *Nere mendietatik*
onera ekarri,
eta kulpikan gabe
preso naute jarri;
ian onetaz mindurik
gaur ikaragarri
mengatu nayan nago
irteteko larri.

Nekez beren ireki
dirate atia,
neretzat ¡o! zer poza

Kanpora joatia;
banua, egin biet
aldetan kaltia,
ni naiz emen errege
eta alkatia.

Uf, norda or kapakin
tira eta tori,
siñuka asi zaitan
tripa aundi ori...
nerekin jostatzeko
puztucho ago i,
adar neretan laster
biardek erori.

JENDIAK.– *Ai, ai, ai, arrapatu*
du, bai, ara, ara,
tontoa zertan joan aiz
i adarretara,
orain ipurdiyan dik
egin tarratara,
eta aidean bota
au barreretara.

ZEZENAK.– *Orain zaldi gañetik*
lanza erakutsi
ditan au, ez nezake
sari gabe utzi;
laster bere buruba
lurrean ikusi
bear da, botako det
zaldi zar ta guzi.

Pun, brun, joanaiz bueltaka
zaldi zarrarekin,
laster aut or musuka
para lurrarekin;
tunpateko ederrak
badituk erekin,
obe dek ez jostatu
geiago nerekin.

Ez niok barkatzeko
gañan gaur iñori,
gogoan izango dek
zilipurdi ori;
eskerrak zaldipera
aizela erori,
bestela bertan ilko
indutan eori.

Berriz erakutsiyaz
burni dun egurra,
atorkit naukalako
jirako muturra;
uste aldek detala
nik ire beldurra,
to, pun, brun, jan zak orain
naibadek or lurra.

Ai, ai, ai, zer zan ori
zulatze orrena,
ez da au egin ditan
lanik ederrena,
len beso batetikan
utzirik errena,
orain lanza sartu dit
kostillak barrena.

Zanko me batek ere
nai dit zerbeit egin,
zer ote dakar orrek
ni gana berekin;
arrimatzen ari zait
zotz apain birekin,
sast, ¡oi! itsatsi dizkit
or dauzkat nerekin.

Elbarri para naute
¡ai! au nere miña,
au nekea ta nere
ibilli eziña;
izandu banaiz ere
pizkorra ta fiña,
neretzat jolas au da
gertatu samiña.

Beste au nor zait berriz
jarritzen aurrean,
trapu gorriyarekiñ
joaz muturrean;
zein gustora artuko
nuken adarrean,
botatzeko tellatu
gañera aidean.

Sast, ¡oi! zerbait dit sartu
zan gauza zorrotza,
bere puntak billatu
du nere biotza;
datozkit aldi charra

ta izerdi otza,
jo det lurra, orain da
nere eriotza.
. . . . . .
Plazan pasatu zaion
lana zezenari,
askotan gertatutzen
zaio gizonari;
pizkortasuna eta
indarra ugari,
dauzkan pantasiz gogor
eldurik lanari,
jaso al bañan karga
aundiagoari,
gerra egiten dio
bere burubari [28]

Donostian 1.902. urtean dena dela, berebiziko istiluak sortu ziren sansebastianetako sokamuturrak medio. Donostiako Udalak, urtarrilaren 14ean sokamuturrak debekatzeko erabakia hartu zuen, bi urte lehenago Madrilen Gobernazio–Ministraritzak emandako aginduari jarraituz[29]. Ordurarte Torre Muzkiz–eko konteak (alkateak) Donostiarako Madrileko debekuaren salbuespena lortu zuen. 1.902. urtearen lehen egunean ordea Migel Altube–ren eskutik Sebastian Matxinbarrena egin zen alkate–makilaren jabe. Handik hamabi egunera Atxa, Albizu, Irastortza, Nerecan eta Ducloux zinegotziek gutun bat bidali zioten alkateari Donostiako sokamuturra debeka zezan. Kaleko jendearentzat arriskutsua omen zen eta Donostiako kultur mailari horrelako festarik ez zegokiola zioten.

Colmenares zinegotzi jaunak debekuaren kontrako gutuna bidali zion alkateari festa herrikoi hura defendatuz.

Dena dela arazoa urtarrileko 14ean eztabaidatu zen udaletxean. Donostiako zenbait dendatan ordea, aurrez sinadura–bilketa egina zuten sokamuturraren aldekoek nahiz kontrakoek. Aldekoek 5.591 sindaura bildu zituzten, eta kontrakoek 350.

Jendea gainezka zegoen udaletxean bilera hasi zenean. Jendea isildu zenean eta arazoa zinegotziek eztabaidatu ondoren, botuetara jo zuten. Elosegi, Albizu, Lertxundi, Goiburu, Comin, Resines, Nerecan, Bidaguren, Atxa, Ducloux, Zaldua, Bizkarrondo, Navarro, Arrese, Ibarra eta Matxinbarrena jaunek debekuaren alde eman zuten botua eta Gaminde, Laffitte, Gabilondo, Intziarte, Arrilaga, Mendiluze, Iraola, Artzelus eta Colmenares–ek kontra. Hamasei botu sokamuturra kentzeko eta bederatzi mantentzeko.

Sekulako istilua sortu zuen jendeak orduan. Colmenares bizkar gainean kaleetan erabili zuten txalo artean eta sokamuturra kentzeari baiezkoa eman ziotenak txistuka eta harrika hartu zituzten.

Arratsaldeko seietan polizia taldeak sakabanatzen hasi zen, eta gobernadore zibila eta beste agintari batzuk ere etorri ziren Konstituzio–plazara. Jendea beste kale bazuetara joan zen ordea haserre. Alkatearen etxeko beirak hautsi zituzten. *La Voz de Guipuzcoa* egunkaria egiten zeneko etxeari ere ez zioten beira sanorik utzi. Ferreiros–en denda ere apurturik gelditu zen, Kutz–en *Gran Café*ko beira handia bezalaxe. Kaleetako farol bat bera ere ez zen osorik gelditu Donostian. Goardia zibilak bereak eta bi egin zituen jendea menperatu ezinik, gaueko hamarretan tiroka hasi zen arte.

Istiluak amaitu zirenean, koarteletik tropak irten eta Donostiako kaleak hartu zituzten. Geroxeago, erretiratu egin ziren. Hogeitazazpi pertsona (Colmenares zinegotzia tartean zelarik) preso eraman zituzten. Goizeko lauretan Hondarretako gartzelan zeuden jadanik[8]. Rafael Eraso, Ezekiel Aizpurua, Alfonso eta Xabier Peña y Goñi, Aszentsio Martiarena (pintatzailea), Anton Moreda eta abar izan ziren gartzeleratuak. *El Pueblo Vasco* egunkariaren sortzaile zen Rafael Pikabea kazetari gazteak utzi zuen haiek Hondarretatik ateratzeko behar zen fidantza; 25.000 pezetakoa hain zuzen. Fama handia lortu zuen Pikabeak orduan, eta gero bere ekintza politikoetarako mesede egin zion bere eskuzabaltasunak[10].

Urtarrilaren 15ean gobernadoreak eta alkateak bando bana atera zuten istilu haiek gaitzetsiz. Mikelete eta goardia asko etorri zen badaezpada ere San Sebastian egunerako Donostiara. Jende asko bildu zen Konstituzio–plazan goizeko zortzietan ohi bezala. Han gelditu ziren ordulaurden batez, gero denak batera alde egin zuten arte. Eguerdian Bulebar–ean istiluak izan ziren. Musika–bandari *Iriarena* jo zezala eskatu zion gazte bat atxiloturik eraman zuten.

Burgoseko egunkari batean Donostiako sokamuturraren gorabeherak komentatuz zera zioen idazle batek: *Zer nolako tradiziozale dira hauek? Foruak kendu zizkietenean ez ziren matxinatu eta sokamuturra kendutakoan bai.*[8]

Udako korridetarako Donostian zezenplaza berria egiteko asmoa ere bazuten 1.902. urtean. Atotxako plaza baino handiagoa egin nahi zuten, horrela sarrerak merkeagoak izango zirelakoan. Frantzisko Mendiluze–ren inguruan bildu ziren zezenzale batzuek Sozietate Anonimoa sortzeko asmoa adierazi zieten donostiarrei. 250 eta 50 pezetako akzioak jaulkiko zituzten 750.000 pezetako kapitala osatu arte. Kapital hura berehala osatu zen, jendeak ongi erantzun zuelako. Jose Arana enpresariari 625.000 pezeta eskaini zizkioten Atotxako bere plazagatik, baina Aranak ez zien saldu.

Sozietate anonimo berriak Gros–en erosi zituen lurrak orduan; Txofre izeneko tontorrean. Baina tenore hartan Donostian *Club Cantábrico* elkarteak *Sociedad de Fomento* sortu zuen Atotxa–ko plaza 625.000 pezetatan erosiz[11].

Dena dela Gros auzoan plaza berria egiteko lehen harria ekainaren 11n ezarri zuten. Plazak 100 metroko kanpo–diametroa zuen eta 55 metroko barne–diametroa. 13.000 ikusle hartzen zituen eta 1.300.000 pezeta kostatu zitzaien[30].

Plaza berriaren obrak hasirik zeudela, greba baten ondorioz urrirarte lanak geldirik egon ziren. Gero Aladren arkitektoa hil egin zen, eta Frantzisko Urkolak bete zuen haren hutsunea.

Abuztuan dena dela Jose Aranak Atotxa–ko plazan korridak eman zituen. Abuztuaren 15eko korridan Emilio Torres *Bombita* eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeñok* parte hartu zuten. Camará–ren sei zezen suhar eta indartsuek pikatzaileak larri erabili zituzten. Ez zuten ongi pikatzerik inoiz lortu. Seigarren zezenean Manuel Rodriguez *Cantares* pikatzaileak ez zuen bere lanean asmatu eta jendea txistuka hasi zitzaion plazatik irtetera zihoanean. Zaldunak keinu itsusi bat egin zion jendeari, eta ikusleak haserre gauzak botatzen hasi zitzaizkion. Melokotoi batek aurpegian jo zuen *Cantares*, baina berak melokotoiz emakume bat buruan jota zorabiaturik utzi zuen ondoren. Asmatzekoa da han sortutako saltsa. Botila batek *Bombita* bizkarrean jo zuen, eta goardiak hondarrera jaitsi ziren nahiz eta zezena bertan egon. *Cantares* eta *Bombita* zauritu zuen ikusleari, isunak ipini zizkioten.

Gero, 1.902.eko irailaren 14ean, beste korrida bat eman zuen Atotxako plazan *Sociedad de Fomento* izeneko elkarte sortuberriak. Rafael Molina *Lagartijo chico*, Antonio Reverte, Antonio

Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita*k Saltillo–ko markesaren zezenak toreatu zituzten erregea plazan zelarik. Azken zezena, *Valencia* banderilariak hil zuen[11].

1.902. urtean Donostian *Revista Taurina* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi ziren[24]. Mazzantini elgoibartarrak berriz, korrida batzuetan parte hartu zuen urte hartan. Maiatzaren 8an Madrilen Joaquin Navarro *Quinito*, Emilio Torres *Bombita* eta Rafael Molina *Lagartijo chico*rekin Jose Maria de la Camara–ren zezenak toreatu zituen. *Comediante* izenekoak ezpataz hiltzerakoan adarkatu egin zuen eskuineko izterrean eta denbora luzean egon zen zauri hura sendatzen. Irailaren 21ean berriz, Madrilen bertan Vicente Pastor–i alternatiba eman zion *Aldeano* zezena eskainiz. Veragua–ren zezenak jokatu ziren orduan, eta Luis Mazzantinik artean herren egiten zuen bere zauriagatik. Ikusle zegoen Manuel Hermosilla toreatzaile zaharrak hirugarren zezenean ezpata eskatu zion elgoibartarrari, baina Luis–ek eskerrak eman ondoren berak hil zuen zezena[4].

Iruñean 1.902.eko sanferminetan, uztailaren 7tik 11rarte korridak izan ziren arratsaldero. Proba bat ere eman zuten goiz batean. Espoz y Mina, Diaz anaiak, Lizaso anaiak, Veragua–ko dukea, Antonio Halcón eta Esteban Hernandez ganaduzaleek bidali zituzten zezenak. Antonio Fuentes, Antonio de Dios *Conejito* eta Ricardo Torres *Bombita* toreatzaileek hil zituzten[16].

Madrilen 1.902.eko maiatzaren 21ean Alfonso XIII.a koroatu zutelako erret korridak eman ziren eta han Espoz y Mina–ko kontearen zezen batek Ricardo Torres *Bombita* lepoan adarkatu zuen[4].

Urte hartantxe Candido Diaz ganaduzale nafarrak abere gehiago ekarri zituen bere ganadutegira Zamoran Villagodio–ko markesari eta Clemente Herrero–ri behiak erosita. Gero Guadalest–en zezen batekin eta Muruberen beste batekin nahastu zituen[31].

Kalisto Gaston: *Gastoncillo* toreatzaile iruindarra, lanean hasia zen jadanik. Colmenar Viejo–n martxoaren 5ean nobillada batean adarkatua izan bait zen. Bizente Gortari iruindarrak berriz, Granadan toreatu zuen martxoaren 30ean[4].

———— o ———— o ————

1.903. urtean Bilboko Vista Alegren Orozko–ren bi zekor korrituz otsailaren 22an hasi ziren zezenfestak. Luis Alcarraz biasteriarrak toreatu zituen.

Martxoaren 15eko nobillada serioagoa izan zen. Tabernerorен sei zezenko jokatu zituzten, toreatzaile Antonio Rivas *Moreno de San Bernardo*, Anastasio Castilla eta Angel Carmona *Camisero* zirelarik. Zezenko handi haiek barrera saltatuz erakutsi zuten beren koldarkeria. Antonio Rivas lehenengoak harrapatu egin zuen eta Castilla–k lana bukatzea nahikoa meritua izan zen. *Camisero*k lehenengoaren belarria lortu zuen.

Martxoaren 22an bigarren nobillada eman zen Vista Alegren, Valleren bost zezenko eta Tabernero–ren beste bat medio. Antonio Rivas, Fernando Herrero *Cantaritos* eta Angel Carmona *Camisero* aurkeztu ziren haiek toreatzera. Valle–ren zezenko interesgarri haiekin *Moreno de San Bernardo* kapote eta muletaz ederki luzitu zen, baina ezpataz ez. *Cantaritos*ek ere ez zuen asmatu espataz eta *Camisero*k ezer egiterik ez zuen izan ganadu koldarraren kausaz.

1.903. urteko martxoaren 25ean Bilboko hirugarren nobillada ospatu zen. Tabernero–ren sei zezenko toreatu zituzten Eduardo Leal *Llaverito*, *Agualimpia* eta Manuel Calderon–ek. Ganaduak

legea bete zuen, laugarrenak ezik; hari suzko banderilak ipini bait zizkioten. *Llaverito* asko gustatu zen, baina ezpataz ez zuen asmatu. *Agualimpia* bilbotarrak ere bere lanak ongi baino hobeto burutu zituenez, belarri bana eman zioten. Calderon-ek ordea are eta hobeto toreatu eta hil zituen bere bi zezenkoak. Belarri bana eman zioten hari ere. Bizkar gainean atera zuten txalo artean.

Apirilaren 12rako Cadiz-eko Zahara-ko Peñalver anaiek sei zezenko eder bidali zituzten Bilbora *Pepe Hillo* eta *Bilboko kotxeritoak* hil zitzaten. *Pepe Hillo* ausartegi aritu zen. Hirugarrena bakarrik hil zuen ondo. Kastor Jauregibeitiak bere hiru zezenkoak oso ongi toreatu zituen. Hil ere bai; seigarrena batez ere. Bi belarri eman zizkioten.

1.903. urteko aipirilaren 13an, biharamunean, Salas-en sei zezenko toreatzera Fernando Herrero *Cantaritos*, Kastor Jauregibeitia eta *Agualimpia* aurkeztu ziren. Zezen ahulak baina onak suertatu zitzaizkien. *Cantaritosek* lehenengoa ederki hil zuen. *Bilboko kotxeritoak* ezpataz huts egin zuen, *Agulimpiak* bezalaxe. Gainerakoan ongi aritu ziren.

Urte hartako seigarren nobillada apirilaren 19an eman zuten Vista Alegren. Tabernero-ren hiru zezenko eta Valle-ren beste hiru plazaratu zituzten. Inazio Laza, Pedro Ferrari *Coriano* eta Jose Leginetxe bilbotarrak parte hartu zuten; eskarmentu handirik gabekoak hirurak ere. Ez zuten ezer onik erakutsi.

1.903. urteko lehen korrida, maiatzaren 2an izan zen Bilboko Vista Alegren. Valle-ren sei zezen Antonio Moreno *Lagartijillo* eta Joaquin Navarro *Quinitok* hil zituzten. Valle-ren zezenak suharrak eta satai onekoak izan ziren. *Lagartijillok* faena gehiegi luzatzeagatik lehendakariak mezu bat bidali zion. Beste bietan belarri bana lortu zuen. *Quinito* kapotez, banderilak sartzen eta muletaz egon zen ondo. Bere lehenengoa ederki hil zuen; besteak ez. Pikatze-lanetan Salustiano Fernandez *Chano* eta Jose Martinez *Aventurero* nabarmendu ziren. Banderilak sartzen berriz, Jose Muñagorri bilbotarra.

Maiatzaren 3an, biharamunean, beste korrida bat eman zuten Bilbon. Peñalver-en sei zezen hiltzera Luis Mazzantini eta Joaquin Navarro *Quinito* etorri ziren Vista Alegrera. Peñalver-en zezenek legea bete zuten, baina toreatzaileei ez zitzaien maila oneko lanik ikusi. Bilbon Luis Mazzantinik toreatutako azken korrida izan zen hura. Guztira 49 arratsaldetan lan egin zuen elgoibartarrak Bizkaiko hiriburuan 111 zezen hilez.

1.903.eko maiatzaren 17an ganadu-hiltzaileek zekorketa bat eman ondoren, hilaren 21erako beste korrida bat antolatu zuten. Tabernerorен sei zezen hiltzera Antonio Montes eta Juan Sal *Saleri* etorri ziren. Zezen zangar eta nobleak suertatu zitzaizkien eta Montes-ek bere bi lehen zezenetan belarria irabazi zuen. *Salerik* bi zezen bakarrik hil zituen; bestea Luis Alcarraz pikatzaileak hil bait zuen.

Maiatzaren 24ean zekorketa berezia eman zen Vista Alegren. Carreros-en hiru zezenko, Agustin Molina eta Miguel Sanchez *Botero* pikatzaileek hil zituzten. Fabian Bilbao bilbotarra berriz, arratsalde hartan hasi zen pikatzaile-lanetan. Aurrez ofizio askotan pasea zen. Bere osaba txistulariarekin danborra ere jotzen zuen inguruko festatan.

1.903. urteko ekainaren 1ean nobillada eman zuten Bilbon. Pedrosilla-ren sei zezenko atera zizkieten Kastor Jauregibeitia eta Anastasio Castilla-ri. Oso koldar portatu ziren abereak. Bigarrenari bolbora erre zioten eta bi ezpatariek ezer egiterik ez zuten izan.

Ekainaren 14eko korrida toreatzera Antonio Guerrero *Guerrerito* eta Manuel Jimenez *Chicuelo* etorri ziren. Muriel ganaduzaleak zezen onak bidali zituen. Lehen zezena pikatzaile batek

hil zuelako eskandalua sortu zen. *Guerrerito* eta *Chicuelo*k legea bete zuten. Jose Muñagorri banderilaria laugarren zezenak airean erabili zuen, zauritu gabe.

Astebete geroago, 1.903.eko ekainaren 21ean, Amador Garcia–ren bost zezenko eta Pedrosilla–ren beste bat jokatuz nobillada eman zuten. Pedrosilla–renari suzko banderilak ipini zizkioten. Alejandro Alvarado *Alvaradito*, Manuel Gallego *Valerito* eta Enrique Fuentes–ek hil zituzten. Seigarrenak Fuentes zauritu zuelako *Alvaradito*k hil zuen.

Ekainaren 28ko zekorketan Carreros–en bi abelgorri hiltzera Eduardo Jauregibeitia *Kotxerito txikia (Cocherito chico)* aurkeztu zen. Gero, abuztuko korridak hasi ziren; hilaren 23an hain zuzen. Pablo Romero–ren bost zezen eta Murube–ren bat hil zituzten Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita*k. Zezenak ongi portatu ziren. Hirugarrenak herren egiten zuelako Muruberen bat atera zen ordez. *Quinito*k laugarrenari jotako ezpatakada eta hiru maisuek azken zezenari sartutako banderilak izan ziren gauzarik onenak. *Quinito*k oinak sudurzapi baten gainean zituela iskintxo eginez sartutako parea oso ederra izan zen. Bostgarren zezenean jendeak hiru ezpatariei banderilak sar zitzatela eskatu eta eskandalua sortu zen.

1.903.eko abuztuaren 24eko korridan, bezperako ezpatariek Muruberen sei zezen zangar hil zituzten Vista Alegren. Laugarrena zortzi aldiz joan zen zalditara eta ganaduzaleari txaloak jo zizkioten. Bigarren zezenean ordea euria hasi zuen. *Quinito* eta Fuentes ongi artiu ziren, baina guztien gainetik Ricardo Torres *Bombita* nabarmendu zen. Bere bi zezenetan belarri bana irabazi zuen.

Abuztuaren 25eko korridan Mihura–ren zezenak korritu ziren; oso koldarrak. Bigarrena sutu egin zuten eta laugarrena ere horretarako hobea zen. Antonio Fuentes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito* saiatu ziren, baina alferrik.

Ezpatari berberek parte hartu zuten abuztuko 26ko korridan. Benjumearen bost zezen, Pablo Romero–ren bat eta Muruberen bat plazaratu ziren. Jose Muñagorrik azkena ateratako Pablo Romero–ren zezena hil zuen. Benjumearen zezenak normal portatu ziren plazan, eta Muruberena suhar. *Machaquito* eta *Bombita*k ezpataz ez zuten asmatu, baina Fuentes–ek bai laugarren zezenean.

1.903. urteko abuztuaren 27an ohizkanpoko korrida eman zuten Bilboko Vista Alegren. Jose Etxebarria Villagodio–ko markesaren zezenak lehen aldiz jokatu ziren Bizkaiko hiriburuan. Zamorako Coreses herrian San Pelaio izeneko finkan zituen zezenak. Antonio Fuentes eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k hil zituzten sei zezen handi. Fuentes arratsalde osoan ongi aritu zen; bostgarrenean batez ere. *Machaquito*k laugarrenean belarria lortu zuen.

1.903. urteko irailaren 6an, Bilboko zezenzaleen elkarte batek nobillada antolatu zuen Vista Alegren. Ripamillan–en sei zezenko toreatu zituzten Fernando Herrero *Cantaritos*, Kastor Jauregibeitia eta Tomas Alarcon *Mazzantinito*k. Lehen hiru zezenkoak koldarrak (hirugarrenari bolbora erre zioten) eta beste hirurak oso maltzurrak suertatu ziren. Toreatzaileek ez zuten ezer egiterik izan, nahiz eta asko saiatu; *Mazzantinito* batez ere.

Irailaren 20ko nobilladan, Villagodio–ko markesaren hiru zezenko eta Tabernero–ren beste hiru plazaratu zituzten. Haien aurrean Jose Moreno *Lagartijillo chico* eta Kastor Jauregibeitia aritu ziren lanean. Jose Moreno alternatiba hartu berria zen eta ez zen luzitu. Bigarrenaren belarria lortu zuen ordea, ondo hiltzeagatik. *Kotxeritoa*k azken hiru zezenkoak hil zituen. Bere lehenengoari belarria moztu zion eta besteetan txalotua izan zen. Villagodio–ko markesaren zezen bati suzko

banderilak ipini zizkioten.

1.903. urteko irailaren 27an beste nobillada bat eman zuten Vista Alegren. Ripamillan–en zezenko bat eta Tabernero–ren beste hiru jokatu zituzten. Julio Gomez *Relampaguito* eta Manuel Calderon toreatzaileek parte hartu zuten. *Relampaguito*k jendea pozik utzi zuen. Calderon batean ez zen ondo egon, eta bestean bai.

Urriaren 4ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren, Valle–ren sei zezenko korrituz. Fermin Muñoz *Corchaito*, Julio Gomez *Relampaguito* eta Rufino San Bizente–k hil zituzten.

Urriaren 18an berriz, Mira–ren sei zezenko hiltzera Manuel Mejías Rapela *Bienvenida* eta Angel Carmona *Camisero* etorri ziren Vista Alegrera. *Bienvenida*k faena polit eta dotoreak burutu zituen. Hirugarrenaren belarria eman zitoen. *Camisero*k patxada eta arta erakutsi zuen bere lanean. Bigarrenari belarria moztu zion.

1.903. urteko urriaren 25ean eman zuten Bilboko Vista Alegren urte hartako azken nobillada. Clairac–en sei zezenko eta Ripamillan–en beste bat toreatu zituzten Julio Martinez *Templaito*, Rufino San Bizente, Antolin Arenzana *Recajo* eta Jose Muñagorri–k. Zezenko guztiak oso ondo portatu ziren.*Templaito*k ez zuen zorterik izan. *Begoñako txikia* ausart aritu zen ohi bezala eta bostgarrenak aireratu egin zuen. *Recajo*ri bere aurkezpen–arratsalde hartan txalo asko jo zioten eta belarri bat ere eman zioten. Muñagorrik hil zuen azken zezena. Felipe Antxustegi *el Largo* pikatzailea eta *Lunares* banderilaria ere nabarmendu ziren. Bernardo Ocejo, *Ocejito* izango zen toreatzaile bilbotarra, espontaneo gisa plazaratu eta kolpatua izan zen.

Azaroaren 15ean, Bilboko bizarginek Beriain–en lau zekor jokatu zituzten. Aniceto Parteagudo eta Jose Alvarez–ek toreatu zuten[1].

1.903. urtean eta hamabi urte bakarrik zituela, Alejandro Saiz *Ale* bi zekorketatan parte hartua zen jadanik. Felix Urkola ganaduzale bilbotarrak Sevillan zituen lurretara eraman zuen, han nahi adina torea zezan[5].

1.903. urtean asko toreatutako beste bat, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* dugu. Hogeitamarren bat nobilladatan parte hartu zuen. Bilboko nobilladen berri emana dugu jadanik, baina *El Imparcial Taurino* izeneko aldizkariak ere eman zuen urte hartan[24]. Kastor–ek bere jaioterriko nobilladaz gain, Madrilen ere toreatu zuen martxoaren 1ean. Jose Moreno *Lagartijillo chico*rekin batera Gamero Civico–ren zezenkoak hiltzera joan zen. Bigarren zezenkoak ordea bi ezpatariak zauritu zituen. Ikusle gisa zegoen Antonio Boto *Regaterin*ek hil zituen gero zezenko haiek[4]. Martxoaren 22an Marcel Puntas eta *Mazzantinito*rekin Carrasco–ren zezenkoak toreatu zituen Madrilen *Kotxeritoak*[32]. Apirilaren 5ean ere berriz lan egin zuen Kastor Jauregibeitiak Madrileko nobilladan. Fermin Muñoz *Corchaito* eta Tomas Alarcon *Mazzantinito*rekin zen orduan Victor Biencinto–ren ganadua toreatzen.

1.903.eko uztailaren 12an ere *Bilboko kotxeritoa* Madrilen zen, Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete* eta Manuel Mejias Rapela *Bienvenida* lagun zituela. Esteban Hernandez–en zezenkoak hiltzera joan ziren orduan. Urriaren 11n berriz Valladolid–en genuen Kastor Jauregibeita. Han, Arturo Carral *Carralito*rekin batera lan egin zuen[4].

Ekainaren 24ean, Kastor bilbotarrak Eibarreko zezenplaza berria ere estreinatu zuen. Berak bakarrik Clairac–en lau zezenko toreatu eta hil zituen[5]. Plazak bi solairu eta 5.265 ikuslerentzako

lekua zuen. 37 metroko diametroa zuen zezena jokatzeko zirkunferentziak[13]. Esan beharra dago gainera Untzaga plaza eta zezenplaza berriaren artean *Zezenbide* izeneko kalea dagoela.

Aipa dezagun bestetik 1.903. urteko irailaren 13an Madrilen Antonio Reverte toreatzaile famatua hil egin zela. Bilbon oso estimatua izan zen eta bertan lagun onak zituen. Antonio Arozena *Don Clarines* zezenzale gaztea eta bere familiakoak adibidez, lagunmin ziren benetan[33].

Zezen-korridak bestetik, bere buruhausteak sortzen zituen garai hartako lehen abertzale bilbotarrengan. Sabino Arana berak ere gutun bat idatzi zuen Chalbaud diputatu abertzaleak korriden kontra boturik eman ez eta beste abertzale batek *Diputación* izeneko idazlan batean Chalbaud jauna kritikatzen zuelako. Honela zioen Sabino Aranak bere gutunean:

... Por último, respecto a la corrida de toros dijo que ni era partidario ni enemigo de esta clase de fiesta, y con esto en nada faltó, porque los nacionalistas entendemos que a esas corporaciones no se va a exponer qué ideas se tiene (como van los de allende el Ebro a todas), sino a obrar lo que se pueda. De modo que si el Sr. Chalbaud quiso decir que no tenía para qué exponer su idea respecto de los toros, calló toda idea, y por esto en nada faltó. Si, por el contrario, aquella frase se ha de entender a la letra, resulta que el Sr. Chalbaud declaró no ser enemigo de la tal fiesta, pero tambien no ser amigo, con lo cual bastaba para el caso.

Para ser nacionalista, no es preciso ser enemigo de las corridas: basta no ser amigo de ellas en nuestro pais, o sea partidario de que aquí se celebren.

Fuera de esto, lo práctico y positivo allí era, no lo que se dijese, sino lo que en último término se obrase, y en este punto el Sr. Chalbaud estuvo correcto, puesto que votó en contra de la inclusión de corridas de toros en los festejos de que se trataba.

Con seguridad de que el autor de "Diputación" no hubiese alabado a quien, despues de perorar mucho contra las corridas de toros, votase a favor de su celebración. ¡Cuántos han llorado al pié del Arbol de Gernika, o han hecho protestas de amor a las libertades o instituciones vascas, y no obstante nos han hecho a los vascos gravísimos daños![34].

1.903. urtean toreatzaile gisa fama hartzen ari zen beste bilbotar bat Rufino San Bizente zen; *Begoñako txikia*. Bilboko Vista Alegren toreatutako nobilladez aparte beste batzuetan ere parte hartu zuen. Gipuzkoan Hondarribiako plazan maiatzean eta irailean aritu zen. Irailean gainera, alternatiba hartu berria zuen Diego Rodas *Morenito de Algeciras*ekin batera aurkeztu zen[3]. Rufino San Bizentek, garai hartan Cándido Espés *Espesito* banderilaria erabiltzen zuen bere koadrilan[4].

1.903. urtean Gipuzkoan lau zezenplaza biribil berri estreinatu ziren. Eibarrekoa (lehentxeago aipatu dugunez), Tolosakoa, Azpeitikoa eta Donostiakoa. Tolosakoa ekainaren 24ean estreinatu zen; Eibarrekoaren egun berean. Ricardo Torres *Bombita* ekartzeko asmoa zuten antolatzaileek, baina egun batzuk lehenago zauritua suertatu zenez gero, Antonio Guerrero *Guerrerito* eta Francisco Bonar Casado *Bonarillo* ekarri zituzten haren ordez. Azkoieneko Jorge Diaz-en zezenak hil ziren korrida hartan. Plazak barne-diametro txikia zuen (37 metro bakarrik) eta 5.632 ikuslerentzako lekua[11].

Garai hartan Tolosan giro euskalduna eta zezenzalea zegoen erabat. Ume eta gazteak kalean zezenetara jostatzen ziren, eta bertako toreatzaileak ere baziren. *Txortxi* eta Alvarez adibidez. Alvarez kamareroa zen eta Canovas del Castillo *Angiolillo*k tirokatu zuenean, berak jaso zuen lurretik, arestian esana dugunez[12].

Azpeitian, 1.903. urteko apirilaren 1ean zezenplaza berria egiten hasi ziren. Sebastian Camino arkitektoak urtarrilaren 31n burutuak zituen planoak jadanik eta martxoaren 17an egin zen obren enkantea. Nikolas Azpiazu *Egurtza* eta Inazio Astigarragak hartu zuten lanak egiteko ardura. uztailaren 31n estrenatu zen plaza berria[35].

Plaza erabat bukatu gabe zegoen arren, korridak eman ziren bi egunetan. Horretarako Donostiatik tren bereziak ipini zituzten saninaziotarako[14]. Kastor Jauregibeitia bilbotarra etortzekoa zen plaza inauguratzera, baina uztailaren 25ean Madrilen Calvo Pellón ganaduzalearen *Algarrobito* zezenkoak larriki zauritu zuen eta haren ordez Eduardo Leal Casado *Llaverito* etorri zen lanera. Kaparroso–ko Zalduendoren alargunaren (Cecilia Montoya–ren) zezenak plazaratu zituzten dibisa urdin–gorriz[35]. *Llaverito* madrildarra Mexikon sei urte lehenago alternatiba hartua zen[14].

Uztailaren 31ko korridan Joan Jose Ezeiza *Mardura* alkatea (eta pilotaria) egon zen lehendakaritzan eta abuztuaren 1ekoan Joan Clemente alkateordea. Zarauzko musika–bandak jo zuen, eta Seberiano Martinez *Txoperari* zazpi zaldi hil zizkioten zezenek plazan[35].

Plaza berriak, ia 4.000 ikuslerentzako lekua zuen, eta obrak hasieran uste baino gehiago kostatu ziren; 80.279,44 pezeta hain justu[14].

Errenterian ere herriko festetan (uztailaren 22an, madalenatan) zezena korritzen zuten, baina 1.903. urtean bertan behera utzi zituzten Aita Santua hil zelako. Jendea marmarka hasi omen zen festak kendu zituztelako, eta *Txirrita* bertsolari famatuak balkoira irtenda bertso hau bota zion jendeari:

Leon treze il zaigu
gure aiton fiña,
makiña bat mesede
guri egiña,
ark erakutsi digu
zeruko dotriña,
neronek sentitzen det
artu duan miña,
. . . . . .
. . . . . .
akabo dultzaiña
ta zezen koziña,
dantza. . . . . . .
. . . . . [36]

Donostian 1.903. urtean sansebastianetan ez zen sokamuturrik korritu. Aurreko urteaz gero debekatuak bait zeuden. San Sebastian egunean donostiar asko Hernanira joan zen. Danborrada jo zuten kaleetan zehar eta astotxo bat sokari lotu zioten gero zezenaren ordez erabiltzeko. Donostian berriz bertako zenbait pertsonen eritziak argitaratu ziren debekatutako sokamuturrari buruz. Matxinbarrena, Elosegi (alkatea) Bezoaiztegi, eta Balbás jaunak sokamuturraren aurka mintzatu ziren eta Torre Muzkiz–eko kontea, Lizasoain, Samaniego eta Camio jaunak berriz alde[8].

Donostiako Gros auzoan Txofre–ko zezenplaza berriaren obrak aurrera zihoazen eta uztailaren

lean Sozietate Anonimoak obligazioak jaulki zituen. 250 pezetakoak batzuk eta 50 pezetakoak besteak; guztira 40.000 pezetako jaulkipena. Frantzisko Mendiluze-ren lehendakaritzapean zegoen *Sociedad Nueva Plaza de Toros de San Sebastian* elkarteak kapital hura eskuratu zuenean Txofre-ko plaza amaitu eta aldi berean Atotxa-ko plazaren jabearekin (*Sociedad de Fomento*rekin) tratu bat ere egin zuen. Atotxako plazan ez zen zezenik eta beste inolako ikuskizunik emango. Txofre-ko plazaren jabe zen elkarteak *Sociedad de Fomento*ri 156.000 pezeta ordainduko zizkion lau epetan, azkena handik bi urtera amaituko zelarik.

Txofre-ko plaza egiteko harria, Altza-tik eta Igeldotik ekarri zuten. Habe eta zutabe metalikoak Tolosako Gregorio Irastortza-ren lantegian egin ziren. Luis Olasagasti izan zen Txofre-ko plaza hura eraiki zuen kontratista.



13.3. irudia. Txofre-ko zezenplaza, Donostiako Gros auzoan.

Plaza ederra egin zuten. Giltzazainarentzako etxebizitza, zaldientzako patio ederra, bi ikuilu txiki, bi ikuilu handi, beste txiki estali bat, zortzi baka edo zezentoki erdian pasabide eta guzti, kapera, toreatzaile-gela, zaltegiak, hiltegia, botikadun erizaindegia eta abar zituen. Plaza berrira iristeko 290 metro luzeko bidea ere egin zuten. Txofre-ko zezenplaza arabea zen estiloz eta hamabost metro altuko hormak zituen.

Plaza berria, 1.903. urteko abuztuaren 9an estreinatu zen. Alfonso XIII.a bere gorteko beste zenbait pertsonekin han zen. Ibarra-ren bederatzi zezen korritu ziren, eta haiek hiltzeko Luis Mazzantini, Emilio Torres *Bombita*, Antonio Montes (Reverte zauriturik zegoelako haren ordez etorria) eta Rafael Molina *Lagartijo chico* kontratatu zituzten. Bederatzigarren zezena Francisco Bonar *Bonarillo*k hil zuen.

Lehen zezena *Caparrota* izenekoa zen, 100 zenbakia zuena, eta Lusi Mazzantinik erregeari brindatu zion. Elgoibartarrari txaloak jo zizkioten faena amaitu zuenean. Erregeak urrezko botoi batzuk erregalatu zizkion. Bostgarren zezenari bi banderila-pare ederki sartu zizkion elgoibartarrak.

Bombita ere txalotua izan zen bere lehen zezenean eta bere bigarrenean txistuak jo

zizkioten. Antonio Montes–ek lehenengoan txaloak entzun zituen eta bigarrenaren belarria lortu zuen. *Lagartijo chicori* ere txaloak jo zizkioten, bai laugarrengoan eta bai bederatzigarrenean.

Handik sei egunera, 1.903. urteko abuztuaren 15ean, Luis Mazzantini, Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombitak* hartu zuten parte Txofre–ko bigarren korridan. Mazzantini–k bostgarrenaren belarria lortu zuen.

Biharamunean, abuzutaren 16an, toreatzaile berberei Felix Urkola bilbotarraren zezenak bota zizkieten. Urkola–ren unanmaizterra egun batzuk lehenago bere zezenen artean ikus zitekeen ikuiluetan jatenak ematen.

Irailaren 13an Villagodio–ko markesaren zezenak korritu ziren Txofre–ko plazan. Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Diego Rodas *Morenito de Algecirasek* parte hartu zuten. Alvarez jaunak Bilbon bezalaxe Donostian ere Tancredo–renak egin nahi izan zituen idulkira igota, baina azken orduan gobernadoreak debekatu egin zion.

1.903. urteko irailaren 20an nobillada izan zen Donostiako plaza berrian. Salamancako Sanchez Tabernero–ren zezenkoak toreatu zituzten Angel Carmona *Camisero*, Fernando Herrero *Cantaritos* eta Antonio Pazos–ek. Jose Martinez *Aventurero* pikatzaile bilbotarrak zezenko baten gainean jarrita menperatzea intentatu zuen. Oso ganadu txarra suertatu zen nobillada hartan[11]. Aipatu beharra dago 1.903. urtean Donsotian Luziano Bilbao *Lunaresi* zezenko batek aurpegian adarra sartu ziola[4].

Irailaren bukaeran, Joaquin Carrión–ek (Txofre–ko plazaren jabe zen sozietateko lehendakariak), obligazioen interesak non eta nola ordainduko ziren argituz oharra zabaldu zuen.

Bestetik, Txofre-ko plaza egiten hasi zirenean lurren mugak medio auzia izan zuten ondoko baratzen jabearekin[11]. Zezenplaza berriari Txofre izena, lur haiek garai batean Jofre Ihartza–ren baratzak izan zirelako ipini zioten[37]. Euskal lege fonetikoei jarraituz ez da harritzekoa *Jofretik Xofre* eta gero *Txofre* egitea. Paraje hartan iturria zegoen, eta 1.761. urteko Donostiaren deskribapen batek dioenez neskagazte eta neskame donostiarrak buruan herrada edo suila hartuta hara joaten ziren ur–bila, bidean berriketan egiteko aitzakia zutelarik[38].

Jofre izena bestetik, gaur egun ezezaguna bazaigu ere, nahikoa pertsona–izen arrunta zen garai batean Euskal Herrian. Sasiola–ko Jofre adibidez, 1.483. urtean Gaztelako erreginaren zerbitzuan aritu zen[39]. Nafarroan 1.090. urtean ere bazen Lizarran Jofre izeneko franko bat eta 1.256. urtean Jofre Bourlemont zen Nafarroako seneskal[40]. Roderiko Borgia Aita Santuaren (Alexandro VI.aren) seme bat ere Jofre izenekoa zen. XII. mendean ere Aragoako historiarekin loturik Ugo Jofre tenplarioa eta Jofre Rocaberti ere izenda daitezke[41].

Gipuzkoan bertan, Jofre Iribarren izena dugu 1.563. urtean[42]. Donostiako Txofre izena ordea, Jofre Ihartza jaunarengandik hartu zuela esan dugu arestian; eta horrela da. Izan ere 1.566. urteko Donostiako erroldan Joan Lopez Agirre eta Jofre Ibañez Ihartza alkate zirela agertzen da. Santa Maria kalean Jofre Balentzegi bizi zen; Zarautzeko Balentzegi etxetik Aiako Maria Andres–ekin Donostiara ezkondua hain zuzen. Jofre Ibañez Ihartza ere Zarautzeko Ihartza etxetik Donostiara ezkondu zen. Bere seme Jofre Ihartza ere Zarautzetik etorri zen Donostiara ezkontzera. Jofre aita–semeak Puiuelo kalean bizi ziren 1.566. urtean[43].

Lehentxeago esan dugunez, Txofre–ko plaza berria 1.903. urteko abuztuaren 9an estreinatu

zuen Luis Mazzantini elgoibartarrak. Baina Luis Mazzantinik urte hartan Bilbo eta Donostiako korridez gain, beste leku batzuetan ere toreatzeko aukerak izan zituen. Irailaren 12an Valladolid–en erregea bertan zela korrida eman zuten, Perez de la Concha–ren zezenak jokatuz. Luis Mazzantini, Francisco Bonar *Bonarillo* eta Rafael Molina *Lagartijo chico*k hil zituzten. Lehen zezenari Tomas Mazzantini eta Simon Leal–ek banderilak sartu ondoren, Luis–ek brindisa erregeari egin zion. 47 urte zituen elgoibartarrak orduan eta hala eta guztiz ere bere lana bukatu zuenean txaloak jo zizkioten. Luis–ek erregearengandik oparia jaso zuen arratsalde hartan, eta Alfonso XIII.ari elgoibartarrak bere aitaren (Alfonso XII.aren) lagun izan zela jakiteko aukera eman zion[11].

Luis Mazzantinik Madrilen ere toreatu zuen 1.903. urtean. Maiatzaren 2an Camara–ren zezenak hil zituen Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*rekin batera. Beste zortzi korridatan ere parte hartu zuen elgoibartarrak Madrilen[4]. Azkena urriaren 4ekoa izan zen. Bañuelos–en zezenak hil zituen, arrakastarik lortu gabe[44].

1.903. urtean, sanferminak ohi bezala ospatu ziren Iruñean. Murube, Halcon, Veragua–ko duke, Vicente Martinez–en seme, Espoz y Mina–ko konte eta Lizaso anaien zezenak iragarri ziren bost korrida eta proba baterako. Zezen haiek hiltzeko Antonio Fuentes, Joaquin Navarro *Quinito* eta Ricardo Torres *Bombita* kontratatu zituzten[16].

1.903. urteko albisteei amaiera emateko, Igandetako atsedenetarako legea indarrean jarri zela esan dezagun azkenik eta korriden inguruan zebilen jendearengan bere eragina izan zuela ere bai[4].

1.903.ean bestetik, Henri Laulhe *Meunier* toreatzaile landetarra, Dubecq ganaduzalearen koadrilara sartu zen eta taldeburu izan zen zazpi urtetan Landetako toreaketan koadrila hartantxe. Gero Barrere, Passicos, Coran eta Lafitte ganaduzaleen toreatzaile–koadriletan ere ibili zen. Urte hartan hain zuzen, Barrere, Dubecq, Passicos eta Bacarrisse ganaduzaleek Giovani, *Meunier*, Monacot eta Fillang toreatzaileak zerabiltzaten toreatzaileen taldeburu hurrenez hurren[21].

———— o ———— o ————

1.904. urtean, Bilboko Vista Alegren urtarrilaren 6an Carreros–en lau zekor jokatuta eman zitoen hasiera denboraldiari. Manuel Gomez, Antonio Tabares, Basilio Hernandez eta Rafael Molina–k parte hartu zuten.

Otsailaren 21ean ospatutako nobilladara, Joaquin Calero *Calerito*, Antonio Roldán *Trianero* eta Antolín Arenzana *Recajo* ekarri zituzten. Mira–ren lau zezenkoak onak, azkena ezik. *Calerito* ez zen luzitu lehen eta laugarrenean. *Trianero* ez zitzaion jendeari gustatu eta *Recajo* airean askotan ibili zen. Zezenzaleen Elkarteak antolatu zuen nobillada hura; *Sociedad Tuarina* izenekoak.

Martxoaren 6an beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren, Orozko–ren bi zezenko eta Mira–ren beste bi plazaratuz. Rufino San Bizente *Begoñako txikia* eta Antolin Arenzana *Recajo* aritu ziren haiek toreatzen. Orozko–ren bi zezenkoak txuliatu eta banderilaztatu bakarrik egin zituzten; koldarrak suertatu ziren. Mira–ren biek legea bete zuten.

1.904. urteko martxoaren 13an, Angel Carmona *Camisero*rekin batera Rufino San Bizente eta Antolin Arenzana aurkeztu ziren berriz Vista Alegren jendaurrera. Pozo Rubio–ren zezenko handiek ez zuten luzitzeko aukera handirik eman. *Camisero*k bere bigarrenari belarria moztu zion. *Begoñako txikia*k ere sari berdina lortu zuen eta Antolin *Recajo*ri bere ausardia medio txaloak jo zizkioten.

Apirilaren 3ko nobilladan, Villamartaren sei zezenko toreatzen *Campitos*, *Bilboko kotxeritoa* eta Ramon Etxebarria *Bienvenida II*.a aritu ziren Vista Alegren. Bigarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. *Campitos*ek bere lehenengoaren belarria irabazi zuen. *Bilboko kotxeritoa*k berriz bostgarrenarena. *Bienvenida II*.aren lana ez zen jendearen gustokoa izan.

Biharamunean, 1.904.eko apirilaren 4ean alegia, Bilbon toreatzaile berberei Conradi–ren sei zezenko atera zizkieten. Bigarren zezenkoa toriletara itzuli zen. *Campitos*i lehendakariak hiru mezuak bidali zizkion bere lehenengoan, nahiz eta zezenkoa hondarrean hil. Bere bigarrengoan ere abisu bat entzun zuen. *Bienvenida II*.a edo *Bienvenida chico*, ez zen bere lehenengora hurbiltzen ausartu eta zezenkoa toriletara bueltatu zuten. Gauza bera gertatu zitzaion bere bigarrengoari, suzko banderilak ipini ondoren.

Apirilaren 17an Bilboko Vista Alegren beste nobillada bat eman zen Clemente–ren lau zezenko eta Conradi–ren bat jokatuz. Hiru toreatzaileak bilbotarrak ziren: Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Antolin Arenzana *Recajo* eta Jose Muñagorri. Zezenko koldar eta maltzurrak suertatu zitzaizkien. Rufino San Bizente bitan harrapatu zuten zezenkoek, baina lehenengoari belarria moztu zion. *Recajo* ere bere bigarrenak airean erabili zuen. Muñagorrik bikain sartu zituen banderilak, baina ezpataz ez zuen asmatu.

1.904. urteko lehen korrida Bilboko Vista Alegren, maiatzaren 1ean eman zen. Saltillo–ko markesaren sei zezen Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gomez *Gallo*k toreatu zituzten. *Bombita* batez ere bostgarrenean egon zen ondo. Nahiz eta zezenak harrapatu eta zapaldu, belarria moztu zion. Rafael *Gallo* bere lehenengoan oso ongi aritu zelako belarria eman zioten. Beste bietan legea bete zuen. Saltillo–ko markesaren zezenak ongi portatu ziren.

Biharamunean, maiatzaren 2an, Valle–ren sei zezen hiltzera bezperako bi ezpatariak aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Valle–ren zezenak argalak eta ahul samarrak suertatu zitzaizkien. *Bombita*k eta Rafael *Gallo*k belarri bana lortu zuten; batek bostgarrenean eta besteak laugarrenean.

1.904. urteko maiatzaren 12an Lopez Plata–ren sei zezenko joaktuz nobillada eman zuten Vista Alegren Manuel Majias Rapela *Bienvenida* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*k. Lopez Plata ganaduzale berria zen Bilbo(a, eta oso maila ona erakutsi zuen. Zezenko guztiak izan ziren onak, eta bigarrena ezinhobea. Jose Martinez *Aventurero*k oso ongi pikatu zuen. *Bienvenida* batez ere bostgarrenean luzitu zen. Belarria eman zitoen. *Bilboko kotxeritoa* bere hiru zezenkoetan ongi aritu zen; bigarren zezenkoan oso ongi. Belarria lortu zuen bilbotarrak ere.

Hiru egun geroago, maiatzaren 15ean, Salas–en sei zezenko koldar eta maltzur plazaratu zituzten Bilbon. *Bienvenida* eta *Kotxeritoa*k ez zuten gauza handirik egin seigarren zezenkorarte. Orduan bi ezpatariak kitetan eta banderilak sartzen luzitu ziren. *Bienvenida*k hirugarrena ezpatakada onaz bota zuelako belarria eman zioten.

1.904. urteko ekainaren 2an korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren Colmenar–eko Gomez–en sei zezen jokatuz. Antonio Moreno *Lagartijillo* eta Diego Rodas *Morenito de Algeciras*ek parte hartu zuten. Zezen batzuk onak eta beste batzuk txarrak izan ziren. *Lagartijillo*k kapotez egin zituen gauzarik onenak, baina gainerakoan ezer gutxi. Diego Rodas–ek ordea lan bikaina burutu zuen muletaz eta ezpataz. Bi belarri eman zizkioten eta seigarrenarena ez, jendea garaiz lehen hondarrera jaitsi zelako. Carlos del Aguila *Aguilita* banderilaria lehen zezenak harrapatu egin zuen, eta jendea beldur zen gero, peritonitisa sortu zitzaiolako.

Ekainaren 12an Mira–ren lau zezenko toreatzera Rufino San Bizente eta Antolin Arenzana *Recajo* aurkeztu ziren Vista Alegren. Zezenko polit eta zangarrak izan ziren. Rufino San Bizentek ausardia handia erakutsi zuen, eta *Recajo* adorerik gabe aritu zen. Jose Martinez *Aventurero*k ongi burutu zituen pikatzaile–lanak eta Antonio Torres *Mundito* banderilariak ere bai bereak.

1.904. urteko ekainaren 19an emandako nobillada izan zen *Sociedad Taurina* izeneko elkarteak antolatutako azken nobillada. Gomez–en bi zezenko eta Clemente–ren beste bi toreatu zituzten Angel Carmona *Camisero* eta Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k. Bi zezenko sutu egin zituzten. Zezenko haiekin *Camisero* eta Rufinok ezer egiterik ez zuten izan.

1.904. urteko abuztuan, Bilboko korridak hilaren 21ean hasi ziren. Concha y Sierra–ren sei zezen jokatu zituzten lehen korridan. Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita*k parte hartu zuten. Zezen indartsu eta ederrak toreatu zituzten euritan. *Quinito* eta *Bombita*k laugarren eta seigarren zezenen belarria lortu zuten.

Vista Alegreko bigarren korridan, abuztuko 22koan, Murube–ren sei zezen hil zituzten bezperako ezpatari berberek. Aspaldian plazaratutako onenak izan ziren Muruberen abelgorri haiek. Ezpatariek kapotez eta banderilak sartzen berenak eta bi jo zituzten jendearen txalo artean. *Quinito*k laugarrenaren belarria irabazi zuen. Antonio Fuentes–ek berriz bigarrenarena, eta *Bombita*k hirugarren eta seigarrenarena. Bizkar gainean atera zuten plazatik. Manuel Fernandez *Chanito* ere nabarmendu zen pikatzen.

Abuztuko 23ko korridan Saltillo–ko markesaren zezenak Antonio Fuentes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k hil zituzten Bilbon. Saltillo–ko markesak zezen suharrak bidali zituen, baina pikatzaileek hondatu egin zituzten. Fuentes–ek ez zuen adorerik erakutsi, eta *Bombita*k ez zuen zorterik izan. *Machaquito*k ordea berebiziko arrakasta izan zuen. Bilbotarrek ausardia handia ikusi zioten hirugarrenean eta ezpata maneiatzen berebiziko trebetasuna ere bai. *Hormita* izeneko seigarren zezenari hiru banderila–pare iskintxo eginez ederki sartu zizkion. Faena hasterakoan zezenak harrapatu egin zuen eta larri ibili zen, bere anaia eta *Bombita*k libratu zuten arte. Gero faena burutu ondoren ezpata ederki sartu zion zezenari. Belarria eman zioten eta bizkar gainean atera zuten plazatik.

1.904. urteko abuztuaren 25ean izan zen laugarren korrida Vista Alegren, bezperan euriagatik korridarik eman ez zelako. Benjumearen sei zezen eta Concha y Sierra–ren bat plazaratu zituzten Fuentes, *Bombita* eta *Machaquito*rentzat. Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k ordezko ezpatari gisa zazpigarrena hil zuen.

Abuztuaren 26an beste korrida bat eman zen Bilboko Vista Alegren Castellones–en sei zezen eta Murube–ren bat jokatuz. Antonio de Dios *Conejito* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k toreatu eta hil zituzten. Francisco Gonzalez *Pataterillo* izan zen ordezko ezpataria. Muruberen zezenari, suharrena eta onena izan arren, *Pataterillo*k ez zion ezer berezirik egin. Ezjakin ikusi zuten bilbotarrek ezpatari hau. *Conejito*ri ere ez zioten adorerik ikusi bilbotarrek eta *Machaquito*ri berriz, laugarrenari ezpata ederki sartzen bakarrik ikusi zioten.

1.904. urtean Bilboko Vista Alegren irailaren 25ekoa izan zen azken zezenfesta. Orozko–ren bi zezenko Manjarrés eta Gregorio Díaz *Tangueritо*k hil zituzten[1].

Garbi ikusten denez, Bilbon zeznezaletasun handia zegoen garai hartan. Bertakoek zezenei buruzko aldizkariak argitaratzen zituzten (*Bilbao Taurino* izenekoa adibidez)[24]. Baina eragin handia batez ere bertako, Bilboko, toreatzaileek zuten. Angel Lejona *Aeronauta* pikatzaile bilbotarra,

Ricardo Cabello *Cabellito* banderilaria (Bilbon bizi zena)[4] eta beste peoi batzuk alde batera utzita, Kastor Jauregibeita, Rufino San Bizente, Jose Muñagorri, Antolin Arenzana eta abar goimailara igotzen ari ziren zezenko-hiltzaileen multzoan. Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoak* gainera, irailaren 16an urte hartan alternatiba hartu zuen Antonio Fuentes-en eskutik, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito* lekuko zirelarik. Eduardo Ibarraren zortzi zezen plazaratu ziren orduan. Kastor-ek *Zambombito* izeneko lehen zezena hil zuen, tresnak Fuentes-engandik harturik, eta gero *Yeguerito* izeneko zortzigarrena. Plazatik bizkar gainean atera zuten bilbotarra. Urte hartan guztira bost korridatan bederatzi zezen hil zituen[5]. Alternatibakoan Kastor-ek traje berde urreztatua luzitu zuen; Bilboko Zabalbide kaleko lagun batzuek erregalatua. Gero Frantzia, Portugal eta Ameriketara joan zen toreatzera[23].

Aurrez ere 1.904. urteko uztailaren 25ean Madrilen izana zen Castellones-eko markesaren zezenkoak hiltzen Manuel Lavin *Esparterito* eta Fermin Muñoz *Corchaito*rekin batera[4]. Azpeitian ere bai saninaziotako nobilladatan[11].

Kastor Jauregibeitiak Frantzisko Sarasua *Txarol* pikatzailea bere koadrilan hartu zuen 1.904. urtean[2].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia* 1.904. urteko uztailaren 31n aurkeztu zen Madrilen. Palha-ren hiru zezenko eta Muriel-en beste hiru plazaratu zituzten. Rufinok, Gregorio Taravillo *Platerito* eta Pascual Gonzalez *Almanseño* zituen lankide arratsalde hartan. Begoñatarrari Palharen zezenko bat eta Muriel-en *Panadero* izenekoa tokatu zitzaizkion. Azken hau oso zaila izan arren, Rufino San Bizentek ausardia handiz hil zuen[3].

Garai hartan lanean ari zen beste toreatzaile bilbotar bat, Francisco Garcia Ardura *Fresquito* zen. Jose Morales *Ostioncito*rekin batera Santanderren toreatu zuen 1.904. urtean[4].

Felix Urkola ganaduzale bilbotarra ere 1.904. urtean aurkeztu zen Madrilen; ekainaren 16an bere zezenak jokatu bait zituzten han[13].

1.904. urtean Tolosan sanjoanetan Antonio Montes toreatzaile sevillarra ekarri zuten zezenplaza berrira Lizaso tuterarren lau zezen hiltzera. Nafar-zezenei indarra eta maltzurkeria ikusi zieten tolosarrek. Montes-en lanak pozik utzi zituen ikusleak eta azkenean bizkar gainean txalo artean atera zuten plazatik. Lizaso-ren bigarren zezenak Jose Vega *Arriero* pikatzailea lurrera bota zuen, eta *Tigre* izeneko hirugarrenak Andres Navarro *Decidido* pikatzailea eta beste batzuk. Ordezko ezpatari Antonio Aguilar *Aguilarito* izan zen[11].

Azpeitian, 1.904. urtean zezenplaza berrian eman zituzten saninaziotako nobilladak. Zalduendoren alargunaren zezenkoak toreatzera Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* etorri zen bere koadrilarekin 2.500 pezetatan kontratua eginda.

Udalak urte hartan 1.661,23 pezetako galera izan zuen nobilladatan. Seberiano Martinez-i 875 pezeta ordaindu zizkioten zezenkoek plazan zazpi zaldi hil zizkiotelako.

1.904. urteko irailean, Azpeitiko Udalak zezenplaza berria alokatzeko deia egin zuen, horretarako baldintza batzuk ipiniz. Korrida, nobillada eta zekorketak emango ziren, emakumeek toreatzea galerazia zutelarik. Ahari-joko, aizkol joko etab. ere eman zitezkeen, baina idi-aposturik ez. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean hiltzeko lau zezenko korrituko ziren (hiru urte betetakoak eta gutxienez 32 erraldekoak), etab.

Frantzisko Agirre-k hartu zuen plaza bi urterako mila pezetatan[14].

1.904. urtean Donostian sansebastianetan sokamuturrik ez zen jokatu, bi urte lehenago debekatu zutelako. Bulebar-ean ordea, musika-banda *Iriarena* jotzen ari zela idi-parea agertu zen eta donostiar batzuk haiek izututa inguruan erabili zituzten musika-entzuleak beldurtuz[8].

Donostian udan Txofre-ko plazan nobillada eta korrida ugari eman zen 1.904. urtean. Uztaialren 3an Carreros-en lau zezenko plazaratu zituzten Kastor Jaurgibeitia eta Antolin Arenzana *Recajo*rentzat. Kastor-ek hiru zezenko hil zituen lan ederra egin ondoren. Lehenengoa hiltzen oso larri ibili zen. *Recajo*k ausardia handia erakutsi zuen bere zezenkoan. Hirugarren zezenean Antonio Torres *Mundito* banderilariak hagaz zezen gainetik salto egin zuen. Bigarren eta laugarren zezenkoan Tancredo jaunak bere numeroa egin zuen idulkiaren gainean plazaren erdian geldi-geldik egonda.

Uztailaren 25ean Txofre-ko plazan burruka berezia izan zen: *Cesar* tigrea eta *Hurón* zezenaren artekoa. Marseille-tik ekarria zen tigrea, 7.000 libera ordainduta. *Hurón* zezena Sevillako Lopez Plata ganaduzaleak bidali zuen. Tigre eta zezenaren burrukaren aurretik Tomas Alarcón *Mazzantinito*k Lopez Plata-ren hiru zezenko toreatu eta hil zituen, eta Jose Muñagorri bilbotarrak Carreros salamancarraren bat.

Burdinazko kaiola muntatu ondoren, tigrea sartu zuten lehenbizi eta zezena gero. Tigrea ihesi hasi zen, eta zezena erasoan. Tigreak bere erpeekin zezena urratu egin zuen, eta zezenak tigrea zapalduta mailatua zeukan. Bi abereak gelditu egin ziren gero. Haga luzez eta bolborazko kartutxoz astindu zituzten animaliak behin eta berriz, eta tigrea adarkatzea lortu zuen zezenak. Baina elkarri kolpeka ari zirela kaiolako atea zabaldu egin zen eta halako batean tigrea eta zezena kaiolatik kanpo aurkitu ziren. Jendea izuturik plazatik kanpora joaten hasi zen arrapaladan. Gero tiro-hotsa entzun zen; berrogeitaka tiro hots[11]. Tigrea, Okariz jaunak (mikeleteen tenienteak) hil zuen tiro batez kaiola gainetik baina beste tiroek lurrean eta kaiolan errebote eginez jende asko zauritu zuten. Jean Pierre Lizarriturri hil egin zen (biharamunean Manteo-ko ospitalean) eta beste hamazazpi zauritu larri izan ziren; Julio Urkixo (Tolosatik diputatu zena), Pidal-eko markesa, Padrón jaunaren emaztea, Luis Larrauri, Karlos Larralde, Liwigstonne jauna, etab. Berrogei tirotatik hamabi mikeleteek bota zituzten jendeak tiro egin zezatela eskaturik (mausser fusilak kentzen hasi omen zitzaizkien ingurukoak beldurturik beraiek botatzearren). Gainerakoak ikusleek pistolaz bota omen zituzten. Garai hartan izan ere armak dendatan eros zitezkeen[10].

Urte hartan Donostian udako sei korrida iragarri ziren. Lehenengoa uztailaren 17rako. Arribas-en zezenak *Bilboko kotxeritoa*, Fermin Muñoz *Corchaito* eta Antonio de Dios *Conejito*rentzat izango ziren. Abuztuaren 7an Joaquin Navarro *Quinito*, *Conejito* eta Antonio Montes-ek Ibarraren zezenak hilko zituzten. Abuztuaren 14ean Concha y Sierra-ren zezenak Antonio Fuentes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*rentzat izango ziren. Biharamunean Felix Urkolaren ganadua toreatuko zuten ezpatari berberek. Abuztuaren 28rako Antonio Fuentes, Antonio de Dios *Conejito* eta Ricardo Torres *Bombita*k Campos Lopez-en zezenak (lehen Barrionuevo-renak) toreatuko zituzten. Irailaren 4ean berriz, *Quinito*, *Bombita* eta Rafael Gomez *Gallito*rentzat Saltillo-ko markesaren zezenak jokatuko ziren[44].

Luis Mazzantini elgoibartarrak 1.904. urtean ez zuen asko toreatu. Aranjuez-en korrida bat maiatzaren 30ean, Toledon ekainaren 2an, Valentzian bi aldiz[4] eta gero irailaren 16an Santa Olalla-n (gaztetan lan egin zuen herrian), Veragua-ko dukearen lau zezen hilez[45].

Luis Mazzantini elgoibartarrak urriaren 1ean *El descanso y los toros* izeneko idazlan bat argitaratu zuen, igandetan korridak ematearen alde. Izan ere Igandetako atsedenetarako legeak igandetako korridatan eragina izango ote zuen beldur bait ziren[24].

13.4. Irudia. Luis Mazzantini 1.904. urtean.

Iruñean 1.904. urteko sanferminetarako lau korrida eta proba bat iragarri zituzten. Zezenak Murube, Camara, Veragua eta Espoz y Mina–renak izango ziren. Ezpatariak berriz Joaquin Navarro *Quinito*, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*. San Fermin egunean Espoz y Mina–ren zezenak *Quinito* eta *Bombita*k toreatu zituzten[16].

Espoz y Mina–k Tuteran ere jokatu zituen bere zezenak santanatan (uztailaren 26an). Haietako batek Manuel Navarro *Santaclara* pikatzailea eskuineko hankan zauritu zuen[4].

Jorge Diaz ganaduzale azkoiendarrak berriz, bere ganadutegia Mariano Perez zaragozarrari saldu zion 1.904.ean[46].

1.904. urtean Henri Laulhe *Meunier I.a* toreatzaile landetarra zauriturik suertatu zen Facture herriko plazan. Dubecq ganaduzalearekin zebilen orduan. Barrere, Passicos eta Bacarrisse–rekin berriz, Giovani, Monacot eta Fillang hurrenez hurren[21].

———— o ———— o ————

Bilbon 1.905. urtean martxoaren 25ean hasi ziren zezenak. Sanchez salamancarraren bi zezenko eta Quintana–ren beste bi atera zituzten Antonio Tacero *Tacerito* eta Antolin Arenzana *Recajo*rentzat Vista Alegren. Sanchez–en bigarrenari suzko banderilak ipini zizkioten eta gainerako hirurek ere ez zuten zangartasun handirik erakutsi. *Tacerito* ezjakin agertu zen jendaurrean eta *Recajo* bere bigarrengoan aritu zen ongi. Luis Alcarraz pikatzaile biasteriarrari eta Luziano Bilbao *Lunares* nahiz *Barbi* banderilariei txaloak jo zizkieten.

Apirilaren 24ean, Maximo Hernan–en sei zezenko hiltzera Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete*, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* eta Antolin Arenzana *Recajo* aurkeztu ziren Vista Alegren. Hernan–en zezenkoek zailtasunak eskaini zituzten faena burutzeko orduan. *Manolete*k ausart jokatu zuen, baina ezpataz gehiegi luzatu zen. Bere bigarrenari banderilak sartzerakoan harrapatu egin zuen zezenkoak, baina zauririk ez zion sortu. Rufino San Bizente–ri ausardia handia ikusi zioten, ohi bezala, eta bere lehenengoaren belarria lortu zuen. *Recajo* kapotez nabarmendu zen.

1.905. urteko apirilaren 30ean, Peñalver–en sei zezen jokatuz urteko lehen korrida eman zuten Bilboko Vista Alegren. Antonio Montes eta Kastor Jauregibeitiak hil zituzten. Aurreko urtean irailean alternatiba hartuz gero lehen aldiz orduan aurkeztu zen *Bilboko kotxeritoa* bere herritarren aurrera. Hori zela eta plaza leporaino beteta zegoen. Montes–ek bere bi lehen zezenetan ez zuen ezpata erabat ongi astindu, baina bostgarrenean bai eta belarria eman zioten. Kastor muletaz, banderilaz eta kapotez luzitu zen. Ezpatakadarik onena seigarrenean eman zuen. Jose Codes *Melones chico* pikatzailea eta Enrike Garate *Limeño* banderilaria txlaotuak izan ziren.

Maiatzaren 14ean Vista Alegreko bigarren korridan Collantes–en sei zezen toreatzera Antonio Montes bakarrik agertu zen. Kastor Jauregibeitia eta bientzat prestatu zuten korrida hura, baina euriagatik bitan atzeratua izan zelarik, maiatzaren 14ean etortzerik ez zuen izan bilbotarrak. Collantes–en zezenak ederrak ziren itxuraz, baina suhartasun gutxikoak. Montes–ek kitetan lana ederki egin zuen, eta ezpataz hirugarren eta seigarren zezenean egon zen ongi.

1.905. urteko ekainaren 11n, Antolin Arenzana *Recajo* eta Jose Muñagorri toreatzaile bilbotarrentzat Clairac–en lau zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren. Jose Muñagorri orduantxe aurkeztu zen Bilbon zezenkoak hiltzera. Clairac–en zezenkoak koldarrak ziren; bigarrena batez ere. Pikatzaile eta banderilariek lana gaizki egin zuten. *Recajo*k bere bigarrenaren belarria lortu zuen. Muñagorrik ezpata sartu ondoren bigarren zezenkoak kailejoira salto egin zuen eta han hil zen.

Ekainaren 18an Orozko–ren bi zekor eta behi bat atera zituzten Vista Alegren. Manjarrés zen toreatzailea. Behia ez zuten hil, euria hasi eta festa bertan behera gelditu zelako.

Ekainaren 22an 1.905. urteko hirugarren korrida izan zen Bilboko Vista Alegren. Valle–ren sei zezen plazaratu zituzten Enrique Vargas *Minuto* eta *Bilboko kotxeritoa*rentzat. Valle–ren zezen suhar haiekin *Minuto* kapotez eta banderilak sartzen luzitu zen. Kastor Jauregibeitiak korrida osoan maisutasuna erakutsi zuen. Bigarren eta seigarrenari berebiziko faenak burutu zizkien ezpatakada banaz hilez. Laugarrenak zailtasunak zituen, eta ezpata erdiraino sartuta azkar bota zuen Kastor–ek.

1.905. urtean abuztuko korridak hilaren 20an hasi ziren Bilboko Vista Alegren. Lehen korridan Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita*k Concha y Sierra–ren sei zezen hil zituzten. Laugarren zezena bakarrik izan zen suharra. *Quinito*k adorerik ez

zuen erakutsi arratsalde osoan. Fuentes–ek berriz bere bigarrengoan belarria irabazi zuen. *Bombita* hirugarren zezenean luzitu zen.

1.905. urteko abuztuaren 21ean, *Quinito*, Antonio Fuentes eta Ricardo Torres *Bombita* atera ziren Vista Alegren Muruberen sei zezen toreatzera. Laugarren zezena izan zen suharrena. *Quinito*k kapote, banderila, muleta eta ezpata maisuki maneiatu zituen. Bi belarri eman zizkioten. Antonio Fuentes–ek ere bere lankidearen maila erakutsi zuen eta *Quinito*k bezala bi belarri lortu zituen. *Bombita*k bere lehen zezenari moztu zion belarria. Manuel Gil *Cachiporra* eta Fabian Bilbao pikatzaileak ongi aritu ziren.

Abuztuaren 22an Saltillo–ko markesaren sei zezen toreatu eta hil zituzten Vista Alegren Antonio Fuentes, Antonio Montes eta Ricardo Torres *Bombita*k. Biharamunean berriz, abuztuaren 23an, Muruberen zazpi zezen plazaratu zituzten bezperako ezpatari berberentzat. Muruberen zezenak oso ongi portatu ziren, baina Fuentes–ek ez zuen zorte onik izan. Montes–ek bere bi zezenetan ezpata ondo sartzerik ez zuen lortu. Antolin Arenzana *Recajo* zen zazpigarren zezena hiltzekoa, baina izterrean zauritu zuen zezenak eta Jose Moyano–k egin zituen harenak azkenean.

1.905. urteko abuztuaren 24eko korrida ohizkanpokoa zen. Horrela deitzen bait zioten abuztuko bostgarrenari Bilbon. Perez de la Concha–ren sei zezen jokatu zituzten, hiltzaile Enrique Vargas *Minuto*, Ricardo Torres *Bombita* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* zirelarik. Zezenek itxura ona zuten, baina bizitasun gutxi. *Minuto* ongi hasi zen banderilaz, baina gero ez zuen ezer berezirik egin. *Bombita*ri gauzak gaizki atera zitzaizkion. *Kotxeritoa*k ordea, kapote, banderila eta muletaz lana ederki egin ondoren ezpata osoa goi–goian sartu zion bere lehen zezenari. Belarria eman zioten. Seigarrena ere faena ongi osatuta ederki hil zuen.

Urriaren 8an Zapata–ren lau zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren, Manuel Calderon, Antolin Arenzana *Recajo*, Jose Muñagorri eta Cubillas–entzat. Fabian Bilbao pikatzailea soldaduskatik libratzeko antolatu zen nobillada hura. Calderón eta Muñagorrik belarri bana lortu zuten.

1.905. urtean urriaren 15ean zekorketa batez amaitu ziren Vista Alegreko zezenfestak. Clairac–en hiru zekor burtzikatzera eta toreatzera *indiar suhar* izeneko batzuk aurkeztu ziren[1].

Bilbon garai hartan toreatzaile asko zegoen, baina 1.905. urtean guztien gainetik Kastor Jauregibeitia agertzen zaigu. Urte hartan denboraldian 27 korridatan 55 zezen hil zituen eta gero udazkenean Mexikora joanda beste 10 korridatan 23 zezen hil zituen. Madrilen ere korrida batzuetan parte hartu zuen; Benefizentziakoan adibidez, Mihuraren zezenak hilez[5]. Maiatzaren 14eko korridan ere Madrilen zen Kastor Jauregibeitia, Ricardo Torres *Bombita*, Antonio Fuentes eta Rafael Molina *Lagartijo chico*rekin batera. Kastor Jauregibeitiak Eduardo bere anaia sastakari gisa erabili zuen bere kaodrilan urte hartan eta hurrengoetan[4].

Zezenko–hiltzaile bilbotarren artean Rufino San Bizente ere famatua zen. 1.905. urtean zenbait nobilladatan parte hartu zuen. Madrildarrei ere bere ausardia erakutsi zien uztailaren 19an *Platero*rekin batera Castellones–etako markesaren zezenkoak hilez[5]. Luis Alcarraz pikatzaile biasteriarra eraman zuen orduan Rufinok berekin Madrilera[4].

Antolin Arenzana *Recajo* eta Jose Muñagorri ditugu beste bi zezenko–hiltzaile bilbotar. 1.905. urtean *Recajo*k eta Muñagorrik Vista Alegren lan egin zuten, lehentxeago esan dugunez. Muñagorrik martxoaren 25ean Rikardo Lopez Calle banderilaria zeraman koadrilan eta zezenko batek, banderilak sartzerakoan, kolpatu eta zapaldu egin zuen Lopez gasteiztarra. Gero abuztuaren

15 eta 16an Balmasedan Cecilia Montoya–ren (Zalduendoren alargunaren) zezenkoak toreatu zituen Muñagorrik, Lopez Calle koadrilan zuelarik. Rikardo Lopez Calle orduantxe erretiratu zen zezenetatik. Gasteiztar hura Bilbon bizi izan zen urte batzuetan Hernani kalean[25].

Beste gasteiztar batek, Fidel Larrea *Morenito de Vitoria*k, Madrilen Carabanchel–eko plazan 1.905.eko ekainean parte hartu zuen.

Luziano Bilbao *Lunares* zen banderilari gisa lanean zihardueen beste bat. 1.905. urtean zorte txarra izan zuen uztailaren 7an Nimes–en. Zezenko batek izterrean adarra sartu bait zion.

Pedro Ortiz *Manfares* bilbotarrak ere behin hartu zuen parte Vista Alegren nobillada batean erdi broman[4].

Serafin Bigiola *Torkito* barakaldarra ordea, serio aurkeztu zen traje distiratsua lehen aldiz jantzita Karrantza–ko plazan abuztuaren 1ean. Bere aita begira zegoen, eta semea trebea zela ikusirik, toreatzaile izan zedin ez zion aurrerantzean oztoporik ipini[5]. Aurrez Salamanca aldean prestatzen ibilia zen Serafin[4].

Tolosan 1.905. urtean sanjoanetako zezenak plaza biribil berrian eman ziren, baina aurrez udaletxean proposamen bat izan zen ihauterietako astelehenean (astelenitan) zezenko bolaztatuak han jokatzeko. Proposamen hura ez zen ontzat hartu, urte batzuk geroago arte[47].

Azpeitian berriz 1.905. urteko saninaziotarako Antolin Arenzana *Recajo* toreatzaile bilbotarra proposatu zuen Luis Ezeiza jaunak. Madrilen toreatzeko kontratua sinatua omen zegoen jadanik *Recajo*, baina udalgizonek ez zioten ontzat hartu toreatzaile famatuagoa behar zuelako. Ez dakigu Azpeitian 1.905.ean azkenean zeinek toreatu zuen[14].

Garai hartan Itziar–en festetan zezena jokatzen zuten oraintxe bezala herriko plazan. Arriola baserriko zezen bat korritzen ari zirela, Kastor Jauregibeitia eta Rafael Gonzalez *Machaquito* agertu omen ziren behin, eta cordobarrari toreatzeko gogoak eman omen zion. Arriola–ko zezenak ordea, malizia eta eskola askoren jabe izaki, *Machaquito* harrapatu eta airean erabili zuen. Harez gero Arriola baserriko zezen hari *Machaquito* deitu omen zioten[11].

1.905. urtean Donostian sansebastianetan ez zen sokamuturrik korritu debekua medio, baina suzko zezena gauean bai. Agintariak beldur ziren zezensuzkoan istiluak izango zirelakoan. Horregatik zezensuzkoan gauzain piloa ibili zen kartoizko aberearen ondoan. Neurriz gaineko zaintzaile–kopuru hura ikusita jendea haserretu egin zen eta harrika hasi zitzaizkien[8].

1.905. urte hasieran Luis Mazzantini Mexikon eta Gautemalan zebilen. Aurreko urteko udazkenean bere emazte eta koadrilarekin Mexiko–ra joana zen eta azaroaren 20ko korridan Otaolaurretxi–ren bi zezen hilez berebiziko arrakasta lortu zuen. Errepublikako lehendakari zen Porfirio Diaz jaunak ere txalotu zuen elgoibartarra, hango gainerako ikusleek bezalaxe. Mexikotik Guatemalara aldatu zen eta han lau korridatan parte hartu zuen zezen mexikarrak hilez[4]. Azkenekoa otsailaren 12an[45]. Guatemalan zegoela, Luis Mazzantiniren emaztea Mexikon hil egin zen otsailaren 19an. Elgoibartarrak, gorpua baltsamatzea agindu, bere emaztearengana itzuli, mototsa moztu eta hilotzari eskumuturrean lotu zion. Gorpua Madrilera eraman zuten eta han egin ziren hiletak. Luis Mazzantinik harez gero toreatze–lanak alde batera utzi zituen. Bere bizimodua erabat aldatuta, politikan saiatu zen geroztik. Hurrengo urtean Madrilen zinegotzi aukeratu zuten[4]. Madrilen alkateorde izan zen. Navalcarnero–tik diputatu ere bai, eta gero Guadalajara eta Avilako

gobernadore zibil. Liberal monarkiko gisa jokatu zuen politikan[1]. Toreatzaile gisa ordea, goimailan ibili zen, esan dugunez. Muletaz baldar samarra, baina segurua zen. Banderilak sartzen berriz, oso ona. Korridatan zuzendari-lanak inork baino hobeto bete zituen. Dena dela guztien gainetik zezenak ezpataz hiltzen zen bikaina. Oin-hegazka emandako ezpatakadak perfekzio osoa zuten. Ez zegoen horretan aurrea hartuko zionik.

Luis Mazzantini bestetik, garai hartako toreatzaileak baino eskolatuagoa zen. Harrokeria pixka bat ere bazuen, eta jendeak arrazoirik gabe eta itsusiki txistua jotzen zionean, ikusleen eritzia onartu ezinik ibiltzen zen. Eskuzabala ere bazen Luis Mazzantini eta dirudienez doan gehien toreatutako ezpataria bera izan genuen[45].

Iruñean 1.905. urtean uztaileko 7tik 10era lau korrida eta proba bat eman zituzten sanferminetan. Veragua-ko duke, Ezpoz y Mina-ko konte, Joakin Murube eta Eduardo Mihura-ri erosi zizkieten, eta haiek hiltzeko Ricardo Torres *Bombita*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Rafael Molina *Lagartijo chico* kontratatu zituzten.

Entzierroak nahikoa normal burutzen ziren orduan eta adarren ondo-ondoan txapela eskuan zuela Luis Iñarra iruindarra sartzen zen korrika plazara, gero han albotik joanda barreran babestuz[16].

Sanferminak baino lehen 1.905. urtean Moises Blanco *Chico de Pamplona* toreatzailea Tafalla-n lan egina zen, eta ekainaren 11n Iruñean bi nafar-zezenko hil zituen[4].

Nafar-zezenei dagokionez esan beharra dago 1.905. urtean Roke Alaiza ganaduzale tuterarra hil egin zela eta bere abelgorriak Gregorio eta Sinforiana seme-alabengana pasa zirela. *Alaiza-ren seme-alabak* izenez korritu zituzten beren zezenak[48].

Bestetik, Henri Laulhe *Meunier I.a* zauriturik suertatu zen Grenade-ko zezenplazan 1.905.ean. Landetako toreaketan zauritu eta hildako asko zegoelako, behien adarpuntak bolaztatzen hasi ziren garai hartan. Hasieran berunezko bolak ziren. Gero zurezkoak eta larruz estaliak. Gaur egun berriz, plastikozkoak dira. Den den, 1.905.ean Emanuel Soustons-eko plazan Barrere-ren *Rabonera* behiak hil egin zuen eta Sarbazan-eko plazan Lazare toreatzailea hil zen. Urte hartan Landetan aurreko urtean bezalaxe Barrere, Dubecq, Passicos eta Bacarrisse ganaduzaleak beren toreatzaile-koadrilekin plazaz plaza ibili ziren Giovani, *Meunier I.a*, Monacot eta Fillang hurrenez hurren taldeburu zirela[21].

———— o ———— o ————

1.906. urtean, Luis Mazzantini toreatzaile-lanak utzia zegoen jadanik. Madrileko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten urte hartan eta alkateorde izatera heldu zen. Zinegotzi batek udaletxean urte hartantxe obra batzuk enkargatzerakoan gauzak ez zirela behar bezala edo egin adierazi omen zuen. Luis Mazzantinik txartzat hartu zion ohar hura eta bertan ezpataz duelorako desafioa egin ere bai. Zinegotziak ez zion onartu dueloa, beti ere zezenarena egitea tokatuko zitzaiola eta. Izan ere honela zioen:

Zuk ni hiltzen banauzu, egunkarian honako hau ipiniko dute: Mazzantini-ren azken ezpatakada. Eta nik zu hiltzen bazaitut, beste hau: Mazzantini, ezpataz hiltzerakoan hila.[49]

Gatozen ordea 1.906. urteko Bilboko zezenetara. Han izan ere, Vista Alegren urtarrilaren 6an zekorketa bat eman zuten *Centro Andaluz* elkartekoak.

Otsailaren 18an Lopez Navarro–ren lau zezenko toreatzera Manuel Calderon eta Limiñana aurkeztu ziren Vista Alegren. Zezenko txiki eta bigunak izan ziren haiek. Hirugarrenari suzko banderilak ipini zizkioten. Calderon–ek bere bigarrenari belarria moztu zion. Limiñana artean hasiberria zenez gero, ezjakin ikusi zuen jendeak. Ausardia bazuen ordea, eta bere lehen zezenkoaren belarria eman zioten.

Martxoaren 4eko nobilladan Lopez Navarro–ren bi zezenko eta Vicente Ferrer–en beste bi hil zituzten Manuel Calderon eta Antolin Arenzana *Recajo*k Vista Alegren. Calderon–ek ezpataz ez zuen asmatu. *Recajo*k berriz ederki hil zuen azken zezenkoa eta belarria eman zioten.

1.906. urteko martxoaren 25ean Aleas–en lau zezenko plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Rufino San Bizente eta Jose Muñagorri ahalegindu ziren aurrez toreaturik zeudela ziruditen zezenko haiekin. *Begoñako txikia*k ausardia handia erakutsi zuen eta txaloak jo zizkioten. Muñagorrik azkenekoa hil behar zuen, baina plazaratu bezain laster Luziano Bilbao *Lunares*en atzetik joanda ezkutalekuaren kontra kolpatu zen. Sastakatu egin behar izan zuten.

Apirilaren 1ean ezpatari berberak aurkeztu ziren Vista Alegren Valle–ren lau zezenko toreatzera. Zezenkoak latzak eta suharrak suertatu zitzaizkien. Rufino San Bizentek ausart jokatu zuen eta lehenengoa ongi hil ondoren belarria eman zioten. Muñagorri berriz, kapote, banderila, muleta eta ezpataz, denetara egon zen ongi arratsalde hartan. Bi belarri irabazi zituen (zezenko bakoitzean bat) Muñagorri atxuritarrak.

1.906. urteko apirilaren 8an Felix Gomez–en hiru zezenko jokatuta nobillada eman zen Vista Alegren. Manuel Calderon eta Domingo Castroviejo *Deustuko Dominginek* toreatu zuten, baina arratsalde hartan ez zitzaien ezer ondo atera.

Apirilaren 15ean izan zen Bilboko Vista Alegren hurrengo nobillada. Filiberto Mira–ren lau zezenko jokatu zituzten orduan Joaquin Calero *Calerito* eta Jose Muñagorri ezpatari zirela. *Caleritok* lehenengoa ongi toreatu eta hil ondoren, belarria lortu zuen. Bigarrenean ezpataz huts egin zuen. Muñagorri–ri bigarren zezenkoaren belarria eman zioten ongi hil zuelako. Laugarrenari ezpata bitan sartu zion, baina zezenak harrapatu egin zuen. Fabian Bilbao nabarmendu zen zezenkoak pikatzen.

Apirilaren 22an Villagodio–ko markesaren lau zezenko korritu zituzten Bilboko Vista Alegren. Rufino San Bizente *Begoñako txikia* eta Antolin Arenzana *Recajo*k hil zituzten. Zezenko ezinhobeak izan ziren haiek; lehenengoa txiki samarra eta beste hirurak handiak. Hirugarrenak toreatzaileak ikaratu egin zituen, baina *Begoñako txikia*k bere ausardiaz oso ongi hil zuen eta belarria eman zioten.

1.906. urteko maiatzaren 2an izan zen Bilboko Vista Alegren urte hartako lehen korrida. Biencinto–ren sei zezen eta Mira–ren bat jokatu ziren orduan. Kastor Jauregibeitia bilbotarrak eta Jose Claro *Pepete* sevillarrak hil zituzten Biencinto–renak eta Jose Muñagorri ezpatariordeak Mira–ren zazpigarrena.

Marinako ministraria joan zen korrida hura ikustera. Biencinto–ren zezenak zangarrak eta nobleak izan ziren. Kite asko eta onak egin zituzten bi ezpatariek elkarren lehian. *Pepetek* zezen bat bakarrik hil zuen. Hirugarrenean izan ere, Manuel del Pino *Monerri* pikatzailea lurrean zela kitea egiterakoan zezenak kolpatu egin zuen *Pepete. Bilboko kotxeritoak* beraz, bost zezen hil zituen; oso ongi, egia esan. Hirugarren eta seigarren zezenaren belarri bana eman zioten.

Maiatzaren 6an beste korrida bat eman zuten Vista Alegren Palha–ren sei zezen plazaratuz.

Kastor Jauregibeitia eta *Pepete* ziren toreatzen orduan ere. Palha–ren ganadua, ederra, indartsua eta suharra izan zen. Bigarrenak zaldi bat kailejoira bota zuen. Guztira hamaika zaldi hil zituzten. Bostgarren zezenari bi ezpatariek batera kapotez lantze batzuk osatu zizkioten. Kastor eta Muñagorrik banderilaztatu zuten zezen hura. *Bilboko kotxeritoa* bostgarren zezenean luzitu zen gehiena eta belarria eskuan zuela plazan buelta eman zuen txalo artean. Jose Claro *Pepete*, aurreko korridako zauriak erabat sendaturik gabe zegoen artean. Batez ere azkeneko zezena hil zuen ondo. *Monerri* pikatzailea eta Luziano Bilbao *Lunares* nahiz Jose Morales *Ostioncito* banderilariak ere nabarmendu ziren.

Maiatzaren 18an Vista Alegren industri ikasketak egiten ari zirenek zekorketa bat antolatu zuten. Rioseco–ko lau zekor toreatu zituzten Eraso, Martinez, Petrirena eta Adeva jaunek. Besteak beste, Tancredo–ren eta *Martintxo*ren numeroak ikusi ahal izan ziren.

1.906. urteko maiatzaren 24ean, Clairac–en sei zezen korritu zituzten Vista Alegren. Kastor Jauregibeitia eta Tomas Alarcon *Mazzantinito*k parte hartu zuten. Zezenak kaxkarrak portaeraz, eta hirugarrena txikia. Kastor–ek *Ostioncito*ri utzi nahi izan zion zezen hura, baina lehendakariak ez zion utzi. *Mazzantinito* bigarren zezenean luzitu zen. Orduko ohiturari jarraituz, laugarren, bostgarren eta seigarren zezenari bi ezpatariek elkarlanean sartu zizkieten banderilak. Seigarren zezenak *Mazzantinito* sabelean eta izterrean adarkatu zuen, baina hala eta guztiz ere toreatzen jarraitu eta zezenari ezpata hirutan sartu zion.

Maiatzaren 27ko nobilladan Bilbon Antolin Arenzana eta Fernando Ugarte *el Chico del Imparcial* bilbotarra aurkeztu ziren Valle–ren bi zezenko eta Biencinto–ren beste bi hiltzera. Ugarte–k lehen nobillada zuen hura bere herrian. *Recajo* oso ausart aritu zen. Ugarte–ri bere lehen zezenkoaren belarria eman zioten. Valle–ren bi zezenkoak suharrak izan ziren, eta Biencinto–renak koldarrak.

1.906.eko ekainaren 3an Trespalacios–en lau zezenko toreatzera Fermin Muñoz *Corchaito* eta Rufino San Bizente etorri ziren Bilboko Vista Alegrera. Zezenko koldarrak eta maltzurrak suertatu zitzaizkien. Haize handia ere ibili zen arratsalde hartan plazan. *Corchaito*k belarria lortu zuen bere lehenengoan. Bere bigarrenean ordea asmatu ezinik ibili zen, eta lehendakariak zapi berdea atera eta zezenkoa toriletara bueltatzeko zorian zegoela, nola edo hala botatzea lortu zuen. *Begoñako txikia* arrisku bizian ibili zen zezenkoen adar artean. Azkenekoaren belarria moztu zuen. Fabian Bilbao bilbotarra eta Luis Alcarraz biasteriarra pikatzen ongi aritu ziren.

Ekainaren 14ean korrida eman zuten Bilbon. Moreno Santamaria–ren sei zezen hiltzera Antonio Fuentes eta Kastor Jauregibeitia etorri ziren. Zezen ederrak itxuraz eta zangartasun handirik gabekoak izan zituzten ezpatariek. Fuentes–ek lau zezen hil zituen, laugarrenak Kastor harrapatu egin zuelako. Fuentes kapotez, banderilaz eta muletaz luzitu zen. Bere bigarrenari ezpata oso ongi sartu zion. *Bilboko kotxeritoa*ri txalo asko jo zioten. Bere lehenengoak bistan akatsa zuen, baina hura ederki hiltzeko guaza zela erakutsi zion jendeari. Bere bigarrena hiltzerakoan ordea, zezenak adarra sabel barrenean sartu zion eta erretiratu beharra izan zuen.

1.906. urteko ekainaren 17an, Cipriano Sanz–en lau zezenko toreatzera Fernando Ugarte *Chico del Imparcial* eta Serafin Bigiola *Torkito* aurkeztu ziren. Bigiola–k lehen aldia zuen Vista Alegren. Ugarte–ri ez zitzaizkion gauzak ondo atera. Zezenkoek bitan harrapatu zuten. Ausardia erakutsi zuen, baina hortik aurrera ezer gutxi. *Torkito*k berriz, kapote eta muletaz nabarmendu ez bazen ere, ederki hil zituen bere bi zezenkoak ezpataz, belarri bana lortuz. Bizkar gainean atera zuten plazatik.

Abuztuko korridak Bilbon, hilaren 19an hasi ziren. Lehenengoan Rafael Molina *Lagartijo chico*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitiak Anastasio Martin–en sei zezen txiki hil zituzten. *Lagartijo chico*k ezer gutxi egin zuen arratsalde hartan. *Machaquito*k berriz bere lehen zezenari berebiziko faena burutu ondoren ezpata bikain sartu zion. *Bilboko kotxeritoa*k ere bere bi zezenak ongi bota zituen ezpataz.

Bilboko bigarren korridan, 1.906.eko abuztuaren 20koan, Murube–ren sei zezen jokatu ziren Vista Alegren. Ricardo Torres *Bombita*, *Machaquito* eta *Bilboko kotxeritoa*k parte hartu zuten. *Bombita* bere bigarrenean egon zen ondoen. Banderilak ederki sartu zizkion, eta gero zezena zetorkiola sartu eta atera zion ezpata.

*Machaquito*k bostgarrena ezpatakada bikainaz bota zuen eta Kastor Jauregibeitia gehiago luzatu zen bere bi zezenak hiltzerakoan.

Abuztuaren 21eko korridan Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Montes eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k Saltillo–ko markesaren sei zezen hil zituzten. Korrida hartan zortzi zaldi hil ziren plazan zezenek adarkaturik.

1.906. urteko abuztuaren 22 eta 23rako iragarrita zeuden korridak atzeratu egin ziren irailera Bilboko greba orokorra medio. Irailaren 17an eman zen gero korrida bat eta biharamunean (irailaren 18an) bestea.

Irailaren 17ko korridan Concha y Sierra–ren sei zezen eta Murube–ren bat jokatu zituzten. Antonio Fuentes, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitia toreatzaileak etorri ziren haiek hiltzera. Zazpigarrena Jose Muñagorri ezpatariordeak hil zuen. Antonio Fuentes bere lehen zezenean ongi egon zen, eta laugarrenean ezinhobeto. Belarria eman zioten. *Machaquito* ere bere bigarrenean egon zen ongien. *Bilboko kotxeritoa*k ere seigarrena berebiziko ezpatakadaz bota zuen.

Irailaren 18ko korrida luzea izan zen. Valle–ren zortzi zezen eta Murube–ren bat jokatu ziren orduan. Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Fuentes, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitiak bina hil zituzten, eta Ricardo Luque *Camara* ezpatariordeak bederatzigarrena. *Quinito*k lehenengoari banderilak ongi sartu eta faena ederra burutu zion. Bere bigarrenean ez zen hain ongi egon. Fuentes–ek bere bigarrenari belarria moztu zion. Bestean ezer gutxi egin zuen. *Machaquito*ri ere bere bigarrenaren belarria eman zioten. Kastor Jauregibeitia ez zen ondo egon bere lehenengoan, baina zortzigarrenean bai; oso ongi. Ezpatakada bikainaz hil zuelako, belarria eman zioten.

1.906. urteko irailaren 30ean nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren Cipriano Sanz–en lau zezenko korrituz. Luis Mauro lekeitiarra eta Serafin Bigiola *Torkito*k hil zituzten. Lekeitiarrak lehen arratsaldea zuen Vista Alegren eta jendeari gustatu zitzaion toreatzaile berria, nahiz eta ezpataz asmatu ezinik ibili. *Torkito*k bere lehenengoan berebizikoak egin zituen, eta azkenekoan ez zen luzitu. Fabian Bilbao pikatzailea eta Antonio Torres *Mundito* banderilaria bai ordea.

Urriaren 7ko nobilladan Jose Muñagorri eta Antolin Arenzana *Recajo*k Colmenar Viejo–ko lau zezenko hil zituzten Vista Alegren. Muñagorri eta *Recajo* ondo aritu ziren beren lehen zezenkoetan eta bigarrengoetan ez hain ongi.

Urriaren 21eko nobilladan, Bilboko Vista Alegren Colmenar–eko hiru zezenko eta La Carolina–ko bat korritu ziren. *Padilla chico* eta *Nene* toreatzaileek lan egin zuten. Airean asko

ibili ziren. *Padilla chicok* zerbait bazekiela adierazi zuen. Bere lagunak ez berriz.

1.906. urteko urriaren 28an Pancorbo–ko Hipolito Ortiz–en lau zekor jokatu zituzten Bilboko kotxeroek antolatutako zezenfestan. Andres Ludar, Eloy Perez, Bernardo Serrano eta Javier Agudo ibili ziren toreatzen[1].

Bilbon garai hartan zezenzaletasun handia zegoen, plazan ematen zen festa–kopuru handiak adierazten duenez. Horretaz gain *Vista Alegre* izeneko aldizkari bat ere argitaratu zuten 1.906. urtean[24]. Bestetik, 1.906. urtean aipirilaren bukaeran eta maiatzaren hasieran *La Tertulia Taurina* elkartean kongresu bat ospatu zen Antonio Fernandez Heredia *Hache* jaunaren lehendakaritzapean. Zezenetarako Arautegi berriaren proiektua onartu zuten; *Doctrinal Taurómaco* izeneko liburuan argitaratu zena hain zuzen. Bilboko kritikalari asko ibili zen kongresu hartan: Adolfo Martin, Alejandro Etxebarria, Felix Rodriguez, Federico Morena, etab. Bilbon (eta Madrilen), Heredia Spinola–ko konteak 1.880.ean argitaratutako arautegia zegoen indarrean. *Hache*ren proiektuan, aldaketa batzuk proposatzen ziren. Besteak beste, zezenei dibisarik ez ipintzea eta zaldiak plazara zezena baino geroago irtetea. Lehenbiziko aldaketa ez zen aintzakotzat hartu. Bigarrengoa bai[1].

Bizkaiko toreatzaileetan 1.906. urtean, Kastor Jauregibeitia zen nagusi. Hogeitabederatzi korridatan parte hartu zuen urte hartan. Madrilen maiz toreatzeko, enpresarekin ez zen konpondu[4]. Hala ere, Alfonso XIII.a erregea Victoria Eugenia–rekin ezkondu zenean emandako erret korridan Felipe Pablo Romero–ren zezen bat hil zuen. Sevillatik ere deitu zioten Kastor–i irailaren 29rako. Jose Garcia *Algabeño* eta Antonio Montes–ekin batera Eduardo Mihura–ren zezenak hil zituen. Printzearen atetik atera zuten bilbotarra orduan bizkar gainean[5].

1.906. urtean asko toreatu zuen beste bilbotar bat, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* izan zen. Adalid eta Halcon–en zezenkoak Madrilen toreatu zituen ekainaren 14ean Faustino Posadas eta Julio Gomez *Relampaguito*rekin batera. Bere koadrilan Frantzisko Sarasua *Txarol* pikatzailea hartu zuen urte hartan[4] eta hogeitalau nobillada toreatzera iritsi zen[5]. Serafin Bigiola *Torkito* ere fama handia hartzen ari zen orduan. 1.906. urtean guztira 18 nobilladatan parte hartu zuen[4].

Jose Muñagorri toreatzailea 1.906. urteko abuztuaren 26an aurkeztu zen Madrilen, nobillada batean lan eginez. Sasoi oneko mutila zen orduan. Urte hartan beste toreatzaile bilbotar batzuk ere hasi ziren ofizio horretan. Bernardo Ocejo *Ocejito* eta Bernardino de Teso *Gavira chico* adibidez. Eduardo Jauregibeitiak (Kastor–en anaiak), Gasteiz–en toreatu zuen nobillada batean. Oso gaizki egon zen eta harez gero zezenkoak hiltzera ez zen inoiz atera[5].

Azpeitian zezenak 1.906. urtearen hasieraz gero korritu zituzten. Inazio Bereziartuak San Sebastian egunetik ihauteri astearterarte igandero zezenak korritzea eskatu zuen udaletxean. Halaxe egin zuten azpeitiarrek 532,50 pezeta gastatuta. Zezenplazako enpresari Frantzisko Agirre zelarik, saninaziotan ohizko nobilladak eman ziren. Zezenko bat ez zen pisu minimora iritsi eta 100 pezetako isuna ezarri zioten Agirre–ri[14].

Hernaniko alkateak berriz, 1.906.eko martxoaren 5ean Joaquin Bulman *Bulmancito*ren gutuna jaso zuen. Bi urte baino gehiagoko lau zezenko toreatzeko eskaintzen zuen bere burua eta bere koadrila. Zezenkoak aurrez toreatu gabeak izango ziren, eta puntazorrotzak ala bolaztatuak. Zezenkoak ez ziren hiltzekoak izango eta batean Tancredo–ren numeroa egingo zuten. *Bulmancito* Txofre auzoan Donostian bizi zen, eta handik bidali zion gutuna Hernaniko alkateari[50].

Donostian 1.906. urteko udan ohi bezala korridak eman ziren. Abuztuaren 5eko korridan

Pablo Romero–ren zezenak jokatu zituzten. Antonio Montes eta Jose Garcia Rodriguez *Algabeñok* parte hartu zuten eta laugarrena Montes–ek oin–hegazka ezpata sartuta bota zuenean, berebiziko txaloak jo zizkioten[4].

Gero neguan, urtezahar bezperan, Txofre–ko zezenplaza jendez bete zen. Ez ordea zezenak ikustera; ezkontza zibila jarri zutelako protesta egitera baizik. Fernando Alkain bertsolaria ere han zen eta bertsoak jarri zituen:

Milla bederatzi eun
ta seigarrenian,
Abenduko illaren
ogei t'amarrian,
zezen–plaza berriko
barrunbe ederrian
. . . . . .
Askoren iritziyan
giñan ogei milla,
. . . . . .[51]

Iruñean, 1.906. urteko sanferminetarako Antonio Montes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito* kontratatu zituzten. Uztailaren 7an hasita lau korrida eta proba bat iragarri ziren. Zezenak, Murube, Saltillo, Jose Palha, Mata–ren alarguna eta Espoz y Mina–renak izango ziren. Tuterako Mata–ren alargunak, lehen Lizaso anaienak izandako zezenak zeuzkan[16].

Urte hartan Nafarroako plazatan Serafin Bello *Pintorcito* toreatzaile zaragozarra nobilladatan parte hartzen hasi zen. Manuel Macipe *Curo* pikatzaileak ere (Teruel–eko Ariño–koa zen) Iruñea, Gasteiz eta abarretako korridatan lan egin zuen[4].

Madrilen berriz, 1.906. urteko ekainaren 3an Eduardo Olea jaunaren zezenak lehen aldiz korritu ziren[13].

Landetako Mugron herrian bestetik, Mouchez toreatzailea itsutu egin zen zezenplazan istripuz. Barrere, Dubecq eta Portalier ganaduzaleek berriz, Giovani, *Meunier* eta Monacot toreatzaileak erabili zituzten taldeburu[21].

———— o ———— o ————

1.907. urtean, Bilbon zezenfesta asko eman zen Vista Alegreko plazan. Lehenengoa martxoaren 31rako antolatu zuten. Felix Gomez–en sei zezenko korritu ziren Salvador Soler *Negrete* eta Francisco Martin *Vazquez* ezpatari zirela. Lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten, baina besteak nobleak izan ziren. *Negrete* kapotez ongi aritu zen, baina ezpataz oso gaizki. *Vazquez*ek artista–kutsua erakutsi zuen. Hiltzen ordea ez zen hain ona. Jorge Bijuesca *Mirandito* ikusle gisa zegoen Vista Alegren, eta bostgarren zezenkoan salto egin zuen hondarrera eta zezenkoak hankaz gora botata ibili zen.

Apirilaren 11rako Bilboko Ikasle–elkarteak zekorketa antolatu zuen. Alaizaren lau zekor Menendez, Eraso, Ortega eta Fernandez–ek toreatu zituzten. Tancredo–ren numeroa ere egin zuten.

Apirilaren 14eko nobilladan, Perez Tabernero–ren sei zezenko korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Julio Gomez *Relampaguito*, Rufino San Bizente eta Faustino Posadas–ek toreatu

zituzten. Zezenkoak oso suharrak izan ziren; bostgarrena eta seigarrena batez ere. Posadas ikaragarri ongi aritu zen. Bi belarri eskuratu zituen atertu ezinezko txalo artean. *Relampaguito* bere lehenengoan gaizki egon zen, baina bostgarrenaren belarria eman zioten. *Begoñako txikia*k ez zuen asmatu ezpataz. Fabian Bilbao pikatzailea, zaldia erorita zezenkoaren buru gainera erori zen.

1.907. urteko apirilaren 21ean beste nobillada bat eman zuten Vista Alegren, Aleas–en sei zezenko jokatuz. Julio Gomez *Relampaguito*, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* eta Jose Muñagorri aurkeztu ziren arratsalde hartan toreatzera. Aleas–en zezenkoek portaera ona erakutsi zuten eta hiru ezpatariei belarri bana eman zieten lehen zezenkoetan. Gero ez zuten gauza nabarmenik egin eta Muñagorrik bakarrik hil zuen itxuraz bere bigarren zezenkoa.

1.907. urteko maiatzaren 2an, Roman Ibarretxe enpresariak urteko lehen korrida antolatu zuen Vista Alegren. Mihuraren sei zezen toreatu zituzten Antonio Fuentes eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k. Bigarren zezena ezik, gainerakoak suhar portatu ziren. Bi ezpatariak berriz, zein baino zein okerrago aritu ziren. Fuentes hirugarrenean bakarrik saiatu zen zerbait. *Machaquito*k laugarren zezenean bi abisu ere entzun zituen. Jendeak berebiziko txistuak jo zizkieten, eta azkenean ikuiluetako atetik alde egin zuten plazatik.

Biharamunean, maiatzaren 3an, ezpatari berberak aurkeztu ziren Vista Alegren Veragua–ko dukearen sei zezen toreatzera. Seigarren zezénaren adakera, ikaragarria zen. Zangartasun handia erakutsi zuten zezen haiek. Fuentes–ek bere bi lehen zezenak ongi hil zituen, eta bere hirugarrena ez hain ongi. *Machaquito* azken zezenean bakarrik luzitu zen. Hiltzerakoan zezenak kolpatu egin zuen. Zezen honi Manuel de la Haba *Zurito* pikatzaileak metro bat haga sartu zion. Bi ezpatariek laugarren eta bostgarren zezena aldi berean toreatu zituzten kapotez.

1.907. urteko maiatzaren 9an, beste nobillada bat eman zen Vista Alegren Pablo Torres–en hiru zezenko eta Aleas–en bat jokatuz. Pascual Gonzalez *Almanseño* eta Emilio Cortell *Cortijano*k hil zituzten. Torres–en hiru zezenkoak sutzea agindu zuen lehendakariak. Hirugarrena gainera, toriletara itzuli zuten bolbora ere ondoren, eta haren ordez ateratakoa nahikoa ongi portatu zen. Bi toreatzaileak larri ibili ziren zezenko koldar haienak egin ezinik.

Maiatzaren 19an beste nobillada bat eman zuten. Clairac–en hiru zezenko, Villapadierna–ren bat eta Aguado–ren beste bat korritu zituzten. Fernando Gomez Ortega *Gallito* (Lope musikariak *Gallito* pasodoble famatua eskaini ziona) eta Pascual Gonzalez *Almanseño*k toreatu zuten Bilbon arratsalde hartan. Eskandalu handia izan zen orduan. Izan ere Fernando Gomez–ek (Rafael eta *Joselito*ren anaiak) lehen zezenkoan gauzak gaizki egin zituen, eta hirugarrenean okerrago. Lehendakariak palkora dei egin zion Fernandori. Bitartean laugarren zezenkoa plazaratu zen, eta *Almanseño*k ez zuen toreatu nahi Fernando etorri arte. Hura bait zen plazako zuzendari. Fernando Gomez *Gallito* hondarrera etorri zen, palkora joan gabe. Zezenkoari ordea hanka hautsi zitzaion plazan eta bertan sastakatu beharra izan zuten. Jendea txistuka eta oihuka ari zela Aguado–ren zezenko bat atera zen, baina zaldunak ukatu egin ziren haiek pikatzera. Jendea haserre bizian zegoela, dirua eskainiz pikatzaileekin konpontzea lortu zuten, baina bitartean Fernando Gomez–ek hotelera alde egin zuen. Asmatzekoa da hango zalaparta eta anabasa. Enpresak zezenko bolaztatu bat atera zuen, biana hura erretiratu ondoren Aguado–ren beste zezenko bat plazaratu zuten. Pikatzailerik ez zegoen ordea, haiek ere joan egin zirelako. *Gallito* bai ordea, kaleko jantzian, atxiloturik lehendakariaren aginduz ekarri zutelako. *Almanseño*k orduan zezenkoa pikatu gabe hil zuen. Bere lehenengoan belarria eman zioten.

1.907.eko maiatzaren 26an beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Clairac–en bi zezenko eta Villapadierna–ren beste bi Isidoro Marti *Flores* eta Antolin Arenzana *Recajo*k hil

zituzten. *Floresek* ez zuen ezer berezirik egin eta *Recajo*ri ere gauzak gaizki atera zitzaizkion.

Maiatzaren 30ean Bilbon korrida eman zuten Villagodio–ren sei zezen jokatuz. Antonio de Dios *Conejito* eta Manuel Mejias Rapela *Bienvenida* etorri ziren haiek hiltzera. Villagodio–ko markesaren zezenek zalditan kasta onekoak zirela erakutsi zuten; bigarrenak eta bostgarrenak batez ere. *Conejito* lehenengoan kapote eta muletaz luzitu zen. Bere bigarrengoan ere bai. Bostgarrenari banderilak berak sartu zizkion eta faena ezpata ederki sartuta burutu ondoren belarria eman zioten. *Bienvenida* arratsalde osoan adorerik gabe aritu zen. Ezpataz ere ez zuen asmatu.

1.907.eko ekainaren 9an, Carreros–en lau zezenko korritu zituzten Vista Alegren. Luis Mauro lekeitiarrak eta François Boudin *Pouly II.a* toreatzaile proventzalak parte hartu zuten. Nobillada hartan toreatzaile landetarrek beren saltoak egin zituzten zezenkoen gainetik. Mauro–k arratsalde hartan ez zuen ezertan asmatu. Aimargues–en jaiotako *Poul*yk bai ordea. Laugarrenean belarria eman zioten. Zezenko hari banderilak sartu zizkionean jo zituen jendeak txalorik ugarienak.

Ekainaren 16ko nobilladara, Valle-ren lau zezenko toreatzera Manuel Torres *Bombita III.a* eta Faustino Posadas etorri ziren Bilbora. Valle–ren zezenkoek bistan akatsa zuten, baina torea zitezkeen. *Bombita III*.ak azken zezenkoari banderilak sartzea egin zuen gauza on bakarra. Posadas berriz, denean ongi artiu zen, hiltzen ezik. Bigarren zezenkoak harrapatu egin zuen.

Bilboko Vista Alegren hurrengo nobillada 1.907.eko ekainaren 23an eman zen, Oñoro–ren hiru zezenko korrituz. Julio Gomez *Relampaguito* eta Serafin Bigiola *Torkito*k toreatu zituzten. Bi zezenkori suzko banderilak ipini zizkieten. *Relampaguito*k lehen bi zezenkoak hil zituen. Belarri bat eman zioten. *Torkito*k hirugarrena bakarrik hil zuen; koldarrena. Ez zen luzitu.

Abuztuan ohizko korridak hilaren 18an hasi ziren Bilbon. Parladé–ren sei zezen toreatu zituzten Antonio Fuentes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*k. Parladé–ren zezenak itxura ederrekoak eta zangartasunik gabekoak ziren. Fuentes–ek lehenengoari faena ona egin zion eta laugarrenean banderilak sartzen luzitu zen. Ezpataz ez zuen asmatu ordea. *Bombita*ri bigarrenean txalo asko jo zioten eta bostgarrenean banderilak ederki sartu eta faena ona burutu ondoren ezpata osorik sartu zuelako belarria eman zioten. *Machaquito* hirugarrenean ez zen luzitu, nahiz eta azkenean ezpata ondo sartu. Segiarrenean banderilak ederki ipini zituen, baina ezpataz ez zuen asmatu.

1.907.eko abuztuaren 19an Muruberen sei zezen hiltzera bezperako hiru toreatzaileak aurkeztu ziren. Fuentes–ek ez zuen ezer berezirik egin lehenengoan eta laugarrenean ere ez, egia esan. *Bombita* berriz bostgarrenean egon zen ongi. *Machaquito*k berriz seigarrenari berebiziko faena egin zion. Ezpatakada bikaina sartu ondoren belarria eman zioten. Korrida hasi aurretik pikatzaileek protestatu egin zuten ezten–hagak arauen araberakoak ez zirela eta. Ongi limaturik zeuden ordea eta lehendakariak ez zuen amor eman.

Abuztuaren 20ko korridan ezpatari berberek Mihura–ren bost zezen eta Muruberen bat toreatu zuten Bilboko Vista Alegren. Mihuraren bigarrena hankan zauriturik zegoelako plazaratu zen Muruberena haren ordez. Mihuraren zezenak suharrak izan ziren. Antonio Fuentes–ek laster hil zituen bere bi etsaiak. *Bombita* bostgarrenari banderilak sartzen bakarrik luzitu zen. *Machaquito*k ere laster bete zituen bere lanak. Fabian Bilbao eta Manuel Bravo *Relampago* pikatzaileak zauriturik suertatu ziren.

1.907.eko abuztuaren 21ean, laugarren korridan, Vista Alegren Concha y Sierra–ren sei zezen toreatu zituzten bezperako ezpatariek. Jose Moyano ordezko ezpatariak Mihuraren zazpigarrena hil zuen. Fuentes itxuraz aritu zen lehenengoan, baina eskuan zauritu egin zuen

zezenak. *Bombita* ez zen ongi egon bigarrenean, baina bostgarrenean bai. *Machaquito* guztietan nagusi atera zen. Bi belarri eman bait zizkioten.

Irailaren 15ean, nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren, Tabernero–ren bi zezenko eta Valle–ren beste bi korrituz. Antonio Pazos eta Antolin Arenzana *Recajo* ezpatariek parte hartu zuten. Pazos asko saiatu zen bere lehenengoan, eta bere bigarrengoan gauzak oker atera zitzaizkion. *Recajo* bilbotarrari berriz ongi bere bi zezenkoetan. Antonio Torres *Munditok* banderilak ederki sartu zituen.

1.907. urteko irailaren 22ko nobilladan, Salamancako Amador Garcia–ren lau zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren. Trinidad Perez *Machaquito de Sevilla* eta *Morenillo* aurkeztu ziren haiek toreatzera. Kolpatu asko izan zen arratsalde hartan, baina zauri larririk ez. Sevilla–ko *Machaquitok* ausardia handia erakutsi zuen. Bere bigarrenaren belarria eman zioten. *Morenillo* ezjakin agertu zen. Azken zezenkoa hil ezinik ibili ondoren, torilera bueltatu zioten.

Beste nobillada bat, urriaren 20an izan zen Vista Alegren. Clairac–en lau zezenko txiki Jose Morales *Ostioncito* eta Serafin Bigiola *Torkitok* hil zituzten. *Torkitok* lana patxadaz eta ongi burutu zuen bere lehenengoan, eta oso ongi bere bigarrenean. Belarria eman zioten. Fabian Bilbao ere nabarmendu zen pikatzen.

1.907. urtean Vista Alegren azken nobillada azaroaren 10ean eman zuten Tabernero–ren lau zezenko txiki korrituta. Juan Cecilio *Punteret* eta Serafin Bigiola *Torkitok* toreatu zituzten. *Punteretek* lehenengoaren belarria lortu zuen eta *Torkitok* ere bai bere lehenengoan. Felipe Antxustegi *el Largo* pikatzaile bilbotarrari lehen zezenkoak galtzak urratu zizkion[1].

1.907. urtean Kastor Jauregibeitia bilbotarrak hogeitabederatzi korridatan parte hartu zuen, hirurogeitamabi zezen hilez. Madril–en ere toreatu zuen Indalecio Mosquera enpresariak kontratatu ondoren. Burgos–en ekainaren 30ean Bilboko Gil eta Diez medikuei faena eskainita, Fernando Perez Tabernero–ren *Monjo* izeneko seigarren zezen zuriari lan bikaina burutu zion. Ezpata sartzerakoan larriki zauritua suertatu zen. Sevillan ere toreatu zuen Kastor–ek sanmigeletan *Machaquitoren* ordez[5]. Gijon–en abuztuaren 15ean aurkeztu zen. Korrida hartan, bertako Julio Garcia *Sastre* banderilaria zeraman koadrilan. Ramon Laborda *Chato* izan zen urte hartan koadrilan erabili zuen beste banderilari bat.

Irailaren 15ean, 1.907. urtean, Esteban Hernandez–en zezenak toreatu zituen Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoak* Madrilen, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Manuel Rodriguez Sanchez *Manoleterekin* batera. *Machaquitok* orduantxe eman zion alternatiba *Manoleteri*. Gero, urriaren lehen egunetan Lima–ra abiatu zen hango korridetan toreatzera[4]. Hamar korridatan parte hartu zuen Peru–n[23].

Rufino San Bizente ere fama hartzen ari zen, eta 1.907. urtean, nobillada askotan parte hartu ondoren Venezuelako bidea hartu zuen udazkenean. Kontratu batzuk zituen han negurako[3]; sei nobilladatarako hain zuzen. Hamabi toreatu zituen ordea negu hartan.

Serafin Bigiola *Torkito* ere toreatzaile fina zen jadanik, nahiz eta gaztea izan. 1.907. urtean 13 nobilladatan lan egin zuen[5].

Mariano Lopez *Regional*, gero zezenko–hiltzaile izango zena Bilbon 1907. urtean jaio zen. Clemente Moret zezenko–hiltzailea ere bai maiatzaren 20an[4]. Bernardo Hierro banderilari legutiarra berriz, Nicanor Villa *Villita, Cara ancha* eta Luis Mazzantini–ren koadriletan ibilitakoa, erretiratu

egin zen 1.907. urtean. Gero Madrileko zezenplazako bulegoetan lan egin zuen, Julian Etxebarria gerente zen garaian[52].

Azpeitian 1.907. urteko sansebastian eta ihauterietan sokamuturra korritu zen kaleetan ohi bezala. Saninaziotan, Luis Ezeizak eman zituen nobilladak zezenplaza berrian. Zezenko bati hiru erralde falta zitzaizkion pisu minimorako eta beste bati bi erralde. Hogeitamabi erralde behar zituzten gutxienez. Jendea pozik atera zen nobilladatatik urte hartan[14].

Donostian udan 1.907. urtean ohi bezala korridak eman ziren. Abuztuan Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoak* toreatu zuen. Bilbon zezenzaleek txangoa antolatu zuten Donostiara beren herrikidea ikustera. Kastor ordea, oso gaizki aritu zen korrida hartan.

Irailaren 15ean, Sabino Uzelaieta enpresariak prestatutako korridan Ricardo Torres *Bombitak* Txofre–ko plazan alternatiba eman zion bere anaia Manuel Torres *Bombita III.*ari. Egun batzuk lehenago bi anaiek Hondarribian toreatu zuten, eta han Ricardok, Lopez Platas–en azken zezena hiltzen utzi zion Manuel anaiari. Donostian berriz, Becerra–ren sei zezen txar plazaratu ziren alternatibarako. Azkenekoaren ordez Espoz y Mina–ren bat atera beharra egon zen. Erabat arriskutsua suertatu zitzaien nafar–zezen hura.

Manuel Torres arratsalde osoan oso txalotua izan zen, eta nahiz eta zezen txarrak suertatu, bizkar gainean atera zuten plazatik. Ricardo ere ongi aritu zen, bere anaiak bezalaxe hiru zezen hilez[11].

Gero neguan, Horazio Azketa, Bizente Mendizabal, Jose Treku eta beste batzuek osatutako elkartearen eraginez, Donostiako Martutenen zezenplaza biribil eta estalia eraikitzen hasi ziren[10]. Augusto Agirre arkitektoak egin zuen proiektua[11].

Bestetik Donostian 1.907. urtean Ramon Artola zenaren bertso batzuk argitaratu ziren. *Itsasoan zezenen korrida* du izena bertso–paperak, eta Donostian bizi zen bertso–jartzaileak argitaratu gabe zeukan. Hil ondoren argitaratu zioten beraz. Honela diote bertsook:

1) Urez nijoan nora ere bait
ongi ezdakit nik nora,
bañan badakit chartu zirala
itsasoa ta denbora;
gure onziya galtzen zebillen
ta zijoala ondora,
beste aundi bat arrimaturik
orduban gure ondora,
ango jendeak soka botata
ninduben igo ni gora.

2) Onzi salbatu gindubena gu
kabiraz etzan eskasa,
bere barrenan Santa Mariya
kabituko zan, eta lasa;
estal gaña zan chit maiz zezenak
jokatzen zituzten plaza,
eta orduban ere denboral
char ura zanean pasa,

egiten asi ziran korrida
edo zezenen jolasa.

3) *Ni anchen neguen pleituba dardar*
otzak garbituban iya,
eta zanean azaldu oroi
artetikan eguzkiya,
zinzillik jari ninduten legor
nedin koithadu buztiya,
eta neretzat zezen jolasa
etzan irten garestiya,
legortzen negoen lekutik nuben
ikusi festa guztiya.

4) *Zezenak zuben pikadorea*
artu ta bota urera,
zaldiyak eta biyak aidean
pasa zuten talankera;
segiran beste zaldi zar bati
ziozkan tripak atera,
ta geroago eskotillako
koskan trabaturik bera,
kanpan bueltako baten moduban
juan zan zulotikan beera.

5) *Eskotillari tapa jarrita*
irten zan beste zezena,
beltzak bakarrik banderillatu
eta il bear zutena
belaunikatu eta ziriyak
sartu zizkaten aurrena,
andik alchata zotz motzagoak
ipurditikan urrena,
gero tripatik eta nonaitik
zotzez bete zuten dena.

6) *Beretako bat arrapatuta*
traputurik zuben utzi,
zizkan begi bat atera eta
amaika kostilla autsi;
ta medikubak zuben denboran
ain puskatuba ikusi,
agindu zuben gaizki konpontzez
geldi etzedin itsusi,
putzura bota zitekiala
kostilla autsita guzi.

7) *Andikan laster zezena iltzen*
ezpada asi zanean,
gizarajoa etzan arkitu

askoz portuna obian;
arrapatuta zuben ogeita
lau bider bota aidian,
bañan ogeita bost garrenean
joantzan ainbeste bidian,
legoa batez aparte nuben
ikusi sartzen urian.

8) *Ordubanchen ni erori nitzan*
soka autsi ta goitikan,
bañan ez onzi arren gaiñetik
ezpada nere oitikan;
kolpe ark erne para ninduben
nekarren lo artatikan,
bañan buruban ere min nola
artu nuben go gotikan,
eraman eta min zan tokiya
lotu ziraten botikan. [53]

Bitoriano Iraola bertsolariak ere (Pasaian jaio eta Donostian bizi zenak), kontakizun polita argitaratu zuen 1.907. urtean *Baserritarra* aldizkarian, beti ere zezen–kontuak aipatuz. *Sagardotegiyan* izeneko ipuinean honela bait dio:

... zaldiyen aragiyari bildur geyago ziyon, zezen Salamanquino bati baña...
.. eraman dute sagardotegira kazuela aundi bat izurde (arrai onen aragiya da gorriya, zezen jokatuena bezela)...
... Au da aragi faltsifikatua... ¡Zer izan biar dik! suzko banderillen usaya emendik aitzen ziyuat... Egiya, Pipi, egiya, suzko banderillen tejua zeukak...[54]

Iruñean 1.907. urteko sanferminetan korridak lau egunetan izan ziren eta proba goiz batean, ohiturari jarraituz. Eduardo Mihura, Murube–ren alarguna, Jose Pereira Palha, Espoz y Mina–ko kontea eta Manuela Lizaso (Mata–ren alarguna) izan ziren zezenak bidali zituztenak. Lizaso tuterarrak probarakoak bidali zituen. Toreatzaileak Joaquin Navarro *Quinito*, Rafael Molina *Lagartijo chico*, Rafael Gonzalez *Machaquito*, Manuel Mejias Rapela *Bienvenida* eta Antonio Boto *Regaterin* izan ziren[17].

Uztailaren 8ko korridan Palha–ren zezenak *Quinito, Machaquito* eta *Regaterin*ek toreatu zituzten. Ikusleek beren eserlekuetan berebiziko festa preparatzen zuten. Beren blusa, txapel eta guzti kantuan eta dantzan aritzen ziren elkarri gerritik helduta. Hirugarren zezenean jendeak askaria jan zuen eta toreatzaileak lasaixeago aritu ziren. Askari haiek ere, gaurkoen antzera, ez ziren badaezpadakoak. Jendeak bapo egin zuenean, *Cordobán* eta *Cachirulo* pikatzaileei tomate, kazuela, etab. bota zizkieten[16].

Landetan 1.907. urtean, Barrere, Dubecq, Portalier, Campan eta Darracq ganaduzaleek beren toreatzaile–koadrilak erabili zituzten plazaz plaza, Fillang, Lalanne, Monacot, *Meunier* eta *Meunier II.a* taldeburu zirela[21].

———— o ———— o ————

1.908. urtean Bilbon zezenfestak martxoaren 20an hasi ziren. Victoriano Cortés–en lau

zezenko plazaratu zituzten Antonio Giraldez *Jaqueta* eta Jose Morales *Ostioncito* toreatzaile zirelarik. Zezenkoak txikiak izan ziren, eta *Ostioncito*k lehenengoari belarria moztu zion.

Apirilaren 10ean, Palha portugaldarraren sei zezen jokatuz lehen korrida eman zuten Vista Alegren. Rafael Gomez Ortega *Gallo*, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Jose Claro *Pepete* aritu ziren lanean. Bi zezenek, bigarrenak eta seigarrenak, zangartasuna erakutsi zuten. Korridan ez zen ezer berezirik gertatu, laugarren zezenak ezkutalekuan egindako matxura ezik. Izan ere goardia batzuk zeuden ezkutalekuan enpotratu eta barrukoak zapaldu zituen.

1.908. urteko apirilaren 20an Bueno–ren lau zezenko toreatzera Jose Muñagorri atxuriarra aurkeztu zen Vista Alegren. Aurrez sei aldiz suspenditua zuten jadanik nobillada hura euriagatik. Joana–ren semeak ordea, Muñagorrik alegia, lehenengoan eta hirugarrenean belarria lortu zuen.

Apirilaren 26an, Bilbon Felix Urkola ganaduzale bilbotarraren sei zezen jokatu ziren. Urkolaren zezenek lehen aldiz orduan zapaldu zuen Vista Alegreko hondarra. Rafael Gomez *Gallo*, *Bilboko kotxeritoa* eta Jose Claro *Pepete* ziren toreatzera agertuak. Roman Ibarretxe jaunak antolatu zuen korrida hura. Urkolaren zezenak ederrak eta suharrak izan ziren. *Arrecifero* izeneko laugarrenak zazpi pikalditan sei zaldi hil zituen. Urkola jaunari txaloak jo zizkioten, Kastor–ek bigarrenean belarria lortu zuen. *Pepete* ere lanean ongi aritu zen. *Gallito*k artista–kutsua erakutsi zuen banderilatan eta muletaz. Seigarren zezenean txistu eta oihuak entzun zituen lehendakariak pikalditarako saioa behar baino lehen amaitu erazi zuelako. Jose Martinez *Aventurero* pikatzailea seigarren zezen hark bota, zapaldu eta adarkatu egin zuen.

1.908. urteko maiatzaren 2an Otaolaurretxi–ren sei zezen jokatuz beste korrida bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Vicente Moreno eta Antonio Moreno *Moreno de Alcala* izan ziren ezpatariak. Toreatzaileak ez zuten ezer onik egin eta txistu ugari jo zieten ikusleek. Laugarrenak *Moreno de Alcala* adarkatu egin zuen, baina toreatzaileak plazan segitu zuen.

Biharamunean, maiatzaren 3an, Villagodio–ko markesaren zazpi zezen toreatzera Vicente Segura, *Moreno de Alcalá* eta Francisco Martin *Vazquez* aurkeztu ziren Vista Alegren. Zazpigarren zezena Serafin Bigiola *Torkito*k ongi hil zuen. *Moreno de Alcalá* toreatzen gogoz eta ederki hasi zen, baina bezperako adarkadagatik herren egiten zuenez gero, lehendakariak erretira zedila agindu zion. Vicente Segura–k beraz, lau zezen hil zituen. Dotore toreatu zuen Segura mexikarrak. *Vazquez* bere bigarrenean guztiz ongi aritu zen eta belarria eman zioten.

Maiatzaren 13an, zekorketa bat antolatu zuen Vista Alegren Ikasleen elkarteak. Manuel Santos–en lau zekor toreatu zituzten Ortiz, Cuadra, Sagaseta eta Adaro jaunek.

1.908. urteko maiatzaren 24ean Carreros–en lau zezenko korrituz nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Enrique Fernandez *Carbonero* eta Antolin Arenzana *Recajo*k lan egin zuten arratsalde hartan. *Minuto*k banderila pikatzaileak egindako zuloan sartuta, bigarren zezenkoa hil egin zen. Azken zezenkoari *Recajo*k ezpata sartzeko kolpea eman zuenean, jendea plazara jaitsi zen eta poliziek lan egin behar izan zuten haiek handik ateratzen.

Maiatzaren 28an Celso Pellón–en lau zezenko korritu zituzten Vista Alegren. Antonio Giraldez *Jaqueta* eta Antonio Ruiz *Reverte II.a* izan ziren ezpatariak. Pellón–en ganaduak suhar jokatu zuen. Bi toreatzaileak elkarren lehian aritu ziren kitetan. *Jaketa*k belarri bat lortu zuen. *Reverte II.a* berriz, bere lehenengoan ongi aritu zen eta bere bigarrenean ez.

1.908.eko ekainaren 7an eman zuten beste nobillada bat Bilboko Vista Alegren. Amador

Garcia–ren lau zezenko toreatzera Enrique Fernandez *Carbonero* eta Antonio Aguilar *Aguilarillo* ekarri zituzten. *Mundito* banderilariarentzat laguntza biltzearren antolatutako nobillada hura oso gaizki atera zitzaien. Zezenko maltzur eta arriskutsuak ziren haiek. *Carbonero* lehen zezenkoak harrapatu zuen; bitan gainera. Erizaindegira pasatu zen. *Morita*k Tancredo–ren numeroa egin zuen, baina zezenkoak (bigarrengoak) izterrean adarra sartu zion, oso larriki zaurituz. *Aguilarillo*k bigarren zezenkoa ongi hil zuen, baina hirugarrena hiltzerakoan zauriturik suertatu zen. *Carbonero* oso larriki zauriturik zegoen eta *Aguilarillo* nahiz *Rubito* ere bai. Jose Ortiz *Estanquerito* toreatzaile bilbotarrak tresnak hartu zituen orduan eta lehendakariak hiru abisuak bidali zizkion.

Ekainaren 24ean Tabernero–ren sei zezen jokatuz korrida eman zuten Vista Alegren. Julio Gomez *Relampaguito* eta Francisco Martin *Vazquez* etorri ziren, beren koadrilen buru. *Relampagito*k bostgarren zezena hil zuen ondo. *Vazquez*ek bigarrenari faena ederra osatu zion. Pedro Navarrete *Cantaritos* pikatzailea ere luzitu zen.

1.908. urteko ekainaren 28an Esteban Hernandez–en lau zezenko jokatuz beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren. Jose Campos *Campitos* eta Angel Rubio *Angelillo* toreatzaileak aritu ziren zezenko on haiekin lanean. *Campitos* ez zen luzitu arratsalde osoan. *Angelillo*k ongi egin zituen gauzak bigarrenean, baina ezpata astintzen ez zuen asmatu eta hiru mezuak bidali zizkioten. Laugarrenean ordea, dena ederki burutu zuelako belarria eman zitoen.

Ekainaren 29an, biharamunean, Lizaso–ren lau zekor toreatu zituzten Bilboko Vista Alegren *Txone, Veneno, Penca* eta *Cañone*k. Donato–ren tertuliak antolatutako zekorketa izan zen hura.

1.908.eko uztailaren 5ean beste zekorketa bat izan zen Vista Alegren. Trenbideko enplegatuek antolatu zuten Tomas Mazzantini–ren gidaritzapean. Peñalver–en bost zekor hiltzera Mula, Sacristan, Ballina, Zarate eta Sanchez jaunak plazaratu ziren. Alejandro Saez *Ale* ziklista gisa zegoen han (ziklistak ere izan bait ziren plazan) eta baimena lortu ondoren banderilak ederki sartu zituen.

Abuztuko lehen korrida, hilaren 23an izan zen. Ricardo Torres *Bombita* Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitia ziren toreatzekoak, baina *Bombita*k, zauriturik zegoelako, Antonio Moreno *Lagartijillo* bidali zuen bere ordez. *Lagartijillo* zaharrak ahaleginak jo zituen, baina ikusleak berotzerik ez zuen lortu. *Machaquito* bostgarrenean arrakastatsu aritu zen. Banderilak ederki sartu zituen, eta gero faenaren amaieran ezpata bikain sartu zuelako belarria eman zioten. *Bilboko kotxeritoa*k bere bi zezenetan beronika dotoreak osatu zituen. Bere lehenengoan belarria lortu zuen. Bigarren zezenari Antonio Luque *Gordo* pikatzaileak larrua burutik buztaneraino ebaki zion. Lehendakariak zezena toriletara itzultzea agindu zuen. Inork ez zion obeditu ordea eta zezena toreatu eta hil egin zuten plazan.

1.908.eko abuztuaren 24eko korridan Veragua–ren sei zezen jokatu zituzten Vista Alegren. Rafael Gonzalez *Machaquito*, Kastor Jauregibeitia *Kotxeritoa* eta Francisco Martin *Vazquez*ek lan egin zuten haiekin. Veragua–ko dukearen zezenak ahulak eta bigunak suertatu zitzaizkien. *Vazquez*ek hirugarrenari sartutako ezpatakada eta Fabian Bilbao pikatzailearen lana bakarrik dira korrida hartako gauzarik azpimarragarrienak.

Abuztuaren 25eko korridan, bezperako ezpatari berberak agertu ziren Vista Alegren Mihuraren sei zezen hiltzera. Zezen bikainak eta suharrak ziren haiek; denboraldiko onenak, dudarik gabe. Lehenengoak barrera saltatu eta Kastor Jauregibeitia kolpatu zuen. *Machaquito* bere lehenengoan ongi aritu zen. Laugarrenean ez hain ongi. *Bilboko kotxerioa*k kapote eta muletaz lana ederki egin zuen, baina ezpataz ez. *Vazquez*i ez zitzaizkion gauzak ongi atera, baina hirugarrena ezpataz ongi hil zuen.

Biharamunean, 1.908.eko abuztuaren 26an, zortzi zezen plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren; Parladé-ren zazpi eta Mihuraren bat. Haiek hiltzen Antonio Moreno *Lagartijillo*, Rafael Gonzalez *Machaquito*, *Bilboko kotxeritoa* eta Francisco Martin *Vazquez* saiatu ziren. Lehenbizi Mihuraren zezen maltzur eta arriskutsua plazaratu zuten. *Lagartijillo*, hiltzera zihoanean, harrapatu egin zuen zezenak eta *Machaquito*k bukatu zuen lana. Beste zazpi zezenak, Parladé-renak, suharrak izan ziren; bostgarrena eta zazpigarrena batez ere. Parladé-renak, suharrak izan ziren; bostgarrena eta zazpigarrena batez ere. Parladé-ren lehenengoa ederki toreatu zuen *Machaquito*k. Ezpata ere erdiraino ederki sartu zion, baina izterrean adarkatu zuen zezenak. Erizaindegira eraman zioten belarria. Kastor Jauregibeitiak lau zezen hil zituen; hiru segidan gainera. Hirugarren eta bostgarrenean belarri bana eman zioten. Seigarren eta zazpigarrenean ere txaloak jo zizkioten. *Vazquez* bere lehenengoan ausart ibili zen, eta azkenekoa ere azkar hil zuen.

Irailaren 7an Bilboko Vista Alegren zekorketa eman zuten Ondarroa eta Bermeon galernagatik izandako kaltetuei laguntzearren. Urkolaren lau zekor toreatzera *Tertulia Taurina*ko partaide batzuk plazaratu ziren; Etxebarria, Ventura Bagües *Don Ventura*, Iraola eta Rodriguez jaunak. Kastor Jauregibeitiak zuzendu zituen plazako lanak[1]. Arrantzale kaltetuei laguntzeko ekintzen berri Zipriano Lertxundi bertso-jartzaileak ederki eman zuen orduan honako bertso honen bidez:

Modu orretan izandu ziran
suskriziyuak irikitzen,
estudiantinak kalietan da
aientzako diru biltzen;
Bilbao'n ere partidua ta
nobillada da jokatzen,
Donostia'ko soziedadiak
igual ziraden portatzen,
saiatu ziran famili haiek
al dan ondona anparatzen.[55]

1.908. urteko irailaren 8an, Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k alternatiba hartu zuen Bilboko Vista Alegren Kastor Jauregibeitia auzokidearen eskutik. Conradi-ren sei zezen jokatu ziren plaza jendez gainezka zegoen korrida hartan. Lehenengo, bostgarren eta seigarrena izan ziren onenak.

Bi toreatzaile bilbotarrak kapotez asko luzitu ziren, eta bostgarrena aldiberean toreatu zuten. Banderilak sartzen ere biak aritu ziren. Rufinok alternatibako zezenean etsaiaren belarria paseatu zuen txalo artean. Beste bietan ere ausart toreatu ondoren txalo ugari jo zioten. Kastor Jauregibeitia hirugarrenean ongi aritu zen. Belarria eman zioten. Baina bostgarrenari egindako faena izan zen onena. Ezpatakada ere ez zen badaezpadakoa izan. Belarria irabazi zuen[1]. Begoñako jende asko joan zen arratsalde hartan plazara, txistulari eta guzti Bilbo zeharkatuz. Korridan askari ederra jan zuten, eta gero, auzoko bi toreatzaileak bizkar gainean atera zituzten[23].

Irailaren 13an Concha y Sierra-ren sei zezen jokatuta beste korrida bat ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Antonio Fuentes eta Rafael Gomez *Gallo* izan ziren ezpatariak. Hogeitemeretzi urteko Fuentes toreatzaileak Bilbon azken arratsaldea izan zuen hura. Lehenengoan eta hirugarrenean artez beteriko faenak osatu zituen, eta bostgarrenari banderilak erabat ongi sartu zizkion. Rafael *Gallo*k denetik izan zuen. Lantze dotoreak kapotez, pase antologikoak muletaz etab. Baina ezpataz seigarrenean asmatu ezinda abisu bat entzun zuen. Felipe Salsoso plazatik erretirarazi egin zuten

gaizki pikatzeagatik.

1.908. urteko irailaren 27an Juan Carreros–en lau zezenko korritu ziren Vista Alegren, Fernando Ugarte *Chico del Imparcial* eta Alejandro Saez *Ale* toreatzaile zirelarik. Bere bigarrena ondo hiltzeagatik, *Chico del Imparcial*ek belarria lortu zuen. *Ale*ri ere belarri bat eman zioten.

Urriaren 4ean, Jose Becerra–ren lau zezenko jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Mariano Merino *Montes II.a* eta Joan Jauregi *Tintorero* toreatzaile gipuzkoarra aritu ziren lanean arratsalde hartan. Nobillada aspergarria izan zen. Bigarren zezenkoak ez zuen ikusten, eta gainera suzko banderilak ipini zizkioten. Fabian Bilbaok laugarrena ongi pikatu zuen.

Urriaren 11ko nobilladan, Pascual Gonzalez *Almanseño* eta Enrique Fernandez *Carbonero* aritu ziren Vista Alegren Peñon–en bi zezenko eta Muriel–en beste bi toreatzen. Hirugarren zezenkoak herren egiten zuen eta plazan bertan sastakatu beharra egon zen. Gainerakoan ere ezer onik ez zuten ikusi nobillada hartan.

1.908. urteko urriaren 18an Carreros–en lau zezenko korrituz beste nobillada bat ospatu zen Bilbon. *Paco* eta *Fabian*ek ahaleginak egin zituzten. *Paco*k nola edo hala hil zituen bere bi zezenkoak, eta *Fabian*ek bere lehenengoan belarria lortu zuen.

Azaroaren 1ean urte hartako azken nobillada ospatu zen Vista Alegren Carreros–en lau zezenko jokatuz. Lau zezenko–hiltzaile elkarren lehian aritu ziren paseorako kapote bat irabaztearren. Joan Jauregi *Tintorero*, Eduardo Jauregibeitia *Kotxerito txikia*, Bernardo Ocejo *Ocejito* eta Jorge Bijuesca *Miranditok* parte hartu zuten. Eduardo Jauregibeitiari belarri bat eman zioten. *Mirandito* bere zezenkoak harrapatu egin zuen. *Tintorerok* ere belarria irabazi zuen, eta berari eman zioten kapotea, nahiz eta beste toreatzaileak konforme egon ez.

Azaroaren 22an, ikasle batzuek zekorketa antolatu zuten Vista Alegren, Errukietxerako dirua biltzearren. Carreros–en lau zekor Laduvay, Garcia, Guerra eta Gonzalez–ek hil zituzten. Eguraldi txarra egin zuen eta jende gutxi joan zen[1].

Bilbon urte hartan *El Toreo del Norte* izeneko aldizkaria argitaratu zuten, eta zezenetako kritikalari desberdinak ari ziren lanean bertako egunkarietan; Jose Canosa, Salvador Hueda *Cruz* eta Felix Zabaleta *K. Pita* adibidez[24].

Toreatzailetan, Kastor Jauregibeitia zen bizkaitarren buru. Fabian Bilbao pikatzailea urte hartan sartu zen Kastor–en koadrilara. *Bilboko kotxeritoa* ez zen urte hartan Madrileko enpresarekin konpondu, baina hala eta guztiz ere 34 korridatan parte hartu zuen. Nortasun handikoa ez bazen ere, Kastor–ek toreatzeko ahalmen handia zuen[4]. Lehen mailako zezen–hiltzaile famatu izatera ez zen iritsi, baina saiatuz eta toreatzeko jakinduria eta baliabideak bereganatuz, inork baino gehiago toreatzen zuen. Toreatzen zuenean gainera, oso gutxitan huts eginda geldituko zen[45].

Kastor Jauregibeitia–k 1.908. urtean, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*rekin batera toreatu zuen Toreatzaileen Montepio–rako lehen korridan. Bartzelonan ere toreatzen izan zen Erret korridan. Urte hartan 82 zezen hil zituen Peru–ra joan baino lehen. Han, beste zazpi korridatan 21 zezen hil zituen[5].

Rufino San Bizente, irailaren 8an jadanik alternatiba hartua zen urte hartan, bere herriko Kastor–ek *Lagunito* zezena hiltzeko tresnak utzi zizkionean. Aurrez ordea, Donostian toreatua zen maiatzaren 31n, Antonio Lobo eta Juan Cecilio *Puntere*tekin batera, Olea–ren zezenkoak hilez[4].

Rufino San Bizente–k berez ez zuen 1.908. urtean alternatiba artean hartu nahi, ofizioa hobeto ikasi arte. Villagodio–ko markesaren eraginez hartu zuen, hark horren inguruan korrida–pare bat antolatu nahi zuelako[3]. Gero Mexiko–ra joan zen eta han hamalau korridatan parte hartu zuen berriz itzuli zen arte[5]. Mexikotik berriz, 1.908. urtean Frantzisko Sarasua *Txarol* itzuli egin zen Bilbora[2].

Fama handia hartzen ari zen beste bat, Serafin Bigiola *Torkito* toreatzaile bizkaitarra dugu. 1.908. urtean hamahiru nobilladatan toreatu zuen, udazkenean Fernando Ugarte *Chico del Imparcial*ekin batera Mexikorako bidea hartu baino lehen[4].

Antolin Arenzana *Recajo* bilbotarra Madrilen aurkeztu zen lehen aldiz maiatzaren 31ko nobilladan. Surga eta Gregorio Campos–en ganadua hilez, Jose Muñagorri bilbotarra larriki zauritu zen Bartzelonan maiatzaren 24eko nobilladan. Urte hartan hamar nobilladatan toreatu zuen[4] eta urriaren 25ean Felix Gomez–en zezenak toreatuz alternatiba hartu zuen Juan Sal *Saleri*ren eskutik. Berehala uko egin zion ordea doktoregoari eta *Kotxerito*, Rufino San Bizente eta abarrekin banderilari–lanetan aritu zen harez gero[5].

Eloy Perez bilbotarra ere 1.908. urtean (edo hurrengoan) hasi zen toreatzen *Kotxerito II.a* izenordez, baina laster utzi zion lanbide hari. Joan Markiaran Beobide ere 1.908. urteko maiatzaren 14ean jaio zen Sestaon. Diego Markiaran *Fortuna* osaba zuen, eta *Fortuna chico* izenordeaz ezagutzen zuten, gero zezenkoak hiltzen hasi zenean[4].

Tolosan 1.908.eko San Joan egunez Rafael Gonzalez *Machaquito* ikusteko aukera izan zuten. Aurrez zauriturik suertatu zelako osasun eta sasoi betean ez zetorren, baina asko saiatu zen eta jendea pozik utzi zuen. Belarri bat eman zioten. Azkeneko zezena, lehendakariaren baimenaz *Chicorro*k hil zuen, *Machaquito*k ezin zuelako[11]. Bestetik, urte hartako ihauterietan hasi ziren zezenko bolaztatuak zezenplazan korritzen Tolosan[47].

Azpeitian 1.908. urtean sansebastian eta ihauteritako zezenak frontoi inguruan Santiago kalean jokatzen hasi ziren. Ekainaren 10ean berriz, Udalak zezenplazako Luis Ezeiza enpresariaren saninaziotarako programa onartu zuen[14].

Donostian 1.908. urtean zezenplaza txiki eta estali berria inauguratu zen Martutene auzoan. Beirazko estalkia zuen eta han zezenfestak ematen zirenean ez zegoen euri–beldurrik. Beirazko estalkia desplazatu egiten zen eguraldi txarra zegoenean. Berlin–eko orkesta filarmonikoak maiatzaren 13an kontzertua eman zuen, zuzendari Richard Strauss berbera zelarik. Maiatzaren 17an Donostiako Orfeoiak Esnaola–ren gidaritzapean beste saio bat eman ondoren, ekainaren 7an lehen nobillada jokatu zen plaza biribil hartan. Manuel Santos–en lau zezenko handi plazaratu zituzten. Lehenbiziko zezenkoa Basilio Barajas–ek zaldiz burtzikatu ondoren Eduardo Jauregibeitia *Kotxerito txikia*k nola edo hala hil zuen. Gero Serafin Bigiola *Torkito*k beste hiru zezenko toreatu zituen. Bere lehenengoan belarria eman zioten. Hirugarren zezenkoa toreatzen ari zela, bi espontaneo agertu ziren plazan eta gero beste bat. Istilu eta saltsa handiak sortu zituzten[11]. Zenbaitek, plaza Peribañez eta Rodarte toreatzaileek estreinatu zutela dio[10].

1.908. urteko ekainaren 14ean bigarren nobillada eman zen Martuteneko plaza estalian. Manuel Santos–en zezenkoak toreatzera Serafin Bigiola *Torkito* eraman zuten berriro ere. Lehenengoan zezenak harrapatu egin zuen, eta eskerrak Francisco Andujar *Ciervana* ordezko ezpatariak arriskutik atera zuenari. Hirugarrenean ere airean ibili zen *Torkito*. Salvador San Jose donostiarra *Torkito*ren koadrilan atera zen, baina ezer onik egiterik ez zuen lortu.

Ekainaren 28an zekorketa komiko batean Bernardo Ocejo *Ocejito* bere koadrilarekin lanean aritu zen.

1.908. urteko uztailaren 13an ikuskizun berezia antolatu zuten Martuteneko plaza berrian. *Barcelona* izeneko bat zezenko baten gainean ibili eta lurrera erori zen. Gero Antonio Guillen–ek Tancredo–rena egin zuen. Ondoren zezenko batzuk toreatu zituzten[11].

Batzuek diotenez, Alejandro Saez *Ale* bilbotarrak 1.908. urtean jantzi zuen lehen aldiz traje distiratsua, Martuteneko plazan Carreros–en zezenko adarmotz bat hiltzeko[4,5].

Udako korridak, ohi bezala eman ziren Donostian Txofre–ko plazan. Besteak beste Jose Claro *Pepete* sevillarrak toreatu zuen. Lana ongi egin zuelako, bizkar gainean atera zuten plazatik[4].

1.908. urtearen bukaeran, abenduaren 5ean, Donostian Jose Arana hil zen; urte askoan Atotxa–ko zezenplazako enpresari izana. Garibai kalean zuen etxean hil zen Eskoriatzan jaiotako gizon famatu hura. Donostiako *Semana Grande* berak asmatu zuen. Korridatarako kartel iragarle dotore eta handiak ateratzea ere berari zor zaio. 1.902. urtean Atotxa–ko plaza saldu zuenean, Madrileko Teatro Real–a hartu zuen opera–saioak eskaintzeko. Inork uste baino hobeto atera zitzaizkion gauzak Madrilen eta guztiek diru–galerak izango zituela uste zutenean irabazi ederren jabe egin zen[56].

Jose Arana–k Donostian Atotxa–ko zezenplazaz gain Beti–jai frontoi estalia ere eraiki zuen. Teatro–zirku bat ere bai Zurriola inguruan[11].

Jose Arana–ren gorpua Donostiatik Eskoriatzara eraman zuten; bere jaioterrira. Hango hilerrian hobiratua dago. Testamentuan bere ondasunak Eskoriatzako herriari utzi zizkion, eskolak, ospitalea eta ur–horniketarako obrak egin zitzaten[55]. Jose Aranak bere jaiotetxea ospitaleko kaperauarentzat utzi zuen, bera jaio zen gelari bere hartan eusteko baldintzarekin. Eskoriatzako hilerrian duen panteoi ederra, Mariano Benlliure eskultoreak egina da[57].

Donostian bestetik, zezenak oinarri harturik *Betikuak* izeneko ipuin irrigarria argitaratu zuen Bitoriano Iraola idazleak *Baserritarra* aldizkarian 1.908. urtean[54].

Iruñean 1.908. urtean zezenzaleen lehen elkartea eratu omen zen. Kaldereri kaleko 34ean omen zuen egoitza[58]. Sanferminetarako, dena den, korridak urtero bezala antolatu zituzten. Uztailaren 12an emandako korrida ordea, berezia izan zen; Pablo Sarasate musikari famatuari azken aldiz orduan egin bait zioten omenaldia iruindarrek. Pablo Sarasate agintariekin batera lehendakaritzako palkoan egon zen korrida hartan. Zalduendo–ren lau zezen eta Lizaso–ren hiru toreatu zituzten Rafael Molina *Lagartijo chico* eta Manuel Rodriguez *Manoletek* (Linares–en hildakoaren aitak). *Salamero* izeneko lehen zezenaren brindisa *Lagartijo chicok* Sarasate–ri egin zion. Txlaoak jo zizkioten gero toreatzaileari. Laugarren zezena toreatzen ari zirela pankarta batean zazpigarren zezena ere joka zezatela eskatzen zen. Zazpigarrenak, Zalduendo–ren *Tempranillo* izenekoak, bide eman zion *Manoleteri* ekitaldi guztietan luzitzeko. Brindisa Sarasateri egin ondoren, faena ederra burutu zuen ezpatariak, eta ondo hil zuenez gero, belarria eman zioten; sanferminetako bakarra. Sarasatek eraztun baliotsu bat eman zion *Manoleteri*[59].

1.908. urteko sanferminetan, uztailaren 8ko korridan Espoz y Mina–ko kontearen zezenak jokatu zituzten[60]. Baita Palha, Guadalest–eko markesa eta Joakin Murube–renak ere, Lizaso–renez gain. Toreatzaileak *Lagartijo chico*, Rafael Gonzalez *Machaquito*, Vicente Pastor eta aipatua

dugun *Manolete*[17].



13.5. irudia. 1.908. urtean Iruñean korritutako zezenak; Espoz y Mina–renak.

Esan beharra dago Espoz y Mina–ko konteak bere zezenak (lehen Karrikiri–renak izanak) 1.908. urteko apirilaren 30ean Salamanca–ko Martin de los Rios–en bizi zen Berbane Cobaleda–ri saldu zizkiola. Abuztuan abiatu ziren zezen haiek Tuteratik Salamancara (Campocerrado–ra) oinez. Urte batzuk geroago Juan Cobaleda–k (Bernabe–ren semeak) beste kasta batzuetako zezenekin nahastu zituen Espoz y Mina–ko kontearen behiak, eta azkenean nafar–kasta osoa desagertu zen, gustoko zezenak lortu ez zirelako[31]. Espoz y Mina–ko konteak ganadutegiaren zati bat German Gamazo–ri ere saldu omen zion[19].

Tuteran nafar–kastako beste ganadutegi bat, Manuela Lizaso andereak zeukan, eta 1.908. urteko abuztuan Julio Laffitte ganaduzale andalusiarrari saldu zion. Hurrengo urtearen hasieran eraman zituzten zezenak Sevillako larretara[48].

Teodoro del Valle jaunak ere bazuen Karrikiriren odola (beste batzuekin nahastua) zuen ganadutegi bat, eta 1.908. urtean Dionisio Pelaez–ek erosi zion[13].

1.908. urteko berriei amaiera ematearren, Luis Mazzantini aipatuko dugu. Toreatze–lanetatik erretiratua zegoen, baina zezen–kontuen albisteak bazituen. Francisco Perez *Naverito* toreatzaileari ezkerreko hanka moztu ziotela jakin zuen behintzat, eta gero hanka ortopedikoa berak erregalatu zion[22].

Bestetik, 1.908. urteko ekainaren 2an Juan de la Cierva Gobernazio–ministrariak dekretua argitaratu zuen, emakumeei zezenak toreatzea galeraziz. Maria Salomé *la Reverte* zebilen orduan plazaz plaza, baina gero jakin zenez gizonezkoa zen; Agustin Rodriguez izenekoa[13]. Sara Berasategi–ri ordea, kalte egin zion dekretu hark. 1.908. urtean hogeiren bat urte zituen Orozko–ko bizkaitar ilegorri hark, eta nola edo hala toreatzaile izan nahi zuen. *Chiquita de Orozco* izena erabiltzen zuen berak[61].

Landetan, 1.908. urtean Barrere, Dubecq, Portalier, Campan eta Darracq ganaduzaleekin toreatzaileen taldeburu ibilitakoak Fillang, Lalanne, Despouys, *Meunier* eta Oscar izan ziren hurrenez hurren[21].

———— o ———— o ————

1.909. urtean martxoaren 19an hasi ziren nobilladak Bilboko Vista Alegren. Vicente Martinez–en lau zezenko korritu zituzten, ezpatari Emilio Soler *Canario* eta Jose Muñagorri zirela. Muñagorrik *Canario*k baino hobeto egin zuen lan.

Bigarren nobillada, bi egun geroago eman zuten Vista Alegren; martxoaren 21ean. Jose Muñagorri eta Jose Alvarez *Tabernerito* aritu ziren Vicente Martinez–en hiru zezenko eta Amador Garcia–ren bat toreatzen. *Tabernerito*k bigarren zezenaren belarria lortu zuen, eta Muñagorrik hirugarrenarena.

1.909. urteko martxoaren 28an ospatu zen Bilboko Vista Alegreko hirugarren nobillada, Muriel–en lau zezenko jokatuz. Manuel Rodriguez *Mojino* eta Antonio Mata *Copao*k hil zituzten. Ganadu koldarra suertatu zen eta ezer berezirik ez zuten egin toreatzaileek.

Apirilaren 4ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren Muriel–en bi zezenko eta Bizkaiko bi zekor jokatuz. Jose Alvarez *Tabernerito*, Eduardo Jauregibeitia *Kotxerito txikia* eta *Guerrerito de Madrid* aritu ziren lanean. Oso nobillada txarra izan zen, eta azken zekorrean jendea hondarrera jaitsi eta labainadaka hil zuen. Berebiziko istiluak izan ziren plazan.

1.909. urteko apirilaren 11n Palha–ren sei zezenko jokatu zituzten Vista Alegren, Agustin Dauder, Antonio Pazos eta Juan Cecilio *Puntere*tek parte hartutako nobilladan. Palha–ren zezenkoak oso koldarrak izan ziren, eta Pazos–ek bigarrenekoan lortutako belarriaz aparte ez zen ezer berezirik gertatu.

Hurrengo nobillada apirilaren 18an eman zuten Bilboko Vista Alegren. Patricio Sanz–en lau zezenko Antonio Pazos eta Juan Cecilio *Puntere*tek hil zituzten. Lehen zezenkoari bolbora erre zioten. Ezpatariak ongi portatu ziren arratsalde hartan.

1.909. urtearen apirileko 25ean, Serafin Bigiola *Torkito* eta Fernando Ugarte *Chico del Imparcial*ek parte hartu zuten Vista Alegreko nobilladan Sanchez Carreros–en lau zezenko toreatuz. Ugarte–k bere lehenengoaren belarria moztu zuen eta *Torkito* zauriturik suertatu zen hirugarren zezenkoa hiltzerakoan. Manuel Morena bilbotar banderilaria orduantxe aurkeztu zen lehen aldiz Bilboko Vista Alegren.

Maiatzaren 2an eman zuten Bilbon 1.909. urteko lehen korrida, Tabemeroren sei zezen jokatuz. Ricardo Torres *Bombita* eta Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete* kontratatu zituzten haiek hiltzeko. Bigarren zezena toriletara itzuli zuten akastuna zelako. Seigarrenak zazpi pikalditan lau zaldi hil zituen. *Bombita* bostgarren zezenean luzitu zen. Ederki banderilaztatu eta faena burutu ondoren ezpata bikain sartu zion. Belarria eman zioten. *Manolete* gaizki aritu zen arratsalde hartan.

Maiatzaren 4ean, ikasle–elkarteak zekorketa eman zuen Vista Alegren. Villagodio–ko markesaren lau zezenko toreatzera Prado, Castilla, Errazkin eta Gorbeña jaunak agertu ziren hondarrera.

1.909.eko maiatzaren 5ean urteko bigarren korrida eman zen Bilboko Vista Alegren Pelaez–en sei zezen plazaratuz. Kastor Jauregibeitia eta Rufino San Bizente toreatzaileak (biak ere begoñatarrak) aritu ziren beren herritarren aurrean lanean. Plaza jendez bete zen. Pelaez–en zezenak, txiki samarrak, baina oso onak. Kastor *Kotxeritoa* oso txalotua izan zen hirugarrenean eta bere beste bi zezenetan belarria lortu zuen. *Begoñako txikia* inoiz baino hobeto aritu zen arratsalde hartan. Bere hiru zezenetan belarria lortu zuen eta bizkar gainean atera zuten plazatik. Bostgarren zezenari bi ezpatariek sartu zizkioten banderilak. Martin Lopez jaunak antolatua izan zen korrida hura.

Maiatzaren 16an beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren Sanz–en bi zezenko eta Carreros–en beste bi jokatuz. Pacomio Peribañez eta Manuel Garcia Simera *Espartero II.a* toreatzaileek hil zituzten. *Espartero II.*aren ausardia eta plazara hiru espontaneok salto egin zutela bakarrik azpimarra daitezke.

Maiatzaren 20an, Carreros–en sei zezen Carlos Lombardini eta Pedro Lopez toreatzaile mexikarrek hil zituzten Bilboko Vista Alegren. Bi ezpatariak ongi aritu ziren, baina koadrilakoak hobeto. Azken zezenkoak Jose Martinez *Aventurero* kolpatu egin zuen.

Hiru egun geroago, 1.909. urteko maiatzaren 23an, Bueno–ren sei zezenko hil zituzten Vista Alegren toreatzaile mexikar berberek; Carlos Lombardini eta Pedro Lopez–ek alegia. Hirugarren, laugarren eta bostgarren zezenkoei suzko banderilak ipini zizkieten. Ezpatariak ez ziren ondo aritu, nahiz eta koadrilak bai. Lombardini–ri, hirugarren zezenkoa toriletara itzuli zioten hil ezinik denbora pasa zitzaiolako.

Maiatzaren 30ean eman zen Vista Alegren hurrengo nobillada. Antonio Pazos eta Juan Cecilio *Puntereti* Tabernero–ren sei zezenko bota zizkieten. Juan Cecilio *Puntereti*ek bakarrik egin zuen zerbait laugarren zezenkoan. Belarria eman zioten.

1.909. urteko ekainaren 13an, Bilboko Vista Alegren korrida eman zen Vicente Martinez–en sei zezen jokatuz. Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Francisco Martin *Vazquez* ezpatariek lan egin zuten. Laugarren zezenak biak harrapatu zituen. Erizaindegitik irtenda, Kastor–ek bostgarrenari faena ederra osatu zion, eta ezpataz asmatu zuelako belarria eman zioten.

Astebete geroago, ekainaren 20an, Vista Alegren emandako korridan, Victoriano Cortés–en sei zezen jokatu zituzten. Antonio Guerrero *Guerrerito* eta Julio Gomez *Relampaguito* etorri ziren haiek toreatzera, Luziano Bilbao *Lunares* ordezko ezpatari zutela. Cortes–en abereak koldarrak, maltzurrak eta arriskutsuak suertatu zitzaizkien. Hala eta guztiz ere *Relamapaguito*k arrakasta lortu zuen. Hirugarren zezenak (oso arriskutsua zen) Leon Ortiz *Estanquerito* banderilari bilbotarra aurpegi eta lepoan adarkatu zuen. Oso gaizki eraman zuten Ospitalera, baina zorionez gero sendatu egin zen. *Lunares*ek hil zuen azken zezena; ongi gainera.

1.909. urteko uztailaren 25ean Felix Gomez–en sei zezen jokatuta korrida eman zuen Bizkaiko diputazioak Prussia–ko printzearen omenez; Bilbon bait zegoen orduan. Tomas Alarcón *Mazzantinito* eta Rufino San Bizente *Begoñako txikia* aritu ziren lanean, baina ezer nabarmenik ez zen gertatu. Korrida aspergarria ikustera jokatu zitzaien arratsalde hartan.

1.909. urteko abuztuko korridetarako Jose Arrue pintatzaile bilbotarrak egindako kartel iragarle berezi bat argitaratu zuten. Bertan ganaduzale eta toreatzaileen izenez gain, Bilboko pertsonaia ezagun batzuk ikus zitezkeen; Kastor Jauregibeitia, Adonis Pocheville, *Talento*, Bitor Arana, Felix Urkola, etab.

Abuztuaren 15ean, Vista Alegreko plazan lehen aldiz korridetarako zezenak kaiolatatik hondarrera atera zituzten jendeak ikus zitzan. Martin Lopez enpresariaren lana izan zen hura.

Abuztuaren 22an izan zen hain zuzen lehen korrida, Felix Urkola–ren sei zezen jokatuz. Ricardo Torres *Bombita* eta *Bilboko kotxeritoa* ez ziren gehiegi luzitu zezen eder eta suhar haiekin. Rafael Gonzalez *Machaquito* ere toreatzekoa zen, baina zauriturik zegoelako ez zuen parte hartu. *Bombita*ri zezen batek galtzak urratu zizkion. Kastor Jauregibeitia berriz, bigarrenean iritsi zen itxurazko mailara.

Biharamuneko korridan, abuzutaren 23an, Muruberen bost zezen eta Mihuraren bat plazaratu ziren Bilbon, bezperako bi ezpatariek parte hartu zutelarik. Muruberen zezenek berebiziko suhartasuna erakutsi zuten; hirugarrenak batez ere. Felipe Antxustegi *el Largo* bilbotarrak emandako pikaldi batean hanka hautsi zitzaion, baina hala ere zezenak zalditarako joera garbi erakutsi zuen. *Bombita*ri bostgarrenaren belarria eman zioten. Kastor Jauregibeitia bigarren zezenak hankapean erabili zuen, baina zorionez onik atera zen.

1.909. urteko abuztuaren 24eko korridan, Mihuraren sei zezen toreatu zituzten *Bombita* eta *Kotxeritoa*k Bilboko Vista Alegren. Mihuraren ganadua gaizki portatu zen zalditan. Bigarrenari bolbora erre zioten. Ricardo Torres–ek hirugarrenean ezpata ederki erabili zuen. Baita Kastor–ek ere laugarrenean, nahiz eta zezenaren adarretik zintzilik egon. Ez zen zauritu ordea.

Abuztuaren 25ean Bilboko plazara Parladé–ren zazpi zezen atera zituzten. Ricardo Torres *Bombita, Bilboko kotxeritoa* eta *Begoñako txikia* aurkeztu ziren haiek hiltzera. *Bombita*k lehen zezenean *Begoñako txikia*ri (Rufino San Bizenteri) alternatiba sendotu zion. Ganadua ongi portatu zen. Kastor Jauregibeitiak bostgarrenari banderilak sartu ondoren faena bikaina burutu zion. Zazpigarren zezena hiltzekoa Mauro lekeitiarra zen, baina hiru abisuak entzun zituen. Joaldunekin batera jendea ere hondarrera atera zen, eta norbaitek labainadaz hil zuen zezena.

1.909.eko irailaren 5ean nobillada ospatu zen Vista Alegren, Flores–en lau zezenko korrituz. Padilla eta Eduardo Serrano *Gordet* asko saiatu ziren haiek toreatzen. Lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten.

Irailaren 19an Riff–eko gerran kaltetutakoei laguntzearren korrida antolatu zen Vista Alegren, Surga–ren bost zezen eta Aguado–ren bat jokatuz.

Joaquin Navarro *Quinito*, Antonio Guerrero *Guerrerito* eta Manuel Torres *BombitaIII*.ak parte hartu zuten. Aguado–ren zezenak idia zirudien eta sutu egin zuten. Beste zezenak ongi portatu ziren. *Quinito*k laugarrenari belarria moztu zion.

1.909.urteko irailaren 26an, nobillada eman zuten Vista Alegren Terrones–en lau zezenko jokatuz. Juan Dominguez *Pulguita chico* eta Joan Jauregi *Tintorero* aritu ziren haiek toreatzen. *Tintorero* gipuzkoarra oso gaizki egon zen arratsalde hartan. Den den ez Dominguez–ek eta ez zezenkoek egin zuten ezer azpimarragarririk.

Urriaren 3an, Carreros–en lau zezenko korrituz eman zen beste nobillada bat Bilboko Vista Alegren. Jose Alvarez *Tabernerito* eta Alejandro Saez *Alek* toreatu zituzten. *Tabernerito*k ausart jokatu zuen.

1.909. urteko azken nobillada urriaren 10ean izan zen Bilboko Vista Alegren. Juan Dominguez *Pulguita chico* eta *Caramba* ezpatariek Amador Garcia–ren lau zezenko toreatu

zituzten. Bi toreatzaileak asko saiatu ziren.

Urriaren 17an beste zekorketa bat izan zen Vista Alegren, han ezer onik atera ez bazen ere. Jendearen portaera oso txarra izan zen. Ia eserlekuak erre ere egin zituzten[1].

Bilbon 1.909. urtean, zezenplaza berria egin zuen Jose Etxebarria Bengoa Villagodio–ko markes jaunak Indautxu–n. Abuztuaren 15ean estreinatu zen[22].

Arkitektoa Leonardo Rucabado jauna izan zen eta kontratista Tomas Llona jauna. Iturrigorri–ko harrobietatik ekarritako harriz egin zuten plaza hura, tartean adreilu gorri eta axuleiu zuriak zituelarik.

Lehen nobilladan, 1.909.eko abuztuaren 15ean, Villagodio–ko markesaren hiru zezenko eta Clairac–en beste hiru toreatu zituzten Jose Morales *Ostioncito*, Antolin Arenzana *Recajo* eta Antonio Ruiz *Reverte II*.ak. Geroztik toreatzaile askok parte hartu zuen plaza hartan. Baita ziklista, dantzari, globolari eta abarrek ere. Lucio Vicario *Botines* ere famatua izan zen, bere toreaketa–lan irrigarriak medio. Plaza hura oraingo Poza Lizentziatua, Urkixo, Areilza eta Revilla kaleen artean zegoen[62]. Hondarrezko zirkunferentziaren diametroa 36 metrokoa zen[13].

Dena dela Indautxuko zezenplaza hartan 8.000 ikusle sartzen ziren, bere tendidu eta palkoetan. Mudejar estiloko plaza hartan, abuztuaren 15ean eman zen lehen nobillada, baina aurrez estreinatzeko asmoa egon zen. Euria zela eta ez zen ordea egun hartararte estreinatu.

Lehen nobillada Deustuko Gormutu eta Itsuen elkarteari laguntzearren antolatu zuten. Villagodio–ko markesaren zezenkoak suharrak izan ziren. Clairac–en bi ere bai, eta hirugarrena ez.

*Ostioncito*k bere bigarrengoan banderilak ederki sartu ondoren lortu zuen belarria. *Recajo* gaizki aritu zen, eta *Reverte II*.ak egin zituen arratsaldeko gauzarik onenak. Bi belarri eman zizkioten. Bostgarren eta seigarren zezenkoan euria gogotik egin zuen.

1.909. urteko abuztuaren 27an bigarren nobillada eman zen Indautxu–ko plazan Bañuelos–en sei zezenko jokatuz. Juan Cecilio *Punteret* eta Pacomio Peribañez ez ziren nabarmendu arratsalde hartan, nahiz eta Pacomio–k belarri bat lortu. *Punteret* zezenak harrapatu zuen, zertxobait zaurituz. Bostgarren zezenean euria hasi zuen. Sei zaldi hil zituzten zezenkoek plazan nobillada hartan.

Handik bi egunera, abuztuaren 29an, Clairac–en hiru zezenko eta Halcón–en bat toreatzera Juan Dominguez *Pulguita chico* eta Eduardo Garcia *Rondeño* etorri ziren Indautxu–ko plazara. *Pulguita chico*k bere bigarrenaren belarria lortu zuen.

1.909. urteko irailaren 5ean Jorge Bijuesca *Mirandito* eta Inazio Ocejo *Ocejito II.a* bilbotarrek Orozko–ren zezenkoak toreatu zituzten Indautxu–n.

Urriaren 10ean Indautxuko zezenplazan Lucio Vicario *Botines*ek larrabehi bat toreatuz ikusleei farre eragin zien.

Urriaren 17an, Indautxu–ko plazara Valladolid–eko Tertulino Fernandez–en lau zezenko toreatzera bi bilbotar aurkeztu ziren: Jose Arrue pintatzailea (abuztuko korridetarako kartel iragarlea egindakoa) eta Luis Mogrovejo marinela. Larri ibili ziren arratsalde hartan, eta nahikoa egin zuten Antolin Arenzana *Recajo* eta Antonio Torres *Mundito*ren laguntzaz etxera onik itzultzeko modua

egitea. Bi bilbotar haiek ez ziren toreatzen gehiago aritu[63]. Dena dela Arrue eta Mogrovejo aurrez udan Orozko herrian izan ziren. Han baserrietan larrabei eta zezenak hazten zituztenez gero, bertan preparatu ziren Indautxu-ko plazan aurkezteko[64]. Zenbaitek dioenez dotzenerdiren bat aldiz toreatu zuen Jose Arrue-k; Bartzelonan ere bai[52].

1.909. urteko urriaren 24ean, Luziano Bilbao *Lunares* eta Zakarias Lekunberri etorri ziren Indautxu-ko plazara Tertulino Fernandez-en lau zezenko hiltzera[63].

Zakarias Lekunberri, 22 urte lehenago Bizkaiko Murueta-n (Busturian) jaioa zen. *Mundaka* izeneko itsasuntzian marinel ibili eta *Nemor* izeneko untzian pilotu zela Sevillan Vicente Segura mexikarrak eta Diego Rodas *Morenito de Algeciras*ek emandako korrida ikusi zuen. Harez gero toreatze-lanetan murgildu zen erabat. Luis Rios ganaduzalearen etxean lan egin ondoren, gero[4] Santoña-n *Lunares*en banderilari gisa lan egin zuen eta gero urrian Indautxun aurkeztu zen[65]. Indautxuko plaza erabat bustita zegoen, baina hiru zezenko hiltzea lortu zuten. Laugarrenerako berriz euria hasi eta jaialdia bertan behera gelditu bait zen. *Lunares* ez zen luzitu arratsalde hartan, baina Lekunberri bai. Ezpata sartzerakoan airean ibili eta zauririk gabe suertatu zen. Ausart fama irabazi zuen.

1.909. urteko azaroaren 7an plaza berean eta Tertulino Fernandez-en zezenkoak korrituz, *Lunares* eta Lekunberrik berebiziko arrakasta lortu zuten. Bi ezpatariak bizkar gainean atera zituzten. Lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten. Hirugarrenak barrera saltaturik *Lunares* tendidura bota zuen. Beste zezenkoak suharrak izan ziren.

Zakarias Lekunberri faenako lehen pasean zezenak airean erabili zuen. Bere adore guztiz ezpatakada ederra sartu zion ordea, ohi bezala berriz ere airean ibiliz. Bigarren zezenkoari bitan sartu zion ezpata hondoraino, eta bietan harrapatu zuen zezenkoak.

Azaroaren 14ean Indautxuko zezenplazan Juan Dominguez *Pulguita chico*k lan egin zuen, baina luzimendurik gabe. Jesus Bilbao zezenzale bilbotarrak hil zuen azken zezenkoa.

1.909. urtean Indautxuko plazan azaroaren 21ean eman zen azken saioa. Cubillas bilbotarrak behi bat hil zuen orduan[63].

Zezenplazei gagozkiolarik, aipa dezagun uztailean Iruñean egindako bilkuren ondotik Bilbon 1.909.eko abuztuaren 22tik 25era zezenplazen jabeen elkarteak (Asociación de propietarios de plazas de toros) bere estatutuak onartu zituela[66]. *El Boletin taurino* aldizkaria ere argitaratu zen Bilbon 1.909. urtean[24].

1.909. urtean plaza desberdinetan zehar toreatzaile bizkaitar askok lan egin zuen, eta haien berri eman dezagun orain.

*Bilboko kotxeritoa*k Peru-tik itzulita 1.909. urtean 43 korridatan 111 zezen hil zituen. Sevillan sanmigeletan bi korrida toreatu zituen. Lehenengoan ongi egon zen, eta bigarrenean ez. Urte hartan Antonio Fuentes, Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquito*ren ondoren Kastor Jauregibeitia bilbotarra zen toreatzailerik preziatuena. 1.909. urteko neguan Mexikorako bidea hartu zuen, han 11 korridatan 34 zezen hilez. Beste lau korridatan ere parte hartu zuen han[5]. Abenduaren 24ean Queretaro-ko plazan San Diego de los Padres-en zezenak toreatu zituen Vicente Segura-rekin batera[4].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia* ere alternatiba harturik zegoen. 1.909. urtean 17

korridatan 48 zezen hil zituen.

Serafin Bogiola *Torkito* 6 nobilladatan aritu zen 1.909. urtean, eta haietako bitan adarkada jaso zuen, bere adorea zerbait murriztu zelarik[5].

Luis Mauro lekeitiarra, 1.909. urteko ekainaren 27an Carabanchel–eko plazan zen Salamancako Juan Sanchez Carreros-en zezenkoak toreatzen. Batek larriki zauritu zuen[4].

Zakarias Lekunberri muruetarra ere aipatua dugu. Zezenak ezpataz hiltzeko sistema berezia zuen. Bere burua ezpataren atzetik bi adarren artera bota eta zezenak bultzata airean parabola osatzen zuen buztanetik irtenez. Bartzelonan, Madrilen eta beste leku askotan aritu zen 1.909. urteaz gero zezenkoak toreatu eta hiltzen. Behin batean Deban lanean ari zela, plazako eserleku batzuk erori egin ziren, eta orduan Lekunberrik zezenkoari adarretik eta buztanetik heldu zion arriskua amaitu zen arte. Madrilen zezenko bat adarretatik heldu eta uzakali ere egin omen zuen[64].

1.909. urtean Deban bi nobilladatan Joan Jauregi *Tintorero* gipuzkoarrak toreatu zuen; bere itxura batean toreatu ere[4].

Tolosako sanjoanetan, 1.909. urtean Enrique Vargas *Minutok* arrakasta lortu zuen Alaiza nafarraren zezenak toreatuz. Eibarreko sanjoanetan berriz, Pelaez–en lau zezen toreatzera Rafael Gonzalez *Machaquito* ekarri zuten. Lan ederra burutu zuelako bizkar gainean ibili zen txalo artean. Hirugarren zezenean Silbestre Artamendi jaunari egin zion brindisa[11].

Azpeitian 1.909. urtean Luis Ezeiza jaunak hartua zuen zezenplaza urteko mila pezeta ordainduta. Ihauteritan, Lasturreko larrabehiak eta zezen bolaztatu bat korritu zituen herriko jendeak toreatu zituelarik. Gero, ekainaren 6an, saninaziotako zezenfesten programa onartu zion Udalak[14].

Donostian 1.909. urtean bi plazatan izan ziren ikuskizunak; Txofre–koan eta Martutene–koan. Martutene–kora egia esan, jende gutxi joaten zen. Abuztuaren 7an adibidez zaldi–zaldunen konpainia batek lan egin zuen oso jende gutxiren aurrean.

Txofre–ko plazan uztailaren 4ean *mexikar gazteak* izeneko Carlos Lombardini eta Pedro Lopez aritu ziren Juan M. Sanchez–en zezenkoak toreatzen. Lombardini oso alai ibili zen, eta Lopez serioago. Bostgarrenean Refugio Perez–ek zezenkoaren gainetik hagaz salto egin zuen[11].

Gero abuztuaren 1, 8, 15, 16, 22, 29 eta irailaren 5 eta 12rako zortzi korrida iragarri ziren, Txofre–ko plazan emateko. Abuztuaren 16an Eduardo Mihuraren sei zezen hilko zituzten Ricardo Torres *Bombita* eta Rafael Gonzalez *Machaquitok*. Abuztuaren 22an Moreno Santamariaren beste sei Vicente Pastor, Francisco Martin *Vazquez* eta Rodolfo Gaona–k. Abuztuaren 29an Santa Coloma–ko kontearen sei zezen jokatuko ziren, *Bombita* eta *Machaquito* ezpatari zirela. Irailaren 5ean, Felipe Pablo Romero–ren sei zezen *Bombita* eta *Machaquitok* hil zituzten[7]. Irailaren 12rako ganadutegi–lehiaketa izango zen. Mihura, Murube, Pablo Romero, Moreno Santamaria, Santa Coloma eta Guadalest–en zezen bana hilko zituzten Vicente Pastor eta Antonio Boto *Regaterinek*.

1.909.eko irailaren 12an euria egin zuen ordea, eta korrida irailaren 16ra atzeratu zuten. Irailaren 16an lehen zezena jokatu ondoren txingorra egin zuen eta jaialdia berrogei minutuz geldirik egon zen. Gero korridari jarraipena eman zitzaion. Vicente Pastor oso txalotua izan zen. Ez ordea *Regaterin*; oso gaizki egon bait zen.

Lehiaketa, Murube–ren alargunak bidalitako zezenak irabazi zuen; bigarren jokatu zutenak hain zuzen. Bost mila pezetakoa zen saria[11]. Murube–ren alargunaren *Escarapelo* zezena, seitan pikatu zuten. Lau zaldi lurreratu zituen eta hiru hil[13]. Lehiaketazko korrida haietan, enpresak apostuak antolatu eta kontrolatzen zituen. Murube–ren zezenaren alde jokatu zutenèk, duroko 22,67 pezeta kobratu zituzten[11].

1.909. urteko sanferminetarako Villagodio–ko markesa, Urkola, Infante da Camara eta Zalduendo izan ziren zezenak bidali zituzten ganaduzaleak. Haiek hiltzeko Ricardo Torres *Bombita*, Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete*, Francisco Martin *Vazquez*, Antonio Boto *Regaterin* eta Rodolfo Gaona ezpatariak iragarri zituzten, baina azken orduan hauetako batzuen ordez beste batzuk etorri ziren[17].

1.909. urtean, toreatzaile nafar batek traje distiratsua lehen aldiz jantzi zuen. Izan ere Gregorio Yanguas *Zapata* iruindarra Castro Urdiales–eko plazan aurkeztu zen urte hartan. Geroztik Bilbo eta inguruetan lan egin zuen batez ere.

Martin Abad *Barberillo* zaragozarra berriz Faltzes–eko plazan ordezko ezpatari gisa aritu zen 1.909. urtean. Justo Garcia *Gitanillo* gasteiztarra berriz, Euskal Herrian eta Burgos–en toreatzen ari zen urte hartan[4].

1.909. urtean Joseph Coran girondarra Passicos ganaduzalearen koadrilan behi puntazorrotzak toreatzen hasi zen. Urte hartan Barrere, Dubecq, Portalier, Passicos eta Darracq ganaduzaleen taldeburu Giovani, *Meunier*, *Mazzantini*, Fillang eta Soumprou izan ziren hurrenez hurren[21].

———— o ———— o ————

1.910. urteko denboraldia martxoan hasi zuten Bilboko Vista Alegren, Tertulino Fernandez–en lau zezenko jokatuta. Fernando Ugarte *Chico del Imparcial* eta Manuel Garcia Simera *Espartero II.a* aritu ziren nobillada hartan. Lehen zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten, eta besteek ere bazituzten horretarako merezimenduak. Ugarte eta Garcia, zein baino zein okerrago egon ziren.

Martxoaren 20ko nobilladan Tabernero–ren sei zezen korritu ziren Vista Alegren. Eduardo Serrano *Gordet*, Zakarias Lekunberri eta Julian Iraola bilbotarrak hil zituzten. *Gordet* izan zen arratsalde hartako arrakastatsuena. Lekunberrik ere banderilak ederki sartu zituen lehenengoan eta bostgarrenean. Bostgarrenari ezpata ere ongi sartu zion. Iraola bilbotarrak bere lehenengoan ez zuen asmatu eta azkenekoan labur aritu zen.

1.910. urteko martxoaren 27an beste nobillada bat eman zen Vista Alegren, hango diruaz Serafin Bigiola *Torkito* soldaduskatik libratzearren. Isidoro Marti *Flores*, Andres del Campo *Dominguín* eta *Torkito* berak Carreros–en sei zezen toreatu zituzten. Zezenko handiak eta adakera onekoak ziren haiek, baina aldi berean ahulak. *Flores*ek ederki hil zituen bere bi zezenkoak. *Dominguin* berriz lehen zezenkoa hiltzerakoan adarretik zintzilikatua ibili zen. *Torkito*k, ofizioan oso aurreratua zegoela frogatu zuen. Francisco Andujar *Ciervana* banderilaria eta Felipe Antxustegi *el Largo* pikatzailea ere nabarmendu ziren.

Apirilaren 7an ikasleen elkarteak Errukietxearen alde antolatutako zekorketan, Carreros–en lau zekor toreatzera Ortiz, Cuadra eta Pradó jaunak atera ziren Vista Alegren.

1.910. urteko apirilaren 10ean beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren, Bueno–ren lau zezenko korrituz. Jose Morales *Ostioncito* eta Zakarias Lekunberrik hil zituzten zezenko eder eta suhar haiek. *Ostioncito*k bere lehen zezenkoaren zailtasunak ongi saihestu zituen eta bere bigarrenean luzitu ere egin zen. Lekunberrik ausart jokatu zuen bere lehenengoan, eta ezpata sartu zionean biak erori ziren lurrera. Laugarrenean, hirugarrenean asmatu zuen ezpataz.

Apirilaren 24ean, Bilboko bizarginek zekorketa bat antolatu zuten Vista Alegren. Tabernero–ren lau zekor plazaratu ziren, baina hirugarrena toriletara itzuli zen hil ezin zutelako.

1.910.eko maiatzaren 5ean eman zuten Bilboko Vista Alegren urteko lehen korrida, Arribas–en sei zezen jokatuz. Serafin Mentxaka jaunak antolatua zen maiatzeko korrida hura eta hurrengoa. Vicente Pastor eta *Bilboko kotxeritoa* aritu ziren. Arribas–en zezenak, suharrak eta gogorrak suertatu zitzaizkien. Pastor–ek bere bi lehen zezenetan faena ederrak burutu zituen, eta ongi hil zituelako belarria jaso zuen bakoitzean. Bostgarrenean ere lana itxura batean egin zuen. Kastor Jauregibeitiak faena onak burutu zituen bere hiru zezenetan, baina ezpataz ez zuen lehenbizikoan asmatu. Segiarren zezenari Zakarias Lekunberrik sartu zizkion banderilak. Ordezko ezpatari gisa aritu zen arratsalde hartan.

Maiatzaren 15ean bigarren korrida izan zen Bilboko Vista Alegren. Surga–ren sei zezen hiltzera Vicente Pastor, Jose Claro *Pepete* eta Rufino San Bizente aurkeztu ziren. Surgaren zezenak, handiak izan arren, suhartasunik gabekoak suertatu zitzaizkien. Vicente Pastor–ek lehenengoan belarria lortu zuen. *Pepete* ezpataz ez zen ongi ibili eta *Begoñako txikia*k ausardia ikaragarria erakutsi zuen bere lehenengoan. Azkenekoan ezpataz ez zen ongi aritu.

1.910. urteko maiatzaren 16an Tabernero–ren sei zezenko korrituz beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez Ortega *Joselito*k hil zituzten zezenko koldar haiek. Lehenengo eta seigarrenari suzko banderilak ipini zizkieten. Bostgarrenari bi ezpatari gazte sevillarrek elkarlanean sartu zizkioten banderilak. *Limeño*k ongi toreatu zuen (bostgarrenean batez ere), baina ezpataz asmatu ezinik aritu zen. Jose Gomez Ortega *Gallito*k, (*Joselito*k), bere lehenengoari belarria moztu zion.

Maiatzaren 22ko nobilladan, Bilboko Vista Alegren Clairac–en sei zezenko toreatzen Eduardo Serrano *Gordet*, Alejandro Saez *Ale* eta Ramon Urizar–ek parte hartu zuten. *Gordet*ek ederki toreatu baina gaizki hil zituen bere zezenkoak. *Ale*k bere lehenengoaren belarria lortu zuen. Hirugarrena kapaz toreatzen ari zela, zauritu egin zuen zezenkoak. Urizar bilbotarra arratsalde hartan aurkeztu zen lehen aldiz Vista Alegren. Seigarren zezenkoa ongi toreatu, banderilaztatu eta hil zuen.

1.910.eko ekainaren 19an, goizean zekorketa bat eman zen ziklistek antolaturik. Oñoro–ren lau zekor Valle, Zubeldia, Etxebarria eta Espinosa jaunek hil zituzten. Arratsaldean berriz, Llen–eko markesaren sei zezenko jokatu ziren. Jose Morales *Ostioncito*, Alfonso Cela *Celita* eta Zakarias Lekunberri–k parte hartu zuten. Zezenkoak erabat koldarrak izan ziren. *Ostioncito*k nola edo hala hil zuen toreatu ezin zitekeen lehenengoa. *Celita* galegoa oso txalotua izan zen, eta Lekunberri busturiarrari gauzak ez zitzaizkion ongi atera.

Ekainaren 26an Bilboko harakinek zekorketa antolatu zuten Vista Alegren. Amador Garciaren lau zekor hil zituzten.

1.910. urteko uztailaren 3an, Antonio Guerra–ren sei zezen toreatzera Rodolfo Gaona eta Rufino San Bizente aurkeztu ziren Vista Alegren. Guerra–ren zezenek, bostgarrenak ezik, legea betetzea besterik ez zuten egin. Gaona–k Bilbon lehen korrida zuen hura eta kapotez nahiz banderilaz bostgarrenean bakarrik luzitu zen. *Begoñako txikia*k ez zuen zorte handirik izan, nahiz

eta ezpataz lanak azkar egin.

Uztailaren 24ean Espoz y Mina–ren sei zezenko plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez Ortega *Joselito* aritu ziren haiek toreatu eta hiltzen. Lehen, laugarren eta bostgarren zezenkoei suzko banderilak ipini zizkieten. *Limeño*k lehenengoari belarria moztu zion. *Joselito*k ederki toreatu zituen bereak, baina ezpataz ez zuen asmatu. Azken zezenkoan jendeak istiluak atera zituen, txikia zelako toriletara itzul eraztea nahi zuelako.

Nobillada hura ikusi nahi zuenak, honako prezio hauek ordaindu behar izan zituen: Itzaleko barrera 2,50 pezeta; Eguzki aldeko barrera 1,75 pezeta; Itzaleko tendidua 1,85 pezeta eta Eguzki aldeko tendidua 1,30 pezeta.

1.910. urtean, abuztuko korridak hilaren 21ean hasi ziren Bilboko Vista Alegren. Felix Urkola–ren sei zezenak (handiak eta bigunak), Ricardo Torres *Bombita*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*k hil zituzten. *Bombita*k adorerik ez zuen erakutsi arratsalde osoan eta ezpataz ez zen luzitu. *Machaquito*k bere lehenengoan oso ongi egin zituen lanak kapotez, muletaz nahiz ezpataz. Belarria eman zitoen. Kastor hirugarren zezenean kapote eta muletaz nabarmendu zen batez ere.

Biharamunean, abuzutaren 22an, Murube–ren sei zezen jokatu zituzten Vista Alegren. Bezperako ezpatari berberek parte hartu zuten zezen irrikitsu eta ahul haiek toreatzen. *Bombita*k lehen zezenean legea bete zuen, eta bere bigarrenean gaizki egon zen. *Machaquito*k bigarren zezenari emozioz betetako faena burutu zion, eta ezpataz hiltzerakoan sabeletik zintzilikaturik atera zen. Txalo asko jo zioten. Bostgarrenean ere gauza bera gertatu zitzaion. Ezpataz hiltzerakoan zezenak harrapatu egin zuen. *Machaquito*ri orduan, banderila bat sartu zitzaion izterrean. Kastor Jauregibeitiak kapotez ederki toreatu zituen bere bi zezenak. Banderila–pare bina sartu zizkien aldi bakoitzean eta gero faena onak burutu zituen.

Hirugarren korrida, 1.910. urteko abuztuaren 23an eman zuten Bilboko Vista Alegren. Mihuraren sei zezen Ricardo Torres *Bombita* eta Kastor Jauregibeitiak hil zituzten. Mihurak ganadu ederra eta zangarra bidali zuen. *Bombita*k bostgarrenari kapotez egin zizkion gauzarik onenak. Zezen harixe hiru banderila–pare dotore sartu zizkion. Kastor Jauregibeitia ere oso ongi aritu zen. Belarri bana moztu zuen bere hiru zezenetan.

Abuztuaren 24eko korridan, Parlade–ren zapzi zezen eta Muruberen bat jokatu ziren Vista Alegre–ko laugarren korridan. Ricardo Torres *Bombita*, *Bilboko kotxeritoa* eta *Begoñako txikia*k laugarrenaren belarria lortu zuen eta zazpigarrenari ere faena dotorea burutu zion. Kastor Jauregibeitia muleta eta kapotez ongi egon zen. Bostgarrenean baita banderilak sartzen ere, baina ezpataz ez zuen asmatu. Rufino San Bizente ere asko saiatu zen bere bi zezenetan, baina bere bigarren zezenean luzitzerik ez zuen lortu.

1.910. urteko irailaren 4ean, Clairac–en lau zezenko korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Nobillada hartan Hipolito Carrasco *Cuatrodedos* eta Manuel Martin *Vazquez II*.ak parte hartu zuten. Bigarren zezenkoari su eman zioten. *Cuatrodedos* ongi egon zen bere lehenengoan eta itxura batean bere bigarrenean. Manuel Martin–i artean ofizioa ikasi gabe zeukala ikusi zitzaion. Laugarren zezenkoan hiru abisuak entzun zituen.

Irailaren 8an, Clairac–en beste lau zezenko toreatu zituzten Zakarias Lekunberri eta Ramon Martinez *Agujetas*ek Vista Alegren. *Agujetas*ek bere bi zezenkoak laster hil zituen. Lekunberri berriz, ausart aritu zen muleta eta ezpataz. Lehenengoa ederki hil zuen, eta bigarrengoa hiltzerakoan

airean ibili zen.

1.910.eko irailaren 18an beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegre–n, Andres Sanchez–en bi zezenko eta Tertulino Fernandez–en beste bi korrituz. Emilio Gabarda *Gabardito*, *Cocherito chico* eta Angel Ramos *Improvisao* bilbotarrak parte hartu zuten nobillada apal hartan. *Gabardito* eta *Cocherito chico* gaizki ibili ziren beren zezenkoak hil ezinik. *Improvisao* bilbotarra izan zen onena, kapote muleta eta ezpataz.

Irailaren 25ean beste nobillada bat eman zen Vista Alegren, Terrones–en lau zezenko jokatuz. Antolin Arenzana *Recajo* eta Alejandro Saez *Ale* aritu ziren lanean arratsalde hartan. *Recajo* ondo moldatu zen bere bi zezenkoetan. *Ale* bilbotarrak ez zuen zorte onik izan arratsalde hartan. Bere lehen zezenkoan hiru abisuak entzun zituen, eta azken zezenkoan ere asko luzatu zen hil ezinik.

1.910. urteko urriaren 2an Vista Alegren emandako nobilladan, Terrones–en lau zezenko hil zituzten Pascual Gonzalez *Almanseño* eta Trinidad Perez *Machaquito de Sevilla*k.

Urriaren 9ko nobilladan, dena gaizki atera zen Vista Alegren. Ume madrildar batzuek Cortes–en zezenkoak toreatu zituzten. Zezenkoak oso txikiak eta umeak ezjakinak suertatu ziren. Azken zezenkoan jendeak hondarrera salto egin zuen eserlekuetatik.

Urriaren 16ko nobilladan ordea, Tertulino Fernandez–en zezenko handiak eta suharrak plazaratu ziren Vista Alegren. Eusebio Fuentes–ek lehenengoaren belarria lortu zuen. Zakarias Lekunberri–ri ohizko ausardia ikusi zitzaion toreaketan. Bi ezpatariak bizkar gainean atera zituzten.

1.910. urteko azken nobillada urriaren 23an eman zuten Bilboko Vista Alegren. Pelaez–en lau zezenko Eusebio Fuentes eta Zakarias Lekunberrik toreatu zituzten. Fuentes asko saiatu zen bere bi zezenkoetan, eta Lekunberrik bere bigarrenean belarria lortu zuen. Francisco Andujar *Ciervana* eta Jose Muñagorri banderilak sartzen nabarmendu ziren[1].

Toreatzaile bilbotarren artean Kastor Jauregibeitia zen famatuena 1.910. urtean. Izan ere urte hartan 46 korridatan 112 zezen hil zituen. Leku askotan lortu zuen arrakasta; Salamancan adibidez[5]. Kastor–ek urte hartan banderilak launaka eta seinaka sartzen zituen, beste inork ez bezala. Irailaren 8an, Miranda de Ebro–ko zezenplazan alternatiba eman zion garai batean bere banderilari izandako Jose Morales *Ostioncito*ri. Pablo Escorial ganaduzalearen *Patillero* zezena utzi zion[4].

Kastor Jauregibeitiak irailaren 18an, 1.910. urtean, Mallorka–ko Inca herriko zezenplaza berria estreinatu zuen, Tomas Alarcón *Mazzantinito* eta Antonio Boto *Regaterin*ekin batera lan eginez. Santamaria eta Perullena–ko Lopez ganaduzaleen zezenak hil zituzten[13].

*Bilboko kotxeritoa*ren koadrilara 1.910. urtean Jose Agudo *Ceniza* pikatzailea sartu zen. Fabian Bilbao ere Kastorrekin zebilen 1.910. urtean, eta Madrilen maiatzaren 22an larriki zauriturik suertatu zen Saltillo–ko markesaren zezen batek ahoan adarpunta sartu ziolako[4].

Bilbon 1.910.eko udan, zezenzale batzuek Kastor Jauregibeitiari beren asmoen berri eman zioten. *Kotxerito* izeneko zezenzaleen elkarte bat sortu nahi zuten, baina begoñatarrak ezetza eman zuen. Gero urrian Mariano Vicente jauna Zaragozara joan zen Kastor–ekin hitz egitera, eta orduan baietza atera zion. Azaroaren 20an sortu zen azkenean, urte hartantxe, *Kotxerito* elkartea. Elkartekideak hilero 1,50 pezeta ordaintzen hasi ziren[23]. Oraindik oso bizirik dagoen *Kotxerito* zezenzale–elkartea, guztietan zaharrena da.

Kastor Jauregibeitia dena den, negu hartan Mexiko–ra joan zen toreatzera[4].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia* zen alternatiba hartua zegoen beste toreatzaile bilbotarra. 1.910. urtean 15 korridatan 45 zezen hil zituen. Urte hartan lortu zuen, irailaren 11n, Madrilen alternatiba sendotzea. Pablo Benjumea–ren zezen koldarrak toreatu zituen Antonio Boto *Regaterin* eta Rodolfo Gaona–rekin batera. Aternatiba Boto–ren eskutik hartu zuen. *Barroso* izeneko zezen gorri eta koldarra (sutu egin zuten) hil zuen lehenbizi eta *Podenco* izeneko beltza azkenean. Bietan izan zen txalotua[5]. Hala ere Mosquera enpresari jaunak ez zuen hurrengo korridetarako kontratatu. Dena dela, Rufino udazkenean Mexiko–ra joan zen berriro.

Serafin Bigiola *Torkito*rentzat urte ona izan zen 1.910.a. Hasieran adore faltan bazegoen ere, maiatzaren 27an Bilboko nobillada ongi atera zitzaiolako indartsu segitu zuen[4]. Madrilen lehenengo aldiz urriaren 23an lan egin zuen Eduardo Olea–ren zezenkoak toreatuz. Tomas Mazzantini ibiltzen zen hain zuzen Olea–ren ganadua saltzen. *Torkito*k Andres del Campo *Domonguin II.a* eta Luis Guzman *Zapateritor*ekin batera toreatu zuen arratsalde hartan. Azaroaren 13an berriz, Madrilen bertan Eusebio Fuentes eta biak aritu ziren lanean, baina bigarren zezenkoan Fuentes zauriturik suertatu zen eta Bigiola–k hil zituen gainerako zezenko guztiak. *Torkito* horrela zezenko–hiltzaileen buru geratu zen urte amaierarako.

Alejandro Saez *Ale* bilbotarrak ere fama handia lortu zuen 1.910. urtean. Sanlucar de Barrameda–n abuztuaren 27an Mihuraren bi zezenko hil zituen, belarri bat lortuz. Irailaren 3an ere leku berean toreatu zuen, zauriturik suertatuz. Hala ere irailaren 9 eta 10ean toreatu zuen hantxe bertan. Irailaren 17an berriz, Bartzelonan Jose Pereira Palha–ren zezenkoak toreatu zituen Andres del Campo *Dominguin* eta Pascual Bueno–rekin batera[5].

Zakarias Lekunberri busturiarra ere arrakastatsu zebilen 1.910. urtean. Guztira 20 nobilladatan parte hartu zuen. Beste bizkaitar batzuk ere era beretsuan zebiltzan toreatze–lanetan. Cástulo Martin bilbotarra adibidez, garai hartan hasi zen toreatzen. Galo Mauro lekeitiarrak berriz, uztailaren 10ean Madrileko Tetuan de las Victorias–eko plazan lan egin zuen ordezko ezpatari gisa. Jesus Santamaria *Penetre* pikatzaile bilbotarra ere orduan hasi zen lanean[4]. Deustun berriz, 1.910.eko maiatzaren 18an Felix Arri jaio zen; gero zezenko–hiltzaile izango zena[32].

Garai hartan Sevillan Juan Belmonte gaztea, gero hain famatua izango zena, Felix Urkola bilbotarrak ikusia zuen toreatzen han zeukan ganadutegian. Urkolari gustatu zitzaion Belmonte gaztearen toreatzeko era, baina *akats* bat ere aurkitu zion; ukondoz jokatzeko zuen joera alegia[4].

Tolosan 1.910. urtean, *ume sevillarrak* ekarri zituzten sanjoanetarako. Candido Diaz Nafarraren zezenkoak prestaturik zeuden ekainaren 24erako, baina *ume sevillar* haien ordezkariak ez zituen onartu handiegiak zirelakoan. Carreros–en zezenko batzuk atera zituzten azkenean egun hartan ia jendez betetako plazara. Jose Garate *Limeño*, Jose Gomez Ortega *Joselito* eta Francisco Diaz *Pacorro*k hil zituzten Carreros–en zezenko txiki haiek. *Pacorro* bizkar gainean atera zuten plazatik txalo artean.

Nobillada bukatu zenean, *ume sevillarrak* ekainaren 26an Candido Diaz funestarraren zezenkoak toreatzera behartu ziren. Zezenko koldar eta zailak suertatu zitzaizkien, baina handiak eta indartsuak ziren. *Limeño* eta *Gallito* (Jose Gomez) asko luzitu ziren kapote eta muletaz. *Joselito*k laugarrena oso ongi hil zuen. *Pacorro*k ere gauza politak egin zituen arratsalde hartan[11]. *Ume sevillar* haiek 1.910. urtean Baiona, Irun, Hondarribia, Donostia. Bilbo eta abarretan lanean aritu ziren[4].

Irun–en, 1.910. urtean, bertako 180 dendari eta partikular bildurik 100 pezetako akzioak jaulki zituzten zezenplaza berria egiteko. Lanak urte hartako martxoan hasi ziren Luis Elizalde arkitektoaren gidaritzapean. Artean erabat bukatu gabe zegoen arren, ekainaren 29an inauguratu zen; sanmartzialetan. Obren kostua 28.314,– pezetara iritsi zitzaien. Zezena jokatzeko zirkunferentziak 48 metroko diametroa zuen, eta bi metroko kailejoia ere bai inguruan[11]. 8.000 ikusle sar zitezkeen plaza hartan[67]. Plaza estreinatzeko Ricardo Torres *Bombita* eta Jose Claro *Pepete* kontratatu zituen Ferreiros enpresariak. Juan M. Sanchez Carreros-en sei zezen ere prest zeuden jokatzeko. Azken orduan ordea, *Bombita* Bartzelonan zauritu egin zen. Horregatik korrika eta presaka ekarrita Enrique Vargas *Minuto*, Jose Claro *Pepete* eta Manuel Torres *Bombita III.a* toreatzaileek estreinatu zuten plaza 1.910.eko ekainaren 29an. *Minuto* pelotari jantzian atera zen plazara (galtza, alkandora eta ezpartin zuriak, gerriko gorria eta txapel urdina zeramatzan), Madriletik Irunerako bidaian bere maleta galdu egin zelako.



13.6. irudia. Iruneko herria eta zezenplazaren kokalekua

Minuto ederki egon zen lehen zezenean, eta laugarrenean belarria lortu zuen. *Pepete* berriz gaizki aritu zen bere bi zezenetan, Manuel Torres–ek berriz (Ricardo–ren anaiak), Kapote eta muletaz lanak ongi burutu zituen. Txalotua izan zen bere bi zezenetan.

Iruneko plaza hartan uztailaren 3an *ume sevillarrak* beren abileziak erakutsi zituzten[11]. Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez Ortega–k osatutako taldea zen hura, Francisco Diaz *Pacorro* ordezko ezpatari zelarik.

Hondarribian ere 1.910.eko irailaren 8an nobillada eman zuten. Eusebio Fuentes Iruneko plazan arrakasta lortua zen, eta Hondarribiarako kontratatu zuten, Felix Gavari–ren lau zezenko torea zitzan. Nobillada hasi aurretik zezenko batek toriletako ateak puskatu eta plazan barrera hausten hasi zen. Zurginek konponketak egin zituzten hura barrura sartutakoan. Gero jokatu zirenean, zezenko haiek zaldiak bota eta ihesi joanda barrera gainetik salto egiteko joera erakutsi zuten. Zurginei nahikoa lana eman zieten arratsalde hartan Gavari–ren abereek. Fuentes eta bere

koadrilakoek ere nahikoa lana izan zuten haiek nola edo hala toreatu eta hiltzen. Hirugarrenari suzko banderilak ipini zizkioten. Fuentes laugarrenean luzitu zen zerbait; besteetan ezinezkoa bait zen[11].

Arrasaten, 1.910. urtean eman ziren azken nobilladak 24 urte lehenago estreinatu zen zezenplazan. Plaza hura, gero *Villa Amparo* txaleta egondako lekuan zegoen[68]; Aramaiona ibaiaren ondoan.

Azpeitian 1.910. urteko saninaziotarako Luis Ezeiza enpresariak nobilladatarako programa aurkeztu zuen. Funes-eko Candido Diaz-en zezenkoak toreatu eta hilko zituen Juan Dominguez *Pulguita chicok* uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean, Alejandro Saez *Ale* bilbotarra ordezko ezpatari zelarik[14].

Bergaran bestetik, 1.910.eko ekainaren 9an Jose Bermejo Berasategi jaio zen; gero banderilari gisa lan egingo zuena[32].

Donostian berriz, zezenak bi plazatan izan ziren 1.910. urtean; Martutene-koan eta Txofre-koan. Martutene-koan martxoaren 13an zekorketa bat izan zen ahari-talka baten ondoren. Hango bi larrabehi hil ezinik aritu ziren Luis Gutierrez, Ignacio Perez *el Rosdito* eta Eugenio Bandres *el Pintao*. Han sortu ziren istiluetan jendeak beirak, barandak, etab. hautsi zituen.

Txofre-ko plazan udan ohizko korridak eman zituzten 1.910. urtean. Ekainaren 19ko nobilladan ordea, arazo larriak izan ziren zezenko bat medio. Eusebio Fuentes eta Alejandro Saez *Ale* Cipriano Saenz eta Carreros-en zezenko handi bana toreatzeko kontratatu zituzten. Fuentes-ek bere lana ederki burutu zuen, baina *Ale* larri ibili zen. Izan ere azken zezenkoan (Saenz-enean), Jose Jimenez *Chicuelo* zauriturik eraman zuten Ospitalera. Zezenko hura indartsu bezain maltzurra zen. Jose Martinez *Aventurero* pikatzailea ere zauritu zuen eta gero burua ezkutalekuan sartu zuelako lokarriz tirata atera behar izan zuten. *Alek* azkenean ezpataz eraitsi zuen zezenko ura[11].

1.910. urtean Amurrio-ko herrian, 1.500 ikuslerentzako zezenplaza zuten[15]. Donibane-Lohizune-n ere zezenplaza biribil berria 1.910. urtean estreinatu zen, nahiz eta urte gutxi iraun zuen[69].

Nafarroako Lodosan berriz, 1.910. urteko abuztuaren 7an nobillada eman zuten, Casimiro Castellote *Vallecano, Riojano* eta *Ostión* toreatzaile zirela[4].

Iruñean 1.910. urteko sanferminetarako lau korrida eta proba bat iragarri ziren. Uztailaren 7an, arratsaldeko lau t'erdietan Villagodio-ko markesaren sei zezen toreatuko zituzten Ricardo Torres *Bombita*, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Jose Claro *Pepetek*. Uztailaren 8an Jose Pereira Palha Branco-ren zezenak hiltzera *Bombita, Machaquito* eta *Bilboko kotxeritoa* aurkeztuko ziren. Uztailaren 9an, goizeko bederatzi t'erdietan, Colmenar-eko Garcia Aleas-en hiru zezen toreatuko zituzten bezperako ezpatariek. Arratsaldean berriz, Murube-ren alargunaren sei zezen toreatu eta hiltzeko ardura *Bombita, Machaquito* eta Jose Claro *Pepetek* izango zuten. Uztailaren 10ean, Guadalest-eko markesaren sei zezen toreatzen *Bombita, Machaquito* eta *Bilboko kotxeritoa* arituko ziren[16].

Urte hartan, 1.910.ean, zezenak zenbat kostatzen ziren adieraztearren, Iruñera etorritakoen prezioak ipiniko ditugu jarraian:
- Tomasa Escribanoren (Muruberen alargunaren) sei zezen 11.000 pezeta
- Guadalest-eko markesaren sei zezen 10.000 pezeta

– Jose Pereira Palha–ren sei zezen 9.000 pezeta
– Villagodio–ko markesaren sei zezen 7.500 pezeta
– Aleas–en semeen hiru zezen 4.500 pezeta.

Dena dela sanferminak iritsi baino egun batzuk lehenago, ekainaren 26an, Felipe Salas–en zezen batek *Bombita* zauritu egin zuen Bartzelonan. Ezkerreko behatz txikia moztu egin behar izan zioten. Orduko kontratuen arabera, *Bombita*k 15.000 pezeta kobratuko zituen eta bere ordez beste ezpatari bat bidaliko zuen. Iruindarrek ez zuten irtenbide hura nahi, eta beste tratu batera iritsi ziren. *Bombita*ren koadrila osoak 8.000 pezetatan lan egingo zuen, eta beste 7.000 pezetatan Iruñeko Udalak atsegin zitzaion edozein ezpatari eraman zezakeen. *Bombita*ren koadrilarekin inork ez zuen toreatu nahi ordea, eta azkenean *Bombita* berak Manuel Torres *Bombita III.a* (bere anaia), Antonio Guerrero *Guerrerito* eta Jose Carmona *Gordito* bidali zituen bere ordez. Jose Carmona *Gordito* uztailaren 8an Palha–ren zezenak toreatzen aritu zen. Guztien eritziz sanfermin haietan lanik ederrena berak egin zuen. Belarri bat eman zioten (20 pezetako saria). *Machaquito*ri ere bai uztailaren 9an eta Manuel Torres–i ere bai korrida berean[70].

Toreatzaileei kontratuak egiteko era, 1.910. urtean aldatu egin zen. Esana dugu *Bombita*ren kasua aipatu dugunean kontratatutako ezpatari bat korrida baino lehen zauritzen bazen ezpatariak bere ordez beste bat bidaltzeko eskubidea zuela. Madrileko Indalecio Mosquera enpresari jaunak *Bombita* eta *Machaquito*ri kontratu era aldatu nahi izan zien. Aurrez zauritutako edo gaixotutako ezpatariak, nahiz eta kontratatua egon, ez zuen ezer kobratzeko eskubiderik izango; ezta bere kaodrilakoek ere. Enpresariak ordezkatuko zituen berak nahi bezala.

Mosquera enpresariaren baldintza denbora igaro ahala plaza guztietara hedatu zen[32].

1.910.ean bestetik, Akize–n Giret toreatzailea sabelean adarkatua izan zen korrida landetarrean. Urte hartan Landetan bost ganaduzale zebiltzan, bakoitza bere toreatzaile–koadrilarekin plazaz plaza. Barrere, Dubecq, Portalier, Passicos eta Darracq ziren ganaduzaleak, eta beren toreatzaile–koadrilako buru, Giovani, *Meunier*, *Mazantini*, Fillang eta *Meunier II.a* hurrenez hurren[21].

Horretaz gain aipatu beharra dago Landetako berezko zezen–kasta desagertzear zegoela, nahiz eta garai hartan Biscarrosse–n talderen bat artean egon[71].

13.- ZEZENAK XX. MENDEAN: LEHEN HAMARKADA. BIBLIOGRAFIA

(1) URUÑUELA ETXEBARRIA, EMILIANO. *La dama taurina de Abando.* Bilbo 1.973 (127–234. orr.)

(2) ERGOIEN, ANTONIO. *Charol, el picador bilbaino.* Vida Vasca 1.950 (216. orr.)

(3) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande.* Inprenta alemana argit. 1.916 (32, 55, 56, 99, 100. orr.)

(4) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1.978 (5, 7, 20, 23, 48, 49, 53, 109, 119, 123, 125, 130, 133, 138, 146, 161, 172, 181, 182, 185, 196, 211, 234, 259, 262, 271, 274, 275, 280, 296, 297, 312, 313, 325, 336, 352, 404, 407, 448, 453, 454, 471, 483, 487, 489, 492–494, 500, 514, 531, 538, 548, 561, 573, 575, 579–581, 606, 621, 623, 627, 639, 640, 646, 648, 652, 654, 669, 673, 682, 684, 698, 706, 715, 724, 739, 744–746, 807, 808, 855, 861, 902, 913, 915, 919, 940, 947, 948, 951, 952, 974, 990, 1001. orr.)

(5) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Bizkaiko Aurrezki–Kutxa argit. Bilbo 1.983 (10, 12, 13, 17, 19–21, 30, 39, 43, 48. orr.)

(6) X, X. *Banda municipal de música de Baracaldo,* in Encilopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 4. alea. Auñamendi argit. Donostia 1.969 (45. orr.)

(7) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 7. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1.984 (305, 665, 666, 669. orr.)

(8) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1.977 (80–90, 94. orr.)

(9) ZAPIAIN IRASTORTZA, JOSE. *La festividad de la virgen en Donostia como se celebraba antaño,* in Vida Vasca 1.927.

(10) ZELAIA ZENDOIA, MANUEL. *Fragmentos de la autobiografía de un nonagenario dedicados a una nonagenaria.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1.970 (124, 129, 131, 132, 137, 230. orr.)

(11) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipuzcoa.* Donostia 1.974 (46, 48, 62, 63, 74–79, 101–103, 112–114, 123, 136, 137, 139, 140–142, 166, 167, 180. orr.)

(12) E. ALDASORO, ANTON. *Ehun urteko tolosar xexenzalea,* in Egin 1983–I–30

(13) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (281, 289, 318, 321, 356, 357, 490, 491, 501, 508, 546, 547, 595, 631, 680, 703, 756, 757, 885. orr.)

(14) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia.* Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (382–391, 396. orr.)

(15) PINTO MAESO, LUIS. *Plazas de toros de España.* Pinmas argit. Madril 1981 (16, 17, 78, 79. orr.)

(16) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Pamplona. 100 años de carteles de fiestas y ferias de San Fermin.* Nafarroako Aurrezki–Kutxa argit. Iruñea 1982 (1901–1910)

(17) SARASA GONZALEZ, JORJE. *Pamplona y su historia en la vieja 'Plaza de Toros,* in Vida Vasca 1954 (151. orr.)

(18) ARAZURI, JOSE JOAKIN. *Pamplona estrena siglo.* 2. alea. Diario de Navarra bilduma. Iruñea 1980 (14, 62. orr.)

(19) CAL SEGURA, JOSE DE LA. *Genealogia de las cuatro castas fundacionales: Jijona, Cabrera, Vistahermosa, Vazqueña y La casta navarra,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (96, 97. orr.)

(20) LAFUENTE FERRARI, ENRIQUE. *La vida y el arte de Ignacio Zuloaga.* Revista Occidente argit. 1972 (89. orr.)

(21) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (50, 52, 130, 134. orr.)

(22) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 6. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (69, 267, 309. orr.)

(23) AZUMENDI, JERMAN. *Bilbao, Crcherito y su club*. Bilbo 1986 (24, 26, 38, 45, 47, 76, 102, 119, 162. orr.)
(24) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (189, 583, 584, 601, 610, 634, 646, 682, 989. orr.)
(25) URUÑUELA, LUIS. *Evocaciones vascongadas y recuerdos bilbainos*, in Vida Vasca 1946 (209, 210. orr.)
(26) X,X. *Eibar*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 10. alea. Auñamendi argit. Donostia (230. orr.)
(27) ANDUAGA, GRAZIANO. *Bertso bilduma*. 52–53. alea. Auspoa argit. Tolosa (270–280. orr.)
(28) ARTOLA, RAMON. *Napar zezen baten plazako azken jolasak*, in Euskal–Erria 1902. 47. alea. Donostia (90, 91. orr.)
(29) MUJIKA, SERAPIO. *Los días típicos donostiarras. Fiestas tradicionales*, in Euskalerriaren alde 1917. Donostia (141 orr.)
(30) MUJIKA, SERAPIO. *El veraneo en San Sebastián*, in Euskalerriaren alde. 1917. Donostia (378. orr.)
(31) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (397, 402. orr.)
(32) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1971 (360, 378, 662, 947, 954. orr.)
(33) AROZENA, ANTONIO. "DON CLARINES". *Treinta y cinco años de taurino*, in Vida Vasca 1945 (213, 214. orr.)
(34) ARANA GOIRI, SABINO. *Obras completas*. Sabindar–batza argit. Buenos Aires 1965 (2290, 2291. orr.)
(35) LOINAZ ODRIOZOLA, LUIS MARIA. *No hay San Ignacios sin toros*, in Azpeitia 85. Herri jaiak. Azpeitia 1985.
(36) ZABALA, ANTONIO. *Txirrita. Bizitza eta bat–bateko bertsoak*. 18–19. alea. Auspoa argit. Tolosa (166, 167. orr.)
(37) X,X. *Gros*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 16. alea. Auñamendi argit. Donostia (583. orr.)
(38) LASA, JOSE INAZIO. *Tejiendo historia*. Sociedad Guip. de Edic. y Publicaciones argit. Donostia 1977 (314, 315. orr.)
(39) LAKARRA, JOSE MARIA. *Historia del Reino de Navarra*. 3. alea. Nafarroako Aurrezki–Kutxa argit. Iruñea 1973 (360. orr.)
(40) GOÑI GAZTANBIDE, JOSE. *Historia de los obispos de Pamplona*. Lehen alea. Universidad de Navarra argit. Iruñea 1979 (295, 609. orr.)
(41) ZURITA, JERONIMO. *Anales de la corona de Aragón*. 4. alea. Madril, Bartzelona 1852 (76, 118. orr.)
(42) MURUGARREN, LUIS. *Nomenclator onomástico vasco*, in Boletin de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País 1977. Donostia (247. orr.)
(43) AROZENA, FAUSTO. *Una nueva versión del padrón donostiarra*, in Boletin de la real Soc. Vasc. de Amigos del País 1953 (354, 356. orr.)
(44) M, R. *Programa veraniego*, in Diario Vasco 1984–VII–4.
(45) BLEU, F. *Antes y después del Guerra*. 117. alea. Austral bilduma. Espasa–Calpe argit. Madril 1983 (237–242, 362. orr.)
(46) X, X. *Diaz, Torada de*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 9.alea. Auñamendi argit. Donostia (239. orr.)
(47) ZABALA, FEDERIKO eta GARMENDIA LARRAÑAGA, JOAN. *Tolosa*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (101. orr.)
(48) SAINZ PEREZ LABORDA, MARIANO. *Apuntes tudelanos*. Lehen alea. Tutera 1913 (497, 498. orr.)

(49) BUSCA ISUSI, JOSE MARIA. *Anecdotario de Mazzantini*, in Diario Vasco 1983–V–4
(50) MURUGARREN, LUIS. *Hernani. Su historia e instituciones*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (67. orr.)
(51) ALKAIN, IÑAKI eta ZABALA, ANTONIO. *Alkain aita–semeak*. 91. alea. Auspoa argit. Tolosa 1970 (34–36. orr.)
(52) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (639, 1081. orr.)
(53) ARTOLA, RAMON. *Itsasoan zezenen korrida*, in Euskal Erria 1907. 57. alea. Donostia (517–520. orr.)
(54) IRAOLA, BITORIANO. *Oroitzak, eta beste ipui asko*. 9. alea. Auspoa argit. Tolosa (34, 36, 37, 133–135. orr.)
(55) ZABALA, ANTONIO. *Arrantzaleen bizitza*. 133. alea. Auspoa argit. Tolosa (151, 154. orr.)
(56) X, X. *Jose Arana*, in Euskal Erria 1908. Donostia (531, 534, 536. orr.)
(57) LETONA, JOSE eta LEIBAR, JOAN. *Valle de Leniz. Arechavaleta y Escoriaza*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1975 (124–126. orr.)
(58) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Los Clubs Taurinos de Pamplona*, in Vida Vasca 1952 (162. orr.)
(59) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *El último brindis a Sarasate en la vieja plaza de toros de Pamplona*, in Vida Vasca 1956 (170, 171. orr.)
(60) CAMPO, LUIS DEL. *Toros en Pamplona (S. XVII)*. Navarra. Temas de cultura popular. 250. alea. Iruñea 1976 (16. orr.)
(61) VEGA, LUIS ANTONIO DE. *Las señoritas toreras*, in Los toros en España. 2. alea. Orel argit. Madril 1969 (218, 219. orr.)
(62) FRADE, K–Toño. *La plaza de toros de Indauchu*, in La gran Enciclopedia Vasca. 9. alea. Bilbo (345, 346. orr.)
(63) URUÑUELA, LUIS. *De la plaza de toros de Indauchu al nuevo ensanche de Bilbao*, in Vida Vasca 1949 (190–192. orr.)
(64) X, X. *Jose de Arrue y Valle*, in Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana. 3. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo (183. orr.)
(65) "CAMARON". *Un as de espadas. Zacarias Lecumberri*, in Vida Vasca 1957 (249, 251. orr.)
(66) B, A. *Asociación de propietarios de plazas de toros*, in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 3. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (447. orr.)
(67) MUJIKA, SERAPIO. *Guipuzcoa*, in Geografia del País Vasco Navarro. Carreras Candi argit. Bartzelona 1917 (774. orr.)
(68) LETONA, JOSE. *Los mondragoneses siempre se han destacado como amantes de la fiesta brava*, in Diario Vasco 1983–VI–23
(69) PELLETIER, CLAUDE. *La tauromachie et les basques*. Donostia 1981 (7, 16. orr.)
(70) CAMPO, LUIS DEL. *Los Carmona en Pamplona*. Navarra. Temas de cultura popular. 338. alea. Iruñea 1979 (25–28. orr.)
(71) LAFORCADE, MICHEL. *La tauromachie dans le Soud–Ouest de la France*. Mendi Martzana 1984 (40, 41. orr.)

14.–ZEZENAK XX. MENDEAN: BIGARREN HAMARKADA

Aldaketa handirik gabe XX. mendearen bigarren hamarkadan, lehen hamarkadan bezalaxe zezenfesta ugari izan zen Euskal Herrian. Bertako toreatzailerik famatuenak batez ere bizkaitarrak izanik, han–hemenka korrida eta nobillada asko ematen zen gure lurretan, denetan nagusi Bilboko Vista Alegreko plaza zelarik.

Han 1.911. urteko denboraldia martxoaren 12an hasi zen nobillada baten bitartez. Jose Bueno–ren lau zezenko korritu ziren orduan, Serafin Bigiola *Torkito* eta Zakarias Lekunberri ezpatari zirelarik. Zezenko txiki eta ahulak toreatu zituzten bi bizkaitar haiek. *Torkito*k ofizioan aurrera zihoala erakutsi zuen, eta Lekunberrik berriz, ausardia batez ere.

Martxoaren 19an eman zen Vista Alegren bigarren nobillada. Andres del Campo *Dominguin* eta Francisco Diaz *Pacorro*k Jose Bueno–ren bi zezenko eta Andres Sanchez–en beste bi toreatu zituzten. Andres Sanchez–en zezenko bat erdiitsua zen. *Dominguin*ek ez zuen gauza onik egin arratsalde osoan. *Pacorro* berriz bizkar gainean atera zuten.

1.911. urteko hirugarren nobillada martxoaren 26an eman zen Bilboko Vista Alegren. A. Sanchez Cabezudo–ren lau zezenko hiltzera Pacomio Peribañez eta Eusebio Fuentes etorri ziren. Pacomio Peribañez–ek belarri bat lortu zuen. Fuentes berriz, txalotua izan zen arratsalde euritsu hartan.

Apirilaren 2an emandako nobilladan Jose Bueno–ren lau zezenko koldar plazaratu zituzten Vista Alegren, Juan Cecilio *Punteret* eta Angel Ramos *Improvisao* toreatzaileentzat. *Punteret* ongi egon zen, eta *Improvisao* ez.

Apirilaren 9ko nobilladan, Zakarias Lekunberri eta Angel Ramos *Improvisao* aritu ziren Bilboko Vista Alegren Bueno–ren hiru zezenko eta Amador Garcia–ren beste bat hiltzen. Lekunberrik ausardia handia eta arte gutxi erakutsi zuen, eta *Improvisao* bilbotarrak batekoz bestera.

1.911. urteko apirilaren 16an seigarren nobillada eman zuten Vista Alegren. Amador Garcia–ren sei zezenkoak erabat koldarrak suertatu zirenez gero, Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez Ortega *Joselito*k ezer egiterik ez zuten izan. *Joselito*k iskintxo eginez sartutako banderila–pare bat da azpimarratzeko gauza bakarra.

Vista Alegren hurrengo nobillada, apirilaren 23an eman zen. Tabernero–ren lau zezenko hiltzera Antolin Arenzana *Recajo* eta Alfonso Cela *Celita* aurkeztu ziren. Zezenko koldar haiekin, ausart jokatu zuten bi ezpatariek. Belarri bana eman zieten, eta *Celita* galegoa bizkar gainean atera zuten.

Apirilaren 21eko nobillada toreatzera, Serafin Bigiola *Torkito* eta Zakarias Lekunberri etorri ziren Vista Alegrera. Patricio Sanz–en sei zezenkoak koldarrak atera zitzaizkien. *Torkito* burutsu eta oso ederki aritu zen. Lekunberri oso ausart ohi bezala. Zezenko batek harrapatu egin zuen.

1.911.eko apirilaren 30ean, urteko lehen korrida eman zen Bilboko Vista Alegren Julian Etxebarriak antolaturik. Dionisio Pelaez–en sei zezen jokatu ziren orduan, Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Kastor Jauregibeitia ezpatari zirela. Toreatzaile bakoitzak belarri bat irabazi zuen, zezen koldar samar haiek hil ondoren.

Etxebarria enpresari bilbotarrak antolatuta, maiatzaren 2an urteko bigarren korrida eman zen Bilbon. Luis da Gama portugaldarrak bidalitako sei zezenak ongi portatu ziren plazan. Rafael Gonzalez *Machaquito* eta *Bilboko kotxeritoak* hil zituzten. *Machaquito* bi zezenetan ondo ibili zen. Manuel de la Haba *Zurito* pikatzaileak zezen bat ia hil egin zion. Beste batean belarria lortu zuen. Kastor Jauregibeitiari berriz, bi belarri eman zizkioten.

1.911. urteko maiatzaren 7an beste nobillada bat izan zen Vista Alegren, Jose Bueno–ren lau zezenko korrituz. *Cocherito chico* eta Zakarias Lekunberrik toreatu zituzten. Bata zezenko batean txalotua izan zen eta bestea bere ausardiari esker moldatu zen.

Maiatzaren 14eko nobilladan, Dionisio Pelaez–en lau zezenko toreatzen Ambrosio Sarmiento eta Antolin Arenzana *Recajo* aritu ziren Vista Alegren. Oso zezenko zailak suertatu zitzaizkien, baina hala ere *Recajo* batean txalotua izan zen. Sarmiento–k legea bete zuen.

Maiatzaren 28ko nobilladan R. Jimenez–en sei zezenko jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Lau koldarrak izan ziren eta beste bi onak. *Tabernerito* eta beste bik hil zituzten.

1.911. urteko ekainaren 11n Bilboko bizarginek zekorketa bat antolatu zuten Vista Alegren. L. Baeza–renak izan ziren zekorrak.

Ekainaren 15ean, beste nobillada bat eman zuten Vista Alegren, Veragua–ko dukearen sei zezenko korrituz. Serafin Bigiola *Torkito*, Rodolfo Rodarte mexikarra eta Zakarias Lekunberri izan ziren toreatzaileak, zezenko suhar eta latz haiekin. *Torkitok* burutsu jokatu zuen. Batean txaloak jo zizkioten eta bestean belarria eman zioten. Rodarte berria zen Vista Alegren, baina belarri bat lortu zuen. Lekunberrik ere bai, bere ausardiari esker. Francisco Andujar *Ciervana* eta Luziano Bilbao *Lunares* banderilariak ere luzitu ziren.

Ekainaren 18an Vista Alegren Amador Garcia–ren lau zekor plazaratu zituzten ganadu–hiltzaileak diberti zitezen.

1.911.eko uztailaren 9an urteko hirugarren korrida ospatu zen Vista Alegren, *Kotxerito* elkarteak antolatuta. Dionisio Pelaez–en sei zezen jokatu ziren orduan, Kastor Jauregibeitia eta Rufino San Bizente begoñatarrak ezpatari zirela. Zezen suhar haiekin *Bilboko kotxeritoak* arratsalde biribila izan zuen. Kapotez, banderilak launaka sartzen, muletaz eta ezpataz lanak ederki burutu zituen. Hiru belarri (zezeneko bat, orduko usarioari jarraituz) eman zizkioten. *Begoñako Txikiak*, bere ausardiari esker belarri bat lortu zuen. Fabian Bilbao eta Jose Agudo *Ceniza* pikatzaileak nahiz Jose Muñagorri eta Matias Aznar *Armillita* banderilariak ere nabarmendu ziren arratsalde biribil hartan.

Bilbon abuztuko korridak, hilaren 20an hasi ziren. Lehenengoan Felix Urkola ganaduzale bilbotarraren sei zezen toreatu zituzten Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Antonio Boto *Regaterinek*. Urkola jauna eta hirugarren zezena txalotuak izan ziren. Vicente Pastor–i ere txaloak jo zizkioten, baina zezenak, hiltzerakoan, harrapatu egin zuen. Horregatik *Bilboko kotxeritoak* hiru zezen hil zituen. Bi belarri irabazi zituen. *Regaterini* ere txaloak jo zizkioten bere ausardiagatik.

Bigarren korridan, 1.911.eko abuztuaren 21ekoan, Rafael Gomez *Gallo*, *Bilboko kotxeritoa* eta Antonio Boto *Regaterinek* Murube–ren sei zezen suhar (bat ezik) toreatu zituzten. Rafael Gomez *Gallok* txaloak bere bigarrenean entzun zituen. Kastor Jauregibeitia bikain aritu zen eta bi belarri irabazi zituen. *Regaterinentzat* jendeak belarria eskatu zuen bere lehenengoan, eta azken

zezenean euria hasi zen.

Abuzutaren 22ko korridan, Mihuraren zezen handiak jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Rafael Gomez *Gallo, Bilboko kotxeritoa* eta Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete* ezpatariek lan egin zuten orduan. Mihura haiek 31 pikalditan 9 zaldi hil zituzten. Rafael *Gallo*k artez betetako lana burutu zuen bere lehen zezen handi harekin. Bere bigarrena ordea, nahiz eta txikiagoa izan, berehala hil zuen gustatu ez zitzaiolako. Toreatzaile burusoil famatu hark horrelako irtenaldiak ugari zituen. Kastor Jauregibeitia, Vicente Pastor–en ordez etorri zen. Zezen batean txaloak eta bestean txistuak entzun zituen. *Manolete* atera zen garaile arratsalde hartan. Batean belarria eman zioten, eta bestean txalo asko entzun zuen.

1.911.eko abuztuaren 23an eman zen Vista Alegren urte hartako azken korrida. Parladé–ren zazpi zezen, Murube–ren bat eta Urkola–ren beste bat hil zituzten bezperako ezpatariek. Rafael Gomez *Gallo*k bere bigarrengoan bakarrik entzun zituen txaloak. Beste bietan berriz, protestak. *Bilboko kotxeritoa*k belarria irabazi zuen batean, eta txaloak jo zizkioten besteetan. *Manolete* ez zen ongi ibili arratsalde hartan, eta zortzigarren zezenean korrida bertan behera utzi zuten euri asko ari zuelako.

1.911. urteko irailaren 3an Dionisio Pelaez–en sei zezenko korrituta nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Serafin Bigiola *Torkito*, Rodolfo Rodarte eta Matias Lara *Larita* toreatzaileek parte hartu zuten. Zezenko koldar haiekin *Torkito*ren jakinduria eta trebetasuna ikusi zen. Horregatik txalo ugari jo zion jendeak. Rodarte–k ez zuen asmatu, eta *Larita*k txaloak entzun zituen bere ausardiagatik.

Irailaren 8ko nobilladan Tabernero–ren lau zezenko hil zituzten Matias Lara *Larita* eta Zakarias Lekunberrik. *Larita*k txaloak entzun zituen, eta Lekunberrik ez. Gero Jose Mari Ibarrondo durangarrarentzat Muruberen zezenko bat plazaratu zuten, baina Durangon jaiotako gazteak ez zuen zorte onik izan.

Beste nobillada bat, 1.911. urteko urriaren 22an eman zen Vista Alegren. Tordesillas–eko Tertulino Fernandez–en lau zezenko eta Santiago Sanchez–en beste bi (koldarrak eta arriskutsuak) jokatu zituzten, *Torkito* eta Zakarias Lekunberri ezpatari zirela. Dena dela Serafin Bigiola–k bi belarri eta Zakarias busturiarrak beste hiru irabazi zituen.

Azaroaren 1ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren. Guadalix de la Sierra–tik Cortes ganaduzaleak bidalitako lau zezenkoak toreaezinak suertatu ziren. Hala ere Rodolfo Rodarte–k belarri bat irabazi zuen. Zakarias Lekunberrik ere txaloak entzun zituen, saiatu zelako[1].

1.911. urteko azaroaren 5ean, nobillada berezi bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Toreatzaile gazte desberdinek lehiaketa moduan parte hartu zuten eta *El Noticiero Bilbaino*ko Alejandro Etxeberria zuzendariodeak lehen aldiz *nobelen nobillada* izendatu zuen lehiaketa hura[2]. Dena dela Nafarroako Alesbes–etik Felipe Sasa ganaduzaleak bost zezenko txiki eta suhar bidali zituen. Paseorako kapotea zen toreatzaile *nobel*ik onenarentzako saria. Eduardo Aretxabala–k (*Txabatxa*k) irabazi zuen lehen sari hura. J.M. Irala–ri erloju bat eman zioten. *Pablete* eta *Martinito de Begoña*k ere parte hartu zuten orduan.

Azaroaren 8an Vista Alegren beste nobillada batean Luis Freg mexikarra eta Angel Ramos *Improvisao* aritu ziren guztiz zezenko arriskutsuak toreatzen. Bi ezpatariak zauriturik suertatu zirelako, laugarren zezenkoa toriletara itzuli behar izan zuten[1]. Zezenko marraju haiek Santiago

Sanchez Terrones ganaduzaleak bidaliak ziren[3].

1911. urteko azken nobillada Vista Alegren azaroaren 22an eman zen, Tertulino Fernandez–en lau zezenko jokatuz. Zezenko noble eta errazak izan zirenez gero, Serafin Bigiola *Torkito* eta Zakarias Lekunberrik lau zezenkoetan bost belarri irabazi zituzten.

Urte hartan bestetik, *La Tertulia Taurina* zezenzaleen elkarteak (*Kotxerito* baino lehenagokoak) zuen egoitza erre egin zen[1].

Zenbaitek dioenez, 1.911.eko maiatzaren 25ean Vista Alegren Clairac–en zezenkoak hil omen zituen Pedro Perez *Facultades chico* toreatzaile perutar beltzak. Abuztuaren 25ean berriz leku berean Manuel Pulido *Cubanito* beltzaran kubatarrak[3].

1.911. urtean bestetik Bilboko Vista Alegre–ko plazari buruzko liburu interesgarria argitaratu zuen Jose Maria Terán *Pescadilla* idazleak. *Vista Alegre, 1882–1910* izenburua ipini zion liburuari *El Noticiero Bilbaino*ko Terán kazetariak[4].

Dena dela Bilboko toreatzailerik famatuena Kastor Jauregibeitia zen 1.911. urtean. Urte hartan zezenak toreatzen berandu samar hasi zen erreumak jota zebilelako. Hala eta guztiz ere 59 korridatan parte hartu zuen 152 zezen hilez. *Machaquito* bakarrik izan zen 1.911. urtean berak baino korrida gehiagotan (60tan) toreatutako bakarra, nahiz eta guztira bilbotarrak baino bi zezen gutxiago hil[5].

Kastor Jauregibeitia Ameriketatik apirilaren 2an heldu zen Bilbora eta herritar asko joan zen hari ongietorria egitera. Bilbon *Kotxerito* elkarteak korridak antolatu zituen Vista Alegren Errukietxe eta Ospitalearen alde, eta Kastor–i, laguntzaile ona izan zelako, motoa erregalatu zioten. Oso motozalea zen *Bilboko kotxeritoa*[6]. Kastor Jauregibeitia–k 1.911.eko irailaren 6an Huelva–n toreatu zuen Miguel Baez *Litri* eta Francisco Martin *Vazquez*ekin batera. Castellones–etako markesaren zezenak hil zituzten orduan. Urte hartan bestetik, Candido Muñoz *Pulga de Triana* banderilaria Kastor–en koadrilan lanean hasi zen[3].

Alternatiba hartuta zezenak hilez zebilen beste bat, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* dugu. 1.911. urtean 18 korridatan parte hartu zuen 46 zezen hilez. Zezenek jadanik gutxienez hogei aldiz kolpatua zuten Rufino, baina hala ere han zebilen ausardia mermatu barik[5]. Urriaren 30ean Mexiko hiriburuan Tepeyahualco–ren zezenak toreatzen ari zenean, lehenengoak ipurtaldean adarkatu egin zuen[3].

Esan beharra dago Rufino San Bizentek 1.911.eko apirilaren 16an Manuel Torres *Bombita III.a* eta Francisco Martin *Vazquez*ekin Parladé–ren zezenak hil zituela. Goizean ordea, zaldiak probatzerakoan Rufino–ren koadrilako Frantzisko Sarasua *Txarol*ek erori eta eskuineko zangoa hautsi egin zuen. Harez gero elbarriturik ibili zen *Txarol*, eta Bilbon uztaileko 9an emandako korridan (1.911.ean), 2.000 pezetako laguntza bildu zen Sarasua pikatzailearentzat[7].

Zezenko–hiltzaile bizkaitarren artean famatuena Serafin Bigiola *Torkito* zen 1.911. urtean. Asko toreatu zuen urte hartan. Bere koadrilan Felipe Antxustegi *el Largo* pikatzaile bilbotarra hasi zen lanean 1.911.ean. Justo Sanchez del Cerro *Zurini* banderilaria ere orduantxe sartu zen Serafin–en koadrilara, Jose Sañudo *Carnicerito* banderilari bilbotarra bezalaxe.

Serafin Bigiola abuztuaren 1ean Karrantza–n bere anaia Faustino Bigiola *Torkito II.*arekin batera toreatzen aritu zen. Faustinok han lehen bi zekorrak hil ziuten, eta gero irailaren 17an Tetuan

de las Victorias–eko plazan beste bi[3]. Faustino–k ekainaren 18an Vista Alegreko zekorketan ere toreatu eta banderilak sartu zituen[5].

Serafin Bigiola–k berriz, Madrilen abuztuaren 27an Francisco Ferrer *Pastoret* eta Fernando Rosales *Rosalito*rekin batera Olea–ren zezenkoak hil zituen. Leku berean irailaren 10ean ere bai Arribas–en zezenkoak Serafin Ibañez *Corcelito* eta Manuel Martin *Vazquez II*.arekin hilez. Urriaren 29an berriz Muruberen zezenkoak toreatu zituen Madrilen, Eusebio Fuentes eta *Vazquez II*.arekin batera[3].

Alejandro Saez *Ale* zen 1.911.ean toreatzen ari zen beste bilbotar bat. Baina urte hura benetan garrantzitsua Diego Markiaran (errez eta ez zetaz) *Fortuna*rentzat izan zen. Sestaoar gazte hark urriaren 15ean Indautxuko plazan emandako nobilladan jantzi zuen lehen aldiz traje distiratsua. Agustin Rodriguez (lehen Maria Salomé *la Reverte* izenez ibilitako berbera) eta Jose Mari Ibarrondo ezpatariek parte hartu zuten orduan Manuel Morena ordezko ezpatari zelarik. Diego Markiaran *Fortuna* kartel hartan agertzen da lehen aldiz. *Fortuna* izenordea, aurrez Valladolid–en trenean izandako istripu bategatik ipini zioten. Bere laguna hil egin zen trenetik erorita, eta Diego zauriturik baina bizirik fortunatu zen. Dena dela, Diego Markiaran 1.911.eko azaroaren 11n Bizkaiko Labegaraitan lanean hasi zen, egunean 2,25 pezetako soldata zuelarik[5].

Antolin Arenzana *Recajo* ere toreatzen ari zen 1.911.ean. Apirilaren 9an Madrilen Mihuraren zezenkoak toreatzen ari zela, ezpataz ezkerreko hanka zauritu zuen.

Inazio Ocejo *Ocejito* bilbotarra ere 1.911.ean hasi zen banderilari gisa bere herrian lanean. Jose Tuñón banderilari bilbotarra ere bai. Hura irailaren 5ean estreinatu zen Plentzia–n. Han Patricio Sanz–en zezenko batek adarkatu egin zuen banderila–pare bat sartzerakoan[3].

Zakarias Lekunberri busturiarra dugu 1.911.urtean asko toreatutako beste bat. Gutxi gorabehera 30 nobilladatan parte hartu zuen. Madrilen ere bai abuztuaren 20an, Alfonso Cela *Celita* eta Serafin Bigiola *Torkito*rekin batera Laffitte–ren zezenkoak hilez. Madrilen, egia esan, Zakarias–en toreatzeko era ez zen asko gustatu, nahiz eta ausardia inork ukatu ez[3].

Urte hartantxe, 1.911.ean, Jose Larrea idazleak Zakarias Lekunberriri eskainitako liburua argitaratu zen Bilbon. *Capeando temporales y matando toros* zuen izenburua, marinel eta toreatzaile muruetarraren gorabeherak adierazten zituen idazlan hark[4].

Lekunberri dena den, 1.911. urteko uztailaren 23an Hondarribian zen Colmenar Viejo–ko Vicente Bertolez–en zezenko handi eta adarluzeak Adolfo Guerra–rekin batera toreatzen. Artean Donostian toreatu gabe zegoenez, jendeak ikusmin handia zuen busturiarraren ausardia eta fama medio.

Adolfo Guerra kolpatua izan zen banderila–pare motz bat sartzerakoan, baina bere faenetan ausardia erakutsi zuen eta txaloak jo zizkioten. Zakariasek berriz, ikusle guztiak arratsalde osoan asaldatuta eduki zituen. Bere eskubakar–lantzez eta muleta erabiltzerakoan zuen gelditasunaz txunditurik zeuden guztiak. Gero zezenkoak hiltzerakoan, lautan harrapatua izan zen, baina busturiarra ez zen kokildu. Hirugarren zezenkoak, galtzak erabat apurtu zizkion. Arratsalde hartan dena dela, Zakariasek nahikoa zortea izan zuen etxera onik joateko era izateagatik[8].

Lekunberri ordea, arriskutan ibiltzea gustatzen zitzaion horietakoa zen. Hori dirudi behintzat gasteiztarrek ziotena entzunda. Izan ere urriaren 7an Zakarias muruetarra Bilbotik Logroniora toreatzera zihoala (8an zuen nobillada) Arabako hiriburutik motoan pasatu zen, eta ikusi zutenek

ziotenez, motoa baino gehiago hegazkina zirudien Lekunberriren eskutan.

Gasteizen bertan ere Zakarias Lekunberrik toreatu zuen abuztuaren 22an Pacomio Peribañez–ekin batera. Zalduendoren zezenkoak hil zituzten, itzaletik ikustea 2 pezeta eta eguzki aldetik 1,5 pezeta kostatzen zen nobillada hartan. Nobillada amaitu zenean, hurrengoan Justo Garcia *Gitanillo* gasteiztarrak torea zezala eskatu zuten batzuek.

Dena dela 1.911. urtean Gasteiz–en enpresa bat sortu zen urte hartan abuztuaren 6 eta 7an korridak eta uztailaren erditik irailaren erdirarte beste bi nobillada antolatzeko. Simon Hernandez zinegotzia zen enpresako lehendakari.

Santiago bezperaren bezperan, igandea zelako, lehen nobillada eman zuten. Pacomio Peribañez eta Alfonso Cela *Celita* kontratatu zituzten. Peribañez–ek ez zuen zorte onik izan. *Celita* berriz bizkar gainean atera zuten. Zezenkoak txarrak suertatu zitzaizkien.

Abuztuaren 6ko korridan, Esteban Hernandez–en zezenak jokatu ziren Gasteiz–en. Tomás Alarcón *Mazzantinito* eta Rodolfo Gaonak hil zituzten. Biharamuneko korridan, 1.911.eko abuztuaren 7koan, Francisco Martin *Vazquez* eta Gaona–k Aleas–en zezenak toreatu zituzten. *Vazquez*, Vicente Pastor–en ordez etorri zen[9]. Korrida hartan Manuel Mareca ordezko pikatzailea adarkatu egin zuen zezen batek.

Garai hartan, Gasteizen toreatzen hasitako gazte–koadrila bat bazegoen. Leon Zalama gasteiztarra adibidez, sastakari gisa lanean ari zen bere herrian 1.911.ean edo hurrengo urtean[3]. Rafael Garcia *Gitanillo chico* eta Leoncio Aristo *Chico de la Voz* toreatzaileek Pedro Isasi *Modelito* zeramaten ordezko ezpatari, eta banderilari gisa Valeriano Mestre *Valerito*, Lino Egiraz *Pulsito* eta Isidoro Perez *Vitorianito*. Denak ere gasteiztarrak ziren.

1.911. urtean bestetik, bazen Irakeo Salbarain izeneko gazte araiar bat. Hamasei urte besterik ez bazituen ere, toreatzaile izan nahi zuen eta herriz herri zebilen fardela lepoan hartuta zezenetatik zezenetara. Zoritxarrez, Valladolid–era zihoala Pisuerga ibaian bainatzen ari zela ito egin zen[9].

1.911. urtean Azpeitian, zezenplaza berriz errentan eman baino lehen, Udalak lurrean zerrenda bat harriztatzea erabaki zuen, bertan idiprobak eman zitezen. Harria Aizarnako harrobietatik ekarriko zuten.

Herriko plaza nagusia ikuskizunetarako errentan hartua zeukanak ordea, bere protesta agertu zuen, kalte egiten zitzaiolako; idiprobak han izaten bait ziren. Udalak ordainetan bi urteko errentak ez zizkion kobratu.

Azpeitiko zezenplaza biribila Luis Ezeiza jaunak hartu zuen berriz ere urtero 1.000 pezeta ordaintzekotan. 1.911. urtean ordea, Udalari subentzioa eskatu zion, Kastor Jauregibeitia saninaziotan bi korridatarako kontratatu nahi zuelako. *Bilboko kotxeritoak* berak eskaintza ona egin zien azpeitiarrei bi korridetarako (saninazio egunerako eta biharamunerako), baina hala ere korriden kostua nobilladena baino handiagoa zen. Horregatik Ezeiza jaunak 1.000 pezeta eta sarreren prezioak zertxobait igotzeko baimena eskatu zion Udalari.

Udalak urteko errentarik ez kobratzea erabaki zuen, eta Kastor Jauregibeitia kontratatu zuen Luis Ezeiza enpresariak. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean Manuel Garrido–ren launa zezen korritu ziren. Lehen hirurak *Bilboko kotxeritoa*rentzat ziren eta laugarrena Zakarias Lekunberrirentzat.

Lehen korridan, Kastor bilbotarrak lehenengo zezenean belarria lortu zuen. Lekunberriri laugarrenean txaloak jo zizkioten. Bigarren korridan berriz, *Bilboko kotxeritoak* lehenengoan belarria irabazi zuen eta hirugarrenean txaloak jo zizkioten[10].

Irunen 1.911. urtean zezenplaza berrian, ekainaren 30ean Antonio Guerra–ren ganadua Fermin Muñoz Gonzalez *Corchaito* cordobarrak arrakastaz toreatu zuen. Gero uztailaren 2an Enrique Vargas *Minuto* etorri zen Cobaleda–ren zezenak hiltzera. Cobaleda–k bidalitako abelgorriak Espoz y Mina eta Karrikiri–ren kastakoak ziren.

Uztailaren 30eko korridan, eskandalua sortu zen Irungo zezenplazan. *Machaquito*k Dionisio Pelaez–en lau zezen hil zituen. Zezenak ordea ez ziren korrida batean aurkezteko modukoak. Ezpataria gainera gaizki egon zen eta jendea Zarandona lehendakari jaunari protestaka aritu zitzaion. *Bombita* korrida hartan eserleku batean zegoen ikusle gisa, eta jendeak hari bakarrik jo zion txalo[8].

Donostian 1.911. urtean *La Volante* izeneko elkarteak antolaturik nobillada bat eman zen zezenplazan urtarrilaren batean. Ezpatariak etiketa jantzian agertu ziren. Pikatzaileek berriz frak gorria eta galtza zuriak zeramatzaten, buru gainean txistera zutela. Jantzi haiek jendeari asko gustatu zitzaizkion eta *Llapisera* bezalaxe toreaketa barregarrian ari zirenak erabiltzen hasi ziren. Hildako zezenkoak, automobil bati lotuta atera zituzten plazatik[11]. Zezenko haiek Tuterako Fermin Lopez–enak ziren; Concha y Sierra eta Mihura–ren abereak nahastuta sortu zuen ganadutegikoak. Apollón Manis handiak (165 kilo pisatzen zuen), Tancredo jaunarenak egin zituen plazan. Luziano Bilbao *Lunares* izan zen plazako zuzendari, eta toreatzaile batek baino gehiagok jaso zituzten zezenkoen kolpeak.

1.911. urteko udaberrian, Donostiako kazetarien elkarteak bi korrida antolatu zituen. Zailtasun handiak izan zituen elkarteak, batetik Mihurak bere zezen guztiak jadanik salduak zituelako eta Vicente Martinez–ek Donostiarako moduko ganadurik ez zeukalako.

Abuztuan ere eman ziren korridak Txofre–ko plazan ohi bezala. Hilaren 6ko korridan, Villagodio–ko markesaren *Gitano* zezenak 5.000 pezetako saria irabazi zuen, arratsalde hartan suharrena izan zelako.

Donostian bestetik, urte hartan *San Sebastian Taurino* izeneko aldizkaria argitaratzen zen[8]. Baita *Sombra y Aire* izenekoa ere[4].

Iruñean 1.911. urteko sanferminetarako lau korrida eta proba bat iragarri zituzten. Uztailaren 7an Villagodioko markesaren sei zezen Rafael Gonzalez *Machaquito*, Rafael Gomez *Gallo* eta Manuel Rodriguez Sanchez *Manoletek* hilko zituzten. Uztailaren 8an Jose Pereira Palha–ren sei zezen toreatzen *Machaquito*, Vicente Pastor eta *Manolete* arituko ziren. Hilaren 9an goizean proba izango zen Villagodio–ko markesaren hiru zezen korrituz. *Machaquito*, Vicente Pastor eta *Gallo* izango ziren ezpatariak. Arratsaldean Fernando Parladé sevillarraren sei zezen Pastor, *Gallo* eta *Manoletek* hilko zituzten. Uztailaren 10ean azkenik, Felipe de Pablo Romero–ren sei zezen *Machaquito*, Pastor eta *Gallok* hilko zituzten.

Hona hemen ezpatari bakoitzaren koadrilan etorriko zirenak:

*Machaquito*ren koadrilan: Manuel de la Haba *Zurito*, Antonio Luque *Gordo*, Salvador Garcia *Alcalaino* (pikatzaileak), Ricardo Luque *Camará*, Enrique Berenguer *Blanquet*, Manuel Saco *Cantimplas* (banderilariak) eta Jose Gonzalez Madrid (sastakaria).

Vicente Pastor-en koadrilan: Francisco Codes *Melones*, Pedro Navarrete *Cantaritos* (pikatzaileak), Jose Barbastro *Pepin de Valencia*, Ramon Arango *Aranguito*, Emilio Moreno *Morenito de Valencia* (banderilariak) eta Francisco Torrijos *Pepin de Madrid* (sastakaria).

Rafael Gomez *Gallo*ren koadrilan: Cipriano Moreno *el Moreno*, Manuel Aguilar *Carriles*, Felipe Salsoso (pikatzaileak), Manuel Blanco *Blanquito*, Alejandro Alvarado, Manuel Alvarez *Posturas*, Elias Labrador *Pinturas* eta Joaquin del Rio *Alones* (sastakaria).

Manuel Rodriguez Sanchez *Manolete*ren koadrilan: Rafael Roldan *Quilin*, Rafael Marquez *Mazzantini* (pikatzaileak), Francisco Gonzalez *Chiquilin*, Fernando Diaz *Mancheguito*, Rafael Bejarano *Pataterillo* (banderilariak) eta Francisco Gonzalez (sastakaria)[12].

1.911. urtean, Anastasio Jimenez *Riberano* toreatzaile tuterarrak nobilladatarako bere burua ezpatari gisa eskaintzen zuen. Lanean gutxi aritu zen inola ere tuterar hura[3].

Urte hartantxe, Antonio Barroso jaunak (Gobernazio-ministrariak), zezenplazatako erizaindegiek bete behar zituzten baldintzak argitaratu zituen Erret agindu baten bitartez[13].

Landetan Barrere, Dubecq, Portalier, Passicos eta Darracq ganaduzaleen koadrilatan Coran, Martin J., *Mazantini*, Fillang eta *Sans-Peur* toreatzaileak zebiltzan taldeburu hurrenez hurren. Joseph Coran-ek urte hartan 20 lehen sari atera zituen. Salto, iskintxo eta lantze guztiak egiten zituen Landetako toreaketan Coran-ek[14].

———— o ———— o ————

1.912. urtean zezenetako denboraldia oso goiz hasi zen Bilboko Vista Alegren; urtarrilaren 6an hain zuzen. Roke Alaiza tuterarraren semeek lau zezenko bidali zituzten Jose Tuñón begoñarrak eta Alejandro Irala bilbotarrak torea zitzaten. Zezenko noble eta itsaskorrak izan ziren. Tuñón-ek batean abisu bat entzun zuen eta bestean ez zuen ezer egin. Alejandro Iralari belarri bat eman zioten bere lehenengoan[1]. Alejandroren koadrilan Jose Irala bere anaia zaharragoak lan egin zuen banderilari gisa[3].

1.912.eko urtarrilaren 21ean izan zen bigarren nobillada Bilboko Vista Alegren. Roke Alaizaren lau zezenko jokatu ziren orduan ere; suharrak eta ahulak. Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Eduardo Aretxabaleta *Txabatxa* bilbotarrek toreatu eta hil zituzten. *Torkito II*.ak lana erraz eta seguru egin zuen eta *Txabatxa*k zorterik ez zuen izan.

Martxoaren 3ko nobilladan Vista Alegren Luis Baeza-ren lau zezenko hiltzera Jose Muñagorri eta Inazio Ocejo *Ocejito chico* bilbotarrak aurkeztu ziren. Zezenko argal eta koldar haiekin Muñagorrik belarria lortu zuen lehenengo bietan eta hirugarrenean txalotua izan zen. *Ocejito chico* ezpatariorde gisa aritu zen lanean.

Martxoaren 10ean Cobaleda-ren lau zezenko iheskor korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Haiekin Rodolfo Rodarte eta Angel Ramos *Improvisao*k ahaleginak egin zituzten. Rodarte-k belarri bat irabazi zuen eta Ramos gaizki egon zen.

1.912.eko martxoaren 17an, bostgarren nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren. Rodolfo Rodarte, Zakarias Lekunberri eta Inazio Ocejo *Ocejito chico* aritu ziren Eloy Lamamié de Clairac-en lau zezenko eta Cobaledaren bat toreatzen. Cobaleda-ren zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten eta Clairac-enak suhar portatu ziren. Rodarte-k bere maila bati eutsi zion eta

Lekunberri kolpatua izan zen. Ocejo–k zezenko koldarrari belarria moztea lortu zuen.

Martxoaren 24ean Clairac–en bi zezenko, Baeza–ren beste bi eta Cobaleda–ren bat plazaratu zituzten Vista Alegren. Jose Muñagorri, Mariano Merino *Montes II.a* eta Inazio Ocejo *Ocejito chicok* lan egin zuten arratsalde hartan. Clairac–en ganaduak legea bete zuen, Baeza–rena koldar portatu zen eta Cobaleda–renari suzko banderilak zintzilikatu zizkioten. Muñagorri asko saiatu zen. *Montes II.a* berriz, asmatu ezinik ikusi zuten eta *Ocejitok* dotoretasuna eta ausardia erakutsi zituen.

Martxoaren 25ean *Kotxerito* elkarteak Riff–en hildako soldaduen familiei laguntzearren zekorketa eman zuen Bilboko Vista Alegre–n. Tovar–eko dukearen lau zekor hil zituzten Feliziano Etxebarria, Eduardo Alayo, Emilio Baqué eta Eduardo Teran–ek. Kastor Jauregibeitiak zuzendu zituen plazako lanak. Lau ezpatariak txalotuak izan ziren.

1.912.eko martxoaren 31n nobillada ospatu zen Vista Alegren Jose Bueno–ren lau zezenko korrituz. Zezenko maltzur eta arriskutsuak izan ziren haiek. Hala ere Francisco Ferrer *Pastoretek* ausardia eta trebetasunez belarri bat lortu zuen eta bizkar gainean atera zuten plazatik. Inazio Ocejo *Ocejito chico* bigarren zezenkoan zuaritua izan zen.

Apirilaren 14eko nobilladan, Felix Urkola–ren sei zezenko toreatu zituzten Vista Alegren Luis Guzman *Zapaterito*, Fernando Rosales *Rosalito* eta Francisco Posadas–ek. Urkola bilbotarraren zezenkoak oso suharrak izan ziren. Hamaika zaldi hil zituzten. *Zapateritok* bi belarri irabazi zituen, baina zezenkoak harrapatu egin zuen hiltzerakoan. *Rosalitok* txaloak entzun zituen batean eta belarria eman zioten bestean. Francisco Posadas *Posadas II.*ari ere bi belarri eman zizkioten.

Injinerutzako ikasleek antolaturik apirilaren 18an A. Garcia–ren lau zekor toreatu eta hil ziren Bilboko Vista Alegren Errukietxerako dirua biltzearren. Gero, apirilaren 21ean, Alaiza nafarraren zezenkoak toreatu zituzten Serafin Bigiola *Torkito*, Zakarias Lekunberri eta Francisco Posadas–ek. Txalo asko jo zioten *Torkito*ri. Baita Lekunberriri ere. Posadas berriz, bizkar gainean atera zuten. Onena bera izan zen.

1.912.eko maiatzaren 2an, Vista Alegren urteko lehen korrida eman zuten. Perez Tabernerorен bost zezen eta Soler–en alargunaren bat plazaratu ziren Ricardo Torres *Bombita* eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoak* lan egin zezaten. Laugarren zezena toriletara bueltatu zuten oso txikia zelako. Bueno–ren zezen bat ere bai.

Zezenek glossopeda ote zuten esaten zuen jendeak, apatxartetik odola zerielako. Ricardo Torres–i jendeak txalo jo zion toreaketan zehar, baina ezpataz huts egin zuen. *Bilboko kotxeritoa* asko saiatu zen. Ausardia eta zezenekiko ezagupideak erakutsi zituen. Bi belarri eman zizkioten.

Maiatzaren 5ean Vicente Martinez–en zezenak toreatu zituzten Vista Alegren emandako bigarren korridan. *Bombita* eta *Bilboko kotxeritoa* aritu ziren orduan ere. Hirugarren zezenari suzko banderilak ipini zizkioten. Ricardo Torres ezpataz hobeto ibili zelako belarri baten jabe egin zen. Kastor Jauregibeitiari gogo handia ikusi zioten, eta jendeak txaloka eskertu zion.

1.912.eko maiatzaren 12an Bilboko Vista Alegren Soler–en alargunaren bost zezenko eta Baeza–ren bat korritu ziren. Eusebio Fuentes eta Francisco Madrid–ek ez zuten ezer berezirik lortu zezenko zail haiekin. *El Sitio* elkarteak antolatu zuen nobillada hura.

Maiatzaren 16an Jaen–eko Lopez Quijano–ren zezenkoak hil zituzten Faustino Bigiola

Torkito II.a eta Zakarias Lekunberrik. Luis Guzman *Zapaterito* lehen zezenkoan kolpatua izan zen eta erretiratu egin zuten. *Torkito II.*ak legea bete zuen eta Lekunberriri ausardia ikusi zioten. Bi zezenko sutu egin zituzten.

Maiatzaren 26an Felipe Salas–en zezenak jokatu ziren Vista Alegren emandako korridan. Manuel Martin *Vazquez II.a* eta Antonio Pazos ekarri zituzten haiek hiltzera. Zezen batzuek ongi eta beste batzuek gaizki portatu zitzaizkien. Manuel Martin nahikoa maila onean aritu zen, baina Antonio Pazos–ek porrot egin zuen.

Ekainaren 6an Veragua–ko dukearen zezenkoak korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Rodolfo Rodarte, Serafin Bigiola *Torkito* eta Zakarias Lekunberri kontratatu zituzten arratsalde hartarako. Rodarte zezenko batek harrapatu zuen. *Torkito*k hil zuen zezenko hura, bere belarria lortuz. Lekunberri sasoi faltan zebilen A Cruña–n aurrez kolpatuberria izan zelako. Ausardia faltarik ez zioten ikusi ordea.

1.912.eko ekainaren 9an beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Baeza–ren bi zezenko eta Tabernero–ren beste bi toreatu zituzten Alejandro Saiz *Ale* eta Faustino Bigiola *Torkito II.*ak. Baeza–ren ganadua ongi portatu zen eta Tabernero–rena ez. *Ale* eta *Torkito II.*a ez ziren nabarmendu.

Ekainaren 16ko nobilladan, Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez *Joselito*k parte hartu zuten Bilbon. Perez Tabernero–ren sei zezenko koldar toreatu zituzten. Bostgarrenari suzko banderilak ipini zizkioten. Bi ezpatariek ederki toreatu zuten. *Limeño*k ezpata ongi erabili zuen eta *Joselito*k ez hain ongi. Luis Suarez *Magritas* gaztetxoa banderilak sartzen nabarmendu zen.

1.912.eko ekainaren 23an Vista Alegren beste nobillada bat eman zuten. Angoso–ren alargunaren zezenko koldarrak toreatu zituzten Antolin Arenzana *Recajo* eta Emilio Gabarda *Gabardito*k. *Recajo*ri txaloak jo zizkioten, eta *Gabardito*ri txistuak.

Uztailaren 7ko nobilladan Mihuraren sei zezenko hilez Alfonso Cela *Celita*, Serafin Bigiola *Torkito* eta Zakarias Lekunberrik parte hartu zuten Bilbon. Uztailaren 14eko zekorketan berriz, Baeza–ren lau zekor jokatu ziren euritan.

1.912.ean abuztuko korridak hilaren 18an hasi zituzten Bilboko Vista Alegren Felix Urkola–ren zezenak jokatuz. Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Rodolfo Gaona–k lan egin zuten. Vicente Pastor–ek bere bigarrenean belarria lortu zuen. *Bilboko kotxeritoa*ri txaloak jo zizkioten asko saiatu zelako, baina Rodolfo Gaona–k ikusle guztiak aspertu zituen.

Abuztuarẹn 19ko korridan Murube–ren sei zezen jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen txikiak eta nobleak suertatu zitzaizkien Kastor Jauregibeitia, Manuel Rodriguez *Manolete* eta Rodolfo Gaona ezpatariei. *Bilboko kotxeritoa*k bere lehenengoan txistuak entzun zituen eta bere bigarrenean belarria moztu zuen. *Manolete*ri ere txistuak jo zizkioten. Gaona–ri jendea isilik gelditu zitzaion hirugarrenean eta seigarrenean txistu–hots ozena entzun zen.

Abuztuaren 20ko korridan, Bilboko Vista Alegren Mihuraren zezenak plazaratu ziren; zezen handiak eta ahul samarrak. Vicente Pastor, Manuel Rodriguez *Manolete* eta Rodolfo Gaona–k parte hartu zuten. Pastor–ek bere lehenengoan belarria lortu zuen eta laugarrenean jendea isilik gelditu zitzaion. *Manolete*k zezen bakarra hil zuen. Izan ere ezpata sartzerakoan zauriturik suertatu zen. Pastor–ek hil zuen bostgarren zezena. Gaona–k ez zuen ezer nabarmenik egin eta jendeak txistuak jo zizkion.

Abuztuko laugarren korrida hilaren 21ean eman zen Bilbon. Parladé-k bidalitako zazpi zezen jokatu zituzten, Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Rufino San Bizente ezpatari zirela. Vicente Pastor-ek seigarren zezenean (Rufino-k hil behar zuenean) belarria lortu zuen. *Bilboko kotxeritoa* gaizki egon zen arratsalde hartan. *Begoñako txikia* berriz ausart aritu zen eta bere bigarrenak zauritu egin zuen.

1.912.eko abuztuaren 22an, Bilboko *Kotxerito* zezenzale-elkarteak nobillada eman zuen Vista Alegren itotako marinelen familiei laguntzearren. J. Sanchez Carreros-en sei zezenko koldar samar korritu zituzten, Jose Muñagorri, Antolin Arenzana *Recajo*, Serafin Bigiola *Torkito*, Zakarias Lekunberri, Alejandro Saiz *Ale* eta Julian Iraola ezpatari zirela. Toreaketa-lanak Kastor Jauregibeitiak zuzendu zituen. Muñagorri eta *Recajo*k belarri bana lortu zuten.

Irailaren 1eko nobilladan Vista Alegren Antonio Perez Tabernero-ren (lehen Da Gama-ren) sei zezenko korritu ziren. Jose Garate *Limeño* eta Jose Gomez Ortega *Joselito*k parte hartu zuten. Zezenko koldar eta arriskutsuak izan ziren batzuk. Sei zezenkoak *Limeño*k hil behar izan zituen, *Joselito* bere lehenengoak zauritu zuelako. Jose Garate-k eskuineko eskuan mina zuen eta arratsalde osoan luzimendurik gabe aritu zen. Dena dela gauzarik aipagarriena *Joselito*ren istripua izan zen. *Escribano* izeneko zezenkoak oholtza ondoan zegoela adarkatu egin zuen ezkerreko izterrean. Hamar zentimetroko zuloa egin zion zezenkoak eta zuariak ez zirudien arriskutsua. Gangrena edo pasmoa agertu zen ordea, eta eskerrak Vicente San Sebastian doktoreak egindako lanari. Hilko zen bestela inoiz izan den toreatzailerik onenetakoa. *Joselito* gainera, garai hartan alternatiba hartzeko asmotan zebilen.

1.912.eko irailaren 8an Sanchez Carreros-en sei zezenko jokatu ziren Vista Alegreko nobilladan. Hiruri suzko banderilak ipini zizkieten. Jose Muñagorri, Alejandro Saiz *Ale* eta Zakarias Lekunberri toreatzaile bizkaitarrek nahikoa egin zuten sei zezenko haiek itxura batean hilez.

Irailaren 15eko nobilladan, Perez Tabernero-ren zezenko suharrekin arrakasta handia lortu zuten Vista Alegren Francisco Diaz *Pacorro* eta Jose Sanchez *Hipolito*k. Belarriak moztu zituzten.

Irailaren 29an beste nobillada bat izan zen Bilbon. Andres Sanchez Rodriguez Coquilla-ren lau zezenko handi eta koldar plazaratu ziren. Hala ere Andres del Campo *Dominguin* toreatzaileak belarri bat irabazi zuen batean. Eduardo Serrano *Gordeti* berriz kapotez eta muletaz ari zela txaloak jo zizkioten. Ezpataz ez zuen ordea zorte onik izan, eta azken zezenkoa toriletara itzuli zioten abisu guztiak entzun ondoren.

1.912.eko urriaren 6an, Inazio Ocejo *Ocejito chico* eta Alejandro Saiz *Ale*k egin zuten paseotxoa Vista Alegren, Antonio Guerra-ren zezenkoak toreatzeko asmoz. Zezenko suhar haiei esker, *Ocejito chico*k belarri bat lortu zuen eta *Ale*k bi.

Urriaren 13ko nobilladan, Bilbon Antonio Guerra-ren hiru zezenko eta Perez Tabernero-ren bat plazaratu zituzten, Zakarias Lekunberri eta Manuel Orbe *Kotxerito txikia* toreatzaile zirelarik. Guerra-ren zezenkoak koldarrak eta Perez Tabernero-rena suharra suertatu zitzaizkien. Lekunberri eta *Kotxerito txikia*k nola edo hala hil zituzten.

1.912.eko urriaren 27an urteko azken korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Antonio Perez Tabernero-ren zezen txiki, suhar eta bost urte betetakoak jokatu ziren. Kastor Jauregibeitia

Bilboko kotxeritoak itxura batean toreatu zuen, baina Rufino San Bizente *Begoñako txikia* asmatu ezinik ibili zen.

Azaroaren 3an, Bilbon 1.912.eko azken nobillada ospatu zen. Argimiro Perez Tabernero-ren bost zezenko eta bere anaia Graciliano Perez Tabernero–ren bat korritu zituzten. Alejandro Saiz *Ale*, Manuel Orbe *Kotxerito txikia* eta Angel Ramos *Improvisao* toreatzaile bizkaitarrek parte hartu zuten. Zezenkoak garbi eta noble portatu ziren. Horregatik *Improvisaok* bere bi zezenkoetan eta *Kotxerito txikia*renean (harrapatua izan bait zen) txalo asko entzun zuen. *Ale* berriz bere ausardia eta lanagatik plazatik bizkar gainean atera zuten[1].

1.912. urtean Bizkaiko toreatzaileek lan asko egin zuten zezenplaza desberdinetan. Kastor Jauregibeitiak guztira denboraldian 42 korridatan 101 zezen hil zituen. Beste hamar baino gehiago ere galdu zituen rodea, zauritu zelako[5]. Urte hartan hiru korrida bakarrik toreaturik zegoenean, Donostian zauriturik suertatu zen eta Sevillara joaterik ez zuen izan. Gero Bartzelonako zezenplazan ekainaren bukaeran beste istripu batek korrida gehiago galdu erazi zion. Granadan, ekainaren 8an Concha y Sierra–ren zezenak toreatu zituen eta hantxe bere koadrilako pikatzaile zen Fabian Bilbao bilbotarra zauritu egin zen. Zezen batek zalditik bota egin zuen eta belauna hondatu zion[3]. Biharamunean, ekainaren 9an *Bilboko kotxeritoa* Jose Moreno *Lagartijillo chico* eta Antonio Boto *Regaterin*ekin Perez de la Concha–ren zezenak toreatzen zen Granadan. Abuztuaren 16an berriz Donostian, Manuel Rodriguez *Manolete* eta Rodolfo Gaona–rekin batera. Antonio Labrador *Pinturas*, Gaona–ren banderilaria, eskuineko begi ondoan adarkatua izan zen.

1.912. urteko urriaren 13an, Madrileko Tetuan–eko plazan lan egin zuen *Bilboko kotxeritoak*[3]. Gero Mexiko–ra joan zen negurako, eta han hiriburuan bost korridatan hamahiru zezen hil zituen. Beste hiru korrida ere toreatu zituen han herri desberdinetan.

Rufino San Bizente *Begoñako txikiak* hamabost korridatan parte hartu zuen 1.912. urtean. 36 zezen hil zituen guztira, baina Madrilen ekainaren 6an Tomas Fernandez Alarcon *Mazantinito* eta Agustin Garcia Diaz *Malla*rekin batera lanean ari zela, Jerez–eko Bohorquez anaien bostgarren zezenak zauritu egin zuen[5]. Irailaren 30ean, Valladolid–en Francisco Martin *Vazquez*ekin batera Tertuliano Fernandez–en zezenak hil zituen. Mariano Merino *Montes II.a* ordezko ezpataria zauritua izan zen korrida hartan[3].

Serafin Bigiola *Torkito* barakaldarrarentzat urte ona izan zen 1.912.a. Hogeitamabost nobilladatan parte hartu zuen. Uztailaren 21ean, Castro Urdiales–eko zezenplaza estreinatu zuen, Zakarias Lekunberrirekin batera Maxim(Herran–en zezenkoak hilez[5]. Logronio–n ere toreatu zuen Vicente Sanz *Matapozuelos*ekin batera.

Serafin Bigiola maiatzaren 5ean Sevillan aritu zen, Anastasio Martin–en zezenkoak toreatzen. Manuel Garcia Simera *Espartero II.a* eta Martin *Vazquez*ekin lan egin zuen orduan. Abuztuaren 18an Madrileko Tetuan–eko plazan zen *Torkito*. Ricardo Araujo *Araujito* eta Andres del Campo *Dominguin*ekin batera Hernandez–en zezenkoak hil zituen.

Bizpahiru urte zeramatzan Serafin Bigiolak aurreko puntan zezenko–hiltzaileen zerrendan, eta 1.912.eko irailaren 8an Bartzelonan alternatiba hartzea erabaki zuen. Urte hartan lehen nobillada Madrilen otsailaren 25ean toreatu zuen eta azkena Mallorka–ko Palma–n irailaren 1ean.

Serafin Bigiola *Torkitok*, Bartzelona–ko Bartzeloneta–ko plazan hartu zuen alternatiba Manuel Mejias Rapela *Bienvenidare* eskutik. Juan Cecilio *Puntereten* aurrean, Gamero Civico–ren *Vizcaino* zezena hiltzeko tres tak utzi zizkion. Belarri bat moztu zion *Vizcaino*ri.

Irailaren 22an, Santander–etik Mexiko–ra abiatu zen eta urriaren 13an hango hiriburuan toreatu zuen, Diego Rodas *Morenito de Algeciras*ekin Piedras Negras–en zezenak hilez[3]. Negu hartan Mexikon hamabi korridatan parte hartu zuen[5].

Zakarias Lekunberri busturiarrak bestetik, 1.912. urtean guztira 28 nobilladatan toreatu zuen, bere ohizko ausardia erakutsiz[3].

Alejandro Saiz *Ale* bilbotarra 1.912.eko uztailaren 21ean Indautxu–ko zezenplazan aritu zen. Candido Diaz nafarraren bi zezenko hil zituen. Gainerakoak Jose Belaunde eta Martin Etxeandia *Chico de Basurto*k hil zituzten. Diego Markiaran *Fortuna* ordezko ezpatari izan zen arratsalde hartan.

Ale urte hartan urriaren 13an Madrilen aurkeztu zen. Benjumea–ren bost zezenko eta Murube–ren bat korritu ziren. Pedro Carranza *Algabeño II.a* eta Manuel Navarro–rekin lan egin zuen. Beste bi arratsaldetarako ere kontratatu zuten. Oso ausart aritu eta zuariturik suertatu zen. 1.912. urtean guztira, hamabost nobillada toreatu zituen *Ale*k[5].

Diego Markiaran *Fortuna* sestaoarrarentzat garrantzitsua izan zen 1.912. urtea. Labegaraietako ofizioa utzi (maiatzaren 11n) eta toreatzeari ekin zion. Apirilaren 14ean Bilboko Vista Alegren *espontaneo* gisa atera zen eta Indautxu–ko plazan bi aldiz ordezko ezpatari gisa lan egin zuen. Plaza berean irailaren 22an aurkeztu zen Domingo Uriarte *Rebonzanito*rekin batera Felipe Saso–ren zezenkoak hiltzera. Gero, Martin Etxeandia *Chico de Basurto* eta Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo*k parte hartuko zuten. *Fortuna*k bere zezenkoari bi belarri moztu zizkion[5].

Diego Markiaran–ek harez gero inguruko plazatan fama handia lortu zuen, eta Irufiean garai hartan *Los doce* izeneko elkarte batek nobillada baterako kontratatu nahi izan zuen 5.000 errealetan. *Fortuna*k bere burua nafartzat ere bazuen, bere gurasoak Olazti–koak zirelako, eta Irufiean toreatu nahi zuen. Bere zuzendari Bitor Santiesteban–ek ordea, diru gutxi zela eta ezezkoa eman zien iruindarrei[15].

Domingo Uriarte *Rebonzatito* sestaoarra ere 1.912. urtean hasi zen toreatzen. Salamancan preparatzen ibili ondoren, maiatzaren 19an Indautxu–ko plazan traje distiratsua estreinatzeko aukera izan zuen. Martin Etxeandia *Chico de Basurto*, Jose Belaunde eta Angel Arenaza *Barberillo*rekin batera Santiago Irala–ren zekorrak hil zituen. Kapote eta muletaz txalotua izan zen, baina ezpataz zorterik ez zuen izan. Ekainaren 16an plaza berean lanean ikusi ahal izan zuten bilbotarrek, eta geroztik inguruko herrietan toreatu zuen Uriartek.

Faustino Bigiola *Torkito II.a* ere, 1.912an asko nabarmendu zen. Urtarrilaren 21ean Vista Alegren lan egin zuen arestian esan dugunez. Urtean zehar hamabi nobilladatarako dei egin zioten[5].

Joan Etxebarria bilbotarra, ez zen nobillero izatera iritsi, baina 1.912. urte inguruan sastakari gisa lan egiten zuen. Oso trebea zen.

Manuel Gracia zaragozarra, Bilbon bizi zen 1.912. urtean eta banderilari gisa lan egin zuen irailaren 8an Inazio Ocejo *Ocejito chico* eta Eduardo Aretxabaleta *Txabatxa* zezenko–hiltzaile zirela.

Jose Maria Ibarrondo durangarra bestetik, abuztuaren 25ean Zaragozako plazan aritu zen

zezenkoak toreatzen. Bere lehenengoak zauritu egin zuen.

Jose Irala bilbotarra banderilaria zen. 1.912.ean bere anaia Alejandro–rekin lan egiten zuen nobilladatan.

Jose Jauregizar ere urte hartan lan egindako zezenko–hiltzaile euskalduna dugu.

Inazio Ocejo *Ocejito chico* bilbotarra 1.912.eko ekainaren 12an Madrilen aurkeztu zen Surga–ren zezenkoak hiltzera. Lana bikain egin zuen. Abuztuaren 11n Bartzelonan berriz, larriki zauriturik suertatu zen.

Jose Tuñon bilbotarrak, urtearen hasieran Vista Alegren lan egin zuen Irala–rekin batera lehen esan dugunez. Irailaren 29an, Karrantza–ko plazan zezenko batek sabelean kolpatu zuen. Bizkaiko probintzian plazaz plaza ibili zen 1.912. urtean[3].

Bilbon bestetik, zezenetarako zaletasun handia zegoen, eta besteak beste *Variedades* izeneko aldizkaria argitaratu zuten 1.912.ean[4].

Donostian ere zezenfesta asko izan zen 1.912. urtean. Maiatzaren 19ko nobilladan Francisco Posadas–ek Francisco Ferrer *Pastoret*ekin toreatu zuen. Bazko egunean Eduardo Olea–ren zezenak toreatu zituzten Ricardo Torres *Bombita*, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Pacomio Peribañez–ek[3]. Gero abuztuan, hilaren 11n, Parladé–ren zezenak jokatu ziren Manuel Mejias *Bienvenida*, Manuel Rodriguez *Manolete* eta Rodolfo Gaona toreatzaile zirela. Abuztuaren 15erako kartela Murube–ren zezenek eta Kastor Jauregibeitia, Manuel Rodriguez *Manolete* eta Rodolfo Gaona toreatzaileek osatu zuten. Abuztuaren 16koa berriz, Mihura–ren zezenek eta bezperako toreatzaileek. Abuztuaren 16an dena dela, itsasoa haserretu eta marinel asko ito zen: 115 bermeotar, 16 lekeitiar eta 8 elantxobetar.

Abuztuaren 17an Donostian nobillada eman zen eta 18an korrida Vicente Martinez–en zezenak eta Antonio Guerra–ren beste bi jokatuz. Manuel Rodriguez *Manolete*, Agustin Garcia Malla, Juan Cecilio *Punteret* eta Diego Rodas *Morenito de Algeciras* izan ziren toreatzaileak[16]. Manuel Rodriguez *Manolete* (Linares–en hildakoaren aita), zauriturik suertatu zen Donostian[3].

Irailaren 8an ere beste korrida bat eman zuten Donostiako Txofre–n. Tomas Alarcón *Mazantinito* eta Fermin Muñoz Gonzalez *Corchaito*k Eduardo Olearen zezenak hil zituzten.

Lau egun geroago, 1.912.eko irailaren 12an, nobillada eman zuten. Joaquin Perez de la Concha–ren sei zezenko toreatzera Francisco Posadas eta Juan Belmonte (gero hain famatu izango zena) etorri ziren. Sarrerak garestiak zirelako, jende gutxi hurbildu zen plazara; lau mila ikusle baino gutxiago. Lehen zezenkoak, *Perdigón* izenekoak, Posadas eskuineko izterrean adarkatu zuen eta horregatik Juan Belmonte–k sei zezenkoak berak hil zituen. Guztira hamazortzi saio egin zituen ezpataz, baina hala eta guztiz ere oso txalotua izan zen. Laugarren zezenkoari, *Sonajero* izenekoari, Belmonte–k berak bi banderila–pare sartu zizkion. Harez gero Belmonte–k traje distiratsua jantzita ez zuen behin ere banderilarik sartu. Bostgarren zezenkoak adarrez kolpe bat eman zion Triana–n hazitako toreatzaileari ezkerreko besoan.

Eibarren 1.912. urteko sanjoanetan Rodolfo Gaona mexikarrak lan egin zuen. Zezen bat Modesto Santos industrialari brindatu zion eta Santos jaunak eskopeta bat eta ehiza–txakur bat erregalatu zizkion[8].

1.912.urtean Zarautzen ere izan zen nobillada herriko festetan; abuztuaren 15ean. Lezon ere egiten ziren zezenfestak herriko plazan. Herriko plazan 1.912.eko irailaren 15ean zezenko bolaztatua jokatzen ikusten deneko fotografiarik bada[17].

Azpeitian 1.912.eko saninaziotan nobillada bakarra eman zuten. Serafin Bigiola *Torkito* eta Inazio Ocejo *Ocejito chico* zeuden iragarrita Mazpule-ren zezenkoak hiltzeko. Azken orduan ordea, Ocejo-ren ordez Jose Muñagorri bilbotarra etorri zen. Serafin Bigiola-k lehen zezenkoan bronka entzun zuen, eta bere bigarrenean txaloak. Jose Muñagorrik berriz, alderantziz: txaloak eta bronka[10].

Irungo zezenplazan korrida bat eman zen 1.912.eko abenduko 14ean, *Topo* izeneko trenbidearen linea inauguratu zelako[18].

Iruñean ere 1.912.ean sanferminetarako zezenfesta ederrak prestatu zituzten. Argitaratu zuten kartelak zera zekarren:

- Uztailak 7. Sevillako Gamero Cívico-ren sei zezen Ricardo Torres *Bombita*, Vicente Pastor eta Manuel Mejias *Bienvenida*rentzat.

- Uztailak 8. Sevillako Muruberen alargunaren sei zezen Ricardo Torres *Bombita*, Vicente Pastor eta Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*rentzat.

- Uztailak 9. Goizean proba. Villagodio-ko markesaren hiru zezen, Pastor, *Bilboko kotxeritoa* eta *Bienvenida*rentzat.
  Arratsaldean Concha y Sierra-ren alargunaren sei zezen *Bombita*, Pastor eta *Bilboko kotxeritoa*rentzat.

- Uztailak 14. Sevillako Guadalest-eko markesaren sei zezen Rafael Gonzalez *Machaquito*, *Bilboko kotxeritoa* eta *Bienvenida*rentzat.

- Uztailak 21. Sevillako Fernando Parladé-ren sei zezen *Bombita*, *Machaquito* eta *Bienvenida*rentzat[12].

Urte hartako entzierroak eta ospakizunik nagusienak Iruñean Enrique Blanco eta Gaspar Arroyo-k filmatu egin zituzten. Alberto Arroyo izan zen fotografiaren arduradun[19].

1.912. urtean maiatzaren 16an Tafallan Candido Diaz-en zezenak jokatu zituzten. Joaquin Calero *Caleritok* parte hartu zuen korrida hartan eta zauriturik suertatu zen. Jaime Ballesteros *Herrerin* izan zen ordezko ezpataria[3].

1.912. urtean, Teruel-eko Valdelinares-eko Manuel Lozano ganaduzaleak urriaren 20an Madrilen lehen aldiz jokatu zituen zezenak. Valentziako Fuente del Sol-eko markesaren ondorengoei erosi zien Lozanok ganadutegia; Karrikiri jatorrikoa hain zuzen[20]. Higinio Flores eta Ripamillan-en behiak gehitu zituen. Baita Lizaso-ren zezen bat ere[15].

Zaragozan berriz, urte hartako abuztuaren 4ean Nicolas Rivas *Rubiok* Zalduendoren behi bat hil zuen zezenplazan[3].

1.912.ean Barrere, Portalier, Robert, Passicos eta Darracq ganaduzaleak Coran, Fillang,

Despouys, Giovani eta Marin II.a taldeburuekin zebiltzan Landetan plazaz plaza. Coran–ek Saint–Gor herrian 53 iskintxo eta 30 jauzi egin zituen (6 birakoak). Henri Laulhe berriz, Mugron herrian zauriturik suertatu zen[14].

———— o ———— o ————

1.913. urteko zezenfesten denboraldia otsailaren 16an hasi zen Bilboko Vista Alegren. E. Lamamie de Clairac–en zezenkoak toreatu zituzten Inazio Ocejo *Ocejito chico* eta Alejandro Saiz *Alek*.

Otsailaren 23an, Vista Alegren Amador Garcia–ren zezenko handi eta koldarrak korritu ziren. Zakarias Lekunberrik belarriak irabazi zituen bere ausardiari esker eta hiru zezenko hiltzea berari tokatu zitzaion, Antolin Arenzana *Recajo* larriki zauriturik suertatu zelako. Hirugarren zezenkoa Tejadillo–ko A. Sanchez–ena zen; gorria, handia, adarluzea, puntazorrotza eta *Zamorano* izenekoa[1]. Belauniko goitiko pase bat ematen hasi zitzaionean, zezenkoak izterrean adarra sartu zion *Recajo*ri. Oso larriki zauritu zuen zezenkoak, eta eskuineko hanka moztu behar izan zioten. Miguel Moreno banderilaria ere larriki zauritu zen Bilbon arratsalde hartan[3]. *Recajo*k, bere herrikide zen Julian Etxebarriari egin zion aurrez brindisa; Bartzelona eta Madrileko zezenplazako gerenteari hain zuzen. Lekunberrik hil zuen zezenkoa eta belarria lortu ondoren buelta ematerik ez zuen nahi izan, emozioaren eraginez[1].

Antolin Arenzana *Recajo*ren alde Bilbon zezenfesta bat antolatu zen gero. *Recajo* Madrilera joan zen bizitzera eta han zezenen munduko arazoez arduratu zen. Martin Aguero bilbotarraren jagole izan zen, besteak beste[3].

1.913.eko martxoaren 23an, Bilboko Vista Alegren Anastasio Martin–en zezenko txiki eta ahulak jokatu ziren. Francisco Posadas eta Juan Belmontek toreatu zituzten. Belmonte–k lehen arratsaldea zuen hura Bilbon. Lehen zezenko txiki eta ahula plazaratu zenean ordea, jendea haserreturik txistuka hasi zen , eta eskandalu hartan batzuek hondarrera jaitsi eta zezenkoa hil egin zuten. Giro hartan Posadas eta Belmonte–k beren borondate ona erakustea besterik ez zuten egin.

Apirilaren 13an beste nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Victorino Froes portugaldarraren sei zezenko toreatu zituzten Alejandro Saiz *Alek* Pascual Bueno mexikarrak eta Francisco Posadas–ek. Zezenko ederrak eta zangarrak izan ziren. *Alek* belarri bat lortu zuen eta Pascual Bueno ere txalotua izan zen. Posadasi ordea jendeak ez zion adorerik ikusi eta lehendakariak bi abisu ere bidali zizkion turuta bidez.

1.913. urteko apirilaren 20an Juan Sanchez Carreros–en zezenko biziek larri erabili zituzten Jose Sanchez *Hipolito* eta Francisco Diaz *Pacorro* toreatzaileak.

Maiatzaren 1ean Dionisio Pelaez–en sei zezen jokatuta urteko lehen korrida eman zuten Bilboko Vista Alegren. Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Serafin Bigiola *Torkito* aritu ziren zezen koldar haiek toreatzen. Vicente Pastorrek txistuak entzun zituen lehenengoan eta buelta eman zuen bigarrengoan. *Bilboko kotxeritoa*k belarria lortu zuen batean eta txalotua izan zen bestean. *Torkito* gaixorik plazaratu zen eta bere sasoi faltagatik legea betetzea besterik ez zuen egin.

1.913.eko maiatzaren 9an Lamamie de Clairac–en lau zezenko koldar korrituta nobillada ospatu zen Vista Alegren. Pedro Carranza *Algabeño II*.ak belarria lortu zuen bigarrenean eta txaloak entzun zituen lehenengoan. Zakarias Lekunberri ausart aritu zen beti bezala. Horregatik

txaloak entzun zituen bere bi zezenkoetan.

Maiatzaren 11ko nobilladan Sanchez Carreros–en zezenko berantkorrekin ahaleginak jo zituzten Jose Muñagorri, Inazio Ocejo *Ocejito chico* eta Alejandro Saiz *Ale*k. Txalotuak izan ziren beren borondateagatik.

1.913.eko maiatzaren 22an, Amador Garciaren zezenak toreatzera Serafin Bigiola *Torkito* eta Francisco Madrid toreatzaileak aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. *Torkito*ri txaloak jo zizkioten eta zezen batean buelta eman zuen. Paco Madrid berriz, batez ere ezpataz egon zen ongi. Bigarrenean txaloak entzun zituen, buelta eman zuen laugarrenean eta belarria eman zioten seigarrenean.

Maiatzaren 24ean injinerutzako ikasleek antolaturik zekorketa eman zuten Bilboko Vista Alegren. Amador Garcia–ren lau zekor korritu ziren.

Biharamunean, 1.913.eko maiatzaren 25ean, S. Carreros–en sei zezenko toreatzera aurkeztu zirenen artean lehiaketa izan zen. Gorabehera asko izandako arratsalde hartan, Elisardo Urgoiti–k bakarrik izan zuen arrakasta.

Ekainaren 2an, Bilboko *Kotxerito* elkarteak antolaturik korrida eman zen Vista Alegren Antolin Arenzana *Recajo*ren alde dirua biltzearren. Anastasio Martin–en sei zezen eta Carreros–en bat plazaratu ziren arratsalde hartan. Kastor Jauregibeitia, Rufino San Bizente, Serafin Bigiola eta Zakarias Lekunberrik lan egin zuten. *Bilboko kotxerito*ak belarria lortu zuen. *Begoñako txikia* eta *Torkito* oso txalotuak izan ziren. Lekunberri ere bai, bere ausartzia medio. *Recajo*ren alde 16.880,10 pezeta bildu ziren.

1.913.eko ekainaren 8an Victorino Fores–en zezenkoak plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Nobillada hartan Pedro Carranza *Algabeño II.ak*, Zakarias Lekunberrik eta Julian Sainz *Saleri II.*ak parte hartu zuten. *Saleri II.*a gustatu zen gehiena.

Ekainaren 15ean, Bilboko bizarginek zekorketa eman zuten Vista Alegren. Iralaren bi zekor eta Casas–en beste bi jokatu ziren.

1.913.eko uztailaren 6an, beste nobillada bat eman zuten Vista Alegren Amador Garcia–ren sei zezenko plazaratuz. Rodolfo Rodarte[1] (mexikarra zen baina Bilbon bizi zen jadanik)[3] eta Alejandro Saiz *Ale* aritu ziren zezenko koldar haiek (lauri suzko banderilak ipini zizkieten) toreatzen eta biek txaloak entzun zituzten.

Uztailaren 31n, Bilboko kazetarien elkarteak antolaturik korrida eman zen Vista Alegren. Guadalest–eko markesaren sei zezen Antonio Fuentes, Kastor Jauregibeitia eta Jose Gomez Ortega *Joselito*k toreatu zituzten. Antonio Fuentes ongi aritu zen bere bi zezenetan. *Bilboko kotxerito*ak, kapote, banderila, muleta eta ezpataz nabarmendu ondoren, belarri bana irabazi zuen bere bi zezenetan. *Joselito*k jendea txunditurik utzi zuen. Bere lehenengoan belarria eman zioten, eta bigarrengoan ere bai plazaren erditik agur egitera behartu zutelarik. Zazpigarren zezena Zakarias Lekunberrik hil zuen, bere ohizko ausardiaz.

1.913. urtean abuztuko korridak hilaren 17an hasi ziren. Muruberen zezenekin Rafael Gonzalez *Machaquito*, Rafael Gomez Ortega *Gallo* eta Kastor Jauregibeitiak lan egin zuten. *Machaquito*ri txaloak jo zizkioten saiatu zelako. Rafael *Gallo*k legea bete zuen lehenengoan eta txalotua izan zen bigarrenean. *Bilboko kotxerito*ak seguru lan egin zuen eta oso txalotua izan zen.

Biharamunean, abuztuaren 18an, Concha y Sierra–ren alargunaren sei zezen hil zituzten Rafael Gonzalez *Machaquito*, Vicente Pastor eta Rafael Gomez *Gallo*k. Zezen geldo haiekin *Machaquito* ez zen luzitu; zezen biziagoak behar bait zituen. Vicente Pastor bere lehenengoan txalotua izan zen eta bere bigarrenean jendea isilik gelditu zitzaion. Rafael *Gallo*k bere artearen printzak erakutsi zituen. Hirugarrenean buelta eman zuen eta seigarrenean txalo asko jo zioten.

Abuztuko hirugarren korrida hilaren 19an jokatu zen Vista Alegren. Mihuraren bost zezen eta Felipe Salas–en bat plazaratu ziren, *Machaquito*, Vicente Pastor eta *Bilboko kotxeritoa* toreatzaile zirelarik. Rafael Gonzalez–ek ez zuen ezer egin eta Kastor Jauregibeitiak hirugarren zezenari (Mihurarenari) moztu zion belarria da gauza azpimarragarri bakarra.

1.913.eko abuztuaren 20ko korridan, toreatzaile berberek eta Rafael Gomez *Gallo*k Parladé–ren zortzi zezen eder eta suhar toreatu zituzten. Zezenek guztira 41 pikalditan 12 zaldi hiltzea lortu zuten. *Machaquito*k lehenengoan txaloak entzun zituen eta laugarrenean belarria eman zioten. Vicente Pastor txalotua izan zen bere bi zezenetan. *Bilboko kotxeritoa*k belarri bat lortu zuen eta Rafael Gomez *Gallo*k beste bana, bere bi zezenetan.

Abuztuaren 24ean beste korrida bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Veragua-ko dukearen zortzi zezen hil zituzten *Machaquito*, Vicente Pastor, Rafael Gomez *Gallo* eta *Bilboko kotxeritoa*k. Bederatzigarren zezena Salas–ena zen eta Inazio Ocejo *Ocejito chico*k hil zuen eta belarria eman zioten.

Errege–erreginak begira zeuden korrida hartan, Veragua–ren zezenak latz eta zakarrak suertatu ziren. Segiarrenari suzko banderilak ipini zizkioten. *Machaquito* eta Vicente Pastor–ek legea bete zuten. Rafael *Gallo* kitetan txalotua izan zen eta bere nafar–pasean ere bai. Gainerakoan ez zen luzitu, baina ohi ez bezala ausart jokatu zuen. Kastor Jauregibeitiari txaloak jo zizkioten; ezpata sartutakoan batez ere.

1.913.eko irailaren 28an, Veragua–ko dukearen lau zezenko korritu ziren. Jose Roger *Valencia I.a* eta Florentino Ballesteros zaragozarrak lan egin zuten zezenko suhar eta indartsu haiekin. Roger–ek lehenengoari belarria moztu zion eta bigarrenean txaloak entzun zituen. Florentino Ballesteros–ek Bilbon lehen saioa zuen, eta jendea pozik atera zen haren lanaz. Toreatzen fina zen eta kapotea nahiz muleta dotore maneiatzen zekien.

Urriaren 12an Alaiza nafarraren hiru zekor suhar jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Aragoatik etorritako toreatzaileek lan egin zuten.

Urriaren 19ko nobilladan Carlos Sanchez–en bost zezenko korritu ziren Vista Alegren. Fernando Ugarte *Chico del Imparcial*ek hil zituen bi. Bere lehenengoan buelta eman zuen txalo artean. Beste bi zezenko Manolo Gracia–rentzat izan ziren. Laugarrenari belarria moztu zion. Bostgarren zezenkoa, Lucio Vicario *Botines*entzat izan zen. Zalapartaka ibili zen plazan, baina jendeari barre eraginez. *Botines*, Mena ibarrean jaio eta Bilbon bizi zen buhame ardozalea, jende askok ezagutzen zuen bere xelebrekeriak medio. Francisco Sanjurjo *Posadas* euskal ijitoarekin batera, toreaketa kómikoan egin zituen saiorik onenak.

1.913. urtearen azaroan ere izan ziren zezenfestak Bilboko Vista Alegren. Hilaren 2ko nobillada mistoan Pancorboko Hipolito Ortiz–en lau zezenko korritu zituzten. Azaroaren 16ko nobilladan berriz, Amador Garciaren bost zezenko. Enrique Morales *Chepa de Carabanchel*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Lucio Vicario *Botines* izan ziren toreatzaileak.

Azaroaren 23an eman zuten Vista Alegren 1.913. urteko azken nobillada. Turtzioz-Billaberde-ko bi zezenko Lucio Vicario *Botines* eta *Chico de Eibar*ek hil zituzten.

1.913. urtean toreatzaileen munduan aldaketa nabarmenak izan ziren. Rafael Gonzalez *Machaquito* eta Ricardo Torres *Bombita*k (toreatzaileen montepioa sortu zuenak) urte hartako urrian erretiroa hartu zuten batetik. Bestetik *Machaquito*k Madrilen bere azken korridan urriaren 19an Juan Belmonte-ri alternatiba eman zion. Azaroaren 26an berriz, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* ezkondu egin zen; San Fernando de Jarama herriko alkatearen alabarekin hain zuzen; Casilda Majan de Aviles-ekin alegia. Felix Urkola, bere emaztea eta bilbotar asko joan zen Madrileko herri hartara ezkontzara[1].

Kastor Jauregibeitiak aurreko urteetan ez zuen Madrileko plazan toreatu, enpresariarekin konpondu ez zelako. Baina 1.913.ean Julian Etxebarria bilbotarraren esku zegoen Madrileko plaza eta Kastor-ek han egin zuen lan, nahiz eta asko ez[3]. *Bilboko kotxeritoa*k 1.913. urtean 36 korridatan 90 zezen hil zituen[5]. Denboraldiaren hasieran, otsailaren 12an, berekin hiru urtean banderilari zebilen Enrique Garate *Limeño* erretiratu egin zen. Dena dela 1.913.ean Antonio Sanchez *Ahijao* madrildarra eta Ignacio Sanchez Mejías famatua Kastor Jauregibeitia-ren koadrilan banderilari zebiltzan.

*Bilboko kotxeritoa*k Madrilen martxoaren 23an toreatu zuen; Bazko-egunean. Bañuelos-en zezenak toreatzera Manuel Rodriguez *Manolete*, Agustin Garcia Malla eta Jose Gomez Ortega *Joselito*rekin batera aurkeztu zen. Eladio Avia pikatzailea zauritu egin zen arratsalde hartan[3]. Ekainaren 26an Santander-en goizean sei zezen eta arratsaldean hamabi korritu zituzten. Goizean Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Serafin Bigiola *Torkito*k lan egin zuten[21].

Kastor Jauregibeitiak 1.913. urteko azken korrida Madrilen toreatu zuen urriaren 9an. Joaquin Perez de la Concha-ren *Venenoso* zezenaren belarria eman zioten. Zezen hura hiltzerakoan eskuineko izterrondoan adarkatua suertatu zen. Urte hartan Madrilen oso belarri gutxi eman zuten. *Bilboko kotxeritoa*k lortua zazpigarrena zen.

Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k hamasei korridatan 41 zezen hil zituen 1.913. urtean[5]. Madrilen ere toreatu zuen maiatzaren 11n Diego Rodas *Morenito de Algeciras* eta Enrique Vargas *Minuto*rekin batera. Zezenak Villalon-enak izan ziren[3].

Serafin Bigiola *Torkito* barakaldarrak fama handia lortu zuen 1.913. urtean Mexikon. Urtarrilaren 12an hango hiriburuan Rafael Gonzalez *Machaquito*ren alde korrida ospatu zen. *Machaquito*rekin batera Arcadio Ramirez *Reverte mejicano* eta Merced Gomez-ek egin zuten paseotxoa. Veragua-ko dukearen sei zezen jokatu zituzten; Nacho de la Torre-ren ganadutegian hazitarako erabili zituzten zezenak hain zuzen. Laugarren zezena hiltzerakoan *Machaquito* zauriturik geratu zen. Bostgarren zezena Tepeyahualco-rena zen; handia, adarluzea eta arriskutsua. Zezen hark kite batean Merced Gomez zauriturik utzi zuen. Arcadio Ramirez erabat beldurtu zen eta toreatzeari utzi egin zion. *Torkito* ikusle gisa zegoen plazan, eta baimena eskatu zuen falta ziren bi zezenak hiltzeko. Baimena lortu ondoren, *Torkito*k Justo Sanchez *Zurini* bere banderilariaren laguntzaz bi zezenak ederki hil zituen eta plazatik bizkar gainean atera zuten.

Serafin Bigiola-k martxoaren 16an Bartzelonan Mihuraren zezenak hil zituen Antonio Boto *Regaterin* eta Manuel Rodriguez *Manolete*rekin batera. Bartzelonan bertan, martxoaren 30ean Pablo Romero-ren zezenak Juan Cecilio *Punteret* eta Alfonso Cela *Celita*rekin batera toreatzen ari zela zauriturik suertatu zen.

Artean erabat sendatu gabe zegoela, apirilaren 20an Madrilen alternatiba sendotu zuen. Vicente Pastor–ek utzi zizkion Pablo Romero–ren *Soberbio* zezena hiltzeko tresnak Manuel Rodriguez *Manolete*ren aurrean. Seigarren zezenean ausart aritu zen eta ezpata sartzerakoan eskuineko bularrean adarra sartu zion zezenak, larriki zaurituz.

Ekainaren 26an, goizeko korridan, Santander–en lan egin zuen eta han ere eskuineko izterrean adarkatua izan zen. Hilabete pasatu zuen zauri hura sendatzen. 27 korrida toreatu zituen 1.913.ean *Torkito*k eta beste 12 Mexikon. Irailaren 23an Maximina Hidalgo–ren zezenak Francisco Madrid–ekin toreatzekoa zen, baina ez zen plazara agertu eta Francisco Madrid–ek hil behar izan zituen sei zezenak.

Alejandro Saiz *Ale* bilbotarrak, 1.913. urtean hemeretzi nobilladatan parte hartu zuen. Zakarias Lekunberri muruetarrak berriz, hamazortzi nobillada toreatu zituen 1.913.ean. Inazio Ocejo *Ocejito chico* bilbotarrak 1.913.ean Madrilen ere toreatu zuen. Vicente Martinez–en zezenkoekin gaizki egon zen eta harez gero kategoria txikiko plazetan lan egin zuen; Madrilen Tetuan–eko plazan adibidez.

Faustino Bigiola–k, *Torkito II*.ak, dotzenaren bat nobillada toreatu zituen 1.913. urtean. Eduardo Aretxabaleta *Txabatxa*rentzat (edo *Chavacha*rentzat) zorigaiztokoa izan zen 1.913. urtea. Bartzelonan martxoaren 9an, Francisco Martinez *Palmerito*rekin batera Pobes y Santos–en zezenkoak toreatzera aurkeztu zen. Laugarren zezenkoak sabelean adarkatu zuen eta hurrengo egunean hil egin zen.

Bestetik Bilbon, 1.913.eko urtarrilaren 20an, Jose Aguero Ereño jaio zen; gero nobillero izango zena eta Martin Aguero zezen–hiltzaile famatuaren anaia.

1.913. urtean *Pito de Bilbao* izeneko toreatzaile apal batek ere inguruetako herri txikietako plazetan lanean ziharduen. Diego Markiaran *Fortuna*k ere bai, baina fama handiagoz.

Manuel Gracia toreatzaile zaragozarra ere Bilbon bizi zen eta bertako Vista Alegren lan egin ondoren Tolosa, Naiara eta Balamasedan nobilladatan parte hartu zuen 1.913.ean. Frantzisko Egiluz *Orduñesito* berriz, irailaren 8an bere herrian (Urduña–n) ordezko ezpatari gisa aritu zen[3]. Urduñan zezenplaza berria urte hartantxe (1.913.ean hain zuzen) estreinatu zuten. 2.800 eserleku dituena da[22].

Bilbon gainera, *Cúchares. El Tío Cañí* izeneko aldizkaria argitaratu zen[4]. Jose Arrue pintatzaile bilbotarrak bestetik (Alberto, Ramiro eta Rikardo pintatzaileen anaiak), zezenkoa herriko plazan erakusten zuen postala argitaratu zuen[23].

1.913. urtean Telesforo Arantzadi antropologoak Alemaniako *Die Umscham* aldizkarira gutun bat bidali zuen, han ekainaren 26an Santander–en izango ziren korridei buruz esandako okerrak zuzendu nahiz. Santander–en goiz eta arratsalde 18 zezen hiltzekoak ziren[24].

Donostian 1.913. urteko abuztuan ohi bezala korridak eman ziren Txofre–n. Korrida–egunetan gauean, Alderdi Eder–en su artifizialak bota zituzten Kasinoaren eraginez[25].

Jose Gomez *Joselito* eta Ricardo Torres *Bombita* elkarren lehian ibili ziren korrida batean Txofre–ko zezenplazan, eta orduan hasi zen Tomares–eko toreatzailea erretiratu egin behar zuela pentsatzen[26]. *Joselito* urte hartan Donostian Saltillo–ren zezen bat toreatzen ari zela, hiltzerakoan adarkatu egin zuen zezenak bularrean. *Joselito*k ordea, Esperantzako Ama Birjinaren domina

zeukan adarpuntak jotako lekuan, eta hark salbatu zuen[4].

Garai hartan bestetik, Victor Bernabé *Chato de San Sebastian* izeneko toreatzailea zenbait lekutan iragarrita agertzen zen[3].

1.913. urtean, Joan Antonio Lekuona *Kuxkulu* bertsolari hernaniarrak Pasaia *Antxo*tik Oiartzun aldera ihes egindako zezen baten berri eman zuen. Hona hemen berak jarritako bertso batzuk, zenbait erdizka badago ere:

Milla bederatzireun ta
amairu urtetan,
txikana bat pasa da
Lekune'ko errekan;
begira jarri nitzan
bada zer ote zan,
ez nuen esperatzen
ori ikusterikan.

Zezen ori zetorren
entero itxusi,
semia saltatu zan
makil eta guzi;
muturrian gogotik
joka zion asi,
errekara juan zan
zakur eta guzi.

Arbolaren gañera
asi naiz iyotzen,
biotza triste eta
etziran laguntzen;
nigana zetorrela
ezpazan jiratzen,
bertatik asi nintzan
Jesusi eskatzen.

Errekan sartu eta
gora eta bera,
zakurrak kozkaka ta
ezin zan atera;
saltua egin zuen
ezponda batera,
kojua erne zeguen,
juan zan eltzera.

Lezo eta Oiartzun
goizutarrarekin,
lesakatar bat ere
bazuten berekin;
zezena lotutzera

soka aundiarekin,
eraman bear dutela
Antxo'ra berekin.

. . . . . .
Muturrean gogotik
joka zion asi,
errekara juan zan
zakur eta guzi.

. . . . . .
Errekan sartu eta
gora eta bera,
zakurra kozkaka ta
ezin zan atera.

. . . . . .
Zezen ori zetorren
guztiz marrajua,
gizon eta zakurrez
dana inguratua. [27]

Tolosan sanjoanetan 1.913. urtean Zakarias Lekunberri-k Alaiza nafarraren lau zezenko indartsu hil zituen. Baina zezenkoek hamabi zaldi hil zituzten eta Seberino Martinez *Txopera* kexu zen; bera bait zen zaldien kontratua zuena.

Irungo zezenplazan ere korrida eman zen ekainaren 29an. Tomas Alarcon *Mazzantinito* eta Ricardo Torres *Bombita*k Carreras-en zezenak toreatu zituzten[8].

Azpeitian 1.913. urterarte Luis Ezeiza jaunak eduki zuen zezenplaza, baina urte hartako apirilaren 30ean Esteban Elzaurdi-ren eskuetara etorri zen. Saninaziotan bi arratsaldetan, Eusebio Fuentes toledoarrak toreatu zituen Martinez-en zezenkoak. Lehen egunean hiru zezenkoetan txalotua izan zen. Bigarrenean ere bai lehen bi zezenkoetan, eta hirugarrenean belarria eman zioten[10].

Iruñean 1.913.ean, sanferminetarako Vicente Martinez (Colmenar Viejo-koa), Alaiza-ren semeak, Mihura eta Parladé ganaduzaleak izan ziren zezenak bidalitakoak[28]. Uztailaren 7rako Rafael Gonzalez *Machaquito*, Rodolfo Gaona eta Rafael *Gallo* zeuden kontratatuak. Uztailaren 8rako *Machaquito*, Rodolfo Gaona eta Rafael *Gallo*. Uztailaren 9an goizeko probarako eta arratsalderako *Machaquito*, Francisco Martin *Vazquez*, Rodolfo Gaona eta Rafael *Gallo*. Uztailaren 10erako, *Vazquez*, Gaona eta Rafael *Gallo* .Korrida batean ikusle batzuek zurezko guraize handi batzuk eraman zituzten eta Rafael *Gallo* ari zenean astindu ere bai, bere mototsa moztu zezan[12].

1.913.eko irailaren 10ean Teruel-eko Alcañiz herrian zezenplaza estreinatu zuten Candido Diaz nafarraren zezenkoak korrituz. Jaime Ballesteros *Herrerin* eta Florentino Ballesteros aragoarrek toreatu zituzten[13].

Bestetik 1.913.eko maiatzaren 5ean Tuteran Agustin Garcia Monreal jaio zen; gero *Chico del Matadero* ezizenez zezenko-hiltzaile izan zena[29].

1.913. urtean Landetan Barrere, Portalier, Robert, Passicos eta Darracq ganaduzaleekin

Coran, Fillang, Despouys, *Meunier* eta Soumprou taldeburuak ibili ziren zezenetan plazaz plaza. Landetan ordurarteko toreatzaile guztiak aldi berean saltatzaile ere baziren. Geroztik hasi ziren saltatzaile eta ez saltatzaileak bereizten[14].

———— o ———— o ————

1.914. urtean Bilboko Vista Alegren zezenetako denboraldiari martxoaren 19an eman zioten hasiera nobillada baten bidez. Lopez Plata–ren sei zezenko hiltzera Zakarias Lekunberri, Alejandro Saiz *Ale* eta Antonio Abao *Abaito* aurkeztu ziren. Zezenko suhar eta indartsu haiek 29 pikalditan 9 zaldi hil zituzten guztira. Lekunberrik lehenengoa ezpatakada batez bota zuen eta laugarrena beste lau deskabello–kolpez. *Ale* ausart eta urduri aritu zen eta *Abaito*ri txaloak jo zizkioten.

Bigarren nobillada martxoaren 25ean jokatu zuten Patricio Medina Garvey–ren (lehen Otaolaurretxi) sei zezenko on plazaratuta. Bostgarrena bakarrik izan zen txarra. Haiek toreatzeko Julian Sainz *Saleri II*.a, Jose Alvarez *Tello* eta Alejandro Irala kontratatu zituzten. *Saleri II*.a atera zen arratsalde hartan nagusi Vista Alegretik. Batean txaloak entzun zituen eta bestean belarria eman zioten. *Tello*k ausardia erakustea besterik ez zuen egin, eta Irala–k hori ere ez.

Apirilaren 5ean Bilbon zezenko bana toreatu zituzten Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo*, Elisardo Urgoiti, Jose Azkona *Chimbito* eta Jose Masdeu *Bilbainito*k. Zezenko txiki eta nobleak suertatu zitzaizkien. *Bilbainito*k ez zuen ezer egin. Loizaga barakaldarrak eta Azkona castrotarrak ausardia erakutsi zuten eta Urgoiti–k artea.

1.914.eko apirilaren 12ko nobillada, berezia izan zen. Vista Alegren Surga–ren sei zezenkoak plazaratu zirenean, beste inon ez bezala hondarrean pikatzailerik ez zegoen. Zezenkoa atera eta gero sartu ziren plazara zaldi–zaldunak. Egun hartan estreinatu zen beraz berrikuntza hura; Bilbon beste inon baino lehen. 1.927. urtean hasi ziren sistema hura plaza guztietan ofizialki aplikatzen.

Surga–ren sei zezenko toreatzera Jose Alvarez *Tello*, Antonio Abao *Abaito* eta Miguel Freg mexikarra etorri ziren. *Tello*k laugarrenean belarria lortu zuen. *Abaito*ri txaloak jo zizkioten batean eta bestean buelta eman zuen. Miguel Freg ezjakin eta ausart ikusi zuten bilbotarrek.

1.914.eko maiatzaren 2an eman zen Bilboko Vista Alegren urteko lehen korrida, kartel iragarlea Jose Arrue pintatzaile bilbotarrak egin ondoren. Gregorio Campos–en sei zezen latz eta zail toreatu zituzten Kastor Jauregibeitia, Serafin Bigiola *Torkito* eta Francisco Madrid–ek. *Bilboko kotxeritoak* ez zuen luzitzerik izan, baina borondateagatik txaloak entzun zituen. *Torkito* ere saiatu zen. Paco Madrid berriz gaizki aritu zen.

Maiatzaren 3an beste korrida bat eman zuten Vista Alegren Patricio Medina Garvey–ren sei zezen jokatuz. Bezperako korridako ezpatari berberek parte hartu zuten. Zezenak koldarrak eta indartsuak izan ziren. Kastor, *Torkito* eta Francisco Madrid–ek beraz, ahaleginaz gain ezer gutxi egin zuten.

1.914.eko 12an zekorketa izan zen Vista Alegren Orozko–tik bi zezenko eta Turtzioz–Billaberde–tik beste bi ekarrita. Maiatzaren 17an ere izan zen beste zekorketa bat leku berean. Antonio Hernandez–en lau zekor korritu ziren orduan. Maiatzaren 21eko zekorketa berriz, Turtzioz–Billaberde–tik ekarritako beste lau zekor jokatu zituzten Vista Alegren.

1.914.eko maiatzaren 31n, nobillada ospatu zen Bilbon. Tabernero–ren bi zezenko eta

Turtzioz–Billaberde–tik ekarritako beste bi hil zituzten Diego Markiaran *Fortuna* eta P. Garcia–k.

Ekainaren 7ko nobilladan, Bilbon Jose Azkona *Chimbito*, Imaz eta Inazio Ocejo *Ocejito chicok* parte hartu zuten. M. Santos–en bost zezenko jokatu ziren orduan.

1.914.eko ekainaren 14ean, Bilboko Vista Alegren zortzi zezeneko korrida eman zen. Dionisio Pelaez–ek sei zezen txiki eta koldar bidali zituen, Benjumea–k koldar bat eta Froes portugaldarrak beste bat. Tomas Alarcón *Mazzantinito*, Manuel Torres *Bombita III.a*, Serafin Bigiola *Torkito* eta Alejandro Saiz *Ale* aritu ziren lanean. *Mazzantinito* bere bigarrenean txalotu zuten. Torres–i seigarren zezenaren bi belarriak eman zizkioten. *Torkito* asko luzitu zen hirugarrenean eta zazpigarrenean belarria lortu zuen. *Alek* laugarrenean buelta eman zuen eta zortzigarrenean belarria eman zioten.

Ekainaren 24ean, San Joan egunez, Matias Sanchez–en (Trespalacios) sei zezen jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*, Tomas Alarcón *Mazzantinito* eta Juan Belmonte ezpatariek parte hartu zuten. Juan Belmonte lehen aldiz arratsalde hartan aurkeztu zen Bilbon Trespalacios–en zezenak hiltzera. Laugarrenari suzko banderilak ipini zizkioten.

Kastor Jauregibeitia, nahiz eta hanka zauritua eduki, asko saiatu zen eta txaloak jo zizkioten. *Mazzantinitok* bostgarren zezenaren belarria lortu zuen. Baina benetan arrakasta lortutakoa Juan Belmonte izan zen. Kapotez berebiziko lantzeak dotore egin ondoren, muletaz pase bikainak lortu zituen; bai zutik eta bai belauniko. Desplanteak ere izan ziren, eta ikusle guztiak berekin zituenean Belmonte–k laugarren saioan asmatu zuen ezpataz. Otazua jauna zegoen lehendakari, baina nahiz eta jendeak gogoz eskatu, ez zion belarririk eman nahi. Badirudi azkenean eman ziola ordea. Seigarren zezenak Juan Belmonte harrapatu egin zuen eta erizaindegira eraman behar izan zuten. Belmonte–k dena dela, bere toreatzeko eraz bilbotar guztiak bereganatu zituen.

Abuztuko korridak hilaren 16an hasi ziren 1.914. urtean Bilbon. Santa Coloma–ko kontearen sei zezen plazaratu zituzten Kastor Jauregibeitia, Francisco Posadas eta Juan Belmonte–rentzat. Ona izan zen abuztuko lehen korrida hura.

1.914.eko abuztuaren 17ko korridan, Parladé–ren zortzi zezen suhar, indartsu eta noble jokatu ziren Vista Alegren. Zazpigarrena ezinhobea zen. Rafael Gomez *Gallo*, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*, Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte–k parte hartu zuten. Rafael Gomez *Gallo*ren eguna izan zen hura. Onaldia zuen nonbait eta bere bi faenak ikaragarriak izan ziren; inspirazioz beteak. Belarri bana eman zioten bere bi zezenetan eta jendea txaloka aritu zitzaion atertu gabe.

Abuztuaren 18an korritutako zezenak, Mihurarenak, ikaragarriak ziren; luzeak, altuak, adarluzeak, satai onekoak. Batezbeste kanalean 32 arroa pisatu zuten. Rafael Gomez *Gallo*, Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte–k toreatu zituzten. Belmonte nabarmendu zen hirugarren zezenari egin zion faenagatik. Jendea bere alde oihuka ari zitzaion txoraturik lanean ari zela. Hiltzerakoan ordea eskumuturra erasanda zeukalako ez zuen lehenengoan asmatu.

1.914.eko abuztuaren 19an eman zen beste korrida bat Bilboko Vista Alegren, Rafael Gomez *Gallo*, Kastor Jauregibeitia eta Juan Belmonte ezpatari zirelarik. Murube–ren sei zezen toreatu zituzten orduan.

Abuztuko korrida haietan *Joselito*ri zezen garbi bakar bat tokatu zitzaion eta bost banderila–pare sartu zizkion alderdi beretik iskintxo eginez. Faena bikaina burutu ondoren, hiltzerakoan zezenak adarkatu egin zuen bularrean. Kastor Jauregibeitiak bezperan (hilaren 16an)

belarri bat irabazia zuen Santa Coloma–ren zezenekin eta Parladé–ren seigarrenak zauritu zuenez gero, Rafael *Gallo* eta Belmonte bakarrik gelditu ziren. Rafael Gomez *Gallo*k guztira bi belarri lortu zituen. Belmonte–k berriz bat, baina guztiak txunditurik zeuzkan bere toreaketa artistikoa medio.

1.914.eko irailaren 6an Amador Sanchez–en zezenkoak jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Alejandro Saiz *Ale* eta Manuel Gracia–k lan egin zuten. Zezenko koldar eta arriskutsu haiekin *Ale* ausart aritu zen eta Gracia–k lantze batzuetan bakarrik lortu zuen luzitzea[1].

Irailaren 13an Garcia de Lamaren zezenkoak jokatu ziren Vista Alegren. Eusebio Fuentes Gomez zezenko–hiltzaileak kailejoira salto egin zuen atzetik zezenkoa zetorkiola. Kailejoian zapaldu eta larriki zauritu zuen zezenak toreatzailea[3].

Irailaren 20ko nobilladan, Garcia S. De Lama–ren (lehen Halcon zenaren) lau zezenko koldar eta baldar toreatu zituzten Eusebio Fuentes eta Diego Markiaran *Fortuna*k. Eusebio Fuentes–ek belarri bat lortu zuen eta bere bigarrenak kolpaturik suertatu zen. *Fortuna*k ere belarri bat irabazi zuen faena bikaina burutu ondoren.

1.914.eko urriaren 4ean, Patricio Sanz–en lau zezenko korrituta beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Alejandro Saiz *Ale* eta Diego Markiaran *Fortuna* toreatzaile bizkaitarrek jendea pozik utzi zuten. *Ale*ri ausardia ikusi zioten eta *Fortuna* laugarrenean (nobleenean) nabarmendu zen. Bizkar gainean atera zuten plazatik.

Beste nobillada bat urriaren 11n izan zen Vista Alegren. Amador Garcia–ren lau zezenko toreatu zituzten *Blanquito* eta Aurelio Fernandez Blanco *Belmontito*k.

Azaroaren 8an ospatu zen Vista Alegren 1.914.eko azken nobillada. Amador Garcia–ren bi zezenko eta Patricio Sanz–en beste bi plazaratu zituzten Zakarias Lekunberri, Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*rentzat. Bigarren zezenkoari suzko banderilak ipini zizkioten. Lekunberri batean ongi eta bestean gaizki egon zen. Loizaga–ri belarri bat eman zioten eta *Rebonzanito*k ez zuen ezer egin[1].

Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxerito*arentzat 1.914. urtea ez zen ona izan. Oineko bi behatz kendu zizkioten operazio baten bidez alde batetik, eta bestetik *Joselito* eta Belmonte denei lekua kentzen indartsu zetozen bultzaka. Biak batera lehen aldiz Bartzelonan toreatu zuten, Kastor kartelkide zutela. Belmonte eta Kastor–ek ahaldundu berbera edukitzeak ere ez zion mesederik egin bilbotarrari. Dena dela, 1.914. urtean 17 korridatan 38 zezen hil zituen Kastor Jauregibeitiak[5].

Urte hartako apirilaren 12an, *Bilboko kotxeritoa*k alternatiba sendotu zion Francisco Posadas–i Madrilen, Manuel Torres eta Francisco Madrid lekuko zirelarik. Kastor Jauregibeitiak 1.914. urtean bere kaodrilan banderilari onak zituen; Antonio Iglesias *Chico del Matadero* eta Antonio Bravo *el Barquero* adibidez. Matias Aznar *Armillita* banderilaria berriz, urte hartan Vicente Pastor–en koadrilara pasatu zitzaion[3].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k gutxi toreatu zuen 1.914.ean. Hamar korridatan hogeitalau zezen hil zituen.

Serafin Bigiola *Torkito*rentzat urte hobea izan zen; 22 korridatan 52 zezen hil bait zituen[5]. Bartzelonako *Plaza Monumental* izenekoa *Torkito*k estreiantu zuen urte hartan apirilaren 12an Vicente Pastor, Manuel Mejías Rapela *Bienvenida* eta Francisco Martin *Vazquez*ekin batera.

8.000 ikuslerentzat lekua zuen plaza hartan, Veragua–ko dukearen zortzi zezen hil zituzten orduan[13]. Korrida batzuetan gaizki egon bazen ere, Madril, Donostia eta Gijon–en arrakasta handia lortu zuen.

1.914.ean, bere anaia Faustino Bigiola *Torkito II.*akdotzenaren bat nobilladatan parte hartu zuen. Bitor Bigiola *Torkito III.*a ere artean ia umea zela urte hartantxe hasi zen toreatzen herri txikietako plazatan[3].

Diego Markiaran *Fortuna* bizkaitarrak zorte ona izan zuen 1.914. urtean. Denboraldiari hasiera Madrileko Tetuan–eko plazan eman zion. Bi nobilladatan parte hartu zuen han eta gero beste hirutan segidan Carabanchel–eko plazan[5]. Maiatzaren 17an Fuente del Berro edo Carretera de Aragón–eko plazan aurkeztu zen Jose Mejias *Bienvenida III.*arekin batera, Remigio Frutos *Algeteño* eta Pascual Bueno ere kartelkide zirelarik. *Fortuna*k arrakasta handia lortu zuen arratsalde hartan[30]. Vicente Cortes eta Rufo Serrano–renak ziren zezenkoak[3]. Abuztuaren 2an plaza berean Pedro Carranza *Algabeño II.a* eta Alejandro Saiz *Ale*rekin batera Diego Markiaran–ek Eduardo Olearen zezenkoak hil zituen. Bartzelonan zazpi arratsaldetan lan egin zuen 1.914.ean. Guztira 22 nobillada toreatu zituen urte hartan[5]. Sevillan ere toreatu zuen irailaren 30ean, Bernardo Muñoz *Carnicerito* eta Jose Corzo *Corcito*rekin batera Anastasio Moreno Santamaria–ren zezenkoak hilez.

Alejandro Saiz *Ale* izan zen 1.914. urtean fama irabazitako beste toreatzaile bilbotar bat[3]. Domingo Uriarte *Rebonzanito* sestaoarra berriz, Bilboko Vista Alegren urriaren 8an aurkeztu zen, esana dugunez, eta 16 nobilladatan 30 zezenko hil zituen[5].

Zakarias Lekunberri busturiarrak gutxi toreatu zuen 1.914.ean. Bost nobilladatan bakarrik toreatzeko aukera eman bait zioten. Manuel Gracia zaragozarra Bilbon bizi zen eta 1.914.ean 20 nobilladatan toreatu zuen. Beste nobillada batean baita banderilari gisa ere. Doroteo Martin sestaoarra 1.914.ean zezenko–hiltzaile izateari utzi eta banderilari hasi zen. Tomas Alarcón *Mazzantinito*ren koadrilan lan egin zuen.

Jacinto Murillo *Murillito* bilbotarra 1.914.ean iragarkitan agertu zen nobilladatarako bere burua eskainiz. Emilio Fernandez bilbotar zezenko–hiltzaileak ere parte hartu omen zuen 1.914.ean Vista Alegreko nobillada batean[3].

Azpeitiko saninaziotarako, 1.914.ean Bartolome Uzin jaunak bi arratsaldetarako Zakarias Lekunberri eta *Salero* zezenko–hiltzaileak kontratatu zituen. Ganadua berriz, Candido Diaz Ziriza–ri erosi zion. Lekunberrik uztailaren 31n lehenengoan belarria lortu zuen eta beste bietan txalotua izan zen. *Salero*ri ere txaloak jo zizkioten hil zuen bakarrean. Biharamunean ere Lekunberrik txaloak entzun zituen lehen hiru zezenkoetan eta baita *Salero*k ere laugarrenean[10].

Azpeititik hurbil, Zestoan, 1.914.eko abuztuan Rafael Guerra toreatzaile famatua (erretiratua) bainuetxean zegoen eta Jose Gomez *Joselito* bisitatzera joan zitzaion. Bilbon zezen batean asmatu ezinik ibilia zen eta kontseilu eske inguratu zen maisu zaharrarengana. *Joselito*k argibide guztiak eman zizkionean, Rafael Guerra–ren erantzuna hau izan zen: *Horrelako zezenekin nik ere ez nukeen zer egin jakingo*[26].

Eibarren 1.914. urtean bertako gazte batzuek toreatzaile–koadrila osatu zuten Eduardo Atxa *Atxita* buru zelarik[3]. Pedro Basauri *Pedrutxo* eibartarra bestetik, Bartzelonan bizi zen bere familiarekin eta egun batean Sacas izeneko jaun bat ezagutu zuen. Hark behiekin ikuskizun

irrigarriak antolatzen zituen eta *Pedrutxo* eibartarra indiar jantzian atera zen Bartzeloneta–ko plazan. Basauri berak bost pezeta ordaindu behar izan zituen behia toreatzeagatik. Behi handi eta aurrez toreatua izanagatik, Basauri geldirik egon zen eta kapotez luzitzea lortu zuen. Hurrengo saioan hamar erreal bakarrik ordaindu zituen eibartarrak. Pueblonuevo–ko San Martin auzoan zezenzale batzuek aukera eman zioten Pedro Basauri–ri prepara zedin. Traje distiratsua lehen aldiz Eibarren jantzi zuen nobilladatxo batean. Iluminado Saenz *Iluminadito* eta Celso Saenz *Armerito* eibartar nobilleroen ordezko ezpatari gisa sartu zuten kartelean. Lehen zezenkoa plazaratu bezain azkar ordea, eskubakar–lantze faroldua eman zion Pedrok eta kapotez toreatzen segitu zuen, jendea txundituta utzirik.

1.914. urtean, Bartzelonako Las Arenas–eko plazan zezenkoak hiltzera lehen aldiz aurkeztu zen Cereceda eta Pacheco–rekin batera. Belarria moztu zion bere zezenkoari[8].

Urte hartantxe, 1.914.ean, Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarrak Juan Belmonte–ren erretratua egin zuen koadro handi batean[21].

Pedro Migel Urruzuno euskal idazleak berriz (Mendaro–ko kaperauak), *Zezenketa* izeneko ipuin barregarria argitaratu zuen 1.914.ean Euskal–Esnalea aldizkarian. Mutilzahar–koadrila batek toreatzaile–ofizioa ikasi nahi zuela eta, gertakizun xelebreak kontatzen ditu, azkenean bertsotan korriden aurkako bere eritzia ematen duelarik. Ipuinean zehar noizbehinka kopla batzuk dakartza. Honako hauek hain zuzen:

Ekarriko ditugu
Zezen beltz naparrak,
Laster astindutzeko
Gure mutill–zarrak

———

Kartzelan asko daude
Oye ederretan.
Zezenak narabil ni
Larri adarretan.

———

Zezenak berak baño
mutill–zar kuadrillak
bearrago dituzte
suzko banderillak

———

Orra gure kuadrilla
zer moduz dabillen,
urrengo korrida du
emango Madrillen.

———

Bijuaz eta bitez
ondo izan beti,
baña ibilli bitez
gugandik urruti.

———

Ainbat egoki gera
izango gu emen,

zenbat urrutiago
oyek gandik, Amen.[31]

Donostian dena dela, 1.914. urtean berriz ere Alderdi Zaharreko kaleetan sokamuturra ikusteko aukera izan zuten[32] eta gero udan korridak eman zituzten ohi bezala. Korrida haietan Rodolfo Gaona–k arrakasta handia lortu zuen; Parladé–ren zezen bat zetorkiola bikain hil zuenean batez ere. Aurrez Gaona oso txalotua izan zen Bordele–n (ekainaren 7an) eta Iruñean (sanferminetan). Iruñean, toreatu zituen ia zezen guztiei moztu zien belarria[3]. Gasteiz–en ere toreatu zuen Rodolfo Gaonak 1.914.ean. Kartel iragarleak honela bait zioen:

– Abuztuak 2, igandea. Ganaduzalea: Vicente Martinez–en ondorengoak (sei zezen)
Toreatzaileak: Rodolfo Gaona eta Francisco Posadas
– Abuztuak 3, astelehena. Ganaduzalea: Salas (sei zezen)
Toreatzaileak: Jose Gomez *Gallito*, Francisco Posadas eta Juan Belmonte
– Abuztuak 4, asteartea. Ganaduzalea: Dionisio Pelaez (zortzi zezen)
Toreatzaileak: Gaona, *Gallito* (edo *Joselito*), Posadas eta Belmonte
– Abuztuak 5, asteazkena. Ganaduzalea: Candido Diaz (Lau zezenko)
Toreatzaileak: Alejandro Saiz *Ale* eta Julian Sainz *Saleri II*.a.[33]

Iruñeko sanferminetarako 1.914. urtean, bost korrida eta proba bat iragarri zituzten. Proba uztailaren 11n izango zen eta korridak hilaren 7, 8, 9, 10 eta 12an. Zezenak torea eta hil zitzaten, Tomas Alarcón *Mazzantinito*, Francisco Martin *Vazquez*, Rodolfo Gaona, Jose Gomez *Joselito*, Francisco Posadas eta Juan Belmonte kontratatu zituzten. Uztailaren 8an *Joselito* eta Belmonte Anastasio Martin sevillarraren sei zezen toreatzekoak ziren. Uztailaren 9an Gaona, *Joselito* eta Belmontek Celsa Fonfrede, Concha y Sierra–ren alargunaren sei zezen hilko zituzten. Hilaren 11n Tuterako Alaiza–ren semeek bidalitako lau zezen *probatzera* aurkeztuko ziren Francisco Martin *Vazquez*, Gaona, *Joselito* eta Francisco Posadas[12]. Villagodio eta Javier Sanz–ek ere bidali zituzten zezenak sanferminetarako[28].

Bestetik, 1.914. urtean toreatzaile iruindar batek, Kalisto Gaston *Gastoncillo*k, istripu larria izan zuen ekainaren 11n Almaden–en (Ciudad Real–en) nobillada batean.

Tuteran ere eman ziren korridak 1.914. urtean. Uztailaren 26an hain zuzen, Manuel Mareca pikatzaile zaragozarra klabikula hautsita suertatu bait zen[3].

Candido Diaz ganaduzale nafarra, bere ganadutegitik nafar–kasta kentzen ari zen, eta 1.914.ean Guadalest–eko markesaren zezen batzuk ekarri zituen hazitarako.

Eta 1.914. urteko albisteei amaiera ematearren, aipa dezagun urte hartan 1.918. urterarte iraun zuen lehen mundu–gerra lehertu zela. Akitaniako ganadutegientzat kaltegarria izan zen gerra hura inola ere; asko desagertu egin bait ziren[34].

———— o ———— o ————

1.915. urtean Bilboko Vista Alegren zezenetako denboraldia martxoaren 7an hasi zen. Antonio Guerra–ren zezenko suhar eta latzak korritu ziren, Alejandro Saiz *Ale* eta Diego Markiaran *Fortuna* toreatzaile zirelarik. Lehen zezenkoak *Ale* zauritu egin zuen, eta *Fortuna*k nola edo hala zezenko guztiak hil zituen.

Martxoaren 21ean beste nobillada bat izan zen leku berean Carvajal–en zezenkoak korrituz. Alejandro Saiz *Ale*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Alvarez *Andaluz* izan ziren toreatzaileak.

1.915.eko apirilaren 18an, Bilboko Vista Alegren Felix Urkola–ren lau zekor jokatu zituzten langabezian zeuden langileen alde dirua biltzearren[1]. Zezenzaleen *Kotxerito* elkarteak antolatu zuen. F. Muñoz, F. Hueto, E. Makazaga eta A. Ibarrak parte hartu zuten[6]. Maiatzaren 2an berriz, Felix Urkola–ren sei zezen hiltzera Kastor Jauregibeitia, Rodolfo Gaona eta Luis Freg aurkeztu ziren. Urkolaren ganaduak, *Bilboko kotxeritoa*k eta Gaonak bezalaxe, legea bete zuen. Luis Freg mexikarra ordea, ausart aritu zen eta belarria eman zioten.

1.915.eko maiatzaren 6an, beste korrida bat ospatu zen Bilboko Vista Alegren. J. Gonzalez Nandin–en zezen suharrak Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Rodolfo Gaona–k hil zituzten. Vicente Pastor, Belmonteren ordez etorria zen, baina ez zuen ezer berezirik egin. Ezta *Bilboko kotxeritoa*k ere. Rodolfo Gaona–ri txaloak jo zizkioten eta belarri bat eman zioten bere dotoretasunagatik. Ignacio Sanchez Mejias–ek zazpigarren zezena hil zuen eta bere ausardia txalotua izan zen.

Maiatzaren 23an, lehiaketako nobillada bat eman zen Vista Alegren El Noticiero Bilbaino egunkariko Jose Maria Terán *Pescadilla*, J. Cárcamo eta abarrek antolaturik. Badirudi *Pescadilla*k orduan erabili zuela *nobel* hitza toreatzaile berrien lehiaketa haiek izendatzeko. Manuel Santos–en sei zezenko korritu ziren. Jose Maria Perez eta Martinez zezenko–hiltzaile berriak ongi aritu ziren, baina Migel Egia *Lumo* gernikarrak eta *Joselito* Martin bilbotarrak utzi zuten inpresiorik onena. *Joselito* bilbotarrak toreatzeko era fin eta dotorearen jabe zela adierazi zien guztiei[1]. Valeriano Alonso *Salitre*, Gregorio Ontalba, Jose Mendieta, Fernando Garcia *Chuletas* eta Luis Gomez–ek banderilari gisa parte hartu zuten. Angel Arguilea *Chico de la Peña*k ere bai.

Joakin Aroz *Arito*, Vicente Rodriguez, Joaquin Sanjuanes, Jose Uribarri, Joan Pagaldai, Andres Ortega, Ramon Garcia, Ramon Gonzalez eta Nikolas Bilbao izan ziren nobillada hartan parte hartu zuten beste toreatzaileak[3].

1.915.eko ekainaren 3ko nobilladan Juan Terrones–en zazpi zezenko toreatzera Domingo Uriarte *Rebonzanito*, Julian Gaztañaga, Isidoro Garcia *Jaro*, Alejandro Endemaño eta Benigno Iriarte aurkeztu ziren.

Geroxeago, ekainaren 6an, Andres Sanchez–en (lehen Arribas anaiak) sei zezenko zail toreatu zituzten Bilboko Vista Alegren, Manuel Blanco *Blanquito* eta Manuel Belmonte–k (Juan–en anaiak). Bi ezpatari gazteak txalotuak izan ziren.

1.915.eko ekainaren 20an, Juan Terrones–en lau zekor plazaratu zituzten, baina arratsalde hartan ez zen ezer onik atera; ezta eguraldia ere.

Ekainaren 27ko nobilladan ere, lehiaketa edo *nobel*enean, ez zen gauza onik atera. J. Terrones–en bost zezenko toriletara itzuli behar izan bait zituzten[1]. Amadeo Basaldua izan zen zezenko–hiltzailetako bat eta Jose Gomez *Chachaco* beste bat[3].

Uztailaren 4eko nobilladan, Sanchez Rico–ren lau zezenko Jose Tuñón, Domingo Uriarte *Rebonzanito*, Uribarri eta Jose Maria Perez–ek toreatu zituzten Vista Alegren. Uztailaren 11ko nobilladan berriz, Sanchez Rico–ren beste lau zezenko Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*k hil zituzten Bilbon. Jendea aspertu egin zen arratsalde hartan.

1.915. urtean abuztuko korridak hilaren 22an hasi ziren Bilbon. Lehen korrida hartan Santa Coloma–ko kontearen sei zezen toreatu eta hiltzeko Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Juan Belmonte kontratatu zituzten. Vicente Pastor–ek txaloak entzun zituen lehenengoan eta belarria eman zioten laugarrenean. *Bilboko kotxeritoa*ri jendea isilik gelditu zitzaion bigarrenean eta txaloak jo zizkion bostgarrenean. Belmonte berriz, ez zen ongi egon arratsalde hartan.

Abuztuaren 23an Gamero Civico–ren zortzi zezen hil zituzten Bilboko Vista Alegren Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia, Rodolfo Gaona eta Juan Belmonte–k. Zezen suhar haiekin, Vicente Pastor–i (berde eta urre) txaloak jo zizkioten lehenengoan. *Bilboko kotxeritoa* (grana eta urre) berriz, bigarrenean txalotu zuten. Gaonak ez zuen ezer berezirik egin eta Juan Belmonte gaizki egon zen arratsalde hartan. Laugarrenean txistuak jo zizkioten eta zortzigarrenean bronka galanta entzun zuen. Irteeran ikusle batek jo ere egin zuen.

Abuztuko hirugarren korridan, hilaren 24ekoan, Bilboko Vista Alegren Mihuraren bost zezen eta Gonzalez Nandin–en bat plazaratu zituzten. Vicente Pastor, *Bilboko kotxeritoa* eta Rodolfo Gaonak parte hartu zuten. Mihuraren lehen zezena arriskutsua suertatu zen eta gainerakoak onak. Gonzalez Nandin–en zezena latza eta iheslaria zen. Vicente Pastor–i txistuak jo zizkioten. Laugarrena hiltzerakoan kolpatua gertatu zen. *Bilboko kotxeritoa*k belarria lortu zuen bigarrengoan eta txalo asko jo zioten bostgarrenean. Rodolfo Gaona ez zen ongi egon eta txistuak entzun zituen.

1.915.eko abuztuaren 25ean Bilbon emandako korridan, Murube–ren sei zezenei bost belarri moztu zizkieten. Vicente Pastor, Rodolfo Gaona eta Juan Belmonte–k parte hartu zuten. Pastor–ek (urdin argi eta urre) hiru belarri lortu zituen bere toreaketa serio eta klasikoari esker. Gaona (arrosa eta urre) aspergarri egon zen bigarren zezenean, baina bostgarrenean fin eta dotore. Belarria eman zioten. Belmonte–k (berde ilun eta urre) maila ona lortu zuen eta zezen batean belarria ere bai.

Abuztuaren 29an beste korrida bat eman zen Bilbon. Pablo Romero–ren sei zezen Kastor Jauregibeitia, Rodolfo Gaona eta Juan Belmonte–k hil zituzten. Azkenean Murube–ren bat Jose Muñagorri atxuritarrak ere bai. *Bilboko kotxeritoa*k txalo asko entzun zuen bere lehenengoan eta bere bigarrenean belarria eman zioten. Gaona–ren lana ez zitzaien gustatu bilbotarrei arratsalde hartan. Belmonte–ri berriz, txaloak jo zizkioten hirugarren zezenean eta seigarrenean belarria lortu zuen.

1.915.eko irailaren 5ean lehiaketa erako nobillada antolatu zen Bilboko Vista Alegren. Sanchez Carreros–en sei zezenko plazaratu ziren eta guztien artean Manuel Sagasti bilbotarra nabarmendu zen[1]. Aurrez inguruko herrietan toreatua zen Sagasti, eta arratsalde hartan bi belarri lortuta bizkar gainean atera zuten. Angel Pombar ere ongi aritu zen arratsalde hartan[3].

Irailaren 8an zekorketa bat antolatu zuten Vista Alegren Bilboko kazetariek. Gomez–en lau zekor hil zituzten Jose Maria Mateos, Luis Fernandez *Alegrias*, Rafael Moreno *Pitxitxi* futbolaria eta Julio Uruñuela–k.

1.915.eko irailaren 19an, lehiaketa berri bat izan zen Vista Alegren. Nobillada hartan Emilio Garcia–ren sei zezenko korritu ziren, baina toreatzaileek hil ezin zituztelako lau torilętara itzuli zitutzten[1]. Miguel Duran izan zen toreatzailetako bat. Luciano San Juan *Hueverito* eta Gaspar Ureta besteak[3].

Irailaren 26ko nobilladan Emilio Garcia–ren beste lau zezenko plazaratu ziren Vista Alegren toreatzaile berriek (*nobel*ek) lehia egin zezaten. Guztiak gaizki egon ziren[1], baina Jose Martin

Joselito ez hainbeste. Jerman Rubenach bilbotarra oso gaizki egon zen[3].

1.915.eko urriaren 17an nobillada izan zen Bilboko Vista Alegren. Santiago Sanchez Terrones–en lau zezenko hil zituzten Zakarias Lekunberri eta Elisardo Urgoiti–k. Elisardo bere lehenengoan zauriturik suertatu zen eta Zakarias Lekunberri–k lau zezenkoak hil behar izan zituen. Lekunberrik, ezpata sartzerakoan, zezenkoaren buru gainetik buztanerainoko bidaiak egin zituen airean, askotan ohi zuen bezala.

Urriaren 24ean eman zen Vista Alegren 1.915.eko azken nobillada. Candido Diaz nafarraren lau zezenko hil zituzten Enrique Rodriguez *Manolete II.ak* eta Manuel Sagasti–k. Bi ezpatariak gaizki egon ziren[1].

Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoak* 1.915. urtean 18 korridatan parte hartu zuen 40 zezen hilez[5]. Madrilen apirilaren 4ean toreatu zuen Pedro Carranza *Algabeño II.*aren alternatibakoan, Vicente Pastor–ekin batera. Aleas–en zezenak toreatu ziren arratsalde hartan. Dena dela 1.915. urtean Kastor Jauregibeitiak ez zuen arrakasta handirik lortu.

Rufino San Bizente *Begoñako Txikia* ere gain behera ari zen 1.915. urtean[3]. Hiru korridatan sei zezen hil zituen; besterik ez[5]. Irailaren 21ean Ondara–n Juan Belmonte–rekin toreatzekoa zen. Korrida atzeratu egin zen ordea, eta Rufino San Bizente–k *Saint Nazaire* itsasuntzia hartu zuen Peru–ra joatearren. Ganadutegi zailetako zezenak toreatu ohi zituen gehienetan San Bizente–k[35].

Serafin Bigiola *Torkitok* ere 1.915. urtean ez zuen asko toreatu. Hamaika korridatan hogeitabost zezen bakarrik[5].

Dena dela Diego Markiaran *Fortuna*rentzat urte ona izan zen 1.915.a. Beste edozein zezenko–hiltzailek baino gehiago toreatu zuen: 42 nobilladatan. Martxoaren 14ean Madrilen zen Carretera de Aragon izeneko lekuko plazan, Pedro Carranza *Algabeño II.a* eta Jose Roger *Valencia*rekin Patricio Medina Garvey–ren zezenkoak toreatzen. *Lobito* zezenkoaren belarria eman zioten; urte hartako lehenengoa[5]. Maiatzaren 23an, Bartzelonan zen Las Arenas–eko plazan. Han Casimiro aita–seme portugaldar burtzikarien ezpatari gisa lan egingo zuen, burtzikatutako bi zezenak zaldiz hiltzen ez bazituzten[21]. 1.915. urtean Barakaldo–ko Udal–bandako zuzendari zen Pedro Alberdi tolosarrak[36] *Fortuna* izeneko pasodoblea estreinatu zuen. Berea da *Kotxerito* izeneko pasodoblea ere[21].

Alejandro Saiz *Ale* bilbotarra bitan gertatu zen zauriturik 1.915.ean. Martxoaren 7an Bilbon, lehen esan dugunez, eta abuztuaren 8an Madrilen berriz, Felix Urkola–ren zezenko bat hiltzerakoan. Ezkerreko galtzarbean adarkatu zuen zezenkoak[3].

Domingo Uriarte *Rebonzanito* ere oso larriki zauriturik suertatu zen Miranda de Ebro–n irailaren 8an. Ezkerreko belarrondoko hezurra hautsi zitzaion orduan eta hiltzear egon zen. Gero, ilez estalitako zilarrezko pieza bat erabiltzen zuen buruan.

Jose Muñagorri 1.915. urteko abuztuaren 26an Indautxu–ko zezenplazan ordezko ezpatari gisa atera zen Juan Cecilio *Punteret* eta Pacomio Peribañez–ek toreatutako korrida batean. Zezenak Villagodio–ko markesarenak izan ziren. Geroztik Diego Markiaran *Fortuna*ren koadrilan ibili zen Jose Muñagorri[5].

Faustino Bigiola *Torkito II.*arentzat urte ona izan zen 1.915.a. Madrilen uztailaren 15ean aurkeztu zen, Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Alvarez *Andaluz*ekin batera Veragua-ko dukearen zezenkoak hiltzera. Nahiz eta zezenkoak zailak izan, Faustino Bigiolak lana ongi egin zuen eta Madrilen beste baterako kontratatu zuten. Guztira hogei nobilladatan toreatu zuen Faustino Bigiola bilbotarrak[3].

1.915. urtean Madrilen behin baino gehiagotan toreatutako beste bat Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo* da. Arratsalde bakoitzean 50 pezeta kobratzen zituen eta handik 20 pikatzaile eta banderilariari ordaindu behar zien berak. Toreatzeko trajea alokatzea berriz, 25 pezeta kostatzen zitzaion. Enpresak azkenean, 200 pezeta ematen zizkion[30].

Aipatua dugu Manuel Sagasti bilbotarrak 1.915.ean Vista Alegren bitan toreatu zuela. Baina horietaz gainera irailaren 27an Iruñean ere parte hartu zuen beste nobillada batean, Enrique Rodriguez *Manolete II.a* eta Jose Zarco-rekin batera Candido Diaz-en zezenkoak hilez. Belarria eman zioten orduan bilbotarrari. Azaroaren 1ean Cadiz-etik Caracas aldera abiatu zen, han 12 nobilladatan eta jaialdi batean toreatzeko asmoz. Abenduaren 26an Panama-n arrakasta handia lortu zuen eta handik Mexiko-ra aldatu zen gehiago toreatzera[3].

Bilbon bestetik, bi urtean gaitzak jota ohean geldirik egon ondoren 1.915.eko otsailean Frantzisko Sarasua *Txarol* pikatzaile famatu izandakoa hil egin zen[7].

Bilbon ordea, toreatzaile berriak gero eta gehiago agertzen ari ziren. Martin Aguero Ereño gazteak, artean 13 urte bakarrik zituen eta bere gurasoek automobil-lantegi batera sartu zuten 1.915. urtean, ofizioa ikas zezan. Ofizio hartan ez zuen asko iraun, egia esan. Serapio Aranguren bilbotarra 1.915.ean hasi zen banderilari-lanak egiten bere herrian. Luis Arreba bilbotarra ere urte hartan hasi zen zezenkoak hiltzen eta urriaren 17an Carabanchel-en Terrones-en zezenko batek zauritu egin zuen. Luis Garrote bilbotarra dugu 1.915.ean banderilari-lanetan hasitako beste bat. Julian Hernandez *Badillo* ere lan berean urte hartantxe hasi zen Bilbon.

Jose Tuñon, Begoña-n jaiotako toreatzailea ere beti bezala ausart zebilen 1.915.ean.

Irailaren 12an Gijon-en Amador Garcia eta Salas-en zezenkoak hil zituen Emilio Mayor *Mayorito* eta Bernardo Casielles-ekin batera.

Rafael Garcia *Gitanillo chico* zezenko-hiltzailea ere 1.915.ean agertzen da iragarkietan. Dirudienez arabarra zen[3]. Alfonso Olaberri Eizagirre berriz, gipuzkoarra zen; urte hartantxe (1.915.ean) urriaren 30ean Tolosan jaioa[37].

Tolosan 1.915.eko sanjoanetan, ekainaren 24ean, Alaiza nafarraren zezenkoak toreatu zituzten Rodolfo Gaona eta Florentino Ballesteros zaragozarrak. Lehendakariak torileko giltza botata alguaziltxoa zauritu egin zuen; buruan jo bait zuen[8].

Bartolome Gorrotxategi *Plantillerito* eibartarra ere 1.915. urtean lanean ari zen eibartar toreatzaile-koadrila batean[3].

Azpeitian 1.915.eko uztailaren 9an, Zirilo Astigarraga Amenabar jaio zen; gero zezenko-hiltzaile izango zena[38]. Saninaziotako zezenak berriz, Bizente Uzin-ek antolatu zituen urte hartan. Udalak zezenak Nafarroatik ekartzeko baldintza ipini zion. Tuñon (Jose Tuñon bilbotarra izango zela pentsatzen dugu) eta Faustino Bigiola *Torkito II.a* izan ziren toreatzaileak. Tuñon-ek txaloak eta belarri bat jaso zituen. *Torkito II.*ak berriz, bronka eta txaloak. Badirudi uztailaren 31n

ez zela nobilladarik izan, eta abuztuaren 1ean bai[10].

Gasteiz–en 1.915.ean abuztuan eman ziren korridak Ama Birjina elurretakoaren omenetan. Bronka-hasiera ere egon zen bertan. Donostian berriz, aurreko urteetan ez eta zezensuzkoa korritu zuten 1.915.ean Konstituzio–plazan[39]. Abuztuan korridak urtero bezala izan ziren Donostian, eta hilaren 22an J. Gomez *Joselitok* Santa Coloma-ko kontearen sei zezen berak bakarrik hil zituen[1].

Urte hartako Bazko–egunean, donostiar asko joan zen Iruñera, eta han ongi–etorria egin zieten nafarrek. Zezenak ere izan ziren[40]. Sanferminetan ere bai, noski, urtero bezala, eta horretarako kartel iragarlea argitaratu zuten. Uztailaren 7an Tuterako Alaiza–ren semeen zezenak hilko zituzten Jose Gomez *Joselito*, Francisco Posadas eta Julian Saiz *Saleri II.*ak. Uztailaren 8an Celsa Fontfrede anderearen zezenak Rodolfo Gaona, *Joselito* eta Belmonte–rentzat izango ziren. Uztailaren 9an Santa Coloma–ko kontearen sei zezenekin bezperako ezpatariek lan egingo zuten. Uztailaren 10ean proba izango zuten. Villagodio–ko markesaren lau zezen Gaona, Serafin Bigiola *Torkito*, Posadas eta *Saleri II.*ak hilko zituzten. Uztailaren 11n izango zen laugarren korrida. Veragua–ko dukearen sei zezen Gaona, Posada eta *Saleri II.*ak hilko zituzten. Korrida haietara pelikula zinematografikoak hartzeko kamerak eramatea debekatua zegoen.

Entzierroak, goizeko seietan egiten ziren, antzinako ohiturari jarraituz[12]. Azpimarratzekoa da uztailaren 10eko proban Villagodio–ko markesaren zezen bat Alaiza–ren beste batez ordezkatu izatea. Izan ere entzierroan jendeak makilaz jota bati begia hondatu zion[41].

14.1. Irudia. Iruñean 1.915.eko uztailaren 10ean proban korrituako zezenak.

———— o ———— o ————

1.916. urtean lehen nobillada martxoaren 26an eman zen Bilboko Vista Alegren. Francisco Drake–ren (lehen Solis–en) zezenkoak txikiak eta motelak suertatu zitzaizkien Alejandro Saiz *Ale* eta Diego Markiaran *Fortunari*. *Alek* belarri bat lortu zuen, baina *Fortuna* zorterik gabe ibili zen. Batean abisu bat eta bestean bi bidali zizkion lehendakariak.

Apirilaren 2an emandako nobilladan Francisco Drake–ren bi zezenko eta Baeza–ren beste bi plazaratu ziren Vista Alegren. Jose Amuedo eta Faustino Bigiola *Torkito II.*ak lan egin zuten orduan.

1.916. urteko apirilaren 23an izan zen beste nobillada bat Vista Alegren. Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Zarco–k Tovar–eko dukearen sei zezenko bikain hil zituzten. Bostgarrena izan zen onena. *Fortuna*k bitan txaloak entzun zituen eta bere hirugarrenean buelta eman zuen. Jose Zarco–k ere jendea gustora utzi zuen, baina ez zezenkoek adina.

Apirilaren 30ean urteko lehen korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Jose Carvajal–en bost zezen eta Salas–en alargunaren beste bat plazaratu zituzten Pacomio Peribañez, Julian Saiz *Saleri II.a* eta Florentino Ballesteros–ek torea zitzaten. Peribañez, Alfonso Cela *Celita*ren ordez etorri zen, hau Madrilen zauriturik suertatu zen eta. Pacomio–k lehenengoari belarria moztu zion, baina laugarrenean txistuak entzun zituen. *Saleri II.*ari txaloak jo zizkioten, eta Florentino Ballesteros–ek seigarrenean berotu zuen jendea. Nahiz eta alternatiba hartuberria izan, faena fin eta nortasunez betea burutu zuen, baina ezpataz asmatu ez zuelako belarririk gabe gelditu zen.

1.916.eko maiatzaren 2an, bigarren korrida ospatu zen Bilbon. Salas–en alargunaren sei zezen toreatu zituzten Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte–k. Sei zezenak ederrak eta ongi armatuak ziren, baina zalditan gehiegi zigortu zituzten. Belmonte–k bi zezenetan legea bete zuen eta bestean oso ederki egon zen. Jose Gomez *Joselito*ri belarri bat eman zioten. Azkenean Carvajal–en zezen bat Inazio Ocejo *Ocejito chico* bilbotarrak hil zuen, belarria lortuz.

Maiatzaren 14ean, Luis Baeza–ren lau zezenko korritu zituzten Bilboko Vista Alegren. Domingo Uriarte *Rebonzanito* eta Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo*k parte hartu zuten orduan. Lehen zezenkoa bakarrik izan zen itxurazkoa. Besteak sutzeko modukoak izan ziren. *Rebonzanito*k dena dela, belarri bat lortu zuen, eta Loizaga–k ez zuen ezer egin arratsalde osoan.

1.916.eko maiatzaren 21ean Vista Alegren emandako nobilladan Manuel Garcia–Aleas–en lau zezenko toreatu zituzten Zakarias Lekunberri eta Diego Markiaran *Fortuna*k. Bi zezenkori suzko banderilak ipini zizkieten, baina Lekunberri nahiz *Fortuna*k airoso irtetea lortu zuten.

Ekainaren 1ean, Kastor Jauregibeitia eta Serafin Bigiola *Torkito*k parte hartu zuten Bilboko Vista Alegren Andres Sanchez–en sei zezen jokatu zireneko korridan. Sanchez–en zezen gizen eta adakera txikikoek ez zioten Serafin–i bere toreaketa fina erakuts zezan lagundu. *Bilboko kotxeritoa*k ordea, lehenengo eta bostgarrenari belarri bana moztu zien.

Ekainaren 22an, Carreros–en sei zezenko hiltzera Zakarias Lekunberri, Diego Markiaran *Fortuna* eta Angel Fernandez *Angelete* aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezenko handi eta koldar haiek hamahiru zaldi hil zituzten. Lekunberri–k ohi bezala ausardia erakutsi zuen, *Fortuna*k toreatzeko jakinduria eta *Angelete*k ezintasuna.

1.916.eko ekainaren 25ean, Clairac–en lau zezenko eta Bernardo del Amo–ren bat korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Doroteo Martin sestaoarrak eta Jose Maria Perez–ek legea bete zuten. Manuel Sagasti–k ordea, belarria lortu zuen. Marseille–ko Suarez jaunak zezenko bat uzkali egin zuen, aspaldi egin ohi zen bezala.

Uztailaren 2an, Bilboko kazetariek zekorketa bat antolatu zuten Vista Alegren. Santiago Sanchez–en zekorrak jokatu ziren eta toreatzaileetan Jerman Etxebarria *Maneras* nabarmendu zen.

Astebete geroago, uztailaren 9an, eta leku berean Salas-eko markesaren lau zekor plazaratu ziren Bilboko bizarginek antolatutako zezenfesta alaian[1].

Vista Alegreko Batzorde Administratiboak Roberto Domingo pintatzaile famatuari dei egin zion urte hartako zezenetarako kartela berak egin zezan[6].

Abuztuaren 20an lehen korrida izan zen Bilboko Vista Alegren. Vicente Pastor, Alfonso Cela *Celita* eta Jose Gomez *Joselitok* parte hartu zuten Santa Coloma-ko kontearen sei zezen hilez. Vicente Pastor-i txaloak jo zizkioten bere bi zezenetan. *Celitak* Belmonte-ren ordez lan egin zuen; ausart, baina jakinduriarik gabe. *Joselitok* buelta eman zuen hirugarrenean eta seigarrenean faenarik onena egin zion zezen koldarrari guztiak harrituta utziz.

Abuztuaren 21eko korridan, Gamero Cívico-ren sei zezen toreatzera Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia eta Rodolfo Gaona plazaratu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen eder eta suhar haiekin (laugarrenak ezik, besteek zangartasuna erakutsi zuten) Vicente Pastor-ek laugarrenean belarria irabazi zuen. *Bilboko kotxeritoari* txaloak jo zizkioten eta Gaona hotz ikusi zuen jendeak arratsalde hartan. Juan Belmonte-ren ordez etorria zen.

1.916.eko abuztuaren 22an Pablo Romero-ren sei zezen hil zituzten Kastor Jauregibeitia, Rodolfo Gaona eta Jose Gomez *Joselitok* Bilboko Vista Alegren. Zezen handi eta indartsuak, zakarrak eta suhartasunik gabekoak izan ziren. *Bilboko kotxeritoari* txaloak jo zizkioten, eta Gaonari txistu asko. Bronka ikaragarria entzun zuen. *Joselitok* seigarren zezenean denak hautsi zituen. Faena bikainaren amaieran ezpata goi-goian osorik sartu zuen eta zezenaren bi belarriak eman zizkioten.

Biharamunean, abuztuaren 23an, Mihura-ren sei zezen jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Vicente Pastor, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Jose Gomez *Joselito* aritu ziren lanean. Bi zezen oso koldarrak gertatu zitzaizkien. Pastor-ek legea betetzea bakarrik egin zuen eta *Bilboko kotxeritoa* labur aritu zen bere zezenetan. *Joselitok* bere ahalmenak eta jakinduria ikaragarria erakutsi zituen. Akats bat bera ere ez zuen egin toreatzaileak eta guztira hiru belarri eman zizkioten arratsalde hartan. Bizkar gainean erabili zuten azkenean.

1.916.eko abuztuaren 27an, beste korrida bat ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Murube-ren sei zezen baldar toreatu zituzten Kastor Jauregibeitia, Alfonso Cela *Celita* eta Jose Gomez *Joselitok*. Kastor-ek txalo asko entzun zuen bere lanagatik. Belmonte-ren ordez etorritako *Celitak* ere bai. *Joselitok* hirugarrenean luzitzerik ez zuen izan, baina azkenekoan jendea zutik ipini zitzaion, bi belarriak lortuz. *Joselitoren* lan sakon, jakintsu eta dotoreak denak liluraturik zeuzkan. Azkenean, Ignacio Sanchez Mejias-ek zazpigarren zezena hil zuen, brindisa *Bilboko kotxeritoari* egin ondoren.

Irailaren 8an, Bilboko tabernariek zekorketa antolatu zuten. Lehen Gama-renak ziren eta A. Perez-en eskuetara etorrita zeuden lau zekor jokatu zituzten. Jose Mallabia, Pako Zabala eta Pako Bilbao ibili ziren toreatzen. Fabian Bilbao pikatzaileak ere bere lana egin zuen.

1.916.eko irailaren 17an Carreros-en zezenkoak hil zituzten Vista Alegren Zakarias Lekunberri eta Alejandro Saiz *Alek. Aleri* belarri bat eman zioten eta Lekunberri-ri ez, ezpataz asmatu ez zuelako.

Urriaren 1eko nobilladan Amador Garcia-ren zezenko fin eta suharrak toreatzeko Jose

eta Martinez–ek ez zuten ezer egin. Manuel Sagasti luzitu zen, baina *Rebonzanito* izan zen guztien gain nagusi. Belarria irabazi zuen.

Urriaren 8rako Bilbon bizi zen aragoar jendeak zekorketa bat antolatu zuen Vista Alegren A. Garcia–ren lau zekor korrituta.

1.916.eko urriaren 22an, Vicente Martinez–en ondorengoek bidalitako zazpi zezen jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Jose Gomez *Joselito*k berak bakarrik hil ziuten zazpiak. Zazpi zezenak koldar jokatu zuten. Bigarrena izan zen koldarrena, baina *Joselito*k harrigarriro faena bikaina burutu zion. Oinak finkaturik bederatzi pase natural osatu zituen, besteak beste. Ezpataz ere lehenengoan asmatu zuen eta jendea erabat bereganatuta txaloka aritu zitzaion etengabe. Jendea txunditurik zegoen *Joselito*ren ahalmen, jakinduria eta dotoreziaz.

Manuel del Pino *Monerri* eta Antonio Chaves *Canero* pikatzaileak ere luzitu ziren arratsalde hartan. Enrique Belenguer *Blanquet* peoiak ere bere eginkizunak bikain bete zituen.

1.916.eko denboraldia, nobillada batez amaitu zen Bilboko Vista Alegren urriaren 29an. Peñalver–en lau zezenko plazaratu zituzten Inazio Ocejo *Ocejito chico*, Lorenzo Ocejo *Ocejito* bere anaia, Romualdo Aldai eta Anastasio Monton toreatzaileentzat. Inazio Ocejo–k bakarrik egin zuen zerbait. Besteek ezer ere ez. Romualdo Aldai–ri zezenkoa toriletara itzuli zioten[1].

*Bilboko kotxeritoa*k 1.916. urtean zehar hamazazpi korridatan hogeitamazazpi zezen hil zituen[5]. Ekainaren 25ean Madrilen alternatiba sendotu zion Jose Garcia *Alcarreño*ri, Francisco Martin *Vazquez* lekuko zela. Pablo Romero–ren zezenak hil zituzten orduan[3].

Rufino San Bizente–k 1.916. urtean gutxiago toreatu zuen. Bost korridatan bederatzi zezen hil zituen[5]. Mexikon urte hasieran Manuel Jimenez *Pastore*kin toreatu zuen Tampico–n. Madrilen, Vista Alegre–ko plazan, irailaren 24ean Enrique Rodriguez *Manolete II*.ari alternatiba eman zion[3].

Serafin Bigiola *Torkito* da garai hartan alternatibadun toreatzaile gisa lanean ari zen beste bizkaitar bat. Hamahiru korridatan 31 zezen hil zituen urte hartan.

Diego Markiaran *Fortuna*k 1.916. urtean 31 nobilladatan parte hartu zuen, irailaren 16an Madrilen alternatiba hartu zuen arte. Bere gris eta urrezko trajea jantzita, Pablo Benjumea–ren *Podenco* izeneko zezena hiltzeko tresnak Rafael Gomez *Gallo*k utzi zizkion Alfonso Cela *Celita*ren aurrean. Arrakasta handia lortu zuen arratsalde hartan. Urte hartantxe guztira 9 korridatan 17 zezen hil zituen[5]. *Fortuna*k bere koadrilarako, Manuel Mendez *Artillerito* pikatzailea kontratatu zuen[3]. Diego Markiaran–ek hildako azken zezenkoaren eta lehen zezenaren buruak naturalizatuta daude Federiko Etxebarria pintatzaileak Torremolinos–en (Malaga–n) duen museoan[21].

Alejandro Saiz *Ale* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*k beren martxari eutsi zioten 1.916.ean plaza garrantzitsutan nobilladak toreatuz[3].

Luis Mauro toreatzaile lekeitiarra, uztailaren 25ean Madrilen aurkeztu zen, Carlos Nicolas *Llavero* eta Remigio Frutos *Algeteño*rekin batera Anastasio Martin–en zezenkoak hiltzera.

Jose Martin *Joselito* bilbotarra ere nobilladatan parte hartzen ari zen, eta 1.916. urte inguruan Gregorio Yanguas *Zapata* banderilari iruindarra bildu zitzaion koadrilara.

Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo* 1.916.eko abuztuaren 8an Madrilen aurkeztu zen, Gabriel Hernandez *Posadero*rekin batera Jose Bueno–ren lau zezenko hiltzera[29].

Gasteizen abuztuan korridak eman zituzten, eta hilaren 9koan Jose Gomez *Joselito*k berak bakarrik Muruberen bost zezen eta Alaiza–ren bat hil zituen[1].

Irungo zezenplazan, urte hartako abuztuaren 27an korrida eman zen. Tovar–eko dukearen sei zezen hil zituzten Vicente Pastor eta Rafael Gomez *Gallo*k.

Pedro Basauri *Pedrutxo*k, Bartzelonan lehiaketa bat irabazi zuelako, pikatzailedun nobilladatan hasteko aukera izan zuen 1.916.ean. Plazako ikuiluetan Bohorquez–en zezen handi bat zegoela jakin zuenean, enpresariari hura hil nahi zuela adierazi zion. 585 kilokoa eta zazpi urtekoa zen zezen hura, baina hala eta guztiz ere Pedro Basauri–k ederki toreatu eta hil zuen. Urriaren 1ean Bartzelona–ko Las Arenas–eko plazan Rafael Toboso–rekin batera aurkeztu zen Perez de la Concha–ren lau zezenko pikatzaileekin toreatzera. Guztiz ongi egon zelako, Madrilen hiru nobilladatan toreatzeko eskaintza egin zioten eta baita Bartzelonan beste sei toreatzeko ere. Baldintza bat jarri zioten ordea: Madril eta Bartzelonako enpresariak akordiora heldu arte Bartzelonan ez toreatzea. *Pedrutxo* ordea hurrengo igandean Las Arenas–eko plazan toreatzeko hitz emanda zegoen, eta toreatu egin zuen. Madrileko enpresaria haserretu egin zen[8].

Garai hartan beste eibartar bat, Inazio Zuloaga pintatzailea, Aragoan maiz izaten zen, eta Zaragozako zezenfesta batean zezen bat hil zuen[42].

Azpeitian 1.916. urteko saninaziotarako Candido Diaz ganaduzale nafarraren zezenak ekarri zituzten. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean Mariano Merino *Montes II.a* eta *Bombita IV.a* toreatzaileentzat jokatu ziren[10].

Donostian ere urtero bezala korridak eman zituzten. *La Afición* izeneko aldizkaria ere argitaratu zen bertan[4].

Bestetik, Donostiako plazako enpresari izango zen Eduardo Pagés jaunak, Charles Chaplin *Charlot*en imitazio eginez zezenfesta irrigarria antolatu zuen maiatzaren 16an Las Arenas–eko plazan Bartzelonan; *Charlotada* jaio zen beraz[13].

Iruñeko sanfermientarako, 1.916.ean lau korrida eta proba bat iragarri ziren. Honela zioen kartelak:

- Uztailak 7. Felix Urkola–ren sei zezen (dibisa gris–berdea) Vicente Pastor, Francisco Martin *Vazquez* eta Rodolfo Gaona–rentzat.
- Uztailak 9. Vicente Martinez–en sei zezen, *Vazquez*, Juan Belmonte eta Florentino Ballesteros–entzat.
- Uztailak 10. Sevillako Jose A. Martin–en sei zezen, Vicente Pastor, Rodolfo Gaona eta Juan Belmonte toreatzaileentzat.
- Uztailak 11. Celsa Fonfrede–ren sei zezen, Pastor, Gaona eta Belmonte–rentzat.
- Uztailak 8. Tuterako Alaiza–ren seme–alaben lau zezen probarako. Toreatzaileak: Pastor, *Vazquez*, Gaona eta Ballesteros[12].

———— o ———— o ————

1.917. urteari eta Bilbori gagozkiolarik, Vista Alegren martxoaren 18an emandako nobillada aipatuko dugu lehenbizi. Graciliano Perez Tabernero–ren zezenkoak Ricardo Anlló *Nacional* eta Emilio Mendez–ek toreatu zituzten. Emilio Mendez–ek bere ausardia erakutsi zuen, baina larriki zauriturik suertatu zen. Ricardo Anlló aragoarrari ez zitzaion gauza handirik ikusi.

Apirilaren 22an, Vista Alegren Diego Markiaran *Fortuna* ezpatari bakar zela korrida eman zen Matias Sanchez–en (Trespalacios–ekoa) zezen txiki samarrak jokatuz. *Fortuna*k lehen eta azken zezenean txaloak entzun zituen, baina batezbeste ikusleak ez ziren gustora gelditu.

1.917.eko maiatzaren 2an beste korrida bat eman zen Vista Alegren. Jose Carvajal–en sei zezen urduri eta zailak toreatzen Kastor Jauregibeitia, Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte aritu ziren. *Bilboko kotxeritoa*k bere bigarren zezenean belarria lortu zuen. Juan Belmonte asmatu ezinik ibili zen eta benetan arrakastatsua *Joselito*k egina izan zen. Zezenik txarrenak tokatu arren, bere jakinduriari esker abereak nahi bezala maneiatzea lortu zuen.

Maiatzaren 6an beste korrida bat eman zen Vista Alegren Juan Contreras–en zezenak jokatuta. Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte–k toreatu zuten. Arratsalde hartan ordea *Joselito*k ez zuen gauza handirik egin eta Belmonte–k bai. Laugarren eta seigarren zezenaren belarriak eman zizkioten eta bizkar gainean atera zuten. Zazpigarren zezena Zakarias Lekunberrik hil zuen, berak ohi bezala.

1.917.eko maiatzaren 13ko nobilladan, Jose Maria Arribas–en zezenkoak korritu zituzten Vista Alegren. Jose Sanchez Rodriguez *Hipolito*, Enrique Cano *Gavira* eta Emilio Mendez toreatzaileek lan egin zuten. Lehen zezenkoak *Hipolito* berehala harrapatu egin zuen eta horregatik *Gavira*k hiru hil behar izan zituen. Emilio Mendez banderilak sartzen bakarrik nabarmendu zen. Zezenkoak ikuilutan asko erabiliak zirelako maltzur portatu zitzaizkien.

Ekainaren 3an lehiaketa moduan nobillada eman zen Vista Alegren toreatzaile *nobel*entzat. Matias Sanchez–en sei zezenko suhar jokatu ziren. Maximo Cámara toreatzaile bilbotarra izan zen 100 pezetako sariaren irabazlea. Bi zezenko hil zituen eta baten belarria eman zioten.

1.917.eko ekainaren 10ean Vista Alegre–ko nobilladan Zakarias Lekunberri eta *Joselito* Martin–ek parte hartu zuten. Antonio Perez Tabernero, Alipio Perez Tabernero eta Juan Terrones–en bina zezenko plazaratu ziren. Hogeitabat pikalditan bost zaldi hil zituzten. Lekunberrik belarri bat lortu zuen eta *Joselito* Martin–ek bere toreatzeko era fin eta dotorearen berri eman zien bere herritarrei.

Ekainaren 17an emandako nobilladan, Juan Terrones–en sei zezenko korritu ziren Vista Alegren. Francisco Martin *Paquillo*, Juan Luis de la Rosa eta Lucio Vicario *Botines* (Bilbon bizi zen toreatzaile erdikomikoa) izan ziren ezpatariak. Juan Luis de la Rosa cadiztarrak bi belarri lortu zituen eta bera izan zen nagusi.

Maiatzaren 24ean Matias Sanchez–en lau zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren lehiaketa erako nobilladan. Atxutegi, Usabiaga, Jauregizar eta Posadas toreatzaileek parte hartu zuten.

1.917.eko uztailaren 1ean zekorketa antolatu zuten Bilboko Vista Alegren zapata–garbitzaileek. Juan Jimenez–en lau zekor hil zituzten Lago eta beste batzuk. Astebete geroago berriz, leku berean bizarginek Salas–eko markes alargunaren lau zekor plazaratu zituzten.

Uztailaren 15ean, nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Jose Manuel Garcia–ren sei

zezenko suharrekin lan egin zuten Zakarias Lekunberri, Juan Luis de la Rosa eta *Joselito* Martin-ek. Lekunberri ezpataz luzitu zen, eta Rosa cadiztarra toreatzen.

1.917.eko 22an Juan Terrones-en sei zezenko toreatu zituzten Bilboko Vista Alegren inguruko toreatzaileek.

Uztailaren 31n, Bilbon korrida ikusteko aukera egon zen. Kazetari-elkarteak antolatu zuen eta Guadalest-en sei zezen toreatu zituzten Rafael Gomez *Gallo*, Jose Gomez *Joselito* eta Alejandro Saiz *Alek*. Rafael duda-mudatan ibili zen eta ikusleen eritziak banatu egin ziren. *Joselito* menperatzaile ikusi zuen jendeak, eta *Alek* herritarrak gustora utzi zituen; hirugarren zezenari ezpata sartutakoan batez ere. Korrida hirugarren zezenean bertan behera gelditu zen euriagatik.

1.917.eko abuztuan, bost korrida eman ziren Bilboko Vista Alegren hilaren 22tik 26rarte. Greba orokorra medio, abuztuaren 22an eman zen lehen korrida, eta ez lehenago. Santa Coloma-ko kontearen sei zezen jokatu zituzten, toreatzaile Rafael Gomez *Gallo*, Kastor Jauregibeitia eta Jose Gomez *Joselito* zirela. Zezenek legea bete zuten, bik ezik. Izan ere bi oso koldarrak suertatu ziren. *Bilboko kotxeritoak* eta *Joselitok* belarri bana irabazi zuten. Bistan akatsa zuen *Joselito*ren zezenak, baina bere jakinduriari esker belarria irabazteko lanak egin zituen.

Abuztuaren 23ko korridan Mihuraren zezenak toreatzera Rafael Gomez *Gallo*, *Joselito*, Juan Belmonte eta Diego Markiaran *Fortuna* aurkeztu ziren. Belmonte-ri bi belarri eman zizkioten eta *Fortuna*ri bat.

Abuztuaren 24eko korridan, Gamero Civico-ren ganadua jokatu zen Vista Alegren; itxura kaxkarrekoa. *Bilboko kotxeritoak*, *Joselitok* eta Belmonte-ek hil zituzten. Kastor Jauregibeitia-k belarri bat lortu zuen arratsalde hartan, baina bigarren zezenari *Joselitok* egindako lana izan zen aipagarriena. Bi belarri eta buztana eman zizkioten saritzat. Buztana Bilbon oso gutxitan emana zen.

Laugarren korridan, 1.917.eko abuztuaren 25ekoan, Pablo Romero-ren zezenak Rafael Gomez *Gallo*, *Joselito* eta Belmonte-k hil zituzten. Zezen indartsu eta latzak izan ziren. Belmonte-k belarria irabazi zuen eta bizkar gainean erabili zuten. Belmonte-ri ausardia eta dotorezia ikusi zizkioten[1]. Rafael Gomez *Gallo* gaizki egon zen eta berebiziko bronka armatu zen. Rafael orduan zerbaiten aitzakiaz erizaindegira joan zen, baina *El Noticiero*ko Rikardo Garai fotografoak argazkiak atera zizkion. Ignacio Sanchez Mejias koinatuak (Rafael-en arrebarekin ezkondua zegoen) fotoak ez argitaratzeko eskatu zion, baina Rikardok ezezkoa eman zion. Rafael-en ezpata-mutilak kamera hondatu zion ordea Garai-ri. Sanchez Mejias-ek hotelean ordainduko ziola esan zion fotografoari. Hotelean Sanchez Mejias eta Rafael, Fernando eta *Joselito* anaiak zeuden. Garai-k 700 pezetako faktura erakutsi zion *Joselito*ri, baina hark (xuhurra izaki) ez zion ordaindu eta berriro borrokan hasi ziren. Epaitegian konpondu zen azkenean arazoa[43].

Abuztuaren 26ko korridan Carmen de Federico-ren zezenak hil zituzten Bilbon Kastor Jauregibeitia, Belmonte eta *Fortuna*k. Zezenak (lehen Murube-renak izandakoak) noble eta garbi portatu ziren. *Bilboko kotxeritoa* eta *Fortuna* izan ziren belarria lortu zutenak. *Fortuna*k azken zezenari ezpata oso ongi sartu zion oin-hegazka. Gero beste zezen bat *Joselito* Martin bilbotarrak hil zuen, dotore eta fin toreatu ondoren.

1.917.eko irailaren 16an Bilboko Vista Alegren Francisco Marcos-en lau zekor hil zituzten Lucio Vicario *Botines* eta Francisco Sanjurjo *Posadas*ek beren emankizun komikoan.

Irailaren 30eko nobilladan Vista Alegren Alipio T. Sanchon–en zezenkoak Zuazo, Bilbao, *Botines* eta *Posadas*ek hil zituzten.

1.917.eko urriaren 14ean *Kotxerito* elkarteak korrida antolatu zuen Bilboko Vista Alegren Manuel Morena banderilariaren familiari laguntzeko dirua biltzearren. Manuel Morena Bilboko *El Liberal* egunkariko tipografoa zen eta Haron irailean zezenko batek sabelean adarkatuta hil zen. Argimiro Perez Tabernero–ren zezenak jokatu ziren bere omenez Vista Alegren, eta toreatzaile gisa Kastor Jauregibeitia, Rodolfo Gaona, Rufino San Bizente, Serafin Bigiola *Torkito*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Alejandro Saiz *Ale*k lan egin zuten. Ezpatari guztiek belarri bana irabazi zuten. Zezenen portaera ezinhobea izan zen eta toreatzaile guztiena ere bai[1]. Korrida batean bost ezpatari bizkaitar biltzea ez da beste inoiz gertatu[6].

Urriaren 18an Vista Alegren emandako nobilladan, Abraham Vicente Rivas salamancatarraren lau zezenko hil zituen Lucio Vicario *Botines* toreatzaile komikoak.

Urriaren 21ean ospatu zen Bilbon 1.917.eko azken nobillada. Abraham Vicente Rivas–en lau zezenko toreatzera Eladio Amoros eta Juan Luis de la Rosa ekarri zituzten. Eladio Amoros Salamanca–n jaioa zen eta hamalau urte besterik ez zituen. Hala ere ederki toreatzen zuen. Juan Luis de la Rosa–k ere bai, nahiz eta 16 urte bakarrik izan, baina ezpataz asmatu ezinik ibiltzen zen[1].

1.917. urtean alternatiba hartutako toreatzaile bizkaitar asko zegoen. Batetik Kastor Jauregibeitia dugu. Hamaika korridatan hemeretzi zezen hil zituen[5]. Irailaren 23an Madrilen *Bilboko kotxeritoa*k Angel Fernandez *Angeleter*i alternatiba sendotu zion Alfonso Cela *Celita*ren aurrean. Zezenak Felix Urkola bilbotarrarenak ziren. Madrilen 1.917.eko denboraldiko lehen korridan ere parte hartu zuen Kastor Jauregibeitia–k apirilaren 8an. Rafael Gomez *Gallo*, Pacomio Peribañez eta Juan Silveti–rekin batera Salvador Garcia de la Lama–ren zezenak hil zituen[3].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia* ere 1.917.ean toreatzen ari zen. Zazpi korridatan 18 zezen hil zituen[5]. Gero udazkenean Ameriketara joan zen eta abenduaren 20an Lima–n Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Garcia *Alcalareño*rekin batera toreatu zuen[3].

Serafin Bigiola *Torkito*k 1.917. urtean 13 korridatan 25 zezen hil zituen. Arrakasta handia lortu zuen Madril, Bartzelona, Donostia eta Bilbon[5]. Bere anaia Faustino Bigiola *Torkito II*.a nobilladatan toreatzen ari zen urte hartan. Madrilen urtarrilaren 7an Eugenio Bentoldra eta Jose Fernandez *Cocherito de Madrid*ekin toreatu zuen[3].

Diego Markiaran *Fortuna* aurreko urtean alternatiba hartua zen, eta 1.917.ean 36 korridatan 76 zezen hil ziuten. Plazako istripuengatik korrida batzuk galdu zituen[5].

Iruñean sanferminetan bi arratsaldetan lan egin zuen. Uztailaren 7an Jose Gomez *Joselito* eta Rodolfo Gaona–rekin Guadalest–en zezenak hil ziuten. Bere lehenengoan belarria eman zioten[15]. Huelva–n irailaren 6an Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte–rekin Gaudalest–en zezenak toreatzen ari zela zauritu egin zen eta ondorioz bederatzi korrida galdu zituen. Baita arrazoi desberdinengatik bertan behera utzi ziren beste sei ere. Udazkenean Lima–ra joan zen eta han bost korridatan parte hartu zuen. Bere koadrilan Jose Sierra *Sierrita* edo *Tancredo* pikatzailea (Santander–ekoa) joan zen[3].

Alejandro Saiz *Ale*k, 1.917.eko apirilaren 8an alternatiba hartu zuen Madrileko Vista

Alegre-ko plazan (Carabanchel-en). Julio Gomez *Relampaguito*k Manuel Rodriguez *Manolete*ren aurrean utzi zizkion Jose Pereira Palha-ren *Joyero* izeneko zezena hiltzeko tresnak. *Ale*k belarria moztu zion eta bizkar gainean atera zuten. Urte hartan guztira 16 korridatan 25 zezen hil zituen[5].

Joselito Martin bilbotarra ere fama irabazten ari zen garai hartan. Uztailaren 19an Madrilen lan egin zuen gaueko nobillada batean. Luis Baeza-ren zezenko txikiak toreatu zituen Francisco Peralta *Facultades*ekin batera. *Joselito* Martin-ek bere anaia Castulo Martin banderilari gisa koadrilan hartu zuen.

Domingo Uriarte *Rebonzanito* ere ongi toreatzen ari zen garai hartan maila handiko plazatan. Jose Tuñon-ek (Begoñakoak) berriz, urte hartan edo hurrengoan toreatzeari utzi egin zion[3]. Martin Aguero Ereño bilbotar gazteak ordea, toreatzaile-ofizioari hasiera eman zion. Hamasei urte zituela, herri koxkorretako plazatan bere lehen saioak egin zituen[5].

Leon Bazterretxea bilbotarra ere 1.917. urtean toreatzaile-ofizioa ikasia zen inguruko herrietan. Fama handia lortua zuen jadanik urte hartarako eta irailaren 19an Madrilen Carabanchel-eko plazan aurkeztu zen Mariano Montes eta Salvador Garcia-rekin toreatzea. Onaren fama zuelako jendeak asko exigitu zion Madrilen eta harez gero ez zen langintza hartan nabarmendu[3].

Bizkaiko Balmaseda-n bestetik, zezenfestak Kadagua ibaia eta La Robla-ko trenbidearen tarteko zezenplaza biribilean izaten ziren garai hartan[44].

Villagodio-ko markesak, Jose Etxebarria Bengoa bilbotarrak, bere behiak Santa Coloma-ko kontearen zezenekin nahastu zituen horrela ganadu txikiagoa eta finagoa lortuz[34].

Beste bilbotar ospatsu bat, Julian Etxebarria enpresaria zen. Madrileko plaza, Bartzelonako hirurak (Monumentala, Bartzeloneta-koa eta Las Arenas-ekoa) eta Sevilla-ko Monumentala berak zeramatzan[1].

*Eibarreko Pedrutxo*k, Pedro Basauri-k alegia, arrakasta handiak zituen arratsaldero plazatan, eta Julian Etxebarria Madriletik bila etorri zitzaion Bartzelonara. Ados jarri ziren biak bilbotarraren plazetan torea zezan, baina etxerakoan Etxebarria enpresaria istripuz hil egin zen errepidean[8]. Enpresari bilbotarrak 46 urte zituen orduan[1]. Pedro Basauri-k dena dela, zezenplazatan borroka eta lana fin eginez bere kontratuak lortu zituen. Sevillan Mihuraren zezenkoak Eugenio Bentoldrá eta *Romerito de Sevilla*rekin batera hil zituen. Bere bi zezenkoen belarria eman zioten eta bizkar gainean atera zuten plazatik txalo artean[8].

Azpeitian 1.917.eko saninaziotan uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean Zakarias Lekunberri eta Luis Muñoz *Marchenero*k toreatu zuten. Lehen egunean Andres Sanchez-en zezenkoak jokatu ziren eta bigarrenean Alipio T. Sanchon-enak eta Andres Sanchez-en bat. Bi arratsaldetan bi toreatzaileak txalotuak izan ziren[10].

Azpeiti inguruan Zestoako partean dagoen Sorabil baserrian (Aizarna-n) Xerapio mutilzaharrak larrabehiak edukitzen zituen. 1.917.ean ordea batek Azpeitiko Landeta-raino ihes egin zion eta han Txintxua izezenko baserrian sagastiko sagarrak jaten omen zituen gauez. Larrabehi hura harrapatu ezinik ibili ziren eta Frantzisko Iturtzaeta azpeitiarrak hara zer bertso jarri zituen:

1) *Aditu ezazute*
Franziskoren deya,
ausento bat esaten
artu duben leya;
ixilik egoteko
dala geiegiya,
nola ibilli dan gizon
elementokeya,
arrapatu eziñik
Soabill'en beya.

2) *Ausento ontan b'al da*
franko istorio,
danak esan–enian
zuzen digario;
bertsuak ipintzia
ez da misterio,
jende asko ibilli da
larri ta erio,
Soabill'en larre–bei
au dala merio.

3) *Bei onek egin du*
asko azio txar,
izurratuak ditu
zenbat erribetar;
mantendutzen zan soro,
sagasti ta abar,
askuak jan da bota
mutur eta adar,
Txintxuai ondau dizko
ogei gurdi sagar.

4) *Bastante keja ziran*
erriberatarrak,
eiten zituelako
sarrera kaskarrak;
zentzu aundikua zan
ta ankak azkarrak,
iñor oserbatzian
dantzauaz adarrak,
libratutzen zituan
kamiño–baztarrak.

5) *Soo ta sasti zebillen*
ase eta bete,
kalte asko egiñaz
botatze ta jate;
Sorabill'ena dala
noizbait jakin dute,
keja kendu dezala

mediatamente,
orduan arakiñai
saldua diote.

6) *Azpeiti'ko arakiñak*
asi ziran galaz,
aisa atxitutzeko
idian iñolaz;
bestela ezin da gero
tiroz eta balaz,
baña etziran iristen
arentzat eskolaz,
iges egiten zien
brinko eta jolas.

7) *Tentatzen zebiltzala*
ein zuten abildu,
aien tiruakatik
etzan ain debildu;
iñork ez du eritu,
ain gutxi il du,
berriz e sagastira
egiten zan bildu,
besterik etzuten egin:
arrapatzen zaildu.

8) *Arakiñak etsita*
ziranian jarri,
sasti–zaliak keja
jabiari sarri,
gogorrago asteko
azienda orri;
txakurrak eta gizon
Lastur'tik ekarri,
berriz saldu diote
ango Ziolarri.

9) *Egin nai zutenentzat*
zezenez pestia,
Ziolarrek pentsatu
ori erostia,
bi urte inguruko
larre–bei gaztia,
aumentatu zedien
beraren kastia;
pobrezitu ainbeste
anbat du kostia.

10) *Ebaltzen zutenian*
arakiñak iyan,

Lasturtarrak etorri
ziran balentiyan,
ori arrapatzeko
enpeño aundiyan;
batian bajuan da
bestian mendiyan,
ala ibilli ziran
jai bat edo biyan.

11) *Gabian sagastiyan*
ibillita jaten,
bi legua bidian
aldian zan juaten,
lazuak jarrita ere
ziyen antzematen;
nun gordeta egoten zan
observatu zuten,
Manteka deitzen zaion
itur ondo baten.

12) *Andik atera zuten*
txakurrez aurrian,
mendi gañera erten du
trote gogorrian;
andik Odri-iturrira
amilka abarrian,
jateko beta gabe
mokaurik larrian,
txakurrak bestek ezin
segitu urrian.

13) *Aiek kolpe buzten da*
kolpe muturrian,
saberri Munoaundi
ortik zigerrian;
Anatxa'n txaran bera
guztizko inderrian,
galanki nekatuta
illunabarrian,
Aizarna aldian gertau
laga biarrian.

14) *Andikan zortziren bat*
egun eo zazpira,
berriz e etorri dala
beia sagastira;
Txintxotarrak orrela
kontentu eztira,
erasoko dutela
ziaro gaizkira,
sartu biaituztela

danak jueztira.

15) *Astearte perikoz*
goizero goizian,
arrapatzalle oiek
bizkor asi zian,
ganadu ori erren–
ditzeko pozian,
txakur eta makilla
biaje luzian,
mangatuko zutela
besterik ezian.

16) *Sagasti aldi ortan*
lenbiziko mogi,
bildur zan gaizkillia
dan bezela ori;
ustez zerkatu arren
bee eta goi,
sei edo zazpi gizon
edo geiagori
errespetorik artu
etzion iñori.

17) *Odria alde ortara*
nolabait moldatu,
soo–jabiak an zala
bizkor akordatu;
artorik jan etzeien
nai zuten guardatu,
trankiarekin jota
adarrak dardatu,
alare denbora asko
etzuan tardatu.

18) *Ortik gora etzuten*
milla diferentzi,
Elormendi gaztiak
eskuak egotzi;
itxumustru gaiztua
ziyon erakutsi,
gauza onik etzala
zuanian etsi,
ark ere beriala
egin zion utzi.

19) *Antxiturbi–goikora*
ortik arutzian,
ondoren jende asko
zan osteuntzian;

iru Lasturtar ziran
guztien atzian,
neuri galdetu ziten
bestiak nun zian,
nik esan niyenian
aguro juan zian.

20) *Antxiturbi–goiko'tik*
Markes–txaradira
txakurrakin buerdan
al zuben tokira;
aurretikan kolpe ta
buztenetik tira,
balda danak pasata
Biziu'tik jira,
laster ziraden Etu–
meta–ko egira.

21) *Andik sekulakorik*
eta azkarrena
jo du Etumeta'ko
beko so barrena;
jatxera ederra zan
ganadu arrena,
bera aurrian eta
bestiak urrena,
ai ura desditxa ta
baska txakurrena¡

22) *Baso sakon guztiyak*
korritu arian,
Zepari'tikan buelta
nola pasa dian,
Antxiturbi–berriko
atari parian,
Motrikuarrak eldu
orduko tarian,
an errenditu zuten
denbora berian.

23) *Izan dira guztizko*
apustu egitiak,
bizirik atxitu ez ta bai
demanda jentiak;
señalaturik noiz izan
orduak betiak,
amarna amabi duro
askotxok botiak,
astinduak dituzte
diru–billetiak.

24) Milla beatzireun da
amazazpi urte,
Kristoren jaiotzatik
au zanera tarte;
Motrikoar da Lasturtar
arrapatzen parte,
Elormendi ta Arana,
Ibarguen puerte,
danak saiatu dira
errenditu arte.

25) Beia baten gañian
orrenbeste pleito,
txarrian jarri zaio
naikua kleito;
izan ere ark zuan
ainbeste delito,
arrapatuta laster
ein zitzaien ito,
larrutu ta aragiyak
eramanda kito.

Bertsotan bertako lekuizen asko aipatzen da: Ziolar (Endoia–ko baserria) Manteka–iturri (Arauntza mendian dago), Odri–iturri eta Odria baserria (Azpeitian, Arauntza–n), Saberri eta Munoaundi (Etumeta–n) Anatxan (Lasao–n), Elormendi (Azpeitiko baserria), Antxiturbi–goikoa (Etumeta–n), Markes–txaradia (Arauntzan), Bizigu (Aizarna–n), Etumeta (Errezileti k Aizarna–rako bidean), Zepari (Errezilen), eta Antxiturbi berri (Errezilen)[45].

Donostian 1.917.eko abuztuaren 12, 13, 15, 18, 19 eta 26an izan ziren korridak. Zezenak honako ganaduzale hauek bidali zituzten: Carmen de Federico, Mihura, Santa Coloma–ko kontea, Pablo Romero, Saltillo–ko markesa eta Gamero Civico. Toreatzaileak Vicente Pastor, Jose Gomez *Joselito*, Rafael Gomez *Gallo*, Juan Belmonte eta Diego Markiaran *Fortuna* izan ziren[46].

Gero irailaren 9an beste nobillada bat ospatu zen Donostiako Txofre–n Villagodio-ko markesaren zezenkoak jokatuz. *Camarero* izenekoak sei pikaldi jasan zituen eta oso suharra izan zen. *Cisne* izenekoak berriz, bost pikalditan hiru zaldi hil zituen. Noble eta zangar jokatu zuen zezenko honek ere plazan[13].

1.917. urteko abenduaren 5ean bestetik, Donostiako Udalak Jose Arana enpresari izandakoari Gros auzoan kale bat eskaintzea erabaki zuen[8].

Iruñeko sanferminetarako 1.917. urtean honako kartel iragarle hau argitaratu zuten:

– Uztailak 7. Guadalest–eko markesaren sei zezen, Rafael Gomez *Gallo*, Jose Gomez *Joselito* eta Diego Markiaran *Fortuna*rentzat.
– Uztailak 8. Gregorio Campos–en zezenak, Rodolfo Gaona, *Joselito* eta *Fortuna* toreatzaileentzat.
– Uztailak 9. Felipe Salas–en alargunaren zezenak probarako. Toreatzaileak Rafael Gomez *Gallo*, Gaona, *Joselito* eta *Fortuna*.

– Uztailak 10. Tomasa Escribano–ren (Joaquin Murube–ren alargunaren) zezenak, Rafael *Gallo*, Gaona eta *Joselito*rentzat.
– Uztailak 11. Vicente Martinez–en ondorengoen zezenak, *Gallo*, Gaona eta *Joselito*rentzat.
– Uztailak 15. Villar anaien zezenkoak, Ricardo Anlló *Nacional* eta Emilio Mendez–entzat[12].

Uztailaren 8an gauean, Gregorio Campos–en zezen batek ihes egin zuen entzierrotxoan. Larrotxapeako bastioi ingurutik Errota Zahar aldera jo eta han zebilen ibai ondoan. Agustin Uztarroz unanmaizterrak bereak eta bi egin zituen, baina azkenean goizeko seietarako lortu zuen taldera erakartzea. Gero entzierroan zezena ikuilutik irten nahi ezta ibili zen. Ondoren bidean hesiak bota egin zituen hiru lekutan eta azkenean bi mutil larriki zaurituta sartu zen plazara[47].

Lizarra–n, 1.917. urtean zezenplaza berria estreinatu zuten. Matias Colmenares bertako arkitektoak diseinatua da. Irailaren 2 eta 3an Francisco Posadas eta Francisco Peralta *Facultades* zezenko–hiltzaileek egin zuten lan plaza hartan lehenengo aldiz[48].

1.917. urtean Kaparroso–ko Jazinto Zalduendo–ren ganadutegia bere alargunaren eskuetara pasa zen; Kalagorri–ko Karmen Miranda alargunaren eskuetara. Emakume hark bere ordezkari Tuterako Martin Amigot Sesma jauna izendatu zuen.

Bestetik, Gregorio eta Sinforiana Alaiza ganaduzaleen zezenak Tuteran azken aldiz 1.917.eko uztailaren 25ean jokatu ziren[49].

Zezenfestetarako arautegiak aztertzerakoan, 1.917. urteak garrantzi berezia du. Izan ere Joaquin Ruiz Jimenez Gobernazio–ministrariak otsailaren 28an arautegi berria argitaratu zuen. Derrigorrez bete beharrekoa zen Bartzelona, Bilbo, Madril, Donostia, Sevilla, Valentzia eta Zaragoza-ko zezenplazetan. Gainerako plazetan gobernadore zibilaren eskutan zegoen arautegi berria aplikatzea ala ez aplikatzea. Erizaindegi eta pikatzeko eztenei buruzko arauak ordea, plaza guztietan bete beharrekoak ziren. Zezenen pisu minimoak ezartzen ziren eta zirrindoladun eztenak ere bai pikaldietarako. Zezenplazatan mediku kirurgilariek egon behar zuten, istripuren bat gertatuta ere[29]. Beste arau asko ere argitaratu zen 1.917.ean, baina denak aipatzeak luzeegi joko luke.

———— o ———— o ————

1.918. urtean, Bilboko Vista Alegren zezenetako denboraldia martxoaren 10ean hasi zen. Pedro Sanchez–en lau zezenko toreatu eta hil zituzten Martin Etxeandia *Basurtoko mutila* (*Chico de Basurto*), Maximo Camara, Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* eta Usobiaga–k.

Martxoaren 17an izan zen bigarren nobillada. Tovar–eko dukearen zezenkoak noble eta suhar portatu ziren. Haiekin Faustino Bigiola *Torkito II*.ak ez zuen ezer onik egin. Domingo Gonzalez *Dominguin* txalotua izan zen, eta *Joselito* Martin bilbotarrak denak hautsi zituen. Kapote, muleta eta ezpataz ongi aritu zen eta belarria eman zioten.

1.918.eko martxoaren 24ean Pedro Sanchez–en sei zezenko hil zituzten Bilboko Vista Alegren Lucio Vicario *Botines* eta bere taldekoek.

Apirilaren 9an ikasleek antolatutako zezenfesta batean Pedro Sanchez–en lau zekor korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Gero, hil beraren 28an beste nobillada bat eman zen M. Sanchez Carreros–en zezenkoak plazaratuta. Zezenko zailak izan ziren inola ere haiek. Zakarias Lekunberri nahastuta ibili zen, baina bere ohizko eran sartu zien ezpata bere etsaiei. Montes ongi aritu zen muletaz, baina ezpataz ez. Ernesto Pastor berriz, adorerik eta trebetasunik gabe zebilela ikusi zuten.

1.918.eko maiatzaren 2an Vista Alegren urteko lehen korrida eman zen. Guadalest–eko markesaren zezenak toreatu eta hil zituzten arratsalde hartan Kastor Jauregibeitia, Jose Gomez *Joselito* eta Julian Saiz *Saleri II*.ak. Ganadu txikia, argala eta biguna bidali zuen Bilbora Guadalest–eko markesak. *Bilboko kotxeritoa*ri txaloak jo zizkioten bere bi zezenetan. *Joselito* lau banderila–pare ipintzen luzitu zen batez ere. *Saleri II*.ari ere txalo batzuk jo zizkioten.

Maiatzaren 5ean bigarren korrida izan zen Bilbon, aurrekoan lan egindako ezpatari berberek parte hartu zutelarik. Zezenak Carvajal–enak izan ziren; ederrak eta nobleak. Kastor Jauregibeitiak txaloak entzun zituen lehenengoan eta belarria irabazi zuen laugarrenean. *Joselito* ondo aritu zen toreatzen, baina ezpataz ez zuen asmatu. Julian Saiz–ek kapotez eta muletaz egin zituen gauzarik onenak, eta azkenean txaloak jo zizkioten. Carvajal–en zazpigarren zezena *Chato de la Burda*k itxura batean hil zuen.

1.918.eko maiatzaren 9an beste nobillada bat eman zen Vista Alegren Pedro Sanchez–en sei zezenko jokatuz. Lucio Vicario *Botines* eta bere taldekoek hil zituzten.

Maiatzaren 12ko nobilladan, leku berean Sanchez Rico–ren sei zezenko plazaratu zituzten. *Joselito* Martin–ek bere bigarrenean lortu zuen arrakasta. Bi belarriak moztu zizkion. Domingo Uriarte *Rebonzanito*k ere arratsalde ona izan zuen. Bostgarrenaren belarria eman zioten. Manuel Sagasti–k ere belarria lortu zuen hirugarren zezenkoan eta seigarrenean txaloak jo zizkioten.

1.918.eko maiatzaren 19an korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Veragua–ko dukearen sei zezen eder eta suhar plazaratu zituzten, Serafin Bigiola *Torkito* eta Alejandro Saiz *Ale* bizkaitarrak ezpatari zirela. *Ale* ez zen ongi egon arratsalde hartan, baina *Torkito* bai. Bere toreatzeko era fina dastatu ahal izan zuten. Bi belarri eman zizkioten eta bizkar gainean atera zuten plazatik.

Maiatzaren 26ko nobilladan, Pedro Sanchez–en sei zezenko jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Martin Etxeandia *Basurtoko mutila*, Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* eta Maximo Camara–k parte hartu zuten. Zezenko onak izan zirenez gero, hiru ezpatariei esker arratsalde ona pasa zuten ikusleek.

1.918.eko maiatzaren 30ean S. Sanchez Terrones–en sei zezenko plazaratu ziren Vista Alegren. Zezenko koldarrak izan zirelako, nobillada hartan Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Domingo Uriarte *Rebonzanito* eta Juan Luis de la Rosa–k gauza handirik ez zuten egin. *Rebonzanito*k bere pase farolduei esker alaitu zuen zertxobait ikuslegoa.

Ekainaren 2ko nobilladan Bilboko Vista Alegren Palha–ren sei zezenko plazaratu zituzten Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Rafael Rubio *Rodalito* eta *Joselito* Martin–entzat. Hiru ezpatariak gaizki ibili ziren Palha–ren ganaduaren indarra eta suhartasuna menperatu ezinik.

Ekainaren 9ko nobilladan M. Garcia–Aleas–en zezenko koldarrekin *Joselito* Martin–ek ez zuen ezer lortu, baina Domingo Gonzalez *Dominguin*en lana txalotua izan zen.

1.918.eko ekainaren 16an Emilio Clavijo–ren sei zezenko jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren, toreatzaile berriek (*nobel*ek) lehia egin zezaten. Biharamunean ere nobillada berdina ospatu zen Emilio Clavijo–ren hiru zezenko korrituta.

Ekainaren 29ko emankizun misto batean, Martin Etxeandia–k P. Sanchez–en bi zezenko hil

zituen Bilboko Vista Alegren eta ekainaren 30ean leku berean eta antzeko emankizunean Lucio Vicario *Botines* eta Francisco Sanjurjo *Posadas*ek ganaduzale beraren beste bi zezenko hil zituzten.

1.918.eko abuztuaren 18an hasi ziren udako korridak Bilboko Vista Alegren. Gamero Civico–ren sei zezen plazaratu zituzten lehen korridan Kastor Jauregibeitia, Serafin Bigiola *Torkito* eta Julian Saiz *Saleri II*.arentzat. Ganadu suhar harekin *Bilboko kotxeritoa*k laugarren zezenean belarria lortu zuen. *Torkito*k ezpataz ez zuen zorterik izan, baina kapotez nahiz muletaz artista aritu zen eta txalo asko jo zioten. Julian Saiz–ek seigarrenean lortu zuen arrakasta. Zezena gainera zetorkiola sartu zion ezpata. Belarria eman zioten.

Abuztuaren 19ko korridan Mihuraren sei zezen toreatzera Julian Saiz *Saleri II.a*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Florez *Camará* plazatu ziren. Zezen ederrak, baina lehenengoa ezik geldo samarrak suertatu zitzaizkien. *Saleri II*.ak laugarrenean belarria lortu zuen, eta *Fortuna* ezpataz ere ez zen nabarmendu. Jose Flores *Camará* izan zen arrakasta biribila lortu zuena. Ezpata sartzeko eragatik eta toreatzeko eragatik jendea pozik gelditu zitzaion begira. Bere bi etsaien belarria lortu zuen.

1.918.eko abuztuaren 20an Santa Coloma–ko kontearen zezenak plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Zezen suhar haiekin Kastor Jauregibeitia, Serafin Bigiola eta Jose Flores *Camará*k lan egin zuten. *Bilboko kotxeritoa*ri laugarrenean belarria eman zioten. *Torkito*ri bostgarrenean txaloak jo zizkioten eta hiltzerakoan zezenak bitan harrapatu zuen. *Camará*k trebetasunez toreatu eta hil zituen bere bi etsaiak.

Abuztuaren 21ean Vista Alegren korritutako Pablo Romero–ren zezenak, zangar eta nobleak izan ziren. Kastor Jauregibeitia, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Flores *Camará*k lan egin zuten arratsalde hartan. *Bilboko kotxeritoa* oso txalotua izan zen eta belarri bat eman zioten. *Fortuna* ikusteko aukerarik ez zen izan, bere lehenengo zezenak kite batean harrapatu zuelako. *Camará*ri abilezia eta segurtasuna ikusi zitzaion toreatzen nahiz ezpata maneiatzen. Zazpigarren zezena ere (Carvajal–ena) atera zuten eta *Joselito* Martin bilbotarrak txukun hil zuen.

1.918.eko abuztuaren 25ean Bilboko Vista Alegren emandako korridan Carmen de Federico–ren (lehen Murube–ren) satai oneko zezenak jokatu ziren. Batzuk onak atera zitzaizkien eta beste batzuk txarrak. Julian Saiz *Saleri II.a*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Flores *Camará* toreatzaileek lan egin zuten. *Saleri II*.ari txalo asko jo zioten lehen eta laugarren zezenean. *Fortuna* ez zen ezertan nabarmendu. *Camará* berriz ongi ibili zen arratsalde osoan, baina txalorik gehiena seigarrenari ezpata sartu zionean entzun zuen. *Joselito* Martin–entzat zazpigarren zezena ere plazaratu zuten.

Irailaren 15ean Mihura–ren zezenkoak jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Jose Sanchez *Hipólito*, Eugenio Ventoldrá eta Domingo Uriarte *Rebonzanito* izan ziren ezpatariak. Nobillada hartan *Hipólito* eta Ventoldrá zauritu egin zituzten zezenkoek eta Domingo Uriarte bizkaitarrak nola edo hala hil zituen abere zail haiek.

Astebete geroago, irailaren 22an, Domingo Uriarte–k leku berean toreatu zuen Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Domingo Gonzalez *Dominguin*ekin batera. Ignacio Sanchez Trespalacios–en zezenkoak jokatu zituzten.

1.918.eko iraialren 29an S. Sanchez–en zezenkoak plazaratuta zezenfesta komikoa ikusi ahal izan zen Vista Alegren. Lucio Vicario *Botines*, Francisco Sanjurjo *Posadas*, Carmelo Tusquellas *Charlot* eta Rafael Dutrus *Llapisera* toreatzaileek parte hartu zuten.

Urriaren 16ko nobilladan, Bilboko Vista Alegren Jose Manuel Garcia (lehen Arribas) ganaduzalearen sei zezenko toreatu eta hil zituzten Martin Etxeandia *Basurtoko mutila*, Manuel Sagasti eta Inazio Ocejo-k.

1.918.eko urriaren 20an Santiago Sanchez-en lau zezenko toreatzen Alejandro Irala eta Jose Perez *Joseton* aritu ziren Vista Alegren, eta azaroaren 10ean leku berean ganaduzale berberaren beste lau zezenko *Basurto II.a, Velilla*, Gregorio Yanguas *Zapata* eta Lucio Vicario *Botines*ek hil zituzten[1].

1.918. urtean Bilboko musika-bandan aldaketak izan ziren. Jose Sainz Basabe-ren ordez Jose Franco musikaria hasi zen bandako zuzendaritzan. Bederatzi urtez arituko zen lan hartan, eta *Aguero* pasodoblea idatzi zuen Martin Aguero toreatzaile bilbotarraren omenez. Aurrez ordea, Jose Franco Irungo bandako zuzendari izan zen eta han beste pasodoble batzuk eginak zituen: *Gitanillo de Triana, Lekunberri* (Zakarias bustiariarraren omenez), *Con garbo* eta *Palmas y pitos* adibidez.

Jose Franco musikaria bestetik, Irun-en baino lehen Bermeon Udal-bandako zuzendari izan zen, eta han *Camino de Rosas* izeneko pasodoblea egina zuen, bertako portuko pasealekuan inspiraturik.

14.2. irudia. Arratia 1.918. urtean. Zezenak Dima-ko plazan.

Felix Urkola ganaduzale bilbotarrak bestetik, Francisco Molina-ri saldu egin zion 1.918. urtean bere ganadutegi famatua[6].

Bizkaiko alternatibadun toreatzailerik famatuena Kastor Jauregibeitia zen 1.918. urtean. Hamabi korridatan parte hartu zuen 26 zezen hilez.

Rufino San Bizente berriz, gero eta gutxiago toreatzen ari zen. 1.918.ean bi korridatan

bost zezen hil zituen[5]. Bartzelonan uztailaren 21ean eta Jumilla–n irailaren 9an. Gero Ameriketara joan zen urtero bezala. Han Panama–n ere toreatu zuen *Begoñako txikiak* Juan Belmonte–rekin batera[3]. Caracas–eko Viejo Circo Metropolitano izeneko zezenplazan ere toreatu zuten Juan Belmonte eta Rufino San Bizente–k martxoaren 10ean[37].

Serafin Bigiola *Torkitok* 16 korridatan 33 zezen hil zituen 1.918. urtean[5]. Bere anaia Bitor Bigiola *Torkito III.*ak Madrileko plazan bi aldiz toreatu zuen 1.918.ean. Manuel Cerro *Cantaritos de Huelva*rekin toreatu zituen nobillada batean Tovar–eko dukearen zezenkoak[3].

Diego Markiaran *Fortunak* 1.918. urtean 51 korridatan toreatu zuen, nahiz eta guztira 58 korridatarako kontratuak eduki. 103 zezen hil zituen urte hartan[5]. Benefizentzi korridan Rodolfo Gaona, Jose Gomez *Joselito*rekin, eta Jose Flores *Camará*rekin batera Santa Coloma–ko kontearen zezenak Madrilen toreatzen ari zela, ezkerreko eskua hautsi zitzaion eta zauri haien ondorioz toreatu gabe luze egon zen[3]. Diego Markiaran *Fortunak* Sevilla–ko zezenplaza berria (Monumental izenekoa) estreinatu zuen 1.918.eko ekainaren 6an. Francisco Posadas eta Jose Gomez *Joselito*rekin batera Contreras–en zezenak hil zituen 23.000 ikuslerentzako lekua zuen plaza berri hartan[13].

Alejandro Saiz *Alek* aurreko urtean hartutako alternatiba 1.918.eko uztailaren 14ean sendotu zuen Madrilen, Felix Merino–ren eskutik Juan Cecilio *Punteret* lekuko zelarik. Antonio Martin ganaduzalearen *Limosnero* hiltzerakoan zauriturik suertatu zen eta erizaindegira eraman zuten. Berak irten egin zuen ordea. Urte hartan 9 korridatan 19 zezen hil zituen guztira. Udazkenean Venezuela–ra joan zen toreatzera. Ameriketan urteetan ibili zen lanean Bilbora itzuli gabe[5].

Joselito Martin bilbotarrak bere herritik at Madrilen ere toreatu zuen 1.918.eko otsailaren 24ean. Emilio Mendez eta Domingo Gonzalez *Dominguin*ekin batera Jose Bueno–ren zezenkoak hil zituen eta ez zuen arrakastarik lortu, baina bere artearen printzak ikusi zizkioten eta uztailaren 21ean berriz toreatu zuen. Arratsalde hartan arrakastatsu ibili zen eta baita abuztuaren 15eko nobilladan ere. Madriletik kanpora ere dezente toreatu zuen[3].

Martin Aguero Ereño bilbotarrak, bere herriko zezenplazan banderilari gisa urte hartako ekainean emandako *nobel*en nobilladan lehen aldiz lan egin zuen[5].

Martin Etxeandia *Basurtoko mutila* Madrilen abuztuaren 1ean eta 8an aritu zen lanean. Lehen nobilladan Emilio Gabarda *Gabardito*rekin Cobaleda–ren zezenkoak hil zituen eta bigarrenean Tovar–eko dukearenak Bitor Bigiola *Torkito III.*arekin batera[33].

Zakarias Lekunberri busturiarrak 1.918. urtean Bilbo, Donostia eta Irun–en nobilladatan toreatu ondoren erretiratu egin zen toreatze–lanetatik[3].

Jeronimo Loizaga barakaldarrak Madrileko Tetuan–eko plazan 1.918.eko ekainaren 16an Peñalver–en zezenkoak hil zituen Francisco Montero, Sanchez Torres eta Francisco Dominguez *Redondo*rekin batera[34].

Doroteo Martin sestaoarra 1.918.eko urrairen 18an Madrileko Tetuan–eko plazan toreatzaile–lehiaketan aurkeztu zen. Pablo Torres–en zezenko bat toreatu, banderilaztatu eta hil zuen, saria irabaziz.

Bestetik, Getxo–ko Areetan Jose Martinez *Aventurero* pikatzaile izanak bere buruaz beste

egin zuen 1.918.ean edo hurrengoan, emaztea hil ondoren[3].

Ebaristo Bustintza *Kirikiño* euskal idazle mañariarrak 1.918. urtean Bilbon kontakizun barregarri bat argitaratu zuen . Bilbok 20.000 biztanle zituenean gertatua zela zioen. Zezenak ere tartean direlako, hona aldatu dugu gertakizun xelebre hura:

ATXURI'KO "MILLAGRUA"
(Jazorikua)

Emen edestuko doguna jazo zanetik ona urte asko igazi dira.

Orduan Bilbao'k ogei milla inguru biztanle baño askoz geiago ezebazan. Geruago Begoña'ri artu dautsozan zatiak ezeukozan ondiño. Abando be azke zan, erri banakua. Beraz, Bilbao erri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezaunak ziran. Ezeguan orain dagon beste guardia municipal, naikua ziran iru edo lau txiñel erria zaintzeko, gabezko sereno kantari batzukaz.

Onelako erri baten aituten da erraz egin leitekela emen edestuko dogun barrabaskeria, erri guztia barre baten ainbat egunian euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, eztakit nungo erritan il zala atso aberatz bat, eta milla ogerleko batzuk utzi ebazala Bilbao'ko erren edo kojoei bananduteko, atsua be errena izan zalako ta Bilbao'n jaiua; diru ori banaduko yakela Atxuri'n, etxe bateko atarian, bertan aurkeztuko ziran erren bilbotarrai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao'ko txiro ta gosakillen artian ikara andia eragin eban iragarki orrek, eta egun batzuetan etzan izan beste izketagairik auxe baño.

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganian tintontzia ta ingiak, iru jezarleku, basterrian zorro batzuk zerez edo arez beterik, eta iru edo lau gizon, piperra baño seriuago, alkarregaz izketa ixiltxuan, atarian batera ta bestera ibilli ebiltzala eperdi-ganian eskuak alkartuta.

Goiztxo asi ziran kojuak agertzen kalian. Geienak etozan makulu bigaz ta anka bata dingiliz; bat-ziran etozanak eperdi-ganian erdi-tatarrez; baita burtxoietan etozanak be iñok bultzaka eruanda. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita eguan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Balkoietan eta leiuetan eguan jentiak arrituta esateban: "¿nok uste izango eban Bilbao'n onenbeste kojo eguanik?"

Atarian egozan gizon seriuak adirazo eutsien kalekoei diruak gertu ipini biar ebezala ta orregaitik piskaten atia itxiko ebela ta asko belutu barik, laster asiko zala diru-banandutia.

Itxi eben atia ba, ta gerotxuago barriro zabaldu zanian, tximistia baño ariñago urten zan andik ¿zer uste dozue? ¡¡Zezentxu bat!!

¿Nok azaldu an izan zan usubillua? Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori bota, ta ¡ango añeketia kojuak izan-arren! Egundoko ariñen, miñuto bat baño lenago, garbitu zan kalia, makillaz ta burtxoez beterik gelditu zala. Millagrua izan zan. Zezena agertu zan orduko kojo guztiak osasunera etorri ziran.

Balkoi-leioetako jentia, barriaren barriaz tripa guztia minduta geratu ziran.

Diabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka asten izan yakuz berau aitatu dogun aldi guztietan.

¡Amaika gizon gogaldi ederreko jaio ta bizi izan zan lenagoko Bilbao'n! [50]

Gasteizen, Máximo Cámara toreatzaileak 1.918.eko irailaren 8an lan egin zuen Jose Tou eta Pablo Campoy–rekin batera. Tuterako Fermin Lopez–en zezenkoak hil zituzten[3].

Azpeitian 1.918.eko saninaziotan Roke Alaiza nafarraren zezenkoak toreatu zituzten Mariano Merino *Montes II.a* eta Luis Alonso *Madrileñok*. Uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean emandako nobilladatan txalotuak izan ziren[10].

Tolosako sanjoanetan, 1.918.eko ekainaren 24ean Jose Gomez *Joselitok* parte hartu zuen ospatu zen korridan. Berak bakarrik Vicente Martinez–en ondorengoen lau zezen hil zituen. *Pinares* izeneko lehen zezenari ez zion ezer onik egin faenan eta berehala hil zuen. Jendeak txistuak jo zizkion. *Farolero* izeneko bigarren zezenak pikatzaileak larri ibili zituen. Ignacio Sanchez Mejias–ek (orduan bere koinatu *Joselitoren* banderilari zen) bi banderila–pare ederki sartu zizkion. Faena dotorea osatu zion ezpatariak eta belarria eman zioten. Hirugarren zezenean ordea, berriz ere jendearen bronka entzun zuen *Joselitok* faena kaxkarra burutzeagatik. *Buñolero* izeneko laugarren zezenean *Joselitok* legea bete zuen, eta jendeak botatako laranja eta abarren artean atera zen plazatik. Badirudi plazan hondar gehiegi zegoelako eta plazaren diametroa txikia zelako *Joselito* konfidantzarik gabe aritu zela arratsalde hartan[8].

Zipriano Loidi arrasatearra 1.918.ean hasi zen toreatzen; Vista Alegren *nobel*entzako nobillada batean parte hartu bait zuen[29].

Pedro Basauri eibartarra berriz, Donostian irailaren 15ean aurkeztu zen lehen aldiz. Remigio Frutos *Algeteñorekin* batera toreatu zuen, arrakasta handia lortuz.

Txofre–ko plazan, Donostian, 1.918.eko abuztuaren 11ko korridan Francisco Diaz *Pacorrok* alternatiba hartu zuen Jose Gomez *Joselitoren* eskutik. Carmen de Federico–k bidalitako zezenak ez ziren ongi portatu. Suhartasunik ez zuten erakutsi eta *Pacorrok* ez zuen arrakastarik lortu. Diego Markiaran *Fortunak* ere ez. *Joselitori* txalo asko jo zioten bere bigarren zezenari lau banderila–pare ipini zizkionean. Jendea pozik utzi zuen.

Abuztuaren 18ko korridan berriz, Vicente Martinez–en bost zezen eta Salas–en alargunaren zezen bat jokatu zituzten Donostiako Txofren. Rodolfo Gaona, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Flores *Camará* izan ziren toreatzaileak. Eustakio Iraola lehendakariak bigarren zezenari suzko banderilak ipintzea agindu zuen eta jendearen eritziz zezenak zigor hura merezi ez zuelako bronka armatu zen. *Fortunak* lehendakariaren aholkulariekin hitz egitera joan behar izan zuen[8].

1.918. urtean Eusko Ikaskuntzak Oñatin Batzarra egin zuen eta bertan Gregorio Mujikak Euskal Herriko zezenzaletasunari buruz emandako hitzaldia aipagarria da. Sokamuturra, bertako ganaduzaleak, zezenzaletasunaren gorabeherak etab. hartu zituen gaitzat. Zoritxarrez hitzaldi haren laburbilpen mugatua bakarrik da gugana iritsi dena[51].

Iruñean 1.918.eko sanferminetarako argitaratutako kartelak honela zioen:

- Uztailak 7. Vicente Martinez–en seme–alaben zezenak Jose Gomez *Joselito*, Francisco Posadas eta Julian Saiz *Saleri II.*arentzat.
- Uztailak 8. Candido Diaz–en zezenak. Toreatzaileak Rodolfo Gaona, *Joselito*,*Saleri II.a* eta Jose Flores *Camará*rentzat.
- Uztailak 9. Proba. Tuterako Alaiza–ren seme–alaben zezenak Gaona, *Joselito*, *Saleri II.a* eta Jose Flores *Camará*rentzat.

– Uztailak 10. Luis Gamero Civico–ren zezenak Gaona, *Joselito* eta *Camará*rentzat.
– Uztailak 11. Pablo Romero–ren zezenak Gaona eta *Camará* ezpatarientzat.[12]

Candido Diaz funestarrak bere zezenak Guadalest–eko kontearen ganadutegiko kastarekin nahastuak zituen jadanik 1.918.ean. Lehen aldiz Iruñean orduan jokatu ziren bere zezenak[41].

Candido Diaz–ek *Curro* izeneko zezen bat ere korritzen zuen Iruñean bolaztaturik. Hamabiren bat urte zituen bereak eta bi zekizkien zezen hark, eta norbaitek *Joselito*ri *Curro* toreatzea oso zaila zela esan zion.

*Joselito*k zezen hura probatu nahi izan zuen, eta Candido Diaz–en aginduz, Agustin Uztarroz bere unanmaizterrak *Curro* famatua plazaratu egin zion ezpatari famatuari. *Joselito*k kapotez pase batzuk eman zizkion eta konfidantza hartu zuen. *Curro*k ordea, halako batean airera altxata berebiziko jipoia eman zion Jose Gomez ospetsuari[52].

Iruñean dena dela, Manuel Navarro aragoarrak parte hartu zuen 1.918.ean nobillada batean[3]. Lerin–eko nobillada batean berriz, Agunito Benedi *Regunito* eta Angel Gracia *el Chele*k lan egin zuten. Andres Salinas iruindarra orduan hasi zen toreatzen lehen aldiz traje distiratsua jantzita banderilari gisa. Kaxa baten gainetik zezenkoaren gainetik salto egiten saiatu zen, baina kaxa hautsita zezenkoak harrapatu eta kolpatu egin zuen[53].

1.918.eko uztailaren 25ean Tuteran Zalduendoren zezenak azken aldiz jokatu ziren, dibisa gorri–urdinez[49].

———— o ———— o ————

1.919. urteari eta Bilboko Vista Alegreko zezenplazari dagokionez, denboraldia goiz hasi zela aipatu behar da; otsailaren 16an hain zuzen. Juan Terrones–en lau zezenko txiki eta kasta txarrekoak, Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo* eta *Chatillo de Bilbao*k hil zituzten. Barakaldarra zezenko batean luzitu zen. Bilbotarra berriz, ez batean eta ez bestean.

Otsailaren 23an Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Bitor Bigiola *Torkito III.a* anaiek Bilboko Vista Alegren Jose Bueno–ren lau zezenko txiki toreatu zituzten. Madrileko ganaduaren suhartasun faltagatik bi anaiek ez zuten ezer nabarmenik egin.

Martxoaren 23an, Vista Alegren M. Santos–en lau zezenko plazaratu ziren nobillada mistoan. Batetik Joakin Aroz *Arito* eta *Basurto II.a* toreatzaileek lan egin zuten eta bestetik jaialdi komikoan *Charlot* eta *Llapiserak*.

1.919.eko martxoaren 30ean urteko lehen korrida ospatu zen Bilbon. Antonio Perez Tabernero–ren lau zezen, bere anaia Alipio–ren hiru eta Andres Sanchez–en bat plazaratu ziren. Haiek toreatu eta hiltzeko, Jose Gomez *Joselito*, Juan Belmonte, Manuel Belmonte *Belmontito* eta Ignacio Sanchez Mejias kontratatu zituzten. Seigarren zezenak akatsa zuen bistan eta suzko banderilak ipini zizkioten. *Joselito*k lehen zezenean txalo asko entzun zuen, eta bere bigarrenean ere bai; hiru banderila–pare sartu zizkionean batez ere. Belmonte bere lehenengoan labur eta ongi aritu zen. Andres Sanchez–ena toreatu zuenean, kapotez osatutako beronika dotore batzuek bakarrik izan zuten meritua. *Belmontito* ausart eta efektista ibili zen. Ignacio Sanchez Mejias berriz, bere lehen zezena menperatu ezinik, oso urduria zelako. Bere bigarren zezena koldarra suertatu zitzaion eta hiltzen larri ibili zen, asmatu ezinik.

Apirilaren 6ko nobilladan Andres Sanchez–en bost zezenko eta Antonio Perez–en bat korritu zituzten Bilboko Vista Alegren. Jose Roger *Valencia I.a*, Emilio Mendez eta Juan Luis de la Rosa toreatzaileek lan egin zuten. Zezenak ezezik toreatzaileak ere ez ziren luzitu.

1.919.eko apirilaren 20an M. Garcia–Aleas–en 6 zezenko eta Alipio Perez Tabernero–ren beste bi plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Nobillada hartan Jose Roger *Valencia I.a*, Emilio Mendez, Victoriano Roger *Valencia II.a* eta *Joselito* Martin–ek toreatu zuten. Jendea ez zen pozik atera plazatik arratsalde hartan.

Biharamunean, apirilaren 21ean, nobillada mistoan Jose Buenoren bi zezenko, Vicente Rivas–en bat eta Ignacio Agustinez–en beste bi jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Martin Etxeandia *Basurtoko mutila, Arratianito, Chicuelin, Cebollino* eta *Barajas*ek parte hartu zuten.

Maiatzaren 2an Albaserrada–ko markesaren zezenak jokatuta korrida eman zen Vista Alegren. Zezen haiekin Kastor Jauregibeitia eta Juan Belmonte–k beren toreaketa dotore eta ausartaren berri eman zuten[1]. *Bilboko kotxeritoa*k bostgarren zezenari bi belarriak eta buztana moztu zizkion[5].

1.919.eko maiatzaren 4ean beste korrida batean Jose Carvajal–en zazpi zezen atera zituzten Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa*, Diego Markiaran *Fortuna* eta *Chatillo de Bilbao*rentzat. Azken honek zazpigarrena bakarrik hil zuen. Zezen zail eta koldar haiekin bi ezpatari bizkaitarrek ez zuten ezer berezirik egin. Nola edo hala legea betetzea besterik ez.

Maiatzaren 11ko nobilladan Sanchez Rico–ren lau zezenko toreatzen aritu ziren Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*. Zezenko noble haiekin Domingo Uriartek txalo asko eta belarri bat irabazi zituen; Victoriano Roger–ek txaloak bakarrik.

1.919.eko maiatzaren 18an, nobillada mistoan A. Sanchez–en lau zezenko eta M. Santos–en beste bi plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. A. Sanchez, Domingo Uriarte *Rebonzanito* eta *Charlo*tek lan egin zuten.

Maiatzaren 25ean emandako nobilladan Antonio Sanchez–en bi zezenko, Sanchez Rico–ren beste bi eta M. Santos–en beste bat jokatu ziren Vista Alegren. *Joselito* Martin, Jose Carralafuente eta Lucio Vicario *Botines*ek parte hartu zuten.

Ekainaren 1ean S. Terrones–en lau zezenko hiltzera Manuel Granero eta *Chico de Basurto II.a* aurkeztu ziren Vista Alegren. Granero valentziarra jendeari asko gustatu zitzaion. Basurto–koak berriz arratsalde txarra izan zuen.

1.919.eko ekainaren 8an beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren. Candido Diaz nafarraren lau zezenko eta Santiago Sanchez–en bi toreatu eta hil zituzten Domingo Uriarte *Rebonzanito*, Manuel Granero eta Andres Perez *Montañesito*k. Arratsalde hartan benetako arrakasta Uriarte sestaoarrak lortu zuen.

Ekainaren 16an Bilbon korrida ospatu zen Villagodio–ko markesaren lau zezen eta Candido Diaz–en bat plazaratuta. Juan Cecilio *Punteret* eta Matias Lara *Larita* ezpatariek lau hil zituzten eta Migel Ulibarri–k bostgarrena (oso gaizki). *Punteret* toreatzaile txikiak Villagodio–ko markesaren zezen handi haiekin ez zuen ezer egin. Matias Lara *Larita*k serio toreatu ondoren txaloak entzun eta belarri bat irabazi zuen.

1.919.eko ekainaren 19an, Villagodio–ko markesaren sei zezenko toreatu zituzten Bilboko Vista Alegren Manuel Sagasti, Lorenzo Ocejo eta Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*k.

Ekainaren 22ko nobilladan Santiago Terrones–en sei zezenko plazaratu ziren Vista Alegren toreatzaile *nobel*entzat.

Bi egun geroago, 1.919.eko ekainaren 24ean, ganaduzale berberaren lau zezenko hil zituzten Vista Alegren Migel Ulibarri eta Posadas II.ak.

Uztailaren 17an Juan S. Carreros–en bost zezenko jokatuta nobillada eman zen Vista Alegren.. Lorenzo Ocejo eta Manuel Jimenez *Chicuelo*k bina toreatu zituzten eta Domingo Hernandorena–k bostgarrena. Hiru ezpatariak oso txalotuak izan ziren.

Uztailaren 31ko jaialdi batean Lucio Vicario *Botines* toreatzaile komikoak zekor bat toreatu eta hil zuen.

Abuztuko korridetarako, Jose Arrue pintatzaile bilbotarrak kartel iragarlea egin zuen, ganaduzale eta toreatzaileen izenak adieraziz. Lehen korrida hilaren 17an izan zen, Mihuraren zezenak plazaratuta. Jose Gomez *Joselito*, Juan Belmonte eta Julian Saiz *Saleri II.a* izan ziren ezpatariak. Itxura eta portaera desberdineko zezen haiekin *Joselito*k lehenengoan ez zuen gauza handirik lortu, baina bere bigarren zezenean belarria. Belmonte bere lehenengoak, *Capotero* izenekoak, harrapatu egin zuen, baina faena dotorea eginda ezpata ederki sartu ziolako, bi belarriak eman zizkioten. Beste zezenean legea betetzea bakarrik egin zuen. Julian Saiz *Saleri II.a* adorerik gabe ibili zen arratsalde osoan, nahiz eta zezen bat luzimendurako egokia izan.

Bigarren korridan, 1.919.eko abuztuaren 19koan, Carmen de Federico–ren (lehen Murube) sei zezen plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren, *Joselito*, Juan Belmonte eta Manuel Varé *Varelito*k hil zitzaten. Zezen suhar, samur, noble eta txikiak izan ziren haiek. Jose Gomez *Joselito* nabarmendu zen guztien gainetik. Haren jakinduria eta ahalmenak denak txunditurik utzi zituen. Belmonte zezen batek harrapatu egin zuen.

Abuztuaren 19ko korridan, Luis Gamero Civico–ren (lehen Parladé) sei zezen toreatzera Jose Gomez *Joselito*, Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Julian Saiz *Saleri II.a* aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Arratsalde hartan Kastor Jauregibeitia izan zen guztien artean nagusi.

1.919.eko abuztuaren 20an Pablo Romero–ren sei zezen eder (itxuraz eta portaeraz) toreatu zituzten Vista Alegren Jose Gomez *Joselito*, Juan Belmonte eta Manuel Varé *Varelito*k. *Joselito*k sekula lortutako arrakastarik handiena izan zuen arratsalde hartan. *Varelito* ere animoso aritu zen, baina ezpataz gaizki.

Abuztuaren 24eko korridan, Santa Coloma–ko kontearen sei zezen plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Itxuraz eta suhartasunez ezinhobeak suertatu zitzaizkien kontearen zezenak Kastor Jauregibeitia, Juan Belmonte eta Julian Saiz *Saleri II*.ari. Guztira 14 zaldi hil zituzten; *Toronjito* izenekoak bost, berak bakarrik. Sekulakoa izan zen zezen hau. *Bilboko kotxeritoa*ri jendeak txaloak jo zizkion. Belmonte–ri lehendakariak belarri bat eman zion, eta jendeak protesta adierazi zion, belarria guztiek eskatu ez zutelako. *Saleri II*.ari zezen suhar bat egokitu zitzaion, baina berak akoplatzen ez zuen asmatu.

1.919. urteko abuztuaren 31n Bilboko *Kotxerito* Elkarteak korrida bat antolatu zuen Vista Alegren Kastor Jauregibeitia–ren despedida ospatzeko. Toreatzaile bilbotarra izan ere sasoia joaten hasia zen, eta *Joselito* eta Belmonte–ren gorakada ikusita, erretiratzea pentsatua zuen. Bilbon arratsalde hartan, Argimiro Perez Tabernero–ren bost zezen eta bere anaia Graciliano–ren beste hiru

toreatu zituzten Kastor Jauregibeitia, Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Serafin Bigiola *Torkito* eta Diego Markiaran *Fortuna*k. Alfonso XIII.a erregea ere han zen korrida ikusten. *Bilboko kotxeritoa*k belarria lortu zuen bere bigarren zezenean. Rufino San Bizente–ri txalo asko jo zioten bere ausardiagatik. *Torkito*k bere trebetasuna erakutsi zuen eta *Fortuna* batez ere bere hiltzeko eragatik txalotu zuten.

Korridaren bukaeran, Kastor Jauregibeitiak plazaren erdian mototsa moztu zuen, jendea txaloka ari zitzaion bitartean[1]. Korrida hartantxe Fabian Bilbao pikatzaileak ere zezenetatik despedida hartu zuen[6].

Irailaren 14ean Amador Garcia–ren zezenkoak jokatu ziren Bilboko Vista Alegren, Juan Gonzalez *Almanseño II.a* eta Manuel Garcia Lopez *Maera* toreatzaile zirelarik.

Urriaren 12ko nobilladan, Pedro Sanchez–en sei zezenko korritu zituzten Vista Alegren toreatzaile berri edo *nobel*entzat. Astebete geroago berriz, 1.919.eko urriaren 19an, leku berean Victoriano Froas ganaduzale portugaldarraren sei zezenko hil zituzten Juan Gonzalez *Almanseño II.a*, Martin Etxeandia eta Lorenzo Ocejo–k.

1.919. urteko azken zezenfesta azaroaren 30ean eman zen Bilboko Vista Alegren. Pedro Sanchez–en lau zezenko toreatzen *Arratianito, Chatillo Manzanilla*, Joan Etxebarria eta Martin Aguero aritu ziren[1].

Esana dugunez Kastor Jauregibeitia Bilbon erretiratu zen abuztuaren 31n, baina aurrez urte hartan beste zortzi korridatan parte hartua zen 18 zezen hilez. Maiatzaren 29an Madrilen Albaserrada–ko markesaren zezenak toreatu zituen. Korridako lehen zezenak harrapatu egin zuen hiltzerakoan. Rodolfo Gaona ere lanean zen korrida berean.

Uztailaren 6an egin zion agur Kastor Jauregibeitiak Madrileko publikoari Enriqueta Zapata (Salas–en alarguna) ganaduzalearen zezenak hilez. Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte zituen kartelkide. *Anarquista* izeneko laugarren zezenari belarria moztu zion Kastor Jauregibeitiak[5]. Kastor bilbotarrak bere koadrilan Pablo Baos *el Sordo* banderilaria zeraman, eta erretiratu zenean beste toreatzaile batzuekin aritu zen lanean[3]. Manuel Otamendi *el Yerno* izeneko idazleak *Historia taurómaca de Cocherito* izeneko liburua argitaratu zuen 1.919.ean[4].

Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k gutxi toreatu zuen 1.919. urtean. Sei korridatan hamahiru zezen hil zituen.

Serafin Bigiola *Torkito*k gehiago toreatu zuen 1.919. urtean; 11 korridatan 26 zezen hil bait zituen[5]. Horietaz gainera ordea, Caracas–en Alejandro Saiz *Ale*rekin batera Nuevo Circo de Caracas izeneko zezenplaza berria inauguratu zuen urtarrilaren 26an. Bi toreatzaile bizkaitarrek estreinatu zuten beraz plaza hura[37].

Diego Markiaran *Fortuna*k asko toreatu zuen 1.919. urtean. 36 arratsaldetan 81 zezen hil zituen[5]. Beste hogeiren bat korrida gaixotu zelako galdu zituen. Alacante–n otsailaren 2an aritu zen, Juan Belmonte–k bere anaia Manuel Belmonte *Belmontito*ri alternatiba eman zioneko arratsaldean. Gregorio Campos–en zezenak hil zituzten.

Diego Markiaran–ek bere koadrilan Mariano Carrato banderilari zaragozarra zeraman urte hartan. Ceuta–n ere toreatu zuen sestaoarrak 1.919.ean Rafael Gomez *Gallo*rekin batera Manuel Martinez *Agujetas* pikatzaile famatu izandakoaren aldeko korridan.

14.3. irudia. Serafin Bigiola *Torkito* eta Alejandro Saiz *Aleren* koadrilak Caracas-eko zezenplaza 1.919.ean inauguratu zenean.

Domingo Uriarte sestaoarrak 1.919. urtean *Rebonzanito* izenordea erabiltzeari utzi egin zion. Ekainaren 22an Madrilen aurkeztu zen. Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Ernesto Pastor-ekin Bañuelos-en zezenkoak hil zituen. Kapote, muleta, banderila eta ezpataz lortu zuen Uriarte-k arrakasta. Zezenko batek harrapatu ere egin zuen, Baina sestaoarrak belarriak irabazi ziuten hala eta guztiz ere. Madrilen urte hartan beste nobillada batzuetan ere parte hartu zuen; arrakastatsu beti ere. Kapotez lantze farólduak osatzen zituenean jendea txunditurik gelditzen zen, hain ausart, erraz eta ederki burutzen zituelako[3].

Aipatua dugunez, Martin Aguero bilbotarrak bere herrian azaroaren 30eko nobilladan parte hartu zuen. Gero Zaragozan beste hiru arratsaldetan ere arrakastatsu ibili zen[5].

Jose Arana *Chatillo de Bilbao* toreatzailea Madrilen aritu zen toreatzen irailaren 21ean. Jose Bueno-ren zezenkoak hil zituen Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Eugenio Ventoldrá-rekin, baina ez zuen arrakastarik lortu.

Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* deustuarra zen asko toreatzen zuen beste bat. 1.919. urtean 22 nobilladatan parte hartu zuen, nahiz eta hurrengo urteetan kopuru hau jaitsiz joan.

Joselito Martin bilbotarra ere dexente toreatzen ari zen garai hartan. 1.919.ean, bere koadrilan Dositeo Rodriguez *Gallego* pikatzailea hartu zuen[3].

Bilbon, Indautxu-ko zezenplazan 1.919.eko abuztuan azken nobillada eman zen. Luis Gomez *Agualimpia* eta Isidoro Garcia *Jaro* toreatzaileek parte hartu zuten Villagodio-ko markesaren zezenkoak toreatuz. Zelestino Aransolo kontratistaren bost zaldi hil zituzten zezenkoek. Martin Aguero bilbotarra ordezko ezpatari izan zen arratsalde hartan[54].

Baionan, eta korrida batean izandako gorabeheren ondorioz, zezenplaza erre egin zen 1.919. urtean. Berehala hasi ziren plaza berritzen[55].

Bestetik, Tomas Mazzantini laudiarra, 1.919.eko urriaren 26an hil egin zen Cadiz–eko Puerto de Santa Maria–n.

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*, 1.919. urtean uztailaren 20an Madrilen aurkeztu zen Ernesto Pastor eta Juan Luis de la Rosa–rekin Villamarta–ren zezenkoak toreatzera. Eibartarrak arrakasta lortu zuen eta 21 nobillada toreatu zituen urte hartan[3].

Azpeitiko zezenplazan, 1.919.eko saninaziotan bi nobillada izan ziren: uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean. Llen–eko markesaren zezenkoak hil ziuten bi arratsaldeetan *Joselito* Martin bilbotarrak[10].

Zestoan ere, herriko plazan, urtero izaten ziren zezenak iraileko festetan; *amabirjinetan*. Garai hartan azpeitiar asko joaten zen Zestoako zezenetara, eta haien artean Daniel *Exkerra*; *Xebilla* mutilzaharraren anaia, alberga atzeko Txaribar–en bizi zena. Zestoako nobillada hasi baino lehen eta zezenkoa hil ondoren bestea irten aurretik dantza xelebrea egiten zuen plazan jendea barrezka ipiniz. Jendeak txanponak botatzen zizkion eta berak jaso hondarretik. Zezenekin beldurtia zenez gero, jendeak batzuetan txanponak zezenkoa irten arte ez zizkion botatzen.

Zestoan 1.919. urte inguruan, Jose Mari Lizaso *Ipintza* eta *Pipillo* Etxaiz–enekoa *Tancredo*rena egiten ibiltzen ziren plazan zezenetan. Jose Mari Lizaso behin belarrez osatutako trajea jantzita atera zen *Tancredo*rena egitera, eta zezenak belarra jan zion.

1.919. urtean bestetik, Donostian bi mila herritarrek baino gehiagok sinatuta, eskabidea egin zen Udalera sokamuturra eta zezensuzkoa kaleetan joka zitezen. Intziarte jaunak ez korritzeko proposamena egin zuen ordea eta udalgizonek botazioa egin zutenean hamabi sokamuturra ipintzearen kontra atera ziren eta bederatzi alde. Donostiarrak beraz ez sokamutur eta ez zezensuzkorik izan zuten urte hartan[56].

Gero udan korridak eman ziren Donostian Txofre–ko plazan urtero bezala. Uztailaren 27ko korridan, Veragua–ko dukearen *Gargantillo* zezena nabarmendu zen. Bost pikalditan bost aldiz bota zituen lurrera zaldi–zaldunak[13].

Iruñeko sanferminetarako, 1.919. urtean Agustin Garcia *Malla*, Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte iragarri ziren uztailaren 7 eta 8ko korridetarako. *Joselito*, Belmonte eta Domingo Gonzalez *Dominguin*ek lan egingo zuten uztailaren 10 eta 11n. Uztailaren 9ko proban berriz, Agustin Garcia *Malla*, *Joselito*, Belmonte eta *Dominguin* toreatzaileak arituko ziren[12]. Zezenak berriz, Vicente Martinez, Candido Diaz, Villar, Concha y Sierra eta Albaserrada–ko markesarenak izango ziren[28].

Antonio Garriz idazle iruindarrak bidaltzen zituen bere herriko zezenetako berriak Madrileko *La Lidia* aldizkarira[4].

Iruñean, 1.919.eko irailaren 14ean ere izan zen zekorketa bat. Eladio Amorós eta Jose Belmonte–k Roke Alaiza–ren ganadua toreatu zuten. Jendea pozik utzi zuen Jose Belmonte–k; Juan Belmonte–ren anaia txikiak, eta lehen aldiz traje distiratsua orduan jantzi zuenak.

Antonio Navarro toreatzaileak ere lan egin zuen Iruñean 1.919. urtean nobillada batean[3].

Tuteran, 1.919.eko urriaren 14ean, Julian Marin Arnedo jaio zen; gero alternatibadun toreatzaile izango zena[57].

Jose Berna *Espontaneo* toreatzaile zaragozarrak, traje distiratsua Tuteran jantzi zuen urte hartantxe[3].

Lehen mundu-gerra pasatu ondoren, Landetan Ladoues eta Lafitte ganaduzaleek toreatzaile-koadrilak osatu zituzten plazaz plaza ibiltzeko. Batarekin Coran zen taldeburu eta Lalanne bestearekin 1.919.ean[14].

———— o ———— o ————

1.920. urtean Bilboko nobilladak otsailaren 29an hasi ziren Vista Alegren. Francisco Coquilla-ren bost zezenko toreatu zituzten orduan Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo*k. Faustino luzitu zen, baina barakaldarrari ez zitzaion adore handirik ikusi.

Martxoaren 14eko nobilladan, Coquilla-ren bost zezenko plazaratu ziren Bilboko Vista Alegren. Martin Etxeandia *Basurtoko mutila, Joselito* Martin, Manuel Sagasti eta Gregorio Yanguas *Zapata*k parte hartu zuten.

1.920.eko martxoaren 21ean Alipio Perez Tabernero-ren bost zezenko toreatzen Pablo eta Marcial Lalanda anaiak Iturralde-rekin aritu ziren. Hilaren 25ean eta leku berean beste nobillada batean P. Sanchez-en lau zezenko Luis Gomez, Simon Zapata, Manuel Fernandez eta Andres Calabia-k hil zituzten.

Martxoaren 28an Manuel Santos-en sei zezenkorekin *charlotada* ospatu ondoren, apirilaren 4ean urteko lehen korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Sanchez Rico-ren sei zezen koldar plazaratu ziren Rufino San Bizente, Domingo Gonzalez *Dominguin* eta Jose Roger Serrano *Valencia*rentzat. *Begoñako txikia*ri ausardia ikusi zitzaion, baina *Dominguin* eta *Valencia*ri ezer ere ez.

1.920.eko apirilaren 6an Bilboko ikasleek zekorketa bat eman zuten Vista Alegren Manuel Santos-en lau zekor korrituta. Hilaren 11n berriz, Francisco Sanchez-en lau zezenko toreatu zituzten Mariano Montes eta Angel Perez *Angelillo de Triana*k Vista Alegreko nobilladan.

Apirilaren 18an 1.920. urteko bigarren korrida eman zen Vista Alegren. Manuel Garcia-Aleas-en sei zezen koldar plazaratu ziren eta Rafael Gomez *Gallo*, Rodolfo Gaona eta Matias Lara *Larita*k hil zituzten. Rafael *Gallo*k legea bete zuen, Gaona-k bere fama galdu eta *Larita*k, bere adorea medio, txaloak entzun zituen.

Maiatzaren 3an, Bilboko Vista Alegren Jose Gomez *Joselito* eta Juan Belmonte-k Tamaron-en zezenak toreatu zituzten. *Joselito* Bilbon ikusteko azken aukera izan zen hura. Izan ere urte hartako (1.920.eko) maiatzaren 16an Toledo-ko Talavera de la Reina-n bere koinatu Ignacio Sanchez Mejías-ekin toreatzen ari zela, Ortega-ren alargunaren *Bailaor* izeneko zezenak hil egin zuen.

Dena dela, Bilboko korridan Tamaron-en zezenak (txikiak) plazaratu zituzten, eta seigarrena txikiegia zelako toriletara bueltatu eta Albaserrada-ko markesaren bat atera zuten. *Joselito*ri gauzak

ongi atera zitzaizkion kapotez, banderilaz eta muletaz. Belarri bat eman zioten. Belmonte–rentzat ez zen arratsalde ona izan hura.

1.920.eko maiatzaren 9an Bilboko Vista Alegren beste korrida bat eman zuten Albaserrada–ko markesaren zezenak jokatuta. Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Varé *Varelitok* toreatu zuten arratsalde hartan. Belmonte eta *Fortuna* nabarmendu ez baziren ere *Varelitok* arrakasta lortu zuen. Belarri bat eman zioten. Zazpigarren zezena, Tamaron–ena, *Chatillok* hil zuen.

Maiatzaren 23an M. Santos–en zekorrak *Charlotadan* jokatu ondoren, hilaren 30ean nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Tovar–eko dukearen zezenkoak Juan Sanchez *Jumillano*, Martin Etxeandia *Basurtoko mutila* eta Francisco Vega *Gitanillo de Trianak* hil zituzten.

1.920.eko ekainaren 3an korrida eman zen Bilboko Vista Alegren Villagodio–ko markesaren zezen eder eta koldarrak jokatuta. Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Julian Saiz *Saleri II.a* eta Matias Lara *Larita* aritu ziren lanean. Begoñatarrak arratsalde txarra izan zuen hura, baina *Saleri II.*ari eta *Larita*ri txalo asko jo zieten.

Ekainaren 6ko nobilladan, J. M. Garcia–ren lau zezenko eta M. Santos–en beste bat Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Manuel Granero eta Jose Mendieta bilbotarrak toreatu eta hil zituzten Vista Alegren. Mendieta–rentzat, ordezko ezpatari zenez, M. Santos–en bostgarren zezenkoa izan zen. Granero–k bakarrik lortu zuen luzitzea arratsalde hartan.

1.920.eko nobilladan, Santiago Terrones–en sei zezenko toreatu zituzten *nobel* edo toreatzaile berriek Bilboko zezenplazan.

Ekainaren 20an, Graciliano Perez Tabernero–ren sei zezen korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen txiki eta suhar haiekin Rafael *Gallo* inspiratua ibili zen, Matias Lara *Larita*ri ausardia ikusi zioten eta Luis Freg mexikarrak artea eta ausardia erakutsi zituen.

Uztailaren 4ean Santiago Terrones–en zezenak plazaratu zituzten Bilbon. Zezen zail haiekin Julian Saiz *Saleri II.a*, Felix Merino eta Ricardo Anlló *Nacional* ezpatariek luzitzerik ez zuten izan.

1.920.eko uztailaren 11n, Graciliano Perez Tabernero–ren zezenkoak toreatzen Bernardo Muñoz *Carnicerito*, Manuel Granero eta Jose Cabezas aritu ziren Bilbon. Manuel Granero atera zen nagusi arratsalde hartan.

Uztailaren 18ko zekorketan, Bilboko kazetariek parte hartu zuten S. Sanchez–en lau zekor toreatzen.

Abuztuko korridak Bilbon, hilaren 22an hasi ziren 1.920. urtean. Gamero Civico–ren zezenek ez zuten portaera onik izan lehen korridan. Rafael Gomez *Gallok*, beste hainbat arratsaldetan bezala, eskandalua armatu zuen plazan, erabat beldurti ibili zelako. Juan Belmonte bere bi zezenetan txalotua izan zen eta Jose Roger *Valenciari*, nahiz eta toreatzeko era ona erakutsi, jakinduri falta ikusi zioten.

Bilboko bigarren korridan, 1.920.eko abuztuaren 23an, Mihuraren bost zezen eta Villagodio–ko markesaren beste bat plazaratu zituzten Serafin Bigiola *Torkito*, Juan Belmonte eta

Julian Saiz *Saleri II.*ak. Mihuraren zezenak itxusiak eta suhartasun gutxikoak izan ziren. Villagodio–ko markesarena berriz, zaila. *Torkito*, Manuel Varé *Varelito*ren ordez ipini zuten eta ganadu harekin ezer egiterik ez zuen izan. Belmonte–ri bere lehen zezenean txalo asko jo zioten eta Villagodio–rena ere erraz hil zuen. *Saleri II.*ak gauza onak egin zituen errespetua sartzen zuen bere lehenengoan, baina bestean ez, nahiz eta txikiago eta nobleagoa izan.

Abuztuaren 24ean zortzi zezen plazaratu ziren Bilbon. Carmen de Federico–renak zazpi eta Villagodio–ko markesarena zortzigarrena. Lehen Murube–renak izandako zezen haiek, txikiak eta suharrak suertatu zitzaizkien. Rafael Gomez *Gallo*, Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna* eta Domingo Gonzalez *Dominguin* izan ziren ezpatariak. Rafael *Gallo* eta Belmonte–k ahaleginak egin zituzten, baina ez zuten ezer lortu. *Dominguin*i ere gauza bera gertatu zitzaion. *Fortuna* zezenak harrapatu egin zuen eta jendea larri zen han gauza graberen bat gertatu zela eta. *Fortuna*k ordea, trajea hautsita zuela odolduta lurretik altxa eta pase batzuk osatu ondoren zezena ezpataz dotore hil zuen. Belarria eman zioten, jendea zutik txaloka zuelarik.

1.920.eko abuztuaren 25ean Matias Sanchez–en sei zezen eta Villagodio–ko markesaren beste bi hiltzera Rafael Gomez *Gallo*, Juan Belmonte, Luis Freg eta Diego Markiaran *Fortuna* aurkeztu ziren Vista Alegren. Zezenek bost urte eta kasta gutxi zuten. Rafael *Gallo*k lehenengo zezenean eskandalua armatu zuen, beste askotan bezala, baina bere bigarrenean txalotua izan zen. Belmonte–k bere arte eta ausardia erakutsi zituen, Luis Freg–ek ausardia bakarrik eta *Fortuna*k belarri bat lortu zuen zezena oin–hegazka ongi hiltzeagatik. Horretan oso ona zen sestaoarra, egia esan[1]. Bidenabar esan dezagun Jose Etxebarria Bengoa jauna, Villagodio–ko markesa urte hartan hil zela eta ganadutegia bere ondorengoen eskuetara pasa zela[6].

Abuztuaren 26ko korridan Pablo Romero–ren zezenak korritu ziren Bilbon. Juan Belmonte, Luis Freg eta Diego Markiaran *Fortuna*k hil zituzten. Belmonte–k lehenengoan legea bete zuen, eta bigarrengoari, Jose Amezola jaunari brindatu ondoren, belarria moztu zion. *Fortuna*k ez zuen zorte onik izan arratsalde hartan. Azkenean Bitor Bigiola *Torkito III.*ak Murube–ren zezen bat ongi hil zuen.

1.920.eko abuztuaren 29an, Santa Coloma–ren zezenak plazaratu ziren Bilbon. Oso zezen zangarrak suertatu zitzaizkien; bigarren, hirugarren, bostgarren eta seigarrena batez ere. Serafin Bigiola *Torkito*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Jose Roger *Valencia* izan ziren ezpatariak. *Torkito* artista ibili zen bere bi zezenetan eta, nahiz eta abisu bana entzun, txaloak jo zizkioten. *Fortuna* bere lehen zezenean luzitu zen, baina beste zezenean jendearen txistuak entzun zituen. Jose Roger *Valencia*k ausart jokatu zuen hirugarren zezenean, baina seigarrenean konfidantzarik gabe aritu zen. Faustino Bigiola *Torkito II.*ak azkenean Villagodio–ko markesaren zezen bigun eta geldo bat txukun toreatu eta hil zuen[1]. Laugarren zezenak Jose Sierra *Sierrita* edo *Tancredo* pikatzaile santandertarrari ezkerreko hanka hautsi zion[3].

Irailaren 12an nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren, Matias Sanchez–en zezenkoak jokatuta. Emilio Mendez, Mariano Montes eta Domingo Uriarte izan ziren ezpatariak.

1.920.eko irailaren 19an beste nobillada batean Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Jose Gomez Roca *Joseito de Málaga* eta Manuel Granero aritu ziren Vista Alegren Angoso jaunaren seme–alaben zezenko koldarrak toreatzen. Faustino Bigiola gaizki egon zen, *Joseito de Málaga* ongi eta Granero oso ongi.

Irailaren 26an Andres Sanchez–en zezenkoak korritu ziren Bilbon. Nobillada hartan Salvador Freg, Lorenzo Ocejo eta Pierre Boudin *Pouly III.*ak parte hartu zuten.

Urriaren 10ean korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Villar–en seme–alaben zezenak (txikiak, baina azkena ezik suharrak) Ignacio Sanchez Mejias, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Manuel Granero–k toreatu eta hil zituzten.

Lehen zezenean Sanchez Mejias oso ongi egon zen, baina zezenak harrapatu egin zuen. *Chicuelo*k hiru zezen hil zituen eta txalotua izan zen bere trebetasun eta graziagatik. Granero alai eta artista ibili zen.

1.920.eko urriaren 10ean urteko azken korrida ospatu zuten Bilboko Vista Alegren. Matias Sanchez, Trespalacios–eko kontearen sei zezen koldar Kastor Jauregibeitia *Bilboko kotxeritoa* eta Manuel Jimenez *Chicuelo*k hil zituzten. Kastor Jauregibeitiari bere herritarrek txaloak jo zizkioten. *Chicuelo* oso ongi laugarren zezenean egon zen eta belarria lortu zuen fin eta artista faena burutu ondoren.

Urriaren 17an, Villar anai–arreben zezenkoak toreatu zituzten Francisco Peralta *Facultades* eta Antonio Sanchez–ek.

1.920. urtean Bilboko Vista Alegren emandako azken nobillada, mistoa izan zen. M. Sanchez Carreros–en lau zezenko korritu zituzten urriaren 31n *Arrati*, Martin Aguero eta aragoar *Charlo*tentzat[1].

Bizkaiko toreatzaileei dagokionez, Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k 1.920. urtean 7 korridatan 14 zezen hil zituela esango dugu[5]. Gero udazkenean Ameriketara joan zen ohi bezala toreatzera. Caracas–en hain zuzen, abenduaren 8an, Jose Mora Garcia toreatzaile madrildarrari alternatiba eman zion[37]. Madrilen ere Carabanchel–eko plazan urte hartantxe eman zion alternatiba Jose Corzo *Corcito*ri. Palha–ren zezenak toreatu zituzten[3].

Serafin Bigiola *Torkito*k 1.920. urtean 21 korridatan 40 zezen hil zituen. Diego Markiaran *Fortuna*k berriz, 31 korridatan 61 zezen. Madrilen Llén–eko markesaren zezen bat irailaren 26an bikain hil zuelako bi belarriak eman zizkioten[5]. Irailean Madrilen, hilaren 26an, *Fortuna*k Bernardo Casielles toreatzaileari alternatiba sendotu zion Fernando Villalón ganduzalearen *Morenito* zezena hiltzeko tresnak utzita. Diego Markiaran–ek dena dela, korrida batzuk galdu zituen abuztuaren 1ean Carmen de Federico–ren zezen batek Santander–en potrazalean zauritu zuelako.

Joselito Martin nobillero bilbotarra ere fama irabazten ari zen 1.920. urtean, baina irailaren 27an Cordoba–n Medina Garvey–ren zezenko batek ezkerreko zangoan adarkatu egin zuen[3].

Domingo Uriarte sestaoarra ere asko ari zen toreatzen 1.920. urtean[5]. Irailean Salamanca–n nobillada batean parte hartu zuen eta zezenko baten brindisa Migel Unamuno famatuari egin zion. Unamuno–k ordainetan, Ama Birjina Begoñakoaren domina eman zion[58].

Martin Etxeandia *Basurtoko mutila*, toreatzaile apala zen, baina 1.920.eko uztailaren 15ean Madrilen Tovar–eko dukearen zezenkoak toreatu zituen. Lorenzo Ocejo bilbotarra berriz, 1.920.eko ekainaren 3an aurkeztu zen Madrilen. Guztira urte hartan 18 nobilladatan parte hartu zuen plazarik garrantzitsuenetan.

Manuel Sagasti bilbotarra ere urte hartan auzkeztu zen Madrilen, Tetuan–eko plazan Antonio Arroyo–ren zezenkoak hiltzera. Ausart egon zen eta belarri bat irabazi zuen.

Dionisio Baranda bilbotarra ere nobilladatan toreatzen ari zen. Madrilen ekainaren 3an Felipe Montoya–ren zezenkoak Pedro Serrano *Serranito*rekin batera toreatu zituen. Dionisio Baranda bost urte lehenago nobilladatan parte hartzen hasia zen. Bi urte lehenago Colmenar Viejo–n Manuel Martinez–ekin Vicente Torres–en ganadua hil zuen[3].

Baionan, aurreko urtean erretako zezenplaza berritua izan zen 1.920.ean[55]. Akitanian garai hartan korridak normalki ospatzen ziren. Akize–n adibidez abuztuaren 29an eman zen bat, eta bertan Ricardo Anlló *Nacional* zauritua suertatu zen. Landetako toreaketan bestetik, garai hartan Dandigeos izenekoak fama handia lortu zuen[3].

Azpeitian 1.920.eko saninaziotan *Joselito* Martin bilbotarrak toreatu zituen ohizko bi nobilladak uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean. Zalduendo–ren alargunak Kaparrosotik bidaliak ziren zezenkoak[10], baina ez da ahaztu behar garai hartan zezenak Nafarroatik Azpeitira mendiz eta oinez etortzen zirela. Elosiaga–ko Etxeberri mendira ekartzen zituzten, eta han edukitzen plazara eraman baino lehen. Urte batean zezenko bat sorora jaitsi zen eta jendeari eraso zion Etxenagusi baserriaren ondoan. Gari–metaren inguruan pertsona bat ibilia zen bueltaka, atzetik zezenkoa segika zuela.

Donostian 1.920. urteko sansebastianetan sokamuturrik gabe ospatu ziren danborradak. Union Artesana elkartekoek beren bazkarian ari zirela txistulariek *Iriarena* jo zuten eta idi–buruaz prestatutako sokamuturraren antzekoa sartu zen aretora. Gero, maiatzaren 23an, Union Artesana elkartekoek zezenfesta bat antolatu zuten Txofre–ko plazan[11].

Donostian 1.920.eko udan korridak ohi bezala eman ziren Txofre–n. Abuztuaren 22koan adibidez, Manuel Jimenez *Chicuelo* zauriturik suertatu zen. Irailaren 3koan berriz, Manuel Varé *Varelito*.

Nobilladak ere eman ziren Donostiako Txofre–n 1.920.ean. Nicanor Villalta aragoarrak toreatu zuen, besteak beste. Iruñean eta Korella–n toreatu zuen urte hartan Villalta–k.

Nobilladatan asko toreatzen ari zen beste bat, Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo* zen; hamalau arratsaldetan lan egin bait zuen 1.920.ean[3].

Iruñean berriz, 1.920.eko sanferminetarako kartel iragarleak honela zioen:

- Uztailak 7. Santa Coloma–ko kontearen zezenak, Juan Belmonte, Manuel Varé *Varelito* eta Ignacio Sanchez Mejias–entzat.
- Uztailak 8. Manuel Albarran–en sei zezen, bezperako ezpatarientzat.
- Uztailak 9. Probarako lau zezen, arratsaldean, Agustin Garcia Malla, Diego Markiaran *Fortuna, Varelito* eta Ignacio Sanchez Mejias–entzat.
- Uztailak 10. Candido Diaz–en sei zezen, *Fortuna*, Sanchez Mejias eta Jose Roger *Valencia* ezpatarientzat.
- Uztailak 11. Felix Moreno Ardanuy–ren sei zezen, Garcia Malla, *Fortuna* eta *Varelito*rentzat[12].

Iruñeko entzierroak, goizeko seietan izaten ziren eta ordurako dultzainari, txistulari eta gainerako musikariek kalez kale beren saioak egiten zituzten jendea esnatzearren[59].

1.920.eko uztailaren 7ko entzierroan, Santa Coloma–ko kontearen zezen bat (87 zenbakia zuena), barrera aldera joan zen plazan eta Logronioko bi injineru gazte (Xabier Adarraga izenekoa bat) adarkatu egin zituen. Zezen hura toriletara sartzen lan handia egin zuten Agustin Uztarroz–ek

(Candido Diaz–en unanmaizterrak) eta Sanchez Mejias–en koadrilako Enrique Belenguer *Blanquet*ek. Txalo asko jo zieten.

Arratsaldean Jose Maria Landa alkatearen lehendakaritzapean Rafael Gomez *Gallo* (Belmonte–ren ordez), *Varelito* eta Sanchez Mejias–ek beren koadrilekin egin zuten aurkezpena. Rafael *Gallo* lutoz jantzia zegoen bere anaia *Joselito*ren heriotzagatik eta arratsalde hartan porrot egin zuen plazan. Enrique Varé *Varelito* berriz ongi aritu zen. Bere bigarren zezenean batez ere. Bi belarri eta buztana eman zizkioten. Baina benetako arrakasta lortu zuena Ignacio Sanchez Mejias izan zen. Sanchez Mejias–ek *Relampago* izeneko zezenari lana dotore egin zion kapote, banderila nahiz muletaz. Bere bi zezenak ezpatakada banaz bota zituen eta guztira lau belarri eta bi buztan eman zizkioten arratsalde hartan. Hoteleraino eraman zuten bizkar gainean[60].

Gero nobilladatan, Pierre Boudin *Pouly III.a* eta Cándido Monclús *Matralito* ere toreatzen aritu ziren[3].

Sanferminetako korriden irabaziak, osorik Iruñeko Errukietxearentzat izan ziren 1.920. urtean[47], eta gero, abuztuaren 20an udaletxean egindako bilera baten ondorioz, Udalak Errukietxeari 11.435 metro karratuko lurrak doan ematea erabaki zuen, bertan zezenplaza berria egiteko asmoz. Abuztuaren 5ean Errukietxeko Batzordeak gutun bat bidalia zion Udalari, zezenplaza zaharra bota eta berria eraikitzeko konpromezua hartuz. Plaza berria ordaintzeko, 500, 250 eta 100 pezetako obligazioak jaulki zituzten. Milioia eta hirurehun mila pezetako jaulkipena ehuneko 5eko interes–tasan eta gehienez 50 urtera amortizatzekotan egin zen. Iruindarrek suskribatu zituzten obligazio haiek, eta asko gainera, jendeak erosi, hautsi eta botata automatikoki amortizatu ziren[61].

Bestetik Iruñean 1.920. urtean zezenzaleen elkarte bat sortu zen Estafeta kaleko 31. zenbakian. Jose Roldan, Joanito Kintana, Bizente Larrea (toreatzailegaia) eta Agapito Benedi *Riojanito* toreatzailea ziren bazkidetako batzuk[62].

Tuteran, garai hartan zezenplaza itxi egin zuten eta handik bi urtera bota, bertan irin–fabrika bat egiteko. Dena dela, plazaren azken urteetan festetan Zalduendo–ren *Barquillera* izeneko behia famatua zen; behi handia, adarluzea eta maltzurra inola ere[63].

Candido Diaz funestarrak bere ganadutegira 1.920. urtean Carmen de Federico–ren zezenak gehitu zituen eta baita Santa Coloma–ko kontearen eta Jose Bueno–ren behi eta zezenak ere. Azken honenak Albaserrada jatorrikoak ziren[34].

Dena dela Candido Diaz–en *Jardinero* izeneko zezen zurihoria jokatu zen Tarragona–n abuztuaren 28an. Sei pikalditan bost aldiz zaldia bota eta hiru hil egin zituen[13].

1.920. urtean, Landetan Barrere ganaduzaleak Giovani toreatzailea zerabilen taldeburu gisa plazaz plaza, eta Lafitte ganaduzaleak Couralet toreatzailea. Bestetik urte hartan Coran toreatzailea ganaduzale bihurtu zen Ladoues–ekin elkarturik. Joseph Coran–ek bere taldean Cantegrit, Pantois II.a eta Antonio toreatzaileak hartu ziuten. Azken hau Michel I.a, *Ramuntxo* eta *Ramuntxito* toreatzaile landetar famatuen aita zen[14].

———— o ———— o ————

14.- ZEZENAK XX. MENDEAN. BIGARREN HAMARKADA: BIBLIOGRAFIA

(1) URUÑUELA, EMILIANO. "LITRI". *La dama taurina de Abando.* Bilbo 1.973 (235-341. orr)

(2) X, X. *Nobelen zekorketak; Bilboko tradizio zaharra berpizturik,* in Eguna 1.987-IV-23.

(3) DE COSSIO, JOSE MARIA. *Los toros.* 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1.978 (7, 27, 37, 41, 51, 52-54, 67, 68, 70, 72, 77, 83, 87, 89, 96, 97, 106, 113, 118, 119, 121, 123, 124, 131, 132, 138, 145, 146, 173, 174, 180, 190, 206, 217, 234, 256, 258, 259, 268, 271, 274, 284, 298, 307, 315, 316, 325, 327, 328, 343, 347, 351, 352, 363, 374, 375, 382, 405, 407, 408, 409, 435, 448, 449, 451, 452, 454-456, 464, 465, 473, 488, 492, 518, 533, 538, 540, 548, 552, 562, 567, 573, 574, 580, 591, 592, 596, 622, 641, 647, 653, 654, 659, 665, 667, 669, 679, 684, 690, 699, 702, 726, 730, 735, 743, 746, 747, 755, 762, 779, 781, 782, 786, 808, 812, 839, 855-857, 861, 862, 865, 875, 877, 888, 902, 912, 913, 919, 921, 923, 925, 959, 961, 965, 966, 971, 985, 989-991, 995, 1001, 1005. orr.)

(4) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 2. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1980 (230, 584, 585, 598, 599, 628, 631, 638, 654, 656, 676, 691. orr.)

(5) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Bizkaiko Aurrezki-Kutxa argit. Bilbo 1983 (14-16, 19, 21, 22, 25-27, 29, 32, 33, 36-39, 45, 46. orr.)

(6) AZUMENDI, JERMAN. *Bilbao, Cocherito y su Club.* Bilbo 1986 (26, 40, 109, 112, 119, 142, 143, 151, 183, 184. orr.)

(7) ERGOIEN, ANTONIO. *Charol, el picador bilbaino,* in Vida Vasca 1950 (216. orr.)

(8) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipuzcoa.* Donostia 1974 (74, 80, 81, 114, 115, 124, 125, 138, 142, 143, 146-150, 191, 230, 232-235, 247, 248, 250, 264, 289, 301, 420. orr.)

(9) VAL, VENANCIO DEL. *Vitoria: el año 1911,* in Boletin de la Institución Sancho el Sabio 1969. Gasteiz. (143, 148, 149, 152, 157. orr.)

(10) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia.* Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (391-394, 396, 397. orr.)

(11) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada.* Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (106, 110, 113, 120, 121, 125, 127, 128. orr.)

(12) OLLAKINDIA, RIKARDO. *100 años de carteles de las fiestas y ferias de San Fermin.* Nafarroako Aurrezki-Kutxa argit. Iruñea 1982 (1911-1920)

(13) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (280, 285, 316, 339, 346, 357, 360, 362, 364, 369, 390, 469-471, 477, 488, 503, 511, 528, 554, 567, 721, 859, 862, 870, 885. orr.)

(14) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (108, 122, 134. orr.)

(15) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Diego Mazquiaran "Fortuna" hijo de padres navarros,* in Vida Vasca 1960 (153, 155. orr.)

(16) M, R. *Dolor en la Semana Grande,* in Diario Vasco 1987-VIII-11 (11. orr.)

(17) X,X. *Fiesta,* in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 13. alea. Auñamendi argit. Donostia 1980 (441. orr.)

(18) X,X. *Ayer cumplió el "Topo" setenta años,* in Egin 1982-XII-14.

(19) L,L. *Encierros,* in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 10. alea. Auñamendi argit. Donostia (518. orr.)

(20) CAL SEGURA, JOSE DE LA. *Genealogía de las cuatro castas fundacionales: Jijona, Cabrera, Vistahermosa, Vazqueña, y la Casta Navarra,* in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (96. orr.)

(21) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 7. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1984 (454, 456, 461, 665, 666, 994, 996, 1004. orr.)
(22) PINTO MAESO, LUIS. *Plazas de toros de España*. Pinmas argit. Madril 1981 (108, 109. orr.)
(23) BIONA, G. DE. *Los hermanos Arrue*, in Euskalerriaren alde 1913. Donostia (716. orr.)
(24) ARANTZADI, TELESFORO. *De espectáculos brutales*, in Euskalerriaren alde 1913. Donostia (358-361. orr.)
(25) ANABITARTE, BALDOMERO. *Gestión municipal de San Sebastián*. 1901-1925. Donostia 1971 (303. orr.)
(26) LUJAN, NESTOR. *Historia del toreo*. Destino argit. Bartzelona 1954 (227, 280. orr.)
(27) ZABALA, ANTONIO. *Berridi eta Kuxkulu bertsolariak*. 146. alea. Auspoa argit. Tolosa (111-118. orr.)
(28) SARASA GONZALEZ, JORGE. *Pamplona y su historia en la vieja Plaza de Toros*, in Vida Vasca 1954 (151, 152. orr.)
(29) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (508, 509, 590, 952, 1137. orr.)
(30) LOPEZ IZQUIERDO, FRANCISCO. *Plazas de toros de Madrid*. Avapiés argit. Madril 1985 (166. orr.)
(31) URRUZUNO, PEDRO MIGEL. *Zezenketa*, in Euskal-Esnalea 1914. Donostia (205-208, 214-216, 226-228, 246-248, 265-268. orr.)
(32) AGIRRE FRANCO, RAFAEL. *Juegos y deportes vascos*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Aparteko alea. Auñamendi argit. Donostia 1971 (478. orr.)
(33) X,X. *Gaona*, in Vida Vasca 1949 (59. orr.)
(34) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (87, 254, 257, 359, 439, 549, 587. orr.)
(35) ANASAGASTI, BITORIO. *El Chiquito es Grande*. Imprenta alemana argit. 1916 (39-41. orr.)
(36) S,A. *Banda municipal de música de Baracaldo*, in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 4. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (15, 16. orr.)
(37) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (126, 191, 683-685. orr.)
(38) LOINAZ ODRIOZOLA, LUIS MARIA. *Recordando a un diestro*, in Diario Vasco 1987-VII-30
(39) "TEA". *Crónica*, in Euskal-Erria 1915. 78. alea. Donostia (135, 285. orr.)
(40) "TEA". *Crónoca*, in Euskal-Erria 1915. 77. alea.Donostia (340. orr.)
(41) CAMPO, LUIS DEL. *Historia del encierro de los toros en Pamplona*. Iruñea 1980 (57, 70. orr.)
(42) LAFUENTE FERRARI, ENRIQUE. *La vida y el arte de Ignacio Zuloaga*. Revista Occidente 1972 (113. orr.)
(43) ERGOIEN, ANTONIO. *Los Gallos, su cuñado y el fotógrafo*, in Vida Vasca 1956 (198, 199. orr.)
(44) ETXEGARAI, KARMELO. *Provincia de Vizcaya*, in Geografía del País Vasco-Navarro. F.Carreras Candi argit. Bartzelona 1917 (901. orr.)
(45) ZABALA, ANTONIO. *Iturzaeta bertsolaria*. 86-87. alea. Auspoa argit. Tolosa 1969 (101-112. orr.)
(46) M,R. *Fiestas en agosto*, in Diario Vasco 1987-VIII-29
(47) CAMPO, LUIS DEL. *El encierrillo*. Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (15, 26. orr.)
(48) LAKARRA, JOSE MARIA. *Las corridas de toros en Estella*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (319. orr.)
(49) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (398, 402. orr.)
(50) BUSTINTZA, EBARISTO."KIRIKIÑO". *Abarrak*. Bilbo 1966 (78, 79. orr.)
(51) MUJIKA, GREGORIO. *Tradiciones y costumbres*, in Congreso de Estudios Vascos. Oñati 1918

(619, 620. orr.)
(52) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Mansos célebres*, in Club Taurino Pamplona. 1985. Iruñea (12. orr.)
(53) VIERGE, GALO."BONARILLO". *Toreros y torerillos de Navarra*, in Vida Vasca 1955 (165. orr.)
(54) URUÑUELA, LUIS. *De la plaza de toros de Indauchu al nuevo Ensanche de Bilbao*, in Vida Vasca 1949 (192. orr.)
(55) MASSE, ONOFRE. *La tauromachie au Pays Basque*, in Pyrénees 1955. 6. alea (226. orr.)
(56) "BERRIZALE". *El mes de febrero*, in Euskalerriaren alde 1919. Donostia (75, 76. orr.)
(57) "CARACHO". *Alternativas celebradas en la nueva plaza de toros de Pamplona*, in Vida Vasca 1951 (151. orr.)
(58) SAIZ VALDIVIELSO, ALFONSO CARLOS. *Sin ninguna atención: punto final*, in Deia 1984-X-11.
(59) CAMPO, LUIS DEL. *Psicología del corredor en el encierro de toros en Pamplona*. Iruñea (31. orr.)
(60) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Aquella tarde de toros*, in Vida Vasca 1957 (145, 147, 149. orr.)
(61) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros*. Navarra. Temas de cultura popular. 125. alea. Iruñea 1972 (25, 26. orr.)
(62) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Los Clubs Taurinos de Pamplona*, in Vida Vasca 1952 (162. orr.)
(63) GIL GOMEZ, LUIS. Variedades tudelanas. Navarra. Temas de cultura popular. 187. alea. Iruñea 1973 (13, 14. orr.)

15.- ZEZENAK XX. MENDEAN: HIRUGARREN HAMARKADA

XX. mendearen hirugarren hamarkadan, Bilbo izan zen Euskal Herriko zezenfesten ardatz nagusi. Bertako Vista Alegren izan ere, beste inon baino ospakizun gehiago eman ziren. Hogeitamar zezenfestatik gora edozein urtetan antolatzeko adorea izan zuten, beste herri eta hirietako markak hautsiz.

Horregatik 1.921. urteko eta Bilboko berri emateari ekingo diogu. Lehen zezenfesta Vista Alegren, urtarrilaren 6an eman zuten. Salamanca-ko Jose Fuentes-en lau zekor jokatuz *Charlot* aragoar batzuen lan irrigarria ikusteko aukera eman zitzaien bilbotarrei. Urtarrilaren 16an ere aukera berdintsua egon zen plaza berean, Pedro Sanchez-en bost zezenko *Chispa* izenekoak toreatu zituenean.

1.921.eko otsailaren 20an urteko lehen nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. J. M. Garcia-ren bost zezenko toreatzeko Manuel Gracia, *Joselito* Martin, Martin Aguero eta Barajas kontratatu zituzten. Manuel Gracia zaragozarrak ez zuen zorterik izan, Aguero oso txalotua izan zen eta *Joselito* Martin-ek bere arte finari esker belarria irabazi zuen.

Martxoaren 3an, urteko lehen korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. J. M. Garcia-ren (lehengo Arribas-en) sei zezen toreatzera Matias Lara *Larita*, Domingo Gonzalez *Dominguin* eta Bernardo Muñoz *Carnicerito* aurkeztu ziren. Suhartasunik gabeko zezenak suertatu zitzaizkien. Bigarrena arriskutsua zen eta hirugarrenari suzko banderilak ipini zizkiotenean, bista hondatu egin zitzaion. *Larita* toreatzaile gizenak, ganadu harekin aspertu egin zuen jendea. *Dominguin* bere bi zezenetan ausart ibili zen eta bietan txaloak jo zizkioten. *Carniceritok* kapotez eta muletaz egindako lana jendeari asko gustatu zitzaion eta txalotua izan zen.

1.921.eko martxoaren 27an J.M. Sanchez Carreros-en sei zezenko korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Nobillada hartan Gines Hernandez *Ginesillo*, Fausto Barajas eta *Gitanillok* parte hartu zuten.

Apirilaren 3an urteko bigarren korrida ospatu zen Bilbon. Manuel M. Albarran-en sei zezen suhar toreatzera Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Belmonte eta Manuel Jimenez Moreno *Chicuelo* etorri ziren. *Fortunak* bere bigarren zezena hiltzea bakarrik egin zuen ondo. Gainerakoan ezer ere ez. Belmonte bigarrena saiatu zen trebetasun eta ausardiaz, baina ezintasuna ikusi zitzaion. *Chicuelo* artista ibili zen bere lehenengoan. Kapote eta muletaz dotorezia erakutsi zuen; sei pase naturaletan batez ere, nahiz eta gero ezpataz bere lana hondatu. Bere bigarren zezenean, ez zuen ezer aipagarririk egin.

1.921.eko apirilaren 10ean Bilbon emandako korridan, Antonio Perez-en lau zezen eta Angosoren beste bi plazaratu ziren. Alejandro Saiz *Ale*, Manuel Granero eta Jose Gomez Roca *Joseito de Malagak* parte hartu zuten.

Apirilaren 21ean, Bilboko ikasleek antolatuta zekorketa ospatu zen Vista Alegren. P. Sanchez-en lau zekor jokatu zituzten.

Maiatzaren 1ean, Felix Moreno-ren sei zezen toreatzera Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Jimenez Moreno *Chicuelo* eta Jose Gomez Roca *Joseito de Malaga* etorri ziren Bilbora. Naiz eta Moreno-ren zezenak ongi portatu, *Fortuna* eta *Chicuelok* ez zuten ezer onik egin. *Joseito de Malagak*, legea betetzea besterik ez.

1.921.eko maiatzaren 2an, Jose Garcia–Aleas–en sei zezen koldar jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Luis Freg, Manuel Jimenez Moreno *Chicuelo* eta Jose Gomez *Joseito de Malaga* ezpatariek parte hartu zuten. Laugarren zezenak kailejoira salto egindakoan hondatu egin zen, eta haren ordez Teran enpresari jaunak Jose Manuel Garcia–ren beste bat atera zuen. Luis Freg ez zen luzitu, *Chicuelo* bezperan baino okerrago aritu zen eta *Joseito de Malagari* ere ez zitzaion ezer onik ikusi.

Maiatzaren 5ean *charlotada* ospatu zen Vista Alegren. P. Sanchez–en lau zekor eta Santamariaren bat toreatu zituzten *Charlot* jantzian zebiltzanak, *Chispas* eta M. B. Izquierdo–k. Maiatzaren 8an ere zekor bat jokatu zen Vista Alegren.

1.912.eko maiatzaren 15eko korridan, Villamarta–ren sei zezen plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Ernesto Pastor, Manuel Varé *Varelito* eta Manuel Granero ezpatariek lan egin zuten zezen koldar haiekin. *Varelito* bere lehen zezenean luzitu zen, baina bere bigarrenean ez zen zezenaren baldintzetara akoplatu. Ernesto Pastor–ek legea betetzea besterik ez zuen egin. Granero bere bigarrenean egon zen ondo. Kapote, banderila eta batez ere muletaz, bere arte eta estiloaren berri eman zuen. Ezpata goi–goian lehenengoan sartu zion eta belarria eskuan zuela plazari buelta eman zion txalo artean[1]. Korrida hura Bilboko *Kotxerito* elkarteak antolatu zuen Lorenzo Ocejo *Ocejito*ren gurasoei laguntzearren; maiatzaren 2an hil bait zen Lorenzo[2] Valentzian. Hilaren 1ean Antonio Marquez eta *Gitanillo*rekin toreatzen ari zela, Andres Sanchez–en zezenko batek izterrean adarkatu zuen. Maiatzaren 2an goizeko bostetan hil zen Lorenco Ocejo *Ocejito*[3].

Maiatzaren 22an beste korrida bat eman zen Bilbon. Tamaron–eko zezenak, seigarrena ezik, suhar portatu ziren. Ernesto Pastor eta Alejandro Saiz *Alek* hil zituzten. *Ale* ausart aritu zen kapotez eta trebeziaz muleta eta ezpataz. Ernesto Pastor adorez beterik ikusi zuten bilbotarrek. Baita seigarren zezen koldarrean ere. Zezen hartan, nahiz eta lehendakariak bidalitako abisu bat entzun, belarria eman zioten.

1.921.eko maiatzaren 26an, Bilbon Tovar–eko dukearen sei zezen jokatu ziren. Korrida hartan, Alfonso Cela *Celita*, Matias Lara *Larita* eta Bernardo Casielles–ek parte hartu zuten. *Celitak* ausardia erakutsi zuen eta beste bi ezpatariak oso txalotuak izan ziren.

Maiatzaren 29ko nobilladan, Bilboko Vista Alegren Veragua–ko dukearen bost zezenko eta Tabernero–ren bat korritu ziren, Francisco Checa, Rafael Rubio *Rodalito* eta *Gitanillo* toreatzaile zirela.

Ekainaren 5ean, beste nobillada bat eman zen leku berean. Andres Sanchez–en zezenkoak toreatzera Posadas eta Jose Belmonte (Belmonte hirugarrena) etorri ziren.

1.921.eko ekainaren 11n, Artzentales–eko zekorrak korritu zituzten Bilboko Vista Alegren. Ekainaren 12an berriz, P. Sanchez–en lau zezenkorekin toreaketa komikoa egin zuten *Don Kixote* eta bere konpainiak.

Ekainaren 19an, Vista Alegren Veragua–ko dukearen zezenak jokatu ziren. Korrida hartan Rafael Gomez *Gallo*, Juan Luis de la Rosa eta Jose Gomez *Joseito de Malagak* toreatu zuten. Azkena plazaratutako zezenak izan ziren onenak. Rafael *Gallok* lehen zezenari faena apaina burutu zion eta txaloak entzun zituen. Bere bigarrengoan ordea, zerbait ez zitzaion gustatu eta ezer onik egin ez zuenez, berebiziko eskandalua sortu zen plazan. Juan Luis de la Rosa asko saiatu zen bere lehenengoan. Txaloak ordea, bigarrenean lortu zituen kapotez eta muletaz dotore toreatu zuelako. Ezpataz laugarrenean asmatu arren, plazari buelta eman zion. *Joseito de Malagak*, arratsalde hartan

ez zuen asmatu Bilbon.

1.921.eko ekainaren 26an, Bilboko Vista Alegren beste korrida bat eman zen. Guadalest-eko sei zezen toreatzera Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Manuel Granero ekarri zituzten. Bai bata eta bai bestea oso gaizki egon zen. Granero gainera, seigarren zezenak harrapatu egin zuen.

Uztailaren 3ko korridan, Vista Alegren Angoso-ren semeen sei zezen toreatzeko Juan Belmonte, Manuel Varé *Varelito* eta Manuel Granero kontratatu zituzten. Juan Belmonte bere lehen zezenean egon zen ondoen. Faena ederra burutu eta zezena hildakoan belarria eman zion jendaren eskariz Emilio Otadui jaunak, korridako eta *Kotxerito* elkarteko lehendakariak. *Varelito*k bere lehenengoari, Angoso-ren zezen suharrari, berebiziko bular-paseak osatu zizkion. Hil ere oso ongi egin zuen oin-hegazka. Horregatik belarria eman zioten. Bigarrenean faena laburra burutu zion, herren zegoelako. Granero bere lehenengoan asmatu ezinik ibili zen eta abisu bat entzun zuen. Bestean ordea, zezena hobea zelako, belarria eman zioten. Angoso-ren zezenak ongi portatu ziren. Lehen eta bigarrenak erakutsi zuten suhartasunik handiena.

1.921.eko uztailaren 10ean, Valentzian Santamaria-ren sei zezenko plazaratu ziren Vista Alegren toreatzaile *nobel*entzat. Jaime Noain bilbotarra nabarmendu zen partehartzaile guztietan; urte batzuk geroago zezen-hiltzaile izango zena[1].

Abuztuko korridetarako, Carlos Ruano Llopiz alacantearrak egin zuen Bilborako kartela Valentziako Ortega etxean[2].

Hilaren 21ean hasi ziren urte hartan abuztuko ohizko korridak Bilbon. Concha y Sierra-ren sei zezen toreatzera Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna* eta Alejandro Saiz *Ale* etorri ziren. Ignacio Sanchez Mejias Ciudad Real-en zauritu zelako bere ordez *Ale* ipini zuten. Juan Belmonte-ren lana ikusi ondoren jendea hotz gelditu zen arratsalde hartan. *Fortuna* ausart aritu zen, baina luzitu gabe *Ale* bezalaxe. Zezen gizen eta suhartasunik gabeak izan ziren, hirugarrena ezik.

Bigarren korridan, 1.921.eko abuztuaren 22koan, Mihura-ren sei zezen Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Granero-k hil zituzten Bilbon. Belmonte-k lehenengoan jendearen txistuak entzun zituen. Bigarrenean ikusleak isilik gelditu zitzaizkion. *Fortuna*k bere lana bukatu ondoren txalo batzuk entzun zituen. Granero-k ausardia erakutsi zuen, baina ezpataz asmatu ez zuelako, jendea aspertu egin zitzaion.

Abuztuaren 23eko korridan, Urkixo-ren sei zezen plazaratu ziren Bilbon. Juan Belmonte, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Juan Luis de la Rosa ezpatariek lan egin zuten. Suhartasunik gabeko zezenak medio batetik eta toreaketa txarra medio bestetik, bilbotarrak erabat aspertu ziren arratsalde hartan zezenplazan.

1.921.eko abuztuaren 24eko korrida suspenditu egin zen Vista Alegren, eta biharamunekoan Juan Belmonte, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Granero-k Santa Coloma-ko kontearen sei zezen toreatu eta hil zituzten. Zezen nobleak suertatu ziren, eta Belmonte-k hiru zezen hil zituen. Ez zen luzitu ezpataz, baina muletaz bai. *Chicuelo*k adoretsu egin zuen lan, arte handirik erakutsi gabe. Granero-ri zezen batean hiru abisuak eman zizkioten eta etsaia torilera sartu zioten.

Abuztuaren 26ko korridan, Bilbon Pablo Romero-ren zezenak jokatu ziren. Luis Freg, Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Jimenez *Chicuelo* ezpatariek hil zituzten. Zezen suhar haiekin, Luis Freg (Granero-ren ordez etorria) ausart eta txukun aritu zen. Horregatik belarriak irabazi zituen. *Chicuelo*ri tokatu zitzaizkion bi zezen txarrenak, eta ez zuen ezer egin. *Fortuna*

hirugarren zezenean ondo aritu zen eta ezpataz ongi hil zuelako belarria eman zioten. Berak ez zuen belarria onartu, protesta batzuk zeudelako. Seigarrenean asko borrokatu zen bere etsaiarekin. Korrida bukatzeko, Argimiro jaunaren zezen bat Manuel Sagasti bilbotarrak hil zuen.

Vista Alegren 1.921.eko irailaren 8 eta 11n saio akrobatikoak burutu ziren, eta aipatutako bigarren egunean Garellano-koak eta *Dominguin*ek parte hartu zuten.

Geroxeago, irailaren 14ean, Cobaledaren lau zekor eta Tabernerorен bi zezenko korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Irailaren 19an ere beste zekorketa bat izan zen.

Irailaren 25ean M. Santos-en sei zekor jokatuta *charlotada* ospatu zuten Vista Alegren. Urriaren 2an berriz, M. Santos-en sei behi plazaratu zituzten Landetako erara korrida emanez.

1.921.eko urriaren 9an ere lau behi jokatu ziren, eta hilaren 16an beste hiru behi eta Tabernero-ren zezen bat. Barajas-ek hil zuen zezena.

Urriaren 30ean, urteko azken nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Logronio-ko Manuel Etura-ren lau zekor hil zituzten Jose Perez *Joseton* eta Martin Aguero-k[1]. Toreatzaile bizkaitarrei eta 1.921. urteari gagozkiolarik, Rufino San Bizente-ren berriak emango ditugu. Urte hartan oso gutxi toreatu zuen; Caracas-en korrida bat edo beste bakarrik[3].

Serafin Bigiola *Torkito*k, zortzi korrida toreatu ondoren Mexiko-rako bidea hartu zuen. Han bost korrida toreatu zituen eta gero Peru-ko Lima hiriburuan beste hiru. Belmonte despeditu zen korridan berebiziko arrakasta lortu zuen. Gero Mexiko-ra itzulita Enriketa Lopez Arozena-rekin ezkondu zen, eta han pasatu zituen beste hiru urte[4].

Diego Markiaran *Fortuna*rentzat 1.921.a ez zen urte txarra izan. Denboraldiaren hasieran ordea, maiatzaren 5ean, adarkatua izan zen Madrilen. Concha y Sierra-ren zezen batek larriki zauritu zuen. Korrida hartan Alfonso Cela *Çelita* eta Jose Gomez Roca *Joseito de Malaga* ezpatariak ere zauriturik suertatu ziren: bata adarkadaz eta bestea ezpata oinean sartuta. Pablo Suarez *el Aldeano* pikatzaileak ere lepauztaia hautsi zuen korrida hartan. Laugarren zezena gainera, Juan Cecilio *Puntere*tek (ikusle gisa zegoen) hil zuen eta korrida bertan behera gelditu zen.

Maiatzaren 28an ere toreatu zuen *Fortuna*k Madrilen. Pierre Boudin *Pouly III*.ari alternatiba sendotu zion Juan Anlló *Nacional II*.aren aurrean[3]. Ekainaren 12an Algeciras-en toreatu zuen *Fortuna*k Madriletik hegazkinez joanda. Guztira 24 korrida toreatu zituen bizkaitarrak 1.921.ean.

Joselito Martin bilbotarra, maiatzaren 15ean Granadan zauritu egin zen. Mihura-ren zezenko batek peronea hautsi zion. Abuztuan Melilla-ra joan zen soldaduskara, eta neguan Caracas-era toreatzera. Urte hartan sei nobilladatan parte hartu zuen[4].

Domingo Uriarte-k Madrilen toreatu zuen, besteak beste irailaren 4ean. Gregorio Garrido eta Jose Carralafuente zituen kartelkide Juan Terrones eta Francisco Turjillo-ren zezenkoak hiltzeko[3]. Gero Caracas-era joan zen eta neguan Diego Markiaran *Fortuna*k alternatiba eman zion biek bakarrik toreatutako korridan (alternatiba hark ez zuen balio Penintsulan). Han pasatu zituen Uriarte-k urte batzuk[4].

Garai hartan, Nikanor Duarte *Lanerito* banderilaria Bilbon bizi zen. Inguruko nobilladatan parte hartzen zuen Nikolas Guinea eta Pablo Iruzubieta-k bezalaxe. Eulalio Grisaleña ere Bilbon

bizi zen. Juan Luna–rekin koadrila osatuz nobilladatan lan egiten zuen garai hartan. Rikardo Iborras *Bandera* bestetik, Sestao–n bizi zen eta pikatzailea zen.

Enrique Navarro *Valencia*, Balmasedan jaiotako banderilaria zen, bere anaia Domingo Navarro *Dominguete* bezalaxe. Domingo gazterik hil zen zenzeko–hiltzaile izanik[6].

Ganaduzale bizkaitarrei dagokienez, Villagodio–ko markesa hil ondoren bere ondorengoek Madrilen 1.921. urteko martxoaren 6an jokatu ziutzten lehen aldiz beren zezenak[7].

Azpeitiko saninaziotan, 1.921. urtean urtero bezala zezenen entzierroa ospatu zen, baina azken aldiz. Nobilladak abuztuaren 1ean eta 2an izan ziren. Batean Garcia Diaz–en zezenkoak jokatu zituzten eta bian Alaiza–ren semeenak. Lehen egunean *Joselito* Martin bilbotarrak lau zezenko hil zituen. Hirugarrenaren belarria lortu zuen eta besteetan txalotua izan zen. Biharamunean, hilaren bian, laugarrenari moztu zion belarria, besteetan txaloak entzunez[8].

Garai hartan Urretxua–n ere izaten ziren nobilladak santanastasiatan. Iraileko festa haietan honako urretxuar hauek toreatzen zuten herriko festetan: Fidel Okariz *Largate*, Esteban Berriotxoa, Teofilo Beltran *Veneno chico* (pikatzaile), Miguel Alvarez eta Andres Txintxurreta[9].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*, zezenko–hiltzaile gisa fama hartzen ari zen. 1.921.ean, bere bizimoduaz liburuxka bat atera zuen Juan Torrabadella *Don Juan* idazle kataluniarrak Bartzelonan. *La vida y arte de Pedrucho* zen liburuxkaren izena[10].

Pedro Basauri Bartzelonan zineko artista ere izan zen. Henri Vorins frantziar zuzendariak egindako *Pobres niños* eta batez ere *Militona o la tragedia de un torero* izeneko filmetan (azken hau Theophile Gautier–en nobela baten arabera egina) paper garrantzitsua antzeztu zuen. Paulette Landais izan zen emakumezkoaren papera jokatutako aktoresa. Pedro Basauri zezenplazan bezain artista agertu zitzaien guztiei kamera aurrean[11]. Zezenplazatan 1.921.ean hamabi nobillada toreatu zituen[3]. Donostian maiatzaren 29an Domingo Uriarte bizkaitarrak eta berak Villagodio–ren lau zezenko toreatu zituzten. Eibartarraren lana asko gustatu zen. Arratsalde hartantxe Demetrio Castro donostiarrak Lasturreko bi zezenko hil ziuten; latina ere bazekiten bi zezenko txiki eta zail. Lehenengoari belarria moztu zion[12]. Jorge Biguesa ere Donostian bizi zen eta garai hartan banderilari gisa lan egiten zuen[5].

Ekainaren 5ean Donostiako Txofren nobillada ematekoa zen, baina Villagodio–ren zezenko guztiak garaiz iritsi ez zirelako, azkenean ekainaren 10ean ospatu zen. Sei zezenko suhar eta noble haiekin Domingo Uriarte, Manuel Sagasti eta Pedro Basauri–k lan egin zuten. Uriarte oso txalotua izan zen eta Sagasti bizkar gainean atera zuten, baina benetako arrakasta Basauri–k lortu zuen, belarri bana eskuratuz.

Arrakasta haren ondorioz, donostiar zezenzale batzuek beste nobillada bat antolatu zuten leku berean eta toreatzaile beraiekin ekainaren 19rako. Llen–eko markesaren sei zezenkoak ordea, ez ziren ongi portatu eta hiru ezpatarien asmo ona besterik ez zen ikusi.

Uztailaren 25ean berriz lan egin zuen Pedro Basauri–k, Angel Navas *Gallito de Zafra* eta Juan Sanchez *Jumillano*rekin batera, Donostiako Txofren. Zamorako Angel Rivas–en sei zezenko adarluze eta koldarrekin *Gallito de Zafra*k gauza ederrak egin zituen, *Pedrutxo* oso ausart aritu zen eta *Jumillano*k nahikoa egin zuen bere zauri eta herren harekin plazatik onik ateratzearekin[12].

Korridak ere izan ziren Donostian 1.921.ean urtero bezala. Ricardo Anlló *Nacional*

zauriturik suertatu zen eta baita Emilio Moreno *Moreno de Valencia* ere abuztuaren 15eko korridan. Hilabete geroago hanka moztu egin behar izan zioten[3].

Iruñeko sanferminetarako 1.921.ean honako korrida hauek iragarri zituzten:

- Uztailaren 7an: Villar anaien zezenak, Juan Belmonte, Domingo Gonzalez *Dominguin* eta Ignacio Sanchez Mejias-entzat.
- Uztailaren 8an: Felix Moreno Ardanuy-ren zezenak (lehen Saltillo) bezperako ezpatari berberentzat.
- Uztailaren 9an: Proba Funes-eko Candido Diaz-en zezenekin. Ezpatariak: Belmonte, *Dominguin*, Sanchez Mejias eta Manuel Granero.
- Uztailaren 10ean: Guadalest-eko markesaren zezenak Belmonte, Sanchez Mejias eta Granero-rentzat.
- Uztailaren 11n: Santa Coloma-ko kontearen zezenak, Belmonte, Sanchez Mejias eta Granero-rentzat[13].

15.1.irudia. 1.921. urtea. Iruñeko plaza zaharra eta berria; hurrengo urtean estreinatua.

Uztailaren 11ko korrida hura izan zen plaza hartan ospatutako azken korrida. Korrida haietako irabaziak Errukietxearentzat izan ziren, eta aurrerantzean, plaza berrian (gaur egunekoan) Errukietxeak berak antolatu zituen sanferminetako zezenfestak[14].

Plaza zaharra dena dela, 1.921.eko abuztuaren 10ean arratsaldeko lehen orduetan erre egin zen. Zezenplaza hura 100.000 pezetatan aseguratua zegoen eta kalteak 25.000 edo 30.000 pezetakoak izan ziren. Zezenplaza berria (gaur egun dagoena) egiten hasiak zeuden jadanik. Hormigoiz egiten hasi ziren, eta garai hartan zementuaren portaeraz zalantzak zeuden, material berria zenez[15].

Funes-eko Candido Diaz-ek 1.921.ean bere ganadutegia berritu egin zuen, Santa Coloma-ko konte eta Albaserrada-ko markesaren behi eta zezenak ekarriz. Nafar-kasta kendua zuen

jadanik Diaz–ek bere ganadutegitik[16]. Salamanca–ko Bernabe Cobaleda–k ordea bazituen nafar–zezenak (Espoz y Mina–ko konteari erosiak). Nobillada bat Zaragozan jokatu zen maiatzaren 15ean. Rafael Rubio *Rodalito*, Domingo Correa Montes eta Braulio Lausin *Gitanillo*k toreatu zuten arratsalde hartan[11].

1.921. urtean bestetik, Akitanian Landetako erara korridak urtero bezala ospatu ziren. Barrere ganaduzaleak Giovani zeraman toreatzaileen taldeburu, Ladoues–ek Couralet, Lafitte–k Picard eta Coran–ek Coran berbera (aldi berean ganaduzale eta toreatzaile bait zen). Joseph Malfait toreatzaile famatu izandakoa, 1.921.ean hil zen Begles herrian[17]. *La Course landaise* izeneko aldizkaria ere 1.921.ean argitaratu zen Malfait–en jaioterrian; Mendi Martzana–n alegia[10].

———— o ———— o ————

1.922. urtean Bilboko Vista Alegren zezenak martxoaren 5ean hasi ziren. Juan Conradi–ren lau zezenko toreatu eta hil zituzten Faustino Bigiola *Torkito II.ak* eta Jose Ramirez *Gaonitak*. Apirilaren 2an berriz, J. M. Carreros–en lau zezenko leku berean toreatzen *Joselito* Martin eta Barajas aritu ziren.

Apirilaren 9ko nobilladan, A. Fuentes–en lau zezenko plazaratu zituzten. Pison, Gonzalez, Izquierdo eta Zarandona toreatzaileek parte hartu zuten arratsalde hartan.

1.922. urteko maiatzaren 1ean Bilboko Vista Alegren denboraldiko lehen korrida eman zen. Marcial Lalanda etengabe txalotu zuen jendeak. Ahalmen handia eta belauniko emandako pase asko ikusi zitzaizkion. Diego Markiaran *Fortuna* eta Manuel Granero ez ziren nabarmendu arratsalde hartan. Felix Moreno–ren zezenek kanalean batezbeste 286,6 kilo pisatu zuten.

Maiatzaren 3an, Vicente Martinez–en seme–alaben sei zezen eder eta suhar jokatu ziren Vista Alegren. Marcial Lalanda, Juan Luis de la Rosa eta Manuel Granero ezpatariek lan egin zuten. Marcial Lalanda–ren toreaketa asko gustatu zitzaien bilbotarrei, eta Batzorde antolatzaileak abuztuaren 22, 23 eta 24eko korridetarako kontratatu zuen. Juan Luis de la Rosa ausart ibili zen, baina bere bi zezenek harrapatu egin zuten eta azkenean erizaindegira joan behar izan zuen. Granero–k asmo onak erakustea besterik ez zuen egin. Zezenek batezbeste 294,8 kilo pisatu zuten kanalean.

1.922.eko maiatzaren 7an nobillada ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Sanchez Rico–ren lau zezenko korritu ziren Eleazar Samames–entzat. Maiatzaren 14ean berriz, Manuel Santos–en sei zezenko toreatzen saiatu ziren toreatzaile *nobel*ak.

Maiatzaren 21eko nobilladan, Villagodio–ren lau zezenko toreatu zituzten Domingo Uriarte *Rebonzanito* eta Nicanor Villalta–k. Astebete geroago, maiatzaren 28an, Garrido–ren hiru zezenko eta Juan Terrones–en bi Jose Perez *Joseton*, Plaza eta Guairan toreatzaileek hil zituzten leku berean.

1.922.eko ekainaren 4ean, *Charlot* batzuekin batera alderdi serioan Martin Aguero bilbotarrak Juan Terrones–en bi zezenko hil zituen. Asko gustatu zitzaion jendeari bere lana.

Ekainaren 11ko nobilladan, Cañadahonda–ren hiru zezenko eta Albarran–en bat plazaratu ziren. Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Braulio Lausin *Gitanillo* kontratatu zituzten haiek hiltzeko.

1.922.eko ekainaren 15ean beste nobillada bat ospatu zen Bilboko Vista Alegren.

Salamanca–tik ekarritako Hidalgo anaien sei zezenko toreatzen, Angel Navas *Gallito de Zafra*, Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Rosario Olmos aritu ziren. Algemesi–ko Olmos–ek belarria lortu zuen eta Angel Navas txalotua izan zen. Faustino Bigiolak berriz, ez zuen asmatu arratsalde hartan.

Ekainaren 18an zekorketa bat eman zen Vista Alegren, Avila–ko M. Santos Monje–ren zekorrak korrituta. Ekainaren 25ean berriz, Peña Rico–ren (Albarran–en) lau zezenko toreatu zituzten Montes eta Antonio de la Haba *Zuritok* Bilboko nobilladan.

1.922.eko ekainaren 29an beste nobillada bat ospatu zen Vista Alegren. Salas–eko markesaren lau zezenko eta Sanchez Monja–ren beste bat, Jose Carralafuente, Romero, Roldan, Jose Perez *Josetón* eta Ugarte–k hil zituzten.

Uztailaren 2ko *charlotadaren* ondoren, hil beraren 9an nobillada eman zen Vista Alegren. J.M. Sanchez Carreros–en lau zezenko zail plazaratu ziren, baina Angel Navas *Gallito de Zafra* nahiz Rosario Olmos–ek oztopo guztiak gainditu zituzten. Azken honek belarria irabazi zuen.

1.922.eko uztailaren 10ean Manuel Santos–en lau zekor korritu ziren Bilboko zezenplazan. Uztailaren 30ean emankizun mistoan bi ergi eta hiru zezenko jokatu zituzten Vista Alegren, Ibarretxe, Ustara, Rosario Olmos eta Jose Belmonte toreatzaile zirela.

Abuztuan, hilaren 20an hasi ziren Bilbon ohizko korridak. Lehen egunean Carmen de Federico–ren sei zezen noble plazaratu zituzten; zangartasun handirik gabekoak. Julian Sainz *Saleri II.a*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Juan Luis de la Rosa–k osatu zuten ezpatarien hirukotea. Jose Rodas banderilariak sartutako bi banderila–pare, *Fortunak* bostgarren zezenari sartutako ezpatakada eta Juan Luis de la Rosa–k seigarrenari egindako faena izan ziren gauza aipagarri bakarrak.

1.922.eko abuztuaren 21eko korridan, Mihuraren zezenak toreatzera Julian Sainz *Saleri II.a*, Juan Anlló *Nacional II.a* eta Marcial Lalanda etorri ziren. Mihuraren zezenak satai onekoak eta suhartasunik gabekoak zirenez gero, beste ganaduzale batenak ziruditen. *Saleri II*.ari txistuak jo zizkioten hasieran, bezperan gaizki egon zelako. Lehenengo zezenean ez zuen ezer egin, baina laugarrenean bai. Kapotez beronika dotoreak osatu zituen eta banderilaz nahiz muletaz ere luzitu zen. *Nacional II.a* toreatzaileak bere borondatearen berri eman zuen bigarren zezenean eta azkenean belarri bat eman zioten. Bostgarren zezenean ez zuen ezer egin. Marcial Lalanda hirugarrenean ongi eta seigarrenean gaizki ibili zen. Agian korridako gauzarik onenak Antonio Gallego *Cadenasek* (egiazko mototsa zeraman azken toreatzaileak) sartutako banderila–pareak eta Eduardo Lalanda–k (Marcial–en anaiak) egindako kite bat izan ziren.

Abuztuaren 22an Concha y Sierraren zortzi zezen plazaratu zituzten Luis Freg, Juan Luis de la Rosa, Manuel Garcia *Maera* eta Marcial Lalanda ezpatari zirelarik. Vista Alegren toreatutako zezen haiek, batzuk suharrak eta beste batzuk koldarrak izan ziren. Luis Freg–ek arratsalde txarra izan zuen. Saiatu zen, baina ezer lortu gabe. Juan Luis de la Rosa bere lehenengoan muletaz ongi aritu zen eta altzairuz gaizki. Bere bigarrenean ere ez zuen ezpataz asmatu. *Maera* banderilak sartzen bakarrik nabarmendu zen. Marcial Lalanda–ri berriz, dena ongi atera zitzaion ezpata alde batera utziz gero.

1.922.eko abuztuaren 23an Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Garcia *Maera* eta Marcial Lalanda–k Santa Coloma–ko kontearen zezenekin saiatu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen handi eta eder haiek pikatzaileak lurrera bota zituzten, baina gero geldo eta ahul portatu ziren. *Fortuna* adoretsu eta ausart aritu zen bere lehenengoan, eta oin–hegazka ederki hil zuenez gero, belarria eman zioten. Bere bigarrenean, luzimendurik gabe asko luzatu zen eta lehendakariaren abisu bat entzun

zuen. *Maera*, bezperako porrotaren eraginez, adoretsu eta ausart aritu zen bere lehenengoan, eta ondorioz belarria lortu zuen. Bostgarren zezena bota zuenean ere txaloak entzun zituen. Lalanda-k berriz, jendearen irrikiari ez zion erantzun. Hirugarren zezenean, burutsu baina ausardiarik gabe aritu zen. Seigarrenari hiru banderila-pare ederki sartu zizkion. Bukaeran ordea ezpataz gehiegi luzatu zen.

Abuztuaren 24ean Pablo Romero-ren sei zezen toreatzera Diego Markiaran *Fortuna*, Juan Anlló *Nacional II.a* eta Marcial Lalanda aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen polit haietan *Tormento* izenekoa (hirugarrena) izan zen korrida guztietako onena. Laugarren ateratakoa berriz, erabat koldarra zen. *Fortuna*k bere lehenengoan plazari buelta eman zion. Beste bigarren zezenean txukun aritu zen, baina arrakasta handirik lortu gabe. *Nacional II.a* toreatzaileak, berak asmatutako *zubi tragiko* izeneko pasea osatzerakoan airera bidali zuen zezenak. Ez zen kokildu toreatzaile aragoarra eta azkenean txalo asko jo zioten. Bostgarren zezenean ez zuen ezer egin eta jendea haserretu egin zitzaion. Lalanda zezen batean gaizki egon zen eta bestea trebeziaz toreatu eta hil zuen. Victoria Eugenia erregina ere han izan zen korrida ikusten.

1.922.eko abuztuaren 27an beste korrida bat eman zen Bilbon, Victoria Eugenia erregina ikusle zegoelarik. Korrida hartan, Gamero Civico-ren bost zezen eta Carreros-en bat plazaratu zituzten Luis Freg, Juan Luis de la Rosa eta *Nacional II.a* ezpatarientzat. Luis Freg-ek faena ausart eta txukuna osatu ondoren feriako ezpatakadarik onena sartu zuen. Bigarrenean ere antzeko lana burutu zuen, baina zezenari ahotik odola zeriolako jendea hotz gelditu zitzaion. *Nacional II.a* aragoarrak euritan osatu zuen bere lehen faena ausarta. Bestean labur ibili zen eta azkenean txaloak entzun zituen. Juan Luis de la Rosa ezpatariak (bigarrenak) ez zuen gauza handirik egin. Zazpigarren zezenean ordea, Martin Aguero zezenko-hiltzaile bilbotarrak denak atzean utzi zituen. Kapotez kite ederrak osatu, banderilak ongi sartu, faena laburra osatu eta ezpatakada bikaina sartu ondoren, guztiak txunditurik utzi zituen. Belarria eman zioten eta bizkar gainean atera zuten plazatik.

Irailaren 9an, zekorketa bat eman zen Bilboko Vista Alegren bulegariek antolatuta. Albarran-en lau zekor jokatu ziren. Irailaren 17an Salas-eko markesaren 7 zezenko jokatuta zezenfesta mistoa eman zen Vista Alegren. Valentziar koadrila, Rodriguez, Clemente eta *Charlot* batzuek lan egin zuten.

1.922.eko irailaren 24ean Albarran-en bi zezenko eta Carreros-en bat plazaratu zituzten Vista Alegreko nobilladan. *Panat* toreatzaileak eta Saliné burtzikariak parte hartu zuten.

Urriaren 1ean Bilboko Vista Alegren Palha-ren sei zezenko toreatu zituzten Moreno Zaragoza, Domingo Hernandorena eta Martin Aguero-k. Beste nobillada bat urriaren 29an izan zen leku berean. Cullar-eko markesaren lau zezenko plazaratu zituzten, Maximo Cámara, Saline, *Txopoli* eta Noain-ek.

Azaroaren 5ean beste zezenfesta misto bat eman zen Vista Alegren. Cullar-eko markesaren bi zezenko *Txopoli* eta *Rey de la Fuerza* izenekoek toreatu zituzten. Azaroaren 25ean berriz, markesa beraren beste bi zezenko *Manzanilla*, *Pataterito* eta *Rey de la Fuerza*k[1].

1.922. urtean, Rufino San Bizente *Begoñako txikia* erretiratu egin zen zezenplazatatik eta Diego Markiaran *Fortuna* zen famatuena urte hartan. Bere koadrilan Jose Cantos *Barana* pikatzailea hartu zuen orduan. Baita Alfredo David banderilaria ere.

Dena dela, 1.922.eko maiatzaren 15ean *Fortuna*k Madrilen alternatiba sendotu zion Manuel Garcia *Maera*ri, Esteban Hernandez-en ondorengoen *Verdugo* zezena hiltzeko tresnak Manuel

Jimenez *Chicueloren* aurrean eman zizkionean. Urte hartantxe Madrilen Nicanor Villalta–ri ere sendotu zion alternatiba Emilio Mendez lekuko zelarik. Matias Sanchez–en zezenak jokatu zituzten orduan.

1.922. urtea izan zen *Fortunarentzat* onena. Ameriketan, Venezuelan, sei korridatan parte hartu zuen; lau Caracas–en eta bi Valencia–n. Penintsulan 35 korridatan lan egin zuen.

Joselito Martin–ek 1.922.ean amaitu zuen soldaduska, baina neguan Caracas–en toreatzen egona zen. Denboraldian zehar sei nobilladatan toreatu zuen, haietako bi Madrilen izan zirelarik. Bata martxoaren 5ean Jose Moreno *Morenito de Zaragoza* eta Antonio Sanchez–ekin Lopez Plata–ren ganadua hilez. Bestea irailaren 5ean ospatu zen eta ez zuen arrakastarik lortu[3]. Irailaren 24ean, Irufiean alternatiba hartu zuen Jose Roger *Valenciaren* eskutik. Candido Diaz–en *Señorito* zezena utzi zion Emilio Mendez–en aurrean. Zezen bakarra hil zuen arratsalde hartan, zauritua suertatu zelako[4]. Urte hartan Motril–en beste korrida batean ere lan egin zuen. Gero beste urte batzuetan gutxitan dei egin zioten korridatan torea zezan.

Faustino Bigiola *Torkito II.a* ere toreatzen ari zen 1.922.ean. Otsailaren 19an Madrilen Luis Mera eta Antonio Llamas–ekin Lopez Quijano–ren zezenkoak hil zituen[6].

Martin Aguero–rentzat oso urte ona izan zen 1.922.a. Irailaren 17an Bartzelona–ko *Las Arenasen* aurkeztu zen pikatzaile eta guzti lehen aldiz toreatzera, Zaragozan aurrez arrakasta handia lortu ondoren. Bartzelonan Luis Suarez *Magritas* eta Bitor Bigiola *Torkito III.*arekin Anastasio Martin–en zezenkoak hil zituen. Bartzelonan hiru nobilladatan sekulako fama lortu zuen. Gregorio Yanguas *Zapata* iruindarra orduan sartu zitzaion koadrilara banderilari gisa. Luziano Bilbao *Lunares* banderilari igorretarra berriz Ricardo Anlló *Nacionalen* koadrilan hasi zen lanean.

Martin Etxeandia *Basurtoko mutilarentzat* 1.922.a urte txarra izan zela aitortu behar da. Ekainaren 9an Medina de Rioseco herrian Villagodio–ren zezenko batek buruan adarkatu zuen. Valladolid–eko ospitalean abuztuaren 7an hil zen ezaguera galduta.

Manuel Sagasti bilbotarra berriz, abenduaren 17an Madrilen aurkeztu zen Lopez Plata–ren zezenkoak hiltzera. Enrique Cano *Gavira* eta Jose Carralafuente–rekin toreatu zituen zezenko koldar haiek. Ongi egon zen orduan, baina harez gero ez zuen nabarmentzerik lortu[3].

1.922. urteko uztailaren 22an, Bilboko Errekaldeberri–n Pedro Robredo Alonso jaio zen; gero zezen–hiltzaile izango zena[4].

Rafael Isasa bizkaitarra nobillada bat edo bestetan toreatzen ari zen 1.922. urtean, arrakasta handirik gabe[5]. Andres Ortega *Torerito de Bilbao* izenekoak zorte hobea izan zuen. Madrileko Tetuan–eko plazan Mateos–en zezenkoak hil zituen uztailaren 30ean Julio Garial eta Alfonso Jordan–ekin batera. Ezjakin ikusi zuten bilbotarra eta ez zen harez gero nabarmendu[6].

Iluminado Saenz *Iluminadito* eibartarra 1.922.ean banderilari gisa omen zebilen nobillada apaletan toreatuz. Pedro Basauri eibartarrarentzat ordea oso urte ona izan zen hura. Hogei nobilladatan parte hartu zuen. Azaroaren 20an Bartzelonan berebiziko giroa sortuta plazako jendea erabat bereganatu zuen[3]. Pedro Basauri–k *Pedrucho* izeneko pelikula batean protagonistaren papera antzeztu zuen 1.922.ean. Henri Vorins–en zuzendaritzapean egindako pelikula hartan, egiazko korrrida bateko faena filmatu zuten Bartzelonan, eta hain zuzen espontaneo bat zezenak adarkatu eta hil egin zen. Filmean agertzen da heriotz hori[11].

Azpeitian 1.922. urtean saninaziotan bi nobillada eman ziren Andres Sanchez–en launa zezenko jokatuta. Francisco Peralta *Facultades* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*k parte hartu zuten. *Facultades* lehen egunean txalotua izan zen batean eta bronka entzun zuen bestean. *Rebonzanito*k txaloak batean eta belarria bestean irabazi zituen. Bigarren egunean (abuztuaren 1ean) *Facultades*i txaloak jo zizkioten bere bigarrenean eta Uriarte–ri belarria eman zioten laugarren zezenkoan[8].

Donostian udako korridetan abuztuaren 6koa interesgarria izan zen. Nicanor Villalta–k Txofreko plazan alternatiba hartu bait zuen Luis Freg mexikarraren eskutik. Luis Freg Ricardo Anllό *Nacional*en ordez etorri zen, hura Malagan zauritu zelako. Marcial Lalanda eta Pablo Lalanda izan ziren lekuko Jose Bueno–ren zezenak toreatu ziren aratsalde hartan. *Capotero* izeneko zezena hilez lortu zuen doktoregoa Villalta–k. Urduri eta ezpataz asmatu ezinik ibili zen Villalta aragoarra[12]. Joaquin Manzanares *Mella* banderilariak ere (Villalta–ren koadrilakoak) Donostian lortu zuen orduantxe alternatiba Gabriel Hernandez *Posadero* banderilariaren eskutik. Castulo Martin bilbotarra ere orduan hasi zen Villalta–ren koadrilan banderilari gisa[3].

Arabako Agurain herrian, 1.922. urtean zezenfestak Santa Maria–ko plaza berrian ospatzen ziren. Plaza hura egitea 3.350 pezeta kostatu zitzaien herritarrei[18].

Iruñean 1.922. urtean zezenplaza berria estreinatu zuten sanferminetan. Iruñeko Martinikorena anaiak eta A. Mendizabal donostiarra izan ziren kontratistak. Hormigoiaren portaeraz garai hartan zalantzak zeudelako, kontratistek burdina asko sartuta armatu zuten eta oso eraikuntza sendoa gelditu zen. 13.000 ikuslerentzako lekua zuen plaza berri hark. Uztailaren 7an estreinatu zen eta lehen korridara 8.414 ikusle joan ziren. Errukietxea zen plazaren jabe eta berak antolatu ditu harez gero plaza hartan zezenfestak.

15.2. irudia. 1.922.eko uztailaren 7a. Vicente Martinez–en zezenen entzierroa.

Lehen korridarako, 1.922.eko uztailaren 7rako Colmenar Viejo–tik ekarritako Vicente Martinez–en zezenak entzerratzerakoan arazo bat izan zen plazako sarreran, jendea erorita oztopoa sortu zelako. Ez zen zauritu larririk izan orduan. Dibisa morez plazaratu ziren arratsaldean eta Julian Sainz *Saleri II.a*, Juan Luis de la Rosa eta Marcial Lalanda–k luzimendurik gabe toreatu zituzten[15]. *Baturro* zen lehen zezena eta *Saleri II.*ak hil zuenean txaloak jo zizkioten. Zezenplazan bi musika–banda eta Lizarrako dultzainariek jo zuten. Eguzki aldeko tendidua 21,4 pezeta kostatu zen. Ezpatariak Kintana ostatutik oinez joan ziren plazara eta pikatzaileak *La Bilbaina*tik zaldiz[13].

Uztailaren 8an korrida bat eman zen eta 9an bi; bata goizean probarako eta arratsaldean bestea[19].

Laugarren korridarako entzierrotxoan, gazte batek kapote beltzez dei egin zuen eta zezen batek hesiak saltatuta ihes egin zuen, Errota Zaharraren inguruan. Arga ibaiaren ertzean ibili zen eta zorionez ez zuen inor zauritu. Candido Diaz–en Agustin unanmaizterrak zaldizko eta joaldun batzuen laguntzaz, goizeko ordubietan zuzenean eraman zuen zezen hura plazako ikuiluetara. Goizeko zazpietan, bost zezen korritu ziren entzierroan gero[14].

1.922. urtean Ernest Hemingway–k korrida zer zen ikusi zuen lehen aldiz, eta harez gero maiz etorriko zen Iruñera sanferminetako festetara[20].

Lizarran, 1.922.eko maiatzaren 14ean nobillada eman zen eta bertan Caspe–ko Jose Salas aragoarrak lehen aldiz jantzi zuen traje distiratsua[3]. Tafalla–n, eta ekainaren 29an San Pedro egunez, gauza bera egin zuen Candido Tiebas tafallarrak. Inguruko ganadutegi bateko bi zezenko toreatu zituen, Zaragozako Francisco Royo *Lagartito* kartelkide zelarik[21].

Nicanor Villa *Villita*, nafar–kastako ganadutegi baten jabe zen, Gota–ren alargunari eta Candido Diaz–i abereak erosi zizkielako. 1.922. urterako Mihura, Concha y Sierra eta Graciliano Perez Tabernero–ren ganadua nahastua zuen eta aipatutako urtean Carreros eta Coquilla–ren behiak gehitu zituen. Hala ere nafar–kastaren ezuagarriak zituzten abereak ateratzen zitzaizkion[22].

Akitanian beti bezala egin ziren korridak 1.922. urtean behiak Landetako erara toreatuz. Barrere, Ladoues, Coran eta Lafitte izan ziren toreatzaile–koadrila erabili zuten ganaduzaleak. *Mazantini*, Despouys II.a, Coran eta Pontois ziren hurrenez hurren taldeburu urte hartan[17].

———— o ———— o ————

1.923. urtean Bilboko Vista Alegren nobilladak apirilaren 15ean hasi ziren. Rafael Surga–ren zezenkoak hiltzeko Jose Garcia Carranza *Algabeño*, Martin Aguero eta Gimenez kontratatu zituzten.

Apirilaren 19an, Bilboko ikasleek lau zekor toreatuz zekorketa eman zuten Vista Alegren.

1.923. urteko maiatzaren 2an Felix Moreno–ren zezenak plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren Julian Saiz *Saleri II.a*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Marcial Lalanda–k hil zitzaten. Zezen suhar haiekin hiru ezpatariek ez zuten lanerako joera eta adore handirik agertu. Aspertu egin ziren beraz ikusleak. *Fortuna*k 6.000 pezeta kobratu zituen korrida hartan. Zezen bakoitzaren okelagatik 650 pezeta jaso ziren.

Maiatzaren 5ean leku berean Manuel Santos–en sei zezenko jokatu zituzten Vista Alegren, toreatzaile *nobel*ak ezpatari zirela. Emeterio Arreba–k egin zuen lanik onena arratsalde hartan.

1.923.eko maiatzaren 10ean nobillada mistoan ere M. Santos–en sei zezenko plazaratu ziren, Jose Maria Perez, Emeterio Arreba eta *Charlot* batzuek lan egin zezaten.

Maiatzaren 13ko nobilladan, Murube–ren zezenkoak toreatzen Antonio de la Haba *Zurito*, Jose Garcia Carranza *Algabeño* eta Martin Aguero aritu ziren. Murube–ren ganadua noble eta suhar portatu zenez gero (lehen eta hirugarrena batez ere) ongi toreatzeko aukera izan zuten ezpatariek. *Zurito*k ez zituen ordea baldintza haiek aprobetxatu eta jendeak arabera erantzun zion. *Algabeño*k, jendeak batekoz bestera uste bazuen ere, fin eta dotore toreatu zuen eta ezpataz asmatu ezinik ibili zen bere lehenengoan. Bere bigarrenean ezpataz ere hobeto asmatu zuen. Dena dela, Martin Aguero bilbotarra izan zen arrakastarik handiena lortu zuena. Bere lehenengoari egindako faenan, pase natural eta bular–pase batzuk bikainak izan ziren benetan. Ezpata lehenengoan osoa eta goi–goian sartu zuenez gero, belarria eman zioten. Martin Aguero maila onera heltzen ari zen bai toreatzaile eta bai ezpatari gisa.

Maiatzaren 20ko nobilladan, Pablo Romero–ren zezenkoak plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren, Angel Navas *Gallito de Zafra*, Jose Carralafuente eta Rafael Millet *Trinitario* toreatzaileentzat. Biharamunean, zekorketa izan zen leku berean M. Santos–en ganadua korrituz.

1.923.eko maiatzaren 27an nobillada eman zen Vista Alegren. Mihuraren zezenkoak toreatzen Jose Carralafuente eta Jose Moreno *Morenito de Zaragoza* aritu ziren.

Maiatzaren 31n, M. Santos–en sei zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren toreatzaile *nobel*entzat. Ekainaren 3an ere bai beste sei ganaduzale berarenak. Jose Maria Perez eta Montes–ekin batera *Charlot* aragoarrak aritu ziren lanean.

Ekainaren 10eko nobilladan, Graciliano Perez Tabernero–ren sei zezenko toreatzera Luis Fuentes Bejarano eta Jose Belmonte toreatzaileak ekarri zituzten. Ekainaren 17ko nobilladan berriz, Andres Sanchez Coquilla–ren seme–alaben sei zezenko toreatzera Garrido, *Pepete* eta Martin Aguero etorri ziren Bilboko Vista Alegrera.

1.923.eko ekainaren 24ean eman zen Bilbon hurrengo nobillada. Abdon Garcia–ren sei zezenko toreatu eta hil zituzten orduan Jaime Noain, Emeterio Arreba eta Manuel Montero bilbotarrek. Zezenko koldar eta itsusi haiekin toreatzaile gazte haiek ez ziren luzitu.

Ekainaren 29an berriz ere Abdon Garcia–ren sei zezenko jokatu zituzten Vista Alegren. *Pataterito*, *Gonzalito* eta Enrique Bartolomé zaragozarra izan ziren toreatzaileak.

Uztailaren 1ean berriz ere nobillada eman zen Bilboko Vista Alegren. Andres Sanchez Coquilla–ren seme–alaben sei zezenko toreatu eta hil zituzten Jaime Noain, Manuel Montero eta Enrique Bartolomé–k.

1.923.eko uztailaren 8an urteko bigarren korrida eman zen Bilboko Vista Alegren Kazetari–Elkarteak antolatuta. Matias Sanchez, Trespalacios–en sei zezenek idiak ziruditen; bai itxuraz eta bai portaeraz, hirugarrenak ezik. Serafin Bigiola *Torkito*, Manuel Garcia *Maera* eta Jose Garcia Carranza *Algabeño* izan ziren ezpatariak. *Torkito* bere lehenengoan zezenaren maila baino gorago aritu zen eta bigarrenean ere bai, nahiz eta etsaiak adarkada arriskutsuak bota. *Maera* bere lehenengoan ausart eta efektista ibili zen txaloak entzunez. Bere bigarrenean ere txukun egin zuen lana. *Algabeño*ri suertatu zitzaizkion zezenik onenak, baina toreatzaileak berak ez zuen asmatu.

Uztailaren 15eko nobilladan, Ildelfonso Sanchez Rico–ren sei zezenko toreatzen Jaime Noain, Manuel Montero eta Enrique Bartolome aritu ziren Vista Alegren. Uztailaren 22an ere leku berean beste nobillada bat eman zen Manuel Santos–en sei zezenko jokatuz. Emeterio Arreba, Manuel Montero eta Enrique Bartolomé izan ziren toreatzaileak. Nobillada ez zen amaitu ordea. Izan ere hirugarren zezenkoan jendea ganaduagatik protestaka hasi eta emanaldia bertan behera utzi beharra egon zen. Juan G. Larrinaga enpresariak gainera, sarreren balioa jendeari itzuli egin behar izan zion.

1.923.eko uztailaren 22an, ganadu–hiltzaileek antolatuta zekorketa ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Manuel Santos–en lau zekor plazaratu zituzten.

Abuztuko 19an urteroko ohizko korridak emateari ekin zitzaion Bilbon. Lehen korrida hartan Carmen de Federico–ren sei zezen toreatzera Diego Markiaran *Fortuna*, Nicanor Villalta eta Manuel Jimenez *Chicuelo* etorri ziren. Satai oneko zezenak aurkeztu zituen ganaduzaleak. Lauk gainera portaera ona erakutsi zuten. *Chicuelo*ri jendeak txistuak jo zizkion lehenengoan. Laugarrenean berriz, faena aspergarri samarra burutu ondoren ezpata aurrean sartu zuen. Villalta dotore aritu zen bigarren zezenean eta, nahiz eta ezpataz ongi hil ez, belarria eman zioten. Bestean ez zen nabarmendu. *Fortuna* adorerik gabe ikusi zuen jendeak eta arratsalde hartan ez zuen ezer egin. Zezenek kanalean batezbeste 326,5 kilo pisatu zuten.

1.923.eko abuztuaren 20ko korridan, Mihuraren zezenak jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Diego Markiaran *Fortuna*, Marcial Lalanda eta Manuel Jimenez *Chicuelo*k parte hartu zuten. Arriskurik gabeko zezen haiekin *Chicuelo* adoretsu eta dotore aritu zen bere bi zezenetan, ezpataz legea betetzea besterik egin ez bazuen ere. *Fortuna*ri ezpatakada batean bakarrik jo zizkioten txaloak. Gainerakoan ez berak eta ez Lalanda–k, ez zuten ezer azpimarragarririk egin. *Chicuelo*, bezperan bezalaxe *Algabeño*ren ordez etorri zen Bilbora, eta Lalanda, Victoriano Roger *Valencia II.*aren ordez, Donostiako Txofren zauritu zelako. Zezenek batezbeste 345 kilo pisatu zuten kanalean.

Abuztuaren 21eko korridan, Diego Markiaran *Fortuna*, Marcial Lalanda eta Nicanor Villalta–k hil zituzten Concha y Sierra–ren zezenak Bilboko Vista Alegren. Zezen iheskor eta ahulak suertatu zitzaizkien. *Fortuna* ausart eta adoretsu ibili zen, bezperan ez bezala, baina alferrik. Villalta–k legea bete zuen eta Lalanda–k bere bigarrenean zertxobait berotu zuen giroa belauniko emandako bere paseak medio. Zezena hiltzerakoan Lalanda aireratua izan zen, baina zauririk gabe etxeratu zen.

1.923.eko abuztuaren 22an Pablo Romero–ren sei zezen toreatu zituzten Victoriano Roger *Valencia II.a*, Marcial Lalanda eta Nicanor Villalta–k. Biharamunean, abuztuaren 23an, Santa Coloma–ko kontearen zezenak *Fortuna*, Lalanda eta *Chicuelo*k hil zituzten. Zezen eder, suhar eta nobleak izan ziren haiek; *Pastueño* izeneko lehenengoa batez ere. *Fortuna*k zezen honetan lana ongi egin zuen, baina ez zen zezenaren mailara iritsi. Laugarrenean bai ordea, eta oin–hegazka ederki hil zuenez gero, belarria paseatuz ibili zen plazan. *Chicuelo*k lortu zuen bere lehenengoan arrakastarik handiena. Zezena menperatuz dotore eta artista aritu zen kapote, banderila, muleta nahiz ezpataz. Bi belarri eman zizkioten. Seigarren zezenean gorabeherak izan zituen eta jendea isilik gelditu zitzaion. Lalanda–ren lana ere tajuzkoa izan zen; jakintsu eta egoki jokatu bait zuen. 293 kilo pisatu zuten zezenek batezbeste.

Abuztuaren 26an ospatu zen Bilboko Vista Alegren 1.923.eko azken korrida. Gamero Civico–ren sei zezen hiltzera Victoriano Roger *Valencia II.a*, Marcial Lalanda eta Manuel Jimenez *Chicuelo* aurkeztu ziren. Marcial Lalanda–k bere lehenengoan ez zuen asmatu, baina bigarrenean

bai. Zezena erabat menperatuta burutsu osatu zituen pase dotoreak. Ongi hil zuenez gero, belarria eman zioten. *Chicuelo*k ez zuen asmatu bere bi zezenetan eta jendearen txistuak entzun zituen. *Valencia II.*ak (lehen ezpatariak), ez zuen gauza onik egin arratsalde hartan eta horregatik ikusleek txistuak jo zizkioten. Jose Rodas eta *Maera*k bostgarren zezenari sartutako lau banderila–pare izan ziren arratsaldeko gauzarik azpimarragarrienak. Zezenen pisua, 289 kilo batezbeste kanalean[1].

Diego Markiaran *Fortuna*k 1.923. urtean hogeiren bat korrida toreatu zituen, eta udazkenean Mexiko–ra joan zen, han ere beste batzuetan parte hartuz. Orduan hasi zen sestaoarra gainbehera bere lanean.

Martin Aguero bilbotarra ordea, gora zihoan 1.923.ean. Ekainaren 24ean Madrilen aurkeztu zen Jose Belmonte eta Jose Paradas–ekin batera Hernandez–en ondorengoen zezenkoak toreatzera. Nahiz eta zezenko zailak izan, arrakasta lortu zuen eta bere mailan toreatzailerik onena zen[4]. Abuztuaren 27an ere toreatu zuen Aguero bilbotarrak. Antonio de la Haba *Zurito* eta Manuel Baez *Litri*rekin batera Coquilla–ren zezenkoak hil zituen. Felix Rodriguez–ekin batera ere lan egin zuen 1.923.ean Martin Aguero–k.

Domingo Hernandorena bilbotarra ere 1.923.ean Madrilen toreatzen aritu zen, Carabanchel–eko plazan. Bere ausardiagatik txalotua izan zen. Hiruzpalau nobilladatan parte hartzen zuen urtean.

Francisco Alonso *Paquiro*, gaztetan urte askoan Bilbon bizi eta Mexiko–ra joandako zezenko–hiltzailea, elbarritu egin zen 1.923.ean[3]. Martin Etxaniz *Basurto* eta Luis Etxaniz *Currinche* toreatzaile bizkaitarrek nobillada apaletan parte hartzen zuten garai hartan, Fermin Ibañez *Ballesteros III.a*, Ramon Usobiaga *Arrati* eta Andres Uriarte–k bezalaxe[6].

1.923. urtean bestetik, Bitorio Anasagasti donostiarrak *Los ojos del toro* izeneko liburua argitaratu zuen[10]. Donostian berriz, 1.923. urtean Martuteneko plaza estalia erabat itxi egin zuten.

Txofre–ko plazan dena dela, uztailaren 29an Jose Paradas madrildarrak alternatiba hartu zuen Julian Sainz *Saleri II.*aren eskutik Juan Anlló *Nacional II.a* lekuko zelarik. Vicente Martinez–en ondorengoek bidalitako zezenak korritu zituzten. Arratsalde hartan zezenen mailarik ez zuten eman toreatzaileek. *Saleri II.a* eta *Nacional II.*ak ezer gutxi egin bazuten ere, Paradas–ek ezer ere ez. Hirugarren zezenean *Listones* izeneko gazte bat agertu zen hondarrean toreatu nahian[12].

Azpeitiko saninaziotan 1.923. urtean bi nobillada izan ziren; uztailaren 31n bata eta abenduaren 1ean bestea. Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo* eta Martin Aguero–k Rafael Lamamie de Clairac–en zezenkoak hil zituzten. Lehen nobilladan eibartarra txalotua izan zen bere bi zezenkoetan. Bilbotarrari ordea bigarrenean jendea isilik gelditu zitzaion. Bigarren nobilladan Basauri–ren bigarren zezenkoan bakarrik jo zituen txaloak jendeak. Aguero–ri txistuak ere jo zizkioten[8]. *Pedrutxo*k zezenko bat Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarrari brindatu zion. Zuloaga–k bukaeran bere etxera gonbidatu zuen Pedro Basauri, atseginen zitzaion koadroa beretzat har zezan. *Pedrutxo*k ordea ez zion gonbiteari jaramonik egin. Beste behin Bogota–n aberats batek esmeralda batzuk eman nahi izan zizkion zezena brindatzeagatik, baina eibartarrak ez zizkion hartu bere adiskidetasunaz nahikoa zuela esanez.

Pedro Basauri–k geroxeago, irailaren 2an, Donostiako Txofren alternatiba hartu zuen. Lehenbizi Antonio Cañero burtzikari cordobar famatuak Graciliano Perez Tabernero–ren bi zezen toreatu eta hil zituen zaldiz. Ondoren Julian Saiz *Saleri II.a*, Enrique Cano *Gavira* eta Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*ren txanda izan zen. Eibartar asko zegoen plazan arratsalde hartan.

Graciliano Perez Tabernero–ren zezena plazaratu zenean, euria hasi zuen. Kiteak hiru ezpatariek egin zituzten, eta gero *Pedrutxo*k banderila–pare bat sartu zion zezenari txalo artean. *Saleri II.*ak muleta eta ezpata utzi zizkion gero eibartarrari. *Pedrutxo*k pase dotore batzuk osatu zituen bere faena txukunean eta ezpata sartu zionean txalo ugari entzun zuen.

*Gavira*k egin zizkion toreaketa–lanak bigarren zezenari euritan. Faena laburraren ondoren ezpata sartu zionean, korrida bertan behera gelditu zen[12].

Zipriano Loidi toreatzailea, 25 urte lehenago Arrasate–ko Garagartza auzoan jaioa zen Akixo baserrian. 1.923. urtean ordea, Garagartza–n bertan toreatu zuen. Durango, Bilbo, Santander eta abarretan ere toreatzen aritu zen arrasatearra, beti ere maila apalean[23]. Jose del Oro berriz, Donostian bizi zen eta inguruko nobilladatan toreatzen zuen[6].

Abuztuaren 5ean, Gasteiz–eko plazan Victoriano Roger *Valencia II.*ak alternatiba eman zion Luis Fuentes Bejarano–ri Jose Garcia *Algabeño*ren aurrean. San Fernando–ko (Salamanca) Antonio Perez–en zezenak korritu ziren orduan. Bejarano doktore berria ez zen nabarmendu arratsalde hartan[3].

Iruñean, 1.923.eko sanferminetarako atera zuten kartelak honela zioen:

– Uztailak 7: Felix Moreno-ren (lehen Saltillo-ren) sei zezen, Luis Freg, Antonio Marquez eta Nicanor Villalta–rentzat.
– Uztailak 8: Vicente Martinez–en ondorengoen sei zezen, Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta *Joselito* Martin–entzat.
– Uztailak 9: Villagodio–ko markesaren alargunaren lau zezen, Manuel Garcia Lopez *Maera*, Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta *Joselito* Martin–entzat.
– Uztailak 10: Antonio Perez–en (Tabernero–ren) sei zezen *Maera*, Braulio Lausin *Gitanillo de Ricla* eta Jose Garcia *Algabeño*rentzat.
– Uztailak 11: Francisco Villar–en sei zezen *Maera*, Rosario Olmos eta *Algabeño*rentzat.

1.923. urtean Ernest Hemingway lehen aldiz etorri zen Iruñera sanferminak ikustera, Toronto–ko *Star* aldizkarira erreportaia bat bidaltzeko asmoz[13]. Nafarroako hiriburuan 35.000 biztanle zeuden garai hartan eta sanferminetara erdaldun gutxi joan ohi zen orduan. Ingelesez hitz egiten zekitenak Hemingway eta bere lagunak bakarrik ziren.

Uztailaren 10 eta 11ko korridak atzeratu egin zituzten euri asko egin zuelako. Lurrikara ere izan zen uztailaren 10eko arratsaldean. Uztailaren 12ko korrida izan zen onena; Perez Tabernero–ren zezenak *Maera, Gitanillo de Ricla* eta *Algabeño*k toreatu zituztenekoa.

Ernest Hemingway–ri ordea, uztailaren 13koa gustatu zitzaion gehiena. Francisco Villar–en zezen suhar eta maltzurrak toreatu zituzten orduan *Maera*, Rosario Olmos eta *Algabeño*k. Korrida hartan Olmos adarkatua izan zen. Hirugarren zezenak, Jose Bazan banderilariari izterrean sartu zion adarra. Manuel Aguilar *Rerre* banderilaria laguntzera joan zitzaion, eta hura ere zauritu egin zuen zezenak. Korrida hartan zazpi zaldi hil ziutzten zezenek plazan, eta *Algabeño*k bost zezen hil behar izan zituen.

Ernest Hemingway idazleak, korrida hura deskribatuz artikulua egin zuen[24].

Iruñean bestetik, 1.923. urtean Leon izeneko ijito bat jaio zen eta gero Nafarroako plazatan maila apaleko nobilladatan lan egin zuen[6].

Akitanian 1.923.ean, urtero bezala ganaduzaleak beren toreatzaile–koadrilekin herriz herri ibili ziren Landetako erara korridak antolatuz. Barrere, Ladoues, Coran eta Lafitte ganaduzaleek Giovani, Couralet, Coran eta *Mazantini* izan zituzten urte hartan taldeburu. Giovani gainera, Manciet–en hil zen bertako korridan zaurituta[17].

15.3. irudia. Giovani, toreatzaile landetarra; Manciet–en 1.923.ean hila.

1.923. urtean dena den, Madrileko gobernazio–ministrariak (Almodovar–eko dukeak) zezenetarako arautegi bat argitaratu zuen. Lehenengo aldiz zezenen pisu minimoa arautzen zuen. Urritik apirila arte korritutako zezenek 545 kilo pisatu behar zituzten eta 570 kilo gainerako hilabeteetan. Lehen mailako plazetan (Bilbo eta Donostiakoan besteak beste) zezenak bizirik pisatu behar ziren, eta gainerakoetan kanalean. Kanalean %52,5 pisatu behar zuten gutxienez, %5 gorabehera.

Korridako lehendakariak aholkulari tekniko bat ere edukiko zuen ondoan.

Lau aldiz pikatu behar zen zezen bakoitza, salbuespenak egin zitezkeelarik. Barreratik bost edo zazpi metrora zirkunferentzia bat ere markatu behar zen eta pikatzaileek bazterrean ibili behar zuten marra pasatu gabe.

Gisa honetako arauak argitaratu ziren 1.923. urteko arautegian[7].

———— o ———— o ————

1.924.eko zezenfestak martxoaren 9an hasi ziren Bilbon. Diego Zaballos madrildarraren sei zezenko toreatu zituzten Enrique Bartolome, Candido Tiebas *Obispo* eta *Sanjose*k. Enrique Bartolomé bakarrik izan zen txalotua pikatzailerik gabeko nobillada hartan.

Martxoaren 16ko nobilladan ere Zaballos–en zezenkoak jokatu ziren Vista Alegren. Enrique Bartolomé, Lopez eta Manuel Montero–k hil zituzten.

1.924.eko martxoaren 19an, Garrido Santamariaren zezenkoak toreatzera Jose Belmonte, Marto eta Jose Maria Perez aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Martxoaren 23an berriz, Enrique Bartolome, Candido Tiebas *Obispo* eta Manuel Montero bilbotarra etorri ziren, J. M. Garcia–ren (lehen Arribas–en) ganadua toreatzera. Zezenko suhar haiekin, *Obispo* tafallarrak belarria lortu zuen.

Apirilaren 6an izan zen Vista Alegren hurrengo nobillada. Diego Zaballos–en zezenkoak plazaratu ziren Jaime Noain, Mariano Lopez eta Manuel Montero ezpatari zirelarik.

Apirilaren 13ko nobilladan Lamamie de Clairac–en zezenkoak toreatuz lan egin zuten Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Manuel Martinez eta Francisco Prieto–k. Apirilaren 20ko nobilladan berriz Gabriel Gonzalez–en ganadua Manuel Sagasti, Rodriguez eta Candido Tiebas *Obispo*k.

Apirilaren 27ko nobilladan, Diego Zaballos–en zezenkoak plazaratu zituzten Vista Alegren. Luis Izquierdo, Mariano Lopez eta Etxebarria izan ziren ezpatariak. Maiatzeko korridatarako zezenak ere erakutsi ziren plazan.

1.924.eko maiatzaren 2an, Tabernero–ren sei zezen korritu ziren Bilbon. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Marcial Lalanda eta Jose Garcia *Algabeño* ezpatariek toreatu eta hil zituzten. Bi egun geroago, maiatzaren 4ean, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Manuel Garcia *Maera* eta Marcial Lalanda–k Felix Moreno–ren zezenak toreatu zituzten.

Maiatzaren 11n nobillada mistoa izan zen Vista Alegren. Manuel Santos–en lau zezenko toreatzen aritu ziren Luis Izquierdo eta *Charlot* batzuk. Astebete geroago, maiatzaren 18an Manuel Santos–en sei zezenkorekin toreatzaile *nobel*ak saiatu ziren Bilboko Vista Alegren.

1.924.eko maiatzaren 25ean Juan Bautista Conradi sevillarraren zezenak plazaratu zituzten. Manuel Martinez, Francisco Tamarit, *Chaves* eta Felix Rodriguez–ek lan egin zuten arratsalde hartan.

Ekainaren 2an Bilbon beste korrida bat eman zen. Felipe Montoya–ren zezen txiki eta suharrak jokatu ziren. Batetik Antonio Cañero burtzikariak parte hartu zuen, bere maisutasunaren berri emanez. Gero Serafin Bigiola *Torkito* eta Rosario Olmos–en txanda izan zen. *Torkito*k bere bigarrenean belarria lortu zuen, eta Olmos–ek ere bai bere toreaketa ikusgarriari esker.

1.924.eko ekainaren 8ko nobilladan Juan Terrones–en zezenkoak toreatu ziren Vista Alegren. Eduardo Perez *Bogotá*, Francisco Prieto eta Francisco Royo *Lagartito* ezpatariek hil

zituzten. Lehen eta azkenekoarena ezik, zezenkoen portaera ona izan zen. *Bogotak* belarri bat lortu zuen eta Royo belchitetarrari txaloak jo zizkioten.

Ekainaren 15ean beste nobillada bat izan zen leku berean. Victorino Angoso–ren zezenkoak Bitor Bigiola *Torkito III.a*, Eduardo Perez *Bogotá* eta Martin Aguero–k toreatu zituzten.

1.924.eko ekainaren 19ko nobilladan J.M. Garciaren bi zezenko eta Sanchez Rico–ren beste bi jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Domingo Hernandorena, Felix Rodriguez eta Manuel Montero–k lan egin zuten.

Ekainaren 29an, *nobel*entzako aukera izan zen Vista Alegreko nobilladan. Manuel Santos–en zezenkoak korritu ziren orduan[1]. Jose Balsa toreatzaile gaztea zauritu egin zen[5].

Uztailaren 6an berriz, Bilbon beste korrida bat ospatu zen. Zamora–ko Angel Rivas–en zezenekin Domingo Gonzalez *Dominguin*, Jose Roger *Valencia* eta Domingo Uriarte *Rebonzanito*k parte hartu zuten. Uriarte sestaoarrak alternatiba hartu zuen arratsalde hartan Vista Alegren. Korrida hartantxe erretiratu zen gainera[1]. Korrida hartan plaza beterik zegoen eta alternatiba, erretiroa eta sestaoarrarentzako diru–laguntza biltzea berekin zituen ikuskizun hark. *Dominguin*ek lehen zezena utzi zion Uriarteri ohi bezala. Seigarren zezena ez zuen ordea sestaoarrak toreatu; beste alternatibatan ez bezala *Valenciari* utzi bait zion hark hil zezan. Uriarte oso txalotua izan zen eta bizkar gainean eraman zuten. Arrosa eta urrez jantzia ibili zen arratsalde hartan[4].

Uztailaren 13an Francisco Soler–en bi zezenko toreatzen *Pataterito* eta *Charlot* madrildarrak aritu ziren Bilboko Vista Alegren.

Gero abuztuaren 17an ohizko korridei hasiera eman zitzaien. Lehenengoan Carmen de Federico–ren zezenak jokatu zituzten eta Manuel Jimenez *Chicuelo*, Manuel Garcia *Maera* eta Jose Garcia Carranza *Algabeño* izan ziren aurkeztutako ezpatariak. Bigarren zezena ezik, gainerakoak geldo eta ahulak suertatu zitzaizkien. *Chicuelo* eta *Maera* dena dela, zezenen maila eskasera ere ez ziren iritsi ordea. *Algabeño*k hirugarren zezenean kapote eta muletaz egindako lana izan zen luzimenduzko gauza bakarra. Jendeak txistuak jo zituen eta ez zen gustora atera plazatik.

1.924.eko abuztuaren 18ko korridan Mihuraren zezenak jokatu ziren. Antonio Marquez, Marcial Lalanda eta *Algabeño*k izan zuten haiek hiltzeko ardura. Lalanda eta *Algabeño* arratsalde hartan ez ziren luzitu eta jendeak txistuak jo zizkien. Marquez–ek lehen zezenean ordea ausart jokatu zuen. Bere trebeziari esker faenan natural onak osatu zituen. Azkenean belarria eman zioten.

Abuztuaren 19an Vicente Martinez–en zezenak toreatu zituzten Vista Alegren *Chicuelo*, Marquez, Lalanda eta *Algabeño*k. Laugarrena ezik, gainerakoak zezen txiki eta koldarrak izan ziren. Marquez–ek ez zuen ezer egin. *Algabeño*k bere lehen zezenari osatutako faena azpimarragarria izan zen. Baita bere bigarrenari emandako ezpatakada ere. *Chicuelo* goardiak alboan zituela atera zen plazatik eta Lalanda toriletako atetik.

Abuztuaren 20ko korrida–n Manuel Garcia *Maera*, Marcial Lalanda eta Jose Garcia Carranza *Algabeño*k parte hartu zuten Santa Coloma–ko kontearen zezenak toreatuz. *Maera*k lehen zezenari ezpata askotan sartu zion eta hil ezinik ibili zenez gero, jendeak bere bronka armatu zuen. Bere bigarrenari ere ez zion ezer onik egin. Behean sartutako ezpatakadaz bota zuenean jendea are eta haserreago zegoen. *Algabeño* asko saiatu zen bere lehenengoan eta luzimendurik ere lortu zuen bere faenan, baina ikusleak haserreturik zeudenez gero, txalotxo batzuk besterik ez zizkioten jo.

Marcial Lalanda–rekin ordea, ikaragarria armatu zen plazan. Lehen zezena brindatu zuenean batzuk hasi zitzaizkion makilak eskuan zituztela mehatxuka. Lalanda gainera zezen hura hil ezinik ibili zen eta jendearen oihuak ez ziren badaezpadakoak. Bostgarrenean berriz, are eta ikaragarriagoa armatu zen. Ez ongi toreatu eta ez ongi hil zuen eta jendea gauzak tiraka hasi zitzaion. Lalanda barrera aldera zetorrela, bere koadrilako Fidel Rosalem *Rasalito* banderilariak ezpata eskuan hartu eta mehatxu egin zion jendeari. Berebizikoa armatu zen orduan. Eduardo Sotes zinegotzia zegoen orduan lehendakari eta dei egin zien Lalanda eta *Rosalito*ri. *Rosalito* goardiek eraman zuten eta Marcial Lalanda maisua toriletako parean belauniko jarri zitzaion lehendakariari. Lalanda uztailaren 13an Madrilen adarkatua izan zen eta artean erabat osatu gabe zebilen dirudienez. Gobernadore zibilak eskandalu haren berri izan zuen eta bere neurriak hartu zituen gaizkileak zigortu asmoz[1]. Gero hotelean Lalanda–k bere zapatilak eskatu eta astindu egin omen zituen, Bilbotik hautsa ere ez zuela eraman nahi esanez[2].

1.924.eko abuztuaren 21ean emandako korridan, Pablo Romero–ren sei zezen toreatzera Serafin Bigiola *Torkito*, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Manuel Garcia *Maera* aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren. Zezen ahul samarrak, baina nobleak atera zitzaizkien batezbeste. Bigiola adoretsu eta alai hasi bazen ere, azkenerako zezenaren geldotasunak agindu zuen eta jendea isilik gelditu zitzaion. Laugarren zezenean, kite gozo eta dotore bat egin ondoren, faena ausarta osatu zuen. *Chicuelo*, bere lehen faena amaitu zuenean, jendeak botatako gauzen artean erretiratu zen. Bere bigarren zezenean ordea, bere alaitasun eta dotoreziari esker jendea bereganatu egin zuen. *Maera*ri txalo batzuk jo zizkioten bere lehenengoan, baina ezer asko egin gabe amaitu zituen lanak.

Abuztuaren 24ean Concha y Sierra–ren zezenak jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Marcial Lalanda–k Vicente San Sebastian medikuaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen, bere depresio–egoeragatik ezin zuela toreatu esanez. Serafin Bigiola *Torkito* eta Manuel Jimenez *Chicuelo* ezpatariek bakarrik lan egin zuten orduan. Horregatik Serafin–ek 1.500 pezeta gehiago kobratu zituen eta *Chicuelo*k 2.000 pezeta gehiago. Luis Suarez *Magritas* izan zen ordezko ezpataria.

Zezen geldo eta ahulak atera zitzaizkien. Gaitzak jota zeudelako agian. *Torkito* dotore ibili zen kapotez eta muletaz. Zezen bat ongi hil zuen gainera eta belarria eman zioten. *Chicuelo* berriz, arratsalde osoan adorerik gabe ibili zen eta jendea isilik gelditu zitzaion.

1.924.eko abuztuaren 31n nobillada ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Segundo Abelardo Garcia Resinas avilatarraren zezenkoak toreatu zituzten Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta Eduardo Perez *Bogotá* toreatzaileek. Ezkerdo burtzikariak ere parte hartu zuen.

Irailaren 7an, korrida eman zen Vista Alegren Conde de la Corte–ren zezenak jokatuz. Jose Roger *Valencia I.a*, Antonio Posadas eta Martin Aguero bilbotarra aritu ziren lanean. Roger eta Posadas–i txaloak jo zizkioten, eta Martin Aguero–k belarri bat lortu zuen.

Irailaren 14ean Felipe Montoya–ren bi zezen eta Jose Maria Garcia–ren beste lau plazaratu ziren Bilboko Vista Alegren. Montoya–ren bi zezenak, Antonio Cañero–k burtzikatu zituenak, geldoak izan ziren. Beste lauen portaera ere badaezpadakoa izan zen, eta ondorioz *Joselito* Martin eta Rosario Olmos ezpatariena ere bai.

Irailaren 21ean, Manuel Santos–en sei zezenko plazaratu zituzten Vista Alegren, Antonio Labrador *Pinturas*, Rafael Saco *Cantimplas* eta Joan Markiaran *Fortuna chico* toreatzaileentzat.

1.924.eko irailaren 28an, Manuel Santos–en beste sei zezenko toreatzen *Charlot* batzuk,

Verdejo eta Zarandona aritu ziren leku berean.

Urriaren 5ean beste nobillada bat eman zen Bilbon. Jose Maria Garcia, Felipe Montoya eta Peña Rico ganaduzaleen bina zezenko toreatu zituzten Francisco Royo *Lagartijo*, Manuel Fernandez *Rubito de Sevilla* eta Ezkerdo burtzikariak.

Urriaren 12ko nobilladan Maximino Hidalgo-ren seme-alaben zezenkoak plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren. Enrique Bartolomé, Izquierdo eta Manuel Montero toreatzaileek lan egin zuten. Zezen koldar haiekin Enrique Bartolomé-k lan bikaina burutu zuen eta txalotua izan zen.

1.924.eko urriaren 26an izan zen Vista Alegren urteko azken nobillada. Jose Maria Garcia-ren lau zezenko hil ziutzten orduan Enrique Bartolome eta Jaime Noain-ek.

Abenduaren 18an, Villagodio-ko bost zekor toreatu zituzten Vista Alegren Martin Aguero, Jaime Noain, Etxebarria, Aburto eta J.M. Eskauriaza-k. Zekorketa haren bidez amaitu ziren Bilbon 1.924.eko zezenfestak[1]. Esan dezagun bidenabar Jose Etxebarria Villagodio-ko markesaren seme-alabek ganadutegia Sanchez Sanchez anaiei saldu zietela 1.924. urtean[2]. Ignacio eta Antonio Sanchez anaiek Coquilla-ren zezen bat gehitu zuten ganadutegira[25].

Serafin Bigiola *Torkito*, Mexiko-tik itzuli eta denboraldia aurreratua zegoela hasi zen toreatzen 1.924. urtean. Bilbon arrakasta izan zuen eta guztira bederatzi korridatan aritu zen.

Diego Markiaran *Fortuna*k guztira 15 arratsaldetan parte hartu zuen korridatan 1.924. urtean[4].

Faustino Bigiola *Torkito II.a* ere nobilladatan toreatzen ari zen urte hartan. Martxoaren 23an Madrilen Francisco Royo *Lagartijo* eta Tomas Gimenez-ekin batera toreatu zuen[3].

Martin Aguero Ereño 1.924. urtean zezen-hiltzaile mailara iritsi zen aurrez 22 nobillada toreatu ondoren. Alternatiba Malagan hartu zuen abuztuaren 31n, Manuel Jimenez Moreno *Chicuelo*ren eskutik. Luis Fuentes Bejarano lekuko zelarik, Felipe Pablo Romero-ren *Sotillo* izeneko zezena hiltzen utzi zion. Tabako koloreko traje urreztatua zeraman orduan Aguero bilbotarrak. Biharamunean Mihuraren zezenak toreatu zituen plaza berean. Denboraldi hartan guztira hamar korridatan parte hartu zuen[4].

Jaime Noain bilbotarrak ere asko toreatu zuen 1.924. urtean. Hogeitamarren bat arratsaldetan aritu zen lanean Euskal Herriko eta inguruko zezenplazetan[3].

1.924. urtean Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*k oso leku bitxietan toreatu zuen. Maiatzaren 1ean Sardinia irlako Cagliari hirian hain zuzen. Han adarrez kolpatu zuen zezenak sabelean eibartarra.

Erroman Stadio Nazionale-n 50.000 ikusle zirela korridak eman ziren 1.924.eko ekainaren 22, 24, 29 eta uztailaren 6an. Lehen korridan Rafael Rubio *Rodalito* eta Pedro Basauri-k Albaserrada-ko markesaren zezenak hil zituzten. Bigarrenean berriz, Hidalgo-renak. Ekainaren 29ko korridan, Albaserrada eta Cullar-en bina zezen toreatu zituzten bi ezpatariek, eta Jose Bueno-ren bat Emilio Ramon *Boltañés* burtzikariak zaldiz. Enrique San Millan-ek hil zuen azkenean zezen hura. Eta uztailaren 6an beste korrida bat ospatu zen, ekainaren 29ko kartel berberarekin[6]. Hungaria-ko Budapest hiriburuan beste hiru korrida ere toreatu zituen 1.924.ean Pedro Basauri-k, Lucena-ko

Francisco Lopez *Parejito* cordobarrarekin batera. Egypto–ko Alkairo–n ere toreatu zuen *Pedrutxo* eibartarrak[12].

Azpeitiko saninaziotarako Argimiro Perez Tabernero–ren zezenkoak iragarri ziren 1.924.ean uztailaren 31 eta abuztuaren 1erako. Jose Belmonte eta Felix Rodriguez toreatzaileak ziren nobillada haietara etortzekoak[8].

Deban ere urtero egiten ziren zezenfestak sanroketan. San Roke–ren ermitaraino dantzari eta guzti prozesioan joaten ziren eta hango mezaren ondoren *hamaiketako behia* korritzen zen plazan (Horrela deitzen zioten, nahiz eta behia ordubatean jokatu)[26]. Arratsaldean *marinel–korrida* izaten zen, aspaldian Debako marinelek Itziar–en ospatzen zutenaren oroimenez. Herritarrak izan ohi ziren toreatzaile. 1.924. urtekoak honako hauek izan ziren: Manuel Etxeberria *Mami*, Federiko Esnaola *Periko Txato*, Frantzisko Riesgo *Pako Kantoi*, Arteondoaga *Markexa*, Antonio Andonegi, Periko Markiegi, Kruz Ulazia (pikatzailea), Julian Azpeitia, Pako Lazkano, Esnaola *Txato Xarra*, etab.[27].

Zumaian garai hartan Inazio Zuloaga pintatzaile eibartarra Santiago etxea izeneko bere egoitzan bere lagunekin biltzen zen. Lagunetako bat Juan Belmonte zen eta Ortega y Gasset, Lasalle, Fernando Gillis nahiz beste asko biltzen ziren Zumaian[28]. Pablo Uranga pintatzailea ere han izaten zen eta Paris–en arrakasta lortu zuelako omenaldia egin zioten abuztuarèn hasieran Hernaniko Epeleko Etxeberri jatetxean, Belmonte ere han zelarik[29]. Bazkari hartan Zumaian Ospitalea egiteko dirua biltzearren zekorketa bat antolatzea pentsatu zuten. Belmonte–k parte hartuko zuen eta Antonio Cañero, Jose Garcia *Algabeño*, Antonio Marquez, Victoriano Roger *Valencia II.a* eta abarrek ere bai. Perez Tabernero anaiek doan emandako zekorrak toreatu zituzten.

Abuztuaren 25eko arratsaldean jendea ugari bildu zen Zumaian prestatutako zezenplazara. Politiko, idazle, pintatzaile, aristokrata eta pertsona famatu asko etorri ziren zezenfesta hartara. Bertako eta inguruko jende xumea ere han zen (*Okotzaundi* deitzen zioten Belmonte–ri). Lassalle musikari famatuak Zumaiako musika–banda zuzendu zuen buruan txapel gorria zuela. Aurreskua dantzatu ondoren koadrilak aurkeztu ziren plazan. Belmonte–k lehen zezenkoa toreatu zuen eta gero Marquez, Cañero eta *Valencia II.*ak banderilak sartu zizkioten. Fernando Gillis–ek hil zuen azkenean zezenkoa. Bigarren atera zena, zezena zen; handia eta suharra. Bernabé Alvarez *Catalino*k pikatu eta Marquez nahiz *Algabeño*k lantze batzuk osatu zituzten. Zezenak bistan akatsen bat zuen, eta kapotez toreatzen ari zela Juan Belmonte zauriturik suertatu zen. Lurrera bota eta adarkatu egin zuen zezenak. Plazatik Belmonte eraman ondoren, banderilaztatu eta faena osatu zion Marquez–ek.

Hirugarren zezenkoa *Algabeño*k hil zuen Antonio Marquez eta Alfredo David–ek banderilak sartu ondoren. Laugarren zezena Antonio Cañero–k toreatu eta hil zuen zaldiz. Jaialdiaren bukaeran, Zuloagak Belmonte–ri egindako erretratu bat zozketatu zen.

Juan Belmonte–k, potrazalean zuen zauria, baina ezer larririk ez[12]. Dena dela Belmonte–k bi hilabete behar izan zituen erabat sendatzeko[3].

Donostian ere korridak eman ziren 1.924.eko udan, urtero bezala. Seberino Martinez *Txopera* zen Txofre–ko plazari zaldiak zerbitzen zizkiona. Jose Martin *Hiena* pikatzailea berriz, *Txopera*ren zerbitzura zegoen, eta bere seme Antonio Martin *Hiena* urte hartako abuztuaren 15ean hasi zen lehen aldiz korridatan pikatzen[25].

Denboraldiaren bukaeran, Benefizentzi korrida eman zen Donostiako Txofren. San Antonio

ospitalerako eta Errukietxerako dirua bildu nahi zuten, aurreko urtean emandako korridan bezalaxe. Aurreko urtean Santa Coloma-ko kontearen zezenak guztiz ongi portatu zirenez gero, antolatzaileek 15.000 pezeta aginduak zituzten sei zezenengatik. 1.924.ean sekulako prezioa zen hura; inoiz ordaindutakoa baino handiagoa. Irailaren 14ean korritzekoak ziren kontearen zezenak, baina egun batzuk lehenago bi zezenek begian akatsen bat zutela ikusi zuten. Orduan Villagodio-ko markesaren beste bi zezenez ordezkatzea pentsatu zen, baina haiek 4.000 pezeta balio zuten eta diru-bilketa murriztu egingo zen. Santa Coloma-ko konteak zioenez bere etxetik zezen guztiak ongi atera ziren. Hala eta guztiz ere, berak bi zezen akastun haiek ez zituela kobratuko adierazi zuen.

Antonio Marquez, Jose Garcia *Algabeño* eta Antonio Posadas-ek toreatu zituzten arratsalde hartan Santa Coloma-ren zezen suharrak. Marquez-i txaloak jo zizkion jendeak laugarrenean. *Algabeño* berriz, bezperan Salamancan zauritua izan zen eta ahaleginak egin zituen, nahiz eta egoera fisikoa ona izan ez. Antonio Posadas berriz, ez zen arratsalde hartan nabarmendu. 65.650 pezetako irabaziak lortu ziren korrida hartan.

Kazetari-elkarteak ere antolatu zuen Donostian korrida bat 1.924.ean, urtero bezala. Rafael Guerra *Guerrita* toreatzaile erretiratuari utzi zioten zezenak aukeratzeko ardura. Florentino Sotomayor ganaduzale andalusiarraren zezenak bidali zituen *Guerrita*k, eta bera egon zen gero korridan lehendakariaren ondoan aholkulari. Korridaren hasieran Candido Diaz funestarraren bi zezen Basilio Barajas eta Anastasio Oliete-k burtzikatu zituzten. Zezenak hiltzeko ez zuten lantzadun burtzirik erabiltzen, eta horregatik Manuel Sagasti bizkaitarrak oinez eta ezpataz hil zituen[12].

Iruñean 1.924.eko sanferminetan honako korrida hauek izan ziren plaza berrian:

- Uztailak 7: Veragua-ko dukearen sei zezen Manuel Jimenez *Chicuelo*, Manuel Garcia *Maera* eta Luis Fuentes Bejarano-rentzat. *Maera*k bostgarren zezenean bi belarri eta buztana lortu zituen; sanferminetako bakarrak.
- Uztailak 8: San Fernando-ko Antonio Perez-en bi zezenko Simao da Vegia aita-seme burtzikari portugaldarrentzat (izen-deitura berekoak ziren) eta ganaduzale beraren sei zezen Jose Roger *Valencia*, Jose Garcia *Algabeño* eta Luis Fuentes Bejarano-rentzat. Bigarren zezenkoa Candido Tiebas *el Obispo* toreatzaile tafallarrak hil zuen ezpataz.
- Uztailak 9: Tovar-eko dukearen lau zezen probarako, Manuel Jimenez *Chicuelo*, *Maera*, Juan Anlló *Nacional II.a* eta Luis Fuentes Bejarano-rentzat.
- Uztailak 10: Concha y Sierra-ren sei zezen, Ricardo Anlló *Nacional*, *Chicuelo* eta Juan Anlló *Nacional II.*arentzat.
- Uztailak 11: Francisco Villar-en sei zezen *Maera*, *Nacional II.a* eta *Algabeño*rentzat.
- Uztailak 13: Santa Coloma-ko kontearen sei zezen *Chicuelo*, *Nacional II.a* eta *Algabeño*rentzat.

Batezbeste korrida aspergarriak izan ziren. Bestetik, gogoan izan behar da pikatzaileen zaldiak artean babesik gabe ateratzen zirela eta arratsaldero hiru zaldi baino gehiago hiltzen zirela zezenek adarkatuta.

1.924.eko San Fermin egunean, Ernest Hemingway eta bere lagun Donald Ogden Stewart-ek entzierroa korritu zuten goizean eta plazan bolaztatutako zezenkoen aurrean ere ibili ziren. Uztailaren 8an ere korritu zuten entzierroa eta gero zezenko bolaztatu batek Donald Ogden Stewart hankaz gora bota zuen. Hemingway laguntzera joan zitzaion, baina hura ere airean ibili zen[24].

Uztailaren 10ean, Concha y Sierra-ren zezenen entzierroan gauza arraroa gertatu zen.

Zezenak plazara iritsi zirenean, bat falta zela ikusi zuten. Izan ere bat Larrotxapea–ko kortan gelditu zen, eta harekin beste entzierro bat egin zen gaztejendearen atseginetan[14].

Uztailaren 13ko entzierroan berriz, Santa Coloma–ko kontearen zezen batek Estafeta kalea eta zezenplazako tartean Esteban Domeño Laborra, 22 urteko igeltsero zangozarra, adarkatu zuen izterrean. Ospitale Probintzialean hil zen 1.924.eko uztailaren 14ean. Badirudi hura izan zela Iruñeko entzierrotan hildako lehen gaztea. Luis del Campo iruindar ikertzailea eritzi horretakoa da behintzat[30].

15.4. irudia. 1.924.eko uztailaren 13ko entzierroa Iruñean. Zezena E. Domeño adarkatzen ari da.

Antonio Labrador *Pinturas* zaragozarra eta Matias Aristoi cariñenatarra, Nafarroako plazetan toreatzen ari ziren garai hartan. Aristoi Artaxona–n larriki zauriturik suertatu zen[3].

1.924. urtean Iruñean, maiatzaren 30eko nobillada batean Candido Tiebas *el Obispo* tafallarrak lehen aldiz toreatu zuen pikatzaileekin. Francisco Royo *Lagartito* eta berak, Candido Diaz funestarraren lau zezenko hil zituzten[21].

Garai hartarako, Candido Diaz–ek bere ganadutegitik nafar–kastako zezenak kenduak zituen. Juan Cobaleda–k (Bernabé–ren semeak) Espoz y Mina–ko konteari erositakoak zeuzkan (Karrikiri–renak), baina saldu ezinik ibiltzen zen, toreatzaile eta enpresariek gogozkoak ez zituztelako. Juan Cobaleda–k orduan, Karrikiri jatorriko behiak beste kastako zezenekin nahastu zituen. Ez zuen emaitza onik atera handik eta 1.924. urtean Conde de la Corte–ri erositako ganadua sartu zuen, nafar–kastakoa kenduz[16]. Zenbaitek dioenez Juan Cobaleda–k hurrengo urtean eta hurrengoan kendu zuen nafar–kasta Gamazo eta Lisardo Sanchez jaunei salduta[22].

Akitanian urtero bezala 1.924.ean ere Landetako erara korrida asko ospatu zen herri desberdinetan. Barrere, Coran, Danthez eta Lafitte ganaduzaleek Gerard, Coran, Moreno eta *Meunier* toreatzaileak erabili zituzten taldeburu hurrenez hurren[17].

1.924. urtean dena dela, Madrilen Martinez Anido jeneralak (gobernazio-ministrariak) otsailaren 9an Erret Agindu bat argitaratu zuen aurreko urteko zezenetarako arautegiko arau gehienak derrigorrean lehen mailako plazetan bakarrik aplikatzekoak zirela esanez. Donostia eta Bilboko plazak lehen mailakoak ziren[5].

———— o ———— o ————

1.925. urtean Bilbon zezenetako denboraldia martxoaren 1ean hasi zen. Victor Garcia-ren hiru zezenko eta Raso del Portillo-ko beste hiru plazaratu bait ziren egun hartan Vista Alegren Enrique Bartolomé, Emeterio Arreba eta Clemente Moret ezpatarientzat. Arreba eta Moret bilbotarrek, legea bete zuten eta Bartolomé ongi egon zen.

Martxoaren 8an bigarren nobillada eman zen Vista Alegren. Castillejo-ko kontearen 3 zezenko eta Raso del Portillo-ko beste hiru toreatu zituzten Jaime Noain, Mariano Lopez eta Blas Lopez-ek. Blas Lopez nabarmendu zen bere ausardiari esker.

1.925.eko martxoaren 15ean beste nobillada bat eman zen Bilboko Vista Alegren, Ramon Gutierrez-en hiru zezenko eta Raso del Portillo-ko beste hiru plazaratuz. Enrique Bartolomé, Emeterio Arreba eta Blas Lopez-ek parte hartu zuten, azken hau onena izan zelarik.

Martxoaren 19an, Bilbon Victor Garcia-ren lau zezenko eta Raso del Portillo-ko bat korritu ziren. Tobias Lozano, *Fortuna II.a* bilbotarra eta *Sestao-ko morenitoa*k hil zituzten.

Apirilaren 5eko nobilladan Jose Maria Garcia-ren sei zezenko jokatu ziren. Enrique Bartolomé, Sacristan Fuentes eta *Barakaldoko Gonzalito* aritu ziren haiekin lanean. Fuentes-ek belarri bat lortu zuen.

1.925.eko apirilaren 13an urteko lehen korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Angel Rivas-en zezen txiki eta bizkorrak toreatzearren Serafin Bigiola *Torkito*, Diego Markiaran *Fortuna* eta Martin Aguero kontratatu zituzten. *Torkito* bigarren lantzean harrapatu egin zuen zezenak eta adarretik zintzilikaturik ibili zen, baina larriki zauritu gabe. Horren ondorioz *Fortuna* eta Aguero-k hil behar izan zituzten sei zezenak. *Fortuna*k gorabeherak izan zituen; lehenengoan batez ere. Aguero ez zen ongi ibili arratsalde hartan, baina tarteka txalotu zuten bere herrikideek.

Apirilaren 19ko nobilladan, Manuel Garcia-ren lau zezenko eta J.V. Garcia-ren bi zekor korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Jaime Noain, *Reverte* eta *Sestaoko morenitoa*k hil zituzten.

1.925.eko maiatzaren 2an, urteko bigarren korrida eman zen Bilbon. Conde de la Corte-ren zezen noble eta suharrak, Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Jose Gomez Roca *Joseito de Malaga*k toreatu zituzten. *Fortuna* bakarrik ibili zen itxuraz plazan, bai kapote eta bai muletaz nahiz ezpataz. Beste bi ezpatariek berriz, ez zuten ez gogo eta ez adorerik erakutsi arratsalde hartan.

Maiatzaren 3ko korridan Villamarta-ko markesaren sei zezen koldar toreatzera Manuel Jimenez *Chicuelo*, Luis Freg eta Jose Gomez Roca *Joseito de Malaga* etorri ziren.Jendea aspertu egin zen korrida hartan eta *Caido del Matadero* izeneko banderilaria zezenak larriki zauritu zuen ipurtaldean adarkatuta.

Maiatzaren 10ean J. V. Garcia-ren sei zezenko jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren toreatzaile berrientzat; *nobel*entzat alegia.

1.925.eko maiatzaren 17an *charlotada* eta bi toreatzaile berriren saioa izan zen Bilbon, Nemesio Villarroel eta J.V. Garcia–ren zezenkoak jokatuta. Antzeko emanaldia ospatu zen leku berean maiatzaren 21ean ere. Villarreal–en zezenkoak toreatzera hiru *nobel* aurkeztu ziren.

Maiatzaren 24eko nobilladan Angel Rivas–en sei zezenko plazaratu zituzten Bilboko Vista Alegren Francisco Royo *Lagartito*, Sacristan Fuentes eta Manuel Monterorentzat.

Maiatzaren 21ean berriz, zezenkoak Alipio Perez Tabernero–renak izan ziren eta toreatzaileak Bitor Bigiola *Torkito III.a*, Jose Belmonte eta Jaime Noain.

1.925.eko ekainaren 1ean Nemesio Villarroel–en zezenkoak korrituta *charlotada* ospatu zen Bilbon eta bertan bi toreatzaile *nobel*ek ere lan egin zuten.

Ekainaren 7an Graciliano Perez Tabernero–ren sei zezen jokatu ziren Vista Alegren. Antonio Cañero–k bi zaldiz toreatu zituen (puntazorrotzak, oinezkoek bezalaxe) eta Diego Markiaran *Fortuna* nahiz Manuel Baez *Litri*k gainerako laurak. *Fortuna*k eguerdian Rikardo Atxa *Boston* enpresariari masailekoa eman zion arazoren batean konpondu ezin zirelako.

Antonio Cañero burtzikariak lan bikaina egin zuen bere bi zezenetan. *Fortuna* berriz, adorerik eta trebetasunik gabe ikusi zuten bilbotarrek. *Litri* berriz, jendeari gustatu zitzaion; batez ere bere bigarren zezen arriskutsuan erakutsi zuen ausardiagatik. Dena dela, Antonio Cañero zaldun cordobarra izan zen nagusi arratsalde hartan.

1.925.eko ekainaren 11n Martin Bilbao bilbotarrak Nemesio Villarroel–en zezenkoak toreatu zituen Vista Alegren *Charlot* batzuekin batera.

Ekainaren 14ean beste nobillada bat eman zen Bilbon. Argimiro Perez Tabernero–ren sei zezenko plazaratu ziren. Antonio Cañero burtzikaria, Faustino Bigiola *Torkito II.a* eta La Torre–k toreau zituzten.

Ekainaren 24ean beste korrida bat eman zen Vista Alegren Argimiro Perez Tabernero–ren sei zezen jokatuta. Nicanor Villalta, Manuel Baez *Litri* eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* izan ziren ezpatariak. Zezenek batezbeste 257 kilo pisatu zuten kanalean. Zezen txikiak bidali zituen ganaduzaleak Salamanca–ko Matilla de los Caños herritik, baina hala eta guztiz ere korrida gogoangarria izan zen hura. Nahiz eta zalditan zezenek oso suhar jokatu ez, gero toreatzaileentzat noble, samur eta zintzoak izan ziren. Villalta–k faenan ezker eta eskuinez pase ederrak burutu ondoren, laugarrenean sartu zuen ezpata osorik. Laugarren zezenean hiru ezpatariek egin zituzten kiteak, jendea txaloka zutelarik. Banderilak ere Villalta berak sartu ondoren (bi pare), faena bikainari ezpatakada eder batez eman zion amaiera. Belarria eman zioten. Buztana ere bai, baina Villalta–k ez zuen jaso.

Litri izan zen bere lankideak zirikatu zituena. Bigarren zezena toreatzea oso zaila zen eta geldirik egonda ausardia ikaragarria erakutsi zuen. Hiltzen ez zen azkar ibili, baina jendeak txalo ugari jo zion. Bostgarren zezenari lan ikaragarria egin zion. Toreatzaileak, zezenarekin bat eginda, kapaz eta muletaz jendea txunditurik utzi zuen. Bigarrenean ezpata sartu ondoren, belarria eman zioten jendeak sekulako txalo–zaparrada joaz.

Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*k lehen korrida zuen hura Bilbon. 19 urte bakarrik eduki arren, berebiziko maisutasuna eta artea ikusi zizkioten. Lehen zezenari osatu zizkion pase naturalak, eredugarriak izan ziren. Seigarren zezenari ere faenaerdi bikaina osatu zion, belarria

lortuz.

Hiru ezpatariei jo zieten musika eta hirurak atera zituzten bizkar gainean plazatik.

1.925.eko ekainaren 24ean nobillada mistoan Nemesio Villarroel-en lau zezenko jokatu ziren Bilboko Vista Alegren eta gero uztailaren 5ean *Kotxerito* elkarteak korrida bat antolatu zuen Kastor Jauregibeitia-ren alde dirua biltzearren. Victoriano Angoso-ren seme-alaben sei zezen eder toreatzera Victoriano Roger *Valencia II.a*, Braulio Lausin *Gitanillo de Ricla* eta Martin Aguero ekarri zituzten. *Gitanillo de Ricla* gaizki aritu zen, baina *Valencia II.a* eta Aguero-ri ausardia ikusi zitzaien.

Uztailaren 10ean zekorketa izan zen Vista Alegren kotxe-gidariek antolaturik. Ildelfonso Calvo-ren ganadua korritu zuten.

Uztailaren 12an bestetik, Villarroel-en lau zezenko, Terrones-en bat eta Perez Tabernero-ren beste bat plazaratu zituzten. Pedro Lekunberri bizkaitarrak zaldiz toreatu zuen eta Martin Bilbao bilbotarrak oinez, *Charlot* batzuk bezalaxe.

1.925. urteko abuztuan ospatuko ziren korridak iragartzeko, Roberto Domingo pintatzaile famatuak egin zuen kartela. Lehen korrida abuztuaren 16an izan zen. Concha y Sierra-ren zezenak toreatu zituzten Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Jose Garcia *Algabeñok*.

Abuztuaren 17ko korridan Serafin Bigiola *Torkito*, *Fortuna* eta Martin Aguero-k hartu zuten parte Mihuraren zezenak hilez.

Abuztuaren 18an Carmen de Federico-ren zezenak Nicanor Villalta-k eta beste bik toreatu zituzten. Abuztuaren 19an Santa Coloma-ko kontearen zezenekin Aguero, Manuel Baez *Litri* eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* aritu ziren lanean.

1.925.eko abuztuaren 20ko korridan Bilbon Pablo Romero-ren zezenak plazaratu zituzten, *Chicuelo*, Antonio Marquez eta *Algabeño* toreatzaile zirela. Abuztuaren 21ean berriz, Moreno Santamaria-ren lau zezen eta Campos Varela-ren beste lau toreatzera Villalta, Aguero, Marquez eta *Niño de la Palma* etorri ziren.

Abuztuaren 23an izan zen azken korrida. Gamero Civico-ren zezenak *Torkito*, Marquez eta Aguero-k hil zituzten.

Abuztuko korrida haietan, Campos Varela eta Moreno Santamaria-ren zezenen portaera oso txarra izan zen. Mihura eta Santa Coloma-ko kontearenak ez ziren hain txarrak izan, baina koldarrak bai. Concha y Sierra, Carmen de Federico eta Pablo Romero-renak nahikoa onak atera ziren. Dena dela, Gamero Civico-renak izan ziren onenak.

Toreatzaileei dagokienez berriz, Antonio Marquez, Martin Aguero eta *Niño de la Palmak* txaloak entzun zituzten. *Chicuelo* eta Villalta estutasunean ibili ziren, baina *Torkito*, *Fortuna* eta *Litri* are eta larriago. *Litri* Santander-en zauritu zelako, abuztuaren 21ean bere ordez Antonio Marquez ipini zuten, baina arazoak egon ziren ezpatarien elkartearekin. Izan ere Ramon Atxa enpresariak *Fortuna*ri sinatutako kontratua ez zion errespetatu eta plazako Batzordeak sestaoarrari kontratuko 6.650 pezeta ordiandu behar izan zizkion.

Abuztuko korridetan hildako zezenak 195na pezetatan Angel Llona jaunak hartu zituen. Alguaziltxoek 10 pezeta kobratzen zuten nobilladako eta 15 pezeta korridako. Anton Pradera jaunak 750 pezeta kobratzen zuen zezen bakoitzeko (800 pezeta abuztuan) zaldien zerbitzuagatik. Martin Aguero–k berriz, 6.500 pezeta kobratu zituen korridako.

1.925.eko abuztuaren 22an, zekorketa bat antolatu zen Vista Alegren Luis Gamero Civico–ren ganadua jokatuz. Honako zezenzale hauek toreatu zituzten: Jose Canals, Clemente Tassara, Celestino Cruz eta Jose Maria Eskauriaza–k.

Irailaren 13an urteko azken korrida eman zen Bilboko Vista Alegren. Felipe Montoya–ren zezen koldarrak toreatu zituzten Antonio Cañero, Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Nicanor Villalta eta Martin Agüero–k. Antonio Cañero–k zaldiz toreatu zuen zezen bat eta bera izan zen guztietan onena. Cañero burtzikaria bere bigarren zezenean zauritu egin zen.

1.925.eko irailaren 20an Manuel Santos–en sei zezenko jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren emandako *charlotada*n. Irailaren 27an berriz, toreatzaile *nobel*ek parte hartu zuten J.V. Garciaren zezenkoak toreatuz.

Urriaren 4ean nobillada izan zen Bilbon. Santiago Sanchez Terrones–en sei zezenko toreatzera Lorenzo Franco, Andres Mérida eta Manuel Diaz etorri ziren.

1.925.eko urriaren 18an beste nobillada bat eman zuten Bilbon Terrones–en bi zezenko eta Manuel Santos–en beste hiru jokatuz. Pedro Lekunberri burtzikari bizkaitarrak, Enrique Bartolomé, *Manolin* eta *Divino Calvo*k lan egin zuten. Oso txalotuak izan ziren laurak, zezenkoen portaerari esker.

Azaroaren 1ean beste nobillada batean ere Manuel Santos–en lau zezenko korritu ziren Vista Alegren. Clemente Moret eta Martin Bilbao izan ziren toreatzaileak. Abenduaren 6an berriz ere Manuel Santos–en lau zezenko plazaratu zituzten Bilbon toreatzaile *nobel*entzat[1].

Rufino San Bizente Bilbora itzuli zen Ameriketatik eta 1.925.eko irailean Bilbon korrida bat toreatu zuen arestian aipatu dugunez. Korrida hartan ez zitzaion gauza handirik ikusi eta neguan berriz ere Ameriketara joan zen. Caracas eta Venezuelako beste hirietan bospasei korrida toreatu zituen[3].

Serafin Bigiola *Torkito*k ez zuen asko toreatu 1.925. urtean. Zortzi korridatarako dei egin zioten[4]. Haietako bat Madrilen alternatiba sendotzeko izan zen. Irailaren 20an izan zen eta Sotomayor–en zezenak korritu ziren. Serafin Bigiola–k Juan Espinosa Saucedo *Armillita*ri utzi zizkion zezena hiltzeko tresnak Jose Roger *Valencia*ren aurrean. Bazko egunean Serafin bizkaitarrak Figueras–en toreatu zuen. San Fernando–ko Antonio Perez–en bi zezen Alfonso Reyes–ek burtzikatu zituen eta beste lau zezen *Torkito* eta Manuel Jimenez–entzat izan ziren. Jose Pastor–ek ordezko ezpatari gisa lan egin zuen.

Faustino Bigiola *Torkito II*.ak hogeiren bat nobillada toreatu zituen urtero bezala, eta alternatiba hartu zuen abuztuaren 15ean Salamancan. Jose Garcia Aleas–en zezenak jokatu ziren eta Matias Lara *Larita*k utzi zizkion zezena hiltzeko tresnak Faustinori, Juan Silveti lekuko zelarik. Urte hartan Zamora–n beste korrida bat toreatu zuen bilbotarrak[3].

Diego Markiaran *Fortuna*k, 1.925. urtean hamazazpi korridan lan egiteko dei egin zioten[4].

Joselito Martin bilbotarrak 1.925.eko ekainaren 21ean bere alternatiba sendotu zuen Madrilen, Ricardo Anlló *Nacional*en eskutik[3], Antonio de la Haba *Zurito*ren aurrean[31]. Pablo Romero–ren zezenak jokatu ziren orduan. Ez zen oso ongi egon arratsalde hartan *Joselito* Martin eta 1.925.eko denboraldian sei korrida bakarrik toreatu zituen. Gero neguan Venezuela, Peru eta Guatemalan lan egin zuen[3].

Martin Aguero Ereño bilbotarrarentzat urte ona izan zen 1.925.a. Guztira 35 korridatan parte hartu zuen. Haietako bat uztailaren 7an Madrilen toreatutakoa izan zen. Ricardo Anlló *Nacional*ek alternatiba sendotu zion Braulio Lausin *Gitanillo de Ricla*ren aurrean San Fernando–ko Antonio Perez–en *Naranjito* zezena hiltzeko utzita[4].

Jose Muñagorri bilbotarra, zuela 17 urte alternatiba hartua zen, baina gero uko egin eta erretiraturik bizi zen Bartzelonan. 1.925.ean, berriz alternatiba hartzea bururatu zitzaion eta hartu ere hartu zuen Mallorka–ko Palma–n ekainaren 28an Marcial Lalanda–ren eskutik[3], Eugenio Ventoldrá–ren aurrean. Villamarta–ko markesaren zezenak toreatu zituzten orduan. Muñagorri bilbotarrak ez zuen harez gero toreatu[4].

Manuel Montero bilbotarrak sei nobillada toreatu zituen 1.925.ean. Haietako bat Madrilen, irailaren 10ean, Manuel Mieres eta Jose Etxebarria bilbotarrarekin batera[3].

Jaime Noain gallartatarrari 1.925. urtea ona suertatu zitzaion. Madrilen aurkeztu zen irailaren 13an. Hidalgo eta Alves do Rio–ren zezenkoak toreatu zituen Luis Mera, *Curro* Prieto eta Melchor Delmonte–rekin batera[4].

Bestetik, Antolin Arenzana *Recajo* bilbotarra zezenetatik erretiratua zegoen eta Madrilen hil zen 1.925.eko udazkenean[3].

Vicente Lórin *Pataterito de Bilbao* ere, toreatzen ari zen 1.925. urtean maila apaleko plaza eta zezenfestetan Bizkai aldean. Bilbotarra zen bera, goitizenak adierazten duenez[25].

Azpeitiko saninaziotan 1.925.ean bi nobillada eman ziren, urtero bezala uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean. Lehen egunean Argimiro Perez Tabernero–ren zezenkoak Francisco Tamarit *Chaves* (txaloak eta bronka) eta Julian Sacristan–ek (txaloaldia eta txaloak) hil zituzten. Bigarrenean berriz, Jose M. Garcia–ren zezenkoak Felix Rodriguez (isilaldia eta bronka) eta Julian Sacristan–ek (isilaldia eta txaloaldia) toreatu zituzten[8].

Deban ere urtero bezala ospatu ziren zezenfestak sanroketan 1925. urtean. Baita *marinel–korrida* ere. Han toreatzen parte hartu zutenak honako debar hauek izan ziren: Sangitua, Agustin Azkoitia, *Pako* Epelde, *Pototo* Arana, Alejo Itziar, Esteban Antia, Bizente Arteondoaga *Markexa*, Inazio Deba, Luis Urkiri, Rafael Esnaola, Bitor Deba, Nikomedes Urkiri eta Luis Idiakez[27].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*, 1925.eko denboraldian estatu espainolean bost korrida toreatu eta ondoren Ameriketara joan zen, han hiru korrida toreatzeko kontratua eginda. Askoz gehiago toreatu zituen ordea Venezuela, Kolombia, Bolivia eta abarretan, fama eta dirua irabaziz. *Pedrucho* izeneko filmea (bera protagonista zenekoa) proiektatu zen Hegoameriketan eta Hollywood–era ere eraman nahi izan zuten, baina eibartarra zinemako loturak hautsi eta zezenfestei lotu zitzaien. Urte hartantxe bestetik, maiatzaren 17an, Marseille–n Martin Basauri (*Pedrutxo*ren anaia) hil egin zen Camargue–ko zezen batek bihotzean adarkatuta. Banderila–parea sarten ari zitzaion Martin Basauri katalana[12].

Donostian 1925.eko udan korridak Txofren ospatu ziren urtero bezala. Abuztuaren 9koan Conde de la Corte ganaduzalearen zezenak korritu zituzten eta haietan *Lechuzo* izenekoa nabarmendu zen bere portaeragatik. Urte hartako onenetakotzat jo zuten.

Abuztuaren 30eko Donostiako korrida, ganadu-lehiaketa erakoa izan zen eta Antonio Urkixo-ren *Desaviado* izenekoak irabazi zuen. Saria 1.000 pezetakoa zen[7].

Uda hartan Donostian Benefizentzi korrida ere ospatu zen eta hiria erakutsiz filme bat ere egin zuten, gastuak 4.146 pezetakoak izan zirelarik[32].

Gero Donostiako plazako enpresari izango zen Eduardo Pagés bartzelonarrak, Lisboara joan eta Juan Belmonte-ri berebiziko eskaintza egin zion. Belmonte bi urtean erretiratua egon zen, baina aurreko urtean (1924.ean) neguan Perun berriz hasi zen toreatzen. Itsasoz Lisboara heldu zenerako Eduardo Pages-ekin kontratua sinatu zuen. Juan Belmonte-ren esklusibista izan zen Pages. Korridako 25.000 pezeta inguru ordaintzen zion eta sarreretako portzentaia bat ere bai, plaza maila batetik gora betetzen bazen[3].

1925.eko irailaren 4ean Zumaian zezen-jaialdia eman zen herriko ospitalerako dirua biltzearren. Inazio Zuloaga eta bere lagunek antolatu zuten jaialdia aurreko urtean bezalaxe, eta Juan Belmonte-k ere parte hartu zuen. Egun hartan jende asko bildu zen Zumaiara; 12.000 pertsona inguru. Politikari, aristokrata eta pertsonaia famatu ugari zegoen egun hartan zezenplazan (herriko plazan). Juan Belmonte, Ignacio Sanchez Mejías eta Antonio Marquez aurkeztu ziren Salamanca-ko Angoso-ren zezenkoak toreatzera.

Lehen zezenkoa kapotez toreatzen ari zela, Belmonte lurrera bota eta han eskuineko izterrean adarkatu egin zuen abereak. Juan Belmonte jaiki eta berriz ere aritu zen toreatzen, baina luze baino lehen erretiratu egin zuten zauria medio. Sanchez Mejías-ek hil zuen gero zezenko hura.

Bigarren zezenkoa ere Sanchez Mejías-ek toreatu eta hil zuen, baina luzimendurik gabe. Horregatik jendeak txistuak jo zizkion. Hirugarrena toreatzeaz eta hiltzeaz Antonio Marquez arduratu zen. Txaloak jo zizkioten azkenean. Laugarren zezenkoan Sanchez Mejías eta Marquez-ek tartekatuz lan egin zuten, bai kapotez eta bai banderilak sartuz. Jendea erabat berotu zen zezenko hartan eta txalo asko jo zuen Marquez-ek zezena hil arte. Belmonte berriz, Amaia hotelean zegoen bere izterreko zauriarekin. Zezenkoak egindako urratua josi egin zioten eta hogei egunetik gora behar izan zituen sendatzeko. Huelva eta Haro-ko korridak toreatu gabe gelditu zen ondorioz[12].

Zumaian zezenetan bildutako diruaz, Ospitalea egin zen herrian eta San Joan izena ipini zioten Juan Belmonte-ren omenez[28].

Antonio Gallego *Cadenas* banderilaria, gero urte askoan Donostian bizi izan zena, asko ari zen toreatzen garai hartan. Ezpatari desberdinen koadrilatan lan egin zuen, hala nola, Jose Roger *Valencia*, Alejandro Saiz *Ale*, Victoriano Roger *Valencia II.a*, Juan Anlló *Nacional II.a*, Antonio Sanchez, Marcial Lalanda eta abarrenetan[12].

1925. urteko sanferminetan, korridak uztailaren 7, 8, 9, 11 eta 12rako iragarri ziren Iruñean[13]. Francisco Villar, Mihura, Candido Diaz, Gamero Civico eta Pablo Romero-ren ganadua toreatzera Marcial Lalanda eta Martin Aguero lehen aldiz etorriko ziren Iruñera. Juan Belmonte arratsalde bakar batean etortzekoa zen Eduardo Pages-en eskutik 30.000 pezeta kobratuta. Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* toreatzailea ere etorriko zen, Sevillan ekainaren 11n alternatiba hartu

ondoren.

San Fermin egunean, Antonio Marquez, Martin Aguero eta *Niño de la Palma*k Francisco Villar–en sei zezen hil zituzten. Ordoñez–en toreaketak, kapotez eginak, jendea txunditurik utzi zuen. Bere lehen zezenari bi banderila–pare ipini zizkion eta faena ederra burutu zion. Bere bigarrena, Candido Diaz–en ordezko zezena zen eta ezer egiterik ez zuen izan.

Uztailaren 8an Mihuraren zezenak jokatu ziren Iruñean. Antonio Marquez, Marcial Lalanda eta Martin Aguero–k lan egin zuten, baina jendea aspertu egin zen. Izan ere zezen haiek handiak, koldarrak eta arriskutsuak ziren. Zortzi zaldi hil zituzten eta bi zezeni suzko banderilak ipini zizkieten. Toreatzaileak beldurturik ibili ziren.

Uztailaren 9an probako korridan Candido Diaz funestarraren lau zezen plazaratu zituzten Antonio Marquez, Marcial Lalanda, Martin Aguero eta *Niño de la Palma* ezpatarientzat.

Uztailaren 11n, Gamero Civico–ren sei zezen toreatzen Juan Belmonte, Lalanda eta *Niño de la Palma* aritu ziren. Azken hau Jose Garcia *Algabeño*ren ordez ipini zuten, bezperan Madrilen zauritu zelako. Bezperan hasi zen jende–multzo ikaragarria plazarako sarrerak erosten Juan Belmonte ikusi nahian. Plaza leporaino bete zen. Itzaleko barrera 21 pezeta kostatu zen, nahiz eta beste egunetarako 18 pezeta kostatu.

Uztailaren 12an Pablo Romero–ren sei zezen toreatu zituzten Marquez, Lalanda eta *Niño de la Palma*k. Azken honek belarria lortu zuen arratsalde hartan.

Ernest Hemingway idazlea Iruñean zen 1925.ean festetan, aurreko bi urteetan bezalaxe eta bere *Festa* izeneko liburuan deskribatu zituen maisuki. Liburu horretan aurreko bi urteei dagozkien pasarteak badira, baina gainerakoan 1925. urteko sanferminetan oinarriturik dago[24].

Tafallako Candido Tiebas *el Obispo* toreatzaileak 1925. urtean 22 nobilladatan parte hartu zuen. Bartzelona, Zaragoza, Valentzia eta beste plaza garrantzitsutan ikusi ahal izan zuten. Uztailaren 19an Madrilen aurkeztu zen. Juan Perez Garcia *Lagartijo* pikatzailea bere koadrilan eraman zuen tafallarrak[3]. Madrileko nobillada hartan Francisco Tamarit *Chaves* valentziarrak eta Domingo Hernandorena bilbotarrak osatzen zuten kartela. Tovar–eko dukearen sei zezenko zail jokatu ziren. *Chaves*ek lau hil behar izan zituen Hernandorena larriki zauriturik suertatu zelako. Candido Tiebas bere lehen zezenkoak airera jaurtiki zuen, baina ez zen zauritu eta ausart ekin zion berriro toreatzeari. Bere bi zezenkoetan txalotua izan zen.

Uztailaren 25ean berriro toreatu zuen Tiebas tafallarrak, Jose Moreno Andaluz *Morenito de Zaragoza*rekin batera. Sanferminetan sobratutako Candido Diaz–en lau zezen jokatu ziren orduan[21]. Candido Diaz–en zezenak ez zirela harez gero Iruñean plazaratu dio zenbaitek[16], baina hurrengo urtean jokatu ziren. Hirugarren zezenean nobillada bertan behera gelditu zen berebiziko eskandalua armaturik. Izan ere bi ezpatariak eta ordezko ezpatari zen Servando Monterde, hirurak, zezenek harrapatu eta zauritu egin zituzten. Hala eta guztiz ere Candido Tiebas–ek biharamunean Tuteran toreatu zuen, eta baita arrakasta lortu ere, tuterarrek bizkar gainean atera zutenez gero[21].

1925. urtean Juan Cobaleda–k Salamanca–n bere ganadutegian zituen nafar–kastako zezenak (Karrikiri jatorrikoak) saldu egin zituen. Zati bat German Gamazo jaunari eta bestea Badajoz–eko Botoa herriko Lisardo Sanchez jaunari. Cobaleda jaunak Conde de la Corte–ren 63 behi eta *Treinta* izeneko zezen bat erosi zituen[22]. Dena dela geroago Gamazo jaunaren nafar–zezen batzuk Victorino

Martin ganaduzale famatuaren eskutara pasatu ziren eta herrietako festetan kaleetan korritzen zituen. Martin jaunak aitortu zidanez, zezen txiki, gorri eta bihurriak ziren eta beren etsaia ez zutela harrapatuko ikusten zutenean, aurrera jauzi egiten omen zuten. Zoritxarrez denak kendu omen zituzten.

1925. urtean Bordele–n gutxienez nobillada bat eman zen; bertan Gines Hernandez toreatzaileak parte hartu bait zuen[3]. Akitaniako beste herri askotan berriz, Landetako erara jokatu ziren zezenak. Barrere, Coran, Danthez eta Lafitte ganaduzaleek Gerard, *Mazantini*, Couralet eta Antonio toreatzaileak zituzten taldeburu hurrenez hurren.

Henri Laulhe toreatzaile landetarra, Samadet herrian zauritu egin zen urte hartan korrida batean. Joseph Coran zen ganaduzaletako bat; ganaduzale eta toreatzaile aldi berean. Camargue–ko behiak eta behi espainolak erabiltzen zituen. Baita bi kasta horiek nahasitakoak ere. 1925. urtean adibidez, *Biarrote* eta *Tabernera* izenekoak Camargue–ko kastakoak zituen, *Rubia* espainola eta *Aragonesa* nahasia.

1925. urteko urriaren 4erako. Miarritz–en korrida landetarra iragarri zuten. Eauze–ko M. Lafitte ganaduzalearen koadrila etorriko zen Lebas hiribideko *Arènes du Royal–Frontone*ra. Hamazazpi urteko *Petit Mongise*k eta *Suisse* nahiz Georges–ek parte hartuko zuten toreatzen. Antonio Vis (oraingo *Ramuntxo* eta *Ramuntxito* ijitoen aita), Maurice, Laffau eta *Bras de Fere*k ere beren salto eta errekorteak egingo zituzten. C. Despouys izango zen sokari tiratzeko arduraduna. Sarreren prezioak zazpi eta berrogei libera bitartekoak ziren[17].

———— o ———— o ————

1926. urtean Bilbon nobilladak otsailaren 21ean hasi ziren. Salamanca–ko Anibal Sanchez–en sei zezenko jokatu zituzten Enrique Bartolomé, Clemente Moret eta Martin Bilbao toreatzaile zirelarik. Pikatzailerik gabeko nobillada hartan Moret izterrean adarkatu zuen zezenak.

Otsailaren 28an eman zen Vista Alegren urteko bigarren nobillada. Anibal Sanchez–en zezenkoak toreatu zituzten pikatzailerik gabe David, Manuel Montero eta Lopez–ek. Lehen zezenkoak David larriki zauritu zuen.

1926.eko martxoaren 7an Anibal Sanchez–en lau zezenko korritu ziren eta J. Villarroel–en bat. Manuel Montero, Pedro Ipiñabeaskoetxea eta Lopez–ek hil zituzten[1]. Pedro Ipiñabeaskoetxea bizkaitarra, Arratia–ko Arantzazu–n 1903.eko abenduaren 5ean jaioa zen[3].

Martxoaren 14eko nobilladan Matias Sanchez–en zezenkoak jokatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Bitor Bigiola *Torkito III.a*, Francisco Royo *Lagartito*, Pedro Ipiñabeaskoetxea (Arratiako Arantzazu–koa) eta Pedro Lekunberri aritu ziren toreatzen. Pedro Lekunberri zaldiz, burtzikaria zenez gero.

1926.eko martxoaren 21ean, Veragua–ko dukearen zezenkoak plazaratu ziren Vista Alegren. Faustino Bigiola *Torkito II.a*, Francisco Royo *Lagartito* eta Mendoza–k toreatu zituzten.

Martxoaren 28an emandako nobilladan David, Pedro Ipiñabeaskoetxea eta Tobias Lozano k parte hartu zuten Bilbon. Manuel Santos–en zezenkoak korritu ziren orduan.

1926.eko apirilaren 4ean eman zen Bilbon urteko lehen korrida. Veragua–ko dukearen zezenak toreatzera *Joselito* Martin, Francisco Tamarit *Chaves*, eta Juan Espinosa *Armillita* ekarri zituzten. Zezenak indartsu eta alai portatu ziren. *Joselito* Martin bere lehen zezenak estu

erabili zuen bi momentutan, baina bilbotarra ez zen kokildu eta faena ederra burutu zion. Ezpataz ordea ez zuen asmatu. Bere bigarrenean, hobeto aritu zen eta etsaia ezpatakada bikainaz bota zuelako belarria eman zioten. *Chaves* bere bi zezen latz eta berantkorretan ez zen luzitu. Kite ausarta egin zuen ordea. *Armillita* dotore ibili zen kapotez eta erraz sartu zituen banderilak. Muletaz ere ondo toreatu zuen, baina ezpataz asmatu ezinik ibili zen.

1926.eko apirilaren 8an injinerutzako ikasleek zezenfesta bat antolatu zuten Vista Alegren. Villarroel eta Sanchez Rico–ren zekorrak korritu ziren orduan.

Apirilaren 11n Manuel Santos–en zezenkoak jokatu zituzten Bilbon. Nobillada hartan Tobias Lozano, Clemente Moret eta Pedro Ipiñabeaskoetxeak toreatu zuten.

Apirilaren 18an trenbidetako langileek zekorketa eman zuten Bilbon. Villarroel eta Sanchez Rico–ren ganadua plazaratu zen.

1926.eko maiatzaren 2an beste korrida bat eman zuten Vista Alegren. Conde de la Corte–ren zezen geldoak toreatzen Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta Martin Aguero aritu ziren. Marquez txalotua izan zen bere bi zezenetan. Nicanor Villalta–ri, aurreko egunetan zauritua izan zelako borondatea bakarrik ikusi zitzaion. Martin Aguero–k berriz, arrakasta lortu zuen, belarri bat lortuz. Zezenen pisua kanalean, 261 kilokoa izan zen batezbeste.

Maiatzaren 9an beste korrida bat eman zuten Bilbon, Villamarta–ko markesaren zezenak jokatuta. Nicanor Villalta, Martin Aguero eta Antonio de la Haba *Zurito* izan ziren ezpatariak. Lehen eta seigarren zezenak suertatu zitzaizkien suharrenak. Villalta–k altzairuaz huts egin zuen. Martin Aguero–ri tokatu zitzaizkion zezenik txarrenak, baina hala eta guztiz ere bostgarren zezena bikain hil zuen. *Zurito*ren lana ez zen aipagarria izan. Zezenek kanalean 261 kilo pisatu zuten batezbeste.

1926.eko maiatzaren 20an trenbidetako langileek Manuel Santos–en zekorrak jokatu zituzten Vista Alegren, eta hiru egun geroago, maiatzaren 23an, korrida ospatu zen. Santa Coloma–ko kontearen zezenak toreatzera Manuel Jimenez *Chicuelo*, Francisco Peralta *Facultades* eta Antonio Posadas etorri ziren. Suhartasun handirik ez zuten erakutsi zezenek, nahiz eta zalditan normal pikatu. Ihes egiteko joera ikusi zitzaien. Gero muletan bigun portatu ziren.

Chicuelo izan zen arratsalde hartan plazako nagusi. Bere faena alai eta dotoretan era guztitako paseak osatu zituen; sakonak eta arinak, txispadunak eta agintezkoak. Zezen bat gainera ezpataz ongi hil zuen eta belarria eman zioten.

*Facultades*en lana ez zen azpimarragarria izan, bere bigarren zezenak harrapatu bazuen ere. Antonio Posadas–ek ere ez zuen ezer askorik egin.

Bilbon maiatzaren 24ean Manuel Santos–en zezenkoak jokatuta *charlotada* eman zen. Maiatzaren 30ean berriz nobillada F. Molina–ren (lehen Urkola–ren) zezenkoak plazaratuta. Lorenzo Latorre, Andres Gago eta Jose Fernandez Aguayo *Tabernerito* izan ziren ezpatariak.

1926.eko ekainaren 3an, Ananias Escribano–ren zekorrak toreatu zituzten Vista Alegren Bilboko dendariek. Ekainaren 13an berriz, Manuel Santos–en zezenkoak Enrique Garcia *Hilacho*, Cecilio Barral eta Barrena–k.

Ekainaren 20an korrida ospatu zen Vista Alegren Sanchez Rico–ren (lehen Contreras–en) sei

zezen jokatuta. Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Martin Aguero bilbotarrak lan egin zuten. Martin Agüero-k zezen batean plazari txalo artean buelta ematea lortu zuen, eta bestean belarria. Seigarren zezenari berriz, giroa erabat berotuta musika jotzen ari zirela berebiziko faena burutu zion, eta ezpataz ongi hil zuenez gero, bi belarriak eman zizkioten.

Manuel Jimenez *Chicuelo*k kapotez osatu zituen pase dotore batzuk; txikuelina batzuk hain zuzen. Gainerakoan ezer onik egin ez zuelako txistuak jo zizkioten.

1926.eko ekainaren 27an beste nobillada bat eman zen Vista Alegren Palha-ren bost zezenko eta Veragua-ko dukearen bat jokatuta. Gines Hernandez *Ginesillo*, Eduardo Perez *Bogotá* eta Jaime Noain-ek osatu zuten kartela.

Ekainaren 29an berriz, Manuel Santos-en sei zezenkorekin toreatzaile berriak (*nobel* deitutakoak) aritu ziren lanean.

Uztailaren 4ean berriz, beste korrida bat jokatu zen Bilbon. Graciliano Perez Tabernero-ren sei zezen hiltzera Juan Belmonte, Ignacio Sanchez Mejías eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* etorri ziren Vista Alegrera. Zezenak suharrak suertatu zitzaizkien. Jendeak ordea, toreatzaileek zezen txikiak ekartzea inposatu ote zutenaren susmoa hartu zuen eta zezen bat toriletara itzul erazi zuen, nahiz eta horretarako ageriko arrazoirik egon ez.

Juan Belmonte bere sasoirik onena joana zen eta ez zitzaion gauza handirik ikusi; kalitatezko toreaketaren printza batzuk besterik ez. Sanchez Mejías-ek bere ausardia eta banderilak sartzeko trebetasunari esker belarri bat irabazi zuen. *Niño de la Palma*ri jendeak ez zion kanpo samarretik toreatzea barkatu. Txistuak jo zizkioten.

1926.eko abuztuaren 22an udako ohizko korridak hasi ziren Bilbon. Lehenengoan Manuel Jimenez *Chicuelo*, Antonio Marquez eta Martin Aguero-k Concha y Sierra-ren sei zezen hil zituzten. Plaza jendez gainezka egon arren, ez zezen eta ez toreatzaile onik ikusi zuten. Zezenek kanalean 324 kilo pisatu zuten batezbeste.

Abuztuaren 23an Bilboko korridan kartela Victoriano Roger *Valencia II.a*, Nicanor Villalta eta Martin Aguero-k osatu zuten, Mihuraren lau zezen eta Anastasio Martin-en beste birekin batera. Mihurari azterketan bi zezen atzera bota zizkioten; bata satai txarragatik eta bestea adarpuntak motzak zituelako. Gero, korrida hartan Villalta eta Aguero zauriturik suertatu ziren.

1926.eko abuztuaren 24ean Antonio Perez Tabernero-ren lau zezen eta Buenabarba-ren bi jokatu zituzten Bilbon. Azken honen bati suzko banderilak ipini zizkioten. Tabernero-ri korrida aurretik bi zezen errefusatu zizkioten; bata txikia zelako eta bestea gaixo zegoelako. Dena dela, zezen suharrak izan ziren, baina toreatzaileek (Victoriano Roger *Valencia II.a*, Antonio Marquez eta Martin Aguero-k), ez zituzten aprobetxatu. Batezbeste 354 kilo pisatu zituzten kanalean[1]. *Campesino* izeneko zezena (Tabernero-rena), urte hartako suharrenetakoa izan zen[7].

Abuztuaren 25ean Carmen de Federico-ren zezenak plazaratu ziren Vista Alegren, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Antonio Marquez eta Martin Aguero ezpatariek kartela osatuz. Zezen suhar haiekin toreatzaileek legea betetzea besterik ez zuten egin. Villalta zauriturik zegoelako Aguero-k ordezkatu zuen.

Abuztuaren 26ko korridan Pablo Romero-ren zezenekin Antonio Marquez, Serafin Bigiola *Torkito* eta Luis Fuentes Bejarano saiatu ziren Bilbon. Zezenen portaera ona izan zen, baina

toreatzaileek ezer nabarmenik ez zuten egin. Zezenek batezbeste 343 kilo pisatu zituzten kanalean.

1926.ean abuztuko azken korrida hilaren 29an ospatu zen Bilbon. Manuel Blanco–k (lehen Parladé) bidali zituen zezenak Victoriano Roger *Valencia II.a*, Nicanor Villalta eta Antonio de la Haba *Zuritok* torea zitzaten. Oso suharrak izan ziren zezen haiek, baina lehen bi toreatzaileek legea betetzea bakarrik egin zuten, eta *Zuritok* hori ere ez. Zezenen pisua 305 kilokoa izan zen; kanalean, noski.

Irailaren 19an, urteko azken korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. R. Lamamie de Clairac–en (lehen Parladé) lau zezen jokatu zituzten, Rafael Gomez *Gallo* eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*rentzat eta beste bi zezenko Simao da Veiga burtzikari portugaldarrarentzat. Zaldunaren lana gustatu zitzaion gehien jendeari. Izan ere *Gallo* eta *Niño de la Palma* beldurrez oso ongi osaturik ibili ziren.

1926.eko irailaren 29an Bilbon toreatzaile *nobel*ek Manuel Santos–en bost zezenko hiltzeko aukera izan zuten. Urriaren 3an gero, Buenabarba–ren bi zezenko eta Anastasio Martin–en lau zezenko korritu zituzten Vista Alegren. Pedro Lekunberri burtzikari bizkaitarrak, Jose Iglesias–ek eta Domingo Hernandorena–k parte hartu zuten.

15.5. Irudia. Martin Aguero Ereño 1926. urtean.

Urriaren 12an Ciriaco Aviles–en (Colmenar Viejo–koaren) hiru zekor jokatu ziren Bilboko Vista Alegren. Julio Ortega, Jesus Lopez eta *Charlot* bilbotar batzuek toreatu zituzten.

Azaroaren 21ean berriz, 1926.eko azken nobillada eman zen Bilbon. J. Villarroel–en bost zezenko jokatu ziren, Pedro Ipiñabeaskoetxea, Martin Bilbao eta Felix Muguruza ezpatariek lan egin zutelarik[1].

Serafin Bigiola *Torkito* bizkaitarrak, 1926. urtean 13 korridatan parte hartu zuen[4]. Apirilaren 4ean Bartzelonan zen. Luis Freg–ekin eta Fausto Barajas–ekin batera Maria Montalvo–ren zezenak hil zituen. Irailaren 22an Toledo–ko Talavera de la Reina–n, Esteban Salazar eta Luis Fuentes Bejarano–rekin Ortega–ren alargunaren zezenak toreatu zituen.

Faustino Bigiola *Torkito II*.a 1926. urtean alternatiba hartua zegoen, baina korrida bat bakarrik toreatu zuen urte hartan; Salamanca–ko Guijuelo–n hain zuzen.

Bitor Bigiola *Torkito III*.a ere toreatzen ari zen 1926.ean zezenko–hiltzaile gisa. Zaragozako plazan Luis Mera eta *Finito de Valladolid*ekin batera toreatu zuen urte hartan[3].

Diego Markiaran *Fortuna* 1926. urtean ez zen aurreko urteetako mailara iritsi. Sei korridatarako bakarrik dei egin zioten[4].Bere iloba Juan Markiaran Beobide *Fortuna txikia* sestaoarra berriz, zekorketak utzi eta nobilladatan hasia zen. Hamasei nobilladatan parte hartu zuen. Baita Madrilen ere. Apirilaren 18an Valentzian zauritua izan zen eta irailaren 19an larrikiago Alcoy–n. Horregatik kontratu batzuk galdu zituen[3].

Martin Aguero 1926. urtean bere sasoirik onenean zegoen. Berrogeitamar korrida toreatu eta Madrilen uztailaren 15ean Kazetari–elkarteak antolatutakoan urrezko belarria irabazi zuen. Ama Birjina Begoña–koari utzi zion gero belarri hura[4]. Murcia–ko Caravaca herriko zezenplaza berria estreinatu zuen urriaren 4ean, Antonio Marquez eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*rekin batera Guadalest–eko markesaren zezenak hilez. Cuenca–ko plazan ere bai irailaren 7an Marcial Lalanda eta Victoriano *Valencia*rekin batera. Santa Coloma–ko kontearen zezenak toreatu zituzten[7].

Martin Aguero–ren Manuel anaia gaztea nobilladatan toreatzen ari zen. Manuel Fuentes Bejarano eta Juan Martin Caro *Chiquito de la Audiencia*rekin batera Zeballos-en zezenkoak hil zituen.

Joselito Martin zezen–hiltzaile bilbotarrak bost korrida bakarrik toreatu zituen 1926. urtean, nahiz eta batzuetan arrakasta lortu eta gehiago toreatzea marezi[3].

Jaime Noain bizkaitarra ere lanean ari zen nobilladatan. Dotzenaren bat arratsaldetan jantzi zuen traje distiratsua ezpatari gisa parte hartzeko[4].

Bilboko plazan Andres Lazareno–k ere toreatu omen zuen 1926. urtean. Inguruko plazetan nobillada apaletan Loizaga izeneko toreatzailea ere lanean aritu zen urte hartan. *Gonzalito de Barakaldo* ere antzera omen zebilen[3]. Agian Loizaga hau Jeronimo Loizaga *Chatillo de Barakaldo*ren senide izango zen eta gerta daiteke *Gonzalito de Barakaldo* ere pertsona bera izatea.

Durango–n 1926. urtean *Niño de Abando* izeneko toreatzaile batek lan egin zuen ekainaren 13an. Manuel Montero bilbotarrak sei nobillada toreatu zituen 1926.ean[3].

Eibarren 1926. urtean Bilboko *Kotxerito* elkarteak zekorketa bat antolatu zuen eta bertan Elisardo Urgoiti, Joan Larrinaga, Emiliano Fernandez eta Jose Maria Rico aritu ziren toreatzaile gisa. Kastor Jauregibeitia–k zuzendu zituen plazako lanak[2].

1926.eko apirilaren 24ean Madrilen berriz, elgoibartar famatu bat hil zen; Luis Mazzantini hain zuzen. Toreatzeari utzi ondoren Madrileko Udaleko zinegotzi eta Guadalajara–ko gobernadore zibil izana zen[12].

Pedro Alberdi musikari tolosarra ere 1926. urtean hil zen Barakaldon. Hango musika–bandako zuzendari zen eta besteak beste *Torkito* eta *Fortuna* izeneko pasodobleak eginak zituen. Jaume Teixidor Dalmau–k hartu zuen urte hartan bertan Barakaldoko banda zuzentzeko ardura. Gerra heldu arte iraun zuen lan horretan. Bartzelonan jaioa zen (1885.ean) eta hark ere musikalan asko sortu zuen. Zezenen arloan ezaguna da *Amparito Roca* izeneko pasodoblea[33]; Zestoan hainbat urtean zehar herriko festetan nahitaez jotzen dutena.

Dena dela, 1926. urteko otsailaren 22an Zumarragatik Zumaiarainoko trenbidea (Urola trena) estreinatu zuten Alfonso XIII.a erregeak eta Primo de Rivera diktadoreak. Zestoan herriko plazan (zezenplazan) zezenko bolaztatuak jokatuta ospatu zen inaugurazioa.

Azpeitian berriz, 1926.eko saninaziotan Gines Hernandez *Ginesillo* eta Francisco Royo *Lagartito* etorri ziren uztailaren 31ko eta abuztuaren 1eko nobilladak toreatzera. *Ginesillo*k bere lau zezenkoetan (nobilladako bi) lau bronka entzun zituen eta *Lagartito*ri lehen eguneko bere lehen zezenkoan txaloak jo zizkioten eta bigarrenean jendea isilik gelditu zitzaion. Biharamunean, Javier Molina–ren zezenkoekin ez zuen ezer onik egin. Jendearen isilaldia eta bronka izan ziren emaitzak[8].

Hernani–n 1926.eko ekainaren 27an nobillada ospatu zen. *Taleguilla* izeneko batek toreatu zuen egun hartan[3].

Donostian 1926.eko urtarrilaren 20an, sansebastianetan, gauez zezensuzkoa korritu zuten kaleetan zehar[34].

Donostian bizi zen Eduardo Pagés jaunak bestetik, 1926. urtean Ameriketatik etorri berria zen Rafael Gomez *Gallo*ri kontratua proposatu zion bera esklusibista zelarik. Kontratuaren ondorioz 34 korrida toreatu zituen *Gallo*k urte hartan[3].

Txofre–ko plazan bestetik, abuztuaren 1ean korrida eman zen toreatzaileen montepioaren alde. Montepioaren sortzailea gainera (Ricardo Torres *Bombita*), aholkuemaile zegoen lehendakariaren ondoan, Perez Tabernero–ren zortzi zezen jokatu zireneko arratsalde hartan. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Jose Roger *Valencia*, Marcial Lalanda eta Nicanor Villalta izan ziren Donostiara toreatzera etorritakoak. Villalta izan zen nagusi. Zezen gorri bati faena ederra burutu zion. Ezpatakada eta deskabello–kolpe batez bota zuen. Txaloaldi luzea jo zioten ikusleek. Baita Ricardo Torres *Bombita*ri ere plazatik irtetera zihoanean.

Abuztuaren 8an izan zen beste korrida bat Donostiako Txofre–n. Conde de la Corte–ren bost zezen eta Aleas–en bat plazaratu zituzten Manuel del Pozo *Rayito* sevillarrak alternatiba har zezan. Victoriano Roger *Valencia II*.ak eman zion alternatiba Jose Garcia *Algabeño*ren aurrean. *Contador* izeneko zezena hiltzeko tresnak utzi zizkion Roger–ek hogei urteko sevillarrari. Jendeak asko txalotu zuen doktore berria bere bi zezenetan. Victoriano Roger gaizki aritu zen bere bi zezenetan eta jendearen bronka entzun behar izan zuen. *Algabeño*ri txalo batzuk jo zizkioten batean

alaiago ibili zelako, eta bestean txistuak entzun ziren[12].

Abuztuaren 29an berriro toreatu zuen Donostian Manuel del Pozo *Rayito*k. Graciliano Perez Tabernero–ren zezenak korritu ziren orduan, eta bere lehenengoak, kapotez ari zela, zauritu egin zuen.

Antonio de la Haba *Zurito* toreatzaileak ere toreatu zuen abuztuko korrida batean Donostiako Txofren[3].

1926. urte inguruan Donostiako kazetarien elkarteak antolaturik Txofren eman zen korrida goiesko bat. Hondarrean toreatzaile baten irudia marraztu zuten pintatzaile batzuek Inazio Zuloaga eibartarraren ardurapean. Pablo Uranga, Legarde eta Flores Kaperotxipi ere han ziren lanean[29]. Gure ustez korrida hura Txofren 1928. urtean ospatu zen, Goia–ren erretratu handi bat palkoen gainean zegoelarik.

Gasteizen ere eman ziren korridak abuztuaren hasieran urtero bezala. Abuztuaren 3koan Maria Montalvo–ren zezenak plazaratu ziren eta bere suhartasunagatik *Presidente* izenekoa nabarmendu zen[7]. Abuztuaren 1ean Celestino Cruz toreatzaileak parte hartu zuen Gasteizen nobillada batean[3].

Iruñean 1926.eko sanferminetan honako korrida hauek ospatu ziren:

– Uztailak 7. Lamamie de Clairac–en (lehen Gamero Civico) sei zezen Ignacio Sanchez Mejías, Marcial Lalanda eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*rentzat.
– Uztailak 8. Pablo Romero–ren sei zezen, Nicanor Villalta, Antonio de la Haba *Zurito* (Lalanda–ren ordez, bezperan zauritu zelako) eta *Niño de la Palma*rentzat.
– Uztailak 9. Probako korrida. Candido Diaz–en lau zezen *Zurito* eta *Niño de la Palma*rentzat.
– Uztailak 10. Conde de la Corte–ren sei zezen, Juan Belmonte, Ignacio Sanchez Mejías eta *Zurito*rentzat.
– Uztailak 11. Francisco Villar–en zortzi zezen, Marcial Lalanda, Nicanor Villalta, *Zurito* eta *Niño de la Palma*rentzat.

Urte hartan Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* oso beldurti zebilen, aurreko urtean izterrean jasandako zauriaren ondorioz. Iruñean San Fermin egunean oso gaizki egon zen eta goardiek babestu behar izan zuten. Biharamunean ere gaizki aritu zen. Uztailaren 9ko korridakoa berriz, gehiegia izan zen. Bigarren zezenean hiru abisuak bidali zizkioten eta lehendakariak palkora joan zedin dei egin zion. Goardiek babesturik joan zen Kintana hotelera, Gaztelu–plazara, jendea atzetik oihuka zuela.

Joanito Kintana ostalariak gabardina bat utzi zion Cayetano–ri eta, traje distiratsuaren gainetik jantzita, atzeko atetik ihes egin zuen geltokira. Gero Altsasu–ko geltokian aldatu zituen erropak.

Uztailaren 11ko korridan Cayetano ez zen hain gaizki egon Francisco Villar–en zezenak toreatzen. Bederatzigarren zezena (Candido Diaz–ena) ere jokatu zen. Lalanda eta Ordoñez–ek gainera banderilak sartu zizkioten[24].

1926. urtean Iruñean Zezenzale–Elkarte berri bat sortu zen. Gaztelu–plazan *Txoko* tabernaren gainean zuen egoitza eta Joanito Kintana zen lehendakari[35].

Candido Tiebas tafallarak 1926. urtean nobillada gutxiagotan parte hartu zuen. Izan ere ia urte guztian gaixorik egon zen. Hala ere Gasteiz, Palma, Tafalla eta beste plaza batzuetan lan egin zuen.

Saturio Toron lizarratarra Nafarroan eta Aragoan banderilari gisa zebilen garai hartan, baina 1926. urtean zezenkoak hiltzen saiatu zen lehen aldiz. Abuztuaren 22an Zaragozan aurkeztu zen horretarako, Luis Saavedra eta Luis Morales–ekin batera Candido Diaz–en zezenkoak toreatzera. Toron lizarratarrak ez zuen arrakastarik lortu eta banderilaritzara itzuli zen berriro.

1926. urtean Baionako plazan Antonio Garcia Bustamante *Maravilla* estreinatu zen toreatzaile gisa. Hamabost urte besterik ez zituen gazte madrildar hark[3].

Akitaniako plazetan berriz, Gerard, *Mazantini*, Couralet eta Pontois taldeburuak zebiltzan Landetako erara toreatzen beren koadrilekin. Barrere, Coran, Grit eta Lafitte ganaduzaleen ardurapean zeuden hurrenez hurren[17].

Abelazkuntzari dagokionez, 1926. urtean Euskal Herriko abelgorriei buruz guztiz azterketa interesgarria argitaratu zen; Adolf Staffe austriarrak urte batzuk lehenago egindakoa hain zuzen[36].

---------- o ---------- o ----------

1927. urtean Bilbon martxoaren 13an hasi ziren nobilladak. Valladolid–eko Clemente Bazuque de Serrade–ren zezenko suharrak korritu zituzten. Zaldirik gabeko nobillada hartan Pedro Saenz *Pedriles* errioxarrak, Padilla-k eta Rodriguez Gázquez–ek parte hartu zuten, baina *Pedriles* bakarrik luzitu zen.

Martxoaren 20an Manuel Santos–en zezenkoak toreatzera Enrique Bartolomé, Pedro Sanz *Pedriles* eta Pedro Ipiñabeaskoetxea etorri ziren Bilboko Vista Alegrera. Azken biak bakarrik lortu zituzten txaloak zezen koldar haiekin.

1927.eko martxoaren 27an sei toreatzaileri eman zieten aukera Vista Alegren. Clemente Bazuque–ren sei zezenko, Fuentes–en bi eta Manuel Santos–en beste bi izan zituzten aurrean Lozano, Martinez, V. Delgado, Kortazar, Tomas eta Izquierdo–k.

Apirilaren 10ean beste nobillada bat eman zen Bilbon Antonio Garcia Pedrajas–en sei zezenko korrituta. Joan Markiaran *Fortuna txikia* (*Fortuna chico*), Francisco Vega *Gitanillo de Triana* eta Manuel Diaz *Torerito de Málaga* izan ziren ezpatariak. Zezenko noble haiekin *Fortuna txikiak* bakarrik erakutsi zuen ausardia, baina bere lehen zezenkoa hiltzerakoan zauriturik suertatu zen[1]. Baita Manuel Diaz ere[3].

Apirilaren 17ko nobilladan Juan Markiaran *Fortuna txikia*, Manuel Vilches *Parrita* eta Torres–ek Angoso–ren zezenkoak toreatu zituzten Bilboko Vista Alegren. Torres atera zen nagusi arratsalde hartan.

1927.eko apirilaren 24ean Antonio Fuentes–en lau zezenko korritu ziren Bilbon, Juan Martin–Caro *Chiquito de la Audiencia* eta Manuel Aguero bilbotarra ezpatari zirela. Martin–Caro–ren toreatzeko era artistikoa asko gustatu zitzaion jendeari. Ondoren, maiatzeko korridetako zezenak kaxoitatik aterata plazan erakutsi ziren.

Maiatzaren 1ean korrida eman zen Bilbon, San Fernando–ko Antonio Perez–en zezenak jokatuta. Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta Martin Aguero–k lan egin zuten. Marquez eta Villalta motel aritu ziren, baina Martin Aguero–ren adore eta ausardiaren eraginez hiru ezpatariek jendea oso pozik utzi zuten.

1927.eko maiatzaren 2ko korridan Antonio Marquez, Martin Aguero eta Fermin Espinosa *Armillita chico*k Graciliano Perez Tabernero–ren sei zezen hil zituzten Bilbon. Hirugarren zezena suharra izan zen, baina besteek gorabeherak izan zituzten. Lehenengoari suzko banderilak ipini zizkioten. Marquez eta Espinosa banderilak sartzerakoan bakarrik luzitu ziren. Martin Aguero ordea, kapaz eta muletaz oso ongi aritu zen. Horregatik jo zioten hainbeste txalo, nahiz eta ezpataz asmatu ez. Zezenek kanalean 280 kilo pisatu zuten batezbeste.

Maiatzaren 8ko nobillada mistoan Manuel Santos–en lau zezenko korritu ziren Bilboko Vista Alegren. *Charlot*ekin batera Ortega eta Jose Etxeberria bilbotarrek lan egin zuten.

1927. urteko maiatzaren 15ean Antonio Flores–en sei zezenko hil zituzten Julio Mendoza eta Manuel Vilches *Parrita*k Bilbon eta maiatzaren 17an Antonio Fuentes–en beste sei, Enrique Belenguer *Chatet*, Juan Martin–Caro *Chiquito de la Audiencia* eta Antonio Garcia *Maravilla*k. *Maravilla* lehen zezenkoak harrapatu egin zuen eta beste biek jendea oso pozik utzi zuten.

Maiatzaren 20an Bilboko tabernariek Manuel Santos–en lau zekor jokatu zituzten Vista Alegren. Gero maiatzaren 22an nobillada eman zen Jose Etxeberria, Pedro Saenz *Pedriles* eta Pedro Ipiñabeaskoetxea toreatzaile zirela. Jose Bueno–ren sei zezenkorekin lan egin zuten[1]. Hau da Ipiñabeaskoetxea arratiarraz dugun azken berria, baina bere ilobak aitortu zigunez, Pedrok *Sestaoko txikia* (*Chiquito de Sestao*) izena ere erabiltzen zuen, hango Babcok Wilcox enpresan lanean ari zelako. Bartzelonara toreatzera zihoala istripuan hanka hautsi eta zezenplazatatik orduan erretiratu omen zen.

1927.eko ekainaren 5ean korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Ekaineko eta iraileko korridak, Frantzisko Artiatx jaunak antolatu zituen urte hartan. Ekaineko bostekoan dena dela, Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*, Manuel del Pozo *Rayito* eta Joaquin Rodriguez *Caganchok* Jose Bueno–ren sei zezen suhar toreatu zituzten. Zezenek 291 kilo pisatu zituzten batezbeste kanalean. *Cagancho* ijitoari kapotez arte fin berezia ikusi zitzaion, baina gero muletaz beldurti ibili zen. *Niño de la Palma*k ordea, agintezko bi faena perfektu burutu zituen eta batean belarria eman zioten. *Rayito*k lanak txukun egin zituen, baina nortasun falta ikusi zioten. Zezen batek Jose Llona pikatzaile bilbotarra lurrera bota zuen eta Amado Avila–k fotografia famatu bat atera zion, momentu hura jasoz.

1927.eko ekainaren 12an nobillada eman zuten Bilbon Jose Bueno–ren zezenkoak jokatuta. Enrique Belenguer *Chatet*, Antonio Garcia *Maravilla* eta Juan Martin–Caro *Chiquito de la Audiencia* aritu ziren lanean.

Ekainaren 18an beste nobillada bat izan zen leku berean. Jose Bueno–ren zezenkoak plazaratu zituzten orduan ere, Manuel Aguero eta *Magrita*sek torea zitzaten.

Ekainaren 19an korrida ospatu zen Vista Alegren *Kotxerito* elkarteak antolaturik. Mari Chalbaud, Teresa Lanbarri, Maribi Artetxe eta Josefina Kareaga andereño bilbotarrak egon ziren lehendakaritzan. Salamanca–ko Santiago Sanchez Rico–ren sei zezen hil zituzten Rafael Gomez *Gallo*, Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* eta Felix Rodriguez–ek. Zezen haiek toreatzaileek asko estimatzen zituzten noble eta garbi jokatu ohi zutelako. Arratsalde hartan ordea, ez ziren onak

suertatu. Bigarrenari gainera suzko banderilak ipini zizkioten.

*Gallo*k laugarren zezenari oso faena bikaina osatu zion; dotorea eta berezia, bera bezalakoxea. Cayetano Ordoñez–i ere gauza politak ikusi zitzaizkion kapotez eta bere bigarren zezenean burutsu jokatu zuen muletaz. Felix Rodriguez–ek kapote, banderila eta muletaz lanean bazekiela frogatu zuen, nahiz eta Bilbon berria izan. Korridaren bukaeran bi zekor toreatu zituzten Villagodio–ko markesak eta *Pinotxo* Aburto–k.

1927.eko ekainaren 26an beste korrida bat eman zen Bilbon. Salamanca–ko Sanchez–en sei zezen toreatzera *Joselito* Martin, Luis Fuentes Bejarano eta Antonio Cañero etorri ziren. *Joselito* Martin–ek ez zuen laugarren zezenak eskainitako aukera aprobetxatu. Luis Fuentes Bejarano ere ez zen nabarmendu, baina Antonio Cañero bai. Hark zaldiz maisuki toreatu zituen zezen puntazorrotzak. Izan ere Cañero burtzikaria oinezko ezpatariekin batera sartzen zen zezenen zozketan. Antonio Cañero zaldunaren lana izan zen korridako gauzarik onena.

Ekainaren 29an Vista Alegren Jose Bueno–ren zezenkoak korritu zituzten. Enrique Belenguer *Chatet*, Manuel Aguero eta Juan Martin–Caro *Chiquito de la Audiencia* izan ziren ezpatariak. Uztailaren 3an berriz, Manuel Santos–en bost zekor toreatu zituzten trenbidetako langileek.

1927.eko abuztuaren 7an Vista Alegreko plazara hil hartako korridetarako zezenak kaxoi edo kaiolatatik atera zituzten, jendeari erakustearren. Alcaraz pintatzaileak egindako kartel iragarlea ere argitaratu zen, Bilboko abuztuko korriden berri emanez.

Abuztuaren 14ean jokatu zen lehen korrida Vista Alegren. Antonio Perez Tabernero–ren sei zezenetan bostgarrena bakarrik suertatu zitzaien suharra. Antonio Marquez, Pablo Lalanda eta Martin Aguero izan ziren ezpatariak, baina arrakasta lortutako bakarra Martin Aguero bilbotarra. Belarria irabazi zuen.

Abuztuaren 15ean Julian Fernandez–en (lehen Vicente Martinez–en) ganadua jokatu zuten. Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta Felix Rodriguez aritu ziren toreatzen. Lehen eta seigarren zezenak izan ziren onenak. Antonio Marquez zezen batek aireratu egin zuen eta ez zitzaion gauza onik ikusi. Ezta Villalta–ri ere. Felix Rodriguez izan zen txalotuena. Zezenek kanalean 314 kilo pisatu zituzten batezbeste.

1927.eko abuztuaren 21ean eman zen hurrengo korrida Bilbon. Andres Sanchez Coquilla–ren sei zezenetan lehen hirurak izan ziren onenak eta seigarrena koldarrena. Martin Aguero–k gogotsu lan egin zuen eta txalotua izan zen. Antonio de la Haba *Zurito* bere lehen zezenak harrapatu egin zuen eta Joaquin Rodriguez *Cagancho* ez zen ondo egon.

Abuztuaren 22an Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta Joaquin Rodriguez *Cagancho* aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren Pablo Romero–ren zezenak toreatzera. Hirugarren zezena bakarrik izan zen suhar eta noblea. Hiru ezpatariek ez zuten ezer berezirik egin. 323 kilo pisatu zuten zezenek batezbeste kanalean.

1927.eko abuztuaren 24eko korridan, Carmen de Federico–ren zezenak toreatzen Antonio Marquez, Nicanor Villalta eta Martin Aguero aritu ziren. Antonio Marquez–i laugarrenean jo zizkioten txaloak. Villalta ere ahalegindu zen zezen geldo haiekin. Martin Aguero–k zorterik ez zuen izan, baina bere adore eta borondatea eskertu zioten herritarrek.

Abuztuaren 25ean eman zen euriagatik 23an bertan behera utzitako korrida. Serafin Bigiola

Torkito, Nicanor Villalta eta Feliz Rodriguez ezpatariek Manuel Blanco–ren sei zezen noble eta suhar hil zituzten. *Torkito* eta Villalta–ren lanek maila ona izan zuten. Villalta, *Mayoral* izeneko bere bigarren zezenak oso larriki zauritu zuen. Vicente San Sebastian kirurgilariaren *faenari* esker salbatu zen. Hogeitamar korrida galdu zituen istripu harengatik toreatzaile aragoarrak. Felix Rodriguez–i txalo asko jo zioten bere ausardia eta arte klasikoagatik.

Abuztuaren 28an, beste korrida bat ospatu zen Conde de la Corte–ren ganadua plazaratuz. Lehen eta seigarren zezenak izan ziren onenak eta kanalean batezbeste 293 kilo pisatu zuten. Antonio de la Haba *Zurito*, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Felix Rodriguez aritu ziren lanean, baina lehen biak baino hobeto egon zen Rodriguez. Lehenengoan txalo asko jo zioten eta bigarrenean belarria irabazi zuen[1]. Clemente Rascón pikatzailea belaunean zauriturik suertatu zen[3].

1927.eko irailaren 25ean urteko azken korrida eman zuten Bilboko Vista Alegren. Andres Sanchez–en hiru zezen, Ignacio Antonio Sanchez–en bi eta Garcia Pedrajas–en bat plazaratu ziren. Juan Luis de la Rosa eta Jose Paradas–ek ez zuten ezer onik egin arratsalde euritsu hartan. Jose Llona pikatzaile bilbotarraren lana bikaina izan zen ordea, eta jendeak belarria zaldunarentzat eskatu zuen. Pedro Lekunberri burtzikari bizkaitarra ere txalotua izan zen.

Irailaren 10ean nobillada batez bukatu ziren Bilboko zezenfestak Vista Alegren. Jose Etxeberria, *Paquiro* eta *Charlot* batzuek lan egin zuten Antonio Sanchez–en sei zezen toreatuz[1].

Bilboko korrida eta nobilladatan, bertako Udal–bandak jo ohi zuen Jose Franco–ren zuzendaritzapean. Bederatzi urtez izan zen banda hartako zuzendari Franco maisua 1927.erarte. Besteak beste pasodoble asko konposatua dugu musikari hau: *Martin Aguero, Lekunberri, Gitanillo de Triana, Con garbo, Camino de Rosas* eta *Pitos y palmas* adibidez[2].

Euskal Herriko Txistularien Elkartea ere 1927. urtean sortu zen Arrate–n, eta Joseba Olaizola musikari famatua ere han zen. Txistu–bandarentzat hark musikatu zuen *Zezena dator* izeneko doinua[37].

Serafin Bigiola *Torkitok* 1927. urtean lau korrida bakarrik toreatu zituen Penintsulan[4], baina urte hasieran Ameriketan ibilia zen. Urtarrilaren 23an adibidez, Perun alternatiba eman zion Fernando Ruiz *Guerrillero*ri[3]. Apirilaren 17an, 24ean, maiatzaren 1ean eta 15ean, Rafael Rubio *Rodalito*rekin Bolivia–ko La Paz–eko Olimpic plazan toreatu zuen[6].

Faustino Bigiola *Torkito II*.a berriz, banderilari gisa hasi zen lanean alternatibari uko eginda. Hueska–n 1927.eko abuztuaren 11n estreinatu zen Luis Fuentes Bejarano–ren koadrilan banderilari moduan. Galapagar–en (Madrilen) eta Jaen–en larriki zauriturik suertatu zen urte hartan. Hurrengo hiru urteetan ere Luis Fuentes Bejarano–ren koadrilan lan egin zuen Faustino Bigiola bilbotarrak.

Diego Markiaran *Fortuna* gutxitan aritu zen toreatzen 1927.ean; hiru korridatarako bakarrik dei egin bait zioten.

Joan Markiaran *Fortuna txikia*k Madrilen ere toreatu zuen 1927.ean. Julio Mendoza eta Manuel Diaz *Torerito de Malaga*rekin Antonio Urkixo–ren zezenak hil zituen martxoaren 31n. Guztira 16 nobilladatan parte hartu zuen[3].

Joselito Martin bilbotarra ere 1927.ean gainbeheraka zihoan. Sei korridatarako dei egin

zioten orduan[4]. Haietako lau gainera Portugalen toreatu zituen.

Martin Aguero zegoen 1927.ean bere momenturik onenean. Bitan zauritua suertatu zen arren (behin ekainaren 7an Madrilen), berrogeitamabi korridatan parte hartu zuen. Madrilen urrezko belarria ere eman zioten Kazetari-Elkarteak antolatutako korridan irabazle ateratzeagatik. Maiatzaren 15ean Argimiro Perez Tabernero-ren zezenak Nicanor Villalta eta Francisco Vega *Gitanillo de Triana*rekin hil zituen. Udazkenean Mexiko-ra joan zen; han ere toreatzeko kontratatu bait zuten. Martin Aguero-k Jose Cantos *Barana* pikatzailea hartu zuen 1927.ean bere koadrilan[3].

Martin Aguero 1927.eko ekainaren 20an Bizkaiko Durangon bertako Ospitalearen alde zekorketa batean aritu zen[11].

Manuel Aguero bilbotarrak (Martin-en anaiak) Madrilen toreatu zuen nobillada bat Juan Martin-Caro *Chiquito de la Audiencia*rekin batera. Belarri eta buztanak eman zizkioten han.

Jaime Noain bilbotarrak gutxi toreatu zuen 1927.ean, baina arrakastatsua izan zen Burgos-eko nobilladan egindako lana.

Beste zezenko-hiltzaile batzuk ere toreatzen ari ziren 1927. urtean. Juan N. Barrera *Carita* izeneko bilbotarra adibidez oso nobillada apaletan ibili zen.

Kastor Etxeberria Txakaltegi barakaldarra, 1927.eko uztailaren 21ean Bartzelonan aurkeztu zen, Jose Gomez *Joseito de Málaga* eta Alfonso Gomez *Finito de Valladolid*ekin batera Palha-ren zezenkoak hiltzera. Oso gaizki egon zen barakaldarra. Gero irailaren 29an Sevillan toreatu zituen Sanchez Rico-ren zezenkoak Mariano Rodriguez eta Francisco Perlacia-rekin batera. Han ere ez zen luzitu.

Mariano Lopez bizkaitarrak uztailaren 14ean Zaragozan gauez toreatu zuen nobillada batean. Manuel Montero bilbotarrak ere lan egin zuen Zaragozan abuztuaren 28an, lehiaketa erako nobilladan.

Andres Ortega *Torerito de Bilbao* eta Julio Ortega bilbotarrak ere Bizkaian toreatzen ari ziren 1927.ean nobillada apaletan. Maila berean zihardueu Migel Peña *Fortuna III*.ak ere[3]. Gauza bera esan daiteke Bilbon bizi zen Antonio Ortiz *Ingles* toreatzaileari buruz ere.

1927.eko urriaren 22an, Barakaldo-n Enrike Oribe Galindo jaio zen; gero zezenko-hiltzaile famatu izango zena[25].

Azpeitian saninaziotarako 1927.ean Antonio Carratala eta Carlos Sussoni toreatzaileak iragarri ziren uztailaren 31ko nobilladarako eta Iglesias eta Sussoni biharamunerako[8].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo* 1927. urteko otsailean Ameriketatik itzuli zen eta apirilaren 17an Bartzelonan Braulio Lausin *Gitanillo de Ricla*rekin batera Florentino Sotomayor-en sei zezen toreatu zituen. Arrakasta lortu zuen eibartarrak orduan eta ondorioz beste zazpi korridatan parte hartzeko aukera ere bai[3]. Korrida haietako bat irailaren 25ean ospatu zen Madrilen, bide batez alternatiba sendotuz. Gabriel Gonzalez-en sei zezen ikaragarri plazaratu zituzten Serafin Bigiola *Torkito*, Pedro Basauri eta Bernardo Muñoz *Carnicerito de Málaga*k torea zitzaten. Serafin-ek *Pedrutxo*ri zezena hiltzeko tresnak utzi zizkionean, honako hau esan zion: *Tangoa dantzatzen dakizun bezain ongi torea dezazun opa dizut.* Izan ere dantzari ona zen eibartarra eta dantzalekutan ibiltzea gustatzen zitzaion. Bigiola eta Muñoz gaizki ibili ziren arratsalde hartan

Madrilen eta itxuraz aritutako bakarra Pedro Basauri izan zen[12].

Donostian 1927.ean urtarrileko sansebastianetan zezensuzkoa korritu zen gauean urteroko ohiturari jarraituz[34]. Txofreko plazan berriz, zuzendari-aldaketa egon zen 1927. urtean. Ordurarte Sabino Uzelaieta jaunak antolatu zituen hango korridak, baina urte hartan Eduardo Pagés jaunari eta bere partaide Gomez Velasco jaunei alokatu zieten zezenplaza. Aurrez Pagés jaunari esker Txofren korrida batean Antonio Cañero, Rafael Gomez *Gallo*, Juan Belmonte eta Ignacio Sanchez Mejías-ek batera lan egin zuten Donostian.

Eduardo Pagés, Bartzelonan jaio eta Donostian bizi zen. Enpresari bizkor hark, plazaren ardura hartu zuenean, *Urrezko zezena* izeneko saria ipintzea bururatu zitzaion. Mariano Benlliure eskultoreak eginiko urrezko irudi hura, korridan jokatutako zezenik onenaren jabeari ematen zitzaion, eta beste irudi bat ikusleen artean zozketatzen zen. Ikusle saridunak, urrezko irudia edo bost mila pezetako saria aukera zezakeen[12].

1927.ean Donostian Felix Rodriguez-ek ere toreatu zuen udako korrida batean. Pablo Tobajas pikatzailea ere urte hartan hasi zen lanean. Gero Pablo Martinez *Txopera* enpresariak erabiliko zuen berekin askotan[3].

Iruñean berriz, sanferminetan honako korrida hauek izan ziren 1927. urtean:

– Uztailak 7.– Santa Coloma-ko kontearen sei zezen, Antonio Marquez, Martin Agüero eta Manuel del Pozo *Rayito*rentzat. Aguero bilbotarrari belarri bat eman zioten eta *Rayito* goardiek babesturik atera zen plazatik.

– Uztailak 8.– Celso Cruz del Castillo-ren lau zezen, Antonio Marquez, Marcial Lalanda, Martin Aguero eta Manuel del Pozo *Rayito*rentzat[24]. Toledo-ko Maqueda herriko ganaduzaleak sei zezen bidali zituen. Seiak korritu ziren goizeko entzierroan, nahiz eta arratsaldean lau besterik toreatu ez. Beste biak uztailaren 11rako utzi zituzten Antonio Cañero burtzikariarentzat. Dena dela, uztailaren 8an goizeko entzierroan jende gutxi aritu zen korrika, baina plazaren barruan ezkutaleku baten ondoan Santiago Martinez Zufia izeneko peoia adarkatu zuen sabelean zezen batek eta arratsalde hartan hil egin zen[30].

– Uztailak 9.– Pablo Romero-ren sei zezen, Juan Belmonte, Marcial Lalanda (Antonio de la Haba *Zurito*ren ordez) eta Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*rentzat (Ignacio Sanchez Mejías-en ordez etorria). Ordoñez-ek belarria jaso zuen eta Santiago Martinez-en familiarentzat 4.500 pezeta bildu ziren korridan.

– Uztailak 10.– Jose Encinas-en zortzi zezen, Antonio Marquez, Pablo Lalanda (*Zurito*ren ordez), Martin Aguero eta Manuel del Pozo *Rayito*rentzat. Aguero-k bi belarri eta buztana irabazi zituen.

– Uztailak 12.– (Bezperakoa atzeratu egin zen euriagatik biharamunera). Cruz Castillo-ren bi zezen Antonio Cañero-rentzat (haietako batek hil zuen Santiago Martinez) eta Conde de la Corte-ren beste sei Antonio Marquez, Marcial Lalanda eta Joaquin Rodriguez *Caganchho*rentzat. Azken korrida hau izan zen Iruñeko onena. Hiru ezpatariak oso ongi aritu ziren beren bigarren zezenetan. *Cagancho* bere lehenengoan ere bai, baina ezpataz ez zuen asmatu. Bere bigarrenean ordea, zezenplaza hartan sekula egin den faenarik onena ikusi zela diote bertan izandakoek. Bi belarri eta buztana eman zizkioten *Caganchori*[24].

Iruñean ordea, 1927.ean zekorketa bat emana zen maiatzaren 29an Madrileko *Ciudad Universitaria*ren alde. Alaiza jaunen zekorrak toreatzen Iruñeko Zezenzale-Elkartekoak aritu ziren: Angel Rincón, Francisco Sotés, Pedro Txabarri *Oliteko mutila* (*Chico de Olite*), etab. Angel Garcia *Chelek* zuzendu zituen plazako lanak eta Txabarri olitearra nabarmendu zen toreatzen[35].

Moreno Alaiza–ren zezenkoak Zaragozan jokatu ziren ekainaren 5ean. Andres Martinez–ek parte hartu zuen. 1927.eko apirilaren 27an ere nobillada eman zuten Iruñeko zezenplazan. Bertan Antonio Navarro *Torerías*ek parte hartu zuen[3].

Nafarroan herri askotan jokatzen ziren (orain bezalaxe) larrabehi eta zezenkoak herriko festetan. Kaleetan nahiz herriko plazan burutzen ziren entzierro eta toreaketak[38]. Giro horretan toreatzen bertako jende asko hasi zen. Felix Buñuel *Finito de Navarra* izan zen haietako bat.

Candido Tiebas–ek ez zuen asko toreatu 1927.ean. Zaragozan maiatzaren 8an *Blanquito* eta Francisco Perlacia–rekin batera Ignacio Sanchez–en zezenkoak arrakastaz hil zituen, nahiz eta lepoan adarkada jaso[3].

Iruñean 1927.eko irailaren 27an emandako nobilladan, Konrado Espartza–ren zezenkoak toreatzen Pedro Txabarri *Oliteko mutila* eta Constantino Preciados aritu ziren.

Felix Santamaria *Rubito de Biana*, 1927.eko uztailaren 22an jaio zen aipatutako herrian. Gero zezenko–hiltzaile izatera iritsi zen[6].

Akitaniako Landetan berriz, urtero bezala Barrere, Coran, Larrouture eta Lafitte ganaduzaleek beren toreatzaile–taldeak erabili zituzten 1927. urtean, Gerard, Cantegrit II.a, Couralet eta Moreno taldeburu zirelarik[17].

1927.ean Madrilen korrida eta nobilladatako pikatzaileen zaldiak babestearren saiakuntza batzuk egiten hasi ziren. Hamar babes–eredu aurkeztu ziren, baina haietatik bost frogatu zituzten. Dena den, azkenean Esteban Arteaga jaunaren eredua onartu zen eta hurrengo urtean ezarriko zuten plaza guztitan[1]. Aldaketa harekin korridak ia gaur bezalako moldetara etorri ziren. Suzko banderilak (1950. urterarte iraun zuten) eta beste zertzeladaren bat edo beste bakarrik faltako ziren gaur eguneko korridekin parekatzeko.

———— o ———— o ————

1.928. urtean Bilbon martxoaren 11n ekin zioten zezenfestei. Injinerutza–ikasleek Manuel Santos–en lau zekor toreatu zituzten orduan.

Martxoaren 18an nobillada ospatu zen, Nemesio Villarroel–en zezenkoak jokatuz. *Finito*, *Montes* eta Jose Garcia Lopez *Maera II.a* izan ziren ezpatariak. Azkenekoak bakarrik lortu ziuten belarriak eta txaloak.

1.928.eko apirilaren 8ko nobilladan Palmella–ko dukearen zezenko portugaldarrak korritu ziren Bilboko Vista Alegren. Bitor Bigiola *Torkito III.a*, Andres Coloma *Clasico* eta Jose Garcia Lopez *Maera II.*ak parte hartu zuten. Bigiola eta Coloma luzitu ziren.

Apirilaren 22ko nobilladan Manuel Santos–en zazpi zezenko toreatzen Joaquin Caldentoy *Quinito*, Bejarano eta *Charlot* batzuk aritu ziren Bilbon. Apirilaren 29an berriz, Portillo–ren lau zezenko jokatu ondoren maiatzeko korridetarako zezenak erakutsi zituzten plazan[1]. Bitor Delgado bilbotarrak toreatu zuen zezenko bat, baina oso gaizki egon zen eta harez gero ez zuen ezer egin. Modesto Rodriguez bilbotarra ere toreatzen aritu zen arratsalde hartan[3].

1.928.eko maiatzaren 5ean eman zen urteko lehen korrida Bilboko Vista Alegren. Francisco Molina–ren zezen koldar eta geldoak (bostgarrena ezik) toreatzera, Martin Aguero, Julio Mendoza

eta Fermin Espinosa *Armillita chico* etorri ziren. Julio Mendoza venezuelarrari Aguero–k alternatiba eman zion eta bilbotarra zauriturik gertatu zen. Beste bi toreatzaileak txalotuak izan ziren. Zezenek batezbeste 258 kilo pisatu zuten kanalean. Lau ez ziren pisu minimora iritsi eta horregatik isuna ezarri zitzaion enpresari.

Maiatzaren 6ko korridan, Julian Fernandez–en sei zezen plazaratu zituzten, Fausto Barajas, Martin Aguero eta Manuel Martinez *Tigre de Ruzafa*k torea zitzaten. Zezen noble haiekin Fausto Barajas–ek txaloak lortu zituen. Aguero–k ausardia erakutsi zuen, baina gauzak ez zitzaizkion ongi atera. Martinez–i berriz, jakinduria eta nortasunik ez zioten ikusi.

1.928.eko maiatzaren 24ean Bilboko tabernariek zekorketa eman zuten Vista Alegren, Manuel Santos–en ganadua jokatuz. Maiatzaren 27an berriz, korrida eman zen leku berean. Portugaleko Palmella–ko dukearen abereak plazaratu zituzten Rafael Gomez *Gallo*, Rufino San Bizente *Begoñako txikia*, Luis Freg eta Diego Markiaran *Fortuna*rentzat.

Rufino San Bizente–ren despedidako korrida hartan, Rafael Gomez *Gallo* inspirazioz beterik aritu zen. Jendea erabat bereganatu zuen eta bere pase desberdin ugariak ikustearekin batera, txaloak eta musika entzun zitezkeen. Belarriak eman zizkioten. *Begoñako txikia*k zezen bakarra hil zuen eta hasieran nahiz bukaeran txalo ugari jo zioten. Luis Freg–i zezen itsusi, beltz, adarsardi eta maltzur bakar bat tokatu zitzaion. Harrigarriro toreatu zuen bere neurriz gaineko ausardiari esker. Belarria eman zioten. *Fortuna*k ere arratsalde ona izan zuen hura. Zezen bat oin–hegazka hiltzen luzitu zen batez ere. Kapote eta muletaz ere ongi egin zuen lana eta azkenean belarria bereganatuta atera zen plazatik[1]. Rufino San Bizente gero Ameriketara joan zen eta bederatzi urte geroago Kolombian toreatu zuen[4].

1.928.eko ekainaren 3an, Coquilla–ren zezenak jokatu ziren Bilbon. Manuel Jimenez *Chicuelo* eta Marcial Lalanda ezpatariek parte hartu zuten Toreatzaileen Montepio–ari laguntzeko korrida hartan. *Chicuelo*, zezenko–hiltzaile gazte baten antzera ibili zen. Bere bigarren zezenean hiru natural bikain osatu zituen. Marcial Lalanda–k ere izan zituen momentu onak, baina *Chicuelo*ren ondoan bere maila apalagoa zen inola ere.

Ekainaren 10ean zezenfesta misto batean Salas–en alargunaren lau zezen atera zituzten Bilbon Jose Onde *Gitanillo II de Ricla*, Jose de la Rosa eta *charro* mexikar batzuentzat. Lehen biak arratsalde hartan aurkeztu ziren Bilbon eta ez zuten ezer berezirik egin. Mexikarrek bai ordea, beren zaldizko toreaketa akrobatikoari esker.

1.928.eko uztailaren 1ean Fabian Mangas–en zezenkoak korrituta, Juan Martin–Caro *Chiquito de la Andiencia*, Ricardo Gonzalez eta Enrique Belenguer *Chatet*ek parte hartu zuten pikatzailedun nobillada hartan.

Uztailaren 8an Manuel Santos–en lau zekor eta Nemesio Villarroel–en bat toreatu zituzten, Vista Alegren emandako *charlotada* batean. Uztailaren 10ean berriz, Manuel Santos–en zekorrak jokatu ziren Bilbon, gidariak toreatzaile izanik.

1.928.eko abuztuaren 19an eman zen Vista Alegren hurrengo korrida Julian Fernandez–en zezenak jokatuz. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Manuel Martinez eta Enrique Torres izan ziren ezpatariak. Enrique Torres–ek bakarrik lortu zuen zertxobait, bere lanari esker arratsalde hartan. Zezenek 314,5 kilo pisatu zuten batezbeste kanalean.

Abuztuaren 20ko korridan, Nicanor Villalta, Francisco Vega *Gitanillo de Triana* eta Enrique Torres aritu ziren Bilbon Mihuraren zezenak toreatzen. Zezenek ahul eta bigun jokatu zuten plazan. Hirugarrenari *txanoa* ezarri zitzaion adar batean arrasterakoan[1]. (Suzko banderilak baztertzen zituen arautegia argitaratua bait zen ekainaren 15ean, baina sortutako kritiken ondorioz, bi urte geroago Errepublikan *txanoa* baztertu eta suzko banderiletara itzuli ziren[7]. 1.950. urterarte iraun zuten suzko banderilek).

Nicanor Villalta–ri ez zitzaion ezer berezirik ikusi, *Gitanillo de Trianari* distiraren bat bakarrik kapotez eta Enrique Torres–ek (bezperan bezala Felix Rodriguez–en ordez etorrita) legea betetzea besterik ez zuen egin. Zezenek 321 kilo pisatu zuten batezbeste kanalean.

Biharamunean, 1.928.eko abuztuaren 21ean, Manuel Blanco–ren sei zezen eta Gabriel Gonzalez–en bat korritu zituzten Bilbon, Nicanor Villata, *Gitanillo de Triana* eta Mariano Rodriguez ezpatari zirela. Blanco–ren hiru lehen zezenak ongi portatu ziren eta Nicanor Villata ere bai bere lehenengoan. Francisco Vega–ri ez zioten ez adore eta ez ausardiarik ikusi. Mariano Rodriguez–ek berriz, ezpataz huts egin zuen.

Abuztuaren 22ko korridan, Pablo Romero–ren lau zezen jokatu zituzten Bilbon. Beste biak, ordea, Salamanca–ko Ignacio eta Antonio Sanchez–enak izan ziren. *Chicuelo*, Antonio Marquez eta *Gitanillo de Triana* toreatzaileek oso arratsalde ona izan zuten, baina guztiak hautsi zituena Antonio Marquez izan zen. Hark belarria lortu zuen korrida eder hartan.

1.928.eko abuztuaren 23an, plaza jendez gainezka zelarik, Carmen de Federico–ren sei zezen hil zituzten Bilbon *Chicuelo*, Villalta eta Antonio Marquez–ek. Zezenak, satai onekoak, nobleak eta suharrak izan ziren, baina *Chicuelo*k luzitzerik ez zuen lortu. Antonio Marquez ezinhobeto aritu zen kapotez, baina bostgarren zezena bere taldeko Molina zaldunak gehiegi pikatu zuelako jendea haserretu egin zen. Nicanor Villalta Martin Agüero–ren ordez ekarri zuten, eta txaloak entzun zituen bere gogo eta ausardiagatik.

Hurrengo korrida abuztuaren 26an eman zen Bilbon, Conde de la Corte–ren bost zezen eta Salamanca–ko Ignacio eta Antonio Sanchez–en bat plazaratuz. Fausto Barajas, Manuel del Pozo *Rayito* eta Fermin Espinosa *Armillita chico* toreatzaileek ez zuten ezer egin zezen txiki eta suhar haiekin[1]. Denetan suharrena *Contador* izenekoa izan zen[7].

1.928.eko irailaren 15ean ospatu zen Bilbon urteko azken korrida. Kazetari–Elkarteak antolatu zuen korrida goiesko hura. Jenaro Urrutia, Rikardo Arrue eta Antonio Gezala pintatzaileek apaindu eta edertu zuten plaza (zezentokia, barrerak, palkoak, etab.). Antonio Perez Tabernero–ren zezenak korritu ziren; zezen argal eta txikiak. Baten ordez Villagodio–ren beste bat atera behar izan zuten. Diego Markiaran *Fortuna*, Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Vicente Barrera aurkeztu ziren lan egitera. *Fortuna*k bere bi zezenetan ez zuen gauza handirik egin eta Barrera zauritu zelako hildako seigarrenean ere ez. Ezpataz ederki hil zuen; hori bai. *Valencia II.*ari faena biribila atera zitzaion bere lehenengoan, eta ongi hil zuelako bi belarriak eman zizkioten. Bostgarrenean berriz, nola edo hala amaitu zuen lana. Izan ere behin baino gehiagotan ibili zen lurrean zezenak harrapatuta. Vicente Barrera zezen batean bakarrik ikusi zuten bilbotarrek. Izan ere bere faenan ari zela zezenak airera bota zuen eta buruz behera erori zen. Zauri larririk gabe libratu zen dena dela[1]. *Taponero* izeneko zezen suharrak aireratu zuen hain zuzen[7].

Irailaren 23an, Augusto Perogordo (Montoya) ganaduzalearen zezenkoak plazaratuta, Manuel eta Jose Mejías *Bienvenida* anaiek toreatu zuten Bilbon.

1.928.eko urriaren 12an nobillada misto batez eman zitzaien amaiera Bilbon urteko zezenfestei. Fidel Rubio-ren hiru zezenkoren aurrean Etxebarriak, *Ocejito* eta tiratzaile algeriar batzuk lan egin zuten[1].

1.928. urteko eta Bizkaiko toreatzaileei buruz lehenbizi aipatu beharreko gauza Kastor Jauregibeitia Ibarra *Bilboko kotxeritoa*ren heriotza da. Guadarrama-ko sendategian hil zen (Navacerrada-n) otsailaren 27an[4] eta San Fernando de Henares-eko hilerrian lur eman zioten[2].

Diego Markiaran *Fortuna*k zorte hobea izan zuen 1.928. urtean aurrekoan baino. Guztira hamahiru korridetarako dei egin zioten, baina korridarik xelebreena urtarrilaren 23an Madrileko kaleetan ikusi zen. Hiltegira ganadua zeramatela, Carabanchel Bajo-n zezen suhar batek ihes egin zuen eta Madrilera sartu zen kaleetan zehar jendea harrapatu eta zaurituz. Leganitos kalean emakume bat larriki zauritu zuen.

Goizeko zortziez gero zebilen libre eta hamaiketan Conde de Peñalver-en hiribidean (Gran Via-n) agertu zen; Diego Markiaran *Fortuna* zegoen inguruan hain zuzen. Bizkaitarrak bere berokia soinetik kendu eta zezena kalean geldi erazi egin zuen, bere etxetik ezpata berehala ekar zezaten eskatuz. Kale bustian arriskutan aritu zen *Fortuna* toreatzen, ezpata ekarri zuten arte. Orduan goi-goian sartu zion altzairua erdiraino eta ezpata berarekin deskabellatu zuen lehen kolpean. Inguruko jendea txaloka eta mukizapiak aterata belarria eskatzen hasi zen. Belarria ez eta Benefizentzi Gurutzea eman zioten *Fortuna*ri bere ekintzagatik.

Gero, urriaren 11n, Kazetari-Elkartearen korrida ospatu zen Madrilen, Aleas-en eta Veragua-ren (lau eta lau) zezenak jokatuz. Diego Markiaran *Fortuna*, Victoriano Roger *Valencia II.a*, Nicanor Villalta eta Edmundo Maldonado *Tato de México* (alternatiba orduan hartu zuen) izan ziren ezpatariak. Nicanor Villalta-k *Fortuna*ri Benefizentzi Gurutzea jakatxoan ipini zion eta gainerako toreatzaileek zorionak eman zizkioten. Gero laugarren zezenean (Aleas-ena zen), bi belarriak lortu zituen[3].

Joselito Martin bilbotarrak 1.928. urtean ez zuen zorte handirik izan. Bost korridatan bakarrik aritu bait zen lanean.

Martin Aguero Ereño bilbotarrarentzat ere urte txarra izan zen 1.928.a. Hemeretzi korrida toreatu zituen eta azkenean fisikoki ez zebilen ongi bere zauriak medio. Izan ere maiatzaren 20an Madrilen Hernandez-en ondorengoen zezen batek[4], *Aceitero* izenekoak hain zuzen[2], eskuineko izterrean eta oinean zauritu zuen. Alba del Rio-ko zezen hura Luis Fuentes Bejarano-k hil zuen[39].

Martin Aguero hilabete baino gehiago aritu zen mediku artean sendatu ezinik. Zauri hark herren utzi zuen eta hogeitabat urte geroago (1.949-VIII-12an) azkenean hanka hura moztu egin zioten. Jimenez Guinea doktoreak moztu ere Madrilen Toreatzaileen Sendategian[5].

Dena dela 1.928.ean Madrileko istripuaren ondoren Martin Aguero-k Burgos-en toreatu zuen ekainaren 29an. Abuztuaren 5ean ordea, Baionan zauriturik suertatu zen berriro Clairac-en zezen bat toreatzen ari zela. Beste hilabetez geldirik egon behar izan zuen ostera[4].

Serafin Bigiola *Torkito*k bi korridatan bakarrik parte hartu zuen 1.928. urtean eta langitza hartatik erretiratzea bururatu zitzaion. Manuel Montero zezenko-hiltzaile bilbotarra ere 1.928.ean desagertu zen zezenplazatatik, Kastor Etxebarria Txakaltegi barakaldarra bezalaxe.

Jaime Noain bilbotarra berriz, dotzenaren bat nobilladatan bakarrik aritu zen 1.928.ean eta

aurrerapenak lortu ezinik zebilen[3].

Nemesio Bilbao *Txapoli* (edo *Chapoli*) zezenko-hiltzailea Bilbon bizi zen eta 1.928. urte inguruan inoiz edo behin nobillada apaletan parte hartu zuen[5].

Bilboko zezenfestetan, bertako Udal-bandak jotzen zuen musika. Bandak ordea 1.928. urtean Jose Gaintza eta Pedro de Cordoba jaunak zituen zuzendari, aurreko urtean Jose Franco-k utzitako lekua betetzearren izendatu zituztelako[2].

Urte hartan bestetik, Bilbon *La Hostería del Laurel* izeneko tabernan biltzen ziren zezenzale batzuk elkarte bat sortu nahi izan zuten. Sabino Intxaurtza jaunak *Cagancho* izena proposatu zuen elkarte berriarentzat, baina Bilboko Zezenzale-Kluba (Club Taurino) ipini zioten azkenean. Apirilaren 22an aukeratu ziutzten Batzorde Zuzentzaileko partaideak. Jose M. Eskauriaza zen lehendakaria[1].

1.928. urtean Azpeitiko saninaziotan bi nobillada eman ziren ohiturari jarraituz; uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean hain zuzen. Albentos-en zezenkoak toreatzera Antonio Carratala eta Edmundo Maldonado *Tato de Mejico* ekarri zituzten. Carratala-k lehen egunean lehen zezenkoan txaloak entzun zituen, baina gainerakoan txistuak ugari. Baita Maldonado mexikarrak ere[8].

Urola bailaran Zestoan urtero ospatzen ziren nobilladak oraintxe bezala herriko plaza itxita. Ama Birjina irailekoan herriko festetako ikuskizunak, besteak beste, honako hauek ziren: pilota-partiduak frontoian eta dantzariak nahiz zezenak herriko plazan. Zestoako Bainuetxeak 1.928. urtean egindako filme batean ederki ikus daitezke herriko festa haiek. Dantzarien ondoren zezenkoak jokatzeak, Iztueta idazle zaldibitarrak Gipuzkoako herriez mende t'erdi lehenago esana gogorarazten du.

15.6. irudia. Toreatzaile zestoarrak aurkezpenerako prest 1.928.eko festetan.

Errenterian berriz, zezenplaza biribil berria egiteko ideia zuten batzuek 1.928. urtean. Bertako industrial eta Udalak elkarlanean plaza eraikitzea proposatzen zen[40]. Dena dela, proiektu hura ez zen burutu.

Pedro Basauri eibartarra 1.928. urtean toreatzen ari zen. Bederatzi korridatan parte hartu zuen. Bat ezik, beste korrida guztiak Bartzelonan eta Frantzian toreatu zituen[3].

Donostian ere urtero bezala eman ziren korridak 1.928.ean Txofren, Eduardo Pagés-ek antolatuta. Tovar-eko dukearen *Almejito* izeneko zezen urdinak atera zuen *urrezko zezena* saria; Benlliure-k egindako urrezko irudia alegia[12].

Iruñean 1.928.eko sanferminetan entzierroak goizeko zazpietan eta korridak arratsaldeko bost t'erdietan eman ziren, bertako Errukietxeak antolaturik. Hona hemen urte hartako kartelak:

- Uztailak 7: Conde de la Corte-ren sei zezen Marcial Lalanda, Martin Aguero eta Fermin Espinosa *Armillita chico*rentzat.
- Uztailak 8: Peñalver-en zortzi zezen, Antonio Marquez, Marcial Lalanda, Martin Aguero eta *Armillita chico*rentzat.
- Uztailak 9: Flores-en (lehen Braganza-ko dukearen) lau zezen probarako, Marcial Lalanda, Martin Aguero, Francisco Tamarit *Chaves* eta *Armillita chico* ezpatarientzat.
- Uztailak 10: Jose Encinas-en sei zezen Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*, Joaquin Rodriguez *Cagancho* eta Francisco Vega *Gitanillo de Triana*rentzat.
- Uztailak 11: Pablo Romero-ren zortzi zezen, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Marcial Lalanda, *Niño de la Palma* eta *Gitanillo de Triana* toreatzaileentzat[13].

Nafarroan Candido Tiebas tafallarra zuten 1.928.ean toreatzen ari zen zezenko-hiltzaile bat. Zaragozan bakarrik lan egin zuen ordea urte hartan, irailaren 8an, eta erretiratzea erabaki zuen[3].

Tuteran, 1.928.eko maiatzaren 15ean, Isidro Marin Arnedo jaio zen; gero bere anaia Julian bezalaxe zezen-hiltzaile izango zena[25].

1.928. urtean, Juan Cobaleda-k Salamanca-n zituen nafar-kastako azken zezenak salduta plazan korritu ziren. Espoz y Mina-ko konteari erosita zituen (Karrikiri jatorrikoak alegia) Cobaleda-k nafar-zezenak[16].

1.928.ean Baiona eta Akize-n ere eman ziren korridak. Baionan Martin Aguero eta Pablo Lalanda-k behintzat lan egin zuten[3], eta Akize-n abuztuaren 26an Jose Encinas-en *Gitano* izeneko zezena nabarmendu zen bere suhartasunagatik[7]. Akitanian bestetik, Landetako erara asko toreatzen zuten 1.928.ean. Barrere, Coran, Larrouture eta Lafitte ganaduzaleak beren behi-talde eta toreatzaileekin ibili ziren plazaz plaza. Toreatzaile-koadrilen buru Gerard, Cantegrit II.a, Pontois eta Mongis zebiltzan urte hartan[17].

———— o ———— o ————

1.929. urteko berriei Bilbotik hasita ekingo diegu. Han martxoaren 17an eman zen urteko lehen nobillada, Palmella-ko dukearen zezenkoak korrituta. Ricardo Gonzalez, Manuel Aguero bilbotarra eta Alejandro Izquierdo izan ziren ezpatariak.

Apirilaren 7an ospatu zen bigarren nobillada Bilbon. Eduardo Pagés enpresariaren zezenkoak

toreatu zituzten Francisco Gomez *Aldeano*, Joan Markiaran *Fortuna txikia* sestaoarra eta Kastor Etxebarria barakaldarrak.

1.929.eko apirilaren 21ean beste nobillada bat eman zuten Bilboko Vista Alegren, Diego Zaballos–en zazpi zezenko plazaratuta. Martin Bilbao bilbotarra, Manuel Perez *Vito* eta *Charlot* batzuk aritu ziren toreatzen.

Apirilaren 21ean ospatu zen hurrengo nobillada Bilbon. Mariano Bautista–ren zezenkoak Jaime Noain, Manuel Aguero eta Guillermo Martin Diaz izan ziren toreatzaileak.

1.929.eko maiatzaren 2an urteko lehen korrida ikusi ahal izan zuten Bilboko Vista Alegren. Rafael Lamamie de Clairac–en zezenak hil zituzten Victoriano Roger *Valencia II.a*, Felix Rodriguez eta Vicente Barrera–k. Eguraldia euritsua zegoen eta *Valencia II.*a bere bigarrenean egon zen ondo. Feliz Rodriguez adorerik gabe ibili zen. Vicente Barrera ordea, nahiz eta zezenik txarrenak tokatu, maisu handiaren mailan aritu zen lanean; bai muletaz eta bai ezpataz. Zezen baten belarria eta bestearen biak eta buztana lortu zituen Barrera–k; dirudienez Bilbon emandako lehenengoa. Zezenek 284 kilo pisatu zituzten batezbeste kanalean.

Maiatzaren 5ean bigarren korrida jokatu zen Vista Alegren, Conde de la Corte–ren zezenak plazaratuta. Victoriano Roger *Valencia II.a*, Antonio Marquez eta Martin Aguero–k luzitzeko biderik ez zuten izan zezen koldar haiekin. *Valencia II.*aren beronika batzuk bakarrik izan ziren azpimarragarriak.

1.929.eko maiatzaren 19an Manuel Santos–en sei zezenko toreatzera lankide berriak, *nobel*ak, etorri ziren Bilboko Vista Alegrera. Maiatzaren 25ean berriz, nobillada mistoan Esteban Arias *Niño de Embajadores*, Arturo Marzal *Cerrajillas* eta Rafael Dutrus *Llapisera* komikoak lan egin zuten.

Maiatzaren 30eko nobilladan Bilbon Antonio Garcia Bustamante *Maravilla*, Emilio Rangel *Niño de la Audiencia* eta Jose Aguero Ereño aritu ziren Leopoldo Abente–ren sei zezenko toreatzen. Zezenko suhar haiekin *Maravilla*k ez zuen ezer berezirik egin. Laugarrenak aireratu egin zuen toreatzailea. Rangel–ek bere lehenengoa gaizki hil zuen eta txistuak jo zizkioten. Bostgarrenean ordea, gauzak ongi atera zitzaizkion eta bi belarriak bereganatu zituen. Jose Aguero bilbotarra (Martin–en anaia), arratsalde hartan aurkeztu zen lehen aldiz pikadoredun nobilladara eta azterketa hura airoso pasatu zuela esan behar. Izan ere hirugarren zezenkoan belarria eman zioten. Seigarrenean berriz, txaloak entzun zituen.

1.929.eko ekainaren 9an beste nobillada bat eman zen Bilbon Luziano Bilbao *Lunares* banderilari igorretarraren alde dirua biltzearren. Luziano Bilbao–ren despedida zen hura. Lamiako–n (Leioan) tabernatxo bat ipintzera zihoan banderilak betirako utzita. Bezperan eta goizean ordea euria egin zuen eta jende gutxi bildu zen plazara.

Lopez Chaves–en zezenkoak handiak, adarluzeak eta koldarrak izan ziren. Bitor Bigiola *Torkito III.a*, Jaime Noain eta Juan Markiaran *Fortuna txikia*k toreatu ziutzten. Bigiola–k ez zuen asmatu arratsalde hartan. Jaime Noain–ek ezpataz huts egin zuen eta *Fortuna txikia*ri ofizioa ikasia zuela ikusi zitzaion. Andres Calabia, Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* eta Severiano Ramos *Ramitos* banderilariak luzitu egin ziren. Jose Llona pikatzaileak ere lan egin zuen.

Ekainaren 16an korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Serafin Bigiola *Torkito*, Joaquin Rodriguez *Cagancho* eta Vicente Barrera–k parte hartu zuten Jose Encinas–en zezenak toreatuz. Serafin Bigiola–ren despedida zen korrida hura, eta zezenak batezbeste nobleki portatu ziren.

Laugarrenari *txanoa* ipini zioten adarrean arrasterakoan (suzko banderilak debekaturik bait zeuden urte hartan. Hurrengoan onartu ziren berriro). *Torkito*ri toreaketa fin eta dotorea ikusi zitzaion, bai kapotez eta bai muletaz bere lehenengoan eta txaloak entzun zituen. Laugarrenari, koldarrenari, faena laburra burutu zion. Txalo asko entzun zuen azkenean Bilboko Iturrigorri–n bizi zen barakaldarrak.

Caganchok ez zuen ezer egin bere lehenengoan eta bostgarrenean ere ez zezenari hanka hautsi zitzaiolako. Txistuak jo zizkioten horren ondorioz. Vicente Barrera–ri gauzak hobeto atera zitzaizkion; seigarrenean batez ere.

1.929.eko ekainaren 30ean nobillada mistoan Diego Zaballos–en zezenkoekin Esteban Arias *Niño de Embajadores*, Arturo Marzal *Cerrajillas* eta Rafael Dutrus *Llapisera* aritu ziren lanean.

Uztailaren 7ko nobilladan, Sabino Flores–en sei zezenko toreatu zituzten Eduardo Hueso *Gordillo*, Manuel Aguero eta Emilio Rangel *Niño de la Audiencia*k Bilbon.

Uztailaren 14eko nobillada mistoan, Manuel Santos–en bost zezenko plazaratu ziren Vista Alegren. Jose Etxeberria bilbotarrak, Angel Rey Conde balmasedarrak eta *forcado* portugaldarrek parte hartu zuten.

1.929.eko abuztuko korridak hilaren 18an hasi ziren Bilbon. Orduerdia atzeratu zen korridaren hasiera euriagatik eta Martin Aguero, Francisco Vega *Gitanillo de Triana* eta Vicente Barrera Julio Fernandez–en zezen nobleak toreatzen aritu ziren. *Gitanillo de Triana* eta Barrera, adorerik gabe, egia esan. Martin Aguero–ri bakarrik jo zizkioten txaloak bere gogo eta ausardiagatik. Zezenek 318 kilo pisatu zuten batezbeste kanalean.

Abuztuaren 19ko korridan Mihuraren zezenak plazaratu zituzten Vista Alegren. Erabilgarriak ziren engainuz, baina ez Victoriano Roger *Valencia II.a*k eta ez *Gitanillo de Triana*k erakutsi zuten lanerako gogo handirik. Felix Rodriguez bakarrik salbatu zen geldotasun hartatik, bere ausardiaren eta artearen berri emanez. Zezenen pisua, 312,5 kilo batezbeste kanalean.

Abuztuaren 20ko korridan Manuel Blanco–ren zezenak jokatu ziren; geldotasun–apur bat zuten zezenak jokatu ere. Martin Aguero–ri borondatea eta ausardia ikusi zitzaion. Felix Rodriguez–ek kapotez eta muletaz luzitzea lortu zuen, baina ezpataz ez. *Gitanillo de Triana* ezer egin gabe atera zen plazatik.

1.929.eko abuztuaren 21ean Pablo Romero–ren zezen ederrak ikusi ziren Vista Alegreko hondarrean. Lehenengoari bere sataiagatik buelta eman zitzaion arrasterakoan eta seigarrenari ere bai, bere zangartasunagatik. Martin Aguero Antonio Marquez–en ordez atera zen, eta egia esan, arratsalde biribila izan zuen. Lehenengoan buelta emanez txalo ugari entzun zuen eta laugarrenean oso hurbiletik toreatu eta oso bikain hil ondoren bi belarriak eman zizkioten. *Gitanillo de Triana* eta Vicente Barrera–k aitzitik, txistuak entzun zituzten. 337 kilo pisatu zuten zezenek batezbeste kanalean.

Abuztuaren 22an eta Vista Alegreko plaza erabat beterik zela, Carmen de Federico–ren zezen ederrak (itxuraz, portaeraz ez hainbeste) toreatzera Diego Markiaran *Fortuna* (Antonio Marquez–en ordez), Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Felix Rodriguez aurkeztu ziren. *Fortuna*k batean legea bete eta bestean belarria lortu zuen, ezpata bikain sartuta. Victoriano Roger gogoz aritu zen, baina luzimendurik gabe. Felix Rodriguez izan zen artistena, bai kapotez eta bai muletaz. Ezpataz ez ordea.

1.929.eko abuztuaren 25ean eman zen hileko azken korrida Bilbon, plaza leporaino beterik zela. Felix Moreno Ardanuy–ren zezen eder eta suharrei *Fortuna, Valencia II.a* eta Martin Aguerok aurre egin zieten. Bigarren zezenari arrasterakoan buelta eman zioten[1]; *Granadino* izenekoari. Hirutan zaldia lurreratu zuen eta bat hil[7]. *Fortuna*ri (Marquez–en ordez etorria zen) ez zitzaizkion gauzak ongi atera. Victoriano Roger–i ausardia bakarrik ikusi zioten eta Martin Aguerok bakarrik lortu zuen arrakasta, belarri bat irabaziz.

Irailaren 15ean, Bilboko Kazetari–Elkarteak antolatutako korridan Diego Markiaran *Fortuna* eta Martin Aguero ezpatari bizkaitarrak buruz buru aritu ziren Alipio Perez Tabernero–ren lau zezen eta Soler–en alargunaren beste bi toreatzen. Euskal Artisten Elkarteak plaza apaindu zuen, Bilboko armarria marraztuz.

Antonio Perez Tabernero–ren zezenak koldar portatu ziren. Soler–en alargunaren biak, Joan Manzarbeitia–k ekarri zituen abuztuko korridetarako ordezko gisa. Itxuraz baldarrak eta portaeraz koldar samarrak izan ziren. *Fortuna*k bere lehenengo arriskutsu hura maisuki menperatu eta hil zuen, belarria lortuz. Gainerakoan animo handirik gabe ikusi zuten sestaoarra. Martin Aguero ordea, batekoz bestera, nahiz eta Madrilen jasandako adarkadaren ondorioz sasoi onean egon ez. Bere hiru zezenak oso hurbiletik pasatu zituen eta ondoren dotore hil ere bai. Seigarrenaren bi belarriak eman zizkioten, eta urrezko ezpata gainera saritzat.

1.929.eko irailaren 29an nobillada ospatu zen Bilboko Vista Alegren, Alipio Tabernero Sanchon–en sei zezenko jokatuta. Saturio Torón, Sidney Franklin eta Manuel Aguero bilbotarra aritu ziren haiek toreatzen. Manuel Aguero izan zen hiruretan onena. Zezenkoak gutxi eta gaizki pikatu zituztelako gero ezpatariak gaizki ibili ziren. Manuel Aguero–ri horregatik laugarren zezenkoaren faena luzatu egin zitzaion eta abisu bat entzun zuen. Sidney Franklin amerikarraren (New York–eko Brooklyn–en jaioa zen) lana barregarri samarra izan zen eta jendeak azkenean txantxetan txaloak jo zizkion. Saturio Torón nafarrari banderilak ipintzeko erraztasun handia ikusi zioten, baina gainerakoan bere lanak toreaketa baino gehiago burruka zirudien. Kolpatua izan zen eta erizaindegitik ez zen itzuli.

Urriaren 6an Zalduendo–ren nafar–zezenkoak korritu ziren Bilbon. Enrique Bartolomé, Daniel Obón eta Jose Etxebarria bilbotarrak hil zituzten.

1.929.eko urriaren 13an eman zen Vista Alegren urteko azken nobillada. Toreatzaile *nobel*ak Manuel Santos–en zazpi zezenkorekin saiatu ziren[1].

Diego Markiaran *Fortuna*k 1.929.ean hamalau korridatan hogeitabederatzi zezen hiltzea lortu zuen[4]. Madrilen korrida batean Heriberto Garcia mexikarrari alternatiba sendotu zion, Luis Fuentes Bejarano–ren aurrean Mihuraren *Viñadero* izeneko zezena hiltzeko tresnak utziz.

Martxoaren 31n Madrilen bertan Julio Garcia *Palmeño*ri sendotu zion alternatiba. Florentino Sotomayor–en *Jabato* zezena hiltzeko trasteak Pablo Lalanda–ren aurrean eman zizkion arratsalde hartan.

Diego Markiaran–en iloba, Joan Markiaran *Fortuna txikia*, nobilladatan toreatuz fama lortu ezinik zebilen 1.929.ean. Urte hartan Madril, Bilbo, Trujillo, Melilla, Villatobas, Lorca eta Tetuan–en lan egin zuen. Madrilen martxoaren 3an Bernaldo de Quirós–en zezenkoak hil zituen Luis Prados *Litri II.a* eta Pedro Montes–ekin batera. Uztailaren 21ean berriz, Miguel Palomino eta Migel Olza *Vaquerin* iruindarrarekin osatu zuen kartela, Madrilen Enriqueta de la Cova–ren

zezenkoak hiltzeko. (Migel Olza Zunzarren *Vaquerin* 1.920. urtean jaioa zen eta 1.924ean estreinatu zen Madrileko Talamanca de la Sierra–n nobillada batean. Geroztik Tetuan de las Victorias–eko plazan asko toreatu zuen. Carabanchel–eko plazan 1.927.ean aurkeztu zen eta Madrileko plaza nagusian 1.928.ean).

1.929. urtean Julio Merodio *Fortuna II.a* izeneko toreatzaile santoñar batek ere parte hartu zuen nobillada batean Boraque–n.

Bitor Bigiola *Torkito III.a* ere nobilladatan ari zen 1.929.ean. Madrilen abuztuaren 29an toreatu zuen Cecilio Barral eta Rafael Garcia–rekin Palha–ren zezenko portugaldarrak hilez.

Alejandro Saiz *Ale* bilbotarrari gauza xelebrea gertatu zitzaion 1.929. urtean. Albiste–agentzia batek Mexikon Jalisco Estatuko Ocotland–eko plazan zezen batek hil egin zuela adierazi zuen. Bilbon hiletak egin zizkioten, eta gero jakin zen bere adarkada garrantzirik gabekoa zela eta oso bizirik zegoela[3].

Joselito Martin bilbotarrak 1.929.ean ia lanik ez zuen eduki toreatzen. Korrida bakarrerako dei egin bait zioten[4].

1.929. urtean toreatzaile bizkaitarretan onena Martin Aguero Ereño zen dudarik gabe, nahiz eta hankeko zauriagatik fisikoki ongi egon ez. Hogeitabat korridatan parte hartu zuen eta esana dugunez Bilbon irailaren 15ean urrezko ezpata eman zioten. Bere koadrilan Miguel Atienza pikatzailea eta Cástulo Martin banderilari bilbotarra erabili zituen; azken hau, Victoriano Roger–enetik atera zenean.

Bere anaia Manuel eta Jose ere aipatuak ditugu, baina Manuel Aguero–k Madrilen uztailaren 25ean Eduardo Pagés–en (lehen Francisco Molina–ren) zezenkoak toreatu zituela gehituko dugu. Sidney Franklin eta Jose Garcia *Maera II.*arekin batera lan egin zuen[3]. Eduardo Pagés Donostiako enpresariak ganadutegia ere bazuen eta Madrilen 1.929.eko martxoaren 19an jokatu zuen bere lehen korrida osoa[7].

Jaime Noain bizkaitarrak 1.929. urtean hogeitahiru nobillada toreatu zituen (Bartzelonan zazpi)[4]. Alacante–n arrakasta handia lortu zuen. Kastor Etxebarria barakaldarrak 1.929. urtean bi nobilladatan bere lana egin ondoren, ez dirudi gehiago toreatu zuenik.

Alejandro Izquierdo–ri ere antzeko zerbait gertatuko zitzaion. Izan ere Burgos–en ekainaren 25ean Jaime Noain eta Vicente Martinez *Niño de Haro*rekin Ignacio Encinas–en zezenkoak hil zituenetik ez bait dago bere berririk.

Domingo Peltegi *Polvorilla* izeneko pikatzailea berriz, (XX. mendearen hasieran lan egin zuen) hil egin zen 1.929.ean Basurto–ko ospitalean urtarrilaren 30ean[3]. Frantzisko Gorostiola *Modelito* zen nobillada apaletan garai hartan parte hartzen zuen beste toreatzaile bat[5].

Bestetik, Basurto–ko Ospitaleak eta Bilboko Errukietxeak, Vista Alegreko jabe zirenez gero, zezenplazako administratzaile–postua betetzeko deialdia zabaldu zuten 1.929. urtean. Jose Luis Garzia–Etxabe Etxeberria jauna hasi zen langintza hartan[1].

Indautxu–ko zezen plazak berriz, hamar urte zeramatzan itxirik, eta 1.929.ean bota egin zuten[41].

Gasteiz–en urtero bezala ospatu ziren korridak 1.929.eko abuztuan. Hilaren 3koan banderilak ipintzen ari zela, Antonio Marquez larriki zauriturik suertatu zen[3].

Azpeitian 1.929. urteko saninaziotan bi nobillada eman ziren urtero bezala uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean. Rafael Lamamie de Clairac–en zezenkoak jokatu zituzten bi egunetan. Jose Garcia *Maera II.a* eta Jose Amoros–ek toreatu zuten lehen egunean (isilaldia eta txaloaldia batentzat eta txaloaldia eta isilaldia bestearentzat). Bigarren egunean berriz, Jose Garcia *Maera II.a* eta Rafael Moreno (hau Manuel Garcia *Revertito*ren ordez) aritu ziren lanean. Bronka eta isilaldia izan ziren *Maera II.*arentzako sariak eta Moreno–ri ere jendea isilik gelditu zitzaion[8]. Jose Garcia *Maera II.*ak bere azken bi nobilladak zituen haiek, berehala A Cruña–n (Galizia–n) alternatiba hartzekoa zelako. Agian horregatik ala zezenkoen zailtasunagatik ez zen bigarren nobilladan luzitu[12].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*ri dagokionez, zera esan behar da: bost korrida bakarrik toreatu zituela[3]. Haietako bat Marseille–n eman zen, lau urte lehenago han bertan hildako Martin Basauri *Pedrutxo II.*ari hilerrian mausoleoa eraiki asmoz. Camargue–ko zezenak toreatu zituzten Pedro Basauri, Pierre Boudin *Pouly III.a*, Jose Belmonte eta Francisco Peralta *Facultades*ek. Haietako zezen batek adarkatuta, hilzorian egon zen Pedro Basauri. Marseille–n zegoen zirujau ospetsu batek operatu omen zuen larritasun hura ikusita[12].

1.929. urtean Donostian, urtarrileko sansebastianetan zezensuzkoa korritu zen gauean urtero legez[34] eta udan berriz, egiazko zezenak Txofren. Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* bertsolari mutilzaharrak ere gogoan zituen bere gaztedenboran (XX. mendearen hasieran) Donostiara etortzen ziren toreatzaile famatuak. Ikus bestela 1.929. urtean bota zituen bertso ezagun hauek, bere ezteiak nolakoak izango ziren adieraziz:

Hogei eta bi urtetarako
nitzan ezkondu nayian,
hirurogeita bederatzian
oraindik nago gayian;
lehendabiziko nere preoia
botatzen duten jayian,
suzko zezenak izango dira
Zurriolan ta kayian.

— o — o —

Gaiñera berriz esposatzean
debalde napar zezenak,
kostako zaizkit galanki baiño
haundiak eta gizenak
haiek hiltzeko bi kastillano,
indar haundiko gizonak,
Machaquito ta Bombita ditut
etorritzeko esanak.

— o — o —

Dozen'erdi bat urdaiazpiko
zintzilik dauzkat jarriak,
saltxitxoi eta lukainka asko
Aragoitik ekarriak;
lau kapoi pare eta sei oillo
agindu dizkit herriak
eta ondoren toreatzeko

bi zekor gorri gorriak...
Ni ezkontzean izango dira
bankete izugarriak.[42]

Rafael Gonzalez *Machaquito* cordobarra eta Ricardo Torres *Bombita* Sevillako Tomares-en jaioa aipatzen ditu *Txirritak kastillano* edo erdaldun bezala. Bere gaztedenboran oso ezagunak ziren, noski, Donostian.

Gipuzkoako hiriburuan dena dela, 1.929.eko abuztuaren hasieran korridetako zezenak erakutsi ziren; Tovar-eko dukearenak eta Perez Tabernero-renak. Gero zezenko handi batekin *forcado* portugaldarrak saiatu ziren, ondoren zezenko berbera Angel Rey balmasedarrak toreatu zuelarik. Azkenean *Charlot* aragoarren emankizuna izan zen, hiru zekor korrituta[12]. Bidenabar aipa dezagun Angel Rey balmasedarrak 23 urte zituela (1.906.eko maiatzaren 19an jaioa zen) eta bi urte lehenago toreatzen hasi zela[3].

1.929.eko abuztuaren 22an, lehiaketa eran jokatuko ziren korridarako zezenak erakutsi ziren Txofren. Ondoren Santos-en lau zezenko toreatu eta hil zituzten Jose Amoros eta Luis Calderón de la Barca-k.

Abuztuaren 25ean eman zen lehiaketa erako korrida; *urrezko zezena*z ganadurik onena saritzen zena alegia. Manuel Jimenez *Chicuelo*ri Concha y Sierra eta Coquilla-ren zezen bana tokatu zitzaion eta beldurti ibili zen. Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma* ere bai Carmen de Federico eta Rincon-en zezen banarekin. Graciliano Perez Tabernero eta Tovar-eko dukearen zezen bana Francisco Vega *Gitanillo de Triana*k toreatu zituen, baina ezer berezirik egin gabe. Gaixo atera zen plazara, jendeak zioenez.

Urrezko zezena zeini eman erabakitzeko, 10.226 ikuslek eman zuten botua. Saria Graciliano Perez Tabernero-ri eman zioten, bere zezen *Nevadito*ri eskerr-Ikusleen artean urrezko beste zezen bat zozketatu zen.

1.929.eko irailaren 1ean, beste korrida bat eman zuten Donostiako Txofren. Lehenbizi Joao Nuncio portugaldarrak zezen puntazorrotz bat burtzikatu zuen eta gero beste bolaztatu bat. Belarri bana eman zioten. Ondoren Concha y Sierra-ren zezenak Diego Markiaran *Fortuna*, Vicente Barrera eta Manuel Mejias Jimenez *Bienvenida*k (artean 16 urte besterik ez zituen) hil zituzten. Lehenbiziko zezena txikia zelako, eskandalua sortu zuen jendeak eta horregatik *Fortuna*ren lana ez zen aintzakotzat hartu. Laugarrenean ordea, ederki toreatu eta bikain hil zuenez gero, bi belarriak lortu zituen bizkaitarrak. Ezpata astintzen artista zen izan ere *Fortuna* sestaoarra[4].

Iruñean 1.929.eko sanferminetan, Ernest Hemingway bertan zela, honako korrida hauek eman ziren:

- Uztailak 7: Jose Encinas-en sei zezen. Toreatzaileak: Manuel Jimenez *Chicuelo*, Victoriano Roger *Valencia II.a* eta Antonio Marquez.
- Uztailak 8: Moreno Ardanuy-ren sei zezen, Marcial Lalanda, *Valencia II.a* eta Antonio Posadas-entzat.
- Uztailak 9: Alaiza-ren sei zezen probarako. Toreatzaileak: *Chicuelo, Valencia II.a*, Marquez, Jose Garcia Carranza *Algabeño*, Antonio Posadas eta Felix Rodriguez[24]. Alaiza-k ez zuen harez gero Iruñera zezen gehiago bidali[16].
- Uztailak 10: Pablo Romero-ren sei zezen, *Chicuelo*, Marquez eta Felix Rodriguez-entzat. Azken honek bi belarri eta buztana lortu zituen, erizaindegira pasatuz.

- Uztailak 11: Veragua-ko dukearen bi zezen Manuel Mejias Jimenez *Bienvenida*rentzat eta Antonio Flores-en lau zezenko Alfredo Corrochano eta Jose Mejias *Bienvenida*rentzat.
- Uztailak 14: Manuel Blanco-ren sei zezen, Jose Garcia Carranza *Algabeño*, Felix Rodriguez eta Jose Rodriguez *Caganchor*entzat. Felix Rodriguez-ek zezen batean bi belarri irabazi zituen[24].

Saturio Torón lizarratarra banderilari gisa lanean ari zen 1.929.ean. Abuztuaren 18an Madrilen Enrique Ferrer-en koadrilan ziharduela, txalotua izan zen. Ondorioz, enpresak Madrilen abuztuaren 25ean toreatzea proposatu zion. Abuztuaren 30ean ere toreatu zuen beste nobillada bat leku berean. Urte hartan beste hamar nobilladatarako dei egin zioten. Egun batzuetan korridatan ezpatarien koadrilatan ere aritu zen. Irailaren 11n gainera, San Martin de Valdeiglesias-en Julian Saiz *Saleri II.*ak zezen bat hiltzen utzi zion. Hurrengo urterako ongi prestaturik gelditu zen nafarra[3]. Dena dela, 1.928.eko martxoaren 9an Saturio Torón-en aginduetara Candido Tiebas *el Obispo* toreatzen ari zela, tafallarra erizaindegira erretiratu zen ondoezik eta han hil zen Tiebas bihotzeko minak jota[21].

Errepideko istripuz, Candido Diaz ganaduzalea (Raimundo-ren semea) Noain-en hil zen 1.929.eko urtarrilaren 14ean[43]. Irailaren 1ean Kalagorri-n Diaz-en bi zezenko toreatu zituen Rikardo Urzaiz toreatzaile errioxarrak[6].

Baionan korridak eman ziren 1.929. urtean. Irailaren 8koan adibidez, Tovar-eko dukearen zezen batek larriki zauritu zuen Jose Garcia Carranza *Algabeño*[3]. Akize-n berriz, irailaren 1eko korridan Jose Encinas-en *Rondeño* zezenari txalo asko jo zioten bere portaeragatik[7].

Inguru haietan Landetako erara behi bolaztatuak toreatzen segitu zuten 1.929.ean ohiturari jarraituz. Barrere, Coran, Larrouture eta Lafitte ganaduzaleek Gerard, Cantegrit II.a, Couralet eta *Mazantini* erabili zituzten taldeburu gisa. Cantegrit II.aren aginduetara toreatzen gainera, Abel Corbaque famatua orduan hasi zen; Montfort-en Chalosse ondoko Poyartin-en zuela 21 urte jaioa hain zuzen[17].

———— o ———— o ————

1.930. urtean martxoaren 23an hasi ziren zezenfestak Bilbon. Jaime Noain, Miguel Morilla *Atarfeño* eta Jose Amorós-ek Fabian Mangas-en zezenko desberdinak (bai itxuraz eta bai portaeraz) toreatu zituzten. Noain bilbotarrak lehenengoa gaizki hil zuen eta laugarrena hobeto. *Atarfeño*ren lana ez zen gustatu, baina Jose Amoros-ena bai. Banderilatan txalo asko jo zioten eta faena amaitutakoan ere bai. Seigarren zezenko handi eta koldarrean ere txaloak irabazi zituen. Andres Calabia, Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* eta Gregorio Lladó *Lladito* izan ziren koadriletakoen artean onenak nobillada hartan.

1.930.eko martxoaren 30ean eman zen urteko bigarren nobillada Bilbon, Garcia Pedrajas-en zezenkoak plazaratuz. Manuel Garcia *Revertito*, Saturio Torón eta Francisco Céster izan ziren ezpatariak.

Apirilaren 13an eman zuten beste nobillada bat leku berean. Maximo Bautistaren sei zezenko toreatzera Gil Tovar (Jose Amorós-en ordez), Maximo Cámara eta Jose Aguero aurkeztu ziren orduan.

Maiatzaren 4ean urteko lehen korrida jokatu zen Bilboko Vista Alegren. Conde de la Corte–ren zezenak onak atera ziren, seigarrena ezik. Nicanor Villalta–k lehenengoan belarria lortu zuen, eta laugarrenean txaloak. Martin Aguero–k berriz, batean buelta eman zuen txalo artean eta bestean ere bai, belarri eta guzti. Felix Rodriguez ez zen gogoz aritu arratsalde hartan. Zezenek 306 kilo pisatu zituzten batezbeste.

Biharamunean, 1.930.eko maiatzaren 5ean, beste korrida bat eman zen Bilbon, Guadalest-eko markesaren zezenak jokatuta. Antonio Marquez, Francisco Vega *Gitanillo de Triana* eta Vicente Barrera ezpatariak aritu ziren. Bostgarren zezena, Enriqueta de la Cova–ren beste batez ordezkatu zuten. Marquez–ek txalo batzuk jaso zituen bere lehenengoan. *Gitanillo de Trianak*, bat ere ez. Vicente Barrera berriz, nagusi izan zen bere bi zezenetan. Menperatzaile, dotore eta artista ikusi zuten. Belarri bana eman zioten. Zezenen pisua 306 kiloraino heldu zen batezbeste kanalean.

Maiatzaren 11n Bilbon nobillada mistoan Manuel Santos–en zazpi zezenko jokatu ziren, Fidel Cruz, Florentino Ballesteros eta *Charlot* batzuentzat. Maiatzaren 25ean ere leku berean Manuel Santos–en lau zezenko toreatu zituzten *charlotadan*, eta ekainaren 1ean ganaduzale beraren beste sei, *nobel* izeneko gazteek.

1.930.eko ekainaren 15ean, Bilboko kazetari–elkarteak korrida goieskoa eman zuen Vista Alegren. Plaza erabat apaindua zegoen (barrera, palko, etab.) eta hondar gainean Goia–ren irudi bat zegoen: *Martintxok* mahai gainetik oinak girgiluz lotuta zezenari salto egiten diona hain zuzen. Veragua–ko dukearen sei zezen (bigarrena eta laugarrena onenak) eta Garcia Pedrajas–en beste bi korritu ziren. Azken biak Joao Branco Nuncio burtzikari portugaldarrarentzat. Zaldunak txalo asko entzun zuen eta bere bi zezenak azkenean Bitor Bigiola *Torkito III.*ak hil zituen.

Veragua–ko zezenekin Nicanor Villalta, Luis Fuentes Bejarano eta Francisco Vega *Gitanillo de Triana* saiatu ziren. Villalta–k bere bigarrenean bi belarri irabazi zituen, oso ongi hil zuelako. Luis Fuentes Bejarano–ri eta *Gitanillo de Trianari* txalo asko jo zieten.

Abuztuko korridak iragartzearren, Alberto Arrue pintatzaile bilbotarrak kartel iragarlea egin zuen, ganadutegi, toreatzaile eta abarren berri emanez. 1.930.eko abuztuaren 17an eman zen lehenbizikoa Julian Fernandez–en lau zezen eta Felix Moreno–ren bi korrituta. Nicanor Villalta–ri gauzak ez zitzaizkion ongi atera eta Francisco Vega *Gitanillo de Trianak* ezpataz huts egin zuen. Vicente Barrera beldurti ibili zen suzko banderilak ipini zizkioten hirugarrenean eta seigarrenean ere ez zuen ezer egin.

Abuztuaren 18ko korridan, Villalta, Martin Aguero eta *Gitanillo de Triana* agertu ziren Bilboko Vista Alegren Mihuraren sei zezen toreatzera. Nahiz eta Mihuraren zezenak suharrak izan, Nicanor Villalta–k legea betetzea besterik ez zuen egin. *Gitanillo de Triana* kolpaturik suertatu zelako erizaindegira joan zen. Martin Aguero–ri berriz, txalo asko jo zioten bere ausardiagatik. Zezenen pisua, 352 kilokoa izan zen; kanalean, noski.

1.930.eko abuztuaren 19an eman zen Bilbon hurrengo korrida. Santa Coloma–ko kontearen zezenak hil zituzten Nicanor Villalta, Felix Rodriguez eta Vicente Barrera–k. Zezen eder haiekin Villalta–k lehenengoan ez zuen asmatu eta bere bigarrenean jendea isilik gelditu zitzaion, nahiz eta txalotua izateko merituak irabazi. Felix Rodriguez seguru, ausart eta artista ibili zen kapote eta muletaz, baina ezpataz ez. Vicente Barrera–k faena laburra osatu zion bere lehenengoari eta menperatu egin zuen bere bigarrena, nahiz eta koldarra izan. Belarri–eskea egon zen[1]. *Venadito* izeneko zezenak lau pikaldi jasan zituen eta feriako onentzat hartua izan zen[7].

Abuztuaren 20ko korridan, Pablo Romero–ren zezenak plazaratu ziren Bilbon. Diego

Markiaran *Fortunak* batean txistuak entzun zituen eta bestean txaloak, zezena ongi hiltzeagatik. Antonio Marquez, batean ederki aritu zen eta bestean gaizki. Vicente Barrera–ri berriz, txalo asko jo zioten bere bi zezenetan. Lehenengoan jendeak belarria eskatu zuen gainera.

1.930.eko abuztuaren 21ean, Carmen de Federico–ren zezen noble eta suharrak (feriako onenak) jokatu zituzten Vista Alegren. Antonio Marquez, Martin Aguero eta Felix Rodriguez–ek parte hartu zuten. Marquez–ek arte–maila handia erakutsi zuen eta belarria eman zioten. Martin Aguero, bere lehen zezena hiltzerakoan aireratua izan zen galtzak urratuz. Erasanda ibili zen harez gero arratsalde osoan, baina kokildu gabe. Horregatik jendeak gogoz txalotu zuen. Felix Rodriguez–ek azken zezenean erakutsi zituen bere dotoreziak eta buelta eman zuen txalo artean.

Abuztuaren 24eko korridan, Felix Moreno Ardanuy–ren sei zezen polit toreatu zituzten Bilbon aurreko korridako ezpatari berberek. Marquez–ek laugarrenari sartutako ezpatakada bikainaz gain ez zuen gauza handirik egin. Martin Aguero–k guztiz bikain hil zuen bere lehen zezena eta bere bigarrenari faena ona burutu zion. Buelta eman zuen txalo artean. Felix Rodriguez–ek ere txaloak entzun zituen bere lehenengoan, baina azkenekoan txistuak[1]. *Viudito* izeneko zezenak, suhar jasan zituen zazpi pikaldi[7].

1.930.eko irailaren 7an, Manuel Santos–en lau zezenko korrituta *charlotada* eman zen Bilbon; *Empastre* izenekoa hain zuzen. Irailaren 14ean berriz, Manuel Santos–en sei zezenkorekin saiatu ziren toreatzaile *nobel*ak[1].

Diego Markiaran Torrontegi *Fortuna*k, 1.930. urtean 18 korridatan parte hartu zuen, 39 zezen hilez[4]. Udazkenean Ameriketara joan zen, eta han beste korrida batzuk ere toreatu zituen neguan[3].

Alejandro Saiz *Ale* bilbotarrak berriz, Ameriketatik etorrita Portugal–en zazpi korridatan toreatu zuen 1.930.ean, eta gero alternatibari uko egin zion kontratu faltaz[4]. Zezenko–hiltzaile gisa ordea ez zuen ezer egin eta bertan behera gelditu zitzaizkion toreaketa–lanak[3].

Joselito Martin 1.930.ean bi korridatan ikusteko aukera izan zen. Gero neguan Ameriketan toreatu zuen bilbotarrak, baina zezen–munduko negoziotan sartzen hasia zen jadanik.

1.930. urtean Martin Aguero–k hamazortzi korridatan parte hartu zuen. Bere azken korrida (bere bizitzako azkena, hain zuzen), irailaren 21ean Logronion emandakoa izan zen. Carmen de Federico–ren zezenak hil zituen Antonio Marquez eta Heriberto Garcia Espejel–ekin batera. Gero, bere zangoan ebakuntzak egiten hasi zitzaizkion medikuak eta traje distiratsua jazterik ez zuen izan[4].

Manuel Aguero ere (Martin–en anaia), nobilladatan toreatzen ari zen 1.930.ean. Abuztuaren 24ean adibidez, Rafael Lamamie de Clairac–en zezenkoak hil zituen Cayetano Leal *Pepe–Hillo*, Juan Valenciano eta Manuel Fuentes Bejarano–rekin batera[3].

Luis Fuentes Bejarano–rekin berriz, Faustino Bigiola *Torkito II*.a zebilen banderilari gisa 1.930. urtean[4]. Neguan Ameriketara joan zen eta han batzuetan zezenkoak hil zituen eta bestetan banderilak sartzen saiatu zen beste ezpatariren baten koadrilan[3].

Jaime Noain bilbotarra berriz, ongi toreatzen ari zen 1.930. urtean. Hogeitazazpi nobilladatan jantzi zuen traje distiratsua; Madrilen lautan eta Sevilla–n behin. Udazkenean

Kolombia eta Venezuelara joan zen, han ere arrakasta lortuz[4].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo*ri, erraztasun gutxi eman zioten 1.930. urtean. Guztira sei korrida toreatu zituen[3]. Maiatzaren 25ean, Bartzelonan bera bakarrik aritu zen Gonzalez Nandin–en sei zezen ikaragarri toreatzen. Zezenak beldurgarriak ziren eta Diego Markiaran *Fortuna*k korrida baino lehen mehatxu egin omen zion haiek toreatzera aurkezten bazen muturrekoa emango ziola esanez. Hain ziren arriskutsuak nonbait Gonzalez Nandin–en abere haiek. Balañá enpresariak bestetik, arratsalde hartan futbol–partidu garrantzitsua zegoelako saldutako sarreren portzentaia eskaini zion. Eibartarrak dena dela, leihatilatan kontrol egokiak ipinita 18.000 pezeta lortu ziuten beretzat arratsalde hartan; 20.000 ikusle inguru bildu bait ziren zezenplazara.

Korrida hartan Pedro Basauri–k arrakasta handia lortu zuen, nahiz eta seigarren zezenak adarkatu eta erizaindegira erretiratu. Hara eraman zizkioten bi belarriak eta buztana. Istripu hura gertatuz gero, *Eibarreko Pedrutxo*k zangoan gogor–une bat omen zuen, eta bi urte t'erdi geroago argitu zen arrazoia; Gonzalez Nandin–en zezenaren adar–pusketa bait zegoen han[4].

Ekainaren 8an ere toreatu zuen eibartarrak Bartzelonan. Conradi–ren zezen batek larriki zauritu zuen orduan eta ondorioz korridaren bat toreatzeari utzi egin behar izan zion.

Roke Iglesias Alberdi *Costillas*, toreatzaile gisa ibilia zen nobilladatan. Dena dela, donostiar honek uztailaren 20an Madrilen banderilak sartzen lan egin zuen. Bitan jasan zituen zauri larriak: Madrileko plazan eta Tetuan de las Victorias–ekoan (Madrilen hau ere)[3].

Tolosan berriz, 1.930.eko abuztuaren 31n Ramon Edo Sangrador jaio zen; gero zezenko–hiltzaile izango zena[25].

Azpeitian 1930.eko saninaziotan urtero bezala bi nobillada ospatu ziren, Angoso–ren zezenkoak plazaratuta. Uztailaren 31n, Jose Amoros eta Felix Rodriguez *Rodriguez II*.ak txaloak lortu zituzten beren bigarren zezenkoetan, eta ez dugu biharamuneko nobilladan gertatuaren berri[8].

Zarautz–en bestetik, zezenplaza txiki bat inauguratu zuten 1930.eko abuztuaren 15ean, futbol–zelaia izandako lekuan. Angel Rey Conde balmasedarrak estreinatu zuen, Etura–ren bi zezenko hilez[12].

Oiartzunen ere zezenak korritu ziren 1930. urtean. San Esteban egunez ikusia honela adierazi zuen bertsotan Nikolas Lujanbio oiartzuarrak:

1/ San Esteban egunez
Oiartzun'go plazan,
nai zuenak ikusi
festa franko bazan;
bei bat atera zuten
zezenaren trazan,
asko korritzen zuan,
oso azkarra zan.

2/ Plazarako lau zezen
eskatu herriyak,
iru zezen da bei bat
ziran ekarriyak;
jendia arritu du

ariyen korriyak,
astindu zitun ango
bandera gorriyak.

3/ Plazara aterata
asi zan saltoka,
inguratzen zanari
segitu ta joka;
ez da ona izaten
alako epoka,
nik ez nuen asi nai
arekin borroka.

4/ Festa onak zirala
emanikan traza,
amabost minutuan
an bete zan plaza;
egoten al gerade
kontentu edo lasa,
desgrazia aundiyagorik
etzanian pasa.[44]....

Garai hartan Euskal Herriko leku askotan izaten ziren nobilladak, eta guztien berri ematen oso zaila da; ezinezko dela esatera ere ausartuko ginateke. Bizkaian Orozko–n adibidez, urtero ospatzen ziren. Ikus bestela Jose Arrue pintatzaile bilbotarrak 1930.ean egindako koadro bat. Orozko–n San Anton plazan toreatzaileak herrira iristen eta jendea haiei begira erakusten du 40x63 cm–ko pastel honek[45].

Donostian 1930.eko sansebastianetan zezensuzkoa korritu zen gauez[34]. Gero udan Txofreko plazan uztailaren 26an nobillada eman zen gauez (lehen aldiz Txofren), Manuel Santos–en zezenkoak jokatuta. Joaquin Caldentoy *Quinito*, Jose de la Cal eta Martin Bilbao bilbotarra izan ziren ezpatariak. Lehen biek ongi lan egin zuten, baina bizkaitarrak ez[12]. Fidel Cruz–ek ere toreatu zuen Donostian beste nobillada batean[3].

Abuztuaren 10ean, Donostian Antonio Marquez–ek alternatiba eman zion (Txofreko azkena) Jose Amoros Cervigon salamancarrari, Vicente Barrera eta Marcial Lalanda lekuko zirelarik. Francisco Sanchez Coquilla–ren zortzi zezen noble eta suhar plazaratu ziren[12]. *Varelito* izeneko urdin iluna nabarmendu zen, lau pikaldi jasanez[7]. Alternatibako zezena *Cararosa* izan zen[3].

Pepe Amoros–ek bere artearen berri eman zuen, nahiz eta urduri egon. Ezpataz dena den, gauzak ez zitzaizkion ongi atera. Vicente Barrera–ri ez zioten adorerik ikusi eta Antonio Marquez beldurti eta kontu handiegiz ibili zen bere lehenengoan. Bere bigarrengoan ordea, konfidantzaz, dotore eta artista ikusi zuten eta belarria eman zioten. Zezen hura Buster Keaton artistari brindatu zion Marquez–ek. Marcial Lalanda–k, arratsalderik onenetakoa izan zuen hura. Kapotez, banderilak sartzen, muletaz eta ezpataz gehiago ez zegoen eskatzerik. Arratsalde apoteosikoa benetan Marcial Lalanda–rena[12].

1930.eko abuztuaren 15eko korridan, Graciliano Perez Tabernero–ren zezenak plazaratu ziren, eta guztien artean *Barrabas* izenekoak erakutsi zuen zangartasunik handiena[7].

Abuztuaren 24eko korrida, ganadutegi–lehiaketa erakoa izan zen; zezenik suharrenari

urrezko zezena saritzat ematekoa alegia. Carmen de Federico–ren *Ochavito* izeneko zezen beltzari eman zizkioten boturik gehiena[12]. Bigarren Graciliano Perez Tabernero–ren *Pajarraco* izenekoa gelditu zen[7]. Martinez–en *Primoroso* izeneko zezenarekin, gauza arraroa gertatu zen. Victoriano Roger *Valencia II.*ak toreatu zuen. Zezena triste eta ahul zebilen eta Marcial Lalanda–k zerbait susmaturik, gero larrutu zutenean ongi begiratu zioten. Baita gibelean 14 zentimetroko aterki–hagatxo bat aurkitu ere. Zezena hala ere, hirutan joan zen zalditara plazan[46].

Aipatua dugu garai hartan Txofreko enpresaria Eduardo Pagés jauna zela. Beste enpresari famatu bat ere ordea, lanean ari zen 1930. urtean; Seberiano Martinez *Txopera* hain zuzen. Iruñeko plazako zaldien kontratua zuen lehenik eta Donostiakoa ondoren. Nobillada apalak ere antolatzen hasia zen eta 1930.ean hil egin zen istripuz. Jaen–eko Jabalquinto herrian Guadalquivir ibaia pasatzen ari zirela Seberiano bere laguntzaile, kamioi, zezen eta guzti uretara erori zen zubia hautsita. Denak ito ziren istripu hartan. Harez gero Seberiano–ren Pablo, Manuel eta Antonio Martinez Elizondo anaiak zezen–munduko negoziotan famatu egin ziren[12].

Iruñean, 1930.eko sanferminetarako honako kartel hau argitaratu zuten:

– Uztailak 7.– Blanco–ren sei zezen (lehen Parlade), Victoriano Roger *Valencia II.a*, Antonio Marquez eta Luis Fuentes Bejarano–rentzat.

– Uztailak 8.– Concha y Sierra–ren sei zezen. Toreatzaileak: Saturio Toron (alternatiba hartuko zuen), Marcial Lalanda eta Felix Rodriguez.

– Uztailak 9.– Carmen de Federico–ren sei zezen probarako, Marquez, M. Lalanda, Luis Fuentes Bejarano, Martin Aguero, Felix Rodriguez eta Saturio Toron–entzat.

– Uztailak 10.– Jose Encinas–en sei zezen, Antonio Marquez, Marcial Lalanda eta Saturio Toron–entzat.

– Uztailak 12.– Korrida goieskoa. San Fernando–ko Perez–en sei zezen, Nicanor Villalta, Joaquin Rodriguez *Cagancho* eta Heriberto Garcia–rentzat. Ondoren beste bi zezen Antonio Luis Lopez burtzikari portugaldarrarentzat.

– Uztailak 13.– Pablo Romero–ren sei zezen, Martin Aguero, Felix Rodriguez eta Joaquin Rodriguez *Caganchor*entzat[13].

Iragarrita bezala, uztailaren 8an Marcial Lalanda–k Saturio Toron lizarratarrari alternatiba eman zion Iruñean. *Pandito* zen Concha y Sierra–ren zezenaren izena eta banderila–pare bikaina sartu zion plazaren erdian. Doktoratu berriak (grana eta urre jantzirik), Galo Maria Mangado kritikoari brindatu zion zezena[31]. Saturio Toron, toreatzaile ausarta zen, eta 1930. urtean sei korridatan parte hartzea lortu zuen. Gero Mexikora joan zen neguan eta arrakasta handirik gabe ibili zen[3].

Iruñean 1930. urtean urriaren 12an nobillada apal bat eman zen eta bertan Saturnino Auzkarazpe Traña nafarrak, Candido Diaz–en semeen zezenko bat toreatu zuen[5]. Ganadutegi hartako zezenak Logronion ekainaren 11n korritu ziren eta *Pelotero* izenekoak lau pikaldi zangartasunez jasan zituen[7].

M. Tiebas–ek berriz, Iruñean bertan ekainaren 22an toreatu zuen nobillada komiko batean, baina ekitaldi serioan[6]. Candido Tiebas zenaren senideren bat izango zela pentsatzen dugu.

Baionan, 1930.eko irailaren 7an, Matias Sanchez–en ondorengoen zezenak jokatu ziren. Guztien artean *Coruñés* izeneko zezena nabarmendu zen bere portaeragatik[7]. Lapurdin bertan, Larrun mendian, bizi ziren beste zezen eta behi batzuk ere; betizuak hain zuzen. 1930. urtean dena dela, betizu–taldeak urri ziren aurreko mendetakoekin konparatuz gero. Hori dio behintzat Pierre

Lartzabal euskal idazleak urte hartan egindako idazlan batean. Intersgarria deritzogu bere deskribapen batzuk hona aldatzeari:

Oro berdinak, gorrichtak, adar mehe, punta zorrotz, lurrerainoko buztanekin ziren. Beti etchetakotuak baino ttipiago, hauk begien bichtan ez zezazketen eraman. Behin batez ere, betizoek, buztarrian ziren bi idi, adarka hil zituzten. Gau eta egun, bethi kanpoan, lo egiteko, zonbait mendi bizkarretarat nahiago zuten athera. Larrean umatzen ziren. Ahatcheak, ichtanteko pizkortuak, ikus zitzazken beren amen errapetan haunditu eta ere.

Betizo multzo baten artean izaiten ziren hiru, lau zezenetaraino.....hekien atzeimatea ez zela errech, ezin bilduak zirelakotz. Atzemanikan ere, batzuetan gertatzen zen bezala, ez zitzazkela bertze behiak bezala hez eta erabil, eskupeko izaitea ez baitzezaketen jasan...[47].

Landetako herrietan berriz, betizuak toreatzen zituzten zezenplazatan. 1930. urtean hain zuzen Barrere, Coran, Larrouture eta Lafitte ganaduzaleek beren betizu eta toreatzaile–taldeetan, Gerard, Cantegrit II.a, *Meunier* eta Mongis zeramatzaten buru gisa hurrenez hurren[17].

Zezenfestetarako garrantzia izan zuen arautegia argitaratu zen 1930. urtean, eta aipamentxo bat egitea merezi du. Izan ere uztailaren 12an Gobernazio–ministrariak (Enrique Marzo jeneralak) estatu osoan derrigor bete beharreko arautegia argitaratu zuen; 137 artikuluko arautegia hain zuzen. Zezenplazak hiru mailatan sailkatu ziren, Bilbo eta Donostiakoa lehen mailan zeudelarik. Zaldientzako babesak enpresak ipini behar zituen. Zezenen pisu minimoa ere ezarri zen: 460, 435, 410 kilo, lehen, bigarren eta hirugarren mailako plazatan hurrenez hurren. Suzko banderilak nolakoak izango ziren arautzen zen. Lehendakaritzaren osaketa eta funtzionamendua zehaztu zen, etab[5].

15.- ZEZENAK XX. MENDEAN. HIRUGARREN HAMARKADA: BIBLIOGRAFIA

(1) URUÑUELA ETXEBARRIA, EMILIANO. *La dama taurina de Abando.* Bilbo 1.973 (342–455. orr.)

(2) AZUMENDI, JERMAN. *Bilbao, Cocherito y su Club.* Bilbo 1986 (27, 62, 102, 109, 119, 143, 153, 173, 184. orr.)

(3) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 3. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1978 (7, 8, 26, 36, 41, 53, 55, 69, 75, 88, 91, 92, 96, 97, 101, 115, 123, 131, 132, 135, 157, 182, 210, 218, 231, 239, 241, 258, 259, 265, 289, 302, 310, 326, 331, 336, 344, 379, 380, 388, 410, 427, 433, 435, 450, 452, 455, 464, 472, 477, 481, 489, 491–493, 502, 514, 536, 543, 548, 552, 553, 560, 574, 575, 596, 625, 645, 648, 652, 663–665, 667, 673, 679, 680, 683, 684, 690, 695, 703, 704, 712, 719, 727, 748–750, 764, 775, 787, 810, 838, 847, 855, 856, 858–860, 862, 869, 887, 932, 940–943, 965, 966, 989–991, 995, 1001. or.)

(4) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos.* Bizkaiko Aurrezki–Kutxa argit. Bilbo 1983 (16, 19, 22, 24, 29, 32. 33, 35, 38–43, 47, 48, 51. orr.)

(5) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 5. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (50, 510–515, 517, 582, 646, 654, 693, 780, 873, 877, 1041, 1046, 1052, 1089, 1090, 1095, 1111. orr.)

(6) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 6. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (98, 165, 173, 207, 208, 216, 267, 294, 463, 517, 534, 536, 592, 708–710, 773–776, 1035. orr.)

(7) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* Lehen alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1981 (266, 269, 297, 319, 321, 327, 333, 340, 348–350, 354, 363, 364, 372, 382, 383, 385, 386, 392, 395, 398, 400, 495, 500, 533, 536, 610, 656, 816, 817, 859, 860, 862, 865, 888, 889. orr)

(8) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia.* Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (395, 397, 398. orr.)

(9) LINAZASORO, IÑAKI. *Villarreal de Urretxua.* Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1974 (104, 183. orr.)

(10) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 2. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1980 (585, 586, 595, 598, 599, 601, 611, 625, 654, 662, 676, 677. orr.)

(11) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros.* 7. alea. Espasa–Calpe argit. Madril 1984 (237, 842, 843, 962, 996, 1004, 1042. orr.)

(12) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipúzcoa.* Donostia 1974 (48, 63, 64, 108, 109, 125, 150–154, 156, 175, 218, 219, 235, 236, 239, 240, 250–259, 262, 264–266, 273–284, 296, 300, 335–339, 422, 423. orr.)

(13) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Pamplona. 100 años de carteles de las fiestas y ferias de San Fermin.* Iruñea 1982 (1921–1930)

(14) CAMPO, LUIS DEL. *El encierrillo.* Navarra. Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (15, 27–29. orr.)

(15) CAMPO, LUIS DEL. *Pamplona y sus plazas de toros.* Navarra. Temas de cultura popular.125. alea. Iruñea 1972 (24, 26–30. orr.)

(16) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra,* in Principe de Viana 1942. Iruñea (390, 402. orr.)

(17) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere.* Nogaro 1986 (47, 54, 122, 134, XXIX. orr.)

(18) GRANDES, FORTUNATO. *Salvatierra. 25 años de Administración municipal.* Gasteiz 1922 (9, 10. orr.)

(19) SARASA GONZALEZ, JORGE. *Pamplona y su historia en la vieja Plaza de Toros,* in Vida Vasca 1954 (152. orr.)

(20) CASTILLO-PUCHE, J.L. *Hemingway y los toros a traves de Goya*, in Diario de Navarra 84-VII-5 (16, 17. orr.)
(21) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Toreros y torerillos de Navarra*, in Vida Vasca 1955 (164, 165. orr.)
(22) CAL SEGURA, JOSE DE LA. *Genealogía de las cuatro castas fundacionales: Jijona, Cabrera, Vistahermosa, Vazqueña y la Casta Navarra*, in Los toros en España. Lehen alea. Orel argit. Madril 1969 (96, 97. orr.)
(23)"EKITZETA". *Kalean Gora, kalean Behera...*, in Diario Vasco 1984-VI-19.
(24) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Hemingway y los sanfermines*. Iruñea 1970 (26, 27, 29, 30, 40, 46-49, 56-59, 64, 94-97, 101-103, 110, 111. orr.)
(25) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1971 (257, 425, 440, 534, 549, 553, 555, 592, 616, 704. orr.)
(26) ETXEBARRIA, FRANTZISKO. *Deba. San Roque*, in Anuario de Eusko-Folklore 1924 (88, 89. orr.)
(27) X,X. *Ostolazaren testamentua*. Ostolaza fundazioa argit. Deba 1976.
(28) OLAETXEA, JOAN B. *Zumaya*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1970 (99, 100. orr.)
(29) FLORES KAPEROTXIPI, M. *Pablo Uranga*. Auñamendi argit. Donostia 1963 (71, 72, 80, 81. orr.)
(30) CAMPO, LUIS DEL. *Historia trágica del encierro de Pamplona*. Iruñea 1978 (z/g)
(31) "CARACHO". *Alternativas celebradas en la nueva plaza de toros de Pamplona*, in Vida Vasca 1951 (150, 151. orr.)
(32) ANABITARTE, BALDOMERO. *Gestión municipal de San Sebastián*. 1901-1925. Donostia 1971 (315. orr.)
(33) S,A. *Banda municipal de música de Baracaldo*, in Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco. 4. alea. Auñamendi argit. Donostia 1968 (45, 46. orr.)
(34) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (144, 148, 156, 160. orr.)
(35) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Los Clubs Taurinos de Pamplona*, in Vida Vasca 1952 (163, 164. orr.)
(36) STAFFE, ADOLF. *Contribuciones a la Monografía de Ganado Vacuno Vasco*, in RIEV 1926 (201-253. orr.)
(37) ARANA MARTIJA, JOSE ANTONIO. *Joseba Olaizola (II)*, in Hoja de Lunes de San Sebastián 1983-IV-4
(38) ZAPATERO PEREZ, FELIX. *La hermosa Ribera Navarra*, in Vida Vasca 1927 (241-243. orr.)
(39) BENLLOCH, JOSE LUIS. *Luis Fuentes Bejarano. Un personaje irrepetible (1)*, in Aplausos extra. 319. alea. Valentzia 1983-XI-7 (21-24. orr.)
(40) BANDRES, RAFAEL. *El 1928 se planteó la construcción de una plaza de toros en la villa*, in Diario Vasco 1984-IX-4
(41) FRADE, K-TOÑO. *La plaza de toros de Indauchu*, in La Gran Enciclopedia Vasca. 9. alea. La Gran Enciclpedia Vasca argit. Bilbo (345. orr.)
(42) DORRONTSORO, JOANITO. *Bertsotan 1789-1936*.Gipuzkoako Ikastolen Elkartea argit. Donostia 1981 (214. orr.)
(43) X,X. *Díaz, Cándido*, in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. 9. alea. Auñamendi argit. Donostia (239. orr.)
(44) ZABALA, ANTONIO. *Iru anai bertsolari. Saiburu'ko Juan Jose, Nikolas eta Angel Lujanbio*. 73. alea. Auspoa argit. Tolosa (132-134. orr.)
(45) X,X. *Jose de Arrue y Valle*, in Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana. 3. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo (201. orr.)
(46) ABARKERO DURANGO, R. *El toro inválido. Afeitado y caida de los toros*.Madril (21, 22. orr.)
(47) LARTZABAL, PIERRE. *Larrungo betizoak*, in Gure Herria 1930. Baiona (83, 84. orr.)

16.- ZEZENAK XX. MENDEAN: (1931-1936)

Urtez urteko albisteak emanez, zezen, ganaduzale, toreatzaile eta abarren berriak adieraziz, ezari-ezarian azken kapitulura heldu gara; geure bizialdira ala bizialdiaren bezperara alegia.

Irakurleak dakikeenez, XX. mendean Euskal Herriko zezenfesten erdigune Bilbo dugu inola ere, nahiz eta beste hiri eta herrietan ere zezenen eta zezenzaletasunaren suak argitsu jarraitu. Horregatik, jarraipen horren berri ematen Bilbotik hasiko gara, 1.931.eko udaberri-atariko nobilladaren bitartez. Izan ere martxoaren 15ean eman zen urte hartako lehenengoa Esteban Hernandez-en ondorengoen zezenkoak korrituta. Bezperan dena dela, Eduardo Pagés enpresariak (enpresari baino lehen zezen-kritiko izan zen eta *Don Verdades* izenordea erabiltzen zuen) hitzaldi bat eman zuen *Kotxerito* elkartearen egoitzan garai hartako zezenei buruz. Eduardo Pagés-ek Bilboko plazan ere antolatu zituen korridak *El Pueblo Vasco* egunkariko Juan de la Cruz zuzendariarekin batera. Hitzaldiaren ondoren afarian bildu ziren aipatutako enpresariez gain *Kotxerito* elkarteko lehendakari eta lehendakariordea (Pedro Villarejo eta Bizente Otxandiano) *Aguero* zezenzale-elkarteko Fernando Atxukarro lehendakaria, etab.

Gatozen ordea martxoaren 15ean Vista Alegren emandako nobilladara. Jose Gonzalez-Lopez *Carnicerito de Mexico*, Luciano Contreras eta Alfredo Corrochano-k osatu zuten kartela. Hernandeztarren lehen zezenkoak, *Carnicerito de Mejico* aireratu egin zuen kapotez ari zela. Gero banderila-pare bi dotore sartuta, muletaz asmatu ezinik ibili zen eta txistuak entzun zituen. Bere bigarrenean ere airean eta lurrean ibili zen, baina azkenean ausardia erakutsi zuen eta jendeak txalo jo zion.

Hiru ezpatarietan onena ordea, Alfredo Corrochano madrildarra izan zen. Zezenetako kritikari baten seme zenez gero, jendeak hotz samar hartu zuen. Lehen zezenkoan artista ibili zelako ordea, belarria eman zioten eta bere bigarrena zezenko zaila zen. Asko pikatu zuten arren, jenio biziaz iritsi zitzaion muletara, baina Corrochano-k lehenbizi zigor—pase batzuez menperatu eta gero luzitzeko aukera izan zuen. Faena bikaina osatu zion, eta ondoren nahiz eta ezpataz huts egin, jendeak belarria eskatu zuen eta baita lehendakariak eman ere.

Bilbon hurrengo nobillada, 1.931.eko martxoaren 29an eman zen. Bernaldo de Quirós-en zezenkoak Emilio Rangel *Niño de la Audiencia*, Alfredo Corrochano eta Joaquin Caldentoy *Quinitok* toreatu zituzten.

Apirilaren 5eko nobillada mistoan berriz, Manuel Santos-en sei zezenko toreatzen Thoco Capilla, Segundo Arana eta Zaragozako *Charlota* aritu ziren[1]. Segundo Arana bilbotarra, 1.913. urteko azaraoren 4ean jaioa zen eta medikuntza ikasten ihardun ondoren traje distiratsua jantzi zuen lehen aldiz aipatu egunean Vista Alegren toreatzeko. Gero zezenko-hiltzaile gisa urtetan lan egin zuen[2].

1.931.eko maiatzaren 3an, urteko lehen korrida ospatu zen Bilbon. Antonio Marquez, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Francisco Vega *Gitanillo de Triana* ezpatariek eta Conde de la Corte-ren ganaduak osatu zuten kartela.

Maiatzaren 5ean eman zen bigarren korrida Vista Alegren eta orduan Pallarés-en sei zezen toreatzera Vicente Barrera, Domingo Lopez Ortega eta Jesus Solorzano etorri ziren.

Maiatzaren 17an *charlotada* ikusi ahal izan zen Bilboko Vista Alegren Manuel Santos–en lau zezenko jokatuta; *Empastre* izeneko ikuskizuna hain zuzen. Maiatzaren 31n berriz, leku berean eta ganaduzale beraren sei zezenko toreatzen *nobel*ak, aritu ziren[1]. Jesus Abellán, Mariano Vicente *Cirilo*, Isidro Rodriguez *Minuto*, Wenceslao Villán, Angel Sanchez *Clavelito* eta Angel Oreja *Orejitas*ek lan egin zuten[3].

1.931.eko ekainaren 27an, Puente–ren zekorrak toreatu ziutzten Bilbon Serafin Bigiola *Torkito*, Jose Ortiz, Natxo Allende, Jerman Etxebarria, Ramon Lafuente eta Gilermo Gorostiza–k. Zekorketa hura Bilboko Zezenzale–Klub–ak antolatu zuen langabezian zeuden langileei laguntzearren[1]. Aguero elkartea, Noain elkartea eta Bilboko Kluba ere antolatzaileen artean ziren[4].

Uztailaren 5ean korrida eman zen Bilbon Vicente Muriel–en zezenak jokatuta. Saturio Toron, Jose Amoros eta Gil Tovar ezpatariek ez zuten ezer egin zezen koldar haiekin. Korrida hura gainera, bi aldiz atzeratua izan zen euriagatik eta kazetari–elkarteak (antolatzaileak) dirua galdu zuen.

1.931.eko abuztuaren 16an hasi zen zezen–feria Bilbon. Lehen korridan jokatzeko, Concha y Sierra–ren ganadua ekarri zuten. Zezen handiak eta ederrak ziren haiek eta hirugarrena suharra ere bai. Pisuz, 329 kilora iritsi ziren batezbeste kanalean. Nicanor Villalta–k kuraia eta ausardiaz toreatu zuen, nahiz eta ezpataz asmatu ez. Vicente Barrera–ri bere trebetasunagatik txaloak jo zizkioten. Domingo Lopez Ortegari *Pañoleto* izeneko zezen zangarra tokatu zitzaion eta txalo asko jo zioten. Bere bigarrenean menperatzaile eta jakintsu ikusi zuten. Goxotasunez toreatu eta ezpata ederki sartu zuen, plazari buelta emanez.

Abuztuaren 17an Mihuraren zezenak korritu ziren Bilbon. Haietako bik gainera, zangartasun handia erakutsi zuten. Nicanor Villalta, Jesus Solorzano eta Jaime Noain bilbotarrak hil zituzten[1]. Noain–ek orduan hartu zuen alternatiba[5]. Villalta–ri bere toreaketa patxadatsu eta txukunagatik txaloak jo zizkioten. Jesus Solorzano–k ez zuen arratsalde hartan asmatu, baina Jaime Noain–ek bai[1]. Bere lehenengoari bi belarriak eta buztana[5] moztu zizkion eta bigarrenari banderila–pare bat iskintxo eginez bikain sartu ondoren faena burutsu osatu zuen[1]. Beste bi belarri eta buztana eskuan zituela[5] bizkar gainean atera zuten plazatik, txalo artean. Gero gauean, Fernandez del Campo kaleko taberna batean bere izeneko Zezenzale–Elkartea inauguratu zuen.

1.931.eko abuztuaren 18an, Santa Coloma–ko kontearen sei zezen hiltzera Diego Markiaran *Fortuna*, Vicente Barrera eta Domingo Lopez Ortega etorri ziren Bilbora. Zezen noble bat eta beste suhar bat azpimarra daitezke seietan. *Fortuna*k batean legea bete zuen eta bestean txaloak jo zizkioten. Vicente Barrera–ri ere bai bere bi zezenetan. Domingo L. Ortega–k bere lehenengoan ez zuen luzitzerik lortu, baina azkenekoan bai. Menperatuz, aginduz eta galgatuz aritu zen eta ezpata lehen saioan sartu zuenez gero, txalo ugari jo zioten.

Abuztuaren 20an, Carmen de Federico–ren bost zezen eta Enriqueta de la Cova–ren bat hil zituzten Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Vicente Barrera eta Domingo Lopez Ortega–k. *Caganchor*i ez zioten meritoko ezer ikusi. Vicente Barrera saiatu zen, baina bere etsaiak menperatzerik ez zuen lortu. Gauza bera gertatu zitzaion Domingo Lopez Ortega–ri.

1.931.eko abuztuaren 21ean eman zen hurrengo korrida Bilbon, hilaren 19koa euriagatik atzeratu zelako. Pablo Romero-ren sei zezen plazaratu zituzten Nicanor Villalta, Joaquin Rodriguez *Cagancho* eta Vicente Barrera-k torea zitzaten. Villalta-k gogoz eta ausart lan egin zuen lehenengoan, eta laugarrenean ezpatakada ikusgarria izan zen. *Caganchori* ez zitzaion inongo adorerik ikusi eta goardiez babesturik utzi behar izan zuen plaza. Vicente Barrera-ren ahaleginak alferrikakoak izan ziren, gero ezpataz seigarrenean asmatu zuelako. Seigarrenean ere ez zen ongi aritu.

Abuztuaren 23an jokatu zen Bilbon 1.931.eko azken korrida. Felix Moreno Ardanuy-ren sei zezenek aitzakia bakarra zeukaten: adarluzeak ez izatea. Gainerakoan ez zegoen gehiago eskatzerik. *Caganchori* ez zitzaion ezer ikusi arratsalde hartan ere, eta txistuak jo zizkioten. Eduardo Solorzano mexikarrak azkenean bere toreaketa fin eta artistikoa erkautsi ahal izan zuen Bilbon. Plazari buelta eman zion txalo artean. Jaime Noain ausart eta burutsu aritu zen kapote eta muletaz eta ezpataz ere asmatu zuen. Horregatik, txalo ugari jo zioten.

1.931.eko irailaren 13an *charlotada* eman zen Bilboko Vista Alegren Manuel Santos-en zezenkoak jokatuta. *Empastre* izeneko toreaketa komikoa ikusi ahal izan zen. Irailaren 27an berriz, Manuel Santos-en zezenkoak toreatzaile *nobelek* hil zituzten[1].

Diego Markiaran *Fortunak* 1.931. urtean hamar arratsaldetan jantzi zuen traje distiratsua. Madrilen ekainaren 17an, Bentetako (Las Ventas) plaza berria inauguratuz. Berak hil zuen han lehen zezena; Juan Pedro Domecq-en *Hortelano* izenekoa eta Veragua-ko dukearen burdin marka zeramana[5]. Langabeziako langileei laguntzeko eman zen korrida hura. Zortzi ganaduzalek zezen bana erregalo eman zuten eta ia ezpatari guztiek (zortzi ziren) doan toreatu zuten[6].

Joan Markiaran *Fortuna txikia* berriz nobilladatan fama lortzen ari zen. Bilbo, Oviedo, Alacante, Navalcarnero, El Espinar, Navalmorales, Yepes eta Madrilen toreatu zuen (urriaren 11n, azken hiriburuan)[7].

Joselito Martin bilbotarra 1.931.ean toreatzetik erretiratu egin zen, nahiz eta zezenen munduko beste negozio batzuetan segitu[5].

Martin Aguero-k 1.931. urtean ez zuen toreatu. Bere zauritutako zangoan ebakuntzak egin zizkioten medikuek. Bere anaia Jose Aguero-k ordea nobilladatan toreatu zuen. Irailaren 17an adibidez, Celso Pelón ganaduzalearen zezenkoak hil zituen Angel Lahoz *Jardinerito* eta Luis Gomez *Estudianterekin* batera Madrilen[7].

Jaime Noain-entzat urte ona izan zen 1.931.a.Hamar nobilladatan parte hartu ondoren alternatiba abuztuaren 17an Villalta-k eman zion aipatua dugunez.Gero neguan Ameriketara joan zen eta Kolombia, Venezuela eta Ekuador-en arrakastaz toreatu zuen[5].

Mariano Lopez *Regional* bilbotarra istripu batean hil zen 1.931.eko abuztuaren 11n, bi egun lehenago Tetuan de las Victorias-eko plazan Lerena-ren zezenko batek buruan larriki kolpatu zuelako[7].

Jose Clemente *Rubito de Bilbao*, banderilari gisa zebilen garai hartan, Jose Gomez Azuenaga bilbotarra bezalaxe[3]. Domingo Zaitegi bizkaitarrak berriz, pikatzaile gisa lan

egiten zuen orduan.

Eta Bilboko berriei amaiera emateko, iraileko azken emankizunez datu batzuk eskaintzea falta zaigu. Batetik, irailaren 13ko zezenfestaren alderdi serioan, Juan Martinez Picó eta Rafael Ponce *Rafaelillo*k toreatu zutela, eta bestetik, irailaren 27ko nobilladan Anton Ugarte *Anton*, Alfredo Moronta, Natalio Asensio, Felix Villanueva, Lorenzo Diaz *Carbonero* eta Rafael Bigiola *Chiquito de la Unione*k.

Gasteizen bizi zen Blas Valdivieso *Minuto* ere garai hartan zezenko-hiltzaileen koadrilatan zebilen banderilak sartzen[8]. Gasteizen bertan, 1.931. urteko udan urtero bezala eman ziren korridak. Abuztuaren 6koan esate baterako, Bernardo Escudero Bueno-ren *Marchamalo* izeneko zezen urdina nabarmendu zen bere suhartasunagatik[6].

Pedro Basauri gipuzkoarra berriz, korridak toreatzen ari zen 1.931.ean, nahiz eta oso maiz izan ez. 1.931.ean, zortzi aldiz jantzi zuen traje distiratsua[7]. Urte hartantxe jaio zen ordea Donostian, (Igeldo-ko malkarrean berak aitortzen duenez) Jose Mari Rekondo Rementeria; gero zezen-hiltzaile izango zena[2].

Luis Mazzantini, Pedro Basauri eta Jose Mari Rekondo izan dira alternatiba lortutako hiru toreatzaile gipuzkoarrak, orain arte. Azken aldian Donostian jaio eta Jaen-en bizitako Manuel Cruz *Morenito de Jaen* eta Donostian jaiotako Raul Zorita ditugu beste bi.

1.931.eko saninaziotarako, azpeitiarrek Manuel Arranz-en zezenkoak ekarri zituzten bi nobilladatan jokatzekotan (uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean). Lehen egunean Antonio Garcia *Maravilla* eta Victoriano de la Serna-k lan egin zuten eta bigarrenean Jaime Noain eta Angel Rey Conde-k. Antonio Garcia *Maravilla* izan zen azpeitiarren gustokoena. Bi belarri eta buztana eman zizkioten batean eta txaloaldi luzea jo zioten bigarrenean. Victoriano de la Serna-ri ere txaloaldia jo zioten bere zezenko bakoitzean[9].

16.1. Irudia. Sokamuturra Azpeitiko Erdikalean. 1.931. urtea.

Abuztuaren 1eko nobilladan ere txalotuena Antonio Garcia *Maravilla* izan zen. Izan ere jendeak ikusleen artean sumatu zuen egun hartan, Noain eta Rey Conde-ren lanari begira. Esaten dutenez, Antonio Garcia-k San Inazio egunez egindako faena izan da plaza hartan ikusitako onena.

Tolosan ere bi nobillada eman ziren sanjoanetan 1.931. urtean. Albaserrada-ko markesaren zezenkoak plazaratu zituzten bi arratsaldeetan. Batean Antonio Garcia *Maravilla* eta Paco Cester-ek lan egin zuten, eta bestean *Maravilla* eta Emilio Rangel *Niño de la Audiencia*k. Antonio Garcia bere bi nobilladatan artista ibili zen. Paco Cester-ek ere jendea pozik utzi zuen. Plazari buelta ematen ari zela, norbaitek zahato ardoa bota, buruan jo eta lurrera bota zuen Paco Cester. Pacomio Peribañez zezen-hiltzaile izanak ederki lagundu zion bere maisuari kapotez eta Emilio Rangel beldurti ibili zen Albaserrada-ko markesaren ganaduarekin[10].

Donostian 1.931.eko udaberrian, *Euskal Billera* elkartekoak nobillada ematekoak ziren[11]. Eduardo Pagés enpresariak korridak eman zituen Txofren 1.931.eko udan, urtero bezala. Abuztuaren 17koan Juliana Calvo (Bueno-ren alarguna) ganaduzaleak bidalitako *Rencoroso* zezen urdina izan zen onena[6]. Korrida haietan besteak beste Jose Ortiz Puga mexikarrak eta Manuel del Pozo *Rayito*k parte hartu zuten[7].

Oso korrida garrantzitsua dena dela, abuztuaren 23koa izan zen; ganadutegien lehiaketa eginez *urrezko zezena* izeneko saria eman zenekoa alegia. Nicanor Villalta-k, lehenengo Martinez-en zezen bat toreatu zuen eta gero Francisco Sanchez Coquilla-rena[10]. Azken honi eman zioten Mariano Benlliure-k egindako *urrezko zezena*, zangarrena bere *Madroñito* izan zelako[6]. Luis Fuentes Bejarano-ri Murube-rena eta Albaserrada-ko markesarena toreatzea egokitu zitzaion. Felix Rodriguez mexikarrak berriz, Graciliano Perez Tabernero-rena eta Maria Montalvo-rena hil zituen.

1.931.eko abuztuaren 25ean, Jose Garcia *Alcalareño II.a* zezenko-hiltzailea Madril-en hil egin zen plazako istripuz, eta abuztuaren 30ean Donostiako korrida atzeratu egin zuten euriagatik. Biharamunean eman zen, Antonio Perez Tabernero-ren zezenak jokatuz. Nicanor Villalta, Antonio Posadas, Joaquin Rodriguez *Cagancho* eta Domingo L. Ortega izan ziren ezpatariak. Villalta-k aspaldiko partez arrakasta lortu zuen Txofren, bere zezenei bina belarri moztuz. Ezpataz eskua zaurituta erizaindegira pasatu zen azkenean. Antonio Posadas oso txalotua izan zen bere bi zezenetan; *Cagancho* ez bezala. Ijito hark jendearen bronka besterik ez bait zuen entzun arratsalde hartan. Ezpataz 17 saio egin zituen zezenak hil ezinik. Domingo Ortega-k bere lehen zezena *Perico Chicote*ri brindatu zion, baina arrakastatsu bere bigarrenean aritu zen, belarria lortuz.

Korridan zehar *Alcalareño II.*aren familiari laguntzearren diru-bilketa egin zen. Guztira 3.418 pezeta eta 175 libera batu ziren. Kronikari batek honela zioen gero: *Zezenetako publikoa ez al da basatia?*[10].

Iruñean 1.931.eko Gorpuzti egunean, korrida eman zen, Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo* eta Mariano Rodriguez *el Exquisito* toreatzaile zirela. Gero ekainaren 21ean korrida hartan sobratutako bost urteko zezen bat burtzikatu zuen Antonio Rosalen *Carrilero*k, Garro ganaduzale tafallarraren zaldi baten gainetik. *Carrilero*, Teruel-eko Arco de las Salinas-en jaioa zen. Iruñean bizi zen eta pikatzaile gisa ere lan egin zuen[12].

Iruñean 1.931.eko sanferminetan, honako korrida hauek eman ziren:

- Uztailak 7: Concha y Sierra–ren sei zezen Vicente Barrera, Manuel Mejias *Bienvenida* eta Saturio Torón–entzat.
- Uztailak 8: Encinas–en sei zezen Manuel Mejias *Bienvenida* eta Domingo Lopez Ortega–rentzat.
- Uztailak 9: Ernesto Blanco–ren sei zezen probarako, Antonio Posadas, Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*, Vicente Barrera, Manuel *Bienvenida*, Saturio Toron eta Jose Amorós–entzat. Posadas eta Toron–ek belarri bana lortu zuten.
- Uztailak 11: Villamarta–ko markesaren sei zezen Vicente Barrera, Jose Amorós eta Domingo Lopez Ortega–rentzat.
- Uztailak 12: Santa Coloma–ko kontearen sei zezen, Antonio Posada, *Niño de la Palma* eta Manolo *Bienvenida*rentzat[13].

Uztailaren 10ean, ikuskizun komikoa eman zen Iruñeko zezenplazan. Bi zekor zezenko–hiltzaile batek hilko zituen, Rafael Dutrus *Llapiserak* beste bi eta *el Empastre* musika–bandakoek beste bat[14].

Urte hartako sanferminen berri Ernest Hemingway idazleak ematen du bere *Heriotza arratsaldean* izeneko liburuan. Joanito Kintanak Madrilera idatzi omen zion Domingo L. Ortega–k bi arratsaldetan toreatuko zuela esanez. Korridako 23.000 pezeta kobratu ziuten. Gaizki egon zen ordea, eta jendeak bere haserrea adierazi zion. Manuel Mejias *Bienvenidak* 1.931.ean osatutako faenarik onena, Iruñean uztailaren 12an egindakoa izan omen zen; zezenari baino jendeari beldur handiagoa ziolako hain zuzen[13].

Saturio Torón lizarratarrak, 1.931.eko apirilaren 12an sendotu zuen alternatiba Madrilen Fausto Barajas–en eskutik. Luis Bernaldo de Quirós–en *Caraquero* zezena hiltzeko tresnak eman zizkion. Urte hartako denboraldian hamaika korridatan parte hartu zuen, eta adarkadengatik beste batzuk galdu zituen. Neguan Venezuelara joan zen eta Caracas–en toreatu zuen.

Matias Aristoi, Cariñena–ko banderilaria, 1.931. urte inguruan Nafarroako Artaxona–n larriki zauriturik suertatu zen. Matias Aznar banderilari zaragozarra berriz, Altsasun erretiraturik bizi zen, eta hantxe eman zuen azken arnasa 1.931.ean.

Tafallan berriz, 1.931.eko denboraldiaren hasieran Manuel Compes *Manolék* toreatu zuen. Hueska–ko Aierbe herrian jaioa zen.

Manuel Olza *Vaquerin* iruindarra berriz, 1.931.eko uztailaren 30ean larriki zauritu zuen zezenko batek hango nobilladan. Madrileko sendategi batera eraman zuten eta han hil zen abuztuaren 1ean pasmoaren ondorioz.

Gregorio Yanguas *Zapata* banderilari iruindarra, 1.931. urterarte Martin Aguero–ren koadrilan aritu zen lanean, baina maisua gaixo zuelako, beste edozein ezpatariren koadrilan aritu zen harez gero; Bilboko plazan gehienetan[7].

Ramon Sanz *Finito* berriz, Korrellan bizi zen garai hartan, eta maila apaleko nobilladatan ezpatari gisa zebilen. Lucio D. Soto *Niño de Pamplonak* ere berdintsu lan egiten zuen Nafarroako plazetan[8].

Akitaniako partean ere eman ziren korridak 1.931. urtean. Akize–n adibidez abuztuaren 31n ospatu zen bat. Jose Encinas–en *Cidronero* izeneko zezena asko txalotu zuten bere zangartasun eta zintzotasunagatik[6]. Landetako erara ere korrida asko eman zen. Izan ere Barrere, Coran, Barrere II.a eta Lafitte ganaduzaleak plazaz plaza ibili ziren Gerard, *Mazantini*, Cantegrit II.a eta *Meunier* toreatzaileak taldeburu zituztela[15].

———— o ———— o ————

1.932.eko lehen nobillada apirilaren 3an eman zen Bilboko Vista Alegren, Nemesio Villarroel–en zezenkoak jokatuz. Manuel Pino *Niño del Matadero*, Antonio Garcia *Maravilla* eta Angel Rey Conde izan ziren ezpatariak.

Apirilaren 14ean, Bilboko Zezenzaleen Klub–ak lehen zezenfesta antolatu zuen Vista Alegren. Serafin Bigiola *Torkito* eta Jose Ortiz mexikarrak zuzendu zituzten toreaketa–lanak. Joaquin Lopez de Villena–ren zekorrak toreatzen, *Natxo* Allende, Jerman Etxebarria, Ramon Lafuente eta Gilermo Gorostiza aritu ziren. Banderilak sartzen, Vicente Brena, Retana, etab. Pikatzaile–lanak egiten Roke Bitoria debarra eta Ricardo Moñiz.

1.932.eko maiatzaren batean, urteko lehen korrida eman zuten Bilbon Conde de la Corte–ren ganadua plazaratuta. Domingo Lopez Ortega, Alfredo Corrochano eta Luis Gomez *el Estudiante* izan ziren ezpatariak. Ortega–ren lehen zezenari adarra hautsi zitzaion plazan eta ez zuen ezer egiterik izan. Bestean faena ederra egin zuelako plazari buelta eman zion. Corrochano eta Gomez–ek kapotez zerbait egin zuten, baina gainerakoan ezer ere ez. Zezenek batezbeste 302 kilo pisatu zituzten kanalean.

Biharamunean, maiatzaren 2an, Bernardo Escudero Bueno–ren zezenak toreatu zituzten Marcial Lalanda, Vicente Barrera eta Domingo Lopez Ortega–k. Desberdin portatu ziren Escudero–ren zezenak. Lalanda lehenengoan lanean ederki hasi zen, baina bukaera aldera ez zuen luzimendurik erakutsi. Ezta bere bigarrenean ere. Vicente Barrera burutsu eta artista ibili zen bere bi etsaiekin. Batean buelta eman zuen eta bestean ere bai, jendea belarri–eske zela. Domingo L. Ortega menperatzaile egon zen, baina alaitasunik gabe. Horregatik txalo batzuk bakarrik jaso zituen saritzat. Seigarrenean ez zuen ezer egin, zezena gehiegi pikaturik utzi zutelako.

1.932.eko maiatzaren 8an nobillada ospatu zen Bilboko Vista Alegren, Ramon Capdevilla–ren (lehen Buenabarba–koen) zezenkoez baliaturik. Jose Lafont *Niño de la Estrella* (edo Silvino Zafon?), Vicente Samperio eta Jose Etxebarria bilbotarrak parte hartu zuten.

Maiatzaren 20an tabernariek zekorketa eman zuten Vista Alegren Manuel Santos–en ganadua jokatuta. Maiatzaren 22an berriz, leku berean Manuel Santos–en lau zekor toreatu zituzten *Los Calderones* izenekoek eta zezenko–hiltzaile batek, eta maiatzaren 29an ganaduzale beraren beste lau zezenkorekin *el Rodeo* izeneko ikuskizuna eman zen. Ekainaren 26an bestetik, *nobel*ak aritu ziren Santos–en zezenkoak toreatzen.

1.932.eko ekainaren 29an, Bilboko Zezenzaleen Klub–ak zezenfesta bat eman zuen Vista Alegren. Serafin Bigiola *Torkito* eta Antonio Marquez–ek zuzendu zituzten toreaketa–lanak. Agustin Cabrera *Chatillo de Bilbao* deustuarra eta Gregorio Yanguas *Zapata* ere laguntzen ziren. Jerman Etxebarria *Maneras*, Ramon Lafuente futbolaria eta

Valeriano Leon bilbotarrek parte hartu zuten.

1.932.eko uztailaren 3an, pikatzailerik gabeko nobillada eman zuten Vista Alegren Manuel Garrido–ren zezenko txikiak plazaratuta. *Niño de la Palma II.a*, Luis Diez bilbotarra eta Julio Chico aritu ziren lanean. Luis Diez–ek belarria lortu zuen.

Uztailaren 10ean Julian Sanchez Laso–ren zekorrak toreatu zituzten Bilboko automobil–gidariek eta hurrengo hilaren 21a arte ez zen zezenik korritu Vista Alegren.

Abuztuaren 21ean hasi ziren korridak, lehen kartela honela osatua zegoelarik: Santa Coloma–ko kontearen zezenak, Fermin Espinosa *Armillita chico*, Jose Amorós eta Jaime Noain bilbotarrarentzat. Espinosa, Vicente Barrera–ren ordez etorria zen eta bere bigarrenean lortu zuen arrakasta. Jakinduria eta estilo dotoreari esker, bi belarriak irabazi zituen. Jose Amorós gogotsu eta ausart aritu zen, baina ezpataz ez zuen asmatu. Jaime Noain–i zezenik txarrenak tokatu zitzaizkion (seigarrena sutu egin zuten). Hala ere, azken zezenari ezpata ongi sartzeagatik txaloak entzun zituen. Zezenek batezbeste 291 kilo pisatu zituzten kanalean.

1.932.eko abuztuaren 22an Pablo Romero–ren sei zezen toreatu zituzten Bilbon Nicanor Villalta, Luis Fuentes Bejarano (bere egiazko izena Luis Moragas Fuertes da) eta Eduardo Solorzano–k. Zezenak sataiz ez ziren bestetan bezain ederrak eta pisuan ere igarri zen hori kanalean: 288 kilo batezbeste. Zalditan ongi portatu ziren ordea, eta muletan nobleki. Nicanor Villalta adorerik gabe aritu zelako, jendeak gogor hartu zuen. Fuentes Bejarano ordea, batekoz bestera portatu zen, nahiz eta Cordoba eta Malagako adarkaden ondorioz fisikoki ongi egon ez. Horregatik txalo asko jo zioten eta plazari buelta eman zion. Eduardo Solorzano fin aritu zen bere lehenengoan, baina hotz samar. Seigarrenean ordea, buelta eman zuen txalo artean.

Abuztuaren 23ko korridan, Carmen de Federico–ren zezenak jokatu zituzten Bilbon. Bigarrena oso txikia zen eta laugarren eta bostgarrena izan ziren toreatzeko garbienak. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Domingo Lopez Ortega–k lan egin zuten. *Chicuelo*k laugarrenaren bi belarriak lortu zituen bere arte finari esker. Fermin Espinosa–ri ere bostgarrenaren bi belarriak eman zizkioten. Erraz, dotore eta jakintsu aritu zen mexikarra. Domingo L. Ortega–k ere bere ahalmena eta jakinduria erakutsi zituen, baina zezenik txarrenak suertatu zitzaizkionez gero, saririk gabe gelditu zen.

1.932.eko abuztuaren 24ean, Concha y Sierra–ren zezenak korritu ziren Bilbon; itxura onekoak baina suhartasun eta indarrik gabeak. Bezperako hiru ezpatari berberek lan egin zuten. *Chicuelo*k ezpataz huts egin zuen eta Espinosa ezinean aritu zen, zezenen ahulezia medio. Ortega–ri ere gauza bera gertatu zitzaion, nahiz eta txalo batzuk entzutea lortu.

Abuztuaren 25eko korridan Nicanor Villalta, Domingo Lopez Ortega eta Jaime Noain aurkeztu ziren Bilboko Vista Alegren Mihuraren zezenak hiltzera. Zezen desberdinak ziren itxuraz, eta ahul samarrak portaeraz. Bostgarrena suharra eta noblea zen (532 kilo pisatu zituen bizirik). Villalta–k bere lehenengoan lana ongi egin zuen eta laugarrenari faena motza osatu zion, ezer egiterik ez zegoelako. Ortega–k bere lehen zezena ederki menperatu zuen, baina faena luzeegia burutu zuenez gero, jendeak eritzi desberdinak adierazi zituen. Bostgarrenean, jendea isilik gelditu zitzaion. Noain–ek ahalegin guztiak jo zituen bere herritarren aurrean, baina ganadu harekin luzimendurik ez zegoen eta jendearen txalo

batzuk entzunda gelditu zen.

1.932.eko abuztuaren 26an Serafin Bigiola *Torkito*k Vista Alegren zezenfesta bat antolatu zuen, Contreras–en lau zezenko eta bi ergi korrituz. Manuel Crespo *Crespito* toreatzailearen alargun eta semeei laguntzearren eman zen festa hura. Jose Amorós eta Jerman Etxebarria *Maneras* nahiz *Natxo* Allende fultolariek toreatu zuten, Bigiolaz aparte.

Abuztuaren 28an, urteko azken korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Nicanor Villalta, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Domingo Lopez Ortega–k Felix Moreno Ardanuy–ren sei zezen toreatu zituzten; zezen alai eta suharrak. Batezbeste 516 kilo pisatu zuten arrasterakoan. Denetan onena *Cantinero* izenekoa izan zen. Villaltari lehenengoan txalo batzuk jo zizkioten eta laugarrenean jendea isilik gelditu zitzaion. *Armillita chico* bikain aritu zen arratsalde osoan kapote, banderila eta muletaz; bostgarrenean batez ere. Horregatik nahiz eta hirugarrenean ezpata osorik sartu, bi belarriak eman zizkioten. Domingo L. Ortega–ren toreaketa, serio samarra edo alaitasunik gabekoa iruditu zitzaien bilbotarrei, bai arratsalde hartan eta baita toreatu zuen aurrekoetan.

Abuztuko korrida haietan, zezen zangar asko atera zen toriletatik. Felix Moreno–ren *Cantinero* aipatu dugu, baina ganduzale beraren *Avellano* eta *Granadino* ere azpimarratzekoak dira; bata Villalta–k eta bestea Ortega–k toreatuak hain zuzen. Carmen de Federico–k bidalitakoetan *Desertor* (*Chicuelo*k hila) eta *Cordelero* (*Armillita chico*ri tokatua) aipatu gabe ezin ditugu utzi.

1.932.eko irailaren 11n, Galache–ren (lehen Felix Urkola–ren) zezenkoak korritu ziren Bilboko Vista Alegren, Luis Morales, Fernando Dominguez eta Lorenzo Garza ezpatari zirela. Morales–ek belarri bat lortu zuen, eta Dominguez–ek ez, ezpataz huts egiteagatik. Lorenzo Garza ausart aritu zen bere lehenengoan eta zezenkoak bi aldiz harrapatu zuen. Gero nobillada suspenditu egin zen euriagatik[1]. Lorenzo Garza Arranbide Mexikotik etorri berria zen (uztailean) eta Eduardo Pagés enpresariak lagundurik toreatu zuen[7].

Irailaren 18an zezenfesta mistoan Manuel Santos–en zezenkoak toreatu zituzten Pedro Martin, *Charlot* eta *Los Calderones* izeneko taldeak.

Urriaren 12an berriz, 1932. urteko azken saioan toreatzaile *nobel*en eginahalak ikusi ahal izan ziren Bilboko Vista Alegren, Manuel Santos–en sei zezenko medio[1].

1932. urtean, Diego Markiaran *Fortuna*k ez zuen asko toreatu; lau arratsaldetan bakarrik[5]. Bere iloba Joan Markiaran *Fortuna txikia*k nobilladatan gehiago toreatu zuen. Madrilen 14 zezenko hil zituen eta ia beste horrenbeste beste sei nobilladatan[7].

Martin Aguero toreatzaile bilbotarra, 1932. urtean (aurrekoan bezalaxe) mediku artean ibili zen. Bere zango zaurituan ebakuntzak egin zizkioten eta bi behatz moztu ere bai. Saio batzuk egin zituen zezenketatan, baina bere onera sekula ez zela etorriko pentsatu zuen. Horregatik, otsailaren 1ean bere erretiroaren berri eman zion jendeari[5].

Bere anaia Jose Aguero bilbotarra berriz, nobilladak toreatzen ari zen 1932.ean. Madrilen udan aurkeztu zen eta guztira 11 nobilladatan parte hartu zuen. Madrilen, Manuel Fuentes Bejarano eta Luis Diaz *Madrileñito*rekin Alipio Perez Tabernero Sanchón–en

zezenkoak hil zituen abuztuaren 28an[7].

Jaime Noain bilbotarra gaixo ibili zen 1932. urtean, eta horregatik denboraldian zehar 13 korrida bakarrik toreatu zituen. Uztailaren 13an, Madrilen alternatiba sendotu zuen Nicanor Villalta–ren eskutik eta Dabid Lizeaga–ren aurrean. Noain–ek (arrosa eta urre), Alipio Perez Tabernero Sanchón–en *Forastero* zezena hiltzeko tresnak jaso zituen. Zezenek ez zioten luzitzen utzi, baina bere ausardia eta trebetasunagatik jendeak txaloak jo zizkion bere bi zezenetan.

Barakaldo–n bestetik, 1932.eko otsailaren 20an Joan Manuel Etxebarria Gutierrez Txakartegi jaio zen; gero *Manolo Txakarte* zezen–hiltzaile famatu izango zena. Konserbador Etxebarria zezenko–hiltzaile ohiaren semea zen[5].

Angel Rey Conde balmasedarra izan zen Madrilen aurkeztutako beste bat; urriaren 22an hain zuzen, Andres Coloma *Clásico* eta Manuel Gonzalez *Manolete*rekin Casal–eko kontearen zezenkoak hiltzera. Aurrez beste hamar nobillada toreatuak zituen[7].

Tomas Rodriguez *Bilboko mutila* (*Chico de Bilbao*) zezenkoak toreatzen ari zen nobillada apaletan 1932. urte inguruan[8].

Pedro Basauri eibartarrak bestetik, zazpi korridatan parte hartu zuen urte hartan[7].

Azpeitian 1932. urteko saninaziotan bi nobillada ospatu ziren urtero bezala. Ernesto Blanco–ren zezenkoak korritu ziren bi egunetan. Lehenengoan Jose Gallardo eta Manuel Suarez *Magritas hijo*k toreatu zuten eta bigarrengoan Cayetano Leal Arranz *Pepe–Hillo* eta Jose Gallardo–k[9].

Zirilo Astigarraga azpeitiarra ere 1932. urtean hasi zen bere herriko plazan toreatzen. Gero Zestoa, Tolosa, Donostia, Urretxua, Mutriku, Sara (Lapurdin) eta abarren ere azpeitiarra ikusteko aukera izan zen. Zirilo Astigarraga oso estimatua zen Azpeitian, eta Hilario Bereziartua–k (herriko musika–bandako zuzendariak) eginiko pasodoblea ere bazuen[16]. Donostian arrakasta handia lortu zuen batean (1947–IX–7an) eta aurrez Zestoan ere bai. Izan ere 1946.eko irailaren 9an bizkar gainean eraman zuten zezenplazatik (herriko plazatik) Alkorta hoteleraino. Manuel Olaizola *Uztapide* famatua ere han zen eta honako bertso hau bota zion:

Salamancatik ekarri dute
Zirilontzako zezena,
armajera ederrekoa....
.....handi eta gizena.
Pase eder batzuk eman ondoren
ondo sartu du eztena;
horregatik eman dizkiote
bi belarri ta buztena.

Donostian, 1932.eko udan korridak antolatu zituen Txofren Eduardo Pagés enpresariak. Antonio Garcia *Maravilla* (alternatiba hartu berria zen) eta Victoriano de la Serna ikusteko aukera egon zen, besteak beste. Coquilla–ren zezen batek gainera, larriki adarkatu zuen Victoriano de la Serna segoviarra[7]. Abuztuko 21eko korridan berriz, Carmen de Federico–ren *Gusanillo* izeneko zezenak irabazi zuen *urrezko zezena* izeneko saria[6].

Iruñean 1932.eko sanferminetarako iragarri zituzten korridak hauek izan ziren:

– Uztailaren 7rako, Ernesto Blanco–ren (lehen Parladé–ren) sei zezen Marcial Lalanda, Vicente Barrera eta Domingo Lopez Ortega–rentzat.

– Uztailaren 8rako, Santa Coloma–ko kontearen sei zezen probarako, M. Lalanda, Nicanor Villalta, Luis Fuentes Bejarano, Vicente Barrera, Domingo L. Ortega eta Jaime Noain–entzat.

– Uztailaren 9rako, Villamarta–ren sei zezen, Lalanda, Nicanor Villalta eta Domingo L. Ortega–rentzat.

– Uztailaren 10erako, Hernandez–en (lehen Encinas–en) zortzi zezen. Toreatzaileak: Nicanor Villalta, Luis Fuentes Bejarano, Vicente Barrera eta Jaime Noain.

Sanferminetako entzierroak plazan ikusi nahi zituenak, ordaindu egin behar zuen: harmaila pezeta bat, eguzkialdeko tendidua sei pezeta eta itzaleko barrera 23 pezeta[14].

Urte hartako entzierro batean, Larrotxapea–ko kortatik ez ziren zezen guztiak atera. Felix Azkona atezainak beraz, bigarren suziririk ez zuen bota, zezen bat bertan gelditu zelako. Hamabost minutu baino gehiago pasatu zituen zezenak barruan, eta gero joaldun eta guzti han joan zen plazako toriletaraino[17].

Dena dela 1932.eko sanferminetan berebiziko azaina Vicente Barrera–k burutu zuen. Izan ere berak toreatutako zezen guztiei bi belarriak eta buztana moztu bait zizkien. Bati gainera, baita hanka ere.

Saturio Toron lizarratarrak bederatzi korridatan toreatu zuen 1932. urtean eta Bartzelonan aritu zen ondoen. Ausardiaz gain arte handirik ez zitzaion ikusten, egia esan[7].

Ablitas–eko festetan bestetik, oso gauza zelebrea gertatu zen 1932.ean. Izan ere joaldun bat bigarren etxebizitzaraino igo zen, hango jende guztia ikaratuz. Gazte bat leihotik zintzilik zegoen, eta idiak eskuak miazkatu egin zizkion[18].

Akitania aldean ere korrida asko eman zen 1932. urtean. Maiatzaren 29an adibidez, Jose Maria Galache–ren *Preciosillo* izeneko zezenko beltza nabarmendu zen Bordelen. Bost aldiz zaldiak lurrera bota eta bi hil zituen[6]. Urriaren 2an Pierre Saurel burtzikari frantsesak ere parte hartu zuen beste nobillada batean[8]. Ekainaren 25ean korrida eman zen, bertan Joaquin Rodriguez *Caganchok* parte hartu zuelarik.

Auski (Auch) herrian ere ospatu zen nobillada bat, A. Lescot–en zezenkoak jokatuz, uztailaren 17an. Jose Andres *Andresillo* zezenko–hiltzaile gandiarra (Valentziakoa) zauritu eta hil egin zen bertan[7].

Mendi Martzana–n (Mont de Marsan–en), 1932.eko uztailaren 17an korrida eman zen eta han plazaratutako zezenetan Esteban Hernandez Pla–ren *Bejarano* izenekoa izan zen onena[6].

Akize–n ere ospatu ziren korridak 1932.ean. Jesus Solorzano mexikarrak bat toreatu zuen behintzat bertan[7].

Baionan berriz, 1932. urtean festaburuak abuztuaren lehen astean egiten hasi ziren.

Ez da ahaztu behar bestetik, Landetako toreaketa erak ere jende askoren zaletasuna

pizten zuela, eta 1932. urtean lau ganaduzale (Barrere, Coran, Barrere II.a eta Lafitte) zebiltzala plazaz plaza beren toreatzaile-koadrila eta behiekin. Koadriletako buru, Gerard, *Le Suisse*, *Mazantini* eta Duvigneau izan ziren urte hartan. Abel Corbaque toreatzaile landetarra urte hartantxe hasi zen (Bazko-astelehenean hain zuzen) Aignan herrian lanean[15].

———— o ———— o ————

Bilbon, 1933. urtean nobilladak martxoaren 26an hasi ziren. Lamamie de Clairac anaien zezenko txiki, gizen eta nobleak toreatu zituzten Enrique Bartolomé, Diego de los Reyes eta Rafael Vega *Gitanillo de Triana III*.ak. Bartolomé bere lehenengoak harrapatu egin zuen, baina hala eta guztiz ere lehen bezain ongi toreatzeari ez zion utzi. Horregatik txalo asko jo zioten. Laugarren zezenkoan faenaren bukaeran berriz ere harrapatu, zapaldu eta adarkatu egin zuen etsaiak, eta harez gero beldurti aritu zen.

1933.eko apirilaren 2an eman zen Vista Alegren urteko bigarren nobillada, Arturo Sanchez-en zezenkoak korrituz. Enrique Bartolomé, Antonio Iglesias *Antoñete* eta Jose Aguero izan ziren ezpatariak. Zezenko ahul eta iheskorrak suertatu zitzaizkien. Laugarrenak bakarrik erakutsi zuen kasta-apur bat. Jose Aguero patxadaz aritu zen lanean eta ausart ere bai seigarren zezenkoan. Ezpata bere lekuan ez sartzea lastima izan zen. *Antoñetek* kapaz eta banderilaz lanean ederki zekiela erakutsi zuen, baina gainerakoan artean bazuen zer ikasia. Hala ere jendeak txaloak jo zizkion. Enrique Bartolomé bestetik, beldurti aritu zen bere zi zezenkoetan.

Apirilaren 16an, Manuel Santos-en ganadua jokatuta nobillada eman zuten Bilboko Vista Alegren. Vicente Samperio, Luis Diez bilbotarra eta Francisco Jimenez izan ziren ezpatariak.

1.933.eko maiatzaren 2an, Bilbon urteko lehen korrida ospatu zen. Bernardo Escudero-ren bost zezen eta Felix Moreno Ardanuy-ren bat plazaratu ziren, Fermin Espinosa *Armillita chico*, Victoriano de La Serna eta Luis Gomez *el Estudiantek* kartela osatzen zutelarik[1]. Korrida hartan errepublikako lehendakaria (Manuel Azaña jauna), Indalecio Prieto, Sanchez Guerra, Bilboko alkatea eta beste agintari batzuk egon ziren lehendakaritzan.

Orgulloso izeneko lehen zezena *Armillita chicok* (urdin eta zilar) errezeloz eta beldurrez toreatu zuen, eta hiltzen asmatu ezinik ibili zen. *Mensajon* izena zuen bigarren zezenak; Felix Moreno-renak (lehen Saltillo-renak). Zezen beltz, handi eta iheskorra zen. Pikaldi on baten ondoren, Enrique Salinero *Alpargateritok* ederki banderilaztatu zuen. Gero, Victoriano de La Serna-k brindisa Manuel Azaña lehendakariari egin zion eta faena egiten ari zela euria hasi zuen[19]. Artista ibili zen La Serna eta azkenean txaloak jo zizkioten[1].

Hirugarren zezenak *Gitanillo* izena zuen. Altua eta urdina zen itxuraz. Luis Gomez *el Estudiantek* ahaleginak egin zituen, baina azkenean zalantzaz ibili zen eta jendea isilik gelditu zitzaion.

Rabilargo izeneko zezenak, satai on adina koldarkeria zeukan. *Armillita chicok* hiru banderila-pare oso ongi sartu zizkion eta txalotua izan zen, baina faenan jendea aspertu egin zitzaion. *Cumbrero* izeneko zezena, gogoz joan zen zalditara. Gero La Serna-k faena patxadaz burutu zuen, baina jendeari ez zitzaion gustatu eskuinez egin

zuelako. Ezpataz asmatu ezinik ibili zen.

Madamito izeneko zezenarekin Luis Gomez *el Estudiantek* ez zuen gauza handirik egin, ez kapotez eta ez muletaz. Ezpataz ere ez zen ongi aritu[19].

Maiatzaren 7an Bilbon 1.933. urteko bigarren korrida eman zuten Vista Alegren. Conde de la Corte–ren sei zezen toreatzera Manuel Jimenez *Chicuelo*, Luis Fuentes Bejarano eta Joaquin Rodriguez *Cagancho* etorri ziren. Zezenek batezbeste legea bete zuten. *Chicuelo* lehenengoan oso alai eta dotore ibili zen, baina gehiegi luzatu zuen faena eta baita ezpatazko saioa ere. Laugarrenean, beldurti ibili zen eta jendeak txistuak jo zizkion. Luis Fuentes Bejarano–k zituen guztiak emateagatik, txalo asko entzun zuen gehiegi pikatutako zezenarenak egindakoan. Bostgarrenean ez zen luzitu; ez muletaz eta ez ezpataz. *Cagancho* ere ez hirugarrenean, baina seigarren gorrian bai. Bere ijito–artea atera bait zitzaion faenan, eta bigarren saioan ezpataz ederki hil zuelako bizkar gainean kaleraino atera zuten.

1.933.eko maiatzaren 14ean, Antonio Fuentes–en lau zezenko jokatuz jaialdi mistoa eman zen Bilbon. *Rafaelillo* izeneko zezenko–hiltzailearekin batera *Los Ases* izeneko taldeak eta *Bombero–Torerok* lan egin zuten. Emankizun berbera, maiatzaren 21ean errpeikatu zen Bilboko Vista Alegren.

Ekainaren 18an, korrida eman zuten Bilbon, Martin Aguero toreatzaile erretiratuaren alde dirua biltzearren. Julian Fernandez–en (lehen Vicente Martinez) sei zezen plazaratu ziren, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Vicente Barrera eta Fernando Dominguez ezpatarientzat. *Chicuelo*ren alaitasun eta dotorezia belarri batez saritu zen lehen zezenean, laugarrenean ez bezala. Vicente Barrera urduri ibili zen lehen zezenean, laugarrenean ez bezala. Vicente Barrera urduri ibili zen bigarren zezenean, baina efektuen bidez (belauniko adarpuntak ukituz etab.) jendea berotu zuenez gero, bi belarriak eta buztana eman zizkioten. Bostgarren zezenak zailtasun handiak zituen eta menperatzea lortu zuelako buelta eman zuen azkenean Barrera–k. Fernando Dominguez bere lehen zezenean konfidantzarik gabe ibili zen, baina seigarrenean bere arte klasiko eta fina erakutsi zuen, belarria lortuz.

1.933.eko ekainaren 25ean, *charlotada* eman zen Bilboko Vista Alegren, Manuel Santos–en lau zezenko korrituta. Francisco Villarroel eta *Charlotek* lan egin zuten. Uztailaren 2an berriz, Manuel Santos–en sei zezenkorekin toreatzaile *nobelak* saiatu ziren leku berean.

1.933.eko uztailaren 6an, zezenfesta bat ospatu zen Bilbon Errukietxeei eta tuberkulosiaren kontrako saioei laguntzearren[1]. Bilboko Zezenzale–Kluba zen antolatzailea[4]. Alipio Perez Tabernero Sanchon–en zezenkoak toreatu zituzten Serafin Bigiola *Torkito*, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Vicente Barrera–k. Ramon Lafuente futbolari bilbotarrak ere toreatu eta hil zuen zezenko bat.

Abuztuaren 15ean Vista Alegreko plazan zezenak erakutsi ondoren, hilaren 20an hasi ziren korridak ematen. Lehenengoan Pablo Romero–ren zezenak jokatu zituzten, ezpatari Manuel Jimenez *Chicuelo*, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Antonio Garcia *Maravilla* zirelarik. Bostgarren zezena ezik, Pablo Romero–ren ganadua koldar samar portatu zen. *Chicuelo* eta *Armillita chicok* gauza handirik ez zuten egin, bigarrenak txalo batzuk entzun bazituen ere. *Maravilla* berriz, kapotez bostgarren pasea osatzerakoan

zezenak galtzarbean adarkatu egin zuen.

1.933.eko abuztuaren 21eko korridan, Carmen de Federico–ren bost zezen (satai onekoak eta suharrak) eta Enriqueta de la Cova–ren beste bat jokatu ziren Bilbon. Victoriano de La Serna eta Marcial Lalanda etorri ez zirenez gero, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Domingo Lopez Ortega–k hil zituzten. Espinosa mexikarra banderilatan oso txalotua izan zen, eta hirugarren zezenaren faenan ere bai, azkenean belarria lortuz. Ortega–k goxotasunez eta agintez erabili zituen atzera eta aurrera bere zezenak, baina Angel Parra *Parrita* pikatzaileak eztena behean sartzeagatik jendea haserretu egin zen eta maisuaren lana txalotzeko tenorerik ez zegoen. Zezenek 299 kilo pisatu zituzten batezbeste kanalean.

Abuztuaren 22ko korridan Bilbon *Chicuelo, Armillita chico* eta Domingo L. Ortega aurkeztu ziren Felix Moreno Ardanuy–ren bost zezen eta Enriqueta de la Cova–ren bat toreatzera. Laugarrena ezik, beste zezenak koldar eta geldo samarrak izan ziren. Lehen zezenean *Chicuelo*ri jendea haserretu egin zitzaion, berak ezer ez egiteagatik. Laugarrenean are eta handiagoa izan zen jendearen haserrea, baina kite dotoreak egin zitzaizkion zezen hari: *Armillita chico*k pase farolduen bidez, Ortega–k aurrez aurre kapotea atzean zuelarik eta *Chicuelo*k alai eta fin.

Espinosa–k zezen maltzurrarekin (Enriqueta de la Cova–rena zen) burruka egin zuen, faena laburra eta ausarta osatuz. Azkenean txaloak entzun zituen. Bostgarren zezen koldarra hil zuenean berriz jendea isilik gelditu zitzaion. Ortega–ri bi zezen koldar egokitu zitzaizkion. Lehenengoa zakarra zen, eta maisuki menperatu zuen, zezenaren intentzio txarrei aurrea hartuz. Azkenean belarria eman zioten. Seigarren zezena ere arriskutsua zen. Jotzera egiten zuen, baina Borox–eko maisua artista eta ausart ibili zen; agintez eta segurtasunez. Ezpatakada bikainez hil zuenez gero, bi belarriak jaso zituen. Zezenek kanalean hurrenez hurren 329, 292, 304, 321, 285 eta 349 kilo pisatu zituzten.

1.933.eko abuztuaren 23an Argimiro Perez Tabernero–ren sei zezen geldo eta koldar korritu ziren Bilbon. *Armillita chico* ederki moldatu zen bere bi zezenen baldintzetara, baina ezpata maneiatzen ez zuen inola ere asmatu. Domingo L. Ortega batean maila normalean aritu zen, baina bestean ez; mailarik gorenera iritsi bait zen bostgarren zezenean. Musika ari zela artez beteriko faena menperatzailea osatu zuen. Bigarren saioan hil zuenean, bi belarriak eta buztana eman zizkioten. Fernando Dominguez–ek bere artea ez zuen erabat erakusterik izan, urduriegi ibili zelako.

Abuztuaren 27ko korridan (1933.eko azkenean), Bilbon Villamarta–ko markesaren zezenak plazaratu zituzten. Fermin Espinosa *Armillita chico*, Jose Amorós eta Fernando Dominguez izan ziren zezen adarluze, suhar eta noble haiek (lehenengoa ezik) hil zituztenak. Jose Amorós bere bigarren zezenak harrapatu egin zuen eta altxatzerakoan lepoan adarkatu ere bai, oso larriki zaurituz. Fernando Dominguez ausart ibili zen batean, toreaketa klasikoa burutuz. Bestean ez zitzaion ezer ikusi. Jose Aguero zezenko–hiltzaile bilbotarrak zazpigarren zezena toreatu eta hil zuen. Txaloak jo zizkioten bere ausardiari esker.

1.933. urtean, irailaren 17an *charlotada* batean Manuel Santos–en lau zezenko jokatu ziren Vista Alegren, eta ganaduzale beraren beste seirekin saiatu ziren urriaren 8an toreatzaile *nobel*ak[1].

Bilboko plazak, Vista Alegre–koak, giltzazain berria izan zuen 1.933. urtean. Orduan hasi bait zen han lanean Jose Etxebarria Arrate; oraindik ere bertan bizi den eta hain estimagarria den markinarra[4].

1.933. urtea txarra izan zen Diego Markiaran *Fortuna*rentzat. Bi korridatan bakarrik toreatu bait zuen[5]. Korrida bat Madrilen uztailaren 2an emandakoa izan zen. Han Antonio Labrador *Pinturasi* alternatiba sendotu zion, Juan Cobaleda–ren *Segorito* izeneko zezena hiltzeko trasteak utziz.

Diego–ren iloba Joan ere (Joan Markiaran *Fortuna txikia*), gainbehera zihoan eta urte hartan abuztuaren 17an Pedro Muñoz–en eta gero nobillada apalen batean bakarrik aritu zen lanean.

Jose Aguero Ereño (Martin–en anaia), 1.933. urtean Frantzia–ko Provence aldean aritu zen batez ere. Guztira hamahiru nobilladatan parte hartu zuen.

Jaime Noain bilbotarra (alternatibaduna) korridak toreatzen ari zen 1.933. urtean. Traje distiratsua hamahirutan bakarrik jantzi bazuen ere, bere fama finkatu egin zen, toreatzen kalitatea erakusteagatik.

Angel Rey Conde balmasedarrak bestetik, zazpi nobillada toreatu zituen 1.933. urtean.

Pedro Basauri eibartarrak berriz, sei korridatan parte hartu zuen 1.933.ean[7].

Aipa dezagun bidenabar, garai hartan zezenetarako pasodoble desberdinak egin zituztela musikari desberdinek. Guk Jaume Teixidor–en *Amparito Roca* eta *Carrascosa* batetik eta J. Martin Domingo–ren *Peña taurina vitoriana* bestetik gogoratuko genituzke[20].

Azpeitian 1.933. urtean, aurrekoetan bezalaxe bi nobillada eman zituzten saninaziotan, Jose Encinas–en zezenkoak jokatuta. Jaime Pericás eta Valentin Ritore izan ziren ezpatariak[9].

Tolosan 1.933.eko sanjoanetan, zezenplaza alokatu zuenak korrida bat eta nobillada bat emateko konpromezua zuen, baina bi nobillada ospatu ziren. Ekainaren 24ekoan Florentino Ballesteros eta Luis Diaz *Madrileñito*k parte hartu zuten Perrogordo–ren zezen adarluze eta koldarrak toreatzen. Ballesteros–ek bi belarriak eta buztana irabazi zituen bere lehenengoan. *Madrileñito*, zezenkoak airera bota zuen, eta eroritakoan ezpataz bere belarria ebaki zuen. Zauriak zauri, amorruz beterik ezpata osorik sartuta berehalakoan bota zuen zezenkoa[10].

Donostian ere urtero bezala eman ziren Txofren korridak 1.933.eko udan. Fermin Espinosa *Armillita chico* eta batez ere Domingo Lopez Ortega–k arrakasta handia lortu zuten[7]. Zezenei dagokienez, Carmen de Federico–ren *Desesperado* izenekoa (uztailaren 23an jokatua) eta Pablo Romero–ren *Burraco* izenekoa (irailaren 10ean korritua) azpimarratuko genituzke[6].

Irufiean 1.933. urteko sanferminetarako honako kartel hau iragarri zen:

- Uztailak 7: Pablo Romero–ren sei zezen, Vicente Barrera, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Antonio Garcia *Maravilla*rentzat.
- Uztailak 8: Blanco–ren (lehen Parladé–ren) sei zezen probarako, Nicanor Villalta, Vicente Barrera, *Armillita chico*, Jose Gonzalez *Carnicerito de México*, Luis Gomez *el Estudiante* eta Antonio Garcia *Maravilla*rentzat.
- Uztailak 9: Villamarta–ko markesaren zortzi zezen, Villalta, Barrera, *Carnicerito de México* eta *el Estudiante*rentzat.
- Uztailak 10: *Llapisera* eta *Los ases* izeneko taldearen emanaldi komikoa.
- Uztailak 16: Sanchez Coquilla–ren zortzi zezen, *Armillita chico*, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, *el Estudiante* eta Antonio Garcia *Maravilla* ezpatarientzat.

Iruñean plazan entzierroa ikustea pezeta bat kostatzen zen, zezenen zozketa ikustea lau eta zezenak kamioitatik ateratzen ikustea hamar. Korridak ikusteko bi prezio–zerrenda zeuden: bata hilaren 7 eta 8rako eta bestea hilaren 9 eta 16rako. Barrerarik garestienek 28 eta 36 pezeta balio zuten hurrenez hurren. Sarrerarik merkeenek berriz, 4 eta 6 pezeta. Itzaleko tendidua, 12–15 pezetakoa zen[14].

Sanferminak igaro ondoren, urriaren 12an zezenfesta bat ospatu zen eta bertan Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*, Emilio Rangel *Niño de la Audiencia*, Antonio Garcia *Maravilla*, Jose Parejo, Claude Popelin eta Carretero doktoreak toreatu zuten[21].

Saturio Torón lizarratarrak bi korrida bakarrik toreatu zituen 1.933. urtean, eta ondoren alternatibari uko egin zion. Zezenko–hiltzaile eta banderilari gisa ibili zen[7].

Tuteran, 1.933.eko uztailaren 25ean zezenplaza berria inauguratu zen, 8.500 ikuslerentzako lekua zuelarik[22].

Ablitas–en ere urtero korritzen ziren zezenak herriko plazan, Euskal Herriko beste leku askotan bezalaxe. Bertako jendea ere ateratzen zen toreatzera, 1.933.ean kantatzen zen kopla honek dioenez:

Ahi tenemos a "Capica"
tratándose de torero,
que cuando sale a la plaza
ya se ha "caido" de miedo

Larrabehiekin entzierroak egiten zituzten, eta beren zintzarri–hotsa entzunez gero ablitastarrak berehala berotzen dira. Inoiz zintzarri–hotsa entzunda jendea elizatik meza utzita atera ere egin zen[23].

Bestetik, 1.933. urteko abenduaren 6an San Bixenti Urraul–Behekoa–n (Nafarroan, Irunberri ondoan), Frantzisko Beorlegi jaio zen; gero *Romerito* izenordeaz Nafarroako plazatan nobilladatan ibili zena[24].

Mugaz beste aldera ere korridak eman ziren 1.933. urtean. Baionan adibidez, Antonio Garcia *Maravilla*k lan egin zuen[7]. Landetako erara behiak korritzen Barrere, Coran eta Lafitte ganaduzaleak ibili ziren urte hartan Gerard, Marcadé eta Bourre I.a toreatzaileak taldeburu izanik. Henri Laulhe toreatzaile famatua gainera Saint–Sever–en zauritu egin zen[15].

——— o ——— o ———

1.934. urtean Bilbon martxoaren 18an hasi ziren nobilladak ematen. Euritan korritu zituzten Alonso Pesquera–ko markesaren (lehen Andres Sanchez, Buenabarba–koaren) zezenkoak; batzuk onak eta beste batzuk koldarrak. Angel Rey Conde kapotez oso txalotua izan zen, baina hirugarren banderila–parea sartuta irteterakoan, zezenkoak ezkerreko izterrean adarkatu egin zuen. Horregatik Manuel Aguero–k hiru zezenko hil behar izan zituen. Lehen zezenkoan egon zen ondoena, eta azkenean buelta eman zuen txalo artean. Pedro Ramirez *Torerito de Triana* zen hirugarren ezpataria; Bilbon berria. Muletaz ausardia ikusi zitzaion, baina ezpataz trebetasunik ez. Laugarren zezenkoak Luis Izquierdo bilbotarra (peoi zebilen) harrapatu eta kolpatu egin zuen.

1.934.eko apirilaren 1ean German Pimentel (Buenabarba–koa) ganaduzalearen abelgorriak jokatuta nobillada mistoa eman zen Bilboko Vista Alegren. Vicente Sanchez, Modesto Rodriguez eta *Charlot* batzuk aritu ziren lanean.

Maiatzaren 2an berriz, urteko lehen korrida eman zen Bilbon. Conde de la Corte–ren sei zezen toreatzera Vicente Barrera, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Domingo Lopez Ortega etorri ziren. Vicente Barrera–ri trebetasuna ikusi zitzaion bere toreaketan, baina luzimendurik ez. *Armillita chico*k lehen zezenarena lehenbaitlehen egin zuen eta bestean txalotua izan zen. Ortega–ri ere txaloak jo zizkioten bere bi zezenetan, baina jendea aspertu samarturik atera zen. Zezenek batezbeste kanalean 342,5 kilo pisatu zituzten.

1.934.eko maiatzaren 20an, *Charlotada* eman zen Bilbon Manuel Santos–en bost zekor jokatuta. Maiatzaren 24ean ere ganaduzale beraren beste lau zekor plazaratu ziren, Felipe Antxia, Justo Muñoz *Banderuchi*, Julian Martinez eta Pedro Lozano *Pinchillo* toreatzaile zirela.

Maiatzaren 27an toreatzaile *nobel*ek izan zuten Vista Alegren Manuel Santos–en sei zezenko toreatzeko aukera. Joan Barrera *Carita*, *Ceto* eta Pedro Milikua bilbotarrek parte hartu zuten.

1.934.eko ekainaren 6an, Manuel Santos–en lau zekor toreatu zituzten *Charlot*, *Empastre* eta Pedro Montoliu–k.

Ekainaren 17an, Bilbon berriz ere Manuel Santos–en ganadua korritu zen; sei zezenko hain zuzen. Nobillada hartan Juanita Cruz (emakumea), Juan Tirado *Romeral* eta Jose Parejo izan ziren ezpatariak.

1.937.eko uztailaren 1ean Manuel Santos–en beste sei zezenko korritu ziren berriz ere Bilbon *nobel*entzat. Han aurkeztu ziren Luis Burrutxaga, Joanito Esteban, Felix Arri, Inazio Lopez, Jose Martinez eta Pedro Navarrete.

Uztailaren 5ean, Bilboko Zezenzaleen Klubak antolatutako zezenfesta eman zen Vista Alegren, Lamamie de Clairac–en zazpi zezenko jokatuta. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Jesus Solorzano, Domingo Lopez Ortega, Felix Colomo eta *Rubichi* izan ziren toreatzaileak.

Uztailaren 10ean leku berean zekorketa bat izan zen. Manuel Santos–en lau zekor toreatzen Wenceslao Cuadrado, Gilermo Gorostiza, Alejandro Gomez eta Teofilo Garcia

airitu ziren. Uztailaren 15ean berriz, beste zekorketa batean Manuel Santos–en zazpi zekor korritu zituzten Vista Alegren.

1.934.eko abuztuaren 15ean, korridetarako zezenak erakutsi ziren Bilboko zezenplazan. Abuztuaren 19an ospatu zen lehenengoa. Vicente Barrera, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Fernando Dominguez–ek Pablo Romero–ren sei zezen toreatu zituzten. Bi zezen suhar, bi noble eta bat bakarra nola–halakoa tokatu zitzaizkien. Ezpatarien lana maila onekoa izan zen, baina oso onekoa ez.

Abuztuaren 20ko korridan, Mihuraren bost zezen eta Enriqueta de la Cova–ren bat jokatu ziren Vista Alegren. Zezenen pisua 626 kilora iritsi zen batezbeste; bizirik, noski. Zezen handi haiekin *Armillita chico*, Florentino Ballesteros Gonzalez (semea) eta Felix Colomo konfidantzarik gabe ibili ziren.

1.934.eko abuztuaren 21eko korridan, Pablo Romero, Villamarta–ko markesa eta Felix Moreno Ardanuy–ren bina zezen plazaratu zituzten Vista Alegren. Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Vicente Barrera eta Victoriano de La Serna–k hil zituzten.

Abuztuaren 22an jokatutako Felix Moreno Ardanuy–ren sei zezenak itxuraz politak eta berdintsuak izan ziren. Toreatu ahala portaera hobetuz joan zitzaien Vista Alegren. Bostgarrena izan zen onena. Vicente Barrera, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Victoriano de La Serna–k hil zituzten zezen haiek.

1.934.eko azken korrida abenduaren 26an eman zen Bilbon. Villamarta–ko markesaren sei zezen eta Enriqueta de la Cova–ren beste bi jokatu ziren. Markesaren zezen itsusiak (itxuraz), gaizki portatu ziren eta *Armillita chico*, Fernando Dominguez eta Felix Colomo–k hil zituzten. Enriqueta de la Cova–renak berriz, Jaime Noain bilbotarrak.

Korrida haietan Vicente Barrera–k maila ona erakutsi zuen, baina gehiegi nabarmendu gabe. *Armillita chico* izan zen nagusi. Erraz eta dotore toreatu bait zuen lau arratsaldetan. La Serna–ri arte–printz batzuk ikusi zitzaizkion, Fernando Dominguez–i bezalaxe. Felix Colomo–k ofizio–falta zuen eta horregatik suertatu zen adarkaturik. *Caganchor*i bere gustoko zezen bat tokatu zitzaion, eta arrakasta lortu zuen. Florentino Ballesteros semeak ezpata maneiatu zuen ongi, eta Jaime Noain–ek are eta hobeto.

Irailaren 16an, langabeziakoei laguntzearren zekorketa eman zen Vista Alegren, Manuel Santos–en sei abelgorri jokatuz. Valeriano Gonzalez, Francisco Gil, Felipe Garcia eta abarrek parte hartu zuten toreatzen.

1.934.eko irailaren 30ean nobillada ospatu zen Bilbon, Manuel Santos–en sei zezenko jokatuta. Juanita Cruz neska madrildarra, Luis Diez bilbotarra eta Anjel Urrestarazu portugaletetarra aritu ziren lanean eta hirurek entzun zituzten txaloak.

Urriaren 7an *nobel*entzako nobillada ospatzekoa zen Bilbon, baina greba iraultzailea medio urriaren 21erarte atzeratu beharra izan zuten. Manuel Santos–en sei zezenko toreatzen, besteak beste Pedro Diez *Carbonerito* eta Pedro Milikua *el Limpia* aritu ziren orduan[1].

1.934. urte inguruan, Jose Antonio Laburu Olaskoaga jesuita bilbotarrak Madrileko Coliseum teatroan hitzaldi interesgarria eman zuen, plazako zezenaren psikologiari buruz[8].

1.934. urtean, Villagodio–ko markesaren Alfredo eta Eduardo Etxebarria semeek, ganadutegi berri bat sortu zuten. Andres Sanchez Rodriguez–i ganadutegiaren laurdena erosi zioten horretarako. Behi eta zezen haiek Santa Coloma–ko kontea eta Albaserrada–ko markesarenean zuten jatorria[4].

1.934. urtea, ez zen batere ona izan Diego Markiaran *Fortuna*rentzat; korrida bakarra toreatu bait zuen[5]. Jaime Noain–entzat ordea hobea izan zen. Hamabi korridatan arrakasta handiak lortu zituen.

Jose Aguero zezenko–hiltzaile bilbotarra gainbeheraka zihoan 1.934. urtean. Hiru arratsaldetan bakarrik jantzi zuen traje distiratsua urte hartan. Anjel Rey Conde balamasedarrak berriz, bederatzitan[7].

Rikardo Urzaiz zezenko–hiltzaile errioxarra berriz, 1.934.eko abuztuaren 12an estreinatu zen Palencia–n pikatzailedun nobilladatan[8].

Pedro Basauri eibartarrak 1.934.ean sei korridatan parte hartu zuen[7]. Luis Lopez Iraolagoitia *Errenteriako txikia*, 1.934.ean Madrilen aurkeztu zen ekainaren 30ean gaueko nobillada batean Antonio Fernandez *Caballero de Ronda* eta Antonio Garcia *Cerrajerito de Malaga*rekin batera[2]. Txomin Rekondo Rementeria berriz, 1.934.eko abuztuaren 26an Donostian jaio zen. Urteak igarota zezenkoak toreatzeari ekin zion, bere anaia Jose Mariren bideari jarraituz[8].

Azpeitian 1.934. urtean bi nobillada eman ziren saninaziotan ohitura zenez. Manuel Arranz–en launa zezenko jokatu zituzten, Felix Almagro eta Rodolfo Rodarte ezpatari zirelarik. Almagro–k bigarren nobilladako lehen zezenkoan belarria lortu zuen eta Rodolfo Rodarte egun bereko batean txalotua izan zen. Gainerakoan ez zuten ezer azpimarragarririk egin[9].

Donostian, 1.934.eko sansebastianetan *Umore Ona* elkarteak antolaturik, Txofre–ko plazan sokamuturra korritu zen; Lastur–eko bi zezenko, aspaldiko partez[11]. Gero udan korridak ere eman ziren, Eduardo Pagés enpresariak osatutako kartelen arabera.

Iruñean, 1.934.eko sanferminetarako honako kartel hau argitaratu zen:

- Uztailak 7: Villamarta–ko markesaren sei zezen, Fermin Espinosa *Armillita chico*, Domingo Lopez Ortega eta Antonio Garcia *Maravilla*rentzat.
- Uztailak 8: Goizean proba. Villamarta–ko markesaren zezen bat, Blanco–ren (lehen Parladé–ren) bat eta Sanchez Cobaleda–ren (lehen Villar–en) beste bat, *Armillita chico*, Jose Gonzalez *Carnicerito de México* eta *Maravilla*rentzat.
- Uztailak 8: Arratsaldean. Sanchez Cobaleda–ren (lehen Villar–en) sei zezen, Vicente Barrera, *Carnicerito de Mexico* eta Domingo L. Ortega–rentzat.
- Uztailak 9: Blanco–ren zortzi zezen, *Carnicerito de Mejico, Maravilla*, Florentino Ballesteros eta Felix Colomo–rentzat.

Uztailaren 10erako, beste korrida bat iragarri zen. Rafael Gomez *Gallo*, Juan Belmonte eta Victoriano de la Serna–k Concha y Sierra–ren sei zezen toreatuko zituzten[14].

Tuteran 1.934. urtean nobilladak ospatu ziren eta bertan arrakasta lortutako bat Miguel Palomino toreatzailea izan zen[7].

Landetan, Barrere, Coran eta Cantegrit ganaduzaleekin Gérard, Marcadé eta *Mazantini* taldeburuak ibili ziren plazaz plaza hango erara toreatzen. Henri Laulhe *Meunier*, Mendi Martzana–n larriki zauritu zen eta zauri haien ondorioz hil egin zen 1.934.ean[15]. Henri Menicco toreatzaile landetar izana ere, 1.934.ean apirilaren 24ean hil zen Mendi Martzana–n, gaixotasun baten ondorioz[2].

———— o ———— o ————

Bilbon 1.935. urtean zezenak martxoaren 24ean hasi ziren. Casal–eko kontearen (lehen Natera–ren) zezenkoak toreatzera Miguel Palomino, Jose Chalmeta eta Anjel Rey Conde balmasedarra ekarri zituzten.

Apirilaren 7an eman zen Vista Alegren urteko bigarren nobillada. Luis Diez bilbotarra, Anjel Urrestarazu eta Luisita Paramont–ek Julian Sanchez Laso–ren bost zezenko hil zituzten.

1.935. urtean, apirilaren 14ean, Bilboko dendatako langileek zekorketa eman zuten Julian Sanhez Laso–ren sei zekor jokatuta, eta astebete geroago (apirilaren 21ean) Manuel Arranz–en sei zezenko plazaratu ziren Jose Chalmeta, Eduardo Solorzano eta Miguel Cirujeda–rentzat.

Apirilaren 28an eman zen beste nobillada bat Bilboko Vista Alegren. Julian Sanchez Laso–ren lau zezenko toreatzen Pedro La Rosa, Segundo Arana bilbotarra, Felix Arri deustuarra eta Luis Burgos aritu ziren.

1.935.eko maiatzaren 2an eman zen Bilbon urteko lehen korrida; Serafin Bigiola *Torkito* toreatzaile erretiratuak antolatuta hain zuzen. Zezenak Juliana Calvo anderearenak izan ziren (lehen Albaserrada–renak). Portaeraz koldar samarrak eta indartsuak izan arren, Domingo L. Ortega–k ederki menperatu zituen, bere bigarrenari belarria moztuz. Joaquin Rodriguez *Cagancho* bere lehenengoan beldurti ibili zen, etsaia maltzurra zelako. Baina bostgarrenean ez zuen ezer egin, nahiz eta aukera egon. Ricardo Torres *Niño del Seguridad*ek bere estrenoa egin zuen Bilbon. Artean ofizioa erabat ikasi gabea zegoela erakutsi arren, txalotua izan zen.

Maiatzaren 19an Julian Sanchez Laso–ren lau zekorrekin *Universal* eta *Horri Fleming* izenekoek beren *charlotada* eman zuten.

1.935.eko ekainaren 9an berriz, bigarren korrida ospatu zen Bilbon, Felix Gomez–en alargunaren lau zezen eta Bautista–ren bi jokatuz. Jaime Noain, Rafael Vega de los Reyes eta Ricardo Torres–ek hil zituzten. Rafael Vega kapotez ongi hasi zen bere bietan, baina momentu nagusira heldutakoan (ezpataz hiltzerakoan) jendea hotz zegoen bere trebetasun–faltagatik. Ricardo Torres–ek egindako lanik onena banderilak sartzea izan zen. Bere lehenengoan txaloak jo zizkioten. Dena dela Jaime Noain–ek bere bi lankideen markak hautsi zituen. Konfidantza eta patxadaz toreatu zuen bere lehenengoa eta bigarren saioan hil ondoren txaloak entzun zituen. Bere bigarren zezenean, etsaiaren koldarkeria eta zailtasunak gaindituz ausart eta trebe aritu zen. Oin–hegazka lehen saioan ezpata bikain sartu zuelako, bi belarriak eman zizkioten.

Ekainaren 16an Rafael Dutrus *Llapisera* aritu zen Vista Alegreko *charlotadan*, Nogales eta Mejías–en lau zekorrekin jendeari barre eragiten.

1.935.eko ekainaren 20an beste nobillada batean Eduardo Sanchez–en hiru zezenko eta Alicio Cobaleda–ren beste hiru korritu ziren Vista Alegren. Bitor Delgado bilbotarra ausart eta adoretsu aritu zen, baina trebetasun falta ikusi zitzaion. Anjel Urrestarazu portugaletetarrak, ezpataz gehiegi luzatu zelako abisu bat entzun zuen. Zezenkoak kolpaturik suertatu zen gainera gero. Luis Basauri *Bilboko Pedrutxo* saiatu zen, baina artean toreaketan bazuen zer ikasia. Nobillada hartan *Ladin*ek banderila–pare bat oso ederki sartu zuen. *Chatillo de Bilbao* eta Gregorio Yanguas *Zapata*ren lana ere azpimarratzekoa da. Nobillada bukatu ondoren Gregorio Yanguas Concha kalean zihoala hilda erori zen.

Ekainaren 30ean eman zuten hurrengo nobillada Bilbon. Felix Gomez–en bi zezenko eta Arturo Sanchez–en lau korritu ziren. Enrique Bartolomé, Jose Vera *Niño del Barrio* eta Martin Bilbao bilbotarra aritu ziren lanean.

1.935.eko uztailaren 4erako, Bilboko Zezenzaleen Klubak zezenfesta berezi bat antolatu zuen. Alipio Perez Tabernero Sanchon–en zezenko hazitxoak toreatzen Manuel Jimenez *Chicuelo*, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Vicente Barrera, Manuel Mejias *Bienvenida*, Domingo L. Ortega, Victoriano de La Serna eta Fernando Dominguez aritu ziren. Hiru belarri moztu zituzten arratsalde hartan. Fernando Dominguez–en artea gogoan hartu zuen jendeak arratsalde hartan.

Uztailaren 7an toreatzaile *nobel*ek izan zuten Vista Alegren Julian Sanchez Laso–ren sei zezenkorekin saiatzeko aukera. Uztailaren 10ean berriz, leku berean Villarroel–en lau zekor Bilboko zezenzale batzuek toreatu zituzten.

1.935.eko uztailaren 18an, zezenfesta bat antolatu zuen Martin Aguero toreatzaile erretiratuak Gregorio Yanguas *Zapata* zenaren familiari lagundu asmoz. Nogales eta Mejias–en zezenkoak toreatzen Cayetano Ordoñez *Niño de la Palma*, Jaime Noain, Jose Mejías *Bienvenida*, Jose Amorós, Rafael Vega *Gitanillo de Triana* eta Manuel Aguero–k toreatu zituzten. Ordoñez, Amorós, Noain eta Agüero–k belarri bana irabazi zuten. *Bienvenida* eta Vega–k berriz, buelta eman zuten.

1.935.eko uztailaren 21ean, Bilboko *Kotxerito* elkarteak hogeitabost urte bete zituela eta, zekorketa eman zuen Vista Alegren. Elkartekideek zezenplazan bazkaldu zuten eta gero arratsaldeko bostetan Villarroel–en lau zekor toreatu zituzten Paco Muñoz, Jose Maria Rico, Isidoro Garcia eta Rafael Ibañez–ek.

Abuztuan, korridak iragarriz Roberto Domingo pintatzailearen kartela argitaratu zen eta hilaren 15ean zezenak plazan ikusteko aukera izan zuten bilbotarrek.

Lehen korrida abuztuaren 18an eman zen. Pablo Romero–ren sei zezen toreatzen Vicente Barrera, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Victoriano de La Serna saiatu ziren. Vicente Barrera–ri jendeak txistuak jo zizkion, lana gaizki egiteagatik. *Armillita chico*ri ere bai bere bigarrenean. Victoriano de La Serna–ri lehen zezena Francisco Zaragoza *Truenok* hondatu egin zion gaizki pikatuz eta azkenean maisuak ezpata behean sartzeagatik bronka entzun zuen. Zezenek batezbeste 341,3 kilo pisatu zituzten kanalean.

1.935.eko abuztuaren 19an Villamarta–ko markesaren zazpi zezen eta Enriqueta de

la Cova–ren bat plazaratu zituzten Vista Alegren, Vicente Barrera, Manuel Mejías *Bienvenida*, Domingo L. Ortega eta Victoriano de La Serna–rentzat. Zortzi zezenak, azkena ezik (Enriquetarena) iheskor samarrak izan ziren. Vicente Barrera–k ez zuen asmatu arratsalde hartan. Manuel Mejias *Bienvenida*ri toreaketa alai eta erosoa ikusi zitzaion, baina ezpataz huts egin zuen. Domingo L. Ortega–k beti bezala agintezko faena egin zion bere zezen bakoitzari. Victoriano de La Serna berriz, momentu batzuetan goimailaraino iritsi zen.

Abuztuaren 20ko korridan, Bilbon Manuel Mejias *Bienvenida*, Fermin Espinosa *Armillita chico* eta Domingo L. Ortega aritu ziren Felix Moreno–ren lau zezen eta Enriqueta de la Cova–ren bi toreatzen. Domingo L. Ortega–k, agian feriako faenarik onena osatu ahal izan zion Enriqueta–ren zezen bati. Manuel Mejias *Bienvenida*k alaitasuna eta dotorezia erakutsi zuen kapote, banderila nahiz muletaz. Ezpatakada bikainez hil zuen zezen bat gainera eta belarria eman zioten. *Armillita chico*k ere belarri bat lortu zuen bere lehen zezen ahulean. Dena dela, Ortega–k seigarren zezenean jendea txunditurik utzi zuen bere maisutasunaz. Bi belarri eta buztana izan ziren lortutako sariak.

1.935.eko abuztuaren 21eko korridarako, Juan Pedro Domeq ganaduzaleak oso zezen suharrak bidali zituen Bilbora. *Arrempuja* eta *Mocito* ezinhobeak suertatu ziren; bizia barkatzeko modukoak, suhar eta nobleak. Fermin Espinosa *Armillita chico*ri tokatu zitzaizkion biak eta arrakasta handia lortu zuen. Lehenengoan belarri eskea egon zen eta bigarrenari Vista Alegren sekula egindako faenarik onenetakoa osatu zion. Vicente Barrera eta Domingo L. Ortega–ren lana ez zen iritsi Espinosa mexikarrak egindakoaren mailara; ezta hurrik eman ere! Domecq–en zezenek (Veragua jatorrizkoak ziren), 284 kilo pisatu zuten batezbeste kanalean.

Abuztuaren 25ean eman zen Bilbon urteko azken korrida, Conde de la Corte–ren sei zezen plazaratuz. Hirugarren zezena alde batera utzirik (suzko banderilak ipini bait zizkioten) gainerakoak ongi portatu ziren. Manuel Mejias *Bienvenida*, alai eta dotore aritu zen kapotez eta banderilaz, baina ezpataz ez zuen asmatu. Jaime Noain izan zen korrida hartan nagusi, bigarren eta bostgarren zezenetan belarri bana lortu zuelako. Victoriano de La Serna–ri berriz, ez zitzaion ezer onik ikusi.

Abuztuko korrida haietan, Juan Pedro Domecq–ek Bilbora bidalitako zezenak izan ziren azpimarragarrienak, ondoren Felix Moreno, Conde de la Corte eta Pablo Romero aipatu behar direlarik. Toreatzaileei gagozkielarik berriz, Fermin Espinosa, Jaime Noain (ezpataz zein ederki hiltzen zuen!), Domingo Ortega eta Manuel Mejias *Bienvenida* izenak idatzi beharra dago.

Abuztuaren 26an, zezenfesta berezia ikusi ahal izan zen Bilbon *Kotxerito* eta *Zezenzaleen Kluba*k antolaturik. Martin Aguero bilbotarrari lagundu asmoz, Nogales eta Mejias–en sei zezenko toreatzera Manuel Mejias *Bienvenida*, Jaime Noain, Antonio Garcia *Maravilla*, Jose Gonzalez *Carnicerito de México*, Florentino Ballesteros Gonzalez eta Rafael Vega *Gitanillo de Triana* etorri ziren.

1.935.eko irailaren 22an emankizun mistoan Ernesto Blanco–ren lau zezenko eta Julian Sanchez Laso–ren bat toreatzen Rodolfo Velazquez, Antonio Campos *Campitos* eta *Jaripeo Mexicano* izeneko taldea aritu ziren.

Irailaren 26an Vista Alegreko zezenfestan toreatzaile famatu izandakoek parte hartu

zuten, Manuel Santos–en sei zezenko korrituz. Juan Belmonte, Diego Markiaran *Fortuna*, Manuel Jimenez *Chicuelo*, Jose Gallardo, *Rubichi*, eta Rufino San Bizente *Begoñako txikia*k toreatu zuten.

1.935.eko irailaren 29an, Ernesto Blanco–ren bost zezenkorekin Rodolfo Velazquez, Liborio Ruiz eta *Jaripeo Mexicano* izeneko taldea saiatu ziren Bilboko Vista Alegren.

Urriaren 6an nobillada eman zen Bilbon Ernesto Blanco–ren sei zezenko korrituz. Jesus Gonzalez *el Indio*, Rodolfo Velazquez eta Liborio Ruiz mexikarrek osatu zuten kartela.

Azaroaren 3an, goizean, zekorketa ospatu zen Vista Alegren. Rehesai *el Barbas* izeneko fakirrak Pimentel–en bi zekor toreatu eta hil zituen. Astebete geroago berriz, (azaraoren 10ean) ganaduzale beraren sei zezenko korritu ziren leku berean. Toreatzaile *nobel*en artean Bitor Aginako *Niño de la Lavandera* edo *Morenito de Zabala* nabarmendu zen, 1.935.eko Bilboko azken zezenfesta hartan[1].

Alternatibadun toreatzaile bizkaitarretan, Jaime Noain zen arrakastatsu zebilen bakarra. Diego Markiaran *Fortuna*k izan ere, ez zuen korridarik toreatu 1.935. urtean. Noain–ek berriz, hamazazpi. Horietatik sei Zaragozan izan ziren, han miresle ugari zuenez. Hango korrida batean gainera bera izan zen ezpatari bakar. 1.935.ean guztira 53 belarri, 27 buztan eta 6 hanka irabazi zituen[5].

Zezenko–hiltzaile bizkaitar batzuk ere ari ziren lanean 1.935. urtean. Martin Bilbao bilbotarrak adibidez 36 nobilladatan parte hartu zuen, arrakasta handia lortuz. Anjel Rey Conde balmasedarrak berriz, zazpi arratsaldetan jantzi zuen toreatzeko trajea.

Bitor Bigiola *Torkito III*.ak, 1.935. urtean Ameriketatik itzuli eta banderilari gisa lan egin zuen. Belarrietako gaitz batek gainera ia erabateko gorreria utzi zion[7].

Teofilo Arribas *Ferroviario*, Bilbon bizi zen eta nobilladatan pikatzaile gisa zebilen garai hartan[2].

Pedro Basauri eibartarrak, 1.935. urtean hiru korrida bakarrik toreatu zituen: bi Bartzelonan eta bat Donostian. Donostian uda hartan, Marcial Lalanda–k ere toreatu zuen[7]. Baita Antonio Gimenez *Faraón* zezenko–hiltzaileak ere[3].

Errenterian 1.935.eko madalenatan nobillada mistoan Maria Sanchez–en zezenkoak jokatu zituzten, Manuel Callejo valladolidtarra, Luis Lopez Iraolagoitia *Errenteriako txikia*, *Charlot* eta abarrek parte hartuz[25].

Azpeitian 1.935.eko saninaziotan bi nobillada eman ziren ohi bezala. Manuel Arranz–en zezenkoak korritu zituzten uztailaren 31n eta abenduaren 1ean. Lehen nobilladan Martin Bilbao eta Cayetano Palomino ongi aritu ziren. Bigarrenean, Jose Chalmeta eta Palomino–k parte hartu zuten[9].

Garai hartan bazen Azpeitian zezenzale amorratu bat: Felipe Iriarte *Sarraile*. Errementaria zen, baina zezenkoak toreatzen ere bere saioak egin zituen inguruko herrietako festetan. Behin batean Azpeitiko zezenplazan Don Tancredo–renak egiteko itxurak egin zituen. Zezena toriletik ateratzeko turuta jo zutenean ordea, *Sarraile*k poltsikotik atera

zuen ateko giltza.

Beste behin San Pedro egunez Zumaian omen zen zezenkoak hiltzera joanda. Lehenbiziko zezena ikaragarria omen zen eta *Sarraile*k ezkutalekutik irten nahi ez. Jendea deika hasi zitzaion, baina *Sarraile* bertan geldik ikaraz.

Herriko algoazila inguratu zitzaion ondoren eta honela mintzatu ziren:

– Zu al zara ezpatero?
– Bai, neu naiz.
– Alkate jaunaren ordena da. Zezena toreatzeko. Bestela gartzelara zoazela.
– Alkate jaunari esaiok, nahiago nukeela han banengo...[26]

San Pedro egunean Bizkaiko Diman ere nobillada ematen zen, toreatzaile herritarrak parte hartuz. Ikus bestela ondoko bertsoak dioena:

San Pedro jaiak ospatzen dira
Diman Zamakola plazan
Salamankako zezenak eta
toreru onak zetozan.
Bertako seme "toreru fina"
"Pijon" urtero be han zan
belarri eta buztanak ere
asko ebagi ebazan.[27]

Azpeitian garai hartan sokarako zezenak behar zituztenean, *Xebilla* bidaltzen zuten Lastur eta Itziar aldera. Hark ezagutzen bait zuen hango baserrietan zer zegoen. Itziar–eko plazan zezenak mailatuta utzi ondoren Azpeitiko Errukietxera eraman zuten eta han hil zen laster[28].

Zestoan ere zezenkoak urtero izaten ziren (orain bezalaxe) Ama Birjina irailekoan, Txomin Garmendia bertsolariak honako bertso honetan ederki dioenez:

Irailaren zortzian dira
festarik famatuenak.
Ezin faltatu pelotariak,
ezin faltatu zezenak.
Bertsolari ta joko gizonak,
inon diraden onenak.
Jolasten ere jakin behar du
lana egiten duenak.[29]

Manuel Olaizola *Uztapide* zestoarraren bertsoak ere argigarriak dira:

Zaindariaren egun berean
festak egiten ziraden
urruti bizi izanagatik
gu ere joaten ginaden;
nola mendiko baserri baten
jaiotakoak geraden,

hango lenengo galdera beti
zezenak bai al diraden.

Lendabiziko zezenak eta
ondoren pelotariak,
eta hoieri begira beti
gozatzen dira begiak;
gero gauean berandu arte
halako erromeriak,
erretirarik egin ezinda
atzenian komeriak.[30]

Zestoako festetara hiltzeko zezenak Nafarroatik oinez ekartzen zituzten, joaldun eta guzti. Olalde baserriaren inguruan edukitzen omen zituzten, bertako seme den Jose Mari Iribar–ek aitortu zigunez, festa–eguneko goizean bederatziak aldean entzierroan toriletaraino eraman arte. Unai nafarrek joaldunei beren izenez dei egiten omen zieten (*Platero, Tinajero*, etab.), baina hauek ez omen ziren mugitzen unaiak madarikatzen hasi arte.

Deba–ko festetarako ere zezenak Zestoan zehar oinez eramaten zituzten orduan. Azpeitiko jendeak Oñaz–era irteten zuen haiek ikusi eta aurrean korritzera. Zestoan berriz, batzuetan Olalde eta Beliosoro aldetik joaten ziren Deba–ra eta beste batzuetan Osinbeltz, Ibinarrieta eta Santuaran–en zehar. (Tolosan 1.935. urte inguruan hasi omen ziren zezenak kaiola handitan sartuta ekartzen)[31].

Zezenen oinezko garraioan inoiz automobilek arazoak sortu izan dituzte. Araban, Laudio–n adibidez, sanroketan goizean automobil batek zezenak izutu egin zituen eta arratsaldean nobillada ematerik ez zen izan, ganaduak mendira ihes egin zuelako[32].

Zezenkoak bestetik, herri askotako mendietan bertan hazten ziren orduan. Zestoan Jose Mari Elortza jaunak aitortu zidanez, Olazabal–en (Deba–ko partea da) baserri guztiek zituzten larrabehiak eta zezenak Agiro mendian. Beliosoro baserrikoek ez omen zituzten; haiek besteenak hazten omen zituzten, hesi artetik beren sorora sartzen zitzaizkielako. Ganaduak hori gainera beti gauez egiten du (egunez inoiz ere ez), zertan ari den oso ongi dakielako.

Elortza jaunaren baserriak bazuen erdian zutabea zeukan txabola bat, eta hara sartzen zuten gustoko zezena, atea alanbre luzeaz urrutitik maneiatuta. Gero gazteak txabola barrura sartzen ziren zezenarekin jolastera. Zezena jokaria izan ohi zen, baina gazteak txabola erdiko zutabean babesten ziren.

Ziolar baserria ere aipatu zigun Elortza jaunak. Haiek ere larrabehi eta zezenak ere ba omen zituzten, baina hain suharrak ez, pertsonaren eskutatik gehiago pasatzen zirelako.

Inguru hartako zezenak korritzen zituzten sannikolasetan Lastur–en ere. Zezen batzuk on samarrak izaten ziren eta haiek ikustea ordaindu beharra zegoen. Beste batzuetan, jotzera egiten zuten ala ez frogatzeko plazaratzen ziren zezenak. Zezenak adar bolaztatudunak ziren eta edozeinek toreatzen zituen. *Uztapide* bertsolaria bera ere aritu zen bertso–saioa egin eta gero toreatzen. Korrida garaian, txapela pasatzen zuten dirua biltzearren[33].

16.2. irudia. Sannikolasak Lastur–en. 1.935. urtea. *Uztapide* eta *Kortatxo* bertsolariak daude bertan.

Deban ere sanroketan urtero izaten ziren zezenak, herriko plazan barrerak ipinita. Goizein zazpi t'erdietan entzierroa korritzen zen herriko kaleetan zehar Osio–tik plazaraino, (orain bezalaxe) joaldun eta guzti. Joanito Iurrita aurrean ibiltzen zen. Batzuetan zezenak herriko plazako toriletara sartu ezinik ibiltzen ziren. Deban nobilladak, San Roke egunean, biharamunean, eta gainera *marinel–korrida* eta *udatiar–korrida* izenekoak ospatzen ziren.

Deban bestetik, maila apaleko toreatzaileak izan ziren garai hartan; inguruko herrietan (Mutriku, Zestoa, etab.etan) ibiltzen zirenak. Julian Arteondoaga *Markexa*, Agustin Arteondoaga *Markex zaharra*, Bernardino Esnaola *Mazantini* (Itziarreko postaria), Balentin Esnaola *Txolet*, etab.[34].

Mutrikun ere izaten ziren zezenak festetan. Urte batean gainera zezen batek bera korritzen zeneko jaialdian lehendakaritza bereganatu zuen udaletxeko balkoiraino igota[35]. Normalagoa da ordea, zezenak plazan edo kalean korritzea, noski, bergararrek oñatiarrei erdi–burlaz edo kantatzen dieten honako letra honen arabera:

Baxatoxak, baxatoxak,
Goiko kaletik
Beko kalera,
Baxatoxak, baxatoxak,
Goiko kaletik
Beko kalera,
Xexenak.[36]

Arestian Zestoa, Lastur eta Debari buruz esandakoa Euskal Herriko beste zenbait

herriz ere berresan daiteke. Izan ere larrabehi asko zen garai hartan gure mendietan. Jose Ramon Erauskin jaunak Oiartzun, Errenteria eta ingurukoak deskribatzerakoan honela dio:

Behiak berriz, baserri denetan izaten ziren; gehienak behi gorri eta txikiak; gogorrak bai, baina gaiztoak eta esne gutxikoak.

Herriko festetan bertsolari, pelotari eta zezenak ez ziren ia inon faltatzen. Zezenen aurrean korrikaldi batzuek egiten zituen gaztejendeak, noizean behin kankarrekoak hartu eta galtzak hautsi arren. Zezen batzuk hiltzekoak izaten ziren eta beste batzuek herriz herri erabiltzen zituzten; larrabehi edo betizuak batez ere. Haiek gainera, malizia handia izaten zuten.

Herri batean meza nagusiaren ondoren honako bandoaz adierazi zuten arratsaldeko nobillada:

Gaur arratsaldean, bezpera ondoren atera eta libratuko dira zezenak; oso bizkor eta biziak gainera. Hiru izango dira: lehendabizikoa beltxa, bigarrena beltx–beltxa eta hirugarrena behia.[37]

Pello Zabaleta bertsolari errenteriarrak ere zezenak gogoan zituen bere bertsoetan. Indalecio Prieto–ri 1.935.ean jarri zizkion batzuetan behintzat honela dio:

Kasik nago beldurretan
dardarizua entrañetan,
esan behar det zer detan:
Euskal Herriak ez al gabiltza
azkeneko zezenetan?
toreroak barreretan
laster Prieto–n adarretan,
ez gaude esku txarretan!

Larrabehi bati Pello Zabaleta bertsolariak ipini zizkion bertsoak ere jakingarriak dira. Horregatik aldatu ditugu hona:

1/ San Antonio egunian
bei koskor bateri
arrituta begira
egondu naiz ni;
egun onak joan zaizka
miserabliari,
ezur tartetik ez du
larrurik ageri;
tripatikan eri,
burua erori,
gaizki dago ori;
bost kilo aragi
ez dituala apostu
nai duanari.

2/ Juan Jose omen degu
bei orren jabia,

errukirik ez duen
ajolgabia;
etzaio akordatu
jaten ematia,
naikua egiten du
zutik egotia;
ezurra sobria,
mamiya gordia,
bizitza pobria,
joan zaio kordia...
ez nahikua jan balu
arto alia.

3/ *Gaixuak izandu du*
alimentu txarra,
argatik artu diyo
gaitzak iñdarra;
begiyak triste dauzka,
estadu iarra,
ai zer kostillak dauzkan
jotzeko gitarra!
tripetan dardarra,
ez ori bakarra,
eziñ jan belarra,
pentsuan bearra...
orain arte egin du
naiko negarra!.

4/ *Bei gaixu orrek ez du*
ezeren kulpika,
jan gabe egondua
beste gauzika;
okulluan aztuta
gosiak antzika,
iñork aditu al du
orlako gauzika?
belaunak killika,
eziñ joan korrika,
orduko botika
lastua utsika...
sekulan ez du pasa
egun onika!

5/ *Orain eraman dute*
leku aldatzera,
pixka bat gizenduta
etxuratzera;
kolpe aundirik ez du
tirako atzera,
estropozo gutxikiñ

lijero lurrera;
ai, orren sarrera
muturraz aurrera,
ez juan aldera
toriatutzera...
ain da bildurgarriya
daukan tankera!

6/ *Kaletik baserrira*
bi lagunen arte,
animali gaixua
eraman dute;
etzuen talenturik
joateko aparte,
Egiluxen lotuta
utzi omen dute;
iñdartu bitarte
mantentzen badute,
jarriko da fuerte,
ala esan dute...
lenagotikan iltzen
ezpazaiote!

7/ *Batek sokatik tira,*
bestia bultzaka,
ala ere pausuak
oso banaka;
pixka bat mugitzeko
asten ziran joka,
gaixua ezin juan
gosiak kojoka;
begitik malkoka,
burua makurka,
asi da agurka,
noiznai muturka...
Juan Josek alimali
ederra dauka!

8/ *Bosteun pezeta omen da*
orren baliyua,
saldu duenentzako
neboziyua;
erostunarentzako
zer alibiyua
aixa pagatutzeko
kontribuziyua!
ez dauka iyua
estimaziyua,
orren eriyua
gauza seriyua...

gaxuak merezi du
ausiliyua!

9/ Sorora bota zuten
freskatzen ote zan,
makurtzen asi eta
eroritzen zan;
isatsa ta burua
zituen balantzan,
esperantza bazuten
jaten asi bazan;
beia ori zer zan
ez liteke esan,
alako pobrezan
onuntz azaldu zan...
obe zuen mundura
jaio ezpazan!

10/ Bei gaixu ori dago
guztiz errukarri,
pasa ditu amaika
gose egarri;
begiratu akiyok,
Juan Jose orreri,
mami–trontzo aundirik
etzaio ageri;
ezurra ugari,
galduko da sarri
amar bertso berri
Pellok dizka jarri,
jendiak kanta ditzan
oroipengarri.[38]

1935. urtean Iruñeko sanferminetan urtero bezala Errukietxeak korridak antolatu zituen. Lau korrida izango ziren; uztailaren 7, 8, 9 eta 10ean hain zuzen.

Lehen korridan Lamamie de Clairac–en zortzi zezen jokatuko ziren, Joaquin Rodriguez *Cagancho*, Manuel Mejias *Bienvenida*, Luis Gomez *el Estudiante* eta Luis Castro *el Soldado* ezpatarientzat.

Bigarren korridan Fernandez Durán–en (lehen Guadalest–en) sei zezen toreatuko zituzten Vicente Barrera, Manuel Mejias *Bienvenida* eta Victoriano de La Serna–k.

Hirugarren korridan, Victoriano de La Serna, Lorenzo Garza eta Luis Castro *el Soldado*k parte hartuko zuten Terrones–en (lehen Contreras–en) sei zezen toreatzen.

Laugarren eta azken korridan berriz, Carmen de Federico–ren (lehen Murube–ren) sei zezen Juan Belmonte, Vicente Barrera eta Lorenzo Garza–k hilko zituzten[14].

Azken korridarako ordea, Juan Belmonte zauritu egin zen. Orduan, Belmonte–ren ordez Marcial Lalanda eta Victoriano de La Serna ipini zituzten eta Pallarés anaien beste bi

zezen cordobar plazaratuko ziren[39].(Marcial Lalanda-k Gasteizen ere toreatu zuen geroago urte hartantxe)[7].Konponketa haren aurrean, Vicente Barrera eta Lorenzo Garza hasieran kexu ziren, baina azkenean onartu zuten aldaketa.

Goizean dena dela, Carmen de Federico-ren sei zezenen entzierroa korritu zen ohi bezala. Plazan ordea , zezen bat gelditu eta gazte bat toreatzen hasi zitzaion. Zezenak, gaztea adarkatu egin zuen eta Alaiza-ren unaiek nahiz Pedro Txabarri *Oliteko mutila*k salbatzeko beren saioak egin. Olitearrak zezenari buztanetik heldu ere egin zion. Adarkatutako gaztea, Gonzalo Buztindui zen; Mexikon jaio eta Donostian bizi zena, hain zuzen. Buztindui gaztea zezenplazako erizaindegian Juaristi mediku jaunak aztertu zuen, San Migel klinikara bidaliz.Handik bere familiakoek Donostiara eraman zuten, medikuen aholkuei kontra eginez, eta Donostian hil egin zen.

Buztindui adarkatutako zezena, arratsaldean Victoriano de La Serna-k toreatu zuen. Zezen suharra eta noblea izan zen plazan, eta toreatzaileak faena ederra egin ziolako txaloak entzun zituen.

Aste batzuk geroago, Pedro Txabarri *Oliteko mutila*k Pasaian toreatu zuen, eta ondoren Gonzalo Buztindui-ren amarekin mintzatu zen. Eskerrak eta sari ederra eman zizkion gaztearen amak, semearen bizia salbatzearren berea arriskatu zuen nafarrari[39].

Saturio Toron lizarratarra 1935. urtean erretiratu egin zen (irailaren 29an Zaragozan) toreaketa-lanetatik, bere mototsa moztuz[7].

Nafarroan dena dela, garai hartan toreatzaile-lanetan jende asko hasi zen saiatzen: Rafael Gimeno *Artaxonako mutila* (*Chico de Artajona*) (1935.eko ekainaren 2an Iruñean *Riojanito*rekin toreatu zuen), Constantino Preciados, Sabino Arguelles *Niño de la Huerta*, Federico Lopez *Federe*, Agustin Uztarroz, Juan Poza, Jesus Larroca *el Temerario*, Manuel Menendez, Rafael de la Fuente *Rafa*, Luis Urdiain (Mendigorria-koa) etab.[40].

1935. urtean Akitanian korridak eman ziren urtero bezala. Akize-n adibidez ospatu zen[2]. Landetako erara toreatzen berriz, Marcadé, *Mazantini*, Stetin I.a eta Gerard toreatzaileak aritu ziren 1935.ean beren taldeekin Barrere, Cantegrit, Stetin eta Laffite ganaduzaleen aginduetara[15].

———— o ———— o ————

1936. urtean, aurrekoetan bezalaxe, martxoan hasi ziren Bilboko nobilladak; Manuel Garcia Boyado-ren (lehen Terrones-en) zezenkoak korrituta hain zuzen. Luis Diez, Gabriel Alonso eta Segundo Arana bilbotarrak hil zituzten hilaren 29an. Luis Diez-ek laugarren zezenkoari emandako pase naturalak asko gustatu zitzaizkion jendeari eta txaloaldi luzea entzun zuen. Gabriel Alonso salamancarrak gogoa eta trebetasuna erakutsi zituen eta belarri bat eman zioten. Segundo Arana gaixorik aritu zen, baina erraz eta fin toreatu zuen kapote nahiz muletaz. Ezpataz huts egin zuen ordea. Pikatzailerik gabeko nobillada hura, euritsua suertatu zitzaien.

Hurrengo nobillada apirilaren 14ean eman zen Bilbon. Bernaldo de Quirós-en zezenko ederrak, alai, zangar eta noble portatu ziren.

Enrique Bartolomé–ri begira zeudenek, eritzi desberdinak adierazi zituzten lehen zezenkoa hil zuenean. Laugarrenak berriz, Bartolomé airean erabili zuen eta gauza handirik ez zioten ikusi. Martin Bilbao bilbotarra txaloak entzutearekin konformatu zen bere lehenengoan, ezpataz asmatu ez zuelako. Bostgarrenean ordea, ezpataz ere ongi atera zitzaizkion gauzak eta belarria eman zioten. Rodolfo Velazquez hirugarrenean ezer egin gabe pasatu zen, baina seigarrenean bere estilo fina erakutsiz belarria lortu zuen. Banderila–pareak sartzeko zeukan era, ikaragarri gustatu zitzaion jendeari.

1936. urteko maiatzaren 2an, korrida ospatu zen Bilboko Vista Alegren. Manuel Mejías *Bienvenida*, Jaime Noain eta Rafael Ponce *Rafaelillo* etorri ziren Conde de la Corte–ren sei zezen txiki samar toreatzera. Manuel *Bienvenida*k lehenengoan legea bete zuen eta laugarrenean belarria irabazi, faena alai eta polita osatu ondoren. Jaime Noain bigarren zezenean ausart eta menperatzaile aritu zen belarri bat lortuz. Bostgarrenean berriz, jendea liluratu egin zuen emozio, aginte eta neurriz betetako faenari esker. Ezpata gainera oin–hegazka bikain sartu zion eta sari guztiak (bi belarri eta buztana) eman zizkioten. Rafael Ponce *Rafaelillo*, zalantzaz ibili zen hirugarren zezenean. Segiarrenean berriz, ausartago aritu zelako jendeak txaloak jo zizkion. Itzaleko tendidua 12 pezeta eta eguzki aldekoa 8 pezeta kostatu ziren arratsalde hartan.

1.936.eko maiatzaren 24ean *charlotada* ikusi ahal izan zuten bilbotarrek Vista Alegren. Rafael Dutrus *Llapisera*k lan egin zuen Julian Sanchez Laso–ren zekortxoak toreatuz. Haietako batek ordea Toribio Navarro *Navarrito II.a* banderilari valentziarra kolpatu eta hil egin zuen. *Charlotada* bertan behera gelditu zen orduan.

Ganaduzale beraren sei zezenko toreatzera Gabriel Alonso, Jose Etxebarria bilbotarra eta Beatriz Santullano burtzikaria aurkeztu ziren ekainaren 7an Bilboko Vista Alegren. Ekainaren 11n eta leku berean, Modesto Rodriguez eta Segundo Arana bilbotarrek Beatriz Santullano burtzikariarekin Julian Sanchez Laso–ren beste sei toreatu zituzten.

1.936.eko ekainaren 14eko nobilladan, Julian Sanchez Laso–ren zezenkoak korritu zituzten Vista Alegren. *Pakito* Villarroel barakaldarra eta bi emakume (Amelia eta Enriqueta Palmeño ahizpak) aritu ziren lanean. Villarroel barakaldarra bizkar gainean atera zuten plazatik, eta bi ahizpak ere halaxe ateratzen saiatu ziren gazteak.

Ekainaren 21ean, Celso Pellón–en lau zezenko eta Ramon Lacruz–en bi toreatzen Palmeño ahizpak saiatu ziren berriz Vista Alegren, Isaias Terradillos–ek kartela osatzen zuelarik.

1.936.eko ekainaren 28an, Vista Alegren Campos Varela–ren sei zezenko toreatzeko aukera izan zuten toreatzaile *nobel*ek.

Uztailaren 3an eta Bilboko Zezenzaleen Klubak antolaturik, zezenfesta eman zen Vista Alegren Villagodio anaien ganadua korrituz. Manuel Jimenez *Chicuelo*, Vicente Barrera, Jaime Noain, Luis Gomez *el Estudiante*, Manuel Mejías *Bienvenida* eta Rafael Vega *Gitanillo de Triana* ezpatariak aritu ziren[1]. Villagodio anaiek bestetik (Alfredo eta Eduardo Etxebarriak) Madrilen 1.936.eko ekainaren 7an estreinatu zituzten beren zezenak[4].

1.936.eko uztailaren 5ean, *charlotada* ospatu zen Bilbon. *Llapisera* Juan Villarroel–en zekorrak toreatzen ikusi ahal izan zuten. Ganaduzale beraren beste lau zekor plazaratu zituzten leku berean uztailaren 10ean, Bilboko automobil–gidariek antolatutako

festan[1].

Toreatzaile bizkaitarren artean Jaime Noain zen famatuena 1.936. urtean. Diego Markiaran *Fortunak* izan ere ez zuen urte hartan toreatu eta Peru aldera abiatu zen. Han korridaren bat toreatu eta eroetxera eraman behar izan zuten, gaixorik zegoelako. Jaime Noain bilbotarra ordea, oso momentu onean zegoen eta hogeitabost korridatan parte hartzea lortu zuen[5].

Pedro Basauri *Eibarreko Pedrutxo* ere korridak toreatzen ari zen 1.936. urtean. Sei arratsaldetan jantzi zuen traje distiratsua[3].

Jose Bermejo Berasategi banderilari bergararra, Luis Gomez *el Estudiante*ren koadrilan ibilia zen (maisua zezenko-hiltzaile zen bitartean). Francisco Martin-Caro *Curro Caro*ren koadrilan 1.936. urterarte iraun zuen. Gero Antonio Caro-ren koadrilara pasatu zen[2].

Azpeitian 1.936.eko urtarrilaren 2an, zezenplaza zaintzearren pertsona bat izendatzea egoki iruditu zitzaien. Pedro Segurola jauna izan zen horretarako aukeratua[9].

Donostian 1.936. urtean eman zen korridaren bat. Antonio Marquez-ek parte hartu bait zuen batean, bere erretiroa hautsiz zezenplazatara itzultzea erabakita[7].

Iruñean 1.936.eko sanferminetarako lau korrida eta nobillada bat iragarri zituzten. Uztailaren 7an Albayda-ko markesaren sei zezen Domingo Lopez Ortega, Luis Gomez *el Estudiante* eta Rafael Ponce *Rafaelillo*rentzat izango ziren. Biharamunean, uztailaren 8an, Fermin Espinosa *Armillita chico*, Ortega eta Rafael Vega *Gitanillo de Trianak* Tassara-ren sei zezen hilko zituzten.

Uztailaren 9an nobillada ematea erabaki zen, Argimiro Perez Tabernero-ren sei zezenko jokatuz. Jose Sanchez Mejías eta Juan Belmonte toreatzaileek (izen berekoen semeek) toreatuko zituzten. Uztailaren 11n, Manuel Mejías *Bienvenida* eta Jaime Noain-entzat Perez Tabernero-ren sei zezen plazaratuko ziren. Uztailaren 12an berriz, San Fernando-ko Perez-en zortzi zezen toreatzera *Armillita chico, el Estudiante*, Francisco Martin-Caro *Curro Caro* eta Rafael Ponce *Rafaelillo* ekarriko zituzten[14].

Uztailaren 7ko entzierroan, zezenak batera heldu ziren plazara, baina batek ez zuen ikuiluetara sartu nahi eta azkenean kapotez sartzea lortu zen. Gero, betizuak atera zituzten ohi bezala gazteak diberti zitezen[41].

1.936. urtean Frantzisko Armendariz *Aguero* toreatzaile nafarrak nobillada apaletan lan egin zuen[3]. Urte hartantxe urtarrilaren 16an Iruñean Jesus Zuñiga Valencia jaio zen; gero zenbait nobilladatan lan egingo zuena[8].

Urtarrilaren 6an bestetik, korridatako ezpatei buruz arau berria argitaratu zen. Deskabellorako ezpatak, puntan gurutze-forma izango zuen; gaur egunekoak bezalaxe, hain zuzen[42].

Eta honenbestez emango diogu liburu honi amaiera. Badakigu Euskal Herriko zezenei buruz askoz ere albiste eta berri gehiago eman daitekeela, nahiz eta guk labur

beharrez ia–ia era telegrafikoan hona ekarritakoak gutxi izan ez. Besteak beste Euskal Herrian jaiotako ehundaka (bostehunetik gora gure kalkuluen arabera) toreatzaileren berri eman dugu eta baita beren zezenak hemen hazi dituzten beste ehun ganaduzale baino gehiagoren berri ere. Bego beraz bere horretan, 1.936.eko gerra eta geroztikorik aipatu gabe. Izan ere frankismoa baino lehenagokoak, milaka urte lehenagokoak, bait dira ZEZENAK EUSKAL HERRIAN.

16.- ZEZENAK XX. MENDEAN: (1931-1936). BIBLIOGRAFIA

(1) URUÑUELA ETXEBARRIA, EMILIANO. "LITRI". *La dama taurina de Abando*. Bilbo 1.973 (457-525. orr.)

(2) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 4. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1.971 (112, 359, 378, 439, 532, 582, 669, 902, 950. orr.)

(3) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 5. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (576, 635, 637, 666, 801, 995, 1006. orr.)

(4) AZUMENDI, JERMAN. *Bilbao, Cocherito y su Club*. Bilbo 1986 (104, 113, 122, 163, 173, 184. orr.)

(5) ESPINA, ROBERTO. *Toreros vizcainos*. Bizkaiko Aurrezki-Kutxa argit. Bilbo 1983 (29, 35, 42, 50, 53. orr.)

(6) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. Lehen alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (314, 329, 333, 337, 346, 355, 360, 366, 375, 376, 388, 390, 519, 682. orr.)

(7) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 3. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1978 (7, 8, 38, 55, 72, 94, 97, 124, 199, 214, 236, 264, 321, 351, 397, 472, 475, 478, 508, 514, 544, 574-576, 673, 684, 697, 703, 749, 775, 792, 918, 928, 943, 944, 991, 1001. orr.)

(8) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 6. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1981 (61, 318, 324, 358, 375, 470, 473, 501, 536, 539, 570, 572, 576, 590, 596, 953, 1035. orr.)

(9) ELIAS, IMANOL. *Guía histórica y taurina de Azpeitia*. Azpeitiko Udala argit. Azpeitia 1986 (394, 398, 399. orr.)

(10) SOLERA GASTAMINTZA, ANTONIO. *Los toros en Guipúzcoa*. Donostia 1974 (64, 82-84. orr.)

(11) SADA, XABIER MARIA. *Dos siglos de tamborrada*. Donostiako Aurrezki-Kutxa argit. Donostia 1977 (164, 173. orr.)

(12) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Emocionantes retazos de la vida de Antonio Rosales "Carrilero", antiguo picador de toros*, in Club Taurino Pamplona 1985. Iruñea (34-36. orr.)

(13) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Hemingway y los sanfermines*. Iruñea 1970 (111, 112. orr.)

(14) OLLAKINDIA, RIKARDO. *Pamplona, 100 años de carteles de las Fiestas y Ferias de San Fermin*. Nafarroako Aurrezki-Kutxa argit. Iruñea 1982 (1931-1936)

(15) CASTAGNON, ROBERT. *Derriere la talanquere*. Nogaro 1986 (54, 122, 134. orr.)

(16) LOINAZ ODRIOZOLA, LUIS MARIA. *Recordando a un diestro*, in Diario Vasco 1987-VII-30

(17) CAMPO, LUIS DEL. *El encierrillo*. Navarra.Temas de cultura popular. 91. alea. Iruñea 1978 (29. orr.)

(18) IRIBARREN, JOSE MARIA. *Los toros de Navarra*, in Principe de Viana 1942. Iruñea (381. orr.)

(19) LOPEZ BECERRA, AURELIANO."DESPERDICIOS". *Los italianos y los toros*. Editorial vizcaina argit. Bilbo 1935 (128-135. orr.)

(20) COSSIO, JOSE MARIA DE. *Los toros*. 7. alea. Espasa-Calpe argit. Madril 1984 (602, 613, 664. orr.)

(21) POPELIN, CLAUDE. *Los toros desde la barrera*. Rialp argit. Madril 1966 (120-129. orr.)

(22) PINTO MAESO, LUIS. *Plazas de toros de España*. Pinmas argit. Madril 1981 (78, 79.

orr.)
(23) ARELLANO, PEDRO. *Folklore de la Merindad de Tudela*, in Anuario de Eusko Folklore 1933 (165, 175, 176. orr.)
(24) ZUÑIGA VALENCIA, JESUS. *Toreando por Navarra*. Iruñea 1981 (118. orr.)
(25) X,X. *Agrupación Hermanos Camino, la recuperación de la tradición taurina*, in La Voz (Donostia) 1983–VIII–22
(26) LINAZASORO, IÑAKI. *H gabeko umoria*. 72. alea. Kuliska sorta. Itxaropena argit. Zarautz 1970 (154, 155. orr.)
(27) "ARRATI". *Dima herriari*, in Egin 1982–XII–23
(28) ARRIZABALO, JOSE MANUEL. *Baso mutilak*, 134. alea. Auspoa argit. Tolosa 1979 (168, 169. orr.)
(29) GARMENDIA, TXOMIN eta LINAZASORO, IÑAKI. *Gipuzkoa bihiotz–begietan*. Gipuzkoako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1983 (358. orr.)
(30) OLAIZOLA, MANUEL. "UZTAPIDE". *Sasoia joan da gero*. Auspoa argit. Tolosa 1976 (57. orr.)
(31) "ARRIZ". *La gran tradición taurina de nuestra villa*, in Deia 1984–VI–22
(32) CALLE ITURRINO, E. *Los misterios del Gorbea*, in La Gran Enciclopedia Vasca. 2. alea. Bilbo (634, 652. orr.)
(33) OLAIZOLA, MANUEL."UZTAPIDE" *Lengo egunak gogoan*. Lehen alea. Auspoa argit. Tolosa 1974. (168–172. orr.)
(34) AMUATEGI, TERESA. *Deva y mis recuerdos*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (17–22, 30. orr.)
(35) ZUBIKARAI, AGUSTIN. *Motrico. Apuntes, extractos y divagaciones*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1969 (8. orr.)
(36) ZUMALDE, IÑAKI. *Oñate*. Donostiako Aurrezki–Kutxa argit. Donostia 1970 (62. orr.)
(37) ERAUSKIN, J. RAMON. *Aien garaia*. Auspoa argit. Tolosa 1975 (42, 229, 232–234. orr.)
(38) ZABALA, A. *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*. 63–64. alea. Auspoa bilduma. Tolosa 1967 (209, 216–220. orr.)
(39) CAMPO, LUIS DEL. *Historia trágica del encierro de Pamplona*. Iruñea 1978 (18–25. orr.)
(40) VIERGE, GALO. "BONARILLO". *Toros y torerillos de Navarra*, in Vida Vasca 1955 (164. orr.)
(41) SALABERRIA, SEBASTIAN. *Neronek tirako nizkin*. 38. alea. Auspoa bilduma. Tolosa 1964 (50, 51. orr.)
(42) MULAS PEREZ, I. Toros. *Introducción a la verdad del toreo*. Avesta argit. Bartzelona 1982 (107. orr.)

ESKER ON

Liburu hau osatzeko behar izan dudan materiala biltzen Artxibo eta Liburutegi desberdinetan ibili behar izan dut, eta eskaini didaten laguntza, guztiz estimagarria suertatu zait. Ez nuke, beraz, nere esker onaren adierazpena egin gabe utzi nahi. Honako Liburutegi eta Artxiboak aipatu nahi nituzke bereziki:

- Gipuzkoako Foru–Diputazioko liburutegia.
- Donostiako Udal–liburutegia.
- Bizkaiko Foru–Diputazioko liburutegia.
- Baionako Udal–liburutegia.
- Gipuzkoako elizbarrutiko artxiboa.
- Oñatiko artxibo probintziala.
- Tolosako artxibo probintziala.
- Bermeoko Udal–artxiboa.

Halaber, eskerrak luzatu nahi dizkiet era batera zein bestera liburu hau argitaratzen lagundu didaten guztiei eta Joxe Azurmendiri bereziki, bere hitzaurreagatik.

ERANSKINAK

A. HIZTEGIA

Ondoan, zezenen munduan (edo planetan) erabiliak diren hitzen zerrenda ematen da Euskara–Gaztelania eta Gaztelania–Euskara ordenean. Derrigorrezkoa deritzot ordea, labur–labur ohar zenbait egiteari.

Batetik, Euskara–Gaztelania zerrendetan bada zezenetako hiztegi berezituan ezezik beste testuinguru askotan ere aplikagarri diren terminoak. Dena den, irakurle bati baino gehiagori ezezagun gertatuko zazikiola pentsatzen dugu eta horregatik ipini dugu ondoan erdal ordaina.

Beste gomendio bat, zera litzateke: zerrendetako hitz asko eta asko zezenetako argotekoak direla kontutan hartu beharra. Zezenen munduak izan ere oso argot aberatsa eta zehatza bait du.

Eta azkenik, ondoko hiztegitxo berezitu honen behin-behinekotasuna azpimarratu nahi nuke. Proposamen gisa emana dela uler bedi beraz, beste idazleek ere zerrenda hauek osatu eta hobeto landuko dituztelakoan; edozein gizalan bezalaxe hau ere gaindi daitekeena bait da.

EUSKARA – GAZTELANIA

Abaniko-pase = Pase de abanico
Abelazkuntza = Ganadería (langintza)
Abelburu = Cabeza, res (kopurua adierazteko)
Abelgorri = Ganado vacuno
Abere = Ganado
Abiada = Arrancada
Abiatu = Arrancar; partir
Abisu = Aviso
Abonamendu = Abono
Abonatu = Abonar; abonado
Adakera = Encornadura; cornamenta; arboladura, armamento; armadura
Adar = Cuerno; asta
Adar arrailatu = Cuerno agrietado
Adar artean harrapatu = Encunar; encunado
Adar artera sartu = Encunarse
Adarbakar = Unicornio
Adarbeltz = Astinegro; corninegro
Adarbildu = Corniapretado; corniabrochado; cornibrocho; abrochado; brocho; cubeto
Adardun = Cornudo
Adar-enbor = Pala
Adar-euskarri = Soporte córneo
Adar gainetik = Transcuerno, al
Adargako = Cornivuelto; engafetado
Adar-giltza = Clavija
Adargora = Cornialto
Adar-hondo = Cepa
Adarje = Cornamenta; encornadura; cuerna; velamen
Adarka = Acorneando
Adarkada = Cornada; cabezada; pitonazo; derrote, hachazo; tarascada; gañafón
Adarkadatxo = Puntazo
Adarka egin = Acornear
Adarkari = Acorneador
Adarkatu = Acornear; cornear; encornar; empitonar; derrotar
Adarkera = Cuerna; velamen
Adarlabur = Cornicorto
Adarlodi = Cornigordo; astigordo
Adarluze = Cornalón
Adarmakur = Bizco
Adarmotz = Mocho; mogón; hormigón
Adarmoztu = Desceparse
Adarpunta = Pitón
Adarrak = Cuernos; defensas
Adarrandi = Cornalón
Adarrapal = Gacho; cornigacho; cornicacho
Adarsardi = Veleto; corniveleto
Adartente = Cornialto; cornilevantado
Adartxordo = Cornibajo
Adarzabal = Corniabierto; corniancho; paleto

Adarzorrotz = Astifino
Adarzuri = Corniblanco; astiblanco
Adarzutak = Velas
Adastun = Meleno
Adats = Melena
Aditu = Experto; entendido
Administrari = Administrador
Adondo = Cuna
Aforo = Aforo
Afrontu = Intemperie
Agerian geratu = Descubrirse
Agertaldi = Alarde
Agindu = 1.- Orden. 2.- Mandar
Agintari-delegatu = Delagado de la autoridad
Agintaritza gobernatzaile = Autoridad gubernativa
Aginte = Mando
Agoantatu = Aguartar
Ahaide nagusi = Pariente mayor
Ahaldundu = Apoderado
Ahalmen = Poder
Ahalmen genesiko = Poder genésico
Ahaltsu = Largo
Ahari-talkan = Topacarnero,a
Ahul = Flojo
Ahuldura = Agotamiento
Aintzinhistoria = Protohistoria
Aintzin-masta = Mástil de trinquete
Aitabitxi = Padrino
Aitaponteko = Padrino
Aitorpen zinegin = Declaración jurada
Aje = Dolencia
Akastun = Defectuoso; de desecho
Akats = Muesca (belarrian)
Akats fisiko = Defecto físico
Akidura = Agotamiento
Akitu = Agotarse
Akoplatu = acoplarse
Akta = Acta
Akuaforte = Aguafuerte
Akuilu = Aguijón
Akuratu = Alquilar
Akzio-jaulkipen = Emisión de acciones
Alabardari = Alabardero
Alakatu = Biselado
Albaitari = Veterinario; albeitar
Alboratu = Ladeado
Aldaketa = 1.- Cambio. 2.- Transformación
Aldatu = Cambiado (pasea)
Aldendu = Despegarse
Alderantziz = Contrario (bueltatu)
Aldiak = Tiempos
Alegilari = Fabulista
Alferitz = Alférez
Algoaziltxo = Alguacilillo
Alkabuz = Arcabuz
Alkabuzari = Arcabucero
Alondegi = Alhóndiga
Alternatiba = Alternativa
Altuera = Alzada
Altuerliebe = Altorelieve
Amantal-lantze = Delantal, pase de
Amarru = Truco
Angio = Dehesa
Ante-koloredun = Anteado
Antzinatasun = Antigüedad
Aorta = Aorta
Apaindura = Adorno
Apal samar = Caido (adarrak)
Apalzabal = Playero
Aparteko = Extraordinario
Apatx = Pezuña
Apezpiku = Obispo
Aragoar = Aragonés
Aragoar lantze = Aragonesa
Aragoar pase = Aragonesa; espaldas, pase de
Arakatz = Grosella
Arau = Cánon
Arautegi = Reglamento
Arbuiatu = Desechar; desecho
Ardaztu = Hilar
Argal = Escurrido
Argiztapen-instalazio = Instalación de alumbrado
Ariel = Arbitrio
Armarri = Escudo; blasón
Arpoi = Arpón
Arpoitxo = Arponcillo
Arponari = Arponero
Arrailatu = Agrietado
Arranpla = Rampa
Arrastatu = Arrastrar
Arraste = Arrastre
Arraste-ate = Puerta de arrastre
Arrastelu = Rastrillo
Arraste-patio = Patio de arrastre
Arraza = Raza
Arre = Barroso
Arriskutsu = Arriesgado
Arta = Diligencia; cuidado
Arte = Arte

Arteztu = Conducir
Artifiziozko su = Fuegos artificiales
Artzaduke = Archiduque
Aholkulari = Asesor
Askari = Merienda; refrigerio
Astragalo = Astrágalo
Atabal = Atabal
Ate = Portón
Ate nagusi = Puerta principal
Atera = Abrir
Atoiuntzi = Remolcador
Atsedenaldi = Intermedio (ikuskizunean)
Atxabitxi = Azabache
Atze = Cuarto trasero
Atzean gelditu = Rezagarse
Atzeko = Trasero
Atzendu = Rezagado; rezagarse
Atzera jo = Recular
Atzerakor = Reculón
Aurkezpen= Paseillo
Aurkezpen-kapote = Capote de paseo
Aurrea hartu = Ganar terreno
Aurrekalde = Delantera
Aurreko = Delantero/a
Aurrera-adardun = Cornidelantero
Aurrez aurre = Frente, de
Aurrez aurre kapotea atzean = Frente, de por detrás
Ausardia = Valor
Axuleiu = Azulejo
Azagai = Azagaya
Azalean sartu = Envainar
Azeleme = Raposa
Azkazal = Pezuña
Azkon = Azcona; azagaya
Azpi = Panza
Azpiko zuriune = Bragas
Azpizuri = Bragado
Atzapar-min = Glosopeda
Babes = Peto
Babestu = Cobijar
Bago = Haya
Baimen = Permiso; autorización
Baka = Chiquero; toril
Bakaratu = Enchiquerar; entorilar
Bakaratze = Enchiqueramiento
Bakatik atera = Desenchiquerar
Baldar = Maleta
Balea = Ballena
Balkoitxo = Balconcillo
Banaketa = Apartado; disgregación
Banatu = Apartar
Banda = Banda (musikan)
Bandera = Bandera
Banderadun = Abanderado
Banderila = Banderilla; rehilete; garapullo
Banderilak = Alegradores
Banderilak sartu = Parear; banderillear
Banderilak sartze = Banderilleo
Banderila-mutil = Mozo de banderillas
Banderilari = Banderillero; rehiletero
Banderilaztatu = Banderillear
Banderilaztatze = Banderilleo
Barandak = Barandillas
Barne-arau = Regla interna
Barrabil = Testículo
Barrera = Barrera
Barrera atze = Contrabarrera
Barrura sartu = Cortar
Barruti = Cercado
Basabehi = Vaca salvaje; vaca silvestre
Basebere = Animal salvaje; ganado silvestre
Baskula = Báscula
Basta = Albarda
Bastategi = Guadarnés
Bastatu = Albardado
Batera eta bestera begiratu = Desparramar la vista
Baxuerliebe = Bejorelieve
Bazka = Pasto
Bazkatu = Pastar
Begia kendu = Perder la cara (zezenari)
Begibeltz = Ojinegro
Begiko zuri = Catarata
Behe aldeak = Bajos, los
Behe aldean sarturiko = Bajonazo
Behe samarreko = Caida (ezpatakada)
Behi = Vaca
Behi-talde = Rebaño de vacas; vacada
Behor = Yegua
Beilegi = Royo claro; melocotón
Beira = Vidrio
Bekain = Ceja
Belarraldiak = Hierbas
Belarri = Oreja
Belarrisoil = Raso de orejas
Belaska = Blando
Belaskeria = Blandura
Belauniko-pase = Rodillazo
Belaunburu = Corvejón
Beltz = Negro
Beltzaran = Moreno

Beltziska = Negruzco
Benefizentzi jaialdi = Festejo benéfico
Berandu eraso = Tardear
Berantkor = Tardo
Berde = Verde; escarolado
Berdindu = 1.- Igualar; cuadrar. 2.- Parejo/a
Berdindu gabe = Desigualado
Berdintze = Igualada
Berna = Pierna
Beronika = Verónica
Beronikeztatu = Veroniquear
Besaburu = Omóplato; espaldilla
Besagain = Brazuelo
Besapez = Sobaquillo, de
Besapez sartu = Sobaquillear
Beso = Pata delantera
Betile = Pestaña
Betinguru = Cerco del ojo
Betizu = Vaca salvaje; vaca arisca
Betzulo = Orbital
Biak batean = Tiempo, a un
Bideratu = Embarcar
Biga = Erala
Bigantxa = 1.- Ternera; añoja. 2.- Vaquilla
Bigantxa bolaztatu = Vaquilla embolada
Bigantxak = Vaquillas
Bike = Pez
Bikote = 1.- Collera. 2.- Lote (bi zezen)
Bilatu = Buscar
Bildu = 1.- Recoger, agrupar. 2.- Compacto
Biratu = Revolverse
Bi(r)en artean = Alimón, al
Birerdi = Media vuelta
Biribil = Redondo (pasea)
Biribilean = Redondo, en
Birika = Pulmón
Birsaltzaile = Revendedor
Birtentatu = Retentar
Bisatu = Visado
Bizkar = Hombro
Bizkarbeltz = Lominegro
Bizkar-gurutze = Cruz; péndolas; agujas, las; rubios
Bizkarnabar = Lomipardo; lombardo
Bizkar-orno = Vértebra dorsal
Bizkarreango irteera = Salida a hombros
Bizkarreko = Costalada
Bizkarrezur = Columna vertebral
Bizkarrezur-muin = Médula espinal
Bizkarzulo = Yema
Bobido handi = Gran bóvido
Bola = Bola
Bolaztatu = Embolar; embolado
Bonet = Bonete
Bortxa = Alamar
Bosturteko = Cinqueño
Brida = Brida
Bridazko = Brida, a la (sistema)
Brindatu = Brindar
Brindis = Brindis
Brokel = Broquel
Bronka = Bronca
Bronkatu = Abroncar
Buhame = Bohemio
Bular-pase = Pecho, pase de
Bultza = 1.- Empujar; cargar; recargar. 2.- Apretar (zaldiari)
Bultzada = Empuje
Burdina = Hierro
Brudin marka = Hierro (marka)
Burdinurtu = Hierro fundido
Burrunbagailu = Petardo
Burruntzi-zulo = Agujero (belarrian)
Burtzi = Rejón
Burtzikada = Rejonazo
Burtzikari = Rejoneador/a
Burtzikatu = Rejonear
Burtziketa = Rejoneo
Burtzitxo = Rejoncillo
Burua altxarazi = Deshumillar
Burua kulunkatu = Cernerse
Buru joan = Encabezar
Buru jaiki = Cabeza levantada (zezenak)
Burukada = Cabezada; testarazo; topetada
Buruko = Montera
Burumuin = Sien
Burusare = Cofia; redecilla
Burusigile = Mantero
Burusikada = Mantazo
Buztan = Cola; rabo
Buztanetik eragin = Colear
Buztan-gailur = Penca del rabo
Buztanlabur = Rabicorto
Buztanluze = Rabilargo
Buztanmotz = Rabicorto; rabón
Buztanurdin = Rabicano
Buztanzuri = Rabiblanco
Damaskoihal = Paño de Damasco
Dantza egin = Danzar; bailar
Dantzatu = Bailar
Datorkiola = Recibiendo (zezena hil)
Dean = Deán

Debeku = Prohibición
Defendatu = Defenderse
Dei = Llamada; cite; envite
Deitu = Llamar; citar
Denboraldi = Temporada
Desafio egin = Desafiar
Desarmatu = Desarmar
Desbideratu = 1.- Torcerse. 2.- Quebrar. 3.- Vaciar; vaciarse
Desbideratze = Quiebro
Desestali = Descubrirse
Desfile = Desfile
Desgaikuntza = Inhabilitación
Deskabellatu = Descabellar
Deskabello = Descabello
Desplante = Desplante
Despopulatu = Despoblado
Dibisa = Divisa
Dindilu = Pendiente (belarrian)
Distiratsu = Luces, de (trajea)
Doblar = Etzan
Dobloi = Doblón (txanpona)
Dohaintza = Donación
Doitu = Ajustarse
Doktoratu = Doctorarse
Domeinu = Dominio
Dudazko = Incierto
Dukat = Ducado
Ebaki = Rajón
Edabe = Brevaje
Egoitza = Residencia
Egokitu = Ajustarse
Eguzkialde = Sol
Eguzkitzal = Sol y sombra
Ehorzketa = Enterramiento
Ehun-zerrenda = Banda (toreatzailearena)
Eite = Tipo
Ekitaldi = Tercio
Ekortu = Barrer
Elbarritu = Derrengar
Elizotsein = Beneficiado
Elkargune = Reunion; embroque
Elkar hartu = Compenetrarse
Elkartuz = Encuentro, al
Elkartzut = Perpendicular
Elkartzut ipini = Cuadrar
Elurreztatu = Nevado
Endekatu = Degenerado
Engainagarri = Truquista
Engainu = Engaño
Enkante = Subasta
Enpresa = Empresa
Enpresari = Empresario
Entzierro = Encierro
Entzierro txiki = Encierro txiki
Entzierrotxo = Encierrillo
Eper-begi = Ojo de perdiz
Erabat beltz = Negro zaino (zezena)
Eraisketa = Derribo
Eraitsi = Derribar
Eraman = Correr (zezena)
Eranskin = Postizo
Eraso = Atacar; acometer; embestir; acometida; embestida
Erasokor = embestidor
Erauzi = Extraer
Eraztun = 1.- Rodete. 2.- Anillo (adarrarena)
Eraztun alde = Tercio
Erdi = Media (ezpatakada-, beronika-)
Erdi alde = 1.- Medios. 2.- Afueras, las
Erdibasati = Semisalvaje
Erdiratu = Centrarse
Ereduzko = Carril, de
Eremu = Terreno; jurisdicción
Ergi = Eral
Eritegi = Enfermería
Erizaindegi = Enfermería
Erloju = Reloj
Ernari = Preñada
Erorketa = Caída; Tumbo
Erpe = Garra
Erralde = Ralde
Erraldoi = Gigante
Errape = Ubre
Errebotatu = Rebotarse
Erregosi = Estofado
Erregu = Robo
Erreklamazio = Reclamación
Errekorte = Recorte
Errematatu = Rematar
Erreserba = Reserva
Errespetu = Respeto
Errespetuzko = Serio
Erretaula = Retablo
Erretilu = Bandeja
Erret korrida = Corrida real
Erretorde = Virrey
Erreusa = Desecho
Erritmo = Ritmo
Errito = Rito
Erritual = Ritual

Erromantzetegi = Romancero
Ertain = Terciado
Ertz = Arista
Eserleku = Asiento
Eskaini = Brindar
Eskaintza = Brindis
Eskegi = Enganchar
Eskomiku = Excomunión
Eskorga = Carretilla
Eskribau = Escribano
Esku-aldaketa = Cambio de manos
Eskubakar-lantze = Larga
Eskubakar-lantze aldatu = Larga cambiada
Eskubakar-lantze faroldu = Larga afarolada
Eskubakar-lantze kordobar = Larga cordobesa
Eskudel = Barandilla
Eskuin-pase = Derechazo
Eskuskribu = Manuscrito
Espaloi = Acera
Espartzu = Esparto
Estafermo = Estafermo
Estaia = Piso
Estali = 1.- Cubrirse. 2.- Padrear (zezenak)
Estatua-pase = Estatuario
Estualdi = Achucón
Estugune = Estrechamiento
Estutu = Achuchar
Etsi = Desengañarse
Etzan = 1.- Acostarse; echarse. 2.- Volcarse, tirarse
Etzate = Acostamiento
Ezbehar = Accidente
Ezgauza = Inútil
Ezkogile = Cerero
Ezinobe = Carril, de
Ezkerti = Zurdo
Ezkutaleku = Burladero
Ezkutatu = Taparse; cubrirse
Ezkutu = Escudo (txanpona)
Ezpain = Labio
Ezpartin = Alpargata
Ezpata = Ezpada; estoque
Ezpatakada = Estocada; espadazo
Ezpatakada-erdi = Media estocada
Ezpatakada oso = Estoconazo
Ezpata-mutil = Mozo de espadas
Ezpatari = Espada; estoqueador
Ezpatariorde = Media-espada
Ezpata-sagar = Empuñadura (ezpatarena)
Ezpata sartu = Estoquear
Ezpataz hil = Estoquear
Ezpel = Boj
Ezproin = Espuela
Eztandagailu = Petardo
Ezten = 1.- Aguijón. 2.- Puya
Ezten-haga = Pica; garrocha
Eztenkada = Puyazo
Eztenkatu = Picar
Ezuste = Extraño
Faena = Faena
Fakultatu = Facultativo
Farol = Farol
Faroldu = Afarolado/a
Feria = Feria
Ferra = Herradura
Ferra-arku = Arco de herradura
Fidatzaile = Fiador
Fiel = Fiel (udaleko lanbidea)
Finkatu = Sujetar; fijar; parar; parado
Fits = Cairel
Fistu = Acairelado
Franela = Franela
Freskatu = Refrescar
Funtsezko organo = Organo vital
Funtzionari = Funcionario
Gainera sartu = Colarse
Gainera sartze = Colada
Gaineratu = Cargar
Gaitz kutsakor = Enfermedad infecciosa
Gako = Garabato (belarrian)
Galdaragin = Calderero
Galgaketa = Temple
Galgatu = Templar
Galpar = Guedeja
Galsoro = Trigal
Galtzak = Taleguilla
Ganadu = Ganado
Ganadutegi = Ganadería (lekua)
Ganadutegi-lehiaketa = Concurso de ganaderías
Ganaduzale = Ganadero
Gaona-lantze = Gaonera
Garai = Alto (zezena)
Garaikide = Contemporáneo
Garbi = Boyante; claro; limpio (zezena)
Garezur = Cráneo
Garranga = 1.- Arpón (banderilarena). 2.- Hendija; hendida (belarrian)
Gauzaeztandu = Inutilizarse
Gaztainkara = Castaño
Gaztain-koloreko = Castaño

Gehigarri = Añadido
Geldi erazi = Refrenar
Gelditu = Parar
Geldotu = Amorcillarse
Geratu = Quedarse
Gernu = Orina
Gerrentxo = Verduguillo
Gerrikatu = Ceñirse
Gerriko = Faja
Gerrizilau = Ensillado; sillón
Gerrontze = Justillo; chupilla
Gertaera = Avatar
Gidari = Guía (joalduna)
Gidatu = Correr (zezena)
Giharreak = Blandos, los
Gila = Quilla
Giltza = Articulación
Giltzazain = Conserje
Giltzurrin = Riñón
Girgilu = Grillo; grillete
Girten = Empuñadura
Gizen = Gordo
Gizendu = Atacar
Goarda zinegin = Guarda jurado
Gogatsu = Voluntarioso
Goialde = Alto (zezenarena)
Goitiko pase = Alto, pase por
Goitizen = Mote
Goleta = Golilla
Goleta-traje = Traje de golilla
Gomendio = Encomienda
Gor = Sordo
Gorbehera = Avatar
Gorde = 1.- Reservar. 2.- Cobijar
Goren = Supremo/a
Gorotz = Boñiga
Gorri = 1.- Rojo. 2.- Colorado
Gorribeltz = Retinto; tostado obscuro
Gorrilun = Tostado; colorado obscuro
Gorrimin = 1.- Carmín. 2.- Jijón
Gorri orbandu = Anteado
Gorta = Sel
Gotorleku = Baluarte
Gotortu = Crecerse
Gozakaitz = Bronco
Gozaketa = Temple
Gozatu = 1.- Recrearse. 2.- Templar
Gozo = Suave
Gozogile = Confitero
Gozotasun = Suavidad
Grana = Grana
Granadari = Granadero
Granate = Grana
Guraize-pase = Pase de tijera
Gurpil-pase = Molinete
Gurutzatu = Cruzar; cruzarse
Gurutze = Cruce
Gurutzeta = Cruceta
Gurutzuntzi = Crucero
Haga = Palo; vara
Hagakari = Garrochista
Haga luze = Vara larga
Haizea eman = Abanicar
Haizetara eragin = Flamear
Hamarren = Diezmo
Hankabarren = Cabo (zezenarena)
Hankabeltz = Botinero
Hankak = Remos
Hankaluze = Zancudo
Hankazuri = Calcetero
Hankean = Grupa, a la
Hanketako kemen = Patas; piernas; piés
Haragi = Carne
Haratuzte = Abstinencia; vigilia
Haratuzte-egun = Día de abstinencia
Harearri = Piedra arenisca
Hariztatu = Enhebrar
Harmaila = Grada
Harmailadi = Graderío
Harrapaketa = Cogida
Harrapatu = Arrollar; coger
Harrate = Desfiladero
Harrerauntsi = Pedrisco
Harro = Levantado
Harrotu = Engallarse; encampanarse
Harrotze = Encampanamiento
Hartzi = Desgreñado (ileak nahasian)
Hasierako abiadura = Velocidad inicial
Hauskara = Cenizo
Hausnartu = Rumiar
Hausnartze = Rumia
Hauste = 1.- Infracción. 2.- Cuarteo
Hautespen = Selección
Hautsi = 1.- Romperse. 2.- Quebrar. 3.- Cuartear
Hautsian = Cuarteo, al (banderilak)
Hazitarako zezen = Semental
Haztatu = 1.- Romanear. 2.- Tantear
Heldu = 1.- Agarrarse. 2.- Cuajado
Helduleku = Pomo; gavilán; gamuza (ezpatarena)
Heresia = Herejía

Heriotz burtzi = Rejón de muerte
Herren = Cojo
Herri-baso = Ejido
Herri-zezen = Toro del aguardiente
Hesi = Valla; vallado; talanquera
Hesohol = Berlinga
Heste = Intestino
Hezi = Domesticar; domesticado
Hezkaitz = Cimarrón (zezena)
Hezketa = Domesticación
Hierarkia = Jerarquía
Higatu = Desgastado
Higikortasun = Movilidad
Hilarri = Estela funeraria; lápida
Hiltegi = Matadero
Hiltzeko zezen = Toro de muerte
Hiri = Ciudad
Hiribildu = Villa
Hiri-espazio = Espacio urbano
Hiri-gutun = Carta puebla
Hirukote = Terna
Hondar = 1.- Arena. 2.- Anillo; ruedo; redondel
Hondarzale = Arenero
Horiska = Royo
Hurbildu = Ceñirse
Hurbiletik = Corto, en
Huste = Despejo (plaza)
Hustu = Despejar (plaza)
Huts egin = 1.- Marrar. 2.- Entrar en falso
Hutsegite = Marronazo
Ibilbide = Trayecto
Ibilbitarte = Recorrido
Idi = Buey
Idikeriak egin = Boyanconear
Iditzar = Boyarrón
Idulki = Pedestal
Igurtzi = Barrer (bizkarra)
Iheskor = Huido, suelto (zezena)
Ijara = Ijar; ijada
Ikara gorri = Pánico
Ikasi = Avisado
Ikerketa = Reconocimiento
Ikuilu = Cuadra; establo; corral
Ikuiluz ikuilu ibili = Corraleado
Ikusgarri = Espectacular
Ikuskizun = Función; espectáculo
Ilaia = Pelaje
Ilaje = Pelaje
Ile kizkur = Pelo rizado
Ile-lokarri = Moña
Iltzatu = Envarar
Inbutu = Manga; mangada (ganadutegian)
Indultu = Indulto
Infrakzio = Infracción
Inguratu = 1.- Acorralar. 2.- Arropar
Inhabilitazio = Inhabilitación
Ipurdi = Trasero
Iragan = Corrido, toro (zezena)
Iragarri = Pregonado
Iragazkaitz = Impermeable
Iraulkatu = Voltear, revolcar
Irazkin = Comentario
Irendu = Castrar; castrado
Irrigarri = Cómico; ridículo
Irrikitasun = Codicia
Irrikitsu = Codicioso (zezena)
Irteera = Salida
Irteera itxi = Tapar la salida
Irten = Salir
Iskintxo = Quiebro
Isolatu = Aislado
Istripu = Accidente
Isun = Multa
Itxura = Estampa; lámina; trapío (zezena-rena)
Itsaskor = Pegajoso
Itsatsi = Clavar
Itulari = Boyero
Itxoroski = Aspa
Itzai = Boyero
Itzal = Sombra
Itzuli = Revolverse
Itzulkor = Revoltoso
Izter = Muslo
Izterzain = Corva; jarrete
Izterzainak ebaki = Desjarretar
Izterzainak ebakitze = Desjarrete
Izuikara = Pánico
Izurrak = Chorreras
Izurrite = Epidemia
Izuti = Abanto
Izutu = Espantar
Izututa = Despavorido
Jaialdi = Festejo; festival
Jaka = Chaqueta
Jakatxo = Chaquetilla; Jaquetilla; Chupa
Jarlekuzain = Acomodador
Jasan = Aguantar
Jatorri = Procedencia
Jaurtiki = Escupir (ezpata)
Jauzi = Salto; brinco

Jauzika ibili = Rebrincar
Jazarri = Acosar; perseguir
Jipoi = Jubón
Joaldun = Cabestro; manso
Joaldunzain = Cabestrero
Joare = Cencerro
Joera = Querencia
Joera hartu = Aquerenciarse; querenciarse
Joka = Acorneando (zezena)
Jokaldi = Jugada
Jokari = Acorneador (zezena)
Jokatu = Correr; corrido; placeado
Jori = Largo (toreatzailea)
Josi = Ligar (paseak)
Jubilio = Jubileo
Juntura = Articulación
Kafa egin = Escarbar; desafiar (zezenak)
Kafatu = Escarbar; desafiar (zezenak)
Kailejoi = Callejón
Kaiola = Jaula; cajón; gaiola
Kaiolaratze = Encajonamiento
Kaiolatik atera = Desencajonar
Kalkaneo = Calcáneo
Kalonje = Canónigo
Kanalean = Canal, en
Kanoikada = Cañonazo
Kanpan buelta = Vuelta de campana
Kapa = Capa
Kapadun = Doblador
Kapela = Sombrero
Kapera = Capilla
Kaperau = Capellán
Kapote = Capote
Kapote-pase = Capotazo
Kaputxino = Capuchino
"Karioka" = "Carioca"
Karraskatu = Limar; limado
Kartel = Cartel
Kartel iragarle = Cartel anunciador
Kartulari = Cartulario
Kasakatxo = Casaquilla
Kasta = Casta; raza; sangre; reata
Kastagabetu = Descastado
Kastatsu = Encastado
Kastorezko = Castoreño (txapela)
Kategoria = Categoría
Kaxoiratu = Encajonar
Kaxoiratze = Encajonamiento
Kaxoitik atera = Desencajonar
Kazetari = Revistero
Kemen = Poder
Kementsu = Pujante
Kite = Quite
Kizki = Garfio
Klisket = Capirote
Koadrila = Cuadrilla
Koadrila-ate = Puerta de cuadrillas
Koinatu = Cuñado
Kokapen = Colocación
Kokatu = Colocarse; emplazarse
Kokote = Cogote
Kokoteko = Pescuecero/a
Kokots = Barbilla
Kokotsez igurtzi = Barbear
Koldar = Cobarde; manso
Koldarrarena egin = Mansear
Koleto = Coleto
Kolpatu = Arrollar; atropellar
Kolpe = Golpe
Konkor = Morrillo
Konkortu = Enmorrillado
Konpas = Compás
Konplitu = Cumplir
Kontrabarrera = Contrabarrera
Kontrako aldeko = Contrario/a (ezpatakada)
Kontrako aldera = Suerte contraria (ezpataz)
Kontsentitu = Consentir; consentido
Kontuzko = Cuidado, de
Kopeta = Frente; testuz
Kopetazuri = Lucero
Kopetilun = Estrellado
Kopetmarradun = Frontino
Kordegabetu = Descordar
Kordeleztatu = Encordelado
Kordel kolaztatu = Cuerda encolada
Kornukopia = Cornucopia
Koroatu = Coronar
Korrida = Corrida
Korrikari = Corredor
Korritu = Correr; corrido
Korta = Corral; cuadra
Kortaz korta ibili = Corraleado
Koska = Estribo
Kotoi = Algodón
Krioilo = Criollo
Krokatu = Enganchar
Kulunkatu = Cabecear
Kutxa zigilatu = Caja precintada
Kuxin = Almohadilla
Labain = Resbaladizo
Lagartijoar = Lagartijera (eztapakada)
Laguntzaile = Auxiliar

Laiategi = Rabisaco (belarrian)
Laka = Pago de la molienda
Lakio = Lazo
Lanabesak = Trastos, los
Landetxe = Almunia
Lantzakada = Lanzada
Lantzapunta = Punta de espada; punta de lanza (belarrian)
Lantzaz jo = Alancear
Lantze = Suerte; lance
Larrabehi = Vaca arisca; vaca brava
Larratu = Pacer; pastar
Larre = 1.- Pastos. 2.- Dehesa
Larrebil = Pardina
Larru = Pinta; piel; pellejo; capa; cuero
Larrutu = Desollar
Larrututa = Canal, en
Larrutze-gela = Desolladero
Laru = Pajizo
Lasterketa = Carrera
Latorri = Hojalata
Latorritegi = Hojalatería
Lauazka = Galope; galopando
Laugain = Galope
Laugainka = Galopando
Lauoineko = Cuadrúpedo
Laurdendu = Descuarte (belarrian)
Lauso = Burriciego; reparado de la vista
Lauurteko = Cuatreño
Legea bete = Cumplir
Legezko ordezkari = Representante legal
Lehendakari = Presidente
Lehendakaritza = Presidencia
Lehiatsu = Pronto
Lehoi antzeko = Aleonado
Leihatila = 1.- Tronera (torilgainekoa). 2.- Taquilla
Lekaio = Lacayo
Lekuizen = Topónimo
Lekuko = Testigo
Lekuz aldatu = Enmendarse
Lepagain = Gatillo
Lepamagal = Badana
Lepamotz = Degollado
Lepa orno = Vértebra cervical
Lepazoko = Cerviguillo
Lepo = Cuello
Lepondo = Cerviz
Lera = Narria
Lermatu = Mermar
Lerrokatu = Perfilar
Lerrokaturik = Rectitud, en
Libera = Libra (txanpona)
Libratu = Despejar (plaza)
Libratze = Despejo (plaza)
Libre = Suelto
Lislore = Flor de lis
Lisloretu = Flordelisado
Lotu = Ligar
Lunerdi = Media luna; desjarretadera
Luzatu = Estirarse
Luze = Largo
Mahukutsik = Mangas de camisa, en
Maina = Truco
Mairu = Moro
Maisu = Maestro
Maizter = Inquilino
Makailo = Bacalao
Makila = 1.- Palillo. 2.- Estaquillador
Makilakada = Palotazo
Makulutxo = Muletilla
Makurtu = 1.- Humillar; descubrirse (burua). 2.- Alabeado
Makurtze = Humillación
Maletila = Maletilla
Maltzur = Astuto; marrajo; sentido, de
Mandako = Mulilla
Mandazain = Mulillero
Maneiagarri = Manejable
Manolete-pase = Manoletina
Manoletina = Manoletina
Mantso = Manso
Marai = Maravedí
Margul = Mulato
Marra = Raya
Marrabeltz = Verdugo (zezena)
Marrabelztun gorribeltz = Chorreado en verdugo; bardino
Marragorridun = Morcillo
Marraju = Marrajo
Marratu = Chorreado
Marro = Mugido; bramido
Marroa egin = Bramar
Marroatu = Bramar
Marrolari = Bramador
Martzal = Noble
Masailezur = Maxilar
Maskaro = 1.- Careto. 2.- Berrendo en negro
Matraila = Carrillo
Matxura = Avería
Maula = Fraude

Maulazko eskusartze = Manipulación fraudulenta
Mazukari = Macero
Mediku kirurgilari = Médico cirujano
Mediku-ziurtagiri = Certificado médico
Mendibehi = Vaca salvaje
Menpeko = Subalterno
Menperatu = Dominar
Merio = Merino
Metapodio = Metapodio
Mezu = Aviso
Mihise = Lienzo
Molinete = Molinete
Montera = Montera
More = Morado
Mortairu = Mortero
Morutxo = Morucho
Motots = 1.- Castañeta; coleta; moño. 2.- Penacho
Motz = Corto/a
Motzak = Cortas (banderilak)
Mozorro = Máscara
Moztu = Afeitar; desmochar (adarra)
Muleta = Muleta; flámula
Muletalan = Muleteo
Muleta-pase = Muletazo
Muletari = Muletero
Muletaz aritu = Muletear
Mundrun = Alquitrán
Musika-banda = Banda de música
Mutur = Morro; hocico
Muturbeltz = Hocinegro; bocinegro; carinegro
Mutur ilekizkur = Carifosco
Muturluze = Cariavacado
Muturmotz = Morricorto
Muturretik eutsi = Embarbar
Muturzuri = 1.- Hociblanco; bociblanco; rebarbo. 2.- Careto
Muxinkoka = Cachete, a
Nabar = Pardo
Nafar-lantze = Navarra (pasea)
Nafar-zezen = Toro navarro
Nahaste = Cruce (odolena)
Nano = Enano
Natural = 1.- Natural (pasea). 2.- Natural, suerte
Nekatu = Aplomado
Neurtu = Medir
Nobillada = Novillada
Nobillero = Novillero
Noble = Noble; franco
Nobletasun = Nobleza
Norabide = Dirección
Ohartu = Avisado
Ohitura txar = Resabio
Oholtza alde = Tablas
Oholtzalde = Adentros, los
Oholtzaratu = Entablerarse
Oholtzatik atera = Desentablerar
Oihal = Paño
Oin-hegazka = Volapié, al
Ointoki = Estribo
Okots = Barbilla
Oldar = Acometida; embestida
Oldartu = Acometer; embestir
Ongarri = Estiercol
Ontzako = Onza (txanpona)
Ontzako urre = Onza de oro
Oratu = Agarrar; pegar
Oratze = Pega
Orban = Mancha
Orbandu = Alunarado
Ordain-agindu = Libramiento
Ordainagiri = Recibo
Ordainsari = Emolumento
Ordotz = Verraco
Oreindu = Alunarado
Ordena publiko = Orden público
Ordezkatu = Relevar
Ordezko = 1.- Reserva. 2.- Sobresaliente
Orkatz = Gamuza
Orkoitu = Ahormar
Orratzak = Agujas (adarpuntak)
Orraztoki = Alfiletero
Ortoide = Ortoide
Orube = Solar
Oso = Orejisana (belarria)
Ostikada = Coz
Ostikari = Acoceador
Otar = Espuerta
Otarteko = Empanada
Otzan = Docil
Palku = Palco
Paper-sorta = Legajo
Parekatu = Emparejado
Parekatu gabe = Desigual
Partzuergo = Parzonería
Pasabide = Pasillo
Pase = Pase
Pasmo = Gangrena
Pasodoble = Pasodoble

Pausoan = Andando
Pausoan ibili = Gazapear
Pausoan ibiltze = Gazapeo
Pegar = Cántaro
Pelendengo = Pelendengue (belarrian)
Pentsu = Pienso
Peoi = Peón
Peritu-txosten = Informe pericial
Perkal = Percal
Pertsonal fakultatibo = Personal facultativo
Peso = Peso (txanpona)
Petenta = Arracada (belarrian)
Pika = 1.- Pica. 2.- Empinado
Pikadore = Picador; piquero; varilarguero
Pikadoredun nobillada = Novillada con picadores
Pikaldi = 1.- Vara. 2.- Suerte de varas
Pikart = Salpicado
Pikatu = Picar
Pikatzaile = Picador; Piquero; varilarguero
Piku-hosto = Hoja de higuera; ahigarada (belarrian)
Pilo = Bulto, montón
Pinto = 1.- Pinto; berrendo. 2.- Burraco
Piramide triangeluar = Pirámide triangular
Pisatze = Pesaje
Pisu = Romana
Pitxer = Azumbre
Pitzatu = Rasgada (belarrian)
Plaza higigarri = Plaza portátil
Plazari buleta = Vuelta al ruedo
"Post mortem" ikerketa = Reconocimiento "post mortem"
Potrazal = Escroto
Prestaketa = Trasteo (hiltzeko)
Prestakuntza = Aliño
Prestatu = Aliñar; trastear
Prezintatu = Precintar
Printzatu = Astillado; escobillado; escobillarse
Proba = Prueba; tanteo
Probaketa = Tienta; tentadero
Probaketa-plaza = Plaza de tientas
Proba-korrida = Corrida de prueba
Probatu = Tentar; tantear
Probatzaile = Tentador
Probestu = Preboste
Puntamotz = 1.- Despitonado; despitorrado. 2.- Tronza; media oreja (belarrian)
Puntazorrotz = 1.- Astifino; astiagudo. 2.- Puntas, en
Puntzet = Estoque
Purpusetak = Machos, los
Sabel = Vientre; tripa
Sabelarri = Vientre hundido, de
Sablada = Sablazo
Saiatu = Voluntarioso
Saihets = Costado; costillar
Saihets-hezur = Costilla
Sail = Piara; parada; tropa
Sakon = Hondo
Sakondu = Ahondar
Saltatu = Saltar
Salto = Salto
Samur = Suave
Sanitate-gida = Guía de sanidad
Sanitate-ziurtapen = Certificación de sanidad
Santzio = Sanción
Sarbide = Acceso
Saroe = Sel
Sarrailagin = Cerrajero
Sarrailari = Cerrajero
Sarrera = Puerta (belarrian)
Sartu = Clavar
Sartu-irten = Metisaca
Sasiko = Cunero (zezena)
Sasisuhar = Bravucón
Sastada = Puntillazo; punzada
Sastakada = Cachetazo
Sastakai = Puntilla; cachete; puñal
Sastakaigile = Puñalero
Sastakaiz jo = Atronar
Sastakari = Puntillero; cachetero; atronador
Sastakatu = Apuntillar; acachetear
Saskitzar = Esportón
Satai = Trapío; estampa; tipo; lámina
Segidan = Revuelo, al; relance, al
Segurtasun-baldintza = Condición de seguridad
Segurtasun-neurri = Medida de seguridad
Segurtatu = Asegurar
Sendaketa-kaiola = Cajón de curas
Sendategi = Sanatorio
Serpentina = Serpentina
Setatsu = Celoso
Setio-egoera = Estado de sitio
Sinadura-pase = Firma, pase de la
Soberako = Sobrero
Sokako = Gayumbo
Sokamutur = Toro ensogado
Soslaian = Sesgo, al

Soslaitu = Sesgar; perfilarse
Su artifizialak = Fuegos de artificio
Sudur-haize = Rebufe; bufido
Sudurmintz = Ternilla de la nariz
Sudur-ziztu = Rebufe; bufido
Sugaskilatu = Aserpentinada
Suhar = Bravo
Suhartasun = Bravura
Suhartu = Embravecerse
Suhi = Yerno
Sukar ustelak = Fiebres pútridas
Susara = Celo (behiarena)
Susmari = Receloso
Sutu = Fogear (suzko banderilak ipini)
Suzi = Tea
Suziri = Cohete
Suziridun = Encohetado
Suzko banderilla = Banderilla de fuego
Suzko zezen = Encohetado, toro
Taia = Tarja
Takateko = Encontronazo
Talde = 1.- Manada; rebaño; Piara; parada.
2.- Cuadrilla
Taldea eraman = Correr la manada
Taldea hautsi = Romper la manada
Taldeburu = Jefe de cuadrilla
Tankera = Estilo
Tapatia = Tapatía
Tarte = Tramo
Tauromakia = Tauromaquia
Tauromaki eskola = Escuela taurina
Teink = Estirón
Telefono-linea = Linea telefónica
Tendidu = Tendido
Tenperamentu = Temperamento
Tentetu = Engallarse; encampanarse
Terraza = Terraza
Tina = Tinaja
Tinbal = Timbal
Tinbalari = Timbalero
Tipo zootekniko = Tipo zootecnico
Tiraketa = Tirón
Tirante = Tirante
Toreagarri = Toreable
Toreaketa = Toreo
Toreaketa barregarri = Toreo cómico
Toreaketa klasiko = Toreo clásico
Toreaketa-zezen = Toro de lidia
Toreatu = Torear; toreado
Toreatzaile = Torero; toreador
Torerotxo = Torerillo
Toril = Toril
Torilari = Torilero
Torileratu = Enchiquerar; entorilar
Torileratze = Enchiqueramiento
Toriletik atera = Desenchiquerar
Torilgain = Meseta de toriles
Toril-sapalda = Meseta de toriles
Tornulari = Tornero
Traje distiratsu = Traje de luces
Trapukada = Trapazo
Tratu = Trato
Trebatu = Ponerse
Tresna = Instrumento
Tresnak = Trastos
Tresneria = Atalajes
Trikimako = Zanco
Trinko = Compacto
Trintxera-pase = Trinchera, pase de
Tripa = Tripa
Trofeo = Trofeo
Trokozero = Trococero
Trosta = Trote
Trostari = Trotón
Trufatu = Burlar
Turuta = Clarín
Turutajole = Trompetista
Turutari = Clarinero
Txahal txiki = Choto
Txaloak = Palmas`
Txaloaldi = Ovación
Txalotu = Jalear
Txanda = Turno; tanda; relevo
Txantiloi = Escantillón
Txantre = Chantre
Txapel = Montera
Txartel = Billete; entrada
Txarteldegi = Taquilla
Txarteltza = Billetaje
Txikuelina = Chicuelina
Txikueloar = Chicuelina (lantzea)
Tximeleta = Mariposa
Txinget = Argolla
Txingila = Lentejuela (trajekoa)
Txingote = Mamarracho
Txintxarri = Cascabel
Txirikorda = Coleta
Txorimalo = Dominguillo
Txosten = Revista
Txostentxo = Reseña
Txotxongilo = Dominguillo
Txuliaketa = Capea

Txuliatu = Capear; lancear; torear
Txuliatzaile = Capeador
Txulo = Chulo
Ubeldu = Amoratado
Udal = Ayuntamiento
Udaletxe = Casa consistorial
Uhal = Correa
Uhukatu = Abuchear
Ukabilka = Cachete, a
Ukondoz jokatu = Codillear
Ukondoz jokatze = Codilleo
Ule = Hule
Uleski = Moña
Ulna = Ulna
Umaldi = 1.- Parición. 2.- Camada
Umatu = Parir
Umea bereizi = Deshijar; desbecerrar
Umo = Cuajado
Unai = Vaquero; pastor de vacas; vaquerizo
Unai txipi = Boyerizo menor
Unanmaizter = Mayoral
Uniforme = Uniforme
Urdin = 1.- Cano. 2.- Cárdeno
Urdin-nabar = Gris pardo
Urdinska = Perlino
Urduritasun = Nerviosismo
Urkadun = Forcado
Urkiladun = Brincada (belarria)
Uro = Uro
Urratu = Desgarrar
Urratsez ibili = Gazapear
Urratsez ibiltze = Gazapeo
Urratsez urrats = Andando
Urre-bortxa = Alamar
Urreratu = Arrimarse
Urteko = Añojo
Urtxulu = Horqueta; horquilla (belarrian)
Uxada = Toque; excitación (zezena oldartzeko)
Uxartu = Hocicar
Uzkali = Derribar; mancornar (zezena)
Uzkalketa = Derribo
Xaki = Hierro; marca; señal
Xakialdi = Herradero
Xakiatu = 1.- Herrar. 2.- Fañar
Xakiatzaile = Herrador
Xaki egin = Fañar
Xaki-leku = Herradero
Xarlango antzeko = Agalgado
Xexen = Torete
Zabuka = Tambaleando
Zahagigile = Botero
Zakar = Bronco (zezena)
Zakilzuri = Meano
Zakurrak bota = Perrear
Zaldale = Pienso
Zaldi = Caballo
Zaldimutil = Mozo de caballos; monosabio
Zaldi-patio = Patio de caballos`
Zalditegi = Caballeriza
Zaldizko = Caballero; jinete
Zaldun = Caballero
Zaldun-ihaute = Domingo de carnaval
Zaletasun = Afición
Zaltegi = Caballeriza
Zaltzain = Caballerizo
Zamari = Acémila
Zanga = Alcatraz
Zangar = Bravo
Zangartasun = Bravura
Zangartu = Embravecerse
Zankarrapaz = Jineta, a la
Zapalaldi = Pisotón
Zapi = Pañuelo
Zartako = Porrazo
Zauri = Lesión
Zauritu = Herido; lesionado
Zeharka = Refilón, de
Zeharkatu = Cruzado/a; torcida; atravesada; atravesar
Zeihartu = Oblicuar
Zekor = Becerro
Zekor idisko = Becerro
Zekorkari = Becerrista
Zekorketa = Becerrada
Zekor urrixa = Becerra
Zela = Silla (zaldiarena)
Zelatu = Ensillar (zaldia)
Zeloide = Celoide
Zentrotarsal = Centrotarsal
Zepo = Cepo
Zerrenda = Lista
Zerrendatu = Listón
Zezen = Toro
Zezen- = Taurino
Zezena begiz jo = Ver al toro
Zezenak = Toros
Zezenfesta = Festejo taurino
Zezen gelditu = Toro parado
Zezen-hiltzaile = Matador de toros; matatoros
Zezenka = Toreando

Zezenkari = Lidiador
Zezenketa = 1.- Tentadero. 2.- Lidia
Zezenketa-erreusa = Desecho de tienta
Zezenketan aritu = Lidiar
Zezenketa-zuzendari = Director de lidia
Zezenko = Novillo; novillo-toro; utrero
Zezenko-hiltzaile = Novillero
Zezenkontrako = Taurófobo; antitaurino
Zezen-korrikari = Corredor de toros
Zezen-lasterketa = Encierro
Zezenplaza = Plaza de toros
Zezensuzko = Toro de fuego
Zezen-talde = Torada
Zezentoki = 1.- Chiquero. 2.- Coso; ruedo; anillo; redondel
Zezentxakur = 1.- Buldog. 2.- Alano
Zezentzar = Toraco
Zezenzale = Taurófilo; aficionado
Zigilatu = Sellado
Zigor = Castigo
Zigor-burtzi = Rejón de castigo
Zigor-pase = Pase de castigo
Zigortu = Castigar; pegar
Zil = Ombligo
Zimel = Correoso; escurrido
Zinegotzi = Jurado; concejal
Zingila = Cincha
Zingilatu = Cinchar
Zintzarri = Cencerro
Zintzilikario = Colgante
Zintzo = Pastueño
Zintzur = Gollete; garganta
Zintzurra egin = Degollar
Zintzurreko = Golletazo
Zirgilu = Argolla
Zirikatu = Azuzar
Zirkuitu = Circuito
Zirkunferentzia zentrukide = Circunferencia concéntrica
Zirikuzko sare = Red de seda (toreatzailearena)
Zirrindola = Arandela
Zirtoide = Cirtoide
Zirujau = Cirujano
Ziurtagiri = Certificado
Ziurtapen = Certificación
Ziztada = Pinchazo
Ziztatu = Pinchar
Zoldura = Infección
Zoladura = pavimento
Zoronga = Tocado coniforme
Zozketa = Sorteo
Zulatu = Barrenar
Zume = Mimbre
Zurezko ezpata = Estoque simulado
Zurgin = Carpintero
Zuri = Ensabanado (zezena)
Zurigorri = Salinero
Zurigorribeltz = Sardo
Zurihori = Jabonero
Zurihoriska = Albahío
Zurinabar = Asardado
Zurixkatu = Entrepelado
Zutabe = Pilarote
Zuzendaritza = Dirección
Zuzenean = Derecho, por

GAZTELANIA – EUSKARA

Abanto = Izuti
Abierto(adarrak) = Adarzabal
Abrochado = Adarbildu
Acometer = Eraso; oldartu
Acometida = Eraso; oldar
Acorneador = Adarkari; jokari (zezena)
Acornear = Adarkatu; adarka egin
Acostarse = Etzan
Achuchón = Estualdi
Adentros, los = Oholtzalde
Adorno = Apaindura; apaingarri
Afarolado/da = Faroldu
Afeitado = Moztu (adarra)
Aficionado = Zezenzale
Afueras, las = Erdi alde
Agalgado = Xarlango antzeko
Agrietado = Arrailatu
Aguantar = Jasan
